

*Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» XLVII-1 (2013)*  
Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta VI

---

Euskararen Lekukoak Bilduma, 27

*Alphonsa Rodriguez  
Jesusen Compagnhaco aitaren  
guiristhinho perfeccioniaren praticaren pparte bat  
(1782)*

Edizioa eta azterketa

Iñaki Camino



**EUSKALTZAINIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Ikerlan hau honako egitasmoen barrenean kokatzen da:

- a) *Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca*, UPV/EHU, UFI 11/14.
- b) *Núcleos innovadores de los dialectos vascos*, MEC, FFI2012-33190.
- c) *Monumenta linguae vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo*, MEC, FFI2012-37696.
- d) *Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada* (HLMV-LHC), UPV/EHU, GIC. IT698-13.

- © Iñaki Camino  
© «Julio Urkixo» Euskal Filología Instituto-Mintegia  
Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»  
«Julio Urkixo» Basque Philology Seminar Institute  
© Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque  
© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

# AURKIBIDEA

Aitzin-solas .....	xv
--------------------	----

## I. AZTERKETA

1. Liburua, idazlea eta itzulpenak .....	3
1.1. Alonso Rodríguez (1538-1616) .....	3
1.2. Lanaren itzulpen eta laburpenak .....	4
1.3. Orain artekoaz bestelako ikuspegia bat .....	14
1.4. Nafarroa Behereko idazki zaharretako mintzoaz eta idazleez. ....	18
1.5. <i>Pratica</i> -ko mintzoaz .....	23
1.6. Irudiak .....	34
2. Hizkuntzaren azterketa .....	41
2.1. Alderdi grafikoa eta fonemak .....	41
2.1.1. Iker zenbait .....	42
2.1.1.1. Dieresia .....	42
2.1.1.2. Azentu zirkunflexua .....	42
2.1.2. Bokalak .....	43
2.1.2.1. <i>a, e, i</i> eta <i>o</i> .....	43
2.1.2.2. /u/ eta /ü/ Ipar Euskal Herriko ekialdean .....	43
2.1.2.3. <i>Pratica</i> liburuko jokaera .....	44
2.1.2.4. Garai hartako beste lekuko bat .....	45
2.1.3. Diptongoak .....	47
2.1.4. Kontsonanteak .....	47
2.1.4.1. <i>j</i> fonema .....	47
2.1.4.2. <i>ff</i> fonema .....	48
2.1.4.3. Hasperena .....	48
2.1.4.4. Fonema ozenak .....	49
2.1.4.5. Biezpainkari sudurkaria .....	52
2.1.4.6. Dardarkaria .....	53
2.1.4.7. Txistukariak (2.1.4.7.1. Txistukari igurzkarien azterketa. 2.1.4.7.2. <s> eta <z> arteko nahasketa. 2.1.4.7.3. <z> bokal artean. 2.1.4.7.4. Txistukari igurzkari ahostunak. 2.1.4.7.5. Bokalarteko igurzkari apikari ahostuna Euskal Herriko ekialdean. 2.1.4.7.6. Bokalarteko igurzkari lepokari ahostuna Euskal Herriko ekialdean. 2.1.4.7.7. Txistukari afrikatuak azterketa) .....	54

2.1.4.8. Herskariak (2.1.4.8.1. Biezpaintkari ahoskabea. 2.1.4.8.2. Horzkari ahoskabea. 2.1.4.8.3. Belar ahoskabea. 2.1.4.8.4. Herskari ahostunak).....	62
2.2. Bilakabide fonikoak .....	68
2.2.1. <i>u</i> -ren palatalizazioa .....	68
2.2.2. <i>o &gt; u</i> aldaketa sudurkariaren aitzinean.....	68
2.2.3. Sinkoparik eta aferesirik eza .....	69
2.2.4. <i>ai &gt; ei</i> asimilazioa diptongoan.....	69
2.2.5. Erdiko bokalen disimilazioa .....	70
2.2.6. <i>aia &amp; eia</i> sekuentzia → <i>ea</i> soiltzea.....	70
2.2.7. Adizkietan <i>i</i> epentetikorik ez.....	71
2.2.8. Ozena + herskari ahoskabea .....	71
2.2.9. Ozenen palatalizazioa .....	72
2.2.10. <i>rz &amp; rtz / st</i> kontsonante taldeak .....	72
2.2.11. Bokal arteko kontsonante igurzkarien galera.....	73
2.2.12. Hitz hasierako <i>tz</i> .....	74
2.2.13. <i>rk</i> kontsonante taldea .....	74
2.2.14. <i>haur, hirur, laur</i> hitzen koda .....	75
2.3. Izenaren morfologia .....	75
2.3.1. Alderdi morfonologikoa: izenen forma .....	75
2.3.1.1. Berranalisiak: <i>ataku, kolpu</i> .....	75
2.3.1.2. <i>akusu</i> aldaera .....	75
2.3.1.3. <i>-l eta -le</i> .....	76
2.3.2. Izenaren erabilera biluzi edo mugagabeak .....	76
2.3.2.1. Izena eta <i>nolako</i> biluzirik .....	76
2.3.2.2. Zenbatzailea mugaturik: <i>guthia</i> .....	76
2.3.3. Kasu atzizkiak .....	76
2.3.3.1. Absolutiboa .....	77
2.3.3.2. Partitiboa .....	77
2.3.3.3. Ergatiboa .....	77
2.3.3.4. Datiboa .....	78
2.3.3.5. Edute genitiboa (2.3.3.5.1. Balio destinatiboa. 2.3.3.5.2. Osagarri zuzena. 2.3.3.5.3. Genitiboa extraposizioan) .....	78
2.3.3.6. Soziatiboa .....	79
2.3.3.7. Destinatiboa .....	79
2.3.3.8. Instrumentala (2.3.3.8.1. Agente eginkizuna. 2.3.3.8.2. <i>-zaz</i> atzizkia. 2.3.3.8.3. Pluraleko aldaera) .....	80
2.3.3.9. Prolatiboa .....	81
2.3.3.10. Inesiboa (2.3.3.10.1. Inesibo zaharra. 2.3.3.10.2. Lotura bokalik ez. 2.3.3.10.3. Biziaduneko <i>-tan</i> . 2.3.3.10.4. Atzizki lokatiboa inesiborik ez. 2.3.3.10.5. Egitura kontzesiboa eta inesiborik ez) .....	81
2.3.3.11. Ablatiboa (2.3.3.11.1. <i>-ti</i> eta <i>-tik</i> . 2.3.3.11.2. <i>barnarik / barnatik</i> . 2.3.3.11.3. <i>-gan</i> bizigabean. 2.3.3.11.4. <i>**-tika</i> ) .....	83
2.3.3.12. Adlatiboa .....	84

2.3.3.13. Muga adlatiboa . . . . .	84
2.3.3.14. Genitibo lokatiboa . . . . .	85
2.3.4. Birdeklinazioa . . . . .	85
2.3.4.1. <i>-ko</i> atzizkiaren funtziointerpretazioa . . . . .	85
2.3.4.2. Jabego genitiboen gainean eraiki diren kasu-atzizkien lotura . . . . .	86
2.3.5. Gobernuak . . . . .	86
2.3.6. Eratorpen atzizkien zerrenda . . . . .	87
2.3.7. Eratorpen atzizkien aldaerak . . . . .	89
2.3.7.1. <i>-xe</i> atzizkia . . . . .	89
2.3.7.2. <i>-xet</i> atzizkia . . . . .	89
2.3.7.3. <i>-os</i> atzizkia . . . . .	90
2.3.8. Pertsona izenordainak . . . . .	90
2.3.8.1. Pertsona izenordain arruntak . . . . .	90
2.3.8.2. Pertsona izenordain hanpatuak . . . . .	90
2.3.8.3. Pertsona izenordain hanpatuen sistema . . . . .	90
2.3.8.4. <i>neure</i> eta ( <i>h</i> ) <i>eure</i> aldaerak . . . . .	91
2.3.8.5. <i>ber</i> izenordain berrekailua . . . . .	92
2.3.8.6. <i>bera</i> izenordainaren bakartasun adiera . . . . .	92
2.3.8.7. <i>bere</i> singular eta plurala . . . . .	93
2.3.8.8. <i>bera-ren</i> aldaera inesiboa . . . . .	93
2.3.9. Izenordain zehaztugabeak . . . . .	93
2.3.9.1. Izenordain zehaztugabeen zerrenda . . . . .	93
2.3.9.2. <i>ehor / nehor</i> . . . . .	93
2.3.9.3. <i>nehor</i> polaritate negatiborik gabeko perpauseta . . . . .	94
2.3.9.4. <i>bat-en</i> mugagabeko aldaerak . . . . .	94
2.3.9.5. <i>batzu / batzuk</i> . . . . .	95
2.3.9.6. Aditzondo konposatura + <i>nabi</i> . . . . .	96
2.3.9.7. <i>oro-ren</i> jokaera . . . . .	96
2.3.9.8. ** <i>haina</i> . . . . .	96
2.3.10. Erakusleak . . . . .	97
2.3.10.1. Erakusleen zerrendak . . . . .	97
2.3.10.2. Beste erakusle hanpatuak . . . . .	97
2.3.10.3. Galdetzaileak . . . . .	97
2.3.10.4. Leku adizlagunak . . . . .	97
2.3.10.5. Erakuslea mugatziale . . . . .	97
2.3.10.6. Pluraleko lehen mailako erakuslea . . . . .	97
2.3.10.7. ** <i>hoiak</i> . . . . .	98
2.3.10.8. <i>hek</i> . . . . .	98
2.3.10.9. <i>burak</i> . . . . .	99
2.3.10.10. <i>bulako / holako</i> . . . . .	99
2.3.10.11. <i>horrein</i> . . . . .	99
2.3.11. Postposizioak . . . . .	99
2.3.11.1. <i>alde</i> . . . . .	99
2.3.11.2. <i>gañ</i> . . . . .	99
2.3.11.3. <i>ordu</i> . . . . .	99

2.3.12. Xedezko <i>-kotz</i> adizlagunetan . . . . .	100
2.3.13. Zenbakien sistema . . . . .	100
<b>2.4. Aditzaren morfologia . . . . .</b>	<b>100</b>
2.4.1. Alderdi kronologikoa: <i>Pratica-n</i> ageri ez diren ezaugarri zaharrak . . . . .	100
2.4.2. Ezaugarri zahar <i>Pratica-n</i> dirautenak. . . . .	104
2.4.2.1. <i>*eradun eta *i</i> ‘eman’ adieran . . . . .	104
2.4.2.2. Jokabide trinkoa duten aditz batzuk . . . . .	104
2.4.2.3. <i>edun-en</i> trinkoak agintezko perpausetan . . . . .	104
2.4.2.4. Baldintza erreal zaharra . . . . .	105
2.4.2.5. <i>liz eta lira</i> . . . . .	105
2.4.2.6. <i>l</i> morfemaren tempusa . . . . .	106
2.4.2.7. Aditz izen zaharrak . . . . .	106
2.4.3. Luzaz iraun duten ezaugarri zaharrak . . . . .	107
2.4.3.1. <i>d</i> - morfemarik eza agintezko Nor Norik aditz sailean . . . . .	107
2.4.3.2. <i>-era-</i> erroaren higadurari eza . . . . .	107
2.4.3.3. Aditz nagusi eta laguntzaile arteko metatesirik eza. . . . .	108
2.4.3.4. Bi atzizki etorkizuna adierazteko. . . . .	108
2.4.3.5. <i>-te</i> aditz izena . . . . .	109
2.4.3.6. <i>-iten</i> atzizkia . . . . .	109
2.4.3.7. Etorkizuneko aditz formetako bokalarteko sudurkaria . . . . .	109
2.4.3.8. <i>atxikitzen, atxikiko</i> . . . . .	109
2.4.4. Aditzen kokagune geografikoa . . . . .	110
2.4.4.1. <i>laite / leite</i> . . . . .	110
2.4.4.2. <i>zeitan</i> . . . . .	110
2.4.4.3. <i>date, dirate / daite / lizateke</i> sailak . . . . .	110
2.4.5. Aditz nagusiaren adiera eta forma . . . . .	110
2.4.5.1. <i>-t(z)eko = -tu + gabe.</i> . . . . .	110
2.4.5.2. <i>e- &gt; i-</i> aditz nagusian. . . . .	111
2.4.5.3. <i>iratzartu &amp; iratzarri</i> . . . . .	111
2.4.5.4. Aditz arazleak . . . . .	111
2.4.5.5. Partizipio berriak . . . . .	111
2.4.5.6. <i>-ki &gt; -k</i> berranalisia. . . . .	111
2.4.5.7. Aditzoinetako <i>-t</i> berria . . . . .	111
2.4.6. Aditz nagusi eta laguntzailearen hurrenkera . . . . .	112
2.4.7. Aditzen gobernuia . . . . .	112
2.4.7.1. Aldaketa historikoak aditzen balentzian . . . . .	112
2.4.7.2. <i>behar</i> aditz lokuzioa perpaus inpertsonaletan. . . . .	113
2.4.7.3. <i>endelgatu-ren</i> aditz saila. . . . .	113
2.4.7.4. <i>faltatu-ren</i> aditz saila. . . . .	113
2.4.7.5. <i>gustatu-ren</i> aditz saila . . . . .	114
2.4.7.6. <i>segurtatu-ren</i> aditz saila . . . . .	114
2.4.7.7. <i>pentsatu-ren</i> osagarria adlatiboa. . . . .	114
2.4.8. Komunztadura . . . . .	114
2.4.8.1. Argumentu datiboarekiko komunztadura . . . . .	114

2.4.8.2.	Numero komunztadura .....	114
2.4.8.3.	Aditz iragankor eta iragangaitzak komunztaduran.....	114
2.4.8.4.	Koordinazio bereziak .....	115
2.4.9.	Tempusa eta aspektua.....	115
2.4.9.1.	<i>zit-</i> gabeko iraganeko aldaerak Nor Nori aditz sailean.....	115
2.4.9.2.	Aditzoina denbora adierazpen batzuetan.....	115
2.4.9.3.	<i>ukhan</i> & <i>ukhen</i> eta <i>izan</i> .....	115
2.4.9.4.	Ezintasuna adierazteko erak .....	117
2.4.10.	Modalitatea.....	118
2.4.10.1.	-ke morfema .....	118
2.4.10.2.	Baldintzaren protasiaren egitura.....	118
2.4.10.3.	<i>bait-</i> aurritzka duten baldintza hipotetikoaren protasiak ...	118
2.4.10.4.	-ke protasian .....	119
2.4.10.5.	Baldintza hipotetikoaren apodosia.....	119
2.4.10.6.	Baldintza hipotetikoaren apodosi perifrastikoa.....	119
2.4.10.7.	<i>izan</i> eta <i>edun</i> baldintza hipotetikoaren apodosian .....	119
2.4.10.8.	-ke gabeko <i>lizate</i> baldintzaren apodosian .....	120
2.4.10.9.	<i>daite</i> / <i>daiteke</i> .....	120
2.4.10.10.	<i>date</i> / <i>daite</i> .....	120
2.4.10.11.	<i>ahal</i> eta <i>ezin</i> .....	121
2.4.10.12.	<i>ai-</i> aurritzki botiboa .....	121
2.4.11.	Aditz laguntzaile eta trinkoen zerrendak .....	122
2.4.11.1.	Sarbidea .....	122
2.4.11.2.	Nor aditz saila.....	124
2.4.11.3.	Nor Nori aditz saila .....	126
2.4.11.4.	Nor Nork aditz saila .....	128
2.4.11.5.	Nor Nori Nork aditz saila.....	133
2.4.12.	Zuketa alokutiboa.....	136
2.4.13.	Aditz morfema pertsonalak.....	140
2.4.13.1.	-ko / -o morfema .....	140
2.4.13.2.	-da / -de txandaketa.....	140
2.4.13.3.	-te / -e morfema .....	140
2.4.14.	Aditz morfema pluralgileak.....	140
2.4.14.1.	<i>z</i> / <i>ø</i> .....	140
2.4.14.2.	<i>z</i> / <i>zki</i> .....	141
2.4.14.3.	<i>it</i> / <i>zki</i> eta <i>ditz-</i> / <i>detz-</i> .....	141
2.4.14.4.	<i>zki</i> / <i>tz</i> .....	142
2.4.14.5.	<i>joan</i> aditz trinkoaren pluralgilea .....	142
2.4.14.6.	<i>zirete</i> / <i>zirate</i> .....	142
2.4.14.7.	<i>zirete</i> / <i>zirezte</i> & <i>zizte</i> .....	143
2.4.15.	Beste morfema batzuk.....	143
2.4.15.1.	<i>lizate</i> , <i>bailiz</i> , <i>bani(n)tz</i> .....	143
2.4.15.2.	<i>zai-</i> / <i>zau-</i> Nor Nori aditz sailean .....	143
2.4.15.3.	Hirugarren pertsonaren <i>d</i> / <i>z</i> - morfema alokutiboa .....	144

2.4.16. Gertakari fonikoak eta beste . . . . .	144
2.4.16.1. <i>nintzan / nintzen</i> . . . . .	144
2.4.16.2. <i>dabila / dabilen</i> . . . . .	144
2.4.16.3. <i>duha / zuaza</i> . . . . .	144
2.4.16.4. <i>joan</i> aditzeko <i>o(h)a &gt; ua</i> . . . . .	145
2.4.16.5. <i>Egon-en</i> trinkoetako bokal asimilazioa . . . . .	145
2.4.16.6. Zuketako aditz laguntzaileen osotasuna . . . . .	145
2.4.16.7. * <i>edin</i> aditzetako <i>-d-ren</i> sendotasuna . . . . .	145
2.4.16.8. <i>-da</i> morfemaren iraupena . . . . .	145
2.4.16.9. Batasun fonikoa duten agintezko aditz egiturak . . . . .	146
2.4.16.10. <i>niz / nitz</i> . . . . .	146
2.4.16.11. <i>gindirekoozu</i> . . . . .	146
2.4.16.12. <i>gindiroe-</i> . . . . .	146
2.4.17. Adizki batzuen erabilera berezia . . . . .	147
2.4.17.1. * <i>iron</i> aditzaren jokaera defektiboa . . . . .	147
2.4.17.2. <i>diauko zu</i> . . . . .	147
2.4.17.3. <i>zaukedanian</i> . . . . .	147
2.5. Sintaxia . . . . .	147
2.5.1. Osagaien hurrenkera . . . . .	147
2.5.1.1. <i>zerbait</i> determinatzaila izenaren ezkerrean . . . . .	147
2.5.1.2. <i>beste</i> . . . . .	147
2.5.1.3. Osagarria galdetzailearen eta aditzaren artean . . . . .	148
2.5.1.4. <i>ezin</i> aditz nagusiaren aitzinean . . . . .	148
2.5.1.5. Ukapenaren hurrenkera zaharra . . . . .	148
2.5.1.6. <i>ere</i> perpausaren hasieran . . . . .	148
2.5.2. Komunztadura & koordinazioak . . . . .	148
2.5.3. Perpaus erlatiboak . . . . .	148
2.5.3.1. Erlatiboaren burua hasierako kokagunean . . . . .	148
2.5.3.2. <i>zoin</i> izenordaina erlatibo azaltzaileetan . . . . .	149
2.5.3.3. Korrelaziozko perpaus erlatiboak . . . . .	149
2.5.3.4. <i>-lako</i> perpaus erlatiboan . . . . .	150
2.5.4. Perpaus konparatiboak . . . . .	150
2.5.4.1. <i>bet(h)i eta hanbat</i> . . . . .	150
2.5.4.2. <i>iduri</i> . . . . .	150
2.5.4.3. <i>antzo</i> . . . . .	150
2.5.4.4. <i>zunbatenaz... hanbatenaz</i> . . . . .	150
2.5.4.5. <i>bain untsa nola</i> . . . . .	150
2.5.5. Denborazko perpausak . . . . .	150
2.5.5.1. <i>-nean</i> atzizkia . . . . .	150
2.5.5.2. <i>noiz eta ere</i> egitura . . . . .	151
2.5.6. Perpaus kontzesiboak . . . . .	151
2.5.6.1. <i>nahibada</i> partikula . . . . .	151
2.5.6.2. <i>zunbat ere</i> partikula . . . . .	151
2.5.6.3. <i>-keen ordian</i> egitura . . . . .	151

2.5.7.	Xedezko perpausak . . . . .	151
2.5.7.1.	<i>amore(a)gatik</i> partikula . . . . .	151
2.5.7.2.	“aditza + -en + -tzat” . . . . .	152
2.5.7.3.	- <i>gatik</i> atzizkia adizki laguntzaileari erantsirik. . . . .	152
2.5.7.4.	- <i>t(z)eko</i> & - <i>t(z)ekotz</i> atzizkia . . . . .	152
2.5.8.	Galdera perpausak . . . . .	152
2.5.8.1.	** <i>othe</i> . . . . .	152
2.5.8.2.	- <i>a</i> morfema . . . . .	153
2.5.9.	Baldintza edo denborazko perpausak. . . . .	153
2.5.10.	Baldintza perpausak . . . . .	153
2.5.10.1.	- <i>n ber</i> egitura . . . . .	153
2.5.10.2.	- <i>t(z)ekotz</i> atzizkia . . . . .	153
2.5.11.	Zehargalderak . . . . .	154
2.5.12.	Moduzko perpausak . . . . .	154
2.5.12.1.	Instrumentala aditz izenari erantsirik . . . . .	154
2.5.12.2.	- <i>larik</i> atzizkiaren bidez . . . . .	155
2.5.13.	Ustearen adierazpena . . . . .	155
2.5.13.1.	“ <i>uste</i> + <i>edun</i> ” + - <i>en</i> atzizkia . . . . .	155
2.5.13.2.	<i>dereeletan</i> . . . . .	155
2.5.13.3.	- <i>ko</i> morfema menpeko perpaus konpletiboan . . . . .	155
2.5.14.	Ondoriozko perpausak . . . . .	155
2.5.15.	Kausazko perpausak . . . . .	155
2.6.	Lexikoa . . . . .	156
2.6.1.	Hitzen zerrenda eraikitzeako irizpideak. . . . .	156
2.6.2.	Hitzen zerrenda . . . . .	161
2.6.2.1.	Liburuko hitzen zerrenda . . . . .	161
2.6.2.2.	Suarés d'Aulan-en onespeneko hitzak . . . . .	193
2.6.2.3.	d'Abense-ren onespeneko hitzak . . . . .	193
2.6.2.4.	Izen bereziak (2.6.2.4.1. Leku izenak. 2.6.2.4.2. Gentilizioak. 2.6.2.4.3. Liburuaren inguruoko pertsona izen bereziak. 2.6.2.4.4. Liburuaren barreneko pertsona izen bereziak. 2.6.2.4.5. Saindu izenak. 2.6.2.4.6. Seinta izenak) . . . . .	193
	Bibliografia. . . . .	197
	Corpusa . . . . .	200

## II. EDIZIOA

3.	Gure argitalpena. . . . .	207
3.1.	Puntuazioa. . . . .	208
3.2.	Estilo zuzena . . . . .	208
3.3.	Jatorrizkoan bezala gorde diren idazkerak. . . . .	209
3.3.1.	< <i>ou</i> >, < <i>u</i> > eta < <i>v</i> > . . . . .	209

3.3.2.	Tildeak . . . . .	209
3.3.3.	Aditz nagusia eta lagunzailea baturik . . . . .	209
3.3.4.	Letra larriak . . . . .	209
3.3.5.	Komak . . . . .	210
3.3.6.	Ergatibo atzizkirik eza . . . . .	210
3.3.7.	Marratxoa . . . . .	210
3.3.7.1.	Idazleak hitz elkartutzat jo dituenetan . . . . .	210
3.3.7.2.	<i>arazi</i> eta <i>erain</i> egituretan . . . . .	210
3.3.7.3.	Errepikatzea adierazten duen aurritzian . . . . .	210
3.3.7.4.	Erakusleen aldaera hanpatuetan . . . . .	211
3.3.7.5.	Egitura ez guztiz garden batean . . . . .	211
3.4.	Idazkeran egin diren aldaketa sistematikoak . . . . .	211
3.4.1.	Grafia, hitz elkartuen eraketa, letra larriak, komak, zenbakitzea . . . . .	211
3.4.1.1.	<i>v</i> goiko bokal belarra . . . . .	211
3.4.1.2.	Hitz bukaerako <i>-rr</i> . . . . .	211
3.4.1.3.	Hitz elkartuen idazkera bitasuna . . . . .	211
3.4.1.4.	Izenordain zehaztugabeetako <i>-nahi</i> . . . . .	211
3.4.1.5.	Aditzondo eta izenondo errepikatuak . . . . .	211
3.4.1.6.	Hitz elkartuen koherentzia . . . . .	211
3.4.1.7.	Letra larrien aldaketa . . . . .	212
3.4.1.8.	, <i>eta / , edo / , + perpausaren subjektua</i> . . . . .	212
3.4.1.9.	Orrialde bukaerako hitzen mozketa . . . . .	212
3.4.2.	Hitz bereizteak . . . . .	212
3.4.2.1.	Aditz nagusia eta aditz lagunzailea elkarrekin . . . . .	212
3.4.2.2.	<i>ere</i> atala duten izenordain zehaztugabeak . . . . .	212
3.4.2.3.	<i>eciez</i> & <i>ecinez</i> . . . . .	213
3.4.2.4.	<i>balin</i> . . . . .	213
3.4.2.5.	<i>beithan</i> . . . . .	213
3.4.2.6.	Aditzondo edo izenondo errepikatu hanpatuak . . . . .	213
3.4.2.7.	<i>ber gisa</i> . . . . .	213
3.4.3.	Loturak eta marratxoa kentzea . . . . .	213
3.4.3.1.	Hitz elkartu bereiz idatzi marratxorik gabeak . . . . .	213
3.4.3.2.	Bi hitz desberdin marratxodunak . . . . .	213
3.4.3.3.	Egileak bi osagairen elkarketatzat jo dituen zenbait hitz . . . . .	214
3.4.3.4.	Zenbakietako marratxoa(k) . . . . .	214
3.4.3.5.	<i>bat</i> daramaten egiturak . . . . .	214
3.4.3.6.	Egitura hautsi marratxodunak . . . . .	214
3.4.3.7.	<i>r</i> eta txistukariak egoera inplosiboan marratxoa kentzean . . . . .	214
3.4.3.8.	Kasu atzizkia bereiz . . . . .	215
3.4.3.9.	Atzizki destinatiboa bereiz . . . . .	215
3.4.3.10.	Atzizki motibatiboa bereiz . . . . .	216
3.4.3.11.	Atzizki ordinala bereiz . . . . .	216
3.4.3.12.	Atzizki konparatzalea bereiz . . . . .	216
3.4.3.13.	<i>-garri</i> , <i>-kal</i> eta <i>-kara</i> eratorpen atzizkiak bereiz . . . . .	217
3.4.3.14.	Izenordain edo galdetzailea + <i>ere</i> . . . . .	217
3.4.3.15.	<i>bai-eta</i> , <i>bai-eta-ere</i> , <i>ez-eta-ere</i> , <i>ez eta-ere</i> . . . . .	217
3.4.3.16.	<i>be(h)in-ere</i> . . . . .	217

---

3.4.3.17. <i>becic-ere</i> . . . . .	217
3.4.3.18. <i>-elga</i> . . . . .	217
3.4.3.19. <i>eta</i> denbora adierazlea . . . . .	217
3.4.3.20. <i>amorekatik-eta</i> . . . . .	217
3.4.3.21. <i>ber hala</i> . . . . .	217
4. Testua eta oharrak . . . . .	219
<i>Liburu hunen huzcarala içulçaliac iracurçalari</i> . . . . .	221
I. Gauça ispiritual edo Gincoazkuez . . . . .	225
II. Gincoaren presenciaz . . . . .	255
III. Otoitçaz . . . . .	269
IV. Communione Seindiaz . . . . .	313
V. Meça Seindiaz . . . . .	329
VI. Umilitathiaz . . . . .	345
VII. Gincoaren borondatera egoithiaz . . . . .	365
VIII. Garbitarçunaz . . . . .	391
IX. Jujamendu arhinez . . . . .	421
<i>Akiceco Jaun Apezpicu ohiaren aprobacionia Heuzcarala itçulia</i> . . . . .	437
<i>Juxiaco Jaun Ertorraren Akiceco Bicari General eta Officialiaren aprobacionia Heuzcarala itçulia</i> . . . . .	438
<i>Liburu hunen capitulien eta hetan minço diren substancien tabla</i> . . . . .	439
5. Hiztegia . . . . .	445



## AITZIN-SOLAS

Hogeita hamar urte badu frantsesetik itzuli liburu honen bigarren mendeurrenra Euskaltzaindiak Donaixti-Ibarren ospatu zuenetik; harako hartan Piarres Lafittek Ibarre herriko aspaldiko apez Lopezen itzulpenak *tesina bat* on lukeela adierazi zuen (1982: 442). Egia esan, lehenago ere liburu honetako euskarak azterketak ukantitu, bereziki zuketaren tratamendu gramatikalaren agerpen zabalagatik: Karl Boudak (1948) eta Xarles Videgaineik (1983) *Pratica*-ko zuketa alokutiboaz ikerketak egin dituzte; Lino Akesolok Lopezen aditz izenari heldu zion llabur (1982) eta lehenago, Andres de Lizarrak hainbat ohar egin zuen liburuko alderdi lexikoa zerbaixka argitzeko (1967).

Halaz ere, ez zegoen itzulpen interesgarri eta luze honen argitalpenik eta hori da gure eginahalaren lehen helburua, XVII. mende hasierako aszetika liburu honen XVIII. mende bukaerako euskal itzulpenaren edizio zaindu bat irakurleen esku uztea, ahalaz aurkezpen zabala eta ohar argigarriak eginez.

Ulertzeko denez, bi mende eta laurden dituen erlijioso liburu batez egin daitekeen edizioa ezin izan daiteke arrunta. Irakurle ororentzat egina bada ere, ardura filologikoa duen horrentzat ontzen da gehienbat eta horregatik, liburuak dakartzan hizkuntza-ezaugarriez, forma linguistiko horien alderdi historikoaz, garai hartako Baxenabarreko eta Zuberoako euskal liburu edo idazleen hizkuntza-aldaeren inguru-koez zeresana eduki beharko luke argitaratzaleak. Berebat, *Pratica* liburuan ageri ez diren baina ondoko ibarretan edo garai hartako idazleengän ohiko diren hizkuntza-ezaugarriez ere, prestatzaileak zerbait esan beharko luke; horretan jardun dugu argitalpena osatu bitartean, auzi eta hari mutur horiek gogoan.

Aldiz, gure argitalpen honetan ez dira liburuko gai erlijiosoak ukitu, gu ez gara nor horretarako; nolanahi ere den, liburu hau idatzi zuenak eta ondotik euskarara itzuli zuenak josulagunen heziketa zuten gogoan, oro har irakurle kristauak.

Jatorriz gaztelaniaz ondu zen lanaren frantseseko itzulpen bat baliatu zuen euskal itzultzaitzat jotzen den Oztibarreko Lopez iutsiarrak, orduan Ibarren apez zegoenak. Guk frantses itzulpen horretatik euskarazko emaitzara dagoen aldeaz ñabardura eta argitasun batzuk dakartzagu: euskal itzulpenean datozen atalak jatorrizko gaztelaniazko liburuko eta frantseseko itzulpeneko zein atali dagozkien, adieraren alderdiko hainbat eta hainbat zertzelada...

Liburuko hizkuntza-alderdiaz landa, euskal testuaren egileaz eta haren balizko laguntzaileaz ere arduratu gara argitalpena prestatzean. Funtsean ohar batzuk dakartzagu itzultzialearen jokabideaz; egin zuena zerik egin zuen aurkezteko gai garela uste dugu, baina egin zuen bezala zerendako edo zerengatik egin zuen argitzea, inolaz ere zailago da, eta alderdi horretaz hipotesiak baizik ezin guk hona ekarri.

Ez gara sobera arduratu jatorrizko liburuaren egileaz, Alonso Rodríguez espainiarraz: *Alfonso Rodríguez* izena ere ematen zaio gaztelaniaz eta euskal liburuak ere *Alphonsa Rodriguez* izena dakar azalean. Kristau fedearen alderdiei dagokienez, Espainiako Valladolideko Alonso Rodríguez jesuitaren XVI. mendeko lana aski ezaguna da eta bestela ere, badu nora jo erlijiozko gai aszetiko hauetaz ardura duen irakurleak.

Gu gehienik euskal alderdiaz kezkatu gara eta bereziki itzulpenaren emaitzaz: bertan ageri diren hizkuntza-ezaugarriei eskaini diegu arreta gehien, ez horrenbeste itzulpenaren bilakabideari edo itzulpenaren beraren azterketari; kalitaterik duen, itzulpen leiala den eta abar ez dugu guk izartu. Euskal testuan ulermen arazo zenbait dagoelean, gaztelaniazko jatorrizko testua, horren frantseseko itzulpena eta frantses itzulpen horren laburpena aintzat hartu ditugu, baina funtsean Avignonen 1782an argitaratu itzulpenean ageri den euskal mintzoari ezarri diogu arreta.

Bernat Etxeparez gerotzik ez da anitz idatzi Baxenabarren euskaraz eta 1782ko liburu hau ezarri ohi da haren ondoko mugarritzat, baina gaude itzulpen honek Zuberoa alderdiko euskarara anitz jotzen duela: Nafarroa Behereko euskararen garapena aztertzeko itzulpen hau ez da hain tresna baliagarria eta ondorioz, hobe izanen da ikerketaren arreta Suarez d'Aulan-ek 1740 inguruan eginarazi katiximari edo 1786an Le Quien de Laneufville Akizeko apezpikuak argitararazi katiximari eskaintza; Garaiziko Bazkazaneko 1762ko predikuak ere aipa litezke, baina Lapurdiko euskararen itzala ageri da horietan.

Aitzin-solas hau bukatzeko aurkez ditzagun irakurleari liburuan bereizgarri gertatuko zaizkion lau ezaugarri:

- Ausarki ageri da zuketa liburu guztian gaindi, testuan nagusi da.
- Oinarri baxenabartarraren gainean pinportaka sumatzen da Zuberoako mintzoa.
- <h> grafiaren agerpen arras ezohikoa dakar, kokagune foniko ezinezko ugari-tan.
- Txistukari igurzkarien grafian nahasmena dago eta afrikatuen idazkeran nahasgarri da <tzch>; bestalde, <tzç> edo <tzc> erako alferrikako bikoitzasunak da-kartza liburuak.

## I. AZTERKETA



## LIBURUA, IDAZLEA ETA ITZULPENAK

### 1.1. Alonso Rodríguez (1538-1616)

Alonso Rodríguez jesuita Espainiako Valladoliden sortu zen, 1538an;<sup>1</sup> adineko zelarik, *Exercicio de perfeccion y virtudes christianas* liburua argitara eman zuen Sevillan 1609an, etorkizunean ospe handia eta argitalpen ugari izanen zituen lana: 1612, 1616, 1618, 1624, 1625, 1631, 1657, 1671, 1675, 1695 urteetan bederen bai.<sup>2</sup> Saio aszetiko luze honek, *Liburu Sainduen eta Elizako Aiten erranak, konparazione errex, adibide bizi eta ixtorio sustagarriz apainduak eta arindurik* dakartza, arima kristauari buruzko gogoeta ugarirekin batean; hala zioen Piarres Lafittek orain duela hogeita hamar urte (1982: 440).

Rodríguez honek ikasketak Salamancan egin zituen eta 1557an lagundira jesuita sartu zen. Ez zen goi teologiako irakaspenean sakonetan murgildu, baina arimaren ezaugtzan eta gidaritzan iaioa zenez, urte luzez prefet izpiritual izanik, jesuita izan gogo zuten apezgai gazteei hainbat urtez kristau morala irakasten jardun zuen: jesuiten ari-maz arduratzen zen eta hitzaldiak idazten zituen. Galiziako Ourenseko Monterreyko eskolan hamabi urtez teología morala irakatsi zuen eta bertan errektore izan zen (1570-1575).

Andaluziara ere jo zuen, Montilla herrira eta Kordoba hiriburura, eta garai hartan ere hitzaldi izpiritualak idatzi zituen; hogeita hamar urtean edo jardun zuen eginkizun horietan. Horrenbeste urtean idatzi irakaspenean izpiritualak bildu eta antola zitzala eskatu zioten eta Sevillan zegoela, liburuaren lanari ekin zion eta 1609an argitaratu; inolaz ere, liburu luze eta mardula osatu zuen. Urte batzuen buruan Sevillan hil zen, 1616ko otsailaren 24an, ezindura handi batek harturik.

Dena den, aintzat har bedi gure hau ez den beste Alfonso Rodríguez izeneko lagun bat ere izan zela garai hartantsu Espainian Jesusen Lagundian, gure Alonso Ro-

<sup>1</sup> *Biblioteca Nacional de España* erakundeak 1538 urtea dakar, aldiz, Carlos Sommervogel-en *Bibliothèque de la Compagnie de Jésus* bilduma klasikoak Alonso Rodríguez 1537an sortu zela diosku (6. liburukia, 1946. or., 1960 [1895], Lovaina). 1526 urtean sortu zela ere erreferentzia batean baino gehiagoan ikusi dugu hor gaindi eta Piarres Lafittek ere 1526. urtea dakar (1982: 439).

<sup>2</sup> 1606. urtea ere aipatzeko da lehen argitalpenerako, baina ez dakigu datu zuzena den; esate batera, Bartzelonan Pablo Campins-en lantegian 1740an egin zen inprimaldiak lehen argitalpenaren urtea 1606 dela dakar; Madrilen 1930ean argitaratu zen *Administración del Apostolado de la prensa-renak ere nueva edición conforme al original de 1606 impreso en 1740* dio. Argitaratu zen hiriaren eta inprimategiaren erreferentzia gardentasunez erakusten duten berriek 1609 urtea dakarte: *Biblioteca Nacional de España*-k katalogoa duen ediziorki zaharrena Sevillan 1609an kokatzen du, Matias Clavijok inprimaturik.

driguezen garai beretsuan idatzi zuena eta 1888.ean saindutu zutena; idazle honen kasuan ere izenaren arazo bera gertatzen zaigu, iturri batzuek *Alfonso* eta beste batzuek *Alonso* deitzen baitute. Francisco Colin-ek haren biziaz eta dohainez liburu bat idatzi zuen, 1652an Madrilen argitara eman zena: *Vida, hechos y doctrina del venerable hermano Alonso Rodriguez, religioso de la compañía de Jesus. Dispuesta por el padre Francisco Colin, rector del colegio de Manila. Dedicada al ilustrissimo señor D. Carlos Coloma, marqués del Espinar.*

Gurea ez den beste Alonso Rodríguez hau, saindutu zutena, Espainiako Segovian sortu zen, uztailaren 25ean, *cerca de los años del Señor de mil y quinientos y treinta y uno*; datu hau ez omen dago hain garbi, beste batzuek 1533an sortu zela baitiote.<sup>3</sup> Nolanahi ere den, 1888.ean saindutu zuten Alonso Rodríguez hau ezkondu zen eta bi haur ukantzen, baina emaztea eta bi haurrek hil ondotik fedezko bizimoldeari eman zitzzion osoki. Espainiako Alcalá-ko eta Valentziako unibertsitateetan ikasi zuen, baina ikasketei utzi eta 1571ko urtarilean Jesusen Lagundian sartu zen; urte hartan berean Mallorcako Palma hirira jo zuen eta han ikastetxeko atezauntzan jardun zuen 1617ko urriaren 31n hil arte.<sup>4</sup> Haren idazkiak luzaz ezezagunak izan ziren. Lehenik Jaime Nonell apezak Bartzelonan argitaratu zituen, 1885-1887 bitartean, eta ondotik gehiago kaleratu ziren.<sup>5</sup>

Hirugarren Alfonso Rodríguez bat ere badakar Sommervogel-ek bere bibliografian (6. liburukia, 1963. or., 1960 [1895], Lovania), Espainiako Sevillan 1602an sortu eta 1686an hil zena, baina iduri luke beste eratako idazkiak egin zituela eta latinez idatzi zituela.

## 1.2. Lanaren itzulpen eta laburpenak

Orrialde ugari duen *Exercicio de perfeccion y virtudes christianas*-ek ezin konta ahala argitalpen izan ditu: 1609ko lan hau idazlea bizirik zegoela berehala berragitaratu zen, hala Sevillan nola Bartzelonan, eta hil ondotik Zaragozan, 1625ean eta 1631n; lehen edizioaren arabera egin zen azkena Madrilen kaleratu omen zen 1733an. Egileak, bestalde, bere lanaz egiten ari ziren itzulpen batzuen berri ere izan zuen. Liburua hizkuntza anitzetara itzuli zen: alemanierara, inglesera, arabierara, armenierara, txinerara, frantsesera, greziera berrira, nederlanderara, hungarieera, italierara, latinera, polonierara, portugesera, tamilerara, txekierara...; cf. Sommervogel.

Euskal itzulpena frantsesetik egin zela diosku 1782ko liburuaren aitzinsolasak eta egiazki honela izan ez zela pentsatzeko arrazoi sendorik guk segurik ez dugu. Euskarazko emaitza gaztelaniazko eta frantseseko jatorrizkoan nola den ikustera jo

<sup>3</sup> Sommervogel-ek, esaterako, 1531. urtea dakar: 6. liburukia, 1943. or., 1960 [1895], Lovania.

<sup>4</sup> Atezauntza jardun hori Valladolideko gure Rodriguezi esleitu zion Lafittek, “atezain arrunt bat” zela dioen pasartean (1982: 439).

<sup>5</sup> *Tesoro ascético* Bartzelonan (1918); *Magisterio espiritual ascético y místico de San Alfonso Rodríguez Bartzelonan* (1935); *Memorial o cuentas de la conciencia* izeneko autobiografía Bartzelonan ere (1956). Adolphe Tanquerey-k idatzi teología aszetiko eta mistikoko bilduma ezagunean —*Précis de Théologie Ascétique et Mystique* (1924) lanaren aldaki bat aurkitu dugu interneten—, San Alfonso Rodríguez honen gain ematen da *De la unión y de la transformación del alma en Dios; Explicación de las peticiones del Padre nuestro* izeneko idazlana.

dugunetan, frantses testuak usu argia eman digu, hurraren hiru adibideetan ageri denez:

*ariman (21) / cuando hay de veras este deseo en el corazon (I, 11) / quand ce désir est une fois véritablement dans l'ame (RD 1, 23)*

*sofritu eta mezperetchathiac içan nabiz erratcen direla (26) / desean padecer y ser despreciados (I, 14) / qu'ils brûlent de souffrir, et de se voir méprisés (RD 1, 30)*

*eperik gabe 'eten gabe, atsedenik gabe' (408) / siempre habeis de andar en centinela (III, 205) / il faut s'y tenir incessamment sur ces gardes (RD 5, 422)*

Lafitteren arabera, Rodriguezen saioak frantsesez zazpi itzulpen izan zituen (1982: 439): “lehena Port-Royal-eko jansenistek jalgi zuten, ongi baliatu eta azkartu baitztuzten obra hortan kausi ditazken garrazkeriak”. François Séraphin Régnier-Desmarais apez eta Frantziako akademiaren idazkariak ere 1675-1676an itzuli zuela diosku Lafittek; Régnier-Desmarais honek, Luhusoko euskaltzain Lafitteren ustez bortitzak eta gogorrak diren pasarte batzuk jatorrizkoan diren bezala utzirik egin zuen itzulpena. Ondoko agerraldi batzuetan apezek Régnier-Desmarais-en itzulpena “eztitu” eta “legundi” zuten (*ibid.*).

Jatorriz irakasgaiok jesuitentzat ziren, baina jesuitez landa, gainerateko kristauei ere irakaspen eta aholkuak emateko asmoz, saiook arintzera, laburtzera eta argitaratza jo zuten ondotik hainbat elizgizonek, jatorrizko lana franko luzea baita; testuak hautatu ziren, atal batzuk arindu eta liburuaren laburpenak karrikaratu.

Idatzi, liburua gaztelaniaz idatzi zen eta luzea da bizi; saioak jatorrizkoan hiru atal ditu eta milatik goiti orrialde; esaterako, Lafittek eskuartean izan zuen frantssezko itzulpen osoak 1397 orrialde dauzka. Gaztelaniazko lanaren hiru ataletarik baikoitzak 8 sail edo *tratado* ditu eta sail bakoitza kapitulo sorta batek osatzen du.

Euskal itzulpenari buruz jatorrizko iturriaren argitasuna lortzeko eta gaztelaniazko lanarekin alderatzeko 1834ko edizio bat baliatu dugu: *Ejercicio de perfección y virtudes cristianas*, Bartzelona, 1834, Valero Sierra y Martí-ren inprimategia; internet-en aurkitu dugu, googlen; bertan tildeak ez dato egungo erara, baina horrek ez dakar ulermen arazorik; I, II eta III liburukiak ditu. Edizio hau baliatu baino lehen Iruñeko apegaitegian dagoen beste berriago batekin lan egiten hasi ginen; Madrilren argitaratu zen 1930ean hiru liburukitan: *Administración del Apostolado de la prensa. Nueva edición conforme al original de 1606 impreso en 1740*.

Frantses testuarekin alderatzeko, berriz, Régnier Desmarais-en itzulpen klasikoaren 1833ko edizio bat baliatu dugu: *Pratique de la perfection chrétienne*, Lille argitaraturik, L. Lefort inprimatzailak egin zuen eta sei liburukitan da, guk 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 izendatu ditugunak: internet-en aurkitu dugu, googlen eta Torontoko University of St Michael's College eta Windsor-ko Holy Redeemer Library erreferentziak dakartzza. Euskal testuaren iturria Régnier Desmarais-en frantseszko itzulpen klasikoa izan ote zen argitu baino lehen, argitasun batzuk emanen ditugu euskal liburuaz.

Baliatu dugun euskal alea Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Bibliotekak dauka, AK-33/26, 0127 eta 0128 CD-eta digitalizaturik; bertako argazkiak dira irakurleak liburu honek dakaren CD-an aurkituko dituenak. Liburuaren bigarren ale bat ere konsultatu dugu, Azkueko alean egon litzkeen irakurketa arazo zenbait argitzeko; Jean-Louis Davant euskaltzainak utzi digu bere alea ikusten, baina 360 orrialdea

arte baizik ez dugu alderatu ahal izan, Davanten aleak 361-466 bitarteko orrialdeak falta baititu.<sup>6</sup>

Liburu aszetiko honek dituen jatorrizko hiru atalek kristauaren bertutea eta perfekzioa lortzeko hainbat baliabidez dihardute; lehen ataleko zortzi sailek, 18, 9, 14, 20, 28, 5, 11 eta 34 kapitulu dituzte; bigarren ataleko zortzi sailek, berriz, 23, 14, 40, 22, 7, 7, 9 eta 16, eta hirugarren ataleko zortzi sailek, berriz, 18, 9, 16, 11, 18, 9, 11 eta 7. Orotara 376 kapitulu ditu lan osoak, baina Lafitteren arabera 315 kapitulu dira. Luhusoko euskaltzain handiak zioenez (1982: 440), hiru ataleko liburu luze honen frantses itzulpen osoaren *hiruzpalau laburpen segurik* argitaratu ziren. Guri dagokigunez, euskal itzulpenak ez du 466 orrialde baizik eta 74 kapituluk osatzen dute.

Halaz guztiz ere, ez dugu ulertu behar 376 kapituluko liburu batetik euskarara 74 itzultzean, euskal moldatzaileak jatorrizko lanaren % 19'6 ondu duenik, euskaratu dituen kapituluak ez baititu osorik itzuli: gutiago egin du, kapitulu bakoitzetik funtsezkoena iruditu zaiona hartu du eta horren garrantzizkoena iruditu ez zaiona, berriz, itzuli gabe utzi du.

Izenburuan eta aitzin-solasean zerbaite adierazten da euskal itzultaileak egin zuenaz: izenburuak *Alphonse Rodriguez Jesuena Compagnhaco Aitaren Guiristhinho perfeccionaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia Heuzcara becic eztakitenendaco dio; pparte bat* dakar, izan ere, aitzin-solasak honela dio: *Liburu Francesian seiheun pagetaco laur ppartetan den horren Heuzcarala itçulceco lanaren luce, eta handitarçunac icitcen, eta guibeltcen nindicien*. Lafittek dioenez, aitzin-solasean aitortzen da euskal itzulpena egiteko frantses laburpen bat baliatu zela, 600 orrialdekoa eta beraz, “laburpen baten laburpena da” euskal idazkia (1982: 440).

Itzultaileak aitzin-solasean dioenaz guk ez dugu Lafitteren interpretazio hori bera egiten: guk aitzin-solasean ez dugu irakurtzen euskal itzulpena lanaren laburpen batetik egin zenik, eta hau garrantzizko da, baieztapen horrek ikertzalea makurreko bidetik eraman baitezake. Egiazki itzultaileak dioena honakoa da: batetik, seiehun orrialdeko lau *pparte* daudela eta bestetik, euskarara *pparte* bat itzuli duela. Uler liteke lanak osotasunean lau *pparte* dituela, eta *pparte* bakoitzak 600 orrialde dituela, eta frantseseko 2.400 orrialde euskarara itzuli beharrak dakarren eginahal horrek euskal itzultailea izuturik daukala.

Ulerbide hau ez da erabat sinesgarri, ordea, jatorrizko liburuak ez baititu 2.400 orrialde, liburuak osotasunean guti goiti behei horren erditsua edo gehixeago egiten du; arestian aipatu dugu Lafittek eskuartean eduki zuen frantses itzulpen oso batek 1.400 orrialde inguru dauzkala. Dena den, litekeena da gakoa orrialdeen neurriari egotea ere, hau da, liburuko orrialdeak bere baitan har ditzakeen hitzen kopuruari, hitzak idazteko baliatu diren letren izarian.

---

<sup>6</sup> Eskerrak ematen dizkiot Davant jaunari. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako Josune Olabarria ere eskertu nahi dut, ohi bezala eman didan laguntza guztiagatik eta egiten duen lan bikainagatik. Azkenik, Azkue Bibliotekako zuzendari Pruden Gartziarri esker beste bi ale kotejatu ditut, baina edizio honetarako baliatu dugun alareen berdin-berdinak dira; bata Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapekoa da, une honetan Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsultagai dagoena (Lacomberen biblioteca, OD-737); beste alea Eusko Legebiltzarraren bibliotekan dago: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/8716>. Eskerrak ematen dizkiet hiru erakunde horiei beren funtsak kontsultatzeko eman-dako erraztasunagatik ere.

Honezaz bestalde, garrantzizkoa da jatorrizko liburuak hiru atal dituela jabetzea; gaztelaniaz hiru *parte* dira, bakoitzak zortzi *tratado* dituena; frantses itzulpenean ere hiru *partie* daude eta bakoitzean zortzi *traité*; gure ustean, euskal itzultzaleak adi-gaiok nola baliatu zituen izan daiteke giltza, hau da, *pparte bat* eta *laur ppartetan* dioenean, *pparte* hitz horrek bi erabileretan adiera bera ote duen jakin beharko genuke bide zuzenetik ez saihestekotan.

Nolanahi ere den, auzi honetaz frantses itzulpenen eta hauen laburpenen berri eman ondotik jardunen dugu, beheitixeago. Aurkez dezagun orain euskarazko itzulpena; bederatzi sailetan antolaturik, hauexek dira euskal itzulpenak darabiltzan gaiak:

- I Gauza izpiritual edo Jainkozkoez: 10 kapitulu, 59 or. (% 12,6)
- II Jainkoaren presentziaz: 7 kapitulu, 27 or. (% 5,7)
- III Otoitzaz: 17 kapitulu, 99 or. (% 21,2)
- IV Jaunartze sainduaz: 7 kapitulu, 33 or. (% 7)
- V Meza sainduaz: 2 kapitulu, 31 or. (% 6,6)
- VI Apaltasunaz: 8 kapitulu, 43 or. (% 9,2)
- VII Jainkoaren borondatera egoteaz: 6 kapitulu, 53 or. (% 11,3)
- VIII Garbitasunaz, haragizko bekaturik ezaz: 11 kapitulu, 66 or. (% 14,1)
- IX Jujamendu arinez: 6 kapitulu, 32 or. (% 6,8)

Ikusten da kapitulu guztiak ez dutela luzera bera; laugarren sailak zazpi kapitulu ditu, eta hauek euskal liburu itzuliaren % 7 egiten dute, baina aldiz, hurranen sailak bi kapitulu baizik ez duelarik, euskal liburu itzuliaren % 6'6 egiten du.

Euskal itzulpen hau Akizeko Elizbarrutiko apezik errespetagarrienetarik bati egitea eskatu zitzaion, Louis-Marie de Suarés d'Aulan Akizeko apezpiku ohiak liburuari 1782/VII/10ean eman onespenean dioskunez (449). Berebat, Philippe D'Abense Akizeko bikarioak liburuaren *excuso iskiribu*-az 1872/III/12an egin onespenean dioenez, itzulpena ontzeko itzultzaleak *liburu baliossaren ppartes* egin duen hautua ona da (454).

Georges Lacombe-k idatzi zuenez (1931: 69), euskal itzulpenak beste bi moldaketa ere ukana omen zituen, lapurtarra bata eta zuberotarra bestea, baina ez ziren argitaratu eta ez dago ale horien arrastorik, edo guk bederen, galdetu badugu ere, ez dugu horien berri.

Lan luze honen frantses itzulpen eta laburpenez datu ugari aurkitu dugu katalogoetan eta ez da aise ororen berri ziurtasunez eta garantiaz ematea, baina sintesi ttipi bat dakargu, segurki guztiak osotasunik izanen ez duena; eginalaha egin dugu zehaztasunez jokatzeko, baina baliatu ditugun iturri bibliografiko guztiak ez dituzte zehaztasun berberak ematen eta guk ez dugu hauek guztia juzkatzeko neurbide ziurrik. Funtsean Carlos Sommervogel-en *Bibliothèque klasikoa* baliatu dugu (1895), baina baita han eta hemen aurkitu dugun bibliografia zerrenda gehiago ere; lehenik lanaren frantses itzulpenak dakartzagu. Sommervogel-ek dioenez zazpi dira:

1. Paul Duez apezak (Lieja 1585-1644) Parisen 1623an itzulirik.<sup>7</sup>

---

<sup>7</sup> Sommervogel-ek 1629-1630 urteak ere badakartza, baina beharbada beste argitalpen bati dagozkioke. Argitalpen gehiago dago: 1636koa Parisen, 1647koa Parisen —ez dakigu Rouenen 1663an ere ez ote zen argitaratu—, 1683-84koa Rouenen, 1684koa Rouenen. Guk Frantziako Biblioteca Nazionalean Duezen bi edizio ikuskatu genituen: 1) *Practique de la perfection et des vertus chrestiennes et religieuses*,

2. Bigarren itzulpenari dagozkion berriak ilun daude: datarik gabea da, d'Audiguier izeneko jaun batek egina, beharbada.<sup>8</sup>
3. Louis Moreri apez frantziarrak (1643-1680) itzulpen bat egin zuen, Lyonen 1667an argitaraturik.<sup>9</sup>
4. Nicolas Cabart-ek beste itzulpen bat egin zuen Parisen 1670ean.<sup>10</sup>
5. Nicolas-Joseph Binet Pariseko Legebiltzarreko legelariak ere itzuli zuen eta Parisen argitaratu 1673an;<sup>11</sup> joera jansenistako Port-Royaleko komentuaren inguruko lantzat jo izan da itzulpen hau.<sup>12</sup>
6. Arras ezaguna da F. S. Régnier-Desmarais Frantziako akademiaren idazkarien itzulpena, 1675-79 bitartean Parisen inprimatu zena.<sup>13</sup> BNF-n dago hau ere. Sommervogel-en iritziz frantsesera egin den hoherena da. Itzulpen honek ezin konta ahala berrargitalpen eduki ditu, hainbat eta hainbat hiritan.<sup>14</sup>

*composée en espagnol par le R. P. Alphonse Rodriguez de la Compagnie de Iesvs. Pavl Dvez, M. DC. XXIII, chez Nicolas Bvon, a Paris (I, II, III). 2) La pratique de la perfection et des vertus chrestiennes et religieuses. Composée en espagnol par le R. P. Alphonse Rodriguez de la Compagnie de Iesvs. Extrait, selon la traduction françoise du R. P. Paul Dvez de la mesme Compagnie. Première partie. A Paris, chez Iean Iost, ruë saint Iacques, à l'enseigne du S. Esprit. M DC XLVII (I eta II).*

<sup>8</sup> Itzulpenaren lehen liburukian Louis XIII-rentzat eskaintza bat dakar eta hirugarrenean Richelieu kardinalarentzat; bi eskaintzak sieur d'Audiguier izeneko batek izenpetu ditu, baina datarik gabe; liburuaren onesparen data 1623koa da eta Sommervogel-ek galdegitu du ea itzulpen hau eta Duez-ena bat eta bera ote diren (1960 [1895]: 1953). Itzulpen honetaz Charles Sorel, *premier historiographe de France* mintzo da 1667ko bere *Bibliothéque françoise* liburuan (2. argit., 261. or.), eta dioenez, Daudiguier hau Miguel de Cervantes-en eleberriak eta Rodriguezzen *de la Perfection de la vie Religieuse* lanak itzultzen aritu bide zen.

<sup>9</sup> Guk Frantziako Biblioteka Nazionalean eskuztatu dugu: *Pratique de la perfection et des vertus chrestiennes du R. P. Alphonse Rodriguez de la Compagnie de Iesvs. Traduction nouvelle divisée en trois parties.* Premier volvme. A Lyon, chez Pierre Compagnon, ruë Merciere au coeur Bon. M. DC. LXVII. Avec approb. et privilege dv roy (I eta II); aitzin-solasean *votre tres-humble, & tres-obeyssant serviteur L. Morerii...* dakar.

<sup>10</sup> Frantziako Biblioteka Nazionaleko katalogoan 1670 urtea dakar ageri den edizio bakarrak, eta G. Josse-ren argitaletxea. Guk BNF-n ikuskatu dugunak 1680ko data dakar: *Les exercises de la vertu et de la perfection chretienne.* Par le R. P. Alphonse Rodriguez jesuite. Divisez en III. parties. Nouvelle traduction. Tome I. a Paris, chez Jean Baptiste Coignard, imprimeur ordinaire du Roy, ruë S. Jacques, à la Bible d'or. M. DC. LXXX. Avec approbations & privilege de Sa Majesté. Hona bigarren liburukia: *Les exercises de la vertu et de la perfection chretienne.* Par le R. P. Alphonse Rodriguez jesuite. Divisez en III. parties. Nouvelle traduction. Tome II. a Paris, chez Jean Baptiste Coignard, imprimeur ordinaire du Roy, ruë S. Jacques, à la Bible d'or. M. DC. LXXX. Avec approbations & privilege de Sa Majesté.

<sup>11</sup> BNF-n eskuztatu dugun aleak bi liburuki ditu; lehenha 1674koa eta bigarrena 1673koa: 1) *Les exercises de la vertu et de la perfection chretienne* par le R. P. Alphonse Rodriguez jesuite. Nouvelle traduction a Paris chez Jean Baptiste Coignard, ruë S. Jacques, à la Bible d'or. M. DC. LXXIV. Avec approbation & privilege du Roi, tome (I). 2) *Les exercises de la vertu et de la perfection chretienne* par le R. P. Alphonse Rodriguez jesuite, divisez en III. parties. Traduction nouvelle tome II a Paris, chez Jean Baptiste Coignard, ruë S. Jacques, à la Bible d'or. M. DC. LXXIII, avec approbation & privilege du Roi.

<sup>12</sup> François Séraphin Régnier-Desmarais Frantziako akademiaren idazkari ezagunak itzulpen hau salatu zuen, baizik eta gaztelaniatik frantsesera ondu itzulpenean, liburuko lehen saileko 10. kapituluan dohainaz edo graziaz diharduen jatorrizko lanari adieraren aldetik aldaketak egin zitzaiatzila.

<sup>13</sup> 1674 urtea ere irakurri dugu.

<sup>14</sup> Internetean badira berrargitalpenak; liburuaren 1790ko lehen atal bat, 1703ko bigarren bat eta 1679ko hirugarren bat aurkitu ditugu. Hainbat berrargitalpen aipa ditzakegu —dela liburuki bakar bat— tenak edo dela hiru liburukiak batera aterarik—: *Anberesen: 1693; Besançonen: 1830, 1835, 1839; Lille: 1822, 1826, 1833, 1840, 1842, 1851, 1860; Lyonen: 1814, 1821, 1822, 1827, 1829, 1830, 1832,*

7. J. L. Crouzet-ek egina, Parisen, 1857an. Sommervogel-ek J. P. izena dakar Crouzet-entzat eta Autun-eko elizbarrutiko apeza zela dio; 1863 eta 1868 urteak dakartzat eta 1879ko berrargitalpen bat ere aipatzentzu du; bada BNF-n.
8. Zortzigarren dela aitortu gabe, Sommervogel-ek beste argitalpen baten berri dakin: 1869an Bar-le-duc hirian argitaratu zen, elizgizonen batzorde batek arretaz berrikusirik; beharbada ez da zazpigarenaren berrargitalpena baizik.

Alonso Rodriguezzen lanaren frantses itzulpeneren laburpenak usu berrargitaratu dira.<sup>15</sup> Piarres Lafitteren ustez, euskal itzultzaleak frantses itzulpeneren laburpen bat baliatu zuen iturritzat; ikus dezagun, bada, Rodriguezzen lanaren frantses laburpen horiek zein diren:

- Claude Malingre sieur de Saint Lazare-k, Paul Duez-en itzulpenean oinarriturik, *Fleurs de la pratique de la perfection et des vertus chrétiennes et religieuses* argitaratu zuen bi liburukitan Parisen 1630ean. Bada 1647ko argitalpen bat ere, hiru liburuki duena.<sup>16</sup>
- Régnier Desmarais-en itzulpeneren laburpen bat dago, Lillen 1696an aterea, *Traité de la conformité à la volonté de Dieu*, 372 or.
- 1744an Nancyn beste laburpen bat gehiago argitaratu zen bi liburukitan: *Abrégé de la perfection chrétienne*.
- Jérôme Besoigne apezak laburpen bat argitaratu zuen Parisen 1748an, eta berrargitalpenak izan ziren ondotik 1749, 1753, 1766, 1767 urteetan.<sup>17</sup>
- Régnier Desmarais-en itzulpeneren beste laburpen bat ere bada, Parisen 1753an argitaratua: *Principes de la perfection chrétienne et de la perfection religieuse*.
- Pierre-Joseph Tricalet apezak *Abrégé de la Pratique de la perfection chrétienne, tiré des œuvres de Rodriguez* argitarazi zuen Parisen bi liburukitan (1761); katalogoetan aipamen gehien bildu duen laburpena da eta baliatuena izan zen. Badirudi berrargitalpenak ausarki izan zituela eta honakoak ere hala direla uste dugu: Nancyn 1762an; Parisen 1763 eta 1769an. Euskal liburua argita-

---

1834, 1835, 1839, 1842, 1847, 1850, 1852, 1872, 1877, 1888; *Lyonen & Parisen*: 1827, 1830, 1832, 1844, 1848, 1855, 1862; *Parisen*: 1679, 1680, 1682, 1686, 1688, 1703, 1715, 1742, 1753, 1754, 1827, 1830, 1832, 1834, 1836, 1837, 1854, 1857, 1859, 1861, 1870; *Poitiersen*: 1854, 1860, 1865, 1868; *Saint Malon*: 1790; *Tolosan*: 1699, 1720; *Versaillesen*: 1813.

<sup>15</sup> Hona sail ugari bat hiriak eta urtea aurkezturik: *Besançonen*: 1847. *Fréjusen*: 1887. *Lillen*: 1836, 1862, 1876. *Lyonen*: 1803, 1811, 1818, 1819, 1823, 1824, 1829, 1830, 1839, 1844, 1846, 1854, 1862. *Nancin*: 1744. *Parisen*: 1635, 1762, 1763, 1769, 1823, 1829, 1830, 1836, 1839, 1844, 1846, 1854, 1862, 1876. *Rouen*: 1784. Avignonere egin zen, 1824an, euskal itzulpena bezala Aubanel-en inprimategiaren ondurik; Avignongoak dira 1830, 1840 eta 1842ko laburpenak ere.

<sup>16</sup> Guri Frantziako Biblioteka Nazionalean 1647ko argitalpen hau ateraziguten eta bera eskuztatu genuen: *La pratique de la perfection et des vertus chrestiennes et religieuses*. Composée en espagnol par le R. P. Alphonse Rodriguez de la Compagnie de Iesvs, extraict selon la traduction françoise du R. P. Pavl Dvez de la mesme compagnie, a Paris, chez Jean Iost, M. DC. XLVII.

<sup>17</sup> BNF-n bi edizio eskuztatu ditugu, 1749 eta 1766koak: 1) *Principes de la perfection chretienne et religieuse, divisés en deux parties*; seconde édition revue / Rondet & Labottière; Jean Desaint & Charles Saillant, avec approbation & privilége du Roi, Paris, M DCC. XLIX. 2) *Principes de la perfection chretienne, et de la perfection religieuse; avec des suppléments pour les vierges chretiennes qui servent Dieu dans le monde*, troisième édition revue; Paris, Saillant & Desaint, M. DCC. LXVI., avec approbation & privilége du Roi.

ratu ondokoak lirateke beste hauek: Rennes, 1785; Saint-Malo, 1785; Lyon, 1803, 1811, 1818, 1824, 1829, 1839, 1844; Avignon, 1824; Lille, 1826; Paris, 1829, 1839, 1844, 1862.

Badira gero beste laburpen batzuk, eskuarteko gure euskal itzulprena argitaratu ondokoak direnak eta gure helburuetarako ondoriorik ez dutenak.<sup>18</sup>

Ezagun du gaztelaniaz idatzi zen liburu honek frantsesetako edizio ugari izan duela eta hauen artean egon beharko dutela elkarrengandik desberdinak direnak ere. Edizio hauen laburpenak frantsesetako ugari egin direnez, ez da aise euskal itzultzzaileak bere lanerako zein edizio baliatu zuen jakitea. Halaber, itzultzeko osoko edizio batean ala honen laburpen batean oinarritu zen jakitea ere ez da aise.

Euskal itzultzzailearen lanabesak edo iturria ezagutu nahirik Oztibarrera jo dugu, Ibarre herriko eliz-ondasunak ezagutzera, baina ez daude bertan, elizan ez da liburu zaharrik: daudenak XX. mendekoak dira. Jakin dugunez, Larramendi izeneko apezdonostiritar batek berriztatu bide zuen eliza 1930ean. Donaixti-Ibarre udaleko alkateari eta Pabeko jesuitei ere galdegin diegu Ibarre herriko eliz-liburuez, baina ez dugu fruiturik erdietsi. Ibarreko jo dugunean herritarrei esker jakin dugu Ithurbidea izeneko etxeen badirela eliz-liburu batzuk. Etxe horretako giltza duen herritar bati eta Jean-Baptiste Oltzomendi apez betharramixtari esker liburuok ikusteko aukera izan dugu, baina ez dugu bilatzen genuena aurkitu, etxe horretako eliz-liburuak ere berriak dira. Ibarre herriko Ertorainia etxera ere jo dugu, iraganean herriko apezak bertan bizi izan baitziren, baina han ere ez dugu bilatzen dugun liburuaren berririk aurkitu ahal izan.

Euskal itzulpeneren frantseseko jatorrizko iturria zein izan zen jakin nahirik, lehen frogak Euskal Herrian egin ditugu, Iruñeko eta Gasteizko apezgaitegietako eta Loiolako basilikako liburutegietan, baina egoitza hauetan ez dago frantses edizio anitz. Régnier-Desmarais-en ohiko itzulpen oso eta estandarra eta Tricalet-en edizio laburtu estandar eta ezaguna baliatu eta aztertu ditugu, sakon aztertu ere. Bi hauetarik euskal itzulpenera iristeko arazo franko dago, edizio hauetarik ez batak ez besteak ditu azaltzen euskal edizioak ageri dituen ezaugarri berexiak.

Ondotik, frantses edizio oso edo laburtu gehiago ezagutu nahirik eta frogatzen egiteko, Parisko Biblioteka Nazionalera jo dugu, baina arras denbora mu-

<sup>18</sup> 1) *Traité de la fin pour laquelle Notre-Seigneur a institué l'état ecclésiastique, et de quelques moyens qui peuvent servir à cette fin...*, Lyon, 1827. 2) *Traité de l'humilité, de la modestie et du silence, et de la charité envers le prochain, extraits des œuvres spirituelles du R. P. Alphonse Rodriguez de la Compagnie de J.*, Avignon, 1830, 248 or. 3) *Traité de la sainte Communion et du saint sacrifice de la Messe...*, Avignon, 1842, 112 or. 4) *Traité de l'oration*, Régnier Desmarais-en itzulpenetik, Paris, 1848. 5) Régnier Desmarais-en itzulpenean oinarriturikako *Traité de la perfection chrétienne*, P. M. Cruice Parisko kalonjeak prestatu eta berrikusia, Paris, 1848. Dirudienez, 1875ean argitaratu *Pratique de la perfection chrétienne* laburpenak ere lotura hertsia duke arrestiko honekin. 6) *Etrennes pieuses: de l'estime de la perfection et des principaux moyens de l'acquérir*, Paris, 1868, 64 or. 7) *Estime de la perfection chrétienne, extraite du P. Alphonse Rodriguez de la Compagnie de Jésus*, P. H. Pottier apezak prestaturik, Nantes, 1872. 8) *Sanctification des actions ordinaires, extrait des Œuvres du Père Alphonse Rodriguez, de la Compagnie*, Paris & Nantes, 1872, 157 or. 9) *Conformité à la volonté de Dieu, ou le Fiat du chrétien*, extracto, 1872, 301 or. 10) *Les secrets de la sainteté, ou petits traités sur la vie spirituelle*, extractos, 1873, 3 liburuki, 443, 455 eta 419 orrialdekoak. 11) *Traité de l'humilité*, extracto..., 1873, 291 or. 12) *Abrégé de la Pratique de la Perfection chrétienne de Rodriguez*, C.-T. Dalpuget-ena, Fréjus, 1887. 13) Charles Aubert-ena, xix. mendekoa.

gatua izan dugu bertako edizio guztiak behar bezala aztertzeko, egun eta erdi baizik ez; bertan dauden zenbait edizio eskuztatu ditugu, baina batzuk arras denbora gutiz. Dena den, hurrenkera kronologikoan hondarrekoia izan den Pariseko bilakuntza geroko utzirik, ikus dezagun lehenik Euskal Herriko bilakuntzek zein ezagutza ekarri diguten.

Euskal itzulprena frantses itzulpen baten laburpenetik datorrela zioen Lafittek (1982: 440) eta hori zinez horrela den jakin nahirik, bi laburpen baliatu ditugu guk: batetik, Nancyko 1744koa eta bestetik, gehien irakurri, zabaldu eta berrargitaratu den laburpena, P.-J. Tricaleten klasikoa (1761). Bi lanok argitaratu ziren urteak aintzat harturik, logika du euskal itzultzaleak 1782ko berea argitaratzeko Nancykoa ala Tricaletena baliatu ahal izan zituela pentsatzeak.

Tricaleten argitalpenaz bi ale ezagutu ditugu: bata Gipuzkoako Loiolako saindutegian aurkitu duguna, 1784an berrargitaratua, euskal itzulprena argitaratu eta bi urtera kaleratu zena, baina 1769an Parisen argitaratu zena leialtasunez jarraitzen du. Liburuak ez du adierazten Tricaletena denik, baina Tricaletena den beste edizio baten berdina da. Baliatu dugun Tricaleten bigarren alea Gasteizko apezgaitegian dago; 1836koa da, Parisen argitara eman zen eta Tricaletena dela dio: *par P. J. Tricalet*. Nancyko 1744koa aztertzeko Pariseko jesuiten Sevres ikastetxeko ale bat baliatu dugu, Nancyn argitara zen 1744ko lehen edizio haren beraren ale bat hain zuzen ere.

Euskal itzultzaleak bere lana egiteko ez zuen bi laburpen horietarik batere baliatu,edo horiekin bederen ez zuen aski izan, eta hau argiki baieztagoekin argudioak daude: eman dezagun, garbitasunaz edo haragizko bekaturik ezaz diharduen saileko hamaika kapitulu dauzka euskal itzulpeneak, baina Nancyko 1744ko laburpenak sei baizik ez, nekez izan zitekeen hori euskal itzultzalearen iturria; jatorrizko lanean hamaika kapituluk osatzen dute sail hau. Berebat, Tricaleten laburpen klasikoak ez dakar kapitulu bakar bat ere Jainkoaren borondatera egoteaz, baina euskal itzultzaleak sail horretako sei kapitulu dakartzza; jatorrizkoan hogeita hamalau kapituluk osatzen dute sail hau. Datu hauek ikusirik, ez dirudi euskal itzultzaleak laburpen horietarik bat bera ere baliatu zuenik, aiseago pentsa daiteke lana beste era batera egin zuela: dela liburuaren itzulpen oso bat baliaturik, dela itzulpen laburtuen bestelako konbinazio bat baliaturik, betiere, itzulpen laburtu hauek beren artean desberdinak zirela ulerturik.

Gure euskal argitalpen hau tajuz prestatzeko usu begiratu diogu lanaren frantses edizio osoari, eta itzulpenen artean estandarrena Régnier-Desmarais-en 1675-79koada: gerora berrargitalpen ugari izan du eta hizkuntzaren aldetik unean uneko Frantses Akademiaren idazketa arauetara egokitu da. Osoko itzulpen honek duen balioa da euskal itzulprena bere barrenean hartzen duela, euskal itzulpenearen berexitasun nímiño batzuk salbu, baina oro har, euskal itzulpenean dagoen eduki guztia frantses edizio oso horren barrenean dago. Nolanahi den ere, ez dago garantiarik euskal itzulpena Régnier Desmaraisen osoko liburia oinarri harturik egin zela ziurtasunez baieztagoekin, beste itzulpen osoko bat izan daiteke Lopez itzultzaleak baliatu zuena, edota ezagutzen ez dugun beste edizio laburtu zenbait, eta baita edizio laburtu desberdin bat baino gehiagoren arteko edozein konbinazio ere; izan ere, gaztelaniaz ondu liburu aszetiko honen edizio, laburpen eta egokitzapen franko egin zen frantsesetan.

Auzia ez da aise trenkatzen diren horietarik. Euskal itzulpenak Régnier Desmaraisen osoko liburuarekiko edo Tricaleten laburpenarekiko ageri dituen arazo edo inkoharentzia batzuk konpondu ezinik, ase gabe, edizio gehiago ezagutzeko beharra

sentitu dugu eta argitasun zenbait atzeman nahirik Frantziako Biblioteka Nazionalera jo dugu, ea lor ote litekeen euskal itzulprenaren eta frantses edizio zenbaiten artean akats bateratzaleen sail bat, frantses edizio hori euskal itzulprenaren iturritzat edo euskal itzulpena frantses iturriaren jarraitzaletzat hartzeko eran. Hartara, Parisa ere jo dugu.

Ordea, *Bibliothèque nationale de France*-n dauden edizioei begira ere ez dugu balizko iturriari buruzko froga positiborik aurkitu. Pariseko frogak ez dira ugari izan: beste zazpi edizio gehiago alderatu ditugu euskal testuko ezaugarri batzuekin, baina saio honek ere ez du emaitza onik ekarri. BNF-n liburuaren lehen frantses itzulpena, Paul Duez-en 1623koa eta haren 1647ko beste edizio bat ikuskatu ditugu. Louis Moreriren 1667koa ere ikusi dugu eta baita Nicolas-Joseph Binetena (1673-74) eta Nicolas Cabart-ena (1680) ere. Bi laburpen ere eskuartean ibili ditugu: Claude Malingre sieur de Saint Lazarerena bata, baina 1647koa, ez dugu uste 1630eko liburutegian denik. Bigarrena Jérôme Besoigne-rena izan da, 1749koa eta baita 1766koa ere.

Hauexek dira Pariseko Biblioteka Nazionalean aurkitu ditugun sei autoreak, Euskal Herrian alderatu genituen idazleekiko desberdinak direnak. Liburu honen autore gehiagoren itzulpenik BNF-n baden ez dakigu xuxen, joan baino lehen katalogoetan begiratzean guk segurik ez genuen aurkitu.

Arazo ugari gertatzen da euskal itzulpena frantsesezko jatorrizkoarekin alderatzean, gure edizioan agertuko den bezala. Dena den, alderatzeko BNF-ko gure jarrrera zein izan den azaltzea gauza beharra da: nahiago izan dugu froga guti batzuk ahalik eta frantses ediziorik gehienetan egin, ezen ez eta edizio gutiagorekin ezaugarri gehiago alderatu edo frogatzen egin. Lau frogatzen prest Pariserako eta hauen emaitza ez da positiboa izan, ez dugu jakin ahal izan Lopez euskaldunak testua zehazki zein frantses ediziolarik itzuli zuen.

Berehala aurkeztuko ditugun liburuaren lau pasartetan —frantses testutik euskal itzulpenera aldaketa baitago—, aukera egon liteke jakin ahal izateko euskal itzulpena zein frantses ediziiori begira egin zen edo zeinekin gordetzen dituen huts bateratzaleak. Esate batera, berehala ikusiko ditugun lau adibideetarik lehen bietan eransketa gertatua: frantsesez ez dagoen zerbait ageri da euskaraz; lehen adibidean *eta bost* erantsi du euskal itzulpenak eta bigarren adibidean izpiritua sainduaren erreferentzia. Bi eransketak testu aszetiko hau euskaratzean gertatu zirela pentsatu behar dugu, ala lehenagotik frantses edizio zenbaitek dagoeneko bazekartzan berrikuntza edo eransketak dira, gero euskarakzora iragan zirenak? Hirugarren adibidean izen aldaketa dago, nahasmen bat saindu baten izena idaztean. Aldiz, laugarren adibidean perpaus mozketa desberdin egin da frantses testuan eta euskarakzkoan, puntua lekuz aldaturik dago euskarakzkoan.

Lehen hiru adibideetan litekeena da aldaketa frantses edizio batean gertatu izana eta honela, aldaketa frantses edizioen arteko izanik, hartara euskal itzulpenak frantses tradizioan gertatu aldaketa bat jarraituko luke eta aukera emanen liguke Lopez euskaldunak zein frantses ediziolarik itzuli zuen jakiteko; balizko aukeratzat dakargu hau, ez gara honela gertatu zenik baieztatzen ari.

Laugarren aldaketaren itxura desberdina da: inprimategian egin mozketa huts bat izan liteke, argitaletxeak behar izaten duen apografoa kopiatzaileak eraikitzean gertatu ahal izan zena. Dena den, ez litzateke ezina aldaketa frantses itzulpenen arteko edizio batean gertatu izana ere, puntua kokagunez aldatu eta mozketa beste era batera egin izana, aldaketa frantses edizio batean gertatu izana eta ondotik, euskal itzul-

penak frantses edizioaren mozketa desberdin hori jarraitu izana; ez jakin. BNF-ra jo-tzean gure xedea izan da ezezagunak genituen frantses edizioak euskal itzulpenarekin alderatzea, ea huts bateraturik atzeman genezakeen, euskal itzultziaileak zein frantses edizio edo iturri baliatu zuen jakin ahal izateko. Hona zein diren alderatu ditugun lau pasarteak:

1. *çoinhec hetaric bederatcitan hoguei eta bost mila soldado gau batez hil uken baitien / qui en tua cent quatre-vingt mille en une nuit*
2. *Justua egunian çazpitán erorico dela, Ispiritu Seindiac dioena, erran nahi baita anitz aldis / car le juste tombera sept fois le jour; c'est-à-dire, plusieurs fois*
3. *Irakurten diici Saint Gregoriorien bicitian / Nous lisons dans la vie de sainte Gertrude*
4. *plaçan jokatcen ari ninduçun, eta biskitharthian hiltcera condenatcen nindicien Erregueren Gorthian. Nic deuz jakin gabe, Erregueren Seme bacoitzçac, hori jakinic, berheala bere buruco corona kentcen dici / J'étois, dit-il, dans la place publique à jouer; cependant on prononçoit une sentence de mort contre moi dans le cabinet du roi, sans que j'en susse rien. Le fils unique du prince l'ayant appris, ôte aussitôt sa couronne de dessus sa tête.*

Hona orain Pariseko edizioek lau frogatua hauei buruz dioskutena:

	Duez 1623	Duez 1647	Moreri 1667	Binet 1673-74	Cabart 1680	Malingre S L 1647	Besoigne 1749	Besoigne 1766
1	180.000	180.000	180.000				—	—
2	—	—	—	—		—	—	—
3	Gertrude	Gertrude	Gertrude	Gertrude	Gertrude	Gertrude	—	—
4	bestela dakar		bestela dakar		bestela dakar		—	—

Besoigne-ren laburpenaren kasuan, ez dugu jatorrizko edizioaren egiturarekin parrekotasunik ikusi, kasik ez dirudi liburu berbera denik, egokitzapen bat baizik; liburu laburtzean edukiak eta atalak beste era batera antolatu izanak zail utzi du alderatzeko aukera. Eta hutsik dauden beste laukiek zer adierazten dute? Gainerateko sei edizioetako lauki zuriek ez dute guztiak interpretazio bera; guti batzuen arrazoia guk nahi genituen pasarteok aurkitu ezin izana da, liburuaren antolaketa desberdina delako; beste kasu batzuetan hutsuneak adierazten du liburuaren antolaketan itzultziaileak pasarte batzuk laburturik, zenbait zati ez direla ageri eta ondorioz, ezin alderaketa egin izan dela. 2 lerro edo mailako “—” edo ezezko ikur horiek adierazten digute euskazko *Ispiritu Seindia* frantsesezko edizioetan ez dagoela. Eta Gertrude → Gregorio sainduen izen aldaketa ere ez dirudi frantsesetik datorrenik, ezta laugarren berrikuntza ere, esaldien mozketarena.

Aitortu beste biderik ez dago, bada, BNF-ko alderaketak ere ez duela fruiturik eman, datu positiborik ez dela agertu, edo beharbada ez garela aurkitzeko gai izan, huts bateratzailerik ez dugula atzeman. Ditugun datuak izanik, pentsa daiteke frantses ediziotikako lau desbideratze horiek euskal itzulpena gauzatzean gertatu zirela, izan ere, guk dakigula, ez dute frantses tradizioaren barreneko saihestea zaharrago bat jarraitzen, baina hau honela izan zela xuxen jakiteko, frantsesezko edizio guzti-guztien berri zehatzagoa beharko genuke izan eta ez dugu.

Honengatik guztiagatik, euskal itzulprenaren bigarren edizio hau osatzeko eta noizbehinka argibide filologikoak emateko, estandarrena den frantses edizio osoko bat baliatzea erabaki beste biderik ez dugu ikusi: Régnier-Desmarais-ena jarratzea.

### 1.3. Orain artekoaz bestelako ikuspegi bat

Arestian aipatu bilakuntzek ez digute aukerarik eman euskal itzultzailearen iturria edo jokabidea zein zen jakiteko, baina itzultzailearen jokabideaz egiantzekotasuna izan lezakeen hipotesi bat emateko argudioak egon litezkeela uste dugu guk, izan ere, Piarres Lafittek Lopez euskal itzultzaileak frantses itzulpen laburtu bat baliatu zuela idatzi baitzuen (1982: 440).

Batetik aitoritu behar da, gure liburuak dakarren eta Baxenabarreko Jutsin idatzia izan zen Elizaren baimen ofizial batean adierazten zaigula, jatorrizko liburua euskal itzulpena baino lau aldiz hedatuagoa dela: *çoin lauretan hedatiago baita* (455). Besteetik, Lafittek ez zuen frogatu euskal itzultzaileak lanaren frantses laburpen bat baliatu zuenik, interpretazio hori egiteko ez zuen argudio edo arrazoirik eman. Euskal itzulpena laburpena da baina bestalde, liburu honetako sail eta kapitulu anitzetan, neke da euskal itzulpenaren eta jatorrizko frantses itzulpen osoaren artean egokitzapen zehatzak aurkitzea, honexegatik uste dugu guk suposatu zuela Lafittek euskal itzulpenaren iturria lan osoaren frantses laburpen bat izan zela: itzultzaileak 600 orrialdeko frantses laburpen bat baliatu zuela uste zuen Luhusoko euskaltzain handiak, baina euskarazko aitzin-solasak ez dio horrelakorik.

Bide zuzenetik saihesteko aukera ez du Lafitteren ikuspegiak soilik sortzen, aitzin-solasean itzultzaileak *pparte* hitza erabiltzeko duen erak ere bide zuzenetik saihesten ahal gaitu. Delako *pparte* elea bi era guztiz desberdinetara ulertuz gero, auzia franko argitzen da: liburuak azalean *praticaren pparte bat Heuzcarala itçuli* dela dioskunean egia dio, hau da, osorik ez duela itzuli adierazten digu. Aitzin-solasean euskal moldatzaileari liburua osorik itzulta lan izugarria iruditzen zaiola ageri da: *liburu Frances-sian seiheun pagetaco laur ppartetan den horren Heuzcarala itçulceco lanaren luce, eta handitarçunac icicen, eta guibeltcen nindicien*. Izan ere, hondarreko perpaus honetan dakusagu guk bide zuzenaren saihesbidea, zeren oraingoan *laur ppartetan* sintagmako *pparte* izena ez baita arestiko erabilera bezala ulertu behar, bestela baizik.

Halaz, laur *pparte* horiek ez dira liburuaren atalak edo zatiak, erdaraz *parte / partie* direnak; guztiz bestela, *laur* horiek liburukiak dira oraingoan, 600na orrialde dituzten lau liburuki, gaztelaniazko jatorrizko lanaren frantsesezko itzulpen osoak lau liburuki bide zituen eta uste dugunez, horrelako edizio bat baliatu zukeen euskal itzultzaileak. Ez zukeen eskuartean hiru liburukiko edizio bat izan, laukoa baizik, hiru atal —baina lau liburukitan emanak— zituen frantses itzulpen oso bat. Esate batera, guk Gasteizko apezgaitegian honelako edizio bat ezagutu dugu, 1872koa, Paris & Lillen argitaratua, F. S. Régnier-Desmarais akademikoak 1675-79an plazaratu zuenaren berrargitalpen bat. Baina badira sei liburukiko edizioak ere, F. S. Régnier-Desmaraisen frantses itzulpena osorik, bere hiru atalak dituena, baina sei liburukitan zatiturik; honelakoa da Lillen 1833an argitaratu zena, L. Lefort inprimataileak egina. Gure oraingo argitalpen honetan 1833ko edizio honen arabera lan egin dugu eta frantses itzulpenak bertatik hartu ditugu; interneten bildu dugu berrargitalpen hau: Toron-

toko *University of St Michael's College* eta *Windsor*-ko *Holy Redeemer Library* erreferentziak dakartzat.

Gure erreferentzia sisteman, RD akronimoak Régnier-Desmarais adierazten du, frantses itzulpen osoa, euskal liburuaren iturria, guk uste: 1 eta 2 liburukiek I atala egiten dute, gaztelaniaz eta frantsesez *parte / partie* direnak, 3 eta 4 liburukiek II atala egiten dute eta 5 eta 6 liburukiek III atala. Guk oraingo edizio honetan kapituluaren hasiera bakoitzean atalak zenbaki errromatarrean emanen ditugu, eta baliatu dugun gaztelaniazko jatorrizkoan gauzak honela dotoz, I, II edo III atalen arabera, baina baliatu dugun frantses itzulpena sei liburukitan baitator, RD 1, 2, 3, 4, 5 edo 6 eran izendatuko dugu itzulpenaz argibide zenbait eman nahi dugun orotan, edizioak dartzan oinoharretan bereziki.

Adieraz dezagun liburu horien barrenean sailak daudela, kapituluz osaturikako sailak, arestian aipatu bezala. Hiru ataletarik bakoitzari 8 sail dagozkio, orotara 24 sail dira jatorrizko liburuan; RD-ren sei liburuetarako bakoitzak atal bakoitzaren sailen erditsua edo dakar, lau bat edo, eta sail horiek beren kapituluak.

Gaztelaniazko itzulpenetarako Bartzelonako 1834ko edizio bat baliatu dugula adierazi dugu, baina honek ez ditu sei liburuki, hiru baizik: honela, atal bakoitzza liburuki banatan dator eta atal bakoitzeko zortzi sailak ere liburuki banatan doaz.

Gure edizioaren oinoharretan erabiltzeko baliatu ditugun liburuak xix. mendearren lehen hereneko bi argitalpen baitira, ez doaz guztiz bat frantsesaren edo gaztelaniaren egungo grafia ohiturekin.

Lana antolatu zuenean euskal itzultzailak izan zuen jokabidea xuxen ulertzea era-gozten duen arrazoi franko dago: oro har, euskarazko kapitulu sailen eta kapituluen izenburua eta edukia jatorrizko lanaren arabera ematen zaizkigu, baina egiturari dagokionez, euskarazko kapitulu ugari ez dotoz jatorrizko lanean bezala sailkatutrik edo kokaturik, jatorrizko liburuaren eta euskarazkoaren arteko asimetria dago. Uler bedi jatorrizko liburua diogunean bereziki frantses edizio edo itzulpenaz dihardugula, honela aitortzen baitu itzultzailak aitzinsolasean. Bestalde, eta besterik frogatzen ez den artean, uste dugu Régnier-Desmarais-en edizio oso bat baliatu zuela, ez laburpen bat. Egin dezagun jatorrizko liburuaren egituratik euskal argitalpenera dagon aldearen tipologia xume bat:

- jatorrizkoan sail desberdinetan kokaturik dauden kapituluez osatzen du sail bat: *Otoitçaz* deitzen den saila, euskaraz hirugarrena dena, hamazazpi kapituluz osatu du. Jatorrizkoan otoitzaren gaia lehen atalean doa eta bosgarren saila osatzen du; kapituluak, berriz, hogeita zortzi ditu; baina euskaraz hirugarren sail otoitzarena osatzen duten hondarreko zazpi kapituluak, ez dira jatorrizko laneko otoitzaren sailetik ekarri edo itzuli, bigarren ataleko zazpigarren sailetik baizik; sail honetan jatorrizkoan bederatzi kapitulu daude eta Jainkoaz eta harren pasio sainduaz dihardute.
- jatorrizkoan sail bakarra dena euskal liburuan bi sail dira: II/8 sailaren bidez, euskaratzean bi sail eratu dira: laugarren sail *Communione seindiaz*, zazpi kapitulurekin eta bostgarren sail *Meça seindiaz*, bi kapitulurekin; hauek jatorrizkoan *De la sagrada comunión y santo sacrificio de la misa / De la sacrée communion et du saint sacrifice de la messe* saila dira, bigarren ataleko zortzigarrena, hamasei kapitulu dituena.

- euskal kapitulu bi kapitulu dira jatorrizkoan; *Jujamendu arbinez* diharduen hondarreko euskal sailean, hirugarren kapitulu euskarazkoa ez dagokio jatorrizko kapitulu bati, bi kapituluri baizik, jatorrizkoko lehen ataleko laugarren saileko hamasei eta hamazazpigaren kapituluei. Berebat, *Gincoaren borondatera egoithiaz zazpigaren* saileko laugarren kapitulu itzultzeko I/8/16 eta I/8/18 kapituluak baliatu ziren. Eta zazpigaren sail horretako euskarazko seigarren kapituluak I/8/20 eta I/8/21 kapituluetan du jatorria.
- jatorrizko kapitulu bat euskal liburuan bizpahiru kapitulu dira: bigarren sail *Gincoaren presenciaz-en*, seigarren eta zazpigaren kapituluak jatorrizko kapitulu bakar bati dagozkio, I/7/5-etik harturik daude biak, lehen ataleko zazpigaren saileko bosgarren kapitulutik. Baina kapitulu honek beste sail bateko beste kapitulu baterako ere eman du: euskal liburuko hondarreko sail *Jujamendu arbinez-eko* seigarren kapitulurako.
- jatorrizko bi kapitulu nahasirik euskarazkoan beste bi kapitulu eratu ditu, euskarazko bietan ere jatorrizko bi kapituluetarik nahasiz: euskarazko bederatzigarraren sailean bigarren eta hirugarren kapituluak, adibidez; biak jatorrizko hala I/4/16 nola I/4/17-ri dagozkie, baina bi kapituluetako zatiak nahasirik bi kapitulu egin ditu itzulpenean ere, ez du bakoitzarekin bana egin: euskal kapitulu bakoitzak jatorrizko bi kapituluengatik lehen zatiak ditu.
- euskal kapituluak ez dira guztiak jatorrizkoaren hurrenkera berean eman: *Gincoaren borondatera egoithiaz zazpigaren* sailean, jatorrizko liburuko hogeita hamalau kapituluetarik sei baizik ez dira eman euskaraz, eta gainera, jatorrizkoan kapituluak duten hurrenkera ez da euskal itzulpenean jarraitu: 1/1, 2/22, 3/23, 4/26, 5/19 eta 6/20 itzuli dira; gora-beherak daude, beraz: euskal 1, 2, 3, 4, 5, 6 kapituluak, jatorrizkoan 1, 22, 23, 26, 19, 20 dira, eta ez da adibide bakarra; euskal liburuko lehen sail *Gauça ispiritual edo Jincoazkuez* delakoan, hondarreko bi kapitulu 9 eta 10-en, itzultzailea liburuan gibelerat itzuli da: 9. kapitulua I/2/5 da jatorrizkoan eta 10.a, berriz, I/1/17: liburuko lehen ataleko bigarren sailera gibela itzuli da.
- euskal kapituluaren barrenean orrialde itzuliak hautatzean, lehenik aitzinera eta ondotik gibela ibili da: esate batera, zazpigaren sail euskarazkoan laugarren kapituluan 325. orrialdean datorrena frantseseko jatorrizko 456-n dago, baina euskarazko 326. orrialdeko gaia frantsesekoaren 454-n. Ondotik laugarren kapitulu horrexetan berriz ere gibelerat jo eta jatorrizko I/8/18tik I/8/16 kapitulura jotzen du euskal testuak, euskarazko 328. orrialdeko frantsesekoan 440-n dago.
- kapituluengatik lehen jauziak daude: *Gincoaren presenciaz* diharduen bigarren sailean, bosgarren kapitulu jatorrizko liburuko I/6/5-i dagokio, baina seigarrena I/7/5-i, zazpigaren saileko bosgarren kapituluari; honelakoak guztiz arruntak dira euskal liburuan: euskal liburuko hirugarren sail *Otoitçaz-en*, lehen bost kapituluak jatorrizko I/5/1, 2, 3, 4 eta 5-i dagozkie, baina euskal liburuko *seiguerren capitulia* I/5/8 da jatorrizkoan, ez da I/5/6.
- itzulpenea egitean euskal moldatzaileak laburpena egin du: ez ditu kapitulu guztiak osorik itzuli, hainbat eta hainbat hutsune utzi ditu, pasarte zenbait euskaratu gabe gelditu dira kapituluaren barrenean; jatorrizkoan diren baino laburrago eman ditu euskal kapitulu franko. Seigarren sail *Umilitathiaz-eko*

- zortzigarren kapitulua II/3/28-ren laburpen gaitza da, non eta laburpenaren iturria ez duen beste nondipait hartu. Berebat, hondarreko saileko *Jujamendu arhinez*-eko laugarren kapituluak euskal liburuko 438-n erlijiosoen izen ona zikintzeaz teologoek diotenaz dihardu orrialde bat baino tarte gutiagoan, baina jatorrizkoak hiru orrialde ditu, luzeagoa da eta eduki gehiago dakin: ez du guztia itzuli, hautu bat egin du; cf. frantseseko RD 3, 226, 227 eta 228 or.
- jatorrizko liburuko kapitulu guztiak ez ditu itzuli: euskal liburuko laugarren saila da adibidea; zazpi kapitulu dakartzza euskarazko liburuak, baina jatorrizko lehen hiru kapituluak falta dira, II/8/1, II/8/2 eta II/8/3; II/8/4 eta II/8/10 bitartekoak itzuli da, elkarren jarraian, baina hiru lehenak gabe.
  - anitz aldiz salbuespna da jatorrizkoak eta euskal liburuak egitura bera gorde-  
tzea: zortzigarren sail *Garbitarçunaz* jatorrizkoaren egiturarekin ia osoki bat dator; jatorrizko liburuko hirugarren ataleko laugarren saileko lehen hamar kapituluak diren bezala eta beren hurrenkeran datozen euskal itzulpenearen zortzigarren sailean, baina hondarreko euskal kapitulua, hamaikagarrena, ez doa jatorrizkoarekin batera: jatorrizkoan lehen ataleko zapzigarren saileko bosgarren kapitulua da eta labur-labur itzuli du, lerro batzuk dakartzza, orrialde bat baizik ez.

Euskal itzultzaleaz Piarres Lafittekin hainbat berri dakin (1982: 437-8):

Pierre Haristoik xix. mende bukaerako bere *Les paroisses basques pendant la période révolutionnaire* liburuan dakarrenez, Lopez itzultzale hau Baxenabarreko Oztibarre haraneko Jutsin sortu zen; Haristoiri Jutsiko Jean Etcheberrik kontatu zion hori; Lopez Ibarre herriko erretor saindu bat izan bide zela: *aizina zuelarik herriko xaharentzat galtzerdi egiten ari zela, eta Ibarreko elizan ehortzi zutela.*

Marc de Phillettes d'Abense Akizeko bikario nagusi zuberotarrak —1782an Jutsin apez zegoen— euskal liburu honen onespna frantsesetan eta euskaraz eman zuen 1782/III/12an: liburuko 452-455 orrialdeen bitartean ageri da. Guk uste dugu d'Abense Akizeko bikario nagusi zuberotar honek itzulpenean zerikusia izan zuela: liburuan ageri diren hizkuntza-ezaugariengatik diogu hau.

Lafittekin dakarrenez, Hubert Lamande-k *Armorial* ezagunean Zuberoako aitorensemetsat dakarkigu d'Abense hau eta Onizegaineko familia batekoa zela diosku; Abensetar hauek Sorhapürük jaun izan ziren eta Lukuzeko aitorensemeeen ahaide ere bai, XIII. mendeko Nafarroako erret-biltzarretan onetsiak. Frantses iraultzaren garaia bitarteko Akizeko apezpikutegiko artxibategiko lekukotasunak galdu direnez, ez dakigu d'Abense hau noiz sortu zen, baina gure liburuak d'Abensek 1782an elizagindu bat izenpetu zuela diosku, Lafittekin 1780ko ekainaren 24an hil zela badio ere. Jutsiko kalostrapean ehortzi zutela diosku Lafittekin (1982: 438).

Egiazki, d'Abense honek liburuaren euskal itzulpenearen eskuizkribua onesteko 454-5 orrialdeetan dakarren gutuneko euskara ez da liburuaren itzulpenean dagoenetik dialektalki arras bereizten, ohitura beretsuak dakartzza, hala gramatikan nola grafian, baina honek ez du deusere frogatzten.

Lafittekin honako berriak dakartzza Clément Urrutibeheiti jaun mirikuak Oztibarre xaharrari buruz aurkitu dituen dokumentu balios batuetarik eta Haristoiren liburuetarik aterarik (1982: 438):

- Jutsiko erretor izan aitzin, Auch-eko diozesian Nogaro-ko kalonje izan zela d'Abense

- 1766an Amikuzeko eta Oztibarreko ofizial zela
- 1767an Luis Maria de Suarez d'Aulan apezpikuak (1697-1785) Kurutxet ize-neko baten orde Jutsin Ramonaldeko *prébendier* egin zuela
- 1774an Akizeko apezpikuak d'Abense bikario nagusi izendatu zuela
- Erreboluzionea hasi baino lehen hil zela —1782an eliz agindu bat izenpetu zuen — eta Donaixtiko Jean d'Eiherabide erretora haren ondoko izan zela, bai Jutsiko apezgoan, bai bikario nagusi eta ofizial eginkizunetan
- d'Abense honi zor zaiola Jutsiko apeztegia bere inguramen ederrarekin.

Lopez apez itzultziale jutsiarraren eta d'Abense zuberotarraren gaineko argibide gehiago eskuratzentz gaitu gara eta haien berri Akizeko apezpikutegiaren artxibazain Alfred Brettes-i galdegin diogu, baina dioskunez, 1789ko Frantziako Iraultza aitzineko lekukotasun idatzi guztiak falta dituzte; Mont de Marsan-eko *Conseil Général des Landes*-en ere galdegin dugu, artxibategiaren zuzendari Jacques Pons-i, baina ez dugu datu beririk erdietsi.<sup>19</sup>

#### 1.4. Nafarroa Behereko idazki zaharretako mintzoaz eta idazleez

Literaturaren aldetik ezagutzen ditugun XVI-XVII-XVIII. mendeen artean, Nafarroa Behereko mintzamoldeari hizkuntza-aldaketa ugarik eman diote duen eitea. Gaude, halaz ere, Nafarroa Behereko mintzamoldea garatzeko eta bere eiteaz jabetzeko bi-dean, Lapurdiko XVII. mendeko literaturaren eraginak eta XVIII. mendeko testu zuberotar ugariek —Zuberoako euskara bereziaren nortasuna barne—, halako galga antzeko bat ezarri dutela, ez dutela idazle baxenabarren eredua gauzatzera utzi.

Idazki baxenabarretan euskara jatorra, eskualde batekiko leiala dena, XVI. gizaldiko Etxeparereren olerkietan, Beltran Etxauzen 1584ko gutunean eta XIX. mendeko Bonaparteren inguruko itzulpenetan kausitu dugu. XVII eta XVIII. mendeetako Baxenabarreko lanetan hala Lapurdiko nola Zuberoako ezaugarrien itzala sumatzen da. Izatekotan, Luis-Maria de Suarez d'Aulan Akizeko apezpikuak 1740an eman onespenaren bidez Pauen argitararazi zuen *Catichima edo fediareni eta guiristino-eguien explicacione laburra* —Charles-Auguste le quién de Laneufville izeneko Akizeko apezpikuak 1786an berrargitaratu zuena— izenekoa da XVIII. mendean Nafarroa Behereko kutsu nabarmena eta halako jatortasun geolinguistikoa duena; Akizeko apezpikutegitik bultzatu zen itzulpena eta beraren menpe zegoen Baxenabarreko zati horretako mintzoa izan daiteke liburuak dakarrena: Amikuze, Oztibarre edo Landibarre ingurukoa.

Ororen buruan, ez da atzendu behar Nafarroa Behereko euskara ez dela monolitikoa, ardatz geografikoaren arabera aldatuz doala, herrialdeak ez diola mintzoari batasunik ematen herrialde horrek izen bakarra duelako. Aski da XIX. gizaldiko Baigorriko *San Mathioin* ebanjelioko mintzoari begiratzea;<sup>20</sup> usu bere bidetik doa mintzo hau, Baxenabarreko gainerateko kristau ikasbideetako eretarik bereiz, Nafarroa

<sup>19</sup> Bilaketa lanean lankide izan ditugu Beñat Lagourgue kanonigoa eta Maitena Duhalde ikertzailea; zinez eskertzen diegu eman diguten laguntza.

<sup>20</sup> Irisarriko apez Iribarne-Garaik XIX. mendean Baigorriko mintzora itzuli zuen *Yesu Chrictoin Ebanyeliua San Mathioin* arabera (Pagola, Iribar & Iribar 1999b: 19-81).

Behere gehieneko beste idazkiekiko halako desberdintasuna ageri du. Ezaugarri zenbaitetan mendebalera Lapurdiko euskara du kide, ekialderago dauden ibarretako katinximetarik bestalde dabil.

Eman ditzagun orain ñabardura batzuk Baxenabarreko idazkiez edo autoreez:

A) Etxeparerent mintzoa herriarena da dialektoari dagokionez, olerkietan Garaiko erak dira nagusi, adierazi nahi duena irakurleari jakinerazteko aski du Etxeparek eskualdeko mintzamoldea; gure iritzi bera du Beñat Oihartzabalek ere (2008: 513).

B) Leizarraga beskoitzarra zen, lapurtarra, eta herri hau orain bederen hizkuntzaz Lapurdi eta Baxenabarrera begira dago. Izanen da bai bertako euskaratik zerbait haren lanean, baina aitzinsolasean garbi dio *ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarrreiqui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage bereciri*. Bonaparteren arabera ekialdeko behe-nafarrera da alderdi horretako euskara, baina lapurtera literarioaren sortzaletzat ere jotzen da itzultaile hau; jakina da Beskoitzen badirela Lapurdi aldera jotzen duten hizkuntza-ezaugarri ugari eta bestalde, kalbindarrak ez zuen kutsu dialektal handiko itzulpenik egin, jantzia eta ikuspegi zabalekoa baizik, fonetismo guti onesten zuena. Alderdi horretatik, ezin sar dezakegu testamentua Nafarroa Behereko idazki dialektalen artean, testu hauetarik hurbil dauden edo nolabaiteko erlazioa izan dezaketen artean baizik. Ohar bedi gainera, Leizarragak itzulpenean laguntzaile zuberotarrak izan zituela (Intxausti 1995: 153).

C) Beltran Etxauzek anaiari idatzi gutuna ere XVI. mendekoa dugu eta itxura du ahozko mintzotik ez dela urrunten; ez dakigu, ordea, zehazki zein ibarretako euskara den, sobera laburra da gutuna ondorio handirik atera ahal izateko, baina Etxauzen testuak darabiltzan hizkuntza-ezaugarrien konbinazio horrek egungo Ipar Euskal Herriaren geografiaian gaindi duen hedaduran oinarrituz gero, ez dirudi Nafarroa Behereko mendebaleko euskara denik.

D) Oihenart idazlea ez da sortzez baxenabartarra, Maulekoa baizik; ezin pensa daiteke bizi zen Amikuze ibarreko euskara zen bezala islatzeko desirarik zuenik: idazle sena zuen, goitik hegan egiten duten txori horietarik genuen, haren borondatza ez zen testu dialektalak idaztea; ezagutza ere halakoa zuen. Haren lumak ezagun du Lapurdiko literaturatik edanik zegoela.<sup>21</sup> Oihenartek bildu zituen atsotitzetan alderdi bateko baino gehiagotako euskara dagoke; neuritzetan, berriz, ez da ahozko eredurik ageri, estilo zaindu, landu, jantzi eta barrokoa baizik.

Ikertzailea beldurrez dago idazle zaharren jarduna ardatz geografikoaren arabera interpretatzean; idazleek aspaldi hartan baliatu zituzten hizkuntza-aldaerak eta beren geografia-kokagunea lotu nahirik lanean hasten denean, ikuspegi aktualistak kalte egiten dio filologoari: orduko idazleen mintzoa ardatz kronologikoaren arabera aztertzetik ardatz dialektalera ekartzean, dialektologiaz kezkatzen garenok irudipena dugu, ikuspegi historikoaren arabera egin beharrean, ez ote garen, Oihenarten, Tartasen edo Lopez itzultailearen mintzoa euskalki modernoen erakutsiaren arabera aztertzen ari, idazle haiiek *orduan* zerabiltzaten hizkuntza-aldaerak, ez ote ditugun aztertu

<sup>21</sup> Handikiak *zor utena* ‘zor hautena’ (2003: 477) darabil olerki batean, Nor Nori Nork beharrean, “zor”-ekin Nor Nork aditz saila baliaturik, Baxenabarren entzuten ez dena, baina Lapurdiko itsasaldean geroagoko lekukotasunetan agertu dena. Nolanahi ere den, idazle klasikoek ez zuten baliatzen, XIX. mendean ageri dira honelakoak jende xehearen gutunetan eta.

eta sailkatu nahi aldaera horiexek *egun* dituzten hedadura eta muga geografikoena araberak; izan ere, lan du arestian aipatu ditugun hiru idazle horien mintzoa zehazki non goa den jakiteak eta segurki, desira antzu horri ihes egitea da irtenbiderik hoherena, baina non eta ez ditugun orduko datuak eta egungoak alderatzen eta erlazionatzeko, egin ote daiteke hizkuntzaren historian eta dialektolegian aitzinamendurik?

Adibide honek argitu dezala zer adierazi nahi dugun zehazki: idazle zaharrak beren sortzezko edo bizitokiko mintzoarekin identifikatu nahiak dakarren arazoaren eta arriskuaren lekuko da *eu* diptongoaren testuetako agerpena. *EAEL*-ren arabera, *egun Nafarroa Beherean euri* aldaera nagusi da eta halaxe esaten dute, bestalde, Lapurdiko Arbonan, Hazparnen eta Itsasun, zehazki esateko. Gaineratekoan, Lapurdiko Ziburu, Saran, Beskoitzen eta Urketan *uri* ibiltzen da. Zuberoan *ebi* da nagusi *egun* eta Domintxainen *eurria* dakar *EAEL* bildumak. Idazle baxenabaratar zaharren edo ingurukoen jarduna egoera honekin alderatuz gero, badira koherentzia ageri duten batzuk: esaterako, Leizarraga beskoitztarrak *vri* dakar eta Lopezek *euri* (40, 43, 445); Ibarrolako Salaberrik *euri* (27) dakar San Mathiuren ebanjelioan eta Bonapartek Garaziko euskarara egin *Canticum trium puerorum*-en itzulpenean ere *euri* dator.

Aldiz, Oihenartek *uri* (2003: 295) dakar eta Tartasek *urit * (*Onsa*, 117). Oihenarten kasuan aldaera atsotitz batekoan dugunez, 698.a hain zuzen ere, *guk uri badugu, izanen duzue ihitz*, Lapurdin bildua edo izan daitekeela pentsa dezakegu; *ihitz*, bere aldetik, Aturrialdean ezaguna da egun Lapurdin. Nafarroa Behereko nahiz Zuberoako erabilera guztiak *eu*- edo *e*- direnez eta *u-k eu*- edo *e*- eman izana ezina denez, ezaugarri honetan Oihenart eta Tartas Lapurdira begira zeudela pentsa lezake batek. Tartasek berak aitortzen du badela bere liburuan Lapurdiko euskaratik ere. Nora begira egon ote zitezkeen bi idazleok, gogoan izanik XVII. mendearren lehen erdian euskaraz idatzitako literatura ia oro Lapurdin sortu zela? Ordura artean bederen, liburuak lapurtarrek idatzi zituzten eta haiexek izan zitezkeen iturri eta ispilu bakarra.

Bestalde, eta arestian esana hein batez uzkailiz, aditz aldaera batuetan argi dago nor diren ekialdeko eragin gehien jasan duten idazleak, eta ez dihardugu orain xiberotar *ph rrez*; Oihenart eta Tartas Zuberoan sortu ziren, Baxenabarren edo haren ondoko mugan bizitza gertatu bazitzaien ere; alta, haien idazlanetan, *guk* dakigula bederen orduko Nafarroa Beherean baliatzen ez ziren adibide nabarmenak ditugu, honelako item zuberotar garbiak beren lanean horrenbeste ez badira ere: *urhentu* ‘bukatu’ (341) dakar Oihenartek eta baita *ahatze* ‘ahantzi’ (388) ere, Tartasek legez: *ezti  utzi ahatzera* (*Onsa*, 52); *bataz orbit bazite, bertzia etzautz i  ahatzeko* (*Onsa*, 74); berrebat, Tartasena da *hautse* ‘hautsi’ (*Onsa*, 130) aldaera. Zuberoako eran dakar idazle honek *bakhitzak* ‘paga itzak = ordain itzak’ (*Onsa*, 153). Zernahi ere den, Le Quien de Laneufvillek 1786an argitararazi katiximan ere, bokal arteko herskari ahoskabea dugu: *pacatzen* (104) & *paccatceco* (156), Belapeirek dakarren era berean; aldiz, Lopezek *pagatu* (177) dakar.

E) Tartasen mintzoa ahozkotik hurbilago dago Oihenartena baino, baina idazle honen lanean badira dialektologo batek arazotzat hartuko lituzkeen alderdi gehiago ere: sortzez soh tarra izanik, idazle hau Ar en egon zen apez. Haren euskarak ezaugun du oinarrian Zuberoako mintzoa dagoela, baina aitortzen duen bezala, baliatzen du Nafarroa Beherekoa ere eta uste izatekoa denez, Amikuzeakoa. Irakur zezakeen gehiena Lapurdin idatzia baitzen, *Onsa hilceco bidia* liburuan irakurleari berari aitor-tzen dio Lapurdiko euskarra berarenarekin nahasiko dela.

F) Luis-Maria de Suarez d'Aulan Akizeko apezpikuak Larre segretariaren bidez kristau ikasbide baten onespeta izenpetu zuen 1740/III/2an: *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra*. Eskualde horretako eliz agintarien arrenkura zuten haurren hezkuntzari ez zitzaiola behar hainbat arreta eskaintzen eta honek eragin kaltegarriak zekartzala: ezjakintasun damnagarria, bizitze gaixto bat, hatsarrerik gabea eta erlijioaren irakaspenez bestelakoa; katixima bat hedarazi behar zela erabaki zuten, *cointan Erreligioneco lehen principüac içan citen explicatiac manera laño eta arrunt batez haurrac mendrenac endelga ahal ditçaqueten beçala*. Aita-amen, nagusi-etxekandereen zeregina zen *haurrerr eta sehierr eliz-irakaspelen ematea, hainbatean non, horretan jardun ezean heriotzeko bekatua egiten ari baitziren; berebat, parrokietako erretore eta bikarioak ere beharturik zeuden gaztetxoen heziketan jardutera, haurren salvamendiaren daco*. Agiriaren bidez apezpikuak elizgizonak eta haurren hezkuntzan zihardutenak behartzen zituen *catichima haur choilqui, eta berce guciac utziric, eracax edo eracaxaazi deçaten parropietan eta herrietan*.

Onespen agiri hau G. Dugue eta J. Desbaratz *liburu saldçaliaren imprimeriatric* Pauen argitaratu zen euskal katixima datagabe batek dakar; apezpikuak onespen agirian aipatzen duen *catichima haur* Pauen argitaratu zena bera izan behar du, baina ez dakigu Pauko katixima datagabea 1740ko onespeta idatzi aitzinetik ala ondotik euskaratu ote zen, euskal katixima apezpikuak onespeta 1740an ematean ala ondotik itzuli eta argitaratu ote zen. Vinsonek ere ilun dakusa dataren afera (1984: 180-1). Jacques Pons *Conseil Général des Landes*-eko Eskualdeko Artxibategiko Zuzendariak gutun batean dioskunez, izan zen frantseseko katixima bat ere, *Catéchisme ou abrégé de la foy, et des veritez chrétiennes* Suarez d'Aulan-ek berak onespeta 1740/III/2an emanik, idazkari Cailhebar zela eta Roger Leclercq-ek Akizen inprimatua; euskarazkoaren onespen data bera da.

Vinsonek berak euskal katixima honen beste edizio baten berri ematen du, 1770 ingurukoa, Akizen egina, baina guk ez dugu ezagutzen; izen bereko beste edizio ezaugun bat ere bada, Akizen 1786an emana, Charles-Auguste le Quien de Laneufville izeneko apezpikuak bultzatu zuena.

Pauko katixima datagabetik Akizeko 1786kora bada aldea hizkuntza-ezaugari batzuetan eta baita grafian ere. Hona 1740 inguruko Pauko katiximmatik 1786ko Akizekora gertatu diren aldaketa batzuen sail bat:

- a) Aldaera lexikoetan: *aberaxcuac* (124) / *aberaxgouac* (160); *arrestanchetaric* (120) / *arrestenchetaric* (154); *aunhitz* (32) / *anhitz* (43); *bozcarencia* (120) / *bozcalencia* (155); *chuchenqui* (81) / *chuchengui* (106); *debecatiac* (51) / *debetatiac* (66); *geuss dadila* (128) / *geix dadila* (164); *ibacoitz* (34) / *iracoitz* (45); *mendeiquioz* (76) / *meindeikioz* (97).
- b) Hautu lexikoetan: *iduriac consumitu artiraino* (101) / *iduriac ecesta artekan* (132); *copetan* (98) / *belarrian* (128); *chinchiricatu* (34) / *ourratu* (45); *gorda injustoqui* (74) / *deakialaric atchekiren* (95); *immediatoqui* (50) / *hurranenic* (64); *invisiblequi* (120) / *eçabeki* (155); *murmuracionen* (124) / *iroien* (160); *ondicatcen* (108) / *osticacen* (138); *sudur-mizpiretan* (97) / *sudur pincetan* (127); *haren graciac guehiago thebecatuz* (91) / *haren graciac agortur* (sic, 118).
- c) Aldaera fonikoetan: *baia?* (40) / *badia?* (52).

- d) Morfologian: *çaharraguëna* (3) / *çaharrena* (7); *çautezte* (38) / *çauste* (50); *eguin dugun ussiae gachtüaren gagnian* (112) / *eguin dugun ussiae gaistuen gagnian* (143).
- e) Dieresaren erabileran: *bere alguën aravera* (88) / *bere alguen aravera* (114).
- f) Huts edo iratxoetan: *batheura* (97) / *bathura* (126); *Huiçonec* (87) / *guiçonec* (113).

Baionakoa da beste edizio bat, 1815eko, Loison eliz agintariak 1815/IX/16an eman aginduaren bidez argitaratua eta Vinsonek dakarrenez, 1770 inguruko edizioaren arabera egina, hark 164 eta honek 174 orrialde baditu ere. Guk 1815eko edizio hau Pariseko BNF-n eskuartean izan dugu, baina ez dugu aztertu, ikertzen dihardugun garaia XVIII. mendearen bukaerako mintzamoldea baita, ez XIX. gizaldikoa.

Vinsonek dioenez, aipatzen dihardugun euskal *Catichima* honen interesa Amikuzeiko euskaran idatzia izatean datza (1984: 182), eta Amikuzekotzat jotzen du Lopezek egin Alphonsa Rodriguezentzat 1782ko itzulpena ere.

Katixima honen bi frantses edizio ezagutu zituen eskuartean Vinsonek: bata *Catéchisme ou abrégé de la foi, et des vérités chrétiennes*, 160 orrialdekoa, Akizen egina eta Suarez d'Aulanek eman aginduaren araberakoa, arestian aipatu duguna; eta bestea 152 orrialdekoa, Baionan 1815ean egina, bere garaian Charles-Auguste le Quien de Laneufville eliz-agintariak bultzatua.<sup>22</sup>

1740 ingurukoia izan daitekeen Suarez d'Aulanen euskal edizioa, Pauen argitaratzena eta 1786ko le Quien de Laneufvillerena, biak dotrina bera direla esan ohi da, 1786ko 1740 ingurukoaren berrargitalpena dela, baina arestian ikusi dugunez, ez dira guztiz berdinak. Esate baterako, grafian <u> bokala baizik ez dakar 1740 ingurukoak, ez dakar <ou>, baina 1786koak <u> eta <ou>, biak eman zituen; bi grafia desberdin dakartzan argitalpen honek eskualde hartako hitzen bokalen izaerarekin, hau da, /u/ eta /ü/-rekin zer koherentzia duen aurkezten jardun dugu orain duela guti (2009b: 69-73).

Luis-Maria de Suarez d'Aulan Akizeko apezpikuak iduriz 1740 urtearen inguruan Pauen inprimarazi *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra* ize-neko idazkian eta Charles Auguste Le Quien de Laneufville Akizeko jaun apezpiku osoki ilustre eta ohoregarriaren manuz 1786an arrainprimatu zen harten, mintzoari dagokionez ez dirudi ez batean ez bestean eragin kanpotarrik dagoenik, egun bederen Zuberoan baliatzen diren ezaugarrien islarik ez da sumatzen. Katixima honek dakarrena ahozko mintzoa da. Testuan datorren mintzoari Lopezenari baino baxenabartarrago deritzogu guk: ekialdeko Nafarroa Beherean XIX. mendean eta XX. ean baliatu diren hizkuntza-ezaugarrien konbinazioarekin koherenteago da Suarez d'Aulan-ek eginarazi 1740 inguruko lana eta 1786ko berrargitalpena Lopezen itzulpena baino. OEH-k, esate batera, Amikuzeiko euskaratzat dakar le Quien de Laneufville apezpikuak argitararazi 1786ko katiximakoa, zeina hein batez 1740 ingurukoaren berrargitalpena baita.

G) Garaziko Bazkazane herrian agertu diren 1762ko datako predikuek (Orputan 2005), halako kutsu xumea dute, landugabea, herri euskararena; baliteke predi-

<sup>22</sup> Katalogoetan ere ikusi zuen beste edizio bat frantsesez: *Saintes hiriko liburutegiko katalogoa* bada frantses edizio bat, 393 orrialde duena, Akizen 1886an egin zena, Charles-Auguste le Quien de Laneufville agintariak bultzaturik.

kuetako mintzoaren oinarrian Nafarroa Behereko usadioa egotea, baina ez da zaila bertan nahaska Lapurdiko ezaugarri zenbait aurkitzea.

H) Garaziko Bazkazane herrian agertu den eta 1790eko data daraman lege idazkia ere herri euskararen adierazpena da, baina dakarren mintzoa landurik dago, itzuli zuenak senez eman zuen idazkia, ez nolanahi. Ez dakigu Garaziko euskara ote den bertakoa, baina izan liteke.

I) Bonaparteren garaiko kristau-ikasbide eta gainerateko itzulpenak dialektalak dira, XIX. mendearren bigarren erdiko Nafarroa Behereko eskualde batzuetako mintzoa islatzen dute: Arberoa, Amikuze eta Garazi eskualdeetakoak dira hiru, Caze-navek itzuliak. Itzultziale honek berak *Gaaziko heskuaran* emana da *Jondoni Juane apostoliain apokalipsa* eta eskualde bereko mintzoa dakar *San Mathiuin* ebanjelioak ere (Pagola, Iribar & Iribar 1999a). Ezagutzen dugun San Mathiuren beste ebanjelioa, 1856koa, Ibarrolako Salaberrik itzuli zuena (Euskaltzaindia 1991), ezaugarri batzuetan Lapurdiko euskarak ederturik edo kutsatirk dagoela iruditu zaigu guri eta iritzi berekoa zen Lacombe ere: zioenez, Garaziko, Baigorriko eta Lapurdiko mintzotik zeukan itzulpen honek (1947: 290). Baigorriko San Mathiuren aldakia, Iribarnegaraik itzuli zuena, ezaugarri batzuetan Nafarroa Behereko gainerateko katiximetarik bereiz doa eta hizkuntzaren aldetik mendebalera Lapurdirat inguratzen da, Baigorriko ahozko egungo mintzoak ere egiten duen bezala; arrazoi geografiko eta sozio-historikoek eragin bide dute lerratze hori; cf. Camino (2004: 455-460 eta 478-483).

J) Bonaparte ondoko idazle baxenabartarren lanean ere gertatzen da; esate batera, liburu luzeen egile Jan Piarre Arbelbide kalonjea (1841-1905) garaztarra zen, Zaroko semea, baina haren euskaran ere ezagun du Lapurdiko euskararen itzala. Eta gauzak ez dira anitz aldatu XX. mendean ere; esate batera, Amikuze eskualdeko adineko euskaldun xumeek, haur denborako katiximan Lapurdiko euskararen moldeak irakurri dituztenek, hura ederresten dute gehienik, hura zaie euskararik egokiena, Hazparne alderdi horretako edo Lapurdi barrenekoagoa, ez dute tradizio baxenabartar sendo bat ezagutu, ikasi edo estimatu, liburuetako euskara Lapurdin sortzen eta idazten da, horrela ohitu dira eta horrela onesten dute. Ezin atzendu, bestalde, Hazparneko misionesten predikazio lana, herriz herri hedatu zena; cf. J.-B. Etcheberry (1986). Amikuze alderdian, esaterako, ospe handia du Hazparneko euskarak.

Esanak esan, badirudi ez dela izan Nafarroa Behereko euskal idazki dialektal sendoak garatzeko giro berezirik, XVII eta XVIII. mendeetan bereziki. Bonaparte printzeak arrazoi zuen baxenabar euskara libururik gabeko mintzotzat hartzen zuenean.

### 1.5. *Pratica-ko mintzoaz*

Ezaguna denez, geografia-hedaduraren aldetik eskualde hain zabala ez delako beharbada, eta ekonomiaren aldetik abeltzaintza mota jakin bat loturik bizi izan delako, Zuberoa herrialdeak halako gizarte-batasuna izan du, talde sena eragin duena; honela, giza-errealtitate horrek hizkuntzan isla izan du nabarmen: ipar-mendebalda salbu, ezagutzen dugunetik zuberotarren mintzoa historikoki aski homogeneoa izan da ibarrean. Orobak, eragin duen literaturan bada halako ohitura edo eredu zuberotar bat, XVIII. mendeko bertako testuetan ageri denez batasun handixkoa duena. Bestalde, Lapurdik XVII. mendean halako nagusitasuna erdietsi zuen Zuberoa ez den

gainerateko Ipar Euskal Herrian, ohitura batzuk eta tradizio edo eredu bat eskaini baititzuen euskaraz idatzi nahi zuenarentzat.

Bi fenomenoak batera harturik, uler daiteke Nafarroa Behereko idatzizko tradizioak XVIII. mendean bere burua sendo erakutsi ez izana, tradizio edo ildo jakin bateratu bat eraiki ez izana. Etxeparez geroztik ia ez dago Baxenabarren idatzi testu sendorik bertako mintzoa leial erakusten duenik: 1651ko *Pregariac* ez dira Baxenabarreko euskara garbia. Badira Garazi Bazkazanen agertu prediku batzuk ere, 1762ko data dutenak (Orpustan 2005: 169-232); baliteke predikuotako mintzoaren oinarriean Nafarroa Behereko usadioa egotea, baina ez da zaila bertan nahaska Lapurdiko ezaugarri zenbait aurkitzea.

Duela gutiko lan batean agertu dugunez (Camino 2009a), Baxenabarre eta Zuberoa herrialdeek elkar ukitzen duten eskualdean, esate batera Amikuzeko ekialdean eta Zuberoako ipar-mendebalean, hizkuntza-aldaortasun handia dago hiztunen artean, eman dezagun Pagolan, Oihergin, Arüen, Sarrikotapean, Lapizketan, *yuntako* euskaldun hauek ondoko bizilagunen euskara ezagutzea aski gauza arrunta da eta beti ez da batzuen eta besteentzako arteko eten garbirik ageri erabiltzen dituzten ezaugarri zenbaitetan. Honelako alderdietan hiztun zenbaiten gramatika pasiboan ondoko eskualdekoen tasunak kokatu direla dirudi. Honelako eskualdeetan polimorfismoa agertu ohi da: ezagutu ditugu Oztibarreko Jutsin *heben* aldaera erabiltzen duten hiztunak eta baita herrian *hemen* aldaera erabiltzen dela —*heben* Donaixtikoa dela— diotenak ere; berebat, *interdialect* izendatu ohi diren ezaugarriak sumatzen dira jauzi guneetan: Baxenabarren *jalgi* baldin badago eta Zuberoan *élkhi*, Oztibarreko Jutsin *jelgi*.

Gure galdera da ez ote daitekeen pentsa halako zerbaitek gertatu zela Alphonsa Rodriguezeren frantses testua euskaraz eman zuen lagunaren gogoan, hau da, XVIII. mendeko Baxenabarreko mugako euskaldun batek ez ote zituen gramatika pasiboan Xiberuko hizkuntza-ezaugarri batzuk kokaturik, gerora itzulpenean aski era edo maiztasun desorekatuan islatu zirenak.

Ondoko orrialdeetan ulertuko da xuxenago zer den zehazki adierazi nahi duguna, baina ikus dezagun orain 1782ko *Pratica-k* dakarren euskaraz edo mintzoaz ikertzai-leek artean zer adierazi duten. Amikuzeko euskaratzat hartu izan dute autore gehienek, baina horien arteko batek Oztibarrekotzat:

- Bonaparte printzeak 1869ko *Le verbe basque en tableaux* lan ezagunean “le traducteur mixain du Rodriguez, lui aussi, a jugé convenable d'emprunter au dialecte souletin plusieurs terminatifs du futur simple, plus ou moins modifiés d'après le caractère du bas-navarrais oriental” dio; cf. *Opera omnia vasconice* I (1991: 442).
- Jean-Baptiste Darricarrère-k Tartasen 1666ko *Onsa hilceco bidia*, Pauen 1740 urte inguruan argitaratu zen *Catichima edo fediaren eta guiristino eguien explicacione laburra* eta Alphonsa Rodriguezeren 1782ko itzulpena Amikuzeko mintzoan kokatu zituen (1911: 17).
- Georges Lacombek ere, 1782ko Alphonsa Rodriguezeren itzultziale Lopez apetzen berri zenbait eman ondotik, itzulpenekoa *incontestablement* Amikuzeko euskaratzat jo zuen. Lanaren zubererazko eta lapurterazko bertsio argitaragabea bana ere badaudela adierazi zuen (1931: 69).

- Ondotik Karl Boudak Lopezen laneko adizkiak Amikuzekotzat ikertu zituen eta esan hori oinarritzeko hizkuntza-aldaera batzuk eskaini. Ikertzaile honek baliatu zituen formak egoki dira hein batez (1948: 596), baina gure ustean arazo nagusia ez datza ezaugarri horietan, liburuan ageri diren eta Boudak apatu ez zituen beste batzuetan baizik: idazkia esku amikuztar batek egin zuelako hipotesia erlatibizatzen duten beste ezaugarri batzuetan datza auzia. Ez dugu adierazi nahi Boudak testua Amikuzekotzat jo izana hutsegitea izan zenik: darabiltzan argudioetarik batzuk zuzenak dira, baina zinez auzi konplexua da *Pratica*-ko euskara nongoa den jakitea.
- Luis Villasante euskaltzainak ere hitz iduriak dakartzza eta “curiosa obra”-tzat jo zuen itzulpena; Tartasen mintzoa bezala Amikuzekotzat jo zuen *Pratica*-koa (1979: 114).
- Martin Haase-k duela urte multso bat zioenez, berriz, “Baxenafarroan badugu testu zahar bat (Lopez 1782), Oztibarreko” (1994: 182, 15. oh.).
- Ondotik Jean-Baptiste Orpustanek berriz ere Amikuzekotzat jo du zorioneko itzulpen hau (1998: 232).

Auzi honetan guk ez ditugu gauzak horren garbi ikusten; Boudak salbu, egile honiek ez dute beren iritzia argudioz jantzi; azterketa sakontzen hasiz gero, Amikuzeko *egungo* euskara itzultzailaren *orduko* mintzoarekin alderatzen hasiz gero, kontuak ez dira guztiz ateratzen. Bestalde, itzulpeneko euskara ez dator bat 1740 inguruan Pauen eta 1786an Akizen berrargitaratu zen Baxenabarre ekialdeko *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra*-ko mintzoarekin: ezaugarri ugaritan ez dato bat eta, idazkiak aski garaikideak eta teorian eskualde beretsukoak diren aldetik, garrantzi handia du honek.

*Pratica* itzulpeneko datu foniko, morfosintaktiko eta lexikoen konbinazio geolinguistikoa ezohikoa da, ez da ezaguna inolako eskualdetan eta halaz, interpretazio bat beharko luke. Garai hartako *Pratica*-ren eskuizkribuaren gaineko frogak materialik ez badugu ere, Zuberoa eta Baxenabarreko testu zaharretako lekukotasunetan eta egungo Baxenabar orokorreko, Amikuzeko, Oztibarreko Jutsiko eta Zuberoako ahozko mintzoetan oinarrituko da gure interpretazio edo hipotesia.

*Pratica* itzulpeneko euskarari so egiten baldin badiogu, oro har eta ezaugarri gehienetan Baxenabarreko sistemari edo erei loturik dagoela jabetzen gara, hori ezin ukatua da, Baxenabarre ekialdeko euskara da funtsean, baina Zuberoako mintzoaren kutsu susmagarrixea dakar. 1782ko *Pratica* ez zen zubereraz idatzi, ez dakar euskara zuberotarrik, ez da garai hartako Zuberoako idazle edo itzultzailen ohiko mintzoa, ez dira ohiko ezaugarri zuberotarrak, besterik da *Pratica*-ko mintzoa.

Honako adibideok erakusten digute *Pratica* funtsean Baxenabarreko euskaran ondu zela (pare bakoitzean lehen forma 1782ko Alphonsa Rodriguezentzako itzulpenekoa da eta bestea XVIII. mendeko Zuberoako testu zenbaitetakoa):

- aldaera lexikoen adibide zenbait: *anitz / hanitz* (Olor kat, 1706: 37, 62), *atchiki / etcheki* (Maister, 262), *bederatzi / bederatçu* (Olor kat, 30), *eskuiñheco / aldescugnian* (Olor kat, 9), *ezarri / eçary* (Olor kat, 35), *galdatu / galthatu* (Maister, 11), *gau / gai* (Maister, 83), *giristi<nh>o / chyristi* (Olor kat, 69), *garizuma / goroçuma* (Olor kat, 6), *hurrandu / huillantu* (Olor kat, 103), *inçun / ençun* (Olor kat, 6), *kotsu / khoçu* (Maister, xvij) & *khoçatu*

- (Olor kat, 59), *kurutze / khurutche* (Olor kat, 2), *mutil / mithilgoua* (Maister, 170), *pagatu / pphaca* (Olor kat, 78), *barkatu / ppharcatu* (Olor kat, 96), *utzi / eytci* (Olor kat, 40) & *utci* (Olor kat, 11), *zalhu / zalhe* (*Charlemagne*, 261)
- adizkietan *izan-en* Nor sailekoa da hau: *cirete ‘zarete’ / (et)ciradeye* (Maister, 326)
  - Nor Nori sailekoa da beste hau: *çaukona & çakona ‘zaiona’ / çeyon ‘zaion’* (Olor kat, 51) & *beytçayo ‘baitsaio’* (Olor kat, 62)
  - Nor Nork dira *hut ‘haut’ / ayt* (Olor kat, 81) eta *dute / duye* (Olor kat, 66)
  - Nor Nori Nork sailari dagokio *deracogu / deriogu* (Olor kat, 51-2)

Nolanahi ere den, argibidexka hauek emateak, ezaugarri garden batzuetan Baxenabarreko eta Zuberoako euskara hein handian bereiz doazela eta bi sistema desberdin direla erakustea ez du esan nahi, *Pratica itzulpenak* Zuberoako idazleen ezaugarririk baliatzen ez duenik, eta ezin izan liteke horrela, gainera, Baxenabarreko ekialdea eta Zuberoa elkarren ondoko eskualdeak direnez eta lanbide eta kultura ber- tsuak ukantzen dituztenez.

1782koa da Akizeko apezpikutegiaren menpeko nafarrentzat itzuli zen Alphonsa Rodriguez-en *practicaren pparte-a*: Landibarre, Oztibarre eta Amikuze eskualdeetako fededunak zituen helburu. Itzultzalea Ibarre herrixkako apez bat izan omen zen, Maurice Harriet-ek eduki zuen liburuaren ale batean idatzirik utzi zuenez. Lopez zuen deitura eta sortzez Jutsikoa omen zen, oztibartarra. Bere itzultz jardunaren hatza testuaren barrenean aurki daiteke, meza nola entzun behar den azaltzen ari dela- rik: *hemen utciric heuzcarala itçultcen dudan liburian idireiten diren misteriuen explicacionia...* (226). Liburua euskarara itzuli dela dakar eta jardun horren egileta lehen pertsona singulararen bidez adierazten du, esplizituki gainera. Ageri denaren arabea, irudi luke itzultzalea pertsona bat dela, bat bakarra.

Itzultzalea funtsean lagun bakarra izan zela ez dugu ukatuko, baina gure ustean, euskarara itzuli zen liburu hotentako mintzoak, bertako euskara dialektalak, lan jar- dunean esku bat egon beharrean bi izan zirela erakusten du, edota bederen, libu- ruko hizkuntza-aldaerak mintzo bati baino gehiagori dagozkiola, ez dagoela guztizko koherentzia dialektalik.

Maurice Harrietek Uztaritzen gorde den liburu ale batean idatzirik utzi zuenez (Lafitte 1982: 437), Lopezek itzultz lanetan lankide izan zuen Marc de Philippe d'Abense zuberotarra, Akizeko bikario nagusia, aitoren semea, Onizegainen sortua. Lafittek dakarrenez, 1780ko ekainaren 24an Jutsin hil zen d'Abense hau, *eta kalos-trapian ehortzi zuten*, beraz itzulpenea argitaratu aitzin. Nolanahi ere den, Marc de Philippe d'Abense honek berak liburuari onesprena 1782/III/12an eman zion eta datak ez dira elkarrekin ongi ezkontzen: hil eta bi urteren buruan d'Abense zuberotarra ezin zitekeen agiriak izenpetzen ari edota *Juxiaco Jaun Ertorraren eta Akiceco Bicari General eta Officialiaren aprobacionia* ematen ari.

Alphonsa Rodriguezeren itzulpenean herri euskara xumea ageri da, itzultzalea(k) ez d(ir)a ederzale, irakurleak aise ulertzeko moduko euskara funtzionala dakar(te).

*Pratica*-ren 1782ko itzulpenean ageri den mintzoa ez dago Lopezen sorterri Jutsiko egungo euskaratik hain urrun, baina 1782ko liburuko eta Jutsiko egungo euskararen artean aldea dago; hain segur, alderdi kronologikoak eragin duke 1782ko liburukotik Jutsiko egungo mintzora dakusagun alde hori: liburuko *dieitez* eta egun

Jutsin entzun daitekeen *ditakezu* bikotean, esate batera, edo liburuko *beirauzu*, Jutsin *kasu egizu* da egun eta liburuko *Jaunak detsala ez*, *Jinkoak nahi dezala* esaten da egun Jutsin. Berdin, liburuan *enpaitxatu* & *epaintxatu* aldaerak ditugu, baina egun Jutsin *epantxatu* esaten da; berebat, liburuan *elgar* & *elga* daude, baina Jutsin egun *elgar* bai-zik ez da ibiltzen; *berthaite* ‘begitartea, aurpegia’ hogeita bost aldiz dakar liburuak eta *beitarte* behin baizik ez, baina egun Jutsin *beitarte* ibiltzen dute. Halaber, *aisa*, *ihi* eta *ihiki* ditugu liburuan, baina egun Jutsin *ai/ze* baizik ez; *belar* dugu liburuan, baina egun *kopeta* esaten dute jutsiarrek; *belhauriko* dakar liburuak, baina egungo Jutsin *be-launiko* bildu dugu.

Halaber, liburuan konparazioaren bigarren atal *ezin ez zazpi* aldiz ageri da eta *ezi ez* hogeita hamazazpi aldiz, baina egun Jutsin *ezin ez (ta)* egiten dela esan digute. Berebat, egun *ibiltzen* & *ibilten*, *ekartzen* eta *jelgitzen* bildu ditugu Jutsin, eta *Pratica-k ibilten* (9 agerraldi), *ekarten* (50 ager.) eta *jalguiten* (9 ager.) dakartzat nagusiki, baina baita *ekart(z)cen* (3 ager.), *ibiltce-* (1 ager.) eta *jalguitce-* (4 ager.) aldaera berrituak ere, beraz, txandaketa hasia zen orduko. Beste adibide bat: Ibarrolako Salaberriko *ilkhi* dakar 1856ko hiztegian, baina Jutsin egun *jelgi* entzun dugu.

Orduko eta egungo ezaugarrien arteko aldearen eragiletzat, 1782ko *Pratica*-ko eta eskualdeko egungo mintzoen arteko aldearen berri emateko edo argitzeko, denbora iragan izana har dezakegu, baina nolanahi ere den, gure ustean alderdi diakronikoaz landa bila daitezke beste ikuspegi batzuk ere.

Itzulpena egiteko Lopez Jutsiko euskaran oinarritu zela pentsa bageneza, testuan Zuberoako euskaren kutsu nabarmena dagoenez, ulertu beharko genuke egun da-goen baino, Oztibarreko euskara XVIII. mendean Zuberoako euskari hurbilago ze-goela eta ondorioz, gerotzik bata bestetik urrunduz joan direla, baina ez dugu ikus-pegi hori lagundu lezakeen datu sendorik, zantzu zenbait baizik: ikuspegi hori lagunduko luke Suarez d'Aulan apezpiak 1740 inguruan Pauen argitarazi katiximako datuak Alphonsa Rodriguezen 1782ko itzulpeneko datuekin bat baletoz, guti goiti beheiti bi itzulpenak eskualde beretsukoak direlako eta berrogeita bi urte inguruko aldean idatzi zirelako, edo katiximaren 1786ko berrargitalpeneko datuak eta *Pratica*-koak bat baletoz, baina liburu bateko eta besteko mintzoak ez dira ezpal berekoak.

Ez dugu uste, bestalde, Alphonsa Rodriguezen idazkiaren itzulpen luzeak 1782 urte inguruko Amikuzeko euskara leial ordezkatzen duenik ere; hau frogatzeko bidea orduko Amikuzeko euskara ezagutzea litzateke, baina ez dugu orduko ezagutzen, XX. mendekoa baizik. Zer da, bada, gaiari sendotasunez heldu ahal izateko hein batez bederen dakiguna?

Badakigu *Pratica*-ko mintzoa eta Amikuzeko egungo euskara ez direla berdinak, *Pratica*-koak eta 1740 inguruko nahiz 1786ko Baxenabar ekialdeko katiximako euskara ez direla berdinak, eta badakigu, bestalde, Amikuzeko eta Oztibarreko egungo euskara ere ez direla berdinak.

Amikuzeko egungo euskara eta 1740 inguruko nahiz 1786ko Baxenabar ekialdeko katiximako euskara ere ez dira arras berdinak, baina badute beren arteko halako koherentzia; nolanahi ere den, artestian egin ditugun konparazioetan dagoen baino lotura gehiago. Eta era berean, Oztibarreko egungo euskara eta 1740 inguruko nahiz 1786ko Baxenabar ekialdeko katiximako euskara ere ez dira arras berdinak, baina badute beren arteko halako koherentzia hauek ere.

Arestian erakutsi dugu Zuberoako euskara eta 1782ko *Pratica*-koa ez direla berdinak; Oztibarreko euskara eta 1782ko *Pratica*-koa alderatzen baldin baditugu, Oztibarreko egungo datuekin izan beharko luke, ordukorik ez da ezagutzen. *Pratica*-ko datuak Oztibarreko Jutsin egun egiten den euskararekin alderatzeko saio xume bat egin genuen guk 2005ean eta aldea handixkoa da;<sup>23</sup> esate batera, honako hitzak liburuan ditugu, baina egungo Jutsin ezezagunak dira: *apaizeatu* ‘baretu’, *apariatu* ‘norabide bat hartu’, *arrerosi* ‘erredimitu’, *arresta* ‘epaia’, *gortu* ‘adore eman’, *ireizi* ‘baztertu’, *iroi egin* ‘errieta eman’, *jankatu* ‘hortzikatu, karraskatu’, *kroketarik idoki* ‘giltzadura edo artikulazioetarak aterarazi’, *lehiataka* ‘tarrapatan’, *mañata* ‘mirabea’, *nabasitu* ‘konfiantza hartu, ausartu’, *peorreria* ‘behar gorria, miseria’, *plaga* ‘zauria’, *suergaraitiko* (ez du adiera garbirik, ikus hiztegiko oharra), *usustamendu* ‘sustatzea’; liburuko aldaerok ere ez dira ibiltzen: *ahulgatu* ‘aholkatu’, *arteakan* ‘artean’, *honitu* ‘hornitu’, *jardiretsi* ‘erdietisi’; ez dira alferrik joan berrehun eta hogeita hiru urte.

Lopez jutsiarrar XVIII. mende bukaerako garai hartan *Pratica* itzultzeko Oztibarreko euskaran oinarritu baldin bazen, ulertu behar da Oztibarreko Jutsiko euskarak geroztik Baxenabarreko mintzo orokorrera jo duela eta XVIII. gizaldian zuberotarrekin partekatzen zituen tasun batzuk galtzen lerratu dela.

Lopez 1782ko idazkitik XX. mendeko Amikuzeko euskarara aldea dago eta baita 1740 urte inguruko Suarez d'Aulanen katiximakora edo 1786an Akizen argitaratu zenekora ere; aldiz, 1740 inguruko nahiz 1786ko katiximek eta XX. mendeko Amikuzeko mintzoak koherentzia gehiago dute elkarren artean eta 1740 inguruko nahiz 1786ko katiximek eta XX. mendeko Oztibarreko mintzoak ere bai. Gure ustean, Alphonsa Rodriguezeren euskal itzulpenean Amikuzeko mintzoa islatzen duela dioen ikuspegia ez zaizkio kontuak ongi ateratzen; eta berdin esan genezake alderatzean Amikuze ezarri beharrean Oztibarre jartzen bada (Haase 1994).

Guk ez dugu uste 1782ko itzulpenean Euskal Herriko ekialdeko edo Baxenabarreko ekialdeko garai hartako leku jakin bateko euskara islatzen denik. Gure irudiko, Lopez zeritzon apez jutsiar hark Oztibarre eskualdeko euskarara egin euskal itzulpenari, bigarren esku batek, Marc de Philippe d'Abense Akizeko bikario eta Jutsiko apezak —liburuaren *excuso iskiribu*-ari 1872/III/12an onesprena eman zion zuberotarrak—, edo hark agindurik beste zuberotar zenbaitek ukitu batzuk egin zizkiodeen, baina ez ditugu orduko paper haien fisikoki ezagutzen eta diogun hau guztia hipotesia da, auziari argitasun amiiñ bat eman nahi diona; Maurice Harrietek liburuaren ale batean idatzirik idatzi zuenez, Lopezek eta d'Abensem *en collaboration* jardun zuen (Lafitte 1982: 437).

Bigarren aukera bat izan daiteke pentsatzea, d'Abensem Akizeko bikario zuberotarrak Lopez apeza ongi ezagutzen zuela eta beragan Baxenabarre eta Zuberoa *yunta*-ko idazle euskaldun bidalektalaren gaitasuna zekusala, funtsean testua Oztibarreko euskaran idatz zezan, baina halako kutsu zuberotar bat emanik, euskara nahasixearen idatzirik eta Zuberoako ezaugarri zenbait euskal idatzian ager zitezen, Oztibarre-Zuberoa giro bidalektalean usaturik eta zaildurik zegooken Lopez jutsiarrantzat hizkuntza-tasun xiberutar horiek ezagunak zirela d'Abensem bazekielako, d'Abensem

<sup>23</sup> Bi lekuo izan genituen, 1920an sortu emazteki bat, ama Donaixtikoa eta aita Jutsikoa zituena eta 1935ean sortu gizon bat, hau ere ama Donaixtikoa eta aita Jutsikoa zituena.

ren helburua izanik xiberutarrek ere liburu itzuliko euskara hura aski ongi uler ze-zaten. Hau honela izan baldin bazen, aitortu behar da eskualde bateko eta besteko ezaugarriek testuan duten agerpen maiztasunak eta distribuzioak ez dutela azalpen errazik, ezaugarri baxenabartarrak ausarki ageri baitira eta zuberotarrak, berriz, bakan.

Aitor dezagun, bestalde, Lopezek Oztibarre eskualdeko euskara oinarritzat hartu zuela diogunean, ez garela ukatzen ari oinarria orduko Amikuzekoa ere izan daite-keela, baina sobera guti dakigu bi eskualdeotako orduko mintzoaz edo mintzoez. Dena den, ez da zertan pentsatu ere Lopezek Oztibarreko berea baztertu eta Amiku-zeokoan idatzi zuela, lehen hipotesia beharko luke izan Oztibarrekoan ondu zuela; gu-retzat garrantzia duena beste auzi bat da: 1782 hartako Baxenabarreko ekialdeko *Pratica* honetan badira eskualde hartakoak ez, baizik eta Zuberoakoak diruditen hainbat hizkuntza-ezaugarri.

Lopezen itzulpenean bada Zuberoako euskaratik anitz alderdi: beharbada d'Abense laguntzaile eta Akizeko bikario nagusiak testua zuberotarrek ere ulertzeko modukoa izan ledin nahi izan zuelako-edo. Euskaltzaindiak Bilboko Azkue bibliote-kan duen *Pratica*-ren aleko 456. orrialdean garden ageri da zuberotarrek ere balia ze-zaketela liburu edo itzulpen hau; Muskildiko Marie Elgarteak baliatzen zuen 1833an: *ci ce livre ce perdoit<sup>24</sup> comme pourroit faire rendre à Marie Elgart de Musculdy le 5 avril 1833*. Ikus 39. orrialdeko argazkia.

Egiazki, Lopezen herri Jutsitik Zuberoako Pagolara bide zuzena dago mendiz, ki-lometro batzuk baizik ez eta Pagolatik Muskildira ere berehala gaude, Oxkaxe gain-ditu besterik ez da behar. Lopez jutsiarra Ibarre herrixkan zegoen apez, etxetik arras hurbil, Baxenabarren, Oztibarren; Ibarretik abiatu, Oxkaxe gaina iragan eta lehen herria Muskildi da, Zuberoakoa. Kilometro guti zegoen euskaldun batzuen eta besteen artean, herri batzuen eta besteen artean, eta abeltzainen gizartea zen hura, mendira aise jotzen zuena, Baxenabarre eta Zuberoako euskaldunak aise elkar zitezkeen men-dian udako bazkalekuetan.

Lopez jutsiarak egin itzulpenari d'Abense zuberotarrak hizkuntza-ukituak egin zizkiolako froga fisikoak aurkitzea orain aise ez bada ere, hizkuntza-ezaugarri zen-baitek iradoki lezakete bigarren esku bat edo bigarren hizkuntza-irizpide bat ere izan zela, dela itzulpen garaian, dela euskal itzulpenaren eskuizkribua Avignongo inprima-tegira eramateko garaian.

Inoiz gertatzen da liburuan ohiz Baxenabarreko edo Ipar Euskal Herri zabalagoko hitz bat baliatu dela eta adibide batean ala bitan Zuberoako tradiziokoa ibili dela; esate batera, Zuberoako tradizioko *urhentze* (49) dugu behin eta *urrentze* (250) beste behin: Oihenart, Belapeire, Oloroeko katixima, Maister, Egiategi, *Charlemagne* pas-torala, Etxahun, Arxu, Inxauspe, Gèze edo Larrasket dira erabiltzaile; Ibarrolako Salaberri oztibartarrak ere badakar *urhentu* bere hiztegian, baina funtsean Zuberoako tradizioari dagokio. Hitz horretaz landa, *finitu & finitze* bost aldiz ageri dira *Prati-ca-n* (63, 65, 245, 257, 375), *akabatu & akabatze* hamahiru aldiz (47, 58, 62, 62, 63, 65, 161, 231, 247, 248, 259, 263, 350) eta *akabanza* izena bederatzit aldiz (8,

<sup>24</sup> Frantses zaharra ikertzen duen Begoña Agiriano UPV/EHUko irakasleak dioskunez, xvii-xviii. mendeetan -oit zen aditz imperfektu eta baldintzakoen desinentzia; ondotik -ait eman zuen.

63, 116, 100, 239, 247, 334, 448, 466). Zuberoako tradizioari dagokion *akabi* ere badakar, sei aldziz: (63, 63, 238, 248, 328, 351).<sup>25</sup>

Hitz batzuetan *Pratica*-k bi aldaera foniko dakartzza, bata Zuberoatik ezker ibili ohi dena (pare hauetan ezkerrean kokatu dugu) eta bestea Zuberoakoa dena edo egungo egunak artean bertan iraun duena (pareetan eskuin kokatu dugu): *abis* ‘aholkua’ (4 ager.) / *abis* (10 ager.), *anaya* (6 ager.) & *anhaya* (1 ager.) / *anaye* (1 ager.), *erregret* ‘arrenkura’ (2 ager.) / *arragret* (3 ager.), *heuzcara* (14 ager.) / *huzcara* (1 ager.),<sup>26</sup> *pizatu* ‘juzkatu’ adieran (5 ager.) / *phezatu* (2 ager.), *paubre* (1 ager.) / *praube* (13 ager.).

Adierazgarri da *nehor* / *ehor* parean gertatzen dena ere. Baxenabarren nagusi dabilen *nehor* liburuko alderdi guztietan erabiltzen da; esate batera, lehen ehun orrialdeetan *nehor*-en hirurogeita bederatzi adibide ditugu; aldiz, XVI. mendeko Garaziko Etxeparereren salbuespenarekin Zuberoako kutsua duen *ehor* aldaerak zortzi agerraldi ditu liburuan eta gehienbat 22-32 orrialdeen artean kokaturik dago: *ehor* (22, 25, 30) & *ehorc* (31, 31, 32, 156); aurkibidean ere badakar: *ehor* (457). Distribuzio beretxiea da eta *ehor* ageri den 22 eta 32 orrialdeen artean *nehor*-en agerraldi bakarra dago: *nehorc* (25); *ehor* eta *nehorc*, bi aldaerak ditugu 25. orrialdean. Ibarrolako Salaberrik *nehorat*, *nihun* eta *nihoz* dakartzza hiztegian eta XX. mendeko Amikuzen *nihor*, *nihur* eta *niur* bildu dira eta Arboti herrian baita *nehor* ere.

Ezagun du testua euskarara itzuli zenean edo itzulpen horren ondoko moldaketan, egilearen edo egileen gogoan Baxenabarreko eta Zuberoako tradizioak present egon zirela, bi herrialdeen arteko muga inguruko euskal giroa eta euskal mintzoak ongi ezagutzen zitu(zt)ela itzulpenaren edo moldaketaren ardura izan zu(t)en(a/e)k.

Alderdi fonikoari dagokionez, bokal asimilazioa aipa daiteke, “paradusu”, “utsu”, “utsutu” eta “utsumentu” dakartzza *Pratica*-k, ez dakar \*\*“paradizu” edo \*\*“parabizu” ezta \*\*“itsu” ere, baina badakigu, bestalde, Amikuzen *i-u* > *ü-ü* bilakabidea ibiltzen dela eta Oztibarren *i-u* dela. Esate batera, Jutsin egun *itsu* egiten da; nolanahi ere den, *Pratica*-n nagusi dena *i-u* era da: “apezpiku”, “iduri”, “iguriki”, “ikuizi”, “ilhun”, “inguru”, “ithurri”, “itxura”, “itzuli”, “izurri”. Berebat, Zuberoan bezala atzizki ordinalaren aldaera -gerren asimilatua da beti itzulpen honetan, eta gogoan izan behar da Amikuze guztian zabal dabilela -gerren.<sup>27</sup> Kontsonante taldeez dihardugula, Zuberoan bezala <-tarçun> atzizkia dakar *Pratica*-k, baina gauza jakina da egungo euskaran Amikuzeko ekialdean ere -tarzün entzun daitekeela; ordea, Oztibarreko Jutsin -tasun bildu dugu.

Aldaerez denaz bezainbatean, *gorpitz* laurogeita hemezortzi aldziz ageri da *Pratica*-n, *korpitz* behin eta *gorputz* bi aldziz; Ibarrolako Salaberrik ere *gorphitz* dakar hiz-

<sup>25</sup> Berrikuntza morfologikoko honi dagokionez, adieraz dezagun Amikuzeko Mithiriñan *espa(a)kiik* ‘eskapaturik’ bildu dugula, baina sail honetako beste adibide gehiago ez. Oztibarreko Jutsin ere *espaki* entzun dugu.

<sup>26</sup> Etxeparek eta Leizarragak bezala hasperendurik; bestalde, <z> hori ohitura grafiko hutsa da eta txistukari igurzkari apikaria irudikatzen du, ez da lepokaria.

<sup>27</sup> Gulk Behauze, Gabadi, Gamue, Laberte, Martxueta, Mithiriña eta Zohota herriean bildu dugu; aldziz, XIX. mendean -garren dakar Ibarrolako Salaberri oztibartarrak. Bestalde, Zuberoan aspaldikoa da asimilazioa: 1706ko Oloroeko katiximak, 1734ko otoitzte eta kantikek eta 1780ko Eskulako idazkiak -garren dakarte oraino, baina Bonnecase <Mauleoko> erretorak *zortzigerrenian* darabil 1666an eta 23. guerrenian 1668an; Zuberoako 1676 inguruko *Pronus*-ek ere -gerren dakar, Maisterrek 1757ko libruan bezala.

tegian eta guk Jutsin *gorpitz* entzun dugu, baina Arberatzen *korphutz* eta Labetzen *gorputz* bildu ditugu Amikuzen. Berebat, Zuberoako antzera *hulaco* dakar bi aldiz (305), baina testuan *holaco* nagusi da *Pratica*-n (79, 80, 85, 131, 167, 174, 206, 337, 348, 364, 367, 368, 385, 393); nabarmenzeko da *hulaco* bi aldiz baizik ez dela ageri, baina aipagarri da bi adibideak orrialde berean kokaturik daudela, arestian *ehor* dela eta aipatu dugun 22-32 orrialde bitarte horretatik aski urrun.

Alderdi morfologikoaz denaz bezainbatean, egungo euskaran Zuberoan baizik ez dira ageri gure 1782ko *Pratica* itzulpeneko hurranen ezaugarriok:

- a) *batciak* ‘batzuk’ izenordain zehaztugabea ondotik *besthiac* duela: Nafarroa Behereko 1740 inguruko katiximan *batciac* ... *berciac* (21) dugu eta 1786koan *batciac*... *berciac* (28)
- b) pertsona izenordain indartuen *gihaur* & *zihaur* aldaerak, Hego Euskal Herrian Erronkarin ere ibiltzen zirenak; 1740 inguruko katiximan *guhaur* dago eta 1786koan *gouhaurec* (38), baina bigarren honetan 111 orrialdean *guihaur*-*rec* eta 113-n *guihaur* *baithan*
- c) hirugarren graduoko *hurak* erakusle plural iragangaitza, Erronkarin eta Zaraitzun *kurak* & *urak* zena. Oihenartek, 1740 inguruko Pauko katiximak edo Le Quien de Laneufvillek argitararazi 1786ko Akizeko katiximak ez dakarte \*\*\*“*hurak*” eta Amikuzeko egungo euskaran ez diogu guk inongo lekukori inoiz entzun; Oztibarreko Jutsin ere ezezaguna dute erakusle hau
- d) berebat, *gañan* postposizioak ezkerrean inesiboa har dezake *Pratica*-n, nahiz genitiboa jokatzen duten adibideak ez diren falta: *erakazten derauskun eguitetan gagnan unxa goguaketac eguinic* (121) / *penxaketa cite beste religioniaren eguien gagnan* (122)

Aditzetan ere badira hainbat ezaugarri *Pratica*-n Zuberoara begira jartzen gaituztenak: esate batera, \**edin*-en ahaleko *ditake* adizkiak hirugarren pertsona plurala adieraztea Zuberoako gertakaria da eta *Pratica*-n bi aldiz ageri da: (89, 343). Halaber, *laite* adizkiak plurala adierazten du *Pratica*-n adibide batean: *pundu guctietan hain arhinzki igaraiten tuçu, nun kassi ikatz gorrietañ gagnan hain fite ibilteraz gueroz, ezpailaite erra* (137); frantseser ere plurala da jatorrizkoa: *ils ne pourroient se brûler* (RD 2, 89). Zuberoan ere plurala da, baina *lite* aldaera dakar Inxauspek (1858: 153).

Ahaleko adizki hipotetikoa da *laite* ‘liteke’ —Zuberoan bezala adibide batean ‘daitezke’ adiera plurala du (137)— eta itzulpenean bederatzi aldiz ageri da. Ordea, liburuak adibide batean *beileite* dakar, kausal-azaltzailearen *bei-* aldaera foniko asimilatu hori ez da liburu guztian behin baizik ageri; hala *bei-* nola *leite*, XVIII. mendeko Zuberoako testuetan ageri dira eta egungo Zuberoan ere *bei-* egiten da, baina Baxenabarren *bai(t)-*, ahozkoan *bit-* bilakatu ohi dena. Orduko testuen arabera eta oraingo ahozko mintzoaren arabera, forma bakoitza sistema bati dagokio, ez besteari. Gauzak bestela izan balira eta *bei-* aurritzka edo *leite* adizkia Baxenabarreko ekialdean baliatuagoak izan balira, testuan ez ziren agertuko ehundaka *bai(t)-* eta *bei* bakar bat eta bederatzi *laite* eta *leite* bakarra, ehunekoetan ez litzateke logikoa. Agerpen maiztasun hain desorekatu honek guri bederen zerbait gertatu zela pentsarazten digu: inprimategirakoan norbaitek zertxobait aldatu zukeen edo aldatzen hasi zatekeen?

Nor Nori aditz sailean *izan-en* iraganean *zitzakon*, *zitzauzien*, *zitzeen* erakoak dira nagusi itzulpenean, baina behin *-za-* gabeko *etceitan* ‘ez zitzaidan’ ageri da, Zuberoan legez, nahiz kasu honetan aitortu behar den egun Baxenabarreko ekialdean ere inoiz ageri direla honelako aldaerak; *zatan* da erabiliena Amikuzen eta ez da *zitzaitan* falta, baina Amorotze-Zokotzen *zeitan* bildu zen 1974an eta Behaskanen *zaitan* 1998an; cf. Irizar (2002a: 87 eta 160).

*Pratica*-ko lexikora jotzen badugu, anitz dira Zuberoako tradizioan erabat errotrik dauden hitz edo aldaerak: alderdi fonikoan *h* gabe datozi *aize*, *azi*, *igitu*, *odei* eta *osto*, Zuberoan bezala, eta herrialde horretan bezala, *aurhide* eta *hume* ditugu; aldiz, Zuberoan ez bezala, *haragi* eta *hezur* dakartza *Pratica*-k, biak *h*-dunak.

Aurkez dezagun hitzen eta aldaeren zerrenda luzexko bana, Zuberoako oihartzun betean jartzen gaituena, hangoak baizik ez direlako, edo gainerateko eskualdeetan aspaldi galdu ondotik, Zuberoan bederen iraun dutelako. Orain arteko adibide sailak legez, zerrenda ez da osoa edo sistematikoa, erakusgarria baizik. Hitz eta aldaera sail honetako ale batzuk Baxenabarre ekialdeko Amikuze eskualdekoak ere izan daitezke: herririk herri ezker-eskuin jorik hizkuntzaren aldetik gero eta kutsu zuberotar han-diagoa hartuz doa Amikuze ibarra, baina gai hori eta beraren hainbat xehetasun beste artikulu batean landu dugu (2009a: 196-201).

Zerrendan ezker aldean izarñoa daramaten hitz edo aldaerez ulertu behar da Zuberoaz landa egun Amikuze ibarreko herri zenbaitetan ere erabiltzen direla eta + ikurra daramatenez, Oztibarreko Jutsin egun ibiltzen direla; aldiz, azpimarraturik doazen hitz edo aldaerak Ibarrolako Salaberri oztibartarraren 1856ko hiztegiak dakartz eta interpreta liteke orduan bederen Oztibarren ibiltzen zirela. Datuak ez dira osoak, guk entzun dugunaren araberakoak baizik, ez dira inuesta sistematiko baten emaitzak.

Hona hitzen saila: *aments* ‘bederen’, \**aparanziarik ez* ‘logikarik ez izatea’, *arrabaskatu* ‘suntsitu’, *arrerosi* ‘erredimitu’, *arrier* ‘alaiak, atsegina’, \**askazi* ‘ahaidea’, *bakoitz* ‘bakarra’ adieran, *behatu* ‘entzun’ adieran, *burthini* ‘burugaina’, *eia* galderetan ‘beharbada’ adieran, \*+*ekhi* ‘eguzkia’,<sup>28</sup> *endeski* ‘narraski’, *eraiki* ‘haurrak hezi’ adieran,<sup>29</sup> *ezabatu*, +*ezabeki* ‘segretki, oharkabean’,<sup>30</sup> *faxeria* ‘eragozpena, traba’, \*+*gei* ‘nahi’, *gogatu* ‘norbaiten edo norberaren borondatea zerbaiteara erakartzea’, *goihera* adjektiboa ‘sakontasunik gabea’, *gorthu* ‘adore ematea’, *hersatu* ‘norbaitengana zuzendu edo enkomendatzea’, *ihi* ‘aise, errazki’, *jankatu* ‘karraskatu, hortzikatu’, *kaneta* ‘hodia’ adieran, *kausitu* ‘atsegin eman’ adieran, *kunde* & *kunte* ‘espeziea’, ‘mota’, *leiñhuru* 1) ‘argi printza’ eta 2) ‘zantzua, aztarna’, *mañata* ‘mirabea’,<sup>31</sup> *nabasitu* ‘konfiantza hartzea, ausartzea’, *orhitu* —‘ohartu’ adieran (7, 360), Zuberoako euskaran bezala, baina itzulpeneko adibide gehienetan ‘oroitu’ adierazten du, Baxenabarre eta Zuberoan legez—, *pairatu* ‘konformatu’ adieran, *pekatu* ‘ausartu’ adieran, +*peretxatu* ‘ba-

<sup>28</sup> Jutsin *iruzki* eta *iguzki*-rekin batean ibiltzen da.

<sup>29</sup> 1786ko katiximak *haurren eraikiciaz* dakar (159), baina 1740 inguruko edizioak *haurren educationiaz* (123).

<sup>30</sup> Oztibarreko Jutsin dioskutenez, lehenago erabiliagoa zen *ezabeki*.

<sup>31</sup> Amikuzeko Aiziritzen Bourciez-ek xix. mendearen bukaeran bildu testu ezagun baten itzulpenean *mañata* ‘mirabea, sehia’ daukagu. Guri egungo Zohotan ezezaguntzat eman digute; egia esan, Bourciez-en itzulpenetan Baxenabarren ez da beste inon ageri.

lioa eman, estimatu', *poroatu* 'ohartu' adieran, *propitaje* 'ezaugarria', *senthatuki* 'erosotasunean bizitzea', *thaik gabe* 'etengabe', \**thini* 'gailurra', *thona* 'tache / mancha' adieran, *uhaitz* 'ibaia',<sup>32</sup> *ziflet* 'masailekoa, ukabilkada'.

Hona, berriz, aldaerak: *ahalgazun* adjektiboa, *ahulgu* 'aholkua', *ainguru* 'aingerua', *amoratsu* 'maitagarria', *arbinmendu* 'aringarria', *ataku* 'erasoa', \**auher* 'alferra', *barazkarite* 'bazkaltzea', *beire* 'beira', *berhala* (huts grafikoa ez baldin bada), *bihoztoi* 'ausarta', *bilhatu* 'bilakatu', *bortxu egin* 'borondatea bortxatu, indarra baliatu', *debetatu* 'debekatu',<sup>33</sup> *desein* 'asmoa, xedeña', *desir* & *desiresko*, *eretze* 'norbaitekiko edo zerbaitekiko erlazioa adierazteko', *eskele* 'eskalea', *eskenu* 'eskaintza', *fabori* 'mesedea', *feit* 'gertakaria', *fermo* 'fermu', *gañeran* 'gainera', *gutiz bestetan* 'ia guztietan, aldi gehieneitan', *herabezti* 'nagia', *herakitu* 'irakitea',<sup>34</sup> *jakintsu* (vs. Ipar Euskal Herriko jakintsun aldaera, Hego Euskal Herriko erabilera),<sup>35</sup> *latxera* 'lakioa', \*+*nabar* 'sasia', *nahibada* 'nahiz eta', *ogen* 1) 'kaltea' eta 2) 'errua',<sup>36</sup> *orano* 'oraino, oraindik', *orde(i)ñu* 'hondarreko borondatea, testamentua', *plaga* 'zauria', *erdal* 'plaie / llaga', *sarkura* 'sarrera, sarbidea', *tendrezia* 'samurtasuna', *tradizale* 'traidorea', *uken*,<sup>37</sup> *xerku* 'bilaketa', \**xilintxau* 'zintzilik', \**zelu* 'zerua',<sup>38</sup> *zurthaje* 'zureria'.

Ez dugu ukatzen XVIII. mendeko Baxenabarre ekialdeko euskaran egun Zuberoakotzat jotzen ditugun ezaugarrien agerpena oraingoa baino ugariagoa izateko aukera; esate batera, Bonapartek 1856an Baionan inprimarazi Ibarrolako Salaberri oztibarraren hiztegiak ere ikuspegi horretara lerratzen du balizko errealtitate hura: hiztegi horrek ohiz Zuberoan ibiltzen diren hitz eta aldaera zenbaiten adibideak biltzen ditu, ziurrenik bi euskalkien mugaren ingurumari hartan ezagunak edo ibiliak zirelako.

XVIII. mendeko Amikuze eta Oztibarreko euskara gehiago lerratzen ahal zatekeen Zuberoakora egun lerratzen den baino, baina gure ustean esan honetatik ez da jarraitzen *Pratica*-k dakarren hizkuntza-ezaugarrien konbinazio espezifiko hori, orduko Oztibarreko edo orduko Amikuzeko herri zenbaitetako zinezko mintzoa denik, guztiz besterik da hori pentsatzea. Kontrako norabidean doazen adibideak ere aurki daitzke, gainera; esate batera, egungo Amikuzeen *hautse* 'hautsi' eta *jeste* 'dastatu' aditzak ibiltzen dira, nabarmen Zuberoako *hautse* eta *txeste* & *txestatü*-ra jotzen dutenak, eta aldziz, *hautsi* eta *jastatu* dira *Pratica*-k dakartzan aldaerak; hain zuzen ere, Salaberri Ibarrolakoak ere *hautsi* eta *yastatu* aldaerak dakartzan hiztegian.

Guk ez dugu uste *Pratica*-ren itzulpeneko hizkuntza-ezaugarrien konbinazio espezifiko horrek orduko Oztibarreko Amikuze euskualdeetako euskara leial ordezkatzen duenik. Egungo Oztibarreko eta Amikuzeko ahozko mintzoak eta Baxenabarre

<sup>32</sup> Oztibarreko Jutsin ez da egun ibiltzen, *erreka* eta *uraundi* eman dizkigute; *uhaitz* "Xiberon" dela diote.

<sup>33</sup> Egun Jutsin ez da "debetatu" ezagutzen, *debekia* 'debekua' eman digute.

<sup>34</sup> Ibarrolako Salaberrik *erakitu* dakar, *h* gabe.

<sup>35</sup> Ibarrolako Salaberrik *yakinsun* 'savant' eta *yakinsu* 'instruct' parea dakar.

<sup>36</sup> Ibarrolako Salaberrik *ogen* 'tort' dakar, eta frantses hiztegiak bi adierok dakartzan *tort* hitzean.

<sup>37</sup> Zuberoan *ükhen* bildu dugu eta Arberoa eta Amikuzeko zenbait herritan *ukan*; ordea, Amikuzeen nagusi da *ukan* eta Arberoa ere bada; Oztibarreko Jutsin, berriz, *ukan* bildu dugu.

<sup>38</sup> Egungo Amikuzeen ez dugu entzun, esate batera, Zohotan *zerü* bildu dugu eta *zeria* dakar EAEL-k Amendüzen, baina Zuberoako Domintxainen eta Etxarrin *zelü* entzun dugu. Iraganean *zelü* eta *zerü*, biak ditugu Donapaleuko XIX. mendeko katiximan, *zelü*-k maiztasun handiagoa duelarik: *hain egiazki eta errealki nola zelian beito* (Pagola et alii 1999a: 245) / *ohit giten zerian egoiten denaz* (233).


ekialdeko 1740 inguruko eta 1786ko bi euskal katiximek ez digute aukerarik ematen 1782ko *Pratica*-ko hizkuntza-ezaugarrien konbinazio jakin hori bi eskualdeotarik batetan ala bestean kokatzeko.

Gure ustean, bigarren esku zuberotar batek, beharbada d'Abensek, bere lana egin zukeen, Lopez jutsiarak ondu itzulparen eskuizkribuaren gainean edo inprimategiko apografoan, non eta aldaera "zuberotarren" erantzulea ez zen Lopez bera izan, baina honela gertatu balitz, hizkuntza-ezaugarri xiberutarren agerpen maiztasun desorekatuak azalpen zaila luke.


### 1.6. Irudiak

Hurranen bost irudietan 1782ko liburuaren itxura aurkezten dugu:

- liburuaren izenburua, salneurria, argitaletxea, hiria & urtea
- aitzinsolasaren bukaera + liburuaren lehen orrialdea
- liburuko 12 eta 13 orrialdeak
- *Akiceco Jaun Apezpicu ohiaren aprobacionia heuzcarala itçulia*
- *liburu hunen capitulien eta hetan minço diren substancien tabla.*



Georges Lacomberen alearen lehen orrialdea. Alea Euskaltzaindiaren Sorrerakunde, IZK, 16366  
 Olaso Dorrearen Sorrerakunde, IZK, 16366



<sup>12</sup> *Gurijibinib*  
behar diici gure panisia , eta egarri gure  
Gloria.

Harracorza nahi nikici perfeccionaren  
eztun hori , eta hari dauzcolako gauca  
ipirritualac , mundu ororen bihorzian  
barna far liten , eta arrangurozki harra-  
raco elgar lagunt guindecan , ez choilki  
gure arteco elle hunez , bena hobeki  
orano gure obrez , eta bicitce seindiaz ;  
guiza hortan berthuthiaren bidian farteren  
hafsi becic erizenea , eta berthuthian ait-  
cinahiee , eta generalki otoe ezaguneko  
diele gure religione feindiaren aravera ,  
nehore ezthela eginiafco estimunie uken  
behar Ginkoazko gauez becic . Ordutic  
egua hori bar bederac here beltian unxa  
hartu onduan , inxeatuco dugu bere aha-  
laz Ginkoazko gauestan aincina joaiera ,  
eta ezagutuenean belle garaitukua eztirela  
engano , eta hanitate becic .

Surius Authorae Sein Falgena Aladia-  
ren bicician huni dauzcolako gauca bar-  
ekarizcen dici . Guigon seindu horrec  
ikuzten cienian bere peco Fraideraric . Gun-  
bair lanari anitz emanac , eguna oro  
thaic gabe Comentuko cerbitzhan emai-  
ten guchela , bena bere devacioneko egun  
bidean lacho cirela , ercutela gat berria  
bere otoitzetan , irakuretan , belte Gink-  
eoafco eimbidean , belte bere peco Frai-  
deez beno casu gathago egutene cinc  
aldiz icuzten eihuenae devpcionari , §do

*Perfeccioñatren praktica.*

<sup>13</sup> gauca ispiritualer emanac , era arrango-  
roski berthuthian aitcinaten cirenac , na-  
hi-bada beztagnez eris , cdo flaceoz Co-  
menthari etxuen cerbitzchuric bateregu-  
ren , handiski maihatten era estimati-  
zen ciciin . Dudaric gabe atraçoin han-  
direki hala egutene cicin . Ccr pro-otzchu  
du nelore bezaghenz merechimendu  
eta thalantu handiric uketitia obedience  
gabe , eta Gueiharen borondatera egoiten  
expada ? Anitacez segurki hobe iukeçu  
thalenuric , edo munduko equitataren  
parthe hunic grabe icaihia , eciez heen  
extacurian Ginkoaren gauceren lachartia .  
Belle gauca lukeçu Ginkoac behar bale-  
cagu Galdeis azken Judicionian anitz  
trabalhatu guirenez , ispiritu guindienez ,  
ederki mingatu guirenez ; bena hart or-  
dian galdaucu diena duqu , eguiasco gui-  
riztianho baten eimbidiac oro ein tugunez .  
Jefu Christo igori citicin bere Discipu-  
liac opereadicatcera ; Iskritura Seindiac er-  
raiten dici allegueranciaz berbiac içigli  
cirela , era bere Jaunati erran ceracorela ,  
haren icenian Demoniuec etc obedience  
ekainten cereela . Salbacale jaunac ihardez-  
ten direceu : *Etingeflesa allegua a miracu-  
liat eien tuelielcorz , eta Demoniuas obe-  
diem tuelielcorz ; bena alleguera gife-  
cien ipenac Celum iskiribabiac direlaorz .*  
Egarriz behar diiceberaz gare abantailha ,  
eta alleguerancia Celulo Erreñumaren ira .

**450**  
peut mieux convenir aux besoins spirituels  
du commun des Fideles. Fait à Avignon  
en notre Hôtel , le 10 Juillet 1782.

† L. M. *Ancien Evêque d'Ags.*



*Akiceco Jaun Appezpicu ohiaren  
aprobadoria Heuzcarala itzulia.*

**G**uc Louis-Maria de Suárez d'Aulan ,  
Akiceco Appezpicu ohiia , Morde  
VIGNEAU gute Aumonier era Secretariac ,  
endelga-araci ondian cer daucan heuz-  
caralco iskiribu batec , qoin deithathia  
baita : *Alphonso Rodriguez Jefelen Compa-  
gniao Aitaren Guififlinho Perfeccionaren  
Pratikaren pparré bat Heuzcarala itzulia ,*  
*Heuzcarala betic estatutienan dago , ulle dugu*  
*gure ahulguz eta aitziz , gure Diocesa oli-  
co Jaun Erritor errepagarienietaric batet  
eguin dien iskiribu , eta moldeco letrrala  
egar-araci nahi dien horren iracourthia  
net pro-otzchoz lizatekcela Heuzcal-Her-*

**451**  
rico fidelar hantzgung ispiritual handiric  
jardirez-araciteceo. Hori da gue eman  
beharr dugula: ulle dugun juhamendia ez-  
kuz iskiribatu horren gagan , goinran  
Autorrac net unxa cerratu baitu cer - ere  
Rodriguesen iskiribu nec hunearan idireiten  
baita Gende comunen beharr ispiritualen  
daco pro-otzchoffenic eta hobenemic.

**452**  
Aviognonen uztaillaren hamar guerre-  
rian , mila qazpi ehung eta lauretan  
hoguei eta biguerriennan.

L. M. Akiceco Appezpicu ohiia.



AK-33/26

LIBURU

Hunen Capitulien eta heran minio  
diren substantien Tabla.

BONNEAU , Prepositus  
Avenionensis , Vicarius &  
Officialis Generalis.

**I**Mprimatur. F. J. B. MABIL , Inquis.  
Generalis. /

Ex en lise Ce yeroit  
Conseme j'ouvrir faire  
rendre à Marie  
Grand Je malade y  
5 avril 1833 .

**L**EHEN CAPITULIA. Gauç e spiriuas-  
lez , edo Gineor-larri egain behar du-  
guin ofimiaz , pagia 9  
BIGUERRENA. Perfectionarien ulen be-  
harden amotiaz , eta garaiz , 17  
HIROUR GUERRENA. Disposicione era-  
bile net hui bat dela Gineoraren Gracien  
ubertibio garkutu desfracia gure berria-  
thian aincinaria , 22

**L**AUR GUERRENA. Cenhatenaz ere  
ebor aboro gauç e spiriuader , edo Gineor-  
buer emanen baita , hanbatenaz garkutu  
liago desfiliatuko tici , 30

**B**OST GUERRENA. Bertutbian nebor  
prontzchateco , edo dicitinaceo dien de-  
siria , Gineoraren gracian , edo amotian  
dela legibale hauri bat dugu , 34

**S**EIGUERRENA. Coishien proitzchoz edo  
balioz den gauçaren ibizienen lachokeriaric  
gabie , eta suua egaiztia , 38

**C**AZPI GUERRENA. Perfeccioenaren jar-  
dinezco necessario dela egaiztorekiko ,  
edo horondatetza kocatu orori ibez egaibizta ,  
V

LIBURU



## 2

# HIZKUNTZAREN AZTERKETA

Hizkuntzaren azterketaz diharduen atal honetan XVI-XX. mendeen bitarteko hainbat eta hainbat idazleren adibideak agertuko zaizkigu, gehienik Euskal Herriko ekialdeko euskalkietako etsenpluak. Idazlan hauen guztien zerrenda alfabetikoa bibliografiaren bigarren atalean dakargu, corpusa deitu dugun zatian. Azterketa honetan agertuko diren laburduren berri ere zerrenda horretan aurki daiteke.

### **2.1. Alderdi grafikoa eta fonemak**

Garai hartako euskal liburueta ohi zenez, grafia arrotza baliatu zen *Pratica-n*, euskal fonementzat bereziki pentsaturik ez zegoena eta interpretazio arazo bat baino gehiago eragiten duena. Itzulpen honetan funtsean frantses grafia nagusitzen da, baina ezaugarri guti batzuetan okzitanierarena ere ageri da. Ez da atzendu behar gaskoiak Nafarroa Beherean erabilera zabala izan zuela: 1620an Frantziak Biarnoa be-reganatu zuen eta ondorioz Baxenabarre Frantziako monarkiari erantsi; frantsesa bi eskualdeotako hizkuntza ofiziala bilakatu zen, baina gaskoiez idatzitako idazkiek luzaz iraun zuten Biarnoa nahiz Baxenabarren, *Etats de Béarn* izenekoek gaskoia erabiltzen jarraitu baitzuten; ordea, 1789ko Iraultzaren eraginez ofizialki idazteko ohitura hura galdu zen; ikus gaiaz Grosclaude (1987: 282).

Saio honetan grafia aztertzeko honako idazleok izan ditugu bidelagun: Pello Agirre (2001a), Nina Catach (1986, 2001) eta Jose Antonio Mujika (2002).

Gure ustez euskal liburu honetan ageri den grafia konplexuak honela eragiten dio euskal irakurleari:

- a) grafia frantsesak eta okzitanierarenak euskal fonema batzuk zinez identifikatzea eragozten dute: bereziki euskal fonema ozenetan gertatzen da hori, <nh> & <lh> pareak ozen palatalizatua nahiz “ozena + hasperena”, bi errealityeak isla ditzakeelako
- b) bokal arteko edo hitz bukaerako euskal igurzkari lepokaria frantses idazkerak inoiz <ss> edo <s> egiteko duen ohiturak <s> eta <z> txistukarien anbiguotasuna eragin du; uste dugu, bokal arteko txistukari igurzkarien ahostuntasuna adierazteko, itzultzialeak frantses grafiaaren ohiturak baliatu ahal ukana dituela, eta jarduera honek ere anbiguotasuna eragin duke sisteman
- c) txistukari afrikatu sabaiurreko batzuk irudikatzeko <tzch> erabiltzeak anbiguotasuna areagotu du; ez horrenbeste lepokari afrikatuak adierazteko <tzç> & <tzc> trigrafoak baliatu izanak

- d) euskal bokalen palatalizazio batzuk eta kontsonante palatalizazio bat adierazteko <th> baliatu izanak ere anbiguotasuna erein du liburu honetan

Hurranen lerroetan anbiguotasun zenbaiten gibelean egon litezkeen hots edo fomenak zein diren argitzen saiatuko gara.

### 2.1.1. Ikur zenbait

#### 2.1.1.1. Dieresia

Liburuan ez da <ä> bat baizik, eta ez dago <ö> edo <ë> bat bera ere, baina badiria <i> eta <ü>, diptongoetan batez ere. Irakurketa makurrak saihesteko baliatzen da *tréma* ere izendatu ohi den dieresia. Bera gainean daraman bokala ahoskaraztea du eginkizuna, hiatusean ala diptongoan bokala ahoskatu beharra dela adieraztea. Dieresia lehen ala bigarren bokalaren gainean joan daitike frantsesez hiatusean eta irakurketa makurra saihesten du salatzen baldin badu bi bokalek ez dutela digrama eratzen, bi bokalak ahoskatu beharrak direla erakusten badu.<sup>1</sup> Gure liburuan hiatusean *handiagüiac* (161) dugu batetik, nahiz eta <guas> eta <güas> ez ohi diren grafikoki bereizi, <guas> *gu-a* irakurtzen delako, eta aldiz, <gue> eta <gui> grafietan *u* ez da ahoskatu behar. Dieresia bokala ahoskatu beharra dela salatzen baitu, beharbada joera horren oihartzunez edo, *handiagüiac-en u* hori ahoskatu beharra dela adierazi nahi izan du tipografoak. Bestalde, *augathiä* (346) adibidea ere badakar, baina errata dirudi, liburu guztiko bakarra da eta tramak ez du inolako eginkizunik.

xviii. mendean *eu* digramak frantsesezko *eu* bokala adierazten baitu, Belapeirek ere egin ohi zuen bezala, gure liburuak adibide batzuetan bederen euskal *eu* diptongoa adierazteko dieresia darabil: *jeüsten* (99) & *geüzten* (254), *deüssere* (318), *deüsseten* (317); baina badu dieresirik gabeko diptongorik ere: *jeux* (76) & *jeuzten* (294), *deuz* (9, 14...), *heuczara* (1). Ez dakigu *seiehun* (5) aldaera zuzena den, beharbada ez, izan ere, *seiehun* (62) ere bai baita liburuan. Belapeireren katiximan ere *deus* & *deüs* bitasuna idatzi zen. Bestalde, <i> dago liburuan diptongoetan i ahoskarazteko: *choil* (136), *choïlhian* (87), *choilkî* (89, 90...); behin *choilkî* (337) ageri da, baina *choilkî*-ren hutsa behar du; bada, bestalde, *Thaïs* (71) izen arrotza ere.

#### 2.1.1.2. Azentu zirkunflexua

Frantsesaren ohitura da harridurazko perpausetan *o* partikulan azentu zirkunflexua ezartzea (Agirre 2001a: 347) eta gure liburuan ere erabilera hori dago: *ô ene Gingoa!* (18); *ô Jauna* (70); *ô çuc creatu nuçuna, nitçaz oukaçu pietate* (143); *ô Guiçona, eçagut eçaçu nolaco içan behar çuten çauriec* (163)...

Euskal hitzetan *su* hitzean baizik ez du baliatzen: *sû* (18, 117, 131, 161, 237, 238, 323, 336, 340, 359, 396, 406, 443), *sûia* (171, 219, 220, 221, 222, 224),

<sup>1</sup> Dieresiarengan erabileraz ikus Pello Agirreren lan bikaina (2001a: 347-349); xehetasun eta ñabardura interesgarri ugari dakin bertan gaiaz: iraganean *u*-ren balio bokalikoa eta kontsonantikoa bereizteko ibiltzen zen dieresia.

*sûiac* (302), *sûian* (48, 287), *sûiaren* (209, 224), *sûrat* (224, 247), *sûric* (206), *sûsco* (385), *sûtan* (223, 423), *sûya* (385, 443), *sîyac* (21, 362, 378, 401), *sûyaz* (18). Ez dago garbi azentu honek adibideotan zein eginkizun duen eta hitz elkartuan ere analogiaz gertatzen da: *sûtheia* (221). Ez dakigu *sû* hitzaren analogiaz *suge* hitzari ere erantsi ote zaion: *sûgiac* (371), *sûgiaren* (371), *sûgiac* (372). Bada beste bat *bicitcia* (85) adibidean ere. Inprimategiko gora-beherek edo ohiturek eragin ote dituzte?

## 2.1.2. Bokalak

### 2.1.2.1. a, e, i eta o

Ez dago zeresan handirik *a*, *e* eta *o* bokalen gainean, ez baitute txandaketa grafikorik eragiten, ez hitz hasieran, ez hitzaren erdian ezta hitzaren bukaeran ere: *aita* (1), *eta* (1), *ohoria* (4) / *lanetan* (5), *erosiren* (6) / *guticia* (4), *itçulce* (4), *orano* (5). Goiko bokal palatalak ere ez du ia txandaketarik ageri; esaterako, hitz bukaeran -i dakar liburuak beti: salbuespenak behar dute izan *hoguey* (403) eta *iroyey* (390), beharbada mugatzalea hartzean tinkadura jasan duten adibideen eraginez sortuak; cf. *berrogueyac* (403) eta *iroyac* (435); liburuan *hoguei* (1) edo *iroi eguiten* (137) idazten da nagusiki. Balio kontsonantikoa duen <y> grafia dugu liburuan *i* bokala bi bokalen artean delarik: *anaya* (392) & *anaye* (398) & *anhayen* (269), *deya* (420), *doya* (38) & *dhoya* (395), *esteyen* ‘ezteien’ (374), *estuguya* (378), *exayen* (314), *eya* (392) & *heya* (57), *inxeyez* (402) & *intxeyen* (18), *iroyac* (435), *lenguayaz* (286), *mahayan* (402), *moyen* (54), *seyetara* (404), *suya* ‘sua’ (384) & *sûya* (385). Beste batzuk kanpoko tradiziotik dator: *Alleluyac* (230), *Isaya* (262), *Troyez* (322), non eta ez duten oinarri etimologikoa: *Apocalypsaren* (94), *Tyberiadeco* (355).

### 2.1.2.2. /u/ eta /ü/ Ipar Euskal Herriko ekialdean

Ezaguna denez, Euskal Herriko ekialdean sei fonema bokaliko ditugu, ohiko bos-tak eta /ü/; egun Zuberoan, Baxenabarreko ekialdean eta Lapurdiko Bardozen ahoskatzen da /ü/, baina Oztibarren ez. Mitxelenak zehaztasun handiz adierazi zuen Zuberoan /ü/ hau zein ingurune fonikotan ageri den (1977: 51-4). Ondoko Amikuze ibarrean ez da guztiz ingurune beretan ageri; esate batera, ez da ük, üg edo üts segmenturik entzuten. Berebat, Lapurdiko Bardozen murrizketa gehiago ditu /ü/ honen agerpenak; Bardozeko baldintzen berri jakiteko Lafonen lana (1962) nahiz Encinarrena (2008) ikus daitezke.

Guk 1985ean eta 2005-2009 urteetan Baxenabarreko Amikuzen bildu ditugun datuak hein batean Lafonenekin bat dator, baina ñabardurak egin daitezke. Morfonologiak erakusten digu *k* kontsonante belarra lexemakoa ez denean eta hitzaren mugatik eskuin dagoenean, ük sekuentzia fonikoa gertatzea ez dela ezina. Le Quien de Laneufville apezpikuak eginarazi 1786ko katiximan *lekuco* (8) eta *seinduko* (35) adibideak ditugu, beharbada bokal palatala adierazten ari direnak. Guk bildu honako adibideetan hala da: *gük*, *finitüko*, *ordüko* & *ordükotz*, *zaküka* & *zakiükari* (Martxüeta); *ingürüko* (Gamue); *gük e*, *axerüka* (Arboti); *negüko* (Laphizketa). Gure datuetan, lexema barreneko lehen ük geografikoa Zuberoako mugako lehen herri Lohitzünen

ageri da: *ükhan*, zeina ondoko Oihergin eta Pagolan *ükhen* egiten baita; artean, Amikuzeako herrietako *ukhan* aldaera palatalizatu gabea da.<sup>2</sup>

Herskari belar ahostunari dagokionez, *üg* ez dugu bildu adibide honetan baizik: *dügü* (Laphizketa); ohikoa *ug* da, Ilharreko *sugiak* ‘sugeak’ adibidean bezala.

Dena den, Bourciez-en edo Lafonen datuetan ez bezala, gure datuetan ez dago *ür* sekuentziaren ezintasunik, bai baita *ür* adibide bakan batzuetan: *bürian* (Martxüeta); *ingürü*, *bilküran*, *azürian* ‘azerian’, *ostatürat* (Ilharre); *bürü*, *ingürü* (Gamue); *güre* & *güriak*, *bürü*, *üdüri* (Arboti); *bilküra*, *aidüri* (Zohota); *idüritzen* (Arberatze); *üdüri* & *üdüriko*, *üngürü* & *üngürian*, *güretako* (Laphizketa).

Aldiz, *üs* sekuentzia maileguetan baizik ez da ageri: *batüsaekilan*, *üsü* (Martxüeta); *üsü* (Labetze); *üsainen*, *arrüsatiak* (Laphizketa); *üsian*, *üsatiak*, *küsialehenak* (Lohitzüne).

### 2.1.2.3. Pratica liburuko jokaera

Ematen du liburu honetako grafiak ez duela Ipar Euskal Herriko ekialdean beriezten diren /u/ eta /ü/ fonemak islatzeko borondaterik edo hori egiteko beharrik ez dagoela. Esan liteke /u/ baizik ez duen sistema irudikatzen duela *Pratica-k*, izan ere, Zuberoan /ü/ diren adibide batzuetan bikoiztasun grafikoa dakar liburuak: *houx* ‘huts’ (102) / *hux* (318), *ouhaitzeco* (222) & *ouhaitzetarat* (181) / *uhaitzcerat* (403), *ourhax* (236) / *urhatx* (68), *ourhe* (9) / *urhe* (405), *ourrun* (86) & *ourrundu* (44) / *urrun* (258), *ouken* (352) & *oukeiteco* (146) / *oken* (4, 8...). Lopez itzultzalea iutsiarrira bide zen eta ongi dakigu Oztibarren ez dela /u/ eta /ü/ bereizketarik egin, guztiak dira /u/ eskualde horretan eta egun ere halaxe izaten jarraitzen du, gure belarria lekuko. Garai hartako itzultzalearen gogoan /ü/-rik izan balitz, ez ziren hitzotan <ou> horiek agertuko.

Berebat, hitz frankok bikoiztasuna dakarte /u/ fonema dirudien idazteko eran: *achouri* (221) / *achuria* (353), *barour* (215) / *barur eguin* (394), *boulharrac* (197) / *bulharretic* (79), *boulta* (42) / *bulta* (79), *bourdignbac* (253) / *burdignha* (46), *courage* (219) & *courajoz* (444) & *kourajoz* (309) / *curajoski* (384), *gouatcen* ‘goazen’ (219) / *guatcen* (219), *hirour* (143) / *hirur* (54), *hounen* ‘honen’ (89) / *hunen* (3), *hour* ‘ura’ (31) / *hurian* (215), *houra* ‘hura’ & *hourac* (356) / *hura* (8, 10, 14...) & *hurac* (384), *hourran* (232) & *hourrantcen* (124) / *hurrantcera* (78), *iracourthia*<sup>3</sup> (450) / *irakur* (402) & *iracurten* (422), *itchourapen* (225) / *itchurapen* (203), *itxoustarçunaz* (42) & *itxoussi* (39) / *itxussi* (360), *jouan* (19) / *juan* (32), *poutçu* (66) / *putçu* (360), *ourkatcera* (243) / *urkaturic* (245), *ourraturic* (349) / *urraturic* (340), *ourhe* ‘urrea’ (9) / *urhe* (405), *ourte* (56) & *ourthe* (390) / *urthe* (141), *ounci* (42) / *unci* (408), *oussastamendu* (29) / *ussastamendu* (151), *ourguluz* (127) / *urgulu* (67), *ouztelduric* ‘usteldu-

<sup>2</sup> Egia esan, Arberatzen bildu dugun pare bat adibidetan ez dakigu xuxen gure belarriak *ukhan* ala *ükhan* entzuten duen, ala bi errealtitateen arteko continuum-aren barreneko *u* palatalizatuxe bat entzuten ote duen, Bonapartek Nafarroa Garaiko hainbat ibarretan entzuten zuen harako *u* eta *ü* arteko *ü* hotseren gisa.

<sup>3</sup> Dagoen <ou> adibide bakarra apezpiakuak liburua onesteko idatzi orriaren euskal itzulpenean dator.

rik' (348) / *uzteldu* (325); bestalde, ulertu beharko da *ouxu* 'itsua' (10) / *uxu* (128) hitzeko *u* horiek ez zirela palatalak.

Liburuan /u/ fonema irudikatzeko hitz zenbaitetan <ou> & <u> ageri da, baina *Pratica*-n zenbait hitzek ez dute adibiderik <u> grafiarekin: *bouzti* 'busti' (138), *mouthie* 'mutuek' (201), *mouztarda* (125), *ouheriac* (43), *oumaçurtz* (142), *ounide* (27), *poulo* (64), *poussatuz* (19), *pouska* (425); baita mailegu gordinak ere: *Louis* (343), *Seint Loup* (322), *Toursekuac* (222); liburuan ez dago \*\*<ounxa>, \*\*<egoun>, \*\*<ikousten> bat bera ere, horiek <u> idatzi dira, baina arrestian ikusi bezala, badira <ounide> (27), <counci> (42) edo <pouska> (425). Hiatus batzuetan ere <ou> dugu: *ahouan* (230), *erhouac* (427), *neskatoua* (403), baina jokabide nagusia <u> da hiatusetan: *actuetan* (88), *gagnekuari* (167), *goguan* (350), *handiagua* (350), *heriuaren* (350).

Beste hainbat hitzetan <u> grafia baizik ez dakar *Pratica*-k. Hona hitz hasieran: *uharre* (169), *unxa* 'ontsa' (350), *utcithia* (257), *buria* (24), *çunbait* (258) —cf. *çoinbec* (258)—, *çunbat nahi* (165), *çure* (24), *duhela* 'doala' (166), *fruthia* (27), *gucia* (49), *hun* 'ona' (167), *hunguiez* 'ondasunez' (236), *huntan* 'honetan' (164), *huntarçun* (350), *luce* (256), *lurreco* (159) & *lurrerat* (259), *muga* (200), *nun* 'non' (11). Hitzaren erdikoak dira honakoak: *ardura* (218), *arrangura* (237), *bulusten* (166), *currece* (166), *eçagutcen* (168), *iduria* (258), *ikusten* (166), *ikuzteranokuan* (257), *lagunduço* (167) & *lagunça* (230), *liburu* (301), *ninduçun* (116).

Hurranen adibideetan hitz bukaeran dago: *akitu* (88), *apaldu* (258), *ataku* (80), *batzçu* (78), *becatu* (117), *colpuz* (159), *çaku* 'zakua' (166), *estatu* (166), *Gincotarçunac* (160), *gorputz* (160), *heldu* (166), *Infernuko* (165), *itçul* (166), *Jesu-Christo* (180), *laburrez* (80), *ordutic* (260), *ppenatu* (395), *protozchu* (460), *samur* (167), *Seindu* (167). Hitz bukaerako adizkiak dira beste hauek: *balitu* (165), *deçagun* (25), *diagoçu* (49), *dibaçu* 'doazu' (88), *direeçu* (89), *neçaçu* (166). Hurranen maileguek ere <u> dute: *abitu* 'jantziak' (166), *crudelki* (166), *dolumena* (167), *humanuac* (160), *igual* (258), *injuria* (164), *justiciari* (164), *mentura* (257), *mundiaren* (258), *natura* (160), *punitceco* (165), *segur* (165), *umil* (258) & *umiliatcen* (80).

#### 2.1.2.4. Garai hartako beste lekuko bat

Charles-Auguste Le Quien de Laneufville apezpikuak 1786an Akizeren menpeko fededun baxenabartarrentzat berrargitarazi zuen katiximan, euskal ekialdean *u* eta *ü* bereizten duten mintzoetan ohiz espero litekeena da <ou> eta <u>-ren jokabidea Hein batez, baina ez dago guztizko koherentziarik. Hein bateko egokitzapen horretan oinarriturik edo, Alphonsa Rodriguez-en Lopezzen itzulpenean ez bezala, *Orotariko Euskal Hiztegia*-k <u> / <ü> berezketa baliatu du 1786ko kristau ikasbidea edo CatLan transkribatzeko, baina garbi adierazi behar da 1786ko katixima honetan ere <u>-ren balioa ez dela unibokoa eta ez duela sistematikoki /ü/ adierazten.

Ikuspegi eszeptikoaren lekuko egokia da baitezpada /u/ ez palatalizatua izan behar duten hurranen adibideen grafia anbiguoa: *urthax* (8), *urtharrilaren* (8), *huntarçunac* (38), *hunec* 'honek' (34), *onduan* (9) edo *guiristinuac* (18, 34). Hitzotako fonema /u/ izanik, katiximan grafia era unibokoan baliatu balitz, adibideok berez <ou> beharko zuketen izan. 1786ko testuko hainbat berezketa grafikoren balioa hondatzen ez badute ere, katiximako sistema grafikoaren ahulguneak erakusten dizkiote hizkuntza-

lariari; funtsean, ez diote aukerarik ematen 1786ko liburuak /u/ eta /ü/ fonemen arteko bereizketa garbia irudikatzen duela sinesteko.

1782ko liburuan legez, 1786ko kristau ikasbide honetan ere hainbat hitz bi era-tara idatzirik ageri dira, argitalpenak aldakortasun grafikoa ageri du:

1. ur: *goure* (8) & *goureçat* (8, 34), *gouriac* (7) / *gure* (9), *guri* (8)
2. urt: *Ourtharilaren* (39) / *Urtharrilaren* (8); *Ourthaxez* (38) / *Urthax* (8)
3. uk: *ouquen* (7) / *uqhen* (37)
4. un: *hounen* ‘onen’ (10) & *hountarçuna* (36) / *hantarçunac* (38)
5. hiatusean: *ondouan* (9, 33) / *onduan* (9)

Ikus ditzagun Amikuzeko katiximatztat jotzen den liburu honetako datuak xeheki:

<ou> dugu adibideotan, teorian /u/ adierazteko: *bessouetan* (39), *Demoniouaz* (41), *gaiñecoua* (6), *gouhaurec* (38), *hirour* (6), *houra* (7, 33), *humanoüa* (36) & *humanoua* (36), *icous* (9) & *icoussi* (39) & *icousten* (6), *igoüalki* (36), *jouanic* (40), *Marchouaren* (37), *Mysterioüan* (36), *noun* (7, 38, 40), *ondocouac* (33), *ouhaitzcian* (40), *ourthe* (40) & *ourthetaraino* (40), *Templouan* (8)...

Aldiz, <u>-k teorian /ü/ islatuko luke 1786ko katiximan, baldin idazkia bokal palatal hori orduan indarrean zegoen eskualde bateko hiztun oso batek idatzi balu: *aingurien* (38), *baiçutén* (33), *becatu* (33), *buluciac* (33), *burian* (39), *Ceru* (40), *Curuiciaren* (8), *dacogu* (38), *ditu* (33), *du* (8), *duçu* (34), *eguna* (8), *gorphutz* (7), *gucien* (8) & *guciac* (33), *guitu* (8), *hartuz* (36), *Jesu-Christoren* (8), *jujatia* (9), *lekuco* (8), *Lurra* (33) & *Lurrerat* (9), *miraculu* (38), *mundiareñ* (9), *Seinduco* (35), *unitu* (35)... Badakigu, ordea, egungo Amikuzen bederen /u/ dagoela eta ez /ü/ gure liburuan <u> daramaten bi hitzotan: *urço* (49), *Urhe* (38).<sup>4</sup>

Hona xeheki eta ikuspegi fonologikotik eskainirik, kristau-ikasbide horretako alderdi grafikoaren jokabidea zerik den:

<ou> dakartenak, itxuraz /u/ adierazten dutenak:

1. jatorria *o* duen *u*: *noun* ‘non’ (7, 38, 40), *hounen* ‘onen’ (10) & *hountarçuna* (36)
2. hiatusaren lehen kidea *u* da eta *o* du jatorria: *bessouetan* (39), *demoniouaz* (41), *gaiñecoua* (6), *Gincouaren* (35), *humanoüa* (36) & *humanoua* (36), *jouanic* ‘joanik’ (40), *marchouaren* (37), *mysterioüan* (36), *ondocouac* (33), *templouan* (8); baita beharbada *igoüalki* (36) ere
3. hitzaren hasieran *u* beharbada? *gouhaurec* (38), *ouhaitzcian* (40): hitz hau *ühaitz* bildu dugu Zuberoako Oihergin eta Pagolan eta halaxe dakar Larraske-tek hiztegian
4. *ur* sekuentzia: *hirour* (6), *houra* ‘hura’ (7, 33)
5. *urt* sekuentzia: *ourthe* (40) & *ourthetaraino* (40)
6. *us* sekuentzia: *icous* (9) & *icoussi* (39) & *icousten* (6)

<u> dakartenak, kasu gehienetan beharbada /ü/ irudika lezaketenak:

1. hitz hasieran: *burian* (39), *curutiaren* (8), *guciac* (33) & *gucien* (8), *guri* (8) —Arbotin *güriak* ‘gureak’ bildu dugu—, *lurra* (33) & *lurrerat* (9); bestalde,

<sup>4</sup> Amikuzeko Martxuetan bildu dugu *urzo* eta Oragarren *urreria*.

- zalantzazkoak dira *Urhe* ‘urrea’ (38) eta *urzo* (49): guk Amikuzeko Martxüetan *urzo* bildu dugu eta Lafonen Gamue-Zohaztiko berriemaileak *ürzo* zerabilen 1936an, palatalizatu gabe, baina Larrasketek *ürzo* dakar Zuberoan 1939an
2. hitzaren erdian: *aingurien* (38), *buluciac* (33)
  3. hitzaren bukaeran, koda izan nahiz ez izan: *becatu* (33), *ceru* (40) & *cerurat* (9), *dacogu* (38), *ditu* (33), *du* (8), *duçu* (34), *eguna* (8), *gorphutz* (7), *gu* (9), *guitu* (8), *hartuz* (36)
  4. maileguak: *Jesu-Christoren* (8), *jujatia* (9), *miraculu* (38), *mundiaren* (9), *unitu* (35)
  5. ondotik *k* duela eta lexemaren mugan: *lekuco* (8), *seinduco* (35)

Ez dago batere garbi *ouquen* (7) / *ughen* (37) bitasun grafikoa zer ari zitzaigun irudikatzen edo zein bokal mota islatzen duen.

Oro har ez dugu uste bermerik dagoenik 1786ko katixima honetan grafiak /u/ eta /ü/ arteko bereizketa gardena dakarrela esan ahal izateko; ekialdeko bokal sistemare-kiko hein batean ezkontzen bada ere, ez da batere sistema unibokoa.

### 2.1.3. Diptongoak

Bigarren osagaia palatala dutenetan, *aita* (1), *baita* (3), *aitcinian* (5) edo *hoguey* (1), *beithan* (1), *deitcen* (3) adibideak aipa daitezke, eta baita *choil* (136) & *choilkia* (89) ere, edota *huinben* ‘oinen’ (257) eta *huinthutz* ‘ortutsik’ (166). Belarra dutenetan, berriz, honakoak: *aurthiqui* (166) & *aurtikiten* (259), *aussartcia* (257), *caussa* (166), *daucola* ‘dagokiola’ (166), *deraucie* (166), *gaucen* (88), *guihauren* (167), *haux* ‘hautsa’ (164) & *hautxez* (166), *Jauna* (166). Baita, bestalde *jeüsten* (99) & *geüzten* (254), *deuz* ‘deus’ (166) & *deüssetan* (317) & *deüssere* (318) ere. Ordea, ez dugu *ou* diptongorik aurkitu.

### 2.1.4. Kontsonanteak

Liburuan ez dago guztizko batasunik eta hitz bera bi eratara idatzirik ageri zaigu usu; era batera ageri dira atalen edo azpiatalen izenburuetan, baina beste batera aur-kibidean: *afligimendu* (313) / *affligimendu* (464); *bezte* (202, 212) / *beste* (461-2); *communiatcia* (220) / *communiatcia* (462); *comuniatu* (208, 212) / *communiatu* (461-2); *Comunione* (215) / *Communione* (462); *çumbaitez* (202) / *çunbaitez* (461); *erremedio* (220) / *erremedio* (462); *erremezthiamendiec* (208) & *erremezthiatceco* (212) / *erre-mesthiamendiec* (461) & *erremesthiatceco* (462).

#### 2.1.4.1. j fonema

Bokal belarren eta behokoaren aitzinean <j> ibiltzen da beti liburu honetan: *jakin* (5), *joan* (7), *juje* (368). Palatalekin, ordea, bikoizketa dago erabileran: *e* edo *i* bokalen aitzinean <g> nahiz <j> letrek kontsonante sabaikaria adierazten dute. Ez dakigu *lenguayaz* (286) adibidearen bokal arteko <y> hori bokala ere izan ote litekeen; cf. *language* (389) & *lenguagia* (389) adibideak, non kontsonantea dagoela dirudien.

Kontsonante sabaikaria dugu *courage* (219) eta *curajoski* (384) kasuetan nahiz *juje* (368) & *juge* (71) parean edo *page* ‘zerbitzaria’ (247) hitzean ere. Hitz hasieran ere gertatzen da: *jeiki* (219) & *geiki* (16), *jeloskeriatric* (431) & *gelozkeria* (246), *jin* (27) & *gin* (40) dakartza liburuak; hiru hitzen hasieran hots sabaikaria dago.

Gure liburuak tradiziozko grafia dakar mailegu nabarmen edo kultismoetan: *arcangelu* (255), *bidge* (407) & *bidaige* (376), *digeriteco* (427), *evangelioco* (198), *evangelista* (354), *estranger* (84), *langer* (43) etsenpluak eta *afligimendu* (155), *affligithia* (206), *imagina* (214), *religione* (373), *religios* (363) eta *theologia* (78) & *theologien* (158) adibideak ere, je eta ji fonema sabaikaria adierazten ari dira: nolanahi ere den, ezina da ahoskeraren inguruko zehaztasunak ematea.

#### 2.1.4.2. f fonema

Bakuna da gehienetan, baina inoizka era bikoitzasun hori hizkuntza nagusietan ohituraz honela idazteko tradizioari dagokion eta ez ahoskerari: *francez* (7) & *francesaren* (3), *glorificatu* (11), *liferent* (258), *perfeccioniaren* (1), *perfeitaren* (3) / *affectionia* (417), *lifferencia* (30), *officiuac* (15), *offenxatu* (36)... Esate batera, liburuak bederatziz *liferencia* dakartzza eta sei *lifferencia*.

Bestalde, fonema hau <ph> irudikatzeko ohitura ere bada liburuan, gehienbat izen arrotzatan, mailegu berrieta edo kultura hizkuntzeturik datozen hitzetan: *Alphonsa* (1), *Antiphona* (243), *Ephremec* (62), *Josaphat* (97), *Josephen* (396), *Ludolpha* (189), *Miphibosete* (199), *Nicephora* (222), *Paphnuça* (143), *phariseen* (274), *Philipe* (408), *philistheenec* (119), *philosopho* (258), *propheta* (29), *Raphael* (95).

#### 2.1.4.3. Hasperena

Gauza ezaguna da Ipar Euskal Herrian ohiz *h* daramaten hitz zenbaitetan Zuberoan falta dela: *aize*, *aragi*, *azi*, *ezür*, *igitü*, *odei*, *osto* adibide ezagunak dira. Gure testuak errealtitate honen alderdi bat islatzen du: *aice* (181, 260, 261, 264, 290, 414), *aci* (279), *iguituco* (264), *odei* (77), *osto* (280). Baxenabarren *haurride* egiten da, baina Zuberoan *aurhide*: *ene aurhyde gachouk* (*Charlemagne*, 358). *Pratica*-k ere *aurhide* (417) dakar. Berebat, Zuberoan *h*-duna da *hüme* hitza eta *h-z* dakar *Pratica*-k: *humetaric* (321). Bestalde, ez da Zuberoan baliatzen den hitza, baina *h* gabe dakar *Pratica*-k *asserre* (42): Ipar Euskal Herrian aldaera *h*-dunak eta gabeak ditugu hitz honetan. Aldiz, *h* gabea da *aragi* Zuberoan eta gure testuan *h-z* ageri da *haragui* (65, 216, 218, 221, 233...); berebat, *h* gabea da *ezür* Zuberoan —Davant (2010: 32)— eta *Pratica*-k *h-z* dakar: *heçur* (159). Ipar Euskal Herri guztian *h* darama *handi* adjektiboak eta hala dator liburu honetan, baina adibide bakar batean *andi* dago eta gure ustez hutsa da: *gauça andi bat unxa hazthia* (62).

Oro har, ohiko kokagune fonikoetan dator liburu honetan hasperena: hitzaren hasieran, hiatusean —bokal berdin eta desberdin artean—, goranzko diptongoaren aitzinean eta beheranzko diptongoaren ondotik; gainerateko hasperenak kontsonanteen ondokoak edo kontsonantearen beraren atalak dira; hona, orain, hasperena daramaten hitzen hustuketa handixko bat.

Hitzaren hasieran: *habe*, *habituda*, *hain*, *hala*, *hamar*, *hamatu*, *han*, *hanbat*, *handi*, *hantatu*, *har*, *hara*, *haragi*, *hariña*, *haritz*, *harma*, *harri*, *hartu*, *hasi*, *hasper*, *haspe-*

*rapen, hasthio, hatu, hats, hatsarre, hatse, hatz, haur 1, haur 2, hauteman, haut(h)u, hauts, hautsi, hazi, hazinda, hazkurru, heben & haben, hedadura, hedatu, hegaldatu, hegatz, hek, helas, heldu, herabe, herakitu, herensuge, herexa, herio, herra, herrestatu, herri, herroka, hersi, hertu, hertsatu, hertze, heuskal, heuskara & huskara, heyga & eya, hezi, hezur, hi, higuintza, higungarri, hil, hilabete, hira, hiri, hirur, hirritu, hitz, hitzeman, hobe, hoben, hobi & obi, hogei, hoibeldu, hok, hola, honitu, hor ‘zakurra’, hori, hortz, hotz, huin, hume, humil, hun, bundu, hungi, hunkitu, hur, hora, hurtatu, hurtu, hurran, huts.* Ez dakigu hospitale hitzeko *h-a* orduko itzultzaire hark nola sentitzen zuen.

Hiatusean bokal berdinene artean: *ahal, aharra, ahatzi, beheiti, bihi, eheñatu, ihi, ihizi, lehen, lehertu, mahai(n), mihi, nahar, nahasi, obore, xehe, zahar, zuhur.*

Hiatusean bokal desberdinene artean: *ahitu, ahizpa, aho, ahulgatu, aurtemehin, bahi, beha, behar, beharri, behin, bihar, bibotz, biburtu, diburu, ehor, ehun, gehiago, ihardetsi, ihesi, ihetzi, ihortzi, lehia, loheriñ(a), lohi, nahi, neholare, nehor, nehun, ohe, ohi, sahets, uharre & usherre, xahu.*

Goranzko diptongoaren aitzinean: *gihaur, lehoin, nihaur, ohoin, uhaitz, zihaur.*

Beheranzko diptongoaren ondotik: *aiher, auhari, auher, eihar, gauherdi, geihen, goihentze, goihera, leihu, oihal, oihan, oihu.*

Inoiz <h>-ak palatalizazioa adierazten duela dirudi; *aphurtho* adibidean bigarren hasperenak herskari horzkariaren palatalizazioa adierazten du, izan ere, liburuko *thipi*, *thipitu*, *thipitcen* eta *thipithuetan* adibideak, nabarmen *ttipi*, *ttipitu* *ttipitzen* eta *ttipittuetan* dira, egun Baxenabarren ohi den bezala. Baita bokaletan ere: *arraposthia* (20, 415) dugu, itxuraz *arrapostu* hitzaren hondar -u-ren palatalizazioa adierazten duena, baina bada bestalde *arraçoinhathuz* ere, non -u ez baita palatalizatu, eta halaz ere aitzinean *h* du; ez dirudi *h* hori -tu atzizkiaren ahoskerari dago-kionik.

Kasu batzuetan gauzak ez dira automatikoak: esate batera, *kunde oinarritik cundhia* (335) ateratzen da, <h>-k e → i bokal hersketa adieraziko bailuen; aldiz, *kundu oinarritik* ateratzen den *cundia* bokal palatalizazioa <h> baliatu gabe *cundhiatik* bereizi nahi duela dirudi, *kundu* → *kundia guziak cundia* (343, 345) edo *cundiacc* (57, 58, 58, 58, 345) idazten baititu, *h* gabe, beharbada *t* ez delako. Aldiz, ikusi dugu arrestian, *arraposthia* palatalizazioa, *h* duena. Liburu honetako <h>-aren erabilera azterketa berezia eskatzen du.

Herskariez eta ozenez diharduten ataletan agertuko zaizkigu xehetasun gehiago hasperenaz, baina nabarmenzekoa da <th> idazkerak ezohiko agerraldi ugari dakra liburu honetan; herskarien atalean dihardugu <th>-ren jokabide bereziaz.

#### 2.1.4.4. Fonema ozenak

Fonema ozenetan albokariak eta sudurkariak irudikatzen dituzten grafiak aipatu behar ditugu. Hitzaren hasieran *n-* eta *l-* ditugu, bi fonemak arazorik gabe adierazten dituztenak: *nabi* (139) / *nehorc* (141) / *nigar* (141) / *nola* (142) / *nunbaico* (177) alderdi batetik eta *lagunt* (3) / *leku* (32) / *liburu* (3) / *lothiac* (133) / *lur* (138) bestetik. Hitzaren barrenean bokal artean ez dago aipagai nabarmenik: *guinen* (172), *içannen* (27), *duçunian* (39), *çaconaz* (163) sudurkarietan eta *nola* (10), *celia* (11), *beçala* (11), *balu* (51) albokarietan. Hitzaren bukaerako sekuentziak dira honako besteak:

*bidian* (3) / *deitcen* (3) / *ladin* (3) / *derazkon* (10) / *dugun* (11) batetik eta *ahal* (16) / *epel* (114) / *chothil* (128) / *odol* (160) / *itçul* (166) bestetik.

Dakigunez, kontsonante sudurkari eta albokariok euskaraz beste bi eratan ere ager daitezke Ipar Euskal Herrian: alde batetik, ondoko silaban hasperena dutelarik; bestetik, Baxenabarreko ekialdean -i bokalean bukatzen den diptongoa ezker dutenean palatalizaturik, egungo euskal ortografiako <ñ> eta <ll> grafiek irudikatu ohi dutena. Palatalizazioa adierazteko bi tradizio nahasten dira liburuan: batetik kaskoin edo okzitanierarena, <nh> eta <lh> baliatzen dituena eta bestetik frantsesa, <gn> eta <ll> darabiltzana; liburuan <gn> hainbat adibidetan ageri da, baina <ll> bakan baizik ez.

Xehetasun hauek direla eta, bi alderdiri so egin behar zaie: grafiaren sistema ez da liburu honetan biunibokoa eta hainbat aldiz ezta unibokoa ere. Gure liburuko <nh> sekuentziak bi errealitye adieraz ditzake: hurranen silaban hasperena darraikion sudurkari arrunta, batetik, baina baita, bestalde, sudurkari palatalizatua ere; arazo bera dugu albokarietan, <lh>-k izaera hasperendua eta palatalizatua, biak irudika baititzake liburu honetan.

Eta honezaz landa, oroitaz dezagun ekialdeko Euskal Herriko testu zenbaitean <ll> grafiak albokari hasperendua ere adieraz dezakeela: Zuberoako pastoraletan honela da inoiz. Jean-Pierre Saffores pastoral kopiatzaile atharratzarrak palatalizazioa nahiz hasperena adierazteko <ll> baliatu zuen; <allaba> grafia <alhaba>-rekin batera zekarren eta bestalde, <salhatu>-rekin batera <sallatu>; kasu hauetan guztietan albokari hasperendua adierazten ari zen <ll> (Loidi 1996: 510 eta Oihartzabal 1991: 140).

Hitz batzuetan ez dago kontsonantearen izaera halako zalantzak eta ziurtasunez dakigu grafiak zer irudikatzen duen, hitzaren ahoskeran garai hartatik honat eskualdean aldaketa handirik gertatu ez bada bederen: <emekinho> (39) hori *emekiño* adierazten ari zaigula iruditzen zaigu; halaber, sail sudurkariko *anhartekan* (375), *anhayen* (269), *janhari* (216), *senharra* (413) edo *sinhescor* (371) & *sinheste* (4) & *sinhexi* (10), gaude sudurkariaren ondoko hasperena adierazteko idatzi zirela horrela. Badira, gero, euskarazkoak ez diren izenak: *Akinhakuac* (266), *Canhonha* (233). Berebat, sail albokariko *alhargun* (204), *alhor* (131), *belhar* (134), *belhaurico* (143), *bulbar* (79), *çalbu* (46), *elhe* (12), *elhur* (280), *malhur* (372) edo *salhaçale* (246), hitz horien egungo ahoskera ezagutzen dugunez, uste dugu albokariaren ondoko silabako hasperena adierazteko idatzi zirela horrela.

Itxaron genezakeenez hitz guztietan ez dago segurtasun maila bera: itxuraz <h>-k ez luke betekizun fonikorik *barnha* (262), *ezpainhakike* (108), *gobernhatceco* (141), *ppenhoz* (148) adibideetan, hutsak lirateke eta errata dirudi *donhain* (356) aldaera ere, baina nola ahoskatzen zen 1782an liburuan ageri zaigun *lheinhuru* (68) aldaera? Adibide honetan sudurkaria uste dugu dela ziurtasunez palatalizatua.

Eta fonikoki, zer adierazten du *aitcinhatu* (141) & *aitcinhatceco* (138), *arhinha* (263), *Erreguinha* (211), *Guiristinhuo<sup>5</sup>* (1) & *Guiristinhuaren* (3), *urrinha* (111) adibideotako <nh> horrek? Eta muga adlatiboko *alditharanhokuan* (139) & *mementoranhokuan* (161) atzikzia nola ahoskatzen zuten garai hartan? Ez dago garbi zein izan ote daitekeen liburuak garai hartan grafia horrekin hitz horietan adierazi nahi zuen

<sup>5</sup> XIX. mendeko Donapaleuko katiximan *gristiño* dago eta Tartasek *christigno* dakar (*Onsa*, 77), baina *Pratica* anbiguoa da; nagusi da *guirist(h)inh-*, baina sei aldiz ageri da *guiristinue-*.

ahoskera, ez dugu ongi ezagutzen orduko mintzoa, ez dakigu xuxen liburu honetako mintzoa nongoa ote den eta testuko grafia ez da unibokoa.

Badakigu liburua eikaldeko Baxenabarreko euskaldunak gogoan idatzi zela eta egun bederen, eskualde horretan oro har diptongoko *i* ondoko *n* eta *l* fonemak palatalizatzen direla, baina ezagutza sinkroniko honek ez digu balio garai hartako grafien gibelean dauden ilungune guztiak berme sendoz argitzeko.

Hona liburuan <nh> sekuentzia baliaturik kaskoinaren tradizioaren arabera idatzent diren hitzak, guk uste palatalizazioa adieraz dezaketenak: *amanhua* (116), *amoinha* (142), *arraçoinha* (10), *arrainharen* (409), *artçainha* (299) & *artçainhez* (200), *beirinha* (200), *cathinha* (99), *çainha* (34), *çoinhen* (3) & *çoinhenbeste* (115), *desseinha* (51) & *desseinhic* (26), *dohainha* (65), *ehenhatceco* (14), *emekinho* (39), *er-mithainha* (122), *errainhac* (334), *ezkunheco* (235), *espainhez* (203), *ganheco* (255), *harinha* (9) & *harinhacia* (263), *huinhen* (86), *itchainhac* (311), *karroinhac* (302), *kenhuric* (197), *lanho* (260) & *lanhoki* (7) & *lanhotarçuna* (432), *loherinha* (110), *mahrainhan* (199), *mainhatuco* (295), *manhata* (48), *ohoinhac* (377), *ordeinhu* (257) & *ordenhiaren* (230), *oreinba* (210), *planhu* (337) & *planhuric* (286), *plenbi* (108), *poçoinha* (359), *sassonhian* (116), *seinhale* (116), *soinhu* (118), *terminho* (55) & *therminhuec* (7). Ez dakigu zer esan galdeinhac (274) adibideaz.

Inoiz <nnh> egiten da: *dohainharen* (146), *eheinnhatcen* (398), *einnha* ‘egina’ (51), *ezkuinnhian* (69) & *eskuinnheco* (76).

Sudurkariaren kasuan, palatalizazioa ez du kaskoinaren tradizioko <nh> sekuentziak bakarrik adierazten, frantses grafiaren tradizioko <gn> sekuentziak ere eginkizun hori du liburu honetan: *bestagnez* (172) & *beztagnez* (13), *compagnan* (351), *ezpagnez* (282) & *espagnen* (178), *gagnan* (17) & *gagnera* (29) & *gagnekua* (112) & *gagneraco* (14) & *gagnetic* (10), *segnalatcen* (217) & *segnaile* (58); antzera gerta liteke *gogagn-garria* (325) adibidean ere. Liburuaren bukaeran Philippe d’Abense Akizeko bikario nagusiak idatzi gutunean, bestalde, *signathiac* (454) aldaera ageri da, baina garai hartan hori nola ahoskatzen ote zen jakitea ez da aise. Latinaren tradizioko kultismoak dira *dignitathia* (193) & *digno* (143), *Magnificathian* (23); izen berezia da, bestalde, *Ignacio* (145).

Inoiz, bi tradizionen gurutzaketaren ondorioz, palatalizazioa adierazteko <gnh> sekuentzia ageri da liburu honetan: *Avignonen* (1), *beztagnhez* (13), *burdignha* (46), *compagnha* (215) & *Compagnhia* (408), *Espagnhaco* (408) & *Ezpagnhatic* (340), *seignhale* (399) & *segnhale* (34) & *segnhalia* (8) & *segnhalatcen* (144); kultismoa izan liteke *resignacionesco* (81).

Albokariei dagokienez, hona zein diren tradizio kaskoinetik datorren <lh> grafia daramaten hitzak, guk uste ahoskera palatalala adierazten dutenak: *abanthalha* (13) & *abantailha* (426), *arrolhac* (170), *conseilhatzcen* (89) & *conseilhura* (309), *choilhian* (87), *erdoilhac* (324), *marteilhu* (86), *mirailh* (361) & *mirailha* (101), *oilharraren* (170), *pitrailha* (425), *poilhitarçunaren* (123), *trabailhatu* (13) & *trabailhiac* (46); atzikietan, berriz, *edergailhu* (273) eta *piçugalhia* (414) aipa daitezke. Mailegua da *Castilhaco* (251), behin bi tradizioetako grafia gurutzatuarekin ageri dena: *Castillhalat* (408); berebat, mailegua da *folharen* (8) ere. Baliteke *lheinhuru* (68) palatalizazioaren metatesia izatea ala <lh>- hori errata izatea. Akizeko apezpikuaren onespen agirian *uztaillaren* (451) idazkera ageri da, tradizio frantsesaren araberako grafian emanik, eta hots palatalala adierazten duela dirudi.

Aldiz, beste hauetan helburua hasperena adieraztea izan zela uste dugu, baina hau esateko dugun oinarri bakarra Baxenabar ekialdeko egungo ahoskera da: *alhangun* (204), *alhor* (131), *belhar* (134), *belhauricatcen* (190) & *belhaurico* (143), *bilhatu* (326), *bilhuac* (223), *boulharrac* (197) & *bulbarretic* (79), *çalhu* (46) & *çalhienic* (365) & *çalhutcen* (397), *cilharrac* (9), *elhe* (12), *elhorri* (313), *elhurra* (295), *ilhun* (60) & *ilhunpe* (37) & *ilhuncian* (108), *malhur* (372) & *malhuroz* (117), *salhaçale* (246) & *salhacia* (447). Baliteke *ilhobaz* (245) ere hasperendua izatea, hala dakar Larregik, baina *illoba* dakarte Voltoirek, Pouvreauk edo Constantinek; hitz honetan ez dugu berme handirik iritzi bataren ala bestearen alde jotzeko.

Tradizio etimologikoak eragin duke <ll> honako adibideetan: *alleguera* (13) & *alleguerancia* (95), *illusione* (89). Kultismoak edo maileguak dira honakoak: *Alleluyac* (230), *excellencia* (94) & *excellent* (142), *Gillaz* (398), *Saint Cirillec* (220), *Tertullianec* (414), *Villenuvakuac* (101).

#### 2.1.4.5. Biezpainkari sudurkaria

Hitz hasieran ohiko eran ageri da: *maithia* (3) / *merkiago* (6) / *mintçatzceco* (4) / *moldatzceco* (46) / *mundu* (14). Hitzaren erdian bokal artean ere berdin: *eman* (3) / *dremendena* (67) / *semia* (68) / *amorecatic* (64) / *samurtceco* (66). Silaba bukaeran egoera inplosiboan ere ageri da: *campoco* (11), *compagnhaco* (1), *important* (121).

Dena den, herskari biezpainkarien aitzinean *n* eta *m*-ren txandaketa nabarmena dago; hona ahostunaren aitzinean: *beçanbat* (19) / *beçambat* (6), *çunbait* (11) / *çumbait* (208), *çunbat* (24) / *çumbat* (288), *çunbatenaz* (10) / *çumbatenaz* (214), *denbora* (269, adibide bakarra) / *dembora* (16), *hanbat* (19) / *hambat* (331), *kanbiatuco* (350, bakarra) / *cambiatu* (40). Badira, halaz ere, <mb> baizik ez duten adibideak: *gambarac* (14), *kambiaçarrena* (57), *kambio* (84), *membro* (103), *tombala* ‘hilobira’ (327); baita *Ambrosio* (23) izen berezia ere. Eta badira <nb> baizik ez dutenak ere: *çoinhenbeste* (115), *ecinbestez* (17), *eguinbide* (102), *hainbeste* (10), *hunenbestetan* (91), *lehenbicico* (102), *minbera* (126), *nunbait* (428). Hurranen maileguek jatorrizko hizkuntzaren idazkeria gorde dute: *conbeni* (121), *conbersa* (69), *conbersonia* (59), *conbertitu* (112).

<p>-ren aitzinean ia ez da <n> ageri, adibide gehienak <mp> dira eta indarrez sentitzen da <mp> duten maileguen eragina; <np> hiru hitzetan baizik ez dugu aurkitu: *ilhunpe* (37), *corronpitu* (355) eta *comparancha* (72, adibide bakarra) dira, baina hondarreko hitz hau nagusiki *comparancha* (39, 60, 75, 76...) aldaeran dator liburuan; aldiz, ez dago \*\*<ilhumpe> edo \*\*<corrompitu> aldaerarik. Gaineratekoak <mp> dira guztiak: *ampola* (400), *campo* (241), *compagnha* (215), *compara* (27) & *comparancha* (39), *complitu* (28), *comprentu* (251), *contemplacione* (146), *empaitzchacen* (15), *emperadoriari* (224), *empleatu* (188) & *emplegu* (269), *exemplu* (62), *impacienciac* (127), *imperfeccione* (195), *important* (121), *impossible* (278), *imprima* (138), *lampada* (334), *simpleki* (77) & *chimpleki* (140), *tempesta* (166), *templo* (23), *trempatu* (138), *trompatu* (372), *trompeta* (286), *tromperia* (137).

Itxaron zitekeenez, ez dago hitz bukaerako <m>-rik, non eta ez diren maileguak: *Adam* (371), *Eustokium* (407), *Jerusalem* (351), *Lipomam* (402).

Bakan ageri da bikoitzturik, tradizio etimologikoa duten hitzetan baizik ez dugu libruan <mm>: *commun* (59) & *communski* (424), *communia* (55) & *communiatu* (193) & *communicatcera* (194) & *communione* (192); baita izen arrotzeten ere: *Ammonitac* (97).

Berebat, <mn> taldea ere bada, baina mailegu gordina den erro lexiko bakarrean: *damnacione* (318) & *damnatu* (165).

#### 2.1.4.6. Dardarkaria

Gauza ezaguna da hitzaren barrenean dardarkaria daramaten hitz batzuetan grafia arazoak izan direla Ipar Euskal Herriko idazkietan, <rr> eta <r> txandaka agertu ohi dira. Gure liburuaren mende berekoak diren Zuberoako pastoraletan ere ezaguna da gertakari hau. Adibidetzat 1793ko *Edipa* har dezakegu (Bilbao 1996); hitz batzuetan bereizketa egoki egiten da: *arraleriaq* (258), *arren* (259), *erreguetaco* (254), *errekeitatcera* (276), *lasterratu* (255), testu berean ttap duten hitzak ere grafiaz bereizten baitira: *belharico* (273), *çamariz* (256), *ebiliren* (261), *ereman* (253). Inoiz bada adibiderik <r> gabe ere: *hartuen* ‘harturen, hartuko’ (256).

Bereizketa grafikorik gabeko adibideak dira honakoak: *erakhariren* (253), *eranen* ‘erranen’ (253), *eroçu* (263), *hurunty* ‘urrunetik’ (252), *nigarez* (278). Ane Loidik ere <r> / <rr> nahasketak aipatzen ditu *Sainta Catherina* pastoralean (1996: 512).

Jose Antonio Mujikak Ipar Euskal Herri guztiko hainbat adibide dakartzat: Voltaire, Harizmendi, Pouvreau, Argaiñaratz, Aranbillaga, Gazteluzar, Tartas, Belapeire idazleenak, 1706ko Oloroeko katiximakoak (2002: 195-6); alderantzizkoak ere bai, <r> beharrean <rr> dakartenak: *ianbarriaq* Voltoirerena, *herrio-* Tartasena, *errori* Belapeirerena...

Hona gure liburuan ageri diren bikoiztasun adibideak:

- *arreroz-* bi aldiz: (182, 299) / *arerosteo*: (173, 173, 173, 178, 180, 190, 209, 233, 300), baina bada gero *ar-erosteco* (172) & *ar-erosciec* (353) aldakia ere
- *arropa* (81, 201, 222, 224, 253, 254, 300, 405, 429, 429, 430) / *aropa* (124) & *aropetan* (226)
- *elhorri* (313), *elhorriskuaren* & *elhorrisco* (312) / *elhorisco* (312); hondarreko kasu honetan [r] ezarri dugu, liburuak *elhorri* hamabi aldiz <rr> idazten baitu eta <r> behin baizik ez
- *erremedio* (50, 51, 72, 101, 102...) / *eremedio* (98, 112, 123, 142, 220, 222, 236, 287, 311...)
- *erreparatu* (orokorra) / *ereparatu* (148, 150, 165)
- *erespet* (4, 225, 243, 251...) / *erespetu* (196, 197, 204, 253) & *erespetatu* (310)
- *garraski* (394, 403, 415, 445, 446) / *garatz* (386, 390)
- *haurr* (222, 224, 412, 413) / *haur* (22, 28, 142, 174, 189, 195, 198, 203, 248, 284, 312..., 440)
- *hourr* ‘ura’ (135, 156) / *hour* (31, 32, 33, 39, 42, 76...)

Adibideotako <rh> grafia hasperena darraikion ttak fonematzat jotzen dugu: *arhin* (26) & *arbinski* (125) & *arhintcen* (157) & *arhinmendutaco* (319), *berhalde* (128), *berharc* (204) & *berharen* (68) & *berhartzçaz* (26), *berhorec* (116), *berheala* (41), *berheci* (36) & *berheciki* (38) & *berhesten* (157), *erhautxiric* (340), *erhi* ‘eskuko eria’ (195), *erho* (290) & *erhokeria* (50) & *erhotuki* (373), *garhaitceco* (377), *orhit* (14) & *orbitu* (73) & *orhitzchapen* (67), *sorhaiotarçunac* (317). Ez dakigu *çorhi* (65) & *çorhitcen* (65) adibidea talde honetara ekarri beharra den. Aldiz, grafia etimologikoari dagokio *Crhonikac* (386) adibidea.

Liburuan ez dago <rrh>-rik batere, baina baditugu <rh> grafia daramaten eta gainerateko euskalkietan *rr* diren adibideak: *aurhidia* (417), *erhaux* (258), *ourhe* (9) & *urhe* (405), *urhatx* (68) & *urbaxa* (15) & *urbazcal* (37), *urhentcian* (250).

#### 2.1.4.7. Txistukariak

##### 2.1.4.7.1. Txistukari igurzkarien azterketa

Hitzaren hasieran lepokari igurzkaria <ç> irudikatzen da ondotik *a*, *o* edo *u* dituenean eta <c> ondotik *i* edo *e* dituenean: *çahar* (17), *çoin* (18), *çunbait* (251) / *cinciez* (18), *cerbait* (246). Salbuespen guti batzuk badira, inprimategiko hutsak edo direnak; <çe> lau aldiz baizik ez dugu zenbatu —*hartzçen* (117), *otoitzçetan* (147), *Celurat* (261), *hiltçeco* (336)—, baina <çi> ez da hain bakan ageri, hamazazpi aldiz zenbatu dugu; guk grafiok ez ditugu ukitu edo zuzendu eta honelaxe ageri dira edizio honetan ere.

Hitzaren hasieran ez dago <z>-rik; salbuespina da *zelo* (161) hitza eta baita izen berezi arrotz bakan batzuk ere: *Zacheac* (24) & *Zachearen* (211), *Zakaria* (173, 385) & *Zacharia* (221), *Zozima* (98). Hitzaren barrenean bokalen artean ia ez dago <z>-rik: *içan* (254), *guiçon* (250), *ahalgaiçun* (40) / *bacee* (67), *derakocielaric* (83) egingoa da ohitura nagusia; bokal arteko <z> bakanez aitzinxeago mintzatuko gara. Ordea, hitzaren eta silabaren bukaeran dakar liburuak <zz>: -az, -ez, -iz, -oz eta -uz sekuentiak dakartza: *çazpi* (277), *ezthiago* (88), *gaizto* (101), *bozkario* (412), *uzkaltceco* (414) silabaren hondarrean eta *bortzchaz* (19), *batez* (42), *noiz* (255) & *eroriz* (42), *oroz* (253), *aitcinatuz* (19), berriz, hitz bukaeran. Hanelako bukaera bati atzizkia eranstea, <za> gerta daiteke: *thiraza* (46), baina salbuespenak dira hanelakoak; bokal artean <z> agertzeko beste aukera bat liburuan marratxoaz egiten den erabilera nasaia da: atzizkia lotzean usu ageri dira *luçaz-ago* (89) erako adibideak, baina ondoko azpiataletan aztertuko ditugu hauek.

Igorzkari apikariaren kasuan hitz hasieran <s> ageri da: *sartzceco* (18), *sendothia* (17), *sinhex* (74), *soguin* (89), *sukar* (17). Ordea, bokal arteko igurzkari apikaria gehienik bikoitza da, frantsesaren ohituren arabera: *aussarki* (196), *baliossenaren* (350), *becatorossen* (335), *bessarcatceco* (216), *desseiten* (262), *desenkussaric* (297), *desirrian* (277), *dessolathia* (223), *deussetan* (275), *gosse* (196), *hassi* (259), *ikussi* (292, 347), *jassailia* (261) & *jassaithia* (298), *naussi* (350, 291), *necessario* (262), *osso* (217), *passionen* (285), *pressencia* (351), *pressundei* (348), *urossa* (348) & *urossitate* (350), *us-sustathiac* (289). Bakan dira kontsonante ondoko *herssa* (105) & *hersatu* (97) & *hersatcen* (292) erako digrafoak, hamahiru adibide zenbatu ditugu eta hitz honen adibideetan ageri dira beti. Ez dago, bestalde, <nss> edo <lss> erako idazkerarik.

Bokal arteko igurzkari apikaria bakun idaztekotan, orduan <ʃ> egiten da, s luzea deitu ohi dena: *Caʃius* (423), *deʃir* (150), *kaʃic* (42, 214) & *kaʃi* (414), *ocaʃione-tan* (80), *preʃenciaren* (87). Ezagun du hitz horiek euskalaz mailegu direla eta ahostun ahoskatzen direla bokal arteko txistukari horiek egun frantsesez. Dena den, hanelako adibideak bakan dira liburuan, bokalen artean <ʃ> luze hau gehienetan bikoitzurik ageri da: *auʃʃartcia* (257), *deʃʃeinhian* (151), *iheʃʃiz* (257), *pauʃʃia* (256), *poʃʃedithien* (257), *Thomaʃʃec* (277). Silabaren bukaeran ere bada ʃ luze hau, baina bakuna da: *ikuʃʃten* (392), *iʃpiritu* (392), *goʃʃta* (173). Ezaguna denez,

hitzaren bukaeran ez dago <ʃ>-rik, baina hitzaren hasieran baliatzen da: *ſalbatceco* (172), *ſarthu* (393), *ſaxu* (392), *ſegur* (99).

Mugatzalea edo kasu atzizkia harturik bokal artean <ss> baliatzen den hitz batzuen kasuan —*baliossez* (11), *becatorossaren* (71), *miraculossa* (99), *ppenossac* (175), *prootzchossena* (77), *urossac* (17)—, mugatzalerik gabe hitz bukaerako txistukaria <z> idazten da *Pratica-n*, ez <s>: *balioz* (281), *becatoroz* (275), *miraculoz* (294), *ppenoz* (350), *prootzchoz* (288), *uroz* (259); baita hitzaren barreneko baina lexema mugako *dezohoriac* (285) adibidea ere. Halarik ere, badira -s bakan batzuk: *balios* (361, 374), *misterios* (295), *prootzchos* (44, 380, 381, 425).

Igurzkari sabaiaurrekoa <ch> grafiak ordezkatzen du: *achouriaren* (221), *chahatu* (337), *charmagarri* (348), *chede* (347), *cherka* (347), *chila* (280), *choco* (274), *choilki* (337), *chorte tristhia* (280), *chuchen* (29), *churi* (280), *ichilic* (285), *lachatu* (288), *merechi* (198), *puchulu* (349)...

Ez da testuan joera etimologiazalerik falta: *examinatcen* (290), *exempluz* (257), *exortaçale* (291), *explicatu* (196), *erreflexione* (196) & *reflexione* (281), *proximuac* (288).

#### 2.1.4.7.2. <s> eta <z> arteko nahasketa

Liburuan nahasketa nabarmena dago txistukari igurzkarietan, baina Ipar Euskal Herriko ekialdeko idazkietan hau ez da harritzeko gauza. Esate batera, Ane Loidik dakarrenez, *Sainta Catherina* pastoralaren eskuizkribuetan ere bada nahasketa txistukari igurzkarietan (1996: 511).

Badakigu euskal fonema lepokaria frantses ortografian <s> grafemak ordezkatu ohi duela, *Elissalde* deituran, esaterako. Bestalde, inguruko erromantzecan bezala, silabaren eta hitzaren bukaeran bakan ibiltzen da <z> grafema frantsesetan eta aldiz, ausarki ezarri ohi da <s> (Mounole & Gómez 2012); esate batera, adibide honetan anbiquotasuna eta nahasmena sumatzen dira: *liçatekeenas gueroz* (14); eta bestalde, *gaiski* (20, 23...) & *gaizki* (39, 40...) bitasunak ere anbiquotasuna dakar. Honek guziak eta liburuko beste arazo espezifiko batzuek nahasmen handia eragin dute txistukarietan.

*Pratica*-ko kasurik aipagarriena <z> grafiak /s/ fonema ordezkatzea da. Esate batera, *guisa* hiru aldiz ageri da (107, 107, 191), baina *guiza* laurogeita sei aldiz; *aisa* bi aldiz dugu (289, 356), baina *aiza* zortzi aldiz: (89, 123, 185, 248, 249, 260, 268, 273). Baliteke liburuak <z> eta <s> artean dakaren nahasketaren oinarrian, txistukari igurzkari apikari eta lepokari ahostunak bereizteko itzultzaleak baliatu sistema egotea, ala bestela, bokal arteko txistukari igurzkari apikari ahostuna eta ahoskabea bereizi nahia; batzuk eta besteak bereizteko itzultzaleak baliatu sistemak inprimategian noraeza eragin izana ere izan daiteke arrazoia; ez jakin. Interpretazio bata nahiz bestea zail dira frogatzen, non eta ez dugun liburuaren eskuizkribua ikusten.

Maiztasun kontuak aipatuko ez baditugu ere, hona gertakari grafiko hau ageri den hitz sail bat: *aisa* (356) / *aiza* (89) & *aizatarçun* (185), *arrapostu* (363) / *arrapoxtu* (334), *arras* (46) / *arrasz* (223, 344), *aski* (45) / *azki* (332, 339), *becatorossaren* (71) / *becatoroz* (199), *bestalde* (85) / *beztalde* (220), *besten daco* (436) / *bezten daco* (235), *des-ohoratu* (257) / *dezohore* (138, 166, 173, 285, 311, 318) & *dezzohore* (183), *desolathia* (117) / *dezolatcen* (322), *destarrusco* (337) / *deztarru* (348), *deussere* (26) / *deuz*

*ere* (313) & *deuz-zen ere* (297), *erakasten* (83) / *erakazteco* (195), *eskasdura* (431) / *ezkaz* (346) & *eskaçac* (432), *eskent cite* (151) / *ezkenia* (217), *esker* (105, 176...) / *ezker* (181, 207...), *esku* (86) / *ezku* (282) & *ezcutic* (328) & *ezkutic* (268), *esparança* (59, 101, 127...) / *ezparança* (48, 204, 207, 292) & *ezparaincha* (57), *estakuru* (390) / *eztacururic* (195), *estali* (415) / *eztaliric* (273), *estatu* (14) / *eztatu* (287), *esteka* (61) / *ezteka* (338) & *eztekuric* (334), *estimatu* (9) / *eztimatu* (39), *estonatu* (309) / *eztonaturic* (348), *guisa* (107, 191) / *guiza* (12, 33...), *gustu* (134) / *guztu* (336), *hassi* (167) & *hasten* (132) / *haz* (279) & *hazten* (259, 336), *jeüsten* (99) / *geüzten* (254), *ihardesten* (386) / *ihardezten* (223), *ihessi* (315, 320) / *ihex* (41, 220, 409, 444), *ikassi* (114) / *ikaz* (259), *ikussi* (17) / *ikuz onduan* (446), *kassi* (137) / *kazi* (347, 413), *kasu* (396) & *kassu* (442) / *kazu* (388) & *cazu* (147, 185, 389), *laster* (16) / *lazter* (223), *mesfida* (376) / *mezfida* (294), *mesperetchatu* (390) / *mezperetzchagarri* (276), *nahasten* (425) / *nahazten* (260) & *nahazteria* (271), *oneski* (348) / *onezki* (272), *ostatceria* (204) / *oztatura* (145), *osto* (280) / *ozto* (290), *prestatu* (384) / *prezta cite* (334), *tresoraren* (279) / *trezor* (11, 99, 156), *uste* (144) / *uzte* (275, 281, 428), *ez-us-thian* (100) / *ez-uzthian* (45), *ustelduraren* (280) / *ouztelari* (280).

Aldiz, liburuak hainbat hitz dakartza aldaera <s>-dunik gabe; “arrabaskatu”, “bestorduz”, “endeski”, “eskaler”, “eskenu”, “hasper”, “hastapen” edo “sos”, hitzotan <z> grafia baizik ez dakar: *arrabazkatu* (322), *beztorduz* (223), *endezki* (272), *ezkalerretan* (298), *ezkenia* (217), *hazperrez* (347), *haztapen* (336), *soz* (1); cf. *ezkarlethazco* (224) ere.

Arestian aipatu dugu <s> beharko lukeena hitz bukaeran inoiz <z> ager daitekeela, baina honelakoetan, atzizkia hartzean <ss> gertatzen da bokalaren aitzinean: *Mathiaz* (304) → *Mathiassen* (304); *balioz* (3) → *baliossenac* (48).

<s> grafiak /z/ fonema ordezkatzea, berriz, silaba eta hitz bukaeran gertatzen da, herskari aitzineko ingurunean, euskal fonologian ohi denez. Egun Baxenabarren hitzok igurzkari lepokaria daramatenez, pentsa daiteke honen eragilea grafiengatik nahasketa dela, <s> eta <z> arteko txandaketa, eta ez neutralizazio fonikoa. Baliteke ez izatea zinezko ahoskera islatzen duen lekukotasuna, baina ez dakigu ziurtasunetan; dakiguna da frantses grafian <zp>, <zt> eta <zk> ezohiko direla: *ahispa* (272) / \*\*“*ahizpa*”, *ahospe* (422) / *ahozpe* (238), *askar* (220) / *azkar* (49), *baska* (280) / *bazkaritera* (258), *bestituric* (272) / *arrabeztitcian* (226), *biskitarthian* (276) / *bizkitarthian* (245), *emaste* (123) / *emazte* (143), *esten ‘ez den’* (281) / *ezten* (43), *gaiski* (310) / *gaizki* (313), *gueisteçu ‘gaitezke’* (281) / \*\*“*geiztezu*”, *ikusten ‘ikuzten’* (195) / *ikuzten* (232). Arazotsuagoa da adizkiaren bukaeran txistukari afrikatua egon daitekeen beste hau: *ezpalis* (284) / *ezpaliz* (134).

Ane Loidik XIX. mendeko *Sainta Catherina* pastoralaren bi eskuzkribuetan joera bera sumatu du (1996: 511); hona adibide batzuk: *astala* (560), *astaparequila* (558), *bostariouaren* (535), *ciauristeie* (540), *couaste* (589), *estignaigu ‘ez dinagu’* (545), *gaste* (563), *gastelialadrano* (565), *moustuco* (575). Aldiz, aurkako kasurik ia ez dago pastoral honetan: *ezquele ‘eskalea’* (530) bakarra da bere sailean.

Hitzaren bukaeran morfema instrumentalaren kasuan ere <s> dugu: *aldis* (273), *bicias* (86), *damus* (309), *demboras* (63), *medios* (96), *Jesu-Christos* (178), *ondos ondo* (304); baita, esate batera, *nois* (258) galdeztailean ere. Nolanahi ere den, ez gara esaten ari liburu honetan instrumentaleko morfema guziak <s> grafiaren bidez irudikatzen direnik: *harthuz* (328), *herioz* (309), *hetçaz* (328), *lekuz* (327), *oibuz* (317)

ditugu liburuan. Oroit, bestalde, herskaria daraman genitibo lokatiboaren aitzinean joan ohi dela instrumentaleko morfema: *devocionesco* (139), *laudoriosco* (178), *seindutarçunesco* (4, 139); eta ikus *eguiaski* (281) edota *arhinski* (125) / *arhinzki* (137) txandaketa grafikoa moduzkoetan ere.

Piarres Lafittek aspaldi idatzi hitzak ditugu honakoak: “-*tatu* aintzinean bereziki, Xuberoan eta Baxenabarren, *saristatu*, *airestatu*, *harristatu*, *begistatu*, erraiten baita, *sariztatu*, *airezttatu*, *harriztatu*, *begiztatu* formen orde” (1981: 404). Jose Antonio Mujikak dioenez (1997: 615), zubereraz instrumentalaren *z* lepokaria *s* bilakatzea, *t* herskariaren aitzinean gertatzen da, baina *k* herskariaren aitzinean ez; *Sainta Cathérina* pastoraleko adibideek erakusten dutenez, hain maila jasorik ez duten idazkietan gerta daiteke *k*-ren aitzinean ere: *barascaitara* (535), *biskarila* (534), *ciscuçu* (580), *çaquisquie* (599), *hascuria ‘hazkurria’* (516); *eskerety ‘ezkerretik’* (518) adibidean txistukari sabaiaurrekoea ezkutatu dela uste dugu.

#### 2.1.4.7.3. <z> bokal artean

Bokal artean <z>-k txistukari igurzkari apikaria eta lepokaria ordezka ditzake *Pratica-n*, baina baita, bestalde, bokalarteko lepokari ahostuna ere. Ondotik ñiabardura batzuk eginen ditugu Baxenabarre ekialdeko egungo egoeraz, baina ez dago argi zein errealitate zegoen eskualde horretan liburua idatzi zen garaian; egungo mintzoan bederen, ez dago ia bokalarteko igurzkari lepokari ahostunik. Liburu honetan <z> grafiak honako distribuzioa du, aintzat hartuz batzuetan <s>-rekiko txandaketan ageri dela:

Izen arruntetan, gehienik *des-* aurritzkan, zeinak frantsesez txistukari ahostuna baitarama: *dezarau* (122) / *desarau* (388, 398) & *desaraukuetara* (101), *dezeguiten* (47) —grafia bikoitzurik: *dezzeguiten* (47)—, *dezentenamendu* (117), *dezohore* (311, 318) & *dezohoriac* (285) & *dezohoren* (138), *dezolatcen* (322) / *desolacione* (117) & *desolathia* (117), *dioceza* (450); hurranen adibidean marratxoduna da: *dez-ohore* (173) & *dez-ohoriac* (166); marratxodunak dira *ez-* aurritzka duten beste hauek ere: *ez-achol* (185), *ez-uzthian* (45) & *ez-usthian* (100). Txistukaria bokal artean daramate, baina marratxoa idatzi da atzikki konparatibo hauetan: *fithetz-ago* (362), *langeroz-ago* (275), *luçaz-ago* (89), *tenorez-ago* (223), *uroz-ago* (342). Honakoan txistukaria morfemaren mugan kokaturik dago: *thiraza* (46).

Beste adibide hauetan mailegu hitza bi eratara idatzi da liburuan, baina anitez ere erabilera ugariagoa duen <x> grafiarekin txandaketan dago <z>: *ezaminaren* (133) / *examinaren* (49), *hazarrian* (91) / *haxarria* (19), *prozimuari* (447) & *prozimuaz* (446) / *proximua* (133), *reflezione* (85) / *reflexione* (110) & *erreflexione* (57). Hurranen adibide honetan ez dakigu hutsa dagoen ala -*zu* atzikzia den: *urguluzia* (278) / *urguluxu* (11); ez diogu *urguluzia-ri* ezta arrestiko lau <z> horiei egiantzekotasun foniko handirik sumatzen. Liburuan hogeい aldiiz ageri da <urguluxu> eta behin baizik ez <urguluzia>. Beharbada *ourguluz* (127) & *urguluz* (260) & *urguluzco* (15, 295) idazkerak eragin du *urguluzia* aldaera grafikoa, ala inprimategian du sorrera; rebat, *Charlemagne* pastoralak ere <urguluxu> aldaera dakar (181).

Maileguzko izen bereziotan ere <z> dugu; izan ere, frantsesez ahoskera ahostuna dute: *Azariasssec* (313), *Elizabethec* (198), *Elizea* (221), *Ezechiasen* (176) —baita *Essekiassec* (27) ere—, *Ezechiel* (289) & *Ezekiel* (71), *Izabelac* (251), *Jezabelen* (340), *Zozima* (98). Izen hauen idazkeran nabarmen dago frantsesaren ohitura grafikoa; ho-

nako toponimook ere <z> daramate: *Izeraeleco* (373), *Naziançakuac* (74), baina ez da kasu bera *Borgiazekuari* (147) adibidea; honetan txistukaria hitzaren mugan dago.

#### 2.1.4.7.4. Txistukari igurzkari ahostunak

Gauza jakina da ekialdeko Euskal Herrian hainbat hitzetan bokalarteko kokagunean txistukari ahostunak baliatzen direla. Hauetarik batzuk atzo goizeko mailegu berriak dira, frantsesetik etorri berriak, baina badira beste hitz batzuk, euskal jatorrikoak edo mailegu zaharrak izanik, bokalarteko txistukari ahostuna dutenak. Zuberoako euskaran nabarmena da hori eta aspalditik dago honen lekukotasuna: Belapeirek, esate batera, <s> eta <z> idazten zituen bokalarteko txistukari igurzkari ahostun apikari eta lepokariak; ahoskabeetarako, berriz, <ss> eta <c, ç> zerabiltzan; cf. Agirre (2001a). Pastoralak idaztean edo kopiatzean izan diren ohitura grafikoak azterketak ere egin dira bakan batzuk (Oihartzabal 1991, Loidi 2004).

Ekialdeko Euskal Herriko den gure testuan, bokalarteko igurzkari apikari eta lepokari batzuk bederen ahostunak izatea itxaron genezake eta jakina, baita grafiaren bidez beren isla aurkitu ahal izatea ere. Nolazpait, itxaron genezake gure testuan ere, lehen eta orain Zuberoan eta ingurumarian bokalartean ahostunak diren txistukari horien adibide batzuk grafikoki isolaturik agertzea. Salbuespenak salbuespen liburu honetako ohiturak grafiari dagokionez frantsesarenak direnez, <ss> / <c & ç> letrek bokalarteko ahoskera ahoskabea adieraziko lukete igurzkari apikari eta lepokarietarako, eta <s> / <z> letrek, berriz, bokalarteko ahoskera ahostuna igurzkari apikari eta lepokarietarako. Sarri ikusiko dugu gure liburuan kontuak hori baino anitez konplexuago direla eta “grafia → hotsa” nahiz “grafia → fonema” egokitzapena ez dela hain unibokoa. Labur beharrez esan genezake:

- bokalarteko txistukari igurzkarien ahostun / ahoskabe izaerarekiko, gure liburuko grafia hein batez anbiguoa dela
- balirudike bokalarteko igurzkari lepokari ahostuna izen berezi arrotz batzuetan baizik ez dela islatzen <z>-ren bidez
- liburuak bizpahiru hitzetan igurzkari apikari ahostuna islatzen duke <z> nahiz <s> grafien bidez.

Anbiguotasuna ageri da hainbat adibidetan eta ez dakigu txistukaria ahoskabea ala ahostuna den:

1. *abisu* (140, 155) / *abisu* (369, 395, 441) & *abisetaco* (202); egun Zuberoan [aʃiña] ahostun ahoskatzen da
2. *baliossez* (11) / *baliozac* (123) & *balioz* (3); baita marratxoduna ere: *balioz-ago* (241). Bestalde, liburuak *balios-ago* (193, 437) & *balios-agoric* (95) erakoak dakartzza. Larrasketek Zuberoan <baliúss> dakar mugagabeen, ahoskabe, baina egun Zuberoan *baliú/z/a* ahostun ahoskatzen da
3. *desir* (34, 36) & *dessira* (34) & *dessirian* (277) / *desir* (17, 18, 19, 20...) & *desiraren* (11, 22...) & *desiren* (10...). Liburuan anitez ugariago ageri da grafia bakuna bikoitza baino; bestalde, Larrasketek txistukari hau ahostun dakar
4. *deussec* (16) / *deusec* (163). Larrasketek ahostun dakar eta egun hala da ekialdeko Baxenabarren

5. *kassi* (137) / *kasic* (42, 214) & *kasi* (414) & *kazi* (41). Larrasketek hitz hau ahostun dakar Zuberoan; Arberoako Armendaritzen, Amikuzeko Behauzen eta Zuberoako Arüe eta Sarrikotapean *kasik* entzun dugu guk, apikari ahoskabea
6. *cassu* (12) & *kassietan* (368) / *cazu* (147, 185, 389) & *kazu* (388). Larrasketek ahoskabe dakar txistukaria, baina egun Zuberoan ahostun egiten da
7. *tressorac* (105) & *tressorra* (156) & *tressorac* (400) & *tressorrez* (204) / *tresor* (362) & *tresoren* (152) & *tresoraren* (279) & *tresorrec* (437) / *trezor* (11)

#### 2.1.4.7.5. Bokalarteko igurzkari apikari ahostuna Euskal Herriko ekialdean

Baxenabarreko ekialdean dauden Amikuze eta Arberoa ibarretako euskaran, egungo hitz batzuetan bokalarteko txistukari igurzkari apikariak ahostunak dira; gauza jakina da Zuberoan ere honelaxe dela.<sup>6</sup>

Guk bildu datuetan badira *Pratica*-ko izen batzuk, egun bederen Amikuzen bokalartean txistukari apikaria dutenak: *ai[ž]a* & *ai[ž]e*, *au[ž]arki*, *deu[ž]e(re)*, *gi[ž]a*; morfemaren mugan *so[ž]a*. Badira hitz gehiago Amikuzen bokalarteko txistukari igurzkari apikaria egun ahostuna dutenak, baina ezin alderatuko ditugu, ez baitira gure liburuan ageri; hona zein diren: *gi[ž]ala*, *ku[ž]i*, *pa[ž]atü*, *u[ž]aia*; egia esan, *Pratica-n usainxa* dugu, <ussaincha> idatzirik. Beste batzuk mailegu berriak dira eta ez dira *Pratica-n* ageri.

Lehenagoko atal batean adierazi dugunez, 1782ko itzulpen liburuan igurzkari apikari eta lepokari ahoskabeen agerpen grafikoa ez da unibokoa, errealityearrekoiko ez da leiala, izan ere, /s/ eta /z/ elkarrekin nahas daitezke. Apikari eta lepokari ahostunei dagokienez ere gisa berean gertatzen da, ez dago guztizko bereizketa sistematikorik. Ahoskabeetan bezala, badira liburu honetan <z>-z emanik dauden igurzkari apikari itxuraz ahostunak eta badira, bestalde, itxuraz apikari diren ahostunak bokal artean, batzuetan <ss> eta bestetan <s> bidez idatzia. Guretzat interes berezikoak diren *ai[ž]a* & *ai[ž]e*, *au[ž]arki*, *deu[ž]ere*, *gi[ž]a*, *so[ž]a* hitzei dagokienez, honako xehetasunak aipa daitezke:

*Aise* & *aisa* eta *gisa* hitzetan, dela <s> grafia baliaturik, dela <z> idatzirik, iduri luke liburuak bokalarteko txistukari igurzkari apikaria ahostun zela adierazten duela: *aisa* (289, 356) & *aiza* (89, 123, 248...) & *aizatarçun* (185); ez dago *aissa*-rik batere.

<sup>6</sup> Egungo Amikuzen entzun ditugunak dira hauek: Behauzen *batu[ž]a*; Bithiriñan *eleva[ž]ak*, *karro[ž]a*, *kla[ž]eak*, *kri[ž]antema*, *li[ž]atzea*; Gamuen *oka[ž]ionia*, *Pai[ž]eat*, *pa[ž]atü*; Ilharren *batu[ž]ak*; Laberten *pa[ž]atü*, *xofa[ž]a*; Martxuetan *batü[ž]aik*; Zohotan *ka[ž]a*. Arberoa ibarreko Armendaritzen bildu ditugu: *ai[ž]e*, *ai[ž]etasun*, *ai[ž]ita*, *au[ž]arki*, *gi[ž]ala*; beste hauek Mehainekoak dira: *ai[ž]e*, *espo[ž]atu*, *nau[ž]i*; mailegu berrietan, berriz, *engi[ž]atzen*. Zuberoan entzun ditugu honako hauek: Arüen *aangle[ž]a*, *arne[ž]ak*, *eska[ž]ago*, *ke[ž]a*, *maga[ž]i*, *Pai[ž]en*; Domintxainen *biarne[ž]a*; Oihergin *ani[ž]eta*, *ga[ž]na*; Olhaibin *arra[ž]atüik*, *batü[ž]aen*, *biarne[ž]a*, *bu[ž]iak*, *de[ž]eiñatia*, *de[ž]ertia*, *ku[ž]ína*, *maga[ž]in*, *Pai[ž]etik*, *penu[ž]oo*; Pagolan *anzila[ž]a*, *erreu[ž]ituko*, *espo[ž]atzen* & *espu[ž]atü*, *frantse[ž]ez*, *ga[ž]aikin*, *ga[ž]na*, *karro[ž]a*, *kla[ž]a*, *lanyeo[ž]a*, *marzelle[ž]a*, *minie[ž]e* & *minia[ž]e*, *oka[ž]ionia*, *Pai[ž]e*, *permiz[ž]a*, *proge[ž]ionia*, *ro[ž]aen*, *sa[ž]u*, *ü[ž]inalat*; Sarrikotapean *arro[ž]atzeko*, *biarne[ž]a*, *bla[ž]atuiik* & *bla[ž]atü*, *de[ž]ertia*, *ke[ž]a*, *maga[ž]ia*, *Lexo[ž]en*, *Pai[ž]eat*, *pa[ž]atü*, *phenü[ž]ena*, *pre[ž]uner*; Ündüreinen: *biarne[ž]eta*, *gi[ž]u*, *maga[ž]ia*, *pre[ž]ontegin*, *probe[ž]ionen*, *sa[ž]u*; Urdiñarben: *a[ž]uantzaik*, *oka[ž]ione*, *Pai[ž]eat*, *sa[ž]uin* & *sa[ž]ju*.

Berebat, *aisekiago* (414) ere badakar eta ez dago *aisse-rik*. Halaber, *guisa* (107) & *guisaz* (107, 191) dugu eta baita *guiza* (12, 33, 37...) & *guizaz* (36, 41...) & *guizetara* (312) ere, baina ez dago *guissa-rik* batere liburuan. *Ausarki* hitza dela eta, grafiak ez du islatzen ahoskera ahostunik: *aussarki* (29, 105, 154, 157, 196) & *aussarkiago* (61).

*Deus* hitzean ez dago koherentziariak testuko grafian. Honako grafiek ahoskera ahoskabea zuela iradokitzen dute: *deussec* (16, 31, 168), *deussez* (30), *deussen* (204), *deussetan* (275, 316), *deusic* (454, Akizeko bikario nagusi d'Abense-ren gutunean). Hurranen adibideetan <s> bakuna ageri da: *deusec* (163, 164, 177, 412), *deusen* (443). Beste batzuetan hitza zatiturik dago, argitasuna eskaintzeko aukerarik gabe: *deus-etan* (363), *ezdeus-egatic* (433). Honako beste adibideok beste grafiarekin ditugu, eta beharbada idazkera honek apikariaren ahoskera ahostuna adieraz lezake: *deuzere* (9, 14, 75, 80, 98), *deuzec* (72, 97), *deuzen* (272), *deuzetan* (134), *ezdeuza* (283). Bikoituztik ageri da honakoan: *deuzzere* (34). Beste idazkera hauetan ezin atera daiteke argitasunik: *deuz eztela* (16), *deuz eguin* (26), *deuz ere* (90); *deuz-ere* (71, 76, 91, 92, 131), *ezdeuz-etara* (75).

*Sos* hitza *soz* idatzi da (1); behin baizik ez da ageri eta gainera, mugatzailerik gabe: ez daiteke jakin bokalartean nola agertuko zatekeen; baliteke <-z> horrek ahostun-suna islatzea.

Liburuan ageri diren honako bizpalau hitzetan, berriz, igurzkari apikari ahoskabea entzun dugu egungo Amikuzen: *esposatu* & *esposati*, *gisu*, *usatü*, *usu*. Egungo Zuberoan bildu ditugun datuetan, hitz horietan ahostun ahoskatzen da igurzkari apikari hori. Hitz hauek berek gure liburuan itxuraz igurzkari apikari ahoskabeen grafia daramate: *espossatcer* (408) —eta baita *espossaren* (82), *espossareki* (214) eta *espossari* (374) ere, baina *esposatu* (373) aldaerarekin batean—, *guissu* (246), *ussatu* (16) & *us-satcen* (8), *ussu* (40).

Gure liburuko grafia “frantsesa” lagun, bokalarteko txistukari igurzkari apikari gehienak Baxenabarreko ekialdeko orduko euskaran ahoskabe zirela pentsa daiteke, txistukaria morfemaren barrenean kokaturik dagoen adibideok hori iradokitzen dute: *asse* (23) & *asseco* (29), *asserre* (42), *aussarki* (29), *bessarkatcen* (19), *bessuaren* (27), *confessatuco* (50), *deseinhhic* (26) —Charlemagne pastoralean *desseing* nahiz *desseignaren* & *deseignin* grafiak ditugu (Oihartzabal 1991: 157, 181, 416)—, *erossieren* (6), *erresolucione* (28), *erressumaz* (11), *gosse* (18) & *gossia* (17), *hassi* (7), *ikussi* (17), *itxoussi* (39), *jassailia* (261) & *jassanen* (22), *kaussitu* (7), *laussengatcen* (40), *na-bassitcen* (42), *naussiaren* (15), *necessario* (8), *osso* (19) & *ossoki* (26), *oussustamendu* (29), *paussuric* (35) & *paussia* (12), *permissionareki* (1), *poussatuz* (19). Hona, berriz, izen berezietan: *Cassien* (39), *Essekiassec* (27), *Rodriguesen* (3). Beste adibide hauetan txistukaria morfemaren mugan dago: *arrangurossa* (15), *deussec* (17), *francesaren* (4) & *francesian* (5), *langerossago* (41), *protochossa* (83, 141) & *probetzchossenac* (6) & *protochossooric* (80), *urossac* (17).

#### 2.1.4.7.6. Bokalarteko igurzkari lepokari ahostuna Euskal Herriko ekialdean

Egungo Zuberoan aski baliatua da, eta ez mailegu berrietan soilik. Sandhietan, hitzaren bukaerako instrumentaleko atzizkiari ondoko hitzaren hasieran bokala jarraitzen zaionean, lepokaria ahostuntzea guztiz arrunta da egun Xiberuan: *etxe[z]* *etxe* (Ainharbe), *eskü[z]* *ai* (Olhaibi), *üskaa[z]* *e bai* (Pagola), *ardi[z]* *edo urdez* (Sarriko-

tapea), *besteñe[z] edo* (Urdiñarbe). Bestalde, *ni[z]enez* ‘naizenez’ adibide ozena bildu dugu Pagolan. Mailegu zaharrak diren hitz batzuetan ere ageri da: *ai[z]ina* (Ündüreine), *bede[z]ia* ‘sendagilea’ (Ainharbe) & *bede[z]ik* (Oihergi) & *bede[z]i* (Sarrikotapea) & *bede[z]i* (Ündüreine), *me[z]inderra* ‘sendagilea’ (Arüe), *pla[z]er* (Pagola).

Gehienik egungo mailegu berrietan entzuten da: *atro[z]a* ‘artrosis’ (Pagola) & *artro[z]aikin* (Olhaibi), *de[z]erba* ‘otorduko hirugarren platera, postrea’ (Olhaibi), *ko[z]ina* ‘sukaldaritzako lana’ (Pagola) & *ko[z]inan* (Urdiñarbe), *le[z]on* ‘ikasgaia’ (Pagola), *li[z]iba* ‘lixiba’ (Olhaibi), *televi[z]ioneaikin* (Sarrikotapea), *u[z]inalat* ‘lantegirat’ (Pagola) & *ü[z]inan* (Arüe) & *u[z]inak* (Sarrikotapea), *virü[z]a* ‘virusa’ (Pagola), *[z]ona* ‘eskualdea’ (Pagola). Izen berezian *Dübo[z]entako* adibidea agertu zaigu Sarrikotapean.

Ekialdeko Baxenabarren igurzkari lepokari ahostunaren agerpen maiztasuna apala da Zuberoakoaren aldean. Inoizka adibide zenbaitetan sandhian gerta daiteke, baina ez arau gisa, salbuespenak dirudite: Amikuzen *e[z] in* ‘ez egin’ bildu dugu (Arberatze) eta Arberoa *ai [z]ian* ‘ari ziren’ (Armendaritze). Amikuzeko Behauzen *[z]afratu* hitzean hasieran agertu zaigu.<sup>7</sup> Amikuzen funtsean mailegu berrietan agertu zaigu guri: *Bidu[z]a* ibai izena era arrotzean ahoskaturik, dirudinez (Bithiriña), *ga[z]é* ‘gaseatutik’ (Bithiriña), *ko[z]inan* (Zohota), *la[z]erra* (Labetze).

#### 2.1.4.7.7. Txistukari afrikatuen azterketa

Inoiz txistukariaren ahoskera igurzkaria ala afrikatua den interpretatzeko liburuak usu grafia anbiguoa dakar; esate batera, *alchatu* (294) / *altchatcen* (296) txandaketa ikusirik, hitz horretako txistukaria liburua idatzi zen garaian afrikatua zela susma daitake eta antzera esan daitake hurranen lepokari hauez ere: *apalcenago* (284) / *apaltcen* (257), *guibelceco* (288) / *guibeltcen* (367), *guinçakeçu* (285) / *quintçakeçu* (319), *inçuthiaz* (297) / *intçun*<sup>8</sup> (350), *itçulcetic* (282) / *itçultcen* (314), *minçatu* (283) / *mintçatu* (205), *poroançaz* (288) / *poroantçaz* (392), *unci* (280) / *untci* (383). Dardarkari ondoan ere badira adibideak: *clarcen* (315) / *clartcen* (440), *iratçarcen* (208) / *iratçartcen* (81). Aldiz, *baguinça* (285) eta *esparança* (286) itemetan ez dago digraforik, ezta sudurkari ondoko txistukari sabaiaurrekoaren honako adibideotan ere: *comparancha* (280), *fidaincha* (196, 291), *mezfidaincharen* (293) & *mesfidaincha* (296), *poroancha* (276), *segurtaincharic* (287), *ussaincha* (290).

Lepokari afrikatua irudikatzeko beheko bokalean <tça> nagusi izanik ere —*citizen* (339), *itçalaren* (375), *beltçatcen* (362), *gutçaz* (343) —, baldintza berezietan bada <tza> zerbait, lexemaren mugan, esaterako: *beltzago* (284), *pitzaraztera* (205), *utzaraz* (16); desberdina da, esate batera, *hartzax* (73). Belarrarekin <tçu> egiten da: *itçulico* (373), *etçu* (369), *batçu* (373), ez dago <tzu>-rik batere eta <tzo> ere ez dago. Berebat, liburuan ez dago <tço> bat baizik: *antço* (236); adibide hori izan ezik, *minço* erakoak dira guztiak. Erdiko palatalean nagusi <tce> izanik ere —*baitcen* (373), *biltcen* (374)—, badira <tze> bakan batzuk: *hartzen* (16), *atzeco* (52), *seguitzera* (69), *bihotzetera* (sic, 425). Goiko bokal palatalarekin ere <tcı> egiten da liburuan —*utcı*

<sup>7</sup> *Antiokiako San Julian* pastorealeko (1770) <japartatcen> (98) adibidea gogora dakar —<çapartatren> (98) eran ere idatzia; <j-> horrek hots ahostuna adierazten zuela diosku Ane Loidik (2004: 21).

<sup>8</sup> Kasu hau ez da hain argia: liburuan bakarra da *intçun* eta ehun eta lau aldiz dakin *inçun* & *inçu-*.

(415), *etcienian* (376), *urruntcias* (376)—, baina hiru salbuespen daude: *gaitzi* (70), *cortzi* (465); *erakatzico* (77) adibidean iduri luke idazleak fonema apikaria zerabilela gogoan.

Hitz bukaeran <tz> egiten du liburuak beti: *abatz* (111), *garratz* (317), *gatz* (64), *ikatz* (137) / *fitetz* (374) / *anitz* (262), *bakoitz* (180), *bortitz* (18), *gaitz* (267), *gorpitz* (76), *haritz* (28), *hitz* (7), *pitz* (53), *sordeitz* (101) / *arrotz* (271), *bihotz* (289), *botz* (144), *erakarcekotz* (262), *guerocotz* (43), *hartakotz* (351), *hotz* (45) / *gorputz* (159), *utz* (363).

Grafia etimologiko-analogikoa dago aditz-izenotan: *egotzten* (397), *hotzten* (194), *pitzten* (259) & *pitztera* (123), baina baita *bortitzki-n* ere (417); bi kasutan adizki laguntzaileetan ageri da: *eztaitzteenac* (85), *estaitzteke* (392).

Ohi bezala afrikatu apikaria <>-k ordezkatzen du: *aberax* (61), *amenx* (199), *axian* ‘arratsean’ (298), *balxamu* (280), *dezcanxu* (297), *erakaxi* (258), *erhaux* (258), *exai* (284) & *exayez* (344), *garxuki* (346, 349) & *garxietan* (293), *haux* (258), *haxarre* (336), *haxetic* ‘hasieratik’ (261), *houx* (291), *ihardexi* (199, 349), *inxeatcen* (347) & *inxeatuco* (351) & *inxeu* (296), *jardirexico* (274), *karax* (350), *lexala* (275), *likixac* (221), *offenxatu* (285), *penxatcen* (261) & *penxamendu* (298), *saxu* (335), *sinhex* (197) & *sinhexi* (292), *unxa* (334, 350, 379), *urguluxu* (11, 267, 270, 272, 280, 283...). Zailxeago da *cenxu* (221) adibidean lehen eta bigarren txistukaria zerik ziren jakitea.

Adibide batzuetan <tx> digrafoa dago apikari afrikatua adierazteko: *boteretxias* (282), *hutxac* (265), *intxeatu* (196), *hautxi* (271) & *hautxiric* (348), *itxuskeria* (289) & *itxuski* (293), *jardiretx* (350), *letxala* (282), *lotxa* (334), *sordeitxago<sup>9</sup>* (284), *ihardetxi* (379).

Orrialde batzuetan bederen (378-9), afrikatu apikaria <tx> grafiak ordezkatu du: *gartzxia*, *likitzxen*, *sahetzxeco* eta liburuan bi aldiz ageri den *sahetzxa*; ez da ohikoa <tx> hau liburuan.

Sabaiaurrekoan ohiko <tch> dugu: *altcha* (22), *atchiki* (419), *etcherat* (351), *itchura* (423), *martchuaren* (455), *mesperetchu* (425), *peretchatcen* (35)...

Afrikatuetan grafia bikoiztea usu gertatzen da liburuan: *bihotzça* (292), *gorpitzça-ren* (216) / *bihotzcez* (256), *gortzcen* (4) / *egotzci* (292), *hitzcic* (257), *gaitzci* (269) / *batzçu* (78), *putzçu* (398); ez dago <tzço>-ren adibiderik. Sabaiurrekoen itxura zinez berezia da inoiz: *bortzchatcen* (7), *cerbitzchatcia* (11), *mesperetzchathia* (258), *orhitzchapena* (281) / *latzcheretaric* (397) / *cerbitzchian* (410) / *prootzchossa* (287) / *prootzchu* (380) / *mehatzchurekin* (444)...

#### 2.1.4.8. Herskariak

Jakina denez, ekialdeko Euskal Herriko mintzoetan herskari arruntak eta herskari hasperenduak ahoskatzen dira, baina idazkietan ez dira beti behar bezala bereizten edo islatzen. Esate batera, *Sainta Catherina* pastoralean B eskuizkribuaren kopiatzai-

<sup>9</sup> Litekeena da hitz honetako <tx>-k afrikatu apikaria adieraztea, baina ez gaude ziur, hitz hau idazteko liburuan ageri diren erak ugari eta komplexuak baitira: *sordetzchena* (241) & *sordeitzchenera* (39) & *sordeitzchena* (443) / *sordeitz* (61, 101) & *sordeizten* (158) / *sordeitxago* (284) / *sordeixagoric* (436) & *sordeixaguez* (431).

leek gehiago markatzen dituzte kontsonante hasperenduak; batzuetan badirudi B2 eskuak ez dituela horrenbeste markatzen (Loidi 1996: 510).

#### 2.1.4.8.1. Biezpainkari ahoskabea

Oro har, hitzak *pa-*, *pe-*, *pi-*, *po-*, *pu-* segmentuen bidez hasten dira: *paussu* (53), *perechatu* (104), *piru* (118), *porrocatu* (322), *poulo* ‘pulo’ (280) & *puchulu* (110).

Bestalde <pp> digrafoa aipa daiteke, ia beti hitzaren hasieran ageri dena eta hein handian hasperentzea adierazten duena: gure liburuko *phartecate* & *phartitu* / *ppartitu* adibideak horixe salatuko luke. Gainera, *Pratica-ko pparte* (1) & *pparthe* (229), *pparteliant* (234), *ppartecatce* (8), *ppartitu* (223), *ppena* (33), *ppenagarri* (287) & *pphenagarriric* (133), *ppenaraci* (392), *ppenatu* (88), *ppenoz* (21), *pperetchatcen* (25), *pperedicatcera* (13), *pperedikien* (331), *ppezçatcen* (424) eta *ppistu* (443) & *ppizten* (412) adibideak, ekiadoko Euskal Herrian dagoen egoerarekin aldera ditzakegu: Larrazketen zubererazko hiztegian *pharte*, *pharti*, *phena*, *pherediku*, *pheretxatze*, *pheza* eta *phitz* aldaerak daude (1939), iradokitzenten digutenak *Pratica-ko <pp->* horiek *ph-*izateko aukera handia dutela.

Hitzaren barrenekoak dira honako hiruak: *appez* (329) —nagusiki *apez* dakar liburuak—, *approbacione* (1) eta *supplicioric* (159). Lehen <appez> horrek *apbez* ordezka lezakeela uste dugu; aldiz, beste bi hitzetako <pp> horrek liburuko grafia-anbi-quotasunaren maila gaitza adieraziko luke beste behin ere.

Bokal berdinaren artean <p> soila agertzea gauza arrunta da: *apaindu* (367), *apairu* (118) [Lrq *apáydi*], *apaiceatcen* (222) & *apaitceatcen* (221), *apal* (182) & *apaldu* (15), *aparancia* (388) & *aparencia* (431), *apariatu* (64), *apart* (128) & *apartatu* (169), *capa* (245) & *kapa* (447), *tapa* (445) & *tapatu* (39) & *thapatcen* (181) / *epel* (114), *eperic* (408) / *ipiztu* (400), *ipistatcen* (425) & *ipitztatcen* (243), *principiu* (19), *thipi* (40) / *gopor* (95), *propositcen* (186) / *scrupula* (169) & *scrupulos* (369).

Bokal desberdinaren artean ere ageri da: *apezpikia* (360), *epainchu* (45), *leporano* (360).

Itxaron zitekeenez hitzaren bukaeran ez dago <-p>, salbuespena dira *Seint Loup* (322) eta *Jop* (358).

Liburu bukaerako frantsesezko hitzak alde batera utzirik, laurogeita hamazazpi al-diz ageri da <ph> *Pratica-n*, baina aintzat hartu behar da liburuan bi <ph> mota daudela, herskari hasperendua irudikatzen dutenak eta ohiko “f”-ren ordain daudenak: lehenenean artean, *aitphatcera* (143), *aphurtho bat* (58), *pharti-aracitceco* (323), *pphenagarriric* (133), *pphenen* (141), *pherestuki* (141) adibideak ditugu. Ez dakigu zer esan *arraphosthiac* (15) adibideaz. Arestian aurkeztu dugu /f/ ordezkatzen duen <ph> grafia.

#### 2.1.4.8.2. Horzkari ahoskabea

Hona hitz hasierako jokabidea zein den: *tablan* (8), *talendiez* (141), *tapatu* (39), *tapiz-araci* (258) / *tenore* (54), *tentacione* (392) / *tici* ‘ditu’ zuketan (28) —ez dago *thici-rik*—, *tien* ‘dituen’ (59) —baina bakarra da, liburua *thien-ez* josirik dago—, *tin-dathiac* (237), *tinki* (338), *titulia* (454) / *tombala* ‘hilobira’ (327), *tormentac* (165) / *tu* ‘ditu’ (23), *tuçu* (17), *tukeçu* (20), *turco* (191).

Bokal berdinaren artean <t> soila agertzea gauza arrunta da: *ataku* (80), *bataren* (11), *espata* (423) & *ezpata* (27), *Gincoatan* (75), *holatan* (152), *lehiataca* (121), *mandatari*

(238), *manhata* (48), *milatan* (412), *ostatatcera* (204), *unxatan* (297) / *beteric* (184), *cirete* (219), *dieteçu* (50), *eternalki* (68), *ezpaitukete* (28), *goguaketetan* (252), *gossete* (307), *hilabetez* (132), *laketen* (135), *paretetan* (27), *segretenac* (421) / *baititugu* (10), *beheiti* (19), *citicin* (13), *erditic* (21), *garaitikuac* (12), *goiti* (19), *suergaraitico* (13), *sutheitic* (46) / *otoi* (145) & *otoitu* (9), *otoitzça* (55) / *dolutuco* (51), *eçagutu* (11), *frutu* (461), *hautu* (190), *kargutu* (389), *saxutu* (354), *urguluxutu* (401), *uxutu* (322).

Bokal desberdinaren artean ere berdin: *amorioti* (413), *beretan* (413), *çuten* (392), *hanbatenaz* (361).

Hitzaren bukaeran ere bada, baina bereziki morfologian ageri da; lexikoari dagozkionetan, berriz, maileguak ala onomatopeia diruditenak dira guztia: *bat* (1), *çunbat* (11), *guerorat* (17) / *derauciet* (182), *net* (22), *laket* (23), *portret* (27) / *cerbait* (132), *çunbait* (126), *dicit* (4), *perfeit* (132) / *derakot* (25), *devot* (202), *dirot* (103), *pot* (426) / *çaut* (42), *cioçut* (18), *derauçut* (126), *dut* (82), *eçagut* (36).

Etimologismoak eragin ditu honako <tt>-ak: *attakathiac* (356), *attencioneric* (90), *gutticia* (196), *lettra* (455), *promettatcen* (230); badu *attrobituric* (70) ere.

Ez dakigu honako bikoiztasuna zeri dagokion: *fittetz* (46).

Adibide ugari dago liburuan <t>-k h harturik, eta batzuk txandaketan, gainera: *iturburu* (71, 261, 263, 303, 406, 414, 424, 426, 431) / *ithurburu* (115, 181, 181, 279, 387, 388, 463); *lehiataca* (121, 244) & *lehiataka* (136) / *lehiathaka* (138); *segurtaincha* (36, 36, 36, 287, 362, 419) / *segurthaincha* (57, 419). Ane Loidik dioenez, Jean-Pierre Saffores kopiatzaileak ia erdi eta erdi idazten ditu *Sainta Catherina* pastoralean *batere* eta *bathere*, *bethi* eta *beti*, *verthute* eta *vertute* (1996: 510, 20. oh.).

Hona *Pratica*-ko aldaerak hitz hasieran <th> dutenak: *thaic gabe* (12) & *thaic gabe* (37), *thaka* (195), *thalentu* (13), *thapatcen* (181) / *themetan* (289), *therminho* (404) / *thinira* (114), *thiratcen* (127) & *thiraza* (46) / *thona* (194) & *thonatu* (386) / *thuzten* ‘dituzten’ (136). Hitz batean tt- sabaikaria adierazten du: *thipi* (40), *thipitu* (368), *gauça thipithuetan* (39).

Adizkiotan ez dakigu izkiriari zuenak zer zuen gogoan grafia hau erabiltzeko: *thie* ‘dizkiate’ (430) & *thiela* ‘dituela’ (63) & *thien* ‘dituen’ (58). Uste dugu adizki hasierako *tu* -> *ti*- palatalizazioa salatu nahiak eragin zuela hor <th> baliatzea.

Beste batzueta jatorrizko grafia arrotza edo etimologikoa dirudi dagoela: *Thaïs* (71), *theologia* (78), *theologien* (158), *Thessalonikakuer* (60), *thimiamma* (94), *Thomas* (20) & *Thomaz* (101).

Agerpen maiztasun gora du <th> digrafoak liburu honetan. Izan ere, bukaerako frantsesezko atala alde batera utzirik, euskaraz 3.347 aldiz ageri da, baina agerpen anitzasuna baino harrigarriago da ageri duen distribuzioa, euskaraz ohiz hots hasperendurik ageri ez den inguruneetan baitakusagu <th>; cf. Mitxelena (1977: 213, 421); hona adibide sail zinez adierazgarri bat:

- *e* eta *u* bokalen palatalizazio guneetan ausarki ageri da: *bertaithia* (44), *ide-kithia* (24), *içraithia* (221), *berthuthiaren* (12) & *bertuthian* (12), *karitathia* (240), *magnificathian* (23), *virginitathia* (222) / *becathiez* (36), *eztecathiac* (10), *mezperetchathiac* (26), *ispirithiaren* (45); adibideotarik batzueta hitzaren hirugarren edo laugarren silaban kokatzen da <th>, inoiz ezkerrean herskari ahoskabea duela eta behin ezkerrean herskari hasperendua duela
- hirugarren silaban doa hau ere, *n* ondotik: *abanthaïlha* (13)

- txistukari ondokoak ere ugari dira, baina egiazki, bokal palatalizazioa dute: *berhesthia* (8), *besthiac* (6), *emazthiari* (31), *ezuzthian* (45), *gazthiari* (19) / *arraphosthiac* (15); beste hauek bokal palatalizaziorik gabeak dira: *guzthia* (33), *behazthopatcen* (37), *guiristhinuen* (223)
- hitzaren hasieran *h*- dagoela: *harthuz* (49), *hazthio* (30); bigarren horrek txistukaria du aitzinean
- kasu atzizkietan, baina adibide bakan baizik ez dira: *gogotthic-ago* (381), *gorathic* (401), *huin-pethan* (426), *sacrathiethan* (153)
- eratorpen atzizkietan, baina ez da adibide bat baizik: *gincothiar* (5)
- bokal palatalizazioa jasan duten adizki laguntzaile batzueta: *cithien* (216) & *cithienac* (12), *guithien* (17) & *ezkithiela* (5), *thiela* (5) & *ezthiela* (12) & *thielacotz* (41)
- beste zenbait adizki laguntzaletan: *guithuztenian* (49), *thuztenian* (215, 216)
- baliteke batzuk analogiaz gertatu izana edo inprimategian sorturik, beharbada: *ezthea* (221), *ezthietę* (50), *ezthiauzkacie* (37); bokal palatalizazioa jasan duten *ezthiela* (12) edo *ezthien* (14) erako adibideek kutsaturik egon daitezke, izan ere, txistukariaren eraginez herskari ahostuna tinkatzen den ingurunean ez baita liburuan <h> ageri: *eztakiten* (4), *eztirela* (9), *eztute* (27).

Beste inguruneetakoak dira honako agerpenak:

- urkari baten ondotik: *arthian* (30), *arthio* (35), *bortha* (24), *porthian* (43); baita urkariaren ondotik datorrena aditz izena denean ere: *eçarthia* (21), *erorthia* (39), *itçurthiagatic* (50), *jarthia* (46)
- partizipioko *-tu* atzizkian aditz bisilabadunetan —*bathu* (145), *çaurthu* (163), *deithu* (352), *gorthu* (5), *harthu* (376), *sarthu* (141), *sorthu* (200)— eta bai txistukari ondotik ere: *pizthu* (375); hiru silabakoetan ere bai: *argithuz* (37), *barurthu* (394), *kaçathu* ‘kasatu’ (404), *otoithu* (327), *samurthu* (360); eta baita laugarrenean ere: *hazthiathuz* (170), *meditatthuz* (142), *practicathuz* (356).

#### 2.1.4.8.3. Belar ahoskabea

*Pratica-n* ez dago *que-* edo *qui-* sekuentziarik, bokal palatalekin *ke-* eta *ki-* da-kartza: *ke* (67), *kendu* (6), *kenhuric* (197), *kestione* (134), *kecharaci* (433) / *kia* ‘kea’ (94) & *kiac* (138), *kitoric* (25). Hitz arrotzeten ere berdin: *Kieni* (4), *Kintaval* (429), *Kirie-Eleison* (229). Bakarra da <que> liburuan eta izen propio batí dagokio: *Jaquez* (403); <qui> ere ia ez da ageri liburuan, *hobequi* (55) da adibide bakarra; <que> eta <qui> frantsesetx idatzia baimenetako hitzetan ageri dira, euskal testuan ez.

Oro har <k> eta <c> grafien arteko txandaketak dira aipagai, liburuan ez ziren bata eta bestea koherenziaz idatzi, ez dago hain garbi zertarako baliatu zen bakoitza. Horrek ez du esan nahi, hala ere, hitz batzuk beti grafia batarekin ala bestearrekin baliatu ez zituenik, edota hitz batzuk ia adibide guztietan grafia batarekin idatzi ez zituenik. Ez dakigu, bestalde, inprimategian deus berezirik gertatu ote zen ere.

Hurranen adibideek ezagun dute hitzaren hasierako bikoiztasuna: *kampoz* (123) / *campoco* (315), *kapa* (447) / *capa* (245), *karguric* (269) / *cargu* (252), *karreatcera* (50) / *carreatuco* (22), *kaussitu* (7) / *caussitcia* (304); hartara, *ka-* ez da falta liburuan, bereziki euskal hitz edo mailegu zaharretan; mailegu berriagoetan *ca-* da nagusi: *kal-*

*tekor* (89), *kambara* (143), *karax* ‘karats’ (33) & *karastarçuna* (125) / *calamitate* (307), *capitulu* (6).

Liburuan ez dago *ko-* ugari, *co-* nagusitzen da: *kordocatcen* (40), *koxia* ‘kutsua’ (33) / *cofessatu* (56), *colpaturic* (332), *colpu* (384), *complitu* (28), *consolu* (218), *content* (15), *contre* (380) & *contreco* (380), *costuma* (383); o bokalean ere badira bikoitzasun adibideak: *komenthu* (251) / *comenturat* (326), *koropilua* (301) / *coropilua* (10). Bi hitz baizik ez dira *ku-* sekuentziaz hasten: *kukurukian* (170), *kuntera* (358), gainerako adibide guztietan *cu-* ageri da: *cumplitcen* (329), *cundatu* (73) & *cundu* (70), *cu-rajoski* (384), *curiositatez* (348), *curutze* (147), *curucifica* (86); maileguak direlako, beharbada?

Hitzaren barrenean ere txandaketak ditugu: *bakar-* (132, 140, 180, 251, 272...) / *bacarra* (11) & *bacarrian* (11); *irakur-* (15, 29, 52, 116, 118, 170, 250, 311, 314, 319, 327, 348, 402, 411, 416, 429, 438) / *iracur-* (3, 4, 6, 8, 12, 17, 68, 190, 191, 201, 363, 377, 422). Hitzon grafia distribuzioak iradokiko luke liburua inprimatzean hitz hau emateko bolada desberdinak izan zirela; esate batera, 201-etik aitzinera <k> nagusitu zen “*irakur*” hitzean; *bacar* hitza, berriz, bi aldiz baizik ez da ageri liburu inprimatu, biak 11. orrialdean, gaineratekoak *bakar-* dira, baina honetatik zer ondorio atera ez da aise jakitea, ez baitakigu itzulpenaren eskuizkribuan gauzak nola zeuden.

Hainbat kasutan morfema mugatik harat doa txandaketa, atzizkietan ere gertatzen da, esate batera *-ka* / *-ca*: *aldiska* (380) / *aldisca* (186), *bederaka* (124, 162, 178, 188) / *bederaca* (54, 227, 235, 458), *hegaldaka* (137) / *hegaldaca* (238), *lehiataka* (136) & *lehiathaka* (138) / *lehiataca* (121, 244). Aldiz, honako besteotan ez dago *-ka*: *arrapostuca* (297), *atcimanca* (253), *gaindica* (194); ezta *hameca* (139) edo *marrasca* (335) hitzetan ere. Badira hala *-kotz* nola *-cotz* liburuan: *azkenekotz* (19), *dela-kotz* (19), *hartakotz* (21) / *celacotz* (17), *hartacotz* (11), *tucielacotz* (13).

Atzizki batzuetan ez dago txandaketarik, edota zinez bakan dago: etorkizuneko aldaeretan adibide guztiak *-tuco* dira, ez dago *-tuko* bat bera ere; halaber, denak *-ico* dira, bi baizik ez dira *-iko*: *atchikiko* (76), *idokiko* (146); ohart biek <k> daramatela aitzinean. Berebat, destinatiboko adibide guztiak *-rendaco* idatzi dira, bakarra da *-rendako*: *ororen dako* (407); moduzkoetan *-ki* idatzi dira guztiak, salbu adibide bat: *hobequi* (55). Soziatiboan “*-ki(n)*” dago: *berekin* (66), *çureki* (24), *elgarreki* (33), *Gin-coarekin* (29), *handireki* (13), *joaithiarekin* (123).

Hitzaren bukaeran ez dago *-ak*, *-ek*, *-ik*, *-ok* edo *-uk* bakar bat ere, denak <-c> dira: *içulçaliac* (3), *nihaurec* (4), *becic* (1), *aboroc* (6), *guc* (11).

Kultismoak dira <ch> idatzi diren izen berezi batzuk: *Christo* (10), *Ezechiel* (289).

Pentsa liteke *Pratica*-n herskari belar hasperendua irudikatzeko <k> grafia baliatu zela, baina kontuak ez dira hitz guztietan ongi ateratzen: *leku* & *lekia* adibideak agerpen anitz ditu <k>-z idatzirik eta liburuan ez dago “*lecu*”-rik edo “*lequia*”-rik batere. Larrasketi esker (1939), badakigu euskal ekialdean hitza *lekhü* ahoskatzen dela; beretan, ekialdean *kampo* egiten dela dakigu, hasperendu gabe eta liburuan *campo* 15 aldiz ageri da; hiru adibidetan dago <k>: *kampoz* (123, 258) & *kampoco* (262). Hazaz guztiz ere, liburuan ez dago “*kurutce*” bat bera ere, denak <curutce> ala <curuce> idatzi dira eta badakigu ekialdean *khurutze* & *khürütxe* egiten dela, hasperendurik, nahiz ordu hartako ekialdean ahoskera bat baino gehiago egotea ere litekeena den. Beharbada hitza latinetikakoa edo elizako tradiziokoa izateak eragin du beti <c> ager-

tzea, horregatik, liburu honetan <k> grafiak ahoskera hasperendua adieraz badezake ere, ñabardurak egin behar dira, ez da grafia unibokoa.

*Pratica*-n ia ez dago <kh>-rik, bi adibide bazik ez: *Khomenthian* (390), *ekhias* (429). Etxahunek *khumentiala* dakarrenez, bi adibideetan belar hasperendua dagoela pentsa daiteke. Grafita hau ibiltzea ez zen jokabide ezezaguna, emeki-emeki <kh> nagusituz etorri baitzen: Materre, Axular, Tartas, Zalgize, Belapeire... erabiltzaile ditugu (Mujika 2002: 183-4). 1793ko *Edipa* pastoralean ere halatsu da eta *Pratica*-k baino adibide gehiago dakar: *chakhur* (275), *ekhia* (284), *ikhousiren* (255) & *ikhouses* (260), *khaldú* (277), *lekhialat* (284), *ukhen* (273). Ez dakigu pastoral horretako hurranen bi adibideotan <kh> horrek herskari hasperendua leial islatzen ote duen: *deikhun* ‘digun’ (259), *urhatxkhal* (281); adizki laguntzaileek ez ohi dute hasperenik hartu. Bestalde, Larrasketek hasperenik gabe dakar -*kal* atzizkia (1939) eta gure adibidean txistukariaren ondoan dago, gainera.

Herskari belarrenen hasperena adierazteko *c* bikoitzta ere baliatu izan da, esaterako Harizmendik edo Pouvreauk dakarte eta horrela dator *Sainta Catherina* pastoralean ere: *accort*, *accordatu*, *occupationia*, *occasione*, *soccorri*, *leccu* (Loidi 1996: 510). Ez dirudi *Pratica*-k dakartzan <cc>-ak hasperena adierazteko direnik: *accion* (182), *affectione* (339), *affliccione* (321), *benediccione* (217), *imperfeccione* (37), *leccione* (298), *maradiccioniac* (315), *perfeccione* (3). Badugu, bestalde, *flacco* (51, 97, 198...) hitza, baina Larrasketek hasperenik gabe dakar; *flaccatcen* (100) ere bada *Pratica*-n. Etimologiak eragin ohiturari dagozkio *accusione* (390) & *accusatcen* (369) & *accusu* (390), *Ecclesiazticam* (38), *Juda Maccabea* (340), *occasione* (328), *occupacione* (389) & *occupacia* (389). Beren arrazoia dukete, bestalde, *Incarnacionia* (180) eta *maradiccatceco* (315) adibideek.

#### 2.1.4.8.4. Herskari ahostunak

Horzkarietan eta belarretan ez dago arazorik; ohiko *da*, *de*, *di*, *do* eta *du* edo *ad*, *ed*, *id*, *od* eta *ud* sekuentziak baliatzen dira horzkarietan; salbuespena da <dh> era, liburuau zortzi aldiz bazik ageri ez dena: *cundhia* (335), *dhei* (57), *dheia* (217), *dheituco* (57), *dhhoxaxu* (272), *dhoya* (395), *Nabucodonosorrec* (195), *sordhetzchena* (366).

Belarretan ez dago aipagai handirik: *gauçaren* (5) / *ecinago* (5) / *gouatcen* ‘goazen’ (219) & *gure* (220) ditugu bokal behekoarekin eta belarrekin; bokal palataletan, berriz, ohikoa dago: *legue* (221) / *beguiratceco* (221). Beste norabidean, *ag*, *eg*, *ig*, *og*, *ug* sekuentziak arazorik gabe ageri dira: *lagunt* (3), *egun* (14), *igurikiten* (25), *ogui* (143), *dugu* (396).

Ez da atzentzekoa hitzaren hasieran nahiz barrenean badirela <ge> & <gi> batzuk, /j/ kontsonante igurzkari sabaikariaren balioa dutenak, Etxeparerengandik tradizioz datozenak: *geiki* (16) / *jeiki* (219), *gelozkeria* (246) / *jeloskeriatric* (431), *geutxi* ‘jautsi’ (256, 404) / *jeutxi* (299, 300, 326), *gin* (16) & *giten* (16). Beste hitz batzuetan ez da <j> baliatzen: *genderen* (431), *gestuac* (432), *Ginco* (68). Maileguetan nabarmena da sabaikaria dena adierazteko <ge> & <gi> idazteko tradizioa nagusitu dela: *arcangelu* (255), *bidge* (407) & *bidaige* (376), *courage* (219), *digeritceco* (427), *evangeliua* (231) & *evangelista* (354), *estranger* (84), *juge* (307), *langer* (346), *page* (247) / *afligimendu* (155) & *afligitcen* (316), *imagina* (191), *religione* (373) & *religios* (363), *theologia* (78) & *theologien* (158).

Biezpainkarietan ohiko bi grafiak ageri dira, **< b >** eta **< v >**. Hona, lehenik, **< v >** daramaten hitzen zerrenda, zeinetan gehienak maileguak baitira: *avertitcen* (59), *avis* (147) & *avisu* (147), *avocata* (381), *captivatarçunetic* (253) & *captivo* (191), *convertituco* (50), *devocione* (3), *devot* (78) & *devoki* (153), *divino* (194), *Elevacioneco* (247), *Evangelina* (231), *favori* (176) & *favoritan* (180), *livratceco* (163), *proverbiuetan* (36), *providencia* (98), *revelatu* (394), *vandalec* (309), *venial* (195), *virgina* (23), *virginitathia* (222), *vitoria* (384). Euskaratikakoak dira guti hauek: *aravera* (10), *aravez* (369); mailegu zaharra da *devetatutic* (371).

Izen berezi edo leku izen arrotzak dira honakoak: *Aquavivac* (440), *Aversaco* (218), *Avilac* (22), *Avignhonen* (1), *Bonaventurac* (26), *David* (293), *Evangelista* (354), *Evari* (371), *Fevre* (408), *Kintaval* (429), *Liduvinaren* (324), *Olivetaco* (139), *Silvestre* (188), *Talaverakuaz* (251), *Vast* (327), *Vicentec* (189), *Victor* (113), *Villenuvakuac* (101).

Gainerateko erabileretan **< b >** ageri da liburuan eta ezagun du euskal erroko hitzak ugari direla: *baiterauçut* (3), *balioz* (3), *bat* (1), *becic* (1), *beithan* (1), *bena* (4), *bi* (4), *bidia* (3), *bost* (1), *gabe* (7), *heben* (3), *liburu* (1), *obra* (4), *probetzcha* (4)...

## 2.2. Bilakabide fonikoak

### 2.2.1. *u*-ren palatalizazioa

Eguzkialdeko Euskal Herrian *u* bokalaren palatalizazio adibideak aspaldikoak dira, baina idazle guztiak ez dute maila bera iristen; esate batera, Tartas batenak nabarmenak dira eta Belapeirek Zuberoako orduko errealitatearen berri dakar, baina Leizarraga bat gordetzaileago da honetan. *Pratica*-n jokaera nabarmenena hitz bukaerako *-ua* > *-ia* da, gaineratekoan ez dago Zuberoako mailarik, *gorpitz* izenezan izan ezik (16, 30, 39, 46...).

Ezagunak dira *i-u* > *u-u* bokal egitura duten hitzetan eguzkialdean gertatu asimilazioak ere. Hona adibideak; Etxepare: *buluz* (24). B. Etxauz: *zerbutzu*. 1651ko pre-garietan *aphezpicu* (10) dugu, asimilatu gabe. Oihenart: *paradusu* (282). Tartas: *apescupu*, *badutut*, *buluz*, *burduiña*, *çerbutçary*, *çerbutçu*, *çunçurretic*, *dutiala* & *dutian*, *dutila*, *dutugun*, *dutuzu*, *ezkundian*, *ezkunduke*, *paradusucoac*, *unguratu*, *uturria* adibideak *Onsa*-n eta *Arima* liburukoak dira *utsiarena* ‘itsuaren’ eta *uçurri* ‘izurri’. Olor kat (1706): *buhurtu* (70), *cerbutchu* (7), *uçurriari* (59), *utsutarçuniala* (95). *Pratica*-n *cerbitzzchuco* (21) dugu, asimilatu gabe, baina *ouxu* ‘itsu’ (10) eta *uxu* (128) dakar-tza, asimilaturik; aldiz, Etxeparek *itsutarzun* (25) eta Leizarragak *itsutasun* darabilte. Le Quien de Laneufvillek argitararazi 1786ko katiximan maila sakonagokoa da asimilazioa: *cerbitchuco* & *cerbutchaceco*, *hugungarri*, *lutukian*, *paraucia*, *uduri*, *utxuki* ‘itsuki’. Ez dakigu “aingeru” ala “aingiru”-tik etorririk, baina *ainguru* dago Etxeparen, 1651ko pre-garietan, Tartasen, *Pratica*-n, Laneufvilleren katiximan eta Donapaleukoan.

### 2.2.2. *o* > *u* aldaketa sudurkariaren aitzinean

Maila batean ala bestean, Etxeparetek hasirik gertatu dira sudurkari aitzineko *o* > *u* bokal hersketak ekialdean. Gure lehen idazlearen adibideak dira honakoak:

*gogo henez* (236), *nontic* (22) / *hunec* (24, 74), *undar* (68), *vnsa* (14); baita *hula* ‘hola’ (238) ere. Idazleen lanetan aise jarrai daiteke gertakaria eta *Pratica-n* sakonxea da: *çunbaitec* (277), *hun* ‘on’ (5), *hunec* (100), *huni* (12), *hunher* ‘huñer = oinei’ (111), *huntarçun* (451), *nun* ‘non’ (353), *ouncia* (42), *undar* (222); baita *hulaco* (305) ere. Horiekin batean, *lıçonetan* (398) eta *lıçonkerian* (353) adibideak dakartza. Horra Lanefvilleren 1786ko katiximakoak ere: *coundu* (21), *cumbat* ‘zunbat’ (16), *huignac* ‘huiñak’ (43) / *çoin* ‘zein’ (5), *esconçan* (14) edo *onsa* (67); baita *garizoma* (103) ere.

Zuberoan bilakabidea sakona da, baina testu guztiekin ez dute berdin salatzen. Belepeire zuberotarrak, *honek*, *honi*, *honeki*, *hontan* erakoak darabiltza (Agirre 1996: 809) eta 1676ko *Pronus-en* ere *honen*, *hontara*, *hontacoac* sailekoak ditugu; baita *hon* ‘on’ (33) edo *hona* ‘ona’ (32) ere. 1706ko Oloroeko katiximak *honen* (33), *hontan* (50) & *hontaco* (75), *hon* ‘ona’ (39), *onsa* (3), *guiçon* (16) edo *non* (15), *noiz* (80) dakartza, eta goratu diren bakarrak *hounen* ‘onentzat’ (21) eta *nourc bere Parropian* (76) dira, nahiz 1746ko edizioak *hounen* ‘onentzat’ (19), *hountan* (jjj), *noun* (12) dituen. Maisterrek berriztaturik darabiltza: *hounat* (31, 79), *houniala* (ij) & *hounki* ‘ongi’ (179), *oundouan* (111).

### 2.2.3. Sinkoparik eta aferesirik eza

*Pratica-n* ez da sinkoparen zantzurik ageri: *aberaxa* (11), *abere* (145), *andere* (224), *batere* (150), *erraiten* (9)...; kasu bakarra aipa dezakegu: *artcia* ‘aritzea’ (169, 330) & *artciac* (14, 425), Ipar Euskal Herrian hedadura handia duen aldaera. Aferesirik ere ez da sumatzen: *eçagutu* (39), *eçarri* (12), *ekarri* (181), *emazte* (326), *ichilic* (60), *ichuri* (172), *ikussi* (254). Aferesien maila gora Iribarnegaraik itzuli Baigorriko ebanjelioan dago: *chilik* (21) & *childu* (33), *chiuchila* ‘ixil-ixila’ (30) —baina badu *ichilik* (53) ere—, *churzen* ‘ixurtzen’ (68) & *chur dain* (68), *kharri* (58) & *karzen* (51), *khusi* (61) & *kusak* (77), *mazte* (20) & *maztekia* (51), *phailer* ‘epaileei, motzai-leei’ (46), *zarzen* (66), *zautuko* (32).

*Pratica-k* islatzen duen aferesia aditz laguntzailearen lehenbiziko silaban gertatua da, zeina Etxepare lekuko, lehen idazkietan beretan sumatzen baita: *egotzi tu* (63), *handi tuzu* (189), *igorri'tu* (25) vs. *galdu ditut* (184). Leizarraga: *dituk*. B. Etxauz: *baititut*. Hona, berriz, *Pratica-ko* emaitzak: *eçagutu behar çu* ‘duzu’ (278), *eguiten thienian* ‘dituenean’ (276), *ekarri tuçun* (111), *etcit* (276).

### 2.2.4. *ai* > *ei* asimilazioa diptongoan

Lapurdi euskaran ez da ageri *ai* > *ei* asimilazioa diptongoan, baina joera hori nabarmena da Nafarroa Behereko euskaran. Gertakaria zaharra da, lehen idazleetan ageri zaigu. Bilakabideak partikula gramatikaletan du emankortasunik gehien, eta izenetan ageri denean, kontsonante sudurkaria izanen du usu *i* horrek ondotik. *Pratica-n* adibide guti aurkitu dugu: *beitaco* (221) & *beithan* (212) partikula gramatikalean eta izenik ia ez: *seindiac* ‘sainduak’ (354); honakoetan ez dago asimilaziorik: *baitcen* (355), *çunbait* (16), *emaiten* (12).

Zuberoako idazkietan *ai* nahiz *ei* ageri dira, baina Pello Agirrek zalantza du *ai* ahoskeraz: “xvii. mendean *bait-* hori hiztun zuberotarrek halaxe esaten zuten ala al-dameneko literatur euskalkietatik hartutako forma idatziz soila den” (2001b: 765).

Belapeirek ez dakar bere katiximan *ai* > *ei* asimilaziorik, baina Oloroeko katiximan, Maisterren edo Mercyn badira adibideak; dena dela, Zuberoakoa joeratzat hartu behar dugu, ez dira diptongo guztiak asimilatzen.

Jarraian idazleen adibideak dakartzagu. Etxepare: *heyec* (236) / *gorainzi* (5), *bayçaygu* (12). Leizarraga: *norbeit, zenbeit* / *baita, noizpait*. B. Etxauz: *Yeinquari* / *baita, baititut, baitut, sainduyan*. Tartasek guti baliatzen du asimilazioa: *gueixtoaren* (Onsa, 93) eta Arima laneko *beitauude* (55), *beitrauçu* (64), *uheitcian* (64). Belapeire: *baita, baithan, baizik, norbait, saintü, zonbait*. Olor kat (1706): *beicic* (13), *beyta* (51), *beynago* (62), *guey ‘gai’* (81), *çeyon ‘zaion’* (51) / *çombayt* (2), *baicic* (6), *artçaigner* (78), *oray* (7), *jayki* (2), *baytut* (10). Maister: *beithan* (54), *beitu* (103) & *eçpeita* (iji) / *çoumbaitetan* (147). Mercy 1780: *beytutu* (20) & *beytuye* (5) / *baici* (19), *gainty* (23). Laneufville: *beiguitu* (16), *beino* (76), *beithan* (130), *deiteque* (37), *seindiaren ‘sainduaren’* (48) / *baithan* (113), *cenbait* (91). Donap kat: *beigauzkete, beikira, bei-tzaude / baigituzte*. Donam kat: *seindu* (253). Salab SM: *seinduki* (30). Irib SM: *be-zein* (35) dakar, baina hortik goiti adibideetan *ai* ageri da: *baitzen* (21), *dateke* (27), *gainian* (23), *hatzamaiten* (32).

## 2.2.5. Erdiko bokalen disimilazioa

*Pratica-n* hiatusean kokatu erdiko bokalen disimilazioa dugu: *basterrian* (355), *icaiithiagatic* (355), *uzthia* (355) / *itxassuan* (355), *ourcuac* (357), *onduan* (212), *halakuer* (276). Dena den, hersketa hau XVI. menderako hasirik dago, Leizarraga eta Oihenart honetan gordetzaile badira ere; ez dakarte disimilazioaren adibiderik. Erdiko bi bokalen artean *e* da hersteko joera gehien duena eta adibideak ugari dira; Etxepare: *berian* (7), *vrthia* (10), *ezzagutzia* (19), *gaynian* (54), *neuria* (181) adibide palataletan; belarretan, berriz, disimilatu gabeak dira *bessoan* (146), *gogoa* (148), *Iangoycoa* (110) eta *gaixtoa* (170), baina bilakabidea jasan dute *Iangoycua* (10) edo *Ieyncuaz* (198) adibideek. Leizarraga: *artean, diradenean* / *ahakoa, itsusgoa, Iaincoaren*. B. Etxauz: *gabiaz, zurian, 8garrenian*. 1651ko pregariak: *orhoitçapenian* (1), *creaçalian* (4), *partaletarçunian* (5), *batarçunian* (10) / *batassunean* (sarrera), *aitcinean* (24), *denean* (24), *egoquitassunean* (25); belarretan, berriz: *Iangoicuac* (22). Tartas: *izatia, hatsarria, etxia*; bokal belarrean ez dirudi Tartasek hersten duenik, -oa darabil. Belapeire: *gouria, gutianian ‘gaituenean’* eta belarretan *gincoaren, gincoa*. 1706ko Oloroeko katiximan disimilazioa nagusi da palataletan: *denian* (2), *aitcinian* (2), *semiaren* (2), *ourthian* (6), *bakia* (7), *artian* (9), baina belarretan ez da gertatzen: *gincoa* (2), *ondoan* (5), *gincoaren* (2), *divinoaren* (2). Katixima honen 1746ko edizioan palataletan disimilazioa dago, eta belarretan bi joerak ageri dira: *nescatoa* (6), *doatçan* (18), *dagoa?* (96), *gueroalat* (105) / *gincoüaren* (v), *herioua* (53), *doua* (54), *purgatoriouala* (54). Laneufville: *curutciaren* (5), *dituztenian* (20) edo mugatzalea galdurik duen *acabatcin* (59) eta belarretan, berriz, *gaiñecoua* (6), *Gincouaren* (5) edo *giristinoua* (5).

## 2.2.6. *aia* & *eia* sekuentzia → *ea* soiltzea

Egun Nafarroa Behereko ipar-mendebalean gertatzen da *aia* & *eia* bokal loturak soildu eta arteko *i* hori galtzea: Izturitzeko adibideak dira *ihaurgea ‘inaurkina’, anea ‘anaia’, emaztegea edo gizongea; are doa ‘doia’* ere. Ondoko Lapurdin, Hazparnen eta

Makean ere badira honelako adibideak, eta Xarles Videgaineik Uztaritzen bildu dauen ere *emaztegea ta gizongea* adibidea ageri da (1991: 1081). Hego Euskal Herrian, bereziki Nafarroa Garaiko Aezkoa ibarrean aurkituko ditugu honelako soiltzeak.

Nafarroa Behereko idazki zaharretan ia ez da ageri berrikuntza honen arrastorik. Etxeparek-eta ez dakarte honelako soiltze adibiderik, baina *pressundei* (118) mugagabea dakaren *Pratica-n*, *pressundean* (119, 299) aldaera ageri da mugaturik jokatzean. Bilakabidearen egungo agerpen geografikoarekin koherentziarik ez duen adibidea da *Pratica*-ko hau, izan ere, teorian bederen, Landibarreko, Oztibarreko eta Amikuzeiko fededunentzat itzuli zuen lana Lopezek, baina bazter horietan egun bederen ez da honelako berrikuntzarik ageri. Garaziko Bazkazanen agertu 1762ko prediku guztien artean balizko adibide bat baizik ez da ageri, ez dakigu bilakabide honen isla ote den: *bainan eztitugu seguitcen Jeincoaren deac eta comitac* (220); hor “deiak” dagoela dirudi. Bakan ageri da testuetan eta ez digu aukerarik ematen antzina soiltze hau Baxenabarre gehienean gertatzen zela adierazteko eta gainera, Zuberoako lekukotasun zaharretan ez dugu ezaugarri hau kausitu.

### **2.2.7. Adizkietan *i* epentetikorik ez**

Adizkia eta atzizkia lotzean hiatuseko bi *e-ren artean* gertatzen den *i* epentetikoa lehen idazkietarik ageri da Baxenabarren, Etxepareraren *nayndeyela* (108) edo *çayteyen* (252) lekuko. 1786ko Laneuvilleren katiximak *daitekeien*; Lapurdin Leizarragak ez da kar epentesi hau, baina Materrek bai: *çatequeyela* dakar; bestalde, Axularrena da *naitekeien* eta Xuriorena *dakharqueien*, baina ez da idazle guztietan sumatzen; batzuengan, gainera, ez da sistematikoa. Oihenartek ez dakar honelako epentesirik: *datekiela* (447). *Pratica-n* ere ez dago adibiderik: *çaitkeen* (20), *guitçakeenic* (34), *datekeen* (138). Dnapaleu eta Donamartiriko kristau ikasbideetan ere ez dago *daitekena* baizik.

### **2.2.8. Ozena + herskari ahoskabea**

*non* galdetzaileak eta *han* nahiz *hemen & heben* aditzondoek ondoko kasu atzizkian kontsonante herskari ahoskabea biltzen dutenean, Euskal Herriko eguzkialdean ez da ahostuntzerik ageri, Etxepare, 1651ko pregariak edo Tartas idazleak dira lekuko. *Pratica-n* ere berdin da: *nantic* (117, 248), *hantic* (6, 21, 40), *hebentic* (219). XIX. mendeko Baxenabarreko idazkietan ere berdin gertatzen da, baina Baigorriko emaitza desberdina da; Irib SM: *hemendik* (35), *handik* (28), *nundik* (31).

*non* galdetzaileaz edo *hemen & heben* eta *han* aditzondoez landa, Zuberoa herrialdean sortuak diren idazleen lanean baizik ez da ageri “*ozena + herskari ahoskabea*” egitura. Oihenartenak dira *egunko* (147), *bertzentako* (248), *hunki* ‘ongi’ (362), *mente* ‘menda’ (472) adibideak. Berebat, Tartasenak dira *honkiegilua* (144), *minthü* (117), *onki* ‘ongi’ (4) eta *urdintü* (18) adibideak *Ontsa-n* eta *Arima* laneko *itçalturic* (117) eta *chuchenturic* (52). Jacques Belak honelako adibideak ditu: *aurthencoen*, *boronthatiac*; baina *choriendaco* ere badakar. Belapeirek, berriz, *althare*, *althe*, *boronte*, *boronthate*, *elkhì*, *gainti*, *heltü*, *honki*, *jalkite* sailekoak ibili zituen, baina baita *alde* edo *sendotü* ere. Ezaugarri honetan *Pratica* Baxenabarreri begira dago: *aldare* (373), *alde* (198), *borondate* (5), *eztakitenendaco* (9), *gaindi* (122), *heldu* (122), *jalgui* (26), *sendotu* (176).

## 2.2.9. Ozenen palatalizazioa

Ozenen palatalizazio automatikoari dagokionez, badirudi Nafarroa Behereko ekialdera goazen ber palatalizazioa areagotuz doala eta mendebalerako inguratzean bakan duz. Esate batera, Donamartiriko katiximan ez da ageri eta aldiz, *Pratica-n* sakona da palatalizazioaren eragina: *burdignac* (253), *gagnan* (354), *hunher* “huñer” = ‘oi-nei’ (111) & *huinhen* (86) & *huinhetan* (147); dena den, badu *huinetaco* (253) ere. Antzinako idazle baxenabartarretan aldaera palatalizatu gabe daude, baina B. Etxauzek dakar ikuspegি honen salbuespen edo ahulgunea: antzinakoa da haren gutuna, baina aldaera palatalizatuak dakartzza. Etxauz ekialdekoa zen adierazgarri ote da hau? Nola hautsi, ordea, ikuspegien zirkulartasuna? Hona lehenik idazle zaharrak:

Etxepare: *arraynac* (60), *escuynetic* (54), *gaynian* (54), *huyn* (28). Leizarraga: *ez-painetan*, *gainean* & *gainenik*, *oinetako* & *oinetan*, baina *billuzi*. B. Etxauz: *huignac* ‘oinak’, *zoñez* ‘zeinez’. 1651ko pregariak: *bañan* ‘baina’ (2), *baño* ‘baino’ (17), *ceñen* (13), *escuñeco* (5), *gañeraco* (20), *ordaiñez* (22); bada pregarietan beste adibide sail bat palatalizaziorik gabe: *arçainei* (sarrera), *gainean* (23) eta diptongo ez direnetan, berriz, *othoitz guile* (22) adibidea. Tartas: *billuz gorri* (*Onsa*, 115), *christigno* (*Onsa*, 77), *gaignian* (*Onsa*, 57), *oiñac* (*Onsa*, 85) & *hoñak* (*Onsa*, 83). Laneufville: *escuigneco* (12), *ezpagnaren gagnera* (139), *huignac* (43), *oxaillaren* (9). Donapaleuko katiximak *erregiña*, *eskuñian*, *gañera*, *gristiño* ‘kristaua’, *huñetaa* vs. *gainenik* dakartzza, baina Donamartiriko katiximan ez da palatalizaziorik ageri: *daila* ‘dabil’, *ezpainaan ginea*, *gazikilier*, *hilen*, *huinetaa*; Baigorriko ebanjelioak ere ez dakar: *arraynak* (49), *erdoilak* (31), *eskoineco* (29), *gainian* (23), *phailer* (46), *soinekoa* (31), *zoinek* (30).

Garazin egun ere gertatzen den bezala, bertako idazkiek aldaera palatalizatuak eta palatalizatu gabeak dakartzate. Hona Cazenavek itzuli San Mathiuren ebanjelioko adibide zenbait: *arrolla* & *arroillaat*, *erdoillak*, *eskuñeko*, *ezpaiñez*, *gaiñian*, *huiñez*, baina baita *arraynak*, *gainenik*, *gaineatikuek*, *gainian*, *ideeinen* ‘edirenen’ ere; bestalde, diptongorik ez denean ez dago palatalizazio handirik: *thinian*, *zineztelaik*, *zinikan* ‘zinik’. Cazenavek berak itzuli Donibane-Garaziko katiximan *eskuineko* dakar bertsio batek, baina *eskuñeko* besteak.

Zuberoan idazki zaharrek haste-hastetik palatalizazio automatikoa islatzen dute. Belaren atsotitzek palatalizazioa dakarte diptongoetan: *conseillua*, *gagneco*, *oilloer*, *ouhouñac*; diptongo berezia da *lein* ‘lehuna’, palatalizaziorik gabea, *eu-ren* emaitza dena. Belapeirek islatzen duen egoera ere iduria da: *cognec* ‘zeinek’, *cogni* ‘zeini’, *escugnecoala*, *escugniala*, *gagnen*. Oloroeko katiximan ere berdin (1706): *eguina* (1) baina *eguillen* (106), eta gaineratekoan, diptongoan palatalizazioa dago: *artçaignac* (67), *beçaing* (97), *bestagnic* (53), *ceignu deya* (54), *çoing* (21) & *çoignec* (108), *ez-paignen gaigna* (103) & *ezpaing pphuntez* (88), *gaignetic* (5, 55) & *gaignelatico* (48), *hoignetara* (102) & *hoignac* eta *erraignac* (107), *iraing* (109), *mahaing* (103)...

## 2.2.10. *rz* & *rtz* / *st* kontsonante taldeak

Aipagai dira *rz* & *rtz* / *st* taldeak: euskararen historian bakoitzak bere ibilbidea, geografia eta konbinazio bereziak ukantzen ditu. Testuetan baliatzen den grafiak *rz* eta *rtz* taldeak argi bereizteko eragiten duen lausotasuna ere aipagai da; dena den, *Pratica-n* -tarçun eta *sartcen* bezalako adibideen bidez, lehena igurzkaria eta bigarrena

afrikatua zirela bereiz liteke, edo horrela izan zitekeela bederen. Ekiaddekoak diren Oihenart, Tartas, *Pratica* eta Le Quien de Laneufville-ren katiximaren lekukotasunek txistukari igurzkaria duen -tarzun atzizkia erakusten dute. Etxeparek *itsutarçun*-en bi adibide eta *unharzun* dakartzza, baina baita *hontasun* ere. 1651ko pregarietan ere bada -tarzun, baina -tasun-ekin batean baliatua: *batarçunian* (10), *erharçunetan* (12), *huntarçun* (2) / *batassunean* (sarrera), *batassunetic* (23), *egoquitassunean* (25).

Bestalde, badirudi XVI eta XVII. mendeetako idazleek *st* ez, baizik eta *r(t)z* taldea baliatzen zutela. Hona adibideak; Etxepare: *verce* (22). Leizarraga: *-tasun*, baina *berce*, *borz*. B. Etxauz: *berze*. 1651ko pregariek: *berce* (17), *borz* (20), *orciralian* (8). Oihenart: *bertze* (236), *elharzun* (122), *orzhiale* (451); idazle mauletarraren grafiaren transkribapen fonologikoa P. Altunarena eta J. A. Mujikarena da. Tartasen euskara badakigu transkribapen baten baino gehiagoren bidez islatu dela: *erharzünak*, *eritarzün*, *gaztetarzünian*, *hontarzüna*, *itsütarzüna* dakartzza A. Eguzkitzak (1975), baina Tartasenak dira *gastetassunian* eta *handitassuna* aldaeraak ere. Bestalde, *bertze* eta *hamabortz* ditugu 1975eko edizioan, baina Tartasena da *bost* ere. XVIII. mende bukaerako *Pratica*-k *st* taldea dakar: *beste* (94) & *besthiaz* (99), *bost* (94), *hainbeste* (97). Laneuvilleren katiximak bietarik darabiltza, *r(t)z* taldea nagusi duela badirudi ere: *berce*, *hainberce*, *borzgarren* & *bors* / *bost*; eta bestalde, Zuberoan ohi bezala, -tarçun eta *urzo* darabiltza 1786ko katixima honek. Bazkazaneko 1762ko predikuak *berciac* (180) dakar eta 1790ko idazkian ere *berce* (108) ageri da.

XIX. mendeko Bonaparteren inguruko idazkietan *st* da nagusi, baina Garaziko idazki zenbaitetan bietarik sumatzen da. Donap kat: *beste*, *bost*, *hainbeste*, *eztitasuna*, *nausitasuna*. Donam kat: *beste*, *bost*, *ontasun*, *ostiale*. Caz SM: *beste*, *hamöst*. Donibane-Garaziko katiximan bi bertsio ditugu eta batak *rtz* taldea dakar, baina besteak *st*: *bertze* / *beste*, *bortz* / *bost*. Berebat, Salaberri Ibarrolakoak bietarik dakartzza ebanjelioan: *bertze* (11, 157), *bertzia* (67) / *bost* (96, 157). Baigorriko ebanjelioan, ordea, *rz* ageri da Iribarnegarairen idazkian: *berze* (26), *berzaldian* (26), *borz* (71). Gainera-koan, *-tasun* da atzizkia Baigorrikoan: *edertasuna* (25), *eritasun* (26).

Zuberoan testuak berankorrak dira eta *rtz* taldeari dagokionez gauzak ez dira argi ageri; esate batera, Zuberoako oikonomiam egun *Etxebertze* dena erroldetan ageri denez Erdi Aroan *Etchebertze* zen<sup>10</sup> (Orpustan 1994: 213). Bestalde, XVI. mendearen bukaera aldera sortu zen Jakes Belakoaren atsotitzetarik bakar batean dator kontsonante talde hau eta *Garcia* izenarekin erriman, gainera: *Garcia*, *Garcia*. *Gaixto batac diaça-guc bercia*. Atsotitza izanik ez du ondorio handirik ateratzeko aukerarik ematen. Belapeire da hurranen lekukotasuna eta beragandik honat sistematikoki *st* ageri da: *beste*, *bestaňik* & *bestela*, *bost* & *bostna*, *ostegün*, *ostirale*. Ondoko testuetan ere berdin; Oloroeko katiximak *ostirale* (16), *beste* (5) & *bestagnic* (53), *bost garren* (55) dakartzza. Beste alde, *rz* taldeari eutsi diote zuberotarrek: esate batera, -tarzün atzizkia ageri da Belapeireren lanean nahiz Oloroeko katiximan.

## 2.2.11. Bokal arteko kontsonante igurzkarien galera

Bokal arteko kontsonante igurzkarien galera lehen idazkietarik honat ageri da adibideetan, Etxepare lekuko: *bide'ituzu* (189); *Pratica*-n ere hala-hala da: *derauuten*

<sup>10</sup> Ez dakar idatzizko lekukotasun zehatzta, baina berak honela idazten du.

(407), *ein* (114), *eraiten* ‘eragiten’ (412), *jaurei* (244). Baita atzizki konparatiboan ere: *oraichoo edo guerochoo* (16).

Bestalde, XIX. mendea arte ez dirudi Baxenabarren eta inguruetaan bokal arteko *r* batzuen galera idazkietan nagusitzen denik. Mende hori baino lehenagoko idazleek segurik kontsonantea dakarte. Hona adibide zenbait. Tartas: *aldera, batetara, berbera, bere, garaitzen, hetara, itzultera, orotarat, semiarekila, ürhiak* (*Ontsa*). Belapeire: *araguiric, beré, deritçola, erori, utciri*. Aldiz, Bonapartek eginarazi itzulpenetan hasperenak ordezkatu du ttak fonema, bereziki ondoko bokala azentuduna denean. Donekat: *ahinki, bedeazka, behesten, belhaunikatuik, ehiaz, gahitu* ‘garaitu’, *ihetsi*. Donekat: *behezi, gahitu, hua* ‘hura’, *khuutze*, baina *irhetsi*. Caz SM: *eeman* (22). Irib SM: *behech* (53). *Pratica*-n kontsonantea idazten da: *berheala, berheci, erori, ireici, izari, jardiretxi*, baina adibide batean ez dakigu hasperenak *r* ordezkatu ez ote duen: *ireici* (44, 274, 344, 364, 385, 389, 393) & *irezten* (409) dakar liburuak, baina bada *iheiz lirocie* ere (41).

Zuberoan gauzak bestela direla dirudi. Beharbada soinuak edo azentuerak eraginik, bokalarteko kontsonante igurzkariekin mendebalean baino indar handiagoz iraun dute, eta bokalarteko galera nabarmenena, XIX. mendeko *r*-rena da Zuberoan. Orupstanek oikonimiako adibide zenbait dakartzia (1994: 215): *Abéhety* < *Arabehety*, *Agrohen* < *Aguerre goyhena*, *Aintia* < *Arandia*, *Ambuya* < *Aramburue*, *Ascot* < *Haris-coete*, *Elichagay* < *Elisaguaray*, *Elichy* < *Elisiry*, *Eyhéguy* < *Eyheregua*, *Gatia* < *Guatea*, *Ibia* < *Iribe*, *Lastegaray* < *Larresteygaray*, *Urrutcho* < *Urruchoro*, *Utiguerria* < *Urruthié aguerre*; bokal arteko *d* galdurik, salbuespina da *Arospia* < *Arrospidea*.

### 2.2.12. Hitz hasierako *tz*

Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaiko ekialdeko ibar batzuetan garatu da hitz hasieran *tz*- baliztako aukera, beste euskalkietan ezezaguna dena: *tzakur, tze-rrri, tzori...* dira ohiko adibideetarik batzuk. Esate batera, *tzar* adjektibo handigarri eta mespretxuzkoa ezaguna da Ipar Euskal Herrian, ez horrenbeste Baigorriko ebanjelioan datorren *tzorrotz* (72) adibidea, kontsonante ozen baten ondotik datorrena: *baakit gizon tzorrotz bat tzirela*. Delako *zorrotz* hitz horri afrikazioa ozena aitzinean edukitzeak eragin dion ez dakigu, baina Nafarroa Beherean honelakoak badiren eta Iribarnegaraiak XIX. gizaldian idatziz hala dakarrenez, berrikuntza honen lehen agerpen idatzietarik bat dela pentsa dezakegu. Lepokari afrikatua hitzaren hasieran agertzen hasteko sinbolismoak duen garrantzia gainera, ozen ondoko kokaguneak berrikuntza eragin duen ere azter liteke alderdi fonetiko-fonologikotik. Adieraz dezagun *Pratica*-k ez dakarrela ezaugarri hau.

### 2.2.13. *rk* kontsonante taldea

Nafarroa Behereko euskaran, kasu ergatiboan, izenordain galdetzaile pertsonalean eta erakusle singularreko hirugarren graduau soiltzera jo du *rk* kontsonante taldeak. Ondoko Aezkoa ibarrean, esate batera, guztiz arrunta da *nok* ‘nork’ aldaera. Gertakari honen idatzizko lehenbikiko lekukotasunak XIX. mendean ageri dira Nafarroa Beherean: *Pratica*-n oraindik ere *norc* eta *harc* osoak ditugu eta *norc* (220) ageri da Bazkazaneko 1762ko predikuetan, baina Bonaparteren eraginez itzularazi ziren

eliz-idazkiek adibide soilduak dakartzate nagusiki. Donapaleuko eta Donamartiko katiximetan *nok* eta *hak* ageri dira; *Gaaziko heskuaran emana den Jondoni Juane apostoliain apokalipsa-n ere nok* (139) eta *hak* (132) dakartzza Cazenavek. Ibarrolako Salaberrik ere *hak* (61, 74, 102) darabil, baina *nork* (23, 172) izenordaina osorik da-kar. Iribarnegaraiaren ebanjelioan *nok* (24) eta *hak* (40) & *harec* (24) aldaerak ditugu.

#### **2.2.14. *haur, hirur, laur* hitzen koda**

Singularreko lehen graduko erakusleak eta 3 eta 4 zenbatzaileek -r fonema da-ramate bukaeran euskara zaharrean eta halaxe da Nafarroa Behereko mintzoan ere. Idazkietan ageri denagatik, badirudi xix. mendea bitarte ez zirela bukaera soilduak nagusitu: Etxeparek, Leizarragak, Beltran Etxauzek, 1651ko pregariek eta Tartasek *haur* eta *hirur* dakartzate, Belapeire zuberotarrak legez. Oihenartek *haur*, *hirur* eta *laur* baliatu zituen, baina *haur-ekin* batean (119, 145, 177, 312, 334, 354, 368, 418, 428, 434, 476) badu *hau* (199) ere; berebat, nagusi den *hirur* aldaerarekin batean (94, 157, 273, 458, 499) badakar *hiru* (234) soila ere. Oloroeko katiximak *beraur* (90) dakar. *Antiokiako San Julian* pastoralak zortzi aldiz dakar *haur* eta hogeita hamazapi aldiz *hau*. XVIII. mende bukaerako *Pratica*-k eta Laneufville katiximak *haur*, *hirur* eta *laur* dakartzate, baina aldiz, xix. mendeko Bonaparteren katiximetan, Donapaleukoak *hiru* eta *lau* dakartzza eta Donamartirikoak *hau* eta *hiru*; Caz JJ-k ere *lau* dakar. Ordea, badira bestelakoak ere: 1856ko Sal SM-n *haur* eta *hirur* datozen eta Donibane Garaziko katiximak *hirur* eta *laur* dakartzza. Baigorriko ebanjelioak bestela jokatzen du, berrikuntza dago bertan: *hirugarren* (53), *lau* (70).

### **2.3. Izenaren morfologia**

#### **2.3.1. Alderdi morfonologikoa: izenen forma**

2.3.1.1. Berranalisiak eragin ditu *Pratica*-ko *ataku*, *kolpu* erako izen forma berriak: hiztunak *atakia* edo *kolpia* hitz mugatuen aldaera mugagabeak *atake* edo *kolpe* ez, baizik eta *ataku* edo *kolpu* direla interpretatu du. Zuberoan berranalisi beraren emaitza dira egun *arrabotü*, *atherbü*, *barrükü*, *drolü*, *hazkürrü*, *khaldü*, *kolpü*..., Banxenabar gehienean eta Lapurdin *arrabote*, *atherbe*, *barruki*, *drole*, *hazkurri*, *ukaldi*, *kolpe*... direnak. Esate batera, Belapeirek eta Oloroeko katiximak *khaldi* dakarte, baina Inxauspek eta Larrasketek *khaldü*. Berebat, Amikuzen *axerü* dago. Adibide guztiek berranalisi beraren emaitza dira eta horiek gerta daitezzen baitezpadako da hiztunek -ua > -ia palatalizazioa egin izana. Esate batera, Erronkari ondoko Zaraitzun ez zegoen -ua > -ia palatalizaziorik eta ondorioz, zaraitzuarrek ez zitzutzen aldaera berranalizatu hauek egiten. Erronkarin, berriz, *eguzku*, *uzku*, *zubu* aldaerak zeuden, baina berrikuntza hauetan litekeena da bokal asimilazioa egotea, ezkerretik eskuinera eraginik.

2.3.1.2. Ipar Euskal Herrian baizik baliatu ez den eta gure liburuan ageri den *akusu* aldaera ez dakigu zerik eragin duen, ez dakigu analogia zenbait izan ote den. Lapurdiko literaturan Pouvreau, Larregi, edo Duhalde idazleek erabili dute *akusu* hau. Berebat, *bortzchu eguin* ‘bortxa egin’ forma dakar gure liburuak (348, 356), baina ez dakigu nolaz sortu den aldaera hau.

2.3.1.3. Erdaraz -l bukaera duten hitzen euskal maileguek -le dute: *animale saxu* (335), *arbole bat* (116) edo *officiale lagun hori* (248) ditugu *Pratica-n*, baina izenondo mailegatu gordinotan ez dago jokabide bera: *benial* (37), *mortal* (193). Bestalde, hitz eratorriean bada euskaratikako -le atzizkia: *emaile, erraile, igaraile, jasaile...*

### 2.3.2. Izenaren erabilera biluzi edo mugagabeak

2.3.2.1. Euskara zaharraren ezaugarria da izenak eta adjektiboak sintagma mutatu gabe biluzirik agertzea, Zuberoako euskararen aspaldiko ohituran gertatzen den legez. Nafarroa Behereko euskara zaharrean ere honela izan da eta *Pratica-n* adibideak ditugu; aditz iragankorren osagarri kokagunean dagoen izena egon daiteke biluzirik: *harri har niroçu* (392). Atribuzioan biluzirik ageri da *nolako: suthan jarten tuçu eta eracasten dicie cer eta nolaco diren* (66); *eçagut eçaçu nolaco içan behar çuten çauriec, heen sendoteco Jesu-Christori çaurthu içan behartu çaconaz gueroz* (163).

Hona, orain, idazle zaharren adibideak. Etxepare: *bere iaun eta iabe Bernard Leherteri Bernard echeparecoac haren cerbitzari chipiac gogohonez goraynzi, baque eta ossagarri* (4); *oguiric eztacussat vilcen haci ereyn gaberic* (12). Leizarragaren lehen adibide honetan absolutiboko subjektua da biluzirik dagoena: *eta bil cedin harengana gendetze handi* (66). Hurranen bietan osagarri zuzena dago biluzik: *eginen dugu bekatu* (274v); *eman vkan draue Iaincoac spiritu ithobat: eta begui, ikus ezteçatençat: eta beharri, ençun ezteçatençat egungo egunerano* (282v). Hona haren beste adibide bat: *Legio diat icen* (68v). Beste honetan, berriz, kasu atzizkia du, mugagabeen jokaturik, baina artikulurik gabe: *oha baquerequin* (116r). Hona Tartasen *Ontsa-ko* adibide atributivo pare bat: *loa eta herioa biak, bat dira, differentzia ezta handi* (68); Jenkoak sobera da handi, poderos, eta infinito, non ezpaita obligatü kondürük rendatzera bere akzonez (100).

Gaiaz argigarri dira biziki Manterola (2012) eta Santaziliaren (2010) saioak.

2.3.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeen arteko *guthi* ere aipa daiteke, erabilera batzuetan mugatzalea hartzen duena: *çure buria behar den beçala eçagutcen baduçu eta ci-renarendaco atchikiten baduçu, umilic aski içanen cira, eci ikussico duçu gauça guthia cirela* (278). Honekakoak ezagunak dira ahozko egungo mintzoan: Aezkoako Abau-regainean *edanzale guttia[k]* dira ebek bildu genuen xx. mendearren bukaeran.

### 2.3.3. Kasu atzizkiak

Ez gara sobera arduratu kasu atzizkien antolaketa eta hurrenkera gramatikaren ikuspegia berritzaleenen arabera emateaz, aski izan dugu kasu atzizkiak Euskaltzaindiak ohi duen eran agertzea. Hau da, gramatikalak lehenik, partitiboa barne; oro har pertsonei dagozkienak ondotik, prolatiboa barne (hau kasutzat jo ohi ez bada ere), eta hondarrean lekuarekin edo denborarekin lotura dutenak kokatu ditugu. Kasuak izenaren ezkerrean ala eskuinean kokatzen diren edo biziadunetan ala biziagabeetan ezartzen diren ez dugu aintzat hartu antolaketa egitean, baina arlo hauezaz zer iruzkindu badela ikusi dugunean, ez dugu zalantzak izan behar diren oharren egiteko. Hona, beraz, kasu atzizkien sorta:

### 2.3.3.1. Absolutiboa

Adibidexko batzuk badira liburuan kasu absolutiboa direnak eta ergatiboaren atzikzia beharko luketenak; hona zein diren: *bena behar den beçala eta justoki glorificatu nahi dena, choilki bere gloria oro eçar beça ene unxa eçagutcian* (11); *nehor gauça horiec oro unxa piçatcen baitu* (162); *nehor uken behar ci ppena eta dolore horietçaz hunkithia ez içaiteco* (162); *nehor bere ossagarriari oguen eguin baleça ere* (387); *arima Gincoaren beldurraren karga gabe den bat, eliakikeçu salbamenduco bidian langer handi gabe ibilten* (414). Adibide hau ez da besteen berdina: *beldurrian bici direnac bere buriel gogua emaiten dicie* (400); -ak dakar -ek beharrean.

### 2.3.3.2. Partitiboa

2.3.3.2.1. Euskara zaharraren ezaugarria da izen sintagmak partitiboan agertzea eta *Pratica* ez da salbuespna; hurranen osagarri zuzenak partitiboan doaz guziak: *Jauna, eman eçadaçu endelgamendia, eta çure leguiaren gagnan egunen dicit goguaketa barnaric eta ene bihotz oroz beiratuko dicit* (116); *hortan badiici anitz arraçoin goguaketa finic eta barnaric eguiteco* (288). Nafarroa Behereko euskara zaharrean ere honela izan da. Etxepare: *eginen du arrangura handirik* (63). Leizarraga: *baina badarussat berce legue bat neure menbroetan, ene adimenduco leguearen contra bataillatzen denik* (276v). Tartas: *egin obra honik* (*Ontsa*, 65); *eta min handirik egiten dü gizon-nari* (*Ontsa*, 124); *samurteen dela gauça chipiric hari galdañen dugunian* (*Arima*, 50). XIX. mendean ere bai; Salab SM: *egin zazie beraz penitenziazko obra digne denik* (14).

2.3.3.2.2. Ez da ageri *Pratica*-n Etxeparek darabilen -ika moduzkorik; cf. haren *yxilica egoytia* (116).

### 2.3.3.3. Ergatiboa

Adibide zenbait badira liburuan kasu ergatiboan direnak baina absolutiboa joan beharko luketenak: *francesaren cenciac etcela anitzcetan hain lanboki explicatcen ahal* (7); *egun oroz norc bere biciuen falta çunbaitetara erorten tuçu* (127-8); *batbederac bere beitaric devocionesco seindimendu betan sartcera inxea dadin* (197); *Seint Bonaventurac seindimendu bereco duçu* (330); anakolutoak dirudite.

Hutsak ez dira guziak mota berekoak, batzuetan itzultzailak perpaus luzea eraiki du eta ondotik komunztadura egitean ez du xuxen jokatu: *eztuçu segurki unxa, ez arraçoinharen araura, guristinhho batec lan aboro egithiagatic edo beste munduco eitekuegatic, lacha dadin bere otoitzcetan, mortificacionetan eta beste Gincoazco einbide-tan* (14); *Demoniuac, nola eçagutcen baitu meditacionetic idoki dirozkigun prootzchu handiac, inxeatcen duçu beti ahalaz hartaric guibelatcera edo urruncera* (119); *anitzcec hola-hola meditathuz, heldu tuçu otoitzçaren gradoric gorenera* (142).

Beste batzuetan erlatibozko aditzari egokitua dio ergatiboaren kasua, baina baliatu duen aditz nagusia iragangaitza izanik: *Gincoa offenkathusco dolian irauten dienac, unxa urrun diaogoça berris haren offenkatzcetic* (112); *eguiten dienac banitatezco lange-rretic campo duçu* (241); *gauça thipiac mezperetzchatcen thienac, handietara emeki ero-rico dela* (361). Anakoluto edo gurutzaketa arruntak gertatu dira honako adibideotan ere: *orbituric Joandene Paule lehen Ermithainhac, Seint Antonioc, Seint Francessec eta beste anitz Seindu handi behin ere etcirela menturatu Apeztera* (252).

### 2.3.3.4. *Datiboa*

Nafarroa Behereko idazle gehienetan bezala, datibo pluraleko morfema *-er* da *Pratica*-n: *bester,beer,gauça ispiritualer*. Baxenabarren *-ei* aurkitzen badugu, Lapurdiko eragina aitoritu duen idazlea da, esate batera Tartas. Leizarragak nagusiki *-ei* dabil: *çuey,duteneý,gucieý,hiley* eta plural hurbilean *çaretenoy* erakoak, baina Lafonek dioen legez (1972: 149) *ABC*-n *-er* dakar: *Hevscal-Herrian gaztetassunaren iracasteco cargüä dutenér eta goitico guciér, I. Leiçarraga Berascoizcoac Iaincoaren gratia desiratzen*. Hona idazle gehiago; Etxepare: *izterbegier*. Tartas: *Apostolier* (Arima, 43), baina gaixtoey (Onsa, 83). 1651ko pregarietan bi erak datozi: *arçainei* (aurkezpena) / *gucier* (11), *dohatsier* (16), *daudecener* (21). Laneuville: *fideler* (55), *chimplener* (77); baita *Apostolierr* (9) ere. Irib SM: *zaudener* (26), *aphezer* (42). Zuberoan ere haste-hastetik *-er* ageri da idazkietan: *olloer utzi* dakar Belak eta haren seme Belapeirek *boronthaté hon diener* dakar. Azkuek eta Traskek bilakabidea *-eri* > *-er* izan dela proposatu dute (Azkarate & Altuna 2001: 89), baina Pikabeak *-eri* XIX-an kokatzen du eta Padillak dioen bezala (2011: 41), egun *-er* egiten den eskualdeetako testurik zaharrenetan *-er* aldaera ageri da.

### 2.3.3.5. *Edute genitiboa*

2.3.3.5.1. Euskara zaharrean (Etxepare, Leizarraga) eta ekialdean (Tartas, Belapeire, Oloroeko katixima, Mercy), edute genitiboak balio destinatiboa har dezake eta era honetako adibideak ditugu Baxenabarreko XVIII-XIX. gizaldietako idazkietan ere. Laneuville: *Bai, haren daco içan behar guira devotago seindu gucien baino* (76). Caz SM: *in ditzäuñ hemen, zuk nahi'uzulaik, hiru etchola, bat zure, beste bat Moisesen eta bat Eliasen* (49). Irib SM: *bat zuretaco, bat Moisesen...* (54). Tradizio horretan mur-gildurik dago *Pratica* ere: *perfeccioniaren uken behar den amoriuaz eta garraz* (17); *Cerda ere,cioçu Seint Augustinec, otoitzça beno hobiagoric? Mundu huntan prootzchozagoric? Ispirithiareñ ezhiagoric?* (95); *bakoitz baten equinen ciela ororen eguin diena* (180). Adibide batean *baratce bathian çunbait lore edo lili, besthiac oro beno arrangurozkiago nehorc ehenhatcen eta lantcen baitu eta haren hourthatceco dembora hartcen, beste baratceco belhar hunen ez harturic ere* (135) ageri zaigu; baliteke bertan aditz izenaren elipsia egotea, “beste baratzeko belhar hunen *hurtatzeko* ez harturik ere”; beste aukera bat *belhar hunen* horrek destinatiboa izatea litzateke: “baratzeko beste belhar hunen[tzat] ez harturik ere *hurtatzeko* denbora”.

2.3.3.5.2. Ohi bezala, osagarri zuzena edute genitiboan ageri da liburuan, perpaus jokatugabean *-t(z)e* aditz izenaren atzizkia baldin badago. Ordea, salbuespen bat dago, aditz izenik gabeko *to gen* adibide bat: *eta hainbeste umilitatezco exemplu handiac finitcen tici Curutcian Herio laidogarri baten sofrituz* (257).<sup>11</sup> Ez dakigu honkin loturarik baduen, baina Ipar Euskal Herriko testu zaharretan, esate batera Lapurdin, moduzko perpaus ez jokatuetan *-t(z)ez* ibil zitekeen, nahiz egun *-tuz* egiten den. Zuberoa salbuespna da: herrialde horretan oraindik ere aditz izenak dirau moduzko perpaus ez jokatuetan; hona Urdiñarben bildu dugun pasarte bat: *amaekilan*

<sup>11</sup> Adibide honetan ezin aintzat hartu da jatorrizko idazketa, itzultzailak ez baitu literalki itzuli.

*eta amaen ahizpa batekilan [ʒ]uiten üthürrila, bide buzi bat beitzen, tripaen xāhātzea eta erraitez süia etxeki lezen artin.*

2.3.3.5.3. Inoiz osagarri zuzena extraposizioan dago, aditzetik guztiz eskuinera kokaturik: *hartacotz, gauça handi bat duçu anitz estimatcia Gincoaren bidian aitcinaraci* guiltzaketen gaucen (11); *net prootzchoz dela gure abançu ispiritualaren* desiraren ukeithia, edo hobeki erraiteco, haren gosse eta egarriaren (22); eracazteco... erakaxi behar cithien gaucen (257).

### 2.3.3.6. Soziatiboa

Soziatiboko *-ki* nahiz *-kila* atzizkiak aspalditik ageri dira Nafarroa Beherean, XVI-XIX. mendeen artean idazkietan ditugu. Atzizkioi atxiki *-n* morfema ere ez da ezezaguna Baxenabarren: idazlea antzinakoagoa den heinean, inesiboko morfema ez agertzeko aukera handitzen da eta geografiaren ekialdera jotzen dugun heinean ere, ez agertzeko aukera handiagoa da; *-n* morfemarik ez duten edo bakan ibiltzen duten idazleak aurkeztuko ditugu. Etxepare: *alabarequi* (137), *saynduyequi* (22) / *honequila* (46), *norequila* (14). B. Etxauz: *hunequila*. Oihenart: *etsaiekila* (102). Tartas: *desohore handireki* (*Ontsa*, 65) / *gurequila* (*Onsa*, 75). Bela: *ekar badeçac orequi, ukenen duc yaurequi / houna bere gaitzarequi*. Belapeire: *hayeki, goureki. Antiokiako San Julian* past.: *ossagarriareky* (56). Mercy 1780: *Mariaren icen hori nahassiric Jesusenarekila* (14); *Charlemagne* past: *enequila* (132).

Leizarraga —*çuequin* (33r), *senharrarequin* (102v)— eta XIX. mendeko katiximak dira berriagotzat jo ohi den *-kin* beti baliatzen dutenak. Donap kat: *batekin* (243), *xediaikin* (244). Donam kat: *elgarrekin* (258). Caz JJ: *aitaikin* (114) / *batekila* (120). Irib SM: *tinguriekin* (53), *elgarrekin* (42), *enekin* (51), *gurekin* (22). Bestalde, 1651ko pregarietan ere *-kin* dator ia beti: *ahaiidearequin* (25), *batequin* (16), *enequin batian* (12), *hequin* (10), *primiciarequin* (8) / *enequibatian* (13).

Pratica-n *-ki* zaharra nahiz *-kin* berriagoa batera ditugu: *divinuareki* (150), *Gincoareki* (110), *handienareki* (121) / *harekin* (158), *mehatzchurekin* (444). Liburuak lau aldiz baizik ez dakar *-kilan*: *berarekilan* (204), *dereunekilan* (445), *handienekilan* (324), *heenekilan* (210); aldiz, ez darabil *-kila-rik*, non eta ez den *-kilaco* egituraren. Bazkazaneko 1762ko predikuek ugari dakarte *-kila*: *guciequila* (206, 207), *handirequila* (205), *hojequila* (198), *munduyarequila* (186), *placerequila* (192); pare bat aldiz dakarte *-kilan*: *esniarequilan* (231), *hunequilan* (224); badakarte *-kin* ere: *harequin* (176). Laneufville deitu dugun katiximak ere bietarik dakartzza, *-n-dunak* eta gabeak: *berriareki* (37) / *penekin* (16), *Virginia Seindiarekin* (75).

### 2.3.3.7. Destinatiboa

Arestian ikusi dugu euskara zaharrean zentzu destinatiboa adierazteko ekialdean edute genitiboa ibiltzen zela, baina ondotik aukera gehiago izan dira euskararen historian zehar. Esate batera, hala Etxeparek nola Leizarragak, biek darabiltzate *-tako* nahiz *-tzat*, bakoitzak bere maiztasun-ñabdardurak dituelarik. Esan liteke, testuak zenbatenaz berriago, *-tako-ren* agerpena hainbatenaz nabarmenago dela Nafarroa Beherean eta bestalde, Lapurdiko idazki zaharretan eta beren eragina duten idazleetan ageri dela gehienik *-(ren)tzat*; nolanahi ere den, aski konplexua eta askotari-

koa da Lapurdiko lehen idazleen destinatiboaren erabilera. Axular bera da horren le-kuko.

Gure *Pratica*-n ez da *-tako* baizik ageri: *Gincoarendaco* (90), *guretaco* (36, 61), *norendaco* (61). Ez dakar *-(r)entzat*, non eta ez den balio prolatiboan. Laneufville izendatu dugun 1786ko katiximak ere *-tako* darabil nagusiki —*batciec bercen daco othoitz eguin behar baitugu* (69), *bere borreduen daco* (43), *guharendako* (66), *heen salvamendiaren daco* (68)—, baina badakar *-tzat* ere: *Curutciaren gaiñian goureçat hili* (8).

Belapeire zuberotarrak inoz *-tako* ibiltzen du, baina genitibo hutsa du destinatiboko erarik baliatuena. Oloroeko katiximan ere genitibo hutsa nagusi da, baina *-takoren* bi adibide aurkitu ditugu: *obligatceco gouretaco othoitcera* (54), *nihaur ezdeus bat niçanian eman deytaçun çoure khorpitzaren dohain baliouzarentaco* (105). Mercy-k, berriiz, genitibo hutsa, *-tako* nahiz *-tzat* darabiltza; hona hirugarren aldaera: *hargati çombat nahi consolagarry den indulgencia haur, Confessione houn baten moyanez, Iferniareni beldurreti campo diratianençat* (4). Berebat *Charlemagne* pastoralean ere: *Joundane Jacoben eneçat hanix duçu baliatu eta cientaco ere orobat agitcen duçu* (393).

xix. mendean Bonaparte printzearentzat Baxenabarren idatzi ziren kristau ikasbideetan nagusi da *-tako* atzizkia, baina Baigorri eskualdea da salbuespena. Iribarnegarairen ebanjelioan *-tzat* nagusi da, nahiz baden *-tako-ren* adibide bat edo beste ere: *beretzat* (32), *deurriaantzat* ‘deabruarentzat’ (73), *dizipulantzat* (39), *gizonentzat* (52), *hobe da zuetzat* (55) / *aita familiakuindako* (60); *bainan ene aitak prepaatu deetenendako da* (60); *bat zuretaco, bat Moisesen* (54). Ibarrolako Salaberriren 1856ko itzulpenean ere gehiago ageri da *-tzat*, baina ez da *-tako* falta.

### 2.3.3.8. Instrumentala

2.3.3.8.1. Instrumentalak Euskal Herriko ekialdean idazki zaharretan duen agente eginkizuna erakusten du inoiz *Pratica*-k: *corona iraupenari choilki duçu Jesu-Christhoz hitcemana* (63); *anitzcez eçaguthia duçu Paphnuça deitcen cen Abadiaren istoria* (143). Etxeparek ez dakar honelako adibiderik, baina Leizarragak, Oihenartek, Belapeirek, Mercyk, Bazkazaneko 1762ko predikuek, Laneufville izeneko katiximak, *Charlemagne* pastoralak eta xix. mendeko Salaberri eta Iribarnegarai baxenabartarrek baditzute adibideak.

2.3.3.8.2. Euskara zaharrean bezala, *-(t)zaz* da erakusleen eta izenordain pertsonalen instrumentaleko atzizkia Nafarroa Behereko testu zaharrenetan eta horrela dakar *Pratica*-k ere: *nitçaz* (57), *gutçaz* (19, 40), *hartçaz* (354), *hortçaz* (251). Bigarren mai-lako erakusle pluralak nahiz *berak* izenordainak *-za-*gabeko aldaera dute ere: *horietçaz* (162) / *horiez* (76); *çunbaitec erran cirocie, beretçaz den beçanbat, bardin litçakeela eri ala osso içaithia* (328) / *moyen berez cerbitzcha quintakeçu* (428). Zuberoan are izenetan ageri da *-tzaz* pluralean: *bekhatietçaz* (90) 1706ko Oloroeko katiximan, nahiz testu honetan pluralean nagusi den *-ez*; *gaichtouetçaz* dakar Maisterrek ere (tabla) eta Mercyk *othoitceçaz* (1758: 52). Dena den, badira *-za-* gabeko aldaerak erakusleetan Zuberoan: cf. Oloroeko katiximako *honez* (27), *horrez* (95), *harez* (74), *horiez* (97), baina baita *hartçaz* (41) ere; cf. *Antiokiako San Julian* past: *horrez* (94), baina baita testu berean *certçaz* (102) ere. Mercyk *horiez betheric* (1780: 4) / *oraco hoyez* (15) / *egun harez* (23) / *hayez digne içateco* (18) adibideak dakartzza, baina baita *arrazou berayetçaz* ere (11).

Aldiz, Laneufville-ren 1786ko katiximan eskualdean berriago dirudien *-taz* aldaaren adibideak ditugu erakusleetan: *hetaz* & *hotaz* (biak 1740ko manamenduaren pasartean); badira bestelakoak ere: *hotzaz* (72). 1762ko Bazkazaneko predikuetan ere ezaugarri berria nahiz zaharra nahaska dator, *-taz* ugariago bada ere: *nitas* (172), *huntas* (231), *hortas* (201), *hotas* (202), *hetas* (175) & *hetaz* (191, 212) / *harçaz* (211) & *hartçaz* (214, 216), *hetças* (175). Egiazki, *-(t)az* aldaera berriago hau da XIX. mendeko idazkietan Nafarroa Beherean nagusi ageri dena.

2.3.3.8.3. Dena den, geroagoko garaian analogiaz pluralean agertuko den *-etaz* falta da *Pratica-n*, *-ez* da izenen plurala instrumentalean: *halacuez* (26), *eta bihotzceco hazper eta oihiez* (134). Baigorri Iribarne garaik *bercetaz* (32) dakar XIX.ean eta Garaiko Jondoni Juaneren ebanjelioan *guzietaz* (115) ageri da.

### 2.3.3.9. *Prolatiboa*

Prolatiboa idazle zaharrek eta lapurtarrek bereziki *-tzat* atzizkia dakarte, baina ekialdeko ohituretarat jotzen duten idazleen artean ez da *-tako* falta, eta idazle berrietenetan ere indarrean da *-tako*. *Pratica-n* bi erak ditugu: *aboro hetara ez erorteco erre-mediotçat baliatcen tuçu* (50); *harc bere beithan beste erremedio guciac cerratcen tici*. *Gincoac berac eman cirakoçun halacoçat Abrahami* (72), baina baita beste aldaera ere: *Ainguriec oraidanic bere lagunetaco atchikiten guiticie* (96); *Erregue ukenen diela adiskidetaco* (354). Laneufville izeneko katiximak ere badakar: *hartu guitienaz gueroz bere haurretaco* (69). Garaziko Bazkazaneko 1790eko idazkietan *-tzat* dator: *buruçaguitçat eçagutu* (108); *Eliçac bere arçainçat, eçagut ez ditçaquenac* (109); ordea, Orpustanek dioenez egun Garazin ez da *-tzat* prolatiboa baliatzen (1991: 125). XIX. mendeko idazkietan bederen, *-tako* ibiltzen da Baxenabarren. Caz SM: *zaukelakotz profeta batendako* (43); Salab SM: *ukhanen ditu exaietako bere etchekuak* (58). Alta, Baigorriko ebanjelioan *-tzat* dugu: *zure hitzetaik izaintzira huntzat zautia* (44).

### 2.3.3.10. *Inesiboa*

2.3.3.10.1. Inesibo zaharreko adibideak usu ageri dira idazki zaharretan, XVII. mendetik honat, baina ekialdeko idazleen lanetan izaten da: Oihenart, Tartas, Baxenabarreko 1651ko pregariak, Belapeire edo Mercy dira erabiltzaileak. *Pratica* ere lekuko da: *eguiaz adiskide batec bere adiskide maithiaren etchen sartcia desiratcen dien beno aboro* (25); *Jauna, Zachearen etchen sarthu cinenian erran cindiena* (211); *Ama hirian baitcen, gin onduan bere semia etci etchen idireiten* (223). Erronkariko euskaran etsen aldaera baliatzen zen. Oro har, *etxen / etxi(a)n* bereizketak ‘norberaren etxea’ vs. ‘besterena’ bereizten du, beti horrela izaten ez bada ere. Aldiz, Etxepareraren jokaeran ez da honelakorik: *echian den gauça oro gayzqui erreglaturic* (120); *gure echian ohart vadaquizquigu* (204); eta horra Leizaragarena ere: *eta cioela, Iauna, ene muthilla dia-tzac etchean paralyticu, gaizqui tormentatua* (13r); *ezta Prophetabat desohoratzan bere herrian, eta ahaidén artean, eta bere etchean baicen* (70v). XIX. mendeko Baigorriko idazkian ere ez da ageri: *sehi bat perlesiaz yoa dao ene etchian* (33); *argi dezan etchian diren guzier* (27).

2.3.3.10.2. Inesiboa loturako bokalik gabe ageri dira Zuberoan *arrats* eta *goiz hitzak*: 1706ko Oloroeko katiximan ditugu *goyçan* (1, 5), *arratsan oheratcoan* (89) edo

*goyçan eta arratsan* (53) adibideak, nahiz badakarren mugagabean jokaturik ere: *eliçaren maniac goiz arratsen oracioniaren landan* (7) edo *arratsen* (5, 8). *Charlemagne* pastoralak ere *bihar goiçan* adibidea (177) dakar. Zuberoa barreneko agerpen eta txandaketa hau gora-behera, Baxenabarreko idazkietan ez da “goizan” edo “arratsan” & “arratsen” erako aldaerarik baliatzen.

*Pratica-n goician eta axian* (298) aipa daiteke eta grafiaren alderditik so eginik, *goizcian* (55, 208) & *goician* (91, 100...) txandaketa dugu itzulpenean. Halaz guztiz ere, bada aipagai bat gure *Pratica* dela eta. Inesiboan jokatzen den *gañ postposizioak gagnan* aldaera dakar liburuan: *hitz horien gagnan* (17); *dugun ikuz horren gagnan Seindiec cer seindimendu duten* (38); *hotan gagnan goguaketatu niçan aldi oroz* (35); *heriuaren gagnan meditacione eguiten dugunian* (86); *beste orotan gagnan dien abanthailhez* (87); ezker genitiboa du ia beti *gañan-ek*, baina baita inoiz inesiboa ere. Bakarra da salbuespna, liburuak *gañ* inesibo mugatu singularrean dakinrena: *eguia horren gagnian fedesco acto baten choilki eguiñez* (77); itzulpenak ez dakar *gañian-en* adibide hau baizik.

Zuberoan, berriz, ez dugu \*\*“gañan” aurkitu, ezkerrean inesiboa duen *gañen* aldaera ibili izan da herrialde honetan. Hamaika adibide ditugu testurik testu: 1706ko Oloroeko katiximak, besteak beste, *eracousten deyzcun gayctan gagnen* (98) edo *gutan gaignen pphotere edo authoritate dien guiac* (67) dakartzza, eta Maisterrek *bere tentacionetan gagnen* (29). Eskiulako 1758ko idazkian *heben gagnen* (9) ageri da eta herri bereko 1780koan *obra hounetan gagnen* (25). Bestalde, *gañian* ere bada Zuberoan: *althe gagnian* dakar Maisterrek (150).

2.3.3.10.3. Mendebareko nahiz ekialdeko testu zaharrenetan gauza arrunta da biziunekin -ta- ibiltzea, lekuzko kasuetan ageri den morfema; Etxepare dugu lekuo: *berritueac vehar luque guïçonetan handiago / emaztetan nic dacussat honguiz ere guehiago* (122). Ipar Euskal Herrian ohi bezala izenordainekin eta zenbait izen berezirekin ibiltzen da *Pratica-n*: *çutan seinditcen ezzaduçu gosse eta egarri hora* (35) / *Jesu-Christotan listreatcen duten bertuther* (101); *Gincoaz oro bethia cirela, oro ingurathbia, Gincoatan iguerica beçala çaudela* (75).

2.3.3.10.4. Atzizki lokatiboa jokatzean honen ezkerrean inesiboko morfema agertu ohi da Zuberoan, baina ez da ageri ezaugarri hau Nafarroa Behereko idazleean, ezta 1782ko gure *Pratica-n* ere: adibide *n-dunik* ez da ageri.

Oihenartek *bertanko* (434) dakar, baina esate baterako, B. Etxauzek *etxeko*; ohart, gainera, atsotitza dela Oihenartena, beharbada herriaren ahotik bildua; ezaugarri hau ez du Oihenartek bere idazkietan sistematikoki baliatzen. Tartasek ere ez du ezaugarri hau biziki baliatzen, baina *Arima* liburuan adibide bat bildu dugu: *echenco baquia 'etxeko bakea'* (85); gaineratekoan, Zuberoan ere ohikoak diren *lurreko, arratsek, hatsarreko, ehizeko, ezkuineko* edo *ezkerrekoea* baliatzen ditu *Arima-n* Tartasek. Dakigunez, Zuberoako idazki zaharretan ezaguna da hitz jakin batzuetan inesiboa agertze hau: *goiçanco othoitciaren landan* (5) eta *goyçanco oracionia* (2) dakartzza Oloroeko katiximak (1706); *goiçanco othoitciaren* (19) Resseguek (1758); *hamassey denetic landanco lehen igantia* (9), *goyçanco eta arratseco othoitciary* (31), *hilcety landanco bilkhu-ran* (34) Mercyk 1780an.

2.3.3.10.5. Ez da harritzeko Nafarroa Beherean perpaus kontzesiboetan “aditz partizipioa + -(r)ikan ere” era aurkitzea, baina ez da hain arrunta inesibo pleonastikoa partitiboan edo ablatiboan gertatzea. *Pratica-n* ez da egitura hau ageri, ezta perpaus

kontzesiboetan ere: *cofessaturic ere* (111), *einic ere* (20), *emanic ere* (80), *erranic ere* (66), *etçanic ere* (118), *içanic ere* (53, 76, 108), *orbituric ere* (89), *ukenic ere* (23, 51)...

Cazenavek Bonaparterentzat XIX. mendean Garazi aldeko mintzora egin itzulpeñetan, ordea, badira adibideak. Ohiko *izanikan ere* (151, 167) dugu Donibane-Garaziko katiximan, baina baita *baizikan* (152) eta *ezikan* (157) ere. Cazenavek berak San Mathiuren ebanjelioan *baizikan* (24, 26) eta *ezikan* (25) dakartza, eta baita partitiboan jokaturikako bi hitz ere: *zinikan* (25) eta *hunikan* (29); badakar beste bat ablatiboan ere: *hantikan* (25, 33, 38, 41). Jondoni Juaneren apokalipsian, Salaberri Ibarrolakoaren San Mathiuren ebanjelioan eta Bazkazaneko 1790eko idazkietan ez da honelakorik ageri, baina Bazkazanen agertu 1762ko predikuetan inesiboko atzizkia duen partitiboko adibide pare bat dator: *deusican e[r]je* (199) / *emeçue jende probier goisetaco edo arraxetaco errepassetan esparniatcen duçuyen gauça hetarican cerbait* (229).

Aspaldiago, *biderican* (214) dakar Etxeparek, liburu guztiko adibide bakarra partitiboan eta baditu, bestalde, *ixilica* (116) moduzkoan eta *cerutica iayxi* (126) ablatiboan, inesiboko morfemarik gabekoak. Ordea, -n-duna da Tartasen *aitcitican* (*Onsa*, 9), eta Lapurdin ere ageri dira: Argaiñaratzek *deusican* (6), *disgusturican* (17), *delarican* (6), *orroiturican* (41), *aitcitican* (19) dakartza eta Xuriok *horietarican* (174) edo *hargatican* (400). Nafarroa Garaian Beriainek aditzeko -rik atzizkian dakar inesibokoa: *criaturican* (1621: 93v).

### 2.3.3.11. Ablatiboa

2.3.3.11.1. Ekialdeko idazki batean ez da harritzeko ablatiboan -ti aldaera agertzea: *Celuti lurrera geuxi* (233); *gorati erraiten cicin orori* (326); *peredicuti landan* (230); *Templuti jalgui çuçun* (274). Baina bada -tik ere eta nagusi da liburuan: *bihotzcetic*, *erditic*, *gogotic*, *hantic*, *haxetic*, *ondotic*, *ordutic*... Eguzki aldekoak dira ablatibo singularrean -ti baliatzen duten idazle baxenabartar zaharrak; aldiz, Etxeparek, Leizarragak edo B. Etxauzek ez darabilte -tik baizik. Oihenart edo Tartas -ti & -tik-en era-biltzaile ditugu eta berdin gertatzen da Laneufville izeneko 1786ko katiximan ere; aldiz, XIX. mendeko Baxenabarreko idazkietan -tik nagusi da. Zuberoan aspalditik ageri da -tik: Belak, Belapeirek edo Maisterrek baliatzen zuten; aldiz, Oloroeko katiximan, Eskiuak bi argitalpenetan edo pastoraletan, -ti & -tik, bi aldaerak ageri dira.

2.3.3.11.2. Atzizkiaren aldaeraz bada ohar gehiago egiteko oraino; *barnatik* dugu *Pratica-n* adibide batean, garden-garden ablatiboan emanik, baina *barnatik-en* liburuko kasu bakarra da. Grafiaren itxurari dagokionez, guztiz ziurra da idazkera hori: *noiz-eta-ere gure miserien, eta flakecien barnatic eçagutcen ari guirenian...* (291). Egungo euskaran Txomin Peillen zuberotarraren adibide paralelo bat eman dezakigu, Junes Casenave-Harigileren omenez 2010eko uultailean idatzia: *Ziberoako eüs-kara barnatik ikasirik.*

Ordea, liburu honetan <t> eta <r> grafia ez dira batzuetan ongi bereizten eta ondorioz, kasu batzuetan ez dakigu hitzak atzizki ablatiboa ala partitiboa daraman, hau da, moduzkoa ere baden -rik ala -tik daraman. Nolanahi ere den, letra etzanean ongi bereizten dira <r> eta <t> eta hartara, garbi dakusagu badirela liburuan *barnaric-en* bizpahiru adibide; beharbada ez dira ablatibo zahar garbiak, moduzko -rik baizik. 116-koa zalantzarak gabe -rik da, baiezko perpusean baliatua: *eguinen dicit goguaketa*

*barnaric*; halakoxea da *barnaric* 288-n ere: *hortan badiici anitz arraçoin goguaketa fi-nic, eta barnaric eguiteco;* 125-n ere <r> dela dirudi, eta adibide honetan moduzko adiera du: *eta aski barnaric pundu guciac examinatu gabe;* adizlaguntzat jo liteke *barnarik* hori.

2.3.3.11.3. Eguzkia -ganik atzizkiarekin ageri da liburuko pasarte batean: *philosophec ciocie arguiçaiac esthiela bere beitharic arguiric, ekiaganic erecebitcen diena becic* (73).

2.3.3.11.4. Ez da ageri *Pratica*-n Etxeparereren lanean dagoen -tika ablatiborik; cf. haren *cerutica iayxi cedin* (126).

### 2.3.3.12. Adlatiboa

Adlatiboko -la, nagusiki ekialdeko idazle baxenabartarrek darabilte. Etxeparereren erabilera ez dugu sumatu, ez -a bokalez bukatu hitzetan, ez beste bokalez bukatuetan, ez kontsonantez bukatuetan, ezta leku izen berezieta ere, -ra ibiltzen du beti. 1782ko gure *Pratica*-k berezko -a duten hitzetan baizik ez darabil -la: *arimala* (40, 222), *heuzcarala* (3), *tombala* (355) / *aitcinera* (447), *etchera* (24), *gorpitzcera* (222), *hourperat* (42), *itxassorat* (43). Laneuville izeneko katiximan ere -a-z bukatuetan dugu: *goure hautala* (31), *bere imaginala* (31), *mesperetala* (102), *penitenciala* (24) / *idurira* (31), *parauçurat* (10). Aldiz, XIX. mendeko Donapaleuko katiximan -la ez da -a bokalean bukatu hitzetara mugatzen: *ifernulat* (241), *pharauzialat* (241); pluralean ere berdin: *ifernietalat* (224, 230), *zelietalat* (224, 230); aditz izenarekin -ra dakar: *arraberritzeä* (244), *erortzeä* (232), *salutatzeä* (233); baita birdeklinoazioan ere: *zelurako* (238); horiezaz landa *gañera* dakar (244); pluralean ere bada -ra: *bietara* (243), *gisetara* (243), *huñetaä* (244, 245).

Tartasengan Zuberoako ohitura ageri da, -a bokalaz bukatu hitzez landa ingurune gehiago dira -la hartzen dutenak: *alde batiala* (60), *dantçala* (55). Belapeirek ere berdin: *catechimala* (I, 24), *celialat* (I, 140) —pluralean *celietrat* (I, 35)—, *gagnela* (I, 92), *igantiala* (II, 8), *ordokiala* (I, 36). Olor kat (1706): *iferniala* (17), *adiniala* (76), *suyala* (36), *uduriala* (25), *utsutarçuniala* (94), *gogortarçuniala* (95), *eternaliala* (95), *odoliala* (97); bestalde, -alat dugu: *gueroalat* (106), *ifernialat* (19), *ppharadussialat* (19, 44); bada -rat ere: *ppharadussiti camporat* (25) eta pluralean *inferniatarat* (25). Mercy (1780): *bihotz hori gaitciala bethi ekharria* (23). *Sainta Catherina* pastorala: *biskarila* (534).

### 2.3.3.13. Muga adlatiboa

Muga adlatiboa -rano atzizkia dugu nagusi *Pratica*-n: *burthiniranokuan* (158), *Celurano* (76), *emaiterano* (172), *finerano* (63), *hil arteranokuan* (64), *pundurano* (27). Aldaera honek Ipar Euskal Herrian hedadura handia izan du garai zahar nahiz berrieta; Leizarraga eta Oihenartez landa XIX. mendeko Baxenabarreko kristau ikas-bideak aipa ditzakegu erabiltzaile. Donam kat: *bulharretaano* (227), *tenoreaaa* (225). Donam kat: *akhaantzaano* (269). Caz JJ: *hatseano* (110). Irib SM: *akhaantzaano* (39), *azkeneraano* (69), *Dabiteaano* (21), *korleraano* (76).

Ezin esan, ordea, -raino Baxenabarren ez denik. Bazkazane 1762: *ceruraino* (196). Laneuville: *egundaigno* (155), *undar extremitateraino* (155).

Zuberoan, berriz, -(a)lano aldaera ageri da, Oloroeko katiximan —igantialano (77)— edo Eskiulan (1758): bestilano (28); *dey itçaçu eta gora jagoötico içatianalo* (50).

Baina *Pratica*-n bada noraderano aldera ere (160, 420). Ekialdeko egitura konplexu eta itxuraz pleonastiko batekin loturik dago aldaera hau: -rad(v)rano & -lad(v)rano ereduia izenda dezakegu, euskara zaharreko ereduia, Leizarraaga eta Oihenart erabiltzaile izan zirenez; v irudikatu dugun bokal hori a dela dirudi, eskualde batzuetan sinkopaturik ageri dena. Era honekin lotura dukete Oihenarten *geurzdara* (88) ‘datorren urtera’ eta *bihar dara gabe gaur* (*Charlemagne*, 331) adibideek. Euskal Herriko eguzkialdeko hainbat adibide eman ditzakegu: *oraydranicq ablatiboa Antiokiako San Julian* pastoralean (52), zeina Mercyk *oraydranic* dakarren (1780: 6). *Charlemagne*-n *dejaradaniq* (191) ageri da, non *deja + daranik* > *dejaradanik* metatesia gertatu baita (Oihartzabal 1991: 191). Erronkarin ere baliatu ohi zen atzizkia, -radraino (sing.) & -tradraino (pl.) era luzea lekuko.

Garai bateko idazle edo idazkiak banaka aurkezten ditugu. Leizarraaga: *noizdrano* (78v), *oraindrano* (266v). Oihenart: *oradrano* (313, 486) eta pluralean *gauerditrano* (136). Tartas: *bihardraiño* (*Onsa*, 95), *egundraiño* (*Onsa*, 95), *goteladrano* (*Onsa*, 125), *hobialadrano* (*Onsa*, 45), *tiniradraño* (*Onsa*, 115). Olor kat (1706): *ereditara drano* (103), *erreguetara drano* (77), *oraydrano* (2, 13), *mea culpala drano* (92). Maister: *bihotciala drano* (54), *eguitiala drano* (287), *hagnbestera drano* (xv) edo *haustiala drano* (121). Antiokiako San Julian past: *batailaladrano* (42), *chortaladrano* (63). Mercy (1780): *Benedictione ondouala drano* (21); *içan diratian ethetic haren hobiala drano* (35). Santa Catherina past: *gastelialadrano* (565), *udalaradano* (552).

### 2.3.3.14. Genitibo lokatiboa

Ohiko balio lokatiboa du -ko atzizkiak: *eta hura guiza batez çure eskuko uken behar duçu* (66); *Grenadako lehen Archapezpikiaz* (251); *elgarren arteko amorio hunaren beguiratceco* (432).

### 2.3.4. Birdeklinazioa

2.3.4.1. Funtzio sintaktikoa du -ko atzizkiak izenak lotzen dituenean. Ablatiboko atzizkia daraman *zelu* hitzari lotu zaio *celutico hazkurru horrec* (216) adibidean; liburuaren itzultzialeak *céleste* izenondoa ordezkatzenko darabil *zelutiko*: *Celutico Mahain hura* (384). Instrumentalari ere atxiki dakioko: *Gincoasco erran batez* (107); berebat, *oroz gañ* partikulak ablatiboa duenean: *oros gagnetico erremedio bat* (384). Adlatiboari eransten zaio honako erakusleetan: *hareganaco gauça guciаc* (22); *hetarako flakecia* (434); *bertuthe heeganaco affeccionia edo amoriuа* (187); *heeganaco desir gaistuetaric* (357). Soziatiboari erakusle honetan: *harekilaco unionе anitz altchatu eta perfeitaz den beçanbat* (112); baita *elgar* izenordainari ere: *heen elgarrekilaco minçatciac* (374); *bere arimen prootchia elgarrekilaco minçatcetan cherkatcen dutela* (375); *elgarganaco amo-riuaren eçarteco* (447).

Adizlagunak ere sortzen ditu: *hartaraco* (12), *hetaraco* (147). Beste adibide honiek ere adizlaguna dirudi, baina izan liteke izenlaguna ere: *meditacione equiteco pre-*

*paracione guciac cerratu behar diici hartaraco pundien edo içarien goguan unxa hartz-cian* (126).

2.3.4.2. Euskara zaharrean legez, jabego genitiboaren gainean eraiki diren kasutzizkien lotura zenbaitetan ez da Nafarroa Behereko idazki zaharretan *-n*-rik ageri. Bizidunen kasuko *honegana* (96) edo *çuyeganic* ‘zuenganik’ (64) dakartza Etxeparek. Berebat, *haregana* ‘harengana’ (359) edo *hareganik* ‘harengandik’ (129) adibideak ageri dira *Pratica*-n 1782an; ordea, mende bat iragan gabe, Cazenave itzultzai-learen San Mathiuiin Ebanjelioko *zienganat* ‘zuenganat’ adibidean *-n-* berria dugu. XVIII. mendean lehia dagoela erakusten dute Bazkazaneko 1762ko predikuek: *harenganic* (169), *batenganic* (209) / *haregana* (209). Zuberoan *haregana* dugu *Sainta Catherina* pastoralean (590). Lapurdin bestela dira aferak, lehen idazkietarik ageri da *n* adibideetan. Leizarragak badarabil *n* hori: *harengana* (66r, 114v), *harenganic* (106v), eta berdin baliatzen du Ziburuko Etxeberrik MD-n ere: *haren gana darauntsgu nola uhiñac costara* (156).

Motibatiboko kasuan, estate batera, garden ageri da Baxenabarren adibide *-n*-du-nak berankorrik direla. Bestalde, Euskal Herriko beste leku batzuetan bezala, jabego genitiborik gabe, motibatiboa absolutiboa oinarritu daitekeela ere garbi ageri da adibide zaharretan, batez ere deklinatzen dena erakusle edo izenordaina ez, baizik eta osagai lexikoa denean: *bekatuacgatic* (272v), *infidelacgatic* (273r), *çuen gucioc gatic* (266v) darabiltza Leizarragak. Halaber, egungo erabilera bezala, absolutiboa oinarritu izenordainak ere badira motibatiboa, esaterako Tartasen *gugati* (*Ontsa*, 97). 1651ko pregariak salbuespentzat hartzen baditugu —pregariok Lapurdiko eragina dutela dirudi—, kasu motibatiboa *-n-* agertzea XIX. mendeko gertakari berria da Nafarroa Beherean; Etxepare: *bategatic* (10), *honegatic* (4), *hoyegatic* (66), *penegatic* (220), *çuyegatic* ‘zuengatik’ (67) / *cerengatic* (180). Leizarraga: *hunegatik*. Tartas: *hargati* (*Ontsa*, 97). Zuberoan Belapeireren katixima, 1676ko *Pronus*, Maister edo Mercy aipa daitezke, guztiak *-n*-rik gabeak eta *Edipa*, *Sainta Catherina* edo *Charlemagne* pastoraletan ere berdin gertatzen da.

*Pratica*-k ez dakar “-(r)engatik” bat bera ere: *ainguriegatic* (254), *bategatic* (433), *becathiegatic* (320), *çoinhegatic* (semantikoki plurala, 155), *deuzegatic* ere (148), *eitekuegatic* (14, 15), *heegatic* (44, 434), *horiegatic* (397); baita egun arruntak diren beste honakoak ere: *cergatic* (358), *hargati* (358), *içraithiagatic* (355). Laneufvillek 1786an eginarazi katixima: *othoitz eguiçu gu becatore gatic* (74). 1651ko pregarietan bi erak ageri dira: *bi arraçoin principalcatic* (2), *dituztenegatic* (11), *guciegatic* (10), baina baita sail berriagokoak ere: *erharçunetan direnenengatic* (12), *periletan dabilçanengatic* (12), *vici direnengatic* (11). Salbuespen hau eginik XIX. mendekoak dira -(r)engatik egituraren lehen agerraldiak Baxenabarren. Donam kat: *bekhatiaan gatik* (270), *zuentasunaan gatik* (268). Caz JJ: *izenaingatik* (110). Caz SM: *hautatien gatik* (64), *horren gatik* (38), *zitienen gatik* (44). Salab SM: *izenaren gatik* (117), *yenden gatik* (84). Irib SM: *hitzain gatik* (46), *yustiziaingatik* (27).

### 2.3.5. Gobernuak

Aditz bakoitzak kasu marka berezi bat galdegiten edo gobernatzeten du osagarrian; ikus ditzagun atzikirik atzikizi:

*Inesiboa:*

Hasi: *guiçon berri batetara kambiatcen hassico cira eta ossoki bicitce seindu baten eremaiten* (122).

*Ablatiboa*

Beiratu: *doliaren ukeithia erremedio azkar bat dela hetara berris erortetic beiratceco* (51).

*Adlatiboa*

Deliberatu: *costuma haren uztera ez behin ere ossoki ez finki deliberatcen* (41).

Ekarri: *ikusthiac edo consideratciac ekarrico guitici gure indar oroz haren cerbitzchatcera* (155); o *Virgina, beti Virgina, beti socorritcera ekarria* (383); *gure inclinacione gaistua, unxaren beno, gaiskiaren sinhestera lasterrago ekarria duçu* (420).

Eman: *communicatcera eman beno lehen* (194); *heen errengue bati eman den beçala eçartera* (205).

Gomitatu: *Gincoac berac berharen jatera mahainhera gomitatcen dienian* (199).

Hurrandu: *ezkithakeenaz gueroz behin ere hurrant abal Mahain Sacratu harc mirechi dien disposizione ossquareki haren errecebitcera* (199).

Intseatu: *inxeatuco duçu bere abhalaz Gincoazco gaucetan aitcina joaitera* (12).

Jarraiki: *berroguei urte hartan meditacioniaren eguitera jarraikiten cela* (142).

Jin: *behin hoztera giten bada eta gogortcera* (46).

Joan: *geikiten cela otoitzçaren eguitera joaiteco* (17).

Lehiatu: *eztu hargatic lehiatcen heen garxuki desiratcera* (123).

Menturatu: *çoin Aldarerat hurrantcera epaitcen menturatcen* (197).

Preparatu: *haren errecebitcera preparaceco* (206).

Utzi: *Jauna, joaitera etxitut utciren çure benedicionia uken artecan* (211); *ounciari hora sarthuz eta hartan sarcera lachoki utciz* (42).

*Instrumentala*

Joan: *bethi eta hanbat aboro perfeccionian aitcinatuz dihatçu* (19).

Aipa litezke, bestalde, izen sintagman kasu atzizki jakin bat hartzen duten aditzak. Eman dezagun, *fidatu*: menpeko perpaus konpletiboa hartu ohi du eta izen sintagmak biltzean, berriz, datiboa ala inesiboa: *eztugula gure burier edo indarrer fidatu behar* (292) / *gure beithan batere ez fidatu, Gincoatan, aldiz, anitz* (296).

**2.3.6. Eratorpen atzizkien zerrenda**

Lehenik atzizkien zerrenda dakargu, ageri diren hitzei itsatsirik; argi denez, adibide batzuetan zalantza egon liteke zerrendakoa euskal atzizkia den, ala maileguek dakarten atzizki erromaniko gordina ote den. Ondoko atalean liburuko bi eratorpen atzizkiren aldaerez egin litezkeen iruzkinak datozen:

-ada: *armada, entrada, parada*

- aldi: liburu honetan ez da emankorra, *ukaldi* hitzean baizik ez dugu aurkitu
- ari (1): *auhari*, *baraskariten* & *bazkaritera*, *edari*, *izari*, *janhari*
- ari (2): *gobernari*, *ibiltzari*, *jokakari*, *kantari*, *laborari*, *mandatari*, *sekretari*, *urrikari*, *zerbitxari*
- bide: *eginbide*, *irabazbide*
- dun: *estakurudun*, *heuskaldun*, *kargudun*, *ogendun*, *zordun*
- dura: *augadura*, *barreadura*, *deidura*, *erordura*, *eskasdura*, *hedadura*, *hotzdura*, *idordura*, *izidura*, *usteldura*
- gaillu: *edergaillu*
- garri: *adoragarri*, *deithoragarri*, *desiragarri*, *eneagarri*, *engenagarri*, *errespetagarri*, *estonagarri*, *galgarri*, *gogañgarri*, *hastiagarri*, *higungarri*, *hilgarri*, *hiragarri*, *hungarri*, *ikaragarri*, *itzusgarri*, *izigarri*, *kondenagarri*, *konsolagarri*, *laidogarri*, *laketgarri*, *laudagarri*, *maithagarri*, *mezperetxagarri*, *miragarri*, *okaztagarri*, *osagari* & *osogarri*, *phenagarri*, *pietategarri*, *salbagarri*, *xarmagarri*
- gile: *langile*
- ka: *aldi-aldiska*, *arrapostuka*, *gaindika*, *kontreka*, *xilintxaka*; baita aditzekin ere: *atzimanka*; *bortxaka* ere aditzetik datorrela uler liteke, *bortxa* izena eta *bortxatu* aditza dira *Pratica-n*; harrapatze adieran *arrayinka*
- kal: *aldikal*, *bakoitzkal*, *bertutekal*, *egunkal*, *hitzkal*, *mezakal*, *misteriokal*, *pundukal*, *seindimendukal*, *urhaskal*
- kara: *meskontentkara*
- keria: *arhinkeria*, *auherkeria*, *erhokeria*, *errrankeria*, *ezdeuskeria*, *faltsukeria*, *gaiztakeria* & *gaistakeria* & *gastakeria*, *itsuskeria*, *jeloskeria*, *hotzkeria*, *laxakeria* & *laxokeria*, *lizonkeria*, *lohikeria*, *ohoinkeria*, *satsukeria*, *sofrikeria*
- ki: *ahalgazunki*, *aiseki*, *alegeraki*, *amoratsuki*, *arbinzki*, *arranguroske*, *bakarki*, *berbeziki*, *berokiago*, *bihotztoiki*, *biziki*, *bolontroski*, *bortitzki*, *deboki*, *dignoki*, *dilienki*, *diskreki*, *ederki*, *egiazki*, *emeki*, *endeski*, *erhotuki*, *erneki*, *eternalki*, *eza-beki*, *eztiki*, *fermoki*, *fidelki*, *finki*, *flakoki*, *frangoki*, *gaizki*, *garrazki*, *gartsuki*, *gogorki*, *goraki*, *guriki*, *handiki* & *handizki*, *hedarutukiago*, *hobeki*, *hotzki*, *idorki*, *igualki*, *ihiki*, *infinitoki*, *injustoki*, *inutilki*, *ispiritualki*, *itsuski*, *jeneralki*, *justoki*, *karioski*, *klarki*, *komunski*, *krudelki*, *kurajoski*, *laburzki*, *lanjeroski*, *lañoki*, *laxoki*, *lealki*, *libroki*, *malburoske*, *minki*, *miragarriki*, *mortalki*, *nagiki*, *naturalki*, *nezesarioki*, *oneski*, *ordenariozki*, *osoki*, *pazienki*, *pherestuki*, *perfeiki*, *preziatuki*, *preziski*, *prootxoski*, *purki*, *sakramentalki*, *segreki*, *segurki*, *seinduki*, *senthatuki*, *serioski*, *simpleki*, *subitoki*, *tendreki*, *tinki*, *uroske*, *xarki*, *xinpleki*, *xoilkki*, *xothilki*, *zuhurki*
- koi: *bihoztoi*
- kor: *erorkor*, *gaitzenkor*, *galkor*, *hauskor*, *igarankor*, *iraukor*, *kaltekor*, *kanbiakor*, *sinheskor*
- lari: *ihizlari*
- le: *emaile*, *erraile*, *igaraile*, *jasaile*
- os: *arranguros*, *artifizios*, *balios*, *bekatoros*, *bertutos*, *bolontroski*, *glorios*, *handios*, *je-loskeria*, *karioski*, *karitatos*, *kurajos*, *lanjeros*, *maluros*, *mirakulos*, *miserikordios*, *misterios*, *penos*, *probetxos* & *prootxos*, *religios*, *serios*, *skrupulos*, *uros*
- pen: *arrerospen*, *beherapen*, *berriapen*, *gorapen*, *hasperapen*, *hastapen*, *iduripen*, *iraupen*, *itxurapen*

-tarzun: aberastarzun, adiskidetarzun, aisatarzun, apaltarzun, arbintarzun, barkerazun, baliostarzun, barnatarzun, berotarzun, bizitarzun, boritztarzun, dohatsutarzun, edertarzun, epeltarzun, eritarzun, ernetarzun, erregetarzun, eskergabetarzun, esklabotarzun, eskastarzun, ezdeustarzun, eztitarzun, garbitarzun, garraztarzun, gaztetarzun, giristinotarzun, gizontarzun, goratarzun, goritarzun, handiostarzun, handitarzun, huntarzun, indignotarzun, itsustarzun & itxustarzun, ixiltarzun, jinkotarzun, justotarzun, kaptibatarzun, karastarzun, laburtarzun, lañotarzun, laxotarzun, luzetarzun, poillitarzun, seindutarzun, sorhaiotarzun, umiltarzun, xahutarzun, xehetarzun, zuhurtarzun

-tatu: ausartatu, hantatu, haustatu, hirritatu, hungi jinztatu, hurtatu, ihiztatu, ipiztatu, kontentatu, lohiztatu, ostattatu, prometatu, saristatu, usustatu

-te(g)i: pijuntei

-tsu: amoratsu, arautsu, bezalakotsu, boteretsu, dohatsu, gartsu, gozatsu, jakintsu, mereximendutsu, moldetsu, satsu, urgulutsu

-tza: egoitza, emaitza, ethortza, ezagutza, ezkontza, higuintza, laguntza, othoitza

-tzapen: orhitzapen & orhixapen, sortzapen

-xe: aitzinexian, barreatuxe, joanxe, <luçatche>

-zale: begirazale, behazale, eheñazale, errazale, exortazale, hilzale, imitazale, inprimuzale, irakurzale, itzulzale, kreazale, manazale, maradikazale, peredikazale, salbazale, salhazale, saltzale, segizale, sendozale, tradizale

-zarren: kanbiazaren

-zia: ezagun du batzuk besteak baino mailegu gordinagoak direla, euskaran arrotzagoak; abarizia, abilezia, alegeranzia, aparanzia & aparenzia, ausartzia, bozthalenzia, desobedienzia, experienzia, exzelencia, finezia, flakezia, grazia, guthizia, justizia, konzienzia, liferenzia, malezia, medisenzia, obedienzia, pazienzia, penitenzia, plazenzia, praubezia, preferenzia, primezia, probidenzia, probinizia, sentenzia, substanzia, tendrezia, zuhurtzia

-zione: adorazione, afekzione, aflikzione, akzione, aprobabzione, arazione, aspirazione, atenzione, benedi(k)zione, damnazione, debozione, deklarazione, desesperazione, desolazione, disposizione, elebazione, errabiazione, erreparazione, erreputazione, erresoluzione, esplikazione, hantazione, imitazione, inkarnakzione, inkisizione, imperfekzione, inklinazione, inspirazione, intenzione, judizione, kondizione, konsekrazione, kontenplazione, kontrizione, korrupzione, kreazione, lekzione, maradikzione, meditazione, mortifikazione, obligazione, okupazione, orazione, perfekzione, persekuzione, prefazione, preparazione, presumizione, punizione, resi<gnh>azione, satisfazione, tentazione, transfigurazione, umilazione

### 2.3.7. Eratorpen atzizkien aldaerak

2.3.7.1. Atzizki mailakatzailleetan ohiko -xe ageri da — *aitcinechian* (232), *joanche* (250), *barreatuche* (424)— baina adibide batean bada *luçatche egon* (293) ere; grafiak irudikatzen duen afrikazio hori *luzaz + -xe* ote da?

2.3.7.2. Baxenabartarren idazkietan ez da XIX. mendea arte ageri -xe atzizkiari itxuraz berranalisi zenbaiten bidez atxikitako -t eraskina, XX. mendeko ahozko mintzoan *hortxetan*, *hantxetan*, *holaxetan* erak eman dituena. *Pratica-k* ez dakar honelako adibiderik. Iribarnegaraiak Baigorriko mintzora itzuli ebanjelioan *holachet* (60) ageri

da. Cazenavek itzuli San Mathiuren ebanjelioan *haächet* (69) aldaera ageri da eranskin hau, non eta -t hori ez den norabide adlatiboari dagokion morfema. Lehenagoko idazkietan ez da ageri; Leizarraga: *harache ioanic* (53). Tartasek *nehoursse* ‘inortxo ere’ (*Onsa*, 11) dakin.

2.3.7.3. Adjektiboak eratzen ditu -os atzikia eta izaera edo joera adierazten du. Lapurdi-Baxenabarretan baliatu ohi da; aldaera hau bera dago gure liburuan: *balios* (11, 48, 95...) & *balioz* (3, 11, 25, 31,...), *bertuthoz* (66, 269, 374, 376, 427, 439, 447) & *bertuthossooric* (404), *glorios* (405), *kourajoz* (309). Liburuan ez da Zuberroako “*balius*”, “*delizius*”, “*glorius*”, “*malerus*”, “*serius*” edo “*urus*” erakoen aztarnarik ageri.

### 2.3.8. Pertsona izenordainak

#### 2.3.8.1. Pertsona izenordain arruntak

*ni, nik, niri, ene, enekin, enetako, nitzaz, nitan, nitarik & eneganik, enegana & eneganat  
hik, hire  
gu, guk, guri, gure, gureki & gurekin, guretako, gutzaz, gutan, gutarik & guganik &  
gureganik, gutara & gugana, gugatik & guregatik  
zu, zuk, zuri, zure, zureki & zurekin, zuretako, zutzaz, zutan, zutarik & zuganik &  
zureganik, zuregana & zureganat  
ziek, ziek, zien, zier, zieki, ziendako, zieganik*

#### 2.3.8.2. Pertsona izenordain hanpatuak

*nihaur, nihaurek, nihauren & neure, nihaurez  
gihaur, gihairek, gihairen, gihaireki, gihairez  
zihaur, zihairek, zihairen  
zihauriek, zihaurien*

2.3.8.3. Pertsona izenordain hanpatuetan —inoiz genitiboan bihurkari ere badienetan— bi sistema ageri dira gure eskualdeko euskara zaharrean. Leizarragaren dugu batetik: *neuror, neurorrec, neure & neurorren / euror, eurorec, eure & euorren / gueuror* (abs.) & *gueuroc* (abs. & erg.), *gueure / ceuroc* (abs. & erg.), *ceuron*. Eredu honetan lehen pertsonaren abiagunea *ni + haur* izan beharrean *neur + haur* da. Eskema hau ez da ongi ezkontzen egun Beskoitzen ibiltzen denarekin, ezta Iran-tzu Epelde ikertzaileak Larresoro alderdi horretan bildu dituen bi sailekin ere (2003: 115). Egungo Beskoitzen bi sail ditugu, Lapurdi aldekoa eta ekialderago jotzen duena: *nihooone & nihoor / hihooone & hihoor / guhoone & guhoor / zuhoone & zuhoor / zihooone & zihoor* (Duhau 1993: 49). Lapurdin nagusi ibili den ereduaz jabetzeko XVI, XVII eta XVIII. mendeetako idazle batzuen aldaerei so egin diezaiekegu:

Materre: *neure / / geurok, geure & gere, geherozi ‘guhaurekin’ / zerori, zeurk* (cf. Lazarragaren *neurk & zeurk* eta Tartasen *neurk*), *zeure*. Axularrek aldaera iduriak ditu: *neror, neurk, neroni* (dat.) / / *geurok / zerori* (abs.), *zeurk*. Sistema honetako eratiboa *neurk, zeurk* erak ditugu, mendebaleko euskalkietan paraleloak dituztenak.

- Ziburuko Etxeberri: *neure / herori* (abs.), *heronek, heure / geure / zeronek, zeure.*
- Harizmendi: */ / / zeror.*
- Argaiñaratz: *neror, nerorentzat / / zerori, zerork.*
- Xurio: *neronek & nerorrek / / gerorrek / zeroni, zeronek & zerorrek.*

Beste saila Baxenabarre eta Zuberoakoa da. Etxeparek *nihaur* (98), *nihaurc* (84), *neure* (6) / *ihaurc* (244) & *ihaurorrec* (56), *eure* (244) / *guhaurc* (38) / *çuhaur* (216), *çuhaurc* (214) & *çuhaurorrec* (238) dakartza. Ez dago Zuberoakotik urrun, baina har- tan pluraletan *i* analogikoa dago: *guihaur, guihauen, guihaurtan / zihaur, zihauereiek* (Belapeire), eta lehen testuetarik da honela Zuberoan: Oloroeko katixima, Maister, Mercy edo pastoralak, oro eskema honi jarraitzen zaizkio.

Zail da izenordain hanpatuen sistemaren artean bereizketa gardenik egitea, alda- ketak leku guztietan garai berean gertatu ez direlako eta sistema bakoitzaren barre- nean ere aldakortasuna izan delako. Esate batera, autore batek berak bi aldaera izan ditzake; Etxeparek *zuhaurk & zuhaurrek* darabiltza, eta Leizarragak *geuror & geu- rok* (biak abs.). Etxeberri Ziburukoak *herori* darabil (abs.), baina ergatiboan *heronek*: XVII, XVIII eta XIX-an Lapurdin *neroni & nerori* erakoak daude eta Xuriok *neronek & nerorrek*, bi paradigmak darabiltza; XIX-an absolutiboan *nerorri* erakoak agertu ziren Lapurdin. Bestalde, diptongoak soildu daitezke eta erakusleen hondar kontsonantea galdu: Leizarragak *neuror* du baina Axularrek *neror* eta Beriain nafarraren *neurau* al- daeran diptongoa soildu ez bada ere, erakuslearen -r falta da; *nerau* honen kide da Estellerriko Eraulgo 1564ko *zerau* eta ez dezagun atzendu Lazarragak ere *neurau* duela.

Egiazki, Etxepare eta XIX. mendeko Baxenabarreko kristau ikasbideetako eskema bateratsu doaz, baina XVIII. mendeko Baxenabarre ekieldeko idazkiek Zuberoara jo- tzen dute. *Pratica* guztiz lerratzen da ekieldera, aldaerok lekuko: *nihaur* (315), *nihau- rec* (4), *nihauen* (422) / *guihaur* (97), *guiaurec* (106), *guihauen* (167), *guihauereki* (409) / *cihaur* (426), *cihaurec* (20), *cihauen* (419) / *cihauriec* (erg., 427), *cihaurien* (271). Aldiz, Laneuville deritzagun 1786ko kristau ikasbideko aldaerak Baxenaba- reko eta Zuberoako sistemaren artean leiratzen dira: *nihaur* (81) / *gouhaurec* (38) & *guiaurec* (111), *guihaur baithan* (113), *guharen daco* (66).

2.3.8.4. Genitiboan, singularreko lehen eta bigarren pertsonen izenordain han- patu edo bihurkariak *neure* eta (*h)eure* izan dira Nafarroa Beherean lehen idazkie- tarik. *Pratica-k*, esaterako, *ene* (5, 6, 7, 8, 15...) / *neure* (152, 242, 282, 283, 287, 295, 300, 312, 351, 363, 364, 379...) bereizten ditu, baina badu *nihauen* ere (422): *guiçonac naussitcen çauskit nihauen beguiratu dudan jujatceco çucenaz eta hartan es- kudaincha hartcen; nihauen horrek ‘enetzat baizik ez’ bezalako zerbait adierazten ote du?* Beste pertsonetan *gihauen*, *zihauen* eta *zihaurien* dakartza *Pratica-k*. Honda- rreko -n horiek berriak dirudite.

Mitxelenak \*hi-haur-e edo \*hi-hor-e zekuskien *heure-ren* jatorrian (1977: 210, 12. oh.) eta ikuspegি honen arabera, *neure* < \*ni-haur-e gertatu zatekeela pentsa dai- teke. Batek esan lezake harrigarri dela protoforma horretarik horren aldaera desber- din guti sortu izana, potentzialki dialektaлизatorako aukera handia izanik. Egiazki, *neure* eta (*h)eure* aspalditik ditugu eremu arras zabalera hedaturik: Euskal Herriko mendebalean, erdialdean —*nere* eta *zere-ra* laburrik gero— eta Ipar Euskal Herri gehienean —ekialdean izan ezik— ageri dira lehen testuetarik. Sistema bakoitzaren

barrenean berrikuntzak agertuz joan dira, Lapurdiko Materrenen *gere* (275) edo Xurioren *nere* (218) eta *cere* (216) aldaerak lekuko.

Egiazki, *neure* eta (*h)eure*-ren agerpen zabal eta bateratu honek aski zaharrak direla adieraz lezake. Nafarroa Behereko idatzietan balizko jatorrizko egitura bezalako aldaerak xix. mendean ageri dira lehen aldiz, izan ere, aitzineko guztiak *neure*, (*h)eure erakoak dira. Hona idazleen adibideak. Etxepare: *çuri neure iaun eta iabia beçala* (6), *çu neure ama vciric* (112), *eguin eçak heure eçagucia* (18) & *vnsa enplegatu duquec heben eure denbora* (244). Leizarraga: *neure*, *eure*. Materre: *neure*. Axular: *neure* & *heure*. Etxeberri Ziburukoa: *heure*. 1651ko pregariak: *neure* (17). Oihernart: *neure* (306), *eure* (90). Tartas: *neuré* (Onsa, 67) & *neure* (Ontsa, 99). Bazkazane 1762: *neure* (201), *heure* (222). Laneufville: *neure* (160), *heure* (14, 101). Donamkat: *neure* (274). Caz JJ: *neure* (114). Caz SM: *heure* (23). Uztaritzeko katiximak ere *neure* dakar.*

Sorburuaren tankera dute testuetan berankorrak diren Nafarroa Behereko hurraren aldaera hauek: xix. mendean Iribarnegaraik Baigorriko euskarara itzuli *Yonassen profezia-n nihauen baitan* ageri da (Pagola, Iribar & Iribar 1999b: 132), eta B. Celhabea notario itzultziaileak ere, *nihauen* dakar Bardozeko katiximan; bihurkarian Donamartiriko katiximak *guhaun buriak* (253) dakar. Berriagoetan, Eñaut Etxamendi garaztarrak honakoa dakar *Azken elurra* elaberrian: *ta geiheo dena arrotz nindukexu nihauen denbora guzian toki hoitan* (1975: 17).

Zuberera zaharraz aski berri dugu. Idatzi zuen zubererazko gramatikan *neuria* & *nuria* —bere grafian *<Nouria>*— dakartzza Louis Gèzek xix. gizaldian (1873: 62), baina Mitxelenak zuberera zaharrerako *nore* eta *nure* dakartzza (1977: 102). Ez da harritzeko *nore* > *nure* bilakabidea Zuberoan, dela o bokala *n-* ondotik doalako, dela *gure-k* analogia eraginik. Zuberoako XVIII edo XIX. mendeetako *Charlemagne* pastoralen *noure* “nure” da nagusi; cf. 147. or. Behin ageri den *nore* ez du uste Oihartzabalek datu fidagarria denik (1991: 358); *Antiokiako San Julian-en* ere *noure* dago (104). Ordea, Erronkarin eta Zaraitzun *nore* baliatzen zen. Bigarren pertsonan zuberera zaharrean *ore* ageri da. Tartasek *eman eçac ore diharia ore anaiegatic* dakar (Arima, 112). Aldaera hori bera dakar Oloroeko katiximak ere (6, 76) eta baita *Antiokiako San Julian* pastoralak (50) eta *Charlemagne-k* (130, 271) ere. *Edipa* pastoralean, berriz, *nore buria* (282) & *noure aita noublia* (276), *ore ogui eta ardoueky* (282), *ereman eçac oreky* (274) ditugu. *Seinta Catherine* pastoralak *noure buria eçaguturiq* (540) dakar. Aspaldian Belak *ekar badeçac orequi, ukenen duc yaurequi* idatzi zuen.

Erronkariko katiximetan *ñiauren* & *ñore* ‘nihauer(n)’ ditugu lehen pertsonan XVIII. eta XIX. mendeetan. Zaraitzurako *nore* dakar Mitxelenak eta halaxe ageri da katiximetan; *niaure*, *niauren* eta *naure* ere begiztatu dituzte Pagolak, Iribarrek eta Iribarrek (1997b: 385) Zaraitzuko kristau ikasbideetan. Bigarren pertsonan Erronkarin *yore* dago eta Zaraitzuko adibideak falta dira. Nabarmena da lehen pertsonan segurik, Erronkariko *ñ-ren* sakonean *i* bat dugula, hain zuzen ere Zaraitzuko *niaure* horretan dagoena, Mitxelenak postulatu zuen \**ni-haur-e* aldaerara inguratzen dena.

2.3.8.5. *ber* izenordain berrekailua usu ageri da liburuan: *ber bi gauça horiec* (277), *Gincoac ber gauça erran ezteçagun* (15).

2.3.8.6. Ezaguna denez, izenordaintzat jo genezakeen *bera* aldaerak bakartasuna adierazten du: *hain bortitzçac eta biciac içan cirela* [penak] *ciocie Seindiec, nun natura humanuac hec ecin berac jassanez* bere *Gincotarçunaren laguntçaren beharra uken*

*baitcien* (160); esan nahi baita, “natura humanuak berak bakarrik ezin jasan zituela pena bortitz eta biziak Jinkotarzunaren laguntzarik gabe”. Zuberoako egungo erabilerañ berri dakar Etxegorrik (2003: 276).

2.3.8.7. Izenordain anaforikoaren genitiboan ez dira singularra eta plurala bereizten, euskara zaharrean legez *bere* izenordainak bi eginkizunak betetzen ditu: *çuhurra eztadila urguluxu bere çuhurtzciaz, ez guïçon azcarra bere indarraz* (11), zeinak pluralen aldaera bera baitu: *malur bere bicia oro desiretan igaraiten dutenen* (27) edota *azkenian ikussico dicie hartu tuzten desirac bere contre jeikiten* (28). Inxauspek ere berdin jokatzen du hurranen mendean Sen Mathiuren ebanjelioan: *ézi hayéc tzártzen dutié bérē beguithártiac* (1856: 31).

Izenordain indartua denean ageri da *beren* aldaera *Pratica-n: heen barouren eta heen beren nahisco praubeciaren* (391); *guiçonen beren aitcinian* (436).

Zerbaiten ber izaera adierazteko baliatzen denean ere *beren* ageri da pluralean: *gauça beren eguithia* (234); *hitz beren gagnan* (359).

2.3.8.8. Ekieldean ohi denez, *bera* indartua inesiboan jokatzen denean “berean” era hartzen du: *ithurrian berian* (218), *mundu huntan berian* (68).

### 2.3.9. Izenordain zehaztugabeak

#### 2.3.9.1. Izenordain zehaztugabeen zerrenda

*bat, batek, bati & bateri, baten, bateki & batekin, batendako, batez, batetan, bate-tarik, batetala & batetara & batetarat, batetaranokuan, batetako, bategatik bata, batak, batari, bataren, batian, bateti & batetik & bateganik, batera & bate-gana  
batzu, batzuk, batzuri, batzuren, batzureki, batzuz, batzutan, batzutarik batziak, batzek, batzien & batzen, batzietara  
deus, deusek, deusen, deusez, deusik, deusetan, deusegatik  
zer, zerk, zeri, zeren, zertzaz, zertan, zertarik, zertara, zertako, zergatik  
zerbait, zerbaitek, zerbaiten, zerbaitez, zerbaitetan, zerbaitetara, zerbaitetako elga & elgar, elgarri, elgarren, elgarreki & elgarrekin, elgargana  
nor, nork, nori, noren, norendako, noreganat  
beithan, beit(h)arik & beitariko, beitala, beithako  
norbait, norbaitek, norbaiten, norbaitez  
nehor, nehork, nehori, nehoren, nehorez  
ehor, ehork  
zoin, zoinek & zoiñek, zoiñi, zoiñen, zoiñendako, zoinzaz & zointzaz, zointan, zointarik & zoiñeganik, zointara & zointarat & zoiñeganat, zoiñegatik  
zunbait, zunbaitek, zunbaiti, zunbaiten, zunbaitekin, zunbaitez, zunbaitetan, zun-baitetara  
beste, bestek, besteren, bestez, besterik, bestetan, bestetara & bestetarat bestia, bestiak, bestiari, bestiaren, bestiaz, bestian, bestera, besteko  
bester, besten, bestendako*

2.3.9.2. Euskara zaharrean eta Euskal Herriko ekieldean gorde dira \**e-nor-tik* datozkeen izenordain zehaztugabeen jatorrizko aldaerak. Etxeparek *ehorc* (34, 184), *ehon* (28) gisakoak dakartzza, baina Leizarragak, 1651ko pregariek, Tartasek eta

Oihenartek *nehor* saila darabilte, nahiz Oihenartek baduen *ebula* (313) ere. Belapeire zuberotarrak nagusiki *ihor* ibiltzen du, baina “u”-rekin ere badakar: *ihour*. Lehiaren isla dago XVIII. mende bukaeran Nafarroa Behereko ekialdeko *Pratica*-n eta Laneuvillek eginarazi katiximan: *ehor* (22, 25, 30) / *nehor* (21), *nehorc* (25, 353) *Pratica*-n eta *ehorc* (16, 104, 156) / *nehorc* (156) & *neor* (160) Laneuville izenekoan. XIX. mendeko Arberoa, Amikuze, Garazi eta Baigorriko kristau idazkiek *nehor* saila dakarte beti.

2.3.9.3. Zuberoa ondoko ekialdeko idazle edo mintzoetan, polaritate negatiborik ez duten perpausetan ere *nehor* izenordaina ager daiteke “norbait” edo “nornahi”-ren ordain; gure *Pratica* ez da salbuespena:

*Hitz horietan daguena mundu guciarendaco duçu eta berheciki, perfeccionera heldu nahi direnen, eci nola gauça handiec bereki baitute bere gomendia, nehor aboro ernetarçun hetan ukeitera ekarria duçu, bena gauça thipietan nehor gutis aboruetan lachatzen duçu, uztez gauça guti bat den hetan falta egutxua (38)*

*Haxarrian ibi çuçun gaitzçaren banditcetic beiratcia, bena ceren nehorc gaitzça orano thiipi cenian lachoki utci dien, becatu thipietaric corrigitu faltaz eta gauça thiipiez cassuric ezthielacotz ein, hantic gin duçu lachakeria ahalgaiçun batez, tentacioniari bere buria gaitcera utci baitu; Gincoac lexala, halaco exemplien poroançac eliten hain ussu! (40)*

Hona eskualde horretako idazle gehiagoren adibide sorta bat:

*Hirur gutik eta hirur anhitzek galtzen dute nehor (Oihenart, 157)*

*Hiru gizon mota hauek, asaiak ‘tisi gaitzak’ bezala, gutika gutika, nehor galtzen dute (Oihenart, 234)*

*Luzatzez geroti gerora egitekoak, ardiesten du nehor herioak (Oihenart, 247)*

*Alfer egonez gazikz egiten nehork ikas diro (Oihenart, 254)*

*Hanbateki herioa ezta deūs ere pribazion bat baizi, biziaren pribazionia, eta zeren gauza bat hobeki nehork ezagützen, eta ikuhusten baitü, gauza haren kontrario ezagütürük, eta ikuhsirik, hala nola xuria, beltzaren alidian, philosophek erraiten düten bezala... (Tartas, Ontsa, 114)*

Zuberoako tradizioan *ihur* dakar Oloroeko katiximak honelakoetan (1706):

*G. Cer eguin behar du apphezcupiaren aitcinian denian ihour confirmatu içateço?*

*I. Belharico behar du ihorc egon modestki... (84)*

*bena ordinariosqui ihour bicitcen den beçala hiltcen ere da (45)*

Mendebalerago bestela dira gauzak, Baigorriko XIX. mendeko ebanjelioa lekuko: *ordian Yesusek erran zeen bere dizipulier: nobait yarraiki nabi balin bazaut, ukho ein dezala bere buriai* (53); *eta noait mintzatzen bada Gizonain Semiain contra, barkhatia izain zako* (43).

2.3.9.4. bat zenbatzailearen mugagabeko aldaerak nagusi dira *Pratica*-ko lekuzko kasuetan: inesiboan *batetan* dakar beti, liburuko *batian* bakarra gomendio gutunean heldu da, Philipps d'Abense Akizeko bikario generalak izenpeturik. Ablatiboan bi aldaerak dakartzza usu, *batetarik* eta *bateti(k)*; semantikoki erabilera mugagabetik mugatura ñabardurarik denik ez dirudi, adibide honetan ageri denez: *kasic hora bortha batetic sarthu den mementuan, beste batetaric jalguiten baitira* (214-5). Adlatiboan

guztiz nagusi da *batetara(t)*; *batetala* ere bi aldiz dakar (211, 423), baina *batera* aldaera mugatua behin baizik ez da ageri, *guiza batera* adibidean (122) eta usu ageri den *guiza batez-ek* eraginik egon daiteke beharbada. Mugagabe / mugatu aurkakotasunak ez dirudi adlatiboan ere semantikoki fiabardura handirik dakinarenik: *eci guion çuhurrac gauçac guiza batera eçagutcen tici, jakitateric ezthienac beste batetara* (122).

Gure eskualdeotako idazki zaharrenetan *bat* zenbatzailea mugagabean jokatzen da inesiboan edo lekuzko beste kasuetan, Etxepare, Leizarra, Oihenart, Tertas, Belapeire, Mercy eta beste hainbat idazle lekuko. Garaziko Bazkazaneko 1762ko idazkian ere berdin: *batetan* (177, 224). Aldiz, XVIII. mende bukaerako Laneufville izeneko 1786ko katiximan bietarik ditugu: *guissa batetaco* (3), baina baita aldaera mugatuan ere: *estable baitian 'batean'* (8). XIX. mendeko kristau ikasbideetan bi eretako adibideak daude. Caz SM: *hantik juan zuün bakharrik lekhu desertu bat-tetaät* (44); *igaä-naäzi zitzin dizipuliak barka bat-tetaät* (44). Irib SM: *mendi haundi haundi batetaat* (25); *izpiitu lohia gizon batetaik athea delaik* (44). Adibide mugatuak dira hurrengo hauek; Caz JJ: *eta bilduko tzi hebroz Armageddon deitzen den lekhu bat teat* (130). Caz SM: *hemen berian eman nezaäzu plat bat-tian Juanes Batistaän buria* (43); *barka bat-tian hantik juan zuün bakharrik* (44). Irib SM: *hiri bateat* (24); *ecin hilezco su batian* (24).

XX. mendean *batetan* edo *batetaik* adibideen erabilera Nafarroa Behere guztian hedaturik egon da, baina Zuberoa ondoko ibarretan ugaltzen dira adibideak: Baigorri, Garazin, Arberoa, Landibarren, Oztibarren, Amikuzen, Bastidan eta Lapurdiko Bardozan adibide mugagabeak bildu dira, baina halaz guztiz ere, ez dira Zuberoako maiztasunera inguratzzen: *batean* edo *batetik* aldaera mugatuak dira Nafarroa Beherean egun gehien baliatzen direnak.

2.3.9.5. Izenordain zehaztugabeetan Baxenabarren ohiko den *batzu* (abs.) / *batzuk* (erg.) / *batzur-* saila nagusi da liburuan, baina aldaera hauek ez dira bakarrak, ekialderago baliatzen diren beste batzuk ere bai baitakartz: mugatzaile plurala duen *batziak* (abs.) eta *batzek* (erg.) dira aipagarri *Pratica-n*: *batciac eta besthiac emeki-emeki giten* (39); *batciac leheneco becatheic ikaratu behar ticie, besthiac becatura erorteco beldurrac* (410); hona, berriz, ergatiboa: *batcec eta bestec Çuhurraren erran hoc ber-hetan igualki eguiac direla erakazten dicie* (47); *batcec bestendaco esteçaciela erran* (436), Maister zuberotarrak-eta ohi duten legez; ez dago "batzuek" *Pratica-n*. Itzulpenean genitiboak *batzien* egiten du eta adlatiboak *batzietara*, baina *i* gabea da genitiboko *batzen*, zeinak arrestian aipatu ergatiboko *batzek* gogorarazten baitigu. Ablatiboan *batzutarik* (mugag.) / *batzuetarik* (pl.), biak ditugu. Laneufville deitu dugun katiximan ere absolutiboan *batziak* aldaera ageri da: *ez, batciac egon dira, erori dira berciac beren orguliaz* (28); *bi suertetaco dira, batciac spiritualac, eta berciac corporalac* (138); *OEH-k* dakarrenez, Laneufville-n *batzü* / *batziak* / *batziek* bereizketa formala egiten da.

Zuberoan ere ezagunak dira aldaerok. Tartasek absolutiboan zerabilen: *batciac gora, bertciac behera ioaiten çirela* (Onsa, 5). Maisterren 1757ko liburuan, berriz, *batçac eta bestiac* (48) ageri da absolutiboan; hona beste kasuetan ere: *ceren batcec, edo bestec desplacer eguinen beiteye* (82); *batçen... eta bestêna* (50); *batçetan... bestêtan* (50), *batçetrat, edo bestetrat* (321). Antiokiako San Julian pastoralean (1770) adibide bat dugu: *batciac benturaz barouric, bestiac arguia gabe jaikiric* (Loidi 2004: 47). Edipa pastoralean, berriz, "batak eta bestiak" era dator: *batac hil dira gossez eta mar-*

*tirisaturic, bestiac aldiz harçara uçuriac harturic* (Bilbao 1996: 283), eta baita *Antiokiako San Julian-en ere: cependant, batac edo bestiacq dira maledicentes trompatcen* (Loidi 2004: 56).

2.3.9.6. Aditzondo konposatuak *nahi*-rekin eratzen direnean, *nahi*-ren ezkerrean dagoen izenordainak hartzen du kasu atzizkia euskara zaharrean. Aldaketaren zantzu zenbait XVIII. mendearren bukaeran ageri bada ere, XIX. mendea arte dirudi iraun duela ezaugarri honek. *Pratica*-k lege zaharrari eusten dio: *eta norc nahi cer nahi einic eta erranic ere* (66); *lehen gauça, Ororen errecebitcia, nolaco nahi diren, nunti nahi eta cer nahi maneras heltcen diren* (92). Hona adibide zaharrak; Leizarraga: *libre da no-requin nahi den ezconceco* (300). Olor kat (1706): *Norc nahi beyta batheyatcen ahal dia?* (81). Laneufvillek idatzarazi katiximan atzizkia *nahi*-k darama: *Nor nahic bathea dezakea?* (124). Donam kat: *Nok nahi den batheya dezakea?* (264). Donap kat: *Nok-nahik bathea dezakea behar ordian?* (237). Irib SM: *nor nahic galdein dezan* (32).

2.3.9.7. Oro har, mugagabeen doa *oro* zenbatzailea hartzen duen izena: *gauça nahigabe ororen pacienki hartcia* (54); *gure exai ororen contre* (384); *gaitz ororen errua* (220). Osatzen duen izenak daraman kasu marka bera hartzea ere gerta lekiroke zenbatzaile honi; esate batera, genitibo plurala hartzea: *gure estathiac manatcen thien karguien ororen unxa compliticia* (52-3); *ofritcen baita inçüliarren ororen* (234); *bere peco Fraiden ororen aitcinian* (439).<sup>12</sup>

2.3.9.8. Lapurdiko izenordaintzat hartzen du *OEH*-k *haina* anaforikoa, Leizarra-garen garaitik Lapurdin erabiltzaileak izan dituena: *eta içanen da norc-ere inuocaturen baitu Iaunaren icena, saluaturen baita haina* (209r). Oro har, badirudi izenordain honiek XIX. mende bukaeran eman zuela azken hatsa. Rebuschik gogorarazten digunez, Leizarragak *haina* erabiltzeak pentsaraz liezaguke bere mintzoak mendebalera jotzen duela, Lapurdi aldera hain zuzen, baina ikertzaile honek ez du argudio hau gogoko; uste duenez, erabilera honek itzultziale beskoitztaren joera bateratzaile edo supradialectala indartuko luke (1997: 78). Nafarroa Behereko idazki zaharretan ez da *haina* ageri eta *Pratica*-k ere ez dakar adibiderik.

Halaz ere, Lapurdiko eragina duela dirudien idazki batean bada *haina*, Bazkazanen aurkitu 1762ko predikuetan: *Ceruco Erressumac biolentia soffriticen du eta norc ere bere buruier eguiten baitute biolentia, erran nahi da norc ere haren irabasteko cer-bait soffriticen baitu eta bere sensujac morticaten baititu, hainac hango loria ardiexico du* (230). Gerora, XIX. eta XX. mendetako idazle erabiltzaile pare bat ditugu, sortzez baxenabartarrak, baina herrialde honetako baino mintzo zabalagoa zerabiltenak: Arbelbide Zarokoa eta Oxobi Bidarraikoa. Hona bakoitzaren adibide bana: *Nork ere maiz hartzen baitu bazka saindu eta erremedio salbagarri hori debozionerekin, eta hainak hartarainokoan borthitzen du bere arimako osasuna eta bizia... in Igandea edo Jaunaren eguna* (1895: 113). Oxbirena, berriz, XX. mendekoa da, *Otso bat artzain* izeneko alegian: *Lehenago baziren otsoak / otso lau zangotakoak / jaten zituzten arthal-dekoak / ardi ta bildots maltsoak // Bainan ernerik zauden artzainak / begiztatuz mendi*

<sup>12</sup> Ordea, ez da arrunta *oro*-k ezkerrean duen izena mugatu singularrean agertzea: *guero offriticen dici Meça haren inçulia ororen* (233); cf. frantseseko jatorrizkoa: *il l'offre encore particulièrement pour tous les assistans* dio, plurala (RD 4, 383). Adibide mota hau bakarra da liburu guztian eta anakoluto bat ala huts zenbait egon liteke gure begien aitzinean; beharbada *inçuliar ororen* da eskuzkribuan zegoena.

*gainak / eta zakurrek, agertuz hainak / bere zituzten oihanak* (1992: 76), non eta *hai-nak* hori ez den ‘haginak’.

### 2.3.10. Erakusleak

#### 2.3.10.1. Erakusleen zerrendak

*hau, hunek, huni, hunen, huneki, huntzaz, huntas, huntarik, huntara, huntako  
hori, horrek, horri, horren, horreki & horrekin, horrendako, hortzaz, hortan, horta-  
rik, hortala & hortara & hortarat, hortako  
berhor[r]lek  
hura, hark & harek, hari, haren, hareki & harekin, harendako, hartzaz, hartan,  
hartarik & hartatik & harganik, hartala & hartara & hartarat & hargana &  
harganat, hartakuak  
berharen, berhartzaz, berarganik, berhargatik  
hok, hok, hoer, hoen, hoeki & hoekin, hotzaz, hotan, hotarik  
horiek, horiek, horier, horien, horiendako, horietzaz & horiez, horietan, horietarik,  
horietara, horiegatik  
hek & hurak, hek, heer, heen, heeki & heekin, heendako, hetzaz, hetan, hetarik &  
heeganik, hetara & heegana, hetako, heegatik*

#### 2.3.10.2. Beste erakusle hanpatuak

*bera, berak, berari, beraren & bere, berarekin & berarekilan, beretako, beraz, be-  
rian, beretik & beraganik, berera & bergeganat, bereko  
berak, berek, bere & beren, bereki & berekin, beretzaz & berez, beretan, beretara*

#### 2.3.10.3. Galdetzaileak

*non, nunti, nora & norat, noraderano  
noiz*

#### 2.3.10.4. Leku adizlagunak

*heben & haben, hebentik & hebetik  
hortik, horra  
han, harat, hango*

2.3.10.5. XVIII. mende bukaerako itzulpen honetan ez da ageri mugatzailearen eginkizuna duen erakuslerik. Etxeparenen *gorpuzori, duyenori, guçonorrec, çure pena dioçunoc* erakoak, Leizarragaren *guciac bilduric seme gaztenor ioan cedin herri vrrun batetara* (136v) edo Axularren *mundu haur guztior* (103) erakorik ez dakar Pratica-k.

2.3.10.6. Nafarroa Behereko lehen idazkietarik ageri da pluraleko lehen mailako erakuslea soildurik edo monoptongaturik eta hala gertatzen da Pratica-n ere: *hoc* (23, 27, 353), *hoen* (406), *hoer* (221) / *horiec* (4, 6, 11, 275)... Hona idazle zaharragoak ere: Etxeparek *hoc* (48) / *manamenduyac hoyec* (48) dakartza. 1651ko pregariak: *hoc* (6), *hotçaz* (21), baina baita *hauc* ere (lehen orriko aurkezpenean). Tartas: *hok* (*On-*

*tsa*, 65) / *horiec* (*Onsa*, 69). Laneufville: *hoc* (7). Donap kat: *hok* (226) / *horiek* (228). Donam kat: *hok* (253) / *horiek* (255). Salab SM: *hok* (17). Irib SM: *hoc* (22), *hotaz* (23).

Lapurdiako eran dakar erakuslea Oihenartek: *hauk* da absolutiboa eta *hauek* ergatiboa; hona gaineratekoak: *haukin*, *hautako*, *hauzaz*, *hautan*. Leizarragak ere *hauc* (100r) dakar, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek bezala. Bazkazaneko 1762ko predikuetan, *hauc* nahiz *hoc*, bi aldaera ageri dira: *hauc* (179, 222), *hauc guciac* (223) / *hoc* (198, 217), *hotas* ‘hauetaz’ (202).

Baxenabarren ohi den legez, pluraleko erakusleen hiru mailak honakoak dira *Pratica-n*: *hok* / *horiek* / *hek* —gehi ondotik ikusiko dugun *hurak*—. Baxenabarren eta Nafarroa Garaiko hainbat eskualdetan baliatzen den lehen mailako *hok* erakuslea ez da Zuberoan ageri, ez da eskema hau baliatzen. Beñat Oihartzabalen hitzetan, lehen mailako erakusle pluralik ez dago Zuberoan (1991: 347, 1395. oharra). Analisi teorikoa zeinahi delarik, Belapeirek lehen mailan *hoiek*, *hoiek*, *hoier*, *hoien*... dakartza eta bigarrenean *horik*, *horiek*, *horien*... Gèzek egitura iduria damaigu (1873: 49): *hóik*, *hoyéc*, *hoyén*... lehen mailan; *hóric*, *horiéc*, *horién*... bigarrenean. Larrasketen hiztegian ageri denez, xx. mendean bederen bata eta bestea ahoskeran nahasi dira: *hoik* da absolutiboa pluraleko erakuslea lehen nahiz bigarren mailan.

2.3.10.7. Ondotik aipatuko dugun hirugarren mailako *hurak-en* kidetzat jo beharko genuke Zuberoako *hoiak* erakusle absolutiboa ere; hona adibide bat: *hoyak dutuciela jaunak polarda eta olascoua by plat hoyen artin ereryk beytira* (*Charlemagne*, 354). *Pratica-n* ez dago *hoc* edo *horiec* baizik, ez dakar \*\*\**hoiak*” eta ez dugu uste Baxenabarreko idazkietan aldaera honen zantzurik dagoenik ere, baina gauza ezaguna da XVI. gizaldian Leizarragak ere *horiak* ibiltzen zuela: *Cer authoritatez gauça horiac eguiten dituc?* (40v). Erakusle hau pluraleko lehen mailakoa, bigarrenekoala bieta-koaren aztertza sartu gabe, aski bedi adieraztea Zuberoan erakusleetan -ak bukaera dugula. Esate batera, pluraleko lehen pertsonarekin *anaye areba hoyak* / *nahi gutuçu qhristitu* dakar *Charlemagne* pastoralaren bertsio batek (245). XVIII. mendekoak dira honako adibideak; Ressegue 1758: *ikhoussiric statuts edo manu hoiac* (39); beste hauetako Mercyren 1780ko edizioari dagozkio: *oraïco hoyac deusic baliotaco içan ditian* (8); *hoyac esplica ditçaten* (17); *hoyac youanan dira hen visitatcera* (42).

2.3.10.8. *Pratica-n* *hec* dugu hirugarren graduko pluraleko erakusle absolutiboa nahiz ergatiboa, absolutiboa *hurac* berrikuntza ere badela atzendu gabe. Hondarreko urte hauetan interpretazio saio batzuk izan dira euskal morfologian *æk* / *haiiek & heiek* / *hek* hiru sailen artean zein erlazio diakroniko dagoen argitzeko; cf. Irigoyen (1975: 170) edo Azkarate & Altuna (2001). Julen Manterolaren ustez (2009), mendebaleko *æk* berrikuntza litzateke eta oinarri zaharra, berriz, *hek* izan behar du; bertatik berregituraketa batek *haiiek & heiek* sorta eragin dukeela deritzo, zeina ekialdeko erdigunetik sartu ahal izan baita. *Pratica* gure itzulpenean, *hek*, *hetzaz*, *hetan*, *hetarik*, *hetara*, *hetako* soilagoekin batera, itzulpenak *heer*, *heen*, *heeki(n)*, *heendako*, *heeganik*, *heegana* eta *heegatik* luzeagoak ere badakartza.

Goizik aurkitzen dugu *hek* edo beraren aldaera deklinatu zenbait Nafarroa Beherean; aldaera luzeagoak ere badira garai zaharrenean. Hona idazleak banaka. Etxepare: *hequi* ‘*haiiek*’ (226) / *heyec* (236). Leizarraga: *hec*, *hetan* / *hayen*. 1651ko pre-gariak: *hec* (3), *hequin* (10) / *heien* (11). Oihenart: Orpustanen arabera (1993: 123), absolutiborako *hek* (459) baliatzen du handikiak (Altuna & Mujika 2003: 459),

baina ergatiborako *heiek* (514). Tartas: *hek* (*Ontsa*, 57) / *haietara* (*Ontsa*, 116). Belapeire: *hek* / *hayec*, biak ergatiboak, absolutiboa *hurak* baita. Donapaleuko eta Donamartiriko katiximak: *hek*. Caz JJ: *hek* (113, 135). Baigorriko Iribarnegarairen ebanjelioan ere *hek* (22), *hetan* (24) edo *hetat* (35) dugu, baina baita *heen* (33, 35) ere. Salaberri Ibarrolakoak *hekiei* ‘*haiet*’ (18) dakar datiboan, zeina ez baita Nafarroa Behereko tradizioan ageri. Lapurdiko kristau ikasbideetan ageri dira (*h*)*ekiek* (abs. & erg.), *hekiei* & *hekieri*, *hekien*, *hekiekintzat*, (*h*)*ekietaz* (Pagola, Alkiza, Beola, Iribar & Iribar 1994: 534-538).

2.3.10.9. *Pratica-n* usu ageri da hirugarren graduoko *hurak* erakusle analogiko absolutiboa: *eztici nahi behinguaz utci ditçagun Gincoaganaco einbide hurac* (16); baita gehiago ere: (205, 266, 329, 384, 400); bestalde, grafikoki bada *hourac* (356). Hirugarren graduoko aldaera zahar *hek*, berriz, absolutiboa nahiz ergatiboa ibiltzen da: *ezkitela içan hec beçala eskergabe* (177) edo *heriuac gauça bera egunen diraguçu gure desir hunac airian beçala gauzkatalaric edo atchikiten gutituztelaric, hec berac gure garrazkiago condenatceco içanen tuçu* (28) absolutiboa eta *hec eztutela bakiaren eta umilitathiareni bertuthia berekin* (66) ergatiboa. Nafarroa Behereko ekialdeko eta Zuberoako idazle batzuen lanean, pluraleko erakusleen hirugarren mailako *hek edo haiet* aldaerak ergatiboa jokatzeko gelditu dira eta absolutiborako *hurak* sorrera analogikoa baliatu da; erakusle berri hau Zuberoan dugu egun eta duela guti arte Erronkarin eta Zaraitzun *kurak* & *urak* ibiltzen zen. Hona idazleen berri. Tartas: *hek* (*Ontsa*, 57) vs. *hurak* (*Ontsa*, 11). Belapeire: *haiet* & *hek* vs. *hurak*. Oloroeko katiximan ere ageri da (1706): *Çoing dira hon spiritual hourac?* (39). Ordea, Oihenarten lanean edo le Quien de Laneufvillek eginarazi katiximan ez da “*hurak*” erakuslerik ageri.

2.3.10.10. Erakusleetan bokalen arteko bitasunak ageri zaizkigu *Pratica-n*; Zuberoako antzera *hulaco* dakar bi aldiz (305), baina testuan *holaco* da nagusi (79, 80, 85, 131, 167, 174, 206, 337, 348, 364, 367, 368, 385, 393).

2.3.10.11. Graduatzaleetan, *hain-en* arabera eraikia dirudien *horrein* aldaera bi aldiz ageri da liburuan: *horrein erran liferentac* (33); *nola içaiten ahal cira horrein alleghera hain estatu pietategarrian* (349). Aldaera zaharra da, Etxeparek ere badakarrena: *horreyn gayz ciraden guero egunen dut verceric* (172). Lazarragak *honein* / *horrein* / *hain* hirukotea dakar (Bilbao, Gómez, Lakarra, Manterola, Mounole, Urgell 2010: 28).

### 2.3.11. Postposizioak

Liburuak hainbat postposizio darabiltza, baina guk *alde(rat)*, *gañ*, *gero* eta *ordu* iruzkinduko ditugu.

2.3.11.1. Norbaitenganako norabidea adierazten du *alderat-ek*: *seindimendu handiric Salbaçale divinuaren alderat* (181).

2.3.11.2. Ondorio bat irekitzeko kutsua hartzen duten postposizioetan bi aldaera ditugu, liburuan nagusi den -*z* *gueroz* eta bi aldiz ageri den -*z* *gagnan*: *Naussi denaz gueroz eta deussen beharric ezthienaz gagnan* (204); *hori hola denaz gagnan* (432-3).

2.3.11.3. Postposizio gisa jokatzen da *ordu* hitza eta denborazko menpeko proposizioak eratzen ditu: *bena otoitzçan lachatcen guiren ordutic, fite eşagutcen diici Seint Bonaventurac erran dien egua* (100); jatorrizkoak *dès que* dakar; *guiçonen eta Aingurrien lenguayaz mintça nindaitekeen ordian, justo ezpaniz, trompeta bat eta soinhu arian galtcen den bat beçala niz* (286), jatorrizkoak *quand* dakar.

Berezia da *ordian*-en honako erabilera, *behar bidian*-en iduria dena: *sinhetxi behar ordian eriec emaiten deresten eneiac gogotic hartcen tuztela* (328).

### 2.3.12. Xedezko *-kotz* adizlagunetan

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian ohi bezala, xede edo helmuga kutsua duten denbora adizlagunetan *-kotz* morfema ageri da *Pratica*-n hainbat eta hainbat adibidetan: *azkenecotz* (37) & *askenekotz* (380), *bethierekotz* (118), *guerocotz* (43), *hartacotz* (38), *hirurguerrenecotz* (104), *orducotz* (246).

### 2.3.13. Zenbakien sistema

Zenbaki sistema *hogeik*-k gobernatzen du eta ezker duen zifrarekin biderkatzen da: *hiruretan hoguei eta hamar mila guicon*, 70.000 (319); *çazpitau hoguei eta laur mila*, 144.000 (353); *bederatcitan hoguei eta bost mila*, 180.000 (176); beharbada, itzultzai-leak *bost* hori bere gisa ekarri du, makur.

## 2.4. Aditzaren morfologia<sup>13</sup>

### 2.4.1. Alderdi kronologikoa: *Pratica*-n ageri ez diren ezaugarri zaharrak

xviii. mende bukaerako itzulpen honetan ez dira ageri euskara zaharreko hainbat aditz aldaera; hauetarik batzuk garai hartan Zuberoan eta mende bat edo bi lehenago Baxenabarren erabiltzen ziren. Guk ezaugarri sorta bat zerrendatu dugu:

2.4.1.1. Etxeparek, Leizarragak edo Oihenartek baliatu zuten perfektibo zaharra, aoristoa deitu ohi dena.

2.4.1.2. Etxeparek, Leizarragak edo Oihenartek baliatu zuten Nor Nori saileko *-kidi-* artizkia; Maister zuberotarraren liburutik *Pratica*-ra hogeita bost urte dago, baina zuberotarrak baditu adibideak: *jin ahal dakidion* (302); *gaiçac oro hounetara eta profeuitara utçul lekiditçu* (92); *ala beilekidiçu bara gloria handi bat* (133).

2.4.1.3. Ahala adierazteko *egin* aditza ez da era arruntetan jokatu euskara zaharrean, horren ordain *\*-idi-* erroko adizkiak ibili ziren, eta Euskal Herriko ekialdean ere honela izan zen; Etxepare, Leizarraga, Oihenart edo Belapeire aipa ditzakegu; cf. *orogatic bano oboro harc ere daydi çugatic* (Etxepare, 106); *arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi* (Leizarraga, 12r); *bere egitekoen egiten eztakienak, nekez daidizke bertzerenak* (Oihenart, 257); *bere nahiz eizten dianac, haren eguin gabez bekhatu laidi* (Belapeire I, 68). Ez dago *Pratica*-n honelako adizkirkirik.

2.4.1.4. Ez dakar *Pratica*-k *albait* & *albeit* aditz aurritzki preskribitorik. Hona Leizarraga: *aleguera albeitzintezte egun hartan, eta bozcarioz iauz* (111v).

2.4.1.5. Ohikotasuna adierazten duten *joan* edo *eraman* aditzak perifrasiak; hona Etxepareren eta Oihenarten etsenplu bana: *mundu honec anhiz gende enganatu drama* (98) / *burla gaxtoa, bere sorlekura itzuli doa* (260).

<sup>13</sup> Biziki eskertzen ditugu aditzaren morfologiako gaiez Céline Mounolek egin dizkigun ohar jakin-garriak.

2.4.1.6. Injurune hipotetikoko adizkietan, baldintzaren apodosian edo ahalean *n + te* morfemen lotura dugu euskara zaharrean; Zuberoan ez, baina Baxenabarren edo Leizarragaren lanean *n-ren* ondotik *t* hori ahostuntzen da, baina ez da *t* ahostuntzen ezkerrean fonema ozenik ez denean, Etxepare lekuko: *sorthu eta hil guinate* ‘gi-nateke’ *harc haz ezpaguiniça* (118). 1545eko liburuko honako adibideok ahostundurik ditugu: baldintzan *çurequila gayzqui vaniz nola vici ninçande* ‘nintzateke’ (220); *aguijan hula ezpanango hil ninçanden* ‘nintzatekeen’ *engoytic* (238); *Bearnora gabetaric egon ahal inçanden* ‘hintzatekeen’ (228). Ahalean ere badakar: *duda gabe eror naynde* ‘nintek’ *han berian hilhoça* (146). Leizarragak ere badarabiltza: *segur baldin oraino guionén gogaraco baninz*, *Christen cerbitzari ezninzande* (331v). Arrestik ginande ere kokatzen du beskoitztarraren lanean (1972: 159), baina guk ez dugu aurkitu.

Tartasengan ez dugu honelakorik sumatu: Altunak *ninbate* adizkia dakar *Onsaren* edizioan (1987: 33) eta *Arima*-renean ez dakar honelako deus ere (1996: 127-137). Ordea, XVIII.ean Zuberoa herrialdean diraute adizkiok. Maisterren *cinante* ‘zinateke’ & *etcinante*<sup>14</sup> aipa daitezke eta baita *-ke* duen aldaera ere, egile berarenai: *cinanteke*.<sup>15</sup> Eskiulako 1780ko Mercyren testuan ahostundurik ageri da *beytcinandan*, iraganean, erlatibozko perpusean;<sup>16</sup> ahostundurik dago Baxenabarreko Amikuze-Larribarren 1848-n jokatu *Kaniko eta Belxitina* pastoralean ere, Jakes Oihenarte Uharte-Amikuzeko egileak idatzirik; xedezko ingurunean, perpaus osagarrian: *goure plazera lizate libertitu zinandian* (1971: 133).

2.4.1.7. *Izan* aditzaren Nor Nori saileko laguntzaileetako *-ai-* diptongoa; oro da *-au-* *Pratica-n*: *zaut* ‘ait’, *zaukona* ‘zaiona’, *zauzu* ‘zaizu’, *zauzkit* ‘zatzaizkit’.

2.4.1.8. Etxepare edo Leizarragaren idazkietako adizki trinkook ez dira *Pratica-n* ageri:

- Entzun. Etxepare: *eztanzut* (125) / Leizarraga: *danzut*, *danzuzu*, *danzuzkit*, *zanzuen*, *zanzuzkiten*; gogoan izan bedi Ipar Euskal Herriko ahozko mintzoan arrunta dela *mantzut*? & *mantxut*? galdera (Lafitte 1979: 331)
- Erakutsi. Etxepare: *nerakutson* (143)
- Eratzan. Etxepare: *daratza* (135)
- Erauntsi. Leizarraga: *draunsa*, *diraunsak*, *zeraunsan*, *neraunsa*
- Erausi. Etxepare: *diraustaçu* ‘jo = ukitu nau’, cf. Lafon (1980 [1943]: 277)
- Erran. Etxepare: *derrana* (82), *banerro* (147), *larradala* (214) / Leizarraga: *derrat*, *darra* & *derra*, *derrate*, *derrok*, *derradazue*, *derrote*, *derrake*, *derrakeo*, *errozue*, *errezue*
- Etzan. Etxepare: *datzanian* (135) / Leizarraga: *gaunza*

<sup>14</sup> Hona biak: *eta debocioneçco gaicetan baicic etcintian egon: ordian hanitcheç dohaxiago cinante, ecieç orai khorpitçari, cer nahi beita behar dela causa, manien eguiten çaudiano* (84); *evezkoa: altchatu içan ci-nen ordian, jondane phaulereki hirourgueren celiala drano, etcinante hargatic segur, nahi etçunian gaiçaric etçunukiala soferiteceo* (132).

<sup>15</sup> *Nahi nikuei hala liçan çourekí, eta heltu cinen çoure buriaren eç maithaçale içateko phuntiala, eta ene eta nic aitataco eman deiçudanaren boronthatiari chahuki egon cintian: ordian ecinago ene gogara ci-nanteke eta çoure bicitcia bakian eta boçtariouan igaren liteçu* (235).

<sup>16</sup> *Virgina Santa erre içan beytcinandian bethi Caritate ecinago berouaz, maithatu beytuçu Gincoua, çuc cihauréc serafiec oroc beno gloria haboro eman duçuna Gincouari* (22).

- Ezagutu. Etxepare: *eztazagut* (113) / Leizarraga: *nezaguk, dezagut & dazagut, dazagugu*
- Ikusi. Etxepare: *dakusat* (25), *badakuskit* (237) / Leizarraga: *dakusa, dakuskik, diakusat, nakusan, zakusan*
- Iritzi. Leizarraga: *darizat, daritz, daritzogu, darizkute, zaritzan*
- Itxeki. Leizarraga: *daixeka, gatxetza, zatzekan; ecen gaizquia datchetala niri* (276v)
- Jarraiki. Etxepare: *darraika* (125) / Leizarraga: *arreit niri* (63r); *çarreyón* (69r)
- Urgatzi. Etxepare: *drugatzula* (169).

Oihenarten atsotitzetan edo Tartasen lanean ere badira gerora galdu direla diruditen aditzak, non eta ez diren idatzizko erabilera jantziaren ondorioz ageri; *Pratica-n* ez dago honelako adibiderik:

- Edeki. *Erroia haz ezak, begiak dedetzak* (Oihenart, 125)
- Eman. *Antxo limosnari, urde ebatsiaren oinak dematza beharrari* (Oihenart, 76); *galde egiten baitüte sendo ditzan, osagarria demen* (Tartas, *Ontsa*, 143)
- Igorri. *Hark nigorra / hunen zuri erraitera* (Oihenart, 456), non eta erabilera hau herriarena izan beharrean, ez den Oihenarten beraren sorkuntza.

2.4.1.9. Ekialdeko testu zaharretan ezagun du antzina trinko puntuariak ibiltzen zirela. Etxeparek *dauginian* (32, 76, 79) dakar eta Belapeirek *daigun Igantian* (II, 44); *Charlemagne* pastoralak *daigun bataillan* (324). Alta, egun ere badira *daigün urthian, daugin urthian* edo *dain astian* erako adizki fosilizatuak Nafarroa Behereko ekialdean. Halaz guztiz ere, Euskal Herriko ekialdean goiz islatu zen adiera puntuaria joko perifrastikoaren bidez. XVII. mendean *jin* eta *joan* aditzak aipa daitezke idazleen adibideetan; Tartas: *jiten dena ‘datorren’ ezta hanbat lüze izanen* (*Ontsa*, 79); *gendé hec consideraturic batçıac gora, bertçıac behera ioaiten çirela ‘zihoazela’, oihu egin dut* (*Onsa*, 5). Bazkazane 1762: *presentequin jjten guira haren adoratcera* (217); *bi nacione suerte ciren munduyan, biac Abrahamenganic jjten cirenac* (217). Zuberoan *Charlemagne-n* dakusagu: *icousten dut Eneguitecouaq ounxa jouaiten direla* (182). Laneufville: *ez, ceren haren Contricionia ezpailicêteque dolu natural bat becic, edo fedeti jiten es-tén bat* (146). Donap kat: *eta aldarian egoiten dena nor da?* (233); dena den, baliteke hondarreko adibide honek ohikotasuna adieraztea.

*Pratica-n* *egon, ibili, jin* eta *joan* inakusatiboekin, *iraun* inergatiboarekin, *eduki, ereman, etsi* —adiera ‘nahi izatea’ duena—, *jakin* eta “\*-io-” nahiz “\*-iron-” iragankorrekin, adizki trinkoak baliatzen dira, baina ondoko adibideetan ikusten da trinko → perifrastiko bidea abiaturik dela:

- *jin* aditzean: *hec utciric labur içaithiagatic, jiten nis ‘nator’ Cassianec bertuthe horren perfeccionera heltceco erakasten derauskigun çazpi graduataric lehen hirouren explicatcera* (355); *heben net unxa jiten duçu ...arraposthia* (20); *erraitetic giten guirenaren aravera* (219); *erraitetic jiten guiren beçala* (293); *eta doctrina hori Seint Augustineganic jiten duçu, çoinhec erraiten baitu otoitzça meditacionia gabe hotz edo epel dela* (114); *hanti jiten duçu Ginoac gutan eguin nahi uken dien miraculia* (409).
- *joan* aditzean: *eguin cicin meciaren eitera cerbitzchari hora joaiten celaric ‘zihoa-larik’, igaran çadin Eliça baten aldian* (247); *Salbaçale Jauna joaiten çuçun Si-*

*nagogaco Princiaren alaba hilaren pitztera; gende saldo handi batez lagundia çuçun, inguru alde orotaric herzssatcen cicien* (123); *inçun cien istoria batetan idireiten diici, Barçalonaco bidian joaiten cirelaric Seint Ignacio eta haren çunbait lagun, norc bere hathiac bizkarrian* (145).

- *egon aditzean: ekarten ceracola Ostibia Seindia egoiten cen lekura* (218), baina ez da adibide gardena; *Gincoaren cerbitzchari batec behin ikussi ciela Ainguri saldo handi bat, arropa arguitcen çuten batçuz bestithiac, bet betan Celutic geuzten, Aldariaren ingurian herrocan jarteko, han errespetu handireki egoiten cirela ‘zeudela’ barbedera bere Erregueren aitcinian egoiten den beçala* (254).
- *ekarri aditzean: Beda Author errespetagarriac hori iduri den exemplu bat ekarten dici ‘dakar’ bere Anglaterrako Eliçaren Istorian* (253-4).
- *heldu aditzean: adiera puntuaria dute hauek; hori heldu duçu Demoniuaren abileciatic* (41), jatorrizkoan ere adiera puntuaria da: *cela vient de ce que le démon est habile* (RD 1, 84). Hurranena ere puntuaria da, frantses arrivent itzultzen du: *eci, nuntic heldu dira aboruetan munduco becatu eta desordre guciac* (117), frantsesez *une des principales causes de tous les maux qui arrivent dans le monde* (RD 2, 45).

Baina beste adibide batzuetan *heldu da* aditzak antzinako adiera burutua du: *Gincoac placer uken diena heldu duçu* (330), frantsesez *il n'est arrivé que ce qu'il a plu au Seigneur* (RD 2, 443); *eztiici orano burian hartu behar hulaco edo halaco gauça heldu dela ceren norbait inxeatu delacotz, ez eta ere hulaco edo halaco suerthia içan ezpaliz, gauça beste guizaz helduco cela* (305), zeina frantsesez ere burutua baita: *et ne vous imaginez pas que telle ou telle chose vous soit arrivée, parce que quelqu'un s'en est mêlé* (RD 2, 310). Aditz honek ‘iritsi’ adiera izan dezakeela honelako adibideek erakusten digute: *nun nekez becic ezpaita berris helduren leheneco perfeccioniaren gradora* (47); *biga choilki Gincoac hitceman lurrerat heldu cirela* (62); *erneki eta seguidan Gincoaren cerbitzchiari jarraiten direnec, haren graciari berhecienac eta baliossenac jardiresten, halaz perfeccioneric gorenera heltcen* (48).

2.4.1.10. Nor Nori Nork eta inoiz Nor Nori aditz sailetan *\*eradun* eta *izan* aditzetarak eratorri laguntzaileek *tza* artizki pluralgilea zuten Lapurdin XVI eta XVII. mendean, Leizarraga, Axular edo Argañiaratz idazleak lekuko, eta Oihenarten eta Tar-tasen lanean edo Bazkazaneko 1762ko predikuetan ere ageri da pluralgile hori. Hona Leizarragaren adibide bat: *cein gauça handiac eguin cerautzan Iesusec* (69r). Honelakoik ez dago *Pratica-n*; bestalde, *eduki* eta *ekarri* aditzetan *tza* zerabilen Etxeparek —*daduçala* ‘dauzkala’ (32), *dacacela* ‘dakartzala’ (50)—, baina 237 urteren buruan *Pratica-n* z dago: *dauskan* (120), *dauzcagulacotz* (42), *diauzcacie* (37), *çauskan* (358).

2.4.1.11. Euskara zaharrean hirugarren pertsonaren *ko* datibo morfema *ka* bihur zitekeen atzizki bat biltzean. XVII. mendetik honat Nafarroa Behereko idazkietan ez da ageri hirugarren pertsona singularreko datiboko *ka* morfema Nor Nori edo Nor Nori Nork aditz sailetan, hurranen mendeetan *ko* da Nafarroa Behereko idazleen artean ageri dena: *Pratica-k*, Laneuvillek eta Bonaparterentzat itzuli ziren XIX. mendeko kristau ikasbideek *ko* dakarte guztiekin. Aldiz, adibide zaharretan *ka* dakusagu. Etxeparek *çaida* ‘zaio’ (58) edo *çaycala* (201) adibideak dakarzkigu. Leizarragarenak dira *draukat* ‘diot’, *drauka* ‘dio’ edo *etzaizka* ‘ez zaizkio’. Oihenartek *zauka* ‘zaio’ (392) eta *zaio* (294) darabiltza. 1651ko pregarietan *ko* eta *ka* ageri dira: *daracogu* ‘diogu’ (10)

eta eztaroca ‘ez dio’ (2). Lapurdin ere ibiltzen zen, Axular lekuko: *galdegin zerauskaten ‘zioten’* (335) / *nola apartatuko natzaika* (274); *nondik eldu zaikan ‘zaion’* (157); *iduritu zeikan ‘zitzaion’* (303); gerora ere iraun du *ka* morfemak Lapurdin.

#### 2.4.2. Ezaugarri zahar *Pratica-n* dirautenak

Denboraren aldetik antzinakoak diren ezaugarri gordetzaileak dakartzagu sorta honetan, guztiak nola edo hala *Pratica-n* agerpena dutenak.

2.4.2.1. Aditz autonomoak iduri du izan zirela *\*edutsi*, *\*i* eta *\*eradun*, emate adiera zutenak, Lazarraga, *Refranes y Sentencias*, Juan Zumarragakoaren gutuna, Leizarraga edo Iruñeko XVII. mende hasierako olerkiak lekuko. Izan ere, *Pratica-n* ere adiera hori bera dute *\*eradun-ek* eta *\*i-k* bi adibidetan: *cerc derauçun ppena* (350); *Gincoari tiici eskerrac* (281); ikus gaiaz Mounole (2011: 349).

2.4.2.2. Jokabide trinkoa duten aditz batzuk ditugu XVIII. mendearren bigarren erdian, idazkietan ageri direnak eta gerora iraun ez zutenak. Desira adierazten duen *etsi* aditza *Pratica-n* dakusagu: *Gincoac lexala ‘Jainkoak letsala’* (40, 275). Garai hartantsu eta ondotik ere, Zuberoan ibiltzen zen: *Jincouac balexa hen bicitcia* (Maister, 12), *Jincouac balexa* (66) & *Jincouac belexa* (133); *Gincoac dexala* (*Antiokiako San Julian pastorala*: 68); *Gincoac eztatsala* (Mercy 1780: 18). Ezin liteke esan forma fosilizatik zegoela, baina beti ingurune semantiko beretsuan ageri zen.

Berebat, ‘esatea’-ren adiera duten *-io-* erroko adizkiek, Leizarragak zerabiltzanek —*dio*, *dio*, *diotsa*, *ziok*, *diosat*, *diotsok*, *diosku*, *zioen*, *niotsan*, *ziostan*— Bazkazanen agertu 1762ko predikuetan Nor Norik aditz sailean diraute: *eta diotxe*, *çatozze burregoac ezterautçquiet ihessic equinen* (207). *Pratica-n* ere badira, Nor Norik sailean eta zuketan jokaturik: *cioçut ‘diot’* (18), *cioçu ‘dio’* (60), *ciocie ‘diote’* (160). Jakes Oihenarte amikuztarrak XIX. mendean idatzi *Kaniko eta Belxitina-k hiri ziouat ‘hiri esaten diat’* dakar (1971: 65). Bestalde, *Pratica-n* ez da ageri *irakin* aditzaren iraganeko aldaera trinkorik, baina Bazkazaneko 1762ko predikuetan adibide bat dugu: *eta olioz eta arrochinaz betheric, eta sutan ceraquitelaric egotz arazten du Julien handia hetan barna* (205).

2.4.2.3. XVI. mendean *edun-en* trinkoak aginteko perpausetan ageri dira. Bizkaiko RS-k 501. atsotitzean dakar: *ze egik gatxik ta ze euk bildurrik*. Leizarragak ere badarabil: *auc bihotz on, semé* (14v) / *auc euror baithan Iaincoaren aitzinean* (287r) / *auc pietate guçaz, David-en semeá* (16r) / *alabá aun bihotz on eure fedeac sendatu au* (119r) / *hunetacotz bihotz on auçue, guïçonac* (262v) / *auçue ceuróc baithan gatz* (80r). Baita hirugarren pertsonan ere, jusiboan: *batbederac bere emaztea biu, eta batbederac bere senharra biu* (298r). Era hauek Zuberoan iraun dute: Oihenartek *Sentona, agorrilan bidez bahoia, uk eureki ekitakoa* dakar (286) eta *Tartasek Jauna nitzaz miserikordia euzü* (*Ontsa*, 48). Ondoko pastoralak ere lekuko dira: *corage eyk Faragus (Charlemagne, 221)*, nahiz hauetan *corage ukhazü era ohikoago den* (Oihartzabal 1991: 221); cf. Lafon ere (1980: 96-7).

Aditz lokuzioan ere ibili da, *begiratu + edun* josirik: *beguirauç nehori ezterroán* (13r) / *beguirauçue çuen elemosyná eztaguiçuen guïçonen aitzinean* (9r), biak Leizarragarenak eta egiazki, *Pratica-n* ere gelditu da hondarrik: *beirauçu edo gogua emaçu ounciareñ çolan den harinha aldiac ouncia gal-araz eztecan* (43). *Antiokiako San Julian pastoralekoa* da beste hau: *beguiraiçu desolaturicq niçala* (Loidi 2004: 58).

Era trinkoan ibili ohi da *izan* aditza ere, xedezko adieran, Leizarraga lekuko: *habil baquerequin, eta aicén sendo eure plagatic* (69v); *careten bada cuec perfect* (9r). XVIII. mendean era zaharraren adibideak gelditzenten dira oraino Zuberoan: *bena eguin eçaçu çoure eguin ahala oro, Jincoua çoureki den, çuc eguiten dutuçun gaiça orotan* (Maister, 93). Baxenabarreko Beltran Etxauzen 1584ko gutunean *eduki* aditzaren trinkoa jokatzen da: *Yeinquari otoy egiten daracodala çaducen osoric eta alegeraric* (TAV, 155); “hark zu” *zadutzen* da hori. Oroit garai hartantsuko Leizarragarenak direla “hark gu” *gadutzate* (Aresti 1972: 173) eta lehenago Etxeparek *daduçala* ‘dauzkala’ (32) edo *dacacela* ‘dakartzala’ (50) idatzi zituela.

Zulaikaren arabera XVII. mendean hasi ziren *izan hadi* eta *ukan ezak* erako agintezko aditz perifrastikoak agertzen (1999: 806). *Pratica-n* agintezkoetan ezaugarrria berriztaturik ageri da: *içan cite umil eta ordutic pacient içanen cira* (270); *cibaurren duçun içaria besten uken eçaçu* (419) adibideak dakartza. Ordea, era zaharreko xedezko formak ere erruz ageri dira *Pratica-n*: *Gincoac lexala... sinhestetan guinen!* (275), era trinkoan emanik, baina hurranen adibideak perifrastikoak dira, borondatze-aditz baten osagarri, -n atzikzia bildurik xedea adieraziz edo zehargalderan: *desira ere dieiteçu ezkinen behin ere mundura gin* (342); *bena erran eçadaçu othoi, dembora berian, nunti jiten ahal den etciren lohikeriaco penxaketez behin ere ppenathia içan* (395).

Hona orain xedea adierazten duten adibide iragankorrik; *edun-en* era zaharrak nabarmendurik dakartzagu, baina \**edin* eta \**ezan*, letra biribil nabarmenduan: *horra sendua cira, ezteçaçula aboro becathuric egelin, damu edo malur handiago bat ez-tuçun* (314) era trinkoan; *hobe lukeçu, dudaric gabe, gure proximuarendaco amorioz eta opinione hunez bihotzçac bethiac guinthien eta guibauren estakuriac beguien aitciniian atchiki guinçan* (419). Hona orain *nahi* baliatzen duten aditz lokuzioak: *otoitzcen dugularic nahi dien gure pacencia ezkacen ordain hartu edo errecebiku Jesu-Christoren pacencia* (152); *çointan Apeçac Aita Eternala otoitzcen baitu bere Seme bakoitzçaren merechimendiez nahi dien errecebiku offritcen deracon Sacrificiu* (233); *nigarrez otoitzcen cielaric nahi cien lagundu oro contre cithienaz gueroz* (390); *otoitzcen citugu, Jauna, nahi tuçun gure botzçac juntathiac içan diten manatu Celuco Aingurieneki* (151); *otoitu ciela Joannez Egiptaco Abade Seindia nahi cien sendotu sukar gaiztho batetaric* (332).

Are \**eradun* ere bada tripertsonaletan: *handiski otoitu cicin nahi ceracon eman har hetaric bat erlekitan beguiratceco* (325); *haren otoitzcera nahi ceracon* *Gincoaganic osagarria jardiretxi* (327).

2.4.2.4. Baldintza erreala \**edin* baliaturik egitea arkaismoa da *Pratica* idatzi zen garaian, baina adibide bat dakar: *ene Aita, ahal badadi, eneganic urrunt eçaçu Caliça hori* (300).

2.4.2.5. *Pratica-n* *liz* eta *lira* adizki singular eta plurala ditugu *izan* aditzaren hirugarren pertsonan, *tempus hipotetikoan* (Aresti 1972: 159): *halaz, eliçan ordian beste abanhailaric, erran dugun pratican edo maneran, becic ere hartan bestetan beno luçazago irauteco edo egoiteco ahala* (89); *segur içan behar diici, beraz, Gincoac igorten derauzkigula gure hobetan eta gure prootzchuric handienarendaco, eta eliçan ordian hetan beste prootzchuric, mundu huntan Gincoaren haur guiza gaztigathiac içaithia becic* (311-2), biak singularrekoak. Leizarraga ere erabiltzaile da: *eta hec menditic iausten ciradela, mana citzan, nehori ezlietzoten erran ikussi cituzten gauçác, guiçonaren Semea hiletaric resuscitatu licensean baicen* (78r). Eskualde gehiagotan iraun du era honek, Otxoa Arinek *baldin arquitcen baliz fundamenturen bat, dan chiquiena lizalarican ere*

adibidea dakar. Plurala, berriz, botiboan dakar *Pratica-k: sobera guihaur beithan poroança diici otoitzçaren dugun beharras, eta ailira poroança suerte horiec becameago* (97). Leizarragak ere badarabil *ai + izan-en* trinkoa: *bacequizziat hire obrác, ecen ezaicela ez hotz ez eraquin: aihinz hotz edo eraquin* (435r). Botibo mota hau burutu eta burutugabeetan dakar Inxauspek —*ailíra héltzen nahiz ailíra héltu*—; etorkizunekoan *ailíte hel* adibidea du (1858: 384-5).

Nor Nork-en hirugarren pertsonako *lu* adizkia + *-en* atzikzia dakar *Pratica-k: Gincoac permetitu balu Demoniuac haren tentatceco uken dien botere bera ene contre uken lien* (428); aditz sistema zaharraren jarraitzaile besterik ez da honetan, Leizarragak aitzin solasean dakin *escueduquiren luenic gogorarazten* digu. Sarako Etxeberrrik ere ibiltzen zuen: *baldin norbaitek lituelarik bi ezpata, bata baino bertzea hobea, eta hoberen hau zokhoan utzirik, mendreago hura erabiltzen balu egun guztiaz ongi garbitzen eta olloztatzen luelarikan, dudarik gabe mendreago hau zorrotzago eta distirakorrako lizate...* Berdin Otxoa Arinek ere: *cerren, cumplitzen lebanac, eguingo leuque leenaz gañera beste pecatu mortal bat berriro.* Ekialdeko Maisterrenak dira elianac eta lialaric eta ez dago urrun Eskiulako 1758ko Ressegueren beste adibide hau: *eta Aurhidetaric combaït eracouts baledi gogor, eta ezten jarri nahi bide hounian, edo eguinlian cembait gaizki handi eta itchoussi mundu oroc lekianic, idoki eta eçabatu içanen da Aurhideoa erran Deneco Registre edo Izkiributi* (23).

2.4.2.6. Euskalki gehienetan denbora indeterminatua adierazten du *l-* morfemak, ez oraina eta ez iragana. Hona *Pratica-ko* adibide bat: *guiçon arguitu eta Gincothiarrec Liburu horrendaco duten eztimiac, eta nihauréc haren balioztarunaz dudan sinheste handiac, anitzcetan guttitciaraci diraacie Heuzcarala içan ladin itçulia, amorecatic Heuzcara becic eztakiten guiristinhua ere, probetzcha ahal liten Liburu preciatu hortçaz* (3-4).

Egun Zuberoan gertatzen da *l-* aurritzkiak aditz laguntzaileetan iraganeko tempusa ere adieraztea, baina garai bateko idazleek argi erakusten dute ezaugarri hau he-datuago zegoela eta euskal aditzaren historian bere garrantzia duela. Mendebalean Lazarragak erruz darabil ezaugarri hau eta ezaguna da Etxepareraren *gaycez lagola ençun nuyen bana nic ez oguenic hura* (230); gaiaz Aldaik (2008: 324) eta Mounolek (2011: 30-31) idatzi dute berriki. *Pratica-ko* adibideok ere lekuko ditugu: *onduan bere etcherat itçulcen celaric, laboraria idiren cicin urkaturic trathia ein çuten lekian, Gincoac permetituric desesparacionesco seindimendiec ekar leçaten bere buriaren urkatcera trathu gaizto hura ein cien leku berian* (245); *bathu çutela laborari bat, çoinec anitz otoitu baitzcithien eman litçakoten bere paketac, behar çuten lekura gogotic eremanen cerestela* (145); *bena nola Gincoac beti berez arrangura baitu, eguin cicin meciaren eitera cerbitzchari hura joaiten celaric, igaran çadin Eliça baten aldian, çointan Meça erraiten ari baitcen; Elevacioneco chilinta inçunic, Jaun Handiaren adoratcera Eliçan sar ladin, Meça haren akabança inçun leçan, bai eta ere beste bi Meça ondoz ondo erran cirenac* (246-7); *eta bethiere intencioniarekin, Sacrificio Adoragarri hartaric beer çor içaithen ahal cen parthia oro heendaco içan ladin, beztendaco eiten cien oferimendiaz etçadin heena hert edo guti ahal* (235-6).

2.4.2.7. Ez dira sumatzen *Pratica-n* *bitzen* ‘bizten’, *hotzen* ‘hozten’, *karatsen* ‘karasten’, *latzen* ‘lazten’ erako inesiboko aditz izen zaharrak, baina bizpalau aditzen adibideak daudelauste dugu; *otoitu-renak* dira nabarmenenak: *otoitzcen* (152, 233, 390) eta badira *otoitzciac* ‘otoitzteak’ edo *otoitzceco* ‘otoitzeko’ aldaerak ere: *otoitzte anitz*

*otoitzciac Gincoa eztici eneatcen* (104) / *bere bihotzça emanen diela goizcetic Ginco bere Creäcaliari, hartan iratçarriric egoiteco eta haren otoitzceco* (109). Ondoko Zuberoan 1676 inguruko *Pronus-en* —*othoitcen dut* (15)— nahiz 1757 inguruko *Iganteçtaco pronoua-n* (3) ere bada. Bestalde, *aratze-* ere aipa daitetik —*gure beti prest atchiki-aratceco* (61)—, huts grafikoa ez bada, bederen, eta *ihortzcia ‘ehorztea’* (27) ere bada. *Pratica liburuan* txistukarien idazkeran ageri den nahasketa gaitzaren adibideak bai-zik ez izatea ere litekeena da; cf. aditz izenaren gai honetaz Urgell (2006).

### 2.4.3. Luzaz iraun duten ezaugarri zaharrak

2.4.3.1. Agintezko Nor Nori Nork aditz saileko adizkietan, subjektua bigarren pertsona delarik, *d-* marka ez da Nafarroa Behereko lehenbiziako idazleen lanetan ageri, berrikuntza honek XVIII. mendean ditu lehen agerraldiak; cf. Suarez d'Aulanek eginarazi 1740 inguruko katiximako *barca ditçaguçu* (8). Lapurdin agerpena goiztiarragoa da: XVII. mende hasierako Materrenen katiximan *diazadazu ‘iezadazu’* aldaera usu errepikatzen da eta Etxeberri Ziburukoak *diezadazu* baliatzen du. Gazteluzarrenak dira, berriz, *egor dietçagliigutçu* (1983: 25), *erakuts dietçagutçu* (25) edo *har de-tzatzu ‘har itzazu’* (27). Aldiz, Leizarragak ez darabil: *iezadak, iezok, iezaguk, iezadan, iezadazue, ietzadak, ietzadazue* saila dakar beskoitztarrak. Baxenabarren Etxeparek —*yaçadaçu* (20)— eta *Pratica-k* —*eçadaçu* (24, 116, 128), *ukan ezaguzu* (383)— jokabide zaharrari eutsi diote.

Ordea, Nafarroa Behereko idazki berankorretan *d-* ageri da. Bazkazane 1762: *errenda dieçadacu* (190), *errenda deçadaçu* (191). Laneufville: *erran eçaguçu* (65), baina baita *ditçaguçu ‘iezazkiguzu’* (12, 71) ere. Donap kat: *barkha dazkiautz* (224). Caz SM: *eman ezaäuzu* (27), baina baita *idok dezäuzu* (66) ere; cf. *manatzen dauzut erran dezauzun* (71), subjunktiboko adibidea, non *d-* hori jatorrizkoa baita. Aldiz, Donamartiriko katiximan ez da *d-* ageri: *eman ezaäxu* (252), *erran ezaäxu oäi* (256).

2.4.3.2. Nor Nori Nork saileko adizkien egiturak, sinkopak sinkopa, osorik zi-rauen XVI eta XVII. mendeetako idazleetan, baina ez zuen horrela jarraitu XVIII. mende arte: *-era-* atala galdurik, mende honetako idazkietan bederen laburtzapen go-gorrak jasan zituen; gerora XIX. mendean *-era-* gabe agertuko zaigu. Idazlerik idazle joko dugu bilakaera hurbiletik jarraitzeko. Lehenik Etxepareraren erabilera dakargu: *derautazu* (187) & *daraudazu* (203) & *deraudazu* (218), *deraut* (142, 234) & *daraut* (160), *badaraie ‘badiate’* (245), *daraiela ‘diela’* (51). Horiekin batera *\*io* erako adizki bat ere badakar idazle honek: *heuskarari eman dio* (251). 1651ko pregarieitan ere bada *\*io era: diogu* (2, 12), *diotçagula* (3), *diotçagun* (12), *diociela* (20, 22), *diotçacie* (20); beste saila ere badarabilte pregariek: *daroe ‘die’* (sarrera), *daragute ‘digute’* (6), *darauzquiula* (8), *darauciet* (9), *daracogu* (10), *daratçogun ‘dizkiogun’* (13), *daroenean ‘dienean’* (25), *placer daraen eman* (10), aginte adieran, ‘eman diezaien’.

Leizarragaren lanean nabarmena da oraineko adizkietako *-e-*ren sinkopa, baina hortik goiti egiturak osorik jarraitzen du: *ukan draue, eztraukeon gizona, draukat ‘diot’, drauat, draunat, drautak, draukuzu, draudate, drauzkiat, drauzkit, drauzkigu, gendrauzuen, baina baita nerauzuen, nerauen, zeraukun edo nerauzkizuen* ere. B. Etxauzek osoagoak darabiltza: *darauzut* & *darauzudala, darakodala ‘diodala’, darraudala ‘didala’, dirauztazu ‘dizkit’* zuketan —Axular baten *derauzkit*—, *dirakozut*

‘diot’ zuketan. Tartasek ere adibide sinkopadunak dakartza: *drauzut, drauko* ‘dio’, *draut, drauku*, baina baita osoagoak ere: *zeraukoten, derautzut, derauzko*; \**io* erako adizkiak ere badira haren lanean: *baitio, zioten*.

*Pratica-n* oraino egitura zaharrari eusten zaio —*ceracola* (218, 415), *deracoço* (418), *derakot* (25), *derauçut* (126), *derauciet* (29), *deraaçu* (125), *dirauskigu* ‘dizkigu’ (115) edo hirugarren pertsona pluraleko datiboa duen *derestenian* ‘dizkietenan’ (120)—, baina Laneufvillek eginarazi katiximan egitura laburragoak eta bila-katuagoak dator, Nafarroa Behereko ahozko egungo adizkien antza dutenak: *dauCogu* ‘diogu’ (72), *dauçugu* (164), *baitaut* ‘baitit’ (18). XIX. mendeko idazkietan guztiz falta da -era- atala. Donam kat: *dauzkitzut* ‘dizkizut’ (253), *datazula* ‘didazula’ (253), *daukun* ‘digun’ (262). Caz JJ: *dakola* ‘diola’ (139).

Zenbait adizki laguntzaile badira idazle baxenabartarretan egitura orokorretik zer- txobait urrunten direnak. Oihenartek *dro* ‘dio’ (135) darabil, non -ko falta baita; iraganean *zeron* ‘zion’ darabil; badu *darote* ‘didate’ (354) adizkia ere. Laneufvilleren katiximan *deron* ‘dion’ (156) aldaera ageri da, -ko morfemarik gabe. Jakina denez, Nor Nori eta Nor Nori Nork aditz sailen Zuberoako egituraren hirugarren pertsona datiboa ez dago -ko- morfemarik: Belapeirek *derio* ‘dio’ darabil, eta aldiiz, Resseguek *jakin-erazten derolaric* dakar (1758: 34) eta 1780koan Mercyk *permetitcen derogu* ‘diogu’ (16). *Edipa* pastoralean *derot* dugu (272), *Charlemagne-n eman dero* (128) eta *Sainta Catherina-n*, berriz, *minçatu ceron erregueri ounestate eder batequi* (516) & *minçatu ceion orano afletione falxu batequy* (516).

2.4.3.3. Metatesia ageri da aditz nagusia eta laguntzailea elkartzen diren egitura zenbaitetan, eta adibideak zaharrak dira. Etxeparerena da *ezarteyntu* (128), esate batera. Lapurdin Axularren lanean aurki dezakegu metatesi hau: *betatzeintu* ‘bettezen ditu’ (196). Bazkazaneko 1762ko predikuek ere badakarte: *hilceintu* (194), *borratceintu* (203). Laneufville-n ere baditugu: *pintatcein tuste* (28), *ençutein tu* (68), *eçagutcein tugu* (55) edo *complitcein tielaric* (78). Aldiz, *Pratica-n jalgitcen tuçu* (79) erako adibide metatesirik gabeak ditugu, baina jokabide honi ez dakigu interpretazio erraz eta unibokorik ematen.

2.4.3.4. Etorkizuneko bi atzizkiak ageri dira *Pratica-n*: *ikussiren* (3 adibide) / *ikussico* (12 adibide); hitzen zerrendan aditzak aurkeztean dakargu bitasun honen berri. Nafarroa Behereko idazki zaharretan geroaldikiko -(r)en atzizkia ez zaie -n-z bukatzen diren aditzei soilik atxikitzen, -tu edo -i nahiz beste partizipio batzuk dituztenek ere atzizki hau biltzen ahal dute. Adibideetan ageri denez XVIII. mende bukaerako idazleek ere badakarte; aldiiz, XIX. mendean Ibarrolako Salaberri da daramilen bakarra. Bonaparteren eraginez ondu gainerateko itzulpenetan ez da bakar batean ere ageri. Hona adibide zenbait. Etxepare: *betheren* (205), *ebiliren* (60), *eli-katuren* (167), *faltaturen* (34), *iarriren* (50), *iretsiren* (69), *utziren* (173). Leizarraga: *deithuren, itzuriren / biziko*. Tartas: *erreren, ikusiren, joren*. Belapeire: *eroriren, erre-ren, ikhoussiren*. Bazkazane 1762: *aithorturen* (203), *betheren* (213), *causituren* (210, 211), *gostaren* (213). *Pratica-n* ere berdin da: *eçaguturen* (12), *erosiren* (6), *minçaturen* (357), *probetzchaturen* (6). Laneufville: *guertaturen* (78), *lagunduren* (1740ko aginduan), *phizturen* (9). Salab SM: *estekaturen* (32), *ezaguturen* (37), *harturen* (105). Ez dugu ezaugarri hau XIX. mendeko bigarren erdiko ezta XX. mendeko Baxenabarreko idazkietan sumatu.

Lapurdiko idazleetan, Joanes Etxeberri Ziburukoak ere bazerabiltzan honelakoak, baina ez dakigu Lapurdin garai hartan honelakoak baliatzea ohiko jokabidea ote zen ala salbuespena den, zeren Argaiñaratzek, Axularrek eta Harizmendik ez baitakarte honelakorik. Hona Etxeberri Ziburukoaren adibide batzuk: *abantziren, aiphaturen, aithorturen, bortxaturen, ezaguturen, guardaturen, harturen, helduren, higituren, illkhirren, laudaturen, manaturen, oldarturen...*

2.4.3.5. Nafarroa Behereko euskara zaharrean *-i* partizipio atzizkia duten aditzek ez dute aditz izena *-tze* egiten, *-te* baizik; xix. mendean ematen du nagusitzen dela *-tze*; Nafarroa Behereko ekieldean, oraino ere bada *-ten* egungo ahozko mintzoan. Etxepare, Leizarraga, Oihenart, Belapeire edo Oloroeko katixima lekuko egokiak dira. Tartasek eta 1651ko pregariek bi sailak dakartzate. *Pratica-n* ere *-ten* sistemati-koki ageri da: *araciten* (213, 233) vs. *aracitceco* (20, 21, 24, 436), *atchiquiten* (278), *baraskariten ari* (444), *erorten* (432), *ibilthia* (276), *idireiten* (356), *jarten* (223), *jitten* (24). Laneuville bi sailak daude: *eçarten* (158), *erortera* (12), *jarten* (103) / *ecartcen* (liburuaren hasierako *Manamendia* atalean), *igortceco* (48). xix. mendean badirudi aldaketa gauzaturik dela. Donap kat: *ekhartzen* (232), *ezartzen* (241). Donib kat: *ekhartzen* (155), *e(r)ortzen* (162), *ezartzen* (167). Caz SM: *bethatzen* (41), *ekhartzen* (29), *eortzen* ‘*erortzen*’ (50). Irib SM: *churzen* ‘*ixurtzen*’ (68), *erorzen* (54), *iorzen* ‘*igortzen*’ (22), *karzen* ‘*ekartzen*’ (51), *zarzen* ‘*ezartzen*’ (66). Ikus gai honetaz Blanca Urgellen artikulu bikaina (2006).

2.4.3.6. Bukaeran *n* duten aditzetan, aditz izenaren egitura *te-ren* aitzinean *i* ageri da euskara zaharrean, egungo mintzoan Bidasoaldean eta Ipar Euskal Herrian dirauena eta Bizkaiko mendebalean *emoiten* edo *urteiten* bezalakoetan ageri dena. *Pratica* ez da salbuespena: *egoiten* (13), *emaiten* (12), *erraiten* (9), *idireiten* (8) & *ide-reiten* (16), *joaiten* (17), *ukeiten* (10)... Nafarroa Behereko idazki zaharretan ere halaxe ageri da; Etxepare: *egoytiaz* (152), *eramayten* (38). Tartas: *igaraiten* (*Ontsa*, 85), *ioaiten* (*Onsa*, 47). Laneuville: *eramaiten* (74), *erraitia* (76), *içatia* (78); baina baita *içatia* (74) berriagoa ere. Salab SM: *eramaiten* (19), *izaitia* (24). Donap kat: *igaäitten* (229). Irib SM: *hatzamaiten* (32).

2.4.3.7. Etorkizuneko aditz formetan bokalarteko sudurkaria galtzen duten lehen adibide idatziak XVIII. mendekoak dira. *Pratica-n* sudurkaria ageri da —*emanen* (11, 15), *içanen* (10, 17), *joanen* (20)— eta Bazkazaneko 1762ko predikuek *içanen* (172, 183, 201, 211) edo *jynen* (174) aldaerak dakartzate, baina Laneuvilleen katiximan sudurkaririk gabeko aldaerak ditugu: *icaeen* (60), *jain* (105), nahiz sudurkaridunak ere baliatzen dituen: *jouanen* (60), *oukenen* (60). xix. menderako galera gauzatu da; Donap kat: *emain* (242), *izain* (240). Donam kat: *emaan* (253), *jakiin* (259), *jiin* (258). Irib SM: *emain* (25), *izain* (39), *hatzemain* (32), *yain* (31).

2.4.3.8. Bokal arteko herskari ahoskabea galdu da *atxiki* aditzaren *atxikiko* edo *atxikit(z)en* aldaeretan Nafarroa Beherean, eta berdin gertatu zaio *aurthiki* aditzari ere, baina lehen agerraldi idatziak xix. mendekoak dira: *Pratica-k*, esaterako, *atchikitcen* (14) eta *atchikiten* (28) aldaerak dakartzza, eta *atciquitcia* (171) edo *atchiquico* (194) ditugu Bazkazaneko 1762ko predikuetan. Aldiz, ondoko mendeko Bonaparteren itzulpenetan bokal arteko herskaria galdurik dago: Donapaleuko katiximan *atxiiko* (234) dugu eta Caz JJ-n *atxitzen* (111). Iribarnegarairen Baigorriko ebanjelioan *aurthiitzeco* (27), *aurthiiko* (47) edo *aurthiitzen* (47) aldaerak ditugu.

#### 2.4.4. Aditzen kokagune geografikoa

Aipagarri da, bestalde, *Pratica*-n ageri diren hainbat eta hainbat adizki, egun bederen Zuberoako sistemari dagozkionak direla. Aditzen hedadura geografikoari dago-kionez 1782. urte garai hartan Baxenabarreko ekialdeko eskualdeotan gauzak zehazki zerik ziren jakiteko orduko testu gehiago beharko genuke, eta Laneufville apezpikuak argitarazi katiximaz landa ez daukagu deus ere. Ezin ukatu da egun bederen Zuberoakoa den euskararen kutsua nabarmena dela *Pratica*-n; hona adibide batzuk:

2.4.4.1. \**Edin* aditzaren ahaleko hipotetikoan *laite* ‘liteke’ dakar *Pratica*-k bederatzi adibidetan, baina behin *leite* ageri da: *beti intxeatu gure concienciatic kentcercerare hara sar edo lerra beileite saxuric edo gaiztoric* (43). Bakarra da *leite* hau liburuan eta bakarra da *bei-* aurritzka ere, gainerateko adibide guztietan *bai-* dago. Leizarragak ere *laite & leite* bikoizketa dakar. Zuberoako tradizioko *beileite*, *Pratica*-n osorik dagoela dirudi, ez baita \*\*“baileite”; *bei-* eta *leite* Zuberoan ditugu XVIII-an, Oloroeko katiximak (1706: 107), Maisterrek (j), Resseguek (1758: 32) edo Antiokiako San Julian pastoralak (61) dakarte *leite*.

2.4.4.2. Zuberoako adizkien eite du *Pratica*-ko Nor Nori “hura eni” *etceitan* ‘ez zitzaidan’ (428) adizkiak; berarekin batera “hari” *zitzakon*, “zuei” *zitzauzien* eta “haiei” *ezpaitzitzeen* dakartza itzulpen honek eta Baxenabarreko itxura dute hauek guztiek. Nafarroa Beherean *zitzautan & zautan* era ibili ohi da “hura eni” jokoan.

2.4.4.3. Ondotik dakartzagun adizkiak ere Zuberoakoak dira eta *Pratica*-n ageri dira, baina euskara zaharrean ez dira ezezagunak Baxenabarren:

- *Izan*-en Nor etorkizuna Zuberoan: *ihaur içatianian* (Olor kat, 18); *Pratica*-n *date* eta *dirate* ditugu, baina adizkiok arras erabiliak dira Etxeparegan: *date*, *girate* eta *dirate* dakartza.
- \**Edin*-en Nor ahala Zuberoan: *eztaitiana* (Olor kat, 21): *Pratica*-n *naite, daite, gaizte, zaizte* eta *daizte* ditugu, baina hauek ere Etxeparek ausarki dakartza: *naite, aite, daite*.
- \**Izan*-en Nor baldintzaren ondorioa Zuberoan: *lıçate* (Olor kat, 5, Maister 111), eta *Pratica*-n *lizateela*; baita -ke-dunak ere: *lıçateke* (Olor kat, 109) eta *Pratica*-n *lizatekeela*. Hauek ere Etxepare zaharra dakarkigute gogora: *lizate, lirate*.

#### 2.4.5. Aditz nagusiaren adiera eta forma

2.4.5.1. Aditz-izenak -ko atzizkia daramanean ‘aditzaren adiera + gabe’ adierazten du: esate batera, *incentxatceco* ‘intsentsatu gabe’ (17) da esanahiaren aldetik. Adibide sorta bat dakar: *bata Meça inçunic, besthia Meça inçuteco joan cirela* (249-50); *beldurrac, umilitathiac eta errespethiac beste oroz gagnetic haren ispirithia garaituric, Jaun Handiaren edo Jesu-Christoren Gorpitzçaren eta Odolaren errecebitceco çunbait egunez egon çuçun* (252); *bena soldaduac hirian sar beçanbat Gincoac uxutu citicin eta halaz, damuric edo gaiskiric batere eguiteco hirian igaran cituçun* (322); *ispirithia gauça thipi hetçaz guti cassu eguiten dienian abhalguiac hartcen dici, eta sinhex-arasten becatu direnac ere estirela batere becatu, amenx duda daiteela becatu diren ez ala bai, eta halaz confessatceco utcico tuçu* (366); *ermithain hori estonathia arraposthu hortçaz, hitzcic erraiteco utzci cicin eta beste Ermithain çahar baten idireitera joanic...* (394-5).

2.4.5.2. Euskal Herriko mendebaleko nahiz erdialdeko autore zaharrenetan —cf. esate batera *RS*-ko *ebili* eta *ekusi*, edo Ubillosen nahiz Agirre Asteasukoaren *ekusi*— eta egun nagusiki ekialdekoetan ageri den *e-* aditz aurritzka, zenbait aditzetan *i-* bilakaturik dago Nafarroa Behereko XVIII. mendeko idazleean. Aitortzekoa da, halaz ere, lehenago, Belapeire edo Maister zuberotarrarek *e-z* gainera *i-* ere badutela. Esate batera, Etxeparek, Leizarragak, Materrek, Tartasek, Maisterrek edo pastoralek *e-* duten adibideetan, *Pratica-k i-ra* bidea egin du eta aldaketa gauzatu da: *ikussi* (17), *ibili* (279), *igorri* (176)... eta halaxe ageri da XIX. mendeko Baxenabarreko idatzietan ere, baina Iribarnegaraik Baigorriko mintzora itzuli San Mateoren ebanjelioan *i-z* landa bada *eiltzera* ‘ibiltzera’ (35) eta *eiltzen* (49) ere.

2.4.5.3. Adibide batean segurik gertatzen da aditz batek partizipio burutuaren atzikzia bi eratakoa hartzea: *iratçartu* (26, 110, 208) / *iratçarri* (70, 109, 208, 356, 377, 408, 413).

2.4.5.4. Aditz arazleak ugari dira liburuan; *arazi-ren* adibide franko ditugu, partizipio burutuaren atzikziaren ondoan aditz-izenarena ere badakartenak: *cherkaratciten* aipa daiteke (428); ez dakigu bertan arazo grafiko bat gertatu den, ala garai harthan aditz hau honela ahoskatzen ote zen; liburuan hamabost *araziten* <araciten> ageri dira eta *aratciten* bakarra, adibide honetakoak; aldiiz, *aratciten-en* adibideak ugari dira, hamazazpi zenbatu ditugu, eta bada *eçagut-aratcicen* (115) ere. Bi aldaera, “*arazi*” eta “*aratzi*”, bakoitzia bere ahoskerarekin egon ahal izan zirela baiezatzeko, honelakoxe adibideak beharko genituzke garaitsuko beste idazki batzuetan, edo gure liburuaren eskuadeko orduko nahiz egungo euskaran, baina ez dago honelakorik.

Aipagarri da partizipioko *-i* gabeko aldaerak ere badirela liburuan: behin ageri da *arazten* (16) eta *arasten-en* zazpi adibide daude (361, 366, 377, 418, 418, 431, 431).

2.4.5.5. Aditz nagusi batzuen partizipioko formetan aldaera berriak sortu dira Zuberoa alderdian. Biarnesean ikusi da berrikuntzaren hazia, eta *-i* erako euskal partizipioek ere lagundu dukete gara dadin, beharbada. XVIII. mende hasierako Oloroeko katiximan, *Confiteorra akavi behar da* adibidea ageri da (92). XIX. mendeko Xahok kontserbi dakar (Davant 2009: 47). *Pratica-k akabico* (351) dakar 1782an eta egun ere adibide ugari entzuten da Zuberoan: *akabi*, *arrabaski* ‘arrabaskatu, xehatu’, *desaloki* ‘dislokatu’, *enplegi* ‘baliatu’, *esprabi* ‘proba egin’, *esteki*, *erremarki* ‘ohartu’, *porrokhi* ‘porrokatu’, *xeheki* ‘xehakatu’. Egungo mintzoan Amikuzeo Bithiriñan *espa(a)kiik* ‘eskapaturik’ bildu dugu guk.

2.4.5.6. Ipar Euskal Herrian hondarreko mendeetan, *-ki* morfema berranalizatu eta *-k* bukaera baliatu da aditzoin gisa. *Pratica-n* ez da hain nabarmena, baina badira adibide bakan batzuk: *hura aurtic artekan* (440); *idec artekan* (24); *ez bilo bat idoc Gincaco nahi espadu* (411). *Pratica-ko* aditz gehienek *-ki* gorde dute ingurune ez asertiboan: *atxiki*, *ebaki*, *edeki*, *iguriki*, *jarraiki*, *jeiki*.

2.4.5.7. Ipar Euskal Herrian *-tu* & *-du* bukaera duten aditz batzuen aditzoinetan biluzirik dago *-t*. Ez bide dira hain aldaera berriak, Leizarragak ere bai baitakartzza: *arind* (263v), *ezagut* (263v), *garait* (127r), *hant* (264r), *lagund* (216v), *orhoit* (7v), *urrund* (152v), *xuxent* (79r) aditzoinak ditugu beskoitztarraren lanean. Haren *arind*, *lagund* edo *urrund* aldaerek erakusten digutenez, logikaren arabera ondokoak dira *arhint* (158), *lagunt* (3) edo *urrunt* (168), hirurak *Pratica-n* ditugunak, hauekin batera *ezagut* (36), *garait* (367), *gort* (34), *hant* (257), *hurrant* (97), *orhit* (46) edo *xuxent* (33) ere badira gure itzulpenean.

### 2.4.6. Aditz nagusi eta laguntzailearen hurrenkeria

Perpaus asertiboetan, osagai baten hanpadura handia denean, galdegaiaren ondotik adizki laguntzailea aditz nagusiaren aitzinean ezartzeko aukera dago Ipar Euskal Herriko mintzoetan. Mendebealean ere badira adibideak, baina, Arejitar dioenez (2008: xxxvii), Kapanagaren lanean hurrenkeria hau “ez da inolaz adierazgarria baiezako perpausetan, sartalde hizkeretan behintzat”; Lazarragarengan ere badira adibideak.

Nafarroa Behereko idazkietan aspalditik da ezaguna ezaugarri hau; hona adibideak. Etxepare: *orai dute ikhasiren* (257); *orai dute phorogatu* (253); *sobera digizi egin bekhatu* (199). Caz JJ: *ezik hori izie mehexi* (130). Zuberoan ere ageri da: *eta hec die borogatcen* (Maister, 148); *gouregaty du issoury* (Ressegue 1758: 40). Pratica-n ere badira adibideak: *nic nicin merechi curuce hori* (166); *eci çoinhec ere bessarkatcen baititu placerreki ppenac, umiliacioniac eta nahigabiak norbaiten amorecatic, erakasten dici hura maite diela, haren amoriua obraskua dela eta eguiaskua, holaco ocasione ppenas-kuetan direnaz gueroz agueri* —dioten beçala— *eguiasco adiskidiac* (174); *guero Consecracionia eiten duçu, çointan baitago eguiasco Sacrificiu eta ordian duçu oferitzen* Mementuan *goguan hartu diren ororendaco* (234); *pacenciati duçu agueri nor diren eguiasco umilac* (276); *otoitzçan berian ere lachatcen eta hozten bacira, lachotarçun horren contreco erremediua otoitzçan cherkatu behar duçu; harc citu eçarriren lehenbicico devacioneco seindimendietan* (102).

Aginte ingurunean ere usu gertatzen da, *edun baliatuz, gainera: dugun ikuz horren gagnan Seindiec cer seindimendu duten* (38); *dugun elgarrekin haren icen seindia ohora* (210); *orai, dugun ikuz justuac eguiten dien otoitzça* (110); *dugun, beraz, beti goguan atchiki alde batetic Gincoac igorten thiela gaztiguiac* (321). Adibide batean *\*ezan* ageri da: *deçagun hedatukiago ezplika nola eguin daiteen* (80). Zuberoako *Edipa* pastoralekoa dugu beste hau: *sependent deçagun eçar hougnez gora lehenic* (264).

### 2.4.7. Aditzen gobernuak

2.4.7.1. Aditzen balentziari dagokionez aldaketa historikoak gertatu dira aditz multzoan euskaraz. Aditz berezien artean, eta Mounolek dakarren terminologia baliatuz, *nahi*-k alineazio ergatibora jo du ekialdean; honela, *nahi*-ren menpeko perpauseko aditza iragangaitza denean, absolutiboan jokatzen da *nahi*-ren subjektua eta adizki laguntzaile iragangaitzarekin baliatzen da *nahi*; Nafarroa Behereko idazle zaharretan edo egungo Zuberoan horrela da, baina aldiz, Lapurdin XVII-XVIII-n Mounolek ez du adibide bat baizik kausitu (2010: 157), Sarako Etxeberrirena.

Dakartzagun adibideak zaharrak ala ekialdeko kutsua duten idazleenak dira. Etxepare: *nahi eztenac enganatu* (42); Olor kat (1746: vij): *eguiteco ecinago important ho[n]tan, nahi cirayen travaillatu*. Etxepareraren hurranen adibideetan partizipioa falta da: *hura hala nahi valiz elgarrequi guinate* (144); *çuhaur nahi bacirade ni segretu nucheü* (216). Oihenart: *bata ezpada nahi, ezkitakek guduka ni eta hi* (256). Tartas: *hartçaü nahi çiren beçambat frutu* (*Onsa*, 36), kasu honetan frutu osagarri zuzena delarik ere; *nola nahi zira salba dadin?* (*Ontsa*, 107). Olor kat (1706): *Cer erran nahi da berheci direla?* (15).

Gure *Pratica* bide berari jarraiki zitzaison eta aditz inakusatiboekin joko iragan-gaitza dakar: *jardiresteco perfeccione, çointara heldu nahi baikira* (23); *Paphnuça guero*

*bere Desertuco lekurat nahi içan çuçun joan* (143); *nahi bacira... ibili* (279); *nahi cira... altchatu* (111); *joan nahi cira* (265); *bena behar den beçala eta justoki glorificatu nahi dena* (11). Adibide honetan, ordea, ez da berdin: *harc ere bere gorritzça afligi deçan salbathia içan nahi badu* (394).

Beste era batekoak dira *nahi*-ren adibideak Baxenabarren xix. mendean: aditz inakusatiboekin ere joko iragankorra hautatzen dute. Donib kat: *Zertako hil nahi ukhan zien khurutzian?* (152). Donam kat: *Zertako hil ukhan nahi ziin khüützian?* (258). Caz SM: *etxit nabi juan* (57). Irib SM: *etzuten yin nahi izan* (64). Dena den, San Mathiuren ebanjelioan eite zaharreko adibide bat dakar Ibarrolako Salaberrik: *norbait yin nabi bada enekin* (98).

xx. mendean Zuberoa-Baxenabarretan ageri zaigu alineazio ergatiboa. *Erizkizundi Irukoitz*-eko emaitzak aztertutik, Mounolek hiru jokaera dakuski partizipio iragangaitze-kin (2010: 157-8): a) alineazio ergatibo arrunta (Uztaritze, Beskoitze, Urketa, Hazparne eta Maule); b) “subjektua ergatiboan + *edun*” eta “subjektua absolutiboan + *izan*”, bi egiturak, aldizka erabiliak (Donibane-Garazi, Lartzabale, Donapaleu), eta c) subjektua ergatiboan eta *edun* laguntzailea baizik ez erabiltzea (Bardoze, Aldude).

Berebat, *behar* aditz bereziak alineazio ergatiboa erakusten du gehienik *Pratica*-ko adibideetan: *eta nitçaz net content içan behar cirela* (15); *nabi baituçu umilitatesco actac prootchoski eguin, hetan finkatu behar cira* (138); *Gincoaz orhitu behar guirela* (74); *guri erakazteco çoin chahu içan behar guiren Sacrificio hartala hourranteceo* (232). Aditz iragankorra hartzeko ingurune egokia litzateke *haxa hartu behar baitugu* (74), osagarri zuzena duena, baina beste alineazio mota bat dago *chahu içan behar dugula* (194) proposizioan, perpaus osagarriko aditza inakusatiboa baita.

2.4.7.2. Ekiaddeko euskaran ohi den bezala, perpaus inpertsonalak *behar* aditz berezia dakarrenean, aditz laguntzailea iragankor bilakatzen da eta izenak morfema ergatiboa har dezake; hona *Pratica*-ko berri: *eci cofessionian gaucec clarki erran behar dicie* (367); *beste Jesu-Christoren bertuthec oroc goguan erabili behar dicie* (184); *ofritu behar ci Sacrificio horrec* (236); *ispirithiaren beguiez Celuko hazkurru horrec jan behar dici* (239); *hala nola ounci bati hora sartcen çaconian, berheala hourac ouncitic kendu behar baitu hour-perat joan eztadin* (43); *erran tugunac oro... endelgatu behar dicie* (441); *erraiten dicié hitz hoc Ainguriegatic endelgatu behar dutela* (254). Egungo Baxenabarren Eñaut Etxamendik idatzi *Aurora* lanetik hartu adibide hau dugu: *gaixua, ezkalda zizpita bat ba'uxu barnian!* Horrek kendu beha'ixi (1985: 17). Ezauigarri hau Euskal Herriko ekiaddean ageri da eta adibideak ugari dira; Nafarroa Garaian, Esteribar, Erroibar eta Aezkoan adibideak bildu ditugu (Camino 1997: 462-3) eta Zuberoan ere ibiltzen da ezauigarria; *Edipa pastoralekoa da crima malerous horreq ebitatu behar diçu* (259). Duvoisin lapurtarrak ere badakar *Dialogues basques-en: abereac daitzi behar du ahal den garbitasunick handienarekin* (1857: 84).

2.4.7.3. Oro har, iragankorra da *endelgatu* eta perpaus inpertsonaletan ez bada, Nor Nork sailean jokatzen da, baina *Pratica*-ko adibide batean bestela dator: *guiçon endelgatcen ezten batec* (122); dena dela, *ezten hori “eztien” ‘ez duen’-en huts grafikoa izan liteke*. Izan ere, ez dugu *OEH*-n adibide bat bera ere aurkitu *endelgatu* Nor sailean jokaturik.

2.4.7.4. Nor Nork sailean jokaturik ageri da *faltatu*: *bena naguiz otoitcera faltatu çutenen plaçac uzten cithiela incentxatceco* (17), baina baita Nor Nori-n ere: *ordutic dembora faltatcen çacola obra hun eiteco* (55).

2.4.7.5. Nor Nork sailean joka daiteke *gustatu* aditza: *eziici guztatcen* (30); dastatz kutsuan dela dirudi eta ez dakigu frantsesaren eraginez ote den honela.

2.4.7.6. Nor Nork sailean jokatzen da *segurtatu* aditza: *eta biec elga arimen Salbamendiarenako obra balioz bat çatekeela Heuzcarala itçulce hori segurtatu nicie* (4); *Seint Hilarioc ere segurtatcen guitici Ainguriac fidelen otoitzcer behatzen direla* (96); *Seint Augustin nec segurtatcen guitici Gincoaren cerbitzchian biciteco* (153); *gure becathien barkamendia uken dugula hobekienic segurtatu behar guitusten gaugetaric bat duçu, hetçaz uken dugun dolumen handia* (168); *eci Prophetac segurtatcen guitici arima gossia unxa asseko diela* (201).

2.4.7.7. Itxuraz frantsesezko *penser à egiturak eraginik, pentsatu-ren osagarria* izena ala izenordaina denean adlatiboa jokatu ohi da: *orai berian guiristinho bat munduko itxassuan uroski cihacun eta Çelurat becic etcicin penxatcen* (261); *contratu eguna ciela bere beguieki emaste kuntera ez penxatceco* (358); *emastetara behin ere ez penxatceco* (358); *hainbeste gauça nigarguiteco bere beithan idireiten, nun besteren falter behin ere espaitu soguiten, ez hetara penxatcen* (425).

## 2.4.8. Komunztadura

2.4.8.1. Céline Mounolek dioskunez “Ekialdeko hizkeretan, datibozko argumentuarekiko komunztadura, bi mende lehenago baino maizago agertzen da egitura ditrantsitiboetan” (2011: viii), hau da, XVI-XVIII mendeen artean Nor Nork sailean datiboa agertzeko aukera areagotuz joan da. Sarasolak dioenez, berriz, Lapurdiko idazkietan datiboarekiko komunztadurarak ez egitea berria da, ezaugarria XIX. mendeko idazkietan ageri da Lapurdin; dioenez, joera hau ekialderagoko idazleena da hasieran (1991 [1986]: 24). Etxeparek baliatzen zuen: *harc orori emanen dic bere merexituya* (244). Idazle baxenabartarrek are lehen pertsonarekin egiten dute komunztadurarik eza eta *eni eman du bezalakoak baliatu dituzte* (Oihartzabal 1992: 243-4). *Pratica* ez da salbuespena; hirugarren pertsonaren morfema falta da aditzean hurranen bi adibideetan: *Basilac erraiten dici net chuchen, Gincoari eman behar tugula gure devocionen eiteco destinatu edo çatitu tugun demborac* (15-6); *eris edo flaccoz Comenthiari etçutén cerbitzchuric batere eguiten* (13).

Hona idazleen adibide gehiago; Oihenart: *emaiten duzula zur’edertarzuna / hon eztaritzotzunari* (353). Tartas: *erregue hari manu edo conseillu hon haur eman cian prophetak* (Arima, 113). Zuberoako 1676 inguruko *Pronus: parcatcen baitutugu gouri oguen eguilder* (21). Olor kat (1706): *çouré benedictionia othoy eman eçaü ene lanari* (7). Maister: *erran niçun ene dicipulu maiter* (229). Salab SM: *ezik barkhatzen baduzie gizoner, zien kontra egiten dituzten kaltiak* (31). Caz SM: *igorri zitzin gizonak zoinek mochtu baizuten lephua Juanesi* (44). Irib SM: *bere aingurier manatu du* (25).

2.4.8.2. Numeroan komunztadura hutsak ditugu *Pratica-n*: *otoitzcan cherkatu behar dugula gure arimaco eritarçunen edo flakecien erremediuac* (126); *otoitzçac jardirexi behar dirauzkiguçu, biciuac utciric, bici berri eta seindu baten eremaiteco gracia* (126); *gogotic hartcen edo errecebitcen ezzpadu jiten çazkon ppenac eta afliccioniac* (316); *becatu venial ardura eguiten dugunetaric beguiratciagatic ere* (343); *beraganic urrunten cicin goguaketa gaistoric erakar ahal çeçaketen ocasione guciac* (364).

2.4.8.3. Bestalde, *Pratica-n* aditz iragankor eta iragangaitzak lotzen dira: *bertuthia bessarkatcen dienac, gutitan irauten eta hartan aitcinatcen duçu* (19).

2.4.8.4. Perpausak koordinatzean, litekeena da aditz nagusi batzuk ondoan laguntzailerik gabe gelditzea eta aditz laguntzailea bukaeran agertzea: *orobat, çure bertuthia azkarra bada, Gincoaz ossoki bihotzça bethia baduçu, iraunen duçu, bena bihotzian hazten baduçu urguliaren edo beste çunbait passioneren harra, emeki-emeki bihotzça jancaturen, eta bertuthian irauteco goçoric hobena eta azkarrena idokico, clarki errai-teco, becatura berris erorteco langer handitan içanen cira* (65).

Beste adibide batzuetan aditz nagusia da bukaeran laguntzailerik gabe gelditzen dena: *eta Gincoaren benediccioniac lan suerte hotan eztaltcen ahal thiela Languiliaren exkaztarçunac, eta ecinago unxa einac balira beçala arimetan probetzcha-araciten* (5-6); *ceren halaz Liburia laburrago baitate eta merkiago eta hantic, gende praubec ihikiago erossiren eta aboroc probetzchaturen* (6); *eztuçu segurki unxa, ez arraçoinharen araura, guiristinhiko batec lan aboro eguiithiagatic edo beste munduco eitekuegatic, lacha dadin bere otoitzctan, mortificacionetan eta beste Gincoazco einbidetan, eta beste itçulien onduan becic orhit* (14); *orobat, erneki eta seguidan Gincoaren cerbitzchiari jarraiten dire nec, haren graciari berhecienac eta baliussenac jardiresten, halaz perfeccioneric gorenera heltcen.* (48).

## 2.4.9. Tempusa eta aspektua

2.4.9.1. Nor Nori saileko iraganeko adizkietan, idazle zaharretan *zit-* gabeko erak ditugu. Hona adibideak. Leizarraga: *hurbildu çayon ‘zitzaion’* (114r), *minço çayé ‘zitzaien’* (102v), *iarreiqui içä çazican ‘zitzazkion’* (61r). Oihenart: *seroretara zau-tan ‘zitzaidan’ gogoa* (248). Tartas: *iduritçen çautan ‘iduritzen zitzaidan’* (*Onsa*, 5); baita *lüze zaukon ‘zitzaion’* ere (*Onsa*, 137). Bazkazaneko 1762ko predikuetan ere molde honetako adizkiak ditugu iraganean: *çayen ‘zitzaien’* (219). Laneufvillen bietarik ageri dira: *gin baiçacon ‘etorri baitzitzaison’* (37) / *agradatecen citçacon* (133). Aldiz, *Pratica-n zit-* saila dator: *citçakon* (155), *citçaucien* (69), *ezpaitzcitceen* (232)..., baina lehen pertsonan badu *etceitan ‘ez zitzaidan’* (428) adibide bat ere, beharbada Zuberoako eragintzat har litekeena. Cazenavek itzuli San Mathiuren ebanjelioan *zezten ‘zitzazkien’* dugu (31). Gaineratekoan, XIX. mendeko idazkietan *zit-* saila ageri da: *zizakon ‘zitzaion’* (120) dugu Cazenavek itzuli Jondoni Juaneren apokalipsian. Bai-gorrin ere antzeria: *zitzakon* (21) & *zizakon* (23), *zitzazkonz* (26), *zitzeen* (22).

2.4.9.2. Denboraren iragatzearekin nolabaiteko lotura duten egoera batzuetan —*arteakan, arthio, beha, bezain fite, beno usio...—*, Hego Euskal Herrian partizipio burutua ibili ohi da, baina Ipar Euskal Herrian aditzoina; *Pratica* bera da lekuko: *hel artekan* (37), *seindi arthio* (35), *sor beha* (28), *sor beçain fite* (28), *haxa har beno ussio* (74)... Berezixeagoa dirudi kasu honek: *bena soldaduac hirian sar beçanbat Gincoac uxutu citicin* (322); kantitateaz ala denboraz eman nahi zuen fiabardura itzultzialeak? Frantsesekoan denbora kutsua dago: *à mesure que les soldats entroient dans la ville, Dieu les aveugla* (RD 2, 506).

Aldiz, gertakaria bururatua den beste adibide honetan *-tu* atzizki perfektiboa ageri da: *confessatu onduan* (51-2).

2.4.9.3. Aspaldiko adibideek ezagun dutenez, *ukhan* & *ukhen* aditz nagusia ageri da Baxenabarren nahiz Zuberoan; Etxepare: *beccatuyez vqheyteco vide dudan doluya* (22); *nahi badut vqhenen dut oray ere berriric* (166). Leizarraga: *ecen çazpiéc hora emazte vkan dié* (86r). B. Etxauz: *arreposturic ezticit vqvhén*. Tartas: *çure vertutiac*

*uqhenen du bere coroa* (Arima, 64). Belapeire: *Ama Virginaren ukhen devocione berheci bat* (I, 97). Salab SM: *Ez beldurrik ukhan gorphitzak hiltzen, eta arimarik hil ez deza-ketenen dako* (57). Caz SM: *fidantza ukhan'azie, ni nuzu, ez lotsa izan* (44).

Nafarroa Behereko idazleek *ukhan* & *ukhen* aditza lehen idazkietarik baliatu dute; *ukhen* aldaera ekialdekoa da eta *uk(h)an*, berriz, mendebaleragokoa. Zuberoan eta Erronkarin ere arrunta da beraren erabilera: Erronkarin *ekun* metatesia gertatu da eta ezaguna da *ekuntu* aldaera ere. Iduri du, bestalde, aditz hau XIX. mendea arte ez dela iritsi Lapurdira.

Egitura perifrastiko konposatuen barrenean direnean, aspektu burutua adierazten dute Ipar Euskal Herrian *izan* eta *ukhan* aditzek, frantsesez edo okzitanieraz erabilten diren egitura birkonposatuen antzera. XVI. mendean ez dirudi oraino euskaraz erabilera hau hedaturik zenik: XV. mendeko Bizkaiko idazkietan, RS, Garibai, Lazarraga, Zalgize, Etxepare, Etxauz edo Oihenarten lanean ez da ageri, baina Leizarragak badarabil; haren lanean berdin adierazten du burututasuna *eztuçue iracurri* batek nola *ençun ukan duçue* batek; cf. beskoitztarraren era bataren eta bestearen erabilera maiztasuna<sup>17</sup> (Mounole 2011: 432). Egitura perifrastiko konposatu honek beste baliu batzuk ere har ditzake: esate batera, esperientzia adierazten duen perfektuarena, edo perfektu urrunarena, hau da, iragan urrunean gertatu den zerbaiten ondorio den egoera batek enuntziazioaren garaian oraino eragina duen kasuetan; cf. Mounole (2011: 47-8).

Ez dakigu erabilera berezi hau puntuari ziren aditzetan gertakariaren aspektua ongi bereizi nahiak eragin ote duen, baina *Pratica*-ko hurranen lokuzio adibideek hori iradokitzen digute: *Gincoac nahi ukan cicin punitu haren urgulia* (294); *etcit uzte uken necessario cela* (8). Hona Leizarraga: *secretuqui vtzi nahi vkan çuen* (2r). Oiherentz: *arstoia emoiik arbuia zezanak, gero eroi behar uken zuen* (81). Maister: *çuc hala nahi ukhen duçu* (289). Era bereko da Laneufville katiximako adibidea ere: *Gincuac nahi uquen ditu benedicatu* (3). Donam kat: *hil ukhan nahi ziin* (258). Irib SM: *hola nahi ukhan baituzu* (42). Aldiz, XVIII. mendeko Zuberoako hurranen bi adibideek argi erakusten dute berez gertakari burutua adierazten duen aditz bati lotu zaizkiola *ukhan* & *ukhen* partikulak; Olor kat (1706): *Norc egui ukhen du credoa?* (22). Ressegue (1758): *noula jakin ukhenbeitugu badela Eskioulaco Eliçan...* (5).

Gure *Pratica*-n ere ausarki ditugu honelako adibideak; lehenik iragangaitzak da-kartzagut: *Liburu horren Eile Gincothiarra hil içan duçu seindutarçunesco urrinian eta Liburu balioz huntas eman diraguça seindutarçunic gorenera heltceco bidia* (3); Jesuita *fraide çahar bat, devocionari emana celakotz anitz estimathia cen bat, salbamenduco bidian net jakinxia, egon içan cela hoguei urthez bere otoitzcetan eta beste eguinbide is-piritaleran* (112); çunbait persona, devocionari eta otoitzça gora hari net emanac ci-rela iduri çuten batçu, becatura erori *ıcan* direla bere leheneco faltac aski goguan atchiki faltaz (112-3); holaz, clar duçu Seindiec ardura meditatzen çutela Passione seindiaren gagnan eta hala equinez, seindutarçun eta perfeccione gora batetara altchatu *ıcan* direla (154); Aita Seindiec ciocie Gincoaren Semia Celutic lurrera jeutxi *ıcan* dela eta gure naturaleça hartu bi gauçarendaco (299).

<sup>17</sup> 101 adibide *ukan* edo *izan* gabeak dira eta 58-tan *ukan* dago; 58 hauetarik 6 esperientzia adierazten duten perfektuak dira.

Hona orain iragankorak: *berheciki Raphael Ainguriac Tobiaz Aitari erran uken cien hitz hotçaz* (95); *David Erregueren banitate baten punucionetan içurri bat haren populiaren gagnera igorri uken cien beçala, çoin içurri hain gaitzça içan baitcen, nun hirrur egunen barnian populu hartaric içurriac hil uken baitcien hiruretan hoguei eta hamar mila guiçon* (319); *Seint Dominicac itçuli uken ciracoçun* (326).

2.4.9.4. Ezintasuna, besteak beste, \*iron edo \*edin aditzekin adieraz daiteke ekialdean, hurranen bi adibideak lekuko. Olor kat (1706): *ecin jakin dirogu* (45); *Edipa pastoralekoa da ecin eguin daiteke* (296). Nolanahi ere den, ahaleko burutugabeetan egun Ipar Euskal Herrian egin ohi den bezala, bai zuberera zaharrean eta bai oraingoan, -t(z)en aditz-izenarekin batean balia daiteke *ezin* partikula, *izan, edun* edo *\*eradun* oinarriekin; Zuberoako pastoraletan ohiz honela da eta *Pratica-n* ere bai. Adibide sail bat dakargu, 1782ko gure itzulpenetik hasirik:

- honakoa *izan-ena* da: *ecin orhitzcen nis* (402)
- horra, berriz, *edun-ena*: *ceren ecin jakiten baitu orena* (60); *hazkurru eta edari guiçonec ecin ikuzten duten bat* (69); *ecin bici-aratcitcen baitute* (102); *guiçonec ecin emaitzçaric eguiten dicie* (104); *barurrac ecin eguiten dituztela* (331); *ecin complitcen dutenez* (332)
- hurranen bi hauek *\*eradun-enak* dira: *Celuco borta orano cerraturic çaguenian eta hiltciac ecin idekitcen cereenian* (337); *nun ecin soguiten baitcerakon* (429)

Autore zaharragoek ere baditzute adibideak. Tartas: *arima ezin hiltzen dela* (*Ontsa*, 122). Oihenart: *Jauregik, berak ardiesten ezin duena du gutiesten* (164). Belapeire: *meça ecin ençuten dienian* (I, 107). Olor kat (1706): *ceren eta Gincoac berac, çoint ecin inganatcen beyta, ez eguiati hurruntcen, erran eta eracatsi beytereyzcu* (21). Maisster: *ecin içaten cira* (105); *obraçale ecin ikhousten dena* (356) / *ecin eççapiric eguiten ahal dienetan* (89). Mercy (1780): *ecin eguiten baduye* (6). *Edipa* past: *ecinbeitut jaquiten* (300). *Charlemagne* past: *ecin jnoracen dit* (344).

Aspektua burutua bada “*ezin + partizipioa*” era baliatzen da ekialdean eta litekeena da *ukhen* partizipioa agertzea, Mercyren adibide hau lekuko: *ecin eracoutsi ukhen citicien* (1780: 10). Ordea, *Pratica-ko* hauetan guzietan ez da *ukhen* ageri: *arraçoinheki mundiaren Salbaçalias erraiten dici bertuthe horren Naussia dela eta haren ganic umilitathia ikassi behar dugula, eci ez Socratec, ez Platonec, ez Aristotec, ez beste Philosophuec behin ere ecin erakaxi dicie* (258); *hamazazpi gau-egunez deuz ere ecin hartu ciela* (324); *Seint Jeromac cioçu Joannes Virginac becic ecin eçagutu çutela Jesu-Christo Virginia* (355); *haren Dicipuliec ecin kaçatu çuten Ispiritu saxu bat guiçon batetaric kaçatu cienian* (392); *Demoniuac —çoinhec ecin enguenatu baitcithien haraguiren placerrez, ez eta bencitu ppenen eta persecucionen bortitztarçunez— segrethia idiren diela eror-aracitceco emeki-emeki urguliaz eta bere beithaco fidanchaz* (401-2); *çure beithan har çäju jakin gabiac, uzte gabiac, lehen boulta ecin empainschatu dienac erain derakola* (428).

Etorkizuneko ezintasuna adierazten duen eraren adibideak Zuberoan dakuskigu; Resseguek *emaztiac ecin ediren dira bilkura hoyetan* (1758: 28) dakar eta *Charlemagne* pastoralak ere badu: *jaunaq çer eran nahi da othian / eçin dutugun goyturen / areta hilen banis ere / enis reculaturen* (1991: 565).

Hurranen adibideetan, ez da -t(z)en ageri, baina puntukariak dirudite; hona *Pratica-ko* adibideak: *examena ussatu tenoretan ecin eguin badugu* (16); *emazte hamabi*

*urthe hartan odol galciareki cen bat, medikiec ecin sendotu çutena* (201). Zuberoako Belapeireren honakoak ere baluke puntuari itxura: *hanitz Eliçataco liburu çaharetan iracourtcen dugu, egun hortan haur hil delaric, herioac ecin goithu ciala* (II, 108). Ordea, *Charlemagne* pastoraleko goitu aditzaz diharduela, Oihartzabalek *ezin goitzen dugu* dakusa puntuaria, eta *ezin goitu dugu*, berriz, perfektibotzat, ‘nous n’avons pu le vaincre’ (1991: 217).

#### 2.4.10. Modalitatea

2.4.10.1. Modalitatea adierazten du *ke* morfemak. *Pratica*-ko tratamendu nagusia zuketa denez, formaz Nor Nork sailekoak dira aditz franko eta *-ke* ausarki ageri da. Gramatikalizazio bilakabide batzuen ondorioz, xv-xvi. mendeetako euskaran egin-kizun bat baino gehiago bete zezakeen *-ke* morfemak: etorkizuna, hipotetikoa, ahala eta modalitate epistemikoa irudika zitzakeen (Mounole 2011: 32). XVIII. mendean ez dirudi ñabardura horietarik urrun dagoenik eta adierazgarri da, gainera, liburu hone-tan aspektu mota guztiiek baliatzen dela:

*hun dukeçu* (130)

*badakikeçu cer galdeguin behar dukeçun* (114)

*guthieni[c] penxatcen dukeçunian* (407)

*goguan hartcen lukeenac Gincoa mortalki offendatu eta damnacione eternala merechitu diela* (318)

*sartu dukeçu* (41)

*ordukotz gaitzça eguna dukeçu* (446)

*itçurico dukeçu* (43)

2.4.10.2. Baldintza irrealaren protasia eskema zaharrekoa denean, *\*edin* nahiz *\*ezan* oinarriak ageri dira eta halakoak ditugu *Pratica*-n ere: *goician oren bat, axian beste bat egon baguinte* (138) eta era iragankorreko *nehorc unxa goguaketac egun ba-litzça* (117).

Ordea, baldintza irrealaren forma berriagoetan, Ipar Euskal Herrian ohikoa denez, protasiko perifrasiko aditz nagusiak aditz-izen ez burutua ibiltzen du *Pratica*-n eta ez dira *\*edin* edo *\*ezan* baliatzen, *izan* eta *edun* baizik; hona adibide hipotetikoa batzu: *thipietan lachatcen baninx, etciaikiçut handietan Gincoac lagunt nindiroenez* (363) / *elitçaikecia gaitzci norbaitec çutçaz opinione gaisto bat hartcen balu* (419); *nehorc serioski goguan hartzzen balitu hitz hoc* (117); *eta unxa eçagutcen baguindu gure faltac çoinhen handi diren, punimendu edo gaztiguric garratencac thipiegui iduri litçauzkeguçu, eta Jopeki erran guindiroçu* (318).

2.4.10.3. *Pratica*-n *bait-* aurritzka duten baldintza hipotetikoaren protasiak daude: *egun ditçagun ez ourrun den bati minço baikina beçala* (86); *bera choïlki erremeshiatcera obligathia bailis beçala* (179). Honelako protasiak proposizio konparatiboen ingurunean agertu ohi ziren: *baino, bezain, bezala* ondoan zutelarik, baina Mounolek dioenez (2011: 237-8), geroagoko euskaran partikula horiek gabe ere *bait-* ibiltzen jarraitu da; lehen agerpenak Barrutia edo Maisterren euskaran ditugu.

2.4.10.4. Ipar Euskal Herrian ohikoa ez bada ere, protasian dakar *-ke* honako perpausak, baina honelako adibide bakarra da hau liburuan: *berheala onduan hil behar baikinduke bezala* (56).

2.4.10.5. Mounolek erakutsi du baldintza hipotetikoaren apodosian euskarak historikoki aldaketak jasan dituela eta dialektalizazioa eragin duela gero horrek. Baldintzaren ondorio hipotetikoa era batera baino gehiagotara eraiki zitekeen xv-xvi. mendetan:

- baldintzaren ondorioan adizki trinko hipotetikoak izan ditzakegu, *-te* & *-ke* atzizkia dutenak edo ez dutenak
- bigarren aukera bat, euskalki guztietan dena, aditz erroa edo partizipio bururatua da, hiru laguntzaile izan ditzakeena: *\*edin*, *\*ezan* ala *egin*; kasu honetan, *\*edin* & *\*ezan*-ek sistematikoki *-te* edo *-ke* daramate
- beste perifrasi bat ere baliatzen dute baldintzaren apodosian mendebaleko eta ekialdeko euskalkiek; ohiz ahalean ibiltzen diren aditzak ditugu bertan: mendebalean “partizipio bururatua + *\*idi*” eran eta ekialdean “aditz erroa + *\*iro*” moduan. Mounolek dioskunez (2011: 117-8), ohiz ahaleko diren adizkiok apodosian ageri direnean, ez dute ahalaren ñabardurarik adierazten.

Geroagoko euskaraz ziharduela, honela zekusan auzi hau Oihartzabalek ere: *çuq baçanequi goure estatia / Segur gin çintaque / çoure lagunequila Charlemagne* pastora-leko adibidea da; aipu horretan baldintzaren ondorioaren balioa du *zintake-k*, ez ahalaren (1991: 206). Inxauspek ere *zintáke* baldintzazko adieran dakar, formaz ahala badirudi ere. Boudak ere antzera dakar: gipuzkeraz oraineko baldintzaren ondorioa den *nintzake* lapurteraz *nintekte* da (1948: 609). Videgaineik errealtitate hau izendatzeko “ebental-potenzial” formula baliatzen du (1983: 639). Adibide gehiago ere eman daitezke: Etxeberri Sarakoaren *eçagut letçaquete* edo Maisterren *egon liteçu* edo *uçul cinteke* apodosi adibideak ditugu; lehena Nor Nork sailekoa eta *-ke-duna*, bigarrena Nor sailekoa, *-te* izanik ere *-ke* gabea eta hirugarrena Nor sailekoa, baina *-te* + *-ke-duna*.

Ulertzeko denez, baldintzaren apodosiko aditzeak ahala adieraztea ere zilegi da. Mounolek Otxoa Arinen eta Maisterren adibideak dakartza (2011: 238, 274. oh.).

2.4.10.6. XVIII. mendean baldintza hipotetikoaren apodosian adizki trinkoak edo aditz lokuzioak ager daitezke, *-te* edo *-ke* atzizkia dutenak. Perifrasietan, berriz, “aditzoina + hipotetikoko *\*edin*, *\*ezan* + *-te* edo *-ke*” da aukera bat (Mounolek 2011: 238) eta *Pratica* bera dugu lekuko: *falta baleçagu eta mement batez bere ezkia guganic urrunt baleça, instant berian evezta baikindainte hala nola arguia galtcen baita ekia gordatcen denian* (282). Aditz laguntzailea *\*iro* denean, orduan ez da *-te* edo *-ke* ageri; berriz ere *Pratica* dugu lekuko: *eguin onduan dolu lakioela uzte balu eta eguin baleça, erhokerietan den handiena eguin liroçu* (51).<sup>18</sup>

2.4.10.7. *Pratica*-ko hurranen bi adibideek erakusten digute baldintzaren apodosi hipotetikoen “partizipioa + *izan = edun* + *-te*, *-ke*” egitura aurki dezakegula:

<sup>18</sup> Mounolek Nor Nori sailerako baliatzen den *\*kidi* ere aipatzen du (238-9), Maisterren adibideetan, baina lehenago ikusi dugun bezala, *Pratica*-n ez da *kidi* erroa ageri.

*han jarriric egoiten duçu, guri endelga-aracitceco idekia idiren balu, sartu çatekeela* (24); *Seint Leonec cioçu Jesu-Christo eguiaski Ginco içan ezpalis, ezkinduskeela erremediatu* (300).

2.4.10.8. Baldintzaren apodosian *izan* aditzak garai zaharrean ez darama -ke morfema, -te darama: *attencione eguiçu cer becatu liçateen çure aurhidiaren ohoria beste baten ispirithian gal-arasten bacindu* (418); *pundu guciac examinatu gabe, behar liçateen beçala meditacione luce eta serioz batez* (125); *segur denaz gueroz ezstatu harten hiltcen bada bethierekotz damnathia liçateela* (118). Zuberoan ere *lizate* dugu honelakoetan: *oren hora ororen desiragarri liçate* (Maister, 111). *Pratica*-ko honako adibideak -ke du baldintza hipotetikoaren apodosian, baina aditz iragankorra da: *suguiac guiçona behin ere trompatu çukeela, espalis bera lehenic urguliaz Gincoaganic urrundi* (404-5).

2.4.10.9. Ahaleko egitura iragangaitzak eratzeko \**edin*-eko adizki -ke gabeak ageri zaizkigu XVIII. mendea bitarte Nafarroa Beherean, baina mende honen bukaeran, aipatu aditzoi -ke morfema erantsi zitzaien eta ezagun du hori *Pratica*-k; eskualde berreko Laneuvilleen katiximan ere -ke-dunak ditugu. Lafonen arabera ordura artean indeterminazioa edo mugagabetasuna adierazten zuen -ke horrek (1980 [1943]: 448 & 452). Hona hainbat idazleren jokabidea. Etxeparek -ke gabeko ahaleko egiturak osatzen ditu: *ecin deusere scriba dayteyela* (6); *gaxtoequi ecin ayte gayzqui beci prouecha* (46); *iamas çurequila enaynde enoya* ‘ez ninteke neka’ (198). Hona iraganeko adibide bat: *ecin scriba çayteten* (252). Leizarraga: *Iaincoaz eçagut ahal daiteña* (267r); *baina aguian norbeit ventura leite cembeit vngui-eguilegatic hiltzera* (273r). Oihenart: *begira nezak ur emeti, nihaur niaitek lasterreti* (97); *bat enaintehun / urtez behin zurekila* (334). Belapeire: *Nor guertha daite dohaxu?* (I, 51).

Maisterren lanean era bat baino gehiago dugu; hona sistema zaharra: *religious bere chedetic-campo bici dena, hanitch faltatara eror ahal daite* (82); *eguiaçco jakilegoua bat ekhartent die, eta haren contre enaite jouan* (163). Batzuetan diptongoa soiltzen da, zuketako kasu honetan legez: *bena eçtiteçu hori içan* (379). Orotan aipagarriena Maisterren -ke-ren erabilera berria da: *egun eta oren oroç, bullant ahal daiteke profeitableki* (375); *eta çoumbatere, eçpeikiteke behar gunukian chahutarçunareki bici ahal* (382).

*Pratica*-n era zaharra ageri da gehienik, baina baditu adizki -ke-dunak ere: *beste anitz gauça chahutarçunaren laudoriotan ekar ahal laite* (355); *erakaz eta ikaz daiteenaz minçatceco* (113); *Daviten erran hoc senxu hortara har dieiesteçu ‘daitezke’ zuketan* (27). Adibide guti dira itzulpenean *daiteke*-renak edo kidekoenak: *nola erran edo abança daiteke umilitathia bertuthe ororen eta etche ispiritualaren cimendia dela* (263); oro har, *dieiteçu* da *Pratica*-k ibiltzen duena. Idazki gehiagotan ageri da trantsizioa. Bazkazane 1762: *causi daite* (214) / *daiteque* (170, 182) & *daitequeela* (170). Laneuville: *ezpailaite* (124) / *daiteque* (37), *gaztequeenaren* (30). *Edipa pastorala* (1793): *ecin eguin daiteke* (296) & *ezstayteke haboro içan bakeric* (311). XIX. mendean eredu berria nagusitu da. Donap kat: *daitekena* (229). Donam kat: *daitekena* (257). Donib kat: *daitekezu* (143).

2.4.10.10. Badirudi garai hartan aditz iragangaitzetan ahaleko \**edin* saila eta etorkizuneko -te atzizkia duten *izan* adizkiak gurutzatzen ari zirela, singularreko hirugarren pertsonan bai behintzat: *çointçaz nehor balia baitate* (202) erakoetan ageri da ahalekoa beharrean *izan* dagoela. Liburuan bat baino gehiago dira horrelakoak

—*nola nehor ezpaitate hala prepara* (207)—, baina era zaharreko adibideak ere badira: *çoíntan nehor dembora hartan goguaketa baitaite* (207). Maisterren lanean ere ageri da: *ceren Jincouaganic sorthu beita amourioua, eta eçpeitate Jincouatan baicic phaussa* (150), adizkia zinez ahalekoa baldin bada, bederen. *Klobis* pastoralean ematen du ongi bereizten direla ahalekoa eta konjetura: *nula daite aski admira egun zure maiestatia?* (609) / *hanko hureti da, bena ardua date agian* (609).

Alderantzizkorik ez dago, *daite* erakoek ez dituzte etorkizuneko *date* erakoak ordezkatu; *Pratica* dugu leku: *umilitathia gabe nehorc etchia eiten badu, labur lurrerat erorico duçu, ceren harinharen gagnan eguna baitate* (264).

2.4.10.11. Jakina denez, aditz multzoan *ahal* edo *ezin* partikulak baliatzen dirnean, autore zaharren eta ondokoena erabilera ez da berdina. Lapurtera klasikoan *ahal* partikularekin \**edin* eta \**ezan* oinarrietako adizkiak baliatu ziren, hau da, beren era trinkoak, eta baita *izan* eta *edun*-en era trinkoak ere. Ibon Sarasolak dioenez, Tartas da *izan* eta *edun* perifrasian edo adizki laguntzaile gisa baliatuz, *ahal* partikula erabili zuen lehen idazlea eta aldaketa honetan behenafartarrek eragina izan zutela deritzo (1991 [1986]: 24-25). Era zaharraren adibideak Etxeparek dakarzkigu; ikusten denez, *izan* edo *edun* darabilenean, -*te* edo -*ke* darama aditzak: *Bearnora garbetaric egon ahal inçanden* (228); *çu eta ni elgarrequi vnsa ahal guinate* (222); *ez bat ori ahal duquet ezetare vercia* (136); *mirayl bat nic ahal banu hala luyen donoa* (142); *arima gaixoa dabilela norat ahal daguien* (26); ondokoak *ezin-enak* dira: *ecin ayte gayzqui beci prouechea* (46); *berce videric ecin date hobenari beguira* (28); *ecin date ehor çure vardinic* (106); *çu eta ni elgarrequi vnsa ecin guynate* (218); *ecyn nuque hura veçayn mayteric* (158); *ecin leçan inbia* (94). Hona orain Tartasen erabilera berri-tzaile pare bat: *bere bicia salvatcen ahal cialaric oihu eta heyagora eguin balu* (*Arima*, 46); *çombat ere barazcaldu gabé edo ondoan gauça apurra edo iaten edo edaten ahal baitugu* (*Arima*, 71).

xviii. mendean indarra hartu du Nafarroa Beherean *ahal = ezin + izan = edun* erroko aditz laguntzaileen bidez eratu perifrasiaiak, *Pratica*-ko itzulpen lana lekuko: *hori duçu ukeiten ahal dugun bideric hobena* (10); *Juje hoheric ukeiten ahal du?* (369); *examena ussatu tenoretan ecin egün badugu* (16). Ondoko adibideak xix. mendekoak ditugu; Salab SM: *sendotzen ahal nuzu* (40); *ezin sendotu dute* (103). Sarasolak daka-rrenez (1991 [1986]: 25), Lapurdiko literatura xix. menderako sistema berrira iraganik dago: *sinhesten ahal duzu ez dutala erortzera utziko zure hitzeturik bat xoilkia* darabil Jean-Baptiste Elizanburu saratarrak. Dena den, badirudi Lapurdin ere bazirela sistema berriko adibide goiztiarrak. Leizarragak *izan* eta *edun* aditzak perifrasian *ahal* eta *ezin-ekin* ageri dituzten erabilera guti batzuk dakartz. Aldaketa honetaz Esther Zulaikak egin duen formalizazioa ikus daiteke (1999: 527-45).

2.4.10.12. Borondatea edo desira adierazten duen *ai-* aurrikzia, era botiboa ere deitzen dutena, balizko adizkerekir, \**edin* eta \**ezan* aditz laguntzaileekin eta aditz trinkoekin baliatzen zen, eta denboraren aldetik, oraina, iragana nahiz etorkizuna adieraz zitzakeen. Bestek *oxala* edo *balinba* erabili ohi dute adiera hori adierazteko.

xviii. mendeko idazle baxenabartarretan *Pratica*-k adibide bat dakar: *sobera guihaur beithan poroança diici otoitzçaren dugun beharris, eta ailira poroança suerte horiec be-canago* (97).

Beren garaian Garibai arrasatearrak edo Axular eta Harizmendi lapurtarrek erabili zuten. Oihenartek bi aldiriz baliatu zuen eta 1656ko *Notitia ospetsuan* aditz era hone-

taz jardun zuen; harena da *ez ailiz jaio* adibidea. Gure idazle zaharretarik Leizarraga-ren lau adibideak dakartzagu: *ia ase çarete, ia abrastu çarete, gu gabe reguetu çarete; eta aitzineçate regna, guc-ere çuequin batean regna deçaguntçat* (295r); *ainençaue supporta appurbat neure erhogoán, baina aitzitic supporta neçaçue* (326v); *ailitez trenca çuec trublatzen çaituztenac* (337r); *aihinz hotz edo eraquin* (435r). Oihartzabalek diosku ez Tartasak eta ez Belapeirek baliatu zutela eta harrigarri deritzo idazkietan horren guti baliatu izanari (1997: 56). Bonapartek Zuberoan baizik ez zuen kokatzen ezaugarrri hau xix. mendean. Inxauspek era honen paradigmak osorik dakartzza (1858: 105-13 & 384-5), baina Clément de Jaureguiberryk dakarrenez (1953-7: 76), xx. mendearren erdialdean ez zen baliatzen. Philippe Etxegorrik Eskula eta Jeruntzeko xxi. mendeko hondarreko su garren berri dakar (2003: 269-70).

## 2.4.11. Aditz laguntzaile eta trinkoen zerrendak

### 2.4.11.1. Sarbidea

Itzulpen liburu honetan ageri diren aditzen aurkezpen sistematiko eta osoa da-kargu hona, tempus eta modu guztietan; egin beharreko zenbait fiabardura oharre-tan datorz. Lehen ere aztertu dira itzulpeneko adizkiak (Bouda 1948, Videgain 1983), baina ikertzaileon azterketaren helburua gehienbat sistema alokutiboa izan zen. Guk itzulpen liburu honetako adizki guztiak aurkeztuko ditugu, hala neutroak nola zuke-tako nahiz hiketako alokutiboak, hiru trataerak. Videgainen 1983ko lanak aise gain-ditzen du Boudaren 1948koa, horregatik, guk oharrak gehienbat Videgainen ikerketa bikainari egiten dizkiogu.<sup>19</sup>

Gure aurkezpen honetan, atzizkirik edo aurrizkirik gabe datozen adizkiak, per-paus nagusiari dagozkionak, letra arruntean dakartzagu, baina atzizkia harturik men-peko perpausetakoak direnak edo *ez* eta *ba* partikulak dakartzatenak, horiek letra etzanean datorz, eztabadakoak barne. Honela, “diagozu”, “die”, “dik”, “tuk”, “nintzan”, “da”, “zira” eman ditugu, letra arruntean, baina *baitziratetkete, etzu, lizateela, zauden* (erlatibozkoak), *zindaudenian* erakoak etzanean datorz.

Bestalde, aditzen lau sailak bereizi ditugu: “Nor”, “Nor Nori”, “Nor Nork” eta “Nor Nori Nork”. Tratamenduak ere bereizi ditugu: eztabadakoak edo neutroak anitz dira; zuketari dagozkionak, berriz, ehun eta hogeita hamahiru zenbatu ditugu. Hiketako adizkiak bakan dira, sei baizik ez. Zenbaketa egitean, adiera desberdina du-ten adizkiak izan ditugu aintzat, ez diogu formari bakarrik so egin. Jakina da inoiz

<sup>19</sup> Videgainenean badira guk *Pratica-n* aurkitu ez ditugun bi adizki; *ciakikeçun* (629) esate batera, ez dakusagu inon; *derauzkiguzutenari* forma (638), *Pratica-ko derauzkiguçunetari[c]* (1782: 313) adizkiaren nahasketa izan daiteke. Aldiz, Videgainen lan sistematikoan zuketako ale bat edo beste falta da; *ziraz-kozun* (1983: 639): *haren mina boulharretan min bicia çuçun; guiza batez boulharrac uztedu cirazçoçun, nun harrez bete baitcicätzcon* (1782: 325); *gindirozu* (1983: 643): *sordeitz ein guindiroçu balin baguindakı ezkirela hain fitie hilen* (1782: 61); ikus *Pratica-ko* (77, 318, 319, 428) ere. Videgainen lanaren helburu ez diren adizki neutrto batzuk ere falta dira haren tauletan, baina zuketa da haren ikerketaren jomuga, ez adizki neutrto guztiak. Hona faltan sumatu ditugunak: “haiet haiei haiet” *baitzeresten* (1983: 639, 1782: 159), “nik zuék” *citustet* (1983: 635, 1782: 274), “hark zuri haiet” *derautçula* (1983: 638, 1782: 59), “hura eni” *etceitan* (1983: 634, 1782: 428).

forma berdin baten sakonean egitura bat baino gehiago ezkuta litekeela. Osagarri zuzena plurala duen *derezte*, esate batera, hiru adizkitzat hartu dugu, aldi berean “hark haiei”, “haiet hari”, eta “haiet haiei” baita.

Aurkezpena egitean morfologiari ez dagozkion bi ezaugarri ez ditugu aintzat hartu:

- *s* eta *z* arteko liburuko zabuka grafikoa
- adizkietako herskari hasperenduak

Herskariak hasperenik gabe agertuko dira. Jabetzen gara adizkien zerrendak osatzean herskarien hasperena kentza eztabaidergarri dela, baina liburuan ageri diren herskarien hasperen guztiak kanko uztea hobetsi dugu.

Izen ugaritan eta hainbat eta hainbat adizkitan, liburu guztian gaindi idazketa bata ala bestea usu txandaka ageri da, eta argi dago adizki bat <*s*>-*z* idatzirik agertzeak ez dakarrela baitezpada orduan hura *s* apikariaz ahoskatzen zenik, ondoko orrian adizki hori bera <*z*>-*z* idatzirik baitator. XVIII. mendeko Zuberoako idazkietan ere badira itxuraz lepokari diren baina grafikoki <*s*> ageri diren txistukariak: oro har, Zuberoako testuotan /*s*/ eta /*z*/ arteko bereizketa zuzen egiten da, baina adibide batzuetan grafia lepokaria beharrean <*s*> ager daiteke. Oloroeko katiximaren argitalpenetan bi grafien arteko bereizketa aski zuzen egiten da: 1746ko edizioak *berriz* (i), *manuz* (i) eta *publicationiaz* (ii) dakartz, baina beste edizio batzuetan badira /*s*/ batzuk /*s*/ beharrean; *berris* (1), *manus* (1) eta *publicationias* (3) erak dakartz, beste edizio batek, baina horiekin batera *graciaz* (3) eta *eracatziz* (4) datozen edizio horretan beharren. *Charlemagne* pastoralean ere, esate batera, *burus* (212), *ebiltes* (342), *handias* (137), *hountarçunas* (137), *jhourças* (269) ageri dira.

Honekin ez dugu adierazi nahi, egun bederen Baxenabarre eta Zuberoako euskaran oro har sumatzen ez den *zt*, *zk* > *st*, *sk* orduan ahozkoan gertaera ezina zenik, adierazi nahi duguna da, *Pratica*-ren itzultziaileak garai hartan euskaraz idazteko eduki zezakeen grafia ez zegoela finkaturik. Liburuan ageri diren <*s*> horiek *s* izan litezkeela ez dugu ukatzen, baina *z* ez zirela pentsatzeko arrazoi funtsezkorik ere ez dugu.

Guk uste, *dereste* vs *derezte* txandaketak ez duen justifikatzen adieraren aldetik ikusi nahi izan den bereizketa. Videgaineak dakarrenez (638), *dereste* “hark haiei haiet” eta “haiet hari haiet” da, eta *derezte*, *berriz*, “haiet hari haiet” da. Ordea, liburuan ikusten da *derezte* ez dela soilik “haiet hari haiet”, zeren “hark haiei haiet” ere bai baita *derezten* (331): *bena hobeki ordian bere merechimendien emendatceria inxeatu behar dicie Gincoaren borondatera ossoki egonez, eta hambat harc igorten derezten beçala ororen gogotic errecebithuz...* Arrestiko ikuspegia bermatzen dute adibide hauek guztiok, txandaketa grafiko nabarmena islatzen baitute: *bacitusten* / *bacituzten*, *baitituste* / *baitituzte*, *cesten* / *cezten*, *citestea* / *citezte*, *lieisteçu* / *lieizteçu* // *ceraskola* / *cerazcon*, *ciaskoçu* / *ciazçoçu*, *citçaskon* / *citçazcola*...

### 2.4.11.2. NOR aditz saila

Izan aditza

*Oraina*

Eztabadaka: niz / / da / gira / zira / zirete / dira

Zuketa: nuzu / duzu & etzu / gituzu / dituzu & tuzu & etzu

Hiketa: / eztuk / / tuk

*Etorkizuna*

Eztabadaka: / / date / / / / dirate

-ke saila

Eztabadaka: / / dateke / *giratekeela* / zirateke / *baitziraterekete* / dirateke

Zuketa: / dukezu / gitukezu / ditukezu & tukezu

*Iragana*

Eztabadaka: nintzan / zen / ginen / zinen / *etzineten* / ziren

Zuketa: ninduzun / zuzun / / zituzun

l- saila

Eztabadaka: elizan / ailira

*Baldintza*

banitz & banintz / / baliz / bagina / bazina / / balira

bai(t)- *baldintza*

/ / bailiz / baikina / baitzina / / bailira

*Ondorioa*

*bailizate* & *lizateela*

-ke *ondorioa*

Eztabadaka: *baininbateke* / / *lizatekeela* / / *etzinatetek* / / *eliratkeenez*

Zuketa: / lukezu / gintukezu / litukezu & lituzkezu

*Ondorio iragana*

/ / zateen<sup>20</sup> & zatenaren / / /

-ke *ondorio iragana*

Eztabadaka: / / *zatekeela* / / / / *ziratkeenatarik*

Zuketa: / zukezun / /

\*Edin aditza

*Baldintza erreala*

/ / badadi / / / /

*Baldintza hipotetikoa*

/ / baladi / baginte / / /

*Subjunktiboa oraina*

nadin / hadin / dadin & dadila / giten / *etziten* & *etzitela* / *etzitezten* & *etzi-teztela* / diten

*Subjunktiboa iragana*

/ / zadin / / / / ziten

<sup>20</sup> Hona *Pratica*-ko adibide bat: *hobe çateen harendaco sorthu ezpalis* (284); horra bigarrena: *haren huntarçun infinitua gure salbatceco azki çatenaren egithiaz etçuçun content içan* (172).

*Subjunktiboa hipotetikoa*

/ / ladin / ginten / etzinten / / liten

*Agintezkoa*

/ bedi / zite / zitezte / bite

*Ahala oraina*

Eztabadaka: naite<sup>21</sup> / / daite / ezpaikaiste / zaizten<sup>22</sup> / / daitste

Zuketa: / dieitez & ditezu / gieztezu & geistezu / dicistezu & dieiestezu (?)

*-ke ahala oraina*

Eztabadaka: / / daiteke / gitakeela / zitake / / estaitzke & ditakeen

Zuketa: / / gitakezu /

*Ahala hipotetikoa*

Eztabadaka: / / laite & beileite / baikindaiste / / / ezpailaite<sup>23</sup>

Zuketa: / lieitez / ginditez / lieiztezu

*-ke ahala hipotetikoa*

Eztabadaka: nindaitekeen / / / zintakea / / litakeen

Zuketa: / / gintakezu /

*Ahala iragana*

Eztabadaka: / / zaiteen / / /

Zuketa: / etzieitezun / /

*-ke ahala iragana*

Eztabadaka: / / zaitekeen / / /

*Egon aditza**Oraina*

Eztabadaka: noon / / dago & doola / gaudelarik / zaudela / / daude

Zuketa: niagozu / diagozu & dioozu / / diaudezu

*Iragana*

Eztabadaka: / / zuguen & zoola / / zindaudenian / / zauden

Zuketa: / ziagozun / / ziaudezun

*Baldintza:* / / balago / / /*Ahala oraina*

Eztabadaka: / / dauke / / /

Zuketa: / eztiaukezu / /

*Ahala iragana:* / / ezpaitzaukeen / / /

<sup>21</sup> Pratica-n ez dago hipotetikoko ahalekorik lehen pertsonan, baina Zuberoako *Othoitce eta cantica* testuan *ecin ediren neinteñu* dugu (1734: 51).

<sup>22</sup> Hona pasartea: *eta hura guiza batez çure eskuko uken behar duçu, nun Gincoaz bestec ezteçakeçün gal-araz abal, eta norc-nabi cernabi einic eta erranic ere, hari jarraiki çazten beçala* (66). Frantsesezko testuak ez du lagunten zazten hori argitzen: *qu'il soit toujours en son pouvoir de la pratiquer, sans dépendre en aucune façon de tout ce que les autres gens peuvent ou faire ou dire* (RD 1, 148). Ez dakigu zazten subjunktiboa den, egiazki subjunktiboa ziten eta zitela daude; formaz bederen, ahaleko *gaizte* eta *daizte* ditu zazten-ek kide, eta zazten-en -n hori -n bezala egiturari legokioke.

<sup>23</sup> Ahalekoaren eta baldintzaren apodosiaren artean leiratzen da: *pundu gucietan hain arhinzki igaraiten tuçu, nun kasi ikatz gorrieta gagnan hain fite ibilteraz gueroz, ezpailaite erra* (137).

Agintezkoa: / / / / beudi<sup>24</sup>

Iraun *aditza*

Oraina: / / *diraueno* / / /

Jaugin *aditza*

Agintezkoa: / / *zauri* / /

Ibili *aditza*

*Oraina*

Eztabadaka: / / *dabilen* & *baithabila* / / / *dabiltzen*

Zuketa: / diabilazu / giabiltzazu / diabiltzazu

*Iragana*: / / *zabilelarik* / / / *zabiltzenek*

Joan *aditza*

*Oraina*

Eztabadaka: *nuhen* / / *duha* / *goatzen* & *guazen* & *guatzen* / *zuazen* / / *duatzela*

Zuketa: *nihazu* / *dihazu* / *gihatzu* / *dihatzu*

*Iragana*

Eztabadaka: / / *zuhen* / / / *zuatzela*

Zuketa: / *zihazun* / /

*bai(t)* baldintza: / / *bailuha* / *baikiduatza* (?)<sup>25</sup> / /

Ahala: / / *duhakeen* / / /

Agintezkoa: / / *zuaza* / *zuzte* /

#### 2.4.11.3. NOR NORI *aditz saila*

*Izan aditza*

*Oraina*

Eztabadaka Hura: *zaut* & *zadanian* / / *zako* & *zaukona* / *zaukula* & *zaguanian* & *baitzau* / *zauzu* / *zauzie* / *bazee*

Zuketa Hura: *ziaazu* / *ziakozu* / *ziaguzu* & *ziauzu* / *zieezu*

<sup>24</sup> Ez dakigu *Pratica-n beudi* ‘beude’ (444) horretan *-de* > *-di* aldaketa analogiaz gertatu den ala “beude”-ren ordezko huts grafiko baten aitzinean gauden; *jaugin* aditzari dagokion Zuberoako *biauri* ‘betozi’ adizkia (Maister, 137) izan ote da analogiaren sorburua? Ez jakin. Badirudi Maisterrek *egon-en* aginteko trinkoa berriztatu eta *-z* erantsi diola: *beudeç ichilic* (349). Lehenago Tartasen lanean *beude* ageri da eta *Pratica*-ren garaitsuán, *Antiokiako San Julian* (1770) eta *Edipa* (1793) pastoralek ere *beude* (49 or. eta 281 or.) dakarte. Inxauspek eta Gézek ere *béude* dute beren gramatiketan: (1858: 451 & 1873: 221). Ikuks *bitez*’ (226) adizki plurala ere badakarrela *Pratica-k*, *Edipa* pastoralak legez (1996: 283 or., 370. ahap.). Eskulako idazkian Resseguek ere *bite* dakar (1758: 48).

<sup>25</sup> Ez dakigu “baikinduatza”-ren hutsa ez ote den: *gure cofessione guciac hiltcera baikinduatça beçala beti egün behar tugunas gueros* (369). Inxauspek *gindoátzan* dakar Zuberoan 1858an (447).

Eztabadaka Haiek: zauskit<sup>26</sup> / / zazko / zauzkigu & zauzkun<sup>27</sup> / ezpazauzkizu & bazautzu / zauzkizie & zautzie / zesten<sup>28</sup>

Zuketa Haiek: etziazkidatzu / ziazkozu & ziauzkozu / ziauskiguzu /

Gu Hari: gitzazkon

Zu Eni: zauzkit

-ke saila Hura Eni: zaukedanian

Iragana

Eztabadaka Hura: etzeitan / / zitzakon / / / zitzauzien / ezpaitzitzeen

Zuketa Hura: / zitiakozun<sup>29</sup> / / zitziezun & zitzieezun

Eztabadaka Haiek: / / zitzazkon & zazkon / / /

Zuketa Haiek: / ziazkozun / /

Baldintza Hura: balizaut / / balitzako / balizauku / / /

Ondorioa Hura: / / / elitzaikezia / / litzakeela

Ondorioa plurala

Zuketa Haiek: / / / litzauzkeguzu<sup>30</sup> / / /

Egon aditza

Oraina

Eztabadaka Hari: / / daukola<sup>31</sup> / / zauzkonaz / / dauzkola

Zuketa Hari: / diaukozu / /

Iragana

Eztabadaka Hari: / / zaukola / / /

\*Edin aditza

Subjunktiboa oraina

Hura: dakidan / / dakion / dakigun / dakizun & eztakizula / /

Haiek: / / dazkion / dazkigun & dazkigula / / /

Gu Hari: gazkion

<sup>26</sup> Videaginiek iraganekotzat jo zuen *zauzkidan* (1983: 634); ez da ezina, baina guk oraineko erlatiboa dela pentsatzen dugu, Boudak bezala (1948: 607); hona pasartea: *ekarri nicie erran dudan Liburu horren, ez ororen, bera pparte baten Heuzcarala itçulcera inxeatceria, eta ene uztez horren capitulu gende comunaren probetxossonac hautatu ticit, bai eta heendako auher cauzkidan capitulu heen pparte çumbait utci* (6-7).

<sup>27</sup> Zuberoan xix. mendean *záizkü* daka! Inxauspek pluralean eta bigarren pertsonetan *záizü* ‘zaizu’ & *záitzü* ‘zaizkizu’ eta *záizie* ‘zaizue’ & *záitzie* ‘zaizkizue’ (1858: 27).

<sup>28</sup> Hona adibide bat: *bere ototzçaco dembora penxamendu seindu bera chothil batçutan eremaiten dice, laket cesten eta gogora jiten cesten penxamendietan...* (128).

<sup>29</sup> Bada *Pratica-n etziriakozun* ere (69), baina hutsa dirudi.

<sup>30</sup> Baldintzaren ondorioa da, *izan* aditza: *eta unxa eçagutcen baguindu gure faltac çoinhen handi diren, punimendu edo gaztiguric garratcenac thiçegui iduri litçauzkeguçu, eta Jopeki erran guindiroçu* (318). Jatorrizko hizkuntzeten baldintzaren ondorioa da: *nos pareceria gaztelaniaz* (I, 441) eta frantsesezko itzulpenean *nous sembleroit* (RD 2, 502).

<sup>31</sup> Maister zuberotarrak ere badarabil: *chuti beba daucona* (400). Boudak “eduki”-rekin lotzen diu makur *Pratica-ko daukola & dauzkola* guztiak (1948: 613). *Pratica-n daukola* (12 agerraldi) & *daucola* (8 agerraldi) ‘dagokiola’ da beti. Adibide bakarrean egon liteke zalaniza: *haren bicia hari pиру batec daukola* (118), non frantsesezko idazkiak *que tout dépend d'un filet de vie* baitakar (RD 2, 47). Ez dago *Pratica-n* beste *daukola*-rik “eduki”-rekin lotura izan lezakeenik, guzti-guztiak ‘dagokio’ dira.

*Subjunktiboa iragana*

Hura Hari: zakion

*Subjunktiboa hipotetikoa*

Hura Eni: lakidan

*Baldintza hipotetikoa*

Hura Guri: *ezpalakigu*

*Ahala oraina*

Hura Hari: *dakioenik*<sup>32</sup>

*Ahala hipotetikoa*

Hura Hari: *lakioela*<sup>33</sup>

*Agintezkoa*

Zu: / zazkio / zaskigu /

#### 2.4.11.4. NOR NORK aditz saila

Edun aditza

*Oraina eztabadaka*

Hark Ni: nu. Zuk Ni: nuzu. Haiek Ni: *nutenek*. Nik Hi: hut. Nik Hura: dut. Hark Hura: du & *dia*. Guk Hura: dugu. Zuk Hura: duzu. Zuek Hura: duzie. Haiek Hura: dute. Hark Gu: gitu. Haiek Gu: *gituzten*. Nik Zu: zitut. Hark Zu: zitu. Guk Zu: zitugu. Haiek Zu: zituste. Nik Zuek: zitustet. Nik Haiek: *ditudan* & tut. Hik Haiek: tuk. Hark Haiek: ditu & tu. Guk Haiek: ditugu & tugu. Zuk Haiek: dituzu & tuzu. Zuek Haiek: dituzie & tuzie. Haiek Haiek: dituzte & tuzte.

*Oraina zuketa*

Hark Ni: nizi. Haiek Ni: nizie. Nik Hura: dizit & zit. Hark Hura: dizi & zi & etzi. Guk Hura: diizi. Haiek Hura: dizie. Hark Gu: gitizi. Haiek Gu: gitizie. Nik Haiek: tizit. Zuk Haiek: *estitizi* & tizi & etzi. Guk Haiek: tiizi. Haiek Haiek: tizie.

*Oraina hiketa*

Hark Hura: dik. Haiek Hura: die. Haiek Haiek: tie.

-l saila

Hark Hura: *lien*.

*Agintezko zaharra*

Zuk Hura: beirauzu.

*Iragana eztabadaka*

Zuk Ni: *ninduzun*. Haiek Ni: *baninduten*. Nik Hura: nien. Hark Hura: *zien*. Guk Hura: *gindien*. Zuk Hura: *zindien*. Haiek Hura: *zuten*. Hark Gu: *gin-*

<sup>32</sup> Ahalekoa dirudi, -ke ez badu ere: *Gincoac ikusten guithiela eta present dela, behin ere eskindiroela eguin deuz ere hari gaitzci dakioenic* (71); jatorrizkoan rien qui pût lui déplaire (RD 2, 204).

<sup>33</sup> Ahalekoa dirudi, -ke ez badu ere: *eguin onduan dolu lakioela uzte balu eta eguin baleça, erhokerietan den handiena eguin liroçu* (51); jatorrizkoak ez du argitzen: *ce seroit une insigne folie de faire ce qu'il sauroit devoir lui causer ensuite du regret et de la douleur* (RD 2, 280).

*tiela.* Nik Zu: *baitzintudan.* Hark Zu: *zintien.* Nik Haiiek: *nitien.* Hark haiiek: *zitien.* Guk Haiiek: *gintien.* Zuk Haiiek: *zintien.* Haiiek Haiiek: *zitzuzten.*

#### *Iragana zuketa*

Haiiek Ni: nindizien. Nik Hura: nizin. Hark Hura: zizin. Haiiek Hura: zizien. Nik Haiiek: nitizin. Hark Haiiek: zitizin. Haiiek Haiiek: zitzitzien.

#### *-ke saila oraina*

##### *Singularra eztabadaka*

Hark Hura: *baduke.* Guk Hura: *dukegulakotz.* Zuk Hura: *dukezu.* Haiiek Hura: *ezpaitukete.*

##### *Singularra zuketa*

Nik Hura: *dikezit.* Hark Hura: *dikezi & dikezu.* Guk Hura: *eztikeizi.* Haiiek Hura: *dikezie.*

#### *Plurala eztabadaka*

Hark Haiiek: *dituke & dituzke.* Guk Haiiek: *ditukegun.* Zuk Haiiek: *ditukezu & tukezu.*

#### *Ahala*

Hark Hura: *estaukeela.<sup>34</sup>*

#### *ba baldintza*

Nik Hura: *banu.* Hik Hura: *bahu.* Hark Hura: *balu.* Guk Hura: *bagindu.* Zuk Hura: *bazindu.* Haiiek Hura: *balute.* Hark Zu: *bazintu.* Nik Haiiek: *espanitu.* Hark Haiiek: *balitu.* Guk Haiiek: *bagintu.* Haiiek Haiiek: *balitzute.*

#### *bai(t) baldintza*

Nik Hura: *bainu.* Hark Hura: *bailu.* Guk Hura: *baikindu.<sup>35</sup>* Zuk Hura: *bainzindu & baitzindu.* Haiiek Hura: *bailute.* Guk Haiiek: *baikintu.* Zuk Haiiek: *baizintu.* Haiiek Haiiek: *ezpailituste.*

#### *-ke saila ondorioa = ahala<sup>36</sup> eztabadaka*

Nik Hura: *nuke.* Hark Hura: *luke.* Guk Hura: *gindukeela.<sup>37</sup>* Zuk Hura: *etzin-duke.<sup>38</sup>* Haiiek Hura: *luketela.* Hark Gu: *ezkinduskeela.* Nik Zu: *zinduzket.*

<sup>34</sup> Ahalaren oraina adierazten du, hona adibidea: *gauçaric thiienza erbo batec dienian, erdi minec hartzen dutela, erran gabe estaukeela utci, emaste haur minetan denac haurren uken gabe beno aboro* (440). Ez da ahaleko jokaera ezezaguna; esate batera, Hegoaidean Nafarroako Aezkoan edo Zaraitzuko Espantzan *dauket adizkia ‘dezaket’ baita eta Otsagabian *estaukezia ‘ez ote dezakezu’;* Erronkari-Zaraitzuetan *doket ‘dezaket’, doke ‘dezake’* dira horiek eta Zuberoan *duke ‘dezake’, tüke ‘ditzake’* eran ageri dira ahaloko adizkiok. Hego-nafarreran, berriz, iraganeko *nuke ‘nezakeen’, zuke ‘sezakeen’, zinduke ‘zenezakeen’* ditugu Joakin Lizarragaren lanean eta *enukela ‘ez nezakeela’* xx. mende bukaeran Erroibarko Mezkirtzen. Etxeberri Sarakoak ere baditu era honetakoak: ...*jaquintsunenac ere etçueen eman sententzia bat ederragoa* (Mounole 2011: 242).*

<sup>35</sup> Baita *baikinduke* aldaera ere, protasian *-ke* duena: *bil behar baikinduke beçala* (56).

<sup>36</sup> Baldintzaren ondorioa izan daiteke *-ke sail hau,* eta baita hipotetikoa ere adibide batzuetan, baina liburuko adizki batzuek ahalaren kutsua dute, honakoak bereziki: *soguin eçaü cer cinen Gincoac creatu beno lehen, deuz ere etcinela eta ezdeutzarçuneco leicetic etcindukeela idoki çure buria* (281). Bigarren honen adiera zehatza ilunxeago dago: *oussustamendu seindu batez desira ere dieiteü ezkinen behin ere mundura gin, ceren espakindukeen becaturic egün* (342). Frantsesekoan inpertsonala da: *désirer que l'on n'eût jamais été, afin que l'on n'eût jamais péché* (RD 2, 472).

<sup>37</sup> Hipotetikoaren kutsua du: *orbitu behar guindikeci han Aingurien Oguia jaten dugula eta halaz Ainguruen chahutarçuna communicatceco uken behar guindukeela* (195).

<sup>38</sup> Hipotetikoaren kutsua du: *yunbatenaz etcinduke ahalgue aboro uken behar* (52).

Hark Zu: *etzintukeen*.<sup>39</sup> Guk Haiek: *ginduskeen & gintuskeen*. Zuk Haiek: *zinduzkeen & zintuzkeen*.<sup>40</sup> Haiek Haiek: *espailituskete*.

-ke *saila ondorioa zuketa*

Nik Hura: *nikezi*. Hark Hura: *likezi*. Guk Hura: *gindikezi*. Haiek Hura: *likezie*. Guk Haiek: *gintikezi*.

-ke *saila ondorioa iragana eztabadaka*

Nik Hura: *nukeen*. Hark Hura: *zukeen*.

-ke *saila ondorioa iragana zuketa*

Hark Hura: *zikezin*

\*Ezan aditza

*Baldintza hipotetikoa*

Hark Ni: *banindeza*. Nik Hura: *baneza*. Hark Hura: *baleza*. Guk Hura: *bagindeza*. Haiek Hura *balezate*. Nik Haiek: *banitza*. Hark Haiek: *balitza*. Guk Haiek: *bagintza*.<sup>41</sup>

*Ahala oraina eztabadaka*

Hark Ni: *nezakeena*.<sup>42</sup> Nik Hura: *dezaket*. Har Hura: *dezake*. Guk Hura: *dezakegu & dezakeu*. Zuk Hura: *dezakezu*. Haiek Hura: *dezaketen*. Hark Gu: *gitzakeen*. Haiek Gu: *gitzaketen*. Haiek Zu: *etzitzaketela*. Hark haiek: *ditzakeen*. Guk Haiek: *ditzakegunez*.

*Ahala oraina zuketa*

Haiek Gu: *ezkitzakezie*.

*Ahala iragana*

Hark Hura: *etzezakeela*. Haiek Hura: *zezaketen*.

*Ahala hipotetikoa eztabadaka*

Nik Hura: *nezakeen*. Hik Hura: *hezakea*. Hark Hura: *elezake*. Haiek Hura: *lezaketen*. Haiek Gu: *gintzaketela*. Guk Zu: *zinzakegun*. Hark Haiek: *bailitzake*. Zuk Haiek: *zintzazkeen*.

*Ahala hipotetikoa zuketa*

Hark Gu: *gintzakezu & ginzakezu*.<sup>43</sup> Hark haiek: *litzakezu*. Guk Haiek: *gintzakezu & ginzakezu*.

<sup>39</sup> Hona adibidea: ô ene *Gincoa*, ala bailitate uroz çu behin ere offensatu etcintukeen guiona (81). Halako kutsu hipotetikoa hartzent diogu perpausari; hona nola dakarren jatorrizkoak frantsesez: *O mon Dieu, qu'on seroit heureux de ne vous avoir jamais offensé!* (RD 2, 220).

<sup>40</sup> Baldintzaren ondorioa izan liteke, ala hipotetiko sinplea: *mement huntan dei neçaçu; edo dei banindeça, ardura poroa çäçü cure buria, guiza hortan cure buriari unxa soïcu eta ikuz eçaçü, heya ciren estathian nabi cintuzkeenez Gincoari cundiac eman* (57). Honako aldaerak d' du eta kutsu hipotetikoa: *sein-ditcen etzuçunian çutan devocione bero eta uken nabi cinduzkeen desircunde garxu hurac, eta hain handi den Naussi baten errecebitceco behar cinduzkeenac* (205).

<sup>41</sup> Aurkitu ditugun *baguinka-ren* hiru adibideak (56, 119, 285), “guk haiek” dira, ez dago “hark gu”-ren adibiderik; cf. Videgain (1983: 637).

<sup>42</sup> Iduri du ahaleko oraina dela, “hark ni”: *bena nahi baduçi hargatic ihardex deçaçudan, beti hautatuco dicit cure idurikuago egün neçakeena eta cure segueitceco, ene bihotz oroz sofrikeriac bessarkatzen ticit* (312). Frantsesez honela dio: *je dis que je choisirai toujours ce qui me rendra plus semblable à vous...* (RD 2, 496).

<sup>43</sup> Alderdi batetik “hark gu” da, baina baita “guk haiek” ere; cf. Bouda (1948: 600). Hona adiera bakoitzaren adibide bana: *aboro placer eguin guindirotu Gincoari eta gure ppenetan hobeki consola quintça-keçu* (319); *segurki arrangurozkiago eta perfeikiago gure obrac eguin guinqakeçu* (55).

*Subjunktiboa oraina*

Hark Ni: nezan & nezala. Zuk Ni: nezazun & *enezazula*. Nik Hura: dezadan. Hark Hura: dezan & dezala. Guk Hura: dezagun. Zuk Hura: dezazun & *eztezazula*. Zuek Hura: dezazien & *eztezaizela*.<sup>44</sup> Haiiek Hura: dezaten. Hark Gu: gitzan & gitzala. Haiiek Gu: gitzaten. Nik Zu: zitzadan. Hark Zu: zitzala. Nik Haiiek: ditzadan. Hark Haiiek: ditzan. Guk Haiiek: ditzagun. Zuk Haiiek: ditzazun. Haiiek Haiiek: ditzaten.

*Subjunktiboa iragana*

Nik Hura: *enezan*.<sup>45</sup> Hark Hura: zezan. Guk Hura: gindezan. Haiiek Hura: zezaten & zaten & lezaten. Hark Haiiek: zitzan. Haiiek Haiiek: zitzaten.

*Subjunktiboa hipotetikoa*

Hark Ni: nentzan. Hark Hura: lezan. Guk Hura: gindezan. Zuk Hura: zindezan. Haiiek Hura: lezaten. Guk haiiek: gintzan. Zuek Haiiek: zintzaten.

*Agintekoa*

Zuk Ni: nezazu. Zuek Ni: nezazie. Hark Hura: beza. Zuk Hura: ezazu & zazu.<sup>46</sup> Zuek Hura: ezazie & zazie.<sup>47</sup> Zuk Haiiek: itzazu<sup>48</sup> & zatzu. Zuek Haiiek: itzazie<sup>49</sup> & zatzie.

\*Iron *aditza*

*Oraina eztabadaka*

Hura: dirot / / diro / dirogua / dirozua / dirozie / dirotela  
Haiiek: / / diroskeela & *ezpaitiroski* / dirozkigun / /

*Oraina zuketa*

Hura: / zirozu / ziroguzu / zirozie & *etzirokezie*  
Haiiek: / zirozkizu / zirozkizugu /

*Oraina hiketa*

Nik Hura: *etziroiat*

*Iragana eztabadaka*

Nik Hura: *niroenez*. Hark Hura: *ziroela* & *etzirokeela*. Haiiek Hura: *etziroten*.

*Iragana zuketa*

Hark Hura: zirozun

*Hipotetikoa eztabadaka*

Hark Ni: *nindiroenez*. Hark Hura: *eliro* & *liroen*. Guk Hura: *gindiroen*. Zuk Hura: zindiro. Haiiek Hura: *elirotena*. Guk Haiiek: *gindiroeskeela*.

<sup>44</sup> Bada atzikirik gabeko *eztezazie* ere: *ezteçacie uken, beraz, beldurric guion umil bat* *Gincoaz confusionereki ireicia içanen dela* (274). Aginteko itxura hartzen du *ezteçacie uken* horrek.

<sup>45</sup> Iraganekoa izan liteke, baina baita hipotetikoa ere: *Gincoac permetitu dici hala biciz eneçan uken çu hirritatzen citusten tentacione hetaric* (395).

<sup>46</sup> Bada *etzazula* ere. Bestalde, trinkoen adibide ugari dago: *atxikazu, egizu, emazu, errazu, eazarzu, idekazu, ikuasuzu, sogiza & soizu, ukazu, utzazu*.

<sup>47</sup> Hona aldaera trinkoak: *egizie, emazie, errazie, sogizie & soizie, utzazie*. Iku *ezteçacie uken* (274).

<sup>48</sup> Pluralean aldaera osoak eta laburragoak ditugu: *atxikitzzazu vs. ezartztu*.

<sup>49</sup> Ez dakar aldaera laburrik aditz nagusiari loturik: *atxikitzzazie*.

*Hipotetikoa zuketa*

Nik Hura: nirozu. Hark Hura: lirozu. Guk Hura: gindirozu. Haiek Hura: lirozie.

*Jakin aditza**Oraina eztabadaka*

dakit / / daki / eztakigula / badakizula / badakizea / dakiten

*Oraina zuketa*

baziakizut / baziakizu / baziakizugu / baziakizie

*-ke oraina eztabadaka*

Zuk Hura: badakikezu

*-ke oraina zuketa*

Hark Hura: etziakikezu

*Oraina osagarri plurala eztabadaka*

/ / / estazkigunak / / / estaskiten

*Iragana eztabadaka*

Hark Hura: bazakiela

*Iragana zuketa*

Hark Hura: etziakizun

*Baldintza hipotetikoa*

Hark Hura: balaki. Guk Hura: bagindaki.

*Ondorioa*

Nik Hura: enakike. Haiek Hura: elakiketela.

*Ondorioa zuketa*

Hark Hura: eliakikezu. Guk Hura: ezkindiakikezu.

*-io- aditza**Oraina eztabadaka*

Hark Hura: dioen. Haiek Hura: dioten.

*Oraina zuketa*

Nik Hura: ziozut. Hark Hura: ziozu. Haiek Hura: ziozie.

*Iragana eztabadaka*

Hark Hura: baitzioen

*Iragana zuketa*

Hark Hura: ziozun

*Eduki aditza**Oraina eztabadaka*

Hark Hura: daukan. Haiek Hura: baitaukate. Haiek Gu: gauzkatelarik. Hark Haiek: dauskan. Guk Haiek: dauzkagulakotz.

*Oraina zuketa*

Haiek Hura: diaukazie. Haiek Haiek: diauzkazie.

*Iragana eztabadaka*

Hark Hura: zaukan. Guk Hura: gindaukan. Hark Haiek: zauskan.

Eraman *aditza*

*Oraina*

Haiek Hura: *deramatenek*

Etsi *aditza*

*Subjunktiboa oraina*

Hark Hura: detsala

*Subjunktiboa hipotetikoa*

Hark Hura: letsala

#### 2.4.11.5. NOR NORI NORK *aditz saila*

\*Eradun *aditza*

*Oraina osagarri singularra eztabadaka*

Eni Hark: *deraut & deradala & deraala*. Zuk: *deradazu & deraazu*. Haiek: *de-raate*.

Hiri Nik: *dereat*

Hari Nik: *derakot*. Hark: *derako & deako*. Guk: *derakogun*. Zuk: *derakozu*. Zuek: *derakozielarik*. Haiek: *derakotela*.

Guri Hark: *deraugula & deragu & derauku & daukularik*. Zuk: *deraguzu*. Haiek: *deraugute & deragute & daukutela*.

-ke *saila*: Guri Hark: *deraukegunian*.<sup>50</sup>

Zuri Nik: *derauzut*. Hark: *derauzu*. Haiek: *derauzie*.<sup>51</sup>

Zuei Nik: *derauziet*. Hark: *derauzien*.

Haiei Hark: *deree*. Guk: *deregu*. Zuk: *dereeziu*.<sup>52</sup> Haiek: *baiteree*.

*Oraina osagarri singularra zuketa*

Eni Hark: *diradazu & diraazu*. Haiek: *diraazie*.

Hari Nik: *dirakozut*. Hark: *dirakozu*.<sup>53</sup> Guk: *dirakoguzu*.<sup>54</sup> Haiek: *dirakozie*.

Guri Hark: *diraguzu*. Haiek: *diraguzie*.

Haiei Hark: *direeziu & direzu*. Guk: *direguzu*. Haiek: *direezie*.

*Oraina osagarri plurala eztabadaka*

Eni Hark: *derauzkit & derazkit*. Haiek: *derastaten*.

<sup>50</sup> Aldaera *ke-duna* da *deraukegunian* adizkia: *amorecatic eman deraukegunian desiratcen guindiena, ikaz guindecan unxa pperetchatzcen eta haren estimatzen* (25).

<sup>51</sup> Hiru adibidetan “hark zuri” da *derauzie* (61, 166, 379) *Pratica-n*. Esate batera: *Jauna, ene be-cathiec elhorrisco coronaz buria chilaraci deraucie eta gorpitzça oro, açote colpuz crudelki poroka-araci* (166). Ordea, “hark zuei” da *orbit citeste beti ciendaco ihardexi dienac eguin deraucien graciaz, eci bere arima eman du ciendaco* (177).

<sup>52</sup> Videgainek “hark haiei” ‘die’ zuketan dela dio (637), baina guk uste liburuko bi *dereeçu* horiek neutroak diren, “zuk haiei”: *beti soguiten badereeçu dolu eta ahalgurekeri Gincoac ahartico tici eta eztireeçu soguinen* (168); zuketa *eztireeçu* ‘ez die’ horri dagokio. Bigarren adibidea: *eman dereeçu Celuco ogua eta Aldareco Sacramendo Seindiaren ohoretan comunzki erraiten den otoitzça* (243).

<sup>53</sup> Behin *diroçu* dakar (431).

<sup>54</sup> Nabarmen “guk hari” da: *galdeiten dirakoguçu jardirex deçagun garbitarçuna* (383). Jatorrizkoan *le pedimos* (III, 191) / *nous lui demandons* (RD 5, 393).

Hari Hark: *derazkon*. Guk: *derazkogun*. Haiiek: *derazkoten & derezten*.<sup>55</sup>  
 Guri Hark: *derauzkigu & derauzku & dirauskigu & dauzkula*. Zuk: *derauzki-guzu*.<sup>56</sup> Haiiek: *derauzkiguten*.

Zuri Nik: *derauzkizut*. Hark: *derauzkizun & derautzu*.  
 Haiei Hark: *derestela*.<sup>57</sup> Haiiek: *deresten*.

*Oraina osagarri plurala zuketa*

Guk Hari: *dirazkoguzu*. Hark Guri: *dirauzkiguzu*. Nik Haiei: *direstezut*. Hark Haiei: *direstezu*.

*Iragana osagarri singularra eztabadaka*

Hark Hari: *zerakon*. Haiiek Hari: *zerakoten*. Hark Guri: *zeraguna*. Hark Haiei: *zereen*.

*Iragana osagarri singularra zuketa*

Hark Eni: *ziradazun*. Hark Hari: *zirakozun & ziakozun*.<sup>58</sup> Haiiek Hari: *zirako-zien*. Hark Guri: *ziraguzun*. Hark Haiei: *zireezun & zieezun*.<sup>59</sup>

*Iragana osagarri plurala eztabadaka*

Hark Hari: *zerazkon*. Haiiek Hari: *zeraskoten & baitzesten*.<sup>60</sup> Hark Guri: *ze-rauzkigun*. Hark Haiei: *zeresten & zezen*. Haiiek Haiei: *baitzeresten*.

*Iragana osagarri plurala zuketa*

Hark Hari: *zirazkozun*. Haiiek Haiei: *zirestezien*.

*Hipotetikoa zuketa*

Haiiek Hari: *elirakozie*.<sup>61</sup>

*Baldintza hipotetikoa*

Hark Hari: *balerako*. Hark Guri: *baleragu*. Hark Haiei *bai(t)*: *baileree*.<sup>62</sup>

*Ondorioa eztabadaka*

<sup>55</sup> Adibideak ez du zalantza izpirik sortzen: *perfeikiago orano nehorc hiltcia desira cirocu ez ikuzthia-gatic religioneric eztutene Elixa Seindiari sofri-aracitcen derezten gaitzçac eta Gincoari beti eguiten derazco-ten offenxiac* (340).

<sup>56</sup> Liburuan ageri den bi kasuetan “zuk guri” osagarri plurala da, ez zuketako “hark guri” osagarri plurala, cf. Videgain (1983: 638). Hona bi adibideak: *Jauna, gure becathien puntitceo igorri derauzkigu-u gaztigu edo gaitz hoc oro. Eci becatu egun diici; gaizki egun diici çureganic urruntzia; gauça orotan houx egun diici; çure manier ezkitu, ez behatu, ez jarraiki eta çuc uroz içaiteco manatu derauzkiguçunetari[el] deuz ere eztiici egün* (313).

<sup>57</sup> “Hark haiei” osagarri plurala da: *Gincoac ezthiela bere bertaithia heeganic urruntcen, bena gracia berriac emaiten derestela eta ispiritu berri batez azkarcen thiela* (44-5).

<sup>58</sup> Behin *ciroçun* dakar (393).

<sup>59</sup> Liburuak hamalau aldiz dakar *zireezun*, behin baizik ez dakar *zieezun* (340).

<sup>60</sup> Ez dakar Videgaineak *cerascoten* baizik (1983: 639). Iku, ordea, adibidea: *Gueihenac Fraide gaste hori biciki mehatxatu onduan, penitenciatiaren eçarten cicin ogundun içan bailis beçala. Nola accusu horiec egun oroz eguiten baitcesten Fraide gaste hari, anitz afluxitbia çuçun hain gaiski tratathia celakotz eta egun oros haren contre hainbeste falxukeria erraiten çutelakotz* (390).

<sup>61</sup> Hona adibidea: *hori hola denaz gagnan, Gincoaren gracia eta amoriua gal-aracitcen esterakoten estakuru arbin batçuc elirakocie gure estimia eta amoriua gal-araci behar* (432-3). Videgaineak \*iron erroa dakusa *elirakocie* honetan (1983: 643); ondotik behar dagoenez, gure ustez \*eradun-en hipotetikoa izan daiteke, “haiiek hari” osagarri singularra zuketan, “ez + l-i-ra-ko-zi-e”, gogoan izanik *estimia eta amoriua* biak batera singularzat jo direla. Egiturari dagokionez, ez dirudi *ke* morfema dagoenik, hirugarren perssona datiboko *ko* dela dirudi.

<sup>62</sup> “Hark haiei” osagarri singularra, hona adibidea: *Evangeliu cantatcen cien Ministruac manatcen citicin goraki Bateatu etcirenac Eliçatic jalguicera... endelga-araci nahi baileree beçala ordian Meçaren haza-tera çuatcela* (231-2).

Haietako Guri: *leraukeuten*  
*Ondoriooa zuketa*  
 Haietako Guri: *liraukeguzie*

\*Ezan *aditza*

*Baldintza hipotetikoa*

Haietako Guri: *balezagutegi*.<sup>63</sup> Guk Hari: *bagin dezako*. Zuk Hari: *bazin dezako*.

*Agintezkoak*

Zuk: (e)za(d)azu / ezakozu / ezaguzu / ezeezu

Zuek: ezadazie / / /

*Ahala oraina osagarri singularra eztabadaka*

Haietako Eni: *dezakedaten*. Hark Hari: *dezakoon & baitezakeo*. Haietako Hari: *deza-kootela*.

Hark Hari: *eztezakegun*. Haietako Guri: *dezaukutenik*.<sup>64</sup> Hark Zuri: *eztezakezun*.

*Ahala oraina osagarri singularra zuketa*

Haietako Guri: *eztezakeguzie*

*Ahala hipotetikoa osagarri singularra eztabadaka*

Hark Eni: *lezakeden*. Hark Hari: *lezakoonik*.<sup>65</sup>

*Ahala hipotetikoa osagarri plurala eztabadaka*

Hark Hari: *litzakoon*.<sup>66</sup>

*Subjunktiboa oraina osagarri singularra*

Hark Hari: *dezakon*. Guk Hari: *dezakogun*. Haietako Hari: *dezakoten*.<sup>67</sup>

Hark Hari: *eztezagun*. Haietako Guri: *dezaguten*. Nik Zuri: *dezazudan*.

*Subjunktiboa oraina osagarri plurala*

Haietako Hari: *ditzakoten*.

*Subjunktiboa iragana osagarri singularra*

Hark Hari: *zezakon*. Haietako Hari: *zezakoten*

*Subjunktiboa iragana osagarri plurala*

Haietako Hari: *titzakoten & litzakoten*

<sup>63</sup> *Gincoac behar baleçagu galdein* (13) honetan, baldintzaren protasian “hark guri” dugu —cf. *leçagun* (104, 339), *leçaçun* (131), *leçaguten* (216) xedezko tripersonalak—, baina ez dira guztiz berdinak Inxauspek protasian dakartzan aldaera (1858: 98): *balizágu* (osag. sg.) vs. *balitzágu* (osag. pl.) dira tri-personalak Zuberoan eta Nor Nori-n *balekigu* dakin zünharretarrak (95).

<sup>64</sup> Ez dago simetriariak *eztezakegun* nahiz *eztezakeguzie* adizkienei eta *dezaukutenik* horren artean. Lehen biek *gu* datiboa *ke*-ren ondotik daramate, baina *dezaukutenik* horretan irudi luke *ke* aitzineko *u* hori datiboko *gu* > *u* dela, ala *kegu* > *keu* > *ku* fusioa gertatu dela. Ez dakigu \**dezaguketenik* > \**dezaukete-nik* > *dezaukutenik* bokal asimilazioa izan ote den, ala ez ote den gertatu \**eradun-eko u* \**ezan-era* analogiaz sartu izana; ez dakigu \**dezagukete* > \**dezaukete* > *dezaukute* gertatu den, ala \**dezaukegute* > \**dezaukeute* > *dezaukute* den zinez gertatu dena. Simetriariak izatera, beste bi adizkienei *ke* + *gu* beharko luke izan; ez jakin.

<sup>65</sup> Ez dugu uste *lezakoonik* xedezkoak den, bi *o* jarrai horiek *ke-o* > *koo* asimilazioa gertatu dela sala dezakete.

<sup>66</sup> Adizkiak *ahal* darama: *eciez hantic igor ahal litzakoon presentic arraruenez* (154).

<sup>67</sup> Hona pasarteak: *halaz*, *becatoriak* etci *eçagutcen becathiaren*, *heriuaren*, *Jujamendiaren*, *ez Iferniareni karatarçuna*, *ceren eriec pilurac ossoric iresten tuzten beçala*, *beldurrez ahua karax deçakoten*, *orobat gauça ikaragarri horie[r] soguiten direçu* (124-5).

*Subjunktiboa hipotetikoa osagarri singularra*

Hark Guri: lezagun. Haien guri: lezaguten.<sup>68</sup> Hark zuri: lezazun

*Subjunktiboa hipotetikoa osagarri plurala*

Haien Hari: litzakoten

\*Iron *aditza*

*Iragana osagarri singularra eztabadaka*

Hark Guri: etzirokegula

*Hipotetikoa osagarri singularra zuketa*

Guk Hari: gindirekoozu

Eman *aditza*

*Agintezkoa*

Hik Hari: emok. Zuk Hari: emozu

Egin *aditza*

*Agintezkoia*

Zuk Eni: egidazu.

#### 2.4.12. Zuketa alokutiboa

Lehen idazkietarik honat trataera alokutiboa ageri dira Nafarroa Behereko idazkietan. Etxeparek zuketa erakusten du garden: *minzaceco çurequila gau bat nahi ni queci* (155) eta 1584an Beltran Etxauzkoak ere berdin: *hortic yalguiz geroz, çamariac penxaraciten dirauztazu, nitien arropa guciac higatu baititut, eta enici pagatu nahi* (TAV, 155). Donamartiriko katiximan ere zuketa ageri da: *gisa berian akusatzen nuzu oäi eta bethi Jinkuari eïn dituan bekhatu guziez eta galdeïten diakozut barkhamendia* (272). Cazenavek ere badakar zuketa; Jondoni Juaneren apokalipsian batetik: *ikhusi nizin gero zeria idokiik eta agertu zuzun zamarri churi bat eta hain gainian zena deitzen zuun fidela eta egiazkua, zoinak juyatzen eta phartidatzen baitu zuzenki* (134), eta baita San Mathiuren ebanjelioan ere: *barka itsasuan erdian hur kolpek bilinbaka ziaï-lazien* (44). Zuberoan ere zuketaren lekukotasuna ageri da; Oloroeko katiximakoa da honako adibidea (1706): *Ene gincoa sinhesten diçut ossoki cerere erran beytuçu, berheciki heben cirela, adoratçen çutut, ene esperança çutan eçarten diçut, mayte çutut ene bihotz oroz, eta dolu diçut...* (2).

Zuketa, berri, Donamartiriko katiximan dugu: *alta debozione handia ukhan behaüchu haan dako eta egun guziez hai gomenda chite* (261), nahiz adibidea ez den alokutiboa.

<sup>68</sup> Formaren aldetik singularra da, baina osagarrian pluralaren eta singulararen arteko elkarreta dago: *cioçu, Jesu-Christoc nahi uken diela establitu Sacramendu hori Janharrien idurien pian, amorecatic iduri edo itchura hec eçagut-araz leçaguten gutan eguiten cithien prootzhiac, eta gure arimendaco haren guindien beharra* (216).

Aditzaren morfologiaren arloan zuketa alokutiboaren erabilera nasaia da *Pratica liburuaren* ezaugarri nagusienetarik bat. Aditzak adierazten duen errealityate jakin bat-ean mintzalagun urkoak zerikusi zuzenik ez duenean, hitz bidezko komunikazioa mintzalaguna morfoloigikoi barreneratzea da gertaera alokutiboaren muina. Adizkiak lehen, hirugarren edota lehen eta hirugarren pertsonen errealityatea adierazten badu ere, mintzalaguna adizkira ekartzea —bigarren pertsonaren morfema erantxa— da trataera alokutiboa. Historikoki Euskal Herri guztian hiketan egin izan da eta jokaera alokutiboa da hau: *ni erori naun* esatean bigarren pertsonak ez du aditzak adierazten duen errealityatean zeregin zuzenik, baina haren morfema femeninoa adizkian ageri da.

Gramatikaren aldetik ez da ohikoa menpeko perpausetan alokutiboa agertzea; horrezaz landa, ez da baldintza aditzik zuketan ageri, ezta galderarik ere. Videgai-nek salbuespen baten berri dakar (1983: 643): *Otoitzçac baitici gaitz suerte ororen Erremedio berbeciac, bai-eta-ere, otoitzçan berian eguiten diren houxenac* (102). Dena den, gure ustez *baitici* hori “baditizi” da sakonean, baiezko perpausa, ez da kausazko “bait + dizi”, ezta baiezko *bait* ere, *ba + (d)itizi* baizik; ez da salbuespena.

Berdintasuna edo hurbiltasuna adierazten du hiketak: anai-arreben, adiskideen edo senar-emazteen artean;honezaz landa, goitik beherako harremanean ere hika egiten diete adinekoek gazteagokoei, aitetamek edo osaba-izebek haurrei, gazteek neska-mutil kozkorrei. Hiketa ez den eta Hego Euskal Herriko beroriketa asimetriko hori ere ez den trataera, berriz, neutroa litzateke, egoera formalago batean edo pertsona ezezagun batekin ibiltzen dena. Hego Euskal Herrian zuka egiten zaio orduan mintzalagunari, baina ez ohi da era alokutiboa egiten: *zu zara, zuk duzu* esaten da, baina *ni naiz eta hura da* egiten da gero, eta ez, Euskal Herriko ekialdeko mintzoetan legez, *ni nauzu, hura duzu* edo *hotz diagozu*.

Ekialdeko euskal jardunean hiketaz landa badira trataera alokutibo gehiago: adizkiari *zu* morfema eta *i* datibo marka txertaturik egin ohi da zuketa; kortesiazkoa edo begirunea adierazteko zatekeen zuketa molde hau sorrera garaian, baina aldatuz joan dateke gero beraren erabilera pragmatikoa. Lapurdiko Aturrialdea, Baxenabarreko Amikuze, Oztibarre eta Garazi, Nafarroa Garaiko Zaraitzu eta Erronkari ibarra nahiz Zuberoa herrialdea dira trataera berezi gisa zuketa alokutiboa baliatu duten eskual-deak. Arberoa ere ageri zaigu, baina XIX. mendeko idazkietan, nahiz egun ere baden zantzu zenbait. Garaziko Donibane inguruan ere galduz joan da XX. mendean eta egun gibelera doa, bereziki gazte eta heldu jendearen artean. Baxenabarreko ekialdean hiztun gazte eta helduen artean zuketa galduz doa egun; Zuberoan tinkoago eusten zaio.

Guk XX. mendearren bukaeran eta XXI-aren hasieran Baxenabarreko ekialdean hiztun zaharrekin izan dugun hartu-emanetan erabat ohikoa izan da trataera hau. Adiskidetasuna edo hurbiltasuna toka edo noka ageri badute ere, guri mintzatzean zuketan egin izan dute. Zuketa molde hau kortesiazkoa edo begirunea adierazteko zatekeen sorrera garaian, baina erabilera pragmatikoa hedatu bide du eta eztabadakoaren edo trataera neutroaren ingurunea ere ordezkatu du hondarreko gizaldietan. XVIII. mende bukaerako *Pratica liburuan* ere honelaxe ageri da; itzulpen testu hau nagusiki zuketan emana da, erlijioaren inguruko kontaerak eta narrazioak barne.

XIX. mendeko zuketaren erabilera esparrua zehaztu zuen Bonaparte printzeak eta adierazi Zuberoan eta Baxenabarreko ekialdean trataera neutro edo eztabadakoaren

egitekoa zuketa alokutiboak harturik zuela. Honelaxe diotso Inxauspek berari 1858/III/8an: taldeari edo jendetzari mintzatzean, liburueta jarraibideak edo narrazioak idaztean, honelakoetan eztabadakoa ibiltzen dela, neutroa, baina jendeen arteko har-tu-eman arruntean, toka edo noka egiten ez bada bederen, zuketan egin ohi dela (Irigoyen 1957: 197-8). Gauza jakina da Zuberoan edo Erronkaribarren adizkien inkestak egin direnean nekez lortu direla lekuoengandik adizki neutroak, ohiz hiketan edo zuketan mintzatu izan dela.

Ekialde honetako eskualde batzueta *zu-ren* txikigarri edo goxagarri den *xu* morfema ere eransten zaio aditzari; ekialdeko hirugarren era alokutiboa da xuketa. Zuketa alokutiboaren hedadura geografikoa ez da hiketarena bezain handia, baina xuketak are eremu geografiko bakanagoa du. Xaharrei egiten zaie xuketan, gozotasuna adierazteko eta arrazoi beragatik haurrari ere halaxe egiten zaio. Xuketan egin ohi dute bi adiskide minek ere, elkarrenganako sentimendua maitasunezkoak direnean. Lagun bati edo haur bati xuketan egiteko eta beste bati ez egiteko arrazoia guztiz berexiak eta pertsonalak izaten dira euskal talde edo familietan Euskal Herriko ekialdean; cf. Lafitte (1977) ere, Heletan haur batzuei *to* eta besteei *zu* esateaz. Literaturan ere ageri da xuketa: Arberoko Donamartiri herriko xix. mendeko katixima batek honela dakar: *Ikhusi chindiina chuk Jesu-Khrichto sortzen?* (Pagola et alii 1999a: 256).

Lapurdiko Aturrialdean, Baxenabarreko Arberoa, Garazin, Landibarre-Oztibarretan eta Nafarroako Zaraitzun mintzo dira xuketan. Amikuzen ere badira xuketaren erabilera episodikoak, baina ez inola ere Garazi edo Zaraitzun bezainbat. Ezaguna da Garazi ibarreko Hegopaldeko kide den Luzaiden xuketa arras baliatua izan dela xx. mendeko euskaldunen artean. Zuberoan ez da xuketa erabiltzen, baina Jabier Alberdik dakarrenez Ainhарben ibiltzen dute (1996: 318). Xuketak xx. mendean zuketari gaina hartu dio erabilera Zaraitzu eta Garazi ibarretan. Hegopaldean Aezkoan ere xuketan mintzatu dira orain arteko euskaldunak, baina ez joko alokutiboa, adizkiak adierazten duen errealityean bigarren pertsona edo mintzalagunak zuzenean esku hartzen dueñean baizik: *ni niz, gura da, gu gira, gaiet dira eta xu xira nahiz xuk duxu* eran, hain zuzen ere, baina ez \*\*\*“gu gaudiexu”, \*\*\*“gaiet diaudexu” edo \*\*\*“guk dixugu” eran.

Gure *Pratica* liburuak ageri dituen trataerak hiru dira: nagusiki zuketa alokutiboa, eztabadakoa edo trataera neutroa eta hiketa maskulinoaren oihartzun zenbait inoizka. Ezaguna genuen eztabadako eta zuketa alokutiboko adizkiak perpaus berean elkarrekin joan daitezkeela eta halaxe gertatzen da *Pratica*-ko adibide hauetan ere: *harrac dituzten fruthiac etçu çorhitcen eta labur arboletic erorten tuçu, bena osso eta fin direnac unxa çorbi artekan arbolian egoiten dira* (65) / *batec bidia erakasten diraguçu, besthiac hara hel-aracitcen guidatcen, eta finian, meditacioniac eçagut-araticicen dirauskigu alde orotaric ditugun langerrac* (115). Inxauspek ere baditu honelatsuko adibideak Zuberoan, zuketa eta hiketa nahasten ditu perpaus berean Sen Mathiuren ebanjelioan: *jínen núzu eta sendotüren dít* (1856: 39).

Zuketa alokutiboa eratzean adizkiak bi ezaugarri biltzen ditu:

- i* datibo ikurra hartzan du adizkiaren hasiera aldera Nor morfemaren ondotik: *dago* → *diagozu*, *daite* → *dietezeu*, *zaut* → *ziaazu*, *zako* → *ziakozu*. Nor Nori Nork aditz sailean *e* → *i* gertatzen da: *derakot* → *dirakozut*, *derauzkigu* → *dirauzkiguzu*. Liburuan behin baizik ez da gertatzen \**eradun*-eko aditz batek

zuketakoa izan gabe *i* hartza, *dirauskigu* ‘dizkigu’ da: idazleak -*gu* ezartza ahantzi zukeen, ala aitzineko *diraguçu* formaren inertziak eragin ote zuen *e* beharrean *i* ezartza?

- b) ezaugarri nagusia adizkiaren bukaera aldera kokatzen den *zu* morfema da, Nor Nork aditz sailean palatalizaturik *zi* bilakatzen dena: Nor aditz sailean *nuzu* da “naiz”, baina *dizit* da “dut” Nor Nork-en, adizkiko lehen *i* horrek *dizut* > *dizit* asimilazioa eraginik. Bestalde, adizki neutroetan bigarren pertsonan *derakozu* ‘diozu’ baina *derakozie* ‘diozue’ dagoen bezala, hirugarren pertsonako adizkietan ere -*e* morfema pluralaren aitzinean palatalizazioa geratzen da: *dirakozu* ‘dio’ baina *dirakozie* ‘diote’. Jokabideok txandaketak geratzea eragin dukete; esate batera, *duke* adizkia zuketan emateko *Pratica-n* *dikezu* dago behin, baina *dikezi* beste behin: *edariac haren eskietan ichurteco guthiago langer* *dikeci* (400) / *milatan oboro placer* *dikeçu* *semiaren hareganaco seindimendu* *hunez* (154).

Morfema etikoak adizkian hartzan duen kokaguneaz ere bada zer esan: hirugarren pertsona singular aktiboa -*o* denez, morfema etikoa hondarrean kokatzen dela dirudi —*dizi*, *gitizi*—, baina hirugarren pertsona aktiboa plurala denean -*e* darama ondotik: *nizie*, *gitizie*. Nork lehen pertsona singularreko kasuetan, zeinetan koda baitago, morfema etikoa -*t*-ren aitzinean kokatzen da: (*di*)*zit* & *tizit*, baina Nork lehen pertsona pluralekoetan, zeinetan ez baita kodarik, *zi* bukaeran doa eta iduri luke subjektuaren morfema ezker utzi duela: *diizi*, *tiizi*, *dikeizi*...; iduri luke \**diguzu*, \**tiguzu*, \**dikeguzu* dagoela pean eta bokal asimilazioa gertatu dela, ala *dizi* erakoen analogiaz *diizi* erakoak sortu direla. Aldiz, *diroguzu*-ren zuketako era den *ziroguzu-n* o bokalak *zu* > *zi* palatalizazioa saihestu du. Lehen pertsonan singularretik pluralera morfemen hurrenkera aldatzten dela erakusten digute *Pratica*-ko honako aldaerek: *dakit* → *ziakizut*, baina *dakigu* → *ziakiguzu*, ez \*\*“ziakizugu”. Halaz ere, liburuan behin *çiroçugu* (161) daukagu, nahiz *ciroguru* hamabi aldiz ageri den (14, 52, 68, 197, 197, 239, 283, 283, 285, 350, 444, 445). Zuberoan Inxauspek *zu* + *gu* hurrenkera dakar 1856an: *dezakezügu* dago Sen Mathiuren ebanjelioan (111).

\**edin*-en ahaleko adizkietan zuketa ezartzean *daite* > *dieitez* gertatzen da: *i* etikoa edo datibo ikura eta *zu* morfema erantsi dira eta *ai* > *ei* palatalizazioa gertatu da, *a* goraturik, baina adizki batzuek erakusten digutenez txandaketa dago, \**edin*-eko *i* hori duten eta ez duten adizkiak ditugu liburuan: *dieitez* adizkiko bokalen ugariasunak soilketa eragin dezake, *dieteza* aldaera ere bai baitago *Pratica-n*; hogeita hamar *dieitez* zenbatu ditugu liburuan —cf. *lieiteçu* (37) ere— eta lau *dieteza* (50, 107, 204, 275). Berebat, *gueisteçu* (281) ere bada behin, *guiezteçu*-ren (309) adibide bakarrarekin batean; *i* etikoaren disimilazioa gertatu ote da? Pluralean *dieisteçu* (134, 186, 275) dago, baina baita *dieiesteçu* ere (27, 27, 27); liburuko hiru *dieiesteçu* horiek orrialde berean daudenez, huts grafikoa izan daitekeela uste dugu. Zinezko aldaera balitz, eta ez, esate batera, inprimategiak eragina, beharbada bigarren *e* ez etimologiko hori bokalen arteko dinamikak eragina dela pentsa genezake, lehen *e*-ren oroitzapenak eragina edo...; ez jakin. Bokalen arteko dinamikari zor zaioke ere *citicieçun* ‘zitzainen’ (355) eta *citicieçun* (250) bi formak agertzea; agerraldi bakarra dute batak eta besteak liburuan.

Sinkopak ere gertatu dira zuketako adizkietan. Hirugarren pertsona singularra *duzu* da eta plurala *dituzu* eta laburragoko *tuzu*, bi aldaerak. Bai *duzu* eta bai *tuzu* la-

burtu dira ukapenaren partikula ezkerrean biltzean; honela, *etzu* hala “ez duzu” nola “ez dituzu” da hirugarren pertsonan *Pratica*-n. Baxenabarren edo Zaraitzun lehen pertsona pluralean ohikoa den \*\*“gitzu”, ordea, ez dago *Pratica*-n, osoagoko *gituzu* baizik.

### 2.4.13. Aditz morfema pertsonalak

2.4.13.1. Hirugarren pertsona singularra *ko* da datiboan, baina *o* alomorfoarekin banaketa osagarrian dago: *zako*, *gitzazkon*, *derakot*, *derako*... adibideak ditugu, eta xedezkoan ere “guk hari” *dezakogun* da, baina ez dirudi *ke* morfema eta hirugarren pertsona datiboko *ko* morfema elkartzean bi herskariek elkarrekin dirautenik, hone-lako loturetan *o* da hirugarren pertsona datiboaren morfema: “hark hari” *baitezakeo* dakar *Pratica*-k.

Ahaleko adizkietan ere ezagun du moduzko *ke* morfema dagoenean, hirugarren pertsonaren datibo morfema *o* dela eta ez *ko*, eta *ke + o > koo* fusioa gertatu dela. Aldiz, datibo morfema lehen ala bigarren pertsona denean, *ke* morfemak osorik dirau: esate batera, ahalean “hark guri” *eztezakegun* da, “hark zuri” *eztezakezun* eta “haiet eni” *dezakedaten*; hiruotan *ke* morfema osorik dago, eta ondotik datiboaren morfema dator. Aldiz, datiboa hirugarren pertsona singularra denean *ke + o > koo* asimilazioa gertatzen da: “haiet hari” *dezakootela* da eta “hark hari” *dezakoon*, hipotetikoan *leçakoonic* (57, 59). Adizkian atzizkia beharrean aurrizkia dagoenean, “hark hari” *baitezakeo* egiturak erakusten du adizkiaren bukaeran *ke + o* morfemek aldatu gabe eta elkarren ondoan iraun dezaketela, bokal asimilaziorik gertatu gabe, baina argia da baldintza: atzizkirik gabeko egoera eta kokagunea adizkiaren bukaera.

2.4.13.2. Lehen pertsona datiboaren morfema, *da* beharrean *de* da Nor Nork saileko adibide hipotetiko batean: *ahalgua eta erregetxa eman leçakeden becathia eztut eguiñen* (51); ‘liezadakeen’ da hori; “lezakedan” itxaron genezake, baina ez da kigu asimilazioa gertatu den, huts grafikoa izan ote den edo zerik izan den. Oraineko *dezakedaten* ‘diezadaketen’ (189) adizkian gauzak ohi bezala dira, *da* dago.

2.4.13.3. Hirugarren pertsona pluraleko Nork morfema *te* da beti Nafarroa Behereko idazle zaharren artean: *dute* darabil idazle baxenabartar guztiak, Tartasen *düte* gora behera. 1782ko *Pratica*-n *dute* adizkia ibiltzen da, *die* adizkia ‘diate’ da, Nor Nork-en tokako “haiet hura”. Zuberoan, berriz, Belapeirek *die* dakar, baina zaharrago dirudien *duye* eta *die*, biak batera ageri dira hamarkada bat geroago argitaratu zen Oloroeko katiximan (1706): *G. Cer bekatu eguiten die ayta améc...? I. Gincouari oguen handi eta mortel bat eguiten duye...* (66). Resseguek ere aldaera zaharra dakar: *cegnu deña ençunen duyenian* (1758: 8).

### 2.4.14. Aditz morfema pluralgileak

2.4.14.1. -*te* duten baina -*ke* falta duten ahaleko adizki zaharretan pluraleko Nor pertsonek *z* morfema daramate: *chuchent daiste* (33); *nun ezpaikaiste bebin ere asse* (32); zuketan *joan gueiste* (281) dakar. Aldiz, *ke* morfema daramaten ahaleko Nor saileko lehen pertsona pluraleko adizkietan ez da *z* morfema ageri: *eror guitakeela* (341), *espaikitake bethi balia* (445), *beguira guitake* (260); ezta baldintzaren apodosiko *guintuke* ‘ginakteke’ adizkian ere, zuketan emana: *hortan balago mundian elu-*

*keçu gauça ihiagoric, oro umil quintukeçu* (275). Gisa berean, plurala da ahaleko *ditakeen* ‘daitezkeen’ ere: *galdo suerte horiec dituçu Gincoari eguin ahal ditakeen laketena* (343); *ceren horiec aiza dembora oroz eguin baititake* (89). Izan ere, XIX. mendeko Zuberoan ere hirugarren pertsona pluraleko adizkia da *ditáke*; Inxauspek Nor ahaleko singularrean *dáite & dáiteke* dakartza eta pluralean *ditáke* (1858: 171). Hipotetikoan ere plurala da *Pratica-n*: *eta bihotzian pitz ahal litakeen seindimendu biciac oro ezeztatu* (53); hona frantseseko testua: *et réprimer tous les mouvements qui peuvent y être opposés* (RD 2, 256).

Orobat, Nor Nork sailean ere *z* pluralgilea agertze ala ez agertze honek bitasunak sortzen ditu: “*hark haiiek*” *baitituke* (262) & *baitituzke* (263) ditugu *Pratica-n* hirugarren pertsonan; cf. bigarren pluralgile *-z*-rik beharko ez lukeen *\*edun-en dituste* adizkia ere; *jakin* aditzean, berriz, osagarri plurala *z-k* adierazten du: *Azthiec beçala egithia, çoinhec iduripen bano batçuz, estaskiten gauçac nahi baitituste penxatu* (424).

2.4.14.2. Bi pluralgile batera dakuskigu *Pratica-n* osagarri zuzena adierazteko, *z* eta *zki* eta ingurune berean ager daitezke usu, *\*iron* aditzaren Nor Nork sailean, esaterako: *diroskeela* (101) eta *ezpaitiroski* (73) & *baitiroskigu* (157) ditugu. Nor Nork adizkietan ere bi morfemok adizki berean osagarri plurala adierazten dute: “*hark guri*” *dauzkula* (178) & *derauskun* (121) vs. *derauzkigun* (45, 81, 154, 272, 311...).

2.4.14.3. Ematen du *\*ezan* oinarritik datozen Nor Nork saileko adizkien osagarrí pluralean mintzo batzuetan aldaketa gertatu dela eta morfema *it* izatetik Nor Nork aditz saileko *zki* izatera iragan dela. Honela, *ditzagun* izan beharrean, *\*dezazkigun > zazkigun > zkigun* erako zerbaite genuke eta *itzazu* izan beharrean, *\*dezazkizu > zazkizu > zkizu*. Baxenabarren Etxeparek edo B. Etxauzek ez dakarte honelako adibiderik, ezta *Pratica-k* eta Laneuville izendatu dugun katiximak ere; *Pratica-koak* dira, esaterako, *eçartzçı... liliac* (111) edo *eguin baguinça* (119) erak. Zuberoan, 1676 urte inguruko *Pronus-ek*, Belapeirek edo Tartasek ere ez dakarte. Dakigunez, Zuberoan ez da honelako adizkirkir sortu: Nafarroa Garaia, Lapurdiko ekialdea eta Nafarroa Behereko ibar gehienak dira ezaugarri honen gunea egun. Idazle zaharretan, Leizarraga eta Oihenart dira adizki hauek erabili dituztenak eta Bazkazaneko 1762ko predikuetan ere ageri dira. Gerora, Baxenabarreko XIX. mendeko idazkietan aski hedaturik daude. Hona adibide sorta bat.

Etxepare: *ohora içac* (46); *imprimi eraci diçaçun* (6). Leizarraga: *egotzkik, eraunzakik, ikhuskik, ikhuskizue / nitza, ginza, gaitzak, gaitzazue, ditzat, ditzagu, dietzok, dieitzozue, nitzan, lietzo, litzake, gaitzak*, aintzat harturik, gertakari hau dagoen beste es-kualde batzuetan *banezki* ‘banitzá’ erakoak ere erabili direla. B. Etxauz: *igor itzazu*. Oihenart: *ezarzkik* (226), *egizkik* (477). Tartas: *itzazü, itzak* eta subjunktiboko *ditzadan, ditzagün, detzala*. Laneuville: *ditçagun* (73). Bazkazane (1762): *utx quitçuje* ‘utz itzazue’ (197), *barur quitçuje* ‘barur itzazue’ ... *garçumac eta berce egunac* (228). Donap kat: *itzultzikitzu* (225), *errantzkitzu* (236), baina baita *utz ditzaün* (224) ere. Donam kat: *itzultzikitzu* (252), *ohora zkitzu* (262) vs. *igandiak beira zatzu* ‘begira itzazu’ (262), *haz ditzaten* (265). Caz JJ: *laxa zkitzie* (121), *mochkik* (128), *ichurzkitzie* (129). Caz SM: *igortzkitzu jende horiek* (44). Salab SM: *ezartzkitzie* (13). Irib SM: *harzkizu* (23), *chuchenzkizii* (24), *utzkizu* (34) & *utzkizii* (51), *sendazkizii* (38).

Bestelakoa izan da Zuberoako berrikuntza eta arestian aipatu dugunaren ondotik gertatua, gainera: Belapeirek *itçac, diçagun* erakoak darabiltza eta XVIII. mendearen

erdialdean Maisterrek ere sistema zahar hori bera darabil: *itçaçu* (210, 354), *ditçan* (358), *eçtitçaçula* (102). Ordea, XVIII. mende bukaeran singularraren analogiaz pluralean ere (*d)e-* hasiera agertzen hasi zen \*ezan- etik datozen adizki batzuetan. Esate batera, *Edipa pastoralak tirant batec manha detçan ounxa ouhore du* (297) dakar. Ondotik, XIX.aren erdialdean Inxauspek agintekoenan *étzak*, *étzan*, *etzátszu*, *etzatzie* da-kartza zerrendetan (1858: 91) eta Gézek ere antzera: *etzátszu*, *etzatzie*... eta xedezkoe-tan bi sistemak dakartza, *dítzan* zaharra eta *détzan* berria batera (1873: 120-1).

2.4.14.4. Tinkaturik, *Pratica-n* txistukari igurzkari lepokaria Zuberoan bezala afrikatua da adizki laguntzaileak plurala adierazten duen ingurune batzuetan, Nor Nori eta Nor Nori Nork sailetan: “haiiek zuri” *ezpazauzkizu & bazautzu* dira eta “haiiek zuei” *zauzkizie & zautzie*. Tripertsonaletan, beriz, “hark zuri” *derauzkizu & derautzu*: *Gincoari orano galdeiten duçula çunbait egun hartara prestatceco eta emaiten derautçula* (59). Honakoan pleonasmoa dagoela dirudi: *eztirauskigutçu* (293).

2.4.14.5. Joan aditzaren trinkoen bukaeran pluralgileak bi aldaera ageri ditu *Pratica-n*, igurzkaria eta afrikatua. Ez dakigu adizki bukaerako txistukari afrikatu edo tinko hori hitz bukaerako kokagune tinkatzaileak eragina den —cf. Gipuzkoan Goierriko *zoatz ‘zoaz’*—, ala historikoki *-tza* → -z gertatu den, ala adizkien arteko analogia zenbaitek eragin duen —eman dezagun *dabiltza* erako aldaera zenbaitek -z → -tz(a)—, ala bitasunaren oinarrian berranalisi bat dagoen, ala zerik den. Jo de-zagun liburuak dakarrena deskribatzera.

Adierazpen inguruneetan *tz* dago, ondotik atzizkia duela: *duatcela* (58, 238), *goatcen* (125) & *guatcen* (81, 157, 203, 212) & *guatcenian* ‘goazenean’ (81). Borondatea adierazten duenan igurzkaria da: *guacen* (281, 283). Jakes Oihenarte amikuz-tarrak idatzi *Kaniko eta Belxitina-n* ere *badouatzak* (105) & *baguatza* (132) ditugu, baina borondatea adieraztean *gouazan* (120) ematen du. Bada *Pratica-n* banaketa mota honen salbuespen bat edo beste; 431-ko erlatibozko *guacen* adierazpen inguruneko da: *erraitera guacen exemplu hunc;* eta alderantziz, beste bi adibidek borondate adiera dute eta halaz ere afrikatua daramate: *jeiki citezte, gouatcen hebentic* (219) eta *jeiki citezte, guatcen sofritcera* (219); biak orrialde berean daudenez, inprimategiko iratxoen ondorioa izan daitezke; ez jakin.

Bigarren pertsonako oraineko *çuacen* (51) aldaerak grafiaz bederen ez dakar afrikazio zantzurik, izan ere, iraganeko hirugarren pertsona pluraleko *çuatcela* (232, 248, 250) aldaerak azal lezake hori, homofonia saihesteko edo. Zuberoan ere *doátsa* & *goátsa* dakartza Inxauspek XIX-an, baina bigarren pertsona *zoáza*, igurzkari (1858: 446).

Testu zaharretan ere aski aniztasun sumatzen da. Oro har, Lapurdin igurzkaria da txistukaria; Leizarraga: *doaz & doaza* eta toka *gihoazak* eta *dohoazak*; Materrek, Axularrek eta Etxeberri Sarakoak *dohazi*, Harizmendik *dohaz* eta Argaiñaratzek *doaz* da-karte, baina Baratiartek 1784-n egoera bokaliko konplexua erakusten du: *dohaz* & *dohazenak* & *dohazinei*. Tartasek *doaza* (*Ontsa*, 61) eta Oihenartek *doazala* (496) darabilte. Oro har, Baxenabarre-Zuberoetan afrikatua ageri da: Xiberuan Belapeirek *goatza* nahiz *doatza* dakartza eta Maisterrek *badouatç* (337) eta *badouatça* (175). XVIII. gizaldian Laneufvillerenean *duatcenen* (126) dago, eta erlatibo hori XIX. mendeko Donamartiri (269) eta Donibaneko (168) katiximetan *duatzan* egiten da.

2.4.14.6. *Pratica-n* bigarren pertsona Nor plurala *zirete* da *izan-en* orainean, baina *ziratekete* da *ke + te* morfemak hartzean. Etorkizuneko forman hirugarren per-

tsona plurala *Pratica-n dirate* denez, ematen du *zirate* > *zirete* ez dela arrazoi fonikoengatik edo asimilazioak eraginik gertatu. Beharbada garai bateko etorkizuneko *zira* + *-te* > *zirate* singularreko adizkitik bereizteko gertatu zatekeen orainekoan *zirate* > *zirete* aldaketa; cf. Eskiulako 1780ko idazkiko singularreko *cu cirate ene leku segurra* (23). Baliteke *Pratica*-ko *zirete* iraganeko *zineten*-ek eragin analogia izatea ere, baina ez dago batere garbi, hirugarren pertsona pluralean ere gerta baitzitekeen eragin hau, baina ez da hala, *dira* / *ziren* dugu.

2.4.14.7. Egungo Nafarroa Beherean ez da *zirete* ‘zarete’ aldaerarik ageri, horretarako muga zeharkatu eta Aezkoaraino jo behar da; *zirezte* edo *zizte* da egun Baxenabarren entzuten dena. *Pratica*-k *cirete* (158, 219, 255, 271, 280, 352, 430, 435, 444) dakar *izan-en* eta 1762ko Bazkazaneko idazkian *ciete* (170, 171) ageri da. Baxenaburreko euskara zaharrean *-z-* gabeko aldaera baliatzen zen. XIX. mendean *izan* aditzean gauzak aldatu dira eta bigarren pertsona pluralean sistematikoa da *z* horren agerraldia. Caz SM: *ziezte* ‘zarete’ (35, 61) dugu bertan eta *izan zizte* ‘izan zaitezte’ (26); iraganean ere *zineztelaik* (75) analogikoa dugu. Irib SM: *izain ziizte* ‘izanen zarete’ (27) eta agintezkoan ere, berdin: *aleera ziizte* (27). Eskualde honetan XX. mendean *zizte* ‘zarete’ aldaera da nagusi, bazter gehienetan hori baliatzen da; “*zirezte*” aldaera osoagoa duke jatorria. Hain segur, *izan* aditzaren laguntzaileetara beste aditz batzuetik iragan dateke *z* pluralgile hori analogiaz, Euskal Herriko erdigurenko eskualde batzuetaen *zeazte* ‘zarete’ dagoen bezalaxe.

Dena den, beste adizkietan zaharrak dira pluraleko *z* morfemaren lehen agerraldiak: Leizaragak *zarete* & *zaretenoi* zerabilen, baina *zaiteztez* agintezkoetan eta *zaituztez* ‘hark zuek’ eta ‘haiek zuek’ Nor Nork sailean. 1651ko pregarietan *cirete* dator, nahiz agintezkoan *citezte* dakarren. Tartasek *zaudete* & *zaudezte* zerabiltzan *egon* aditzean, *z* harturik, baina *ziretan* ‘zareten’ zerabilen Nor aditz sailean. Belapeiren ez dugu aurkitu *\*edin-eko citeyen* ‘zaitezten’ (I, 21) adizkia baizik, baina 1676ko *Pronus*-ek zubereraz *cireyé* ‘zarete’ eta *citeyé* ‘zaitezte’ bereizten ditu. Laneuvilleren lalean ez dago *izan* aditzaren bigarren pertsona pluraleko adizkirik, baina ahalekoan *gaiztequeenaren* ‘gaitezkeenaren’ (30) erabilera dugu.

## 2.4.15. Beste morfema batzuk

2.4.15.1. Euskal ekialdean ohikoa denez, hirugarren pertsonaren balizko forma batzueta txistukari igurzkaria ageri da *izan* aditzean: *lizatekeenac* ‘litzatekeenak’ (240) dakar *Pratica*-k. Leizaragak ere halaxe egin zituen: *lizate* & *lizateke*, *lizake* (Aresti 1972: 159); baita Inxauspe zuberotarrak ere: *éder lizáte* / *ásaki egóiten lizáte* / *lána orákoz egínik lizáte* erakoak dakartz *Le verbe basque-n* (1858: 114). Nafarroa Garaian ez da ezezaguna.<sup>69</sup>

Protasian <*baliz*> (37) & <*bailiz*> (179) grafia dakar *Pratica*-k hirugarren pertsonan, baina <*banitz*> (428) & <*banintz*> (242) lehenean.

2.4.15.2. Nor Nori aditz sailean datiboa lehen eta bigarren pertsona direnean *u* berria ageri da: “*haiet eni*” *çauskit* ‘zaizkit’ (422) da eta “*hura zuri*” *çauçu* ‘zaizu’

<sup>69</sup> Egun ere, Aezkoa alderdian halakoxea entzun daitezke: *lizateke* entzun dugu guk ibarrean eta *lizate* eta *lizateque* ageri dira XIX. mendean ibarreko katiximetan; aldiz, 1872ko aditz paradigma batean *lizateke* dakar Bonapartek Aribi herrian.

(426); “haiek guri” *çauskula* ‘zaizkigula’ (431). Liburuan “hura guri” adierazteko erarik arruntena *zauku* da, baina liburua zuketan idatzia izanik, *zauku* adizki hau beti menpekoetan ageri da. Era honezaz gainera, *zagü* & *zau* aldaerak ere baliatzen dira: *baitçagu* (310) & *çagunian* (336); berebat, *ceren heriua ginen baitçau* (61).

“Hura hari” *zauko* dakar liburuak eta aldaera honen agerraldi bakarra da: *batbederac har deçan amorecatic hoben iduri çaucona* (338), gainerateko erabilera guzti-guztiak *zako* & *zakon* & *zakola* dira *Pratica-n*. Berrikuntza analogikoa dirudi *zauko* aldaera honek, *zait* > *zaut*, *zaizu* > *zauzu* aldaketak eragin duke hirugarren pertsonako *zauko*. Ez dakigu *\*eradun-eko derauko* erakoek analogia honetan eragin edo lagundu ote duten, dakiguna da *Pratica-n derakot, derako* saila ageri dela. Zuketan ere bada *ziauzkozu*, baina behin baizik ez (22); aldiz, hiru aldiz dakar *ziazkozu* (33, 197, 238).

2.4.15.3. Etxeparerentzat edo Leizarragaren testuetan bezala, *Pratica-n* ere zuketa alokutiboari dagozkion hirugarren pertsonako adizkiak ere *d-* morfemaren bidez hasten dira: *dihazu, diagozu, diabilazu, diaukazie* ditugu batetik, baina *\*io, \*iron* eta *jakin* aditzek alokutiboan *z-* dakarte: *ziozu* ‘dio’, *zirozu* ‘diro’ eta *ziakizu* ‘daki’; hondaurreko hiru aditzok batera dituzten baldintzez dihardu Xarles Videgaineak (1983: 641). Zuberoan ere halatsu da; esaterako, *ditaq* ‘zidak’ (93) & *deritadaq* ‘zidak’ (98), *ditzacq* ‘zizkidak’ (77), *deiteq* ‘zitekek’ (95) dakkartza *Antioikiako San Julian* pastoralak eta *diaudeq Sainta Catherina-k* (Loidi 1996: 600), baina halaz ere, Zuberoan *ditiat* & *citiat* bitasuna ageri da alokutiboan (Oihartzabal 1991: 196).

#### 2.4.16. Gertakari fonikoak eta beste

2.4.16.1. Nafarroa Behereko eta Zuberoako egungo mintzoan bezala, *izan* aditzaren iraganean *nintzan* baliatzen dute idazle baxenabartar zaharrek lehenbiziko pertsonan; aldiz, Leizarraga lapurtarrak *ninzen* & *nenzen* dakkartza eta Materrek ere *ninzen*. *Pratica-n* *ninçan* dugu (170). Hona idazleen erabilera; Etxepare: *ninzen* (138). Taratas: *ninçanian* (*Onsa*, 67). Maister: *nintçalacoç* (380). Bazkazane 1762: *ninçan* (170). Ez dugu adizki honen adibiderik aurkitu ez Belapeireren lanean ezta Laneufville izendatu dugun katiximan ere. XIX. mendean ere *nintzan* dugu Nafarroa Behereko idazleen artean. Caz SM: *ninzanian* (66). Salab SM: *ninzen* (171). Gizaldi bereko gramatikalarri zuberotarrek ere hala-hala dakarte: Inxauspek *nintzan* dakar (1858: 41) eta baita Gèzek ere (1873: 82).

2.4.16.2. *Ibili* aditzean *baithabila* aldaerak erakusten digu adizki hauek orainean -*a* bukaera dutela; zuketako *diabilazu, giabiltzazu* eta *diabiltzazu* erek ere berdin. Ordea, adizkiek erlatiboko atzizkia hartzean -*e*- dago: *dabilen* & *dabilitzen*; aldaera atzizkidunetako *dabil-en* forma zaharragoa dateke, baina berranalisi edo analogia zenbaiten bitartez *dabila* erako adizkiak ditugu singularrean; bukaeran *a* bokala duen pluraleko -*tza* atzizkiak eragin ote ditu *dabila* erakoak?

2.4.16.3. Singularrak *h* etimologikoa darama *joan* aditzaren trinkoetako bokalen artean *Pratica-n*: *nuhen* ‘noan’ / *duha* & *duhakeen* & *duhela* (166), *dihacu* ‘doa’ zuketan (172), *zuhen*, *bailuha*; aldiz, pluraleko adizkietan ez da *h*-rik: *goatzen* & *guatzen* & *guazen* / *zuaza* & *zuazen* / *zuazte* / *duatzela*, *zuatzela*; halaz guztiz ere, zuketan pluralean berragertzen zaigu: *gihatzu* / *dihatzu*. Nafarroa Beherean hasperena gordetze honen lekuko dira idazkiak. Etxepare: *noha, oha, doha*. Oihenart: *doha* (174, 257) & *doa* (174), *oha* ‘hoa’ (191). Bazkazane 1762: *badoha* (196), *badohaye*

(207). Jauregiberri Donapaleuko apez buruak 1867an Bonaparteri idatzi olerki bilduman ere badira adibideak: *doha, dohala & duhala* (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 535). Baita Baigorriko ebanjelioan ere: *baduba* (44). Ikus ezaugarri honetaz Joseba A. Lakarraren berreraiketa jarduna (2006: 583-584).

2.4.16.4. *Pratica-n joan* aditzean *o(h)a* > *ua* hersketa nagusitu dela dirudi; bada *goatcen* erlatibozko bat (125), baina adibide hori izan ezik, adizki guztiek *u* daramate; sei *guatcen*, *guatcenian* bat eta hiru *guacen* zenbatu ditugu itzulpenean. Horra aldaera gehiago: *nuhen / duha & duhakeen, bailuha, zuhen / baikiduatza (?) / zuaza & zuazen / zuazte / duatzela, zuatzela*. Inxauspek *oa* dakar Zuberoan *joan-en* joko guztietan XIX-an, *h* gabe eta *u-ra* hertsia gabe (1858: 446-8).

2.4.16.5. *Egon-en* trinkoetako bokal asimilazioa abiaturik dago XVIII. mendeko adizkietan. Etxepare batek, esaterako, ez darabil adibide asimilaturik, baina *Pratica-k bai: doonian* ‘dagoenean’ (110), *doola* ‘dagoela’ (275), *çoola* ‘zegoela’ (118), *diooçu* ‘diagozu’ (20). Baditu adibide osoagoak ere: *daguen* (276, 405), *diagoçu* (276). XIX. mendeko idazkietan aldaera asimilatuetarik eta osoagoetarik dago Baxenabarren, bi eretarik.

2.4.16.6. *Pratica-ko* adizkiak osoagoak dira XIX. mendean Bonapartek Nafarroa Beherean zuketako adizkietan dakartzan zit ‘dizut’, *zi* ‘dizu’, *zie* ‘dizute’, *nitzin* ‘niti-zin’ edo *zitzien* ‘zitzitzien’ aldaerak baino: *dicit, dici, dicie, niticin, cititcien*.

2.4.16.7. Idazki zaharretan ageri denaren arabera bederen, higadura jasan dute \**edin* errotik datozen singularreko pertsonetako oraineko adizkiek eta iraganeko edo balizko hirugarreneko Nafarroa Beherean XIX. mendean. Etxeparegandik hasirik XVIII. mende bukaerako Laneufvilleren katixima arte, sendo iraun du adizkietan erroaren izaerak idatzizkoan, baina XIX. mendeko Bonaparteren garaiko idazkietan bokalarteko igurzkaririk ez da ageri. Ez dakigu, ordea, lehenagoko testuetako aldaerek orduko ahozko ebakera leial ordezkatzen ote zuten, ala orduan ahoskatzen ez zen egoera zaharragoa islatzen ari ote ziren. Hona idazleen jokaera. Etxepare: *nola ere hil baitadi* (40). Leizarraga: *nadi, adi, dadi, zedin, ledi & ladi*. Zuberoako Belapeirek ere halaxe jokatu zuen: *dadin* (I, 21). Pratica: *egon dadila* (440). Laneufville: *iautsi zedin* (126). XIX. mendeko adibideetan higadura ageri da; Donam kat: *izan daan* ‘izan dadin’ (265). Irib SM: *nain* (34); *izan daila* (56). Caz SM: *ez dailela itzul* ‘ez dadila itzul’ (63), non adizkiaren atzizkian pleonasmoa gertatu baita, egun Aezkoan egiten den bezala.

2.4.16.8. Nor Nork aditz sailean, adizkiak atzizki bat duelarik, lehen pertsonan *-da* morfema zaharra ageri da Baxenabarreko idazki zaharretan, *Pratica-ko* adibideok lekuko: *dudan* (4, 6, 226) & *dudala* (15). Ordea, egun Nafarroa Beherean *dutan* era-koak guztiz arruntak dira. XIX. mendeko Lapurdin, Jean-Baptiste Elizanbururen lanean, esate batera, *dutan* ageri da (Sarasola 1991 [1986]: 27). Hona Nafarroa Behereko adibideak kronologikoki. Etxepare: *dudan* (22), baina galdera atzizkia “dut”-i lotzean *duta?* (158) egiten du. Leizarraga: *dudala*. B. Etxauz: *dudana & dudanez*. Tartas: *düdan* (*Ontsa*, 147). Bazkazane 1762: *dudanian* (224). Laneufville: *dudala* (23). Baxenabarreko XIX. mendeko katiximetan *-da-* > *-a-* gertatu da, igurzkaria galdurik; Caz SM: *nik erten duana* (36). Caz JJ: *nik maite tuanak* (114). Irib SM: *dituana* ‘ditudana’ (34), *duala* ‘dudala’ (37).

Bigarren pertsonan aldaera berria ageri da XIX. mendean: Leizarragak *hartzen duc ecarri eztuana*, eta biltzen *duc erein eztuana* (145) dakar, baina Cazenaveren Jondoni

Juaneren apokalipsiak *ez dukala jasaiten* (110). Baigorriko ebanjelioan ere *dukana* (80) dugu. *Pratica*-k ez dakar bigarren pertsonaren adibiderik.

2.4.16.9. Batzuk aginte aditz trinkoak direlako edo bi osagairen fusio maila sa-kona gertatu delako, Nafarroa Behereko lehen idazkietarik sumatzen dira batasun foniko nabarmeneko agintezko aditz egiturak. Etxeparek *erakustak* (247), *euztazu* (203) & *uztazu* (197) erakoak darabiltza. Tartasen *hartçaçu* (*Onsa*, 36) aldaeraak adizki laguntzailea bertan dela iradokitzen du, baina Etxeparerent *ikhustzu* (239) adibidearen eite luke Tartasen *eçarçu* formak (*Arima*, 52), partizipioan biak -i sailekoak izanik. Aldaera trinkoak ote dira Leizarragaren hauek, *eros-* eta *guzti?* Hona sorta: *egotzak*, *eraitsazue*, *erakutsak*, *erosazue*, *idokak*, *igorrok*, *ikusak*, *sinhetsak*. Eite hori dute *Pratica*-ko hauek ere: *atchikaçu* (279), *emaçu* (43), *erracie* (379), *ideçaçu* (240), *utçacie* (318), nahiz “aditz nagusi + laguntzailea” egitura duten *harçaçu* (111) eta *igor eçaçu* (226) ere badakartzan. XIX. mendekoak dira hurranen erak; Caz SM: *atheä azu* (50), *har azu* (50), *igor azu* (46), *khen azu* (25), *ukhan azu* (55). Caz JJ: *aurthik azu* (128), *ikhus azu* (116). Irib SM: *aurthikazu* (55), *harrazu* (60), *motchazu* (28), *utzazu* (28). Ordea, Ibarrolako Salaberriren SM-k *hartzazu* (11) dakar. Zuberoan ere bada honetarik zerbait: *pphitz*<sup>70</sup> *eçaçu* (2) perifrastikoa bezala, *eguiçu* (55) edo *ema-daçu* (92) laburragoak ageri dira Oloroeko katiximan (1706).

2.4.16.10. Tartasenak dira *niz* ‘naiz’ (*Onsa*, 32) eta *nitz* aldaera: horra *ioanenitz* (*Onsa*, 41) nahiz *orhitcenitz* (*Onsa*, 45). Zuberoako 1734ko *Othoitce eta cantica-n* dago *ceren beinitz*, *Jauna*, *hain urrun çoureganic* (88). Darricarrèrek Amikuzezotzat jotzen du *nitz* aldaera hau eta Leizarragak bi adibide dituela dio (1911: 21-2). Guk dakigula, egungo Amikuzen badira *egoitéintz* ‘egoiten hiz’ erakoak, *hiz* horretako txistukaria egoera inplosiboan delarik; itxuraz, metatesiaren bidez txistukaria tinkatu dateke: *egoiten hiz* > \**egoiteinz* > *egoiteintz*. Aztergai dugun *Pratica*-n ez da gertakari honen zantzurik ageri.

2.4.16.11. Bokalen arteko dinamikak metatesia eragin du zuketan emana den *guindirekooçu* ‘geniezaioke’ adizkian: *beste munduco punimendu ikaragarrietaric* *itçurthiagatic* edo *libro içaiteco*, *Gincoaren aldetic gure eretcerat gracia handi bat lu-keçu eta ezker handiric çor guindirekooçu* (312). Boudak baldintzaren ondorioztat dakar adizki hau (1948: 604). Guk uste \**iron-en* adizkia den —berdin pentsatzen du Manu Padillak ere (2013: 151)—, euskara batuko ‘geniezaioke’: \**gind-iro-ke-o-zu* morfematarik abiaturik, metatesia gertaturik *gindirekoozu* atera liteke, gogoan izanik *ke + o* > *koo* asimilazioa gertatu ohi dela. Bigarren aukera gisa, hirugarren pertsona datiboa *ko* postulatz gero eta moduzko *ke* morfemarik gabe, \**gindiro + ko- > gin-direko-* disimilazioa genuke, baina hartara ez genuke justifikatzen ahalko bigarren *o* hori, non ez analogiaz izan. Hirugarren aukera gisa “*gindirokezu*” ‘genezake’ bipersonala postulatz gero, *iro + ke* loturak ez luke *koo* lotura bokalikoa justifikatuko. Ohart *Pratica*-n *deçacon* ‘diezaion’ (270) edo *deçacootela* ‘diezaioketela’ (270) adizkiak ere baditugula, baina lehen adizkian datiboko *ko* legoke eta bigarrenean *ke + o* > *koo* asimilazioa.

2.4.16.12. Bokal arteko dinamikak eragin duke *guindiroeskeela* ‘genitzakeela’ (61) adizkia ere, itxaron genezakeena “*gindirozkeela*” bada ere. “guk hura” *guindi-*

<sup>70</sup> Berez *pphetz* dakar, baina hutsa da.

*roçu* (428) da zuketan, baina adizkia neutroa izanik eta *-en* atzizkia harturik, *guindroenaz gueroz* (104) edo *guindiroen beçala* (356) eran ageri da eta beharbada horren analogiaz *guindiroeskeela* erako formak sortu dirateke. Hiztunak *iro* erroaren ondoko *-en* atzizkia gogoan, *gindiroe-* hartu duke oinarri eta *z-ke* morfemak erantsi bide dizkio ondotik; edota bestela, ondoko *ee* sekuentzia horrek eragin ote du *\*iron* aditzaren erroaren ondoko lehen *e* harrigarri hori *gindiroe-* horretan?

#### 2.4.17. Adizki batzuen erabilera berezia

2.4.17.1. Adizki tripertsonaletan *\*iron* aditzaren jokaera defektiboa aipagarri da. Padillak dakarrenez (2013: 149-50), gure *Pratica* honetan eta Maister eta Egiategiaren lanetan ageri da *\*iron* Nor Nori Nork aditz sailean jokaturik eta baita Zuberoako pastoral batzuetan ere, baina beste inon ez. *Pratica* itzulpeneko bi adibide tripertsonalak iraganeko “hark guri” *etzirokegula* eta hipotetikoko “guk hari” *gindirekoozu* dira. Adibide gehienetan ez, baina bakan batzuetan *ke* morfema ageri da *\*iron* aditzean: *etzirokezie*, *diroskeela*, *etzirokeela*; esate batera, *ziroela* eta *etzirokeela*, bi aldaerak dakartzza liburuak.

2.4.17.2. Zuketan ‘dagokio’ dirudien adizkia dakar *Pratica*-k: *erruaren icen hori net unxa diaucoçu* (261); “diagoko-zu” dirudi eta ez dakar Videgain (1983)-k. Iraganean “hura hari” *çaucolacotz* (191) dakar *Pratica*-k eta “zagoko(n)-lakotz” izan liteke, estandarreko ‘zegokiolako’: *iracurten diici quiristinhho captivo batez, çoinhec baitcien devocione berheci bat Jesu-Christoren Passione seindiaren eretcerat, beti hura goguan çaucolacotz triste çuçun eta ardura nigarrez ciagoçun*; cf. iraganeko *caucan* ‘zeukan’ adizkia (244).

2.4.17.3. *Pratica*-k zaukedanian adizkia dakar: *Gincoaren eta ene arthian eztuçu lohisco murru haur becic, çoin baita ene gorpitzça; lurrerat erori dateenian eta puchulu haur kendu çaukedanian, joanen nuçu libroki Salbaçale Jaunaren ikuztera eta goçatcera* (349): zau-ke-da-nean izan liteke, Nor Nori “hura eni”, *ke* morfemak etorkizun kutsua erantsirik, “dukedanian” adizkiaren huts grafikoa ez baldin bada. Frantses testuak ez du gaia argitzen: *quand elle sera par terre, et que cet empêchement sera ôté, alors j'irai jouir librement de la vue de mon Sauveur* (RD 2, 486).

### 2.5. Sintaxia

#### 2.5.1. Osagaien hurrenkera

2.5.1.1. Determinatzailea da *zerbait* eta izenaren ezkerrean joan ohi da: *cerbait desir arinhen* (18); *cerbait demboras* (63); *cerbait itçuli ecinbeztezco çunbaitec* (49); *cerbait gaucetan houx eguin cindeçan* (102); *abildu nahi dienac cerbait jakitaten edo cerbait oficiotan* (132); *hec cerbait guizaz arhintcen baititu* (157); *cerbait hungui berheci Gincoaganic errecebitu onduan* (176).

2.5.1.2. Determinatzen duen izenaren ezkerrean doa *beste*, baina izenlagun honen eta beraren izenaren artean osagaiak tarteka daitezke: *bere otoitzça eta beste bere obra seindiac oro* (133); baita erlatibozko perpausak ere: *nehor hazten duçu lehen harriaren paussatcen, çoinhec beste grado berian eçarten tusteneki eiten baitu etchiaren fundamena* (263).

2.5.1.3. Foko egituretan galdetzailearen eta aditzaren artean osagai bat koka daitake, adibide honetan osagarri zuzena: *certaco hura mesperetchatcen duçu?* (417).

2.5.1.4. Ohi bezala, ezintasuna adieraztean *ezin* partikulak aditz nagusia ondotik du eta adizki laguntzailea hondarrean doa: *ecin eguin badugu* (16); *ecin idekitcen cereenian* (337); *ecin erakaxi dicie* (258).

2.5.1.5. Euskaraz ukapenaren hurrenkerak zaharra “aditz nagusia + ez + adizki laguntzailea” da, hainbat adibide lekuko; Exepare: *esquer hon bat vghen eztut çuyeganic vician* (64); baita erlatibozkoan ere: *nahi eztenac enganatu* (42). Hurranen adibideetan aginteko erabileran lexikalizaturik gelditutela dirudi; 1651ko pregariak: *nehor obraz hilen eztuçu* (7). Laneufville: *ostiralez janen estuc* (15). Donam kat: *nehor obraz hilen eztuzu, ez boöndatez gachtoki* (262); *besteëna ebatsiko eztuzu ez atchikiko injus-toki* (262). Pratica-n ez dago hurrenkerak honen adibiderik.

2.5.1.6. Beharbada itzulpenak eraginik, hasieran doa *ere* partikula zenbait perpausetan: *Ere anitz Seinduc explicarciān Joandene Paulec emazter Eliçan eztaliric ego-teco emaiten dereen mania Ainguriegatic, erraiten dicie hitz hoc Ainguriegatic endelgatu behar dutela...* (254). *Guiristhinuen perfeccioneoco eitekua eztuçu bortzchaz eguin behar den gauça bat: bihotzcetic gin behar dici. Ere Jesu-Christoc cer eguin behar cien sal-batceco galdatu ceracon guïçon gazthiari, lehen gauça, erran ciracoçun:* (19).

## 2.5.2. Komunztadura & koordinazioak

Liburuan usu koordinatzenten dira gramatikalki asimetrikoak diren osagaiak; hurrenren adibidean genitiboan doan osagarri zuzen edo sintagma bat eta perpaus nominalizatu bat batu ditu: *unxa endelgatceco* [bertuthe horren baliostarçunaren] eta [çoinhen necessario çaukun umil içaithia], *aski diici goguan erabilthia Gincoaren Semia Celuti geuxti dela umilitathiaren guri erakasteco* (256). Beste honetan genitiboan doan osagarri zuzen bat eta menpeko perpaus konpletiboa bat: *jiten duçu Gincoaren presenciaren eta harc ikusten thiela ahaztetic* (71). Honakoan izen bat osatzen duten edute genitiboa eta bizidunen adlatiboa lotu ditu: *ezthiela nehorc bere arimaren eta Gincoaganaco einbidiac utci behar* (15).

Hurrenren perpausa ezohikoa da, aditz-izen inesiboa eta partizipio burutua koordinatu dira: *eci beste maneretan ispirithiac gogora erakarri nahi tien gaucen cherkatcen eta gogora erakarri onduan* (90); *eta gogora erakarri onduan* perpaus horrek gaucen osagarri zuzena eskas du.

## 2.5.3. Perpaus erlatiboa

2.5.3.1. Egun Pirinioetako mintzoetan baliatzen den erlatibozko egitura bat bada, burua hasieran daramana, idazle zaharren liburuetausu ageri dena; de Rijkek bere garaian adierazi zuen (1980: 535). Garai bateko Mikoletak edo Barrutiak ere badarabilzate honelakoak eta xx. mendearren bukaeran, Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkarin halaxe erabiltzen ziren, eta erabiltzen ere dira Aezkoan oraino. Zuberoan Maister aipa daiteke: *Arima Jincoua maite dian batec* (101); *desircunte gaiçkialat daramen orotaric* (149). Nafarroa Garaiko XVII, XVIII eta XIX. mendeetan honelako perpausak ditugu: Iruñeko 1609ko olerkietan *ogui beti dirauena* ageri da; inoiz erlatibozko perpausaren

aitzinean doan izenak mugatzailea darama: *sacrificioa ofrecicen dena* (28v) dakar Be-riainek 1621eko *Tratado-an*.

*Pratica-n* ere badira honelako adibideak: *emazte hamabi urthe harten odol galicia-reki cen bat, medikiek ecin sendotu çutena* (201); *Seindu umilitathia chehetarçun bateki tratatu dutenec anitz grado bertuthe hortan eçarten dicie* (277); *ohoin etche bat arrobatu nahi lukeen batec* (364); *çunbatenaz gauça, ceren ere gagnan gure Jujamendia eguiten baitugu, handiago edo thiipiago baita* (418); *gauça estimatcen dien harenac gure desiren içaria* (10); *guiçon penitencia handiric eguiñez bici ciren batçuri* (272). Honakoan ez dago erlatibozko perpausik, baina izen sintagmaren egitura iduria da, ezker doan burua eskuinetik determinaturik dago: *igor eçaçu, Jauna, Achouri lurraren Naussi gueihena* (226).

Hona Nafarroa Behereko erlatibozko adibide zahar eta berri gehiago. Etxepare: *çure pena dioçunoc nonbayt handi videyuçu* (188). Leizarraga: *ceren ezpaitituc sinhetsi ene hitz bere demborán complituren diradenac* (98r). Ressegue 1758: *guc egurukitceco lekhu duguneti haien devocione khristigoazcoti* (15-6); 1780ko ediziokoak dira hauek: *processione... eguiñen direnetara* (8); *linge Sacristaignac remetituko deronaz, soeing ukheiteco* (36); *lecu dugunaren contre* (18). XIX. mendekoa da Ibarrolako Salaberriren adibide hau, San Mathiuren ebanjelioan: *bide ixassorat eramaiten diena* (19). Ikus Iribarnegarairen Baigorriko itzulpena: *haur bi urthetako eta gutiaoko guziak* (23).

2.5.3.2. Erlatibo azaltzaileetan zoin izenordaina baliatzen da eta aldaera deklinatu-ten *zoiñek, zoiñen* nahiz *zointan* ageri dira gehien, baina liburuak ez dakar *zoina* edo *zoinez* aldaerarik; ondoko adibidean instrumentalean beharrean genitiboan jokaturik dago, baina adiera destinatiboa duela ere uler liteke (jatorrizko testua ez du itzultzailak literalki eman): *Seint Bernatec cioçu seindutarçunaren icenaz Apostoliac heben endelgatcen diela Jesu-Christoren garbitarçuna, coïnhen Evangeliuac erraiten baiteragu garbitarçunac Aingurien iduri eguiten guitiela* (352); honakoan destinatiboa dago: *Salamonec anitz Mairien emaste maitatu cicin, coinhendaco Jaunac erran baitceree Izeraeleco Haurrer: he-taric estucie emastetaco hartuco eta cien alabaric estucie heekin eskonduko* (373).

2.5.3.3. Idazle zaharren lanetan korrelaziozko perpaus erlatiboa aurkitzen ditugu; erreferentzia bereko bi izenordain daramatzate, bakoitza perpaus banatan: lehenbizikoan *zer* edo *nor* galde izenordaina ageri da eta honen aditzak *bait* aurrizkia darama; bigarren izenordaina bigarren perpusean doa eta erakuslea da: *biziduna* izar daiteke, baina lekua ere adieraz dezake; bigarren perpaus honetan aditzak ez darama menderagailurik (Euskaltzaindia 1999: 247-259). Ekar ditzagun bi adibide:

*Nic cer oray nahi vaytut heben duçu eguiñen* (Etxepare, 172)

*Ecen eztut cer nahi baitut, hura eguiten: baina ceri gaitz baitaritzat, hura eguiten dut* (Leizarraga, 1571: 276r)

Korrelaziozko erlatibozko perpusek lehen izenordainaren ondotik *ere* partikula eraman dezakete; *Pratica-ko* hiru erabilera dakartzagu jarraian:

*norc ere eguiten baitu becatbia, hura hilen da* (320)

*beti intxeatu gure concienciac kentcera cer ere hara sar edo lerra beileite saxuric edo gaiztoric, eta guerocotz gal-araci ahal guitçakeenic* (43)

*cer ere Osthia Seindiac haur haren gorritzian ein baitcien súiaren erdian erracetac bei-rathuz, gauça bera ispiritualki eiten dici behar beçala comuniatcen dutenen arimetan* (224)

Adibide gehiago ere ekar litezke, esate batera Materre, Axular, Tartas, Oloroeko katixima, Ressegue 1758, Salaberri Ibarrolakoa, Cazenave baxenabartarra, Iribarne-garai baigorriarra... autoreenak edo lanetakoak.

2.5.3.4. Aditzari *-lako* atzikzia erantsirik eraiki du perpaus erlatiboa: *dakigulaco faltaric thipienetaric arranguroska pundi hortan beguiratu behar diici* (438).

#### 2.5.4. Perpaus konparatiboak

2.5.4.1. Belapeiregan ageri ez den *bet(h)i eta hanbat* egitura dakar *Pratica*-k. Itzulpenak *bet(h)i eta hanbat + (haboro = -ago) = -ki* egitura baliatzen du; hona adibide zenbait: *perfeccionian eta bertuthian beti eta hanbat aboro aitcinatoco dien dessir berua* (36); zazpi agerpen ditu liburuan *beti eta hanbat aboro-k eta aldaera hasperendu bat dago: bethi eta hanbat aboro perfeccionian aitcinatuz dihatzu* (19). Badira *aboro gabeko adibideak* ere, baina adiera konparatiboa galdu gabe, betiere: *harri bera beheiti abiaticen denian bethi eta hanbat fitetzago jeuzten baita* (19); *heen beti eta hanbat hobeki eguthia* (140); *inxeatu beti eta hanbat Gincoaren borondathiaren araura gauza guciac hel diten desiratcera* (92).

2.5.4.2. Izen sintagma bati atxikitzen zaio *iduri* konparazio egitura eratzeko: *meditacionetan jarten baitira, ihizlari, beti menturala, miran aitcinetic deuz hartu gabe thiratcen dutenac iduri* (127); *edo hura iduri beste çunbait bertuthe* (130); *estela bertutheric guiçonac hain Ainguriac iduri eguiten dienic* (352-3); baita atzikzia harturik ere: *cerbaitetan Jesu-Christoren idurico içaithiagatic* (184).

2.5.4.3. Ez da ageri XIX. mendeko idazkietan *Pratica*-n dugun *antzo* konparazio partikula: *egun batez Cardinale Mendoza adiskide anço erran ciracoçun* (251). Garaia hartan Laneufville apezpikuak eginarazi katiximan ere bada: *guiristino anço* (78). Lehenago usu ibiltzen zen; Lapurdin *an(t)zu* ageri da Materreren eta Axularren lanean, baina *antzo* dakarte Etxeberri Ziburukoak, Leizarragak, Tartasek, Belapeirek edo Oloroeko katiximak. Oihenartek, berriz, *anzotan* dakar: *zer anzotan gerta laite diozuna?* (456). Nafarroa Garaian, berriz, *aintzu* baliatzen zuen Lizarraga Elkano-koak. Zuberoan *-(r)en antzo* ageri da XIX.ean, esate batera Inxausperen lanean.

2.5.4.4. Korrelazio antzeko zerbait ageri da alderatzeko baliatzen den *zunbate-naz... hanbatenaz* egituraren: *ceren çunbatenaz ere gure bibotzcian estimu hura handiago içanen baita, hanbatenaz ere guehiago aitcinatuo guituçu Gincoazco gaucetan eta perfeccionian* (10).

2.5.4.5. Korrelazioa dago *hain unxa... nola* egituraren ere: *net prootzchoz duçu hain unxa Gincoaren bidian sartzen hassi direnen, nola bertuthian aitcinathien* (167).

#### 2.5.5. Denborazko perpausak

2.5.5.1. Nafarroa Beherean ez dago garairik denborazko perpausetako *-nean* atzikzia ageri ez denik eta *Pratica*-k ere era hori dakar: *minçatu guirenian* (214); *pin-dar bat lastora erorten denian* (359). Kronologikoki ikus daiteke; Etxepare: *dutenian* (134), *caydanyan* (240). Leizarraga: *eta alliança haur eneganic vkanen duté, kendu dituquedanean hayén bekatuac* (283v). 1651ko pregariak: *dembora eztenian cillegui* (8). Belapeire: *dienian, denian, dutianian*. Laneufville: *dituztenian* (20). Salab SM: *euritu dienian; hurak yalgi direnian, aiziak handiturik eman dienian etche horren kontra, hau ez da erori, zeren bastitia baitzen harriaren gainian* (38). Donam kat: *Agur Maria eta*

*Salbia erraiten duchunian noëkin mintzo chia?* (260). Irib SM: *sorthu zenian baa Yesus Bethleem Yudeako hirian* (22).

2.5.5.2. Usu ibiltzen du *noiz eta ere* denborazkoetan: *noiz eta ere baitcirete Jesu-Christo Sacramendian daguenaren Aldariaren aitcinian, cioçu ber Seint Chrisostomac, eztucie aboro uzte uken behar guiçonen arthian ciretela* (255); *eta devocionesco einbiden uztera giten bada, fitetz dembora lucez jardirexia galtzen diela, eta noiz eta ere guero berri* *devucionera itzuli nahi baitate, hain handi diren epaintchiac idiren tici, nun nekez becic ezpaita berris helduren leheneco perfeccioniaren gradora* (47). Baino gerta dai-teke *noiz eta ere + -nean atzizkia baliatzea* ere: *noiz eta ere gure miserien eta flakecien barnatic eçagutzen ari guirenian* (291).

### 2.5.6. Perpaus kontzesiboak

2.5.6.1. Zuberoan —eta Erronkarin *naibeda* aldaeran— perpaus kontzesiboetan *nahibada* partikula ibiltzen da; Tartas, Mercy edo pastoralak aipa daitezke Zuberoan eta *Pratica* nahiz Laneufville apezpikuak eginarazi katixima Baxenabarren. 1782ko gure itzulpenean guztiz nagusi da *nahibada*: *otoitu cicin bere Fraide lagun bat iratçartcecan, nahibada etcen ordian orano unxa sendothia anitz flacatu cien sukar batetaric* (17). Nolanahi ere den, behin *nahiz* darabil: *oraidanic, erran diici, nahiz nehorc behar dien finkatu hobekienic beharren dien gauçari, orotarat ere eguin cirozkiçu meditatcen thien bertuthen actac ere* (136).

2.5.6.2. Adiera kontzesiboa du zunbat ere partikulak: çunbat ere *Gincoari* çure bihotzçaren bortaren idekithia luçatu baituçi, eta haren *gracier ihardesthia, hargatic ere estici joan nahi uken, sobera handi dici* çure bihotzçian sartceco desira, eta fitez ez exitciagatic haren bortan jarten duçu eta *igurikiten dici çabal deçacogun* (24-5); hona hemen adibide argigarri gehiago: *eci çunbat ere gure obrec bere beitaric guti balio eta guti merechimendu baitute, orotarat ere Jesu-Christoren Passione Seindiaren merechimendier juntathiak direnian eta haren odolaz tindathiac, Gincoaren aitcinian precio handitaco edo net balioz tuçu eta net Gincoari laket ciazço* (237-8); çunbat ere *es-paitirogu heben guireno Gincoa clarki ikuz ahal den beçala, imita ciroskigu Seindiac* (68). Honakoan, ordea, ez da kontzesiboa, korrelazioa adierazten du: *Blosius Autorrac erraiten dici egun batez Gincoac inspiratu ceracola Seinta Gertrudari, çunbat ere aldiz nehorc devoki so egunen baitcerakon Jesus Curucificathiaren portretari edo imaginari, hainbeste aldis Gincoaren so misericordiosac bere gagnera eraux-aracico cithiela* (155).

2.5.6.3. Beste perpaus kontzesibo mota berezi bat ere bada: *-keen ordian egitura* darabil liburuau hiru aldiz: *bena ezkindukeen ordian Gincoaren Semiaren* *bicitce eta exemplu seindien gagnan goguaketen eguthia becic, hetan azki lukeçi gure bici orotaco* (186); *goguan beti uken deçagun egua hori, nahibada ezkindukeen ordian seindi concencian becatu mortalik batere* (284); *elukeen ordian becatu mortal bat eguin erran dien medisenziaz, bethi eguin dien houxaren erremediatceco eta guerorat falta berera berris eroretic beguiratceco baliatuco baitçaco* (441).

### 2.5.7. Xedezko perpausak

2.5.7.1. Eguzkialdeko idazleek *izan* eta *edun* oinarriko adizkirik gabeko xedezko perpaus bat baliatu dute, *\*edin* edo *\*ezan* oinarriko aditza baliaturik, *amore(a)ga-*

*tik* partikula daramana, honen kokagunea perpausaren aitzinean nola ondotik iza-nik; *Pratica-n* usu ageri da era hau: *Bonaventurac erraiten dici, Gincoac hiltceco ore-naren ecin jakin hortan nabi uken guithiela utci, amorecatic munduco gaucez sobera kassu ezkindecan eguin* (61); *anitzetan guttitciaraci diraacie Heuzcarala içan ladin itçulia, amorecatic Heuzcara becic eztakiten guirstinhhuac ere, probetzcha ahal liten Liburu preciatu hortçaz* (4). Ekialdean idazle frankok ibili dute: Tartas, Oloroeko katixima, Laneufville, Salaberri Ibarrolakoa, Cazenave baxenabartarra, Donamartiriko katixima, Iribarnegarai baigorriarra... ikus daitezke. Lapurdin ere ibili da, Materre lekuko: *çu hil çara, ni hil eznendin amorea gatic: eta penatu çara, penetarik ene atheistacea gatic* (1623: 278-9). Zuberoan Belapeire da erabilaren lekuko: *amorecatic Paradussian Gincoa gana artecari eta Patron hora ukhen deçan* (I, 63). Mendebaleko euskal idazkietan amorearren aldaera ageri da.

2.5.7.2. Bere garaiko egitura berritzat jo badezakegu ere, xedezko perpausak osatzeko “aditza + -en + -tzat” egitura baliatu izan da euskara zaharrean. Atzizki honekin aditz mota ugari baliatu da: trinkoak batetik, Leizarragaren *jakin-en* adibidean legez: *daquïquentçat bada ecen guiçonaren Semeac baduela authoritate lurrean bekatuén bar-katzeco* (15r). Hain zahar ez diren testuetan litekeena da aditz nagusiari *-kotzat* atzizkia eranstea ere, Bazkazaneko 1762ko idazkian legez: *eguia hunen hobequiago senditcecotçat goacin Niniveco populuia baithara eta hartan idireneng dugu exemplu bat asqui ederra* (226). *Pratica-k* ez dakar destinatiboko atzizkia aditzei erantsirik; liburu guztiko “-kotzat” bakarra *hartacotçat* (216) adizlaguna da.

2.5.7.3. Euskara zaharrean, *-gatik* atzizkia adizki laguntzaileari erantsirik xedezko perpausak eratzen dira, Axularren laneko adibidea lagun: *bataz, okasinoak okasinoa pitz eztezangatik; eta, berriz, bertzea, eskandalurik eztengatik, eta munduari ere eztela, ia, heken artean lehen bezalako bekaturik aditzerera emaitagatik* (275). Honelako xedezko perpausak, *\*edin* edo *\*ezan* adizki laguntzailea dutenak, oraino baliatzen dira, esaterako Aezkoan: *ibil tzitengatik ongi ‘zu ongi ibil zaitezen’; atratzen tugu tzuka ditengatik ‘lehor daitezen ateratzen ditugu’*. Honelako adibiderik ere ez dakar *Pratica-k*.

2.5.7.4. Aditz nagusiak *-t(z)eko* & *-t(z)ekotz* atzizkia hartzen du xedezko adieran: *orobat bertuthec gure bibotzeten unxa prootzchatceko, heen ez galtceketz eta frutu heer erakarceketz necessario duçu umilitathiac bibotzian erruac barnha eguinac uken ditçan* (262-3); *cimenduco lehen harri horren unxa paussatcekotz, aitcinetic behar ci cilatu* (264).

## 2.5.8. Galdera perpausak

2.5.8.1. Ez dakar *Pratica-k* galderazko *othe* partikularen adibiderik. Nolanahi ere den, honen bi erabilera ageri dira euskara zaharrean ekialdeko idazleetan. Baxenabarreri gagozkiola, Etxepare garaztarrak, Bazkazaneko 1762ko predikuek eta XIX. mendeko Garaziko itzulpenek ohiko hurrenkera ageri dute: cf. lehenaren *amoretan othe date?* (86), predikuetako *seguitcen othe ditugu?* (220) eta Cazenavek egin San Mathiuren itzulpeneko *ez othe zaut haizu?* (55) adibideak.

Baina Oihenartek beste hurrenkera batean dakar, extraposizioan: *badaidita othe huts?* (312); *egia d'othe?* (353). Hurrenkera hori Arberoa, Amikuzen edo Zuberoan ageri da egun eta aspaldi ez duela, Erronkarin eta Zaraitzun baliatzen zen. Hona Zuberoako adibide guztiz berri bat, Altzürüküko Grégoire Epphererena (1929-1974):

*Bazakiana ote de la Villeheliok ere bildü zütiuala zazpi kantore horik?* (Davant 2009: 131). Johañe Eppherre (1931-2004) Altzain sortuak ere badakar bertso batean: *Egün hau berhezia zertako den othe?* (Davant 2009: 133).

Guk Amikuzeko Bithiriñan beste hau bildu dugu: *aita joain dea othe?* Baxenabareko Arberoan eta Armendaritzen bi egiturak batera entzun ditugu. Armendaritzen horren aneia erdia da, ta nola joan da othe? hartu dugu lekuo batengandik, baina inkestaren bidez beste kokagunean ere bildu dugu *othe* bigarren berriemaile batengandik: *amatxi Iholdiko othe zena?*; *alhaba nun othe dut?*; *senharra jin othe da?* Mehaine-koak dira hurrengoak: *jein ‘jinen’ dea othe?* / *eztakit ardi orrek bildotxa ukhain dienez othe gaur.* Dena den, Mehaineko lekuoak arazorik gabe onetsi ditu *othe* partikula aditz nagusiaren ondotik eta adizki laguntzailearen aitzinean zekarten adibide proposituak. Hego Euskal Herrian Baztangoizan *eztuzu ote izein penik?* dakar N'Diayek (1970: 231), baina Paskual Rekalde filologo amaiurtarrak dioskunez, egitura hau egun ez da arrunta Baztanen.

2.5.8.2. Etxepareran garaitik honat lehenbiziko idazkietarik ageri da Nafarroa Beherean eta eguzkialdeko euskalkietan bai / ez galderetako -a morfema; hona *Pratica*-ko adibide bat: *guc estiçakeguia sofri proximuaren falta arhinac offensuric gabe edo haren contre samurtu gabe?* (433). Baina berehala ikusiko dugunez, morfema hau ez da galdera perpausetan soilik ageri.

### 2.5.9. Baldintza edo denborazko perpausak

Baldintza edo denborazko perpausen ingurunean ere -a ager daiteke eta horren lekuo da *Pratica*; lehen adibide honetan baldintza kutsua dago: *desiratcen cien kargu hura uken dien beçain fite, hazten duçu haren mezperetzchatcen eta besteric cerbaiten gutitciatcen; beste bat uken dia, hartzaz orobat eneatcen duçu eta azkenian, bere nahi-cunder içariric eta chederic ecin emanet, cerbait gauça berriren onduan beti diabilaçu, behin ere deussezerez content içan gabe* (30). Bigarren honetan denborazko ingurunea dirudi: *guero, aldiz, nahi dutenian ohoratu eta Erregue eguin, gordatcen duçu; eta aldiz, nahi dutenian desohoratu, aguertcen duçu. Guiçonec laudatcen dutea, bai eta ere Demoniuec posseditihen ahotic; ichil-aracitcen tici. Afronthuz eta injurioz bethatcen dicie, eta etci hitzcic ihardesten* (257).

### 2.5.10. Baldintza perpausak

2.5.10.1. Baldintza adierazten du -n ber egiturak; hona *Pratica*-ko adibide bat: *ene placer eta descانxu gucia çure borondathiaren eguthian diagoçu, eta çuc placer eta nahi duçuna eguin deçadan ber, deuz etcit desiratcecoric* (83).

2.5.10.2. Hona perpaus jokatugabeak, baldintza kutsua dutenak: *iduri luke horren gagnan traturic eguitekotz endelgamendiareki eta ispirithiareki eguin behar liçatekeela, ez, aldiz, beguieki* (358); frantsesez: *il semble que s'il y a quelque traité à faire à ce sujet, c'est avec l'entendement et avec l'imagination qu'il faut le faire* (RD 5, 367). Baldintzazkoa dirudi honek ere: *eci çure cerbitzchatceco choilkia desiratcen dicit bicitcia eta ezcit bici nahi ene biciaren çure cerbitzchian ez eremaitecotz* (342), zeina gaztelaniaz *que yo no quiero la vida sino para serviros; y sino os tengo de servir con ella, no la quiero* (I, 428); frantsesez, berriz *car je ne désire de vivre que pour vous servir, et je ne*

*veux point de la vie, s'il faut que je manque de l'employer à votre service* (RD 2, 473). Xedezkoa nahiz baldintzazkoa izan daiteke beste hau: *eta beti erraiten ciela pundu haren gagnan nehorc erne içan behar ciela, ceren bihotçaren penxamendu gaistuetaric chahu atchikitcekotz, beguiac so desonestataric beguiratu behar cirela* (360), zeina jatorrizkoetan porque no se puede guardar el corazon de pensamientos malos, si no se guardan los ojos (III, 180) / parce que si on ne retient ses yeux, on ne sauroit empêcher que les mauvaises pensées ne trouvent entrée dans le cœur (RD 5, 369) baita.

### 2.5.11. Zehargalderak

Zehargalderetan atzizki bat eraman ohi du aditzak Ipar Euskal Herriko eta ekialdeko mintzoetan; Baxenabarreko tradiziortzat *Pratica*-ko adibide hau aurkez dezakegu: *O ciec guciec bidian igaraiten ciretenac, beha citeste eta soguicie badenez ppena edo doloreric eniare pare denic!* (158). Lapurdin -(n)-z zen bukaera lehen idazleen artean, Materrenen *ordea ea Saraco Euscara denz Euscal-herrico hoherena* edo Axularren *eztakigu emanen zaikunz perpusek erakusten duten bezala, eta horrelaxe darabilte Pouvreauk edo Ziburuko Etxeberrik ere.* Ordea, Nafarroa Behereko idazle zaharrek -(n)-ez egiten dute; hona Leizarraga beskoitztarraren adibide batzuk: *eya deus hartan eriden ceçaquenez* (83v); *pensatzen çutela Ioannesez, eya hora liçatenez Christ* (104v); *eta gogoatzen çuten hora Scribéc eta Pharisieuć eya Sabbathoan senda leçaqueenez, accusatione eriden leçatençat haren contra* (111r); Oihenartek ere -(n)-ez egiten zuen. Bazkazaneko 1762ko predikuetan ere atzizki hau dator, grafia bateraturik ez badakar ere: *non jbiltzen diren, cer eguiten duten, sacramenduyetarat hurbiltcen dienes* (171); *heia eguerrietan Jesus aurkhitu duçuienetz* (220). Zuberoako adibideak dakartzagu orain; Belapeire: *Nola beraz ihorc eçaguturen du, Bazco besta hontan egiazki arrapiztu deñez Jesus-Christeki?* (II, 57). Olor kat (1706): *Nola eçagutcen dugu bekhatia mortal edo venial denez?* (60). Maister: *eia bata bestia beno saintiago deneç* (321). Edipa past: *eya har ahal dirogunez by orenen phaussia* (330).

### 2.5.12. Moduzko perpausak

2.5.12.1. Euskara zaharrean moduzko perpausen instrumentala aditz-izenari atxikitzea gauza arrunta zen Ipar Euskal Herrian, Materrenen adibidea lekuiko: *ceiñen athea idequi bait cenduē ceure odol preciatuaré saihetetic issurteaz* (1623: 208). Egun ere honela da ohitura Zuberoan, baina mugatzailerik gabe. Ordea, denbora joanez bezala, ematen du euskalki gehienetan partizipio burutuaren atzizkia baliatzera jo dela. Hona Zuberoako adibide sorta bat:

*G. Certan guciz Apostoliac ohoratu behar dutugu? I. Humilitaterekí hen izkiribien irakourtez, eta Predikier behaterez, çognec hen erranac arguitcen baiterizkié* (Belapeire II, 119)

*Ardura orbit cite erran çahar houneç, eçtela so eguiteç beguia assetcen, ecetare beharria entçuteç* (Maister, 4)

*Sacramentu Saintiareky eta harçaz ondoti emaitez populiary benedictioniaren, hori arratseco Oficiounen ondouan* (Mercy, 13)

*Barak barak ebiltes bidagia dugu eguinien* (Charlemagne, 342)

*Pratica-k ere honelako perpausak dakartzan:*

*Erregue ezthonathia colera handitan ikuztez contreka edo harc nahi etcien beçala gauça heldu cela (247)*

*Hargati,cioçu, arraçoin ciela Jopec erraitez egun diela pacto bat bere beguieki emastetara behin ere ez penxatceco (358)*

Mende bete lehenago Oihenartek bildu atsotitzetan ere bada honen isla: *jokoak, emaztek et'arno onak, dostaitez, galtzen tuzte gizonak* (246); hurranen adibidean bi erak nahaska darabiltza: *gauaz, epaiskaz zur'etxen sartuz / em'ibiliz,eme hatsartuz / eta haztatzez ganbara bitan / iraganik, beldur handitan* (342). Tartasek ere biak nahaska darabiltza: *ezta ez iaquitia, doctrina, acquisitzen bonacheran... bena aquisitzen da triuailu handiz, beillaz, esquier thu egunez eta gauaz candelaren vrrina bestiac lo dançala hurrupatcez dio poeta batec ederqui* (Onsa, 12).

2.5.12.2. Bestalde, halako moduzko adiera edo hartzen du perpausak -larik atzizkiaren bidez ere: *Seint Chrisostomac erraiten dici Mahain hartaric jeiki behar dugula lehoin batçu beçala, beguietaric súia aurtikiten edo egozten dugularic* (219); *hirur egunen burian, nola bere semiaren galciaz ecin consolatzen baitcen, eta suertez labe haren borthan semiaren deithoratcen ari çuçun, nigarrez bere buruco bilhuac idokiten cithiaric, eta semia bere icenaz deitzen cicin* (223).

### 2.5.13. Ustearen adierazpena

2.5.13.1. Ekieldean eta Ipar Euskal Herrian ohi denez “uste + edun” lokuzioak -en atzizkia har dezake osagarri: *eztut uzte, Iracurçale Maithia, baden Libururic arima hunac devocione perfeitarren bidian handiskiago lagunt ditçakeen* (3); *uztez cerbait malur heldu citçakon* (155). Bestela ere gertatzen da, -ela harturik: *justuac eztici uzte behin ere bere eguinbidia ossoki egun diela* (37).

2.5.13.2. Ez dakigu adibide jatorra den edo huts bati dagokion, baina liburuan ez dago bat baizik; konpletiboko atzizkia eta ustea adieraz dezakeen inesiboko -etan lotu direla dirudi: *coinhec deliberatzen baitute, guero confessatuco eta convertituco direlakuan, becatu eguitera, Gincoac barcatuco dereleetan ‘dielakoan’* (50).

2.5.13.3. Menpeko perpaus konpletiboari izena atxikitzean -ko morfemak egiten du lotura: *biharamunian comuniatu behar dugulaco orhitzchapenian* (208).

### 2.5.14. Ondoriozko perpausak

Hainbat era ditugu liburuan. Hona hemen “eci hain... nun + bait-” egitura: *eci gauça horiec oro hain elgarri emanac dituçu, nun bataren içaria besthiaren chedia baita* (11).

### 2.5.15. Kausazko perpausak

Aditz pertsonalak kausazko perpusean berrogei adibidetan -lakotz hartzan du liburuan. Hona adibide pare bat: *edo genden erraithiagatic, edo manaçaliaren bistan delakotz bertuthia bessarkatzen dienac, gutitan irauten eta hartan aitcinatzen duçu, bena flakatuz dihaçu* (19); *hargatic segur duçu perfeitago eta merechimenduxioo dela heen*

*maitatcia haren borondatetic eta justiciatic giten direlakotz eta haren gloriatan direlakotz* (308).

## 2.6. Lexikoa<sup>71</sup>

### 2.6.1. Hitzen zerrenda eraikitzeko irizpideak

2.6.1.1. Liburuko hitzen artetik hainbat eta hainbat hautatu ditugu aurkezpen ttiki bat egin eta azalpen xeheak emateko, formaz edo adieraz iruzkina egiteko; hitzok izarñoa daramate ezkerrean gure zerrenda honetan eta hiztegia izeneko atalean datoiz iruzkinak, liburuaren edizioaren ondotik.

2.6.1.2. Garai bateko Ipar Euskal Herriko berri lexikoa edukitzeko ez zegoen lanabes handirik; aipatzekotan, Martin Harrieten 1741eko euskara-frantsesa (1650 sarrera) eta frantsesa-euskara (3350 bat sarrera) hiztegia ekar daiteke 1782ko *Pratica*-ren garai hartarako; erosoa zen sarrerak euskaraz ematen dituen zatia; cf. Lakarra (1995: 63).

2.6.1.3. Ezaguna da beste hizkuntzetako idazkiak itzultzen dituzten hizkuntzek beste hizkuntza horien eragina jasan dezaketela emeki-emeki beren egituretan, esaterako kalkoen bidez aditz lokuzioen zerrenda ugaldurik; baliteke gure liburuko euskal itzulpen batzuetan, frantsesezko aditz lokuzioen kutsu zenbait iragan izana ordain hizkuntza den euskarara, baina kutsu zenbait da, ez da erabateko eragina. Itzulpen-gintza arloko ikerketa xehe eta berezituek argitu beharko lituzkete honelako zantzuak.

2.6.1.4. Ekoizpenak ez du itzultailea nolanahi asetzten eta inoiz euskal senari eusten dio ordainak ematean: *destinatu edo çatitu* (16); *abançu edo aitcinatce ispirituala* (18). Berebat, Axularrek bezala, euskal bikoizketak ere ematen ditu itzulpenean: *hautemaiten edo nabaritcen* (255); *aurtikiten edo egozten* (219); *epantchu eta puchulu* (267).

2.6.1.5. xviii. mende bukaerakoa da *Pratica*; aldaera lexiko zenbaitetan itzulpen hau da berrikuntzaren lehen idatzizko lekukoa Baxenebarren:

Etxepare: *arnoac* (140) / Leizarraga, Oihenart: *arno* / 1651ko pregariak: *mahats anuaren* (2), baina Bazkazaneko 1762ko predikua: *arno* (226) / Pratica: *anua* (221), baina Laneufvillek eginarazi katiximan: *arnouaren* (16) / Donap kat: *anoua* (245) / Donam kat: *ano & anua* (273) / Donib kat: *ano* (173) / Iribarnegarairen San Mathioin ebanjelia, Baigorriko mintzoan: *ano* (36); baliteke xvii. menderako ahozko mintzoan *ano* izatea, ez jakin, ez dugu aski idazki honen berri zehatzasunez jakiteko.

Etxepare: *arrax* (14), *arraxaldian* (38) / Leizarraga: *arratsalde* / Oihenart: *arratsalde* / Belapeire: *arratx, arrastiritan* / Bazkazane 1762: *arraxian* (189), *arraxaldian* (227) / Pratica: *axaldeco* (37), *axera ‘arratsera’* (55), *axian* (118) / Laneufville: *arxian* (67) / Donam kat: *atseko* (44) / Irib SM: *atsa* (60), *atsetan* (52) / Arbelbide: *arrastirian* (*Erlisionea*, 1890: 156) vs. *astiri* (*Igandea edo Jaunaren eguna*, 1895).

<sup>71</sup> Liburuko hiztegi edo glosarioa alfabetoaren arabera eraikitzeko baitezpadako tresna izan da *antconc3.2.Iw.exe* izeneko egitaraua, grafiaren kaosa gainditzeko lematizazio lan idor eta luzea egin beharra saihestu ez badigu ere. Ricardo Gómez filologoak utzi digu egitaraua, ohi duen eskuzabaltasunaz; es-kerrak bihurtu nahi dizkiogu.

Etxepare: *entzun* (120) / Leizarraga: *entzun* / 1651ko pregariak: *ençun* (7, 22) / Tartas: *enzün* (*Ontsa*, 127) / Olor kat (1706): *ençun* (6) / Bazkazane 1762: *inçun* (171) / Pratica: *inçun* (42) / Laneufville: *inçun* (14) & *ençunac* (67) / Donap kat: *intzutia* (237) / Donam kat: *intzutia* (262) / Donib kat: *intzuten* (158) / Caz SM (Garaizi): *intzunen* (63).

Oihenart, Tartas: *nabusi* / Bazkazane 1762: *nagussitçat* (218) / Pratica: *naussi* (15), xix. mendeko Baxenabarreko idazkietan bezala.

Etxepare: *anayeturic* (110, 126) / Leizarraga: *anaie* & *anayeac* / Beltran Etxauz (1584): *anaie* & *anaye* / Tartas: *anaie* / Olor kat (1746: iii): *anaye* / Maister: *anaye* (369) / Ressegue 1758: *anaye* (17) / Pratica: *anaye* (398) & *anaiac* (253) / Charlemagne: *anáye* (132) & *annaya* (133) / Irib SM: *bi anea* (26); Erdi Aroan aldaera eza-guna da *anaie* eta gerora ere Zuberoan honela erabili da.

Euskara zaharraren kutsua hartzen du *utzi* aldaera berrituarekin batean Etxeparek adibide batean darabilen *euztaçu* (202) aldaera gordetzaileagoak; cf. Betolatzaren *echi*. Leizarragak, esaterako, ez darabil *utzi* baizik eta hori bera dakarte B. Etxauzek eta *Pratica*-k. Aldaera zaharra ekialdean gorde da: 1676ko *Pronus*-ek *eitci* dakar eta Belapeirek nahiz Oloroeko kategimak *eitzí* eta *ützi*, bi aldaerak. Zaraitzu ibarreko kristau ikasbideetan *eutzi* ageri da xix. gizaldian eta ondoko mendean ere *eutzi* & *utzi* bildu dira zaraitzuarrengandik.

2.6.1.6. Inoiz gordetzaile jokatzen du *Pratica*-k: Etxepareraren lanetik hasirik Ipar nahiz Hego Euskal Herrian *barazkari* & *barazkal-* zaharra ageri da idazleen artean, baina xix. mendean ia ez da aldaera honen arrastorik. Hona lekukotasun zenbait; Etxepare: *barazcari* (24) / Leizarraga; *barazkari*, *barazkaldu* / Oihenart: *baraskariaz* (94); *negar-herakiak*, *hek ene baraskal* (355) / Tartas: *barazcal ondoan* (*Arima*, 37) / Pratica: *Jaun apezpícu horrekin baraskariten ari ciren çunbaitec* (444). Inxauspe zuberotarrak ere berdin: *barazcáitan* (Sen Mathiu 1856: 46).

2.6.1.7. *Pratica* liburuan hitz batek bi aldaera edo gehiago dituenean, parentesi arteko zenbakiak adierazten du bakoitza zenbat aldiz ageri den: *ahalgaizun* (7) & *ahalkaitzun* (1). Kasu batzuetan hitz bat idazteko eren aldakortasuna biziki handia da, eta aldakortasun hori sintesi grafikoaren bidez adierazi dugu hiztegian. Liburu honetako alderdi grafiko anarkikoak aski zaitzen du hitzen lematizazioa behar den bezala egitea eta ondorioz, nekeza da hitzen aldaeren zenbaketa guztizkoa zehaztasunez egitea. Bestalde, aldaerak txistukari apikari eta lepokarien erabilerari dagozkionean ez dakagu kopururik, <s> eta <z> grafien liburuko erabilera ez baita koherentea itzulpena egin zenean eskualdean bi fonemok zuten distribuzioarekiko.

2.6.1.8. Aditzen kasuan ñabardura gramatikalak ere eman ditugu eta hori egin izanak zertxobait lausotu du aditz horren aldaera foniko bakoitzaren erabilera zenbakiz adierazteko helburua, aurkezpen gramatikala konplexuagoa baita dualismo foniko soilago hori erakustea baino; aditzen kasuan inoiz zalantzaz zenbait ager daiteke formen erabilera kopuruaz; aurkezpenaren egitura eragina da hori.

2.6.1.9. Argigarri iritzi diogunean, kategoria gramatikalaren berri eman dugu: (iz), (adj), (ad) eta (alg); baita (lokailla) ere. Inoiz hitzaren arlo semantikoa eman dugu ondoan, parentesi artean, hobeki kokatzeko eta ulermena argitzeko. Beste aldi batzuetan hitz hori liburuan ohiz zein beste hitzen ondoan ageri den ere adierazi dugu, parentesi artean, zein hitzez dihardugun edo haren inguruneaz aiseago ohartzeko.

2.6.1.10. Aditz anitzek ez dituzte liburu honetan beren aldaera gramatikal guztiak islatzen, baina liburuak dakartzanak bederen hiztegian eman ditugu. Liburuan hala ageri baldin badira, aditzetan gramatikako aldaerak hurrenkera honetan dakartzagu: aditzoina / partizipioa / aditz izena / aditz izen inesiboa / etorkizuna. Inesiboa doan aditz izenak *-ago* konparazio atzizkia daramanean, hiztegira ekarri dugu aldaera hori ere: *atkitzenago, desideratzenago, urgulutsutzenago*.

Liburuak aldaera jakin batean ez dakartzan aditz forma batzuk eratortzeko aukera erraza ikusi dugunean —esate batera, aditzoina eta etorkizuneko aldaera ageri dire-lako—, *claudator* artean eman ditugu partizipioak; eman dezagun, *hezteco* (219) forman oinarriturik [hezi] eta *hezte-* eratu ditugu; hiztegi honetan letra etzanean doazen formak liburuan zinez horrela direla ulertu behar da. Marratxoa baldin badarama, uler bedi aldaera horrek beste morfema zenbait ere badaramala ondotik: esate batera, *boztu-* ageri bada, *boztuco* (336) dagoelako da, *boztu* hutsa da liburuan falta dena. Gerta liteke aditzaren partizipioa aldaera nolakoa den guk ez jakitea, eta kasu horietan liburuan ageri diren aditzoina eta aditz izen inesiboa eman ditugu, baina partizi-piorik ez: *itzal* / *itzaltzen*; ez dakigu *itzali* ala *itzaldu* berreraiki behar ote den.

2.6.1.11. Badira joko berezia duten aditzak, esaterako *akaba* / *akabi* / *akabatzen* / *akabiko*; aditzoina da lehena: *Meça akaba arthio* (247); bigarrena partizipioa da: *Meça edo Sacrificiua akabi den beçain sarri* (238), eta partizipio berezi horrek darama etor-kizun atzizkia ere: *noiz akabico da ene deztarria?* (351).

2.6.1.12. Izenetan ez dugu aditzen kasuan bezala jokatu: izena kasu marka har-turik aurkiturik ere, guk hiztegian absolutibo mugagabea eman dugu, eta letra etza-nean. Esate batera, *erraignhetan* baizik ez dago liburuan, baina guk lexikoan *erraiñ* dakargu; kasu guztiak ez dira berdinak, ordea; *errabiacionian* (296) dakar liburuak, adizlagun eran, eta guk hiztegira adizlaguna daramagu; egileak ez dakar *errabiazione* izena, baina izenlagunaren oinarria lagun, guk [*errabiazione-*] eraiki dugu.

2.6.1.13. Izen batzuen ondoan erro lexiko horri dagozkion adizlagunak agertuko dira, “izen + kasu marka” soil ez direnak, gramatikan beregaintasun eta emankortasun berezia duten adizlagunak; eman dezagun adibide bat: *inxeatuco duçu bere ahalaz* *Gincoazco gaucetan aitcina joaitera* (12); kasu honetan *ahal* hitza da, baina hurra-nen adibidean *ahalaz* adizlaguna da: *inxeatcen duçu beti ahalaz hartaric guibelatcera edo urruncera* (119); berebat, *tenorez gogua eman faltaz* (40) adibidean adizlaguna da *tenorez*, baina *çumbait tenorez* (253) horretan izen instrumentalean jokatua da. Guk hitzetik askaturik beregain diren horiek, adizlagunak direnak hiztegian halaxe eman ditugu, sorburu duten hitzaren ondoan: *ahalaz, ahalgez, aldarte, anitzetan, azkenekotz, azkenian, beldurrez, gogotik, gogoz, nigarrez, ondotik...* erakoak beren estatusarekin eman ditugu. Berebat, izenlagunak ere sorburu duten izenaren ondoan kokatu ditugu: *gogo / gogoko...* Aldiz, liburuan ez baita “auzo” hitzik, ez dakargu *auzoko* bai-zik.

2.6.1.14. Hitz guti batzuen kasuan, emankortasun gramatikalagatik edo ezaugarrri morfologiko berezi zenbaitegatik, ohi baino aldaera gehiago dakartzagu inputean; esate batera, *aitzin, errege, gañ, ondo* hitzetan.

2.6.1.15. Hitz bakan zenbait hitz elkartuetarik eraiki dugu; honela, *beire eile* (223) egituratik, *beire-* sarrera eraiki dugu eta *hacinda beltz* (398) oinarri harturik *ha-zinda-*; berebat, *hatsa har, hatsa hartu* (74) eta *hats hartze* (78) nahiz *hats ukaldi* (361) egituretarik *hats-* eraiki liteke, baina bada *haxic* (386).

2.6.1.16. Hitz elkartuen gaia ez da beti erraza, ordea: liburuan marratxoaz egi-ten den erabileran inkoherentzia ugari dago eta ondorioz, liburuan ageri den mar-ratxoaren arabera batek ez daki ziurtasunez orduko euskal itzultziale hark zer senti-tzen zuen hitz elkartutzat eta zer sentitzen zuen bi hiztzat —bata bestearen ondoan zeuden bi eletzat—, horregatik, ez dakigu itzulpeneko hitz batzuek zenbaterainoko autonomia duten. Esate batera, *muga gabe* hitz bakartzat hartu dugu eta *muga-gabe* izenondoa eraiki, baina liburuan ageri den zortzi aldietañ bereiz dakar; euska-ratz denboraren buruan *muga + gabe* errepikatzearen ondorioz *mugagabe* izenondoa sortu dateke; hiztegileen laguntha ere baliatuz beharbada? Bestalde, hitz bakan batzuetañ marratxoa ezarri dugu, hitz elkartua dela adierazteko; berak *murru chori* (303) idazten duena guk *murru-chori* bilakatu dugu testuan eta hiztegira *murruxori* ekarri. Hiztegira ekarri dugu *bihotz min* ere, hitz estatusa emanik; *bihotz emaile* ere hiztzat dakargu, baina aditz bat da “*bihotz eman*”? cf. *eta bihotz emaiteco erraiten cieçun* (340).

2.6.1.17. Ekialdeko Euskal Herrian *-t(z)e* atzizkiak hitzak eratzen dituela gauza jakina da, baina *-tze* atzizkiak ere hitzak sortzeko balio du; Hegaoaldean, Aezkoa ibarrean nabarmena da ezaugarri hau. *Pratica-n* morfema hori loturik daraman *intseintsatzeko*, esate batera hitza da guretzat, hiztegian joan beharko lukeen item lexiko beregain bat: *çuti baitçaguen Aldare aitcinian urhesco inxeinxatceco bateki* (94) dakar liburuak eta jatorrizkoan *un incensario de oro / un encensoir d'or* dator.

2.6.1.18. Hitz batzuk bi eratara idatzirik ageri dira inoiz liburu honetan, berezko *-a* dutela edo *-a* gabe: *beste abanthailha bat* (21), *beste abanthilaric* (89), baina baita *beste anitz abanthail edo prootchu* (323) eran ere. Arazo iduria dugu *uztaillaren* (451) aldaeran; euskalkietan *uztail* da erabilera nagusia, baina Zuberoan *üztaila* ibili izan da eta Baxenabarren bada *uztalla*; hartara, ez da aise gure liburuko *uztaillaren* (451) horretan zein oinarri dugun jakitea.

2.6.1.19. Moduzko *-ki* atzizkia daramaten adizlagunak ez dira autonomotzat jo eta adjektiboaren ondotik doaz: *gaitz* (adj) / *gaizki* (alg); adizlagunetik izena eraiki denean ere elkarren jarraian utzi ditugu: *gaizkia* (iz). Berdin jokatu da *-zko* erantsi zaien izenen kasuan ere: morfologia horren berri eman nahirik, *desir & desira / desiresko* edo *egia / egiaz / egiazki / egiazko* aldaerak dakartzera eraiki dugun hiztegiak. Moduzko *-(r)ik* atzizkia ere agertuko da, baina adjektibo eta adizlagunena bereziki: *aboruenik, ardurakenik, ardurenik, gazterik, gehienik, geldirik, hurranik, kitorik, lehen-bizikorik, lehenik, osorik...* Aldiz, oinarria aditza denean ez dugu honela jokatu; esa-terako, *egonik, emanik, gorderik, izanik, sarturik...* ez dira gure hiztegiko sarrera bila-katu.

2.6.1.20. Emankortasun gramatikal gutiko aldaera defektiboak ditugu liburuan: esate batera, *baraskariten* ‘bazkaltzen’ & *bazkaritera*, *nigargiteko* ‘negar egiteko’ edo *plazergiteko* ‘plazer egiteko’, eta baita liburuan izentzat baliatu den *bateatzekoak* ‘ka-tekumenoak’ ere, *bateatzekuen Meza* sintagmatik atera daitekeena.

2.6.1.21. Liburuko grafiaren alderdiko anarkia gainditzea zinez zail izan zaigu hiz-tegia eraikitzean; mila eta bat zalantza ukana ditugu jarduteko. Ez dugu batere ziurta-sunik hainbat grafiak zer adierazten zuten: *arraçoinhamendu* (141), *arraçoinhathuz* (297) hitzetan, litekeena da <nh>-k ñ palatala adieraztea; *signathiac* (454) formatik *signatu* ala *siñatu* eraiki genezake, baina adibide honetan zuhur jokatu eta *si<gn>atu* eraiki dugu; berebat, *resignhacionesco* (81) adibidean *resi<gnh>azione* eraiki dugu.

2.6.1.22. Badira hainbat eta hainbat *<h>* liburuan, hirugarren edo laugarren silaban ageri direnak; ez dugu uste silaba horretan bederen ahoskatzen zirenik eta sus-magarri iruditu zaizkigunez ez ditugu hiztegira ekarri. Aldiz, maileguzko hitzetan etimologikoak diren *<h>-ak* bere horretan dakartzagu: *apothikairi, author, bibliotheka, eukharistia, kathedrale, khronika, methoda, theologia, theologien*.

2.6.1.23. Badira liburuan herskari batzuk ohiko hasperena dutenak; horiek liburuan dauden bezala hasperendurik eman ditugu gure hiztegian, *ph* eta *th* dira; aldiz, *k* grafiak hasperendua nahiz hasperenik gabea adierazten ditu, horregatik, hiztegian belare hasperenduak eta ez direnak, bi hotsak *<k>* agertuko dira, ez ditugu ukituko. Liburu honetako hitz hasierako *pp-* guztiek herskari ezpainbiko hasperendua adierazten bide dute eta *ph-* eman ditugu hiztegian

2.6.1.24. Liburu honetako anarkia grafikoaren adibide galanta dira txistuariak: *<z>* ugari dakar liburuak garai hartako eta egungo Baxenabarren zinez *s* ahoskatu direnak eta hiztegia eraikitzean arazoak dakartzza honek; franko hitzetan argi dago *<z>-k s* apikaria irudikatzen duela, baina beti ez da aise gauzak zerik diren jakitea: hitz batzuetan liburuan *<z>* dugu eta ez dago garbi itzultzaleak txistukari hori *s* ahoskatzen ote zuen: esate batera, *dioceza* (450); garai hartako eskualde honetako liburuek hitz honen idazkeran batasuna ageri dutenez, guk *diozesza* eraiki dugu hiztegian, baina ez dago guztizko ziurtasunik bi txistukariak berdinak ziren, ahostunak ziren, lehena *z* eta bigarrena *s* ote zen...

2.6.1.25. Herskari aitzineko txistukarietan jatorrizko lepokariaz landa, usu aldaera apikariduna ere ageri da; bi aldaerak ditugunean, hiztegian biak dakartzagu eta lepokaria & apikaria hurrenkeran dakargu, baina hortik ez da erabileraren zenbatekoaz ondoriorik atera behar; gaia zinez konplexua da, ahoskerazkoa baina baita grafikoa ere; aldaketarik egin gabe hiztegi honetarako honako erak errespetatu dira: *zk* & *sk*, *zt* & *st*, *zp* & *sp*.

2.6.1.26. Bestalde, inoiz *<s>* grafia dugu eta ez dakigu grafia horrek *x* sabaiaurrekoa ala *z* lepokaria ezkutatzeten ote duen: *gastakerietaric* (95) adibidean, esate batera; ustez eta *i* ez agertzeak palatalizazioa adierazten duen, *gaxtakeria* eraiki dugu.

2.6.1.27. Ipar Euskal Herriko tradizio idatzian “*e*” edo “*i*” bokalen aitzinean *<g>* batek kontsonante sabaikaria adieraz dezake, bokal artean doanean igurzkari izan daitzeena edo inoiz are bokala ere izan litekena; esaterako, liburuan *language* & *lengua-gia* eta *lenguaya* ditugu; guk bi lehenen bidez *lenguaje* eraiki dugu hiztegian eta *lenguaya* aldaera ere hiztegira ekarri dugu; beharbada bi idazkeretan hots sabaikari bera egon daiteke, baina ez dugu ukatzen bigarren horretan *i* bokala egon zitekeela ere; ez jakin. Berdin gertatzen da *courage handi* eta *curajoski* kasuetan ere; guk *kuraje* eraiki dugu eta *kurajoski* bere horretan utzi, baina *<j>* horren bidez ez dugu adierazi nahi hor *i* bokala izatea ezina denik; ez gara zehazteko gai. Berdin gertatzen da *juje* & *juge* parean edo *page* ‘zerbitzaria’ hitzean: hiztegian *juje* eta *paje* eman ditugu. Liburuko *arcangelu, bidade* & *bidaige, digeritceco, ebangilio, evangelista, estranger, langer* hitzak eta *afligimendu, afilitu, imagina, religione, religios* eta *theologia* & *theologien* ere, *<je>* edo *<ji>* eman ditugu guk. Hitz hasieran ere gertatzen da: *jeiki* & *geiki, jeloskeria* & *gelozkeria, jin* & *gin* dakartzza liburuak; hiru hitzen hasieran hots sabaikaria dago eta guk *je-* & *ji-* idatzi ditugu. Liburuko *Ginco* ere *Jinko* bihurtu dugu.

2.6.1.28. Hiztegiaren bukaeran liburuko itzulpenari ez dagozkion bi hitz sail kokatu ditugu; lehen zortziak Louis-Marie de Suarés d’Aulan *Akiceco Jaun Apez-*

*picu ohiaren aprobacionia Heuzcarala itçulia-ri dagozkio eta beste zortziak Philippe d'Abense Juxiaco Jaun Ertorraren Akiceco Bicari General eta Officialaren aprobacionia Heuzcarala itçulia-ri; ez ditugu itzulpeneko hiztegira ekarri nahi izan, beste jende batetik idatziak-eginak edo itzuliak izan daitezkeelako.*

2.6.1.29. Zerrendan zenbaki arabigoan hitz baten lehen adiera ageri bada eta bigarrenaren arrastorik ez badago, uler bedi liburuko baimen edo onespenean gutunetan dagoen hitz bat dela bigarren adiera; esate batera, ikus *ohi* 1 eta *ohi* 2.

2.6.1.30. Ondotik zerrenda gehiago dakartzagu: leku izenak, pertsona izenak, saindu eta santa izenak, gentilizioak...

## 2.6.2. Hitzen zerrenda

### 2.6.2.1. Liburuko hitzen zerrenda

#### A

<i>abade</i> ‘elizgizon nagusia’	<i>adoragarri</i> ‘gorestea merezi duena’
<i>abandonatu</i>	<i>adorarazi</i>
<i>abantaila</i> (11) & <i>abanthal</i> (1)	<i>adora(tu)</i> / <i>adoratzen</i>
* <i>abanza</i> / [abanzatu]	<i>adorazione</i>
* <i>abanzu</i> (iz)	<i>adulterio</i>
<i>abarizia</i>	<i>afekzione</i>
<i>abarizios</i> (adj)	<i>aflijimendu</i>
<i>aberastarzun</i>	<i>afliji(tu)</i> / <i>aflijitzen</i>
<i>aberastu</i> / <i>aberasten</i>	<i>aflikzione</i>
<i>aberats</i>	<i>afrontu</i>
<i>abere</i>	<i>ageri</i> (- izan) (18) & <i>agertu</i> (12) / <i>agertzen</i> / <i>agerturen</i> (1) & <i>agertuko</i> (1)
<i>abertimendu</i> ‘ohartarazpena, aholkua, gaz-tigua’	<i>agian</i> ‘menturaz, beharbada’
<i>abertitu</i> / <i>abertitzen</i>	<i>agonia</i>
<i>abiatu</i> / <i>abiatzen</i>	[ <i>agortu</i> ] / <i>agortzen</i> ‘bukatu, idortu’
<i>abil</i>	* <i>agudo</i> (adj)
<i>abildu</i> ‘trebatu’	<i>ahal</i> 1 (aditzean)
<i>abilezia</i>	<i>ahal</i> 2 (iz) / <i>ahalaz</i>
* <i>abis</i> (10) & <i>abisu</i> (4)	<i>ahalgaizun</i> (7) & <i>ahalkaitzun</i> (1) ‘lotsaki-zuna’ / <i>ahalgaizunki</i>
<i>abitu</i> ‘jantziak’	<i>ahalge</i> ‘lotsa’ / <i>ahalgez</i>
<i>abokat</i>	<i>ahalgetu</i>
* <i>aboro</i> (182) & <i>oboro</i> (3) ‘gehiago’ / <i>aborenik</i>	<i>ahalik</i> (- ena)
*[ <i>aborritu</i> ] / <i>aborritzen</i>	<i>ahapetik</i>
<i>absolitu</i> ‘absolbitu’	* <i>aharra</i>
<i>adar</i>	<i>aharra eman</i>
<i>adin</i>	<i>ahatzarazi</i>
<i>adiskide</i>	<i>ahatz(i)</i> / <i>ahazten</i> / <i>ahatziko</i> ‘ahantzi’
<i>adiskidetarzun</i>	<i>ahitu</i>
<i>adorable</i>	<i>ahizpa</i>
	<i>aho</i> / <i>ahoz</i>
	* <i>ahozpe</i> & <i>ahospe</i>

<i>*ahulgatu</i> (1) / <i>ahulkatzen</i> (1)	<i>alderdi</i>
<i>*aiher</i>	<i>aldi</i> / <i>aldi aldizka</i> & <i>aldi aldiska</i>
<i>*ainguru</i> (19) / <i>ainguri</i> (1) ‘aingerua’	<i>aldiz</i> (lokailua)
<i>aipatu</i> (3) / <i>aitphatze-</i> (1) & <i>aitpatze-</i> (1)	<i>*alegera</i> / <i>alegeraki</i>
<i>aire</i> 1 ‘airea’	<i>alegeranzia</i>
<i>aire</i> 2 ‘itzura, jarrera’	<i>alegeranziatan egon</i>
<i>aisa</i> 1 (alg) / <i>aiseki</i>	<i>alegera(tu)</i> / <i>alegeratzen</i> / <i>alegeratuko</i>
<i>aisa</i> 2 (iz) ‘erosotasuna, erraztasunak’	<i>alhargun</i>
<i>aisan jarri</i>	<i>alhor</i>
<i>aisatarzun</i>	<i>alleluya</i>
<i>aita</i>	<i>altxarazi</i> / <i>altxarazitze-</i>
<i>aita-amak</i> ‘gurasoak’	<i>altxa(tu)</i> / <i>altxaten</i> (1) & <i>altxatzen</i> (13) &
<i>aithor</i> ‘aitorpena’	<i>alzatzen</i> (1) / <i>altxatuko</i> ‘goratu’
<i>aithoren seme</i>	<i>altxatu</i> (adj)
<i>ait(h)or(tu)</i> / <i>aitortze</i> / <i>ait(h)ortzen</i>	<i>ama</i>
<i>*[aitzin]</i> / <i>aitzinian</i> / <i>aitzinetik</i> / <i>aitzina</i> &	<i>*amaño</i>
<i>aitzinera</i> / <i>aitzinerano</i> / <i>aitzineko</i> / <i>ai-</i>	<i>amatu</i> ‘ama bilakatu’
<i>tzinoo</i>	<i>*aments</i> (lokailua)
<i>aitzinarazi</i>	<i>amets</i>
<i>aitzinatu</i> / <i>aitzinatze</i> / <i>aitzinaturen</i> (1) &	<i>amets egin</i>
<i>aitzinatuko</i> (1)	<i>amira</i> / [amiratu] ‘miretsi’
<i>aitzindu</i> ‘aurre hartu, aurreratu’	<i>amistainxa</i> ‘adiskidantza’
<i>aize</i> ‘haizea’	<i>amoña</i> ‘eskukekoa, erremusina’
<i>aizinaz</i> ‘garaiz’	<i>amonier</i> ‘limosnaria, erremusinaria’
<i>akaba</i> / <i>akabi</i> / <i>akabatzen</i> / <i>akabiko</i> ‘bu-	<i>*amoratsu</i> / <i>amoratsuki</i>
<i>katu’</i>	<i>amorekatik</i> (xedezkao)
<i>akabanza</i>	<i>amorio</i> ‘maitasuna’
<i>akitarazi</i> / <i>akitaraziko</i>	<i>amost</i> ‘hamabost’
<i>akitu</i> / <i>akitzen</i> (2) & <i>atkitizenago</i> (1) / <i>aki-</i>	<i>anhartekan</i> ‘artean, bitartean’
<i>tuko</i> ‘nekatu’	<i>anaya</i> (6) & <i>anhaya</i> (1) & <i>anaye</i> (1)
<i>akometatu</i> / <i>akometatzen</i>	<i>andardana</i> (-Maria) ‘Andredena, Ama Bir-
<i>akta</i> / <i>akte</i> / <i>akto</i>	<i>jina’</i>
<i>akusatu</i> / <i>akusatzten</i>	<i>andea(tu)</i> / <i>andeatzen</i> / <i>andeatuko</i> ‘hondatu’
<i>akusione</i> ‘salaketa’	<i>andere</i>
<i>*akusu</i> (iz)	<i>animale</i>
<i>akzione</i>	<i>anitz</i> / <i>anitzetan</i>
<i>*ala</i> 1 (hautakaria)	<i>ano</i> (7) & <i>arno</i> (1) ‘ardoa’
<i>*ala</i> 2 (heiagorazko)	<i>anpola</i> ‘hontzia’
<i>*ala</i> 3 (banakaria)	<i>antifona</i> ‘mezako musika mota bat’
<i>alaba</i>	<i>*antzo</i>
<i>aldare</i>	<i>apaindu</i>
<i>aldarte</i> ‘egokiera, egoera’ / <i>aldartez</i> ‘batzue-	<i>*apairu</i>
<i>tan’</i>	<i>*apaizea(tu)</i> / <i>apaizeatzen</i> / <i>apaizeatuko</i>
<i>alde</i> 1 ‘alderdia’	<i>apal</i>
<i>*alde</i> 2 ‘pila, multzoa’	<i>apal(du)</i> / <i>apaltzen</i> / <i>apalduren</i> (1) & <i>apal-</i>
<i>alde</i> 3 ‘aldeko izan, aldezle izan’	<i>duko</i> (1) / <i>apaldurenago</i> (1)

<i>apaltarzun</i>	<i>*arrabaskatu</i>
<i>*aparanzia (etzi -(r)ik)</i>	<i>arraberritu / arraberritzte</i> ‘berriztatu’
<i>aparenzia</i> ‘itxura’	<i>arrabeztitu</i> ‘estali, apaindu, jantzi’
<i>*apariatu / apariatzen</i>	<i>*arragret</i> (3) & <i>*erregret</i> (2)
<i>apart</i> (alg) ‘bereiz’	<i>arraintzera</i>
<i>aparta(tu) / apartatzen</i>	<i>arrangura</i> ‘arreta, ardura, axola, kezka’
<i>apetitu</i>	<i>arranguros</i> ‘arduratsua’ / <i>arranguroskei</i> ‘arretaz’
<i>apez</i>	<i>arrapikatu</i> ‘errepikatu’
<i>apezpiku &amp; apespiku</i>	<i>arrapostu</i> ‘erantzuna’ / <i>arrapostuka</i>
<i>apeztu</i>	<i>arraro</i> (adj) ‘ezohikoa, bikaina’
<i>apokalipsa</i> ‘elizako liburu jakin bat’	<i>arras</i> 1 (alg)
<i>apostolu</i>	<i>arras</i> 2 ( <i>larru -etik</i> ) ‘arrasean’
<i>apothikairi</i> ‘botikaria’	<i>arraza</i>
<i>aprobabzione</i>	<i>*arrazoin</i> (91) & <i>arrozoin</i> (3)
<i>aphuritto (- bat)</i>	<i>arrazoi&lt;nh&gt;amendu</i>
<i>ar-egin</i> ‘arraegin, berregin’	<i>arrazoi&lt;nh&gt;atu</i>
<i>*ara</i>	<i>arreba</i>
<i>*arabez</i>	<i>arren</i> ‘beraz’
<i>arau / araukua</i> (1) & <i>araueko</i> (1)	<i>*arrerosi / arrerosten</i>
<i>araura</i> (28) & <i>arabera</i> (57) & <i>arauera</i> (1)	<i>*arrerospen</i>
<i>(-en -)</i>	<i>*arresta</i>
<i>*arautsu / arautsuz</i>	<i>*arresto</i>
<i>arazi / araziten</i> (15) & <i>arazitzen</i> (61) &	<i>*arrier</i>
<i>aratze-</i> ‘arazte-’ (1) / <i>araziren</i> (2) &	<i>arrimu</i> ‘laguntza, babesia, bermea’
<i>araziko</i> (10)	<i>arroba(tu)</i> ‘ebatsi’
<i>*arazione</i>	<i>arrolla</i> ‘ildoa, ubidea, zanga’
<i>arbole</i>	<i>arropa</i>
<i>ardi</i>	<i>*arrotz</i>
<i>ardura</i> ‘usu, maiz’ / <i>ardurakenik</i> (1) & <i>ardurenik</i> (3)	<i>arrozoin</i> (3) & <i>arrazoin</i> (91)
<i>argi</i>	<i>arrunt</i> (adj)
<i>argi-aitzin</i> ‘goizaren hasiera’	<i>arte</i> ‘lekuia & denbora’
<i>argitu / argitzen / argituko</i>	<i>artekan</i> ‘artean’
<i>*argizagi</i> (1) & <i>argizai</i> (1)	<i>arthio</i> ‘arte’
<i>arbin</i> ‘arina’ / <i>arhinzki</i> & <i>arhinski</i>	<i>artifizios</i> (adj)
<i>arhint / arhindu / arhintzen</i>	<i>artikulu</i>
<i>arhinkaeria</i>	<i>*arturratze</i>
<i>*arhinmendu</i> ‘arintzea’	<i>artzaiñ</i> (4) & <i>arzaiñ</i> (1)
<i>arhintarzun</i>	<i>arxapezpiku</i> ‘artzapezpikua’
<i>ar(i) / artzen / ariko</i> ‘ari izan’	<i>ase / asetzen / aseko</i>
<i>arima</i>	<i>aserre</i> (iz) ‘haserrea’
<i>arka</i> ‘kutxa’	<i>askazi</i> ‘ahaidea’
<i>arkanjelu</i>	<i>aski</i>
<i>armada</i>	<i>aspaldi / aspaldian</i>
<i>arno</i> (1) & <i>ano</i> (7) ‘ardoa’	<i>aspirazione</i>
<i>arotz</i> ‘errementaria’	<i>aste</i>
	<i>astegun</i>

[atakatu] / <i>atakatzen</i>	<i>bai eta ere</i>
* <i>ataku</i>	<i>bakar / bakarki</i>
<i>attenzione</i>	<i>bakartarzun</i>
[ather-arazi] / <i>ather-arazitzen</i> ‘atertu arazi’	<i>bake</i>
<i>atrebitu</i> ‘ausartu’	* <i>bakoitz</i> 1 ‘bakoitza’
<i>ats</i> ‘arratsa’	* <i>bakoitz</i> 2 ‘bakarra’
<i>atsalde</i> ‘arratsaldea’	<i>baldin</i> (1) & <i>balin</i> (10)
<i>atsegin</i>	<i>balezta</i>
<i>atxikarazi</i> / <i>atxikarazitzen</i>	<i>baliarazi</i>
<i>atxiki</i> / <i>atxikite-</i> (2) & <i>atxikitze-</i> (13) / <i>atxi-</i> kiten (21) & <i>atxikitzen</i> (5) / <i>atxikiren</i> (1) & <i>atxikiko</i> (2)	<i>balia(tu) / baliatzen / baliatuko</i>
* <i>atzeman</i> (2) / * <i>atzimanka</i> (1)	<i>balin</i> (10) & <i>baldin</i> (1)
* <i>augadura</i>	<i>balio</i> (iz)
* <i>augatu</i>	<i>balio</i> (- edun)
* <i>auhari</i>	<i>balios</i> ‘baliagarria’
<i>auher</i> ‘alferra’ / <i>auherretan</i>	<i>baliorstarzun</i>
<i>auherkeria</i>	<i>baltsa</i> ‘ur putzua’
<i>aurhide</i> ‘haurridgea, neba-arrebak’	<i>baltsamu</i>
* <i>auretemehin</i>	<i>bandal</i> ‘bandaloak’
<i>aurthik(i)</i> / <i>aurtikiten</i> (11) & <i>aurtikitzen</i> (1) ‘jaurtiki, bota’	<i>banitate</i>
<i>aurtikile</i>	<i>bano</i> ‘hutsala’
<i>ausart</i>	< <i>baptheia</i> > ‘bataioa’
[ausartatu] / <i>ausartatzen</i>	<i>bararazi</i> / <i>bararatxitze-</i> ‘geldiarazi’
<i>ausartzia</i> ‘ausardia’	* <i>baraskariten</i> (- <i>ari</i> ) (1) ‘bazkaltzen’ / <i>baz-</i> <i>karitera</i> ‘bazkaltzera’ (1)
<i>ausiki</i> ‘hozka egin, heldu’	<i>baratu</i> / <i>baratzen</i> / <i>baraturen</i> (1) & <i>bara-</i> <i>tuko</i> (2) ‘gelditu’
<i>aut(h)or</i> ‘egilea, idazlea’	<i>baratzet</i>
<i>autoritate</i>	* <i>bardin</i> (7) & <i>berdin</i> (1)
<i>auzoko</i> ‘ondoko’	<i>barkamendu</i>
<i>axola</i>	* <i>barkamenduska(tu)</i> ‘barkamena eskatu’
<i>axuri</i> ‘arkumea’	<i>barka(tu)</i> / <i>barkatzen</i> / <i>barkaturen</i> (2) & <i>barkatuko</i> (2)
<i>azaletik</i> ‘sakondu gabe’	<i>barna</i> 1 (adj) ‘barrenekoa, sakona’
<i>azanz</i> ‘azantza, soinua, zarata’	<i>barna</i> 2 (alg) ‘sakonki, sakonean’ / <i>barnatik</i>
<i>azi</i> ‘hazia’	<i>barna</i> 3 (-n-) ‘barrenean’
<i>azkar</i> & <i>askar</i> ‘indartsua’	<i>barnatarzun</i>
<i>azkartu</i> / <i>azkartzen</i> & <i>askartzen</i> & <i>aztkar-</i> tze- (1) / <i>azkarturen</i> (1) & <i>azkartuko</i> (1) / <i>azkarturenago</i> (1)	<i>barne</i> 1 ‘barrena’
<i>azken</i> / <i>azkenian</i> / <i>azkenekotz</i>	<i>barne</i> 2 (-ri-) ‘-n barrena’
<i>azote</i> ‘zarta, zigorra’	<i>barreadura</i>
<b>B</b>	
<i>babi</i> ‘bermea’	<i>barrea(tu)</i> / <i>barreatzen</i> ‘barreiatu’
<i>bai</i>	<i>barur</i> ‘baraua’
	<i>barur egin</i>
	<i>barurtu</i> / <i>barurtze-</i>
	<i>bat</i>
	* <i>bat-bathian</i> ‘bat-batean’
	<i>batbedera</i> ‘bakoitza’

<i>bathea-arazi</i> ‘bataiarazi’	* <i>beire-</i> / <i>beire-eile</i> ‘beira egilea’
<i>bateatzekoak</i> ‘katekumenoak’	<i>beiriña</i> (3) & <i>beirina</i> (1) ‘kristala’
<i>bateatu</i> / <i>bateatze-</i>	<i>beit(h)an</i> 1 ‘baitan’
[ <i>batetaratu</i> ] / <i>batetaratze-</i> ‘bateratu, el- kartu’	<i>beitthan</i> 2 ‘-en etxean’
<i>bat(h)ere</i>	* <i>beitarte</i> (1) & <i>bert(h)aité</i> (25) ‘aurpegia’ / <i>berthaitez berthaite</i> ‘aurrez aurre’
<i>bathian</i> (- <i>reki(n)</i> -) ‘-rekin batera’	<i>bezik</i> ‘baizik’ (1) & <i>bezik</i> (100) & <i>bezik ere</i> (9)
<i>bathu</i> / <i>bathuren</i> ‘aurkitu, elkartu’	<i>bekaizgua</i> ‘bekaizkeria’
<i>batzu</i> ‘batzuk’	<i>bekaizteria</i> ‘bekaizkeria’
<i>bazka</i>	* <i>bekaizti</i> 1 (iz) / <i>bekaiztiz</i> (alg) ‘bekaitzez’
<i>bazkaritera</i> ‘bazkaltzera’ (1) / * <i>baraskariten (- ari)</i> (1) ‘bazkaltzen’	* <i>bekaizti</i> 2 (adj)
<i>bazter</i>	<i>bekan</i> ‘bakan’
<i>bedera</i> ‘bana’ / <i>bederaka</i> ‘banaka’	<i>bekatore</i> ‘bekataria’ & <i>bekatoresa</i> (femeni- noa)
<i>bederatzi</i>	<i>bekatoros</i> ‘bekataria’
<i>begi</i>	<i>bekatu</i>
<i>begirarazitze-</i> (1) & <i>begirazitze-</i> (1) ‘zainarazi’	* <i>belar</i> ‘kopeta’
<i>be(g)ira(tu)</i> / <i>beigiratze-</i> (1) / <i>be(g)iratzen</i> / <i>be(g)iratuko</i> ‘zaindu’	<i>beldur</i> / <i>beldurrez</i>
<i>begirazale</i> ‘zaintzailea’	<i>beldur izan</i>
* <i>beha</i> <i>egon</i> 1 ‘zain egon’	<i>beldurti</i>
* <i>beha</i> (egon) 2 ‘begira egon, so egon’	* <i>belduritu</i>
<i>behar</i> 1 (aditzean)	<i>bele</i>
<i>behar</i> 2 (iz)	<i>belhar</i> ‘belarra’
<i>behar</i> 3 (adj) ‘beharrezko’ / <i>beharrago</i> / <i>beharrenik</i> / <i>beharrenera</i>	[ <i>belhaurikatu</i> ] / <i>belhaurikatzen</i>
<i>behar</i> 4 (adj) ‘txiroa’	<i>belhauriko</i> ‘belauniko’
<i>behar-ordu</i> ‘une egokia, premia unea’	<i>beltz</i>
<i>behar bidian</i> ‘beharrean’	<i>beltzatu</i> ‘beztu’
<i>beharaz</i> / [ <i>beharazi</i> ] ‘jarraiarazi, gidatu, en- tzunarazi’	<i>bena</i> 1 ‘baina’
<i>beharbada</i>	<i>bena</i> 2 ‘baizik’
<i>behargabe</i> (adj) ‘komeni ez dena, behar ez dena’	<i>benedikatu</i> / <i>benedikatzen</i> ‘bedeinkatu’
<i>beharri</i> ‘belarria’	<i>benedikzione</i> (4) & <i>benedizione</i> (1)
<i>behatu</i>	<i>benial</i> ( <i>bekatu</i> -)
* <i>behatu</i> / <i>behatzen</i>	<i>beno</i> ‘baino’
<i>behaztopatu</i> ‘oztopatu’	<i>bentzitu-</i> / <i>bentzitze-</i> / <i>bentzitzen</i> / <i>bentzitu-</i> <i>ren</i> ‘garaitu’
<i>behazale</i> ‘entzulea’	<i>ber</i> ‘berbera’
<i>beheiti</i> ‘behera’	<i>ber</i> (-n-) ‘-en heinean, -en neurrian’
<i>behera</i> ‘beheiti, beheko aldera’	<i>bera</i> 1 (izenordaina)
<i>beherapen</i> ‘ilbehera’	<i>bera</i> 2 (indargarria)
<i>behin</i> ‘aldi batez’	<i>bera</i> 3 ‘berbera’
<i>behin ere</i> ‘behin ere ez’	<i>berant</i> ‘berandu’
* <i>bebinguaz</i>	<i>berantetsi</i> / <i>berantesten</i>
<i>beirale</i> ‘zaintzailea’	<i>berariazko</i> ‘jakinaren gainekoa, hala nahi izanik’
	<i>beraz</i> (lokailua)

<i>berdin</i> (1) & <i>bardin</i> (7)	<i>niko'</i> / <i>bethierez gerozko</i> 'betiko, sekulako'
<i>bere buria</i>	<i>bezain</i>
<i>berere</i> (3) & <i>bereren</i> (1) 'behintzat'	<i>bezala</i> / <i>bezialako</i>
[ <i>beretu</i> ] / <i>beretze-</i> 'beregantu'	* <i>bezanbat</i> 'bezainbat'
<i>berez</i>	<i>bezik</i> 'bazik' (100) & <i>bezik ere</i> (9) & <i>beizik</i> (1)
* <i>ber-halde</i>	<i>bezpera</i>
<i>berhark</i> 'hark berak'	<i>bi</i>
<i>berheala</i>	<i>bibliotheka</i>
<i>berhezi</i> 1 (ad) / <i>berhezten</i>	* <i>bidaiant</i>
<i>berhezi</i> 2 (adj) / <i>berheziki</i>	<i>bidaje</i> (1) & <i>bidaije</i> (1) 'bidaia'
<i>bermatu</i>	<i>bide</i> 'bidea'
<i>berme</i>	<i>biga</i> 'bi'
<i>bero</i> / <i>berokiago</i>	<i>bihar</i>
<i>berotarzun</i>	<i>biharamun</i>
<i>berotu</i> / <i>berotze-</i> / <i>beroturen</i>	<i>bibi</i>
<i>berri</i>	<i>bihotz</i> / <i>bihotzez</i>
<i>berriapan</i> 'berritza, berriztapena'	<i>bihotz altxatzte</i> 'bihotzaldia, bihotza goratzea'
<i>berritu</i> / <i>berritzten</i>	<i>bihotz emaile</i> 'adore emailea'
<i>berriz</i> (alg)	<i>bihotz eman</i>
<i>berrogei</i>	<i>bihotz-min</i>
* <i>bert(h)aite</i> (25) & <i>beitarte</i> (1) 'aurpegia' / <i>berthaitez berthaite</i> 'aurrez aurre'	* <i>bihoztoi</i> 'ausarta, kementsua' / <i>bihotztoiki</i> 'ausardiaz'
<i>bertaita egin</i> 'atotsi, harrera egin'	<i>bihurtu</i> / <i>bihurtze</i> / <i>bihurtzen</i> / <i>bihurtuko</i> 'aurre egin, gogor egin'
<i>bertute</i>	[ <i>bilarazi</i> ] / <i>bilarazten</i>
* <i>bertutos</i>	<i>bildu</i> / <i>biltzen</i>
<i>besarkatu</i> / <i>besarkatzen</i> / <i>besarkatuko</i>	* <i>bilhatu</i> / <i>bilhatzen</i>
<i>beso</i>	* <i>bilkia</i>
<i>besta</i> 'jaia'	<i>bilo</i> 'ilea'
<i>bestalde</i> 1 (lokailua) / <i>bestalde</i> (-z -)	* <i>bilzarren</i>
<i>bestalde</i> 2 (iz) / <i>bestaldian</i> / <i>bestalderi(k)</i>	<i>biper</i> 'piperra'
<i>bestañez</i> 'bertzenaz, bestela'	<i>birjina</i>
<i>beste</i>	<i>birjinitate</i>
<i>beste orduz</i> & <i>bestorduz</i> 'beste aldi batzuetan'	<i>bis-an-bis</i> 'aurrez aurre'
<i>bestela</i> / <i>bestelako</i>	<i>bisita</i>
<i>bestimenda</i> 'jantzia, arropa'	[ <i>bisitatatu</i> ] / <i>bisitatzen</i>
<i>bestitu</i> / <i>bestitzen</i> 'jantzi'	<i>bista</i> 'ikusmena'
<i>bet-bet(h)an</i> 'bat-batean'	<i>bitoria</i> 'garaipena'
<i>betha</i> / <i>bet(h)e</i> / <i>bet(h)atzen</i> / <i>beteko</i> 'bete'	<i>bizi</i> 1 (ad) / <i>bizitze</i> / <i>bizitzen</i>
<i>betan</i> 1 'bat-batean'	<i>bizi</i> 2 (iz)
<i>betan</i> 2 'batera, elkarrekin'	<i>bizi</i> 3 (iz) 'biziak, hilak ez direnak'
<i>bet(h)i</i> 'aldi guztietan'	<i>bizi</i> 4 (adj)
<i>bet(h)i eta hanbat (aboro)</i> 'gero eta gehiago'	<i>bizi-arazi-</i> / <i>bizi-arazitzen</i> / <i>bizi-arazik</i>
<i>bethiere</i> 'beti'	
<i>bethiereko</i> 'betiko, sekulako' / <i>bethierekotz</i>	
'betiko, sekulako' / <i>bethierezko</i> 'betida-	

D

biziki / bizikiago	
bizio	
bizitarzun	dama
bizkar	damnatu / damnatzen ‘kondenatu, galdu’
bizkitartian 1 ‘halaz ere’	damnazione ‘kondena, zigorra’
bizkitartian 2 ‘bitartean’	*damu
bizpahirur	dantza
bolontroski ‘bere borondatez’	debetatu ‘debekatu’
borondate	debot / deboki
borroka	*[debotu] / debotzen
*bortha (25) / borta (9)	debozione / debozionezko
borthalburu ‘atalasea’	*defendatu 1 (8) & defendiatu (1) / defendatzan ‘debekatu’
bortitz / bortitzki	*[defendatu] 2 / defendatzen ‘babestu’
bortitztarzun	defensa ‘debekua’
bort(h)u ‘mendia’	*deidura
bortxa 1 (iz) / bortxaz / bortxaka	deit(h)arazi
bortxa 2 (ad) / bortxatzen	deitha(tu) ‘deitu’
*bortxu egin	deithoragarri
bost	deitoratu / deithoratzen ‘damu izan’
botere	*deithore
boteretsu	dei(tu) / deitzen / deituko
botz ‘ahotsa’	deja ‘dagoeneko, ja’
bozkario (4) & boztkario (1) ‘poza’	deklarazione
boztalenzia ‘bozkarioa, poza’	delibera(tu) / deliberatzen / deliberatuko
boztu- / boztuko ‘poztu’	delibero ‘erabakia’
brida ‘zaldi-jendearen aho-uhala’	delikadeza
bulhar ‘bularra’	delikatu
bulta ‘unea, denbora aldia’	demendren (1) & dremenden (5) ‘den mendren, gutiena’
*buluzi 1 (ad) / buluzten ‘biluzi’	demonio
*buluzi 2 (adj)	denbora / denborati denborala
burdiña ‘burdina’	denboral (adj) ‘betiko ez den eta mundu honetako den denbora tarte’
burgu ‘herria, herrixka, hiria, mendia ez dena’	desarau ‘bidegabea’ / desarauko
burian (-en -) ‘iragan denbora adierazteko’	desegin / dese(g)iten
burla ‘iseka’	*deseñin
*burtherini	desenkusa ‘atxakia, estakurua’
buru 1 (gorputzekoa; -ko min)	*desentenamendu
buru 2 ‘bukaera’	desertu
*buru 3 ‘alderdia’	desespara(tu) / desesparatzen ‘etsi, etsipe-nak jo’
buria (bere, zure -), buriak (gure, gihauen, bere -)	desesparazione
buruan hartu ‘gogoan hartu’	desgusto
*buruzkin	desideratu / desideratzen- / desideratzenago ‘desiratu’
*burreu	
busti / bustiko	

<i>desir</i> ‘desira’ / * <i>desiresko</i>	* <i>dohatu</i>
<i>desiragarri</i>	<i>dohatsu</i>
<i>desirarazi</i> / <i>desirarazitzen</i>	<i>dohatsutarzun</i>
<i>desira(tu)</i> / <i>desiratzen</i> / <i>desiratuko</i>	<i>doktor</i>
<i>desirkunde</i> ‘desira’	<i>doktrina</i> (2) & <i>dotrina</i> (8)
<i>deskantsatu</i> / <i>deskantsatzen</i>	<i>doloratu</i> / <i>doloratzen</i>
<i>deskantsu</i>	<i>dolore</i>
* <i>deskausitu</i>	<i>dolu</i>
<i>deskubritu</i> / <i>deskubritzen</i>	<i>dolumen</i> ‘damua’
<i>desobedienza</i>	<i>dolutu</i> / <i>dolutuko</i>
<i>desobedient</i> (adj)	<i>dozena</i>
<i>desohoratu</i>	<i>dragon</i>
<i>desohore</i>	<i>dremenden</i> (5) / <i>demendren</i> (1) ‘den men-
<i>desolazione</i>	dren, gutiena’
<i>desolatu</i>	<i>duda</i> / <i>dudazko</i>
<i>desonest</i> (adj)	<i>dudatan egon</i>
<i>desordre</i>	<i>dudatan jarri</i>
<i>despendiatu</i> ‘gastatu’	<i>dudatu</i> / <i>dudatzen</i>
<i>despit</i> ‘erdeinua, arbuioa’ / <i>despitez</i>	
<i>desplazer</i>	
<i>destarratu</i> ‘atzerirratzea’	
* <i>destarru</i>	
* <i>destimonio</i>	<i>ebaki</i>
<i>destinatu</i>	<i>ebanjelio</i>
<i>destorbu</i> ‘zaitasuna, nahigabea’	<i>ebanjelista</i>
<i>deus</i> / <i>deusetan</i>	<i>ebaskua</i> ‘lapurreta’
<i>deusere</i>	<i>ebatsi</i> / <i>ebasten</i>
<i>diakre</i> ‘diakonoa’	<i>edan</i> / <i>edaten</i> (7) & <i>eraten</i> (1) / <i>edanen</i> / <i>edanago</i>
<i>dibino</i>	<i>edari</i>
[ <i>dijeritu</i> ] / <i>dijeritze-</i>	* <i>edeki</i> / <i>edekiko</i>
<i>dignite</i>	<i>eder</i> / <i>ederki</i>
* <i>digno</i> (7) & * <i>dino</i> (1) / <i>dignoki</i>	* <i>edergaillu</i>
<i>dihuru</i> ‘dirua’	<i>edertarzun</i>
<i>dilienki</i> ‘diligentki’	[ <i>edertu</i> ] / <i>edertze-</i>
<i>diskordia</i>	<i>edo</i>
<i>diskreki</i> ‘diskreazioz, zuhurki’	<i>egarri</i> 1 (iz)
<i>diskurs</i> ‘hitzaldia’	<i>egarri</i> 2 (adj)
<i>disposa(tu)</i> / <i>disposatze-</i> ‘norbera prestatu,	<i>egia</i> / <i>egiaz</i> / <i>egiazko</i> / <i>egiazki</i>
prest egon’	<i>egiati</i>
<i>disposizione</i>	<i>egile</i> (8) & <i>eile</i> (3)
<i>disputa</i>	<i>e(g)in</i> / <i>e(g)iten</i> / <i>e(g)inen</i>
<i>diszipulu</i> (2) & <i>dizipulu</i> (14)	<i>eginbide</i> (8) & <i>einbide</i> (28)
<i>dithi</i> ‘titia’	<i>egitate</i> (11) & <i>eitate</i> (2)
<i>doi</i> ‘neurrizkoa, justua’ / <i>doia-doia</i> ‘pixka-	<i>egiteko</i> (5) & <i>eiteko</i> (27) ‘eginkizuna, egin-
na-pixkana’	<i>tza’</i>
* <i>dohain</i> (42) & <i>dohnain</i> (1)	

**E**

- egoitza (2) & egoitze (1) ‘egoitza, ohiko leku’  
 egon / egoite / egoiten / egonen  
 egotzi / egotzen / egotziko ‘bota, jaurtiki’  
 egun 1 ‘eguna’ / egunaz (alg) / egun oroz  
 egun 2 ‘gaur egun’  
 egundano 1 ‘orain artean’  
 egundano 2 ‘sekula ordu artean’  
 \*eheñatu (4) / eheñatze- (1) / eheñatzen  
     (1) & eheiñatzen (1)  
 eheñazale ‘zaintzailea’  
 ehor ‘inor’  
 ehun (zenbakia)  
 eia 1 ‘ea’ (adore emanez)  
 \*eia 2 (1) & \*eya (1) & \*heya (1) ‘ea’ (gal-  
     derazkoa)  
 eibar / ‘lehortu’  
 einbide (28) & eginbide (8)  
 eitate (2) & egitate (11)  
 eiteko (27) & egiteko (5) ‘eginkizuna, egin-  
     tza’  
 ekar(ri) / ekarten (50) & ekartzen (3) / eka-  
     rriren (1) & ekarriko (5)  
 \*ekarria izan  
 \*eki (1) & ekhi (16)  
 eklesiastika ‘elizako liburu berezi bat’ &  
     eklesiastiko (- liburu)  
 elebazione (- ko xilinta) ‘elizan ostia goratzea’  
 \*elga (4) & \*elgar (5) ‘elkar’  
 elbe ‘hitza’  
 elhez eta mihiz ‘ahoz esan, baina gero egin ez’  
 elhorri  
 elhur  
 eliza 1 ‘eraikuntza’  
 eliza 2 ‘erakundea’  
 eliza-gizon  
 emaiile  
 emaitza  
 eman / emaiten / emanen  
 emazte 1 ‘emaztekia, emakumea’  
 emazte 2 ‘senarraren kidea’  
 [ematu] / ematzen ‘baretu’  
 emeki ‘poliki, astiro’  
 emenda(tu) / emendatzen / emendaturen  
     (1) & emendatuko (1) / emendaturenago  
     (1) ‘ugaldu’  
 emendio ‘onura, fruitua’  
 endelgamendu ‘gogoa, ulertzeko gaitasuna’  
 endelgarazi / endelgarazitze-  
 \*endelga(tu) / endelgatzen / endelgatuko  
 endelgu ‘ulermena’  
 \*endeski  
 eneagarri ‘nekeza, nekagarria’  
 enea(tu) / eneatzen ‘nekatu’  
 eneu ‘nekea’  
 enganio (1) & enganu (1) & engenio (3) &  
     engenu (3) ‘iruzurra, ziria, engainua’  
 engenagarri  
 engena(tu) / engenatzen / engenatuko  
 enperadore  
 enplea(tu)  
 enplegu ‘lanbidea’  
 entrada  
 epainxu (1) & epantxu (1) ‘oztopoa’  
 \*epaintxa(tu) (4) & enpa(i)(n)txatu (3) /  
     epaintxatze- (1) / epainxatzen (1) & en-  
     patxatzen (1) & empaitxatzen (1)  
 epel  
 epeltarzun  
 \*eperik gabe  
 epistola  
 erabil(i) / erabilten / erabiliko  
 \*era(g)in / era(g)iten  
 \*eraiki 1 / eraikite- ‘etxeak eraikitza’  
 \*eraiki 2 ‘haurrek haztea’  
 erakar(ri) / erakarze- / erakarten  
 erakasle ‘irakaslea’  
 erakats(i) / erakasten / erakatsiren (1) & era-  
     katsiko (1)  
 \*eraste  
 eratziki ‘atxiki’  
 \*erauntsi (1) & eraauntsi (1)  
 erauts-arazi- / erauts-arazitze- / erauts-ara-  
     ziko ‘eraits-arazi’  
 erdi (iz)  
 erdi (- lo)  
 erdi- / (ad) ‘erditu’  
 erdimin  
 erdiratu- / erdiratzen ‘ireki, bi zati egin’  
 erdiro ‘arraildura, arrakala’  
 erditik egin ‘erditik hautsi, arraildu’  
 erdoil ‘herdoila’  
 ere

*[erein] / <i>ereite-</i>	<i>erremediatu</i> / <i>erremediatze-</i> ‘konponbidean
<i>ereman</i> / <i>eremaiten</i> / <i>eremanen</i>	<i>ezarri</i> , <i>zuzendu</i> ’
* <i>eretze</i> / <i>eretzian</i>	<i>erremedio</i> & <i>remedio</i>
<i>erhauts</i> ‘hautsa’	<i>erremestiamendu</i> ‘eskertza’
<i>erhautsi</i> ‘eraitsi’	<i>erremestia(tu)</i> / <i>erremestiatzen</i> & <i>remestia-</i>
<i>erhi</i> ‘hatza’	<i>tzen</i> ‘eskerrak eman’
<i>erho</i> ‘eroa’	* <i>errendatu-</i> 1 / <i>errendatzen</i> / <i>errendaturen</i>
<i>erhokeria</i>	* <i>errendatu</i> 2 / <i>errendatzen</i>
<i>erhotuki</i>	<i>er(r)epara(tu)</i> / <i>(er)reparatze-</i> / <i>er(r)eparatatu-</i>
<i>eri</i> ‘gaisorik dagoena’	<i>ren</i> ‘konpondu, onbideratu’
<i>eritarzun</i>	<i>erreparazione</i>
<i>eritu</i> / <i>eritzten</i>	<i>erreputazione</i>
<i>erlekia</i> ‘erlikia’	<i>erresoli(tu)</i> & <i>resolitu</i> / <i>resolituko</i> ‘delibe-
<i>ermita</i>	<i>ratu</i> , <i>erabaki</i> ’
<i>ermitain</i> ‘eremutarra, ermitaua’	<i>er(r)esoluzione</i> & <i>resoluzione</i>
<i>erne</i> / <i>erneki</i>	<i>errespe(k)tu</i> & <i>respe(k)tu</i> ‘begirunea’
<i>ernetarzun</i>	<i>errespetagari</i>
<i>eror-arazi</i> / <i>eror-arazitzen</i>	<i>errespetatu</i>
* <i>erordura</i>	<i>erresuma</i>
<i>eror(i)</i> 1 (ad) / <i>erorte</i> / <i>erorten</i> / <i>eroriko</i>	<i>er[r]etiratu</i>
* <i>erori</i> 2 (iz)	<i>errezebi(tu)</i> & <i>rezebitu</i> / <i>errezebitzen</i> & <i>re-</i>
* <i>erorkor</i>	<i>zebitze-</i> / <i>errezebituko</i>
<i>eros-</i> / <i>erosi-</i> / <i>erosiren</i>	[ <i>erriskatu</i> ] / <i>erriskatzen</i>
<i>erra</i> / <i>erre</i> / <i>erratzen</i> ‘erre’	* <i>errisku</i>
<i>errabia</i> ‘amorrua’	<i>erro</i> ‘zaina’ / <i>errotik</i>
[ <i>errabiatu</i> ] / <i>errabiatzen</i>	<i>errumes</i> ‘txiroa’
[ <i>errabiazione-</i> ] / <i>errabiazionian</i> (alg)	<i>ertor</i> ‘erretorea’
<i>erraila</i> ‘esalea’	<i>eskaler</i> ‘eskailera’
* <i>erraiñ</i>	<i>eskandalo</i>
<i>erran</i> 1 / <i>erraite</i> / <i>erraiten</i> / <i>erranen</i>	<i>eskarleta</i> ‘eskarlata’
<i>erran</i> (2) (iz)	<i>eskarnio</i> ‘iraina, laidoa’
<i>errankeria</i> ‘esamesa’	<i>eskas</i> (1) (iz) ‘zerbaiten eza, falta’
<i>errarazi-</i> ‘erre-arazi’ / <i>errarazitzen</i>	<i>eskas</i> (2) (adj) ‘akastuna’
<i>errazale</i> ‘erretzailea’	<i>eskasdura</i> ‘akatsa’
<i>er[r]ealgi</i> & <i>realgi</i> ‘egiazki’	<i>eskastarzun</i> ‘akatsa’
[ <i>errebakatu</i> ] / <i>errebakatze-</i> ‘ezeztatu, balio-	* <i>eskele</i>
<i>gabetu</i> ’	<i>eskent</i> / <i>eskentzen</i> ‘eskaini’
<i>er(r)elexione</i> & <i>reflexione</i>	* <i>eskenu</i>
<i>errefren</i> ‘errefrau’	<i>esker</i>
<i>errefusa(tu)</i> / <i>errefusatzen</i> ‘ukatu, eza eman’	<i>eskergabe</i>
<i>errege</i> / <i>erregek</i> / <i>erregeri</i> / <i>erregeren</i> / <i>errege-</i>	<i>eskergabetarzun</i>
<i>rendako</i> / <i>erregegana</i>	<i>esklabo</i>
<i>erregetarzun</i>	<i>esklabotarzun</i>
<i>erregiña</i>	<i>eskola</i>
* <i>erregret</i> (2) & * <i>arragret</i> (3)	<i>eskolatu</i> / <i>eskolatze-</i>
<i>errekontru</i> ‘egokiera, okasioa’	<i>esku</i>

<i>*eskudainxa</i>	[exhortatu] / <i>exhortatzen</i>
<i>eskuin</i>	<i>exortazale</i>
<i>eskuko</i> (- <i>uken</i> ) ‘eskumenean izan’	<i>experiencia</i>
<i>espantatu</i> ‘izutu, ikaratu’	<i>explika(tu)</i> (6) / <i>explikatze-</i> (3) & <i>esplikatz-</i>
<i>esparanza</i> (25) & <i>esparainxa</i> (1) ‘itxaropena’	(1) / <i>explikatzen</i> (18) & <i>esplikatzen</i>
<i>esplikazione</i> (1) & <i>explikazione</i> (6)	(2) ‘azaldu’
<i>espaintxa</i> ‘belakia’	<i>explikazione</i> (6) & <i>esplikazione</i> (1)
<i>espos</i> ‘senarra’	*< <i>extreitzcha</i> >
<i>esposa</i> ‘emaztea’	<i>exzelencia</i>
<i>esposatu</i> / <i>esposatze-</i> ‘ezkondu’	<i>exzelenzia</i>
<i>estabiliarazi</i> ‘ezarrarazi’	<i>eyax</i> (1) & <i>eia</i> (1) & <i>heya</i> (1) ‘ea’ (galderaz-ko)
<i>establitu</i> / <i>establitze-</i> ‘ezarri, finkatu’	<i>ez</i>
<i>*estakuru</i>	<i>ez eta ere</i>
<i>estakurudun</i> ‘akatsak egiten dituen hura’	<i>ezabarazi</i>
<i>estali</i> / <i>estaltzen</i>	* <i>ezaba-</i> / [ezabatu] / <i>ezabatzen</i>
<i>estalgi</i> ‘estalkia’	* <i>ezabe</i> / * <i>ezabeki</i>
<i>estatu</i> ‘egoera’	<i>ezagun</i> (- <i>izan</i> )
<i>esteka</i> & * <i>esteku</i> ‘lotura’	<i>ezagutarazi</i> / <i>ezagutarazitzen</i>
<i>esteka(tu)</i> / <i>estekatzen</i> ‘lotu’	<i>ezagut</i> / <i>ezagutu</i> / <i>ezagutze</i> (13) / <i>ezagu-</i>
<i>estimarazi-</i> / <i>estimarazitze-</i>	<i>tzen</i> / <i>ezaguturen</i> (3) & <i>ezagutuko</i> (9)
<i>estima(tu)</i> / <i>estimatzen</i> / <i>estimatuko</i>	<i>ezagutz</i> (3)
<i>estimu</i> ‘estimazioa’	<i>ezamina</i> (1) & <i>examen</i> (15)
<i>estiratu</i> ‘tiratu, luzatu’	<i>ezar(ri)</i> / <i>ezarten</i> / <i>ezarriren</i> (1) & <i>ezarriko</i>
<i>estomak</i> (3) & <i>estomaka</i> (1) ‘urdaila’	(2) ‘jarri’
<i>est(h)onatu</i> / <i>estonatze-</i> / <i>estonatuko</i> ‘harritu’	<i>ezaxol</i>
<i>estonagarri</i> ‘harrigarria’	<i>ezdeus</i>
<i>estranger</i> ‘arrotza’	<i>ezdeuskeria</i>
<i>eta</i>	<i>ezdeustarzun</i>
<i>eternal</i> / <i>eternalki</i>	<i>ezezta(tu)</i> / <i>ezeztatzen</i> ‘deuseztatu’
<i>eternitate</i>	<i>ezi</i> ‘ezen, bada’
<i>et(h)ortza</i> (3) & <i>ethortze</i> (1) ‘jaidura, joera,	<i>ezi ez</i> (37) & <i>ezin ez</i> (7) ‘ezen ez’
berezko era’	<i>ezin</i> / <i>ezinez</i> / <i>ezinago</i>
* <i>etsai</i>	<i>ezinbestez</i> ‘besterik ezinean’ & <i>ezinbestezko</i>
<i>etsi</i> 1 / <i>etsitze-</i> ‘amore eman’	‘nahitaezkoa, baitezpadakoa’
<i>etsi</i> 2 / <i>etsiko</i> ( <i>sobera</i> -) ‘iritzi, -tzat hartu’	<i>ezker</i>
<i>etxe</i>	<i>ezkondu</i> / <i>ezkonduko</i>
<i>etzan</i> / <i>etzaten</i>	<i>ezkontza</i>
* <i>eu&lt;gu&gt;erdi</i>	<i>ezpaiñ</i>
<i>eukharistia</i>	<i>ezpata</i>
<i>euri</i>	<i>ezta</i> ‘ez eta’
<i>examen</i> (15) & <i>ezamina</i> (1)	<i>eztei</i> ‘ezkontza’
<i>examina(tu)</i> / <i>examinatzen</i>	<i>ezti</i> 1 ‘eztia’ / <i>eztiki</i> (- <i>sofritu</i> ) ‘bortxarik gabe’
<i>exkusa</i> (- <i>gabe</i> ) ‘estakurua, atxakia’	<i>ezti</i> 2 (adj)
<i>exkusa</i> / [exkusatu] / <i>exkusatzen</i>	<i>eztitarzun</i>
e<x>enplu	<i>ezustian</i> ‘oharkabean, ustegabean’
e<x>erzizio	

**F**

\**fabori*  
*falta*  
*faltatu* / *faltatzen*  
*faltsu*  
*faltsukeria*  
*fama*  
*familia*  
\*i*fariseen*  
\*i*faxeria*  
*fede* (28) & *fide* (2)  
\*i*feit*  
\*i*fermo* / \**fermoki*  
\*i*fidainxa* (27) & *fidanxa* (3) ‘fidantza, uste osoa izatea’  
*fida(tu)* / *fidatzen* / *fidatuko*  
*fidel* / *fidelki*  
*filisteen* ‘filisteoa’  
*filosofo*  
*fin* 1 (adj)  
*fin* 2 (iz) ‘azkena’ / *finian*  
*finamendu* ‘azkena, bukaera’  
*finament* ‘azkena, bukaera’  
*finezia*  
*finitu* / *finitze* / *finitzen*  
\*i*finka hartu*  
*finkaraz(i)* / *finkarazitzen*  
*finka(tu)* / *finkatzen*  
\*i*finki* / *finkiago* / *finkienik*  
\*i*fite* (29) & *fitetz* (6) & *fitez* (2)  
\*i*flaka(tu)* / *flakatzen*  
*flakezia*  
\*i*flako* / *flakoki*  
\*i*folla*  
*fortuna* / *fortunaz*  
*fraide*  
*fraidetu*  
*frango* ‘franko’ / *frangoki* ‘ugari’  
*franzes* ‘frantsesa’  
*freskatu* / *freskatzten*  
*fresco*  
*frutu*  
*fundamen* ‘oinarria, funtsa’  
*fundamentu*  
*fundatu* / *fundatzen*

*funditu* / *funditzen*

*funtsian* ‘egiazki, oinarrian, funtsez’  
*funts egin* ‘garrantzia eman, arreta ezarri’

**G**

*gabe* (221) / *gaberik* (3) / *gabetarik* (2) / *gabebez* (12) ‘gabe’  
*gabetu* / *gabete-*  
*gaindi* (-z-) & (-n-) ‘goratasun ideiarekin’  
*gaindika* ‘ugaritasunez’ / *gaindizkako* ‘ugaria’  
*gaitz* 1 (iz) / *gaizki* (alg) / *gaizkia* (iz)  
*gaitz* 2 (adj) ‘handia’  
*gaitz* 3 (adj) ‘zaila’  
*gaitzenkor* ‘kaltegarria’  
*gaitzetsi-* / *gaitzetsitzen*  
\*i*gaitzi* (izan) ‘gaitzitu, atsegin ez izatea’  
*gaitzitu-* / *gaitzituko*  
*gaizki egile*  
*gaiztakeria* (2) & *gaxtakeria* (1)  
*gaizto*  
*galaraz(i)* / *galarazitze-* (6) / *galaraziten* (3) & *galarazitzen* (6) ‘galdu arazi’  
*galdarazi* ‘besteri galdu arazi’  
*galda(tu)* / *galdatzen* / *galdaturen* (1) & *galdatuko* (1) ‘eskatu’  
*galde(g)in* 1 / *galdeiten* ‘galdu’  
*galde(g)in* 2 / *galdite-* (1) / *galdeiten* / *galde(g)inen* ‘eskatu’  
*galdo* 1 ‘eskiera, eskakizuna’  
*galdo* 2 ‘galdera’  
*galdo egin* ‘galdu’  
*gal(du)* / *galtzen* / *galduren* (2) & *galduko* (3)  
*galgarri*  
*galkor* ‘iraungiko eta galduko dena’  
\*i*ganbara* (2) & *kanbara* (2)  
\*i*gandera*  
*gañ* ‘gaina’ / *gaña* / *gañaz* / *gañan* & *gañian* / *gañeti(k)* / *gañetiko* / *gañera* & \**gañeran* / *gañerako* / *gañeko*  
*gañan* (-n-) (147) & *gañian* (-n-) (1) ‘zertzaz, zeri buruz’  
*gañerako*

<i>gañetik</i> (-z -)	
<i>gar</i>	<i>gisu</i>
<i>garait / garaitu / garaitzen</i>	‘karea’
<i>garaitiko</i> ‘gainerakoak’	<i>gisulabe</i> ‘karobia’ [gisulabezain]
<i>garbi</i>	<i>gizendu-</i> / <i>gizenduren</i>
<i>garbitarzun</i>	<i>gizon</i>
<i>garizuma</i>	<i>gizontarzun</i>
<i>garratz / garrazki</i>	<i>gloria</i>
<i>garraztarzun</i>	<i>glorifika(tu) / glorifikatzen</i>
<i>*gartu- / garturen</i>	<i>glorios</i> ‘loriosa’
<i>gartsu / gartsuki</i>	<i>gobernari</i> ‘zuzendaria’
<i>[gastatu] /</i>	[gobernatu] / <i>gobernatzen</i>
<i>gastu</i>	<i>gobernu</i>
<i>gatz</i>	<i>gogañgarri</i> ‘gohaindigarria, nazkagarria’
<i>gau / gabaz</i> ‘gauez’	[gogaindu] / <i>gogaintzen</i> ‘gogaitu, gaitzitu’
<i>gauherdi</i>	<i>gogara</i> ‘norbaiten gogokoa’ / <i>gogarako</i>
<i>gaur</i> ‘gaur gauean’	<i>gogara egin</i> ‘zerbait norbaiten gustora egin’
<i>gauza</i>	<i>*gogatu</i>
<i>[gazitu] / gazitzen</i>	<i>gogo / gogoko</i> / <i>gogotik(ago) / gogoz</i>
<i>gazte / gazterik</i>	<i>gogoketa</i> ‘gogoeta’
<i>gaztetarzun</i>	<i>gogor / gogorki</i>
<i>gaztiga(tu)</i> ‘zigortu’ / <i>gastigatze</i> / <i>gaztiga-</i>	<i>gogora</i> (- e(ra)karri, jin)
<i>tzen</i>	<i>gogortu</i> / <i>gogortze-</i>
<i>gaztigu &amp; gastigu</i> ‘zigorra’	<i>gogotik</i> ‘gogo onez’ / <i>gogotikago</i>
<i>gehiago</i>	<i>*gogoz gara[ij]tik</i>
<i>gehien(a)</i> ‘nagusia’ / <i>geihengua</i> ‘nagusita-	<i>gogua eman</i> ‘jabetu, ohartu, erreparatu’
<i>suna’</i>	<i>goguaketa</i> ‘pentsamendu (bat)’
<i>gehienik</i> (alg)	<i>goguaketa egin</i> ‘zerbaitetan pentsatu’
<i>*gei</i>	<i>goguaketa(tu) / goguaketatze-</i> ‘pentsatu’
<i>geldirik</i>	<i>goguan</i> (- atxiki, eman, erabili, ezar, igaran,
<i>gelditu</i>	<i>uken)</i>
<i>gerla</i>	<i>goguan hartu</i> / <i>hartze</i> / <i>hartzen</i>
<i>gero</i>	<i>goguatu</i> ‘zerbaiti arreta eskaini’ / <i>goguatze-</i>
<i>gertatu</i> ‘suertatu’	<i>gogueta</i> ‘gogoeta’
<i>gezur</i>	<i>*goihentze</i>
<i>gibel</i> ‘atzea’	<i>*goihera</i> (adj)
<i>*gibel-ondotik</i>	<i>goiti</i>
<i>[gibelatu] / gibelatze-</i> ‘atzeratu’	<i>goiz / goiz-goizian</i> ‘biziki goiz’ / <i>goizik</i>
<i>gibeldu</i> / <i>gibeltzen</i> ‘atzeratu’	<i>*goiztiri</i>
<i>gida</i> ‘gidatzalea’	<i>golde</i>
<i>gida(tu) / gidatzen</i> / <i>gidatuko</i>	<i>gomendatu</i> 1 / <i>gomendatzen</i> ‘zerbait ahol-
<i>gihaur</i> ‘guhaur, geroni’	<i>katu’</i>
<i>giltz</i> ‘giltza’	<i>gomendatu</i> 2 / <i>gomendatzen</i> ‘nork bere bu-
<i>girist(h)iño</i> ‘kristaua’ (61) & <i>giristino</i> (6)	<i>rua beste norbaiten eskuetan utziz en-</i>
<i>girist(h)iñotarzun</i> (4)	<i>komendatzae’</i>
<i>girist(h)iñotu</i> (2)	<i>gomendu</i> ‘gomendioa’

<i>gomit</i> ‘gonbidatua den hura’	<i>guretu</i> ‘gureganatu’
<i>gomita(tu) / gomitatzen</i> ‘gonbidatu’	<i>guriki</i> ‘biguntasunez, goxotasunez’
<i>gomitu</i> ‘gonbidapena’	* <i>gustatu / gustatzen / gustatuko</i>
<i>gopor</i> ‘edateko ontzi ttipia’	<i>gustu</i> (- <i>huneko</i> ) (6)
<i>gora</i> 1 (alg) / <i>goraki</i> / <i>gorati</i> (1) & <i>goratik</i> (1)	* <i>guti</i> 1 (alg) / <i>gutitan</i> / <i>guthiago</i> / <i>guthien</i> / <i>guthienik</i>
<i>gora</i> 2 (adj)	* <i>guti</i> 2 (adj)
<i>gora behera</i> (- <i>ibiltia</i> )	<i>gutitu</i> / <i>gutitzen</i>
<i>gorapen</i> ‘ilgora’	<i>gutiz aboruetan</i> / <i>gutiz aboruenetan</i> ‘ia beti, usuenik’
<i>goratarzun</i>	* <i>gutiz bestetan</i> ‘aldi gehienetan’
<i>gora(tu)</i>	<i>gutiz geihenetan</i> ‘ia beti, usuenik’
* <i>gorda</i> (1) / <i>gordatze-</i> (4) / <i>gordatzen</i> (2) / <i>gordeko</i> (1) / <i>gorderik</i> (4)	<i>gut(h)izia</i> (6) & <i>gut(h)itzia</i> (8) ‘apeta, guraria’
<i>gorde</i> (adj) (2)	<i>gutitziarazi</i> “gutiziatu” aditzaren era fak-tiboa
<i>gori</i>	<i>guthitziatu</i> / <i>gut(h)itziatzen</i>
<i>gorpitz</i> (98) & <i>gorputz</i> (2) & <i>korpitz</i> (1)	<i>guzi</i> ‘guztia’
<i>gorri</i>	
* <i>gort</i> / <i>gorthu</i> / <i>gortzen</i>	
<i>gortarzun</i> ‘adorea’	
<i>gort(h)e</i> 1 (erregerena)	
<i>gorthe</i> 2 ( <i>Celuco</i> -) ‘zuzentza epaimahaia, zerukoa barne’	
<i>gose</i> 1 (iz)	<b>H</b>
<i>gose</i> 2 (adj)	<i>habe</i>
<i>gosete</i>	* <i>haben</i> (2) & <i>heben</i> (30) ‘hemen’ / <i>heben harat</i> ‘hemendik aitzinera’
<i>gosta</i> (izan) ‘kostatu’	<i>habituda</i> ‘ohitura’
* <i>gostuz</i> (-ren - ) (1)	<i>hain</i>
<i>got</i> ‘godoa’	* <i>hain untsa</i>
<i>gotera</i> ‘itazura’	<i>hainbeste</i>
<i>gozagabe</i>	<i>hainbesterekin</i> ‘une hartan, orduan’
<i>gozamen</i>	<i>hala</i> / <i>halako</i> / <i>halaz</i>
<i>gozarazi-</i> / <i>gozarazitze-</i>	<i>halaber</i>
<i>goza(tu) / gozatzen</i> / <i>gozatuko</i>	<i>halarik ere</i> ‘halaz ere’
<i>gozatsu</i> (adj) ‘gozoa’	<i>hamabi</i>
<i>gozo</i> 1 (iz, izpirituala)	<i>hamar</i>
<i>gozo</i> 2 (iz, janarena, gazia edo mingotsa ez dena)	*[ <i>hamatu</i> ] / <i>hamatzen</i>
<i>gozo</i> 3 (adj)	<i>hamazazpi</i>
<i>grado</i> ‘maila’	<i>hameka</i> ‘hamaika’
<i>gradual</i> (1) & <i>graduel</i> (1) ‘mezako kantua’	<i>han</i> / <i>hanti</i> (4) & <i>hantik</i> (19)
<i>grazia</i>	<i>hanbat</i> / <i>hanbatez</i>
<i>gu</i>	<i>hanbatenaz... zunbatenaz</i>
<i>guardia</i>	<i>hanbatenez ere... zunbatenaz ere</i>
* <i>guduka</i> (- <i>artzia</i> )	<i>handi</i> / <i>handiki</i> / <i>handizki</i>
[ <i>gudukatu</i> ] / <i>gudukatzen</i>	<i>handios</i> ‘hantustea duen pertsona’
<i>gupida</i>	<i>handiostarzun</i>
	<i>handitarzun</i>

<i>banditu</i>	[haurtu] / <i>haurtzen</i> ‘haur bihurtu’
<i>hant / hantu</i> ‘puztu, hazi’	<i>hauskor</i>
<i>*hantatu / hantatze-</i>	<i>haustatu</i> ‘errautsez estali’
<i>*hantazione</i>	<i>hauta(tu) / hautatzen / hautatuko</i>
<i>har</i> (zomorroa)	[hauteman] / <i>hautemaiten</i> ‘nabaritu, su-
<i>hara</i> ‘hara hemen’ adieran	matu’
<i>*haragi</i>	<i>hautu</i> 1 (iz) ‘aukera’ / <i>hautura</i> ‘aukeraren arabera’
<i>harakindei</i> ‘harakindegia, harategia’	<i>hautu</i> 2 (adj) ‘hautatua’
<i>hargati</i> (1) & <i>hargatik</i> (21) & <i>hargatik ere</i> (19) ‘halaz ere’	<i>hauts</i> ‘hautsa’
<i>hari-piru</i> ‘hari birua, hari albainua’	<i>hautsaraz / hautsarazitze-</i>
<i>hariña</i> ‘hondarra, harea’	<i>hauts(i) / hausten / hautsiko</i>
<i>hariñazu</i> ‘hareatsua’	<i>haz-arazi / haz-arazitzen</i>
<i>haritz</i>	<i>hazi / hazten</i>
<i>harma</i> ‘arma’	<i>*hazinda-</i> ‘abreak’
<i>harrarazi / harrarazten</i> (1) & <i>harrarazi-</i> tzen (1)	<i>*hazinda beltz</i> ‘zerriak’
<i>harri</i>	<i>*hazkurru</i> ‘hazkurria, elikagaia’
<i>hartako &amp; hartakotzat</i> ‘horretarako’	<i>heben</i> (30) & <i>haben</i> (2) ‘hemen’ / <i>heben har-</i> rat ‘hemendik aitzinera’
<i>hartakotz</i> ‘horregatik’ & <i>hartakotz ere</i>	<i>hedadura</i>
<i>har(tu) / harten</i> (1) & <i>hartzen</i> (93) / <i>hartu-</i> ren (3) & <i>hartuko</i> (7)	<i>heda(tu) / hedatzen</i>
<i>has(i) / hasten / hasiko</i>	<i>hedatu</i> (adj) / <i>hedatukiago</i>
<i>*hasper</i>	<i>hegalda</i>
<i>*hasper egin</i>	[hegaldatu] / <i>hegaldatzen</i>
<i>*hasperapen</i>	<i>hegatz</i> ‘telatua’
<i>hasperrez</i> (- egon)	<i>hek</i> ‘haiek’
<i>hastapen</i>	<i>helas</i> (heiagorazkoa)
<i>hastiagarri</i> ‘arbuiagarria’	<i>hel(du) 1 / heltzen / helduko</i> (7) & <i>helduren</i> (1) ‘iritsi’
<i>hastiari- / hastiarazitzen</i>	<i>*hel(du) 2 / heltzen</i> ‘gertatu’
/ <i>hastiatzen</i>	<i>heldu</i> 3 (- izan) ‘etorri’
<i>hastio</i> ‘arbuihoa, gaitzespena, gorrotoa’	<i>hemezortzi</i>
<i>hastio</i> (- edun) ‘arbuiatu’	<i>*herabe</i>
<i>hatu</i> ‘fardelak, puskak, ekipajea’	<i>*herabezti</i>
<i>hats</i> ‘arnasa’	*[herakitu] / <i>herakitzten</i> ‘irakin’
<i>hats ukaldi</i> ‘arnasa kolpea’	<i>herensuge</i>
<i>hatsa har(tu)</i> ‘arnasa hartu’	<i>heresia</i>
<i>hatshantu</i> ‘arnasestuka egon, hatsanditu’	<i>heretiko</i>
<i>hatsarre</i> 1 ‘hasiera’	<i>heretikotu</i>
<i>hatsarre</i> 2 ( <i>zuhurtziaren</i> -) ‘funtsa, printzi-	<i>herexa</i> ‘aztarna, arrastoa’
<i>piaoa’</i>	<i>herio</i>
<i>hatse</i> ‘hasiera’	<i>heriotze</i>
<i>*hatz</i>	<i>*herra</i>
<i>haur</i> 1 (iz) / <i>haurrian</i> ‘haur denboran’	[herrestatu] / <i>herrestatzen</i> ‘arrastatu, herres-
<i>haur</i> 2 (erakuslea)	tan joan’
<i>haur minetan</i>	<i>herri</i>

* <i>herroka</i> 1 ‘lerroa, errenkada’	* <i>hobi</i> (2) & <i>obi</i> (1)
* <i>herroka</i> 2 ‘maila, kategoria’	<i>hogei</i> / <i>hogeta</i>
* <i>bersa(tu)</i> 1 / <i>hersate</i> (1) & <i>hersatze-</i> / <i>hersatzen</i> ‘norbaitengana zuzendu, gomen-datu’	*[ <i>hoibeldu</i> ] / <i>hoibeltzen</i>
*[ <i>hertsatu</i> ] 2 / <i>hertsatzen</i> & <i>hersatzen</i> ‘es-tutu’	<i>hok</i> ‘hauek’
<i>hersi</i> (adj) ( <i>obligazionia -ago</i> ) ‘behartua, hertsia’	<i>hola</i> / <i>holako</i> (14) & <i>hulako</i> (3) / <i>holatan</i> / <i>holaz</i>
/ [herste] ‘ixtea, herstea’	* <i>honi-</i> / <i>honitu-</i> / <i>honitze-</i> / <i>honituko</i>
* <i>hert(u)</i> / <i>hertze-</i> / <i>hertzen</i>	<i>boni-araz</i> / [ <i>honi-arazi</i> ]
<i>hertze</i> ‘esteak’	* <i>hor</i> (iz)
<i>heuskal</i>	<i>hori</i> (erakuslea)
<i>heuskaldun</i>	<i>horiek</i>
<i>heuskara</i> (14) & <i>huskara</i> (1)	<i>horra</i> ‘horra hor’
<i>heya</i> (1) & <i>eya</i> (1) & <i>eia</i> (1) ‘ea’ (galderaz-ko)	* <i>hortako</i> (alg)
[hezi] / <i>hezte-</i>	<i>hortz</i>
<i>hezur</i>	<i>hospitale</i>
<i>hi</i>	<i>hotz</i> / <i>hotzki</i>
* <i>higin&lt;au&gt;t</i> ‘higanota’	* <i>hotz-arázi</i> / <i>hotz-arázten</i>
<i>higuinza</i> ‘aiherkundea, gaitzespena’	<i>hotzadura</i> ( <i>bihotzeko -</i> ) ‘norbaitekiko hoz-tasuna’
* <i>higungarri</i>	<i>hotzkeria</i> ‘norbaitenganako sentimendu-hoztasuna’
<i>bigunt-arazi-</i> / <i>bigunt-arazitze-</i>	<i>hoztu</i> / <i>hozten</i>
<i>hil</i> 1 / <i>hiltze</i> / <i>hiltzen</i> / <i>hilen</i> ‘norbera hil-tzea’	<i>huin</i> ‘oina’ / <i>huiñez</i> ‘oinez’
<i>hil</i> 2 / <i>hiltze-</i> ‘batak bestea hiltzea’	<i>huinpe</i> ‘oinpea’
<i>hil</i> - 3 / <i>hiltzen</i> ( <i>burak suia -</i> ) ‘itzali’	<i>huinthuts</i> ‘ortozik, oinutsik’
<i>hil</i> 4 (iz) ‘hilak, bizirik ez direnak’	<i>huinzola</i> ‘oinaren zola’
<i>hilabethe</i>	<i>hulako</i> (3) & <i>holako</i> (14)
<i>hilgarri</i>	<i>humanitate</i>
<i>hilzale</i> ‘hiltzailea’	<i>humano</i>
<i>hira</i> ‘gorrotoa’	* <i>hume</i>
* <i>hiragarri</i>	<i>humil</i> ‘apala, umila’
<i>iri</i>	<i>humiliatu</i> / <i>humiliatzen</i>
<i>hirur</i>	<i>bun</i> ‘ona’ / <i>hunetan</i> ‘onerako’ / <i>hungi</i> (alg) / <i>hungi</i> (iz)
<i>hirurezpala</i> ‘hiruzpalau’ / <i>hirurezpala</i> -retan	<i>hun-hartu</i> ‘onartu, onetsi’
*[ <i>hirritatu</i> ] / <i>hirritatzen</i>	<i>huna</i> ‘hona hemen’
* <i>hirritu</i>	<i>hunak</i> ‘ondasunak’
<i>hitz</i>	[ <i>hundu</i> ] / <i>huntzen</i> ‘ondu’
<i>hitzeman</i>	<i>hunenbeste</i> ‘honenbeste’
<i>hobe</i> / <i>hobeki</i> / <i>hobekienik ere</i>	<i>hungarri</i> ‘ongarria, satsa’
<i>hoben</i> ‘hoberena’ / <i>hobenen</i> ‘hoberena’ / <i>ho-</i>	<i>hungi-eile</i> ‘ongilea’
<i>benik</i> ‘hobekien’	<i>hungi jin</i> ‘ongietorria’
<i>hobetan</i> ( <i>arimen -</i> ) ‘onerako’	[ <i>hungi jinztatu</i> ] / <i>hungijinttatze-</i> ‘ongi- etoria eman’
	<i>hunki(tu)</i> 1 / <i>hunkitze</i> / <i>hunkitzen</i> (2) & <i>hunktitzten</i> (1) ‘ukitu’

*hunkitu 2 / hunkitzen (1) & huntkitzen (1)*  
 ‘bihotzeraino sartu’  
*huntarzun* ‘ondasunak’  
*hur* ‘ura’  
*hura* (erakuslea)  
*hurak* ‘haiiek’  
*hurian eta ogian* ‘ur eta ogi hutsean’  
*hurpe* ‘urpea’  
*hurran* ‘hurbil’ / *hurranik* (*hil*-) ‘-tsekotan’  
*hurrant* / *hurrandu* / *hurrantzen* ‘hurbildu’  
*hurranik ere* ‘ezta urrik eman ere’  
*hurt-arazi-* / *hurt-arazitze-* ‘urtuarazi’  
*[hurtatu]* / *hurtatzen* ‘urez nahasten’  
*hurt-* / *hurtzen* ‘urtu’  
*huskara* (1) & *heuskara* (14)  
*huts* (iz) ‘erratua, hutsegitea’  
*huts egin*  
*hutsik* (alg) ‘barrenekorik gabe’

**I**

*ibil(i) / ibiltze-* (1) / *ibilten* (9) / *ibiliren* (1) & *ibiliko* (1)  
*idek(i) / idekiten* (5) & *idekitzen* (2) / *idekiko* ‘ireki’  
*idiren / idireitze* (1) / *idireiten* (71) & *ide-reiten* (1) / *idirenene* ‘aurkitu’  
*idirenarazi / idirenarazten*  
*idokarazi* ‘aterarazi’  
*\*idok(i) 1 / idokiten / idokiko* ‘atera’  
*\*idoki 2 / idokiten* ‘kendu’  
*\*idoki 3 / idokite-* ‘ireki’  
*idor* ‘lehorra’ / *idorki*  
*idordura* ‘lehortasuneko egoera’  
*idortu / idortzen*  
*iduri* & *iduriko* (adj) / *iduriz* (alg)  
*iduri-arazi*  
*iduripen*  
*iduri(tu) / iduritzen / idurituko*  
*ifernu*  
*igarailaile* ‘iragaten den hura’  
*igaratze* ‘igarotzea, iragatea’ / *igaratitez* ‘bi-denabarkoa, iraizean’  
*igaran / igaraiten* ‘iragan, pasatu’  
*igaran-arazi / igaran-arazitzen*

*igarankor*  
*igerika* ‘igerian’  
*igiaraz / [igiarazi]*  
*\*igitu- / igitzen / igituko*  
*igorle*  
*igor(ri) / igorten / igorriko*  
*igual* (adj) / *igualgi* (2) & *igualki* (1) (alg)  
*\*igurika / iguriki / igurikiten* (11) & *igurikitz* (5)  
*ihardets(i) / ihardesten / ihardetsiko*  
*\*iheiz-* (1) / *ireizi* (14) / *ireizten*  
*ibes egin* (29) & *ihesi egin* (1)  
*ihesigorri* (2) & *ihesiigorri* (5)  
*ihesi* (4)  
*\*ihetzi*  
*\*ihi / ihiki*  
*ihiztari* ‘ehiztaria’  
*ihiz-hor* ‘chiza zakurra’  
*ihizi* ‘ehizatzen den animalia’  
*ibizlari* ‘ehiztaria’  
*[ihiztatua] / ihiztatzen* ‘ihinzatua’  
*\*ihortz(i)*  
*ikara* ‘izua, beldurra’  
*ikara* (- egon) ‘dardarka egon’  
*ikaragarri*  
*[ikaragarritu] / ikaragarritzen*  
*ikararazi / ikararaziten* (1) & *ikarazitzen* (1) / *ikararaziko*  
*ikaratu 1 / ikaratzen / ikaratuko* ‘beldur handia izan’  
*ikara-* 2 / *ikaratu* / *ikaratzen* / *ikaratuko* ‘dardarka egon’  
*ikas(i) / ikasten*  
*ikatz*  
*iker / ‘aztertu’*  
*ikus(i) / ikusten / ikusiren* (3) & *ikusiko* (12)  
*ikuzi / ikuzten / ikuzikoko* ‘garbitu’  
*\*ilhoba*  
*ilhun*  
*ilhun(du) / ilhuntzen*  
*ilhunpe*  
*ilusione*  
*imajina* ‘irudia’  
*imita / imitatze-* ‘imitatu’  
*imitazale*

<i>imitazione</i>	<i>irabazbide</i>
<i>indar</i>	<i>irabazi</i> (iz)
<i>indiferent</i>	<i>irakur(tu) / irakurte / irakurten</i> (20) & <i>ira-</i>
<i>indignotarzun</i>	<i>kurtzen</i> (3) / <i>irakurtuko</i> ‘irakurri’
<i>infidel</i>	<i>irakurzale</i> ‘irakurtzailea, irakurlea’
<i>infinito / infinitoki</i>	<i>iratzar(ri)</i> (7) & <i>iratzartu</i> (4) / <i>iratzartzet-</i>
<i>inguratu / inguratzen</i>	(2) / <i>iratzartzeten</i> (2)
<i>inguru</i>	<i>*traukor</i>
<i>inikitate</i> ‘bekatu errepikatua’	<i>irauldeko</i> ‘goldatzeko’
<i>injurio</i> ‘raina, laidoa’	<i>iraun / iraute / irauten / iraunen</i>
<i>injustoki</i>	<i>*iraungi- / iraungitzen</i>
<i>inkarna(k)zione</i>	<i>iraupen</i>
<i>inkietatu / inkietatzen</i>	<i>*ireizi</i> (14) & <i>iheiz-</i> (1) / <i>ireizten</i>
<i>inkisizione</i>	<i>iretsi / iresten</i> ‘irentsí’
<i>inklinazione</i>	<i>irin</i>
<i>inozent</i> (adj)	<i>*troi</i>
<i>inpazienza</i>	<i>*troi egin</i>
<i>inperfekt</i>	<i>iskiriba(tu) / iskiribatzen</i> ‘idatzi’
<i>inperfektione</i>	<i>iskiribu &amp; izkiribu</i> ‘idazkia, izkribua’
<i>important</i> (adj)	<i>iskiritura</i> (- seindu)
<i>imposibile</i> (1) & <i>inpossible</i> (1) ‘ezina’	<i>*ispixo</i>
<i>impresion</i>	<i>ispiritu</i>
<i>inprima / [inprimatu]</i>	<i>ispiritual / ispiritualki</i>
<i>inprimuzale</i> ‘inprimatzalea’	<i>ist(h)oria</i>
<i>inspiratu</i>	<i>istudiatiu / istudiatzan</i>
<i>inspirazione</i>	<i>ithaxur</i> ‘itogina’
<i>instant</i> ‘unea, istanta’	<i>ithurburu</i>
<i>intenzion</i> (1) & <i>intenzione</i> (15) ‘asmoa’	<i>ithurri</i> (2) & <i>iturri</i> (7)
<i>intres</i> ‘interesa’	<i>itsas bazter</i> (1) & <i>itxas bazter</i> (1)
<i>intsearazi- / intsearazite- / intsearazitzen</i>	<i>itsas portu</i>
<i>in(t)sea(tu) / in(t)seatzen / intseatuko</i> ‘saiatu’	<i>*itsaso</i> (10) & <i>itxaso</i> (3)
<i>intseintsatzeko</i> ‘intsentsu-ontzia’	<i>itsusi &amp; itsuski</i>
<i>*intseu</i>	<i>itsuskeria</i>
<i>inutil / inutilki</i>	<i>itsustarzun</i> (1) & <i>itxustarzun</i> (1)
<i>inzuliar</i> ‘entzulea’	<i>itxaiñ</i> ‘izaina, xintximaria’
<i>*inzun</i> (104) & <i>intzun</i> (1) / <i>inzuten</i> / <i>inzu-</i>	<i>itxura</i>
<i>nen</i> ‘entzun’	<i>itxurapen</i> 1 ‘irudia, sinboloa’
<i>inzeintsu &amp; &lt;inchenxu&gt;</i> ‘intsentsua’	<i>itxurapen</i> 2 ‘itxura hutsa, aparentzia’
<i>[inzentsatu] / inzentsatze-</i> (1) / <i>inzentsa-</i>	<i>itxusgarri</i> (1)
<i>tzen</i> (1)	<i>itzal</i>
<i>ipar</i>	<i>itzal / itzaltzen</i>
<i>iparreko aize</i>	<i>itzatu</i> ‘iltzatu’
<i>*[ipiztatatu] / ipiztatzen</i>	<i>itzze</i> ‘iltzea’
<i>*ipiztu</i>	<i>itzul(i)</i> 1 / <i>itzultze / itzultzen / itzuliren</i>
<i>ipokrita</i>	(1) & <i>itzuliko</i> (1)
<i>irabaz / irabazi- / irabazten / irabaziren</i>	<i>itzuli</i> 2 ‘hizkuntzazko itzulpena egin’

<i>itzuli</i> 3 (iz) ( <i>kanpoko - ak</i> ) ‘joan-etorriak’	<i>*jasan / jasaiten / jasanen</i>
<i>itzulzale</i> ‘hizkuntzazko itzulpenaren egilea’	<i>jastatu</i> ‘dastatu’
<i>itzur-arazi</i>	<i>jateko</i> (iz) ‘janaria’
<i>*itzuri / itzurte-</i> (3) & <i>itzurtze-</i> (1) / <i>itzu-</i> <i>riko</i>	<i>jats</i> ( <i>bilo -</i> ) ‘bilo adatsa’
<i>ixil / ixiltzen</i>	<i>jaun</i> ‘jauna’
<i>ixilarazi / ixilarazitzen</i>	<i>Jauna</i> ‘Jaungoikoa’
<i>ixilik</i>	<i>jaurei</i> ‘jauregia’
<i>ixiltarzun</i>	<i>jauztekatu / jauztekatzen</i> ‘jauzika ari’
<i>ixuri / ixurten / ixuriko</i>	<i>jeiki / jeikiten</i>
<i>izan / izaite-</i> (36) & <i>izaite</i> (2) & <i>izate</i> (1) / <i>izaiten</i> (10) & <i>izaten</i> (1) / <i>izanen</i>	<i>jeloskeria</i> ‘espa’
<i>izar</i> (1) ‘izarra’	<i>jende</i>
<i>*izar</i> (2) / <i>izartzen</i> ‘neurtu’	<i>jendeki</i> ‘jendea’
<i>*izari</i>	<i>jeneral</i> 1 (adj) ‘orokorra’ / <i>jeneralian / jen-</i> <i>neralki</i>
<i>izen</i>	<i>jeneral</i> 2 ‘kargu militarra’
<i>izendatu / izendatze-</i>	<i>jestu</i> ‘keinua’
<i>izerdi</i>	<i>jesuista</i> (4) & <i>jesuiste</i> (1) ‘jesuita, josula- <i>guna’</i>
<i>izidura</i> ‘izialdura, ikara’	<i>jeuts(i) / jeusten</i> ‘jaitsi’
<i>izigarri</i> ‘izugarria’	<i>jin / jiten / jinen</i> ‘etorri’
<i>izitu / izitzen</i> ‘izutu’	<i>*jinko</i> (1095) & <i>jingo</i> (5) ‘jainkoa’ / <i>jin-</i> <i>koazko</i>
<i>izkiribu</i> & <i>iskiribu</i> ‘idazkia, izkribua’	<i>jinkotarzun</i>
<i>izorra</i> ‘haurdun’	<i>jinkotiar</i>
<i>izurri</i>	<i>jo / joiten / joka</i>
<b>J</b>	
<i>*jagoiti</i>	<i>joan</i> (41) & <i>juan</i> (1) / <i>joaiten</i> (24) & <i>joiten</i> (2) / <i>joanen</i> (8)
<i>jakin / jakiten</i>	<i>*joandene</i>
<i>*jakintsu</i>	<i>*jokakari</i> ( <i>indar -</i> )
<i>jakitate</i> ‘jakintza’	<i>jokatu / jokatzen</i>
<i>jale</i> ‘jaten duena’	<i>joko</i>
<i>jalgi / jalgitze-</i> (4) / <i>jalgiten</i> (9) & <i>jalgitzen</i> (3) / <i>jalgiko</i> ‘irten’	<i>josí</i>
<i>jan / jaten / janen</i>	<i>judio</i> ‘judutarra’
<i>janhari</i>	<i>judizione</i> ( <i>azken -</i> ) ‘kristau erlijioan azken epaiketa’
<i>*jankatu- / jankaturen</i>	<i>jujamendu</i> ‘auzia, epaiketa’
<i>jardirets(i) / jardiresten / jardiretsiko</i> ‘erdie- tsi, lortu’	<i>juja(tu) / jujatzen / jujatuko</i>
<i>jarraiki / jarraikitze-</i> (5) / <i>jarraikiten</i> (11) & <i>jarraikitzan</i> (1) & <i>jarraikitzan</i> (1) & <i>jarraiten</i> (2) / <i>jarraikiko</i>	<i>juje</i> ‘epailea’
<i>jar(ri) / jartze-</i> (1) / <i>jarten</i> (11) / <i>jarriko</i>	<i>juntatu / juntatzen</i>
<i>jasaire</i>	<i>junto</i> ( <i>hari - egoitera</i> ) ‘elkarrekin, -ren on- doan’
	<i>justizia</i>
	<i>justo / justoki</i>
	<i>justotarzun</i>

**K**

<i>kalamitate</i>	<i>karroiñ</i> ‘izotza’
<i>kalbario</i>	<i>karroindatu</i> ‘izoztu’
<i>kalitate</i>	<i>kartier</i> ‘alderdia, eskualdea, bazterra’
<i>kaliza</i>	<i>kasa(tu)</i> ‘erauzi, bota, urrunarazi’ / <i>kasatzen</i>
<i>kalte</i>	<i>kasi</i> (2) / <i>kasik</i> (2) ‘ia’
<i>kaltekor</i> ‘kaltegarria’	<i>kastitate</i>
<i>kanabera</i> ‘Arundo donax’	<i>kasu</i> ‘kasua, egoera, gertakaria’
* <i>kanbara</i> (2) & <i>ganbara</i> (2)	<i>kasu egin</i>
<i>kanbiakor</i>	<i>kathedral(e)</i>
<i>kanbiarazi</i>	<i>kathiña</i> ‘gatea, katea’
<i>kanbia(tu)</i> / <i>kanbiatzen</i> / <i>kanbiatuko</i>	<i>kausa</i> (-ela -) ‘arrazoiarengatik, hori dela eta’
<i>kanbazarren</i> ‘aldaketa’	* <i>kausitu</i> 1 / <i>kausitzen</i> ‘aurkitu’
<i>kanbio</i>	* <i>kausitu</i> 2 / <i>kausitze</i> ‘atsegin eman’
* <i>kaneta</i> 1 ‘edontzia’	* <i>kausitu</i> 3 ‘asmatu’
* <i>kaneta</i> 2 ‘hodia’	<i>ke</i>
<i>kanon</i> (mezakoa)	<i>ken(du)</i> / <i>kentzen</i>
<i>kanpo</i> (iz) / <i>kanporat</i> / <i>kanpoko</i> / <i>kanpoz</i> (alg)	<i>keñu</i> ‘keinua’
<i>kanpo</i> (-rik -; -z-) ‘z landa’	* <i>kestione</i> (- izan) ‘auzia edo gaia izan’
<i>kanpoko</i> (estranger edo - bat)	<i>kezarazi</i>
<i>kantari</i>	<i>kexatu</i>
<i>kanta(tu)</i> 1 / <i>kantatzen</i> / <i>kantatuko</i>	<i>kirie-eleison</i> ‘kristau liturgiako otoitz bat’
<i>kantatu</i> 2 ‘goretsi, goraipatu’	<i>kitorik</i> ‘dohan, hutsean’
<i>kantika</i>	* <i>klar</i> ‘argi’ / <i>klarki</i>
<i>kantu</i>	[ <i>klartu</i> ] / <i>klartzen</i> ‘argitu’
<i>kapa</i> ‘mahukarik gabeko jantzi zabala, jantzen gainetik ezarri ohi dena’	<i>kofesa(tu)</i> / <i>kofesatzen</i> / <i>kofesatuko</i> ‘elizan ai-tortu’
<i>kapable</i> ‘gai dena, gauza dena’	<i>kofesione</i> (5) & <i>konfesione</i> (2)
<i>kapitulo</i>	<i>kofesor</i> ‘aitortzaren entzulea’
<i>kaptibatarzun</i> ‘gatibutasuna’	<i>kolera</i> ‘haserrea’
<i>kaptibo</i> ‘gatibua’	<i>koleratu</i> / <i>koleratzen</i> ‘haserretu’
<i>karastarzun</i> ‘mingostasuna, samintasuna’	<i>kolpa(tu)</i> / <i>kolpatzen</i> ‘jo, zauritu’
<i>karats</i> ‘mingotsa, mikatza’	<i>kolpu</i> ‘joaldia, kolpea’
<i>kardinale</i> ‘elizako kardinala’	<i>komendatu</i> ‘agindu, manatu’
<i>karga</i> ‘zama’ / <i>kargako</i> (abere -)	<i>komentu</i> ‘fraideen eta mojen egoitza’
<i>kargatu</i> ‘zamatu’	<i>kom(m)un</i> (adj) ‘ohikoa’ / <i>kom(m)unski</i> (alg) (5) & <i>komunzki</i> (1) ‘usu, maiz, ohiz’
<i>kargu</i>	<i>kom(m)unia(tu)</i> / <i>kom(m)uniatzen</i> ‘komekatu, jaunartu’
<i>kargudun</i>	<i>komunikatze</i> ‘komekatzea, jaunartzea’
<i>kargutu</i> ‘eginbidea eman, agindu’	<i>komunikatzera eman</i> ‘jaunartzera eman’
<i>karioski</i> ‘biziki, goxoki’	<i>kom(m)unione</i> (- seindu) ‘jaunartzea’
<i>karitate</i>	<i>konbeni</i>
<i>karitatos</i> (adj)	<i>konbersa</i> ‘tratua, harremana’
<i>karreatu</i> / <i>karreatzen</i> / <i>karreatuko</i> ‘garrantziatu’	<i>konbersione</i>

<i>konbertitu / konbertitzen / konbertituko</i>	<i>konzeptione</i> ‘sortzea’
<i>kondena</i>	<i>konzertuz</i> ‘guztiak batera, aho batez, ados-tasunez’
<i>kondenagarri</i>	<i>konzilio</i> ‘batzarrea, kontseilua’
<i>kondenatu</i>	<i>*kordokatu / kordokatzen / kordokatuko</i>
<i>kondizione</i>	<i>*kornado</i>
<i>konduita</i> ‘jokabidea’	<i>*korona</i> (12) & <i>korua</i> (1)
<i>konfiteor</i> ‘kristauen otoitz jakin bat’	<i>koronatu</i>
<i>konfesione</i> (2) & <i>kofesione</i> (5)	<i>koropilo</i> ‘korapiloa’
<i>konforme</i>	<i>korpitz</i> (1) & <i>gorpitz</i> (98) & <i>gorputz</i> (2)
<i>konfusionе</i>	<i>korrigi(tu) / korrigitzen</i> ‘zuzendu’
<i>*konjit(a) hartu</i>	<i>korronpitu</i>
<i>konpaña</i> (19) & <i>konpañia</i> (1) ‘taldea, la-gundia’	<i>korrupzione</i>
<i>konpañan</i> (-r)en -) ‘-ekin batean’	<i>*kor&lt;sx&gt;uan</i> (- ibili) ‘itsasoan lapurretan jardun’
<i>konpaña atxiki</i> ‘lagun egin norabait joatean’	<i>korthе</i> (aingurien -) ‘zeruko gortea’
<i>konparainxa</i> (1) & <i>konparanxa</i> (10) ‘aldera-keta, parabola, adibidea’	<i>korua</i> (1) & * <i>korona</i> (12)
<i>konpara(tu) / konparatzen</i>	<i>kostuma</i> ‘ohitura’
<i>konplimendu</i> ‘adeitasun hitzak egitea’	<i>kostumatu / kostumatzen</i> ‘ohitu’
<i>konpli(tu) / konplitzen</i> ‘bete, gauzatu’	<i>kotoiñ</i> ‘kotoia’
<i>konprenitu</i>	<i>kotsu</i> ‘kutsua’
[ <i>koneillatu</i> ] / <i>koneillatzen</i>	<i>kreatu / kreatzen</i> ‘sortu’
<i>koneillu</i> ‘batzarrea, bilkura’	<i>kreatura</i> ‘izakia, sorkaria’
[ <i>konekratu</i> ] / <i>konekratzen</i> ‘sagarratu’	<i>kreazale</i> ‘sortzailea’
<i>konsekrazione</i>	<i>kreazione</i>
<i>konsentitu / konsentitzen</i>	<i>kredo</i> ‘kredo otoitza’
<i>konserbatu / konserbatzen</i>	<i>krima</i> ‘heriotza, hilketa’
<i>konsidera(tu) / konsideratzen</i>	<i>kriminel</i>
<i>konsolagarri</i>	<i>*kroketarik idoki</i>
<i>konsola(tu) / konsolatzen</i>	<i>khronika</i>
<i>konsolu</i>	<i>krudelki</i>
<i>konsultatu / konsultatzen</i>	<i>kruzifikatu</i> & * <i>kuruzifikatu / kuruzifikatzet-</i> ‘gurutziltzatu’
<i>kontenplazione</i>	<i>kukuruku</i>
<i>kontent</i> ‘pozik’	<i>kundatu</i> 1 / <i>kundatzen</i> ‘zenbatu’
<i>kontentamendu</i>	<i>kundatu</i> 2 / <i>kundatze- / kundatuko</i> ‘aipatu, kontatu’
<i>kontenta(tu) / kontentatzen / kontentatuko</i>	<i>kundatu</i> 3 ‘kontuan hartu, gogoan hartu’
<i>*kontesta</i>	<i>*kunde</i> (1) & <i>kunte</i> (1)
<i>*kontino</i>	<i>kundu</i> 1 ‘kontuak’
<i>*kontrast (2) / kontrest (1)</i>	<i>kundu</i> 2 ‘zenbaketa’
<i>*kontrastatu</i> (1) & <i>kontresta(tu)</i> (1) / <i>kon-trastatze-</i> (1) & <i>kontrestatze-</i> (1)	<i>kundu(ak) eman</i> ‘norbaiti zerbaiten berri eman’
<i>kontratu</i>	<i>kundu galdatu</i> ‘kontuak eskatu’
<i>kontre</i> ‘aurka’ / <i>kontreko</i> / <i>kontrerrat</i> / <i>kontreka</i>	<i>kundutan</i> (- <i>hartu</i> ) ‘aintzat hartu, kontuan hartu’
<i>kontrizione</i>	
<i>konzebi(tu) / konzebitzen / konzebituko</i>	
<i>konczenzia</i>	

<i>kundutan (- sar)</i> ( <i>bere buriareki</i> ) ‘kontu egin’	<i>laudorio</i>
<i>kunplitu / kunplitzten</i>	<i>laur</i> ‘lau zenbakia’
<i>kuraje</i> ‘adorea’	<i>lauretan hogei</i> ‘laurogei’
<i>kurajos- / kurajoski</i>	<i>lausengatu / lausengatzten</i> ‘losentxatu’
<i>kuriositatez</i>	<i>laxakeria</i> (1) & <i>laxokeria</i> (17) ‘utzikeria’ / <i>laxokeriaz</i>
<i>kurutze</i>	<i>laxarazi</i>
<i>kuruzifika</i> ‘gurutzefika, gurutzea’	<i>laxa(tu)</i> 1 ‘eginbideari arretarik jarri ez’ / <i>laxatzen</i>
* <i>kuruzifikatu &amp; kruzifikatu / kuruzifikatzete-</i> ‘gurutziltzatu’	[ <i>laxatu</i> ] 2 / <i>laxatzen</i> ‘askatu’

**L**

<i>labe</i>	
<i>laborari</i> ‘ne kazaria’	
<i>laboratu</i> ‘landu’	
<i>labur</i> 1 (adj) / <i>laburzki</i>	
<i>labur</i> 2 (alg) ‘arte laburrik barne’	
<i>laburtu / laburtzen</i>	
<i>lagun eman</i> ‘elkartu, erantsi’	
<i>lagunt / lagundu / lagunten / lagunduko</i>	
<i>laguntza</i> (4) & <i>lagunza</i> (8)	
* <i>laidogarri</i>	
<i>laket</i>	
<i>laketgarri</i>	
<i>lan</i>	
<i>landa</i> erdal ‘champ / campo’	
<i>landan</i> (-ti(k), -rik -) ‘-tik & -z kanpo’	
<i>landare</i>	
<i>landatu / landatzen</i>	
[ <i>landu</i> ] / <i>lantzen</i>	
* <i>lanjer</i>	
<i>lanjeros</i> (adj) / <i>lanjeroski</i>	
<i>langile</i>	
<i>lanpada</i> ‘lanpara’	
<i>lanza</i> ‘lantza’	
<i>laño</i> ‘soila, xinplea’ / <i>lañoki</i>	
* <i>lañotarzun</i>	
<i>larru</i>	
<i>laster</i>	
<i>laster ein</i> ‘laster egin, korrika egin’	
<i>lasto</i>	
<i>latin</i>	
* <i>latxera</i>	
* <i>laudagarri</i>	
<i>lauda(tu) / laudatzen</i> ‘goraldu, goraipatu’	
	<i>laudorio</i>
	<i>laur</i> ‘lau zenbakia’
	<i>lauretan hogei</i> ‘laurogei’
	<i>lausengatu / lausengatzten</i> ‘losentxatu’
	<i>laxakeria</i> (1) & <i>laxokeria</i> (17) ‘utzikeria’ / <i>laxokeriaz</i>
	<i>laxarazi</i>
	<i>laxa(tu)</i> 1 ‘eginbideari arretarik jarri ez’ / <i>laxatzen</i>
	[ <i>laxatu</i> ] 2 / <i>laxatzen</i> ‘askatu’
	<i>laxo</i> ‘pertsona utzia, arretarik gabea’ / <i>laxoki</i>
	<i>laxotarzun</i> ‘lasaitzea, erlaxazioa’
	[ <i>laztu</i> ] / <i>lazten</i> ‘ikaratu, beldurtu’
	<i>laztura</i> ‘beldurra, ikara’
	<i>leal / lealki</i>
	<i>lealitate</i>
	<i>lege</i>
	<i>legun</i>
	<i>lehen</i> 1 (ordinala) / <i>lehenik</i>
	<i>lehen</i> 2 (alg) / <i>lehenago</i>
	<i>lehen beno lehen</i>
	<i>lehenbiziko</i> / <i>lehenbizikorik</i>
	* <i>lehenik eta bizirik</i> ‘lehenbizikorik’
	/ <i>lehertze-</i>
	<i>lehia</i>
	* <i>lehiataka</i>
	<i>lehiatu / lehiatzen</i>
	<i>lehoin</i> ‘lehoia’
	<i>leho</i>
	* <i>leiñhuru</i> 1 ‘argi printza’
	* <i>leiñhuru</i> 2 ‘zantzua, aztarna’
	* <i>leize</i>
	<i>leku</i>
	<i>lekuko</i> ‘ordainez, ordezko’
	<i>lekziona</i>
	<i>lenguaje</i> (2) & <i>lenguaya</i> (1)
	<i>lepo</i>
	<i>lepra</i>
	<i>leprazu</i>
	<i>lerrarazi / lerraraziren</i>
	<i>terra(tu) / terratzen</i> ‘bideratu, norabait joera izan’
	<i>letra</i> ‘gutuna’ (3)
	<i>lettra</i> ‘lettra’ (2)
	<i>libertate</i>
	<i>libertimendu</i> ‘dibertimendua, dibertsioa’

<i>liberitu / libertitzen</i>	<i>mairu</i>
<i>librainxa</i> ‘askatasuna’	<i>mait(h)agarri</i>
<i>libra(tu) / libratzen / libratuko</i>	<i>mitarazi- / mitarazitzen</i>
<i>libro</i> (adj) / <i>libroki</i>	<i>mait(h)a(tu) / mait(h)atzen / mait(h)atuko</i>
<i>liburu</i>	<i>mait(h)e (adj)</i>
<i>liferenzia</i> ‘desberdintasuna’	<i>mait(h)e (- edun) (ad)</i>
<i>liferten</i> (adj)	<i>majestate</i>
<i>likits</i>	<i>makila</i>
<i>*likorn</i>	<i>makur</i>
<i>lili</i> ‘lorean’ ( <i>lore edo -</i> )	<i>[makurtu] / makurtzen</i>
<i>lilitu / lilitzen</i>	<i>malezia</i>
<i>listreatu / listreatzen</i> ‘distiratu’	<i>mal(h)ur</i> ‘nahigabea, kaltea’
<i>*lizon</i>	<i>mal(h)uros / mal(h)uroske</i>
<i>*lizonkeria</i>	<i>manamendu</i> ‘agindua’
<i>lo</i> (- izan) ‘lo egon’	<i>mana(tu) / manatzen</i>
<i>lo egin</i>	<i>manazale</i> ‘agintaria’
<i>lo egon</i>	<i>mandatari</i> ‘mezularia, ordezkaria’
<i>[lokartu] / lokartze-</i>	<i>*maneatu / maneatzzen</i>
<i>*&lt;loherinha&gt;</i>	<i>manera</i>
<i>lobi</i> (adiera obszenoa) / <i>lobizko</i>	<i>manna</i> ‘Jainkoak igorri janari miragarria’
<i>lobikeria</i>	<i>manu</i> ‘agindua’ / <i>manuz</i>
<i>lobiztatu</i>	<i>manu eman</i> ‘agindu’
<i>lohitze</i> ‘lokatza’	<i>manuko</i> ‘menpeko’
<i>lorarazi- / loraraziten</i>	<i>manura</i> (- egon)
<i>lore</i> (- <i>edo lili</i> )	<i>*mañata</i>
<i>[lotu] / lotzen</i> ‘lotzea, ez da lokartzea’	<i>maradikatu 1 / maradikatze-</i>
<i>*lotsa /</i>	<i>maradikatu 2 (adj)</i>
<i>luma</i>	<i>maradikazale</i> ‘madarikatzalea’
<i>lur</i> 1 ‘lurra’ / <i>lurrezko</i>	<i>maradikzione</i> ‘madarikapena’
<i>lur</i> 2 ‘ludia, mundua’	<i>*mardo</i>
<i>lurpe</i>	<i>marka</i> ‘seinalea’
<i>luzamendu</i>	<i>*marraskaz (nigar -) &amp; *marriska (iz)</i>
<i>luzarazi</i>	<i>[marruskatu] / marruskatzen</i> ‘igurtzi’
<i>luza(tu) / luzatzen</i>	<i>marteillu</i> ‘mailua’
<i>luzaz</i>	<i>martir</i>
<i>luze / *luza&lt;tch&gt;e</i>	<i>martirio</i>
<i>luzetarzun</i>	<i>marxant</i> ‘merkataria, saltzailea’
<b>M</b>	
<i>magnifikat</i> ‘ama birjinaren otoitza’	<i>*mathatu</i>
<i>mahai</i> (5) & <i>mahrain</i> (13)	<i>materia</i>
<i>maingu</i> ‘errena’	<i>maxela</i> ‘matrilla, masaila’
<i>*mai&lt;nh&gt;atu- / mai&lt;nh&gt;atzen / mai&lt;nh&gt;a-</i>	<i>ma&lt;x&gt;ima</i> ‘esan handia, sententzia’
<i>tuko</i> ‘bainatu’	<i>mediku</i>
	<i>medioz</i> (-en -) ‘en bitartez’
	<i>medisent</i> ‘gaitzeslea, gaizkiesalea’
	<i>medisenzia</i> ‘gaitzesana’
	<i>meditazione</i>

<i>medita(tu) / meditatzen</i>	<i>mirakulos</i> (adj)
<i>mehatxatu / mehatxatzen</i>	* <i>mirakulu / mirakuluz</i>
<i>mehatxu</i>	<i>mira</i> ‘armaren mira’ / <i>miran</i>
<i>mehe</i>	<i>miserable</i>
<i>menbro</i> ‘gorputz atalak’	<i>miseria</i>
<i>mement</i> (20) & <i>memento</i> (17) ‘unea’	<i>miserikordia</i>
<i>men</i> ‘agintea, ahalia’ / <i>meneko</i> ‘menpekaoa’	<i>miserikordios</i> (adj)
<i>mendekatu / mendekatzen</i>	<i>misterio</i>
<i>*mendekio</i>	<i>misterios</i> (adj) ‘misteriotsua’
<i>mendi</i>	<i>modest</i> (adj)
<i>*mendre</i>	<i>moldatu / moldatzan</i>
<i>menturala</i> ‘ausaz, zoriz’	<i>molde</i> 1 ‘era, modua, adibidea’
<i>menturaz</i> ‘beharbada, agian’	<i>moldetsu</i> ‘gai, iaioa’
<i>mentura(tu) / menturatzen / menturaturen</i>	<i>mortal</i> / <i>mortalki</i>
(2) & <i>menturatuko</i> (1) ‘ausartu’	<i>mortero</i> ‘eraikuntzako masa, harri lotzeko’
<i>ments</i> ‘zerbaiten eza, falta’	<i>mortifikatu / mortifikatzen</i>
<i>mereximendu</i>	<i>mortifikasiōne</i>
<i>mereximendutsu</i>	<i>moyen</i> ‘balibidea’
<i>merexi(tu) / merexitzen / merexituko</i>	<i>muble</i> ‘altzaria’
<i>merke</i>	<i>muga</i>
<i>mesfida</i> (- izan) ‘fidagaitza izan, ez fidatzea’	<i>mugagabe</i>
<i>mesfidainxa</i> ‘mesfidantza’	<i>mundu</i>
<i>mesfidatu / mesfidatzen</i>	<i>mundutar</i>
<i>*meskontent</i> (-kara)	<i>mundutiar</i> ‘munduko gizakia’
<i>mesperetxagarri</i>	<i>murru</i>
[ <i>mesperetxarazi</i> ] / <i>mesperetxarazten</i>	<i>murruxori</i> ‘txolarrea’
<i>mesperetxatu / mesperetxatzen / mesperetxatuko</i>	<i>murtxatu / murtxatzen</i> ‘zupatu’
<i>*mesperetxu</i> & <i>mezperetxu</i>	<i>mut(h)il</i> ‘morroia’
<i>metalesko</i> ‘metalez egina’	<i>muthilko</i> ‘mutikoa’
<i>methoda</i> ‘metodoa’	<i>mutu</i>
<i>meza</i>	<i>mustarda</i> ‘ziapea’
<i>mezu</i>	
<i>mia</i> ‘mea, mineralea’	
<i>mihi</i>	
<i>mihimen</i> ‘zumea’	
<i>mila</i> / <i>milakaz</i> / <i>milatan</i>	<b>N</b>
<i>min</i> / <i>minki</i> ‘min handiz’ / <i>minkiago</i>	[ <i>nabaritu</i> ] / <i>nabaritzen</i>
<i>min</i> ( <i>buruko</i> -; <i>erdi</i> -; <i>haur</i> -; <i>-etan</i> )	*[ <i>nabasitu</i> ] / <i>nabasitzen</i>
<i>min-bizi</i> ( <i>bulharretan</i> -) ‘minbizia’	* <i>nagi</i> / <i>nagiz</i> / <i>nagiki</i>
<i>minbera</i>	<i>nagitu</i> / <i>nagituren</i>
<i>ministro</i>	* <i>nahar</i>
<i>mintza(tu) / mintzatze / mintzatzen / min-</i>	<i>nahas(i)</i> / <i>nahasten</i>
<i>zaturen</i> (8) & <i>minzatuko</i> (4)	<i>nahasteria</i> ‘nahasketa’
<i>mintzo</i> (- izan)	<i>nahi</i> 1 (aditzean)
<i>miragarri</i> / <i>miragarriki</i>	<i>nahi</i> 2 (iz) / <i>nahizko</i> (adj)
<i>mirail</i> & <i>miraill</i> ‘ispilua’	* <i>nahibada</i> (17) & <i>nahibadare</i> (1) & <i>nahi-</i> <i>bada ere</i> (3)

<i>nahigabe</i> (iz) / <i>nahigabezko</i> (adj)	<i>obeditu</i> / <i>obeditzen</i>
* <i>nahikunde</i>	<i>obi</i> (1) / <i>hobi</i> (2)
<i>natura</i> ‘izaera’	<i>objet</i> ‘objektua’
<i>natural</i> / <i>naturalki</i>	<i>obligatu</i>
<i>naturaleza</i>	<i>obligazione</i> (12) / <i>obliazione</i> (1)
<i>nausi</i> ‘nagusí’	<i>oboro</i> (3) & <i>aboro</i> (182) ‘gehiago’
<i>nausitu</i> ‘nagusitú’	<i>obra</i>
<i>neholare</i> ‘inola ere’	<i>obratu</i> ‘gauzatu, mamitu, egin’
<i>nehor</i> ‘inor’	* <i>odei</i>
<i>nehor ere...ez</i> ‘inor ere ez’	<i>odio</i> ‘gorrotoa’
<i>nehun</i> ‘inon’	<i>odol</i>
<i>nehun ere ez</i> ‘inon ere ez’	* <i>ofentsa</i> (3) & <i>ofentsu</i> (6)
<i>neke</i> / <i>nekez</i> ‘zaitasunez’	<i>ofentsa(tu)</i> / <i>ofentsatzen</i> / <i>ofentsatuko</i>
* <i>neskato</i>	‘iraindu, laidoztatu’
* <i>net</i>	<i>oferenda</i> (mezaren atal bat)
<i>nezesario</i> / <i>nezesarioki</i>	<i>ofерименду</i>
<i>nezesitate</i>	<i>oferi(tu)</i> (27) & <i>ofri(tu)</i> (21) / <i>oferitzene-</i>
<i>ni</i>	(9) & <i>ofritze-</i> (1) / <i>oferitzen</i> (9) & <i>ofri-</i>
<i>nigar</i> 1 ‘negarra’ / <i>nigarrez</i>	<i>tzen</i> (9) ‘eskaini’
<i>nigar</i> 2 ‘malkoa’	<i>ofiziale</i> 1 ‘langilea’
<i>nigar egin</i> (6) & * <i>nigargite-</i> (1)	<i>ofizier</i> ‘zaintzailea, guardia, menpekoa’
<i>nihaur</i> ‘neroni, neu’	<i>ofizio</i> 1 ‘lanbidea’
<i>noble</i>	<i>ofizio</i> 2 (elizakoak)
<i>noiz</i>	* <i>ogen</i>
<i>noiz eta ere</i> (denborazkoa, 38) & <i>noiz ere</i>	* <i>ogen egin</i>
(1)	<i>ogendun</i>
<i>noizeti noizera</i> ‘noizbehinka’ (1)	<i>ogi</i> 1 ‘jateko ogia’
<i>noizpait</i> / <i>noizpaiko</i> & <i>noizpaizko</i>	<i>ogi</i> 2 ‘garia’
<i>nola</i> / <i>nolako</i> / <i>nolaz</i>	* <i>ohatu</i>
<i>nolako-nahi</i>	<i>ohe</i>
<i>nolerabaiko</i> ‘nolabaiteko’	<i>ohi</i> 1 (aditzekin ohikotasun partikula)
<i>nor</i>	<i>ohoin</i> ‘ebaszalea, lapurra’
<i>nor ere...bait</i> (erlatibozkoa)	<i>ohoinkeria</i>
<i>norat-nahi</i>	<i>ohora(tu)</i> / <i>ohoratzen</i>
<i>norbait</i>	<i>ohore</i> / <i>ohorezko</i>
<i>nun</i> ‘non’	<i>oihal</i>
<i>nunahi den...-n</i> (erlatibozkoa, 2)	<i>oihan</i>
<i>nunbait</i> / <i>nunbaiko</i>	<i>oihu</i> / <i>oibuz</i>
<i>nunti-nahi</i>	<i>oihu egin</i> (4) & <i>oihu ein</i> (2)
<b>O</b>	
<i>o</i> (heiagorazkoa)	<i>oillar</i>
<i>obedient</i> (adj)	<i>okasione</i>
<i>obedienzia</i>	<i>okaztagarri</i> / <i>okaztagarriko</i>
	<i>okupa(tu)</i> / <i>okupatzen</i>
	<i>okupazione</i>
	<i>olio</i>
	* <i>omonier</i>

<i>ondo</i> ‘alboa’ / <i>onduan</i> / <i>ondotik</i> / <i>ondoko</i>	<i>othoitza</i> ‘errezunga’
<i>ondoz ondo</i> ‘bata bestearen ondoren’	<i>otoitzza e(g)in</i> & <i>otoitze egin</i> (1)
<i>onest</i> / <i>oneski</i>	
* <i>onestate</i>	
<i>opinione</i>	<b>P</b>
* <i>orabat</i> (4) & <i>orobat</i> (87) & <i>orobat ere</i> (20)	<i>paga(tu)</i> / <i>pagatzen</i>
<i>orai</i> ‘orain’ / <i>oraiko</i>	<i>pagu</i> ‘ordainketa’
<i>oraidanik</i> 1 ‘hemendik aitzinera’	*[ <i>pairatu</i> ] / <i>pairatzen</i>
<i>oraidanik</i> 2 ‘dagoeneko’	<i>paje</i> 1 ‘zerbitzaria’
* <i>orano</i>	* <i>paje</i> 2 ‘orrrialdea’
<i>orazione</i> ‘otoitzza’	<i>paket</i> ‘paketea’
<i>ordain</i>	<i>pakto</i>
* <i>orde(i)ñu</i>	*[ <i>paleatu</i> ] / <i>paleatzen</i>
<i>ordenario</i> ‘ohikoa’ & <i>ordenariozki</i> ‘ohiz’	<i>parada</i> ‘egokiera’
<i>ordenarioz kanpokua</i> ‘ohiz kanpokoa’	* <i>paradusu</i>
<i>ordenatu</i> ‘manatu, agindu’	<i>paralitiko</i>
<i>ordian</i> ‘orduan’	<i>paratu</i> ‘ezarri, prestatu’
<i>ordre</i> 1 ‘agindua’	<i>pare</i> ‘parekhoa, bezalakoa’
<i>ordre</i> 2 (eliztarren talde berezi bat)	<i>pareta</i> ‘orma’
<i>ordu</i> / <i>orduko</i> / <i>ordukotz</i> / <i>ordutik</i>	<i>pharte</i> ‘alderdia, zatia’ / <i>parteka</i> ‘zatika’
<i>orein</i>	<i>parte</i> (- <i>edun</i> ) ‘zerikustekorik izan’
<i>oren</i> ‘ordua, denbora’	<i>parte egin</i> ‘partaide bilakatu’
<i>orijinal</i>	<i>parte hartu</i> ‘partaide izan’
* <i>orhit</i> / <i>orhitu</i> / <i>orbitzen</i> 1 ‘oroitu’	* <i>parte hun</i>
* <i>orhitu</i> 2 ‘ohartu’	<i>phartekatze</i> ‘zatikatzea, antolaketa’
* <i>orhitzapen</i> (13) & <i>orhitzapen</i> (1)	<i>parteliant</i> ‘partaidea’
<i>oro</i> (551) & <i>horo</i> (1) / <i>oratan</i> (1), <i>orata-rat</i> (2)	<i>pharti-arazi</i> ‘joanarazi’
* <i>orobat</i> (87) & <i>orabat</i> (4) & <i>orobat ere</i> (20)	<i>partida</i> ‘arerioa, etsaia’
<i>ororen burian</i> ‘azken batean’	<i>partikular</i>
<i>orotarat ere</i> ‘halaz ere’ (12)	<i>p(h)arti(tu)</i> 1 / <i>partitzen</i> ‘alde egin, urrundu’
<i>oroz gañeko</i>	<i>partituu</i> 2 ‘banatu, eman’
<i>orrua</i> ‘garrasia’	* <i>parrak igaran</i>
* <i>orzantz kolpu</i>	<i>parropia</i> ‘parroquia’
<i>osagarri</i> (16) & * <i>osogarri</i> (1) ‘osasuna’	[ <i>paseatu</i> ] / <i>paseatzen</i> ‘promenatu’
<i>oso</i> / <i>osoki</i> / <i>osorik</i>	<i>paseu</i> ‘ibilaldia, paseoa’
* <i>ospa</i>	<i>pasione</i>
<i>ostatatu</i> / <i>ostatatzan</i> ‘norbait lo egiteko etxearen hartu’	* <i>pasta</i>
<i>ostatu</i> ‘benta, arrotzak hartzeko egoitza’	<i>pater</i> ‘aitagurea’
<i>ostia</i>	* <i>pati-arazi-</i> / <i>pati-araziko</i>
* <i>osto</i>	<i>patriarka</i>
<i>othoi</i> ‘arren!'	<i>paubre</i> ‘txiroa’ (1) & <i>praube</i> (13)
<i>othoi egin</i> ‘otoitzza egin’	<i>pausatu</i> 1 / <i>pausatzen</i> ‘atseden hartu’
<i>ot(h)oi(tu)</i> / <i>otoitzte</i> / <i>otoitzen</i> / <i>otoituren</i> (1) & <i>otoituko</i> (3)	[ <i>pausatu</i> ] 2 / <i>pausatzen</i> ‘kokatu’
	<i>pausu</i> 1 ‘atsedena’
	<i>pausu</i> 2 (adj) ‘lasaia’ / <i>pauszuz</i> ‘emeiki’

<i>pausurik</i> ‘bakean’	<i>pilura</i> ‘pilula’
<i>pazenzia</i> (29) & <i>pazienza</i> (1)	<i>pindar</i> ( <i>su</i> -) ‘txinparta, inarra’
<i>pazient</i> / <i>pazienki</i>	<i>pintatu</i>
<i>pe</i> ‘beheko alderdia’	<i>pintor</i>
*[pekatu] / <i>pekatzen</i>	<i>piru</i> ( <i>hari</i> -) ‘birua, albainua’
<i>peko</i> ‘menpekhoa’	* <i>pitraill</i> ‘zeharkako habea’
<i>phena</i> ‘nahigabea’ / <i>phenasko</i>	<i>pitz</i> / <i>piztu</i> / <i>pizten</i> ‘biztu’
* <i>phena egin</i> ‘inor atsekabetu’	[ <i>pitzarazi</i> ] / <i>pitzarazte-</i> ‘biztu-arazi’
<i>phenagarri</i>	* <i>pi&lt;ch&gt;oin</i>
<i>phenarazi</i> ‘atsekabetu’	* <i>pizatu</i> (1) & [ <i>phezatu</i> ] / <i>pizatzen</i> (4) & <i>phezatzen</i> (2)
<i>phenatu</i> / <i>phenatzen</i> ‘atsekabetu’	* <i>pizu</i> (adj) ‘astuna’
<i>penitent</i>	<i>pizugallu</i> ‘lasta’
<i>penitenzia</i> & <i>poenitenzia</i>	* <i>plaga</i>
<i>phenos</i> ‘penagarría’	<i>plaka</i> ( <i>plomuzko</i> -) ‘xafla’
<i>pentsaketa</i> (iz) ‘gogoeta’	* <i>plaňu</i> (1) ‘pleinua, kexua, erosta’
<i>pentsaketa ari</i> ‘gogoetan ari’	<i>plaňu</i> (- <i>egin</i> ) (2) & <i>pleňu</i> (- <i>egin</i> ) (1) ‘ke- xatu’
<i>pentsaketa(tu)</i> / <i>pentsaketatze-</i> ‘gogoeta egin’	<i>plaza</i> 1 ‘herrikoa’
<i>pentsamendu</i>	<i>plaza</i> 2 ‘lekuia’
<i>pentsa(tu)</i> / <i>pentsatzen</i>	<i>plazenzia</i> ‘atsegina, plazerra’
<i>penze</i> ‘pentzea, soroa’	<i>plazer</i> 1 (iz)
* <i>peorreria</i>	* <i>plazer</i> 2 (aditzean)
<i>peredikatei</i> ‘predikatzen den lekua’	<i>plazer egin</i> (20) / <i>plazer egite-</i> (7) & * <i>pla-     zergite-</i> (2) / <i>plazer egiten</i> (3)
<i>peredikatu</i> / <i>pheredikatzen</i>	* <i>plazer</i> (* <i>eradun</i> ) ‘plazerra egin, nahia bete’
<i>peredikazale</i> ‘predikatzalea’	* <i>pleinta</i>
<i>perediku</i> (4) & <i>pherediku</i> (1) & <i>prediku</i> (1)	*[ <i>plenitu</i> ] / <i>plenitzen</i> (1)
‘predikua, sermoia’	<i>pleňi</i> (- <i>izan</i> ) (2) ‘kexatu’
<i>perestu</i> ‘prestua, ondratua’ / <i>pherestuki</i>	<i>plomu</i> ‘beruna’
* <i>peretxatu</i> / <i>p(h)eretxatzen</i>	<i>poillitarzun</i> ‘edertasuna’
<i>perfekt</i> (adj) ‘perfektua’ / <i>perfeiki</i>	* <i>populu</i>
<i>perfeitu</i> (ad) / <i>perfeitzen</i> ‘bikaintasuna er- dietsi’	<i>poroanza</i> (4) & <i>poroanxa</i> (2) ‘frogá’ / <i>po-     roanzaz</i> (3) & <i>poroantzaz</i> (2) ‘esperien- tziaz’
<i>perfektione</i>	<i>poroa(tu)</i> 1 ‘probatu, frogatu’ / <i>poroatzen</i> / <i>poroaturen</i>
<i>peril</i> ‘arriskua’	* <i>poroatu</i> 2 ‘ohartu’
<i>perla</i>	<i>por[r]oka-arazi</i> ‘suntsitu’
<i>permesti(tu)</i> / <i>permitetzen</i>	<i>porrokatu</i> ‘suntsitu’
<i>permis</i> (- <i>izan</i> ) ‘zilegi izan’	<i>portu</i> ( <i>itsas</i> -)
<i>permisione</i> ‘baimena’	<i>po(r)tret</i> ‘irudia’
<i>persekuzione</i>	<i>poseditu</i> (adj) ‘deabruak hartua’
<i>persona</i>	<i>possible</i>
* <i>pesa</i>	* <i>possiblez</i> ‘ahalaz’
*[ <i>phezatu</i> ] & <i>pizatu</i> (1) / <i>phezatzen</i> (2) & <i>pizatzen</i> (4)	* <i>pot egin</i>
<i>pietate</i>	
<i>pietategarri</i> ‘errukarria’	
<i>pijuntei</i> ‘usategia’	
< <i>pilarria</i> > ‘habea’	

<i>poxi</i> (- bat) ‘pixka bat, apur bat, amiñi bat’	<i>prootxa(tu)</i> / <i>prootxatzen</i>
<i>pozoïn</i>	<i>prootxos</i> ‘aprobetxagarria’ & <i>probetxos</i> / <i>prootxoski</i>
<i>pozoindatu</i> / <i>pozoindatzen</i>	
<i>pratika</i>	<i>prootxu</i> ‘fruitua, onura’
<i>pratikatu</i>	* <i>propri</i> / <i>propitan</i> (-en -)
<i>praube</i> ‘txiroa’ (13) & <i>paubre</i> (1)	* <i>propitaje</i>
<i>praubetu</i>	[ <i>proposatu</i> ] / <i>proposatzen</i>
<i>praubezia</i>	<i>pro&lt;x&gt;imo</i> ‘lagun hurkoa’
<i>prediku</i> (1) & <i>perediku</i> (4) & <i>pherediku</i> (1)	<i>psalme</i> ‘salmoa’
‘sermoia’	<i>publik</i> ‘ezaguna’ (4) & <i>publiko</i> ‘orokorra, kalteez dihardu’ (4)
<i>prefazio</i> ‘mezaren zati bat’	<i>publikano</i> ‘erromatarren artean zerga biltzalea’
<i>prefazione</i> ‘mezaren zati bat’	<i>publika(tu)</i>
<i>preferenzia</i>	* <i>pulo</i>
<i>prepararazi-</i> / <i>prepararazitzen</i>	<i>pundu</i> ‘atala, alderdia’
<i>prepara(tu)</i> / <i>preparatzen</i>	<i>punimendu</i> ‘zigorra’
<i>preparazione</i>	<i>puni(tu)</i> / <i>punitzen</i> / <i>punituko</i> ‘zigortu’
<i>present</i> (1) ‘bertan izatea’	<i>punizione</i> ‘zigorra’
<i>present</i> (2) ‘oparia’	<i>punta</i> (erhi -)
<i>presenzia</i>	<i>pur</i> ‘garbia’ / * <i>purki</i> ‘berez’
<i>prest</i>	<i>purga</i>
<i>presta(tu)</i> / <i>prestatzen</i>	<i>purgatorio</i>
<i>presumizione</i> 1 ‘hantustea’	<i>pusatu</i> ‘bultzatu’
<i>presumizione</i> 2 (- ko bekathia) (erlijioa)	<i>puska</i>
<i>presundei</i> ‘presondegia, espetxea’	<i>putzu</i>
<i>preziatu</i> (adj) ‘balio handikoa’ / <i>preziatuki</i>	* <i>puvant</i>
‘balio handia emanet’	* <i>puxulu</i>
* <i>prezio</i> 1 ‘salneurria’	
* <i>prezio</i> 2 ‘saria’	
<i>preziski</i> ‘hain zuzen ere, preseski’	
* <i>primezia</i>	<b>R</b>
<i>primu</i> ‘oinordekoia’	<i>realgi</i> & <i>er[r]ealgi</i> ‘egiazki’
<i>prinze</i> ‘printzea’	<i>rebelatu</i>
<i>prinzesa</i>	<i>reflexione</i> & <i>er(r)eflexione</i>
<i>prinzipal</i>	<i>regla</i>
<i>prinzipio</i> ‘oinarria, hatsarrea’	<i>reglatu</i> / <i>reglatzen</i>
<i>proberbio</i>	<i>relijione</i>
<i>probetxa</i> / <i>probetxatu-</i> / <i>probetxaturen</i> ‘apro-	<i>reljjios</i> ‘elizkoria’
betxatu’	[ <i>remarkatu</i> ] / <i>remarkatzen</i>
<i>probetxos</i> (adj) & <i>prootxos</i>	<i>remedio</i> & <i>erremedio</i>
<i>probidenzia</i>	<i>rerootxatu</i> ‘gaitzetsi’
<i>probincia</i>	<i>rerootxu</i> ‘gaitzespena’
<i>prodigo</i> (haur-) ‘sosa erruz gastatzen duena’	<i>resi&lt;gnh&gt;azione</i>
<i>profeta</i>	<i>resolutu</i> & <i>eresoli(tu)</i> / <i>resolituko</i> ‘delibe-
<i>promes</i> ‘agintza, hitza, promesa’	ratu, erabaki’
[ <i>prometatu</i> ] / <i>prometatzen</i> ‘agindu’	
<i>prootxarazi</i> ‘aprobetxarazi’	

*resoluzione* & *er(r)esoluzione*  
*respe(k)tu* & *errespe(k)tu* ‘begirunea’  
*rezebitu* & *errezebi(tu)* / *rezebitze-* / *errezebitzen* / *errezebituko*

**S**

*sabel*  
*sagar*  
*sahets* ‘saihetsa’  
*saint* (1) & *seint* (381)  
*sakramendu*  
*sakramentalki*  
*sakratu*  
*sakrifizio*  
*sakrilegio*  
*sala* ‘etxeko egoitza’  
*salbagarri* ‘salbatzeko aukera ematen duena’  
*salbamendu*  
*salbarazi-* / *salbarazitzen*  
*salba(tu)* / *salbatzen* / *salbaturen* (1) & *salbatuko* (2)  
*salbazale* ‘salbatzailea’  
*salbu* (alg)  
*saldo* ‘multzoa, taldea’  
*saldu* / *saltzen* / *salduko*  
*salhatu*  
*salhazale* ‘salatzalea’  
*saltzale* ‘saltzailea’  
*salutatu* ‘agurtu, diosala egin’  
*samur(tu)* / *samurtzen* ‘haserretu’  
*sanktifiku*  
*saristatu* / *saristatzen* ‘sariztatu’  
*\*sarkura*  
*sarri* ‘laster’  
*sar(tu)* & *sar(thu)* / *sartzen* / *sartuko*  
*sason* ‘garaia’  
*satisfa(tu)* / *satisfatzen*  
*satisfazione*  
*\*satsu*  
*satsukeria*  
*satsutu*  
*segida* / *segidasko* / *segidan* / *segidanago*  
*segi(tu)* / *segitizen* / *segituko*  
*segizale* ‘jarraitzailea’

*segret* (adj) ‘gordea, sekretua’ / *segreki*  
*segretu* (iz) ‘sekretua’ / *segretian* (alg)  
*segur* / *segurki*  
*\*seguranxa* (3) & *segurrainxa* (3) & *segur-tainxa* (9) ‘ziurtasuna’  
*se(g)urta(tu)* / *segurtatzen*  
*sei*  
*seiehun* (1) & *seiheun* (1)  
*seinda* (13) ‘santa’ & *seinta* - (izen berezia darama ondoan) (17)  
*\*seindimendu* (146) & *seindimentu* (1) & *sendimendu* (7)  
*seindi* / *seinditu* (25) & *senditu* (1) / *seindi-tzen* / *seindituko* (2) & *sendituko* (1)  
*seindu* ‘santua’ / *seinduki*  
*seindutarzun*  
*seindutu* / *seindutzen* / *seindutuko*  
*seint* (381) & *saint* (1)  
*seinta* - (izen berezia darama ondoan, 17) & *seinda* (13) ‘santa’  
*señale* (3) / *señale* (3)  
*sekula(n)* / *sekulako* ‘betiko’ / *sekulaz geroz seme*  
*sendo* (adj) ‘sendatua’  
*sendo(tu)* / *sendotzen* / *sendotuko* ‘sendatu’  
*sendozale* ‘sendatzalea’  
*senhar*  
*sentenzia*  
*\*senthatuki*  
*sentsu* 1 ‘adiera’ & *zentsu*  
*sentsu* 2 ‘zentzumen(ak)’ & *zentsu*  
*señalatu* (1) / *señalatzen* (2) & *señalatzen* (2)  
*señale* (3) / *señale* (3)  
*separa(tu)* / *separatzen*  
*serios* / *serioski*  
*serora* ‘moja’  
*sethiatu*  
*sethio*  
*sinagoga*  
*sinheskor*  
*sinhetsarazi*  
*sinhetsi* / *sinhesta* / *sinhesten* / *sinhetsiko*  
*simple* / *simpleki* & *xinpleki*  
*skrupula* ‘eskrupulua’  
*skrupulos* (adj)

	T
<i>so</i> ‘begirada’	
<i>so egin</i> (5) & <i>soin</i> (6) & <i>sogin</i> (58) / <i>sogite</i> /	
<i>sogiten</i> (17) & <i>soiten</i> (8) / <i>soginen</i> (2) &	
<i>soinen</i> (2)	
<i>so egon</i>	
<i>sobera</i>	
<i>sobera etsi</i>	
* <i>sobre</i>	
*[ <i>sobretu</i> ] / <i>sobretzen</i>	
<i>sobrietate</i>	
<i>sofri-arazi</i> / <i>sofri-arazitzen</i>	
<i>sofrikeria</i> ‘sufrikarioa’	
<i>sofri(tu)</i> / <i>sofrizten</i> / <i>sofrituko</i>	
<i>soi&lt;nh&gt;u</i> ‘soinua’	
<i>sokorri</i> ‘sorospena’	
<i>sokorri(tu)</i> / <i>sokorritzen</i>	
* <i>solamente</i>	
<i>soldado</i>	
<i>solido</i>	
* <i>sordeitx</i> (5) & <i>sordetx</i> (1) & <i>sordeitz</i> (2)	
/ <i>sordeizten</i>	
* <i>sordetxena</i>	
<i>sorhaiotarzun</i> ‘sentikortasunik eza’	
* <i>sori</i>	
<i>sor(tu)</i> / <i>sortzen</i>	
<i>sortzapen</i> ‘jaiotza’	
* <i>sos</i>	
<i>soseu</i> ‘sosegua’	
<i>spiritu</i>	
<i>su</i> / <i>sutan</i>	
<i>su-azi</i> ‘txingar xehea, hausberoa’	
<i>subito</i> ‘bat-batekoa’ / <i>subitoki</i>	
<i>substanzia</i>	
* <i>suergaraiteko</i> (1) & <i>suergaraitiko</i> (1)	
<i>suerte</i> ‘mota’	
<i>suertez</i> ‘zoriak eraginik’	
<i>suge</i>	
<i>sujet</i> 1 ‘gaia’ (1)	
<i>sujet</i> 2 ‘loturik egin, meneko izan’ (2)	
<i>sukar</i>	
<i>superior</i> (eliz-kargua)	
<i>suplizio</i>	
* <i>suspetxa</i>	
<i>sustenga(tu)</i> / <i>sustengatzen</i>	
<i>sustengu</i> ‘bermea’	
<i>suthei</i> ‘sutegia’	
<i>tabla</i> ‘taula’	
* <i>thaik gabe</i> (2) & <i>thaiik gabe</i> (3) ‘etengabe’	
* <i>thaka</i>	
<i>talendu</i> (1) & <i>thalentu</i> (2) ‘gaitasuna, ta-	
lentua’	
<i>tapa(tu)</i> / <i>thapatzen</i> ‘estali’	
<i>tapiz</i>	
<i>thema</i> ‘setakeria’	
* <i>tendre</i> / * <i>tendreki</i>	
* <i>tendrezia</i>	
<i>tenore</i> ‘garaia’ / <i>tenorez</i> ‘garaiz’ / <i>tenorezag</i>	
<i>tenpesta</i> ‘ekaitza’	
<i>tenplu</i> (6) & <i>tenplo</i> (1)	
<i>tentatu</i> / <i>tentatzen</i>	
<i>tentazione</i>	
<i>theolojia</i>	
<i>theolojien</i>	
* <i>thermiño</i> (4) & <i>thermino</i> (1)	
* <i>teula</i>	
* <i>thimiama</i>	
* <i>thini</i>	
[ <i>thiratu</i> ] / <i>thiratzen</i> ‘tiratu, tiro egin’	
* <i>thiraz(a)</i>	
* <i>thona</i>	
<i>thonatu</i>	
<i>tindatu</i>	
<i>tinki</i> ‘hertsiki, tinkotasunez’	
<i>tonba</i> ‘hilobia’	
<i>tormenta</i> ‘suplizioa, oinazea, nekea’	
[ <i>tormentatu</i> ] / <i>tormenitatzen</i> ‘samiindu, atse-	
kabetu’	
<i>trabaillatu</i> / <i>trabaillatzen</i> ‘lan egin, egi-	
nahala egin’	
<i>trabaillu</i> ‘lana, eginahala’	
<i>traditu</i> ‘trazioa egin’	
* <i>tradizale</i>	
<i>trafik</i> ‘negozioa’	
<i>tranfigurazione</i>	
<i>tratamendu</i>	
<i>tratatu</i> / <i>tratatzen</i>	
<i>tratu</i>	
<i>trenpatu</i> / <i>trenpatzen</i> ‘beraztu’	
<i>tresor</i> ‘altxorra’	
<i>trista(tu)</i> / <i>tristatzen</i>	

<i>triste</i>	<i>urbats</i> ‘urratsa’
<i>tristura</i>	<i>*urbe</i> / <i>urrezko</i>
<i>tronpa(tu) / tronpatzen</i> ( <i>engena edo -</i> ) ‘en-gainatu, iruzur egin’	<i>*urhentze</i> (1) & <i>urrentze</i> (1)
<i>tronperia</i> ‘engainua’	<i>urkabe</i>
<i>tronpeta</i>	<i>urkarazi</i>
<i>tronu</i>	<i>urkatu</i> / <i>urkatzen</i>
<i>turko</i> ‘turkiarra’	<i>uros</i> ‘zoriontsua’ / <i>uroski</i>
<b>TT</b>	
<i>ttipi</i> ‘txikia’ / <i>ttipitto</i> ‘txikitxoa’	<i>urositate</i> ‘zoriona’
<i>ttipitu</i> / <i>ttipitzen</i> ‘txikiagotu’	<i>urratu</i> / <i>urratzen</i>
<b>U</b>	
<i>*uhaitz</i>	<i>urrikari</i> ‘errukarria, urrikalgarria’
<i>uharre</i> (1) & <i>uherre</i> (1) ‘uharra’	<i>urrin</i> ‘usaina’
<i>ukaldi</i> ( <i>hats -</i> ) ‘arnasaldia, hats kolpea’	<i>urrindatu</i> ‘zerbaitek usain txarra hartu’
<i>ukarai</i> ‘eskumuturra’	<i>urrun</i>
<i>ukatu</i> / <i>ukatuko</i>	<i>urrunt</i> / <i>urrundu</i> / <i>urruntzen</i> / <i>urrunduko</i>
<i>ukan</i> / <i>ukeiten</i> / <i>ukenen</i> ‘izan, eduki’	<i>urt(h)e</i>
<i>umazurtz</i> ‘umezurtza’	<i>urzo</i> ‘usoa’
<i>umil</i> / <i>umilgi</i> ‘umilki’	<i>usainxa</i> ‘ohitura, usantza’
<i>umiliarazi</i>	<i>usatatu</i> / <i>usatzen</i> ‘ohitu, ohiz baliatu’
<i>umilia(tu) / umiliatzen</i> / <i>umiliaturen</i>	<i>uspeldu</i> ‘ubeldu’
<i>umilazione</i>	<i>uste</i> (iz)
<i>umilitate</i>	<i>uste</i> (- uken) ‘uste izan’
<i>umiltarzun</i>	<i>ustegabeko</i> ‘itxaron gabeko’ / <i>ustegabian</i> ‘us-tekabean’
<i>*umore</i> (anatomia)	<i>ustekunde</i> ‘itxaropena, ustea’
<i>undar</i> ‘hondarrak, hondakinak’	<i>ustel</i>
<i>ungendu</i> ‘ükendua’	<i>usteldu</i> / <i>usteltzen</i>
<i>unide</i> ‘inudea’	<i>usteldura</i>
<i>unione</i>	<i>usu</i> 1 (alg)
<i>unitu</i> / <i>unitze-</i> ‘elkartu’	<i>usu</i> 2 (adj)
<i>untsa</i> (alg) / <i>untsatan</i> / <i>*untsa</i> (iz)	<i>*usustamendu</i>
<i>untzi</i> ‘ontzia’	<i>*usustatu</i> / <i>usustatzen</i>
<i>*ur</i>	<i>utsu</i> ‘itsua’
<i>urde</i> ‘zerria’	<i>utsumendu</i> ‘itsutasuna’
<i>urde kunde</i> ‘zerrien kategoria, espeziea’	<i>utsutu</i> / <i>utsutzen</i>
<i>urgulu</i> ‘harrotasuna’ & <i>urgullu</i> (1) / <i>urguluzko</i> (8) & <i>urgulezko</i> (1)	<i>utzaraz</i> / [utzarazi] / <i>utzarazten</i>
<i>urgulutsu</i>	<i>utz(i)</i> / <i>utzite-</i> (1) / <i>uzten</i> (28) / <i>utziren</i> (1) & <i>utziko</i> (4)
<i>urgulutsutu</i> / <i>urgulutsutzenago</i>	<i>/ uzkaltze-</i> ‘iraultzea’
<b>X</b>	
	<i>xaha(tu) / xahatzen</i> / <i>xahatuko</i> ‘garbitu’
	<i>xahu</i> ‘garbia’
	<i>xahutarzun</i>
	<i>*xar</i> / <i>xarki</i>

xarmagarri	'zoragarria'	zamari	'zaldia'
xartruz	'fraide kartusiarra'	zango	'hanka'
xedatu		*zatitu / zatitzen	
xede		zauri	
xehe		*zaurthu / zaurtzen	
xehekatu	/ xehekatzan	zazpi	
xehetarzun		zazpitán	'frankotan' (mintzo biblikoa)
xerka	'bila'	zedarri	'mugarria'
xerkarazi-	/ xerkaraziten	zelo	'sua, garra, grina' (erlijioa)
xerka(tu)	/ xerkatzen	zelu	'zerua'
*xerku		zenturion	
xerkun	(- ibili, ari)	zentsu 1 & sentsu	'adiera'
xilarazi		zentsu 2 & sentsu	'zentzumen(ak)'
xila(tu)	/ xilatzen	zentzu	'kanorea, funtsa, zuhurtasuna'
xilintxaka	'zintzilik'	zer	
xilintxau	'zintzilik'	zer ere...bait	(erlatibozko)
xilinta	'txilintxa, txilina'	zerbait	
xilo	'zuloa'	zerbitxarázi	/ zerbitxarázitzen
ximiko	'atximurra, imurtxia'	zerbitxari	
ximista	erdal	zerbitxa(tu)	/ zerbitxatzen
ximpleki	& simpleki	zerbitxatuko	'zerbitzatu'
*xoil	/ xoilkia	zerbitxu	'zerbitzua'
xoko	'txokoa'	zeremonia	
xori	'txoria'	zerendako	'zertarako'
xorta	'tanta'	zergatik	
*xorte	/ xorthez	zernahi (11)	& zernahi den (15)
xortela	'tanta'	*zertako 1	'zertarako'
xothil	erdal	*zertako 2	'zergatik'
	'subtil / util' / xothilki	zerratu 1	/ zerratzen
	'iaiotasunez, trebeziaz'	hertsia'	
xuri	'zuria'	zerra(tu) 2	/ zerratzen
xuxen		barne hartu, gorde,	
xuxent	/ xuxentzen	sartu'	

**Z**

zabal(du)	/ zabalzen	/ zabalduko	/ zabalik	ziflet	'masailekoa, belarrondokoa'
zahar				zihaur	'zuhaur, zerori'
zahartu				zilatu	/ zilatzen
zain	'beta'	(geologia)		zilhar	
zaku				zilizio	
zalhu 1	(adj)	'malgua'		zilo	'zuloa'
zalhu 2	(adj)	'arina'		zimendu	
[zalhutu] 1	/ zalhutzen	'malgutu'		[zimurtu]	/ zimurtzen
[zalhutu] 2	/ zalhutze-	'arinago bilakatu las-		zin egin	
		terrago joan ahal izateko'		zin-zinez	
				zinta	(burdiñasko -)
				zintatu	/ zintatze
					(erraiñak - zilizioz)

<i>zintzurren</i> (- egite-) ‘lepoa moztu’	<i>zuhurtarzu</i>
<i>zirkonzione</i>	<i>zuhurtzia</i> ‘zuhurtasuna, jakituria, jakitatea’
<i>zirkonzisitu</i> ‘erdaindu’	<i>zunbait</i> ‘zenbait’
<i>zoin</i> ‘zein’	<i>zunbat</i> ‘zenbat’ / <i>zunbatez</i>
<i>zoin ere...bait</i> (erlatibozko)	<i>zunbat-nahi</i>
<i>zoin-nahi</i>	<i>zunbat ere</i> ‘nahiz eta’
<i>zoñen</i> ‘zeinen’ (graduatzalea)	<i>zunbat ere... hanbatenaz</i>
<i>*zoñenbeste</i>	<i>zunbatenaz ere... hanbatenaz (ere)</i>
<i>zola</i>	<i>zur</i>
<i>zor</i>	<i>*zurthaje</i>
<i>zordun</i>	<i>*zurtate</i>
<i>zorbi</i> / [zorhitu] / <i>zorhitzen</i> ‘ondu, umotu’	<i>zurubi</i> ‘esku-eskailera’
<i>zorbi-arazi</i>	<i>zuti</i> ‘zutik’
<i>zortzi</i>	[ <i>zutitu</i> ] / <i>zutitzen</i>
<i>zu</i>	<i>zuzen</i> ‘eskubidea’
<i>zuhur</i> 1 ‘jakintsua’	<i>zuzen</i> (- <i>edun</i> ) ‘eskubidea izan’
<i>zuhur</i> 2 ‘zentzuduna’ / <i>zuhurki</i>	<i>zuzenetan</i> (- <i>izan</i> ) ‘eskubidea izan’

#### 2.6.2.2. *Suarés d'Aulan-en onespeneko hitzak*

<i>*ahulgu</i>	<i>*morde</i>
<i>*diozesia</i>	<i>ohi</i> 2 (adj, izandako kargua adierazteko)
<i>Heuskal Herri</i>	<i>sekretari</i> ‘idazkaria’
<i>molde</i> 2 ( <i>letra</i> -) / <i>moldeko</i> (- <i>letra</i> )	<i>*uztaill(a)</i>

#### 2.6.2.3. *d'Abense-ren onespeneko hitzak*

<i>bikari</i> ‘bikarioa’	<i>martxo</i>
<i>erosbide</i> ‘erosteko bidean, moduan’	<i>ofizial(e)</i> 2 ‘elizako kargua’
<i>Jutsian</i>	<i>*si&lt;gn&gt;atu</i>
<i>laburtarzu</i>	<i>titulu</i>

#### 2.6.2.4. *Izen bereziak*

Leku edo pertsona izen berezia kasu atzikirik gabe doanean letra arruntean eman dugu, baina kasu marka daramanean letra etzanean.

Bestalde, leku izen eta izen berezien atal honetan ere, liburuan ohiko diren grafia arazo eta bikoizketak ditugu oro har. Transliterazioa egitean helburua formak ahalik eta gutien ukitzea izan da, betiere Euskaltzaindiak agintzen duenaren arabera jokatutik, baina *cc*, *ch*, *ll*, *mm*, *nn*, *th*, *tt*, *v* eta *y* grafia berdin utzirik, etimologia arrazoiak edo tradizio grafikoaren indarra direla medio; hots eta grafia arteko arazoak saihes-teko ez dugu *g* letra aldatu; hona aldaketen taula:

<ou> → <u>  
 <ça, ço, çu> → <za, zo, zu>  
 <ce, ci> → <ze, zi>  
 <ca, co, cu> → <ka, ko, ku>  
 <ph> → <f>  
 <qu> → <k>  
 <lh> → <ll>  
 <mb, mp> → <nb, np>

<nh, gnh> → <ñ>  
 <ss> → ? (konplexua da, cf. *assirienen*,  
*Thessalonikakuer* vs. *Rodriguessen*)  
 <z> → <s> (bakan zenbaitetan; esate batera,  
*Ezpaghnatic*, *Heuzcal Herrico*,  
*heuzkaldunaren*, *Judaz*, *Tobiaz*, *Zozima*  
 erako adibideetan)

#### 2.6.2.4.1. Leku izenak

Afrika, <i>Afrikalat</i>	<i>Jordaneko</i> (- <i>uhaitza</i> )
<i>Akizeko</i>	<i>Judako</i>
<i>Akinakua</i> ( <i>Aquinum</i> )	<i>Jutsian</i> , <i>Jutsiako</i>
<i>Anglaterrako</i>	<i>Kanako</i>
<i>Aragunako</i> ( <i>Aragoi</i> )	<i>Konstantinoplan</i>
<i>Aversako</i>	<i>Korinthako</i> & <i>Korinthiakuer</i>
<i>Aviñonen</i>	<i>Montefalkonen</i> ( <i>Montefalco</i> )
<i>Barzalonako</i>	<i>Naplaseko</i> ( <i>Napoli</i> )
<i>Cantorberiko</i>	<i>Narniko</i>
<i>Castillako</i>	<i>Nazianzakua</i> ( <i>Nazianzus</i> )
<i>Efremeko</i> (- <i>hirirat</i> )	<i>Nizakua</i>
<i>Egiptako</i> & <i>Egiptoko</i> , <i>Egiptorat</i> , <i>Egiptotik</i>	<i>Olibetako</i> & <i>Olivetako</i> (- <i>baratzian</i> )
<i>Erruman</i> , <i>Errumako</i> , <i>Errumala</i> , <i>Errumal-</i>	<i>Oxfordeko</i>
<i>lat</i> & <i>Romako</i>	<i>Portugaleko</i>
España	<i>Rabbako</i>
<i>Florenzako</i>	<i>Romako</i> & <i>Erruman</i> , <i>Errumako</i> , <i>Errumala</i> ,
<i>Grenadako</i> ( <i>Granada</i> )	<i>Errumalat</i>
<i>Grenoblako</i>	<i>Samariako</i>
<i>Grezia</i> , <i>Greziako</i>	<i>Saxakuak</i> ( <i>Saxonia</i> )
<i>Heuskal Herriko</i>	<i>Sienakuak</i>
<i>Hiponako</i>	<i>Sioneko</i> (- <i>borthia</i> )
<i>Hongriako</i> & <i>Hungriako</i>	<i>Sodomatik</i>
<i>Horebeko</i> ( <i>Horeb mendia</i> )	<i>Talaverakuaz</i>
< <i>Iseraeleko</i> & <i>Izeraeleko</i> >	<i>Troyes</i>
<i>Istriako</i>	<i>Tyberiadeko</i> (- <i>itsasuan</i> )
<i>Italietan</i>	<i>Thesalonikakuer</i>
<i>Jerikotik</i>	<i>Zistauko</i> (- <i>ordre</i> )
Jerusalem, <i>Jerusalem</i> , <i>Jerusalemeko</i>	

#### 2.6.2.4.2. Gentilizioak

<i>ammonitak</i>	<i>kananeako emaztia</i>
<i>asirienen</i>	<i>machabeen</i>
<i>damaszenakua</i>	<i>moabitak</i>
<i>galatakuak</i>	<i>filistheenek</i>
<i>heuskaldunaren</i>	<i>tridentineko</i> (- konzilio)

#### 2.6.2.4.3. Liburuaren inguruko pertsona izen bereziak

Philippe d'Abense	(Aita) Alfonsa Rodriguez & Alfonsa <i>Rodri-</i>
Antonio Aubanel	<i>guessen</i>
Bonneau	Louis-Marie de Suarés d'Aulan & Louis-Ma-
Charlez Augusta <i>Kieni</i>	ria de Suarés d'Aulan & Suarez d'Aulan
	Abbé Vigneau

#### 2.6.2.4.4. Liburuaren barreneko pertsona izen bereziak

Abakuk & Habakuk	<i>Danieli</i>
<i>Abrahami</i>	David & <i>Davitek</i>
Absalon	Demokles
<i>Achaben</i>	Diogena & <i>Diogenek</i>
Adam	Dositea
<i>Aita Aquavivak</i>	Elias & <i>Eliak</i>
Aita Araoz	Elisea
<i>Atta Avilak</i>	<i>Estherrek</i>
Aita Fevre	Euseba
<i>Akanek</i>	Eustokium
Akior	<i>Evari</i>
<i>Albert Handiak</i>	<i>Ezechiasen</i>
Ama Virginia	Ezequiel & Ezekiel
Anastase	<i>Ferdinantek</i>
Andardana Maria (- <i>Portiunkulakuaren</i> )	Filipe bigerrenra
Antiochus	<i>Geminiren</i>
Areopagita	Gerson
Aristote	Gillas & Gillas (frantsesez <i>Gilles</i> , gaztelaniaz <i>Gil</i> )
Aser	Guimond
<i>Assueri</i>	Habakuk & Abakuk
Attila	Hernand
<i>Azariasek</i>	Hesichius
Beda	Hierothea
Bernat	Hugas Saint Viktor (frantsesez <i>Hugues de</i>
Bernat Kintaval	<i>saint Victor</i> , gaztelaniaz <i>Hugo de S. Vic-</i>
<i>Blanchak</i>	<i>tor</i> )
Blosius	

Hunna	<i>Mifibosetek</i>
Isak	<i>Moises &amp; Moisek &amp; Moisari</i>
Isaia & Isaya	<i>Nabukod(h)onosorrek</i>
<i>Isabelak</i>	Nikolas
Jakes	Nizefora Calixta
<i>Jakopek</i>	Oloferna
Jeremia	Pafnuza
Jesu-Christo	Paule
Jesus	<i>Pia Bigerren (- Aita Seindiak)</i>
<i>Jezabelen</i>	<i>Platonek</i>
Joab	Posidoine
<i>Joane Paulek</i>	Rafael
Joan(n)es (- virginak)	Rupert
Joannes (- Egiptako abade seindia)	Salamon
Job & Jop	Samson
<i>Jonathasen</i>	<i>Samuelek</i>
Josafat	Satan
<i>Jose&lt;ph&gt;en</i>	Silvestre
Juda Maccabea	<i>Sokratek</i>
Judas	Surius
Judith	<i>Tertullianek</i>
Justinien	Thais
Kasius	<i>Thomas a-Kanpisek</i>
Kasien & <i>Kasianek</i>	Tobias & <i>Tobiak</i>
Leon	Totila
Lipomam	Uria
<i>Lothen</i>	Zacharia & Zakaria
Ludolfa	<i>Zacheak</i>
Luis Franzisko	Zelestin
(Maria) Ma(g)dalena	Zesaire
Maria (Portugaleko prinzena)	Zosima (frantsesez <i>Zozime</i> , gaztelaniaz <i>Zósimo</i> )
<i>Mendosak</i> (kardinale -)	
Michea & Micheo	

#### 2.6.2.4.5. Saindu izenak

Joandene Jakobe	<i>Seint Anselmak</i>
Joandene Jo(h)an(n)e Batista & Joandene Jo(h)anne (-) Baptista	Seint Antoni & Seint Antonio
Joandene Jo(h)anne Evangelista	Seint Antonin (Florenzako archapezpikia)
Joandene Paule	<i>Seint Athanasek</i>
Joandene Petiri	Seint Augustin
<i>Seint Anbrosiak &amp; Seint Anbrosiek &amp; Seint Anbrosiok</i>	Seint Barthelemi <i>Martirenak</i>
Seint Andre	<i>Seint Basilak &amp; Seint Basiliok</i>
	<i>Seint Benuetek</i>
	Seint Bernat

Seint Bonaventura	Seint Jean <i>Klimakakuak</i> & Seint
Seint Chrisostoma	Jean <i>Klimakusek</i>
Seint Denis	<i>Seint Jeromak</i>
Seint Dominika	<i>Seint Klementez</i>
<i>Seint Dorotheak</i>	Seint Laurenz <i>Justinienek</i>
Seint Edmond	<i>Seint Leonek</i>
<i>Seint Efrenek &amp; Seint Efremek</i>	Seint Loup
<i>Seint Franzesek</i>	<i>Seint Lukek</i>
Seint Franzes <i>Borgiasek</i>	Seint Matheu
Seint Fulgenza	Seint Mathias & <i>Seint Mathiaren</i>
Seint Gregorio	Seint Nila & <i>Seint Nilek</i>
Seint Gregorio <i>Nazianzakuak</i>	Seint Pierra <i>Zelestinek</i>
Seint Gregorio <i>Nizakua</i>	Seint Thomas <i>Akin(h)akuak</i>
(Seint) Gregorio <i>Toursekuak</i>	Seint Thomas <i>Cantorberrikuarendako</i>
<i>Seint Hilariok</i>	Seint Thomas <i>Villenuvakuak</i>
<i>Seint Hilarionek</i>	Seint Vast
Seint Hugas	<i>Seint Vizentek</i>
Seint Ignazio	<i>Seint Ziprianek</i>
<i>Seint Isidorak</i>	<i>Seint Zirilak &amp; Seint Zirillek</i>
Seint Jean <i>Damaszenakuak</i>	

#### 2.6.2.4.6. Seinta izenak

Seinta Elizabeth	<i>Seinta Kleraren</i>
<i>Seinta Gertrudari</i>	<i>Seinta Liduvinaren</i>
Seinta Katharina <i>Siennakuak</i> & Seinta	Seinta Margarita
Katherina <i>Siennakuak</i>	<i>Seinta Mekthildari</i>

## Bibliografia

- Agirre, P., 1996, *Athanase Belapeire: Catechima laburra (1696). Autorearen garaia, nor-tasuna eta idazlanak. Grafiak eta fonologia. Edizio kritikoa eta hiztegia*, UPV/EHUko doktoretza tesi argitaragabea.
- , 2001a, “Belapeireren grafiak”, *ASJU* 35/1, 299-361.
- , 2001b, “Catechima laburra, zubereraren ezaugarri fonologikoen lekukoa”, *ASJU* 35/2, 653-787.
- Akesolo, L., 1982, “Aditz-izena Lopez idazlearen liburuan”, *Euskera* 27/2, 443-446.
- Alberdi, J., 1996, *Euskararen tratamendua: erabilera*, Iker 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Aldai, G., 1998, “A propósito del aoristo vasco”, *FLV*79, 377-386.
- , 2008, “Sobre el significado arcaico de las formas con prefijo *l-*: su uso en Lazarraga”, *FLV*108, 301-327.
- Arejita, A., 2008, “Kapanagaren dotrina”, in M. O. Kapanaga, *Dotrina christiñauena*, La-bayru, Bilbo, vii-lv.

- Azkarate, M. & P. Altuna, 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Elkarlanean, Donostia.
- Bouda, K., 1948, "Les formes respectueuses du verbe mixain", *Eusko Jakintza* 2, 595-615.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Irunea.
- , 2004, "Nafarroa Behereko euskara", *FLV* 97, 445-486.
- , 2008, "Nafarroa Behereko euskara zaharra", *ASJU* 42/1, 101-169.
- , 2009a, "Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan", *FLV* 111, 153-218.
- , 2009b, "Hizkuntza-aldakortasunari Amiküzetik so", *Lapursum* 13, 61-80.
- Catach, N., 1986, *L'orthographe française*, Nathan, Paris.
- , 2001, *Histoire de l'orthographe française*, Honoré Champion, Paris.
- Darricarrère, J. B., 1911, "Le livre basque intitulé: *Onsa hilceco bidia* "Le moyen de bien mourir", *RIEV* 5, 14-46.
- Encinar, K., 2008, "Lapurdiko Aturriko euskara: Bardozeko ü bokalaz", *Euskera* 53/2, 383-395.
- Epelde, I., 2003, *Larresoroko euskara*, UPV/EHUko doktoretza tesi argitaragabea.
- Etxarren, J.- B., 1976, "Euskal literatura Baxenafarren", *Euskera* 21, 259-265.
- , 1976, "Litterature bas-navarraise", *Euskera* 21, 265-269.
- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-V (mendeko perpausak 1)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2008-2012, *Euskal Herri Hizkeren Atlaia I, II, III eta IV*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Grosclaude, M., 1987, "L'évolution comparée de la scripta et de l'écrit littéraire béarnais du XVIII<sup>e</sup> s. à la Révolution de 1789", in R. Cierbide (arg.), *Pirenaico navarro-aragonés, gascón y euskera*, UPV/EHU, Bilbo, 277-294.
- Haase, M., 1994, "Amikuzera", in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJU-ren Gehigarriak* 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 173-187.
- Haristoy, P., 1982, *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire*, Harriet, Baiona.
- Hualde, J. I., 1993, "Topics in Souletin Phonology", in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 289-327.
- Intxausti, J., 1995, "Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), erreforma-kontrarreformetako ilun-argitan", *RIEV* 40, 119-160.
- Irigoyen, A., 1975, "Done Miliaga Kukullakoa eta euskara", *Euskera* 20, 161-186.
- , 1985, "Euskarazko izen-sintagma mugatzailerik gabekoez", *Euskera* 30/1, 129-139.
- Jaureguiberry, C. de, 1953-7, "Le verbe basque souletin", *Eusko Jakintza* 7, 69-84.
- Lacombe, G., 1931, "Le traducteur de Rodriguez et son dialect", *Gure Herria* 11, 68-69.
- , 1947, "Les traductions basques de St. Mathieu (de 1856 à 1869)", *Eusko Jakintza* 1, 289-294.
- Lafitte, P., 1977, "Koska eta entterka Heletan", *Euskera* 22, 138-139.
- , 1979 [1944], *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Elkar, Donostia.
- , 1981, "Joakin Lizarragaren euskalkiak Ipar-Euskadikoekin dituen kidetasun zenbaitez", in *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*, Iker 1, Euskaltzaindia, Bilbo, 403-404.
- , 1982, "Alfonso Rodriguez Jesusen Konpañako aitaren *Giristiño perfetzioniaren praktika-rengue bat heuskarala itzulia, heuskara bezik eztakitenendako*", *Euskera* 27/2, 437-442.
- Lafon, R., 1951, "La langue de Bernard Dechepare", *BAP* 7, 309-338.
- , 1962, "Sur la voyelle ü en basque", *BSL* 57, 83-102.
- , 1972, "Joanes Leizarraga, itzularia eta idazlea", *Euskera* 17, 148-154.

- , 1980 [1943], *Le système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle*, Elkar, Donostia & Baiona.
- , 1999, *Vasconiana*, Iker 11, Jean Haritschelhar eta Pierre Charritton (prest.), Euskal-tzaindia, Bilbo.
- Lakarra, J. A., 2006, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco”, in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask*, ASJU 40/1-2, 561-621.
- Manterola, J., 2009, “Erakusleak berreraikitzen: arazoaren beste alderdi bat”, *Lapurdum* 13, 261-275.
- , 2012, “-a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan”, in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, UPV/EHU, Gasteiz, 71-95.
- Mitxelena, K., 1977 [1961], *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren Gehigarriak 4, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Mounole, C., 2006, “Quelques remarques à propos de l'histoire des périphrases basques”, in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask*, ASJU 40/1-2, 723-738.
- , 2010, “Alineazio aldaketak euskararen diakronian”, in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, ASJU-ren Gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 151-169.
- , 2011, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*, UPV/EHU & Bordeaux III-ko doktoretza tesi argitaragabea.
- & R. Gómez, 2012, “Euskara zahar eta klasikoa”, in I. Igartua, J. Gorrochategui & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, argitaratzeko.
- Mujika, J. A., 2002, *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*, UPV/EHU, Bilbo.
- N'Diaye, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague & Paris.
- Oihartzabal, B., 1992, “Elizanburu kondatzailearen euskara”, *Euskera* 37/1, 231-245.
- , 1997, “Hiru aditz aurizki zahar 16. mendeko testuetan”, *Lapurdum* 2, 45-62.
- , 2001a, “Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)”, *Litterae Vasconicae. Euskeraren iker atalak* 8, 9-46.
- , 2008, “Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepare Erdi-Aroko autore?”, in *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Iker 21, Euskaltzaindia, Bilbo, 491-521.
- Orpustan, J.-B., 1994, “Les noms des maisons dans la toponymie médiévale”, in P. Bidart (biltz.), *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 193-218.
- , 1998, “Sur la littérature de langue basque au XVIII<sup>e</sup> siècle”, *Lapurdum* 3, 229-239.
- Padilla, M., 2013, “Euskararen laguntzaile ahantzia: \*iron aditzaren historia”, *FLV* 116, 131-169.
- Pikabea, J., 1993, *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- Rebuschi, G., 1997, “Remarques sur le pronom *Haina*”, *Lapurdum* 2, 63-81.
- Rijk R. P. G. de, 1980, “Erlatiboak idazle zaharrengan”, *Euskera* 25/2, 525-536.
- Santazilia, E., 2010, “Un retrato del artículo vasco en el año 1895 mediante el programa VDM”, in G. Aurrekoetxea & J. L. Ormaetxea (arg.), *Tools for linguistic variation*, ASJU-ren Gehigarriak 53, UPV/EHU, Bilbo, 175-205.
- Sarasola, I., 1991 [1986], “Elissamburu”, in *Jean Baptiste Elissamburu. Piarres Adame*, Elkar, Donostia, 21-28.

- Sommervogel, C., 1960 [1895], *Bibliothèque de la Compagnie de Jésus*, Editions de la Bibliothèque S. J., Lovaina.
- Urgell, B., 2001, "Sarrera", in Fr. Pedro Antonio Afibarro, *Gueroco guero*. Edizio kritikoa, Euskararen lekuoak 22, Euskaltzaindia, Bilbo, xv-ccix.
- , 2006, "Para la historia del sustantivo verbal en vasco", in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask*, ASJU 40/1-2, 921-948.
- Videgain, X., 1983, "Alokutiboa Lopez-engan (1782)", in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Iker 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 625-646.
- , 1991, "Lexiaren inguruan Euskal Herriko atlas linguistikoaren inkestagintzan", in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum (II)*, ASJU-ren Gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1059-1092.
- Villasante, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*, 2. argit., Aranzazu, Burgos.
- , 1982, "Lopez idazlearen omenez", *Euskera* 27/2, 433-435.
- Zink, G., 1986, *Phonétique historique du français*, PUF, Parise.
- Zulaika, E., 1999, *Ioanes Leizarragaren aditza*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

## Corpusa

- Agirre, P., 1998, "Pronus singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Evangelium populo legendus", ASJU 32/1, 1-46.
- Altuna, P., 1979, *Etxepararen hiztegia*, Mensajero, Bilbo.
- Arana, A., 2001, *Zaraitzuko hiztegia. Zaraitzuera-euskara batua. Euskara batua-zaraitzuera*, Hiria & Nafarroako Gobernua, Alegia & Iruñea.
- Aranzadi Zientzia Elkartea, 1990, *Euskalerriko atlas etnolinguistiko* [EAEL], Aranzadi, Donostia.
- Aresti, G., 1972, "Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous, en sus traducciones vascas de 1571", FLV11, 157-194.
- , 1973, "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", FLV13, 61-128.
- Argaiñaratz, P., 1978 [1665], *Devoten breviarioa*, Hordago, Donostia.
- Arxu, J.-B., 1979 [1868], *Bi mihiren gramatika. Uskara eta francesa*, Hordago, Donostia.
- Arzamendi, J. & M. Azkarate, 1983, "Léxico de los refranes de B. de Zalgiz", ASJU 17, 265-327.
- Axular, 1954 [1643], *Gero*, Manuel Lekuonaren edizioa, Itxaropena, Zarautz.
- Belapeyre, A., 1696, *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia, sal-vatu içateco*, Jérôme Dupoux, imprimatuliaz eguna, Pauven.
- Berain, J., 1980 [1621], *Tratado de como se ha de oyr missa*, Hordago, Donostia.
- Bilbao, G., 1996, "Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa pastorala* (1793)", ASJU 30/1, 239-332.
- , R. Gómez, J. A. Lakarra, J. Manterola, C. Mounole & B. Urgell, 2010, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, UPV/EHU, Gasteiz. Interneten eskuragarri: <http://www.lazarraga.com>
- Bonaparte, L.-L., 1991, *Opera omnia vasconice*, 4 liburuki, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Cazenave, Abbé, 1999, *La doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque bas-navarrais-mixain, tel qu'il est parlé à St. Palais*, in Pagola et alii, 1999a, 223-246. [Donap kat]

- , 1999, *La doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque bas-navarrais-arberouan, tel qu'il est parlé à St. Martin d'Arberoue*, in Pagola et alii, 1999a, 251-274. [Donam kat]
- , 1999, *Girichtino-dotrina edo katichima. Aita Gaspar Astete Jesuistak españolez ickiatia, Donibane Garaziko heskuararat itzulia*, in Pagola et alii, 1999a, 141-174. [Donib kat]
- , 1999, *Jesu Khrichtoin ebanjelio seindia San Mathiuün ääbera*, in Pagola et alii, 1999a, 17-76. [Caz SM]
- , 1999, *Jondoni Juane apostoliain apokalipsa Gaaziko heskuaran emana esplikazione zoim-baitekin*, in Pagola et alii, 1999a, 107-139. [Caz JJ]
- Coyos, J.-B., 2006, “L’apport lexical de l’occitan gascon bearnais au basque souletin: recherche des champs conceptuels”, *BMB*, hors série, 201-223.
- Charles Auguste Le Quien de Laneufville argitarazle, 1786, *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra*, René Leclercq, Akize. [Laneufville]
- Davant, J.-L., 2009, *Zuberoako literaturaz. Antología laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2010, “Jesü Kristen imitacionea”, Martin Maisterren *Jesü Kristen imitacionea* lanaren edizioko aitzinsolasa, Euskaltzaindia, Bilbo, 9-37.
- Duhalde, M., 1978 [1809], *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, Hordago, Donostia.
- Duhau, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- Duvoisin, J.-P., 1978 [1857], *Dialogues basques*, Hordago, Donostia.
- Egiategi, J., 1983 [1785], *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia* (1785), Txomin Peillenen edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Estornés Lasa, J., 1984, “Mendigatxa’k Azkueri kartak, 1902-1916. Eta Erronkari’ko uskaratik utzulpen ta goarpenak”, *FLV*43, 55-127.
- , 1985, “Zoiolo’ren upta. La cosecha de Zoilo”, *FLV*45, 31-93.
- Estornés Lasa, B., 1997, *Diccionario español - uskara roncalés. Erronkariko uskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruña.
- Etcheberry, J.-B., 1986, *Hazparneko misionestak*, Cordeliers, Baiona.
- Etxamendi, E., 1985, *Aurora*, Maiatz, Baiona.
- Etxeberri [Ziburukoa], J., 1981 [1669], *Manval devotionezkoa, edo ezperen oren oro escvetan errabilltceko liburutchoa. Escarazco versutan eguiña, eta guztia bi partetan berezia*, Patxi Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.
- Etxegorri, Ph., 2003, “Jeruntzeko üskara. Ekialdeko euskara”, *FLV*93, 247-286.
- Etxepare, B., 1980 [1545], *Linguae vasconum primitiae*, Patxi Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.
- Garate, G., 1988, *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak*, Mensajero, Bilbo.
- Gasteluçar, B., 1983 [1686], *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario dire-nac*, Lino Akesoloren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Gèze, L., 1979 [1873], *Éléments de grammaire basque*, Hordago, Donostia.
- Haritschelhar, J., 1970, *L’œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Harizmendi, C., 1978 [1658], *Ama Birjinaren ofizioa*, Hordago, Donostia.
- Iganteñtaco pronouna, eta hilen pronouna, Pauben, G. Dugue’ eta J. Desbaratz, beithan moul-deçço leteretan ecarria, c. 1757.
- Inxauspe, E., 1991 [1856], *Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauéra*, in *Opera Omnia Vasconice* 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 161-243.

- , 1991 [1858], *Jaundone Jouhane apostoliaren apokalipsa*, in *Opera Omnia Vasconice 2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 271-307.
- , 1979 [1858], *Le verbe basque*, Hordago, Donostia.
- Iribarnegarai, 1999, *Yesu Chrichtoin Ebanyeliua San Mathioin arabera*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar (arg.), *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko behe-nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea & Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 19-81. [Irib SM]
- Irigoyen, A., 1957, “Cartas de Inchauspe al príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *Euskera 2*, 171-260.
- Irizar, P., 1992, *Morfología del verbo auxiliar roncalés*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea.
- , 2002a, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental II*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- , 2002b, *Morfología del verbo auxiliar suletino*, Euskaltzaindia.
- Kamino, P. & P. Salaberri Zaratiegi, 2007, *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- Kerejeta, M. J., 1991, “Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610”, in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren Gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 161-183.
- Lafitte, P., 1972, *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821). Présentés, transcrits, traduits et annotés par Pierre Lafitte*, Ikas, Baiona.
- Lakarra, J. A., 1995, *Harrieten gramatikako hiztegiak (1741)*, ASJU-ren Gehigarriak 18, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- & B. Urgell, 1988, “Lécluse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (II)”, ASJU 22/1, 99-211.
- Larrasket, J., 1939, *Le basque de la Basse-Soule orientale*, Klincksieck, Paris.
- Leizarraga, I., 1979 [1571], *Iesvs Christ gvre Iavnaren Testamentu Berria, Kalendrera eta ABC, edo Christinoen Instructionea*, Hordago, Donostia.
- Lespy, V. & P. Raymond, 1998, *Dictionnaire béarnais. Ancien et moderne*, Marrimpouey, Pabe.
- Lizarza, A. de, 1967, “Apuntes léxicos de la traducción bajo-navarra de Alfonso Rodríguez (1782)”, ASJU 1, 98-162.
- Loidi, A., 1996, “Santa Catherina pastoralaren xix. mendeko bi eskuizkribu”, ASJU 30/2, 497-603.
- , 2004, “Antiokiako San Julianen pastorala (1770)”, ASJU 38/1, 1-133.
- , 2009, “Klotildaren miraria *Klobis pastoralean*”, ASJU 43/1-2, 597-613.
- Louis-Maria de Suarez d'Aulan argitarazle, 1740 ingurukoa, *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra*, G. Dugue eta J. Desbaratz, liburu saldçaliaren imprimieratik, Pauen.
- Maister, M., 1758, *Jesu-Kristen imitacionia*, T. Kempisen lanaren itzulpena, Dugue & Desbaratz, Pabe.
- Materre, E., 2008 [1623], *Dotrina christiana, bigarren impressionean debocinozco othoitz eta oracino batçuez berreturie*, Labayru, Bilbo.
- Maytie de, J., 1706, *Catechima Oloroeco diocezaren cerbutchuco, ecinago illustre eta ohoragarry Messire Joseph de Revol hanco apezcupiaren manuz eguina*, Jérôme Dupoux, Pauven. [Olor kat]. Baliaatu dugu 1746ko beste argitalpen bat ere.

- Mercy, A., 1780, *Andere Dona Maria Scapularicouaren confrariaco, bulla, decreta, statutac, eta maniac edo chediac. Esquiulaco parropia eliçan, haren conceptionnecouan eçaria*, J. P. Vignancour, Paua.
- Mitxelena, K., 1964, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril.
- , 1987-2005, *Orotariko euskal hiztegia* [OEH], Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mujika, J. A., 2010, *Birjinia, edo doneceil christaba* idazlanaren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Oihartzabal, B., 1991, *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne*, ASJU-ren Ge-higarriak 16, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Oihenart, A., 2003, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*, Iker 15, Patxi Altuna eta Jose Antonio Mujikaren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Oihenarte, J., 1971 [1848], *Kaniko eta Belxitina*, Gabriel Arrestiren edizioa, Lur, Donostia.
- Othoitce eta cantica espiritualac Çubero herrico*. Pauven, Jean Duloux, Oloroeco Jaun Aphezcupiaren imprimatuliaz eguna, 1734
- Orpustan, J.-B., 1991, “Un texte basque inédit contre la Constitution civile du clergé et le serment de fidélité “à la nation, à la loi et au roi” (décret du 26 novembre 1790)”, *Bulletin du Musée Basque* 132, 105-128.
- , 1993, *Oihenarten hiztegia*, Izpegí, Baigorri.
- , 2005, “Sermons basques du XVIII siècle en Pays de Cize. Euskal-pheredikuak Garazin XVIII-garren mendean (Archives de la maison Iriberria de Bascassan)”, *Lapursum* 10, 169-232.
- Otxoa Arin, J., 1713, *Doctrina christianaren explicacioia Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itc eguiten dan moduan*, Pedro de Ugarte, ren echean, Donostian.
- Padilla, M., 2011, *Kadet eta Bettiriño. XVIII. mendeko eskuizkribu anonimo baten edizio kritikoa eta azterketa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Pagola, R. M., E. Alkiza, A. Beola, I. Iribar & J. J. Iribar, 1994, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Lapurtera I eta II*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , I. Iribar & J. J. Iribar, 1997a, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , — & —, 1997b, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Zaraitzera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , — & —, 1999a, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekiadoko Behe-nafarrera I eta II*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , — & —, 1999b, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko Behe-nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Palay, S., 1974, *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, CNRS, Parise.
- Peillen, Tx., 1983, “Bela-ko zaldunaren zuberotar hiztegia, XVIII. mendean”, *FLV* 41-42, 127-146.
- Pouvreau, S., 1979 [1660], *Iesusen imitacionea*, Hordago, Donostia.
- Pregariac Bayonaco diocezacotz*, 1651, *Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicuaren manamenduz ordenatuac eta imprimaraciac*. Bordelen G. de la Covrt, imprimatçaillea baithan.
- Ressegue, P., 1758, *Sacramentu-Saintiaren aurhidegouaco maniac eta chediac. Esquiulaco parropia eliçan, Andredonamariaren conceptionnecouan, eçaria*, Isaac Charles Desbaratz, Paua.
- Salaberri Ibarrolakoa, 1856a, *San Mathiuren ebanyelioa*, Lamaignére, Baiona. Ikus orain in *Opera Omnia Vasconice* 3, 1991, Euskaltzaindia, Bilbo, 331-420. [Salab SM]

- , 1856b, *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais traduits en langue française*, Lamaignère, Baiona.
- Tartas, I., 1975 [1666], *Ontsa hiltzeko bidea*, Andolin Eguzkitzaren edizioa, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- , 1987 [1666], *Onsa hilceco bidia-ren bi lehen kapituluak. Hurbil saio gisa*, Patxi Altunaren edizioa, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , 1996 [1672], *Arima penitentaren occupatione devotac*, Patxi Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.
- Vinson, J., 1984 [1891-7], *Essai d'une bibliographie de la langue basque (I & II)*, ASJU-ren gehigarriak 9, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Xurio, M., 1978 [1788], *Jesu-Christoren imitacionea*, Hordago, Donostia.

## **II. EDIZIOA**



### 3

## GURE ARGITALPENA

Liburu batez egiten dugun edizioa baita hau, lan erraza dela pentsa liteke, eskuizkribuek dituzten arazo ugari saihesten baitu inprimategiko emaitzak. Alderdi batetik, ez da liburu sobera zaharra, 1782koa ez da hain euskara zaharra eta bestetik, saio aszetiko hura euskaraz eman zuenaren —edo eman zutenen— mintzoaz edo erez lehen ere badugu ezagutza zenbait. Halaz guztiz ere, edizio hau ez da eginkizun xamurra gertatu: Piarres Lafittek zioenez, ortografia txarra dakar liburuak eta ezinago nahasirik darabil; behargabeko letrak sartzen dira hitzen idazkeran eta bestalde, hitz berak orrialde batetik bestera idazkera desberdinak jasaten ditu (1982: 441); idazkeraren bikoitztasun edo are hirukoitztasun horrentzat batasuna bilatzen nahikoa lan dago, luhusoar handiak ez zuen arrazoirk falta.

Guk ez dugu, noski, grafia ukitu edo batu, huts nabarmenak zuzentzeko izan ezik. Bainaz arazoa ez da ortografiaren anitztasuna bakarrik, inprimategiko hutsak ere ugari dira; halaz ere, Frantziako Avignonren irarria izateko, aitortu behar da liburua aski ongi atera zela: ez dakigu inprimategian euskara ongi menperatzen zuen jenderik izan ote zen, ala inprimategiko apografoa nork kopiatu zuen, baina ez zen hain gaizki egin. Nolanahi ere den, liburuko hutsen interpretazioan behaztopa franko dago bigarren argitalpen hau garantia handiz egiteko.

Jatorrizko gaztelaniazko liburua nahiz frantseseko itzulpenea ezagutzeak hainbatetan arazoak arindu ditu, baina beti ez da aski izan, aitzinsolasean dioen bezala, itzultzaileak lanaren bitartean ukantzen inoiz beretik emateko ohitura: *aitcinoo joan nuçu* (7) dio itzultzaileak bere jardun batzuez.

Morfologian, esaterako, ezaugarri batzuez den bezainbatean, inprimategiko huts zenbaitek zalantzera eragin dute gu baitan edizioa prestatzean, ez baikenekien xuxen ezaugarria zuzendu behar genuen ala zegoen-zegoenean uztea hobe ote zen.

Zuzenketak egitean, *grosso modo* bi bide jarraitu ditugu: morfologiaren edo adieraren aldetik arazorik ez duten hitzen kasuetan, inprimategiko hutsak testuan berean zuzentzera jo dugu. Badakigu beste batzuek ez dutela ikuspegi bera; pastoral baten bi eskuizkribuz diharduela, Beñat Oihartzabalen burubidea “ez hunki”-tzea da (1991: 113), zuzenketak aparatu kritikoan edo oinoharretan proposatzea: *et en renonçant délibérément à toute tentative de remaniement de quelque nature que ce soit*. Guk, berriz, hutsaren izaera guztiz argi dagoen kasuetan zuzenketak testuan berean egin ditugu, oharraren bidez “hunkitu” dugula salaturik.

Aldiz, auzitan dagoena aldaera lexikoen kontua, morfologia arazoa edo diakroniako ikergaia izan daitekeen kasuetan, zuzenketarik ez dugu egin, eta gaiaz oinoharrrean iruzkina egin dugu edota hainbat auzi edizioaren aitzinetik dakargun azter-

ketan aipatu dugu. Esate batera, liburuan *dohain* aldaera ageri da beti, *dohain-en* agerraldi bat izan ezik (356); guk testuan honelaxe utzi dugu, ukitu gabe, oharra eginik. Liburuan *harten* bakarra dago (27), denak dira *hartcen* edo *hartzcen*, baina guk, bada ezbada ere, *harten* utzi dugu. Egungo euskaran “*arazteko*” denaren ordain liburuan *aratceco* (61) ageri da behin, adibide bakarra da, baina Ipar Euskal Herriko testu zaharragoetan honelako aldaerak baliatzen ziren aldetik, liburuak dakarren bezala ukitu gabe utzi dugu eta iruzkina oinoharrera eraman dugu; *dohain*, *harten* eta *aratceco* “*zuzendu gabe*” utzi ditugula diogunean arrestiko hiru aldaerak *dohain*, *hartcen* eta *arazteko-ren* hutsak izan daitezkeela uste dugu, baina ez gara zuzentzera ausartzen. Edizio honen prestakuntza garaian usu izan dugu sentikera hori, ausartu ez izanarena, baina bego horrela.

### 3.1. Puntuazioa

Ahalik gutien ukitzen saiatu gara, baina ulermenari kalte egiten zioten koma batzuk kendu ditugu eta oker kokaturik zeuden beste batzuk, kokagune hobean egokitutu; ulermena hobetzeko ezarri dugu liburuan ez zen komarik ere. Oro har, lan hau egitean ez dugu oharrik eman, baina komaren kokaguneak ulermenari eragin ziezaiokeen adibide kritiko zenbaitetan komaren arazoaz iruzkina egin dugu eta oinoharrera eraman.

Ez dugu ohiz subjektuaren ondoko koma kendu, subjektuaren eta aditzaren arteko, bereziki perpausa luzea denean, koma horrek sintagmen metaketa saihesten due-lako: *bere buria seindi dienac, behar diela passioniaren sú hori lehen uken dien flakecien dolumenaren nigarrez hiltcera inxeatu* (396).

Marra luzeak ere ezarri ditugu inoiz, azalpena dakarten pasarte batzuetan edo erlatibo azaltzaile batzuetan, betiere ulermenaren mesedetan, zamatze parataktikoak irakurleari eskatzen dion arreta eta eginahala saihesten laguntzeko eta ulermenaren ez behaztopatzeko. Marra luzeak tartekatzean euskal testu edo itzulpeneko adiera begirune ahalik eta handienaz hartzeko eginahala egin dugu.

Euskal itzulpen argitaratuan, bi puntuen ondotik aipua datorrenean lehen hitzeko lehen letra larria dakar liburuak, baina letra xehera aldatu dugu guk edizio honetan, euskararen egungo arauiei hurbiltzeko.

### 3.2. Estilo zuzena

Liburuan letra etzana ageri da usu eta estilo zuzena adierazteko baliatzen da, Jainkoak, saindu zenbaitek edo beste norbaitek inoiz esan dituen hitz edo perpaus go-goangarri edo sozializatu beharreko batzuk gogora ekartzeko, gehienetan orainaldian jokaturik, lehen edo bigarren pertsonako aditzak dituzten perpausetan. Inoiz zehares-tilarako ere baliatu da letra etzana liburuan; hona, esate batera, hiru adibide:

Joandene Paulec erran dien beçala; *Jesu Christo irabaz deçagun ber, besthiac oro lohi eta hungarri direla* (10).

Çuhurrac erraiten dici, *çuhurciaren haxarria dela bihotzian eguiasco çuhur içaiteco gutitcia baten eçarthia* (21).

Çuhurrac erraiten dici: *Gaiztuen bidia ilhunpez bethia dela, eztutela ikuzten leice çointara erorten baitira* (37).

Honetakoetan logikak aginduko luke letra etzan hori guk biribilera aldatzea, baina ez baikenuen aldaketarik eragin nahi, ez ditugu esaldiok letra biribilera ekarri. Liburuarekiko eta jatorrizko lanarekiko leialtasunak kezka bat eragin digu, estilo zuzeneko perpausak ez baitira liburuan beti letra etzanean ematen. Estilo zuzena diren alderik letra etzanean beharko luketen perpaus ugari daude liburuan, idazkera arrunt edo biribilean ageri direnak, izan ere, jatorrizkoan ere letra biribilean baitaude, eta frantses itzulpenak ere hala-hala eman ditu biribilean. Euskal testuaren koherentzia gordetzeagatik estilo zuzeneko lerro horiek etzanera ekartzeko irrika sentitu dugu guk, baina Elizaren esan handien tradizioetan sudurra sartzeko asmorik ez dugunez, euskal itzulpenaren edizio honetan ere letra biribilean datozen estilo zuzeneko hainbat eta hainbat pasarte, 1782an Avignonen inprimatu ziren bezalaxe.

Eliz-liburu aszetiko baten ezaugarri da exhortazioa, irakurle kristauari zuzenean mintzatzea, apeza honi aginduak ematen ariko balitzao bezala, zer egin eta zer ez egin adierazten, eta sail horiek bigarren pertsonan idatzirik datozen, baina guk ez ditugu letra etzanean eman, horiek ez baitira pertsonaia jakin baten esanak, liburua idatzi duen autorea ari zaio irakurleari; hona adibide pare bat:

- hala, beraz, umilia cite Gincaren aitcinian, abere bat baitcina beçala beti harakin içanen cira eta beti hora çurekin içanen duçu (146).
- eta hara cerc erran-aracitzen ceracon Job Seindiari: *erran dut ouztelari ene Aita cira, eta harrer ene Ama eta ene Arreba cirete*; eci eguias erraiteco, cer da/guiçona, becic ere ustelduraren eta harren unci bat? Certçaz, beraz, banitate hartuko dugu? Certçaz urguluxu daiteke erhauxa eta hauxa? (280-1).

### 3.3. Jatorrizkoan bezala gorde diren idazkerak

3.3.1. Grafiaren erabilera ageri den bitasun edo aniztasuna, ez bokaletan ez kontsonanteetan, ez da ia batere ukitu; hona <ou> / <u> bitasunari dagozkion adibide batzuk: *oukeiteco* (146) / *uken* (182); *houra* ‘hura’ (190) / *hura* ‘hura’ (8); honelakoak ez dira ukitu. Bestalde, kontsonante balioa duen ν letra ere gorde da: *livratceco* (163). Liburuko jatorrizko grafia ez baita ukitu, maileguak bere horretan utzi dira: *Alleluyac* (230), *excellencia* (94), *heresiac* ‘herejeak’ (267)... Badira, bestalde, <çe> eta <çj> bakan batzuk liburu honetan, baina guk ez ditugu horiek ukitu, dauden daudenean utzi ditugu argitalpen honetan. Ondoko azpiatalean aurkeztuko dira egin ditugun bi grafia aldaketa bakarrak.

3.3.2. Liburuak lau tilde dakartzza eta guk ez ditugu ukitu: *habé* (36), *présent* (111), *éternalerat* (117), *Éguin* (299).

3.3.3. Fonologiaren baimenik gabe aditz nagusia eta adizki laguntzailea ez dira bereizi: *iratçartceçan* (17), *hiltcen* ‘hil zen’ (163), *atchikitçaçu* ‘atxiki itzazu’ (279). Balizko aldaketaren bidez fonologia-arazoak sor litezkeen kasuetan ere ez dugu deus aldatu: *otoitz-çaten* (144) horrela utzi da. Idazlearen hizkuntza-intuizio egokia erakus-ten duen *sinhex-acie* (311) adibidea ere bere horretan gorde dugu.

3.3.4. Letra larriak bere horretan utzi dira, ia beti erlijio arrazoik baitaude larrian emateko: *eta errespethuz Celuco eta lurreco orozgagnheco Naussiaren* (255); *abil gituçu net nahi dugun gaucen chercatceco eta idireiteco, eta hartakotz Çuhurrac erraiten dici* (21); *eta Spiritu Seindiac beste capituliaren haxeco erran dugun leku hartin, Çuhu-*

*rraren ahotic minço delaric, erraiten dici* (32-33). Dena den, ez da sistematikoa: *Eliça Guiçon* (341, 438) / *Eliça guiçon* (235). Bestalde, aipagarri da bi puntuen ondotik ohiz letra larria darabilela liburuak eta kasu horietan guk letra xehean eman dugu bi puntuen ondoko hitza.

3.3.5. Komarik ez da kendu arteak luze direlarik, eta partikularen aitzinean egonik ere: *orbit citeste coïnhen handi den Gorteco genden attencionia eta errespethia Erre-gueren aitcinian direnian, eta hortic ikaz eçacie Gincaren aitcinian ciretenian behar den errespetu ororeki egoiten* (255).

3.3.6. Liburuan sei aldiz gutienez ergatibo atzizkia falta da (11, 162, 162, 387, 400, 414) eta guk hala-hala absolutiboa utzi ditugu. Badira ergatiboan doazen ize-nak, aditz iragangaitza dutenak, gutienez hamalau adibide aurkitu ditugu (7, 14, 30, 76, 95, 112, 119, 142, 197, 241, 252, 330, 361, 433); ez ditugu ukitu.

3.3.7. Marratxoa franko baliatzen du itzulpen liburu honek, hainbat adibidean egungo ohituren aurka; guk argitalpen honetan marratxoaren erabilera murriztu dugu. Marratxoa noiz kendu dugun ondoko atal batean azalduko baitugu, marratxoa bere horretan zein kasutan gorde dugun adieraziko dugu jarraian:

3.3.7.1. Idazleak hitz elkartutzat jo dituen batzueta: *argui-aitcinian* (60), *art-urratcian* (76) —Leizaragak bezala—, *behar-ordietan* (99), *bet-betan* (46, 79) & *bet-bethan* (114), *guibel-ondotic* (444), *lur-pian* (262), *sú-aciac* (406)... Baina bikoiztasunak ere badira: *behar-ordietan* (99) / *behar ordu* (381), *behar ordian* (179, 448), *behar ordietan* (381); *hour-perat* (43) / *hour perat* (42), *huin-pethan* (426) / *huin pe-tan* (262); *hungui-eilen* (236) / *hungui eilen* (235); honelako bikoiztasunetan, adibide marratxodunek itzultzailak hitz horiek elkartutzat sentitzen zituela erakusten baitute, gabe zeuden adibideei ere marratxoa erantsi diegu.

Aldiz, zenbait hitz elkartu bereiz eta marratxorik gabe idatzi ditu eta guk haxale utzi: *Aithoren Seme* (243, 244, 245), *judio beire eile* ‘judutar beira-egilea’ (223), *bihotz emaile* (291), *bihotz emaiteco* (340), *bihotz mina* (367) & *bihotz minez* (340), *Eliça Guiçon*<sup>1</sup> (235, 341, 438), *hun hartu* (23, 244), *min bicia* (325); alta, *ilhunpian* (37, 77, 120, 262) loturik dakar.<sup>2</sup>

3.3.7.2. araci eta erain egituretan: *endelga-araci* (31), *eror-aracitcen* (41), *gal-araci* (43), *hil-araci* (164, 167), *poroka-araci* (166) / *ihez-eraiteco* (220-221). Badira marratxorik gabeko ale batzuk eta salbuespen horiei marratxoa ezarri diegu: *iduri aracitcen* (21), *sinhex araciten* (74), *gal aracitceco* (108), *erran aracitcen* (198, 345), *samur aracitcen* (433), *egon aracico* (435), *eçagut araciren* (444-5).

3.3.7.3. Errepikatzea adierazten duen aurritzian: *ar-eguin*, *ar-eguiten* (136), *ar-erosteco* (172), *ar-erossec* (353), *ar-erraithia* (448). Badu *arra-* ere, baina loturik dakar: *arraberrithia* (60), *arraberritce* (234) & *arraberritcen* (139), *arrabeztitcian* (226).

<sup>1</sup> Baino hogeita zazpi urteren buruan Martin Duhaldek *Eliza-gizon* dakin *Meditacioneac* lan ezagunean.

<sup>2</sup> Hitz elkartuan nahiz beregain ageri da *pe* ‘behe’ liburuan, zubereraz, hego-nafarreraz, erronkarieraz eta Ipar Euskal Herriko idazle zenbaitengen bezala: esate batera, liburu honetako *kazi pian eçarten citu* (124) aipa daiteke. Itzulpen lan honetan, ezkerrean duen izen genitiboan deklinatuaren ondoan beriez doa *pe*: *huinhen petan* (259), *mezperetzchien pian* (262). Berebat, *peco* bereiz idazten du beti: *ikuzten cienian bere peco Fraidetaric çunbait lanari anitz emanac* (12); *bere peco batec erraiten cerazkon maradiccioniac* (315); *bere peco Fraiden falten gordatceco* (438). Zuberoan *pe hountan* (72) edo *lur pian* (72) ditugu 1734ko *Othoitice eta cantica* testuan.

Ez dakigu maileguetan hiztunarentzat gardentasun maila bera ote dagoen: *arrapi-cathuz* (233).<sup>3</sup>

3.3.7.4. Erakusleen aldaera hanpatuak, *berharc* (204), *berharen* (68, 111, 180, 199, 350), *berhartçaz* (26) erakoak ditugu liburuan, loturik idatzirik. Halaz guztiz ere, idazleak inoiz *ber* izenordainaz bere interpretazioa egin du: *ber-hetan* (47), *horren ber-haren* (227), *apart edo ber-halde* (235); ez diegu hauei marratxorik kendu.

3.3.7.5. Egitura guztiz gardena ez denean: *bis-an-bis* (73), Euskaltzaindiak *bisean bis* idazkera badakar ere.

### 3.4. Idazkeran egin diren aldaketa sistematikoak

#### 3.4.1. Grafia, hitz elkartuen eraketa, letra larriak, komak, zenbakitzea

3.4.1.1. Goiko bokal belarra irudikatzen duen *v* grafia hiru adibidetan baizik ez da ageri: *vtz-aracis* (28), *vken* (29) eta *vncia* (51). Argitalpenerako aldatu eta *u* ezarri da.

3.4.1.2. Hitz bukaeran bi hitzetan dakar liburuak <-rr>: *haurr* ‘haurra’ (222, 224, 412, 413), *hourr* ‘ura’ (135, 156). Ez dirudi grafia honek inolako ñabardura fonikorik duenik; hartara, aldatu eta <-r> ezarri dugu argitalpenean.

Bi hauezaz landa, ez dugu beste aldaketa grafiko sistematikorik egin.

3.4.1.3. Ahalaz, hitz elkartu batzuen eraketak liburuan dakartzan bitasunak baterrtu dira; hona, esaterako, adibide bat: *oroz gagneco* (22 agerraldi) & *oros gagneco* (377) / *oroz-gagneco* (303) / *orozgagneco* (255, 301, 311) & *orozganheco* (255); adibide lotu guztiak bereizi dira eta liburuak gehien darabilen eran utzi ditugu, bereiz, baina grafia ukitu gabe; adibide marratxodunak bereizi dira, marratxoa kendurik. Aldiz, *Jesu-Christo* adibidean ez dugu marratxoa kendu; ia beti marratxoa darabil, bost kasutan izan ezik (10, 29, 189, 203, 349); bost horietan, bateratzeko, marratxoa eza-ri dugu.

3.4.1.4. Liburuan, *çunbat nahi* izenordaina gehienik bereiz ageri da, hamalau adibide daude; aldiz, bitan *çunbat-nahi* (108, 285) dugu. Euskaltzaindiak nahi bezala marratxoarekin lotu dira eta hori bera egin dugu *norc nahi* (66), *nunti nahi* (54) & *nunic nahi* (305) eta *nolaco nahi* (92) hitzetan ere. Eta aldiz, *cer nahiden* (80, 288) / *cernahiden* (61) adibideetan *cernahiden* hobetsi da. Beste alde, *nola nahi* bereiz dakar eta guk loturik eman dugu.

3.4.1.5. Egungo araei jarraikiz, aditzondo edo izenondo errepikatu hanpatuei marratxoa eza-ri diegu: *bedera bedera* (71), *bet betan* (39) & *bet bethan* (422), *beti beti* (242), *cin cinez* (18), *doya, doya* (38), *emeiki, emeki* (38), *hala hala* (56), *hola hola* (142, 392) & *hola holaco* (206), *osso ossua* (174). Baita izen elkartu kopulatiboei ere: *goiz axetan* (91).

3.4.1.6. Hitz elkartua den *haripiru* (118) loturik dakar eta guk marratxoa eran-tsi diogu. Bestalde, *berhalde* (128) eta *ber-halde* (235) idatzi ditu; marratxoa emanik idazlearentzat hitz elkartua dela ageri baita, marratxoa eman diogu 128-ko adibideari.

<sup>3</sup> Bada *arrabazkatu* (322) ere, berez *abarraskatu* dena; Coyosek mailegutzat jotzen du (2006: 209) eta Oihartzabalek *abarrazka(tü)*-ren metatesitzat (1991: 181).

3.4.1.7. Letra larririk ez dugu gorde horrela idazteko ageriko arrazoirik sumatu ez dugunean: *iduri Citçaucien* (69) → *iduri citçaucien; bere Jugiac Ikuzten dienian* (70) → *bere Jugiac ikuzten dienian; eguia cenez Jakin nahis* (191) → *eguia cenez jakin nahis*.

3.4.1.8. Ondotik *eta nahiz edo* daraman kasu gehienetan, irakurraldia egoki gara-tzeko behaztopa eragin dezakeela uste izan dugunean, koma kendu dugu; hona adibide batzuk erakusgarri:

(68): *Hesichius Autorrac, eta Seint Bonaventurac erraiten dicie, → Hesichius Autorrac eta Seint Bonaventurac erraiten dicie,*

(68): *adoracionesco, eta amoriosco actac egunes. → adoracionesco eta amoriosco actac egunes.*

(68): *nabi uken dici lurrian uken guindecan urositate haren lheinhuru, edo eçagutce arhin bat → nabi uken dici lurrian uken guindecan urositate haren lheinhuru edo eçagutce arhin bat*

Bestalde, komak subjektua eta haren aditza bereizten dituelarik, nahiago izan dugu ahalaz hortik koma kentzea, baina komaren eskuinean gelditzen dena arras lueza den kasuetan ez dugu koma kendu, irakurleak ulertzeko eginahal sobera egin ez dezan:

(68): *Ber Autorrac cioçu orai dugun Gincoaren ikusthiac, eguiten diela gure merechimendia, → Ber Autorrac cioçu, orai dugun Gincoaren ikusthiac eguiten diela gure merechimendia,*

3.4.1.9. Liburu honetan frankotan gertatzen da orrialdea bukatzean hitz bat moziturik gelditzea eta beraren bigarren zatia hurrengo orrialdean agertzea; kasu horietan, hitza osorik eman dugu eta haren ondotik orrialde zenbakia ezarri dugu; honela, liburuan ez bezala, gure argitalpenean hitzaren bigarren zatia orrialde zenbakaren aitzinean kokaturik gelditu da.

### 3.4.2. Hitz bereizteak

3.4.2.1. Liburuak aditz nagusia eta laguntzailea bereizteko ohitura dakar: *itçuli çuçun* (223), *eguinen dugula* (343), *ireizten dici* (409); baina adibide guztietan ez da honela. Loturik ageri diren aditz nagusia eta laguntzailea bereizi dira; esaterako, “behar” eta “nahi”-ren kasuan: *beharden* (19, 88), *beharthien* (88), *beharci* (88, 146, 182, 252), *beharcen* (251) / *nahilikecie* (26), *nahidien* (149), *nahicindukeen* (149). Agintekoetan ahalaz bereizi da: liburuak *ikaz eçacie* (255) dakarrenez, *harçacie* (379) baitezpada loturik utzi beharko litzateke, *erracie* (379) bezala, aditz laguntzailean aferesia gertatu datekeelakoan. Halaz ere, *lauda çacie* (210) ere badakar liburuak eta baita *cerbizcha çacie* (15) nahiz *cherkaçacie* (15) ere; hartara, *harçacie* (246) egitura bereizi eta *har çacie* bilakatu da eta baita *cherka çacie* ere. Halaber, ahalekoetan ere bereizi da: *ardieiteçu* (89) → *ar dieiteçu*.

3.4.2.2. ere atala duten izenordain zehaztugabeak bereizi dira: *nehorere* (114, 117, 269, 329...), *deussere* (26, 42, 59, 237) & *deuzzere* (34, 313, 328); hondarreko bi adibideotan, bokalarterako baliatzen diren *<ss>* eta *<zz>* grafia bikoitzak bereiz idaztean soildu ditugu. Bestalde, *behinere* (7, 26, 27...) ere bereizi dugu.

3.4.2.3. Konparazioetan liburuak *eciez* loturik dakar eta bereizi dugu: *eciez* → *eci ez*; baita *ecinez* ere: *ecinez* → *ecin ez*.

3.4.2.4. *Balin* lokailua bereizi da: *balinbaguindaki* (61), *balinbada* (104); cf. *balin bada* (381) bereiz.

3.4.2.5. Lekuzko kasu *beit(h)an* ere bereizi da, baina liburuan era guztiatarik dira adibideak, nagusiki bereiz badoa ere:

*beit(h)an* loturik: *gubeitan* (163, 177, 178), *çubeitan* (35) / *berebeitharic* (197, 250).

*beit(h)an* marratxoduna: *gu-beitan* (93) / *gu-beithan* (107), *çu-beithan* (149), *bere-beithan* (23, 49).

*beit(h)an* bereiz: *Isaia beitan* (27), *bere beitan* (27, 91, 178, 180, 181, 187, 214), *hura beitan* (33) / *gu beithan* (75, 76, 76, 157, 197), *çu beithan* (137), *bere beithan* (6, 12, 20, 51, 59...).

3.4.2.6. Aditzondo edo izenondo errepikatu hanpatuak ere bereizi dira: *cincinez* (18, 20, 26); 3.4.1.5.-n adierazi dugunez, adibide hauei marratxoa ezarri diegu.

3.4.2.7. *ber* eta *gisaz* hitzak dakartzan adibide bat ere bereizi da: *berguizacotz* (373-4).

### 3.4.3. Loturak eta marratxoa kentzea

3.4.3.1. Hitz elkartu bereiz idatziak, marratxorik ez daramatenak, lotu ditugu: *goça gabe* (33) eta *behar gabe* (358) adjektiboak, *bispa hirur* (300), *ez uzthian* (304), *guissu labe* (246), *heren suguiaren<sup>4</sup>* (402), *nahi gabe* izena (92, 141, 174, 269, 307, 310). Hainbat aldiz bereiz dakarren *nahi bada* kontzesioko lokailua ere lotu da (17, 45, 69, 130, 241, 284, 303, 356, 388, 437, 439); bi aldiz marratxoarekin idatzi du *nabi-bada* (13, 443) eta marratxoa kendu dugu; loturik ere badakar liburuak: *nabi-bada* (23, 106, 194, 246) & *nahibadare* (60) & *nahibada ere* (308, 333); adibide guztiak loturik eta marratxorik gabe utzi ditugu. Bestelako adibidea da *jin dazkigula nahibada* (318); ez du balio kontzesiborik eta guk *nabi bada* bereizi dugu.

Berebat, *bat bedera* (12, 15, 20, 49, 59...) ere lotu da, baita marratxoa dakarrean ere: *bat-bedera* (8, 30, 197, 373).

3.4.3.2. Bi hitz direnak eta bereiz behar dutenak, marratxoa kendu eta bereiz utzi dira: *beste-garaitikuac* (12), *behar-tugula* (16), *ahal-beçain* (16), *hoguei-eta-hamar* (56) —honetakoetan bi marratxoak kendu dira—, *orai-artekan* (56, 77, 141) & *ordu-artekan* (77), *içanic-ere* (76), *ahal-dien* (68), *gu-beitharic* (101), *gogoz-garatic* (104) —Leizarragak *gogoz garaitik* ‘gogo txarrez’ dakar—, *gauça-ororen* (116), *ceren-eta* (117, 333), *behar-den* (123) & *behar-diela* (203), *bi-ahotaco ezpata* (161), *behar-beçala* (181), *behar-dugun* (182) & *behar-tudan* (252), *alde-batetic* (198, 201), *beste-aldeetic* (201), *guiza-batez* (201), *aldi-batez* (211), *ax-arthio* (215), *çabal-bite* (226) & *corrigi-cite* (426), *eskerren-emaitera* (233), *antço-orotara* (236), *orotarat-ere* (237), *Aithoren-Seme* (243, 244, 245, 245, 245), *ber-guizan* (275), *gure-*

<sup>4</sup> Ziburuko Etxeberriren lanean bezala bereiz dakin (*Manual II*, 94): *Iauna khassa dioçoğu arren heren Siguea.*

*beithan* (296) & *çu-beithan* (428), *beste-gagneraco* (319), *Jaun-Apez* (322), *so-eguithia* (398), *balin-bacen* (405) & *balin-bada* (426) & *espalin-baduçu* (426), *sordeixaguezere* (431), *ikussiric-ere* (433), *noiz-den* (442), *cerbait-gauça* (446), *Heuzcal-Herrico* (450) & *Heuz[c]al-Herrian* (455).

3.4.3.3. Egileak bi osagairen elkarketatzat jo ditu usu zenbait hitz eta marratxoarekin idatzi; guk marratxorik gabe batu ditugu: *ez-uzthian* (45) & *ez-usthian* (100), *ez-achol* (185), *hirur-espalauretan* (52, 52) & *bispa-hirur* (300), *sei-ehun* (62), *gaitz-exitcen* (104) & *berant-exiric* (247), *hama-çazpi* (139), *dez-ohoriac* (166) & *dez-ohore* (173) & *des-ohoratu* (257), *ezker-gabia* (181) & *ezker-gabiac* (181), *nahi-gabe* izena (184, 270, 306, 306, 330), *hitz-eman* (190), *gogagn-garria* (325), *oguen-dun* (398, 426).

Inoiz zail da erabaki bat hartzea, adiera edo gramatikaren aldetik ñabardurak daudenez eta liburuak hainbeste aldaera darabilenez: *uzte gabeco* (244) & *uzte gaberic* (305) & *uzte gabiac* (428) / *uzte-gabian* (27) / *uztegabian* (56) & *uztegabecotik* (56). Kasu honetan honela jokatu dugu; *uste* garbi aditza denean bereiz utzi dugu: *jakin gabiac*, *uzte gabiac*, (428); *hec uzte gaberic* (305); bereiz utzi dugu *bena uzte gabeco eiteco batec* (244) ere; lexikalizatuago daudenak loturik eman ditugu: *uzte-gabian* (27) lotu dugu eta *uztegabian* (56) honela dator liburuan; loturik dakarren *uztegabecotik* (56) ere ez dugu ukitu.

3.4.3.4. Zenbakietan marratxo bat —*hoguei-eta çortzci* (324), *hoguei-eta he-mçortzci* & *hoguei-eta hamar* (324)— ala bi ageri dira: —*hoguei-eta-hamar* (56)—; marratxorik gabe utzi dugu eta gure edizioan *hoguei* aske ageri da beti.

3.4.3.5. *bat* daramaten egiturak lotu dira: *beçan bat* (29), liburuan ia beti loturik ageri dena; cf. *beçanbat*: (19, 33, 44, 49, 53, 63, 68, 105, 112, 130, 136, 149, 150, 151, 152, 179, 192, 209, 213, 234...). Lotu da *oro bat* (52) ere, liburuan ia beti *oro-bat* baitakar.

3.4.3.6. Egitura hautsi marratxodunak lotu dira: *banin-duten* (4), *ezkin-deçan* (61), *ço-onian* ‘zeゴenean’ (145), *ezdeus-egatic* (433). Berebat, *pootzchu* hitza eta kidekoak lotu dira: *pro-otchu* (50) & *pro-otzchatceco* (120) & *pro-otzchu* (146, 167) & *pro-otzchoz* (151, 152, 153), *pro-otzchuric* (182); baina osorik ere badarak hitz hau: *pootzchia* (148); badirudi liburuaren bigarren erdian loturik idazten duela: *pootchoz* (374), *pootchia* (375), *pootzchu* (380, 380), *pootzchos* (380, 381), *pootzchiez* (410).

3.4.3.7. Marratxoa kentzean, grafia bikoitzta egon litekeen berridazketa kasuetan liburuko ohitura grafiko nagusiak baliatu ditugu; hona liburuko dardarkarien ohitura nagusiak zein diren: *azkarren* (47, 65, 134, 187); *laburren* (84), *laburrena* (122), *laburrez* (16, 47, 84, 122, 229, 249); *segurretaco* (75), *segurrenetaric* (34), *segurrena* (56, 438), *segurrac* (80), *segurra* (72, 173, 276, 291), *segurrez* (120), *segurrian* (358, 378, 407, 408, 414), *segurric* (408). Hartara, honako adibideak r bikoitzarekin berrezarri dira: *azkar-ago* (132), *behar-ago* (291), *çahar-ago* (271), *gogor-ago* (162, 162), *labur-ago* (7, 176, 277), *segur-ago* (59, 153, 260, 378, 433).

Marratxoa txistukari ondoan dutenak ere aldatu dira eta ordaina emateko liburuko ohitura grafikoak jarraitu: <baliossa>, <pootzchossa> eta <malurossa> idazten baitu, guk, esaterako, *pootzchos-ago* (382) → *pootzchossago* eta *balios-ago* (193, 437) → *baliossago* nahiz *balios-agoric* (95) → *baliossagoric* bilakatu ditugu. Afrikatua-rekin berrezartzeko, <beltzago> (284) idazkera hartu dugu oinarri eta horren arabera,

besteak beste, *bortitz-aguaz* (14) → *bortitzaguaz, fittetzago* (46) → *fittetzago* berrezari ditugu.

3.4.3.8. Bereiz zeuden kasu atzizkiak lotu dira: *orai danic* (96), *gure ganat* (99); marratxoak bereizirik zeudenak ere lotu dira: *arau-eco* (266) / *orai-danic* (136) & *ordian-danic* (217, 244) / *ezdeuz-etara* (75), *anitz-etalakua* (132), *ouhaiatz-etalat<sup>5</sup>* (181), *arau-era* (411), *gaito-tara* (427) / *nora-derano* (160, 420) / *erremedio-çat* (50); prolatiboko hondarreko adibideak marratxoa dakar, baina beste adibide batuetan loturik dago: *halacoçat* (72), *hartacotçat* (216); grafia aintzat harturik *erremedio-çat* (50) egitura → *erremediotçat* bilakatu da.

3.4.3.9. Atzizki destinatiboa adibide guztietan lotu da. Egia esan, izenordain edo erakusle destinatiboak hainbat eta hainbat loturik dato liburuan: *harendaco* (206, 253, 417, 448) / *beretaco* (64, 235) / *heendaco* (7, 31, 235, 373, 433) / *enetaco* (166, 179, 180, 180, 204, 206; baita *eneketaco* ere 181.ean) / *çuretaco* (83, 85, 91, 162) / *guretaco* (36, 61, 115, 153, 155, 162, 171, 172, 173, 174, 177, 202, 238, 433) / *ciendaco* (177); baita *cerendaco* galdetzailea ere (204). Inoiz izenarekin edo adjektiboarekin loturik dakar: *Gincoarendaco* (90, 91), *handiarendaco* (144). Nolanahi ere den, liburuan bereiz idatzi izen eta adjektiboak dira nagusi, guti batzuk marratxoa baliaturik eta gehienak marratxorik gabe; hona lotu ditugun adibideak:

“izena = adjektiboa + daco”: *arimen Salbamendiaren daco* (4), *bertuthiaren daco* (18), *lagunen daco* (20), *celuko gauzen daco* (34), *mundu guciaren daco* (38), *Gincoaren daco* (53, 131), *proximuauren daco* (67, 434), *beste gauzen daco* (90), *salbamendiaren daco* (92, 131, 327), *arimaren daco* (101) & *gure arimen daco* (216), *guiçonaren daco* (102) & *guiçonen daco* (238), *nausi hunaren daco* (115), *arimaren prootzchiaren daco* (127), *pundu particularren daco* (133), *çunbait becatu handiren daco* (137), *hire Aita Antonioren daco* (144), *Thaiz Becatorossaren daco* (144), *Semiaren daco* (163), *igaran becathien daco* (169), *bere adiskiden daco* (172), *bere exaien daco* (172), *hunguien daco* (177), *hain hungui handiaren daco* (177), *bi gauçaren daco* (182), *Passioniaren daco* (190), *Passione seindiaren daco* (191), *gorpitzçaren daco* (209), *hainbeste eriren daco* (213), *gure becathien daco* (228), *Eliça guciaren daco* (233), *Erregueren daco* (233), *bezten daco* (235) & *besten daco* (436), *hirur gauçaren daco* (236), *gure becathien daco* (238), *handienaren daco* (327), *cantorberrikuaren daco* (327), *amoriuaren daco* (376), *becatore daco* (381), *ispiritualen daco* (451).

“erakuslea edo izenordaina + daco”: *Liburu horren daco* (3), *heen daco* (234), *persona heen daco* (235), *hirur chede horien daco* (236) / *noren daco* (61), *çoinhen daco* (205).

“batuen daco”: *placer igarancor batuen daco* (51), *segnaile segur batuen daco* (58), *gracia batuen daco* (105), *hiltcen batuen daco* (163), *sendotcen thien batuen daco* (213), *capa batuen daco* (245).

“erlatibozkoa + daco”: *eztakitenen daco* (1, 9, 449, 452), *sofritu dienaren daco* (162), *karguia dutenen daco* (212), *galdu eztutenen daco* (217), *lur huntan direnen daco* (234).

“oroaren + daco”: *oroaren daco* (105, 149, 234), *behar ororen daco* (129, 212), *guiristinho ororen daco* (193), *mundu ororen daco* (205, 237), *gomendatu ciren ororen daco* (235), *gauça horien ororen daco* (235), *heen ororen daco* (236), *gauça ororen daco* (237).

<sup>5</sup> Guk testuan zuzendu eta *ouhaitzetarat* eman dugu.

Aldi guti batzuetan marratxoa dakar destinatiboaren atzizkian: *coinhen-daco* (8), *gauça guti baten-daco* (11), *Celia Lurraren-daco* (11), *Celuco gaucen-daco* (100), *harren-daco* (161), *biciuen-daco* (183), *erien-daco* (198). Marratxoa kendu eta lotu dira.

Ordea, liburuan ez dago prolatiboan jokaturikako izenik *-taco* bereiz daramanik: *haren gloriataco* (7), *ezdeuzzetaco beçala hartcen* (42), *Aitcineco Capituliaren seguide-taco* (49), *galduetaco cundatu* (73), *segurretaco atchiki* (75), *çure gloriataco* (91), *lagunetaco atchikiten* (96), *suspexetaco atchiki* (146), *merechimendu handitaco duçu* (154), *chedetaco uken* (185), *abisetaco emaiten dici* (202), *gloriataco ukeithia* (206), *Naussitaco eçagutcera* (212), *becathien punimendutaco* (236), *pagutaco beçala* (237), *grado-taco eçarten* (278), *emastetaco hartuco* (373), *Gincoa...* *dici cimendutaco* (433), *igorten...* *punimendutaco* (306). Loturik dakar *gure bici orotaco* (186) xedezko sintagma ere.

3.4.3.10. Bereiz zegoen atzizki motibatibo pare bat ere lotu da: *placer-agatic* (118), *deuz-egatic* (148). Dena den, autoreak liburuan atzizki motibatiboa loturik dakar funtsean: *eguithiagatic* (14), *eitekuegatic* (14), *complitciagatic* (15), *erraithiagatic* (19, 52), *erakasthiagatic* (51), *idokithiagatic* (74), *berhargatic* (204), *huntarçunagatic* (204), *Ainguriegatic* (254)...

3.4.3.11. Atzizki ordinalean aniztasun handia dago idazkeran; esaterako, *bigue-rren* loturik dakar eta *hirurguerren* eta *seiguerren* loturik gehiago bereiz baino; aldiz, *laur guerren* bereiz gehiago loturik baino. Bereiz dakartzza *lehen bici* (102, 158, 225), *bost guerren* (34, 87, 109, 186, 212), *zazpi guerren* (44, 53, 92, 120, 220), *zortzi guerren* (48, 94, 125), *bederatzi guerren* (54, 130), *hamar guerren* (62, 140), *hameca guerren* (153), *hamabi guerren* (156), *hamahirur guerren* (163), *hamalaur guerren* (171), *hamabost guerren* (177), *hamassei guerren* (182) edo *hamaçazpi guerren* (139, 188). Gure argitalpenean, bereiz dauden atzizki ordinal guztia lotu dira.

Marratxoa dakar atzizki ordinalen adibide zenbaitetan: *hirur-guerren* (171, 239, 248, 249) & *hirur-guerren* (52), *laur-guerrena* (52), *bost-guerrena* (53, 93). Marratxoa kendu eta lotu dira.

3.4.3.12. Atzizki konparatzalea ere, bereiz zenean lotu da: *bortitz ago* (18), *be-can ago* (97); berebat, marratxoa kendu eta lotu da: *alchatu-ago* (113), *atkitcen-ago* (85), *balios-ago* (95, 193), *berant-ago* (223), *bortiz-aguaz*<sup>6</sup> (89), *çahar-ago* (271), *desideratcen-ago* (31), *edan-ago* (33), *egarri-ago* (33), *emendaturen-ago* (33), *ecin-ago* (5, 49, 70, 75, 84, 172), *ezthi-agoric* (95), *fitetz-ago* (19) & *fittetz-ago* (46), *gabi-ago* (195), *garratz-agoric* (430), *Gincoasco-agoric* (97), *gogotic-ago* (93, 150, 220), *guthia-ago* (59), *handi-ago* (192, 193), *ihi-agoric* (80), *laket-ago* (147, 251), *lehen-ago* (23, 187) & *legen-ago* 'lehenago' (137), *luçaz-ago* (89, 132, 160), *perfeít-ago* (195), *present-ago* (75), *protozchaz-ago* (241) & *protzchos-ago* (89) & *protozchoz-agoric* (95) & *protozchoz-ago* (85, 87, 227, 131) & *protozchos-agoric* (176) & *protozchoz-ago* (188), *seguidan-ago* (19), *tenorez-ago* (223).

3.4.3.13. Liburuan marratxoak bereizirik dauden *-garri*, *-kal* eta *-kara* eratorpen atzizkiak lotu dira: *misterio-kal* (178), *seindimendu-kal* (186), *bertuthe-kal* (186), *Meça-kal* (239), *hitz-kal* (276) / *mezcontent kara* (246) / *pietate garrian* (349); ordea,

<sup>6</sup> Adibide honetan *borti[t]zaguzaz* egin da, liburuak gehienik dakarren aldaera grafikoa <bortitzaguaz> baita.

badira loturikako adibideak ere: *aldikal* (56, 190, 335) / *errespetagarri* (4), *mezperetzchagarri* (122), *galgarri* (122), *higungarri* (284), *ikaragarriago* (284).

3.4.3.14. Izenordain eta galdeztaileekin *ere* ageri denean, marratxoa kendu eta osagaiak bereiz gelditu dira:

*noiz-eta-ere* (5, 17, 28, 47, 85, 100, 147, 147, 148, 150, 156, 171, 182, 206, 219, 227, 230, 234, 255, 284, 291, 294, 314, 317, 371, 372, 375, 388, 388, 388, 388, 429) & *noiz eta-ere* (45) & *noiz-eta ere* (16); *nois-eta-ere* (258, 378, 381, 408, 431); *noiz-ere* (100).

*cer-ere* (43, 347, 451) & *ceren-ere* (418), *coin-ere* (132) & *coinhent-ere* (236), *noren-ere* (235), *nebore-ere* (117) & *nehoren-ere* (439), *nebun-ere* (55), *berac-ere* (371).

*deussez-erez* (30) & *deussec-ere* (16, 31, 168) & *deusec-ere* (163, 164, 177) & *deus-setan-ere* (275), *deuzec-ere* (97, 170, 171) & *deuz-ere* (71, 76, 91, 92, 131, 153, 153, 173, 267, 269, 378, 378, 399, 407, 426), *deus-ere* (415), *deusetan-ere* (363).

3.4.3.15. *bai-eta*, *bai-eta-ere* eta *ez-eta-ere* nahiz *ez eta-ere* juntagailuetan marratxoa kendu eta partikula guztiak bereizi dira; aintzat har bedi inoiz idazleak bereiz idatzten duela: *bai eta bera ere* (103).

3.4.3.16. *behin-ere* (37, 118, 123, 125, 143, 148...) & *bein-ere* (39). Marratxorik gabe bereiz utzi dira.

3.4.3.17. *becic-ere* (27, 110). Marratxorik gabe bereiz utzi da.

3.4.3.18. *elga* izenordain elkarkaria ageri denean marratxoa kendu eta hitzak bereizi dira: *biec-elga* (4), *hirurac-elga* (248), *hirurec-elga* (261).

3.4.3.19. *eta* denbora adierazlean marratxoa kendu da eta hitzak bereizi dira: *soquin-eta* (199, 317), *erran-eta* (253, 326), *içan-eta* (433).

3.4.3.20. *amorecatic-eta* loturan ere (165, 197, 434), marratxorik gabe hitzak bereizi dira.

3.4.3.21. Idazketa hutsa dirudi dela *ber hala* (136); adibide guztietan *berheala* da-kar liburuak (41, 43, 56, 112, 115, 128, 136, 148, 166, 176, 182, 191, 197, 208...), baina ez dakigu Zuberoan ohikoa den “berhala”-ren hutsa ez ote den. Zer egin garbi jakin gaberik, oharra eman eta liburuak dakarren bezala utzi dugu argitalpenean.



4  
TESTUA ETA OHARRAK



ALPHONSA RODRIGUEZ Jesusen Compagnhaco Aitaren  
Guiristinhinho perfeccioniareen praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia  
Heuzcara becic eztakitenendaco

1

Preciua hogiei eta bost soz

Avignhonen, Antonio Aubanel Liburu Salçaliaren  
eta Aita Seindiaren choil Imprimuçaliaren Beithan

M. DCC. LXXXII

Superiorenen approbacione eta permissioniareki

### <3> Liburu hunen huzcarala<sup>1</sup> içulçaliac iracurçaliari

Eztut uzte, Iracurçale Maithia, baden Libururic arima hunac devocione perfeitan bidian handiskiago lagunt ditçakeenic, eci ez baita Alphonsa Rodriguesen Perfeccione Guiristinhuaaren Pratica deitcen dutena, çoinhen pparte bat heben Heuzcarala itçuliric ekzentren baimeraucut. Liburu horren Eile Gincothiarra hil içan duçu seindutarçunesco urrinian eta Liburu balioz hantan eman diraguça seindutarçunic gorenera heltceco bidia. Guiçon arguitu eta Gincothiarrec Liburu horrendaco <4> duten eztimiac, eta nihaurec haren balioztarçunaz dudan sinheste handiac, anitzcetan guttitciaraci diraacie Heuzcarala içan ladin itçulia, amorecatik Heuzcara becic eztakiten guiristinhua ere probetzcha ahal liten Liburu preciatu hortçaz. Gure bi Jaun Apezpicu handiri —Suarez d'Aulan eta Charlez Augusta Kieni— uken dicit ohoria mintçatzceco guticia hortçaz, eta biec elga<sup>2</sup> arimen Salbamendiarendaco obra

10

20

---

<sup>1</sup> Aldaera monoptongatua ezaguna da ekialdeko euskaran, baina liburuko gainerateko adibideak *eu* diptongodunak dira.

<sup>2</sup> Liburu honetatik landa arras tradizio laburra du *elga* aldaerak, baina itzulpen honetan lau aldiz ageri da, eta *elgar*, berriz, bost aldiz.

1 balioz bat çatekeela Heuzcarala itçulce hori segurtatu nicie eta erran, unxa eguin en  
niela haren eithia.

Bena, Iracurçale Maithia, gomitu errespetagarri horiec gortzcen baninduten lan  
horren inxeatcera, Fráncessenaren Heuzcarala itçulciaren <5> neke handiac eta ene  
heuzcararen azki unxa jakin gabiac —bai eta orano Liburu Fráncessian seiheun pa-  
getaco laur ppartetan den horren Heuzcarala itçulceco lanaren luce eta handitarçu-  
nac— icitcen eta guibeltcen nindicien, noiz eta ere Adiskide jakinxu gincothiar ba-  
tec berriz gorthu bainu erranez, Gincoasco lanetan ez unxa eguithiaren beldurrac  
ezkithiela baratu behar, borondate hun bateki inxeatçiac eta gauçaren unxa eguin  
10 nahisco ernetarçunac dutenaz gueroz Gincoaren aitcinian merechimendia, ez, aldis,  
gauçaren bere beithan unxa eguithiak, eta Gincoaren benedicioniac lan suerte hotan  
eztaltcen ahal thiela Languiliaren exkaztarçunac, eta ecinago unxa <6> einac balira  
beçala arimetan probetzcha-araciten. Lanaren lucetarçunaz cen beçambat, ene Adis-  
kidiaren seindimendia çuçun laburtzcia hobe cela, Liburu hedatu horren pparte bat  
gende comunaren hoben denaren choilki Heuzcarala itçuliz eta besthiac utciz, ceren  
halaz Liburia laburrago baitate eta merkiago eta hantic, gende praubec ihikiago eros-  
siren eta aboroc probetzchaturen.

Arroçoin horiec, ene Iracurçale Maithia, ene bihotzceco dudac kendu ticie eta  
ekarri nicie erran dudan Liburu horren, ez ororen, bena pparte baten Heuzcarala  
20 itçulcera inxeatcera, eta ene uztez horren capitulu gende comunaren probetzchosse-  
nac hautatu ticit, <7> bai eta heendaco auher çauzkidan capitulu heen pparte çum-  
bait utci. Jaunac detxala haren gloriataco eta arimen hobetan ene authian kaussitu  
dudan! Hitcez hitz Fráncessenaren Heuzcarala itçulcen hassi nindüun, bena orhituric<sup>3</sup>  
hala eguinez gure Heuzcararen ara edo ethorça anitz pundutan bortzchatcen cela, eta  
Fráncessenaren cenciac<sup>4</sup> etcela anitzcetan hain lanhoki explicatcen ahal, deliberatu di-  
cit, francez therminuer sobera chehe jarraiki gabe, cenciaren ahalic clarkiena Heuz-  
carala itçulcera; çumbait aldiz ere, bena gutitan, Liburu hortaco francez therminhuec  
ekarten çuten beno aitcinoo joan nuçu gauçaren hobeki endelgaracitceco, bena behin  
ere, <8> ene uztez, Liburu horren fráncessian den substanciarene contre. Capitulu  
30 hautatu horien seguidaz den beçambat, etcit uzte uken necessario cela, oraico dem-  
boraco Liburietan ussatcen den beçala, anitz ppartetan berhesthia. Gende comunac  
—çoinhendaco lan haur eguin baitut— etciroçu probetcha Liburu hunen pparte-  
catce hortçaz. Iracurçale taric batbederac Liburu hunen Tablan edo hunen akabançan  
eçarrico den capitulien minço diren substancien herrocán,<sup>5</sup> idirenen tici iracurtu  
nahi duken gauçaz minço den capitulia, eta capitulu hura idireiten den pagiaren edo  
folhareni segrhalia.

40

---

26 lerroan francez: *francer*.

<sup>3</sup> Adibide honetan eta 360-n ere, ‘ohartza’ zentzuan ageri da, Zuberoan bezala; ikus *orbitu-z* hizte-  
gian dioguna.

<sup>4</sup> Aditz iragangaitzarekin izen ergatiboduna agertzea aldi bakan gertatzen da liburuan, baina badira  
ale batzuk: (7, 14, 30, 76, 95, 112, 119, 142, 197, 241, 252, 330, 361, 433 or.).

<sup>5</sup> Bi perpaus erlatibo elkarren jarraian ditugu eta irakurketa zaitzen du; *capitulien* edute genitiboan  
dago eta izan lezake, beharbada, adiera destinatiboa.

<9> ALPHONSA RODRIGUEZ, JESUSEN COMPAGNHACO Aitaren  
Guiristhinho Perfeccionaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia,  
Heuzcara becic eztakitenendaco



## I. [GAUÇA ISPIRITUAL EDO GINCOAZKUEZ]<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Dituen bederatzi ataletarik, lehen hau da liburu guztian izenbururik ez dakarren bakarra; behar-bada gora-behera zenbait gertatu zen inprimategian, edo estetika nahiz neurri arrazoi zenbait dagoke ez emateko, lehen kapituluaren gainean liburuaren izenburua baitakar liburuak bederatzigarren orrialde honetan. Nolanahi ere den, lehen ataleko gai nagusia hainbat aldiz izendatzen da liburuan eta itzulpen honeran eta *Gauça ispiritualez* edo *Gauça ispiritual edo Gincoazkuez* dakin beti.



## LEHEN CAPITULIA [I/1/1]

1

### Gauça ispiritualez edo Gincoazkuez eguin behar dugun estimiaz

Çuhurrac<sup>2</sup> erraiten dici: *desiratu dicit cencu<sup>3</sup> chuchen edo hun baten ukeithia eta Gincoac eman diraaçu. Jauna otoitu dicit eta bere çuhurzciaren<sup>4</sup> ispirithiaz bethe nici; Erreguen coronac beno aboro estimatu dicit eta uzte uken dicit aberaztarçunac eta harrí preciathiac eztirela hari hurrantceco, eci lurreco ourhe eta cilharrac oro çuhurtzciaren aldian deuz ere eztuçu, harinha eta <10> lohi pochi bat becic.* Desideratu behar dugun eguiazco çuhurtarçuna, guiristinhotarçuneco perfeccionia duçu, çoin baitago amorioz Gincoari unitcian edo juntatcian, Joandene Pauleren erran hoen aravera: *oroz gagnetic gomendatcen derauciet caritathia, erran nahi baita Gincoaganaco amoriua, çoin baita perfeccioniaren coropilua, çointçaz Gincoari eztecathiac edo juntathiac baikira.* Halaz,<sup>5</sup> guiristinhotarçuneco perfeccioniaz eta haren jardirestera ekar ahal guitçaketen gaucez hainbeste eztimu uken behar diici, nola Salomonec erraiten baitcien ciela çuhurtzciaz, eta sinhexi, Joandene Paulec erran dien beçala: *Jesu-Christo irabaz deçagun ber, besthiac oro lohi eta hungarri<sup>6</sup> direla.*

Hori duçu ukeiten ahal dugun bideric hobena perfeccionera heltceco, ceren çunbatenaz ere gure bihotzian estimu hura handiago içanen baita, hanbatenaz ere guehiago aitcinatuco guituçu Gincoazco gaucetan eta perfeccionian; arraçoinha duçu gauçac estimatcen tugunaren aravera desiratcen baititugu. Borondathia ethorsce<sup>7</sup> ouxu bat duçu, endelguiac eçagutharacitzen edo erakazten derazkon beçala gauçac seguitzen baititu; gaucez endelguiac eguiten dien estimu thiaguia edo handiaguia duçu, gauça estimatzen dien hareganaco gure desiren içaria; eta nola borondathiac

10

20

---

2 Ierroan Gincoazkuez: *Gincoazhuez*      6 çuhurtzciaren: *çuhurzciaren*      14 çuhurtziaz: *çuhurztciaz.*

<sup>2</sup> Jatorrizkoak *el Sabio / le Sage* dio.

<sup>3</sup> Jatorrizkoak *sentido / intelligence* dio.

<sup>4</sup> Ziua aski çuhurtzciaren-en ordain dagoen huts grafikoa da; adierari dagokionez, jatorrizkoak *sabiduría / sagesse* dio.

<sup>5</sup> Jatorrizkoak *de sorte que* dio.

<sup>6</sup> Jatorrizkoak *estíercol / ordure* dakar, eta baita latinezko *stercora* ere.

<sup>7</sup> Adieraren aldetik, jatorrizkoak *potencia / puissance* dakar. Bestalde, *ethorsce-k* s luzea du; atzizkian <-tce> edo <-tzce> itxaron genezake, ez <-ʃce>; gainerateko adibideetan, *ethortze* (10) eta *ethortza* (7) & *etortza* (19, 21) darabiltza.

1 gutan manatcen baititu gure <11> arimaren barneco eta campoco seindimendu guciac, ezkitu comunski gaucen jardirestera inxeatcen, hetara heltceco desiraren aravera becic. Hartacotz, gauça handi bat duçu anitz estimatcia Gincoaren bidian aitcinaraci guitçaketen gaucen, garxuki desiratcera eta jardirestera inxea guiten amo-  
recatic; eci gauça horiec oro hain elgarri emanac ditu, nun bataren içaria besthia-  
ren chedia baita.

Harri baliossez trathian ari denac unxa eşagutu behar tici, trompathia içan ezta-  
din, bestela balio handitaco çunbait emanen dici gauça guti batendaco. Gure trafica  
10 Celuco Erressumaz duçu; eşagutu behar diici, beraz, çunbat balioz den jardirexi edo  
guretu nahi dugun gauça, beldurrez hutx eguinic urhia lohiaren, Celia Lurrarendaco  
eman deçagun. Jaunac erraiten dici Jeremiaren ahotic: *Çuhurra eztadila urguluxu  
bere çuhurtziaz, ez giçon azcarra bere indarraz, ez aberaxa bere aberastarçunez, bena  
behar den beçala eta justoki glorificatu nahi dena,<sup>8</sup> choilki bere gloria oro eçar beça ene  
unxa eşagutcian.* Trezor orotan den handiena, Gincoaren eşagutcia, cerbitzhatcia eta  
maithatcia duçu; hori da guc dugun eitecoric handiena, edo hobeki erraiteco, baca-  
rra; hara certaco creathiac içan guiren: guiristinhoto eta hartan choilki gure chede  
bacarrian beçala, chercatu <12> behar diici gure paussia eta eçarri gure gloria.

Hartacotz, nahi nikici perfeccioniaren eztimu hori eta hari dauzcolaco gauça ispi-  
ritualac mundu ororen bihotzian barna sar liten eta arrangurozki hartaraco elgar la-  
20 gunt guindeçan, ez choilki gure arteco elhe hunez, bena hobeki orano gure obrez eta  
bicitce seindiaz; guiza hortan, berthuthiaren bidian sartcen hassi becic eztirenenec eta  
bertuthian aitcinathiec eta generalki oroc, eşagutuko dicie gure religione seindiaren  
aravera nehorc ezthiela eguiasco estimuric uken behar Gincoazco gaucez becic. Or-  
dutic egua hori batbederac bere beithan unxa hartu onduan, inxeatuco duçu bere  
ahalaz Gincoazco gaucetan aitcina joaitera eta eşaguturen, beste garaitikuac eztirela  
enganio eta banitate becic.

Surius Authorrac Seint Fulgença Abadiaren bicitian huni daucolaco gauça bat  
ekartzcen dici. Guiçon seindu horrec, ikuzten cienian bere peco Fraidetaric çunbait  
lanari anitz emanac, eguna oro thaic gabe Comentuco cerbitzchian emaiten çutela,  
30 bena bere devocioneco eguinbidetan lacho cirela, etçutela gar bera bere otoitzctetan,  
iracurttetan, beste Gincoasco einbidetan, beste bere peco Fraidez beno cassu guthiago  
eguiten cincin; aldiz, icuzten cithienac devocioniari edo <13> gauça ispiritualer ema-  
nac, eta arranguroske bertuthian aitcinatcen cirenac, nahibada beztagnez eris edo  
flaccoz Comenthiali etçutelen cerbitzchuric batere eguiten, handiski maithatcen eta es-  
timatcen citicin. Dendaric gabe arraçoin handireki hala eguiten cincin. Cer prootzchu  
du nehorc, beztagnhez, merechimendu eta thalantu handiric ukeithia, obediencia  
gabe eta Gueihenen<sup>9</sup> borondatera egoiten ezpada? Anitzcez segurki hobe lukeçu tha-  
lenturic edo munduko eguitatetan parte hunic gabe içaithia, eci ez heen eztacurian  
Gincoaren gaucetan lachatcia. Beste gauça lukeçu Gincoac behar baleçagu galdein  
40 azken Judicionian anitz trabailhatu guiren, ispiritu guindinez, ederki minçatu gi-

13 ene: ena.

28 ekartzcen: ekarztcen.

38 içaithia: icaithia.

<sup>8</sup> Absolutiboa da baina ergatiboa beharko luke; gutienez beste bost adibide gehiagotan falta da: (162, 162, 387, 400, 414).

<sup>9</sup> Ordena erlijiosoan maila goragoa duena da gehienet: el superior (I, 4) / de son supérieur (RD 1, 7).

renez, bena harc ordian galdatuco diena duçu, eguiasco guiristinho baten einbidiac oro ein tugunez.

Jesu-Christoc igorri citicin bere Dicipuliac pperedicatcer; Iskiritura Seindiac erraiten dici allegueranciaz bethiac itçuli cirela eta bere Jaunari erran ceracotela, ha-ren icenian Demoniuec ere obediencia ekarten cereela. Salbaçale Jaunac ihardezten direeçu: *etcitestela alleguera miraculiac eiten tucielacotz eta Demoniuac obedient ditu-cielacotz, bena alleguera citeste cien icenac Celian iskiribathiac direlacotz.* Eçarri behar diici, beraz, gure abanthailha eta alleguerancia<sup>10</sup> Celuko Erressumaren irabazthian, <14> eci hora gabe, besthiac oro deuz ere ezitu: *Cer prootzchu du guionac mundu guciaren beretcia maluroske bere arima galtzen badu?*

Erraiten badugu, eta Jesu-Christoc berac erran badu, arimen conbertitcen artciac ezteragula ahatz-araci behar guihauen arimen salbamendia, auher liçatekeenas gue-roz mundu ororen salbaracitcia, guihauen arimen salbatcera inxeatcen ezpaguira, arraçoin bortitzaguaz erran ciroguçu beste gagneraco eguiteco suerte oroz. Eztu se-gurki unxa, ez arraçoinharen araura, guiristinho batec lan aboro egithiagatic edo beste munduko eitekuegatic, lacha dadin bere otoitzcetan, mortificacionetan eta beste Gincoazko einbidetan, eta beste itçulien onduan becic orhit;<sup>11</sup> orori ezpadetçake buru eman, mundukuac utci behar tici arimakuetan ez lachatciagatic, eta hola ez egithia duçu, ez guiristinho batec behar lukeen, bena arimaco gaucez arranguraric ezthien giçon seindimendu lachuetan biciticia.

Seint Dorotheac erraiten dici Dositea bere Dicipuliaz, erien ehenhatceko kar-guia hain unxa eguiten ciela, eriez hain arrangura handia ciela, heen ohiac eta gam-barac hain unxa chuchentcen, gauçac oro hain chahu eta estatu hunian atchikitcen, nun eriac çauden lekura joan cen egun batez, Dositea dicipuliac erran <15> baitcer-acon: ene Aita, banitatesco edo urguluzco goguaketa<sup>12</sup> bat gin<sup>13</sup> ciaaçu, net unza egui-ten dudala erien cerbitzchia eta nitçaz net content içan behar cirela, bena Naussiaren arraphosthiac Dicipuliaren urgulia apaldu cicin. Seint Dorotheac erraiten diracoçu: aithor dicit net eri ehenhaçale hun bat cirela eta arrangurossa, bena etcit ikuzten orano Fraide behar beçalaco bat cirela. Batbederac gogua eman deçagun, Gincoac ber gauça erran ezteçagun, campoco eitekuetan, itçulietan agudo eta erne guirela, la-netan perestu, bena bertuthian eta devucionian aitcinatciaz eztugula arranguraric, lehen urhaxa arimaren eitekuer eman behar bidian, bester emaiten dugula. Salbaçale Jaunac erraiten dici: *lehenic Gincoaren Erressuma cherka çacie, ispiritu chuchen eta justo bederetan hora cerbizcha çacie eta besthiac oro emanen çauzkicie suergaraitico.*<sup>14</sup> Hortic agueri duçu, munduko eitekuegatic edo bere estatuco karguien complitcia-gatic, ezthiela nehorc bere arimaren eta Gincoaganaco einbidiac utci behar: hala nola otoitzçac, conciarien examenac, sacramendietarat hurrantciac, irakurtzciac

18 lachatciagatic: *laçhatciagatic.*

<sup>10</sup> Jatorrizkoak honela dio: *vuestro contento y gozo / notre bonheur et notre joie* (RD 1, 8).

<sup>11</sup> Komunzadura egin izanak aditz laguntzailerik gabe utzi du perpausa.

<sup>12</sup> Jatorrizkoak honela dio: *pensamiento / pensée* (RD 1, 10).

<sup>13</sup> Bi eratara idazten du: *gin nahiz jin eta jithia nahiz gitbia* dakartzta.

<sup>14</sup> Ez da hitz ezaguna; ikus *suergaraiteko & suergaraitiko-z* hiztegian dioguna. Jatorrizkoak honela dio: *como accesorias y como por añadiduras / comme par surcroit* (RD 1, 10). Latinez ideia: *et haec omnia adjiciuntur vobis.*

1 eta beste Eliçaco Officiuac; eci, ororen burian, gure eitekuen eguin beharrac ezkiti  
tic heen eitetic empaitzchatcen,<sup>15</sup> bena bai gure devocione ezkaçac eta gure lachokeriac. Seint Basilac erraiten dici net chuchen, Gincoari eman <16> behar tugula gure  
devocionen eiteco destinatu edo çatitu tugun demborac, eta hala nola lan edo eiteco  
lehiatu çunbaitec ezteragutenian arteric uzten jateco edo behar dugun luaren egui-  
teco, ondotic ahalic sarriena intxeatzen baikira gorpitzçac behar dien luaren eta haz-  
curriaren hartzcera, eta hartaco dembora hartzten eta idereiten baitugu, orobat, gure  
otoitzça edo examena ussatu tenoretan ecin eguin badugu, garxuki desiratu behar  
diici arte laburrez egithia eta ahal beçain laster gure einbidia egin, eci noiz eta ere  
gure otoitzcen edo beste Gincoaganaco einbide çunbaiten demboran giten baitçaucu  
eiteco lehiatu çunbait, eztici nahi behinguaz utci ditçagun Gincoaganaco einbide hu-  
rac, bena eiteco lehiatu hetaric landan ahalic sarriena eguin ditçagun, Çuhurraren  
erran hoen araura: *deussec ere ezteçaçula otoitzca utzaraz*, erran nahi baita, deuz eztela  
behinguaz utzçarazten ahal derauçunic, eci guiristhinho hun batec, haren eta beste  
Gincoaganaco einbiden eiteco, oraichoo edo guerochoo hartuco edo idirenien dici.

20 Aita Seindien Bibliotheca deitzen den liburian errana duçu, Seint Dorotheac  
bere Comenthian ardura behar ciela berant etçan eta çunbait aldiz gabaz geiki,  
arrotcer —çoinhen cargua eman baitceracoten— hungui gin eguiteco; hargatic  
ere, beste Fraideki <17> geikiten cela otoitzçaren eguitera joaiteco, eta nola ororen  
iratçartzceco cargua ciena epaitzcen joaiten haren iratçartzcera, berant etçaten eta  
çunbait aldiz gabaz geikiten celacotz, otoiutu cicin bere Fraide lagun bat iratçartcecan,  
nahibada etcen ordian orano unxa sendothia anitz flacatu cien sukar batetaric. Hori  
duçu arimaren eitekuer chuchen eta erne jarraikitczeco desir eguiazco baten ukeithia.  
Iracurten diic[i] ber liburian, Fraide seindu çahar batec ikussi ciela behin Ainguru  
bat, çoinhec incentxatzen baitcithien Comentuko Fraide otoitzera erneki joan ci-  
ren guciac, bai eta ere hain unxa<sup>16</sup> ecin joannez<sup>17</sup> baratu ciren lekiac, bena naguiz  
otoitcera faltatu çutenen plaçac uzten cithiela incentxatceco. Hara cerc consolatu  
behar guithien noiz eta ere ecinez uzten edo querorat luçatzen baititugu arimen ein-  
bidiac, eta aldiz eçagut-araci eztitugula ecinbestez becic utci behar.

### Perfeccioniare uken behar den amoriuaz eta garraz

Evangeliuac erraiten dici: *urossac justiciaren gossia eta egarria dutenac, eci assiac içanen tuçu*. Seint Jeromac, minço delaric Jesu-Christoren hitz horien gagnan,  
<18> erraiten dici eztela azki bertuthiaren eta perfeccioniareen cerbait desir arhinien  
ukeithia, bena heen jardirexi nahisco gosse eta egarri handi bat uken behar dela,  
eta Daviten seindimendietan oihu eguin bihotzcez: *hala nola orein bat haxhantu-  
ric iturrien onduan baithabila, orobat, ô ene Gincoa! ene arima bethi çureganat dia-*

<sup>15</sup> *empai-* hasiera duten bi adibide eta *empa-ren* bat ditugu liburuan; ohikoena “epaintxatu” da.

<sup>16</sup> Emendiozko kutsua du *hain unxa* honek, ‘baita ere’ edo ‘aussi / también’ adieran; ikus 410-n  
ere.

<sup>17</sup> Bakarra da idazkera hau liburuan, gaineratekoak *joanez* dira (42, 46, 395) edo *jouanez* (19, 392).

*goçu.*<sup>18</sup> Bertuthiaren desir bortitz horren ukeithia hain necessario duçu, nun harta-ric baituha gure abançu edo aitcinatce ispirituala. Hura duçu perfeccioneoco bidian sartzceco eta jardiresteco chede bakoitzça. *Çuburtziaren haxarria* —çoin baita Gincoaren eçagutcia eta maitatcia, çointan baitago perfeccione hura— *duçu haren jardiresteco desir handi eta eguiasco baten ukeithia*, çunbatenaz ere hura bortitzago baitukegu, hanbatenaz aboro arrangura edo sù ukenen diici hartara heltceco. Beras, berriñ cioçut necessario dela perfecccionian aitcinatceco haren cin-cinez desiratcia, eta desir harc eguiaski bihotzcetic gin behar ci, eta gure bihotzian bertuthiarendaco eçarten dien sùyaz choilki Jaunaren graciareki haren jardiresteco intxeyen eguitera ekarri behar guitici, eci desir haren sùyaz ezpaguira eguiaski bertutherat ekarriac, ha-ren jardiresthia neke dukeçu.<sup>19</sup> Bere beitaric nehorc eguiten thien gaucetan eta bestec eraiten derazcotenetan, liferencia haur duçu: bere beitaric <19> Gincoari placerguiteco<sup>20</sup> desir osso bathian bertuthiari jarraikiten direnec, segurkiago eta seguidanago ha-ren bidian irauten dicie eta, bethi eta hanbat aboro perfecccionian aitcinatuz dihatçu; bena gaztiguen eta mehatzchien beldurrez, edo genden erraithiagatic, edo manaçaliaren bistan delakotz bertuthia bessarkatcen dienac, gutitan irauten eta hartan aitcinatzen duçu, bena flakatuz dihaçu; azkenekotz, beldurrac jouanez gueroz, uzten dici: hala nola harria ezkiez goiti aurtikiten denian, goiti jouan beçanbat flakatuz baituha, orobat ere heltcen cieeu bestec ahulgatzu edo poussatuz bertuthiari jarraikiten direner. Bena harri bera beheiti abiatzen denian bethi eta hanbat fitetzago jeuzten baita, ceren hala baitu bere etorzcà; orobat, bere beitaric bertuthiari emaiten dena perfecccionian eta Gincoaren bidian, bethi eta hanbat aitcinatuz dihaçu.

Guiristinuen perfeccioneoco eitekua eztuço bortzchaz eguin behar den gauça bat: bihotzcetic gin behar dici. Ere Jesu-Christoc cer eguin behar cien salbatceco galddatu ceracon guiçon gazthiari, lehen gauça erran ciracoçun: *nahi baduçu perfeit içan;* guri erakasteco, perfeccioniaren principiua edo haxarria gure nahian doola: eci gure beitaric ezpadugu perfeit içaiteco nahia, gutçaz cargu dutenec gure perfeit-aracitceco <20> hartuco tuzten arrangurac oro auher tukeçu.

Heben net unxa giten duçu Seint Thomas Akinakuac bere Arrebetaric batí eman cien arraposthia. Arrebac galdein ciracoçun nola salba çatekeen; ihardexi ci-racoçun, nahi ukenez: nahi baduçu, salbathia içanen cira; nahi baduçu, bertuthian aitcina joanen cira; nahi baduçu, perfeccione handi batetara helduco cira. Beraz, oro

18 flakatuz: *flaxatuz.*

<sup>18</sup> Zuberoan paraleloa du *Othoitze eta cantica* testuan (1734): *couregana ni giten nuçu / oreigna uthu-rialia / lazterrez douenbeçala / Jauna, ikhous neçaü* (62-3).

<sup>19</sup> Perpaus honetan lau *haren* ditugu; lehena *perfecccionia*-ren erreferentziakide da, hirugarrena *desir-ekin* doa; bigarrena *perfecccionia* edo *bertuthia*-rekin doala dirudi eta laugarrenak *bertuthe* du ondoan, baina litekeena da *perfecccionia*-ri ere erreferentzia egitea; gaztelaniaz *deseo y aficion de la virtud y perfecccion* dio (I, 8); ikus frantssez: *la fin est la première cause qui nous fait agir: de sorte que plus nous souhaitons cette fin avec passion, plus nous apportons de soins et d'ardeur pour y parvenir. Il est donc, encore une fois, si nécessaire pour notre avancement, de le désirer fortement, et que ce désir parte véritablement du cœur, et nous emporte après lui, sans qu'il soit besoin que nous soyons excités d'ailleurs, qu'il y aura peu à espérer de quiconque n'aura pas ces sentiments* (RD 1, 18).

<sup>20</sup> Adibide hau eta 444-ko *placerguiteco* izan ezik, liburuko aldaera *placer eguin* da beti (29, 83, 135, 144, 154, 177, 188, 189, 217...); bestalde, 425-n *nigarguiteco* dakar, baina gainerateko guztiak *nigar eguin* dira. Aldaera hauen eta beste idazle batzuek baliatu kidetsukoen berri hitzegian dakargu.

1 diooçu nahi ukeithian, erran nahi baita, cin-cinez nahi ukeithian eta çure bihotz oroz hartara ekarri içaithian; eci Gincoa bethi ekarría<sup>21</sup> duçu gure laguntcera, bena nahia falta badugu, gure Gueihenec ein ahalac oro einic ere, auher dukeçu. Çuri duçu çure salbamendiaren unxa goguan hartzia, çure eitekua duçu; haren eguthiaz edo faltatciaz damuric edo prootzchuric cihaurec becic eztikeci,<sup>22</sup> eta hartaco guiris-tinhoto cira. Batbederac, beraz, goguan unxa eçar beça, bertuthian lachatcen hazten den ordutic bere perfeccionian aitcinatcia ahatzcico diela, bere devocionesco einbi-detan naguituren dela eta, bere beithan eztici seindituco bertuthian aitcinatceco, ez bere buriaren mortificateco desir edo guthicia handiric, eta oren hartaric harat ha-ren salbamendiaren eitekua gaiski<sup>23</sup> joanen duçu. Seindimendu hori bera idireiten diici Seint Ignacioc bere Fraide lagunendaco eguin cithien <21> cheden haxarrian, nun erraiten baitu karitathiaren eta amoriuaren barneco leguiac —gure bihotzcatan Ispiritu Seindiaz iskiribathiac eta imprimathiac— behar deragula bertuthian iraun-araci, behar çaucula guida baliatu eta behar guithiela Gincoaren cerbitzchuco bidian aitcinaraci, haren amoriuaren súyac eta haren gloriaric handienaren egarri handiac behar guithiela mement oroz hareganat alcharaci eta bertuthian prootzcharaci. De-sir hora behin ariman<sup>24</sup> eguiaski sartia dateenian, intxearacitzen guitici arrangu-roksi eta garxuki desiratcen dugunaren jardiresta; eci naturaleçac emaiten dera-gun etortzçaz<sup>25</sup> moldexu eta abil<sup>26</sup> guituço net nahi dugun gaucen chercatceco eta 10 idireiteco, eta hartakotz Çuhurrac erraiten dici *çuburciaren haxarria dela bihotz-cian eguiasco çuhur içaiteco gutitcia baten eçarthia*. Bena hortan orano baduço beste abanthailha bat, ceren gutitcia handi harc, gauçac, Gincoaren cerbitzchian bere beitharic gaitz eta ppenoz direnac, ihi eta eztí iduri-aracitzen baititu. Nehor Gin-coaren graciaz bere bihotzçaren erditic hari emaiten bada, mundiaren cien amo-riua eta eztekiac uzten tici, garxuki bertuthiari jarraikiten duçu, hantic harat Gin-coari dauzcolaco gauçac ihi idireiten tici; aldiz, gogotic eztaguenari, Gincoaganaco gauça horiec oro <22> ppenoz ciauzcoço. Çure idurira, cerc eguiten du Gincoaga-naco gaucetan ehor çunbait aldiz pitçu eta eneatcen baita,<sup>27</sup> eta beste aldi çunbaitez ihiki eta goçoz eguiten baititu? Eztuço liferencia hori giten Gincoaganaco gauceta-ric, bena bai gure bihotzceco seindimendu liferentetic, erran nahi baita gure bihotz-ceco gar faltatic. Aita Avilac erraiten dici guiçon sendo eta azcar batec carreatuco edo jassanen diela eri edo haur batec altcha eztiroen carga; orobat ere, Gincoaren 20

---

21 içaiteco: *içaitceco*.

<sup>21</sup> Jatorrizkoak honela dio: *presto está para / disposé à* (RD 1, 22).

<sup>22</sup> Hirugarren pertsonari legokioke *dikezi* zuketan, baina bigarrenari *dukezu* dagokio Nor Nork-en; hona adibide bat: *hec eçagutu onduan, badakikeu cer galdeguin behar dukeçün* (114). Boudak ez zuen huts hau aipatu (1948: 599). Liburuan Nor saileko *dateke-reñ* zuketazko ordaina ere bada *dukezu* usu.

<sup>23</sup> Liburuak bi aldaerak dakartzza, *gaiski* nahiz *gaizki*.

<sup>24</sup> Jatorrizkoak gaztelaniaz *en el corazon* dio (I, 11), baina frantsesezkoan *dans l'ame* (RD 1, 23).

<sup>25</sup> Jatorrizkoak *inclinacion* / *inclination* dio.

<sup>26</sup> Jatorrizkoak *industriosa* / *industrieux* dio.

<sup>27</sup> Jatorrizkoak honela dio: *tan pesados / accablé d'ennui* (RD 1, 25). Lehen atzikian elipsia dagoela dirudi, “pizutzen eta eneatzen”, eta adiera ‘pizutu, pisutsubihurtu’ da, baina ez dakigu komunztadura horrela ote den, gramatikan simetrikoak ez diren osagaiaak batzeko askatasun handia baitarabil itzultzai-leak liburuan; prestat dugun hiztegian dihardugu *pitçu*-ko txistikari hori afrikatua ote zen, grafia arazo bat izan daitekeen...

amoriuac eta cerbitzchu seindiaren egarriac emaiten deragun indarrac, hareganaco gauça guiac ihi eta goçaxu eguiten dirauzkiguçu; aldiz, amorio haren faltac eritcen eta haurtzcen guitici salbamenduco bidian, eta halaz, haren eguiteco behar tugun gauçac neke eta ppenoz errendatcen.

1

### HIRURGUERREN CAPITULIA [I/1/3]

#### Disposicione eta bide net hun bat dela Gincoaren graciē ukeiteco garxuki desiratcia gure bertuthian aitcinatcia

Cerc ere eguiten baitu orano net prootzchoz dela gure abançu ispiritualaren desiraren ukeithia, edo hobeki erraiteco, haren gosse eta egarriaren, duçu, ceren desir hura baita gutan içaiten ahal <23> den disposicioneric hobenena Gincoaganic jardiresteko perfeccione, çointara heldu nahi baikira. Seint Ambrosioc erraiten dici desir hura bere beithan dienaren arima hain laket çacola, nun bethatcen baitu bere graciez eta huntarçunez, eta horren poroatceco ekarten dici Virgina Sacrathiac bere Cantica Magnificathian erran thien hitz hoc: *Jaunac bere huntarçunez edo dohainez bethe tu gossia çutenac.* Davitec gauça bera lehenago erran cincin: *arima egarria eta gossia bere hunez asse du;*<sup>28</sup> erran nahi baita, aitcineco capitulian erran dugun beçala, bertuthiazen eta perfeccioniaren hainbeste gortarçun uken dutenac, heen jardirexi nahiz, gosse eta egarri handi bat sofritu beçala dutenac, Gincoac bere huntarçunez bethe eta bere dohainez aberastu thiela, eta hori heen borondate hunaren —anitz laket citçaconaren— saristatceco edo pagatceco. Noizpait Ainguru bat Danieli aguertu citciacoçun eta erran haxetic haren otoitzçac inçunac içan cirela, ceren *desiresco guïçona baitcen.* Davitec Jaunaren ohoretan Templo baten eguiteco uken cien desira Gincoari hain laket içan citciacoçun, nun nahibada ez nahi ukenic ere harc eguin ceçacon, haren eiteco cien borondathia orotarat ere eguin uken bailu beçala saristatu baitcien edo hun hartu,<sup>29</sup> eta borondate hun haren eçagutctan haren arraçan Erreguetarçuna <24> segurtatu baitcien; eta azkenian, Zacheac Jesu-Christoren ikuzteco uken cien gutitcia handiaz, merechitu cincin Salbaçaliac lehenic sognin ceçacon eta Salbaçale Jaunac berac bere buria haren etchera gomita ceçan. Bena orano eguia hori clarkiago Salamonec erraiten diraguçu çuhurtziaz —çoin Gincoa bera baita— minço den lekian.<sup>30</sup> Cioçu: *çuhurtcia maite dutenec, ihiki idireiten dute;* bena badakicea çöñhen ihiki? *Desiratcen dutenen aitcinera duha eta lehenic bere buria eracazten du,* desiratcen duçun beçain sarri çureki duçu: *goizcic jeikiten denac haren cherkatcera, ihiki bathuren dici, eci borthan jarriric idirenem dici.* Ala baita Gincoaren huntarçuna eta misericordia handi eta içariric gabe! Bera giten duçu gure cherkatcera eta anitzcetan, edo anitz aldiz, gure bihotzçaren borta joiten dici. Apocalipsaren liburian cioçu: *huna, çure borthan nuçu eta joiten dicit;* eta Cantiken liburian: *ene arreba, bortha çabal eçadaçu.*

10

20

30

3 haurtzcen: *haurtzcen.* 9 desir: *dehr.* 31 eracazten: *eraçazten.*

<sup>28</sup> *Arima* hitzaren adjektiboak dira adibide honetan *egarria* eta *gossia*.

<sup>29</sup> Ikus 244-n ere *hun hartu* dakarrela.

<sup>30</sup> Jainkoa bera da zuhurtzia; jatorrizkoetan *hablando de la Sabiduría, que es el mismo Dios / où parlant de la sagesse, qui n'est autre chose que Dieu même* (RD 1, 27).

1 Hortic agueri duçu ezthiela choilki bortha joiten, bena joitez akithia bailiz beçala, han jarriric egoiten duçu, guri endelga-aracitceco idekia idiren balu, sartu çatekeela eta, hargatic ere, joan gabe bihotzceco bortan jarriric egoiten dela eta igurikitcen idec artekan, amorecatic han idiren deçagun. Çunbat ere Gincoari çure bihotzçaren bortaren idekithia <25> luçatu baituçu, eta haren gracier ihardesthia, hargatic ere estici joan nahi uken, sobera handi dici çure bihotzian sartecoa desira, eta fitez ez exitciagatic haren bortan jarten duçu eta igurikiten dici çabal deçacogun. Isaac erraiten dici *Jauna bihotzceco bortan doola, guri misericordia eguiteco*. Eta eguiaz adiskide batec bere maithiaren etchen sartcia desiratzen dien beno aboro, Gincoac desiratzen dici gure bihotzian sartcia; guc desiratzen eta haren uken nahiz gosse eta egarri dugun beno aboro guthicia dici, bere buriaren eta bere gracienguri emai-teco. Joandene<sup>31</sup> Joanne Apocalipxaco liburian erraiten dici: *egarri denari emanen derakot kitoric biciaren iturrico houretaric; ehor, beraz, egarri bada, gin bedi enegana eta edan deçala*. Gincoac nahi dici garxuki desira deçagun bertuthia eta perfeccio-nia, amorecatic eman deraukegunian desiratzen guindiena, ikaz guindeçan unxa ppre-tchatcen eta haren estimatzen eta beguira guindeçan gauça balioz edo preciatu bat beçala, eci gutiz gueihenetan, guti desirathia uken onduan guti nehorc pperetchatzen edo estimatzen dici; ere arraçoin handienetaric bat, ceren hain guti prootzchatzen dugun bertuthian eta perfeccio-nian,<sup>32</sup> duçu eztitugulacotz azki garxuki desiratzen; eguiaz erraiteco desiratzen tiici, bena hain flacoki <26> eta lachoki, nun gure desirac hartu tuguneco, jouanac baitira.

20 Saint<sup>33</sup> Bonaventurac erraiten dici badela gende intencione hunic dutenic, eta mundian diren desseinhic hobenenac hartcen tuztenic, bena behin ere eztitzetela bere buriac bortzchatzen, ez garaitzen bere desseinhen obratceco. Hetçaz erran dieiteçü Joandene Paulec berhartçaz erraiten cienia: *nahia banuke, bena eguiteco bihotz-cic ez*. Obratzen eztiren desirac eztituçu jiten borondate ossoki deliberatu batetaric eta eztituçu nahicunde arhin batçu becic; nahi likecie, bena ez cin-cinez. Çuhurrac erraiten dici *auherr[a]c nahi diela eta ezthiela nahi; desirez bethia dela, bena ezpaitu nahi heen honitceco deuz eguin, eguna oro deliberotan igaraiten çacola*. Seint Jeromac cioçu oro desir direla eta Aita Avilac net unxa erraiten dici halakuez, amexetaric obra handiric eguiten dutela uzte dutenac, iduri dutela eta, çoinhec iratçartu onduan deus ere ecin ein baitirote, Isaiaaren erran hoen aravera: *gosse denac çunbait aldiz amex eguiten diela jaten diela, bena iratçartu onduan, lehen beçala haren sa-bela houxic edo gosse dela*. Gende suerte heir iduri cieecu otoitzçan dierenian, sofritu eta mezperetchatiliac içan nahiz erratzen direla,<sup>34</sup> eta otoitzçatic jalgui onduan sofritceco dremenden parada heltcen bacee, ezticie guei çuten beçala <27> eguiten, etçutelacotz sofritceco eguiasco desir bat: bena sofritceco amex bat beçala egui çu-

5 bortaren: *bortaten*.

23 eztitzetela: *extituzzela*.

27 ez: ex.

30 cioçu: *ciaçu*.

<sup>31</sup> Ez da liburuan ergatiboa huts egiten den adibide bakarra.

<sup>32</sup> Adiera ‘aitzinatu’ izan lezake *prooxatu* aditzak hemen, *bertuthian eta perfeccio-nian* baitio, inesi-boan jokaturik; frantseser ere inesi-boan doaz: *causes de peu de profit que nous faisons dans la vertu et dans la perfection* (RD 1, 29). 34-n *bertuthian* nehorc prootzchatceco edo aitcinatceco dien desira dakar.

<sup>33</sup> Liburuan ez da beste Saint-ik, gainerateko guztiaik Seint dira, 381 aldziz.

<sup>34</sup> Gaztelaniazko jatorrizkoan ez dago erretze konturik, baina frantseser zerbaiz biziki eta gogo biziz nahi izatea *brûler* den alderik ageri da euskal itzulpenean *erratzen*.

tela. Çunbaitez ciocie orano iduri dutela soldado paretetan pintaturic daudenac, çoinhec beti ezpata exaiaren burura alchaturic baitaucate eta behin ere colpuric ez emaiten. Daviten erran hoc senxu hortara har dieiesteçu: *guiçona portret bat beçala dela*; bere bicia oro beti bessuaren alçatcen eremaiten diela, behin ere colpuric eman gabe. Compara ere dieiesteçu haurra ecin ukenez edo ecin sorthuz daguen emazte bat, eta Essekiassec Isaia beitan erraiten thienac hetçaz erran dieiesteçu: *haurrac jin dira sortceco pundurano, bena Amec eztute azki indar uken heen sortceco*. Seint Jero-mac explicatcen thiilaric Seint Mathiaren erran hoc: *malur içorra diratekeenen eta dembora harten ounide diratekeenen*,<sup>35</sup> malur —cioçu— arimen, çoinhec ezpaitukete bere fruthia guiçon perfect batetaranokuan çorhi-araci! Malur hartu cituzten delibero hunac obratu eztituztenen, bena bere barnian eceztatu tuztenen! Eci behin ere desiren ez obratcia, cer da becic ere heen bere beitan ihortzia? Malur bere bicia oro desiretan igaraiten dutenen, eta heriuac uztegabian obra hunic batere ein gabe harten<sup>36</sup> tuztenen! Eci ordian heen desir hunac eztitukeçu choilki auher, bena orano hec obratu faltaz garrazki punithiac içanen tuçu <28> eta azkenian ikussico dicie hartu tuzten desirac bere contre jeikiten, obratu balitzte prootzchu handiric heta-ric idokiten ahal çotelaric.

Iskritura Seindiac erraiten dici, Absalonec, içaten<sup>37</sup> ahal den biloric edo bilo ja-xic ederrena ciela, bena haren gal-aracitceco içan çuçun; haritz batetaric bere bilo-tic chilinchau baratu çuçun eta hala çoolaric Joab generalac hil cicin; heriuac gauça bera egüinen diraguçu gure desir hunac airian beçala gauzkatlaric edo atchikiten guitztelaric, hec berac gure garrazkiago condenatceco içanen tuçu. Joandene Joanne Apocalipxan erraiten dici ikussi ciela emazte bat haur minetan eta haren aldian dragon edo sugue handi bat çoola, haurraren sor beha, sor beçain fite haren iresteco; orabat<sup>38</sup> demoniuac ein ahalac oro eiten tici, noiz eta ere arimac cerbait delibero hun hartcen baitu haren egüithia luçaraci edo utz-aracis, hartakotz, guc ere gure ahal oroz erressolucion seindu çunbait hartcen dugunian, labur edo lehen beno lehen complitu behar diici. Seint Bernatec erraiten dici, Isaia Prophetac gauça bera endelgatu diela hitz eder beçain labur hotçaz: *cherkacen baducie, unxa cherka çacie*; erran nahi baita, eneatu gabe desira eta cherka çacie eta etcitezuela enea cherkacian, eci eguiasco desirec galdeiten dici <29> iraupena, garxu içan behar dici, obratu behar dici, eta manera batez non, Micheo Prophetaren erran hoen aravera, beti eta hanbat aboro Gincoari beti placer eguiteco arrangura osso bat uken behar du-gula. Propheta horrec cioçu: *eracaxico derauciet cer den hunguia eta Jaunac cer desi-ratcen dien cieganic; justotarçuna segui deçacien, maita misericordia eta oussustamendu seguidazco bat uken deçacien, beti Gincoarekin ibiltceco eta berthuthian aticinatceco*.

1 Çunbaitez: *Cunbaitez*. 4 bere: *here*. 7 sortceco: *sortceco*. 30 çacie: *ca-cie*. 34 cioçu: *cirçu*. 34 cer: *cor*. 36 berthuthian: *berthuthian*.

<sup>35</sup> Jatorrizkoan *malheur à celles qui seront enceintes ou qui nourriront des enfans en ce temps-là* (RD 1, 31) eta latinez *vae autem praegnantibus et nutrientibus in illis diebus* (ibidem).

<sup>36</sup> Liburuak dakaren *harten* bakarra da, beste guztiak *hartzen* edo *hartzzen* dira.

<sup>37</sup> Liburuko içaten bakarra da, beste guztiak *ıçatien* (22, 121, 325, 349, 350, 406, 408, 409) edo *ıçatien* (235) dakartza.

<sup>38</sup> Hiztegian adierazi dugun bezala, *orobat* forma nagusi da liburuan, baina *orabat* lau aldiz ageri da (28, 33, 107, 299).

1 Horra nolaco desirac galdeiten thien Gincoac gureganic bere hunguiez eta graciez gure betatceco,<sup>39</sup> eta dohaxiac dituçu halaco gosse eta egarri aboruen dutenac, ceren aussarki asseco baitira eta ikussico baitituzte bere desirac ossoki honithiac. Ira-kurten diici Seint Gregorioren bicitcian<sup>40</sup> egun batez Jesu-Christo aguertu citçacola, erraiten ceracolaric fideler bacoitzcal eman cereela ourhesco caneta bedera, edateco eta haren sahex sacramatic desiratcen ahal çuten beçanbat graciaren jardiresteco, eta ourhesco caneta hura, berac ondotic explicatcen dien beçala, dela borondate seindu eta chuchen bat, çoinhen medioz Gincoaren benedicioniac gure gagnera erakarten baititugu.

10

## &lt;30&gt; LAURGUERREN CAPITULIA [I/1/4]

**Çunbatenaz ere ehor aboro gauça ispiritualer edo Gincoazkuer emanen baita, hanbatenaz garxukiago desiratuco tici**

20

Iskritura Seindiac, Gincoaren çuhurtcziaz minço delaric, erraiten dici: *ni jaten nutenec orano gosse dirateke eta ni edaten nutenec orano egarri dirateke*. Seint Gregorio cioçu gorritzceco huntarçunen eta placerren, eta ispirithiaren huntarçunen eta placerren arthian, lifferencia haur dela: gorritzcekuac, eztitugunian, oussustamendureki desiratcen tugula; uken onduan, hetçaz cassu guti eguiten dugula. Orai berian mundian batbederac bere sortçapenaren eta officiaren aravera kargu baten ukeitia desiratcen dici; biskitarthian, desiratcen cien kargu hura uken dien beçain fite, hazzten duçu haren mezperetzchatcen eta besteric cerbaiten gutitciatcen; beste bat uken dia, hartzaz orobat eneatcen duçu eta azkenian, bere nahicunder içariric eta chederic ecin emanez, cerbait gauça berriren onduan beti diabilaçu, behin ere deussezerez<sup>41</sup> content içan gabe. Gauça ispiritualez edo Gincoaskuez eztuçu orobat: eztitugunian eziici guztatcen<sup>42</sup> eta hazthio tiici, bena <31> jardirex gueroz<sup>43</sup> hobeki eçagutcen diici çoinhen balioz diren, aboro estimatcen tiici, aboro goçatcen eta garxukiago heen cherkatcera ekarriac guituçu. Lifferencia horren arraçoinha dela cioçu Seint Gregorio harc berac, ceren huntarçun eta placer demborakuen goçamenac eçagut-aracitcen baiterauku heen ezdeuztarçuna eta ezkazdura, hetan eztugulacotz idireiten igurikiten guindien placerra eta contentamendia, uken onduan mezperetzchatcen tugula eta uztez bestetan idiren desiratcen dugun contentamendu hura, beste desir berriric hartcen dugula; bena trompatcen guituçu, azken desirec lehenen chorte bera dikecie,

---

8 çoinhen: *coinhen*.

<sup>39</sup> Liburuak *Belatceco* dakar, baina hutsa da; jatorrizkoek *para hacernos mercedes, y llenarnos de bienes / pour nous combler de biens et de grâces* (RD 1, 33) diote.

<sup>40</sup> Jatorrizkoetan *santa Gertrudis* eta *sainte Gertrude* (RD 1, 33) irakurtzen da; *Gregorio* gurutzatuzaio itzultzaileari.

<sup>41</sup> Liburuan ez da honelako beste adibiderik; gaineratekoak “*deussec-ere ez + aditza*”, *deussere, deussetan-ere & deussetan ere...* erakoak dira.

<sup>42</sup> Iku erabilera berezi honestaz hiztegian.

<sup>43</sup> Liburuan bakarra da ondoriozko *gueroz* hau, aditz nagusian -z gabe ageri dena; honen aldean, zuzen dago *jardirexiz gueroz* (61); beharbada inprimategiko hutsa da, *jardirex artecan* (128, 132, 298) era-koei begira egina edo.

ceren ezpaikira creathiac munduco eta halaz, deussec ere mundian ezpaikitçake behin ere ossoki contenta ahal. Salbaçale Jaunac hori nahi uken cicin endelga-araci Samariaco emazthiari erran ceraconian: *hour hortaric edanen duten oroc orano egarri ukenen dicie*, eci celuko creathia içan den guiçon baten egarria, lurreco contentamendu eta placerren hourec oroc etcirocie hil ahal behin ere; aldis, huntarçun eta placer ispiritualac ehorc goçatcen thienian, maitatcen eta desideratcenago tici, ceren ordian heen merechimendia ehorc hobeki eşagutzen baitu eta, çunbatenaz ere perfeikiago goçatuko baititugu, hanbatenaz heendaco dugun egarria handithuz dihaçu. <32> Eztuçu miraculu<sup>44</sup> —cioçu Seindu berac— gauça ispiritualen edo Gincoaskuen desiratu gabia, cer diren poroatu beno lehen eta heen goçatcen hassi gabe. Nola ehorc maita diro eşagutzen ezthien gauça bat? Joandene Petiri Apostoliac ciòcu ere:<sup>45</sup> *balin goçatcen baducie Jauna çoinhen ezt den; eta, aldis, Davitec: goça eta ikuz eşazu Jauna çoinhen ezt den;* ceren behin Gincoaren unxa goçatcen hazten baguira eta gauça ispiritualen guzatcen, hetan hain eztitarçun handia idiren diici, nun ezpaikaiste behin ere asse. Capitulu hunen haxian erran tugun hitz hotçaz, beraz, *ni jaten nutenec orano gosse ukenen dute eta ni edaten nutenec orano egarri ukenen dute*, endelgatu behar diici, çunbatenaz ere hobekiago celuko gaucer jarraikico edo emanen baikira eta garxuki bessarcatuko baititugu, hanbatenaz ere aboro gutan eşagutuko dugula emendantcen heen goçatceco desira.

Bena erranen deraate: Nola hori juan daite Jesu-Christoc Samariaco emazthiari erran cerazcon hitz hoeki? *Norc ere edanen baitu nic emanen deracodan houretic, eztu behin ere egarriric ukenen.* Haben<sup>46</sup> Gincoaren Semiac erraiten dici, harc emanen dien houretic eraten<sup>47</sup> dienac ezthiela behin ere egarriric ukenen, eta Spiritu Seindiac, beste capituliaren haxeco erran dugun leku hartan, Çuhurraren ahotic minço delaric, erraiten <33> dici: edanago, egarriago içanen guirela; nola chuchent daiste elgarreki horrein<sup>48</sup> erran liferentac? Idurisco liferencia horien batetaratceco, Eliçaco Aita Seindiec ciocie hortan gagnan, Jesu-Christoc Samariaco emazthiari erran hitzçac endelgatu behar direla guiza huntara: norc ere edanen baitu hour bici Sa[ll]baçaliac erraiten cien hartaric, munduco placer gaiztuen egarriric behin ere ezthiela ukenen, ceren gauça ispiritualen eztitarçunac munduco placerren guzthia arraz edekico bai-teree, goçagabe<sup>49</sup> eta higungarri iduri-aracico. Hala nola —cioçu Seint Gregorioc— cerbait gauça eztiric jan dienari besthiac oro karax iduritzen baitçazco, orabat ere, Gincoa eta gauça ispiritualac behin guzatu thienari, munduco gaucen koxia dutenac oro, karax eta goço gabeco ciazçoçu eta bihotzça gogaincen direeçu edo ppena eiten

27 Samariaco: *Samriaco*.

28 behar: *hebar*.

<sup>44</sup> Adieraz beste euskaldun batzuen ‘ez da harritzeko’.

<sup>45</sup> Liburuan *ere* hori letra etzanean dator, aipuari balegokio bezala, baina basa euskara dirudi *ere balin* horrek; frantsesezkoa ikusirik badirudi *ere aitzineko* perpusezkoa dela: *aussi l'apôtre saint Pierre dit: Si toutefois vous avez goûté combien le Seigneur est doux* (RD 1, 36).

<sup>46</sup> Liburuan bi aldiż ageri da *haben* ‘hemen’ (32, 90) eta hogeita hamar aldiż, berriz, *heben*.

<sup>47</sup> Liburuan *ez da* *<r>* duen beste aldaرارik; dauden guztiak *edan*, *edaten*, *edari* e. a. dira.

<sup>48</sup> Ez da adibide bakarra; 349-n ere badakar *horrein*. Öroit Etxeparek ere *horreyn* dakarrela (172).

<sup>49</sup> Gaztelaniaz *hace que le parezcan desabridos* eta frantsesez *et fera qu'elles lui paroîtront fades et dé-sagrables* (RD 1, 37).

1 diracocie. Bena<sup>50</sup> Çuhurraren erran hotçaz den beçanbat: *ni jaten nutenec orano gosse ukenen dute eta ni edaten nutenec orano egarri dirateke* gauça ispiritualen edo Gincoaskuen, hartu behar dicie eta hetaric endelgatu, norc ere Gincoasco gauçac aboruenic guztatuko baititu, hura beitan heen uken nahisco gossia eta egarría emendaturenago dela, ceren ordian heen merechimendia eçaguturic eta heen eztitarçuna poroaturic, garxukiago heen chercatcera ekarria baitate eta hola <34> Doctor Seindiec expliqatcen ticie iskritura seinduco bi pundu horiec.

### BOSTGUERREN CAPITULIA [I/1/5]

#### **Bertuthian nehorc prootzchatceco edo aitcinatceco dien desira, Gincoaren gracian edo amoriuan dela segnhale handi bat duçu**

Arima bat Gincoaren gracian dela segnhaletan den segurrenetaric bat duçu, perfeccionian aitcinatceco dien dessira eta Gincoari laket çazcon gaucetan arrangura berri bateki finkatcia, eta eztieiteçu içan deuz ere consolagarriagoric, ez eta ere dessir hartan aboro gort guiltçakeenik. Seint Bernatec erraiten dici, Gincoa gure bihotzian dela segurraincharic handiena, haren amoriuan aitcinatceco dugun dessira dela eta hori poroatcen dici lehen erran tugun Çuhurraren hitz hotçaz: *jaten nutenec orano gosse ukenen dute eta edaten nutenec orano egarri içanen dira*; gosse eta egarri badu, beraz, celuco gaucendaco, alleguera cite; segnhale agueri bat duçu Gincoac bere egoitça çure ariman eguiten diela, harc emaiten derauçu gosse eta egarri hori eta duda gabe, segnhale idiren duçula mia balioz haren eguiazco çainha, beti hari çauzconaz gueroz: hala nola ihiz-hor bat alde orotarat baitabila <35> cerbait seindi arthio, eta çunbait ihiciren urrina seinditu onduan, biciki herechari jarraikiten baita idiren artican; orobat, Gingoaren<sup>51</sup> amoriuaren urrinaren eztitarçuna eguiazki seinditu diena, baratu gabe hari jarraikiten duçu eta erraiten, Cantiketan doon beçala, *çure urrin Gincoaskuen onduan ibilen guituçu*; çu beitan den Gincoac, beraz, hola bere ondotic eremaiten citu, bena çutan seinditzen ezipaduçu gosse eta egarri hura, arraçoinheki beldur içan cite Gincoa eztateela çure bihotzian, ez çu haren gracian, eci Gincoasco gaucec —Seint Gregoriotaric landan erran dugun beçala— bere beitharic haur dicie, nehorc eztithiela ez gutitciatzen, ez maitatzen, ez peretchatzen, ez estimatzen, goçatzen direnian becic.

Seint Bernatec erraiten dici ikaratzen cela eta buruco biluac çutitzen citçazcola, Ispiritu Seindiac Çuhurraren ahotic erran thien hitz hotçaz orhitzzen cenian: *guiconac eztaki Gincoaren amoriuan ala haren odiuan den*; hitz horiec ikaragarri tuçu —cioço Seindu handi horrec— ispirithian edo bihotzian paussuric batere ezticie uzten eta hotan gagnan goguaketatu niçan aldi oroz, lazturna batec hartu nici, hitz hoen —norc

---

10 dela: *de la*. 13 eztieiteçu: *ezticateu*. 13 deuz ere: *deuzzere*. 14 erraiten: *errritten*. 22 idiren: *idireen*. 31 citçazcola: *citaçazcola*.

<sup>50</sup> *Bona* dakar liburuak, baina hutsa da, jatorrizkoak honela dakar: *pero lo que dice el Sabio en esotro lugar* (I, 17) / *mais quant à ces mots du Sage* (RD 1, 37).

<sup>51</sup> <Gingo> bost aldiz ageri da liburuan (35, 38, 57, 112, 422); *Ginco* da liburuko forma nagusia; ikus *Jingo* aldaeraren paraleloak hiztegian.

daki Jaunaren amoriuan ala hiran edo haztiuan den— ikarareki becic ecin erranez. Beraz, arren, goguaketa horrec hala ikararaci badu Seindu handi bat, <36> Eliçaren habé bici azkar bat, cer beldur eztu echarri behar gutan —coinhec gure becathiez beldur içaiteco hainbeste arraçoin baitugu—, guc, heriuaren arresta gure beithan uken dugunac? *Segurki badakit Gincoa offendatxu dudala eta eztakitz barkamendia uken du-danez;* nor ezta ikaratuco goguaketa horren eguthian? Balin jakin ahal baguindeça gure becathiac barkatu çauzkigula, eçagut ahal baguindeça Jaunaren gracian guirela eta hartaco cerbait berme eta segurtaincha baguindu, hori çunbat ezkinduke behar eztimatu? Çunbat ere Gincoaren inspiracione berheci bat gabe, nehorc ezpaiteçake jakin mundu huntan segurtaincha osso batez Gincoaren gracian dela, orotarat ere, baituçu çunbait segnhale hala guirela cerbait guizaz eçagut-araci deçaukutenic, eta nehorc uken ahal deçakeen handiena duçu, bere bihotzian seinditcia beti, perfecionian eta bertuthian beti eta hanbat aboro aitcinatceco dien dessir berua; arroçoin hori azki duçu gure beti dessir hartan atchikaracitceco, hori guretaco Gincoaren graciaren bahi eta berme bat denaz gueroz, eta bicitce huntan ukeiten ahal dugun eztitarçunic eta consoluric handiena duçu halaco segurtaincha baten ukeithia.

Hori ihiki poroa dieiteçu Spiritu Seindiac Proverbiuetan erraiten thien hitz hotçaz: *justuen bidia ekiaren pare duçu, çoin <37> beti goratuz, berotuz eta arguithuz baituha euguerdiren<sup>52</sup> gorenera hel arthian;* orobat, justuac bertuthian aitcinatz eta emendatz dihatçu, Seint Bernatec erraiten dien beçala: justuac eztici uzte behin ere bere eguinbidia ossoki eguin diela, eztici behin ere erraiten azki eguin dut; justiciaren gossia eta egarría beti badici, beti bici baliz inxea ere lieiteçu eguitera perfeccionian aitcina joateco eta beti hobenen dena eguinez. Iskiribathia ere duçu justuez: *bertutetic bertutera joanen direla,* erran nahi baita, beti garxuki thaiic gabe edo lachatu gabe bertutheco bidian aitcinatz joanen direla perfeccioneric gorenera hel artekan; bena lachuen, herabesthien<sup>53</sup> eta gaiztuen bidiac, axaldeco ekia edo argua iduri diela, beti apalduz duhela, azkenecotz arraz itçalcon dela eta gau beltz baten ilhunpian uzten guithiela. Çuhurrac erraiten dici: *gaiztuen bidia ilhunpez bethia dela, eztutela ikuzten leice çointara erorten baitira;* hain ilhunpe handian ibilten direla, nun urhazcal behazthopatcen baitira eta uxumendia hain handi eta hain deithoragarri dela, nun ezpaitituzte eçagutzen eiten tuzten faltac, ez hetçaz bihotzian ppenaric;<sup>54</sup> bere becathiac bere guiza hartcen ticie, batçutan becatu direnac ezthiauzkacie hala, ardura mortalac benial diauzcacie edo choilki imperfeccione batçuren, eta batere becatu ez-pailira beçala.

2 Seindu: *Seiudu.* 33 imperfeccione: *jimperfeccione.*

<sup>52</sup> Hiru aldiz dakar liburuak *euguerdi* (37, 104, 244). Liburuan ez da “eguerdi”-rik ageri eta ez da kigu “eugerdi” alla “euguerdi” irakurri behar den.

<sup>53</sup> Ekialdeko euskalkietako “herabezi” ‘nagia’ hitza da, ez da balizko “herabetsien” baten hutsa.

<sup>54</sup> Bigarren aditzaren elipsis dago; hona jatorrizkoak zer dioen: *ni les remuerde la conciencia / n'en ont aucun remords* (RD 1, 45).

1

## &lt;38&gt; SEIGUERREN CAPITULIA [I/1/9]

**Coinhen prootzchoz edo balioz den gauçaric thiapien lachokeriaric gabe eta unxa egithia**

Ispiritu Seindiac Ecclesiaztican erraiten dici: *gauça thipia[c] mezpreretzchatcen thienac emeki-emeki erortera jinen dela*; hitz horietan daguena mundu guciarendaco duçu eta berheciki, perfeccionera heldu nahi direnen, eci nola gauça handiec bereki baitute bere gomendia, nehor aboro ernetarçun hetan ukeitera ekarría duçu,<sup>55</sup> bera gauça thiapietan nehor gutis aboruetan lachatcen duçu, uztez gauça guti bat den hetan falta egithia. Bizkitarthian nehor trompatcen duçu, net langeroz duçu hetan faltatcia eta hartacotz, Ispiritu Seindiac heben erraiten dici: norc ere gauça thiapiac mezperetzchatcen baititu, emeki-emeki edo doya-doya falta handietara erorico dela. Eguia hortçaz gure segurtatceco eta guri beti gogua eman-aracitceco, duda gabe azki içan behar likeci jakithia Gingoac berac errana dela, bera gauça horren gure ispirithian hobeki sartciagatic, dugun ikuz horren gagnan Seindiec cer seindimendu duten. Seint Bernatec erraiten dici, becaturic <39> handienetan erorten direnac lehenic falta thipiaric [h]azten<sup>56</sup> direla, eta nehor bet-betan eztela sordeitzchenera joaiten, erran nahi baita, gutiz beztetan<sup>57</sup> nehor eztela betan huntarçunic edo bertuthe-ric handienera heltcen, ez gaizkiriec sordeitzchenera erorten, bera hunguia eta gaizkia emekinho bihotzian sartcen direla eta eçagutu gabe emendatcen. Arimaren gaitz-  
cez gorritzcekuez beçala duçu: batciac eta besthiac emeki-emeki giten; halaz, çun-  
bait Gincoaren cerbitzchari ikuksen duçunian erori itxoussi edo handi<sup>58</sup> çunbaiten  
eguiten, eztuçula uzte —cioçu Seint Bernatec— gaitzça ordian hazten dela; dembora  
luçaz bici seindu hun bat ereman diena, bein<sup>59</sup> ere eztela betan çunbait becatu han-  
ditara erorten, bera lehenic gauça thipithuetan lachatcen dela, guero devocionia gu-  
titcen, beti eta hanbat aboro Gincoaganaco garra hozten; azkenecotz, merechitchen<sup>60</sup>  
Gincoaren graciaren laguntçaren galtzia, eta Gincoaren sustengua galduz gueroz,  
nehor ihiki giten çacon tentacione handiac garaitzen.

Cassien Autorrac haur explicatcen dici Ispiritu Seindiaganic idoki comparancha net hun batez: etchiac —cioçu— eztirela bet-betan<sup>61</sup> erorten, bera heen erorthia hazten dela lehenic çunbait gotera edo ithachur tapatu faltaz, eta ithachur hetaric sartcen den hourac emeki-emeki edo doya-doya çurtathia ouztelcen diela, guero mu-

10 erraiten: *ereaiten*. 19 gaitzcez: *gaiztcez*.

<sup>55</sup> Aiseago uler liteke *hetan* adizlagun hau galdegaiaren gunean ez balego: “nehor hetan aboro ernetarçun ukeitera ekarría duçu”.

<sup>56</sup> Bakarra da liburuan *b*-rik gabe, “hasten” irudikatzen du; adiera jatorrizkoan ageri da: *de faltas pequeñas comienzan después á caer en muy grandes males* (I, 36) / *commencent d'abord par des fautes très-légères* (RD 1, 82).

<sup>57</sup> Adiera ‘aldi gehienetan’ edo luke *gutiz beztetan-ek*; ikus honen berri hiztegiak.

<sup>58</sup> Jatorrizkoak honela dio: *caídas grandes / quelque chute marquée* (RD 1, 82).

<sup>59</sup> Ez dago <bein>-en beste agerraldirik liburuan, <behin> dira beste guziak.

<sup>60</sup> Ez da aldaera bakarra; 62-n ere bada *merechitchen*; ordea, 68-n *merechitzen* dago eta 180-n *mer-echitceco*.

<sup>61</sup> Ikus aitzinxearago *bat-bathian*; liburuan *bet-bet(h)an* & *bat-bathian* ditugu, biak adiera berean; frantssez d'un coup dakar (RD 1, 82-3).

rrian <40> sartcen, morterua trempatcen eta azkenecotz, cimendura joaiten, murria chilatcen eta ourratcen, guero gau batez etchia oro erorten. Ispiritu Seindiac erraiten dici Ecclesiastico liburian, auherkeriatric giten dela hegatxa çabaltcera, ezpadu nehorc chuchentcen guero etchian alde orotaric euria sartuco dela, erreparacione thipi çunbait haxetic ein faltaz, teula itçuli gabez, çunbait gotera cambiatu edo tapatu faltaz, bat-bathian etchia erortera gin duçu. Orobak duçu —cioçu Cassienec— gutçaz: gaiz-kiraco gutan den erordura<sup>62</sup> batec gure seindimendiak laussengatzen<sup>63</sup> thiela, enguenatcen, irabazten, gure arimala lerratcen eta sartcen, gure erressolucioneric seindienac, azk[a]rrenac kordocatcen eta azkenecotz, gure devocionarien edo bertuthiaren cimendiac manera batez flakatcen, nun mement batez gure etche ispirituala lurrera erorten baita. Bizkitarthian gaitza edo damia heltzen duçu, tenorez gogua eman faltaz. Haxarrian ihi çuçun gaitzçaren handitcetic beiraticia, bena ceren nehorc gaitza orano thipi cenian lachoki utci dien, becatu thipietaric corrigitu faltaz eta gauça thi-piez cassuric ezthielacotz ein, hantic gin duçu lachakeria ahalgaiçun batez<sup>64</sup> tentacioniari bere buria garaitcera utci baitu; Gincoac lexala halako exemplien poroançac eliten hain ussu! Eguiaz eztonatceco <41> duçu eta dembora berian beldur içaiteco, nehorc goguan hartzen dienian, çunbaiten becaturic handienetara erorthiac hain haxarre thipietaric eta flakuetaric gin direla. Hori heldu duçu Demoniuaren abiletic: Gincoaren cerbitzchariac etci berheala tentatzen gauça handietaric, bena thipietaric hazten duçu, eta beti gauça arhin hetan eçabeki beçala, heen enguenatuz becatu thipi çunbaitetara eror-aracitzen tici eta guiza hortan, neholare beno hobeki, Gincoaren cerbitzcharien contre bere eitekuac eiten tici, eci acometatzen balitu haxetic becatu mortal baten eguitera, ihiki haren tentacionia eçagut eta iheiz<sup>65</sup> lirocie, bena nola gauça thipietaric emeki-emeki edo doya-doya hazten baita, poroatu<sup>66</sup> gabe ariman sartu dukeçu. Hartacotz Seint Gregorioc ciòcu, cerbait guizaz falta thipiac handiac beno langerossago direla, handiac hobekiago nehorc eçagutzen thielaçotz eta eçagutce harc nehor ekarten diela, edo heer arranguroska ihez eguitera, edo erori dateenian, lehen beno lehen hetaric jeikitera, bena thipiac, nehorc guthiago eçagutzen thielaçotz, heer guthiago ihez eiten dici, eta nola hetçaz nehorc cassu guti eiten baitu, hain ardura erorten duçu, nun hetan eroris costumatzen baita, costuma haren uzteria ez behin ere ossoki ez finki deliberatzen, eta halaz, haxarrian kazi <42> deus ere etcen gaitza handitzen, eta gure lachokeriaz eta hetara ardura eroriz, ecin sendo daiteen beçalaco eztatura giten. Seint Chrisostomac gauça beraz minço delaric erraiten dici: gauça eztonagarri eta inçun eztucien baten erraitera menturaturen niz; iduri çaut çunbait aldiz becatu thipier handier beno arranguroskaigo nehorc ihez egui

12 gaitzçaren: *gaitzcaren*.

<sup>62</sup> Jatorrizkoan grandes caídas / une certaine pente naturelle dugu (RD 1, 83).

<sup>63</sup> Zuberoan auherretan munduko abantaillec, trompatceco lausencatzen naie dakar 1734ko *Othoitze eta cantica-k* (50).

<sup>64</sup> Frantssez par une honteuse lâcheté, s'est laissé vaincre par la tentation (RD 1, 84); adibidean adjektiboa dugu *ahalgaïçun*. Maister zuberotarrak ere honelaxe darabil: *placer hourac, direnac oro, llabur, falsu, gaichito eta ahalkeiñan* (175).

<sup>65</sup> Balirudike *ireizi*-ren aldaera dela *iheiz* hori, liburuko *iheiz* bakarra, adiera ‘baztertu’ edo duena. Jatorrizkoak honela dio: *sería fácilmente sentido y despedido* (I, 37) / *découvert et repoussée* (RD 1, 84).

<sup>66</sup> Adiera ‘ohartzea’ du; hiztegian dihardugu honetaz.

1 behar diela, eci becatu handiac bere itxoustarçunaz bere beitaric hazthiaratcitzen  
 tici, bena thipieki ihiki nabassitzen guitu, ezdeuzzetaco beçala hartzen eta thipi  
 dauztagulacotz, hetçaz eziici cassuric eiten, hetaric beiratcera ezkitu intxeatzen;  
 gure lachokeriaz hetaric eguiteco costuma gutan hain handitzen edo azkartzen duçu,  
 nun kasic haren ecin uztera giten baikira; hara cergatic Demoniuac gauça thipietan  
 Gincoaren cerbitzchariac tentatzen edo atakatzen thien, ceren baitaki guero ihikiago  
 becatu handietara eror-aracico thiela.

Seint Augustinec erraiten dici, cer eiten du ounci bat gal dadin, hour-perat joanez  
 bat-bathian itxassuaren asserre boulta batez, edo doya-doya ounciari hora sarthuz  
 eta hartan sarcera lachoki utciz, idokiteco arranguraric hartu gabe, azkenecotz hour-  
 perat ouncia joaiten bada? Ere Demoniuari nolanahi gure ariman cernahi becatuz  
 edo bicioz sar dadin ber, bardin ciaco, bere chedera hel dadin <43> eta gal-araci  
 guitçan ber. Seint Bonaventurac cioço, anitz euri chorteletaric ouherriac giten tuçu,  
 çoinhec çunbait aldiz mururric azzarrenac aurtikiten baitituzte; ardura ounci baten  
 galtzia giten duçu, chilo edo erdiro thipi agueri ezten batetaric ouncian sartzen den  
 ouretic. Hartacotz Seint Augustinec erraiten diragu: hala nola ounci bati hora  
 sartzen çaconian, berheala hourac ouncitic kendu behar baitu hour-perat joan ez-  
 tadin, orobat behar dugula otoitzça garxu batez eta examen arranguroz batez, beti  
 intxeatu gure concenciatic kentcera cer ere hara sar edo lerra beileite<sup>67</sup> saxuric edo  
 gaiztoric, eta guerocotz gal-araci ahal guitçakeenic. Hara cer eguiñ behar dien beti  
 Gincoaren cerbitzchari batec; beti bere buria thaiic gabe corrigitu, beti ari concen-  
 ciati becathien hour saxien kentzen, gal-araz ezteçaten, beztela, galtceco edo dam-  
 natceco erriskutan jarten duçu. Arranguroska —cioço ber Seindiac beste leku bate-  
 tan— çure içariac hartzen tuçu becaturic handienen contre, bena cer eguiten duçu  
 thipietaric beiratceco? Etcirea beraz heen beldur? Carga handiac itxassorat aurtiki  
 tuçu, beirauç edo gogua emaç ounciareñ çolan den harinha aldiac ouncia gal-araz  
 ezteçan. Auherretan ouncia langer edo peril handier itxassuan itçurico dukeçu, itxaz  
 portihian gauça thipiac gal-aracitzen <44> badu; orobat, tentacioneric gaitzcenac edo  
 bortitzcenac prootzchuric gabe ireici edo ourrundu tukeçu, gauça thipietan çure bu-  
 ria enguenatcera uzten badu, eta gauça thipier gogua eman faltaz, handietara eme-  
 ki-emeki guero eroris damnatzen bacira.

### ÇAZPIGUERREN CAPITULIA [I/1/12]

#### Perfeccioniaren jardirezteco necessario dela eçagutcerekilaco edo borondatesco becatu orori ihez eguthia eta einbide orori chuchen jarraikitcia

Perfeccionera heltceco —çoinhen jardirezthia beti behar baitugu desiratu— net  
 prootzchos eta necessario duçu eçagutce osso bateki becaturic ez eguthia; eta horren

3 dauztagulacotz: *dauzçagulacotz*. 4 eguiteco: *eguitceco*. 13 Bonaventurac: *Bonaventuric*.  
 21 cerbitzchari: *corbitzchari*.

<sup>67</sup> Liburuko *bei(t)* bakarra da, gaineratekoak *bai(t)* dira eta *leite* ere bakarra da, beste guztiak *laite* dira liburuan; cf. Ressegue Zuberoan: *galerazteco cer ere Aurhidegoala leint ahal beyleite behar eztenic* (1758: 31-2).

unxa esplicatceco goguan hartu behar diici badirela bi becatu benial suerte: batcietara Gincoaren beldurrian bici direnac ere erorten direla, flakecias, jakin gabian eta go-gua eman gabez; hargatic ere, azki arrangura hartu faltaz. Hotçaz den beçanbat, Gin-coa bihotcez eta eguiaz cerbitzchatcen dutenec eta hareki daudenec poroatcen dicie egun oroz, tristatceco beno umiliatceco arraçoin oboro<sup>68</sup> dutela, eta heegatic Gincoac ezthiela bere bertaithia heeganic urruntcen, <45> bena gracia berriac emaiten deres-tela eta ispiritu berri batez azkarcen thiela, noiz eta ere hetan hari umilgui<sup>69</sup> hersatcen baitira. Bena baduçi beste becatu benial suerte bat, çointara Gincoaren cerbitzchari epelac eta lachuac bere nahiz eta eçagutce osso bateki erorten direnac, eta falta suerte hoc, nahibada eztiren mortal, Gincoaganic errecebi leçaketen graciari epainchu handi bat eçarten dicie, eta hantic ardura giten duçu gure otoitzcetan hotz eta idor baikira, eta hetan bihotzceco gócoric<sup>70</sup> gabe, eta Gincoac lehen emaiten cerauzkigun graciac ez emaiten. Nahi badugu, beraz, perfeccionian aitcinatu eta bere gracia berheciez beti Gincoac lagunt guitçan, arranguretan den handienareki eçagutcerekilaco falta orori ihez ein behar diici. Ezuzthian eiten tugunac aski tuçu, heer handiagoric la-gun eman<sup>71</sup> gabe; gure ispirithiaren arhintarçunac gure otoitzcetan emaiten derauzki-gun barreadurac aski tuçu, ispirithia gure nahira bestetarat barreatu gabe, eta ororen burian, aski tuçu gure flakeciac egun oroz gure einbiden contre eraiten derauzkigun houtzac<sup>72</sup> edo faltac, halacoric gure nahira eguin gabe.

Seint Basilac orano emaiten dici beste chede bat perfeccionian aitcinatceco eta erraiten, hartaco net hun dela bertutheco bidian baratu gabe beti aitcina joaithia. <46> Badicie çunbaitec, aldarez, gortarçun eta devocione boulta batçutaric, bena bet-betan baratcen tuçu. Ezteçaçula hala eguin, segui çäcu beti devocionairen bidia aitcina eta orhit cite, bici ispiritualeco bidian beti aitcina joanez beno, paussatcen egonez aboro akituco cirela, eci eztuçi ispirithiaren eta gorpitzçaren lanac elgar iduri. Gorpitzça trabailhiac flakatcen eta akitcen dici, bena ispirithia gortzcen eta azkartcen, errefren hunen aravera: *baleza sobera thiraza hauzten da eta ispiritu sobera lachua andeatcen*.

Seint Ambrosiec erraiten dici, hala nola bere buriaren becatutic beguiratcia ihiago baita, eci ez eguiasco penitencia batez becatu eguienen erreparatcia, orobat otoitzça-ren eta devocionairen gortarçunian irauthia, ihiago dela eci ez çunbait egunen ba-readuren eta lachotarçunen onduan, behar beçala devocionesco seindimendietan be-rris jarthia. Arotçac burdignha gorria sutheitic moldatceco idoki onduan, nahi dien moldian eçarteko behin ere arras hoztera eztici uzten, bena arras hoztu gabe berriz súian eçarten dici, fittetzago lehen beçain bero eta çalhu jar ahal dakion. Orobak ein

19 halacoric: *halagoric*.

<sup>68</sup> Beste bi adibidetan ere *oboro* dago (154, 345); liburuan *aboro* nagusi da. Etxepare eta Oihenart ere *oboro*-ren erabiltzaile ditugu eta Zalgizek *hoboro* dakar; Erronkari ibarreko euskaran *obro* aldaera ibil-tzen zen.

<sup>69</sup> Liburuan zehar *umilgui* (45, 142, 186, 205, 288, 322, 324, 396), *igualgui* (303, 333), *erealgui* (197, 213, 214, 228) eta *realgui* (86, 239) ageri dira.

<sup>70</sup> Gozatze izpiritualaz dihardu; frantssez *que les consolations spirituelles nous manquent* (RD 1, 105).

<sup>71</sup> Eranste adieran; jatorrizkoan *sans que nous y en ajoutions de plus grandes dakar* (RD 1, 105).

<sup>72</sup> Txistukarien arteko huts grafiko bat gehiago da, “hutsak” adierazteko <tz> baliatu du; ikus 52-n <atzeco> darabilela, hitza “ats” edo ‘arratsa’ delarik.

1 behar diici eta galtcera utci gabe devocioneco guindien gortarçuna, ceren behin hoz-  
tera giten bada eta gogortcera, nekez berris garturen eta beroturen duçu. Hartacotz,  
<47> poroantçaz<sup>73</sup> ikuzten diici çunbat-nahi nehorc bertuthian prootchu ein dien,  
behin nehor lachatcera eta devacionesco einbiden uztera giten bada, fitetz dembora  
lucez jardirexia galtcen diela, eta noiz eta ere guero berris devacionera itçuli nahi bai-  
tate, hain handi diren epaintchiac idiren tici, nun nekez becic ezpaita berris hel-  
duren leheneco perfeccioniare gradora. Aldiz, garxuki duatcenac, beti devocioneco  
gortarçunian eta einbide ispiritualetan irautera inxeatcen direnac, lehen çuten per-  
feccioneco estathian ihiki egoiten tuçu, bai eta ere dembora laburrez perfeccionian  
10 aitcinatcen; ezticie ere behin ere demboraric galtcen, ez behin eguina dezeguiten.  
Lachuec, aldis, igaraiten dicie bere bicia oro, devocioneco boultetan eguienen lacho-  
kerietan dezzeguiten, eta perfeccioneco obra bat behin ere ezticie behar den perfec-  
cionian akabatcen. Garxiac, aldis, lachokeriaric gabe finkatcen tuçu eta hala jarrai-  
kis, gauça handiagori[c] ihiki eguiteco indar berriric jardiresten dicie eta egun oroz,  
beti eta hanbat aboro bertuthian prootzchatcen. Halaz, batcec eta bestec Çuhurraren  
erran hoc ber-hetan igualki eguiac direla erakazten dicie: *ezku lachoki trabaillhatzen*  
*denac ekarten du peorreria*,<sup>74</sup> *bena guiçon azkarren ezkiac jardiresten dereste aberaz-*  
*tarçun handiac eta trabaillhatzen direnen arima guicenduren da.*

20 <48> Gincoaren cerbitzchari batec erraiten dici, guiristinho lachuec eta garxiac  
iduri dutela etche handi batetaco bi manhata suerte;<sup>75</sup> lachuec uzte dutela, azpaldian  
Gincoaren cerbitzchatceco cerbait egui dutelakotz, çucenetan direla paussatceco eta  
eztutela behar inxeatu Gincoaren amoriuan eta perfeccionian aitcinatcera; hala nola  
manhata çaharrac etche handietan ezpaitira egoiten, han lehen cerbitzhatu dutela-  
kotz becic, eta ezpaitute ere bere naussiaganic ukeiten paguric, ez bere cerbitzchiez  
ezkeric, ez etcheco karguietan aitcinatceco ezparançaric; orobat duçu Gincoaren  
cerbitzchari lachuez. Aldiz, devocionari garxuki jarraiten<sup>76</sup> direnec, eguiten dici  
manhata gaste eta bere naussiari gogara eitera inxeatcen direnec beçala, çoinhec er-  
neki trabaillhatuz eta naussiac desiratcen thien gauça gucien eguiñez, haren gracia  
30 hunac jardiresten baititzte, bai eta ere fortunaric handienac eguiten eta karguric  
handienetara heltcen. Orobak, erneki eta seguidan Gincoaren cerbitzchiari jarraiten  
direnec, haren graciari berhecienac eta baliossenac jardiresten, halaz perfeccioneric  
gorenera heltcen.

<sup>73</sup> Jatorrizkoak *por experiencia / par expérience* dakar (RD 1, 106).

<sup>74</sup> Jatorrizkoak honela dio: *empobrecerá / ne produit que de l'indigence* (RD 1, 107); ikus *peorreria-z* hiztegián dioguna.

<sup>75</sup> Adiera 'bi mirabe mota' du.

<sup>76</sup> Orri hotzetan daude liburuko bi *jarraiten* bakarrak; gaineratekoak "jarraikitzen" ala "jarraikitzen" dira; cf. *jarraitkitzen* (258). Orri bereko eta bakarrekoak izanik, litekeena da, beraz, bi *jarraiten* horiek inprimategiko gora-behera zenbait izatea.

<49> ÇORTZCIGUERREN CAPITULIA [I/7/5<sup>77</sup> & I/7/8]

1

**Aitcineco Capituliaren seguidetaco eta hartan direnen hobeki complitceco, batbederac egun oroz eguin behar dien conciaren examinaren eta hartu behar dien deliberuen pundu hautatu batçuz**

Lehena. Egun oroz devocionesco einbiden chuchen eta ossoki egithia, hartaco behar den eta bere beithan chedatu dien dembora harthuz, eta heen guerorat luçatcerá cerbait itçili ecinbeztezco çunbaitec bortzchatcen guithuztenian, ahal beçain fite honitcia.

Biguerrena. Meditacionaren edo otoitzçaren unxa egithia, eta hartan berheciki hartu behar tugun deliberuen finka hartzcia;<sup>78</sup> egun orozco examenen unxa egithia, hanbat falta gucien gagnaz<sup>79</sup> generalian, nola ardurenic eguiten dugun, berheciki ihez eguitera deliberatu dugun gaucen gagnan, eta examen hartan gure becatiez orhitcera beçanbat, hetçaz dolumen bici baten eta Gincoaren aitcinian ahalgue ecinago handi baten hartzcia, hetaric corrigitceco borondate azkar eta osso bateki; eci dolumen eta delibero hortan diagoçu bertuthe eta examenaren prootchu edo frutu gucia. Çunbaitec hala <50> eguin faltaz, examenataric ezticie idokiten behar luketen prootchia; eguiazco doliac becatu eguiñetaric chahatceco beçala,<sup>80</sup> aboro hetara ez erorteco erremediotçat baliatcen tuçu, ceren becathia eguiaski eta behar beçala hazthio diena, unxa urrun baitago hartara berris eroretetic. Ezthieteçu endelga ahal anitz guiristinhoren erhokeria, çoinhec deliberatcen baitute, guero confessatuco eta convertituco direlakuan, becatu eguitera, Gincoac barcatuco dereeletan.<sup>81</sup> Cençu guti uken behar ci, mement baten becatuco placerragatic deliberatuko dienac, becatu eguin haren, bere bici aretan<sup>82</sup> egunesco bihotzceco harraren karreatcera.<sup>83</sup> Badieiteçu Gincoac guiza edo intencione hortan eguin becathia barcaturen dien, bena seculan ez eguiazco dolumen bat gabe eta seculan ez aboro eguiteco delibero fermua gabe. Hori bera aski lukeçu eçagutceco çoinhen neke den guiza hortaco becathien dolumenaren ukeithia, Gincoaren huntarçunac erakarten guithienaz gueroz becathien eguitera, hetaric bei ratceco erakarri behar bidian. Eguia duçu Gincoaren amoriuac içan behar lukeela

10

20

4 hautatu: *haustatu*.      18 erremediotçat: *erremedio-çat*.      25 aboro: *abora*.

<sup>77</sup> Gaztelaniazkoa (I, 331 or.)-n dago eta frantsesezkoa (RD 2, 259)-n.

<sup>78</sup> OEH-k ez dakar honelako adibide gehiago. Ez dago argi liburuko pasarte hau nola sortu den, itzulpen zuzena ala itzultzailaren jardun librea den; nolanahi ere den, OEH-n moduzko adizlaguntzat jotzen da *finka* eta ‘firmemente’ adieran itzultzen; guk uste izentzat har litekeen *finka*, halako “finka + harta” aditz lokuzioa eraturik: “finka harta” = “finkatu”.

<sup>79</sup> Liburuko *-n gagnaz* bakarra da, gainerateko guzti-guztiak *-n gagnan* dira. Iduri luke *gagnaz* hau hutsa dela.

<sup>80</sup> Orain datorren testua [I/7/8] da, itzultzailak jauzi bat egin du aitzina: gaztelaniazkoan (I, 339-340)-n dago eta frantsesezkoan (RD 2, 278)-n.

<sup>81</sup> Konpletiboko atzikia eta ustea adieraz dezakeen inesiboko *-etan* lotu direla dirudi. Jatorrizkoak honela dio: *y Dios me perdonará / et Dieu me pardonnera* (RD 2, 279).

<sup>82</sup> Baliteke 7. orrialdeko *ara edo ethorça* bera izatea; *ara hitzak* ‘era, modua’ adierazten du.

<sup>83</sup> Oro har ongi ulertzen da, baina *-ko* duela nahasgarri gerta daiteke *egunesco*. Hona jatorrizkoan: *peut-il tomber dans le sens commun que, pour satisfaire votre passion, et pour prendre un plaisir d'un moment, vous vous déterminiez à avoir toute votre vie un regret et un repentir perpétuel?* (RD 2, 279).

1 gutan arraçoinhic bortzthitcena<sup>84</sup> becathiari ihez eguiteco, bena orano ihez eguin dienteú seinduki gure arimer eiten thien kaltetaric beiratciagatic edo itçurthiagatic. Joane Paulec erraiten cireeçun Errumaco Guiristhinuer: *cer prootchu idoki <51> ducie orai ahalguetcen cituzten gauça heen eguitetic*; placer igarancor batendaco bici cirenetaco<sup>85</sup> dolia karreatu behar ducie. Goguaketa hoc aitcinetic unxa eguin behar guintikeci eta guero, gaizki eiteco tentacionia nehorri jiten çaconian, bere beithan erran: ene bicico egun orotan ahalguia eta erregreta eman leçakeden becathia eztut eguiñen. Norbait nahi duçunian cerbaiten eitetik guibeldu, erraiten deraco: gogua emaçu cer eguitera çuacen, ein onduan dolutuco çauçu, eta bere desseinha seguitu nahi badu, erran derauçu etçacola dolutuco; eguin onduan dolu lakioela uzte balu eta eguin baleça, erhokerietan den handiena eguin liroço.

10 Pundu<sup>86</sup> erraitetic heldu guiren hunen hedadura emana duçu, erakasthiagatic norc bere faltez eguiazco dolaren ukeithia erremedio azkar bat dela hetara berris erortetic beiratceco, eta eçagut-aracitceco çunbat arrangurareki behar dugun gure examenetan berheciki horren gagnan fincatu. Eguia duçu, nehorc ukenic ere bere becathiez eguiazco dolia eta hetaric aitcinera beiratceco delibero fermua, eror daiteela, ceren ezpaikira ainguriac, bena guiçon flacco batçu lurrez eguiñac. Lurrez einnha den uncia ihiki hautx daiteen beçala, orobat lurrez guirelacotz, ihiki barrea eta berriz becatura eror guitakeela.<sup>87</sup> Bena<sup>88</sup> nola guiristinho bat confessatu <52> onduan, labur, passione, becatu beretara erorten denian, erraiten baitugu haren dolia eta corrigitceco erressolucionia etcirela eguiazkuac, gauça beretara hain fite erori denaz gueroz, orobat erran ciroguçu nehorc bere goiceco edo atzeco<sup>89</sup> examenian hartzen dien dolia eta deliberaua eztirela behar beçalaco, hain fite hauzten thien ordutic. Ahalgué cinduke hirurezpalauretan falta beraren eguithiaz guiçonen eretcian, heer hitceman onduan aboro ez eguiteco; çunbatenaz etcinduke ahalgué aboro uken behar, Gincoaren eretcian bihotz ossoz dolu duçula hari erran onduan, corrigitceco hitceman onduan, ez hirurezpalauretan, bena hirurezpalauretan docena aldziz hetara berriz erorthiaz? Dudaric gabe, hobeki cambia eta prootcha guinditeú eguiazco dolia baguindu eta corrigitceco delibero fermua har baguindeça.

20 30 Hirurguerrena.<sup>90</sup> Bezte gagneraco devocionesco einbide ororen unxa eguithia, hala nola mecen inçuthiac, otoitzçac, irakurte seindiac eta penitenciac, ahalic hobekiena intxeathuz hetaric —certaco ere eçarriac içan baitirateke— behar den

---

1 orano: *orana*.      2 kaltetaric: *kaltotaric*.      2 itçurthiagatic: *irçurthiagatic*.      22 orobat: *oro bat*.      25 ez: *ex*.

<sup>84</sup> Huts honek arazo bat baino gehiago dakar. Aldaera nagusia *bortitz* da liburuan, ia ez darabil <th>; adibide hau, *borthitz* (126) eta *bortzthitcena* (50) dira salbuespenak. Berebat, 287-n *borstztitz* ageri da.

<sup>85</sup> Ez dago garbi hutsa zein den: “cireteneco” ote da idazleak gogoan zuena, ala “cireneraco” bestela?

<sup>86</sup> Gaztelaniazko jatorrizko (I, 340)-n dago eta frantsesekoa (RD 2, 280)-n.

<sup>87</sup> Ez dugu garbi esaldi honen jatorria non den, ez da guztiz jatorrizkoak dakarrena: *nous sommes des hommes faibles, formés de terre, et d'une matière par conséquent qui peut aisément se briser et se dissoudre, et aisément se reprendre et se raccomoder* (RD 2, 280).

<sup>88</sup> Gaztelaniazko jatorrizko (I, 340 or.)-n dago eta frantsesekoa (RD 2, 281)-n.

<sup>89</sup> Jatorrizkoak *du soir* dakar (RD 2, 281); liburuko *atzeco* bakarra da, berez ‘atseko’ ‘arratseko’ adierazteko dago. Ikus ‘hutsak’ adierazteko 45-n grafikoki *houtzac* dakarrela.

<sup>90</sup> Frantsesekoa jatorrizko (RD 2, 260)-n dago.

prootchiaren idokitera; oro eginez, ez costumaz, ez neoren erraithiagatic eta eguin behar direlakotz, bena Gincoaren ohoretan.

1

Laurguerrena. Gure estathiac manatcen <53> thien karguien ororen unxa complitcia, ahal beçanbat arrangurareki gauça ororen Gincoarendaco eta haren pressencia seindian eginez.

Bostguerrena. Beraliasco edo eçagutcerekilaco falta edo becatu orori —çunbat-nahi thipi içanic ere— ihez eguthia.

Seiguerrena. Gauçaric thipienaz kassu handi eguthia.

Çazpiguerrrena. Eta nola ordenarioski edo ardurenic obren unxa eguitetic baituha gure perfeccionian edo bertuthian aitcinatcia, demborati demborala, nehorc ikuzten dienian çunbait pundutan lachatcen hazten dela, çunbait egunez lachatcen den pundietañ bere examenaren eguthia, berheciki chede hartçaz bere gortarçunaren eta atencionariaren berritceco eta gauçaric thipienen garxuki eiteco estatutan jartceco.

10

## PACENCIAZ<sup>91</sup>

Erakaxi behar ci beti pacencia osso bat bere elhetan, bere obretan eta bertaiteco maneran, eta hetan orotan ispiritua paussu handi baten seignhaliac eman, eta bihotz-cian pitz ahal litakeen seindimendu biciac oro ezeztatu... Bihotzcerat sartzcera ez utci haren bakia nahaz diroen gauçaric, ez trista, ez samur diroenic, ez mendecatceco desiric han sofri, <54> çunbat-nahi mendekiuia thipi den... Generalki gauça ororen errecebítzia tenore oroz, Gincoaren ezkutic gure hobetan ginac beçala, eta hori nunti-nahi eta nolanahi gin dazkigun... Horien gagnan actuen ardura eguthia, hirur grado hoen aravera, çointaric lehena baita gauça nahigabe ororen pacienki hartzia; biguerrena: heen gogotic eta deliberoz errecebithuz; hirurguerrena: placerreki eta allegueraki bessarkathuz Gincoaren borondathia hala delacotz.

20

## BEDERATCIGUERREN CAPITULIA [I/2/5]

**Moyen edo bide batez gaucen unxa eguiteco, çoin baita bederaca gure obra gucien eguthia, eguiten tugun aldical, gure bicico azkena içan behar bailu beçala**

Gure obren unxa eguiteco Seindiec erakazten derauguten bidia duçu, heen ororen eguthian, goguan hartzcia eguiten duguna azkena dela uzte baguindu beçala. Seint Bernatec, minço delaric fraide batez, nola behar dien maneatu eguiten thien obra orotan, orobat duçu guiristinhiko orotçaz —çioçu— ardura norc bere buriari erran behar diela: orai hil behar bahu, hori ein heçakea? Eta Seint Basilac ber avisac<sup>92</sup>

30

1 ez: ex. 2 behar: hebar. 13 thipienen: *Thipienen*. 18 diroen: *direen*. 24 bessarkathuz: *bessarkathuz*.

<sup>91</sup> Frantsesezko jatorrizkoa (RD 2, 255-6)-n dago.

<sup>92</sup> *Pratica-n avis & abis eta abis(s)u adieraz ‘aholkua’ dira, baina liburuak badakar ahulgu ere; ikus hiztegian.*

1 emaiten dirauzkiguçu, erraiten <55> dienian: çure azken orena atchikaçu beti beguien aitcinian, goizcian jeikiten cirenian dudatan jar cite axera helduco cirenez, eta axian etçaten cirenian, etçathian etcitela fidainchatan jar biharamuna biciric ikussico duçula, eta guiza hortan çure bicio suerthiac oro ihikiago bentcituren tuçu. Thomas a-Kampisec<sup>93</sup> gauça bera eta kazi terminho beretan erraiten dici. Seint Antonioc bere dicipulier bertuthiareni eta perfeccionaren bihotzthoiki segui-aracitceco, ardura abertimendu bera emaiten cicin, eta dudaric gabe, hoberic eztuçu gaucen unxa eguiteco. Egunkal finki goguan hartzcia gure bicico azkena dela, hori ispirithian barna eçar ahal baguindeça, eta gauça eiten duguna ein onduan hil behar baikindu beçala, 10 segurki arrangurozkiago eta perfeikiago gure obrac eguin guinçakeçu. Cer gortarçuneki eliro nehorc communia, uzte balu haren bicico azken obra içan behar diela, eta ordutic dembora faltatcen çacula obra hun eiteco eta merechimendu jardires-teco? Cer attencione eta gar nehorc eluke bere otoitzan, seurtathia balis haren azken otoitzça dela, eta eztukeela aboro demboraric Gingoari bere becathien barcamendia-ren galdeiteco eta haren misericordiari herssateco?<sup>94</sup> Hartacotz comunski erraiten dicie, itchassuan beno, nehun ere eztela otoitzça eiten hobequi <56> ikazten, eci bes-telaco duçu devocionia nehorc heriua beguien aitcinian dienian, eci ez baita halaco beldurric eztienian.

20 Fraide Seindu batez —egun oroz meça erran beno lehen cofessatzen ussatcen cen batez— erraiten dicie eritu cela; haren gueihenac, ikussiric eritarçun hartaric hil çaitkeela, erran ceracola hilcera bailuha beçala cofessatu behar ciela; eriac ihardez-ten diracoçu beguiac eta ezkiac Celurat altchatcen cithielaric: Gingoia dela benedictu eta laudatu; badici hoguei eta hamar ourte beno aboro egun oroz cofessatzen niçala, ondoko mementuan hil behar bainu beçala; orai, beraz, azki dicie cofes-satcia, orai artekan meçaren erraitera prestatceco eguin dudan beçala. Hola eguin behar diici gure obra orotan, cofessatzen guiren eta communiatcen dugun aldiskal, berheala onduan hil behar baikinduke beçala, eta hola eguinez hilceco orenian hala-hala eguithia azki dukeçu. Arrangura hori baguindu eta gure obrac oro chede hortan eguin baguinça, heriuac beti prest idiren guinçakeçu eta behin ere ezkinçakeçu uztegabian har, bai eta ere hiltce subitotic eta uztegabecotic beguiratceco bideric segurrena hori duçu. Jesu-Christoc erraiten dici uroz dela cerbitzcharia, naussiac jin denian hola bere einbidiaren eguiten idireiten diena. Hala eguiten cicin Job Seindiac. Cioçu: *bici huntan <57> paleatcen<sup>95</sup> edo guducatcen niçanaz gueroz, egun oroz igurikiten dicit jin dadin ene kambiaçarrena; Jauna, dheituco<sup>96</sup> nuçu eta ihardexico derauçut,* dhei neçaü placer duçun orenian eta nun nahiden niçan, beti prest nuçu çure botçari ihardesteco.

Gincoarekin unxa dela eçagutceco bideric edo segreturic hobenetaric bat duçu, goguan hartcia nehor fida denez, cernahi demboretan, cernahi lanetan içan dadin, ez-

1 dienian: *dieniam.* 24 ondoco: *ondoca.*

<sup>93</sup> Frantzes ohituraren eragina dago; jatorrizkoak *Thomas à Kempis en dit...* dakar (RD 1, 188).

<sup>94</sup> Ez dago aditz honen beste adibiderik liburuan “-te” dakarrenik: *herssateco* (105), *herssatcera* (104), *hersatcen* (45), *herssatcen* (201, 292, 336, 382), *herzsatcen* (393), *herzsatzcen* (123), *hertzxatcen* (126).

<sup>95</sup> Liburuak honela dakar 57-n eta 62-n; liburuan ez da “peleatu”-rik ageri.

<sup>96</sup> Liburuan ageri diren zortzi <dh> adibideetarik lehena da hau.

tukeela Gincoaren aitcinian berheciki ppena eguin leçakoonic. Enuçu minço heben, Gincoaren jujamendien beldurra ossoki kentcen edo eceztatcen dien segurthaincha osso batez; halacoric eztikeici mundu huntan, Gingoa berac erranez becic; bena minço nuçu choilki uztecunde edo ezparaincha hun batez, eta hori duçu bicitce huntan, miraculuz campora, ukeiten ahal duguna oro. Çioçut, beraz, jakiteco Gincoaren bidian unxa duhenez, dela gogua emaithia nehor idireiten den estathian, tenorian eta eguiten dien obran hil nahi lukeenez; iker eçaçu çure concencia, Job Seindiac beçala, prest cirenez Gincoari ihardesteco: mement huntan dei neçaçu; edo dei banindeça, ardura poroa çäcu çure buria, guiza hortan çure buriari unxa soiçu eta ikuz eçaçu, heya ciren estathian nahi cintuzkeenez Gincoari cundiac eman. Nitçaz den beçambat, horren gagnan erreflexione <58> eguiten dudanian eta gogueta horietan sartcen niçanian, idireiten badut mement hartan eta eguiten dudan obran hilcera eninçatekeela beldur, iduri ciaaçu ene arimaren eitekuac unxa duatcela eta nihaurez content beçala nuçu. Aldiz, nahi ezpanu heriua ordian gin lakan eta ordian ene arima den estathian eta eiten dudan obran heriuac har nentçan, bena nahi banu aphertho bat luça leçan, ene gogoco eta Gincoaganic ourru[n]tcen nuten gauçac akaba artecan, hori har niroçu segnale segur batendaco, eztudala azki arrangura bertuthian aitcianciaz eta guiristhinho hun baten einbidian complitciaz; eci imitacioniaren Authorrac net unxa erraiten dien beçala, concencia hun bat bacindu, hilciaren etcinateke beldur, ceren becathien nehorc uken behar baitu beldur eta ez heriuaren; bizkitarthian, beldur çazconaz gueroz, segnhale duçu concencian cerbait baduçula ppena eiten derauçunic, eta çure cundiac Gincoaren eretcerat eztirela chuchen. Cundiac eman behar thien batec, chuchenthiac baitu, gogotic nahi tici eguin, bena cundiac nahassiric dithienac, beldur duçu oren oroz galda ditçakoten eta dembora irabazterea luçatcera eguiten dici.

Seint Francez Borgiassen erranen aravera, guiristhinho batec eguiten ahal dien gauçaric hobena duçu, egunian hoguei <59> eta laur aldis bere buriaren eçarthia guïçon hilcera duhen baten estathian, eta ordian concenciaco erregretic gabe bere buria idireiten badu, uken behar ci esparança Gincoaren bidian dela, hilceco mementuan nehorc içan nahi lukeen beçala denaz gueroz. Guiza hortan batbedera bere beithan sar bedi eta examina, goguaketa hoc eiten tien oren berian hil behar balu, elukeenez deuz ppena ein leçakoonic. Seindi baduçi etcirela hilcian uken nahi cindukeen estathian, hala jartera inxea cite eta hiltcera unxa prestatcera; goguan eçarçu, Gincoari orano galdeiten duçula çunbait egun hartara prestatceco eta emaiten deraudçula, unxa balia cite emaiten derauçun luçamendiaz, eta dembora hartan inxea cite bicitcera haren ondoko mementuan hil behar baitcindu beçala. Uroz duçu bicitcen dena, hiltceco orenian bici liçatekeen nahi lukeen beçala.<sup>97</sup> Eguia hori prootzchozki peredictacen diici guiristhinuer, eta avertitcen egunetic egunera bere conbersionia edo Gincoaganat itçulcia esteçaten luça, ceren nehorc ezpaitaki bihamuna biciric ikussiren dienez. Seint Gregorioc erraiten dici Gincoac eguiasco pe-

22 Cundiac: *Cundiac*.

<sup>97</sup> Jatorrizkoak honela dio: *bienaventurado el que vive de tal manera, cual desea ser hallado en la hora de la muerte (I, 85) / heureux celui qui est tel pendant la vie, qu'il désire d'être à l'heure de la mort* (RD 1, 192).

1 nitenter barcamendia hitceman diela, bera becatorer biharamuna ezthiela hitceman; eta erran commun bat duçu deus ere eztela hiltcia beno segurragoric, eta haren orena beno guthiago eçaguturic <60>. Bera Salbaçale Jaunac orano guehiago erraiten dici, cioço: *egon citeste prest, ceren Gincoaren Semia ginен<sup>98</sup> baita uzte eztucien orenian;* eci nahibadare leku hortan mintçatcen den azken judacioneco egunaz, endelga ere dieiteçu heriotceco orenaz, ceren jujamendu particularreco arresta seculaco içanen baita, eta jujamendu egun handian choilki arraberrithia içanen baita. Jesu-Christori, beraz, etciaço azki erraithia ezthaiteela jakin orena eta ezthakigula noiz ginen den, bera erraiten dici oren hora ginen dela uzte eztugunian eta menturaz gutien prest guiratekeenian. Joandene Paulec orobat Thessalonikakuer erran cicin: *ohoin bat beçala gabaz ginен da eta Joandene Joane Apocaliphan cioço: ohoin bat beçala çuregana ginен nuçu eta estakikeçu çoin orenez.* Ohoin bat ichilic giten duçu, nehorc gutien uzte dien orenian eta etchekuac oro lo diratekeela uzte dienian, eta hala, Gincoaren Semiac ekarten dien comparancha horrec avertitzen gütici, nola egun behar dugun heriuac obra hunic gabe har ezkitçan. Jesu-Christoc cioço: *aita familiaskuac jakin ahal baleça ohoinac cer orenez ginен diren, iraçarriric egon lieiteçu eta etchia chilatcerca eliroçu utci,* bera ceren ecin jakiten baitu orena, ilhun onduan, gauherditan hala<sup>99</sup> argui-aitcinian ginen den, bethiere erne diooçu arroba deçaten <61> beldurrez. Halaber, behar diici beti prest egon, cernahiden demboraz eta nun nahiden guiren, ceren heriu ginen baitçau guthien igurikiten dugunian.

20 Horren gagnan Seindiec erraiten diciie, Gincoaren misericordia anitz handi bat dela heriuaren orenaren guretako beti gorderic içaithia, gure beti prest atchiki-aratceco,<sup>100</sup> eci nehorc balaki tenore hora, segurancha harc aboro lacharaci liroçu eta aus-sarkiago becathia eraguin; eztaquigun demboran hain lachoki bici guirenian,<sup>101</sup> sordeitz ein guindiroçu balin baguindaki ezkirela hain fite hilen. Saint Bonaventurac erraiten dici, Gincoac hiltceco orenaren ecin jakin hortan nahi uken guithiela utci, amorecatic munduko gaucez sobera kassu ezkindeçan egun, ikussis oren eta mement oroz gal guindiroeskeela,<sup>102</sup> batere heer ezkinten esteka, eta orhit eta guttitcia guintçan behin uken edo jardirexiz gueroz beti goçatuko tugunac. Gincoaren Semiac erraiten dici aberax abariciossari: *erbua, gaur çure arima galdeinen deraucie eta bildu tuçun aberastarçunac oro norendaco dirateke?*

---

3 guthiago: *guthia-ago.*      24 eztaquigun: *eztaguigun.*

<sup>98</sup> Euskaltzaindiaren Azkue bibliotekako alea baliatu dugu eta bertan <gin n> ageri da, baina Jean-Louis Davantek erakutsi digun beste ale batean argiki *ginen* irakurtzen da.

<sup>99</sup> Hautakari denean *h-* gabe ibiltzen du, baina adibide honetan *h* dakar liburuak.

<sup>100</sup> Nahiz liburuko formak “-aracitceco” eta “-aracitceco” diren; ez da beste -aratceco-rik baina bada otoitzceco aldaeraren adibide sorta bat eta baita *ihortzia* (27) ere. Etxeparek, Leizarragak, Tartasek edo Oihenartek ausarki dituzte era honetako adibideak: *haste* ‘haste’, *botzen* ‘pozten’, *ikutzen* ‘ikuzten’, *bitizen* & *pitzén* ‘bitzen’, *hotzen* ‘hozten’...; Zuberoan Belapeirek *pizten* darabil, baina *pitzé* dakar izen gisa, XVIII. eta XIX. mendetako Nafarroa Behereko idazleen lanean ez dugu ezaugarri hau sumatu.

<sup>101</sup> Jatorrizkoak honela dio: *aun con estar inciertos y no saber su hora, viven con tanto descuido* (I, 86) / *quelque incertain que l'on soit de l'heure, on vit toutefois avec tant de nonchalance* (RD 1, 194).

<sup>102</sup> Aditzaren morfologiako 2.4.16.12. azpiatalean iruzkindu da aldaera hau.

## &lt;62&gt; HAMARGUERREN CAPITULIA [I/1/17]

1

**Bertuthian iraun behar dugula, edo berthuthian uken behar dugun iraupenaz**

Seint Augustinec Joandene Paule Apostoliaren hitz hoen gagnan: biciuen contre paleatcen edo guducatcen dena date choilki Celian coronathia edo saristathia; erraiten dici behar den beçala tentacioner eta flakecier bihurtcia dela beti biciac diraueno heen contre atchikicia, eta hala eguinez becic ezthiela nehorc merechitchen ahal Celuko corona, eta horren gagnan orobat sentencia haur ekarten dici Seint Jeromac. Cioçu anitz hazten direla eta gutic akabatcen; exemplu handi bat badiici Iseraeleco<sup>103</sup> Populian. Iskiritura Seindiac erraiten dici, seiehun mila beno aboro, emastez eta haurrez bestalde, Egipotic jalgui cirela eta hainbestetaric, biga choilki Gincoac hitceman lurrerat heldu cirela. Ezta, beraz, çioçu Seindu berac, gauça [h]andi<sup>104</sup> bat unxa hazthia, bena oro dago unxa akabatcian eta hartan diagoçu choilki perfecciona. Horren gagnan eguiten dici Seint Ephremec comparaincha bat eta erraiten, etche bat nehorc eguiten dienian, cimendiac eta fundamenac gaztu handiric gabe eguiten <63> thiela; behar den beçain gora alchatcian direla ppenac, eta murria gora eta alcha beçanbat, lanac eta gazthiac emendatcen direla; orobat, perfeccione ispiritualian ere haxarriac ezituğu gaitz, bena azken perfeccionera eraikithia<sup>105</sup> edo alchatcian dituğu ppenac. Hala, unxa hazthia guti baliatuco ciaguçu unxa akabatcen ezzpadugu. Seint Jeromac erraiten dici guiristinhuetan nehorc ezthiela sognin behar haxarrer, bena acabançari; Joandene Paule gaiski hassi cela eta unxa acabi; Judassec unxa hassi eta gaiski akabi. Cer prootchu uken du Jesu-Christoren Apostolu içaithiaz? Cer baliatu çazco eguin cithien miraculiac? Eta çuri ere, cer baliatuco çautçu haxarre hunac uken baitu, finitce edo akabança maluroz bat eguiten baidu? Corona iraupenari choilki duçu Jesu-Christoz hitcemana. Gincoaren Semiac erraiten dici *azken finerano irauten diena dateela salbathia*. Jacopec Jauna ikussi cicin çurubiaren burian edo thinian, ez çolan, ez erdian, guri endelgaratcitceco —cioçu Seint Jeromac— unxa hassi eta cerbait demboras unxa seguitu beçala, burura edo finera hel arthio iraun behar cela. Seint Bernatec erraiten dici, cer prootzchu du nehorc Jesu-Christoren seguitcia, jardiresten ezzpadu? Hartakotz, Joandene Paulec erraiten cicin: *laster eguicie preciua edo ispichua <64> irabaz dirocién guizan.*<sup>106</sup> Guiristinhua, çure lasterrac eta çure bertuthian aitcinatciac, Salbaçale Jaunac beretaco eçarri thien chedian içan behar dicie: hil arteranokuan obedient içan duçu; auherretan, beraz, laster eguienen duçu, çure bicico azken mementoranokuan laster eguiten ezzpadu, secula etçu preciua irabaciren.

Gincoaren Semiac berheciki huntçaz avertitcen guitici, erraiten deragunian: *nork ere goldia eskiez irauldeco hartu onduan bere guibelerat soiten baitu, Gincoaren Erressumaco eztela hun;* eta beste leku bathian, erraiten dienian: *orbit citeste Lothen emasthiaz;* cer eguin cien? Gincoac Sodomatic idoki cicin erra etçadin, bidian ba-

2 berthuthian: *bertuthuthian.*21 Judassec: *judassec.*26 çioçu: *ciocu.*<sup>103</sup> Jatorrizkoak honela dio: *hijos de Israel* (I, 64) / *les Israélites* (RD 1, 143).<sup>104</sup> Liburu guztiko *h* gabeko *andi* bakarra da adibide hau.<sup>105</sup> Zalantza dugu ez ote lukeen inesiboan joan behar.<sup>106</sup> Jatorrizkoak honela dio: *courrez de sorte que vous remportiez le prix* (RD 1, 145).

10

20

30

1 ratu çuçun, guibe[le]rat soin eta buria guibelerat itçuli cien leku berian gatz poulo batetara kambiatthia içan çuçun. Seint Augustinec cioçu: nahi ducia jakin horrec cer segnhalatcen dien? Gatçac goçua emaiten direeçu gaucer eta andeatcetic beiratcen, eta Jesu-Christoc nahi dici orhit guiten Lothen emastiaz, amorecatic goguaketaç eguiñez hari heldu citçaonaren gagnan, haren kambiatciac emaiten deragun gatçaren medios beira guiten;<sup>107</sup> erran nahi baita, haren punimendian exemplu harthuz, apariatu guiren Gincoaren bide humian aitcina joan guiten, baratu eta guibelerat soin gabe.

10 Seint Augustinec eta Seint Jeromac ere <65> erraiten dicie gauça itxoussi bat dela unxa haz eta gaizki akabatcia, pinthor batec guiçon baten buriaren portreta ein onduan, çamari baten lepuaren hari eçarthia beçala dela. Joandene Paulec Galatakuac gaizkirat itçuli cirelakotz garrazki mehatzchatcen tici; erraiten cireecun: *cien erhokeria hain handi dea, nun ispirithiaz hassi onduan, haraguiaz finitzen du-cien?* Bena Gincoaganic uken ahal deçagun haren gracian irauteco dohainha, inxeatu behar diici bertuthian eta mortificacionian fundamentu hun baten eguitera; etche bathian cimendiac goihera edo flacco badira, ihiki etchia makurtcen duçu eta lazter lurrerat erorten. Harrac dituzten fruthiac etçu çorhitcen eta labur arboletic erorten tuçu, bena osso eta fin direnac unxa çorhi artekan arbolian egoiten dira. Orobak, çure bertuthia azkarra bada, Gincoaz ossoki bihotzça bethia baduçi, irau-nen duçu, bena bihotzçian hazten baduçi urguliaren edo beste çunbait passioneren harra, emeki-emeki bihotzça jancaturen, eta bertuthian irauteco goçoric hobena eta azkarreña idokico, clarki erraiteco, becatura berris erorteko langer handitan içanen cira; hartakotz, net necessario duçu Jaunaren graciaz bihotzçaren azkartzcia eta han tenorez cimendu hunic eçarthia.

30 Albert Handiac explicatcen diilaric nola <66> behar dien nehorc bertuthian jarria edo segurtathia içan harten irautecotz, erraiten dici eguiasco guirstinho batec içan behar diela bertuthian hain bortitzki azkarthia eta bihotzçian haren erruac hain unxa eguinac uken, nun bere beithan dien Gincoareki bathian haren seguitcia, eta hura guiza batez çure eskuco uken behar duçu, nun Gincoaz bestec ezteçakeçun gal-araz ahal, eta norc-nahi cernahi einic eta erranic ere, hari jarraiki çaiZen beçala. Çunbai-tec iduri dicie, bakesco eta umilitatezco ispirithia badutela samurtceco occasioneric eztutenian eta gauçac oro bere gogara jiten cestenian, bena nahigaberic thiapienian paussu hura galtcen dicie, suthan jarten tuçu eta eracasten dicie cer eta nolaco di-ren. Autor horrec cioçu hec eztutela bakiaren eta umilitathiaren bertuthia berekin, bena choilki bertuthe hura bestena dela, eta ez heena, bestec nahi dutenian idoki-

---

6 medios: *medies*.      29 eskuco: *exkuco*.      29 ezteçakeçun: *eztecakeçun*.

<sup>107</sup> Hona jatorrizkoak zer dioen: ...y por eso dice Cristo, que nos acordemos de la muger de Loth, para que mirando lo que á ella le sucedió, nos conservemos con aquella sal, y escarmantando en ella, perseveremos en el buen camino que habemos comenzado, y no volvamos atras; porque no nos convirtamos nosotros tambien en estatuas de sal, con que otros se conserven y perseveren, viendo nuestra caída (I, 65) / et Jésus-Christ veut que nous nous souvenirs de la femme de Loth, afin que faisant réflexion sur ce qui lui arriva, nous nous conservions avec le sel que son changement nous fournit; c'est-à-dire, que prenant exemple sur sa punition, nous persévérons dans le bon chemin où nous sommes entrés, sans nous arrêter et sans regarder derrière nous, de peur que nous ne soyons pareillement convertis en des estatuas, dont ceux qui auront vu notre métamorphose viendront à tirer du sel pour leur propre conservation (RD 1, 146).

ten edo uzten ahal dereenaz gueroz.<sup>108</sup> Biskitarthian cihaur beithan çure bertuthiac içan behar dici; occasionetic campo becic bertuthoz eztiren gende hec, erraiten dicie poutçu edo baltxa gueldiric egonez urrindatu bat iduri dutela, çoinhec iguitcen edo nahazten ezpada, urrin gaiztoric ezpaitu egozten, bena nahazten duten beçain las-  
ter, okaztagarrico urrina egozten baitu. Orobat duçu hetçaz; nehorc <67> deuz egui-  
ten ezpaderee eta bere paussian uzten baituzte, ororeki onest eta behar beçalaco tuçu,  
ben a dremendena hunkitcen badira, deuz nahigaberic eiten edo erraiten bacee, heta-  
ric heen bihotzceco urgulu eta maleciac jalguiten tuçu; hantic ezcandaluac eta pro-  
ximquarendaco exemplu gaizthuac. Davitec erraiten dici: *hunki çatcie borthiac eta ke  
eguinen dute; erran nahi baita, bihotz urguluxiac gauça gutic ussuztatcen eta samur-*  
aracitcen thiela.

1

10

---

8 maleciac: *maleciac*.

<sup>108</sup> Jatorrizkoak honela dio: *pues ellos os la quitan, y ellos os hacen gracia de ella, cuando quieren* (I, 66) / *puisque il est en leur pouvoir de vous l'ôter, ou de vous la laisser quand il leur plaît* (RD 1, 148).



## **II. GINCOAREN PRESENCIAZ**



## LEHEN CAPITULIA [I/6/1]

1

### Gincoaren presenciaz orhitzciaz eta orhitzchapen harc bere beithan cerratcen thien prootzchiez

*Jauna cherka çäçu eta iraun cherku hartan; cherka çäçu beti haren bertaithia, Davitec cioçu. Seint Augustinec, aldis, Gincoaren berthaithia eta haren presencia gauça bat bera direla: halaz, Gincoaren berthaithiaren beti cherkatcia duçu, beti Gincoaren presencian ibilthia edo hartzçaz orhitzcia, gure desirac oro eta gure <68> bihotzceco seindimendiac hareganat itçulis eta hari atchikiz. Hesichius Autorrac eta Seint Bonaventurac erraiten dicie, Gincoaren presencian beti bere buriaren atchikitcia, mundu huntan berian Seindien dohatxutarçunaren goçatcen hazthia dela; çunbat ere espaitirogu heben guireno Gincoa clarki ikuz ahal den beçala,<sup>1</sup> imita ciroskiguçu Seindiac, gure flakeciac permetitcen ahal dien beçanbat, beti haren presenciaz orhithuz, adoracionesco eta amoriosco actac egunes. Eci ezkitici choilki creatu eternalki Celian berharen goçatceco: nahi uken dici lurrian uken guindeçan urositate haren lheinhruru<sup>2</sup> edo eçagutce arhin bat, haren presencian beti ibilis, hora beti adoratuz eta hari beti soguinez fediareneodeien eta ilhunpen artetic;<sup>3</sup> eci bicitce huntan etciroguçu ikuz arauxuz eta mirail bathian beçala becic; Celian, aldis, ikussico diici den beçala, bertaithiez berthaithie. Ber Autorrac cioçu, orai dugun Gincoaren ikusthiac eguiten diela gure merechimendia, Celian haren ikusthia dateela gure paguia. Finka guiten, beraz, haren merechitzen, goguan atchikiz Ginco present dela, gure obra, urhatx, eguitate gucietan, eta lealki hori eguiten dicie gure Ainguru beiralec, çoinhec beti gu-reki daudelaric, Gincoa ikuzten baitute; eci iracurten diici Tobiaz semia lagundu cien Ainguriac erran cereela <69> aita semer: *iduri citçaucien cieki jaten eta edaten niela, bena banien hazkurru eta edari guïçonec ecin ikuzten duten bat.* Ainguriac Gincoaz hazten dira eta Gincoaren Semiac berac ere erraiten diraguçu: *Ainguriec beti ikuzten dutela haren Aita Celietan denaren berthaithia.* Finka guiten pundu hortan heen seguitzera, nahibada jaten dugun, edaten dugun eta mintçatcen guiren gure guïçon la-*

10

20

<sup>1</sup> Liburuak *bajala* dakar, baina ez dago honelako beste adibiderik; egun Nafarroa Garaiko Bortzirietan baliatzen da *bazala*.

<sup>2</sup> Hiztegian dakargu hitz honen ahoskeraz dugun zalantzaren berri.

<sup>3</sup> Jatorrizkoak honela dio: *mirándole y reverenciándole, aunque á oscuras* (I, 304) / *en le regardant toujours à travers les nuages et les ténèbres de la foi* (RD 2, 201).

1 gunekin, inxea guiten ordian ere Gincoa han present dela orhituz, hura maithathuz, haren borondathia gauça orotan eguinez, ainguriac hazten thien hazkurru eta conbersa ispiritual haren hartcera.

Legue çaharreco Seindiec eta Patriarkec arrangura berheci bat uken dicie beti Gincoaren presencian ibilteco; Daviti etzciriacoğun<sup>4</sup> aski egunian çazpitán Gincoaren laudatcia, eci erraiten cicin orano: *Jauna beti beguien aitcinian dicit, ceren baitakit beti ene ezkuinhian dela ene laguntceco.* Gincoaren presencian cirela orhitzcia hanbat bere beithan harthia cicien, nun kazi beti bere elhetan erraiten baitçutene: *Jauna bici da, coïnhen presencian bainis.* Pundu hortan çuten arrangura edo atencione handia, dudaric gabe jiten çucun eçagutcen çutelakots<sup>5</sup> coïnhen prootxu handia den beti Gincoaren presencian ibilthia, eta contino segurtathiak içaithia ikuzten guithiela; eci hori aski duçu penxatcen <70> eta eguiten tugun gauça gucien Gincoaren placcaren aravera eraguiteco, eta nola ezpaita cerbitzchari aski aussartic, naussiaren maniac haren aitcinian mesperetzhatuco thienic, edo ohoin aski attrerbituric, bere Jugiac ikuzten dienian ebaskuaric eguin liroenic, nor guitaric, Ginco ecin aboro bo-teretxu, naussi ecinago handi eta juge ecin aboro justo baten aitcinian dela orhit delaric, mentura laite hari gaitzi çakonic eguitera, dakielaric lurra erdiraturic ifernian ihorts guitzçakeela, lehen çunbait aldis eguin uken dien beçala? Ô Jauna —cioçun Seint Augustinec— unxa orhitzcen niçanian niri beti so çaudela, gabaz eta egunaz 20 ene gagnan iratçarría cirela, celian ez lurrian ni becic beste creaturaric gobernatzeko ezpaicindu beçala, penxatcen dudanian ene obrac oro ikuzten tuçula, ene goguaren eta desiren berri badakiçula, aski duçu, beras, gure seinduki bicitcera erakar-teco, gure eguitate guciak ikuzten thiela egun batez hetçaz cundu galddaturen deragun juge garratzçac; eta guïçon behar beçalaco baten presenciac gure einbidian atchikiten guithienaz gueroz, çunbat aboro atchiki behar gitu Ginco justuarenac!

30 Gincoac Jerusalemeco hiriari haren ahatzcis eguiten derascon reprotozchien gagnan, Seint Jeromac erraiten dici Gincoaz orhitzciac becatu suerte guciak kaçatcen<sup>6</sup> <71> thiela. Seint Ambrosiac gauça bera cioço. Seint Jeromac, aldis, beste leku batetan erraiten dici, becatu eguiten dugunian penxa baguindeça Gincoac ikusten guithiela eta present dela, behin ere eskindiroela eguin deuz ere hari gaitzci dakioenic. Goguaketa hori aski içan çucun Thaïs becatorossaren bicitcez kanbiaraticitceco eta deserthiari barne pœnitencia eguitera joan-aracitceco. Job Seindiac bere beithan cioçun: *Jaunac estithia ikusten atchikiten tudan bide guciak eta cundatcen eguiten tudan urhatxac?* Eta hori hala denaz gueroz, nor date aski aussartic becatu edo Gincoari gaitzci çakonic eguitera menturaturen denic? Eta, aldis, gaiski bici direnen becatura erorthia, jiten duçu Gincoaren presenciaren eta harc ikusten thiela ahaztetic, eci bere beithan erraiten dicie: *nehorc eskitu ikusten, Jaunac eztu ikussico gure goihentzia.*

18 Ô: ô. 20 ez: ex. 31 çucun: tuçun.

<sup>4</sup> Hutsa izan daiteke, “etzitzia kozun”-en ordain egon daiteke.

<sup>5</sup> Liburuan hiru -kots dira, hau eta *hartakots* (76, 400); gainerateko guziak -kotz dira.

<sup>6</sup> Liburuak *kaçacen* ‘kasatzen’ dakar, baina hutsa da; ikus: *kaçatcen* (377, 418), *kaçatceco* (383 bi aldis, 393, 403), *kaçacia* (298, 355), *kaçatu* (248, 392), *kaçathu* (404, 406), *kaçatuz* (361); argi dago txistukariak idazteko grafia arazoa dagoela eta *kasatu* dela hitza.

Ber senxian Seint Jeromac cioçu, Ezekiel Prophetac Jerusalemeço hiriaren becathiac bedera-bedera icendatu onduan, erraiten cerakola hiri infidel hari haren falta gucien iturburia cela Gincoaren ahazthia. Çamari bat bridaric gabe bere beitharic norat-nahi joaiten duçu eta unci gobernariric ezthien batec galdu behar dici; orobat ere, Gincoaren presenciaren orhitzchapenaren bridac atchikiten esthien eta haren beldurrac gobernaten esthien guicôna, becaturat lerratzen duçu bere <72> passione gaisthuac seguituz. Erregue Propheta, becatoriaz minçô delaric, cioçu: *estu Gincoa beguen aitcinian eta hara certaco crima suerte guiez beti saxuthia den.*

Seint Basilac Gincoaren presencia emaiten dici, Demoniac<sup>7</sup> eta naturaleçatic jitzen çauzkigun tentacione guien bencitceco erremedio segur eta ororen contre cerbitzchatcen den bat beçala; halaz, nahi baduçu ihiki eta labur perfeccionia jardirexi, balia cite Gincoaren presenciaren orhitzchapenaz, harc bere beithan beste erremedio guiac cerratzen tici. Gincoac berac eman cirakoçun halacoçat Abrahami, erraiten cerakolaric: *ibil cite ene aitcinian eta perfeit içanen cira.* Gauça segurra duçu, beras, Gincoa çure goguan beti atchikitzen baduçu, fitez perfeit içanen cirela, bai eta ere çure attencione gucia presencia seindu hari emaiten duçun ordutic;<sup>8</sup> eci hola nola içarrec bere arguia eta indarra ekiaganic baitute, orobat justuec —çoin baitira Gincoaren Eliçaren içar batçu beçala— Gincoaren presenciatic eta bere goguen hareki atchikitetic jardiresten dicie heen arimetan den eta Gincoaren beguietan listreatzen dien arguia oro, bai eta ere bere laguner emaiten tusten exemplu hunac. Deuzec ere etciroçu hobeki explica ahal bethiere Gincoaren presencian egoithia necessario çaukula, erraitera nuhen comparancha <73> hunec beno. Philosophic ciocie arguiçaiac esthiela bere beitharic arguiric, ekiaganic erecebitzen diena becic; hartakotz ere, bethian denian aboro arguitzen diela gorapenian eta beherapenian beno, ceren bethian denian, haren bis-an-bis baitago eta haren arguien erecebitceco hobekia, eta hara cergatic ere, lurra haren eta ekiaren arthian idireiten denian, esthien batere arguitzen; gorapenian eta beherapenian, aldis, guthiago arguitzen diela, ceren ekiaren lheinhuriac ezpaitiroski parteka becic erecebi. Gauça bera duçu gure arimaz Gincoaren eretcian, çoin baita haren ekia, çoinhec arguitzen baitu haren presencian egoiten<sup>9</sup> aravera. Seindiec hain arranguroska gomendatzen dicie Gincoaren presenciaren beti beguien aitcinian atchikitcia.

Seint Ambrosiac eta Seint Bernatec, Gincoaren presenciaren arranguroska ispirithian beti atchikitciaz minçô direnian, erraiten dicie nola guicôna mement oroz goçatzen baititu Gincoaren misericordiaren hunguiac, halaber, mement oroz Gincoa goguan uken behar diela. Eta Seint Bernatec orano beste leku batetan cioçu,

33 ispirithian: *ispiristhian.*

<sup>7</sup> Absolutiboa Demonio da (392), baina jokatzean Demoniu (119), Demoniuac (13), Demoniuac (13), Demoniuaren (41)...; berebat, Demoniotic dugu (388), baina adibide honetan Demoniac. Beti letra larriz dakar, izen berezia balitz bezala, baina badakar pluralean ere: *Demoniuac obedient ditucielacotz* (13).

<sup>8</sup> Jatorrizkoak honela dio: *dés l'heure que vous appliquez toute vostre attention à sa présence* (RD 2, 206).

<sup>9</sup> Hor adizki laguntzailea falta ez balitz, egoite izentzat hartu beharko genuke, baina mugutzalea fal-tako luke. Jatorrizkoak ez digu argitzen: *de la misma manera pasa en el alma con Dios, que es su sol / il en est de même de l'âme à l'égard de Dieu, qui est son soleil* (RD 2, 207).

1 nehorc bere obra eta penxamendu orotan Gincoaren presenciaz orhitu behar diela, eta hartzax orhitu gabe igaran dukeen dembora galduzaco cundatu. Gincoa gutçaz beti orhit denas gueros, justo <74> duçu gu ere inxea guiten hartçaz beti orhitzcera. Seint Augustinec Daviten hitz hoen gagnan —*ene beguiac çuri beha atchikico ticit*— oihuz erraiten dici: Jauna, beti soinen derauçut, ceren çuc ere beti soiten baimeraaçu; Prophetac beçala eguiteco, ene beguiac beti jossiac atchikiten ticit Jaunari. Seint Gregorio Naziançakuac, aldis, cioçu, haxa har beno ussioo, Gincoaz orhitu behar guirela, eci hala nola mement oroz haxa hartu behar baitugu bihotçzaren frescatceco, orobat Gincoari otoitçaz ardura hersatu behar diici gure passioneec becatu eiteco emaiten 10 tuzten hirrithien hiltceco.

## BIGUERREN CAPITULIA [I/6/2]

### Certan dagon beti Gincoaren presencian ibilthia

Gincoaren presencian ibiltetic prootzchu handiago baten idokithiagatic, orai explicatu behar diici certan daguen. Presencia hura diagoçu gure beithan içan behar duten bi seindimendutan: bata ispirithian, besthia borondathian; endelguiarenac sinhex-araciten diraguçu Gincoa leku orotan dela, mundu gucia bethatzen diela eta gauça gucietan idireiten dela, eta horien gagnan fedesco acto bat eraguiten <75> diraguçu, Gincoa gu batbederataric eztela urrun, hura beithan dela gure bicitcia, gure ibilthia eta gure içaithia segurretaco atchiki behar diici, beraz, beti gu beithan dela. Seint Augustinec erraiten dici: Jauna, cherkatzen nien nitaric campuan ni beithan cena eta eguiaz, deuz ere estuçi guicôna beithanago denic, ez halaz presentago denic, Gincoa beno, harc emaiten dienaz gueroz gauça bicier orori bicitcia, indarra iguitzen direner eta munduco gauça orori içaithia. Gincoac conserbatzen tici gauça guciac bere presenciaren boteriaz, eta presencia haren lagunça edo sustengu seguidazkua ezpalute, gauçac oro içaiteric gabe litukeçu eta ezdeuzetara itçul lieisteçu. Goguan eçarçu, beraz, Gincoaz oro bethia cirela, oro ingurathia, Gincoatan iguerica beçala çaudela eta iskirituraco hitz hoc: *Celia eta lurra çure gloriaz bethiac dituçi ecinago unxa dihatzu gure oraico erraneki.*

Çunbaitec Gincoaren presencia hortan bere burien ihikoo atchikitzceco, bere beithan hartzzen dicie mundu gucia Gincoaz bethia dela, hala den beçala; berac, aldis, Gincoaren hedadura mugaric estien haren erdian direla, espoinxtzcha bat itzasuaren erdian baliz beçala. Comparancha hori aski huna dela iduri dici eta guicônen ispirithiaren, endelguiaren <76> arauxua, bena funtxian estici hurranic ere aski explicatzen erraiten duguna: eci espoixtzcha itxassuaren erdian dena, huraren gagnera altcha dieiteçu eta çolala jeux, bai eta ere çoin-nahi bazterretara joan; bena Gincoatan deuz ere eztuçi halacoric, harten etçu finic, cedarriric, ez mugaric, ceren Gincoaren hedadura infinito baita. Davitec erraiten cicin: *Jauna, Celurano altchaten baniz, han cira; jeuzten banis Ifernura, han idireiten citut; hegaldatzen banis itchaz baster bateric beste bazterrera, ekiaren lheinhuriac art-urratcian mundiaren bazter batetic bestera joai-*

19 beti: *berti*.

23 içaithia: *icaithia*.

*ten diren beçain fite, çure eskiac hara guidatuco nici eta çure eskuinnheco eskiaz atchikiko nuçu; aboro, nola itxassuco hura gorpitz bat baita eta espointcha beste bat, hou-rac etciroçu espointcha bere parte gucietan igaran, bena Gincoa nola ispiritut pur bat baita, ossoki gu beithan eta gure parthe orotan idireiten duçu. Comparancha suerte horiec içanic ere flakuac, hunac dituço, ceren laguntcen baikituste Gincoaren hedadura infinituaren cerbait guizaz concebitzen, eta cer maneraz den ossoki gutan eta gauça orotan present; hartakots, Seint Augustinec leku bathian beno aborotan comparancha horiez cerbitzhatzen duçu.*

Cer maneraz, beraz, hobekienic Gincoa present dela gu beithan har dirogut? Eguia <77> horren gagnian<sup>10</sup> fedesco acto baten choilki eguiñez, fediak erakazten deragun beçala, chercun ibili gabe cer maneraz present den. Hala eguiten cicin Moisec, coinec Joandene Paulec erraiten dien beçala *Ginco ecin ikuz daiteen hura, ispirithian beti present baitzien, ikussi bailu beçala*. Hala nola ilhunpian adiskide bati nehor minço denian, ezpaitu bere ispirithian nola daguen hartzcen, bena bai harekin içaithiaz placer hartzcen; orobat ere, behar dici baratu simpleki Gincoaren presenciaren orhitzchapenian, eta contentatua presencia hartaric idoki ahal deçakegun prootzchiaz, eci nahi baguindu Gincoa den beçala ispirithian hartu, ecin eguiñ daiteen gauça bat inutilki inxeä guindiroçu; igurica deçagun arguia eta bicitce uros-saren egun handia, ordian bere buria erakatzico diraguço, *eta bere glorian aguerten denian, hura iduri guituķeu, ceren ikussiren baitugu den beçala*. Ordu artekan haren ikusteco bistha flakuei diici; haren noizpait Moisari odee batez inguraturic aguertciac, erakazten diraguço nahi diela haren presencia gordia içan dadin, eta ez-teçagun ikuz fide<sup>11</sup> umil eta utxu batez becic.

Orai artekan erran tugunac endelguiaren seindimenthiaz<sup>12</sup> dituço eta eztuço hori Gincoaren presenciaz orhitzciaz prootzchossena <78>; eci ispirithian Gincoa present dela sinhexi behar dugun beçala, bena orano insxeatu behar diici bihotzcez haren maithatzcera eta hari junto egoitera, jiten den capitulian erakaxiren dugun beçala.

## HIROURGUERREN CAPITULIA [I/6/3]

### Borondathiaren actuez, cointan handiski baitago Gincoaren presencian norc bere buriaren atchikitzcia, eta acto heen eguiteco maneraz

Seint Bonaventurac bere Theologia devocioneskuan erraiten dici, borondathia-ren actac —cointçaz gure bihotzçac Gincoaganat altchatu behar baititugu haren presencian egoiteco— direla arimaren desir bero batzçu Gincoari juntatceco amorio perfect baten seindimendiez, suzko hazperapen batzçu —cointçaz arimac Jauna

<sup>10</sup> Liburuko *gagnian* bakarra da; gainerateko guzti-guztiak *gagnan* dira.

<sup>11</sup> 240-n ere badarabil *fide* etimologikoagoa; aldiz, *fede* gehiagotan dakar (74, 77, 87, 88, 124, 191, 204, 231, 243).

<sup>12</sup> Ez da liburuan beste “seindimentu”-rik; adibide hau salbu, *seindimendu* aldaera da nagusi eta horixeak ditar Ibarrolako Salaberrik ere; hortik goiti *sendimendu*-ren zazpi agerraldi ditugu liburuan (176, 177, 181, 297, 355, 406, 415).

1 bereganat gomitacen baitu— eta bihotzçaren inxeii<sup>13</sup> tendre devot batz̄u, çointçaz Gincoaganat hegaldatcen beçala baita eta hareganat hurrantcera beti eta hanbat aboro inxeatcen. Desir eta seindimendu suerte horiec Seindiec deitzcen ticie *Aspiracioniac*, ceren horien medioz arima Gincoaganat altchatcen baita, eta nola nehorc hax hartian hartzcen dien <79> airia beti bulharretic idokiten baitu, aitcinetic deliberautu gabe hatxaren hartzcera, orobat ere susko desir suerte horiec bihotzçaren çolatic hain subitoki jalguitzen tuçu, nun çunbait aldis, nehorc aitcinetic eguiñ behar thiela orhitu gabe, Gincoaganat altchatcen baititu. Aspiracione edo bihotz altchatce eta desir horiec eguiten tuçu otoitzça labur, ussu eta gartzxu batz̄u, çoin deitzcen baitituzte otoitzcesco bulta labur batz̄u, er[r]an nahi baita, Seint Augustinec dioen beçala, bet-betan eiten tugun batz̄u, ceren baitira lança suzko batz̄u beçala, çoin bihotzçac ondoz ondo Gincoaganat egozten baititu, eta Cassien Author batec erraiten dici estimu eta ussaincha handitan cirela Egiptoco Ermithainen arthian, ceren bihotz altchatce horiec labur direlakotz, ispirithia espatiute akitzcen, ceren orano gortarçunez eta suz bethiac direlakotz, Gincoaren presenciala heltzcen baitira, Demoniuar arteric utzci gabe heen eguitetic gure epaintzchatceco. Seint Augustinec horren gagnan erraiten dici, otoitzçari emanac diren personec anitz gogua eman behar dutela gauça batí, çoin baita otoitzçan nehorc uken behar dien devocione bici eta gartzxu hura, estadin hoztera jin oracioniaren lucegui içanez. Holaco lachokerien langerric nehorc estici bihotz altchatce labur hetan, hara certaco desertuko Aita <80> Seindiec heer aboruetan arranguroske jarraikitzen ciren, inxeatuz Gincoaganat bihotzçaren beti altchatuz haren presencian beti egoitera.

20 Estuçu ere Gincoaren presencian beti egoiteco hori beno bide hoberic, ihiagoric, prootzchossooric; deçagun hedatukiago ezplika nola eguiñ daiteen. Cassien Authorraren aravera eguiñ dieiteçü Eliçac officiuen haxian erraiten thien hitz hoen medioz: *ene Jauna, lagunt neçaçu; ene Gincoa, lehia cite ene socorritzcera*. Beraz, arren, hassi behar dugunian cerbait nekeric, Gincoari galdein behar diici haren unxa eguitioco gracia holaco çunbait otoitzça laburrez, ceren haren lagunça gabe, deuz ere ez-paitirogu haren gogara eguiñ. Cassien Author horrec ciòtu horiec miragarri direla gure seindimendu gucien erakazteco, cernahiden estatu eta ocasionetan guiren, hala eguiñez Gincoari bere lagunça galdeiten diici, umiliatzen guituçu eta eçagutzen gure beharra eta miseria; hareganat bihotzçac altchatcen tiici, haren socorrian eta lagunçan gure fidaincha eçarten, eta gure favoria eta arrimia dela orhituz, gure bihotzctean haren amoriu emendatzen. Finian, cernahi ataku Demoniuc emanic ere, hitz seindu horietan idireiten tiici ororen ireisteco eta bentcitceco harma segurrac. Hartakotz, horiec içan behar cie guc ardura eguiñ behar <81> dugun otoitzça Gincoaren presencian gure burien atchikitceco.

30 Seint Basilac, aldziz, ciòtu, Gincoaren presencian egoiteco behar dugula eguiten dugun gauça guciez cerbitzhatu, Gincoaz orhitzceco jaten dugunian edo bes-

---

6 bihotzçaren: *biholtzçaren*.

13 ussaincha: *ussainçha*.

<sup>13</sup> Ez dakigu *inxiei* errata den, eta beraz *ii* horrek *u* bat ordezkatzen duen, ala berranalisiaren emaitza ote den; 402-ko *inxeyez* aldaerarekin uztar liteke *inxiei*, baina *intseu + -ez > intseiez > intseyez*uste dugu dela bide ziurrena; gaineratekoan, <inxeu> da izenaren aldaerarik erabiliena (109, 296, 356, 359) eta <inxea(tu)> aditza.

titzcen guirenian, jatekua eta arropac eman derauskigun Gincoaren erremesthiatuz; alhorrerat guatcenian, hango fruthiac emaiten thienaren benedicatuz; ekia eta içarrac ikusten tugunian, heen creaçalia laudatuz eta iratçartcen guiren aldi oroz, hareganat bihotzçac altchatuz. Ber gauça eguin dieiteçu erraitera guatcen seindimendu hotzçaz: ô ene Gincoa, ala bailiçate uroz çu behin ere offensatu etcintukeen guiçona.<sup>14</sup> Jauna, ezteçaçula permeti jagoiti offenxa citçadan; lehen hil eci ez becaturic eguin; eguiçu, ô ene Gincoa, lehen milatan hil nadin, eci ez becatu mortal bat eguin; bai eta ere orano Gincoa erremestiatuz generalian edo particularian eguin derauzkigun hunguiez, çunbait bertuteren hari galdeinez, hala nola eguiasco umilitathiaren, obediencia perfeit baten, haren amorio bero baten edo pacencia osso baten; beste aldian, Gincoaren amoriosco eta haren borondatera egoiteco resignhacionesco actuen eguinez, iskirtura seinduko leku liferentetan idireiten diren hitz hoen erranez: *ene maithia oro enia duçu eta ni ossoki harena; jauna, <82> eztadila ene borondathia eguin, bena curia compli dadila. Cer nahi dut Celian, çu becic?* Gincoaganat bihotz altchatce, otoitzça labur suerte horiec oro net hun tuçu Gincoaren presencian nehoren atchikitceco, bena hobenenac eta prootzchossenac dituçi, hargatic, bihotzçac Gincoaz hunkithia denian bere beitharic eguiten thienac. Etçu ere necessario anitz acta suerteren eguitia, eci suerte batetakuen ardura eta gortarçunekи eguithia, aski içan dieiteçu anitz egunez gure Gincoaren presencian atchikitceco, bai eta ere hil arthio. Halaz, çure bihotzçian devocionia pitzten badute orai berian Apostoliaren hitz hoc: *Jauna, cer nahi duçu eguin deçadan?* Edo Cantiketaco Espossaren hitz hoc: *ene net maithia ossoki enia da eta ni ossoki harena;* edo Daviten Psalmian diren hoc: *cer igurikiten dut Celian besteric, Jauna, çu becic? Cer desiratcen dut çutçaz besteric lurrian?* Horier atchiki cite, horietan egon cite, beti bihotzçian erabil çatçu eta horien medioz eta unxa eguinez, beti Gincoaren presencian egonen cira.

### <83> LAURGUERREN CAPITULIA [I/6/4]

**Çointan hobeki orano ezPLICATHIA baita Gincoaren presencian egoiteco praktika, eta çointan erakasten baita moyen bat net ihia, prootzchossa eta net perfeita beti Gincoaren presencian egoiteco**

Anitz Gincoaganat bihotz altchatce eta otoitzça laburren artetic —çointçaz cerbitzcha baikitake Gincoaren presencian egoiteco— gueihenenetaric eta hobeneneric bat duçu Joandene Paule Apostoliac Corinthiakuer iskiribatu cereen lehen letran erakasten deraguna. Apostolu horrec erraiten dici: *ala deçaciен jan, ala edan deçaciен edo beste cernahi gauça eguin deçaciен, oro Gincoaren gloriari daucola eguin itçacie.* Eguinen tucien gauça guctean intxea citeste beti Gincoaganat bihotzçaren altchatcera, erraiten derakocielaric: Jauna, çuretaco eguiten dicit gauça haur, çuri placer eguiteco, çuc hala nahi duçulakotz; çure borondathia, Jauna, enia duçu eta çu

13 eztadila: *extadila.*

<sup>14</sup> Jatorrizkoek honela diote: *¡O Señor, quién nunca os hubiera ofendido!* (I, 313) / *O mon Dieu, qu'on seraient heureux de ne vous avoir jamais offendé!* (RD 2, 220).

1 content cirenian ni content nuçu; esticit besteric nahi çuc nahi duçuna becic; ene placer eta descanxu gucia çure borondathiaren eguthian diagoçu, eta çuc placer eta nahi duçuna eguin deçadan ber, deuz etcit desiratcecoric; <84> eta estu Çelian ez lurrian deuz çu becic ene beguiec ikussi nahi dutenic. Hori duçu Gincoaren presencian beti egoiteco manera net hun eta perfeít bat, hola eguiñez Gincoaren amoriuaren seindimendietan nehor beti egoiten denaz gueroz. Neholare estieiteçu hobeki Salbaçale Jaunac hitz hotçaz —*behar da beti otoitzcetan egon*— emaiten deragun mania compli. Nola nehorc otoitzça hoberic eguin diro, beti Gincoaren gloriaric handienaren desiratcia, beti gauça orotan haren borondate seindura egoithia eta harc placer dienaren nahi ukeithia beno? Hala nolaz Doctor aipatu batec erraiten dien, arraçoin handireki, guiza hortaco seindimendietan beti egoiten denac labur prootzchu handiric idokico diela, bere bihotzian kambio handi bat, mundiaren hazthio osso bat eta Gincoaren amorio ecinago handi bat eçagutuço diela. Behar den beçala hain seindu den bicitceco chede bat seguitcen diena, estuçu Gincoaren eretcian estranger edo campoco bat, bena seindieki Gincoaren etcheco bat. Hola bici direnez minçô duçu Joandene Joanne Apocalipsan, erraiten dienian: *Gincoaren cerbitzchariec haren berthaithia ikussico dutela eta haren icena heen belarrian<sup>15</sup> iskiribathia dateela;* eci Gincoaren presenciaren beti beguien aitcinian ukeithia eta hartzçaz beti orhitzcia, deja haren berthaithiarek ikusthia beçala <85> duçu eta haren icenaren belarrian ekarthia. Guiza hortaco bîcicia deramateneç, eguiaz minçatcera, esticie aboro lurrareki han-tacioneric, bena *heen conbersa oro Celian duçu, esticie soric eguiten beguiez ikuz dais-teen gaucer, bena gorpitzceco begui hotçaz ikuz estaisteener;* eci beguiez ikuz daisteenac mundu huntakuac dituçu eta ikuz eztaitzteenac eternitatekuac.

20

Bestalde gogua eman behar ci, erran diren acto horiec nehorc eguiten thienian eta erraiten —*Jauna, çuretaco eguiten dicit gauça haur eta çuc nahi duçulakotz*— eta beste holaco ce[r]bait, horiec erran behar dicie gogua bere beitharic campo erabili gabe, Ginco orotan idireiten denari eta gauça guciac bere beithan thienari nehor minçô balis beçala; eci hori deitzcen duçu eguiaz Gincoaren presencian ibilthia eta hara cer otoitzceco manera esthiago, ihiago eta prootzchozago beste otoitzce eguiteco manerac beno, errendatcen dien. Hala nola noiz eta ere reflezione eta meditacione eguiten baitugu Jesu-Christoren curutxian itçatciaren edo habiari estekatciaren gagnan, meditacionez iskiribatu dutenen araura, estiici behar goguan hartu Salbaçale jaunaren gaiski tratatce hoc noizpait Jerusalemen heldiac beçala, ceren hala eguiñez ispirithia atkitcenago baita eta bihotzça guthiago huntkitcen; bena behar direla misterio horiec <86> gure beguien aitcinian igaraiten direla goguan hartu, eta inçuten tugula haren gorpitz sacrathiari eman citusten açote colpiac, esku eta huinhen itçatceco eman citusten marteilhu colpiac; eta aldz, heriuaren gagnan meditacione eguiten dugunian, behar diici orobat ispirithian eçarri hilcera guatcela, medikiec gure bicias etxi dutela, deja gandera benedicathia edo curucifica eskietan dugula. Hori hala denaz gueroz, arraçoin bortitzaguaz justo duçu, Gincoaren presenciaren gagnan eguiten tugunian, erran tugun actac eguin ditçagun ez ourrun den batí minçô baikina beçala, bena

3 ez: ex. 17 ikussico: *izussico*.

<sup>15</sup> Bekokian, kopetan.

Ginco present denari beçala, harten daguenaz gueroz Gincoaren presencian egoithia, eguiatzki eta realgui haren presencian guirenaz gueroz.

1

### <87> BOSTGUERREN CAPITULIA [I/6/5]

#### **Azken capitulian Gincoaren presencian ibilteco erran dugun maneraren, eta beste Gincoaren aitcinian ibilteco maneren arthian den liferenciez, eta explicatu dugunac beste orotan gagnan dien abanthailhez**

Hobeki orano erakasteco Gincoaren presencian ibilteco erran manera haur coinhien perfect et prootzchoz den, erranen diici certan edo nolaz berheciki beste manerac beno hobe den. Lehen arraçoinha duçu, ceren beste manera aboruetan oro cerratcen baita endelguiaren acto simple bathian, eta baratcen Gincoa present dela sinheste choïlhian; bena huntan, nehor aitcinetic Gincoaren presenciaren gagnan endelgusco eta fedesco actac egun onduan, Gincoaren amoriosco actuen eguiten fin-katcen duçu, eta halaz, dudaric gabe besthiac beno perfect et prootzchozago duçu; eci hala nola otoitzça ispiritualian ezpaita behar baratu endelguiaren actuetan, edo otoitzça suerte hartaco misteriuetan eguiten diren goguaketetan, bena behar baitira orano egun borondatesco actac —çoin baitira bertuthiaren seindimendu amoraxu batçu eta <88> Jesu-Christoren imitatceco desir handi batçu, eta azken bihotzçaren seindimendu hotaric dihaçu otoitzçaren prootzchu gucia—, orobat ere, Gincoaren presencian egoitetic idoki behar den fruthia borondathiaren actuetan diagocu eta halaz, arrangura aboreki heer jarraiki behar ci.

10

Biguerren arraçoinha duçu, ceren hunen seguitcia bestena beno ihiago eta ezthiago delakotz, ceren bestetan endelguiac eta ispirithiac anitz akitu eta trabaillhatu behar baitu gaucen gogora ekarteko, bena manera huntan ispirithia estuçu batere ppenatcen. Aski dici bihotzçaren Gincoaganaco seindimendu amoraxietan egoithia, çoin ppenatu gabe jiten baitira. Eguia duçu nehor ezthaiteela Gincoaren presencian jar haren presenciaren gagnan endelgusco edo fedesco acto bat egun gabe, hala nola Aldareco Sacramendu Seindiaren aitcinian nehor jarten denian, lehenic Jesu-Christo han present dela sinhesten dici, bena guero han egoiten den dembora emai-ten dici haren adoratcen, remesthiatcen, hari bere amoriosco seindimendien erakas-ten eta hari behar thien gracié galdeiten; orobat Gincoaren presenciaren gagnan, fediaz Gincoa present dela sinhexi onduan, endelguiaren actuen eguiten aboro egon gabe, nehor borondathiaren edo Gincoaren amoriosco actuen eguitera lehia-tcen duçu. <89> Nola hoc ihiki eguiten baitira, dembora luçaz heen eguiten nehor ar dieiteçu eta hartacotz, eriac eztirenian estatutan beste otoitzçaric eguiteco, nehor conseilhatzcen direeçu ardura Gincoaganat bihotzcen alchatcia, borondathiaren edo amoriosco actuen eguitez, ceren horiec aiza dembora oroz egun baititake.<sup>16</sup> Halaz, elican ordian beste abanthailaric erran dugun pratican edo maneran, becic ere har-tan bestetan beno luçazago irauteco edo egoiteco ahala, beti aski lukeçu Gincoaren

20

30

16 borondatesco: *borandatesco*.

<sup>16</sup> Zuberoako tradizioan bezala, adibide honetan *ditake ez* da singularra, plurala da.

1 presencian egoiteco manera hounen bestia beno aboro estima-aratciceco, eta orano arraçoin borti[t]zagaz, huni eman behar dirakogu besten gagnan preferencia, edo hauthia eman beste anitz pundutan beste manerac beno protzchossago delakotz.

Bena hobekienic goguatu behar diena duçu, nehor eztela jarten Gincoaren presencian hartan choïlki baratceco, bera hura present dela orhituz, gure obra gucien unxa eta seinduki eguiteco; eci Gincoa present dela orhituric ere, gure beste obrac lachoki eta gaizki eguiten baguintu, Gincoaren presenciaren orhitzchapena elukeçu devocione prootzchoz bat, bera illusione edo enguenio kaltekor bat. Behar dici, beraz, nehorc ispirithian begui batez Gincoa present ikussi onduan, besthiaz sognin haren amorecatic gauça gucien <90> seinduki eguitera, guiza batez, nun Gincoaren presencian guirelaco orhitzchapenac ekar guitzçan eguiten tugun gaucen hobeki eguitera, eta hortaco erraiten dugun methoda edo manera besthiac oro beno anitcez hobe duçu; eci beste maneretan ispirithiac gogora erakarri nahi thien gaucen cherkatcen eta gogora erakarri onduan, hetaric cerbait prootzchuren idokitera hanbat finkatcen duçu, nun arimac ezpaitu beste gaucendaco attencioneric batere, eta halaz, estici eguiten obra imperfeit eta ezkacic becic. Bena explicatu dugun maneran, nola ispirithia ezpaita batere ppenatcen, ossoki gogua eman ciroçu obren unxa eguitera, eta hartara Gincoa present dela orhitzciac handiki ekarten dici, ceren haren amorecatic eguiten thien gaucetan, ezpailuke nahi içan ladin deuz ere haren majestathiaren eta borondathiaren contre denic, eta gauça gucien chede hortan eguiteco, erran nahi baita, Gincoarendaco choïlki eta haren borondathiaren complitceco gauça gucien eguiteco manera, haben<sup>17</sup> seguidan idiren duçu.

### <91> SEIGUERREN CAPITULIA [I/7/5]<sup>18</sup>

#### **Nola nehorc eguin behar thien gauçac, Gincoari daukola choilki heen eguiteco**

Lehenic. Deuz ere ez eguin guiconen alhaguez edo beldurrez, ez eta ere hetzçaz ikussia eta laudathia içaithiagatic; guthiago orano bere placer, ohore edo prootzhia-gatic.

30 Biguerrenian. Oro eguin choïlki Gincoarendaco eta guiza hortan, hari offrituz eguitera ussatuz, lehenic Gincoari heen goician iratçarzian offrituz. Biguerrenian obren haxian eta heen eguthian anitz aldiz bere bihotzça Gincoaganat alchatuz, erranez, *Jauna, çuretaco eguiten dicit gauça haur, çure gloriataco eta çuc nabi duçulakotz.*

Hirurguerrenian. Bere beitan finki resolitu egun oroz hunenbestetan goiz-axetan acto horien eguitera, hazarrian<sup>19</sup> guthiago eta guero beti eta hanbat aboro, bere obra gucietan Gincoaganat bihotzzen alchatceco eta haren choïlki gauça gucien eguiteco costuma har arthian.

Laurguerrenian. Erran dugun manera hortan gaucen eguitera beti inxeatu, ez guiconen, bera Gincoaren cerbitzchuco gure gucien eguiteco costuma har artekan

<sup>17</sup> *Haben* ‘hemen’-en bigarren agerraldia da, hondarrekoan; *heben*, berriz, hogeita hamar aldiz ageri da.

<sup>18</sup> Gaztelaniazko jatorrizkoa (I, 332)-n dago eta frantsesezkoa (RD 2, 261)-n.

<sup>19</sup> Argi dago txistukaria ez dela ongi islatu; “hatsarrián” da hori, ‘hasieran’.

<92> eta heen egithian, Gincoaren amoriuaz ussustathiac seindi artekan, gure placer gucia ecarriz Jaunaren borondathiaren complitcian, eçagun içan dadin Gincoaganaco amoriuac eraguiten derauskigula; eta horra certan dagon Gincoaren presencia beti beguien aitcinian atchiki behar dugun eta bethiereco otoitzça seguitu behar du-guna. Deuz ere eztu prootzchossoric gaucen seinduki eguiteco eta arimaren salbamendiarendaco.

1

### ÇAZPIGUERREN CAPITULIA [I/7/5]

#### Gincoaren borondatera egoithiaz

Lehen gauça.<sup>20</sup> Ororen errecebitcia nolaco-nahi diren, nunti-nahi eta cernahi maneras heltcen diren, Gincoaren eskutic jinac beçala, çoinhec aita hun batec beçala gure hobetan igorten baititu, haren borondate seindura ossoki orotan eta beti gaude-laric, Jesu-Christoc berac erraiten baleragu beçala: ene Semia, nahi dicit eguin eta so-fri deçaçun haur ene amorecatic.

10

Biguerrena. Inxeatu beti eta hanbat Gincoaren borondathiaren araura gauça guciac hel diten desiratcera. Lehenic pacienki sofrituz nahigabiak. Biguerrenian gogotic eta fite heen errecebituz. Azkenian <93> placerreki heen bessarkatuz, ceren Jaunaren borondathia hala den.

20

Hirurguerrena. Erran dugun seindimendietan finkatu, seindi artekan gure bihotz-cetan placer bat Gincoaren borondathiaren gu beitan complitciaz, hanbat afflictionetan nola mesperetzchietan eta ppenetan, gure contentamendu ossua hartan idiren artekan.

Laurguerrena. Gincoaren borondathiaren araura dela eçagutzen dugunic eguiteco ez uzthia haren cerbitzchuco eta gloriataco, hortan seguiten dugularic Salbaçale adorablia, çoinhec beti Aita Eternalari laket citçaskon gauçac eguiten baitcithien.

Bostguerrena. Hola eguitia net moyen hun bat duçu beti Gincoaren presencian egoiteco eta otoitzça seguidasco bathian irauteco, bai eta ere mortificacionaren berthiaren gogoticago bessarkatceco.

---

1 artekan: *arketan*. 13 deçaçun: *doçaçun*.

<sup>20</sup> Frantsesezko jatorrizkoa (RD 2, 262)-n dago.



### **III. OTOITÇAZ**



### Otoitzaren merechimendiaz eta baliostarçunaz

Joandene Johanne Evangelistac Apocalypsaren liburuco bost eta çortzcigerren capitulian, net unxa erakasten diraguço otoitzçaren excellencia eta merechimendia; çortzcigerren capitulian erraiten dici: *jin cela Ainguru bat, çoin çuti baitçaguen Aldare aitcinian urhesco inxeinxatceco<sup>1</sup> bateki, eta inchenxu anitz eman ceracotela seindu gucien otoitzcen Gincoaren tronuaren aitcinian den urhesco aldariaren gagnan oferitceco.*<sup>2</sup> otoitzça heen inchenxiaren kia altchatu cela Ainguriaren eskietaric Gincoaren aitcinerano. Seint Chrisostoma minço delaric Joandene Joanneren hitz horien gagnan, otoitzçaren merechimendiaren poroatceco, erraiten dici iskiritura seindiaren aravera otoitzçac choilki thimima iduri diela, çoin baita inchenxuz eta beste anitz urrin hunesco gaucez eguna den unguendu bat; eci hala nola unxa eguinic den thimiamac urrin net hun <95> bat baitu, orobat otoitzça unxa eguna denian, Gincoari net lalet ciacoçu, Aingurier eta Celuco Seindier alleguerancia handi bat emaiten dici. Hartacotz, Joandene Joanne hoguei eta laur çaharrez minçatcian erraiten dici: *çahar hec urresto gopor batçu bacitustela urrin hunez betiac, çoin baitira Seindien otoitzçac.* Cer da ere —cioço Seint Augustinec— otoitzça beno hobiagoric? Mundu hantan prootzchozagoric? Ispirithiaren ezthiagoric? Cer da religione gucion goragoric? Seint Gregorio Niçakua seindimendu bereco duçu dioelaric bicitce hantan eztela otoitzça beno baliossagoric.

Seint Bernatec otoitzçaren merechimendiaren hobeki eçagut-aracitceco erraiten dici: çunbat ere segur baita ardura Ainguriac ikuz ezthaisteen maneran eguiaski present direla Gincoaren cerbitzcharien aldian, heen demoniuaren enguenu eta gasterietaric beguiratceco, eta heen desir seindien beti eta hanbat aboro Gincoaganat

---

2 merechimendiaz: *morechimendiaz.*

<sup>1</sup> Jatorrizkoan honela dio: *un incensario de oro / un encensoir d'or* (RD 2, 1).

<sup>2</sup> Jatorrizkoari begira hobeki ulertzen da perpaus luzea: *y tenía un incensario de oro en su mano, y que le fue dada mucha cantidad de incienso, que eran las oraciones de los Santos, para que las ofreciese ante el altar de oro que estaba delante del trono de Dios (I, 213-4) / ayant un encensoir d'or, et que lui ayant été donné quantité d'encens, afin qu'il offrit les prières de tous les saints sur l'autel d'or qui étoit devant le trône de Dieu* (RD 2, 1).

1 altcha-aracitceco, hargatic ere hobeki orano laguntcen guitustela otoitzçan guirenian. Seint Bernatec seindimendu horren poroatceco cerbitzhatcen duçu liburu seindietan idireiten diren çunbait erranez, berheciki Raphael Ainguriac Tobiaz Aitari erran uken cien hitz hotçaz: *otoitzcetan eta nigarrez cindaudenian, cure otoitzçac Gincoari offritcen niticin.* Hortic <96> agueri duçu gure otoitzçac, ahotic jalgui diren beçain sarri, Ainguriec ercebitcen beçala ditustela Gincoaren aitcinera eremaiteco. Seint Hilarioc ere segurtatcen guitici Ainguriac fidelen otoitzcer behatzen direla, eta egun oroz Gincoari offritcen guiza batez nun, otoitzcetan guirenian Aingurien arthian baikira eta eguiaski heen officia equiten, oraidanic eguitez beti heeki Celian eguin behar dugunaren. Hartacotz Ainguriec oraidanic bere lagunetaco atchikiten guiticie, Celian içanen guiren beçala Ainguru gaiztuec galdu lekietan guiratekeenian,<sup>3</sup> eta hara cergatic gure otoitzcetan handiski laguntcen guitusten.

20 Seint Chrisostomac otoitzçaren prootzchiez minçatcian, gogua emaçu —cioçu— çoin gora altchatcen cithien otoitzçac eta nolakuac diren hari dauden dohainhac; otoitzcetan ari cirenian Gincoari minço cira, eta Jesu-Christoreki; otoitzçan nahi tuçun gauçac desiratcen, eta desiratcen tuçunac galdeiten, estuçi mihiric erran diroe-nic çoinhen balioz den/guiçonaren Gincoareki minçatce hori, eta çunbat prootzchu jardiresten deragun: eci mundian gende çuhurren eta aguduen hantatuz nehor prootzhatcen bada, eta gendeki devoteki bicis devotcen<sup>4</sup> balin bada, cer prootzchu estugu iguriki behar Gincoareki otoitzçaren medios ardura minçatuz! <97> Hurrant cite Gincoaganat —cioçu Erregue Prophetac— eta arguithia içanen cira, eta eguiaz çunbat handi estute içan behar guiristinhho otoitzçari emana den batec jardiresten thien arimaco arguiaç, eçagutciac eta prootzhiac? Hartacotz ere, Seint Chrisostomac erraiten dici deuzec ere ezkitçakeela hainbeste lagunt bertuthian aitcinatcen, nola otoitzça ussu batez Gincoareki minçatciac; ceren halaz, guiçonac hartzen baitu sein-dimendu Gincoascoagoric eta mundoço gaucetaric Celurat bihotzça altchatcen, Gincoasco eta seindu bilhatzen.<sup>5</sup>

## BIGUERREN CAPITULIA [I/5/2]

### Otoitzçaren dugun beharraz

30 Sobera guihaur beithan poroança diici otoitzçaren dugun beharris, eta ailira poroança suerte horiec becanago. Bena guiçona bere beitharic hanbat flacco duçu, hainbeste exaiez sethiathia eta hainbeste gauçaren beharretan bere ariman eta gorritzian, nun beti Gincoari herssatu behar baitu haren lagunçaren jardiresteco, eta erraiteco, Josaphat Erregue Gincthiarrac erraiten ceracon beçala, Ammonitac eta Moabitac, haren exaiec, haren contre guerla preparatzen çutenian: *Jauna, oraico* <98> ex-

---

8 baikira: *baikera.* 17 çunbat: *cunbat.*

<sup>3</sup> Hona jatorrizkoak: *amados de los Angeles, como compañeros suyos que somos y hemos de ser despues, repando las sillas de sus compañeros que cayeron* (I, 215) / comme étant déjà leurs compagnons, et comme devant l'être dans le ciel, et y remplir les places de ceux qui se sont perdus... (RD 2, 4).

<sup>4</sup> OEH-k ez dakar debotu aditzik, baina gure liburuan devotcen ageri da garbiki.

<sup>5</sup> Bilakatze edo bihurtze adieran; ikus hiztegia.

*treitzcha handian etciakiguçu cer eguin; estiici beste eremedioric gure beguien çureganat alchatcia becic.* Celestin Aita Seindiac erraiten cicin, minço celaric otoitzçaren behar handias: enakike deuz ere erraiten hortan gagnan hobiagoric, Zozima ene aitcineco Aita Seindiac erran thienac beno. Badea, cioçun, demboraric Gincoaren socorriaren beharric estugunic? Hartacotz, gure behar eta eguiteco orotan haren lagunça galdein deçagun, eci sofri esthaiteeken urgulu bat da, guiçona aski aussart balis uste ukeiteco cerbait bere beitharic eguin diroela.

Seint Thomassec, poroatceco otoitzçaren dugun behar handiaren, ekarten dici arraçoin net hun eta eguiasco bat idokia Aita Seindien dotrinatec, çoin baita, Gincoac bere providencia divinuas seculaz gueroz arimer emaitera deliberatu thien graciac oro demboran emaiten thiela, hala nola providenciaren reglen aravera guiçonac emendatcen baitira ezkonçaren medioz, lurrac ekarten fruthiac laborathuz, eta etchiac eguiten officialec pazthac eta çurac eçarris; ber providenciaren reglen aravera, arimec errecebitec dicie anitz gracia eta argui otoitzçaren medioz. Hartacotz Jesu-Christoc Evangeluan erran dici: *galda çacie eta ukenen ducie; cherka çacie eta idirenen ducie; bortha jho<sup>6</sup> çacie eta çabalduco çaucie; <99> eci galdeiten dienac ukeiten du, cherkatcen dienac idireiten du eta bortha jhoiten dienari idekitcen çaco.* Clar duçu, beraz, ardura otoitzça eguin behar dugula, otoitzça denaz gueroz bide bat, çointaric gure Jaunac gugana hel-aracitcen baititu bere favoriac, gure behar-ordietan laguntcen eta bere huntarçunez aberasten baiktu.

Cünbait Seinduc erraiten dicie otoitzça cathinha bat dela Celian eratchikia eta lurrerano chilintzchaka daguena, ber hartaric graciac jeusten çauzkigula eta hartan gora Gincoaganat igaran behar dugula. Erran dieiteçu orano Jacopec ikussi cien çurubi miraculossa dela, çoinhec buru batez Celia hunkitcen baitcien, besthiaz lurrera heltcen, çointaric thaic gabe Ainguriac igaraiten eta jeüsten baitira gure galduen Gincoari eremaiteco eta haren benedictionen gureganat eraux-aracitceco. Seint Augustinec otoitzça deitzcen dici Celuco guilça, eta eguiaz guiltz bat duçu, çoinhec hanga bortha eta trezor divinuen arka guciak çabaltcen baititu. Seindu berac orano cioçu, hala nola janhariec gorritzça hazten baitute, halaber Gincoaren hitzçac eta otoitzçac hazten dutela Gincoasco guiçona. Otoitzçaren dugun behar handia eta harren baliostarçuna orano hobeki eçagutu behar diici, ceren den bide segur bat gure bicitiaren reglateco eta bertuthiaren bidian idireiten <100> diren puchulien garaitzceco. Hartacotz Seindiec erraiten dicie otoitzçati duhela gure biciaren seguida guicia, eta gure bicia unxaedo gaiski reglathia dela, otoitzçaren unxaedo gaiski eguihiaren aravera.

Otoitzcen unxa eguiten dakienac seinduki bicitcen badakiela cioçu Seint Augustinec, eta Seint Jean Climakakuac erraiten dici, Gincoaren cerbitzchari batec erran ceraskola behin hitz anitz goguatzia merechi duten hoc:<sup>7</sup> goicetic başakiela nolaco içanen cen egun gucion, endelga-aracitceco goizceco otoitzça unxa eguin cienian, harre hun hari egun guciak ihardesten ciela, eta noiz ere goician otoitzça gaiski eguin baitcien, egun orotan bere beitharic campo cela. Generalian gure bici gucion orobat

19 behar-ordietan: *bebar-ordietan*.

20 huntarçunez: *huntarcunez*.

<sup>6</sup> Adibide hau eta ondoko *jhoiten* (99) dira liburuko <jh> bakarrak, ez da besterik.

<sup>7</sup> Ez “hitz anitz”, “anitz goguatzia merexi duten hitz hok” baizik.

1 duçu, eta poroatcen diici net ardura noiz eta ere gure ariman boztkario,<sup>8</sup> gortarçun eta erressolucionen hunac emendatzen poroatzen tiici; bena otoitzçan lachatzen guiren ordutic, fite eçagutzen dici Seint Bonaventurac erran dien egua: otoitzça gabe, reli-gionia idor, eskaz eta bere acabançan dela. Lachokeria horri jarraikiten ciakoçu epel-tarçuna, arima emeki-emeki flaccatzen eta ezusthian beçala, Celuco gaucendaco cien gortarçuna eta goçua galtzen; desir hunec eta resolucionen seindieci ihez egui-ten eta ecestatzen; aldis, inclinacione gaisthuac <101> pitzten eta hamatzen;<sup>9</sup> az-kenekotz, gauça bano eta inutiletan becic ez dezkançatzen, alleguerancia desarau-kuetara lerratzen eta orano sordeitz dena, banitathia, colera, bekaisteria, munduko 10 hunen egarria eta beste seindimendu gaizto galgarriac —gu beitharic destarrathiac cirela uzte guinthienac— gure bihotzcetara berris itçultzen eta hartan becathia eçarten.

2 Nila abadiac erraiten dici otoitzçac içan behar diela arima Gincthiarraren mi-railha, eta eguiaz behar diici paussuz egun oroz mirail harten gure burier so eguin, harten gure estakurien<sup>10</sup> eçagutceco eta heen ahalaz erremediatceco. Mirail harten behar direguçu soquin Jesu-Christotan listreatzen duten bertuther, gure arimaren hetçaz bestitceco eta edertceco. Guiristhinho hun batec aboruenic desiratu behar diena duçu, erraiten cienia Seint Francessec otoitzçaren graciaren ukeithia, eci hora gabe etci nehorc esparança uken behar Gincoren cerbitzchian anitz aitcina daiteela, eta harekin oro eguin diroskeela esparança ukeiten ahal dici. Hartacotz, Seint Thomaz Akinakuac erraiten cicin guiristhinho bat otoitzça gabe, soldado bat guerla egunian harmaric gabe cela, eta Seint Thomaz Villenuvakuac erraiteco costuma cicin, otoitzça arimarendaco cela, cer ere baita berotarçun naturala estomakaren; <102> nola berotarçun hora gabe hazkurriac spaïtaiste prootzchoz içan guïçona-rendaco eta ecin bici-aracitzen baitute, estomakeco bero harc, aldis, janhariac cambiatzen tici odol hun batetara, çoin gorritzceco pparte orotarat partitzen baita beharren aravera membruer indar emaiteco; orobat gure arima estieiteçu bici otoitzça gabe, otoitzçac emaiten dirauskiguçu indarrac gure eguinbide orori jarraikitceco eta behar den beçala errecebitezko nahigaberik handienen, bai eta ere gauça guciez arimaren hobetan prootzchatceco. Azkenecotz, otoitzçaz unxa baliatzen baguire, harten idirenen diici gure falta gucion erremedio segur bat, bide segur bat bertuthian irau-teco; eci hel baladi etcinten egon çure einbidian, cerbait gaucetan houx eguin cin-deçan, edo çutan hilac beçala ciren passionian pitzten eçagut,<sup>11</sup> lehia cite oracione eguitera eta harten idirenen duçu Gincoren graciaz erremedio labur eta salbagarri bat. Otoitzçan berian ere lachatzen eta hozten bacira, lachotarçun horren contreco erremedia otoitzçan cherkatu behar duçu; harc citu eçarriren lehenbicico devocio-

---

4 ciakoçu: *ciakocu*. 7 pitzten: *pizten*. 33 pitzten: *pizten*.

<sup>8</sup> Liburuko agerraldi bakarra da, bestela *bozkario* ageri da (230, 296, 412 bi aldi).

<sup>9</sup> Beren hiztegietan Salaberrik eta Lhandek *amatu* dakarte, *b-* gabe; sua bizkortzea edo indartzea da; OEH-k Zuberoako erabilera batean belar gaiztoen hedadurarako darabil.

<sup>10</sup> Jatorrizkoak honela dio: *nuestras faltas / nos défauts* (RD 2, 9).

<sup>11</sup> Interpreta liteke “edo hel baladi ezagut zindezan zutan hilak bezala ziren passionian pitzten [zoa-zela]”, baina ohart pasionea singularra dela eta aditz plurala; jatorrizkoak honela dio: *enfin si vous sentez que les passions qui étoient comme assoupies en vous, viennent à se réveiller* (RD 2, 11).

neco seindimendietan. Otoitzçac baitici<sup>12</sup> gaitz suerte ororen Erremedio berheciac, bai eta ere otoitzçan berian eguiten diren houxenac. Hartacotz, comparancha net justo bat eguiten dicie erraiten dutenec, otoitzça <103> bici ispiritualaren eretcian dela, cer ere baita eskia gorpitzçaren eretcian, eskiac beste gorpitzceco membro guciac laguntcen tici, bai eta bera ere; eskia gorpitzçaren hazteco, bestitceco eta beste haren behar ororen eguiteco duçu: orobat ere eskiac berac behar thienac, hala nola ikusthiac,<sup>13</sup> hersthiac, berotciac eta behar thien gauçac oro, eskiac berac eguiten tici; otoitzça ere bici ispiritualian eta arimaren beharretan orobat duçu.

### HIROURGUERREN CAPITULIA [I/5/3]

#### Gincoari dugun obligacioniaz, ceren otoitzça beçain hun eta necessario den gauça bat hain ihi içan ladin nahi uken dien

Otoitzça bere beithan hain balioz denaz gueroz eta haren behar handia dugunaz gueroz, justo duçu eçagut deçagun Gincoari çunbat çordun guiren, ceren otoitzça hain ihiki eguin dirogun, nun nor baguira, beti eta leku orotan otoitzça eguiteco ahala baitugu. Davitec erraiten dici: *beti othoi dirot Jauna, coinhec eman baiteraut içaithia.* Behinnere Gincoaren misericordiaren borthac eztira cerratcen, mundu orori beti idekiac daude, beti hora guri behatzceco eta guri hungui eguiteco prest idirenen dugu eta çunbait aldis ere, <104> bortitzki berac ahulkatcen guitu haren graciën galdira. Horren gagnan gogoketa devot haur eguin dieiteçu: *Gincoa ez-palakigu gure otoitzcen inçuteco hilabethian behin becic beha, eta ordian choilki hungui eguin leçagun, dudaric gabe gracia ecin sobera estima guindiroen bat lu-keçu, ohore eta abanthailha handi baten atchiki guindiroenaz gueroz, lurreco Eregue<sup>14</sup>* bat gure eguitekuetan laguntceco behatzcen balicauku hilabethian behin; eta hori hala balin bada munduko Eregue batez, çunbatenaz aboro eztugu peretchatu behar Celuco eregueren huntarçuna, coinhec gomitatcen baikitu hari herssatcera, ekarria delacotz guri behatzcera ez choilki hilabethian behin, bena egun eta oren oroz.

David Ereguec cioçun: *axian, goician eta euguerditan Jaunari cundatuco ticit ene aflikimendiak, erakaxico ene beharrac eta inçunen nici.* Gincoa eztuçi/guiçonac beçala; anitz otoitzciac Gincoa eztici eneatcen, eci eztuçi gu beçala emanez praubetcen; guiçonec ecin emaitzçaric eguiten dicie, dutena gutithuz becic; hara cergatic anitz eta ardura galdatcia gaitzexiten ceen eta, behin edo bietan gogotic emanez gueroz, hirurguerrenecotz samurtzzen tuçu eta ezticie emaiten, edo emaiten badute, hain go-

<sup>4</sup> gorpitzceco: *gorpitzceco.*      <sup>29</sup> guiçonac: *Guionac.*

<sup>12</sup> Ez da perpaus kausala zuketan emana, *badiñizi* > *baitizi* igurzkari galera baizik; cf. Videgain (1983: 643), bigarren aukera hau ere badakarrena; jatorrizkoan ez dago perpaus kausalik: *elle a des remèdes propres pour toutes sortes de maux* (RD 2, 11).

<sup>13</sup> Txistukarien arteko nahasketak ulermen arazoa eragin dezake hemen, baina ikuzteaz dihardu, garbitzeaz, ez ikusteaz; berdin gertatzen da 195-n.

<sup>14</sup> Liburuan *Eregue* lau aldiż ageri da, guziak orrialde honetan eta hutsa dirudi; gaineratekoan, liburu nagusi da *Eregue*.

1 goz garatic,<sup>15</sup> nun heur deuz galdeiteco guticia idokiten <105> baitute. *Bena Gincoa*, erraiten diena Joandene Paule Apostoliac, *haren lagunța galdeiten duten ororendaco beti aberax duçu*. Nola emanez ezpaita praubetzen, eguiten deraskoten galduac laket ciaskoçu, mundu oroc mement oroz galdatzen derakotela ikusthiaz placer dici, aski puchant delacotz gure gucien aberasteco bere aberastarçunetic deuz galdu gabe; eci haren gracieng tressorac ecin agortzen badira, haren misericordia ere mugaric gabe duçu; halaz, badici aussarki gu certçaz socorri, badici ere beti guri hungui eguiteco borondate ossua eta nahi dici gure behar gucietan hari herssa guiten. Justo duçu, beraz, ahal beçanbat esker ekar deçakogun hain handi den gracia batendaco eta balia guiten ahalaz beti otoitzcetan egonez, hari herssatceco emaiten deragun permissioniaz; eci Seint Augustinec erraiten dien beçala Daviten hitz hoen gagnan: *Jauna dela benedicatu, çoinhec otoitzçaren ispirititia eman baiteraut eta bere misericordiaz laguntzen bainu*; segur içan cite, Gincoac otoitzçaren dohainhaz ezpacitu gabe eguiten, misericordia ere eguiñen derauçula; hartacotz, amorecatic haren misericordiac beti jardirex ditçaçun, otoitzçari erne jarraiki cite.

### <106> LAURGUERREN CAPITULIA [I/5/4]

#### Çunbat maneraz otoitzça eguiñ daiteen

20 Hain hun, hain necessario çaukun eta hain ihiki eguiten ahal dela erran dugun otoitzça hori, bi guizatara eguiñ dieiteçu: mihibet eta bihotzcez. Mihiskua nahibada huna eta seindia den, eta Eliça gure Amac laudatzen eta ardura eguiten dien, ezkituçu hartçaz minçaturen, bena choilki bihotzceco goguaketez eguiten denaz edo meditacioniaz. Hartçaz Joandene Paule Apostoliac Corinthiakuer iskiribatu cien letran minço duçu erraiten dienian: *otoituco dicit ispirituz, otoituco dicit ene bihotzçaren bar-nian, ispirituz Gincoaren laudoriuac cantatuco ticit, ene bihotzçaren erdian cantatuco ticit*. Baituçu bi ispiritusco otoitzça suerte: bata comun eta ihi dena; besthia, ordenarioz campokua, contemplacionia deitzen dutena eta anitz perfeiñ dena, çoin otoitzça hobekienic dakitenen araura, guihaurec beno aboro gutan Ispiritu Seindiac eguiten baitu. Hortçaz minço duçu Areopagita handia, erraiten dienian Hierothea haren Naussiac Gincoasco gauçac sofritzen cithiela, erran nahi baita, guiza batez Gincoatan barna sarthia <107> cela, nun harc eguiñac, berarganic beno, Gincoaganic berarganic jiten baitciren. Baduçu lifferencia net handi bat bi otoitzça suerte horien bien arthian; eci ordenariua cerbait guisaz hitzcez erakax dieteçu, bena eztuçu gauça bera besthiaz; haur ezthieteçu mihibet erran ahal eta etciroçu nehorcer den jakin ahal, haren dohainha uken eta bere beithan poroatu dienac becic. Uken dienac berac ere, etciroçu unxa erran, ez unxa eçagut cer den eta nola eguiten den, eta hara cer Cassien Autorrac net unxa endelgatceraz emaiten deragun Seint Antoni Handiaren celutico

---

17 otoitzça: *otoitzza*.      20 Eliça: *Elica*.      23 bihotzçaren: *bihotzcaren*.      32 cerbait: *cer-batz*.

<sup>15</sup> OEH-k dakarrenez, ohiko “gogoz-garaitik”, adiera ‘gogo txarrez’ duena, omen dakar liburuak, baina zinez dakarrena *gogoz-garatic* da; besterik da hori hutsa ote den ziurtasunez jakitea.

eta Gincoasco erran batez, çoinhec baitcioen, otoitzça ossoki perfeit içaiteco, eguiiac bere buriaren eçagutcia galdu behar ciela, cer erraiten dien endelgatu gabetaric.

Hain alchatu den otoitzçan nehor bere buriaz ecin orhitzcen duçu, ez eçagutcen cer eguiten dien, edo hobeki erraiteco, Gincoac berac gu beithan otoitzça suerte hortan cer eguiten dien. Çunbait aldis guiçonac ispirithia hain bortitzki ihortzcia dici eguitekuetan, nun bere buria ahatzciric ezpaitaki nun den, certan den, ez cer, ez nola penxatcen dien. Orabat duçu otoitzça contemplacionia deitzcen dugun huntçaz. Guiçona guisa batez Gincoari jossia eta hora beithan ihortzcia duçu, nun bere buriaz ezpaita orhit, ezpaititu eçagutcen <108> haren bihotzçaren barnian igaraiten diren gauçac, ez nola igaraiten diren, eta seguidaric batere beguiratu gabe eta pundu batetic bestera joathiaz orhitu gabe, Gincoasco gaucetan galcen beçala baita. Hala heltcen çuçun Seint Antoniori, çonçaz Cassianec erraiten baitu, ardura otoitzçan ilhuncian jarriric hala-hala arguirano egoiten baitcen, eta ordian arguia beguietara ginez plenhi baitcen, eta erraiten Gincoac bihotzian eçarten ceraskon arguien eta dohainhen galaracitceco cela hain goicic jalguiten ekia.

Seint Bernatec ber otoitzçaz erraiten dici haren orena nehorc ezthiela eçagutcen, eta hartañ nehorc emaiten dien dembora beti labur dela, çunbat-nahi luce içanic ere labur iduri diela. Seint Augustinec, aldis, ber otoitzçaz Gincoari cioçun, otoitzça suerte hortçaz minço celaric, Jauna, çunbait aldis choilki nitan eçarten tuçun sein-dimendiac hain amoraxiac tuçu, eta goço eztakit nolaco bat ene bihotzian emaiten dicie, çoin aitcina joaiten balis ezpainhakike erraiten cer içan laiteen. Otoitzça suerte haur Gincoaren dohain berheci bat duçu, dohain bat placer dienari eguiten diena, çunbait aldis cerbitzchu eguinen eta haren amorecatic sofritu ppenen pagutaco, eta çunbait aldis batere merechitu gaberic, eci Gincoaren huntarçunetic choïlki gitien <109> den gracia bat duçu, eta placer dienari emaiten dien bat, berac Evangelian erraiten dien beçala: eztuta eguiten ahal nahi dudana? Hitz batez, otoitzça hori guiçonaren ispirithiaren menetic campo duçu, nun ezpaitiro ez ikaz, ez erakax, ez endelga, ezpaitu ere hartara alchatcera inxeatu behar, Gincoac berac dohain hora emaiten ezpaderaco; ceren halaco inxeu bat urgulesco seindimendu bat bailiçate, çoinhec otoitzça ordenariuaren gracia gal-araci baitiro.

1

10

20

30

## BOSTGUERREN CAPITULIA [I/5/5]

### Bi otoitzça suerte horien explicacionia, iskiritura Seindutic idokia

Bi otoitzça suerte erraitetic heldu guirenac, Ispiritu Seindiac clarki seinhatalcen dirauskiguçu, erraiten dienian *Çuburrac* —erran nahi baita, guiçon justuac— *bere bihotzça emanen diela goizcetic* *Ginco bere Creaçaliari*, *hartañ iratçarriric egoiteco eta haren otoitzceco*. Iskiritura Seindia minço duçu lehenic otoitzça ordenariuaz, eta seinhatalcen goitztiria otoitzceco tenore hun bat beçala, beste anitz lekutan erraiten diena: *goiz-goizcian çure aitcinian jarrico nuçu, goizcetic lehiatu nuçu eta oihu eguin dicit*. Ene beguiac ekiari <110> *aitcindu tuçu çure hitzçaren meditatceco, arguitzçian*

20 eztakit: *extakit*. 39 arguitzçian: *arguiztçian*.

1 *cherkatcen citut.* Iskiriturac erraiten dici *guiçon justuac bere bihotzça Gincoari emanen diela harten iratçarturic egoiteco*, ceren otoitzçan ezpaitu lo egon behar, ez choilki gorpitzcez present içan, eta bihotzça beste gaucetarat barreaturic uken. Hori Seindiec deitcen dicie bihotzçaren loherinha,<sup>16</sup> eta hori otoitzçaren unxa eguiteco puchulu net handi bat duçu; eci bihotzça hala erdi lo doonian, nehor ezhieiteçu egon behar den respethian Gincoareki mintçaceco.<sup>17</sup> Bena cerc emaiten du Gincoaganaco respetu hura justuaren ispirithian, becic ere haren presencian dela goguan erabilthiac eta Ginco handiaren aitcinian bere otoitzça eguiten diela orhitzciac? Reflexione horrec bihotzça bere beithala biltzen dici eta attencione berheciago bat eraiten<sup>18</sup> bere otoitzçan galdeiten thien gauça gucier. Horra nola behar guiren preparatu eta cer seindimendutan jarri behar guiren otoitzceco.

20 Orai, dugun ikuz justuac eguiten dien otoitzça. Ispiritu Seindiac erraiten dici: *ahua idekico du otoitzçan eta otoiituco bere becathien barkamendiaren jardiresteco*; erran nahi baita, bere becathiez ahalue eta dolumen hartuco eta aboro becaturic ez egui-teco finki resolituco. Horra nola eguin behar dugun gure otoitzça eta Gincoaren gracia gure gagnera erautx-araci. Eztuçu <111> azki erraithia eguin diela cofessione general bat bere conbersioniaren haxarrian, eta ordian çunbait egunez hetçaz dolu uken eta nigar eguin, eci eztuçu justo hec cofessaturic ere nehorc ahatz ditçan; behar dici orano inxeatu ardura hetçaz orhitcera, Daviten hitz hoen aravera: *ene becathia beti ene contre da*, erran nahi baita, beti beguien aitcinian dut eta beti ispirithian présent dut.

30 Seint Bernatec iskiribatcen cielaric Cantiketaco hitz hoen gagnan: *gure ohia liz eztalia da*; çure ohia —cioçu— çoin baita çure bihotzça, orano saxu duçu, orano biciuen urrinha badici eta mundura ekarri tuçun habituda gaiztuen koxiareki duçu, eta hargatic aussartatzen cira gomitacera Ezpoz Divinua harten etçatera jin dadin; nahi cira contemplacionera eta oracioneric gorenera altchatu, çoinec Gincoareki bat beçala eguiten baikitu, guiristinhotarçuneco azken perfeccionia jardirexi baitcindu beçala. Goguan har çaru lehenic çure nigarrez çure ohiaaren, erran nahi baita, çure bihotzçaren unxa ikustera.<sup>19</sup> Davitec cioçu: *gau oroz ene ohia ikussico dut eta ene nigarrez ene etçan lekia bouztico*. Eçartzçu çure ariman bertuthe ororen liliac eta guero gomita çaru çure Espoz Diuinua han egoitera, haren hunher pot eguiçu umiliathuz eta çure faltez dolusco seindimendietan sarthuz, eta berharen ezquier <112> çure obra hunac oro oferithuz; eta halaz inxeax cite hareganic jardirestera eguiasco bertuthen dohainharen, bena harekilaco unione anitz altchatu eta perfeitz den beçanbat, igurica çaru Gingoac berac hartara altcha citçan.

Erraiten dicie, Jesuista fraide çahar bat, devocionari emana celakotz anitz estimathia cen bat, salbamenduko bidian net jakinxia, egon içan cela hoguei urthez bere otoitzcetan eta beste eguinbide ispiritualetan bere becathiez dolumen hartzen, otoitzça altchathiago batetara igaran gabe. Gu, aldiz, conbertitu guiren beçain sa-

<sup>16</sup> Jatorrizkoak honela dio: *sommolentia / assoupissement* (RD 2, 22).

<sup>17</sup> Liburuau <-tceco> eta <-tzceco> ditugu nagusi, baina iku badirela <-ceco> emanak ere: *salbaceco* (161), *preparaceco* (206 bi aldiz, 207 bi aldiz, 208, 230).

<sup>18</sup> Hor “era(g)in” dago, ‘arreta bereziago bat ekartzen’ uler liteke.

<sup>19</sup> Ezagun du adieraz ‘ikuztera’ dela, grafia nahasketra gora-behera; ondoko *ikussico* dut “lavabo” dakin jatorrizkoak (RD 2, 24).

rri gure becathiez dolu hartcen berheala eneatcen guituçu, eta nahi diici Gincoarekilaco amrioric gorenera igaran. Cimendiac unxa barna eta segur içan behar ci etchiaren hain gora alchatcera menturatceco. Bere becathiez orhitzcetic eta heen dolumenesco seindimendietan finkatcetic anitz prootzchu eta abanthailha nehorc idokiten dici, bena oroz gagnekua duçu, ceren hartan idireiten baitugu eremedio anitz hun bat becatura erortetic beguiratceco: eci becathiaren hazhiatcen beti ari dena, oren oroz eguiñ thienez ahalgue seindu bat hartzcen dienac eta beti Gincoa offenkathusco dolian irauten dienac, unxa urrun diagogo berriş haren offenkatzcetic. Hartakotz ere Seindiec ciocie, çunbait persona, devacionari eta otoitzça <113> gora hari net emanac cirela iduri çuten batçu, becatura erori içan direla bere leheneco faltac aski goguan atchiki faltaz; otoitzça gorago eta goçoago hari beti jarraikiz, bere burien eçagutça eta bere becathien orhitzchapena galdu dutela, eta halaz bere burier sobera fidathuz, behar beçain erneki becatura erorteco çuten langerrari gogua eman faltaz, eta bere flakeciac eta ezdeutzarçuna ahatzcis, perfeccione jardirexi çutela uzte çuten hartaric erori içan direla. Hara certaco dembora lucez gure becathien dolumena eta orhitzchapena goguan atchiki behar dugun, eta hartzçaz gure otoitzçaren chedia eguiñ, Jaunac ezkia heda artekan eta erran artekan: ene adiskidia, igaran cite otoitzça alchatuago batetara, bena otoitzça alchatu hori eztaitekeenaz gueroz ez era-kax, ez explika, hortan uzten diici meditacione ordenario, erakaz eta ikaz daiteenaz minçatceco.

1

10

20

## SEIGUERREN CAPITULIA [I/5/8]

### Meditacione ordenariuaren edo goguaketa seindien necessitathiaz

Hugaz Seint Victor deitcen den Author batec erraiten dici, otoitzça ezthai-teela içan perfeit meditacione edo goguaketa <114> seindiac gabe, eta dotrina hori Seint Augustineganic jiten duçu, çoinhec erraiten baitu otoitzça meditacionia gabe hotz edo epel dela. Gauça horren poroatcia ihi duçu, eci nehor inxeatcen ezpada bere buriaren eçagutcera eta flakecien eta miserien gagnan goguaketa eguitera, enguenta-tuco duçu, bere beharrac eztici unxa eçaguturen eta halaz, etzciakikeçu otoitzçan cer galdein behar dien, ez eta ere cer garreki eta devucionereki galdein behar dien. Anitzcec ereflexione ein faltaz, bere houxac edo ezthakuriac eçagutu gabez, bere buriiez opinione gorac harten ticie, cer diren bere beithan eçagut baleçate eguiñ elirotena, eta hantic jiten duçu, anitzcetan otoitzçan beharren tuzten gaucer guthienic fin-katcen diren. Nahi baduçu, beraz, otoitzçaren unxa eguiten ikassi eta Gincoari behar tuçun gaucen galdeiten, inxea cite aitcinetic meditatuz eta goguaketatuz çure falten eçagutcera, eta hec eçagutu onduan badakikeçu cer galdeguin behar dukeçun, eta guion beharraz eta miseriaz hunkitu batec beçala, behar den gar eta devacioniareki galdeguinen duçu. Seint Bernatec, minço delaric nola nehor perfeccionera heltcen den, erraiten dici nehor ere bet-bethan eztela perfeitzen; çurubien thinira nehor heltcen dela igaranez, ez hegaldatez; igaran guiten, beraz, perfeccionera <115> eta

30

14 jardirexi: *jardireki*.28 etzciakikeçu: *etzciakikeçu*.31 hartzen: *harzten*.

1 hartaco cerbitzcha guiten meditacioniaz eta otoitzçaz, bi çangoz beçala perfeccione-raco çurubietan gora igaraiteco, eci meditacioniac eşagut-aracitcen diraguçu cer falta dugun eta otoitzçac falta duguna jardiresten. Batec bidia erakasten diraguçu, besthiac hara hel-aracitcen guidatcen eta finian, meditacioniac eşagut-aracitcen dirauskigu<sup>20</sup> alde orotaric ditugun langerrac eta otoitzçac kalteric gabe itçur-aracitcen.

Bena Seint Augustin orano aitcinago dihaçu eta erraiten dici meditacionia gauça hun ororen ithurburia dela. Eguiaz nehorc consideratcen dienian edo go-guan erabilten Gincoa guretaco çoinhen hun eta misericordioz den, çoinhenbeste maite guithien, çoinhenbeste eguin eta sofritu dien guretaco, ezthiaukeçu berheala hain naussi hunarendaco amorioz erre edo ussustatu gabe, bere falter eta flakecier nehorc soguiten dienian, ezthiaukeçu umiliatu gabe eta bere buria mesperetzchatu gabe. Nehorc eguiten badu ereflexione, Gincoaren cerbitzchian çoinhen lacho içan den eta çoinhenbeste hora offendixatu dien, eşagutuco dici dembora berian gaztigu suerte guiac merechi thiela eta guiza hortan, meditacioniaren medioz arima aberasten duçu Gincoari laket çazkon bertuthe guciez. Hartakotz ere iskiritura Seindiac hain handiski meditacionia gomendatcen <116> dici. Davitec erraiten dici: *uroz guiçona, gabaz eta egunaz Jaunaren leguiaren gagnan goguaketa eguiten diena! Houren aldian landaturic den arbole bat beçala dukeçu eta çoinhec bere sassonhian bere fruthia ekarriren baitu. Uroz tuçu* —cioçu Propheta berac beste leku batean— *Jaunaren promessen gagnan ereflexione eguiten dutenac! Seinhale bat duçu bere bihotz oroz cherkatzcen dutela*, edo hobeki erraiteco, ereflexione eguiten dutelacotz hala cherkatzcen dicie. Propheta berhorec,<sup>21</sup> Gincoari minço delaric, erraiten dici: *Jauna, eman eşadaçu endelgamendia, eta çure leguiaren gagnan eguinen dicit goguaketa barnaric eta ene bihotz oroz beiratuco dicit*. Çioçu, aldis, beste leku bathian: *çure leguiaren gagnan espanitu ardura penxaketac edo meditacioniac eguin, menturaz egonen ninduçun ene ezdeuztarçunian eta hartan galduren*, erran nahi baita, Seint Jeromac explikatcen dien beçala, egonen ninduçun inguratcen nuten ppena eta miserietan. Meditacioniac orano estimu eman behar diraguçu, ceren, dioten beçala Seindiec, bertuthe gucien jardiresten laguntcen guithien eta obra hun gucien eguiten. Gerson authorrac erraiten dici irakurte ispiritualen edo seindien ahispa dela otoizçaren amanhua, obra hunen guida eta azkenian edo finian, gauça ororen perfecconia eta akabança.

<117> Bena meditacioniaren balioztaçuna hobeki eşagut-araciten diraguçu<sup>22</sup> orano haren eguin faltatic jiten diren kaltec; eci, nuntic heldu dira aboruetan munduco becatu eta desordre guiac, becic ere —dioen beçala Jeremia Prophetac— meditacione eguin faltaz? Cioçu: *lur gicia desolacione edo dezentenamendu osso bathian da, ceren nehorc ere ezpaitu bere bihotzian ereflexioneric batere eguiten*. Badakicia certaco mundia hain desolathia den arimen bidian? Ceren eta ezpaita kazi nehor ere

15 çazkon: *cazkon*. 15 iskiritura: *jskiritura*. 21 cherkatzcen: *cherkarzzen*. 26 galdu-ren: *gulduren*.

<sup>20</sup> Ez dakigu itzultzailak ez ote zuen -çu ezartzea ahantzi; liburuko adizki neutro bakarra da hau alokutiboko *di-* daramana.

<sup>21</sup> Ez dago honelakorik gehiago liburuan; erakusle arrunta *horrec* da liburuko adibide ugarietan.

<sup>22</sup> Subjektua plurala da, aditzak pluralean beharko luke komunzadura.

bere beithan sartcen denic eta bere ispirithian erabilten thienic religioneco misterio handiac, Gincoaren huntarçun infinituac. Eci nor mentura laite becatu eguitera, considera baleça edo orhit baladi, Gincoaren Semia becathia dela caussa hil dela eta becathia hain gaitz handia dela, nun Gincoari guiçon eguin behartu baitzçaco, bere heriuaz guiçonac becathiaz Aita Eternalari eguin ceracon oguenaren pagatceco? Nor orano mentura laite becatu eguitera, considera baleça becatu mortal bat bera ifernuco ppena eternalez punithia dela? Nehorc serioski goguan hartzçen balitu hitz hoc: *quaste maradicathiac sū éternalerat*; nehorc unxa goguaketac eguin balitzça eternitate malhuroz finic ukenen ezthienaren gagnan, eta *Gincoa Ginco* deno Ifernian erre behar dateela, baliçatekea nehor ere, mement baten <118> placerragatic bere buria ppena eternalen sofritzceco erriskian eçar liroenic?

Seint Thomaz Akinakuac erraiten cicin ecin endelga ciroela, nola becatu mortalian cenac cerbait paussu eta boztalencia ukeiten ahal cien; eta dudaric gabe hori arraçoin handirekin erraiten cicin, guiçon batec eztecakeenaz gueroz uken behin ere mement baten biciaren segurancharic, eta segur denaz gueroz eztatu hارتan hiltcen bada bethierekotz damnathia liçateela. Irakurten diici Democlez deitcen cen batet, apairu handi batetan eta placerresco soinhu anitzcen arthian, ecin placerric hartzcen ciela, ez jathiaz, ez soinhu heen inçuthiaz, ceren baitzçakien ezpata buluci bat hari-piru batez eztekathia haren buriaren gagnera chilinchau çoola; beti ikara ciagoçun, beldurrez gagnera eror çakion. Cer beldur eluke uken behar, beraz, munduco placer gaistuen erdian eta becatu mortalian denac, dakienaz gueroz instant oroz mehatzchathia dela, ez choilki heriotce demboralaz, bena heriotce eternalaz, haren bicia hari-piru batec daukola, oren oroz subitoki hil daiteela, eta axian ossagarri ederrian etçanic ere,biharamunian Ifernian idiren daiteela?

Gincoaren cerbitzchari handi batec horri daukola erraiten cicin, iduri citçakola quiristinhiko herrian bi pressundei suerte <119> becic eliciatekeela içan behar: bata Higuinauten edo heretikuen, besthia erhuen. Eci, edo nehorc sinhesten dici badela Ifernua bat becatoren eternalki gaztigatceco, edo eztici egua hori sinhesten; sinhesten ezpadu, merechi diela Inkisisionian, erran nahi baita, heretikuen pressundean eçarthia; eta sinhesten diilaric becatu mortalian egoiten bada, merechi diela erhuen pressundean eçarthia, guiçonac eguiten ahal dien erhokeriaric handiena eguiten dieñaz gueroz. Segur duçu eguin behar guinduskeen ereflectioniac eguin baguinça, becatura erortetic beguira guinçaketela, eta hara certaco Demoniuac —nola eçagutzen baitu meditacionetic idoki dirozkgun prootzchu handiac<sup>23</sup>— inxeatcen duçu beti ahalaz hartaric guibelatcera edo urruncera.

Philistheenec Samsoni —hartu çutenian— lehen eguin ceracoten gauça içan çuçun beguien lehertzcia; Demoniuua becatorer gauça beraren eguitera inxeatcen duçu; ezpaditçake arraz fediarene beguiac idoki, ahalaz empatchatcen<sup>24</sup> dici fediaren arguiez eztiten balia, eta sinhez deçaten sinhesten ezpailute beçala: *ikuzten dutelaric*

14 erraiten: *ertaiten*.

<sup>23</sup> Liburuak ondoan puntu bat dakar, baina badirudi hutsa dela: *prootzchu handiac . inxeatcen duçu...*

<sup>24</sup> *empa-ren* bigarren adibidea da; lehena 15-n dago eta hirugarrena 428-n. Ohikoena “epaintxatu” da.

<sup>1</sup> ezteçaten ikuz, behatzcen<sup>25</sup> direlaric ezteçaten inçun, ez endelga. Eta hori eguiten dici, sinhesten dien eguietan gagnan nehori meditacioneric eguitera ez utciz, eta halaz, ezticie heen gagnan sinhesten ezpailituste beno aboro ereflexioneric eguiten, eta fedia <120> gal-aracis, beguiac ecin idokiten derestenian, meditacioniaren gagnan lacharacis cerratcen diresteçu, eta hori arimen exaiaren araura bardin dihaçu, eci ilhunpian beguien çabalic atchikithia inutil den beçala, lekuric arguienera joaithia inutil duçu beguiac cerraturic atchikitekotz.

### ÇAZPIGUERREN CAPITULIA [I/5/9]

#### Meditacionetic idoki deçakegun abanthailha handi batez eta nola eguin behar dien meditacioniaz prootzchatceco

Otoitzçanedo meditacionian hun duçu borondathiaren acto eguiten artzia, eta hartçaz minçatuco guituçu orai, bena acto hec eguinac içan behar dicie arraçoinhez, aitcinetic hun direla eşagutu onduan. Guiçona arraçoinhari jarraiki nahi duçu eta halaz, borondathia gauça baten garxuki maithatcerá ecin delibera ciroçu, nun endelguia ezten segurtathia gauça hura hun eta maithagarri dela. Hartakotz meditacionian uken behar dugun chede principaletaric bat duçu, mundiac eztimutan dauskan gauçac ilusioneric becic eztirela eşagutcia, eta gure religioneoco egua segurrez hobeki gure burien segurthatcia, halaz finki deliberatu, <121> gauça gaizto direla eşagutzen tuguner ihez eguitera, eta hun direla uzte duguner jarraikitera. Noiz eta ere munduthiar bat-tec Ginoasco bicitce berri bat bessarkatcen baitu, nehorc erraiten dici mundocon en-gueniuen ilusionia eşaguturic utzci thiela, eta hori duçu otoitzça suerte huntaric idokitera inxeatu behar guiren prootzchuric handienetaric bat. Nola pundu hori ossoki important baita, conbeni ere duçu horren gagnan atencione berheci baten eguiitia, eta oroz gagnetic bicitce hun eta seindu baten haxian, amorecatic gure religione sein-diadic erakazten derauskun eguietan gagnan, unxa goguaketac eguiinic hetçaz hobeki segurthatia içan dadin. Hartakotz eta prootzchu handiric meditacionetic idokiteco, eguiin behar diici ez açaletic eta lehiataca beçala, ez eta ere lachoki eta naguiki, bena net garxuki, atencione osso bateki eta içaiten ahal den ispirituco paussuric handienareki. Orhit cite unxa eta aicinaz bicia çoinhen labur den, mundocon gaucen ezdeuztarunaz, eta çoinhen guti hil onduan baratuco çauçun; hala eguinez fite jinen cira lurreco gauça ororen mezperetchatcerá eta bihotcez bessarkatcerá eternitate orotan iraun behar dutener.

Serioski attencione eguiçu çoinhen guti funx eguiin behar den guiçonec gutzçaz duten estimu eta opinione hunaz, eta <122> hetçaz arrangura hartzia çunbat dezarau den, mundiac gutçaz dien sinheste hunac edo gaistuac ezteragunaz gueroz ez deuz idokiten edo emaiten, bardin hun eta gaisto uzten guithienaz gueroz. Holaz dembora laburrez jinen cira kassuric ez hetçaz eguitera. Orobate ere penxaketa cite beste religio-

<sup>1</sup> ikuz: *ikur.*

<sup>1</sup> behatzcen: *behatzcen.*

<sup>25</sup> Adieraren aldetik belarri bidezko arreta ezartzea da, Zuberoan bezala; jatorrizkoak honela dio: *et audientes non audiant / qu'en écoutant, ils n'écoutent pas* (RD 2, 48).

niaren eguien gagnan, eta emeki-emeki eçagutuco duçu munduko gaucen ezdeuzkeria eta azkarturen cira salbamenduko seindimendietan, eta guiçon berri batetara kambiatzen hassico cira eta ossoki bicitce seindu baten eremaiten.

Jeremia Prophetac erraiten dici, ermithainha jarrico dela eta ichilic egonen, cernen naturaleçaz gaindi altchatu den; ussatu beno bihotzça handiago seindituco dici, bere penxamendiac Celurano altchatuco tici eta erranen dici Joandene Paulereki: *Jesu-Christoren amorecatic gauçac oro galgarri idurituco çazcola eta haren irabasteco oro hungaria beçain mezperetzchagarri idurituco çazkola.* Meditatcetic meditatcera eta eçagutcetic eçagutcera lifferencia net handi bat badu: eci guiçon çuhurrac gauçac guiza batera eçagutzen tici, jakitateric ezthienac beste batetara. Çuhurrac eguiaski bere beithan diren beçala eçagutzen tici eta eztakienac, açaletic agueri diren beçala. Guiçon endelgatcen ezten<sup>26</sup> batec idireiten badu harri balio <123> handitaco bat, estimatuco dici bere poillitarçunaren araura choilki, ceren ezpaitu eçagutzen haren balioztaçuna; bena harri bera idireiten badu çoinhen balioz den unxa eçagutzen dien batec, eztici choilki estimatuco kampoz eder delakotz, bena çoinhen precio handitaco den unxa eçagutzen dielakotz. Lifferencia bera idireiten duçu unxa edo gaiski meditatzen dugun eguietan gagnan; meditatzen eztakienac, açaletic agueri diren beçala gaucer soguiten direeçu, eta heen eder ikuzthiaz placer harturic ere, eztuçu hargatic lehiatzen heen garxuki desiratcera, bena dakienac behar den beçala heer soguiten, heen unxa pitçatzen eta eçagutzen, aiza hec beste oroz gagnetic duten balioztaçuna eçagutzen dici, bai eta heen bessarkatcera deliberatzen, ceren unxa dakien çoinhen baliozac diren.

Lifferencia hori eçagut-aracitzen diraguçu Jesu-Christoc odol joaithiarekin eri cen emazthiaren sendotcian. Salbaçale Jauna joaiten çuçun Sinagogaco Princiaren alaba hilaren pitzteria; gende saldo handi batez lagundia çuçun, inguru alde orotaric herzzatcen cicien; hamabi urte hartan odol joaithiarekin eri cen emaste hari cithienac oro despendiatu onduan eremedio hartzcen, behin ere beno gaiskiago idireiten çuçun; ikuzten dici Salbaçale Jauna han igaraiten eta nola anitz desiratzen <124> baitcien sendotcia, fede eta fidaincha miragarri bateki, salduaren artetic bortzchaka sarthuz hourrancen duçu Jaunagana bere beithan erraiten cielaric: *hunkitzen ahal badut choilki haren aropa<sup>27</sup> sendotuco niz;* hunkitu cicin eta hainbeste urte hartan beti cien odol joaithia bet-betan miraculuz baratzen ciakoçu. Jesu-Christoc ordian guibelerat itçuliric galdeiten dici: *Norc hunkitu nu?* Joandene Petiric erraiten dirakoçu: *Naussia, gende salduac alde orotaric kazi pian eçarten citu eta galdeiten duçu norc hunkitu cithien?* Jaunac ihardesten dirakoçu: etcit hori galdeiten; *norbaitec bestec ez beçala hunkitu nici, eci seinditu dicit bertuthe bat nitaric jalgui dela.* Hortan duçu pundia, Jesu-Christoren hunkitcia, hunkitu dutela galdeguin deçakeen beçala; eci haren hunkitcin<sup>28</sup> gende saldo harc eta beste munduko gende anitsec eguiten duten beçala eguiitia, ez hunkitcia beçala duçu. Hartakotz meditacionia eguin behar diici, Jesu-

<sup>26</sup> Liburuan ez dago *endelgatu* aditzaren erabilera iragangaitz gehiago, bakarra da hau, daudenak erabilera iragankor edo pasiboa dira; ez dakigu *ezten* hori ez ote den “eztien” baten hutsa, ezin esan; OEH-n ez dugu aurkitu *endelgatu* aditza erabilera iragangaitzean.

<sup>27</sup> Liburuko bi <aropa>-etarik lehena da hau; bestea 226-ko <aropetan> da; liburuan nagusi da <aropa>.

<sup>28</sup> Liburuko “-tzin” bakarra da, gainerako guztiak “-tzian” dira beri.

1 Christoren eta misteriuen hunkituz, gure beithan heen fruthia eta bertuthia seindi  
deçakeun maneran eta hartaco, gauçac attencionereki behar tiici examinatu, bede-  
raka berhecis hartu eta heen gagnan aicinaz penxaketatu; gauçac hun ala gaisto diren  
unxa eçagutceco, nehorc behar tici paussuz jaztat; halaz, becotoriac etci eçagutcen  
becathiaren, heriuaren, Jujamendiaren, <125> ez Iferniaren karastarçuna, ceren erieci  
pilurac ossoric iresten tuzten beçala, beldurrez ahua karax deçakoten, orobat gauça  
ikaragarri horier<sup>29</sup> soguiten direçu<sup>30</sup> behin ere heen gagnan azki barna goguaketatu  
gabe. Orobak orano nehorc etci goçatcen Incarnationeco, Passione seinduko, Jesusen  
10 pitzteco eta beste Jesusen amoriosco misteriuac, ceren aşaletic eta arhinski soguiten  
baiteree, behar beçala eta aski barnaric<sup>31</sup> pundu guciac examinatu gabe, behar liça-  
teen beçala meditacione luce eta serioz batez. Biper edo mouztarda bihi bat nehorc  
ossoric iresten dienian estici seinditzen, bena hortzzen arthian chehekatzentz badu  
erratzen eta beguietaric nigar erakarten dici.

### ÇORTZCIGUERREN CAPITULIA [I/5/14]<sup>32</sup>

#### **Abertimendu bat çoin anitz balia baitaite otoitzçaren edo meditacioniaren unxa eguiteco eta hartaric prootzchu idokiteco**

Otoitzçaren unxa eguiteco eta hartzçaz prootzchatceco, aicinetic ispirithian eça-  
rri behar diici ceren gagnan eguin behar dugun, eta berheciki, eguitera goatzen medi-  
tacione edo otoitzçatic cer frutu edo prootzchu idoki behar dugun; erranen deraauc  
20 aguian, nola nehorc aitcinetic <126> jakin diro cer frutu otoitzçatic idokico dien?  
Erranen deraauc nola emaitera nuhen ezplicacionian. Eztea egua otoitzçan cher-  
katu behar dugula gure arimaco eritarçunen edo flakecien erremediua? Gure burien,  
passionen, habituda gaiztuen bencithia? Otoitzçac jardirexi behar dirauzkiguçu, bi-  
ciuac utcircic, bici berri eta seindu baten eremaiteco gracia. Hori hala denaz gueroz,  
behar diici otoitzça hassi beno lehen luçaz gure beithan penxaketatu, eçagutceco cer  
den gure arimaco gaitzcic handiena, cerc hobekienic baratzen guithien bertuthian  
aitcinatcetic eta çoin becatutara guiren erorienic. Hori batbederac unxa goguan hartu  
eta erabili behar ci, guero garxukienic finkatu otoitzçaren medioz ukeiteco behar du-  
30 gun erremediaren, gaitz borthitzkienic hertzatzen guithien biciotic sendotceco, eta  
meditacione eguiteco preparacione guciac cerratu behar diici hartaraco pundien edo  
içarien goguan unxa hartzian. Orai berian, guiçonen eztimiaren eta laudorien jar-  
direxi nahisco guticia handi batec ppenatzen citu eta mesperetchuric thiapien hain

7 ikaragarri: *jkaragarri*. 24 eremaiteco: *erremaiteco*. 26 gaitzcic: *gaiztcic*. 26 cerc:  
*cere*. 29 borthitzkienic: *borthiztkienic*.

29 Liburuak *horien* dakar: baina liburu guztian *sogin* aditzarekin ez baita beste genitiborik, aldatzea, zuzentzea eta *horier* ezartzea erabaki dugu.

30 Gauza ikaragarri "horier" begiratzten diena "bekatoria" dateke; zuketan baitago, "direezu"-ren aldaera dela dirudi *direçu*.

31 Liburuko letrei arretaz so eginik, gehiago dirudi *barnaric* dela *barnatic* baino; liburuan *r* eta *t* xeheak arras iduriak dira eta beti ez da aise bata bestetik ongi bereiztea.

32 Jatorrizko frantsesezkoa (RD 2, 78)-n dago.

minbera eguiten,<sup>33</sup> nun çunbait aldigaitzci çaustrula erakasten baitu. Eçagutzen duçu hori dela çure exaic handienetaric bat, çure bertuthian aitcinatcetic hobekienic baratcen cithiena, çure arimaco bakia eta paussia hobekienic gal-aracitcen <127> de-rauçuna eta falta handienetara eror-aracitcen cithiena. Eçagutzen duçunaz gueroz hori dela çure ezhakururic edo becaturic handiena, hobekienic ere behar cira in-xeatu horren bencitcera eta erruetaric idokitzcera, eta halaz certan dagon prootzchia otoitzçaz eta meditacioniaz jardirexi behar duçuna, hori behar duçu beti beguien aitcinian uken edo bistan atchiki eta lachokeriaric gabe hortan fincatu.

Hartakotz hortan çunbait handiski enguenatcen tuçu, çoinhec otoitzça hassi beno lehen, hartaric idoki nahi duten prootzchia goguan hartu gabe otoitzcian berian burura ginen cesten prootzchien esparançan meditacionetan jarten baitira, ihizlari, beti menturala, miran aitcinetic deuz hartu gabe thiratcen dutenac iduri. Ezkitu meditacionetan sartzcen han ginen çauzkun penxamendu hun gucietan fincatceco, bai aldig, gure arimaren prootzchiarendaco beharrenic dugun seindimendien idireiteco; hala nola eri bat joaiten baita Apothikairiaren etchera, ez lehen heldu erremedieu hartzcera, bena beharrenic dithienen hautatcera. Bat ourguluz, banitez hanthia duçu; beste bati impaciencac eta colerac bihotzça herakitcen dirakoçu; bestia buruzkin duçu eta burian diena beti eguin behar dici; egun oroz norc bere biciuen falta çunbaitetara <128> erorten tuçu eta bizkitharthian bere otoitzçaco dembora penxamendu seindu bena chothil<sup>34</sup> batçutan eremaiten dicie, laket cesten eta gogora jiten cesten penxamendietan bere ispirithiaren bateti bestera jauztekatcera utciz. Hori eztu otoitzçaz prootzchatceco bide bat: beti goguan uken behar dici arimaren makurren chuchentceco beharrenic dien gauça, eta inxeatu otoitzçaren medioz haren jardi-restera, otoitzça hartaco denaz gueroz.

Seint Ephremec ekarten dici horri daukola Evangeluan idireiten den uxiaren exemplia, çoin Jesu-Christori herssatu baitcen oihu eguiten cerakolaric, hartçaz uken ceçan pietate. Soicie —cioçu Seindu horrec— Salbaçale Jaunac galdatu çakonian uxu hari cer nahi cien, berheala minçatu citciakoçun bere beharric handienaz, çoin baitcen bere bista gabia, eta erran: *Jauna, eman eçadaçu bista*. Ez tirakoçu galdeiten beste behar dien gauçaric, ez bere praubeciaz minçatcen, bena horiec oro apart edo ber-halde utciric, beharrenera jarraikiten duçu eta hala eguin behar dugula gure meditacionetan ciòçu Seindu handi horrec; eçagutu behar diici oroz gagnetic cer falta dugun eta beti hora goguan uken eta galdein jardirex artekan.

Bena pundu hortan nehorc eguin diroen duda edo galdo bati aicinetic ihardesco, <129> hun duçu jakithia, egua içanic ere nehorc necessario çazkon bertuthe berheciens amoriuaren bihotzian pitz-aracitceco, inxeatu behar dela meditacionieren pundien hautatcera, hetan gagnan eguinen tugun ereflexionec ekar gütçaten amorecatic ihikiago bertuthe heen actuen garxuki egüitera, hargatic ere, erran dieiteçu nehorc cerbitzcha-araci ditçakeela bere arimaren behar ororendaco, eci meditacionia noizpaizco Celuko Manna cen beçala duçu, çointaric jathian nehorc nahi cien

<sup>33</sup> 10 goguan: *guoguan*.

36 inxeatu: *inKeatu*.

<sup>35</sup> Balio destinatiboa ulertzen dugu *mesperetchuric thiipienen* horretan, hau da, mespretxu ttipienentzat gizakia minbera dela edo mespretxu ttipienak jasanik, gizakia minbera dela.

<sup>34</sup> Jatorrizkoak et à des réflexions subtiles dakar (RD 2, 80).

1 guzthia idireiten baitcien, orobat ere, cernahiden medita deçaçun, idirenent ditu bertutheraco Seindimendiak goguaketac unxa equinez. Orai berian umilitathiaren gagnan ez meditaturic ere, umilitathiaren actac eta desirac pitz-aracitcen ahal tuçure bihotzian, unxa penxaketac equinez çure becathien gagnan edo heriuaren, Iferniaren, Gincoaren Semiaren Passione seindiaren eta harenagan erecebitu tuçun hunguen gagnan. Orobate ere, nahi baiatu pitz-araci çure bihotzian dolu bici bat eta çure faltez Gincoaren alderaco ahalgue handi bat, pundi horietaric çointan-nahi ereflexione seriosic equithia azki duçu; arraçoin beraz eztitarçunesco, pacenciasco ispirithiaren jardiresteco, baliatuco çautçu nahi badu; ororen burian, desiratzen tuçun devencioneraco seindimendu hun guiac meditacionian idirenent tuçu.

10

### <130> BEDERATCIGUERREN CAPITULIA [I/5/15]

#### **Nola endelgatu behar den meditacionian nehorc goguan edo bihotzian hartu behar diela beharren dien gauça, eta hari finkatu eta jarraiki uken artekan**

Ezticit, halaric ere, erran nahi otoitzcan beti egon edo atchiki behar guirela gauça bati; ceren nahibada umilitathia, orai berian, edo hora iduri beste çunbait bertuthe oroz gagnetic necessario çauzkun, hargatic ere otoitzcan beste bertuthen jardiresteco seindimendietan finkatzen ahal guitu, bai eta ere heen actac eguiten. Jiten çauçu bi[h]otzceco<sup>35</sup> seindimendu bat Gincoaren borondatera eguiteco gauça orotan, harc çatitu<sup>36</sup> placer dien beçala, harten ahal beçanbat egon cite; harten eçarrico duçun dembora oro net unxa emana duke; hala equinez çure otoitzça net hun duke eta etcitu urrunduko umiltarçuneko seindimendietaric, bena bai heen jardiresteco anitz lagundu. Beste aldian jiten çauçu ezkerresco seindimendu bat Gincoac egun derauzkiçun hungui orotçaz, bai generalian eta particularian; ahal beçanbat harten egon cite, eci justo duçu egun oroz Gincoaren eremezthiatcia egun derauzkiçun graciez <131> eta berheciki guiristinhho egun guithielakotz. Bihotzcera jiten çauçu orano çure becathien hazthio handi bat eta hetçaz dolu osso bat, delibero azkar bateki milatan hiltceco, eci ez Gincoaren berriz offendaxtceco; seindimendu horietan luçaz egon cite, eztirotu uken salbamendiarendaco deuz ere prootzchozagoric. Heltzen baliz meditacioniac bihotzian pitz leçaçun Gincoarendaco amorio handi bat, arimen salbaracitceco sù seindu bat, eta hartaco cernahiden sofritceco eta eguiteco desir bero bat, egon cite horien gagnan eta orano aboro Gincoari graciac galda itçaçu cihauren, çure proximuaren eta Eliça guciaren; eci hori duçu meditacioniaren chederic hobenetaric bat, eta erran tugun pundi horien gagnan edo beste holaco çunbaitetan penxaketathuz, egun deçakeçu otoitzça net hun eta net prootzchoz bat. Ikuzten ere diici Daviten Psalmetan —çoin otoitzça net hunac baitira— anitz guizaco seindimendu devotez bethiac direla eta hartakotz, Cassien Autorrac erraiten dici, otoitzça dela mila lili urrin liferentez betheric den pence bat beçala: *ene Semiaren urrina, Jaunac benedicatu dien alhor hun edo aberax baten urrina beçala duçu*; bena orano anitz guizataco

<sup>35</sup> Hitz hau <h>-rik gabe ageri den adibide bakarra da; gaineratekoan, liburuan beti <h>-z ageri da.

<sup>36</sup> Adiera ‘erabakitza’ du; jatorrizkoak honela dio: *en todo lo que él quisiere y ordenare de vos / en tout ce qu'il lui plaira d'ordonner de vous* (RD 2, 82).

seindimendu hun horietan idireiten duçu beste abanthailha bat, ceren gutiz gueihe-  
netan otoitzçaren ihikiago eguiteco baliatcen edo <132> cerbitzchatcen baitçauçu,  
eta halaz luçazago hartañ egoiteco, eci gauça beraren ardura goguaketathuz nehor  
eneatcen duçu; aldiz, goguaren bateti bestetara erabilthiac dezkanxatcen dici.

Erran nahi dudana, beraz, duçu, bertuthian aitcinatceco net important edo neces-  
sario dela berheciki gauça baten cerbait demboraz bihotzian hartzia, eta harc içan  
behar dici çoin ere beharrenic dugula seindi baitugu; haren ukeiteco gure otoitzçan  
edo meditacionian hobekienic finkatu behar dugula, hora Gincoari garxuki galdein,  
anitz aldz, anitz egunez eta hilabetez hartçaz egun gure eitecoric handiena eta bistan  
eta bihotzçaren çolan uken, edo jardirex artekan atchiki. Munduco eitekuac ere ha-  
laber eguiten tuçu eta hartakotz, erran çaharra duçu Gincoac beguira gütçala eiteco  
bat becic ezthien guiçon batetaric.

Seint Thomasec, otoitzçaz minço delaric, erraiten dici gauça bakar baten desirra  
aniztarakua beno perfeít eta azkarrago dela, eta horri daukola ekarten tici Davi-  
tec Psalmeten erran thien hitz hoc: *Jaunari galdein dicit gauça bat eta uken artekan  
enuçu galdeitetic baraturen*. Abildu nahi dienac cerbait jakitaten edo cerbait ofi-  
ciotan, etçu hasten gauça baten egun bathian ikazten eta biharamunian beste ba-  
ten, bena cerbait demboraz ber <133> gauça istudiatcen unxa ikaz artekan. Oro-  
bat ere, falta dien bertuthe bat jardirexi nahi dienac, behar dici cerbait demboraz  
hobekienic hari atchiki eta bere otoitzça eta beste bere obra seindiac oro, chede  
hari daukola egun, ceren Seint Thomasen beraren dotrinaren aravera, perfeccione-  
raco bertuthiac oro elgarreki lothiac baitira, eta hetaric bat perfeccioneoco graduan  
jardiresten dienac, besthiac oro jardiresten baititu. Halaz, çure bihotzcetic urgu-  
lia kentcen baduçu eta umilitate handi bat haren lekian eşarten, umil ciratekeen  
dohainhian obedient, pacient cirateke,<sup>37</sup> oro ichilic sofrituco tuçu, deuz ere eztuçu  
pphenagarriric eta cernahi gaitz edo deztorbu hel dakiçun, idurituco çauçu handia-  
goric merechi duçula. Orano eguiaski umil bacira, proximua Gincoac manatcen  
cithien beçala maite dukeçu, ceren sinhxico baituçi besthiac oro hun direla eta çu  
cirela choïlki gaistua, eta nehoren gagnan opinione arhinic eztuçi eguinen, ceren  
çure becathiez eta eztakuriez hanbat dolu eta ahalue dukeçu, nun bestenez ezpai-  
tuçi cassuric eguinen, eta orai çunbait bertuthez erran tugunac beste orotçaz erran  
dieisteçu.

Orano net prootzchoz duçu bere egun orosco ezaminaren<sup>38</sup> pundu particularren-  
daco hauthatcia gauça, çointan ere gagnan nehor egun nahi baitu bere meditacio-  
nia, <134> ceren guiza hortan otoitzça eta examen particularra elgarreki juntathuz,  
gure exercicio ispiritual guciak chede berera emanet, bertuthian aitcinaturen bai-  
kira. Bena Cassien Autorra orano aitcinago dihaçu eta nahi dici, ez choïlki exame-  
nian eta otoitzçan finka guiten beharrenic dugun gauçaren gagnan, bena orano egu-  
nian anitz aldz gure ispirithia Gincoaganat altcha deçagun, otoitzça labur eta garxiez  
eta bihotzceco hazper eta oihiez, eta orano seindimendu hun horiec lagunt ditçagun  
cerbait penitenciaz, mortificacionez eta devocione berheci çunbaitez, meditacionian

<sup>37</sup> Jatorrizkoan: *dès que vous serez véritablement humble, vous serez obéissant, vous serez patient, vous ne vous plainirez de rien* (RD 2, 85).

<sup>38</sup> Liburuko agerpen bakarra da; aldz, *examen hamabost aldz ageri da*.

1 galdeiten dugun gauçaren jardiresteco. Eci denaz gueroz kestione<sup>39</sup> beharrenic dugun gauçaz, gutan azkarrenic den biciuaz eta inclinacione gaisthuaz, falta handietara eroraracitcen guitztenez, eta bicio hura garaithuz eta eceztathus eta haren contreco beruthia jardirexis garaitcen tugunaz gueroz biciuac oro eta jardiresten bertuthiac oro, etcirozkiguçu deuzetan ere gure ppenac eta arrangurac prootzchozkiago har ahal.

Seint Chrisostomac erraiten dici otoitzça baratce baten erdian den iturri bat beçala dela; iturri hura han ezpaliz, gauçac oro elihar lieizteçu, eta haren medioz hango belhar hunac oro lilitcen, fresco egoiten, huntcen eta gustu huneco tuçu. Orobat ere, meditacion[i]ac<sup>40</sup> fresco atchiki <135> behar tici obedienciaren, umilitathiarren, pacenciaren, mortificacioniaren, ichiltarçunaren, bihotzçiaren<sup>41</sup> bilduric atchikitciaren eta bertuthe ororen lore seindiac. Bena nola guthiz gueihenetan baratce bathian çunbait lore edo lili, besthiac oro beno arrangurozkiago nehorc ehenhatcen eta lantcen baitu eta haren hourthatceco dembora hartcen, beste baratceco belhar huenen ez harturic ere, orobat gure arimaren baratce ispiritualian —çointan bertuthiareni landare guciac behar baitute ihistathiac içan otoitzçaren hour<sup>42</sup> salbagarriez—, hargatic ere, hetaric çunbaiten gagnan berheciki beti beguiac landaturic nehorc atchiki behar tici eta hartaco beti dembora hartu; erran nahi dicit gogua eman behar diela nehorc, çoin bertuthe dien beharrenic eta hari beste orori beno finkiago atchiki. Aboro, nola guehiaguetan<sup>43</sup> baratce batetaric jalgui beno lehen, nehorc hartcen baitu aboruenic placer eguiten derakon lili bat, orobat otoitzçan nehorc eztekatu edo atchiki behar ci berheciki, ez laketen çakon gauçari, bena beharrenic dienari eta inzeatu, otoitzça utci beno lehen haren jardirestera.

Orai berian erran tugunac azki lithuzkeçu arrapostutaco, galdeiten dutener unxa denez meditacioniaren fruthia edo prootzchia içan dadin haren araura, gauça edo pundu, çointan ere gagnan nehorc <136> meditatcen baitu. Oraidanic erran diici, nahiz nehorc behar dien finkatu hobekienic beharren dien gauçari, orotarat ere eguin cirozkiguçu meditatcen thien bertuthen actac ere, bena hortan gogua eman behar ci excussa gabe gauça bat, meditatcen dugun gauçaren gagnan jiten çauzkigun seindimentu hunac eztitugula açaletic eta lehiataka hartu eta utci behar, nehorc behar balu ere otoitzçaco dembora oro hetan igaran, bena behar tici nehorc eguin eta ar-eguin aicinaz, bai eta hetan egon seindi artekan hetçaz bihotzça hunkithia eta unxa bethia diela. Eci dudaric gabe, hobe duçu guiza hartan acto choïl baten eguithia eta haren ar-eguiten finkatcia, eci ez igaraitcez beste anitz actoren eguithia.

26 gauçari: *gauçarri*. 27 gogua: *guogua*.

<sup>39</sup> Adiera ‘gaia’ edo ‘auzia’ du, frantseseko *question*-en mailegua, *kestione izan* litzateke; geroagoko euskaran postposizio bilakatuko da, instrumentalari atxikirik joanez, ‘-ela eta’ balioa duela; cf. Kamin & Salaberri (2007: 115).

<sup>40</sup> Liburuak *meditacionac* dakar, baina honelako adibide bakarra da eta hutsa dela uste dugu; hitza *meditazione* da eta gainerateko guztia *meditacioniac* dira.

<sup>41</sup> Iduri luke zerrendaren eraginez itzultziaileak inesiboaren eta edute genitiboaren arteko gurutzeta edo egin duela.

<sup>42</sup> Liburuak *hourr* dakar; bada *hourr-en* beste adibide bat ere (156); nagusi *hour* da liburuan.

<sup>43</sup> Konparatibo superlatiboa itxaron genezake *gehiaguetan* beharrean; jatorrizkoak gaztelaniaz ez dakar eta frantseseko itzulpenak honela dio: *comme il arrive d'ordinaire* (RD 2, 87).

Cerc eguiten du hobekienic<sup>44</sup> çunbaitec ezpaitute behar luketen beçanbat prootzchu idokiten otoitzçatic? Ceren arhinski igaraiten baitira eguiten thuzten acto ororen gagnan, gauçac açaetic eta batetic bestera kambiathuz goguan erabilten thuztelacotz. Jiten cieeu gogora umilitatesco acta bat eguin behar dutela, eguiten dicie eta berheala beste batetara igaraiten tuçu; ber hala<sup>45</sup> obedienciasco acta baten eguitoco deliberua hartcen dicie, bena orobat, lehenekuan beno aboro hارتan baratu gabe, ondotic eguiten dicie pacienciasco<sup>46</sup> acta bat, hartan etçu guehiago <137> egoiten; pundu gucietan hain arhinzki igaraiten tuçu, nun kassi ikatz gorrietañ gagnan hain fite ibilteraz gueroz, ezpailaite<sup>47</sup> erra.

Aita Avilac garrazki iroi eguiten direeçu meditacionetan gauça batetic bestera joaiten direner eta erraiten dici, hura demoniuaren enguenio edo tromperia bat dela; anitz gauça hala goguan eşarten dereela, hegaldaka beçala batetic bestera beti ibilaraciz, ezteçaten idoc ahal otoitzçatic prootzchuric. Net necessario duçu nehor pundukal egon dadin haren actuez arima ossoki betha artekan; orai berian nahi baduçu eguin acta contricionesco bat eta hartu çure falten gagnan dolu net bici bat, hartan egon behar cira çu beithan seindi artekan becathiaren higuinça edo hazthio handi bat; Davitekin eguiaz erran ahal deçaçun: *hazthiatcen eta aborritcen dut inikitathia;*<sup>48</sup> eci hola harturen duçu erressolucion fermo edo azkar bat milatan lehenago hiltceco, eci ez behin Gincoa mortalki offendatuko baiitu.

Seint Augustinec cençu handireki erraiten dici,/guiçonec çunbait becatu handirendaco bere beithan duten odiuac eta beldurrac, hetara ardura erortetic guibeltzen thiela, hala nola bere Aita-Amen hiltzcetic edo horiec iduri becatu handietaric. Aldis, beste becatu çunbaiten ardura egithiac heen itchoustarçuna eta <138> malecia hanbat eşabatcen eta thipi iduri-aratcicen diela, nun guero hetara ihiki erorten baita. Orobak, nahi baiitu umilitatesco actac prootzchoski eguin, hetan finkatu behar cira, çure buriaren mezperetzchusco seindimendiac çure arimaren çolala arraz hel artekan, eta çutaric banitatesco eta urgulusco kiac oro ken edo ecesta artekan, mezperetzchien, burlen eta dezohoren allegueraki sofritceco prest cirela seindi artekan. Eta heben contricioniaz eta umilitathias erraiten dudana, orobat erran dieiteçu beste bertuthe suerte orotçaz eta arimaco beste seindimendu hun guciez.

Hortic nehorc ikuz ciroçu çoinhen prootzchoz datekeen bertuthian aitcinhatceco gauça baten berheciki goguan hartzcia eta hari, erran dugun maneran atchikitcia eta jarrai kithia. Goician oren bat, axian beste bat egon baguinte mezperetzchathiac içan nahisco desirian edo beste çunbait manera hortaco seindimendietan, eta gauça bera

18 lehenago: *legen-ago*.

<sup>44</sup> Frantsesezko *le plus* ordezkatzen du *hobekienic* horrek.

<sup>45</sup> Halaxe dakar liburuak; ez dago garbi Zuberoako ohiko “berhala”-ren idazkera berezia ote den, ala berheala-ren hutsa ote den. Liburuko gainerateko adibide guztietan *berheala* ageri da; lerro berean aitzinxeago ere *berheala* dakar.

<sup>46</sup> Liburuko *paciencia* bakarra da; gainerateko guztiak *pacencia* dira.

<sup>47</sup> Hirugarren pertsona plurala da *laite* adibide honetan eta jatorrizkoek ere plurala dakkate gaztelaniaz & frantsesez; bestela, oro har singularra da *laite* itzulpenean. Zuberoan ere plurala da, baina *lite* aldaera dakar Inxauspek (1858: 153).

<sup>48</sup> Ondoko Zuberoako testuetan ere ageri da; *Otohoitce eta cantica* (1734)-n: *chahaturen dutuçi ene inikitatiac achouri macula gabe denaren odolian* (19).

1 eguin baguindeça çunbait demboraz, segur duçu hola eguinez bihotzcian bertuthia hobeki sar edo imprimatela, ecin ez gaucen gagnan arhinski eta lehiathaka igaranez. Seint Chrisostomac erraiten dici, hala nola lur batec çunbat-nahi hun içanic ere, frutu anitz ecarteco<sup>49</sup> trempatu edo bouzti behar baitu, ez behin choilkia, bena anitz aldiz, orobat <139> gure arimac otoitzçaz ardura içan behar ci ihiztathia, nahi badugu justiciasco eta seindutarçunesco fruthiac ekar ditçan, eta horri daukola Daviten hitz hoc ekarten tici: *egunian çazpitän çure laudoriuac cantatuco ticit*. Davitec egunian çazpitän otoitzçaren houraz arima ihiztatcen cicin, devocionesco seindimendietan hobekiago egoiteco; seindimendu berac ardura arraberritzen citicin; hori ikuzten diici ehun eta hamaçazpigerren Psalmian, çointan hoguei eta hamaçazpi aldis erraiten baititu hitz hoc: *ceren Gincoaren misericordia eternal baita*, eta beste Psalme labur bathian hameca alditharanhokuan guiçonac gomitatzen tici Gincoaren laudatcera. Gauça ardura erranez otoitzceco manera hori eta luçaz harten egoithia edo irauthia, Salbaçale Jaunac berac ere erakaxi diraguça Olivetaco baratcian, çointan hirur aldis otoitu baitcien beti hitz berac erranez, hala eguinez guri erakasteco egon behar du gula otoitzçan gauça beraren gagnan anitz aldis edo luçaz, eta beti gortarçun berri bateki, eci manera hortan luçaz irauten badugu, azkenekotz jardirexico diici desiratzen dugun bertuthia eta perfeccionia.

### <140> HAMARGUERREN CAPITULIA [I/5/19]

#### 20 Meditacioniaren eguiteco beste çunbait moyenez edo bidez

Baduçu orano meditacioniaren eguiteco beste moyenic, çoin net ihiki segui baithaiste, eta halaz ageri duçu haren unxa eguithia beti gure ahalian dela, mundu oro hartaco hun dela, eta oroc meditacionias prootzcha deçakegula. Lehen gauça: abissu net hun bat emaiten dicie horren gagnan devocionias minço diren çunbait Naussic. Erraiten dicie otoitzçan edo meditacionian eztela behar sobera chehe joan, bena marchant hunec eguiten duten beçala, çoinhec ezpaitute besteric goguan bere eguitekuuen estathia becic, eta heen beti eta hanbat hobeki eguithia becic; orobat Gincoaren cerbitzchari leal batec goguatu behar ci eta chimpleki examinatu nola duhen haren bertuthian aitcinatcia eta haren salbamendiaren eguitekua; eci hura duçu, eguiaz erraiteco, gure eiteco bakarra eta mundian haren choilkia eguiteco eçarrriac guituça. Guiristinho bat, beraz, bere buriareki cundutan sar bedi eta bere buriari galdein beça, nola aitcinhatzen nis bertuthian? Nola duha ene salbamendiaren eguitekua? Cer bertuthe jardirexi dut, <141> hamar, hoguei, hoguei eta hamar eta ber[r]oguei<sup>50</sup> urthe huntan? Eçagutzia jinez gueroz, cer abançu eguin dut edo nola aitcinhatu niz umilitathian, obediencian eta ene seindimendien mortificatcian? Ikussi nahi dicit cer cundu eman ahal neçakeen Gincoari bertuthian aitcinhatceco eman deraskidan hanbat moyen edo graciez eta talendiez. Orai artekan auherretan

---

28 nola: *nota*.

<sup>49</sup> Liburuko <ecer-> bakarra da; gainerateko guzti-guztiak <ekar-> dira.

<sup>50</sup> Liburuak bi *berroguei* (142, 360) eta *beroguei*-ren adibide hau dakartzza.

eman badut dembora eta ezpadut jakin hartzçaz baliatcen, nahi ticit igaran houxac eta lachokeriac erreparatu, hebetic harat net unxa maneathuz eta bicitce seindu baten eremaitez.<sup>51</sup> Orobak, arraçoinhamendu handitan sarthu<sup>52</sup> gabe, batbederac chimpleki considera cirocu bere estatuco einbidiac unxa eguiten thienez, eta cer eguin behar dien Gincoaren araura bicitceco, guiçon pherestuki bere eguitekuen eguiteco, bere etchiaren gobernhatceco etchekuec oroc Gincoa lealki cerbitzcha diroten maneran, eta guiristinho hun guiza sofritceco haren estatuco eta officioco pphenen eta nahigaben. Çunbat-nahi ereflexione guti nehorc eguinic ere horien gagnan, idiren cirocu nehorc certçaz medita, certçaz nigar eguin eta certan hunerat itçul, eta hola eguithia otoitzceco manera net prootzchossa eta net huna dukeçu.

Gerson Autorrac erraiten dici Gincoaren cerbitzchari batec cioela, eguiten ahal <142> cien beçain unxa berroguei urte hartan meditacioniaren eguitera jarraikiten cela; idiren çien maneraric laburrena eta ihiena meditacione hun baten eguiteco cela, Gincoaren presencian jarthia haur bat beçala, edo guiçon ouxu, buluci, deuz gabe, mundu oroz ahatzci bat beçala. Davitec hain ardura otoitzça suerte hori eguiten cicin, nun bere Psalmien anitz lekutan bere buriaz erraiten baitu eri dela, oumaçurtz, ouxu, behar eta exkele<sup>53</sup> dela. Anitzceh hola-hola meditathuz, heldu tuçu otoitzçaren gradoric gorenera. Orobak eguiçu çuc ere, Gincoac hala eguinez emanen derauçu desiratcen duçun graciac. Otoitzçaren unxa eguiteco manera exellent bat duçu —cioçu Gersonec— bortetan dabiltcen praubec eguiten duten beçala eguithia; sogniçu çoinhen umilgui eta pacienki galdeiten eta igurikiten duten amoinha aberaxaren borthan, eta çoinhen arranguroski joaiten diren amoinha eiten dutela dakiten lekietara. Orobak eguin behar diici Gincoaren eretcian, eta hala nola praubia joaiten denian aberaxaren aitcinera, erakazten baiteraco umilgui bere miseria eta hareganic igurikiten amoinha, orobak, Gincoa otoitzcen dugunian erakaxi behar dirascoguçu gure beharrac eta misericordiac, eta umilitate handireki iguriki haren huntarçunetic eta misericordiatic gure gaitzzen eremediu.

<143> Davitec erraiten dici *neskuaren beguiac beha beçala daudela*<sup>54</sup> anderiaren ezkier, hareganic cerbait pagu igurikiten dienian; *orobat gure beguiac atchiki behar tutgula beti Ginco Jaunari eta Naussiari, harc gutçaz pietate uken artekan*. Anitzceh eçaguthia duçu Paphnuça deitcen cen Abadiaren istoria, çoinhec Thais deitcen cen emazte galdu bat conbertitu onduan, bere becathiez penitencia eguiteco ereman baitcien Desertura, eta han cerratu cicin kambara batetan —çoinhen bortha plomuz segurtatu baitcien— leihoa thipi bat choïlki çabalic utcircic, çointharic egun oroz emaiten baitcerakoten ogui eta hour. Paphnuça guero bere Desertuko lekurat nahi içan çuçun joan eta Thaisec galdeiten baitcerakon Gincoari cer otoitzça suerte eguin behar cerakon, Abade seindiac erran cirakoçun: çuria beçalaco aho saxu bat eztuçu

19 desiratcen: desicatcen.

<sup>51</sup> Euskaltzaindiak Bilboko Azkue Bibliotekan duen alean -z hori higaturik dago eta ez da hautematen, baina J.-L. Davantek erakutsi digun alean garbi ageri da *eremaitez* dela.

<sup>52</sup> Euskaltzaindiak Bilboko Azkue Bibliotekan duen alean -rt- higaturik dago eta ez da hautematen, baina J.-L. Davantek erakutsi digun alean garbi ageri da *sarthu* dela.

<sup>53</sup> Zuberoan bezala *eskele* erabiltzen da ‘eskalea’ adierazteko.

<sup>54</sup> Jatorrizkoak honela dio: *como los ojos de la esclava estan colgados de las manos de su señora* (I, 268) / *comme les yeux de la servante sont continuellement attachés sur les mains de sa maîtresse* (RD 2, 121).

1 digno Gincoaren icenaren aitpatceco;<sup>55</sup> eguinen duçu, beraz, çure otoitzça manera huntan: belhaurico jarrico cira ekia jalguiten den alderat, anitz aldiz erranen tuçu hitz hoc: *ô çuc creatu nuçuna, nitçaz oukaçu pietate.* Manera hortan hirour urthez bici içan çuçun behin ere Gincoaren icenaren aitphatcera menturatu gabe; beti goguan atchikiten citicin bere becatu handiac eta anitzçac, eta hetçaz barkamendu galdeiten cicin Gincoari Abade Seindu harc erakaxi ceraskon hitzçac erranez.

<144> Hirour urtheren burian Paphnuça joan içan çuçun Seint Antonioren ikus-  
tera, hareganic jakiteco uste cienez emaste hari Gincoac barkatu ceraskola becathiac.  
Seint Antonioc comendatu<sup>56</sup> cireeçun fraide lagun orori heldu gauian oroc Gin-  
coa otoitz-çaten, nahi cien hetaric çunbaiti inspiratu eta eçagut-araci Paphnuçac ja-  
kin nahi cien. Gracia hura Gincoac ein cirakoçun Paule deitcen cen fraide hetaric  
bati. Paule horri iduritu citiakoçun ikusten ciela ohe bat net ederki parathia edo  
prestathia laur virginaz beguirathia; estonathia hain gauça miragarriaren eta balios-  
saren ikusthiaz, bere beithan hartu cicin ohe harc içan behar ciela haren guida is-  
pirithual Antonio handiarendaco, eta nola goguaketa hortan baitzçaguen, botz bat  
inçuten dici, çoinhec erraiten baireraco: ohe hura eztuc hire Aita Antoniorendaco,  
bena Thaiz Becatorossrendaco, çoin hantic amozt egunen burian Gincoac deitatu  
baitzcién bereganat, Celuco gloria, ohe miraculoz harc segnhalatcen cienaren goçara-  
citzceco. Contenta cite ber guizaco otoitzçaz, uzte uken eçaçu eztuçula merechi beste  
maneraz otoitzça eguin deçaçun, eta hola eguinez, menturaz Gincoari placer aboro  
eguinen deracoçu, ecin ez beste otoitzça guciez.

Fraide Chartruz batez iskiribathia den eta persona eguiati bati inçun cien is-  
toria <145> batetan idireiten diici, Barçalonaco bidian joaiten cirelaric Seint Ig-  
nacio eta haren çunbait lagun, norc bere hathiac bizkarrian, bathu çutela laborari  
bat, çoinec anitz otoi baitzithien eman litçakoten bere paketac, behar çuten le-  
kura gogotic eremanen cerestela; haxetic errefusatu onduan, ikussiric azkar cela  
eta haren borondate huna, eman cerestela. Hola çuatcelaric bere bidian, laborari  
horrec ikussiric Seint Ignacio eta haren lagunac oztatura heldu onduan choco be-  
deratan belhaurico Gincoaren otoitzcen jarten cirela, harc ere hala-hala eguiten ci-  
cin. Egun batez galdeiten diracacie cer eguiten cien hala belhaurico çoonian; ihar-  
dexi cireeçun: Gincoari erraiten dirakoçut, Jauna, gende hoc seindu batçu tuçu  
eta ni heen abere kargakua; hec eguiten dutena nic ere eguin nahi dicit, eta ho-  
rra cer Gincoari oferitzen dudan. Eta istoria horren Autorrac erraiten dici guiçon  
harc, hala eguinez, hanbat prootzchatu ciela, nun meditacionian eta gauça ispi-  
ritualetan net gora altchatu içan baitcen. Nor da, beraz, egun oroz guiza hortaco  
otoitzça eguin eztiroenic?

Jesuita çahar peredicaçale handi batec dembora luçaz bere otoitzça eguiten ci-  
cin erraiten cielaric: Jauna, abere bat nuçu eta etciakiçut nola otoi, cihaurec erakax  
eçadaç, eta hala eguinez bertuthian <146> eta meditacionian net perfieu eta gora  
altchatu çuçun, bere beithan complituz Daviten erran haur: *Jauna, çure aitcinian*

6 hitzçac: *hiltzçac.*

19 otoitzçaz: *otoitoçaz.*

<sup>55</sup> Adibide honetako eta ondoko *aitp(h)a-* aldaeran salbu, liburuko beste hiru agerraldietan “aipa”  
dakar (84, 281, 454).

<sup>56</sup> Jatorrizkoak agindu kutsua dakar: *y les mandó que aquella noche siguiente todos velasen / le Saint  
ayant commandé à ses religieux de se mettre tous en prière la nuit suivante...* (RD 2, 122-3).

*kargaco abere bat beçala eguin nuçu eta beti çureki içanen nuçu.* Hala, beraz, umilia cite Gincoaren aitcinian, abere bat baitcina beçala beti harekin içanen cira eta beti hura çurekin içanen duçu. Umilitathiac Gincoa beithan anitz eguin ciroçu, bide net hun bat duçu Gincoaren majestatetic anitz gauçaren jardiresteco. Seindiec horri daukola erraiten dicie, nola umilitathia moyen bat baita otoitzçaren dohainnaharen oukeiteco, orobat otoitzça moyen bat dela umilitathiaren jardiresteco eta beguiratceco, eta beti nehorc otoitzça hunetic jalgui behar lukeela umilitate handi bateki eta bere ezdeuztarçunaren eçagutce osso bateki. Hortic jiten duçu, otoitzçatic nehor bere buriaz net content jalguiten denian eta nolerabaico placencia bano bateki eta bere beithaco bere buriaren estimu bateki, goguan harturic deja bertuthian net aitcinatu eta abildu dela, halaco otoitzça suspexetaco atchiki behar ci. Erraiten badu erreflexione handiric eztiroçula eguin, ez eta ere contemplacione goretarat altcha, umilia cite eta otoitzçati prootzhu hori berere idokiko duçu; gauça hori ossoki çure meneco duçu. Nahi badu eguin diroçu eta hola eguinez çure otoitzça hun edo perfeit dukeçu.

<147> Aita Avilac avisu hun bat emaiten diraguçu: noiz eta ere otoitzçan edo meditacionian gogua barreatcen baitçauku eta otoitzçetan ezpaikira goçatcen, cioçu, Je-su-Christoren huinhetan jar cite eta erran: Jauna, barreadura eta desgustu horiec ene faltaz giten badira, hetçaz dolu eta desplacer net handi bat badicit hetaraco eman du-dan ocasionaz, bena çure borondathia hala bada eta ene igaran becathien eta oraico lachokerien punimendu justo bat bada, ene bihotz oroz bessarkatcen ticit eta place-reki curutce hori çure ezkutic erecebitcen, bai eta ere ene bihotzceco idordura, gogo, barreadura, mortificacione ispiritual horiec. Cazu horietan eguinen tuçun pacen-ciasco eta umilitatezco actac meditacione hunac ditukeçu eta Gincoari laketago içanen ciaskoçu, eci ez barreaduraric gabe eguin nahi cinthien otoitzçac.

Erraiten dicie, noiz eta ere Seint Francez Borgiazkuari iduritcen baitzcitçakon bere otoitzça etciela unxa eguin, egun hartan inxeatcen cela beste orduz beno hobeki mortificatcera, eta attencione berheciago bat hartcen ciela eguiten cithien gauça orotan, otoitzçan eguin cithien houtxen guiza harten honitzceco. Bere Compagnhaco Aita eta Fraide orori hala eguin ceçaten avis emaiten cicin, eta dudaric gabe, moyen hori net huna duçu, ez <148> choïlki meditacioneco houtxen ereparatceco, bena orano haren perfeiki eguiteco.

Seint Nila Abadiac erraiten dici, noiz eta ere egunaz cerbait falta eguiten baitugu, iduri diela berheala Gincoac otoitzçan haren punimendia emaiten deragula, ceren ordian gureganic urruntcen baita eta uzten baikitu idordura handi bathian. Orrobat, noiz eta ere gure seindimendiak mortificatcen baititugu eta cerbait gaucetan gure bu-riac bencitcen, berheala otoitzçan paguia emaiten deragula ordenariuan beno gracia aboro emanetz; erraiten dici, noiz eta ere sofrituco baituçu pacienki gauça ppenhoz eta nahigabesco cerbait, guero otoitzçan haren fruthia edo prootzhia errecebi-tuco duçula. Seindu berac leku berian erakasten diraguçu beste moyen net hun bat, otoitzçala preparatceco erran duguna beçalakotzxu baita. Nahi badu —cioçu— otoitzça hun bat eguin, deuz ezteçaçula eguin otoitzçaren contre denic eta guiza har-tan, Gincoa çuri emanen duçu eta harekin ibilico cira.

1 çureki: çurreki.

1 Bestalde, mundu oroc generalki bere ispirithian unxa har beça, Gincoaren eguiasco cerbitzchari baten arranguraric handienac içan behar diela bere seindimendien mortificatcian, bere bihotzçaren chahatcian, becatu orotaric beguiratcian eta beti eresolucione fermo bathian irauthian behin ere deuzegatic ere becatura <149> ez consentitceco, ez Gincoaren mortalki offensatceco. Hara certan içan behar dien otoitzçaren fundamenac, eta hortan gagnan behar ci nehorc berheciki finkatu, bihotzcetic anitz actaren hartan azkartzceco eguiiez, eci guc beharren dugun gauça duçu, beti gogua emaithia eta indar hartzcia gure natura flaco eta cambiakorraren contre, bena fundamen hori behin eçarris gueroz, batbedera inxea bedi jardi-restera nahi dien bertuthiaren eta perfeccioniareni. Gincoac placer espadu altchatu meditacione suerte gorago batetara, hartzçaz tristatu eta gaitz hartu gabe, beti Gincoaren huntarçuna berdin<sup>57</sup> eremesthia beça, seindutarçuna eztenaz gueroz preciski eztekathia otoitzça alchathiaren dohainhari, bena choïlki Gincoaren borondathiaren equithiari. Çuhurrac erraiten dici: *Gincoaren beldur içan cite eta haren manamendiac beguira itçaçu, eci hartan diagocu/guiçona oro;* erran nahi baita, guiçonaren eg[u]inbide, obligacione, perfeccione eta suerte hun guiac.

20 Orai heben urrentcian ororendaco consolagarri den moyen baten explicatcera nihaçu. Noiz eta ere meditacionian ezpaitu seinditcen nahi cindukeen beçanbat goço, eta auherretan inxeatcen baitcira arimaren Gincoareki juntatcera amorio bero batez, inxea cite amorio eta goço hetara heltceco desir handi batçuren çu beithan <150> pitztera, eta hala eguiiez, seindimendu ezi heen falta ereparaturen duçu; eci, dioen beçala Seint Barthelemy Martirenac, Gincoari hain laket içanen ciacoçu borondate huna eta desir seindia, nola arima garxu baten unioneric handiena. Moyen hori, Blosiusen erranaren araura, Gincoas beraz Seinta Gertrudari erakaxia içan çuçun. Aldi batez Seinda hori plenhi çuçun, etçeçakeelakotz bere bihotzça desiratcen cien eta obligatu cela uzte cien beçain gora beti Gincoaganat altchathia atchiki. Cœlalic avertithia içan çuçun, Gincoaz den beçanbat nehorc ezhienian seinditcen bere beithan Celuco gaucen desirc batere, edo desir flaco bat becic, aski dela eguiasco desir gartxu baten ukeithiaren desiratcia, ceren Gincoaren aitcinian, desira, nehorc içan ladin nahi lukeen beçain beti handia baita. Bestalde, ciòu Blosiusec Gincoa gogotigago daguela halaco desir bat dien bihotz bathian —erran nahi baita Celuco gaucen desira handiski uken nahi lukeen batetan— ecin ez guiçona egon bailaite mundian den lekuric laketgarrienian.

40 Ororen burian Gincoac eztici çure otoitzça gora haren beharric, çure bihotzça choïlki cherkatcen dici, çure bihotzçari diagocu beha, nahi derautçu çure bihotzceco seindimendu hunac oro, obra hunac eguin baicintu beçala baliatu; otoitzçan <151> ossoki Gincoari eskent cite, eman eçacoçu çure bihotzça oro eta desira çagu ukeithia lehen gradoco Ainguriec uken ahal deçaketen beçanbat ussustamendu, Gincoac borondate hun hora errecebítuco dici obra huna eguin baitcindu beçala. Hori hala denaz gueroz, erreflexione net hun eta prootzchoz bat dukeçu, otoitzçan hotz edo devocioneric gabe idireiten guiratekeenian orhitzcia, anitz Gincoaren cerbitzchari ordian meditacione eguiten ari direla eta aguian, Gincoaren amorioz nigarrez dau dela; heer ispirituz juntatu behar diici, ez choïlki heer, bena orano Aingurier Gin-

<sup>57</sup> Liburuan ez dago beste *berdin* bat bera ere, beste zazpiak *bardin* dira.

coaren maithatceco eta laudatceco desseinhan, guiza hortan honitcez guihaurec gure beitharic ecin eguiten duguna eta anitz aldis erranez, bihotzcez eta mihib, Meçaren Prefacioco hitz hoc: *otoitzcen citugu, Jauna, nahi tuçun gure botzçac juntathiac içan diten manatu Celuco Aingurieneiki*,<sup>58</sup> erranez seindu, seindu, seindu dela *Ginco Jauna*. Erraiten diici, Jauna, hec erraiten dutena eta nahi guindikeci eguin ahal guindeçan hec eguiten dutena; nahi guindikeci maitha ahal cinçakegung eta glorifica hec beçala. Hun lukeçu ere, ordian orhitzcia lehen uken dugun devocione gori baten demborez eta erraithia, Jauna, ordian nahi nien orai ere nahi dicit; ordian ossoki çuri offeritzen ninçan beçala, orobat orai offeritzen <152> nuç; orai ordian nien beçanbat dolu badicit neure becathiez, ordian umilitathia, pacencia eta obediencia desiratzen nien beçala, guiza berian desiratzen ticit eta orai galdeiten derautçut.

Oroz gagnetic net seindu eta prootzchoz duçu gure obren Jesu-Christoreneki juntatcia, gure ezkasduren haren merechimendien moyenez honitzceco. Holatan offeri ciroskigu gure otoitzçac Aita Eternalari, Jesu-Christoc lurrian cenian eguin cithien otoitzceki juntathiac içaiteco, gure barurac haren barureki eta gure ppenac haren ppenekin, otoitzcen dugularic nahi dien gure pacencia ezkacen ordain hartu edo errecebitu Jesu-Christoren pacencia, gure urguliaren lekutan haren umilitathia eta gure maleciaren ordain, haren seindutarçuna. Blosiu[s]ec erraiten dici, otoitzça guiza hori Gincoas beraz erakaxia içan dela haren cerbitzchariric handiene taric bat, amorecatic hola equinez, gure obrec merechimendu aboro uken deçaten eta errepara ahal ditçagun gure misericordia Jesu-Christoren merechimendien tresoren muga gabez.

1

10

20

### <153> HAMECAGUERREN CAPITULIA [II/7/2]

#### **Çoinhen prootzchoz den gure Jaunaren Passione seindiaren gagnan meditacia edo goguaketa eguithia; Gincoari çoinhen laket çacon meditacione hura**

Seint Augustinec erraiten dici deuz ere eztela salbagarriagoric, eci ez egun oroz goguan erabilthia çunbat Salbaçale Jaunac guretaco sofritu dien. Seint Bernatec, al diz,cioço deuz ere eztela hobiagoric concienciacò çaurien sendoteco eta ispirithiaren chahatceco, Jesu-Christoren ppenen beti meditacia beno. Beste Seindien erranen araura ere, socorri handi bat duçu tentacionen contre eta oroz gagnetic lohikeria kuen, Jesu-Christoren Passione seindiaren gagnan meditacione eguithia eta haren çauri sacrathiehan gure burien gordatcia, eta erremedio general bat duçu arimaren gaitz suerte ororen contre, Jesus crucificatu içan dela orhit atchikitcia. Eta Seint Augustinec segurtatcen guitici Gincoaren cerbitzcharic biciteco, Jesu-Christoren plaguë<sup>59</sup> meditacia beno moyen segurragoric behin ere ezthiela idiren. Seint Bonaventurac ere ciòço, Jesu-Christoren biciaren eta heriotciaren gagnan devoki meditatzen dienac, hetan idireiten thiela <154> aussarki behar thienac oro eta Jesu-Christoz

30

<sup>58</sup> Hau da, “otoizten zaitugu, Jauna, nahi dezazun agindu gure ahotsak elkartuak izan daitezela Zeruko aingeruen ahotsekin”. Jatorrizkoan: *avec lesquels nous vous prions de commander que nos voix soient jointes* (RD 2, 130).

<sup>59</sup> Hor “plagen” irakurri behar da, adiera ‘zauria’ du, erdal ‘plaie / llaga’; cf. hiztegia.

1 campo ezthiela deuz cherkatcecoric. Holaz, clar duçu Seindiec ardura meditatcen çu-tela Passione seindiaren gagnan eta hala eginez, seindutarçun eta perfeccione gora batetara altchatu içan direla.

Meditacione suerte horrec Gincoaz orhit-aracitcen guitici eta eguin derauzkigun hunguiac ispiritura erakarten; hori bera haren aitcinian beti merechimendu handi-taco duçu; amoriuac bere beitharic placer bat emaiten dici maite dien personaren orhitzchapenian içaithias, eta jakithias persona hura ardura orhitzcen dela eguin derazkon hunguez eta hetçaz orhitzciaz dezkanxatcen dela. Amoriosko marka horiec aboro placer eguiten diracacie eci ez presentic baliossene; hala nola, gende handitaco 10 Ama batec jakiten balu bere seme leku urrun batetan den bat, beti minço dela Amari derazkon obligacione eta eguin derazkon hungui guciez, milatan oboro placer di-keçu semiaren hareganaco seindimendu hunez, eci ez hanticigor ahal litzçakoon presentic arraruenez. Gincoaz gauça bera duçu, eci huntan, beste gauça orotan beçala, amoriuaren leguiac seguiten tici eta eguiasco amorio bat dutenen chedian diagoçu. Hartakotz placer hartzcen dici hartzaz orhitzcen guirenian, bai eta ere eguin derauz-kigun <155> graciez eta guretaco sofritu thien ppena handiez, eta luçaz hala eguiten badugu, hainbeste hungui eguin deragula ikusthiac edo consideratciac ekarrico guitici gure indar oroz haren cerbitzchatcera.

Blosius Autorrac erraiten dici egun batez Gincoac inspiratu ceracola Seinta Ger-trudari, çunbat ere aldiz nehorc devoki so eguienen baitcerakon Jesus Curucificathia-ren portretari edo imaginari, hainbeste aldis Gincoaren so misericordiossal bere gagnera eraux-aracico cithiela. Prootzcha guiten abissu hortçaz; guretaco nahi uken dienaz gueroz sofritu, guc ere ispirithian berere erabil ditçagun harc guretaco sofritu thienac. Erraiten dicie Seint Francessez, egun baten igaraiten celaric Andardana Maria Portiunculakuaren aldian nigarretan eta hazperapenetan, eçagutcen cien Gincoaren cerbitzchari batec bathu ciela; ikussiric haren afluximendu handia eta uztez cerbait malur heldu citçakon, galdein ceracola cer cien; Seint Francessec ihardesten diracoçu: nigarrez eta hazperrez niagoçu, ceren Jesu-Christo ene Salbaçaliac merechitu gabe hainbeste sofritu dien, eta guïçonec —çoinhegatic sofritu uken baitu— hari duten obliacione<sup>60</sup> handiaz hain guti orhitzcen diren.

### <156> HAMABIGUERREN CAPITULIA [II/7/3]

#### **Cer maneratan eguin behar den meditacionia Jesu-Christoren Passione seindiaren gagnan eta gutan Passione seindiac pitz-araci behar thien devacionesco seindimendiez**

Jesu-Christoc sofritu thien ppen gagnan eguienen dugun meditacionetan se-guitu behar dugun chedia, bici ispiritualeco Naussien araura, beste meditacione suertekuena beçala içan behar ci; eci esticie nahi meditacioneco dembora oro ehorc eçar

---

11 oboro: *oboto*. 22 hortçaz: *hortcاز*. 23 guretaco: *gutetaco*. 24-5 *Andardana Maria: andardanamaria*. 34 devacionesco: *devociouesco*.

<sup>60</sup> Liburuko gainerateko agerraldi guzti-guztietan *obligacione* ageri da.

deçan meditatcen duten sujetaren pundu ororen igaraiten, bena ahalic hobekiena in-  
 xea diten bere borondathiaren edo bihotzçaren berotcera Jesu-Christoranoco amo-  
 riosco seindimendiez, seindimendu hun hec bihotzian lehenic sor-araci onduan,  
 gure obra gucieterat hedatiten, eta ciocie hari berheciki otoitzçan finkatu behar dela.  
 Hala nola lurrian ciilo bat eguiten dienac huraren edo trezor baten idireiteco, idiren  
 onduan ezpaitu aboro cherkatcen, ez aboro barnago cilatcen, orobat, noiz eta ere idiri-  
 ren baitukeçu meditacione barna baten medioz Gincoaren amoriuaren tressorra eta  
 cherkatcen cindien iturri edo hour bici hora, eztuça necessario aboro haren cherkun  
 <157> ar citen; inxeatu behar çu choilki idiren duçun graciaren tressorraz aberastera  
 eta bicitce eternalaren iturri hortan aussarki çure egariaren hiltcera, çutan seinditcen  
 tuçun seindimendu amorioskuetan çure bihotzça atchikiz. Meditacioniaren che-  
 dia hortan diagôço, otoitzçatic nehorc idoki behar dien fruthia edo prootzchia hori  
 duçu, gure goguaketa eta ispirituko erreflexionec oroc hari daucola içan behar like-  
 cie. Lehen minçatu guituça beste leku bathian meditatceco manera hortçaz, eta nola  
 Jesu-Christoren Passione seindiaren gagnan eguiten diren meditacionec ber moldian  
 içan behar baitute, heben minçaturen guituça meditacione suerte hortan aboruenic  
 finkatu eta hartcera inxeatu behar dugun seindimendu amoraxiez, eta horra certara  
 guatcen, ber demboran berhesten tugularic heen gutan pitz-aratcitceco diren pundu-  
 ric hobenena.

Gincoaren Semiac sofritu thien ppenen consideratciac gu beithan eçar ciroçu  
 anitz amoriosco seindimendu suerte —çointan prootchoski goguaketac egün bai-  
 roskigu— bena comunski nehorc çazpitän cerratcen tici. Hetric lehena duçu pietat-  
 tezkua, çoin baita besteren dolorez edo ppenez nehorc hartcen dien seindimendu bici  
 bat —çoinçaz nehorc ppenatcen den personaren doloretan parte hartuz, hec cerbait  
 guiaz arhintcen baititu— hala nola besteren ppenez <158> bekaistis placer hartuz,  
 sofritcen thienarenac sordeizten eta emendatcen baititu. Eguia duçu eztirozkigula  
 orai arhint Jesu-Christoc sofritu thien ppenac, igaranac direnaz gueroz, bena hargas-  
 tic, placer hartcen dici ikusthiaz hetçaz bihotzçac hunkithiac ditugula eta harc lehen  
 sofritu thien ppenez guihaurec orai sofritcen baikintu beçala ppena hartcen dugula.  
 Hartakotz Joandene Paule Apostoliac erraiten diraguça: *haurrac baguira primu<sup>61</sup> ere  
 guirela, Gincoaren eguiasco primiac, bena Jesu-Christoren primu lagunac, baldin hare-  
 kin sofritcen badugu haren glorian parteliant içaiteco.*

Pietate haren gutan pitz-aratcitceco hun duçu Jesu-Christoren doloren edo ppe-  
 nen handitarçunaren consideratcia, ceren Theologien ororen seindimendien aravera,  
 ppena hec secula nehorc sofritu thien eta bici huntan sofri ahal diçakeenac beno  
 handiago içan baitira, eta hara cer Jeremia Prophetac hitz hotçaz erraiten deragun: *O  
 ciec guiec bidian igaraiten ciretenac, beha citeste eta soguicie badenez ppena edo dolore-  
 ric eniare pare denic!* Lehenbicoric haren gorritzceco parte guciac dolorez bethiac  
 cituçun. Isaia Prophetac ciocu *haren huinçoletaric burthiniranokuan haren gorritz di-  
 vinuan eztela lekuric çaurthia eztenic.* Haren huin eta ezku itçathiec, haren buru elho-  
 rriz chilathiac, haren berthaite <159> cifletez uzpeldiac, haren gorputz guci açote  
 colpuz chehekathiac eta haren heçur curutian estiratuz bere kroketaric idokiec, era-

<sup>3</sup> seindimendiez: *seindemendiez*.      <sup>8</sup> hour: *hourr*.      <sup>39</sup> burthiniranokuan: *burthinirakokuan*.

<sup>61</sup> Jatorrizkoak herederos / héritiers dakar (RD 4, 233).

1 kasten dicie egundano içan den supplicioric edo ppenaric handiena Jesu-Christorena  
içan dela.

Bena bere gorpitzcian beçala, bere ariman ere sofritu cicin eta anitzcez min-kiago, eci natura humanua harten juntathia içanic ere persona divinuareki, elgarrekin unithiac içan ezpailira beçain biciki edo bortitzki seinditu cicin bere Passionaren garratzarçuna, eta orano haren doloriaren handiago içaithiagatic, consoluric batere gabe içan çuçun, eta horra cerc curutcian gagnan erran-araci cerakon: *ene Gincoa, ene Gincoa, certaco utci nuçu?* Martir Seindiac lagundiak içan tuçu bere ppena edo tormen-ten arhintceco Celuco consoliez, çoinhec sofri-aracitcen baitceresten guiac ez choïlki bihotzthoiki, bena orano allegueraki; Jesu-Christoc, aldziz, gure amorecatic aboro sofriciagatic, nahi uken dici bere humanitate sacrathia Celuco eta lurreco consoluric gabe içan çadin, eta ez choïlki abandonathia edo utcia bere dicipuliez eta azkaciez, bena orano bere Aita Eternalaz. Daviten ahotic erraiten dici: *eguin içan niz guïçon socorrieric batere ezthien bat beçala*, eta bizkitharthian guïçon hura çuçun choïlki hilen arthian libro cena —erran <160> nahi baita becaturic batere gabe cena— eta halaz, ppenaric batere gabe içan behar cien.

Noraderano haren dolore handiac heldu diren endelgatceco, aski duçu erraithia hetçaz Olibetaco baratcian hartu cien orhitzchapenac berac, hain handi cen odol icerdi bat haren gorputz orotara erakarri ciela, nun lurra ere trempatu baitcien. Eci çunbat handiac içan behar çuten ppene —çoinçaz choïlki orhitzciac hain ppenoz içan behar cien— odol icerdi uharre bat erakarri cerakonaz gueroz? Hain bortitzçac eta biciac içan cirela ciocie Seindiec, nun natura humanuac hec ecin berac jassanez, bere Gincotarçunaren laguntçaren beharra uken baitcien, heen haxarrian berian ez hiltceco; bena ordian ere Gincotarçunac haren ppenac ez ematcen, bena choïlki hiltcetic beguiratcen, halaz haren bicia luçatcen, luçazago sofri-aracitceco. Hortan amira deçagun Jaunaren huntarçun eta misericordia içariric gabia; miraculu eguiten dici Martir seindietan heen ppener doloresco seindimendiaren arhintceco, eta bere beithan miraculu eguiten dici gure amorecatic aboro sofricteco.

Bena çunbat ere bortitz baitciren Jesu-Christotan haren gorpitzçac eta arimac el-garreki sofrictecn citusten doloriac, haren arima seindiac berac berheciki sofritu thienac <161> anitcez handiagüac içan tuçu; eci concebitu içan cen mementotic hura hil arteco mementoranhokuan, beti ispirithian present uken citicin mundiareñ haxetic mundia akaba artekan eguin eta eguiñen ciren becathiak oro, eta nola alde batetic bere Aitaren cien amorua, hari eguiten ceraskoten injuriec net biciki hunkitcen baitçuten, eta beste aldetic arimen cien tendreciac heen salbamendia garxuki des-raracitcen baitcerakon, eta ikusten baitcien harc bere bicia heen salbaceco emanic ere, anitz galduco cela haren heriuaz prootzhatu nahi gabez, heen galciaz cien des-placerra eta bere Aitaren gloriaren cien zelo edo sù seindiac, bi ahotaco ezpata batec beçala, beti bihotzça erdiratcen cirakocien, eta neholare penxa ahal daitekeen beno dolore handiaguac emaiten. Horien orhitzchapenac bera,<sup>62</sup> eta sofritu behar cithien

3 gorpitzcian: *gorpitzcian*. 14 socorrieric: *soccorric*. 14 bizkitharthian: *bizkirharthian*.  
22 ciocie: *ciocic*.

<sup>62</sup> Itzulprena guztiz literalra ez denez, ez dago argi *bera* hori zer den, *berac* baten hutsa ote den; jatorrizko testuei begira ere ez da argi ageri zer den.

ppenen eta afronthienenac, azki içan çuçun hartan odol icerdiaren erakarteko eta Olivetaco baratcian agonian eçarteco. Bere bici orotan sofritu thien ppenac beti beguien aitcinian uken tici, erran dugun beçala concebitu cen instantetic hil arteranhokuan, eta hori berac erraiten diraguçu Daviten hitz hotçaz: *ene doloria beti ene beguien aitcinian da*. Hori hola denaz gueroz, erran edo endelga çiroçugu<sup>63</sup> haren bicico egunac oro, harendaco Passioneoco <162> eguna beçala cirela; bai eta orano jin behar dien gaitzçaren beha egoithiac ardura badici gaitzçac berac beno cerbait ppenagariagoric. Eztugua, beraz, erraiten ahal, haren bicia oro doloresco leice bat içan dela, çointan haren arima seindia beti paussuric edo thaic batere gabe ihortzia içan baita?

Bederaka nehor gauça horiec oro unxa piçatcen baitu eta goguan hartcen Gin-coaren Semiac gugatic sofritcen thiela, eta hori amoriuetan den chahienaz eta tendrenaz, harria beno gogorrago den bihotzça nehor uken behar ci ppena eta dolore horietçaz hunkithia ez içaiteco. Lurra ikaratcen da —cioçu Seint Bernatec— harriac erditic eguiten dira, hobiac çabaltcen, templuco eztalguia urratcen, ekia eta arguiçagua ilhuntcen, munduko creatura seindimendu gabe diren oroc bere doliazen segnhaliac emaiten, gu choïlki içanen guirea pietateric gabe guretaco sofritu dienarendaco? Gure bihotzçac hunkitcera eta doloratcera utci ditçagun eta ezkitala içan harriac beno gogorrago, ez eta ere creatura seindimenduric eztutencen beno seindimendu gabiago. Davitec erraiten cicin: *ene Semia Absalon, Absalon ene Semia, nolazenis çuretaco hiltcen ahal! Absalon ene Semia, ene Semia Absalon!* Tendrecia natural batec seindimendu horiec eman baditu Daviti, bere seme Absalon, <163> Aitar Erressuma idoki nahiz hiltcen<sup>64</sup> batendaco, çunbat aboro arraçoinheki eztitugu uken behar seindimendu berac Gincoaren Semiarendaco, çoin hil içan baita gure Demoniuaren esclabotarçunetic livratceco eta guri bere Aitaren Erressumatic parte eguiteco?

### HAMAHIRURGUERREN CAPITULIA [II/7/4]

#### **Salbaçale Jaunaren sofrikerien edo ppenen meditacionetic idoki behar dugun prootzchu edo fruthietaric bat duçu gure becathien dolia eta contricionia**

Jesu-Christoren ppenen meditatcez uken behar dugun biguerren seindimendu tendre edo amorioskua —eta çoinhen pitz-aracitcera inxeatu behar baikira gubeitan— duçu gure falten dolia eta contricionia; eta iduri dici net ihiki prootzchu hori nehorc idoki diroela, ceren deusec ere ezpaitiro hobeki erakax ahal becathiaren han-ditarçuna. Gaitzçaren sendotceco behar içan den erremediuaç eçagut-araci behar diraguçu nolaco cen gaitzça. Seint Bernatec erraiten dici: ô Guiçona, eçagut eçaço nolaco içan behar çuten çauriec, heen sendotceco Jesu-Christori çaurthu içan behartu çaconaz gueroz; becathiari çor çazcon eternitateco ppenec <164> ez besteric, deusec

9 çointan: *cointan*. 30 çoinhen: *coinhen*.

<sup>63</sup> 2.4.12. atalean diogunez, hamabi *ciroguçu* ditugu, baina *çiroçugu* bakar hau; ikus Bouda (1948: 611).

<sup>64</sup> Ez da batere arrunta aditz nagusi eta laguntzaile arteko honelako afrikazioa liburuan idatziz agertzea.

ere ezteçakeguie hain unxa erakax ahal becathia çoinhen handi den, nola penxaketatciac Gincoari berari guiçon eguin behartu çakola<sup>65</sup> haren justicia divinuari guindien çorraren pagatceco, eci beste guizas etcieiteçun behin ere ossoki paga edo satisfia ahal, ceren ofenxia cerbait maneras infinito çuçun, Ginco infinito baten contre cekotz, eta guiçonac etciroçun behar beçala errepara ahal eguin cien hutxa, Gincoaren eta haren arthian liferencia infinito bat delakotz. Excusa gabe edo necessarioki erreparacioniaren eguiiliac grado infinito batetaco içan behar cicin, eta gauça orotan igual edo bardin injuriua errecebibu cienareki.

Guiçon bere beithan lur eta haux becic eztenac mortalki ofenxatu cicin gloriaco Erregua; Gincoac guiçona hil-araciric ere, injuriua elukeú erreparathia; hartaco guiçon harc Ginco içan behar likeci eta ofenxatu içan denaren bardin, edo bere ppenez oguena erreparatu. Cer erremedio içanen da, beraz, ofenxatu içan den Ginco hura bera becic eztenaz gueroz? Huntan, beraz, içan duçu Gincoaren misericordia mugaric gabe eta idiren dici moyen miragari bat guiçonari barcatceco bere justiciari oguenic eguin gabe; eci Gincoa ofenxathia içan eta beste Gincoric ez içan ofenxa hura satisfia ceçakeenic, bera guiçon eguin içan duçu guiçonac <165> sofri ahal ceçan eta hil çadin, guiçonac Gincoa ofenxatu cienaz gueroz eta dembora berian, Gincoac berac sofritcen dici guiçon beçala, amorecatic eta nola ofenxia cerbait guizaz infinito içan baitcen, ppenac eta satisfacionia ere içan citen haren personan merechimendu infinito batetaco. Horrec eguin dici Jesu-Christoren sofrikerien edo ppenen necessitathia eta clarki erakasten becathiaren handitarçuna. Hartakotz, Seint Jean Damascenuac erraiten dici, Gincoac becathiaren punitceco eternalki damnatu balitu ere içan diren eta ginen diren guiçonac oro, haren justicia etcela hain satisfathia içanen, nola içan baita Gincoaren Semiaren Incarnacionias eta hiltciaz, eta hola erranez estiici sobera erraiten, bena ossoki equia, eci Ifernuco tormentac oro eztituçu Gincoaren ofenxiaren hain ereparacione balioz bat, nola baita Jesu-Christoren hiltcia, hiltce hari Jesu-Christoren Gincotarçunac çunbat-nahi becaturen ereparatceco indarra eman derakonaz gueroz. Aldiz, Ifernuco ppena eternalec oroc, elirocie neholare becatu mortal batec berac Gincoaren justiciari çor dien ereparacionia eguin.

Hori hala denaz gueroz, Jesu-Christoren ppenen meditacionetic idoki behar du-gun prootzchu handienetaric bat dela segur duçu, gure becatu hainbeste gosta çazkonez <166> nigar eguthia eta heen hazthiactia. Jauna, ene becathiec elhorrisco coronz buria chilaraci deraucie eta gorpitzça oro açote colpuz crudelki poroka-araci; ene becathiec eçarri cituste ciren estathian, nic eguin dicit becathia, nic eguin dicit gaiskia oro; otoitzcen citut çure eskia ene contre altcha eta itçul bedi, har neçaçu eta aurthiki itchassorat, eci baciakiçut çure Passione seindiaren tempesta handi hori, ni niçala caussa jin dela. Jauna, nic nicin merechi curuce hori, nic niticin merechi ente-taco sofritu tuçun dezohoriac, afronthiac eta injuriuac.

Horri daucola Seint Bernatec eguiten dici istoria bat, berari heldu balitçaco beçala, erraiten dielaric: plaçan jokatcen ari ninduçun eta biskitharthian hiltcera condenatcen

---

39 balitçaco: *bali-çatco*.

<sup>65</sup> Frantsesezkoak orainean dakar: *se soit fait homme* (RD 4, 238), beraz ‘zaiola’ ulertu beharko da eta ez ‘zitzaiola’.

nindicien Erregueren Gorthian, nic deuz jakin gabe.<sup>66</sup> Erregueren Seme bacoitzçac, hori jakinic berheala bere buruco corona kentcen dici, bere abitu ederretaric bulus-ten eta jalguiten çaku batez bestithia, huinthutz, buria hauxtathia edo hautxez estalia, nigar marraskaz, ceren haren cerbitzcharietaric bat hiltcera condenatu duten. Bet-be-tan estatu hortan igaraiten ikusten dicit, estonathia baratcen nuçu, galdeiten dicit certaco hala jarri den eta ihardesten diraacie, niri biciaren conserbatceco hiltcera duhela. <167> Cer eguin behar nukeen ordian? —cioçu guero Seint Bernatec—. Nor da guiçon aski seindimendu gabia eta aberia, jokuan aitcina arico dena eta oro utciric, Princiaren Seme hura lagunduko berere esthiena eta harekin nigar eguinen esthiena? Holaco ereflexioniac eguiñez inxeatu behar diici meditacionian gure becathiez nigar eguitera eta heen hazthiatcera, coinhec Gincoaren Semia hil-araci baitute.

Guiza berian Seint Ignacioc ere nahi dici Gincoari galdein deçagun dolumena, Passione seindiaren gagnan eguiten tugun ereflexionetan gure burien contre samur guiten eta ahalgue, ceren gure becathiec gauça ororen Naussi oroz gagnekuari hain-bestre sofrí-araci derakoten. Meditacione ororen haxian Seindu horrec galdeiten diena duçu, preciski, eta hartaric prootzchu idoki deçagun nahi diena.

Seindieci hori net gomendatcen dicie eta hun duçu heen erranaren seguitcia, eci net prootzchoz duçu hain unxa Gincoaren bidian sartcen hassi direnen, nola bertuthian aitcinathien. Lehenic net hun duçu gure umilitathian atchikitceco, gure becathiez orhitzcia heen egunesco dolumenareki, denaz gueroz uken ahal deçakegung arraçoinhic handienetaric bat, beti bicitceco gure burien mesperetchu eta guihauen ahalgue handirekin. Goguan hartcen dienac Ifernia merechitu diela <168> bere Creacalia eta bere Naussia ofenxatu dielakotz, afrontu, mesperetzchu, injurio guciac gogotic sofrituco tici, Gincoaren majestate infinituaren contre eguin thien hainbestre ofenxaren barkamendiaren ukeiteco.

Biguerrenian gure becathien dolumen seguidaskuac emaiten diraguçu heen barkamendia uken dugula esparança handi bat; eta huna nola, gure becathien barkamendia uken dugula hobekienic segurtatu behar guitusten gaucetaric bat duçu, hetçaz uken dugun dolumen handia. Beti soguiten badereeçu dolu eta ahalguereki Gincoac ahatcico tici eta eztireeçu soguinen. Hartakotz Davitec, bere becathien dolias bihotzça hunkithia, erraiten cicin Gincoari ahatz citçan eta beguiac hetaric urrunt citçan. Cioçun: *Jauna, eçagutzen dicit unxa ene inikitathia, eta ene becathia beti ene aitcinian duçu.* Seint Jeromac erraiten dici Daviten hitz hoen gagnan: ene becathietaric urrunt eçaçu çure berthaitzia eta ene inikitathiac chaha edo eçaba itçaçu. Doctor Seindu hunec cioçu, çure becathia dolureki beti çure aitcinian baduçu, Gincoac esthiela bere aitcinian ukennen; eta eguiaz, deussec ere estici Gincoa hobeki ekarten beguien gure becathietaric urruntcera, eci ez ikusthiac beno<sup>67</sup> guihaurec orhit ditugula, eta hetçaz net dolumen handi bat badugula, eta hara cerc <169> emanen dera-

30 ahatcico: *ahatcito.*

<sup>66</sup> Liburuan *nic deuz jakin gabe* proposizioa eskuineko perpausari loturik dago, *Erregueren Seme bacoitzçac* horri loturik, baina ez du logikarik; gaztelaniazko jatorrizkoan ez dator, baina frantsesezkoan bai, eta ongi ematen du: *cependant on prononçoit une sentence de mort contre moi dans le cabinet du roi, sans que j'en susse rien* (RD 4, 241).

<sup>67</sup> Bikoizketa dagoela dirudi: *eci ez eta beno* batera ditugu.

1 gun hiltceco orenian fidaincha eta boztalencia handi bat. Hartakotz tenorez aitcinetic hori eguin behar diici; guehiago orano, hola eguithia estucho choilki igaran becathiedaco erremedio bat, bena orano hetara berris erortetic eta besteric eguitetic beguiratceco bide bat. Eci norc ere beti baitu Gincoa ceren ofenxatu dien dolumen net bici bat, unxa urrun diagozen berris ofenxatcetic.

Orano net moyen hun bat duçu tentacione çunbait azki fite apartatu duten, ez ala bai, ppena edo scrupula dutenen consolatceco eta segurtatceco, eci ardura nehor artcen bada acte contricionesco eguiten, becathiaren hazthiatcen, erressolucioner fer-muen eguiten milatan lehen hiltceco, eci ez becatu mortalic thipienaren eguiteco, bere beithan sinhix ciroçu ezthiela consentitu tentacionari, çoinhen gagnan duda baitcien, eztenaz gueroz ihi jakin edo orhitu gabe, nehorc hain hazthio dien gauça batetara consentitcia. Aboro bere becathiez dolu hartcen artcia Gincoaren maitatcia duçu, eci eguiasco contricionia Gincoaren amoriotic jitzen duçu, eztenaz gueroz becic ere dolumen net bici bat, nolaz naussi hain hun, hain maitagarri eta unxa cerbitzhatu içaithia merechi dien bat ofenxatu dien. Çunbatenaz ere nehorc Gincoa maithiago baitu, hanbatenaz ere hora ofenxatusco dolia handiago dici.

<170> Seint Clementez iskiribathia dela dioten liburu bathian irakurtzzen diici, Joandene Petiric, orhitzcen cen aldi oroz Jesu-Christo ukatu ciela, hain minki nigar eguiten ciela, nun bertaithia nigarrec erratcen baitceracoten eta macheletan behera arrolhac eguin. Erraiten ere dici orhitzchapen horrec gau oroz oilharraren lehen kukturkian ohetic jeiki-aracitcen ciela otoitzcetan jarteko, eta etciela gau gucian aboro loric eguiten, eta bici içan ceno hala eguin ciela. Seindu handi harc uken cien do-liaren ukeitera inxeatu behar diici eta dudaric gabe, otoitzçan eta beste orduz eguiten ahal dugun gauçaric prootzhossena duçu ardura acte contricioneskuen eguithia, becathia hazthiathuz deliberatcen dugularic fermoki milatan hiltzia, becatu mortal bat eguienen dugun beno lehen, eta Gincoa garxuki otoitzen dugularic bereganat dei guitçan hora ofenxa beno lehen. Jauna, etçaçula permeti deuzec ere çureganic behin ere separa neçan; certaco dut bicia çure cerbitzhatceco becic? Hartaco choilki nahi dicit dei neçançun çureganat, ô ene Gincoa, çu ofenxa citçadan beno lehen.

### Gincoaren amoriuaren seindimendiaz

Jesu-Christoren ppenen meditacioniac edo consideratciac gutan pitz-araci behar dien hirurguerren seindimendia duçu Gincoaren amoriua. Deuzec ere estici hobeki gure bihotzczetan amoriuaren súia pitzten, eci ez bestec guretaco duten amorio handiaren eçagutcia eta halaz, ariman, goguan erabilten dienian aicinaz Jesu-Christoc bere Passione seindian erakaxi derakon amorio handia, amorioz eta ezkerrez hain tendreki maitatu dienaren eretcerat bere buria berothia seinditzen dici. Joandene Joannec erraiten dici: *Gincoac guretaco uken dien amoriua agueri dela bere Seme ba-koitzçaren mundura igorthian, hartçaz bici guinent amorecatic.* Seint Lukec, aldis, minço delaric gure Salbaçale Jaunaren Tranfiguracionian igaran ciren feitez, noiz eta ere Eliaz eta Moises haren sahexetan aguertu baitciren, deitzen dici bere Passione seindia, amoriuetan den handiena. Eliaz eta Moises hareki minço cirela cioçu, Jeru-

1

salemen heldu behar ciren gauça handiez, eta dudaric gabe deitcen dici arraçoin handireki Gincoaren Semiaaren heriotcia amoriuetan den <172> handiena. Lehenic, bere exaiendaco hil celakotz Salbaçale Jaunaren erranera: *amoriuaren segnhaletan den handiena duçu, bere adiskidendaco biciaren emaitzia.* Bena Salbaçale divinuaren amoriuua orano aitcinago dihaçu: bere exaiendaco biciaren emaiterano. Eta Joandene Paulec cioçu: *Jesu-Christoc guretaco hiltcez becatore guinen demboran, handiski erakaxi diela guretaco cien karitathia.*

10

Biguerrenekoric, justoki heriotce hori deitathia duçu amorio ecinago handi bat, ceren justiciaric garratzcenaren a[ra]ura<sup>68</sup> ere, Jesu-Christoc bere Circoncisionian ichuri cien odoletic chortela bat bera eta Olivetaco baratcian ichuri cien gotera bat bera, edo bestagnez gure arerosteco egun çukeen gauçaric thipiena, aski çukeçun mundiaren eta —Seindiec erraiten duten beçala— mila munduren ar-erosteco, ceren Ginco cenaz gueroz harc eguiten cithien gauçaric thipienac ere baliostarçun edo precio eta merechimendu infinito batetaco baitciren. Hargatic, haren huntarçun infinitua gure salbatceco azki çatenaren eguihiaz etçuçun content içan, bena nahi uken dici eman bere odola guretaco asken chortalanokuan. Joandene Paulec, amorio hortçaz minço delaric, deitcen dici amorio sobera handi den bat; eta eguiaz, amorio hori nehorc erran eta penxa ahal diroen beno infinitoki handiago <173> duçu. Zarkaria Prophetari, Joandene Joanne-Baptistaren Aitari, aldis, etciakoçu aski erraithia, Gincoac Jesu-Christoren personan mundiari egun dien gracia jiten çaukula Gincoaren misericordiati, bena erraiten dici haren misericordiaren herzcetaric<sup>69</sup> jiten dela.

20

Nor dauke hainbeste maitatu guithiena maitatu gabe? *Maitha deçagun, beraz, Gincoa* —cioçu Joandene Joannec— *eci lehenic Gincoac maitatu guitici.* Guc ere, beras, gure aldetic maita deçagun eta haren huntarçunari eta tendreciari ihardex eta inxeä guiten gure amoriuaren hari erakastera, harc guri beria erakaxi deragun beçala.

30

Egiciasco amoriuaren poroancha segurra duçu maite dienaren amorecatic anitz sofritcia, eta Jesu-Christoc egun dici hori guregatic, eta hara cerc erran-araci dera-kon Seint Ambrosiori: aboro çor dicit, beras, Jauna, çure Passionari, çointçaz arerossi bainuçu, eci ez çure boteriari, çointçaz creatu bainuçu; eci çunbat-nahi handi içan den creatcian egun deradaçun hunguia, deuz ere etçauçu gosta çure ahoco hitz bat becic, bena ene edo guionaren arerosthian gosta çauçu mila afrontu, mila de-zohore, mila ppena, azkenekotz çure odola asken chortalanokuan. Hainbeste guretaco egun dienarri amriosco obrez ihardex deçagun, eta Joandene Joannec <174> erraiten dien beçala *maitha deçagun Gincoa, ene haur maithiac* —cioçu— *ez elhez eta mihibiz, bena obraz eta eguiaz.* Gure amorecatic mezperetchiac sofrituz, Gincoaren Semiac erakaxi diraguça maite guinthiela; guc ere, gure aldian haren amorecatic mezperetchiac desiratuz, eta mezperetchatu içaiteco ocasionen gogotic eta placerreki erecebituz, erakax deçakogun gure amoriua. Bere amoriua orano era-

---

21 misericordiaren: *misericordiaren.*

<sup>68</sup> Liburuak dakarren *aura* hutsa dela uste dugu; ez dago honelakorik batere liburuan eta aldziz, genitiboa + “araura” egitura usu ageri da; jatorrizkoak honela dio: *era justísima satisfacción de todo rigor de justicia* (II, 381) / *cette mort est appelée justement excès d'amour, parce qu'à la rigueur une seule des gouttes du sang...* (RD 4, 247).

<sup>69</sup> Jatorrizkoan *entrañas / entrailles* (RD 4, 247); ikus Jainkoaren misericordiaren hesteen gai hau 396-n ere badela.

1 kaxi diraguçu guretaco bere Aita Eternalari sacrificiotan ofrituz; guc ere guria era-kax deçakogun guihauen hari osso-ossaua ofrituz, gure burien hari emanez, gure bi-hotzcen ossoki haren ezkietan eçarritz, amorecatic gauça gucietañ gutçaz eguiñ deçan bere borondate divinuaren aravera. Hortan nehorc eçagutzen dici eguiasco amoriua, ez aldis ahoz erraithian: Jauna, maite citut; eta senxu hortala explicatzen ticie Eliçaco Aitec Joandene Jacobe Apostoliaren erran hoc: *pacenciac obrac perfeit errendatzen thiela*. Eci çoinhec ere bessarkatzen baititu placerreki ppenac, umiliacioniac eta nahigabiak norbaiten amorecatic, erakasten dici hora maite diela, haren amoriua obraskua dela eta eguiaskua, holaco ocasione ppenaskuetan direnaz gueroz agueri —dioten beçala— eguiasco adiskidiac.

20 Horra, beraz, orano Jesu-Christoren Passione seindiaren meditatcetic idokitera inxeatu <175> behar dugun frutu edo prootzchu handienetaric bat, eta hartaco otoitzçan ardura inxeatu behar diici, erraitetic jiten guiren maneran, amriosco ac-tuen eguitera. Oroz gagnetic finka guiten gure bihotz oroz gure burien Gincoari oferitcera, gutçaz eguiñ deçan nahi diena nahi dienian eta nahi dien beçala; gure is-pirithian hartuz gauça eta ocasione ppenossac oro, bedera-bedera eressoli deçagun hetan gure burien Gincoaren ezkura uzteria, eta eguiñ actac gogotic bessarkatcez Gin-coaren borondathiac ocasione hetan gureganic galdeatzen thiela uzte dugun gauça gu- ciac; eci hola eguthia net prootzchoz duçu eta perfeccioneco bidian aitcina-aracitcen guitic, eta erakasten Gincoaren amoriuas bihotzçac unxa bethiac ditugula.

## HAMABOSTGUERREN CAPITULIA [II/7/6]

### Gincoaren eretceraco ezkerresco edo erremesthiamendusco seindimendiaz

Jesu-Christoren Passionaren Misteriuen meditatcian uken behar dugun laur-guerren seindimendia diagoçu Gincoaren alderaco ezkerrian eta haren erremesthiat-cian. Cer —cioçu Seint Augustinec— gure ispirithiac penxa diro, mihiac erran diro, <176> lumac iskiriba diro hoberic, hitz hoc beno: GINCOA DELA ERREMESTHIATU? Nehorc etciroçu deuz laburragaric erran ahal, ez maitagarriagaric inçun, ez goragaric endelga, ez prootzchosagoric eguiñ ahal Gincoari eskerren emaithia beno. Gincoac berac ere beti hainbeste placer hartu dici guïçonen ezkerretan eta heen erremesthiamendusco sendimendietan, nun cerbait favori berheci eguiten cienian bere populari, nahi baitcien cantaçeçakotene berheala eskerresco edo laudoriosco cantica bat. *Emoçu Gincoari* —cioçu Davitec— *laudoriosco sacrificio bat* eta iskritura seindia, Patriarkec eta Iseraeleco haurrec cerbait hungui berheci Gincoaganic errecebítu onduan cantatzen citusten cantikez bethia diagoçu.

Seint Jeromac erraiten dici, Judiuec, aitcinekuec ondokuer erakaxis, sinhestetan ci-rela Erregue Ezechiasen eritarçuna —çointaric hiltcer baitzen— Gincoac igorri cera-cola punimendutaco, ceren miraculuz libratu içan onduan bere exai Assirienen armada ikaragarritic Jaunaren Ainguriaz —çoinhec hetaric bederatcitan hoguei eta bost mila<sup>70</sup>

---

7 çoinhec: *coinhec*.

<sup>70</sup> Jatorrizkoak honela dio: *ciento y ochenta mil / cent quatre-vingt mille* (RD 4, 251).

soldado gau batez hil uken baitcien—, etcielakotz Gincoa erremesthiatu laudoriosco cantica batez. Eta Seint Augustinec, minço delaric Jesu-Christoc sendotu cithien hamar lepraciez, erraiten dici mundiaren Salbaçaliac sendotu onduan, erremesthiatcera <177> jin cen bakoistça laudatu ciela eta besten esker gabiaz samurtu cela. *Etcinetena hamar chahathiac edo sendothiac içan* —erraiten dici Jesu-Christoc—, *nun dira beste bederatciac?* Estea itçuli estranger edo nunbaico hori becic, Gincoari gloria errendatcera edo Gincoaren erremesthiatcera? Ezkitela içan hec beçala eskergabe, Gincoaren eskutic errecebitcen ditugun hunguiendaco, eta guehienic orano haren hunguietaric handienaren, çoin baita guretaco guiçon eguthia eta Curutce baten gagnan hiltcia. Çuhurrac ere erraiten dici: *orbit citeste beti ciendaco ihardexi dienac eguin de-raucien graciaz, eci bere arima eman du ciendaco.* Jesu-Christoc biciaren gostuz bermatu eta pagatu dici ciendaco.<sup>71</sup> Justo duçu hain hungui handiarendaco esker ossoki handi bat uken eta ekar deçagun, eta deusec ere esteçagun behin ere ahatz-araz.

Seint Thomaseccio gu beitan ezkerrac edo erremesthiamendiak hirur sendimendu eçarten dutela. Lehena dela gure bihotzcian errecebitu dugun hunguiac merechi dien estimiaren ukeithia, eta hunguiac eguiñ deragunaren eretcerat eskerresco afecionetan sartzcia. Biguerrena huntarçun eguiñ deragunaren miñiz erremesthiatcita eta laudatcia. Hirurguerrena hungui eguiñ gure aldian hungui eta placer eguthia. Inxeaguiten Passione <178> seinduko Misterio ororen gagnan, eskerresco hirur acto horien eguitera; lehenic finka guiten gure bihotzcian estimusco seindimendu handiric eçartera, haren Passione seindiaren Misteriuec bere beitan cerratcen edo atchikiten duten gure eretceraco huntarçun ispiritualac,<sup>72</sup> eta bederaka examinatuz heen medios errecebitu ditugun graciac; heen consideratz edo meditatuz bicikiago gu beitan pitz-araz deçagun dugun obligacionia, gure indar oroz beti Gincoaren cerbitzchatceco; guero inxeaguiten miñiz Gincoaren laudatcera eta glorificatcera, Joandene Pauleren erran hoen aravera: *oferi deçagun beras beti Gincoari Jesu-Christos laudoriosco osthia bat;* erran nahi baita, espagnen fruthia —çoinhec laudatcen baitute haren icen seindia— eta desira deçagun mundu oroc lagunt guitçan haren erremesthiatcen; finian, inxeaguiten gure obrez ihardestera hainbeste hunguiri, eta hartaco, ossoki haren ezku seindietan jar guiten azken capitulian erraiten guindien beçala eta ofri gazkion osso-ossua.

Seint Bernatet erraiten dici meditatzen dugun misteriokal goguan hartu behar dugula, Jesu-Christoc erraiten dauzkula Apostolier huinhac ikuci onduan erran cezenten hitz berac: *badakicea cer den misterio haur?* Badakicea cer den gracia, çointçaz creatu, arerossi, guiristhinho <179> eguiñ içan baitcirete? Helaz! Ala baitugu guti eçagutzen Gincoac cer eguiñ dien guretaco, eci unxa endelgatzen banu, ô ene Gin-

7 içan: *ican.*

<sup>71</sup> Jatorrizkoan salió Cristo por nuestro fiador, y pagó por nosotros dando su sangre y su vida (II, 383) / *Jésus-Christ a répondu et payé pour nous; il lui en a coûté la vie* (RD 4, 252). Nabarmena da hor gostu ‘kostua’ dela, Jesukristori biziaren kostua edo galera ekarri ziola bermatze eta ordaintze hark.

<sup>72</sup> haren eta ispiritualac arteko egituraren aditza elipsis da, baina ez da aise zein aditz den jakitea; ez dugu uste ezerterea denik, eskerzte kutxua beharko bailuke eta ez dakigu *examinatus* ote den ere; jatorrizkoak ez du argitzen: *lo primero, reconociendo con el corazón la grandeza de tales, y tantos beneficios, como en cada misterio se encierran, y estimándolos en mucho* (II, 383-4) / *appliquons-nous premièrement à produire dans notre cœur de grands sentiments d'estime, pour tant de bienfaits que renferme chaque mystère; et examinant en détail toutes les grâces que nous en avons reçues, et que nous en recevrons jamais...* (RD 4, 252).

1 coa, guiçon eguin cirela eta curutce bathian hil ene amorecatic, horren goguan hartzcia azki lukeçu ene bihotzçaren ossoric çuri eman-aracitceco eta çure amoriuan ene hourt-aracitceco, eta hori lukeçu eguiasco guiristhinho batec uken behar lukeen eçagutça eta eskerra.

20 Seint Chrisostomac ereflexione net prootzchoz bat horri daukola eguiten dici eta cioçu, cerbitzchari hun baten eguitatia dela, Naussiac hari eta bester eguiten dien graciez berari eguiten derasconezez beçanbat esker ekarthia, eta hetçaz bera choïlki erremesthiatcerca obligathia bailis beçala.<sup>73</sup> Hola eguiten cicin Joa[n]dene Paulec erraiten cienian: *maithatu nien*<sup>74</sup> *Salbaçaliac enetaco bere biciaren emaiterano*; eta arraçoin handireki cioçu ber Seint Chrisostomac Apostolia hola minço cela eta batbederac hola ber erran dirogula, Jesu-Christoren heriotcetic bakoitzçac haren choïlki hil bailiz beçanbat prootzchu idokiten dienaz gueroz. Hala nola ekiac arguitcen bainu, ni becic besteric arguitcen ezpailu beçanbat, eta ekiac niri emaiten dien arguia bester emaiten dienac ezpaitu hertzcen, bena orano cerbait maneraz emendatzen baitu, ceren hec arguituz ene behar-ordian laguntceco ahaletan <180> eçarten baititu; orobat ere, Gincoaren Semiacen Incarnacionia eta heriotcia enetaco hain prootzchoz duçu, choïlki enetaco guiçon eguin eta hil bailis beçain. Nic beçala bestec hartaric ukeiten duten prootzchiac estici enia hertcen, bena orano emendatzen dici, ceren eguiten baitu maita neçaten eta lagunt bere otoitzce eta exemplu hunez Celuco bidian, jardi-rexi nahi dudan gloriaren merechitceco.

30 Aboro, Gincoaren amoriua, guitaric batbederaren maitatceco dien amoriua, besteric batere maitatcen ezpalu beçain handi duçu, eta Jesu-Christo, borondatez eta amorioz guiçon bakar baten favoritan behar içan balis, sofritceco ororen beçain gogotic ekarria çukeçun eta Seint Chrisostomac cioçu, bakoitz baten eguienen ciela ororen eguin diena. Eguia duçu orano Gincoa nitçaz bakarki orhitu dela eta bere beguien aitcinian atchiki niela guiçon eguin içan denian, eta curutcian hiltcian bethierez guerosco amorio batez maitatu niela, berac erraiten dien beçala Jeremia prophetaren ahotic, eta bolontroski hil dela biciaren niri arerosteco, guiza batez, nun bere beitan batbederac hartu behar baitugu Gincoaren Semiac bere Passione seindian guiçon gucier ein thien hunguiac, berharen choïlki eguinac bailira beçala eta sinhexi, Jesu-Christo huntarçun <181> heen eguitera ekarri dien amoriua batbederaren hain handi dela, besteric maitatu ezpailu beçala, eta erran Joandene Paulerek: *ni maitatu nienac eta enetaco hil denac*. Horiec oro manera hortan nehorc piçatcen edo consideratzen thienian, sendituko dici bere beitan pitzten ezkerresco eta amoriosco sendimendu handiric Salbaçale divinuaren alderat, çoinhec beti maitatu baikitu bethieresco edo seculaz guerosco karitate batez.

---

6 hun: *bun*.

9 Salbaçaliac: *Salbacaliac*.

19 Celuco: *Celuço*.

33 enetaco: *eneketaco*.

<sup>73</sup> Hona jatorrizkoa: *es afecto y sentimiento de siervo fiel, estimar los beneficios de su Señor, que son comunes á todos, y agradecerlos como si á él solo se hicieran, y él solo fuera el deudor, y estuviera obligado á satisfacer por todos ellos (II, 384) / il est d'un bon serviteur de faire autant de cas des grâces que son maître lui fait en commun, et d'en avoir autant de ressentiment que si elles n'étoient faites qu'à lui seul, et qu'il fût chargé lui seul de l'obligation et de la reconnaissance (RD 4, 253-4).*

<sup>74</sup> Aditza "hark ni" Nor Nork da: *nu + -en* erlatiboa: "maitatu nauen Salbatzaileak enetako bere bizia emateraino".

Seindiec orano erraiten dicie, Gincoac galdeiten deragunian harc eguin hunguiez erremezthia deçagun, ezhieila hori manatcen gure ezkerren beharric dielakotz, bena choïlki nahi diela hora erremesthia deçagun, gracia berriric errecebitcia merechi deçagun. Seint Bernatec erraiten dici ezkergabia aice<sup>75</sup> bero bat dela, çoinhec agortcen eta idortcen baitu Gincoaren misericordiaren ithurria eta thapatcen haren gracieng bidaia; eta nola Gincoac hunguiric eguin gabe uzten baititu guiçon ezkergabiac eta hunguiac ahazten tuztenac, halaber hunguiz betatzen tici ezker emaiten ekarten dutenac eta hora behar beçala erremesthiatzen dutenac. Itchassua —çoin baita hora ororen ithurburia— ouhaitzetarat<sup>76</sup> itçultzen tici hetaric joaiten çazkon hourac, eta Gincoa —çoin ditugun dohain eta gracia ororen ithurburia baita— gracia eta dohain hec abororeki <182> berris emaiten dirauzkiguçu, noiz eta ere fidelki erremesthiatzen baitugu hareganic uken tugun hunguiez.<sup>77</sup>

1

10

### HAMASSEIGUERREN CAPITULIA [II/7/8]

#### **Jesu-Christoren bicitciaren eta ppenen meditatcetic idoki behar dugun frutu edo prootzchuric handiena dela, haren imitatzia edo haren exemplien seguitzia**

Jesu-Christoren bertuthen seguitzia duçu, guc azkenekotz haren Passioniarene meditatcian goguan uken edo hartu behar dugun eta hartaric idokitera inxeatu behar guiren prootzchia. Seindiec erraiten dicie Gincoaren Semia jin dela mundura berheciki bi gauçarendaco. Lehena, bere heriuaz eta ppenez gure arrerozteco; biguerrena, guri emaiteco bertuthe ororen molde edo exemplu perfeít baten, eta guri bere exempliaz heen segui-aratcitzeko. Hartakotz, Apostolieki asken eguin cien auharian hain apal humiliathuric, belhaurico heer huinhac ikuci onduan, berheala erraiten direeçu: *eman derauciet exemplia, nic eguin dudan beçala eguin deçacien.* Ordian erakaxi ceraguna eguin behar guindiel auren imitacionetan, endelgatu behar ci haren beste obra edo accione oroz.

20

Joandene Petiric hori erakasten diraguçu <183> erraiten dienian: *Jesu-Christo hil da guretako, cier exemplu bat utciz haren urhaxac edo exempliac segui cintçaten eta horrec erran-araci dirakoçu Seint Augustini, Jesu-Christoren curutzia eztela choilki hil den ohia,*<sup>78</sup> bena dela orano peredikathea,<sup>79</sup> çointaric peredikatzen baiteragu bere exempliaz cer eguin behar dugun; eci çunbat ere haren bicia içan baita bertuthiarene molde perfeít bat, iduri dici bere bician erakaxi cerauzkigunac oro bere obrez, ezcolez bere Passionian nahi uken thiela elgargana bildu, eta gradoric gorenian huntan oro

30

17 hartaric: *hartariç*.

<sup>75</sup> Zuberoan bezala, liburuan beti *h* gabe ageri da *aice* (260, 261 bi aldiz, 264, 290 bi aldiz, 414).

<sup>76</sup> Liburuak *ouhaizt-etalat* dakar; bertan ez da ohikoa atzikia hitzaren bukaerako “-tz” digramari lotzea, “-tzç” edo “-tzc” da usuena; kasu honetan “uhaitz” da elea, digraman bukatua eta inprimategiko hutsa gertat dateke <zt> horretan.

<sup>77</sup> Erlatiboko perpausetako aditz iragangaitzek eraginik, *itchassua* eta *Gincoa* ergatiborik gabe ditugu.

<sup>78</sup> Jatorrizkoak *cama / lit* dio (RD 4, 265).

<sup>79</sup> Jatorrizkoak *catedra / chaire* dio (RD 4, 265).

1 aguer-araci guiza batez, nun haren ppenen meditatcetic idokitera inxeatu behar guirena baita, haren bertuthen seguitceco desir handi bat. Hartaco behar diici haren bertuthe guciak bedera-bedera aicinaz goguan erabili, bihotzcian heen jardirexi nahisco desir handi bat ecarri, eta heen seguitceco eressoluzione azkar bat hartu, eta hazthio eta odio seindu bat heen contreco biciwendaco.

Orai berian Jesu-Christoren umilitathia consideratuz edo goguan erabiliz, nola Ginco celaric bolontroski guiçonen mezperetzchien eta dezzohoren<sup>80</sup> pian jarri den, behar diici gure burien mezperetzchu handi bedera hartu gure bihotz oroz, guiçonec ezteçaguten behin ere ohorezco, estimuzco segnhaleric ekar, eta deliberatu afrontu eta injurio suerte ororen <184> ez choïlki gogotic sofritceco, bena orano placerreki cerbaitetan Jesu-Christoren idurico içaithiagatic. Behar diici orobat Gincoaren Semиaren pacencia consideratuz, hartu erressoluzione bihotz ossoz hel ahal nahigabe ororen erecebitceco, bai eta desiratu occasioniac hel diten eta Gincoari galdein, haren Semиaren eguiasco imitaçaliac edo seguçaliac içaithiagatic.

Seint Bonaventurac erraiten cincin: Jauna, ezticit nahi cerbait dolore eta çunbait çauri gabe bici, çauris beteric ikusten citudanaz gueroz. Eta ber maneran beste Jesu-Christoren bertuthec oroc goguan erabili behar dicie, hala nola obedienciac, eztitarçunac, garbitarçunac, praubeciac, sobrietathiac; eci oro Jesu-Christoren bician eta ppenetan clarki agueri tuçu, eta gure bihotzctan heen obratceco eguiasco desir baten hartzcera inzeatu.

Bestalde, huntan behar ci gauça bati gogua eman eta deja hartzçaz beste leku bathian cerbait erran diici, eta hora duçu meditatcen dugun bertuthetan gagnan behar dugula bedera-bedera goguan erabili eta pitçatu bertuthe hetaric batbederaren seguitceco hel ahal dazkigun ppena edo puchulu guciak, eta heen placerreki Gincoaren amorecatic erecebitcera erressolitu.

Orai berian umilitathiaren gagnan meditatcen baduçu, goguan hartu behar tuçu <185> cazu edo ocasione liferentac, çointan mezperetzchathia içan baitzcitake, haxtic mezperetzchu thipiac eta guero çoin ere iduri baitçauçu aboruenic gaizcituco çautçula, eta heen gagnan umilitatesco eta apaltarçunesco edo ezdeustarçunesco actac eguin, eguiaski heen sofritceco ocasionian edo bidetan baitcina beçala. Gauça bera eguin behar duçu pacenciaren, mortificacioniaren, gauça ororen gagnan indiferent edo ezachol içaithiaren, Gincoaren borondatera egoithiaren eta beste bertuthe ororen eretcerat, eci hala eguiñez bertuthe —çoinhen ere gagnan meditatcen baituçu— emeki-emeki ariman sartcen duçu, han erruac eguiten eta haren contreco biciuec indarrac galtcen ticie, eta nehor hola preparatu denian, bertuthia obratu behar denian, haren obratcian idireiten diren ppenac ihikiago garaítcen tici, eta meditacionian nehorc hartcen thien desir eta delibero guciec, chedetaco uken behar dicie bertuthiaren seguitceco aizatarçun haren jardiresthia.

Horra Gincoaren Semиaren Passioniaren eta bicico Misteriuen gagnan frangoki eta preciatuki luçaz meditatceco moyena, eta eztuçu nehor arraçoinheki erran diroeñic eztakiela meditacione hori nola eguin eta nola hartan gagnan luçaz goguaketa,

---

24 ahal: *hahal*.    26 behar: *hebar*.    33 baituçu: *baitucu*.    40 eztuçu: *eztucu*.

<sup>80</sup> Ez da liburu guztian beste <zzo>-rik ageri, bakarra da, gaineratekoan <zo> da liburuak daka-rrena.

hainbeste seindimendu hun erakaxi dugunaz gueroz, çoinhen gagnan mement oroz <186> nehor penxaketa baitate.<sup>81</sup> Erraiten dicit aboro, gure ispirithiaren eta bihotzçaren seindimendu hunez hobeki berotceco hun dela nehorc meditatcen dien misterio-  
kal eta seindimendukal, sei gauça hoen goguan hartzia. Lehena, nor den Passionian sofricen diena. Biguerrena, çunbat sofricen dien. Hirurguerrena, çoinhen pacienki, umilgui, eztiki eta amoraxuki sofricen dien. Laurguerrena, certaco sofricen dien. Bostguerrena, norc sofri-aracitcen derakon eta azkenian, ceri daucola eta cer desseinetan. Seindiec ordenarioski erakasten edo proposatcen derauzkigutен sei pundi horiecerbitzcha dieisteу luçaz ereflexione net prootzchossic eguiteco. Bena ezkindukeen ordian Gincoaren Semiaren bicitce eta exemplu seindien gagnan goguaketen eguiithia becic,<sup>82</sup> hetan azki lukeу gure bici orotaco, eta hori bi arraçoinhez: lehena, ceren hetan bertuthiac oro idireiten baititugu eta nola ororen beharra baitugu, oro aldi aldisca meditatu behar tiici. Biguerrena, ceren goguan erabili nahi baitugu bertuthekal haren jardiresteco hel ahal daisteen ppena eta puchulu guciac, eta hetan goguaketacia seguit, heen<sup>83</sup> ez choikli Gincoac hala nahi dielacotz, bena orano placeurreki eta allegueraki heen errecebitcera gure gogua erakar artekan. Eztuу bertutheric batere bici guireno certan medita eztukeenic.

<187> Erran dieiteу ere, seindimendu hun erran tugun hoc net balioz eta necesario içanic ere, orotarat ere Gincoaren seguitceco edo imitatceco seindimendia oroz gagneco dela, ceren besthiac oro bereki baititu eta bertuthe ororen actac oro hارتان idireiten baitira eta halaz, Gincoaren Semiaren imitatcia edo seguitcia, eguiaz errai-teco, eztuу seindimendu amoraxu, igaran capitulietan minçatu edo erran dugunetaric bat, bena lehenago seindimendu hun hec oro laburski bere beitan cerratcen eta bessarkatcen tici, çointan baitago guiristinhotarçunaren perfecccionia. Hartakotz, Jesu-Christoren biciaren eta ppenen meditacionian goguan finkienic hartu behar den gauça duу, haren exemplien seguitceco dessein osso eta azkarren hartzia; horra certan doon meditacione suerte hortaric idokitera inxeatu behar dugun prootzchuric handiena. Bena hartaco batbederac behar ci bortitzkienic fincatu Jesu-Christoren bertuthetic beharrenic dienaren seguitceco eressolucionarien gagnan, hec bere goguan luçaz atchikiz, heen gagnan actac eguiñez, bertuthe heeganaco affeccionia edo amoriua bihotzçian unxa har artekan, eta heen contreco biciuac eta passione gaiztuac flaka artekan; eta nehor beharrenic dithien bertuthen jardiresteco desseinian unxa jarri onduan, guero beste çunbaiten chede berian <188> bederaka jardirestera inxeatu, eta dudaric gabe hobe duу eta prootzchozago manera edo methoda horren atchikitcia, ecin ez meditacionian anitz gauçaren bessarkatcia edo goguan erabilthia eta ororen gagnan arhinzki igaraithia.

<sup>81</sup> Aditz nahasketa gertaturik, \*edin beharrean *izan-en* etorkizuna baliatu da; berdin gertatzen da 202-ko çointçaz nehor *balia baitate* adibidean.

<sup>82</sup> Jatorrizkoak honela dio: *y aunque no hubiera otra cosa, en solo el postrero afecto de la imitacion tenemos materia para toda la vida* (II, 391) / mais quand nous n'aurions point d'autre sujet pour nous occuper que l'imitation du Fils de Dieu, il y en aurait assez pour toute notre vie (RD 4, 268).

<sup>83</sup> Zintzilik gelditu dateke lehen *heen* hau eta ondotik datorren *heen* horren erreferentziakide dela dirudi.

1

## HAMAÇAZPIGUERREN CAPITULIA [II/7/9]

### **Çointan çunbait exempluz fincatcen edo erakasten baita Gincoari çoinhen laket çakon Jesu-Christoren ppenen meditacia**

Silvestre deitzen den Autor batec cioçu gure Jauna Celurat igaran onduan, Maria Magdalena joan cela desertu batetarat, nun bici içan baitcen hoguei eta hamabi urthez. Gincoac haxetic nahi uken ciracoçun erakaxi han cer eguin behar cien Gincoari hobekienic placer eguiteco. Hartaco igorri cicin Ainguru bat Seinda hura çaguen lekiaren borthan curutce baten landatcera, amoreatic Seinda harc curutce hura beti beguien aitcinian atchikiz, ispirithian ere beti present uken citçan curutian igaran ciren Misterio adoragarriac eta hala, deserthian bici içan cen dembora oro empleatu cicin bere Salbaçale eta Naussiaren herio eta Passioniaren beti meditacen.

<189> Ludolpha Saxakuac erraiten dici guiçon seindu batez —çoin desserthian bici baitcen eta Gincoari aboruenic placer eguinçeçaketen gaucen goguan atchikitcia eta complitcia desiratcen baitcien—, egun batez ussatu costuman otoitzcen cielaric, Gincoac nahi uken cirakoçun erakaxi cerc hobekienic placer eguinen cerakon; Jesu-Christo aguertu citciakoçun çauriz edo plagaz beteric eta curutce net pitçu batez kargaturic, eta erran ciracoçun: ene cerbitzchariec eguin ahal deçakedaten placer handiena, curutce hunen karreatcen laguntzia duçu eta hartaco, aski dicie borondatez ene laguntzia sofritu ditudan ppenetan eta heen bere bihotzian minki seinditcia.

Seint Vicentec, Seint Antonioc eta Surius Autorrac erraiten dicie Seint Edmondez, Cantorberico Archapespikiaz, latinian istudiatcen hassi cen demboran Oxfordeko Escoletan, egun batez, ber bera passeatcen celaric landa batçutan bere ispirithia goguaketa seinduz beteric, haur gaste bat aguertu citçacola, çoinhec Jesu-Christo cela endelgaraci baitceracon; oroz gagnetic gomendatu ceracola haren bicico eta hiltceco misterio çunbaiten gagnan egun oroz meditacia, eta segurtatu ciela hala eguithia anitz baliatuco citçacola Demoniuaren tentacioner edo finecier bihurtzceco, eta heen contreco bertuthe suerte <190> ororen jardiresteco eta seinduki hiltceco. Edmond gasthia consoluz eta gortarçunez beteric bere jaunaren miraculusco aguerce hortzçaz, hantic harat Gincoaren Semiaren bicico eta Passioneo Misterio sacratu edo seindu çunbaiten gagnan, ax oroz meditatu cicin eta meditacione hartzçaz jardirexi citicin hitzeman içan çazcon socorriac oro.

Iracurten diici Seint Dominicaren fraiden istorian, fraide batec gaztedanic uken ciela Gincoaren Semiaren Passionarendaco devocione berheci bat, guerorat ere beti atchiki ciela guiza batez, nun egun oroz misterio heen gagnan meditatcen baitcien, eta Jesusen çauri edo plaga sacrathiac adoratcen, plaga bacoitzçaren gagnan erranez Eliçaren hitz hoc: *adoratcen citugu, ô Jesu-Christo, eta benedicatcen citugu ceren mundia curutce seindiaren medios arerossi baitu*. Bost aldiz belhauricatcen cela adoracionesco acto horren eguithian; aldiyal paterra erraiten, Gincoari galdeinez placer ceracon eman haren beldurra eta haren amoriua, eta Gincoac erakaxi cicin gracia hautu eta berheci edo handi batez çunbat laket citçacon devocione houra. Egun batez meditacionian celaric Jesu-Christo aguertu citciacoçun; gomitatu cicin haren plaga sacrathien estitarçunaren goçatcera eta fraide seindu horrec, errespectu handirekin <191> ahua plaga seindu hetara hurrandu onduan, betan hain estitarçun eta goço

30

40

edo contentamendu handias arima bethia uken cicin, nun hantic harat Gincoasco etciren gauçac oro iduritzen baitcitzazkon karax eta okatztagarri.

Iracurten diici guiristinho captivo batez —coinhec baitcien devocione berheci bat Jesu-Christoren Passione seindiaren eretcerat— beti hura goguan caulacotz triste çuçun eta ardura nigarrez ciagoçun. Bere Naussiac çunbait aldiz galdeiten ciracoçun cerc hala tristatcen cien eta certaco etcen besthiac beçala allegueratcen; beti ihardesten ciracoçun etçaitekeela beste guisaz içan, ceren Jesus bere Naussiaren Passionia bere bihotzian imprimathia ekarten baitcien. Turco edo mairu Naussi harc arrapoztu horren gagnan erreflexione eguinic, haren errana egua cenez jakin nahis, hil-araci cicin, bihotzça idoc-araci eta erditic erain; bihotz hartan idiren cien curutciaren imagina net unxa eguna. Mairu hura gauça miragarri horrec hanbat hunkitu cicin, nun berheala eguiasco federat conbertitu baitcen.

Azken Istoriaren arauxuko bat eguiten dicie Seinta Cleras, coinhec bere bici guian baitcien devocione berheci bat Gincoaren Semiaren Passione seindiarendaco, eta hil onduan idiren ciracocien bihotzçaren gagnan alderdi bathian curutciaren <192> imagina net unxa eguna, itceki, lançareki, espontzxareki eta canaberareki, eta bihotzçaren beste alderdian, açothiac, habia edo pilarria eta elhorrisco corona, eta horiec oro ikusten ticie egun orano Montefalconen Italietan, nun beiratcen baita gauça miragarri eta araro<sup>84</sup> hori.

1

10

---

10 hil-araci: *bil-ataci*.

<sup>84</sup> 154-n *arraruenez* dakar; liburuan aldaera bakoitzen adibide bana dago.



#### **IV. COMMUNIONE SEINDIAZ**



## LEHEN CAPITULIA [II/8/4]

1

### Communione Seindura hurrandu behar dela arimaco chahutarçun handi bateki, ez choïlki becatu mortaletaric, bena ere venialetaric

Heben harat<sup>1</sup> hirur gauçaz berheciki minçaturen guituçu. Lehena, Eucharistia Seindiaren behar den beçala errecebitceco necessario den disposicioniaz. Biguerrena, hura errecebitu onduan cer eguin behar den edo nola eskerrac eman behar diren. Eta hirurguerrena, nehorc hartaric idoki behar dien prootchiaz edo fruthiaz. Lehen preparacioniaz den beçanbat, cioçut handiago içan behar diela Jaun Handiaren errecebitceco, eci ez beste Sacramentu ororen, ceren çunbatenaz ere <193> Sacramendiak baliossago edo handiago baitirate, hanbatenaz heen errecebitceco disposicioniac handiago, seindiago eta arrangurossago içan behar dicie. Eci baduçu çunbait Sacramendu, çoinhen dignoki errecebitceco, aguian azki bailiçate heen seinduki errecebitceco bere becathiez eguiasco dolumen baten ukeithia, bena Aldareco Sacramendu Seindiaren excellencia eta dignitathia hain handi duçu, Gincoa bera han idireiten delakotz, nun erran dugun doliaz bestalde, becatu mortal çunbait eguin dienac communiatu beno lehen cofessatu behar baitu. Ordian, beraz, dignoki Eucharistia Seindiaren errecebitceco, contricionia, aitcinetic cofessionia gabe, eztuçu aski, Concilio Tridentinekuac erran dien beçala, Joandene Paureren hitz hotan gagnan: *batbederac bere buria poroa beça, unxa poroaturic Ogui hartaric jan eta Caliça hartaric edan beça;* eci Tridentineco Concilio, Eliça gucico Apespiķien bilkia harc Apostoliaren hitz horier emaiten dien senxia edo endelguia duçu, eguin behar den poroança daguela concencia unxa chercaturic edo examinaturic becathien cofessatcian eta halaz, çunbait becatu mortal eguin dienac communiatu beno lehen cofessatceco dien obligacionia, guiristinhiko ororendako duçu, becatu mortalen ppenaren pian; eta dembora berian, hura <194> azki duçu gure beithan Sacramendiaren graciaren errecebitceco.

10

Bena çunbat ere egquia den becatu venialec eta becatu mortal eztiren gauça guciec eztutenean Sacramendu horri daguen gracia gal-araciten, eta nahibada estatu hartan hurrantzen denac errecebitzen dien Sacramendu horren graciaren emendiua, Theologie nec dioten beçala, orotarat ere, galtzen ticie chahutarçun eta devocione abororeki Sa-

20

---

10 baliossago: *balios-ago*.

<sup>1</sup> ‘Hemendik aitzinera’ adieran.

1      cramendu hortara hurrantcen direnec gaindica errecebitcen tuzten gracia eta dohain ispiritualac. Eci çunbat ere becatu venialec eztutenecezatzen Gincoaren amoriua, hotzten eta iraunguitzen dicie devocionaren garra, çoin baita disposicioneric hobea Jesu-Christoren Gorpitzçaren dignoki errecebitceco. Halaz, jardirexi nahi bai-tugu gaindiscaco graciak, Sacramendu hortara seindutarçun handi bateki hurrantzen direner Gincoac emaiten thienac, behar diici guc ere communionera hurrandu, ez choilki becatu mortalaren thona orotaric chahu, bena orano becatu venialetaric. Je-su-Christoc berac eman diraguçu dispozitione horren exemplia, Apostolier huinhen ikuzthian communicatceria eman beno lehen, hala eguiñez guri erakazteco —cioço Seint Bernatec— Sacramendu Divino edo Gincoasco hortara hurrantcian chahu içan behar dugula, ez choilki becatu mortal suerte orotaric, <195> bena orano venialetaric, çoinhec segnhalatiac baitira huinher lotzen den erhauxaz.

20     Seint Denis orano aitcinago dihaçu;cioço Jesu-Christoc exemplu hortzçaz gal-datzen diela communiatu nahi dutelaric<sup>2</sup> chahu içaithia, ez choilki becatu venialetaric, bena orano ezkazdura edo imperfeccione thipienetaric, eta bere erranaren poroatceco, ekarten dici Apecec Meça Seindian sacrificio ikaragarria oferitu beno lehen eguiten duten ezkien ikuzthia; eci gogua eman behar dugula —cioço Seindu horrec— Apecec eztutela ikusten ezkiac ossoki, bena erhi puntac choilki, guri era-kazteco chahu içan behar dugula becatu venial thipienetaric eta imperfeccione edo thaka thipienetaric Sacramendu Seindura hurrantceco. Nabucodhonosorrec manu eman cicin hautha citçakoten haur gazte batçu ederrac, thacaric batere gabiac, haren Mahainian cerbitzchatzen ciren janhariz hazteco; çunbat, arren, perfeitago eta ezta-cururic gabiago eztugu içan behar Mahain Seindura hurrantceco? Orhitu behar guindikeci han Aingurien Oguia jaten dugula eta halaz Aingurien chahutarçuna communicatceco uken behar guindukeela.

### <196> BIGUERREN CAPITULIA [II/8/5]

#### **Beste dispozitione suerte batez eta preparacione berheciago batez Aldareco Sacramendu Seindiaren errecebitceco**

30     Seindiec eta bicitce ispiritualaren Naussiec erraiten dicie Gincoasco Sacramendu haren frutu edo prootchu miragarriren aussarki jardiresteco, behar dela orano intxeatu hartara preparatceria manera berheciago batez, errecebitcen den tenorian devocione handi baten ukenez, eta hartaco, heben explicatu behar ci cer den edo certan doon devocione hura eta cer maneraz gutan pitz-araz deçakegun. Seindiec erraiten dicie hartaco hurrandu behar guirela Communione Seindura, lehen gauça, umilitate eta erespeta handireki. Biguerrena, amorio eta fidaincha handireki eta hirurguerrenecoric, Celuko Ogui haren jateko desir, gosse eta gutticia handireki. Nehorc hirur gauça horietan eçar edo cerra cirozkiçu devocionesco seindimendu hun guiac, çoinhen

---

<sup>2</sup> Liburuak *duteneric* dakar eta ez dago *-naric-en* beste adibiderik batere, *-laric-en* hutsa dela dirudi; hona jatorrizkoa: *Saint Denis va encore plus loin, et dit que Jésus-Christ, par cet exemple, exige de nous que nous soyons lavés, non seulement des péchés veniens...* (RD 4, 306-7); liburuan usu dakar “-larik”-ek moduzko balioa; cf. 2.5.12.2.

medioz nehorc pitz-araz baitiro uken behar dien devocionia communione aitcinian, communiatcian eta communione onduan. Nola anitz liburutan idireiten baitira anitz erreflexione net seinduric, hedadura handirekin <197> gauça horren gagnan, ardurakenic eguiten diren çunbaitez heben minçaturen nuçu, çoin net ardura prootzchosse-nac baitira, amorecatic eta heen manera edo moldia erakaxi onduan, batbederac bere beitaric devocionesco seindimendu hetan sartcera inxea dadin. Nehorc bere beitharic hartcen thien gauçac bethiere hobeki edo barnago sartcen ciazçoçu, Seint Ignacioren exercicio ispiritualec erraiten duten beçala.

Lehenic hurrandu behar diici Sacramendu Adoragarri hortara, umilitate eta erespetu net handi bederareki, eta seindimendu horren gure bihotzcian pitzeco berheala goguan har ciroguçu, Gincoaren oroz gagneco handitarçuna eta majestate mugaric gabia, çoin erealgui<sup>3</sup> Eucharistian baita; gu beithan har ciroguçu harc creatu thiela Celia eta lurra bere borondateco nahicunde choil batez, eta sinhex Ainguriac haren presencion erespeluz ikara daudela, eta haren kenhuric thipienian Celuco habiac bel-durrez ikaratcen eta lazten direla. Guero aldi bathian gure burier soguin behar diici gure miseriaren eta apaltarçunaren ikusteco; eta bestaldian sarthu behar diici Evangelian idireiten den Publikanuaren seindimendietan, çoin Aldarerat hurrantcera ez-paitcen menturatcen, ez beguien Celurat alchacera, bena Templucho choko bathian çoolaric, bere boulharrac <198> joiten baitcithien, erraiten cielaric: *Jauna, ukaçu nitçaz pietate, becatore bat bainiz.* Çunbat aldz erranen tiici Haur Prodiguaren hitz hoc: *Jauna, becatu ein dicit Celiaren eta çure contre; ezcitit merechi çure Seme deithatu içaithia; errecebi neçaçu choilki çure etcheço muthil edo cerbitzcharietaric bat beçala;* eta orano anitz aldz erranen tiici bihotcez eta ahoz, Seinta Elizabethec Ama Virginari erran cithien hitz hoc: *eta nunti giten ahal çaut niri gracia hori?* Hun ere dukeçu goguaketa handi baten eguiuthia, Eliçac Evangelioco hitz hotaric idokiric, communione aitcinian erran-aracitcen thien hitzcen gagnan: *Jauna, ni enuçu digno çure errecebiteco, bena erraçu solamente hitz bat eta ene arima içanen duçu sendothia.* Jauna, enuçu digno çure errecebiteco, bena çureganat hurrantcen nuçu cihaurec digno ein neçaçun amorecatic; Jauna, flacco eta eri nuçu eta çureganat hurrantcen nuçu sendotceco eta çutçaz azkarthia içaiteco; eci erran duçu ossagarrian direnec medicu beharric eztutela, eta eriac direla medicu beharretan, eta eriendaco gin içan direla.

Euseba Author batec —çoin Seint Jeromaren dicipulu içan baitcen eta Seindu horren hiltcian lekian idiren baitcen— erraiten dici Seindu handi horrec bere goihencian Jaun Handiaren errecebiteco pundian, alde batetic goguan hartcen cielaric <199> Gincoaren majestate eta huntarçun mugaric gabia, bestaldetic bere bu riari soguin eta erraiten ciela: Jauna, certaco apalcen cira Publicano eta becatoroz batzen hazkurru cerbitzchareranhokuan? Erreguen liburian Iskiritura Seindian errana duçu Davitec Miphibosethi —Jonathassen Semiali— erran ceracola: *ene mahainhan bethiere janen duçu.* Miphibosetec ihardexi ciracoçun: *Nor niz ni, çure cerbitzcharia, çuc niri soguiteco, hor hil baten pare içan eta?* Jonathassen Semiac arrapoztu hori eguiten cienian Erregue bati, bere mahainhera gomitatcen cienian, cer eluke eguin behar guiçon batec Gincoac berac berharen jatera mahainhera gomitatcen dienian?

<sup>39</sup> cerbitzcharia: *cerbitzcharia.*

<sup>3</sup> Liburuak beste hiru aldz dakar *erealgui:* 213, 214 eta 228-n.

1 Bena ezkithakeenaz gueroz behin ere hurrant ahal Mahain Sacratu harc merechi  
dien disposizione ossuareki haren errecebítcera, amenx uken deçagun haren errece-  
bitcian eguiasco umilitate handi bat, eta erran deçagun Daviteki: *Cer da guiçona, çu  
hartçaz orhitzceco? Eta cer da guiçonaren semia, çu haregana giteco?* Edo Jopeki: *Cer da  
guiçona, çuc haren hain grado gorala alchatceco?* Arraçoinheki Eliçac, Gincoaren hun-  
tarçunaz espantathia, goraki erraiten dici horri daucola: *ô endelga eztaiteeken gauça  
miragarria! Cerbitzchari ezdeus batec bere jauna jaten du.*

Biguerrenecoric Sacramendu huntara hurrandu behar diici amorio eta fidaincha  
<200> handireki, eta seindimendu horren gutan biciago eta berokiago ukeiteco, go-  
guan hartu behar diici Gincoaren misericordia eta huntarçun muga gabia, çoin beste  
gauça orotan beno hobeki heben agueri baita, haxarrian erran dugun beçala; eci go-  
guan hori unxa eşarten dugunian, maitatuco diici hainbeste maitatu guithiena eta fi-  
datuco guituçu hainbeste hungui eguin deragunari; bere buria guri eman nahi uken  
dienac, cer ezteragu emanen? Seint Chrisostomac misterio adoragarri horren gagnan  
erraiten dici: badea artçainic bere ardiac bere odolaz haci thienic? Eta certaco minça  
artçainchez? Çunbat emazte ezta bere haurrec sorthu onduan beste emazter haz-ara-  
citcen tuztenac? Jesu-Christoc berac haci nahi uken guitici bere odolaz, eta bere bu-  
riaren hazkurrutan emaitez, berarekin bat eguiten.<sup>4</sup>

20 Gincoac gureganic galdeiten dien hirurguerren gauça Sacramendu Seindu hortan  
duçu, hartarat hurrant guiten gutitcia bero batekin. Seint Augustinec erraiten dici ogui  
seindu horrec jana içan nahi diela guiçonaren bihotzceco gosse handi bateki, eta hala  
nola nehorc apetitureki eta gogotic jaten thien gaucec, comunski hun eiten baitute gor-  
pitzçari, orobat Celuco Ogui horrec hun miragarri bat gure arimari einen dici jaten  
bada gosse handi bateki, Gincoari juntatu nahisco gutiticia handireki, <201> eta hare-  
ganic cerbait gracia berheciren jardiresteco gar handi bateki. Eci Prophetac segurtatcen  
guitici arima gossia<sup>5</sup> unxa asseco diela eta Ama Virginac erraiten diraguçu *gosse çutenan  
huntarçunez bethe thiela.* Celuco Ogui horren gutan gosse haren pitzteco bidia duçu,<sup>6</sup>  
goguan hartzcia alde batetic haren dugun behar handia, beste aldetic, aldiz, gutan ei-  
ten thien hungui miragarriac. Eziici iracurten Jesu-Christo mundu hantan guiçonen  
arthian minço cenian, nehorc auherretan haren socoria galdein diela. Emazte hamabi  
urthe harten odol galciareki cen bat, medikiec ecin sendotu çutena, deuz cithienac des-  
pendiatu onduan, inçunic Jesus han igaraiten cela hurrandu citciacoçun; Jesusen arro-  
paren hatça becic etcielaric hunki, sendotu içan çuçun. Madalena becatoressa ere haren  
huinhetara apaldu çuçun eta hala bere becathien barcamendia uken cicin. Lepraciec,  
Possedithiec, Paralitikuec, Ouxiec, Mainguie, Mouthiec, haregana herssatcen ciren  
beçain fite bere gaitz orotaric sendotcen cituçun, ceren hareganic jalguitcen baitcen  
bertuthe gaitz ororen sendoçale bat; orai ere, Jesus ordian cena duçu: borondate, bo-  
tere bera dici guiza batez, nun hurrantzen baguira Gincoasco Sacramendu hortara sen-  
dotceco gutitcia handi bateki, han idirenen tiici gure arimaco gaitz ororen erremediuaç.

18 berarekin: *berarexin.*

<sup>4</sup> Adibide honetan *bat eguiten* aditzaren laguntzailea elipsian dago.

<sup>5</sup> 23-n bezala, *arima* hitzaren adjektiboa da *gossia*, gosez dagoen arimaz dihardu.

<sup>6</sup> Bestela esan, “gutan zeluko ogi horren gose haren pizteko bidia duzu...”; jatorrizkoan: *le moyen  
d'exciter en nous cette faim du pain céleste* (RD 4, 315).

## &lt;202&gt; HIRURGUERREN CAPITULIA [II/8/6]

1

**Bezte goguaketa devot çumbaitez, çointçaz nehor balia baitate edo cerbitzcha  
Communione Seindura preparatceco**

Anitz erreflexione edo goguaketaren —çoinçaz balia baitate prootzchoski Jaun Handiaren communionian seinduki errecebitceco— hobenetaric bat duçu haren Passione Seindiaz orhitzcia eta bere beithan hartzcia, çunbat amorioreki bere buria guretaco curucificatcera utci dien; eci Sacramendu horren establitcian uken dien chede gueihenataric bat duçu, gure bihotzctan haren Passionieren orhitchapena-ren atchikiratcicia,<sup>7</sup> eta berac manatu diraguçu Sacramendu hura errecebituco guindien aldi oroz, haren orhitchapenetan eguin guindeçan. Joandene Paule Apostoliac ere, ber gauça cioçu: *Ogui hori janen eta Caliça hori edanen ducien aldi oroz Jaunaren hiltciaren orhitchapena eguinen ducie.* Seint Bonaventurac abisetaco<sup>8</sup> emaiten dici passioneco misteriuetaric batetan goguaketacia, nehor comuniatcera joiten<sup>9</sup> den aldi oroz, eta erraiten dici berac hala eguiten ciela eta haren arima amorioz hourtcen cela. Seint Chrisostomac, aldis, cioçu, nehorcomuniatcera joiten den aldical <203> goguan hartu behar diela, Jesu-Christoren sahexeco çauri preciathietan ahua eşarten diela, odola hantic murtzchatcen diela eta odol haren merechimendiez,/guiçoner jar-direxi dereen huntarçun orotan parteliant eguiten dela. Seinta Catherina Siennakuac, comuniatcen cien aldi oroz, goguan hartcen cicin haur sorthu berri bat beçala cela eta bere Amaren dithiaren hartcera çuhela. Çunbaitec comuniatceco tenorian goguan hartcen dicie Jesu-Christo curucificathiac heen bihotzian bere Curutcia landatcen diela, Calbarioco mendian landatu cen beçala, eta curutce haren huinnhetara apaladiac hura bessarkatcen dutela eta hantic erorten diren odol chortac oro, espainhez biltcen tuztela. Beste batçuc goguan eşarten dicie Jesu-Christoc bere Apostoliaki Passioneco besperan eguin cien auharian direla heekin, eta Jesusen ezkietaric haren gorpitzça eta odola errecebitcen dutela. Eguiaz erraiteco, comuniatcia eztuchoiilkia auhari harten igaran cenaren itchurapen bat, bena eguiazki auhari bera duçu eta Ginco harc berac —çoinhec ere ordian bere Gorpitzça eta Odola eman baitcien Apostolier— guri ere emaiten diraguçu Aldareco Sacramendu Seindian huntarçun eta amorio berarekilan.<sup>10</sup>

10

Orano comuniatcera preparatceco manera seindu bat duçu erraitera guatcen pundi <204> hoen gagnan goguaketa eguthia. Lehenic, nor da comuniatcera bere buria emaiten diena? Gauça ororen Creaçalia, Celiaren eta luraren Naussia, Gincoaren beraren majestate muga gabia. Biguerrenekoric, nori emaiten da? Niri, haux eta

20

30

11 Caliça: *Caliça*. 20 çuhela: *cuhela*.

<sup>7</sup> Bakarra da liburuan honelakoa, beste biak bestelakoak dira: *atchikaracitceco* (36); *atchikaracitciceco* (207).

<sup>8</sup> Liburuan *abis* aldaera ez da arrunta, *avis* ibiltzen da; *abisu & abissu* aldaeran ibiltzen da <b></b>.

<sup>9</sup> Jatorrizkoak *vamos à l que l'on va communier* dakar (RD 4, 316); *joiten* hori “joainen”-en hutsa dela dirudi eta ondoko lerroan ere *joiten* dakar. Dena den, liburu hotenan *joiten* ibiltzen denean ‘jo’ adierarekin egiten du eta ez ‘joan’-en zentzuán.

<sup>10</sup> Liburuko *-kilan*-en lau adibideetarik lehena da hau; hona gaineratekoak: *heenekilan* (210), *han-dienekilan* (324), *dereunekilan* (445).

1 erhauxari, eta milatan offendatu dienari. Hirurguerrenekoric, cerendaco emaiten da? Bere Passioniaren merechimendiez eta bere graciaren tressorrez niri parte eguiteco. Ceri daucola emaiten da? Ez berhargatic —ororen Naussi denaz gueroz eta deus-  
sen beharric ezhienaz gagnan—, bena enetaco dien huntarçunagatic choilk, eta ene arima salbathia içan dadin eta beti haren amoriuán edo gracián egon dadin amoreca-  
tic. Laur pundi horien gagnan goguaketac unxa eguin onduan, behar tiici fedesco,  
ezparançazco, amoriozco actac eguin eta horra nola comuniatcera preparatu behar  
dugun.

10 Bena nola guihaur ezpaikitake haren behar beçala errecebítceco behin ere pre-  
para ahal, berac gracia hura eiten ezpaderagu, otoiut behar diici berharc gure ariman  
eçar deçan galdeiten dien umilitate, erespetu, amorio eta chahutarçuna oro; hortaco  
nehor Gincoari berari herssa dieteçu exemplu arrunt huntçaz: Jauna, Erregue handi  
batec joan behar balu alhargun prabe baten etchera ostattatcera, eliroçu utci hari  
berari egon behar dien <205> kambararen edo lekien chuchentcia, bena igor litça-  
keçu bere mubliac eta cerbitzchariac, heen erregue batí eman den beçala eçartera;  
orobat eguin eçaçu, Jauna, ene arimaren alderat han ostattatcera heldu cirenaz gue-  
roz; igor itçaçu aitcinetic çure Ainguriac çure lekiaren han preparatcera, saxukeria  
orotaric —çoïntçaz bethia baita— chahatcera, merechi duçun beçalaco egoitzce bat  
ukan deçaçun amorecatic. Eta guero herssa gütakeçu ama Virginari eta beste Sein-  
dier, coinhendaco baitukegu devocione aboruenic eta umilgi otoituren tiici jardirex  
deçaçuten galdatcen duguna.

Preparacione horiez bestalde, mintçatu behar diici beste batez, net ihi, net  
prootzchoz eta mundu ororendaco anitz consolagarri den batez. Seinditzen eztuçu-  
nian çutan devocione bero eta uken nahi cinduzkeen desircunde garxu hurac —eta  
hain handi den Naussi baten errecebítceco behar cinduzkeenac—, devocione haren  
eta desir heen uken nahia çutan pitzarazteria inxeá cite, eta hala eguiñez çure men-  
xac honituco tuçu; eci Gincoa bihotzçarı diooco, çure borondate huna errecebítuco  
dici, prophetaren erran hoen aravera: *Jaunac inçun tici beharren desirac, çure beharrieç, Jauna, inçun dicie heen bihotzcen preparacionia.* Blosius Autorrac erraiten dici  
gure Jaunac berac erakaxi diela devocione eta preparatce <206> suerte hori Seinta  
Mecthildari eta behin erran ceracola: noiz eta ere errecebítu behar baitukeçu ene  
Gorpitzça eta ene Odola, desira eçaçu ene icenaren ohoretan edo gloriataco ukeithia  
enetaco bihotzçic beruenac secula uken dien gortarçun eta súric handiena, eta ordian  
hurrant citake eneganat fidainchareki preparacione horreki; eci soguinen diracoçut  
ukan nahi cindukeen gortarçunari, cundutan hartuco derauçut eguiazki baicindu  
beçala.

Autor berac hola-holaco gauça bat erraiten dici Seinta Gertrudaz. Sacramendu  
Seindiaren errecebítcera cihaçun egun batez net affligithia edo ppena handitan, har-  
taco azki preparatu gabez; otoiut cicin Ama Virgina eta Seindiac oro, Gincoari ha-  
rendaco ofri ceçaten haren errecebítcera preparaceco egundano eguin cituzten<sup>11</sup>

12 dieteçu: *dietecu*. 15 erregue: *errigue*. 27 bihotzçarı: *bihotzcarı*. 29 Jauna: *Janna*.

<sup>11</sup> OEH-k erakusten du *egundano*-k gehienetan oraineko aditza biltzen duela, baina iraganeko adi-  
tza duten adibide batzuk ere badakartzza; horietarik da *Pratica*-ko gure hau. Hiztegian dakargu *Pratica*-n  
*egundano* bi eratara ibiltzen dela: 1) ‘orain artean’; 2) ‘sekula ordu artean’.

gauçaric merechimenduxienac, eta ordian aguertu citciacoçun Jauna eta erran: orai cira Celuco Gorthiaren aitcinian eguiazki desiratcen cindien beçala preparathia. Mana net hun bat duçu, beraz, comunione seindura preparaceco desiratcia hareganat hurrantcian, seinduric handienec haren errecebitcian uken duten gortarçun gucia eta Gincoari galdeithia, bere Seme Jaunaren merechimendiez honi-araz ditçan hartaco gutan falta diren disposicioniac; orobat eguiñ dieiteçu —bere <207> lekian erranen dugun beçala— errecebitu onduan Jaunaren erremesthiatceco.

Goguaketa suerte horiez inxeatu behar diici gutan pitz-aracitcera Mahain Seindura hurrantcian uken behar dugun devocionia, eta hartaco, bathian batçu, beste aldian besthiac goguan erabili, hobenic idurituco çauzkigun beçala. Bena nola nehor ezpaitate hala prepara hartaco behar den dembora eçarri gabe, halaz behar ci hartu behar den dembora hain handi den obra baten eiteco. Seint Francez Borgiassec comuniona preparaceco eguiñ dien liburian, eçarten dici hirur egun hartara preparaceco eta beste hirur comuniatu onduan erremesthiatceco, eta anitz erreflexione seindu segnalatcen tici, eta anitz devocionesco gauça edo obra seindu —çointan nehor dembora harten goguaketa baitaite— eta dudaric gabe hori lukeçu bide net hun bat, azthiaren<sup>12</sup> devpcionian eta gortarçunian igaraiteco; lehen egunetan, bere Creaçaliaren errecebitceco ezparançan eta ondoxo egunetan, hain hungui handia errecebitu dielacotz placerretan eta ezkerretan: eci biharamunian comuniatceco ezparançac edo besperan comuniatu diela orhitzchapenac berac, azki içan behar likeci bihotzzen devpcionian eta Gincoasco seindimendietan bestetarat barreatu gabe gure atchikaratcitceco. Orotarat ere dembora hora <208> oro comuniatcera preparaceco ezpadêçakegu eman, amenx justo duçu comuniatu behar dugun egunian gure goizcoco otoitzcetic parthe bat iganan deçagun gogueta horietaric çunbaitetan; hun dukeçu ere aitcineco axetic locartcia biharamunian comuniatu behar dugulaco orhitzchapenian. Gabaz iratçarcen baguira ber gauça goguan igaran behar diici eta goizcian beguiac çabaltcen tugun mementuan, hartçaz beraz ispirithia bete behar diici, eci Seint Ignacioc nahi bacien iratçartu onduan berheala nehorc goguan har leçan egun harten ceren gagnan meditatu behar cien, arraçoin bortitzaguaz Sacramendu seindia errecebitu behar dugun egunian, iratçarri onduan hora choilki goguan atchiki behar diici.

1

10

20

30

## LAURGUERREN CAPITULIA [II/8/7]

### Cer eguiñ behar den comuniatu onduan eta nolakuac içan behar duten erremezthiamendiec

Gorpitzceco umoriac igui-araz ditçakeen passee edo beste lan thipi çumbaiten eithia hun baita apairia beno lehen, naturaleçaren berotarçunaren pitzteco orobat hun duçu, Mahain Seindura hurrandu beno lehen, çumbait meditacione <209> edo goguaketa seinduren eguiñia devucionaren<sup>13</sup> sùiaren pitz-aracitcero, çoin arimaren eretician baita, cer ere baita berotarçun naturala gorpitzçarendaco. Jan onduan orano hun duçu cerbait demboraz Gincoareki minçatcia. Hura duçu demboraric baliossena

<sup>12</sup> Asteaz dihardu: *toda la semana / toute la semaine* (RD 4, 321).

<sup>13</sup> Berdin dakar 375-n ere; aldiz, *devocioniaren* bost aldiz: (40, 46 bi aldiz, 194, 228).

1 eta hobenena Gincoareki gure salbamendiaren eitekuן equiteco eta gure hari juntatceco, eta hartacotz, nehorc inxeatu behar ci dembora hartçaz prootzhatcera hartaric batere galdu gabe. Balia cite, beraz, eta ezteçaüla utci hain preciatu den dohain hortaric parteric thipienaren itçurtera.

Hara certaco comunione onduan demborac igaran behar dien cerbait meditacione devot eta seinduren eguiten —comuniatu aitcinian eguin behar dela erran dugun beçala—, eta berheciki ordian Gincoaren laudatcen eta hareganic errecebibu ditugun hungui orotçaz erremezthiatcen nehorc fincatu behar ci, eta berheciki ecin estima daitekeen gure arerosteco hunguiaz, eta comunionian bere buriaren guri emaithian ein deragun graciaz. Orotarat ere, nola guihaurec ezpaitęçakegu neholare çor deracogun beçanbat ezker eman, gure ezkazduren honitzceco ofritu behar dirazcoguć bihotzcez, Ainguriec oroc elgarreki mundia hassiz gueroz beti eman derazceten benedicione eta laudorio guciak, eta orano Dohaxiec bici cireno <210> eman dereztenac, Celian emaiten eta eternitate ortan emanen derestenac oro. Gure intencioniac heenekilan juntatu behar tiici eta Gincoa otoitu, Eliçac Meçaco Prefaciuan eiten dien beçala, mana deçan gure botzçac heeneki hun har ditçan. Guero gomitatu behar tiici guciak gurekin Gincoaren laudatcera eta erran Daviteki: *Jaunaren handitarçuna enekin lauda çacie eta dugun elgarrekin haren icen seindia ohora*. Bena nola Gincoaren eretceco laudoriuac oro ezkaz baitira, eta creatura guciec ein ahala laudaturic ere, çor çacon edo merechi dien beçala behin ere ezpaitirote lauda ahal, behar ci orano desiratu berac bere buria maita eta lauda deçan merechi dien beçala, beraz bes-tec ecin ein diroenaz gueroz.<sup>14</sup>

Biguerrenecoric, comuniatu onduan nehorc ari behar ci Gincoaren amariosco acten eguiten, eci ordian hobekienic nehorc alcha ciroću bere bihotzça Gincoaganaco seindimendu seindietan, çoin baitira haren amariosco actac eta hari juntatu nahisco desir beruac. Ordian erran behar ciacoću Daviteki: *Jauna, ene indarra baitcira, egi-daçu gracia çure beti maithatceco. Ene arima çureganat nahiz beti hazperrapenez dia-goçu, ô ene Gincoa, oreinha ihistariez ahithia iturrietalu heldu nahiz dabilen beçala*.

Hirurguerrenecoric, comuniatu ondoko <211> dembora nehorc eman behar ci Gincoari gracia galdeiten, eci tenore hura hareganic heen jardiresteco eta gure eitekuן Gincoarekin unxa equiteco anitz hun duću. Iskritura seindian errana duću Erreguinha Estherrec —cerbait Erregue Assueri galdeiteco cien aldi batez—, Erreguinha horrec etceracola erran nahi uken berheala cer cen; gomitatu ciela apairu batetala ordian Erregueri erraiteco hareganic cer nahi cien, eta erran cien beçain sarri, galdatu ciena jardirexi cicin. Orobak comunioneo Apairu Sacrathian, çointara Erreguen Erreguia gomitacen baitugu —hobeki erraiteco gomitacen baikitu—, galdeiten derazcogunac oro emanen dirauzkiguću, eci egun hura egun hautu bat duću eta erraiten ahal diracoguću, Jacopec Ainguriari gaua oro harekin borroca eraaunxi<sup>15</sup> onduan erran ceracona: *Jauna, joaitera etcitut utciren çure benedicionia uken artecan*;

---

5-6 meditacione: meditacione. 12 mundia: mnndia.

<sup>14</sup> Jatorrizkoan: *habemos de desear que él se ame y alabé á sí mismo, que solo se puede amar y alabar bastante (II, 418) / il faut de plus souhaiter qu'il s'aime et qu'il se loue lui-même comme il le mérite, puisque lui seul peut le faire* (RD 4, 324).

<sup>15</sup> Aldaera ohikoagoa dakar 438-n: eraaunxi.

edo, Jauna, Zachearen etchen sarthu cinenian erran cindiena: *etche hunec egun salbamendia errecebitu du*, erraçu orai orobat ene arimari, çointara gin baitcira: *çure salbamendia nuçu*.

Orano comuniatu onduan Gincoari galdein behar diici gure becathien barcamendia eta dembora berian, gure passionen garaitceco eta Demoniuer bihurtceco indarra, eta umilitathiaren, obedienciaren, pacenciaren, iraupenaren eta beste bertuthe <212> beharrenic ditukegun<sup>16</sup> ukeiteco edo jardiresteco gracia. Bena guilhauren beçala, otoitu ere behar diici Eliçaren behar ororendaco, Aita Seindiaren, Erregueren, guiristinhiko herri gucico erressumen ispiritualian eta demboralian<sup>17</sup> guidatceco kargua dutenendaco, eta nori ere berheciki obligacione baitukegu, heen ororen, Meçaco mementuan eguiten den beçala eta guero erranen dugun beçala.

1

10

## BOSTGUERREN CAPITULIA [II/8/8]

### Comuniatu onduan Jaunaren erremezthiatceco bezte guiza batez

Çumbaitec comuniatu onduan Gincoa erremezthiatcen dicie erraitera guatcen beçala. Goguan hartcen dicie Jesu-Christo bere beithan edo bere barnian dutela, eta gomitatcen edo deitcen ticie bere arimaco seindimendiak eta gorpitzceco cenxiac oro gitera, communionian errecebitu dutenaren eçagutcerak eta bere Erregue eta Naussitaco eçagutcerak, hala nola munduko/guiçon batetik, etchera gin çäconian Jaun handi bat, erakar bailitçake bere azkaciak haren hunguigintztatcerak eta hari bere einbiden errendetcerak. Guero seindimendu edo senxu guiza harten Jesu-Christoren aitcinera goz edo <213> ispirit[u]alki<sup>18</sup> joan-aracitzen dutenez, hirur gauça eiten dicie. Lehena: Gincoa erremezthiatcen ein dereen hunguiaz. Biguerrena: aithortzen eztirela behar beçala hartçaz prootzhatu eta hirurguerrenian galdeiten graciak ginak den demboraz hobeki baliatceko, eta Seint Ignacioren exercicio ispiritualen liburian oracione edo meditacione eiteko hirur moldetaric lehena duçu.

20

Beste çumbaitec bere botere edo seindimendu guciak hartcen ticie hainbeste errendaco; aldiz, Jesu-Christo, Medicu gaitz guciak sendotzen thien batendako;<sup>19</sup> Medicu divino hori erabilten dicie bere bertuthen ezkaztarçunetan aldi aldizca —hala nola Hospitale batetan medikia eritic erira joan-aracitzen baitute— eta erraiten Jésus-si: *Jauna, çauri, soiçu, nitçaz pietate ukaçu eta ene flakeciez; ene arima eria sendo çäcu;* eta orhitu behar ci ordian Jesu-Christo bere beithan diela, ez choilki Ginco beçala —çoin leku orotan baita— bena orano Guiçon beçala, çoinhen guiçontarçuna edo gorpitzça eta arima idireiten baitira eguiaski eta erealgui, comuniatu onduan Sacramendu horren iduriec irauten duten beçanbat, erran nahi baita, itchurapen horieci

30

<sup>16</sup> Komunzaduragatik genitiboan beharko lukeela dirudi.

<sup>17</sup> Jatorrizkoak honela dio: *y por todos los que gobiernan la república cristiana, en lo espiritual y temporal* (II, 419) / *pour tous ceux qui gouvernent la république chrétienne, ou dans le spirituel ou dans le temporel* (RD 4, 325).

<sup>18</sup> Liburuko gainerateko hamaika adibideetan *ispiritualki* dakin.

<sup>19</sup> Jatorrizkoei begira hobekixe ulertzan da: *otros imaginándose enfermos en todos sus sentidos y potencias, como Cristo es médico que sana todas las enfermedades* (II, 419) / *quelques autres considèrent toutes leurs puissances et tous leur sens, comme autant de malades; et regardant en même temps Jésus-Christ comme un médecin...* (RD 4, 326).

1 segnhalatcen duten Oguiac —ezten beçala<sup>20</sup>— idireiten baliz Ostia Seindian gure estomakian iraun liroen beçanbat.

<214> Imagina seindu baten ikuzthiac<sup>21</sup> gure beithan sar-aracitcen baguitu eta devocione emaiten, cer eluke egun behar Jesu-Christo bera, bere içate Gincoaskuan gure barnian present dugula jakithiaz? Hartakotz batbederac sognin beça ordian bere beithan dienari, eta inxea bedi Jesu-Christoren eretcera, Ama Virginac sabelian cienian cithien ber seindimendien ukeitera. Minça bedi bere Jesus maithiareki eta erran beça Cantiketaco Espossareki: *idiren dut ene arimac maite diena*, atchikiten dut eta eztut utcico joaitera. Çumbait Theologienec erraiten dicie gauça bat, çoinhec ekar baikiçake orano dembora abororen Jaunaren erremezthiatcen egoitera. Ciocie Sacramentu Seindiaren iduriec irauten duteno, eta Jesu-Christo erealgui gure barnian present deno, çumbatenaz ere aboro acto suerte hetaric nehorc eguiten baitu, han-batenaz aboro gracia jardiresten diela, ez choilki actuen merechimendien medioz, bena Sacramendiaren bertuthez, lehen erran dugun beçala comunionera preparatziaz minçatu guirenian.

20 Hortic nehorc eçagut ciroçu çoinhen gaizki eiten duten galcera uzten dutenec dembora bat, çointan hainbeste irabazteco baita, eta arroz<sup>22</sup> handi bat bere bei-tan errecebitu beçain fite, guibela itçulcen baiteracote; kasic hura bortha batetic sarthu <215> den mementuan, beste batetaric jalguiten baitira, eta çoinhec hotzki eta bertaiteric egun gabe errecebitcen baitute. Mundairen aravera onestathiac galdeiten badu gende consideratu bat ikustera giten çaukunian, hari minçatcia, com-pagnha atchikitcia, gure cerbitzchien hari ofritcia, cer içan behar luke Gincoaren eretcian?

Surius Author batec erraiten dici, Seinta Margarita Hongriaco Erreguinaren alabac, comuniatu behar cien aldi oroz, besperatic hurian eta oguian barour eguiten ciela eta gaua oro otoitzcetan igaraiten, biaramunian Jaun handiaren errecebitceco, eta comunioneoco eguna ossoric otoitzcetan ax arthio emaiten ciela eta ordian cerbait hazkurru hartcen.

## SEIGUERREN CAPITULIA [II/8/9]

### 30 Comunione seindutic idoki behar den fruthiaz edo prootzhiaz

Seindiec explicatcen thuztenian Sacramentu Seindiaren bertuthe miragarriac, ezticie choilki explicacione horiec eguiten guri erakasteco Sacramentu horren han-ditarçuna eta excellencia, eta hori establi-araci deracon Gincoaren amoriuia, bena

23 eretcian: *er etcian*. 27 ax arthio: *ax-arthio*.

<sup>20</sup> “itxurapen horiek seinalatzen duten Ogia gure sabelean iraun lezakeen bezanbat Ostia Sainduan egon baledi, zeina ezpaita horrela” ulertzen dugu guk; hona jatorrizkoak dioena: *por todo el tiempo que duran las especies sacramentales, que es por todo el tiempo que durará la sustancia del pan, si allí estuviera (II, 419) / et qui y demeure autant de temps que durent les espèces sacramentelles; c'est-à-dire, autant de temps que la sustance du pain pourrait y durer si elle y étoit* (RD 4, 327).

<sup>21</sup> Ikusteaz dihardu, ez da garbitzeaz ari.

<sup>22</sup> Grafiak adiera lausotzen du, baina arrotzaz dihardu: *huesped / hôte* (RD 4, 328).

1 hain aitcina nahi uken diragucie <216> eçagut-araci hartaric idoki behar guindien prootzchia, eta arraçoin beraz eta hartacotçat, heben minçatuco guituçu prootzchu hetaric çumbaitez. Sacramendu Adoragarri horrec, beste Sacramendiec beçala gracia emaiten edo amenx emendatcen dici dignoki edo behar beçala errecebítcen dutener, bena orano badici beste dohain bat hari berari daguena eta beste Sacramendiec eztutena, eta dohain hori Theologienec deitcen dicie janhari edo hazcurru ispirituala, cernen arima hazten baitu, azkartcen eta Demoniuaren atakien bihurtceco eta bertuthia-ren bessarcatceco indarrac emaiten.

10 Anitz Seinduc explicatcen thuztenian Jesu-Christoren hitz hoc: *ene Haraguia eguiazco janharia da eta ene Odola eguiazco edaria*, erraiten dicie, cer ere gorpitzçaren hazkurriac naturalki gure gorpitzcian eguiten baitu, celutico hazkurru horrec ispiritualki gure arimetan eguiten diela. Florençaco Conciliuac gauça bera erraiten dici, eta aboro. Cioçu Jesu-Christoc nahi uken diela establitu Sacramendu hori Janharien idurien pian, amorecatic iduri edo itchura hec eçagut-araz leçaguten gutan eguiten cithien prootzhiac, eta gure arimendaco haren<sup>23</sup> guindien beharra. Halaz, gorpitzceco hazkurriac gorpitzça jassaiten<sup>24</sup> dien beçala, indarrac emaiten eta handi-araciten adin eta handitarçun <217> batetaranocuan; orobat ere Gincoasco Sacramendu horrec arimaren bici ispirituala atchikiten dici, indar galdiac berritcen eta emendatcen bertuthian perfeccione osso batetaranokuan. Hori duçu Oguia, guiçonaren bihotzça gortzzen eta azkartcen diena eta hartaric jan onduan, behar diici Eliac beçala Horebeco borthu seindura heltceco indarrac hartu.

20 Gorpitzceco janhariac orano haur badici bere beithan: hanbatenez ere jathian placer aboro eiten dici, çumbatenaz ere goçuago baita eta jaliac jateco dheia edo ezkenia handiago baitu. Orobak duçu celutico hazkurru hortzçaz: etci choilki erecebítcen diena jassaiten, hunian iraun-aracitcen, azkartcen, bena orano goço miragarri bat emaiten; eta hara cer segnalatcen cien Jacopek hiltcerakuan bere haurrer eman cien benediccione batetan, çointan ordiandanic erraiten baitcien cer helduco cen graciaso leguiian —erran nahi baita gure legue seindian—, eci Aser bere semia benedicatu cienian, erran cicin: *Aserren ogua net hun dateke, Erreguen dezcanxiac eguienen tu*. Jesu-Christo duçu Ogui hora, eta Ogui bat duçu —cioçu Seint Thomasec— çoinhen goçua nehorc erran diroen beno hobiago edo miragarriago baita, haren behar beçala erecebítceco goçua galdu eztutendaco; eci arima Jesu-Christo erecebítcen dienac, Sacramendu <218> haren medioz goçatcen dici eztitarçun ispirituala ithurrian berrian, çoin baita Jesu-Christo, eta eztitarçun hora hain handi duçu, nun çumbait aldz hedatcen baita gorpitzcerano, Daviten erran hoen aravera: *ene bihotzça eta ene haraguia allegueratu tuçu Ginco bici denian*.

30 Hanti giten duçu —cioçu Seint Bonaventurac— ardura bere buria flacco idireitzen dienac Mahain Seindura hurrantcian, han caussitcen baitu hainbeste consolu eta eztitarçun Celuko hazkurru haren medioz, nun hantic jalguico baita flakeiaric batera uken ezpailu beçala. Guimond Aversaco Apezpiac, Naplassoco<sup>25</sup> Erressuman,

<sup>23</sup> Arimarentzat hartaz genuen beharraz dihardu; adibide honetan *haren ez* da genitibo destinatiboa, “haren beharraz” dihardu.

<sup>24</sup> Erabilera honetan eta 217-n ‘elikatzea’ adierazten du; hortik goiti, *jasan-en* adiera ohikoagoa ere bada *Pratica-n*; ikus hiztegian.

<sup>25</sup> Jatorrizkoak Naples dakar frantsesez, Napoli (RD 4, 331).

1 iskiribatcen dici noizpaizco Ermithanec hainbeste consolu eta indar jardiresten çutela comunione seindian, nun hetaric çumbait beste hazkurruric batere hartu gabe bici baitciren comuniatcen çuten egunian, eta aldis, comuniatcen etçuten eguneitan, flakecia eta augadura hilgarri bat seindi baitçuten; erraiten ere dici hetaric çumbaiti Ainguru batec egun oroz ekarten ceracola Osthia Seindia,<sup>26</sup> egoiten cen lekura. Errana duçu Cistauco Ordreco Chroniketan —erran nahi baita gauça miragarrien iskiribietan—, fraide batec comuniatcen cien aldi oroz seinditzen ciela ezthi jan bailu beçalaco eztitarçun bat, eta hirur egunez eztitarçun haren goçuac irauten ceracola.

10 <219> Celuko Ogui horren huntarçun miragarriez erraitetic giten guirenaren araveria, hortaric idoki behar dugun fruthia edo prootzchia duçu, courage<sup>27</sup> handi bat bethi Gincoaren bidian aitcina joaiteco, indar eta bertuthe azkar bat gure passionen hezteco eta Demoniuaren atakier bihurtzceco; eci Jaunac preparatu diraguço Mahai Seindu hori gaizki cherkatcen guituzten ororen contre,<sup>28</sup> eta hartacotz, Seint Chrisostomac erraiten dici Mahain hartaric jeiki behar dugula lehoin batçu beçala, beguietaric sūia aurtikiten edo egozten dugularic eta Demoniuaren beraren ikaragarri. Jesu-Christoc berac Sacramendu Seindu horren indarra azki erakaxi dici noiz eta ere Dicipulier comuniatcera eman cereen onduan, erran baitceree: *jeiki citezte, gouatcen hebentic*; erran baileree beçala: orai comuniatu ducie eta azkar cirete, *jeiki citezte, guatcen sofritcera*. Ikuzten ere diici, Eliçaren haxarrian, Sacramendu Adoragarri hori ardura erecebitzen çuten dembora hartan, fidelac azkar cirela ez choilki Gincoaren leguiaren beguiratceco, bena orano Erregue heir injostoki gaizki eguilien errabiaren pacienki sofritceco, eta Jesu-Christoren fediaren amorecatic bere bicien courajozki emaiteco.

## <220> ÇAZPIGUERREN CAPITULIA [II/8/10]

### **Ardura comuniatcia eremedio handi edo askar bat dela tentacione suerte ororen contre, eta berheciki garbitarçunaren beguiratceco**

Seindiec erraiten dicie ardura Aldareco Sacramendu Seindiaren erecebitcia eremedio handi bat dela tentacione ororen contre, ceren arimaren azkartiaz eta Gincoaren borondathiaren gogoticago egithiaz beztalde, gure passioniac eta habituda edo costuma gaizthuac flakatcen baititu, eta becathiaren edo gure naturaleça gaizthuaren inclinacioniareni sūia —çoin baita gaitz ororen errua— hertzen baitu. Seint Thomas eraiten dici comunioniac gure tentacionetaric librataceco edo beguiratceco dien botheriaren arraçoinhetaric bat dela, ceren Jesu-Christoren heriotciaz Ifernia bencithia içan baita, eta Sacramendu Seindu hori haren heriotciaren berriapen eta itchurapen bat delakotz, Demoniuec haren Gorpitzça eta Odola gutan ikuz beçain fite, ihez eguiten dutela eta gure Ainguru beiraler eta laguntzen guituztener bere

<sup>26</sup> Osagarri zuzena da *Osthia Seindia*; ondoko koma guk eazarria da, ez dadin uler “ostia saindua egoten zen lekura”, baizik eta “haiatarik zenbait egoten zen lekura eramatzen ziola osthia seindua”.

<sup>27</sup> Hain segur, *a-reñ ondotile frantseseko txistukaria identifikatzuen zuen itzultzaleak eta frantsesaren grafiaren arabera idatzi zuen, baina ez dugu uste itzultzaleak gogoan [kuray] zuenik.*

<sup>28</sup> Etsaiak dira horiek jatorrizkoetan: *para vencer á todos sus enemigos* (II, 422) / *contre tous ceux qui nous tourmentent / aduersus eos qui tribulant me* (RD 4, 332).

plaça edo lekia uzten. Arraçoin hortzçaz Seint Ignacio Martirac eta Seint Cirillec avis emaiten dicie ardura comuniatcia Demoniuera ihez-eraiteco. <221> Seint Chrisostomac, aldiz, cioçu, legue çaharrian achouriaren odolac —etchecho borthalburietan ecarriac— cienaz gueroz indarra etchetan ciren libratceco edo beguiratceco Ainguru hiltçaliaren ezpatatic, cer bertuthe eztu uken behar Sacramendu Seindu horrec, çoinhen itçala becic ezpaitcen achouri haren odola?

Bena berheciki Seindiec erraiten dicie oros gagneco erremedio bat dela lohikerriaco tentacionen contre, eci gure beitaco seindimendu likixac apaitceatcen tici, becathiaren sûtheia flakatcen eta placer gaizthuen sôia hiltcen, hurac sôia hiltcen dien beçala. Cenxu hori emaiten dicie Seint Jeromac, Seint Thomasec eta beste anitz Seinduc Zacharia Prophetaren hitz hoer: *cer ere hunic, cer ere ederric baita, ezthea içaithia Hautathiac, eta Seindiac eiten thien Oguia eta Virginac eguiten thien Anua?* Erraiten dicie Aingurien Ogui horren bertuthia dela Virginen eguthia, eta hala nola gorpitzceco hazkurria hun denian, odol eta umore hunac eguiten baititu, orobat hazkurru ispiritual horrec gutara erakarten thiela seindimendu garbiac eta chahutarçun osso batetaco penxamendiac. Hori duçu irina, çointçaz Elizea Prophetac kendu baitcien Propheten haurrer emaiten çuten haraguien karaztarçuna oro.

Seint Cirillec erraiten dici Celuco hazkurru horrec seindutcen diela arima, eta <222> hain aitcina<sup>29</sup> gorpitzça eta halaz, Eliçac Gincoari eiten deracon galdua<sup>30</sup> —Meça Seinduko Sacrificiu içan dadin arimaren eta gorpitzçaren salbagarri— os-soki complithia idireiten duçu. Hala nola Cananeaco emazthia Jesu-Christoren arroparen hatzça hunki cien dohainian sendothia içan baitcen bere odol galtcetic, eta nola Jordaneco ouhaitzceco hourac baratu baitciren Arka Seindia hartan sarthu beçain sarri, orobat Jesu-Christo gutara jin denetic tentacioniac oro apaiceatcen tuçu eta becathiaren sôia iraunguitcen. O frutu baliossa, cioçu oihuz guïçon seindu batec! O fruthu preciatia, virginitathia ekarten dien fruthia! Beste Author batec erraiten dici eztela erremedio hoberic garbitarçunaren beguiratceco, eci ez ardura & unxa comuniatcia.

Nicephora Calixta Autorrac, Gregorio Toursekua eti beste anitzcet erraiten dici gauça miragarri bat heldu cela Constantinoplan, çoinhec unxa poroatcen baitu Sacramendu Seindiaren bertuthia hedatcen dela arimala, bai eta gorpitzcera. Greçiaco Eliçaren costuma duçu Ogui alchatutic eta jaten dugunetic consecratcia; populiari comuniatcera eman onduan, Ogui sacratu hartaric baratcen ciren undarrac, haur gazte barour ciren batçuri emaiten cititcien jatera eta Nicephora horrec berac cioçu, haurrian anitz aldiz eman ceracotela. Aldi <223> batez, beste anitz aldiz beçala ppartitu cirestecien haurrer undar preciatu hec; heen arthian guertatu çuçun Mahain Seindian Judio beire eile baten semia, çoinhec bestec beçala comuniatu baitcien. Eliçan cerbait dembora egonic, beztorduz beno berantago etcherat joan çuçun. Gal-

34 haur: *haurr.*

<sup>29</sup> Liburuak eta eta gorpitzça artean *hain aitcina* dakar, baina sintagma honek inprimategiko istripua dirudi, jatorrizkoan ez baita honelakorik deus ere: *vino á decir S. Cirilo, que este divino Sacramento, no solo santifica el ánima, sino tambien el cuerpo* (II, 423) / *Saint Cyrille dit que non seulement cette nourriture céleste sanctifie l'âme, mais qu'elle sanctifie aussi le corps* (RD 4, 335). Iku 215 bukaeran *hain aitcina*.

<sup>30</sup> Hitza galdu da: 'egiten dion eskaera'.

1 deiten diracoçu aitac nun egon cen; semiac ihardezten diracoçu Guiristhinuen Eliçan içan cela eta han haurrer emaiten çuten oguitic jan ciela. Aita hori berheala coleretan den handienian semiaren contre jarten duçu; mement berian, beiren erraraticiceco labia sütan baitcien, semia harat aurthikitcen dici eta labe bortha cerratcen. Ama hirian baitcen, gin onduan bere semia etci etchen idireiten, eta nola baitçakien beste ordiez tenorezago itçulcen cela, alde orotarat haurraren cherka apariatu çuçun, eta auherretan anitz cherkatu onduan, dessolathia eta arraz afflithia etcherat itçuli çuçun. Hirur egunen burian, nola bere semiaren galciaz ecin consolatcen baitcen, eta suertez labe haren borthan semiaren deithoratcen ari çuçun, nigarrez bere buruco bilhuac 10 idokiten cithielaric, eta semia bere icenaz deitcen cicin. Aitac eçarri cien labe barnefic semiac ihardezten diracoçu; esthonathia duçu, beldurrez eta esparançaz bihotzça nahassia lazter eiten dici labe bortharen idokitera eta bortha ideki onduan, ikuzten <224> dici sūiaren erditi bere semia jalguiten dremendena edo batere erria içan gabe. Galdeiten diracoçu norc erracetci beiratu dien; erraiten diracoçu: ezkarlethazco arropa eder batez bestituric cen andere eder batec socorritu eta erracetic beiratu nici, hora ardura sūrat aurthikis edo ichuriz sūia hiltcen ciradaçun eta behar nien aldi oroz jatera emaiten. Berri hori eman cireeçun<sup>31</sup> Justinien Emperadoriari, çoinhec bathea-araci baitcithien ama semiac, eta aita malurossa —ezpaitcien nahi uken convertitu—, arbole batetaric ourkaraci<sup>32</sup> cicin semiaren hilçale beçala. Cer ere Ostia Seindiac haur haren gorritzian ein baitcien sūiaren erdian erracetic beirathuz, gauça bera ispiritualki eiten dici behar beçala comunitatcen dutenen arimetan, seindu eta ossoki beirathuz becatiaren sūiaren eta tentacionen erdian.

---

<sup>31</sup> Datibo singularra itxaron genezake, “zirakozun” erako zerbait.

<sup>32</sup> Liburuak *ourkararaci* dakar, eta *rara* hori lerroaren hasieran dago, gainera; non eta ez den “urkara-(e)razi”, liburukoa hutsa behar du. Esaterako, *Charlemagne* pastoralak *urkharaci* dakar (Oihartzabal 1991: 367).

V. MEÇA SEINDIAZ



### Nola inçun behar den Meça Seindia

Heben explicatu behar diici Meçaren seinduki inçuteco manera. Hartakotz, minçatuko guituçu berheciki hirur gauçaz, Meça inçuten dugun aldi oroz eguin ditçakegunez, eta errespeturekin eguin behar tiici, Eliça Seindiac berac erakazten de rauzkigunaz gueroz. Lehenbicoric gure beithan hartu behar diici Meça dela Jesu-Christoren Passione Seindiaren itchourapen bat, çoinhec nahi uken baitu berritu hartçaz gure ispirithian bere amoriuaren eta ppenen orhitzchapena, gure orhitzchapen hartçaz ekartzceco haren maithatcera eta garxukiago cerbitzchatcera eta Judiuen ezkergabetarçunetic beiguiratceco.<sup>1</sup>

Horren aravera guc Meça Seindiaren inçuthian eiten ahal dugun gauçaric hobenenetaric bat duçu, attencionereki goguan erabilthia Passione Seindiaren MISTERIEN, çoin hartan araberrithiac<sup>2</sup> baitira eta hetan goguaketathuz, Gincoaren amariosco actuetan <226> eta haren fidelki cerbitzchatceco eressolucionetan gortzceco. Nola Meçan eguiten eta erraiteen diren gaucen endelgatcia anitz hartaco balia baitate, hun duçu heben aitcinetic heen explicatcia cer segnalatcen duten, amorecatic eçagutce harc aboro ekar guitçan Misterio Seindu hec segnhalatcen eta berritcen thuzten gaucen meditatcera edo goguaketatcera, eci Meçaco hitz eta obra guciec cerbait gauça seinduric eta misteriosic segnhalatcen dicie. Heben utciric heuzcarala itçultcen du dan liburian idireiten diren misteriuen explicacionia Apeçac Meçaren erraiteco arrabeztitcian hartcen dien aropetan<sup>3</sup> gagnan, choïlki minçaturen nuçu Apeçaren Meçaren erraithian eta haren cerbitzcharien hitzcec eta obrec edo ceremoniec segnhalatcen duten Misteriuez.<sup>4</sup>

<sup>1</sup> Liburuko *beigiratze* bakarra da, gainerateko guztiak *be(gu)ira(tu)* dira; *beiratu* eta *begiratu* gurutzatu ote dira? Hego-nafarreraz bada *beigi* ‘begia’ aldaera xix. mendean, baina ez dirudi horrek gure *beigiratu* honekin inolako loturarik duenik.

<sup>2</sup> Liburuko beste hiru erabilerek “arraberritu” dakarte (60, 139, 234); ikus ondoko orrialdean *arrabeztitcian* ere.

<sup>3</sup> Liburuko 124-n bezala, <r> dakar <rr> beharrean.

<sup>4</sup> Komunztadura-arazoa dago perpaus honetan; *choïlki minçaturen nuçu* [Apeçaren Meçaren erraithian] eta ... [Misteriuez] lotu direla dirudi; *Apeçaren Meçaren erraithiaz* balitz gauzak hobeki ulertuko lirrateke. Atal honek euskal itzultzzaileak egin duen laburpena aipatzan digu, apezaren jantzia gaia alde bat utzik duela; laburpenaren pasarte hau ez da jatorrizko testuan ageri.

1 Meçaren haxeco cantarien canthiac segnhalatcen dici Patriarcha çaharrac,<sup>5</sup> çoinhec Jesu-Christoren githia igurikitzen baitçuten eta çoin galdeiten baitçuten Aita Eternalari, hitz hotzçaz: *igor eçaçu, Jauna, Achouri lurraren Naussi gueihena;*<sup>6</sup> *othoi çabal bite Celiac eta jeux dadila;* eta Meçaren haxeco ber canthia bietan erraiten dicie, erakasteco çoinhenbeste desiratcen çuten Salbaçale jaunaren githia eta çoinhen ardura Gincoa otoitzcen çuten haren jardiresteko... Apeçac Meça haxian erraiten dien *Confiteorrac* guïçon becatoroz <227> beçala, segnhalatcen dici Jesu-Christo nahi içan dela gure becathiez kargatu eta pagatu, eta nahi uken diela becatoroz baten igaran, gu justo eta seindu içan quinten... Eta *Kirie-Eleisonac*, çoinhec erran nahi baitu, Jauna, ukaçu gutzçaz pietate, segnal[a]tcen dici gure estatu miserablia, çointhan baikinen Salbaçale Jauna gin beno lehen. Luce lukeçu hitz eta ceremonia oroc bederaca cer misterio segnhalatcen duten explicatcia, bena oroc segnhalatcen dicie cerbait mistériosic; orai berian, Curutciaren segnale Apeçac Osthieren eta Caliçaren gagnan eguiten thienec, segnhalatcen dicie Jesu-Christoc Curutcian sofritu cithien ppena liffrentac. Consecracioniaren onduan Osthia Seindia eta Caliça gora altchatcen ticie, hanbat populiac Gincoaren Semiaren Gorpitzça eta Odola adora ditçan, nola orhit-aracitceco Judiuec cer eguiñ çuten, noiz eta ere Salbaçaliaren Curutcia goiti altchatu baitçuten mundu orori erakasteco.

20 Batbedera bere hautura goguaketa dieiteçu Misterio horietaric bat edo bien gagnan eman dugun explicacioniaren aravera, eta berheciki nehorc behar ci inxeatu meditacione horren berharen prootzchoz eguitera, ahala oro eguiñez Gincoaren Semiaaren amoriuari eta haren hunguier ihardezteco. Hala eguithia anitez prootzchozago duçu, eci ez anitz Misterioren <228> gagnan arhinski igaraithia. Horra Meça Seindiaren inçuthian nehorc eguiñ diroen lehen devocioniaren obra.

30 Biguerren eguiñ daiteen devocione eta biguerren Meçaren inçuteco manera orano net prootzchoz eta hun duçu, eta nolaco den unxa endelgatceco bi gauça jakin behar tiici: lehena Meça eztela choilki Jesu-Christoren Passione Seindiaren, eta Sacrificio<sup>7</sup> —çointan Curutcian offritu baitzen bere Aitari gure becathiendaco— orhitzchapen bat eta idurisco berriapen bat, bena eguiaski eta erealgui orduco Sacrificio bera dela eta bertuthe eta precio edo baliostarçun bera diela. Eta biguerren jakin behar den gauça, Apeça bera minçaturic ere sacrificio hortan, eta harc berac hura offeritric ere, Meça inçuten duten oroc Apeçarekin bathian oferitzen dutela. Hori hala denaz gueroz, erraiten dicit Meçaren inçuteco maneraric edo bideric hobena dela, Apeçari Sacrificiuan edo Meçan juntatcia eta halaz haren seguitcia, goguan hartcen dugularic —eguia den beçala— ordian oro elgarrekin Eliçan bildiac guirela, Meçaren inçuteco beçala, orano Apeçari juntaturic Jesu-Christoren Gorpitzçaren eta Odolaren Sacrificio Adoragarriaren oferitceco. Hartaco ere, amorecatic populia dispoza ahal dadin Apeça beçala Eliçac hartaco galdeiten dien preparacioniarekin, Apeçac erran behar

20 inxeatu: *in-Keatu.* 21 berharen: *ber-haren.*

<sup>5</sup> Jatorrizkoaren arabera adizkiak osagarri plurala beharko luke: *nous représente les anciens patriarches qui attendaient...* (RD 4, 377).

<sup>6</sup> Ez da *axuri lur* hitz elkartua, “lurraren Nausi gehiena den Axuria” baizik; cf. jatorrizkoan *l'agneau dominateur de la terre* (RD 4, 377) edo latineko *agnum dominatorem terrae*.

<sup>7</sup> *Sakrifizio* hitza genitiboan balego komunzadura hobeki geldituko litzateke, baina ondoko perpaus erlatiboa zaildu duke atzizki genitiboa agertzea.

<229> tici preparacione hari daucolaco hitzçac botz clar eta inçun daiteen beçala, eta preparacione hori hain çuhurki manathia içan duçu, nun han eguiten eta erraiten di-renac oro Apeçaren eta Meça inçüliarren disposatceco baitira, Sacrificio adoragarri haren offeritceco guiçonac ahal dukeen respectu eta devocioneric handienareki.

Hunen ihikiago eguiteco jakin behar diiici Meçan badirela hirour pparthe principal. Lehena meçaren haxetic Oferendala artekua, eta hori fidelen Sacrificio haren dignoki oferitceco preparacione bat beçala duçu, eta hori eguiten duçu Psalmetaric hartcen diren çunbait otoitzça laburrez, Apeçac Aldarerat igaran beno lehen erraiten dien *Confiteoraz* eta guero *Kirie-Eleison* otoitzçaren anitz aldiz erranez, çoinec Jesu-Christo gin beno lehen guinen eztatu miserabliaren segnhalatciaz bestalde, erakasten ere bainteragu Gincoari eiten tugun galdo orotan, gure esparança haren misericordian choilki eçarri behar dugula. Guero *Gloria in Excelsis* erraiten dicie Gincoaren glorificatceco haren Seme bakoitzçaren Incarnacioniaz eta eskerren emaiteco hain handi den hungui batez, eta ondotic erraiten dicie Oracionia, çoinhen haxarrian orhitu behar dicie Apeçac ezthiela erraiten *otoitzcen dut*, bena *otoi deçagun*, ceren eguiazki Meçan direnec <230> oroc harekin otoito behar baitute eta ororen icenian Oracionia erraiten baitu. Horren devocione abororeki eiteco Apeçac populiaganat berthaitez itçuliric, berheala Ispiritu Seindiaren lagunça galdeiten dici hitz hotçaz: *Jauna dela cieki* eta Populiac ihardesten: *içan bedi ere çure ispirithiarekin*.

Epistolac segnhalatcen dici Legue çaharreco ordenhiaren<sup>8</sup> doctrina eta Joandene Joane Batistarena, çoin baitcen Evangelioco doctrinala preparaceco beçala. Epistolaren onduan erraiten den Gradualac eta otoitzçac segnhalatcen dici Joandene Joaneren peredicuti landan populiac eguin cien penitencia; Graduel edo otoitzça hartaric landan erraiten den *Alleluyac* segnhalatcen dici arimaren alleguerancia edo bozkariua, noiz eta ere uken edo jardirexi baitu bere becathien barkamendia penitenciaren medioz. Evangeliuac segnhalatcen dici Jesu-Christoc erakaxi dien doctrina; Apeçac, erran beno lehen, liburiaren gagnan eguiten dici Curutciaren segnhalia, ceren Jesu-Christo curucificathiac behar bainteragu peredicatu eta guero eiten dici Curutciaren segnhalia belarrian, ahouan eta estomakan; halaber populiac eiten dici, eta hori duçu guiristinho oroc eiten duten declaracione edo aitortzce public bat beçala, Jesu-Christo bere bihotzian karreatuco dutela, eta promettatcen dutela goraki ahoz mundu ororen <231> aitcinian haren aitortzceco eta aithor edo fede hartan hiltceco. Evangeluan, Eliça handietan edo Cathedraletan ganderac pitzten ticie erakazteco doctrina hura ari-men arguia dela, Gincoaren Semiac mundura ekarri dien arguia Mairien<sup>9</sup> arguitceco eta Iseraeleco Populiaren gloriataco; eta Evangelia çuti inçuten duçu, erakasteco beti prest egon behar guirela gogotic hari obeditceco eta haren sustengatceco.

*Credua* erraiten duçu, çointan baitaude gure fediaren pundu edo articulu eta misterio principalac, çoin baita Evangeliuaren dotrinatic idokiten dugun fruthia,

18 hotçaz: *hotçax*.

<sup>8</sup> Jatorrizkoak honela dio: *la doctrina del viejo Testamento / la doctrine de l'Ancien-Testament* (RD 4, 380). Eguzkialdeko euskal mintzoetan *ordeñu* 'hondarreko borondatea' da, 'testamentua'.

<sup>9</sup> Itzultzaleak hitz espezifikoagoa ibili du jatorrizkoak dakarren "jentilak" baino: *pour la révélations des gentils* (RD 4, 381). Gaztelaniazko jatorrizkoan latinez dator: *lumen ad revelationem gentium* (II, 446).

1 eta hortan akabatcen duçu meçaren lehen pparthia, çoin bestalde deitcen baita Batteatcekuen<sup>10</sup> Meça, ceren Eliçaren haxarrian, bateatu nahi cirener —ala ciren Judio, ala Mairu— epaitcen permis pparte horren inçuthia becic, Gincoaren leguiaren edo hitzçaren ikazteco.

10 Biguerren Meçaren pparthia Oferendatic Paterreranokuan duçu eta deitcen duçu purki<sup>11</sup> Sacrificiuaren Meça, çointhan ecin idireiten baitira Guiristinhuac becic, eta hartakotz, Eliçaren lehen demboran Evangeliu cantatzen cien Ministruac manatzen citicin goraki Bateatu etcirenac Eliçatic jalguitcera, erranez: *quazte, Guiristinhuen Meça haztera duha*, endelga-araci nahi baileree beçala ordian Meçaren <232> hazterra çuatcela, erran nahi baita Sacrificiuaren, çointan present içaithia epaitzcitzeen permis. Hori duçu Meçaren hirur pparthetaric principalena, ceren hortan eguiten baita Consecracionia eta Apeçac ordian oferitzen baitu Aita Eternalari becathien bar-kamendiaren jardiresteco Sacrificiu. Ordutic hazten ere duçu ahapetic minçatzen Sacrificiuaren tenorera hourran delakotz eta otoitzcen emeki erraiten, Meçan direnec inçün eztiroten beçala eta hori Jesu-Christoc eguin cien beçala eguiteco, çoin Passioniaren aitcinechian joan içan baitzen Ephremeco Hirirat Desertu baten alderia eta egon çunbait demboras aguertu gabe mundiaren aitcinera. Apeçac ezkiac ikuzten tici Gincoari Sacrificiuaren offeritceo pundian, guri erakazteco çoin chahu içan behar guiren Sacrificio hartala hourrantceco. Guero populiaren alderat içultzen duçu, Meça inçiliarrer gomendatzen dereelaric harekin Gincoaren otoitzcia, Gincoaren Majestathiaren gogaraco içan dadin Sacrificio hura eta guero, ahapetic çunbait otoitzça eguiten dici. Apal minçatcia utcirci, berris Prefaciua goratic erraiten dici, çoin baita preparacione berheciago bat, çoinçaz Apeça Sacrificio hartala preparatzen baita eta dembora berian fidelac prepararacitzen baititu. Hartakotz, Prefacioniaren haxian fidelac exhortatzen tici <233> Gincoaganat bihotzzen altchatcera eta hari eskerren emaitera, ceren Celuti lurrera geuxi den, Incarnacioneco Misteriua complitu edo gure haraguiaz bestitu, bere heriuaz gure arerosteco,<sup>12</sup> eta glorificatzen eta laudatzen dici hitz hotçaz: *Seindu, Seindu, Seindu, Armaden jauna eta Gincoa*, çoin hitz<sup>13</sup> —Isaiaren eta Joandene Joanneren erranen araura— Šeindiec beti Celian arrapicathuz erraiten baitituzte, eta beste hitz hotçaz: *dela benedicatu Jaunaren icenian gin dena, laudorio eta Gloria edo Ohore Celuric gorenian denari*, çoin baitira bozcariosco eta ohoresco hitz batçu, çoin populiak oihuz erraiten baitcithien Jesu-Christo Jerusalemen sarthu cenian passioniaren aitcineco egunetan.

Guero Meçaco Canhonha hazten duçu, çointan Apeçac Aita Eternala otoitzzen baitu bere Seme bakoitzçaren merechimendiez nahi dien errecebiku offritzen deracon Sacrificiu, Eliça guciarendaco, Aita Seindiaren, Apezpikiaren eta Erreguerendaco. Guero otoitzzen dici, apal minçathuz, guristinho ororen eta berheçiki Meça Seindia

---

6 çointhan: *coinhan*.

<sup>10</sup> Hiztegian sarrera gisa dakargu *bateatzekoak* izena.

<sup>11</sup> Adiera 'berez' du; jatorrizkoak honela dio: *ce qui est proprement appelé la messe du sacrifice* (RD 4, 381); ikus *purki* gure hiztegian.

<sup>12</sup> Jatorrizkoan *pour se revêtir de notre chair, et pour nous racheter par sa mort* (RD 4, 383).

<sup>13</sup> Erlatibozko perpausa da, *hitz* da burua, bestela esan, "hitz horiek, Isaías eta Joandene Joanneren erranen arabera, sainduek beti zeruan errepikatuz erraten dituztenak"; hona frantsesez: ...*ces paroles... qui sont celles qu'Isaïe et saint Jean disent...* (RD 4, 383).

erran-araciten dutenen, eta hori deitcen dicie lehen *Mementua*, eta biciena. Guero offritcen dici Meça haren inçulia ororen,<sup>14</sup> eta hara cergatic net prootchoz den Meçaren inçuthia, ceren Meça inçuten dutenec bestec beno pparte aboro baitute Gincoaren dohainhetan. Rupert <234> Abadiac erraiten dici Meça inçuthia Jesu-Christoren hil ohoretara joithia<sup>15</sup> dela, bena Meçan direner Gincoac emaiten thien gracieta pparte-pliant içaiteco, inxeatu behar ci Meçaren inçuthian, Ama Virgina, Joandene Joanne, Magdalena eta ohoin huna Jesu-Christoren heriotcian ciren seindimendietan jartera. Guero Consecracionia eiten duçu, çointan baitago eguiasco Sacrificiu eta ordian duçu oferitcen *Mementuan* goguan hartu diren ororendaco.

Orai erraiten dicit, nola Meçaco Sacrificiu ofricten baita inçuliarren ororen, ordian nehorc ukeiten ahal dien devocioneric hobena dela, arranguroski edo attencio-nereki goguan emaithia Apeçac cer erraiten eta eguiten dien, eta bere aldetic ahal beçanbat gauça beren eguthia eta erraithia. Noiz eta ere Apeçac eguiten baitu bicien *Mementua* edo bicien orhitchapena, hun duçu batbederac ere bere orhitchapena bere alde, bere beithan eguin deçan, Gincoa otoithuz deztaarruzco lur huntan direnendaco, eta noiz eta ere Apeçac hilen *Mementua* edo orhitchapena eguiten baitu, hun duçu ere hareki bathian heendaco otoitzcia; eta soiçu nola Seint Francez Borgiasse-kuac hori eiten cien bere beithan hartu onduan Meçaco Sacrificiu, Jesu-Christoc berac Curutciaren gagnan oferitu cienaren arraberritce bat beçala, eta eguiazki hora bera duçu.

<235> *Mementuan* orhitcen çuçun bederaca Salbaçale Jaunaren bozt çauri sac-rathiez. Ezkunheco ezkuco çaurian Gincoari gomendatcen citicin Aita Seindia, Cardinaliac, Apezpiakiac, Artçainhac edo Ertorac eta Eliça guiçon<sup>16</sup> guiac. Ezkerreco ezkuco çaurian Gincoari gomendatcen citicin Erregue, Jugiac eta demboralian go-bernateceko boteria çutenac oro.<sup>17</sup> Ezkunheco huinheco plagan edo çaurian gomen-datcen citicin Fraiden Ordriac oro eta berheciki Jesusen Compagnhakuac. Ezkerreco huinheco çaurian, Gincoa otoitzcen cicin bere azkacien, adizkiden, hungui-eilen<sup>18</sup> eta generalki haren otoitzcer gomendatu ciren ororendaco; bena sahexeco çauriez den beçanbat, beretaco beiratcen citicin eta hetan, harri chilo batçutan beçala, ispirituz edo gogoz sartcen, Gincoari bere becathien barcamendia galdeinez eta dembora be-rian behar cithien socorriac eta graciac hari galdatuz. Halaz Meçaco Sacrificiu ofe-

3 inçuthia: *incuthia*. 8 çointan: *cointan*.

<sup>14</sup> Harrigarri gertatzen da *inçulia ororen* horretan izena mugaturik egotea; jatorrizkoak *il l'offre encore particulièrement pour tous les assistans* dio (RD 4, 383); *inçuliar ororen* izan daiteke esku-izkribuan edo itzultzairearen gogoan zegoena; dena den, 234-n *inçuliarren ororen* dakar.

<sup>15</sup> Jatorrizkoak *hallarse presente / assister* dio (RD 4, 284). Ez dakigu *joaithia*-ren hutsa den ala *jo aditzaren erabilera* zuzena den.

<sup>16</sup> Paraleloa da Zuberoako 1757 inguruko *Iganteñtako pronoua-n: eta generalki eliza guicon orogatic* (13).

<sup>17</sup> Jatorrizkoak honela dio: *y todas las justicias y cabezas del brazo seglar / et toutes les puissances séculières* (RD 4, 385). Hor *denboral* adjektiboa ala izena den ez da aise jakitea; liburu honetako 212-n ere *demboralian* ageri da, baina harten adjektiboa da; boterea dutenez dihardu eta Elizaz kanpoko kargudunak ditu gogoan, denbora mugatukoa den mundu honetakoak.

<sup>18</sup> Ezaguna eta hedatua da hitza Ipar Euskal Herrian; Zuberoan Mercy aipa daiteke: *eta Gincoua othoi bicien eta bilen Confrariari honki equilegatic* (1780: 40); baita *Othoitce eta cantica* (1734) ere: *ene honkieguile Bethierecoua* (34).

1 ritcen cicin betan gauça horien ororendaco, eta bakoitzçaren apart edo ber-halde, bat-  
ten choilki ofritu bailu beçala, berhecikiago noren ere Meça erraiten baitcien, edo  
obligacionez, devocionez,<sup>19</sup> persona heendaco, eta bethiere intencionarekin, Sacri-  
ficio Adoragarri hartaric heer çor içaithen ahal cen parthia oro heendaco içan ladin,  
beztendaco eiten cien oferimendiaz etçadin <236> heena hert edo guti ahal. Oro-  
bat eguiten cicin hilen *Mementuan* edo hilen eiten cien orhitchapenian. Ofritcen ci-  
cin sacrificio hora, lehenic arima çoinhen ere intencionera Meça erraiten baitcien;  
bigerrenian bere azkaci hilen arimen; hirurguerrenecoric, Jesusen Compagnhaco  
Fraiden, guero bere adizkiden, hari hungui-eilen, hari gomendatu ciren eta nori  
10 ere cerbait obligacione baitçukeen heen ororendaco, eta finian arima guthienic so-  
corri berheci çutenen,<sup>20</sup> bai eta ere aboruenic ofritcen çutenen eta purgatoriuetaric  
laburzki jalguitceco bidetan ciren, eta çoinhen ere otoitzcia baitçatekeen karitate  
aboro.

Batbederac segui ciroçu ourhax edo chede hori edo hori iduri bezte çunbait,  
nahi dukeen beçala eta berheciki ofritu behar ci Sacrificio horrec hirur gauçaren-  
daco, çointara bezte orotara beno aboro obligatu baikira. Lehena, Gincoaren ezkutic  
antço orotara errecebitu ditugun hunguiez erremetzthiatceco; biguerrena, gure be-  
cathien punimendutaco eta hetçaz hari ein injuriuen reparatceco eta hirurguerrena,  
Gincoari galdeiteco gure miserien sendotceco eremediuen eta hareganic gracia be-  
rrien ukeiteco edo jardiresteco. Egun horoz Sacrificio hori ofritcen delaric Gincoari  
20 hirur chede horiendaco, hun duçu ere haren oferitcia <237> norc bere beçala, gene-  
ralki mundu ororendaco eta hartaco, ofritu behar ci Gincoac ber hari edo bere parti-  
cularian egun derazcon graciez erremetzthiatceco,<sup>21</sup> bina orano/guiçoner orori egun  
thien eta egun oroz eguiten thien favori edo graciez erremetzthiatceco, bere becatu  
propien pagutaco beçala, mundiareneko becatu ororen satisfatceco, orotçaz Aita Eter-  
nalari pagatceco azki beno aboro denaz gueroz; eta ofritu behar ci azkenian, Gin-  
coari galdeiteco berac behar dithien gracia berhecien ukeiteco, bina orano Gincoaren  
otoitzceco, Eliça guciaren socorrien galdeiteco; hola nehor Apeçac Meça erraithian  
30 uken behar dien intencionari jarraikiten duçu; karitathiac eta arimen salbamendia-  
ren sù edo nahiac galdeiten dici, ez choilki bere buru propiaz uken deçan arrangura  
berheci bat, bina orano Eliça guciaz, eta cer ordian ein daite hoberic, Sacrificio ho-  
rren Jesu-Christoc berac Curutciaren gagnan oferitu cien gauça ororendaco oferitcia  
beno? Hun duçu ere egun oroz Meçan gure buriac ossoki ofri ditçagun Jesu-Christo-  
rekin Aita Eternalari<sup>22</sup> ber gauça horiendaco, gutan deus ere ofritceco utci gabe; eci  
çunbat ere gure obrec bere beitaric guti balio eta guti merechimendu baitute, orota-  
rat ere Jesu-Christoren Passione Seindiaren merechimendier juntathiac direnian eta  
haren odolaz tindathiac, <238> Gincoaren aitcinian precio handitaco edo net ba-

<sup>19</sup> Jatorrizkoak zertxobait argitzen du: *por aquella persona ó personas por quien decia la Misa por obli-  
gacion ó devucion* (II, 447) / *pour les personnes pour qui il disoit la messe, ou par obligation, ou par dévotion* (RD 4, 385).

<sup>20</sup> Jatorrizkoak honela dio: *pour toutes les ames qui étoient les plus destituées de toute sorte de secours  
particulier* (RD 4, 386).

<sup>21</sup> Iku bedi peko lerroko adibidea egokiago dela: *eremetzthiatceco* dakar horretan.

<sup>22</sup> Ez dirudi “Jesu-Kristori eta Aita Eternalari” kopulatibo zaharra denik, “Jesu-Kristorekin batera  
Aita Eternalari” baizik; jatorrizkoan: *ofrecernos tambien á nosotros mismos juntamente con Cristo en sacri-  
ficio al Padre Eterno* (II, 448) / *nous nous offrions en sacrifice avec lui au Père éternel* (RD 4, 387).

liztu tuçu eta net Gincoari laket ciazcoçu. Seint Chrisostomac erraiten dici net tenore hun bat dela Gincoarekin eitekuen eiteco, Meça Seinduko edo Sacrificio Divino hartako dembora; Ainguriec tenore hura hartcen dutela idireiten edo oukeiten ahal duten hobena beçala, hareganic guiconendaco galdeiten thuzten graciens jardiresteko eta ordian, guretako Gincoa otoitzzen dutela sū eta gar abororeki. Erraiten ere dici Aingurien Corthiac Sacrificio harten daudela edo idireiten direla, Gincoaren Majestathiaren aitcinian ahozpe<sup>23</sup> beçala humiliathiac eta Meça edo Sacrificiuak akabi den beçain sarri, Celuko mandatari hec baduatcela hegaldaca Purgatorioco pressundeico borthen idec-aratzitcera, eta erraitera cer ere Gincoac fidelen otoitzcer eta bere Seme Adoragarriaren merechimendier Sacrificio harten eman thien gaucen.<sup>24</sup> Behar diici, beraz, arranguroska baliatu ocasione edo aldarte preciatu hartçaz eta inxeatu hartçaz prootzchatcera, egun oroz Apeçarekin Sacrificio hura oferithuz, fidaincha fermo edo handi bateki haren medioz Aita Eternalaren colera apaicea deçakegula, gure becathiendaco satisfa eta hareganic jardirex galdeiten derazcogun graciæ.

Hirurguerren devocionia Meçaco hirurguerren <239> pparthiari diagoçu, çoin *Paterretic* Meçaren akabançaranhokua baita. Apeçac hirurguerren pparthe harten comunitacen dici eta comuniatu onduan erraiten thien oracioniac oro, erecebitu dien hungui ecin estima daitenaz Gincoaren erremetzhiatceco tuçu. Meça inçuliarrec ordian eguin behar dutena duçu Apeçaren seguitcia ahal beçanbat. Eguia duçu Meçakal edo Meça orotan realgui eztirogula comunia, bena ispirithuz gure becathiez unxa dolu harturic beti ein ciroguru eta hori, devocione net seindu eta net prootzchoz bat duçu, Apeçac Oguiaren eta Anuaren idurien pian realgui comunitacen dienian ispiritualki comunitacia.

Comunione ispirituala diagoçu, Sacramentu Adoragarri haren erecebitceco gutitzcia edo desir bero baten ukeithian, Jopen —Jesu-Christori dauden— erran hoen aravera: *ene etcheco gendec*, erran nahi baita, Gincoaren beldurra duten eguiazco guiristinhuec, *erran dicie: norc emanen deragu haren haraguitic gure assetceco?* Eci hala nola nehor unxa gosse denian beguiez ikuzten thien jatekuac iresten baititu, orobat ispirithiaren beguiez Celuko hazkurru horrec jan behar dici. Apeçac ahua idekiten dienian Jesu-Christoren Gorpitzçaren erecebitceco, dembora berian fidelen ari-men beguiec edo ahuec idoki<sup>25</sup> behar dicie Gincoasco Manna horren erecebitceco <240> desir edo guthitcia bero bateki, eta luçaz bere beithan haren ezitarçunac goçatua behar tici. Hola eginez gure bihotzceco desirac Gincoac contentatuco tici eta gracia eta karitathia emendatuco, Daviten erran hoen aravera: *idekaçu çure ahua eta beteco dicit.*

Horren gagnan Concilio Tridentinocuac erraiten dici comunitaceco desirac, comunione ispiritual baten içaiteco, karitathiaz lagundia den fide bici batetaric gin behar diela, erran nahi baita, desir hura dienac ordian Gincoaren gracian içan behar

13 deçakegula: *deçakegula*.

<sup>23</sup> Ikus 422-n *ahospe* dakarrela.

<sup>24</sup> Hondarreko perpaus honetan jatorrizko testutik euskarakzora ez dago guztizko leialtasunik, ez gaztelaniazkoarekiko (II, 449) ezta frantsesezkoarekiko ere (RD 4, 388). Guk euskarakzoa honela daksagau: “erraitera zer ere gauza(k) Jinkoak Sakrifizio harten eman tien(ak) fidelen otoitzer eta bere Seme Adoragarriaren mereximendier”.

<sup>25</sup> Esanahia ‘irekitza’ da, jatorrizkoak *abrir / ouvrir* dio (RD 4, 389); cf. *idoki* hiztegian.

1 diela Jesu-Christoreki ispiritualki juntathia, unione harc emaiten dien fruthiaren edo abanthailaren ukeiteco, eci becatu mortaleco estathian liçatekeenac eliroçu ispiritualki comunia estatu hartan, eta becatu mortaleco estathian comuniatceco desira balu, beste becatu mortal bat ein liroçu. Hargatic, becatu mortalian denac comuniatcia desiratcen balu, bere beithan erranez: *comuniatu nahi nuke ezpanitz*<sup>26</sup> becatu mortalian, desir hora eguiazki hun eta laudagarri lukeçu, bena elukeçu hargatic comuniione ispiritual bat, ceren ispiritualki comuniatceco becatu mortaletaric nehorc chahu içan behar baitu. Comuniatceco, beraz, ispiritualki necessarioki graciasko eztathian içan behar ci, bena ere eztatu uroz hartan denac ispiritualki comuniatcen dici, eguiteco desir gori hora <241> dien aldi oroz, eta desir hora dutener Gincoaco emaiten tici graciac sacramentalki edo Sacramendu Seindia recebithuz comuniatcen dutener emaitera ussatcen thienac. Hel dieiteçu ere, çunbait aldiz ispirithuz graciasko eztathian comuniatcen dienac sacramentalki ber eztathian comuniatcen dienac beno gracia aboro erecebi leçan; nahibada ere Sacramendu Seindiaren erecebitcia bere beitharic baliozago eta prootzchazago<sup>27</sup> den ispirithuz comuniatcia beno —ceren sacramendiac gracia emaiten baitu bere beithan dien bertuthe propri batez, ez aldiz, comuniione ispiritualac—, orotarat ere, egua duçu nehorc ispiritualki comuniatceco dien desira hain handi içan daiteela eta desir hora hainbeste errespethuz eta umilitatz lagundia, nun hala ispirithuz comuniatcen dien batec, aboro gracia jardiretx bai-tiro beste batec sacramentalki comuniathuz beno, bena disposizione hun guthiagoreki.

20 Comunione ispiritualac abanthailha haur orano badici, nola ezpaita nehorez ikus-sia, eguiten dienac banitatezco langerretic campo duçu; aldiz, Sacramendia errecebitcen diena oroc ikuzten dutela errecebitcen dielakotz, banitate uken edo har ciroçu. Bestalde, comunione ispiritualac Sacramendiaren errecebitciac ezthien abanthaila haur ere badici: nehorc ardurago berri ciroçu; Sacramendia azthian behin, sor-detzchena <242> egunian behin,<sup>28</sup> bena comunione ispirituala anitz aldiz egunian eguin dieiteçu. Anitz persona devotec, egun oroz, ez choïlki Meça içüten dutenian ispirithuz comuniatcen dicie, bena orano Aldareco Sacramendu Seindia bisitatcen duten aldi oroz. Orano gauça net seindu bat duçu, ispiritualki comuniatceco çunbait Gincoaren cerbitzcharic eguiten dutenaren eguthia; hala nola, Meça içüten duçunian edo Sacramendu Seindia bisitatcen, edo ispiritualki comuniatcia desiratcen duçun aldi oroz, çure beithan pitz eçaçu sacramendu Adoragarri haren errecebitceco desir bero bat, çure bihotzça Gincoaganat alcha, erraiten duçularic: ô ene Gincoa, arima aski garbi eta chahu banu çure errecebitceco! Digno banintz egun oroz Mahain Seindura hurrantceco eta beti-beti ene boulharrian çure ekarteko! O ene Gincoa, ala baininçateke huntarçun ispiritualez bethia, çure neure beithan errecebitcia merechi ahal baneça! Bena etçu necessario hartaco sacramendiaren idurien pian gin ci-

<sup>26</sup> Hutsa gertatu da eta liburuak *ezpanithz* dakar, baina liburu guztiko bakarra da; 428-n *banitz* ‘banintz’ dakar eta 242-n *banintz*; hirugarren pertsonan *baliz* edo *balis* ‘balitz’ idazten du beti.

<sup>27</sup> Adibide bakarra da -a-rekin, “prootxos” da liburuan beti ageri den aldaera.

<sup>28</sup> Itzultzailak zerbait zuen gogoan pasartean “sordetx” erabiltzeko; jatorrizkoak honela dio: *porque la sacramental hacese una vez en la semana, ó cuando mucho una vez cada dia* (II, 450) / *car la communion sacramentelle peut se recevoir une fois la semaine, ou tout au plus une fois le jour* (RD 4, 391). OEH-k ‘au pis aller’ / ‘en el peor de los casos’ era ‘au plus’ / ‘a lo sumo’ dakartz; ikus adizlagun hau 366-n ere.

ten enegana, niri soguithia azki duçu çure graciaren aberaztarçunez ene aberazteco; nahi uken eçaü eta azki duçu; mana çäü, Jauna, eta seindutuko nuçu! Guero Centurionarekin erran eçaü: *Jauna, enuçu digno ene etchian sar cithen, bena erraçu choilkki hitz bat eta ene arima sendothia içanen <243> duçu.* Noizpait azki bacen metalesco suguiari soguithia, suguen auzsikitic sendothia içaiteco, nic ere aski dikecit çuri soguithia fede bici eta chahu bateki eta çure errecebitceco desir bero bateki, sendothia içaiteco ene arimaco çauri orotaric! Guero hun dukeçu Antiphona hunen erraithia: *O apairu sacrathia, cointan Jesu-Christo baita janbari batbederac errecebitcen diena,* hitz hoekin: *eman dereeçu Celuco ogua eta Aldareco Sacramendu Seindiaren ohoretan comunzki erraiten den otoitzça: Jauna, coinec Sacramendu Miragarri horren pian utci baiteraguçu çure Passioniaren orhitchapena.*

1

10

## BIGUERREN CAPITULIA [II/8/16]

### **Çunbait exempluz egun oroz Meçaren inçuthiaren abanthailharen gagnan eta Apecec egun oroz Meçaren erraiteco uken behar duten arranguraz, eta cer errespetureki batbederac Meça inçün behar dien**

Pia Biguerren Aita Seindiac erraiten dici Istriaco Provinciaco Aithoren Seme bat beti desesparatceco<sup>29</sup> tentacione bortitz batez atakathia cela —çoinhec bere buriaren ourkatcera ipitztatcen baitcien— eta çunbait aldzit tentacione gaisto hartara erorteco pundian içan cela. Fraide Seindu bategana <244> joan cela bere arimaren estathia-ren hari descubritcera edo erraitera eta avis galdeitera. Gincoaren cerbitzchari horrec ahalic hobekienna consolatu eta tentacione horren contre azkartu onduan, avis eman ciracoçun bere etchen Jaun Apez baten atchikitcia, egun oroz haren Meçaren inçuteco; Aithoren Semiac avisu hori hun hartu cicin eta harc errana eguin; Jaurei bat baitcien, Jaun Apeçarekin harat joaiten duçu ispirituko edo bihotzceco paussu osso batetan. Ourte bat han igaran onduan, berekin çaucan Apeçac galdeiten diracoçu permissionia Meçaren erraitera auçoco parropia batetara joaiteco, nun bezta handi bat baitcen; gogotic emaiten diracoçu, berac ere hara Meçaren inçutera joaiteco intencionia edo desseinha baitcien, bena uzte gabeco eiteco batec euguerdi arthio, go-gua eman gabe, etchen berant-araci ciacoçun; ordian Meça gal beldurrez ikaraturic, eta ordiandanic leheneco tentacioniaz ppenaturic lehiataca etchetic jalguiten duçu eta Meçalat apariatcen; çuhen bidian batcen dici Meçaren inçutera joaiten cen herri-raco biden gagnan laborari bat, çoinec erran baitceracon hango Meçac oro erranac ci-rela. Berri gaizto horrec hanbat tristatu cicin, nun bere malurraz dezkaussitu baitcen eta oihuz erraiten Meça galdu cienaz gueroz, bera ere galidia cela. Laborariac eztatu triste <245> hartan ikussiric, erraiten diracoçu eztadin ppenetan jar, eta nahi badu inçün cien Meça salduco ceracola, haren inçuthian Gincoaren aitcinian jardirexi cien merechimendu ororeki; Aithoren Semiac hitzcan hartcen dici, trathia finitu cicien Aithoren Semiac eman ceracon capa batendaco; bizkitarthian Aithoren Semia joan çuçun Eliçan bere otoitzcen eitera eta otoitzça eguinic, onduan bere etcherat itçulcen

20

30

<sup>29</sup> Adibide gehiago ere badira *desespara(tu)* edo *desesperacione-renak* (245, 291, 292, 336); liburuan ez dago “desesperatu” edo “desesperazione”-ren adibiderik.

celaric, laboraria idiren cicin urkaturic trathia ein çuten lekian, Gincoac permetituric desesparacionesco seindimendie ekar leçaten bere buriaren urkatcera trathu gaizto hura ein cien leku berian. Aithoren Seme hura, icithia ikuzten cien gauça tristhiaz —çoinhec eçagut-aracitcen baitceracon cer langerretaric Gincoac beiratu edo libratu cien— erremezthiatcen dici ein ceracon graciaz eta orano aboro egun oroz Meçaren inçuteco devpcionian fincatu çuçun eta ordu hartçaz gueroz, hanbat demboraz uken cien tentacione gaiztotic ossoki librathia içan çuçun, gueroz etcicin halaco atacuric seinditu.

Irakurten diici Seinta Elizabeth Portugaleco Erreguinhan —Seinta Elizabeth Hungriaco Erreguinhan Ilhobaz— beharren edo prauben ererat hain kari-tathoz cela, nun bere Amonierari<sup>30</sup> kargu eman baitcien, galdeiten çuten behar orori amoinharen emaitera; beztalde bere ezkuz edo <246> beste cerbitzchariez beti karitathiac eguiten cithiela. Nola hartaco cerbitzchatcen baitcen aboruetan devocione handi bat eçagutzen ceracon cerbitzchari batez, ber gradoco cerbitzchari batec bekaizthiz edo Erregueri caussitu<sup>31</sup> nahiz, Erregueri erran cicin beste cerbitzchari harc cerbait amizthaincha criminel edo gaizto Erreguinhaneki baciela. Erreguec nahi-bada etcien ossoki salhaçale hori sinhexi, orotarat ere, nola orducotz mezcontentkara baitcen Erreguinhan eta bere ispirithian hartçaz cerbait gelozkeria erabilten baitcien, berheala deliberatcen dici segreki Erreguinhanen cerbitzchari hura gal-araci behar diela. Hartaco hautatu cien bidia haur içan çuçun. Erregue, egun berian igaraiten celaric guissulabe baten erratcen ari ciren leku bathian, guissulabiaren erraracitcen ari cirenac deitharaci citicin, erran cireecun: bihar goician igorrico baiterauciet cerbitzchari bat galdeitera ene maniac eguiñ tucienez, har çacie eta berheala guissulabeco surat aurtiki. Guero Erregue etcherat itçulcen duçu, eta manatcen dici Erreguinhanen cerbitzchari —harekin adizkide cela erran ceracotena—biharamun goician goicic joan dadin guissu erraçale heer erraitera Erreguec besperan eman cereen mania eguiñ dutenez; bena nola Gincoac beti berez arrangura baitu, eguiñ cicin meciaren ei-tera cerbitzchari <247> hura joaiten celaric, igaran çadin Eliça baten aldian, çointan Meça erraiten ari baitcen; Elevacioneco chilinta inçunic, Jaun Handiaren adoratcera Eliçan sar ladin, Meça haren akabança inçün leçan, bai eta ere beste bi Meça ondoz ondo erran cirenac. Bizkithartian Erregue berantexiric ciagoçun, jakin nahiz haren mania guissulabe erraçalec eguiñ çutenez. Suertez ikuzten dici Erreguinhanen contre minçatu cen beste Page edo cerbitzcharia eta manatcen dici berheala edo dilienki, joan dadin galdeitera guissu erraçale heer haren mania eguiñ dutenez; bena Erregueren mecia ein çutenez inçün çuten beçain sarri, uztez Erreguec gal-araci nahi cienela, hartcen dicie eta súrat aurthikiten. Besthia, bere devpcioniac arte hartin eguiñ onduan, joaiten duçu guissulabeçainer<sup>32</sup> Erregueren meciaren eguitera eta guissu erraçalec ihardezten diracacie, Erregueren ordria edo mania eguiñ dutela. Arrapoztu

<sup>30</sup> OEH-k ez dakar *amonier* aldaerarik, baina jatorrizkoan *limosnero / aumônier* ageri da eta ongi dator euskal itzulpenarekin. Liburuak *aumonier* dakar bukaerako idazkian, baina bestelako adieran: *Guc Louis-Maria de Suarés d'Aulan, Akiceko Apezpicu obia, Morde Vigneau gure Aumonier eta Secretariac endelga-araci onduan...* (450).

<sup>31</sup> Adiera ‘atsegin ematea’ da eta jatorrizkoan garden ageri da: *por caer en gracia del Rey / pour faire le zélé auprès du roi* (RD 4, 395).

<sup>32</sup> Litekeena da *guissulabeçainer-en* ordain dagoen hutsa izatea. Jatorrizkoak honela dio: *fue á dar el recado del Rey á los que cocian el horno / leur va faire son message* (RD 4, 396), baina ez da izena ageri.

horreki Erreguegana itçulcen duçu; Erregue ezthonathia colera handitan ikuztez con-  
treka edo harc nahi etcien beçala gauça heldu cela, galdeiten diracoçu nun egon cen  
hainbeste dembora. Erreguinaren cerbitzchari horrec erraiten diracoçu, haren ma-  
niaren eitera joaiten celaric, Eliça baten aldian igaraithian için ciela Elevationeco  
chilinta; Eliçala sarthu cela, Meça akaba arthio <248> han egon, berheala ondotic  
bezte bat, biguerrena akabi gabe, hirurguerren Meça bat, hirurac elga için cithiel,  
ceren bere Aitac hil beno lehen edo hilcerakuan bere benedicionaren emaithian, oroz  
gagnetic gomendatu baitceracon, Meça hazten ikuzten cithienac oro akaba artekan  
inçün citçan. Ordian Erregue bere beithan sarthia, endelgatu cicin gauça heldu cen  
beçala Gincoaren jujamendu justo batez heldu içan cela eta hala, eçaguturic Erre-  
guinhac etciela oguenic edo inocent cela, haren contre ispirithian uken cithien pen-  
xaketa edo opinione gaiztuac oro arraz kaçatu citicin.

Erraiten dicie officio bereco bi officialez eta Burgu batetan egoiten cirenez, coìn-  
taric bata anitz haur cielaric, egun oroz Meça içüteneñ ciela eta hargatic, bere oficio-  
tic aiza bici cela, aldiz besthia, etcielaric bere emazthia becic, net bekian Meça içüteneñ  
cielaric eta bere officiuan bezta eta aztegun, beti Gabaz eta egunaz trabaillatcen ce-  
laric, nekez bici cela. Azken hunec, ikussiric besthiaren eitekuac hain unxa çuatcela,  
bathu cien egun batez bere officiale lagun hori, galdein ciracoçun nuntic ukeiten ahal  
cien bere familia handiaren hain unza haztecua; harc, aldiz, emazthia becic ez uken  
eta beti trabaillatcen celaric, gauça ororen gabian cela. Unxa çuhenac erran cira-  
çoçun: eracaxico derauçut <249> nuntic idokiten tudan ene prootzhiac oro, eta goi-  
cian joan citciacoçun etchera, Eliçalat berekin Meça içüthera ereman cicin; Meça  
onduan uzten dici erraiten deracolaric: çuça çure lanetarat. Gauça bera orano ein  
ciracoçun ondoco egunian. Bena hirurguerren goician, orobat Eliçalat ereman-araci  
nahi baitcien, nekez bici cenac erraiten diracoçu: nahi badut Eliçalat joan eztitit çure  
beharric, baciakiçut bidia; jakin nahi nicin choilki nun idireiten cindien irabazbide  
hura, jakiteco nic ere han idiren niroenez. Unxa çaguénac ihardezten dici bere lagu-  
nari: etciakiçut lekuric Eliçan beçanbat bici huntaco eta bezteco irabaz daiteenic eta  
horren poroatceco erraiten diracoçu: eztucia behin ere içün Jesu-Christoc Evangel-  
liuan nola erraiten dien: *cherka çacie lehenic Gincoaren Erressuma, eta justicia eta bezte  
behar tucienac oro emanac içanen çautcie?* Gincoaren ispirithiaz hunkituric, delibe-  
ratcen dici bicitez kambiatcera eta egun oroz Meçaren içüteria; bere deliberaua hain  
chuchen eta hain prootzchozki bere fortunaren eta bere salbamendiaren atchiki cicin,  
nun dembora laburrez net aizan jarri baitcen.

Seint Antonin Florençaco Archapezpikiac erraiten dici, bi guiçon gaztec hitz  
hartu çutela bezta batez libertitzceco ihicira joaithia; bata Meça içunic, besthia  
<250> Meça içuteco joan cirela eta bidian çuatcelaric, instant batez dembora  
edo celia ilhundi cela orrua icigarri bateki, bethi chimiztha eta orçanz colpu iciga-  
rri batçureki, nun iduri baitcien oro funditcera çuatcela. Horien artetic aboruenic  
icitcen cithiena çuçon botz bat, çoinec demboratic demborala oihu eiten baitcien:  
emoc, emoc; bona dembora cerbait arhinduric, icidura joanche citcieun; bere bidian  
abiatu cituçun; bet-betan, egun hartan Meça içün etciena orçantz colpu<sup>33</sup> batec hil

22 citciacoçun: *citciacaçun*.

<sup>33</sup> Jatorrizkoak rayo / éclat de tonnerre dakar (RD 4, 399).

1 cicin; bezthia, ikarathia eta bere beitharic jalguia, etcakiçun ala aitcina joanen ala guibelerat itçülen cen; duda hortan celaric, inçuten dici botz bera oihu eiten: emoc horri ere. Nola lagunaren dodoia hiltcia ispirithian baitcien, aboro icitu çuçun, bena berheala consolathia içan çuçun airian botz bat inçunic, coinec erraiten baitcien: etciroiat hori colpa, ceren egun inçün baitu & *Verbum caro factum est*; eta Celuco botz harc erran nahi cicin, Joandene Joanneren Evangeluaren Meçaren urhentcian erraiten diren hitz horiez, guiçon gazte harc Meça ossoric inçün ciela, guiza batez nun, egun hartan Meça ossoric inçün cielakotz Gincoac beiratu baitcien heriotce ika-ragarri eta subito batetaric.

10 Seint Bonaventuraz irakurten diici —alde batetic bere apaltarçun handiari sogui-nez, <251> bestaldei Gincoaren handitarçun muga gabiai— çunbait egunez egon cela comunionera hurrandu gabe, beldurrez behar cen disposizione ororeki etceçan errecebi. Bena egun batez Meça inçuten cielaric, preciski Apeçac Ostia Seindia hauzten cien tenorian, Osthiati parthe bat ahora gin citciacoçun, eta Gincoac ein ceracon gracia segnhalatu hortçaz comprenitu edo endelgatu cicin, Gincoari laketago citçacula amorio eta errespetureki Mahai Seindurat hurrantcia, hartaric beldurrez urrun egoithia beno. Miraculu horrec bere ispirithian eçarri ceracon seindimendu hori, bere izkiribietan utci dici eta Seint Thomas ere opinione edo seindimendu be-reco duçu.

20 Erraiten dicie Hernand Talaverakuaz —Grenadako lehen Archapezpikiaz— Erre-gue Ferdinandec eta Izabelac Castilhaco eta Aragunako Erressumaco eguitecoric han-dienez cargatu çutela; haren cargu handiez bekaisti cirenec, haren eguitatetan deuz ecin idirenez haren oguendun eguiteco, erraiten cicien hainbeste eguiteco liferent eta gaitzcen arthian celaric, nola egun oroz Meça Seindia erraiten ahal cien, bakar-tarçunian eta komenthalu bathian paussian bailiz beçala. Egun batez Cardinale Men-dosac adiskide anço erran ciracoçun nola minço ciren haren gagnan; Gincoaren cer-bitzchari horrec ihardezten <252> diracoçu: Erreguec ene indarrec jassan diroten beno cargu handiago bat eman diraacie; cargac pian har eneçan, egun oroz comuniatcen dicit, Sacramendu Seindiaren medioz behar tuden indarren eta socorrien jar-direzteco, eta estatutan jarteko ene carguiec ekarten tuzten cundien unxa emaiteco.

30 Surius Authorrac erraiten dici, Seint Pierra Celestinec, egun batez goguaketetan sarturic bere ezdeuztarçunaren eta comunionian errecebitcen den Jaunaren Majestate muga gabieren gagnan, eta bestalde, orhituric Joandene Paule lehen Ermithainhac, Seint Antonioc, Seint Francessec eta beste anitz Seindu handi behin ere etcirela men-turatu Apeztera Gincoari Meçaco Sacrificio Seindiaren oferitceco, ez eta ere egun oroz Mahai Se[i]ndura hurrantcera, cerbait dembora dudatan egon cela, ez jakinez cer egun behar cien. Beldurrac, umilitathiac eta errespethiac beste oroz gagnetic ha-ren ispirithia garaituric, Jaun Handiaren edo Jesu-Christoren Gorpitzçaren eta Odo-laren errecebitceco çunbait egunez egon çuçun;<sup>34</sup> deliberatu ere cicin Errumala joan behar ciela Aita Seindiaren consultatcera, jakiteco unxa einen cienez Meçaric erran gabe arraz egoithia, ala cerbait demboraz choilki egonen cen. Nola Errumalat abiatu baitcen, berri hil cen Abade Seindu bat, fraide <253> arropa eman ceracona, aguertu

24 gaitzcen: *gaiztzen*.

35 Meçaco: *Mecaco*.

<sup>34</sup> Zenbait egun jaunartu gabe egon zela ulertzten da.

citciacoçun eta erran: ene haurra, eztuço creaturaric, Ainguru bat baliz ere, Meçaco Sacrificio ikaragarriaren Gincoari oferitceco digno edo capable denic; hargatic ere, avis emaiten derauçut ardura oferi deçaçun erespeturki eta beldurreki, eta hitz horiec erran eta, beguietaric galdu cicin.

Seint Gregorio Handiac erraiten dici, itxassuan korsxuan edo huntarçun atcimanca çabilcenec, guiçon bat hartu çutela eta net urrun ereman; dembora luçaz han captivo egon cela, nehorc ere haren beriric jakin gabe. Haren emazthiac, uztez hil cen, azte oroz Meçac erran-aracitcen cithiela haren arimarendaco eta, harendaco Meça erraiten cen aldi oroz, haren huinetaco eta ukaraietaco burdignhac lachatcen cituçun; azkenekotz, captivatarçunetic libraturic etcherat gin çuçun, eta nola bere emazthiari erran baitceracon bere berrien cundatcian, çumbait tenorez miraculuz haren bordignhac erorten cirela, emazthia miraculu haren tenoren eta egunen cundatcen jarri çuçun, eta eçagutu cicin harendaco Meça erran-aracitcen cien aldi oroz hala helcen<sup>35</sup> cela, eta hortic —cioçu Seint Gregorioc— endelga dirocie, ene Anaiac, Meçaco Sacrificiuac cer bertuthe uken behar dien arimen libratceco. Beda Author errespetagarriac hori iduri den <254> exemplu bat ekarten dici bere Anglaterraco Eliçaren Istorian.

Seint Chrisostomac, aldiz, cioçu Ainguriac present direla Meçaco Sacrificiuac eta Aldarian inguru daudela han ofritcen denaren ohoretan. Erraiten ere dici, persona sinhesthia merechi dien bateganic inçunic, Gincoaren cerbitzchari batec behin ikussi ciela Ainguri<sup>36</sup> saldo handi bat, arropa arguitcen çuten batçuz bestithiac, bet-betan Celutic geuzten, Aldariaren ingurian herrocan jarteko, han errespetu handireki egoiten cirela batbedera bere Erregueren aitcinian egoiten den beçala. Seint Gregorioc erraiten dici: norc dudatcen du Sacrificiuac ofritcen den demboran, Celiac eztirela çabaltcen Apezçaren hitzçetara, eta eztela ordian Jesu-Christorekin geützen Ainguru saldo handi bat hari compagnha atchikitceco, Gorteco gende handiec bere Erregueri beçala? Ere anitz Seinduc explicatcian Joandene Paulec emazter Eliçan eztaliric<sup>37</sup> egoiteco emaiten dereen mania *Ainguriegatic*, erraiten dicie hitz hoc *Ainguriegatic* endelgatu behar dutela, Ainguru eguiazki Eliçan present direnez, Sacramendu Seindu Eliçan daguenaren adoratceco.

Seint Niley —çoin Seint Chrisostomaren Dicipulu içan baitcen— iskiribatcen dici Seindu Handi harec Eliçan sartcen cenian ikusten cithiela Ainguru saldo handi bat <255> churiz bestituric, Aldariaren ingurian errespetu handireki çaudenac, eta ikarathiac iduri çutela oroz ganheco<sup>38</sup> Naussiaren han present denaren ikuzthiaz. Noiz eta ere baitcirete Jesu-Christo Sacramendian daguenaren Aldariaren aitcinian —cioçu ber Seint Chrisostomac— eztucie aboro uzte uken behar guiçonen arthian ciretela. Eztucea ordian hautemaiten edo nabaritcen cien aldian diren Ainguru eta

<sup>1</sup> citciacoçun: *citciatçoçun*.

<sup>35</sup> Liburuko *helcen* adibide bakarra da, gainerateko guziak <heltcen> dira; *heltzen* bat ere bada (79).

<sup>36</sup> Liburuko *ainguri* bakarra da, gainerateko guziak *ainguru* dira; cf. *ainguru saldo* sintagma.

<sup>37</sup> Jatorrizkoak honela dio: *cubiertas las cabezas / d'être voilées* (RD 4, 403).

<sup>38</sup> Liburuko *ganheco* bakarra da hau, sistematikoki *gagneco* (187, 197, 221, 303, 325, 336, 377, 399) edo *gagneko* (112, 167, 286, 311) ageri da. Bestalde, ondoko lerroetako *gagnheco* ere liburuko bakarra da.

- 1 Arcangelu salduac, eta errespethuz Celuco eta lurreco oroz gagnheco Naussiaren aitcinian ikara daudenac? Hartakotz —cioçu orano aboro Seindu berac— ichilic, beldurrian eta errespetureki, ene Anaiac, Eliçan ciretenian egon citeste; orhit citeste coinheng handi den Gorteco genden attencionia eta errespethia Erregueren aitcinian direnian, eta hortic ikaz eçacie Gincoaren aitcinian ciretenian behar den errespetu ororeki egoiten.

## **VI. UMILITATHIAZ**



### Umilitathiaren baliostarçunaz eta umilitathiaren dugun beharraz

Jesu-Christoc erraiten dici: *ikaz eçacie eneganic bihotzcez ezti eta umil niçala eta cien ariman paussia idirenен ducie* eta Seint Augustinec horren gagnan cioçu, Salbaçaliac luren gagnan ereman dien bicitcia, nola bici behar guindien escolateco dela, bena bere umilitathia berheciki eman deragula beguien aitcinian seguitceco. Unxa endelgatceco bertuthe horren baliostarçunaren eta çoinhen necessario çaukun umil içaithia, aski diici goguan erabilthia Gincoaren Semia Celuti geutxi dela umilitathiaren guri erakasteco, ez choïlki hitcez, bena orano bere umilitathesco obrez, eta haren bici gucia umilitathiaren exemplu luce bat eta molde bici bat içan dela. Seint Basilac egua horren poroatceco Je-  
su-Christoren bicitce gucia examinatcen dici, eta haren eitate principalac bedera-bedera igaran onduan haren sortcetic hil artekan, erakasten dici <257> haren obrac oro bertuthe horren Escola berheci bat direla, nahi uken diela circoncisithia içan becatore içan bailis beçala, ihessiz Egiptorat joan flacco içan bailis beçala, baptheia recebitu becatore eta Publicano içan bailis beçala. Guero, aldziz, nahi dutenian ohoratu eta Erregue eguin, gordatcen duçu; eta aldziz, nahi dutenian desohoratu, aguertcen duçu. Guiçonec lauditcen duea, bai eta ere Demoniuec possessedithien ahotic, ichil-aracitcen tici. Afronthuz eta injurioz bethatcen dicie eta etci hitzcic ihardesten.

Guero umilitathiaren guri gomendatceco ordeinhu batez beçala, apaltcen duçu bere goihentcian bere Dicipulier huinhen ikuzteranokuan, eta hainbeste umilitatezco exemplu handiac finitcen tici Curutian Herio laidogarri baten sofrituz. Nahi içan dici —cioçu Seint Bernatec— bere buria ecestatcerano apaldu, erakazteco lehenic exempluz, guero hitcez, erakaxi behar cithien gaucen; bena certaco Jauna, hain Majestate handia, hainbeste apaldu da? *Amorecatic nehor etçadin lurraren gagnan urguluso seindimenduric ukeitera mentura.* Bethiere erhokeria bat içan duçu guiçonian bere buriaren banitatera joaitera utcithia, bena orai —dioen beçala Seint Bernatec— sofri esthaiteen aussartcia bat lukeçu, lurreco har bat urgulhuz hant ladin, Majestate Eternala umilitatez ezdeuzetarano <258> apaldu onduan. Gincoaren Semiac —bere Aitareki igual denac— cerbitzchariric apalenaren iduria hartu dici, nahi dici umiliathia eta mesperetzchathia içan; eta ni, haux eta erhaux becic eniçana, nahi nuçu ohorathia eta errespetathia içan.

20 umilitatezco: *umilitatzeco*.

29 cerbitzchariric: *cerbitzchareric*.

1 Arraçoinheki mundiaren Salbaçaliac erraiten dici bertuthe horren Naussia dela eta hareganic umilitathia ikassi behar dugula, eci ez Socratec, ez Platonec, ez Aristotec, ez beste Philosophuec behin ere ecin erakaxi dicie. Nois eta ere jarraitkitcen baitciren beste bertuther, hala nola Indarrari, Sobrietathiari eta Justiciari, umil içaitetic hain urrun ciaudeçun, nun ezpaitçuten bertuthe hetan cherkatcen berheciki fama eta ohore edo urgulu becic. Eguia duçu Diogenec eta beste çunbaitec —çoinhec kampoz mezperetchatcen baitcitusten mundiac estimatcen cithienac oro— iduri çutela mundia eta bere buriac mezperetchatcen citustela, bena manera hartan berian, bestec atchikitcen etçuten bide liferent batetaric bere gloria edo ohoria cherkatcen cicien; gueroz Philosopho orori reprotozchu hori eguin direecie eta ordiandanic Platonec Diogena hortçaz reprotozhatu cicin. Platonec Diogena beste çunbait Philosophoreki gomitatu cicin bazkaritera eta net ederki tapiz-araci jan behar çuten lekia; Diogena sartcen duçu lohistathia, tapiz hetaric bat <259> lurrerat aurtikiten dici eta bere bi huinhez haren gagnan ibilten hazten duçu; Platonec, hori ikussiric, galdeguin ciracoçun cer ari cen; ihardezten diracoçu: Platonen urguliaren huinhen petan erabilten. Bai, hala duçu —cioço Platonec— bena beste urgulu suerte batez.<sup>1</sup>

20 Hargatic ere Philosophac anitz urrun situçun eşagutctic cer den bere buriaren mezperetchatcia; bizkitarthian hartin diagoco eguiazco guirstinhuen umilitathia, çoinhen icena ere hec ezpaitçuten eşagutcen. Guirstinhuen bertuthe particularra duçu hori; Jesu-Christo duçu horren lehenic erakaslia. Seint Augustinec ciòtu, Jesusec borthian eguin cien perediku miragarria hartaric hassi ciela, erranez: *uroz dira is-pirituz praube direnac*: eci Seindu horrec, Seint Jeromac, Seint Gregorioc eta beste anitz Seinduc ciocie, ispirituz praube direnez endelgatu behar direla umilac. Salbaçale Jaunac bere peredikia umilitathiaz hazten dici, hartçaz seguitcen, hartçaz akabatcen, bere bici gucian eztiraguçi beste gauçaric erakazten eta berheciki nahi dici hareganic hura ikaz deçagun. Estici erraiten —cioço orano Seint Augustinec— ikaz eşacie eneganic, Celiaren eta lurrazen, agueri diren eta agueri eztiren gaucen creatcen, miraculu eguiten, hilen pitzten, bena *ikaz eşacie bihotzcez eztí eta umil niçala*; <260> eci umilitate eguiasco bat —cioço ber Seindu horrec— anitzcez baliozago dela eta anitzcez se-gurrago, ecin ez aicez eta urguluz betheric den handiostarçun bat. Hobe duçu umil içaithia eta Gincoaren beldurreki cerbitzhatcia, ecin ez miraculu egithitia. Umilitathiaren bidia, bide lanho eta langerric gabeco bat duçu eta aldiz, miraculu eguiteco boteria enguenagarri eta langeroz.

40 Berhecikiago minçatceco umilitathiaren dugun beharris: hain handi duçu, nun baithio Seint Augustinec bertuthe horrec excusa gabe behar thiela haz-araci, lagundu eta seguitu gure eguitate hun guciac; eci urgulia hetan nahazten den ordutic, ezkietaric beçala eremaiten diraguçi heen merechimendu gucia, çunbat-nahi bestagnez hun içanic ere. Hara certaco ere urguliaren eta banitathiaren beldurthiago içan behar dugun: eci beste biciuac eztituçi idireiten obra gaistuetan becic, bena urgulia idiren dieiteçu obra hunetan eta hartacotz, obra hunetan hobeki urgulutic beguiratu behar diici, amorecatic laudorien aiherrac gal-araci esteçagun eguiten tugun obra laudagarrrien prootzchia. Aiza beste biciuetaric beguirea guithakeçu, nahi badugu; segnhale bat bereki ekarten dicie bere burien eşagut-aracitceco; bethiere becathieki diabiltzçaçu.

---

<sup>1</sup> Jatorrizkoak honela dio: *oui, répondit Platon, mais avec une autre espèce d'orgueil* (RD 3, 272).

Bena urgulia ordenarioski obra huneki nahazten <261> duçu heen merechimendien gal-aracitceco. Orai berian guiristinho bat munduko itxassuan uroski cihacun eta Çelurat becic etcicin penxatcen; Celiari soiten ciracoçun, leku çointara haxetic heldu guei cien bati beçala, eta bet-betan urguluso aice bat jiten duçu, guiconer placer eguiteco desir bat, bere burias contentamendu bano bat, maluroski bide erditan galtzen duçu. Seint Gregorioc eta Seint Bernatec erraiten dicie anitz bertuthe biltcen dienac, espadu umilitateco bertuthia, erhauxa aiciari emaiten dienac beçala eguiten diela: lehen aice boultago oro ecestatcen derascola.

1

## BIGUERREN CAPITULIA [II/3/2]

### Umilitathia beste bertuthe ororen fundamena dela

10

Seint Ciprianec erraiten dici umilitathia seindutarçunaren cimendia dela; Seint Jeromac, aldis, guiristinhuen lehen bertuthia dela; Seint Bernatec deitzcen dici bertutheen fundamena eta beiralia, eta hirurec elga botz batez ciocie, beste bertuthe ororen jassailia dela eta Seint Gregorioc deitzcen dici batçutan bertutheen Ama, bestaldian heen Errua eta Iturburia. Erruaren icen hori net unxa diaucoçu <262> eta net unxa haren propithajiac eta condicioniac explicatzen tici; eci —cioço Seint Gregorioc— hala nola lili batec fresco eta eder içaithia bere erratic idokiten baitu, eta bildus gueros fite cimurtzen edo desseiten baita, orobat, cernahiden bertuthe umilitathiaren erratic kentzen bada, fite desseiten eta galtzen duçu. Aboro nola errua lurrian barnha sartzia baita, oren oroz nehor haren gagnan ibilten baita, edertarçunic ez urrinic ordenarioski ezpaitu, eta hargatic arboliaren bicia eta hazcurria erruan baita, guiza berian umilitathiac eiten dici umil denari laket baitzçaco lur-pian gorde-ric beçala egoithia, besten huin-petan eta mezperetzchien pian içaithia. Umilitathiac ihez eiten dici kampoco ospari eta cherkatzen gorderic ilhunpian egoithia eta bizkitarthian, haren persona umila beithan beguiratzen tici beste bertuthiac oro, eta egunetic egunera handi-aracitzen; eta nola arbole batec handitzekotz, luçaz irauteko eta frutu anitz ekarteko erruac barna uken behar baititu, eta nola çunbatenaz ere erruac lurrian barnago baitituke, hanbatenaz aboro iraunen baitu eta frutu ekarrico, Isaya Prophetaren erran hoen aravera: *erruac barnha egotzcico<sup>2</sup> tu eta gagnac frutu ekarrico du*, orobat bertuthe gure bihotzctean unxa prootzchatceko, heen ez galtzekotz eta frutu heer erakarcekotz necessario <263> duçu umilitathiac bihotzian erruac barnha eguinac uken ditçan, eta çunbatenaz ere barnago baitituzke, hanbatenaz ere bertuthiac emendaturen eta oren oroz azkarturenago tuçu.

20

Hassi dugun lekutic akabatceco, umilitathia Seindu gucien dotrinaren aravera, bertuthe gucien iturburia, fundamena eta errua duçu, hala nola urgulia baita, Çuhurraren erran hoen aravera *becatu ororen principiu eta haxarria*. Bena menturaz norbaitec erran ciroçu, nola erran edo abanca daiteke umilitathia bertuthe ororen eta

30

<sup>2</sup> gal-aracitceco: *gal-aracitceto*.      21 ezpaitu: *expaitu*.

<sup>2</sup> Liburuak *egotzcito* dakar. Adiera jatorrizkoan ageri da: *echar hondas raíces / il poussera des racines en bas* (RD 3, 276).

1 etche ispiritualaren cimendia dela, segur denaz gueroz fedia dela cimendu hura, Apostoliaren hitz hoen aravera: *nehorc ezteçake beste fundamenic eçar dejá eçarría dena becic, çoin baita Jesu-Christo?* Seint Thomasec net unxa ihardesten dici arraçoin horri. Bi gaucec içan behar cie —cioçu— etche baten cimendiaren unxa eiteco: lehena, lurraren unxa ideki behar ci, lur arhinha eta harinhacia<sup>3</sup> aurkiki eta cilatu, idiren artekan lurra azki gogor, haren gagnan murriaren hazteco. Biguerrena, unxa cilatu eta harinha oro idoki onduan, nehor hazten duçu lehen harriaren paussatzen, çoinhec beste grado berian eçarten tusteneki eiten baitu etchiaren fundamena. Horra nola —cioçu Seint Thomasec— umilitathiac eta fediac etche ispiritualen eiten duten gauçaren imagina <264> edo portreta; umilitathiac lurra idekiten dici, cilatzen eiteco lekia eta harinha oro camporat aurtikiten, çoin harinhac segnhalatzen baitu guïçonaren indar flakuac; eci eztuçu bertuthen etche ispirituala ein behar çure indarren gagnan; çure indarra harinha arhin bat duçu, çu beitaric aurkiki behar çu, çure buriaz mezfidatuz eta beti cilatuz idiren artekan lur gogorra han lehen harriaren eçarteco, eta harri hura Jesu-Christo duçu, çoin etche guciaren lehen fundamena baita. Cimenduko lehen harri horren unxa paussatcekotz, aitcinetic behar ci cilatu umilitathiaren medioz. Hartakotz umilitathia ere deithia duçu etche ispiritual haren fundamena. Umilitathiac lurra unxa cilatzen badu, gure ezdeuztarçun propiaren eçagutxian camporat aurtikiten gutan den harinha arhin gucia, erran nahi baitut guihauen beithan dugun fidancha gucia, han paussatzen Jessu-Christo, cimenduko lehen harria, haren gagnan einen den etchia etçu iguituco eta, ez aicec, ez hourec, behin ere etcirokecie aurkiki, ceren haren fundamena segur baitate. Bena umilitathia gabe nehorc etchia eiten badu, labur lurrerat erorico duçu, ceren harinharen gagnan eguina baitate.

20

Umilitathiaren gagnan fundatzen eztiren bertuthiac oro eztituçu eguiasco bertuthiac, ezticie bertuthen iduripena <265> becic, eta Seint Augustin minço delaric leheneco Errumaco çaharren eta noispaico Philosophuen bertuthez, erraiten dici etcirela eguiasco bertuthiac, ez choilki etcirelakotz Gincoaren amoriuaz pitzthiac —amoriuac emaiten dielakotz bertuthe gucier ispirituco bicia— bena etçutelakotz umilitathia cimendutako. Indarra, justicia, sobrietathia deitzen tusten bertuthen,<sup>4</sup> eta bertutheco obra gucietan etcien cherkatzen mundiaren laudoria eta bere famen hedatcia becic, eta hetan bertuthiac hutxac eta choilki bertuthen imaginac cituçun, bena ez eguiasco bertuthiac. Erraiten ere dici Seint Augustinec Errumaco çaharren bertuthez berheciki mintçatzen denian, nola itchourapenesco bertuthe batçu baitcieren, Gincoac lurreco huntarçunez saristatzen edo pagatzen cithiela, çoin huntarçun iduripeneskuac baitira. Nahi baduçu, beraz, eguiasco bertutheç çure ariman etche ispirituala eraiki deçaten, inxeá cite lehenic ariman umilitathiaz cimendu solido baten eguitarera. Bertuthian net gora joan nahi cira —cioçu Seint Augustinec— haz cite apalenataric; net gora bertuthian etchia eguin nahi duçu, orhit cite lehenic umilitathiaaren cimendiaz: cilatzen dici beti nehorc fundamena etchian karga eçarri nahi dienaren aravera, eta çunbatenaz ere nehorc nahi baitu etchia gora alchatu, hanbatenaz

40

<sup>3</sup> Lur arin eta hareatsuaz dihardu: *toute celle qui est légère et sablonneuse* (RD 3, 277).

<sup>4</sup> Genitiboa beharrean inesiboa izanik hobeki ulertuko litzateke; hona jatorrizko: *en su fortaleza, en su justicia, en su templanza pretendian ser estimados, y dejar memoria de sí* (II, 127) / *dans la force, dans la justice, dans la tempérance et dans tout ce qu'ils faisaient de vertueux, ils ne cherchoient que l'estime et la réputation du monde* (RD 3, 278-9).

cimendia barnago <266> eguin behar dici, goratarçunac cimendu barnaren araueco<sup>5</sup> içan behar ci. Halaz, Evangelioco perfeccioniaren etchia eztiroçu alcha çure umilitathiaren cimendiaren barnatarçunaren aravera becic. Erraiten dicie, Seint Thomaz Akinhakuac umilitathiaz minço celaric erraiten ohi ciela, cernahiden obra hun eguin leçan ohorathia içan nahi denac, mezperetchier ihez eiten dienac eta hurac ppenareki sofritcen, halakua unxa perfeccioetic urrun dela, ceren haren bertuthia umilitathia-ren fundamenic gabe baita.

1

### HIROURGUERREN CAPITULIA [II/3/3]

#### Çointan bertuthe principalac bedera-bedera igaranez, explicatcen baita berhecikiago nolaz den beste bertuthe ororen fundamena

10

Clarkiago orano eta hobeki eçagutaracitceco Seindien maxima hunen eguiaren —çoinhec erraiten baitute umilitathia dela beste bertuthe ororen fundamena, eta erakazteco fundamen hori çoinhen necessario çaucun— heben igaranen tiici hitz gutiz bertuthe principalac. Lehenbicoric fedian umilitathiac içan behar dici, eci bertuthe horrec galdeiten dici ispiritumil eta obedient bat Joandene Pauleren erran hunen aravera: *ispirithiac <267> oro Jesu-Christoren obedienciaren pian eçarriz*. Ispirithiaren urgulia, aldis, epantchu eta puchulu bat duçu fediaren erecebitzceco Salbaçale Jaunaren erranen aravera: *nola fediaren sinhesthia ukeiten ahal ducie ciec, çoin elgarren ohoratcen ari baitcirete, eta Gingoaganic choilki jiten den ohoria ezpaiticie cherkatcen?* Bena umilitathia necessario bada fediaren erecebitzceco, necessario ere duçu hartan irauteco; eci seindu guciec diaukacie fedia gal-aracitcen duten heresiac jiten eta sortcen direla urgulutic; ceren urguluxiac bere buriaz eta bere jakitathiaz hain opinione handia hartzen baitu, nun Eliça guciaren seindimendu generala beno aboro baithausca; eta hara cer ekarten dutela iduri duten Joandene Paule Apostolia-ren hitz hoc: *jakin eçacie azken egunetan dembora gaitz batçu içanen direla, eta guïçon bere buriac maite tusten batçu, abaricios, handios eta urguluxu batçu*. Eta Seint Augustinec remarkatcen dici hitz horien gagnan, Apostoliac berheciki handiostarçunari eta urguliari emaiten diela fediaren contre diren seindimendu ororen oguena. Halaber umilitathiac esperança behar ci sustengatu, ceren umil denac eçagutzen baitu bere miseria eta flakecia, eçagutzen dici bere beitharic deuz ere eztiroela eta guiza hartan, garxukiago Gingoari gomendatzen duçu eta hartan eçarten bere esperança guzia.

20

<268> Karitathia ere —çoin baitago Gingoaren maitatcian— emendatcen dici umilitathiac; eci ispiritumil bat aboro eta aboro bere Gingo hungui eguiaren mai-tatcera ekarria duçu, goguan hartuz hartin diren gauçac oro Creçaliaren ezkutic, batera merechi gabe dithiela. Job Seindiac erraiten cicin Gingoari: *cer da guïçona çu ha-ren eretcian hain hun içaiteco eta çure bihotzçaren hareganat hain ekarria içaiteco?* Cer, Jauna, ni çuri beti desobedient eta çu beti enetaco hun! Ni beti çure ofenxatzen ari,

30

<sup>5</sup> Liburuan bi era dira nagusi: *araura* eta *aravera*; salbuespenak dira 266 honetako *arau-eco* eta 411-ko *arau-era*.

1 eta çu beti çure graciez ene betatcen! Hara cerc handiski Seindien bihotzcetan anitz Gincoaren amoriua gortzzen cien, eci çunbatenaz ere aboro bere miseria eta indignatarçuna eçagutzen baitçuten, hanbatenaz ere hobeki seindi cicien çuten obligacionia Gincoaren maitatceco, çoin azki hun baita bere begui divinuen eta amoraxien egoz-teco, hain apal eta ezdeuz den creatura baterano. Ama benedicathiac erraiten cicin: *ene arimac laudatcen du Jauna, ceren sogen baitu bere Neskatuaren apaltarçunari.*

Proximiaren eretcerat ekarri behar dugun amoriuaz den beçanbat, nehorc aiza ikusten dici umilitathia çoin necessario den, ceren gauçaric gure anaien eretcerat ordenarioski hotzten guithienetaric bat duçu, heendaco hartcen tugun sinheste gaisthuac eta hetan direla uzte dugun eztacuriac. Persona <269> umil bat horietaric orotaric urrun diagoçu, umila bere eztacurier so diagoçu, bestener batere, bere proximuan ikusten tici choilki obra hun eta bertuthoz direnac eta halaz, uste dici mundu oro perfeit dela eta eztela nehor ere gaiztoric eta eztacurudunic bera beicic. Uzte dici ezhthiela merechi besten compagnhan bicitcia eta heen eretcerat, amorioz, estimuz eta respetuz bethia diooçu. Umil denari orano etciacoçu gaitzci nehorc mundu oro hura beno aboro eztima deçan, nehorc bestez cassu eguin deçan eta ez hartçaz, bester em-plegu edo karguric handienac eman ditçaten eta hura karguric thiopenetan atchiki deçaten. Persona umilen arthian eztuça bekaisteriaric, ceren bekaisgua urgulutic sortzcen baita eta halaz, umilitathia gueihen den lekian, nehorc etci ikussico ez be-kaisguaric, ez diskordiaric, ez aharraric, ez deuz ere anhayen arteco amoriua hotz-araz diroenic.

30 Pacencia ere, hain bertuthe necessariua, guiristinho baten umilitatetic jiten edo sortcen duçu, ceren umil denac, eçagutzen baititu bere faltac eta bere becathiac eta aitortzzen baitu denbora berian gaztigu suerte guiac merechi thiela. Hartakotz, heltzen çazkon nahigabe guiac, uzte dici haren faltec merechi duten beno thipiago direla eta gaitz hartu gabe, erraiten dici Michea Prophetareki: <270> *bihotz hunez sofrituco ticit Jaunaren coleraren punimendiak, ceren haren contre becatu ein bai-tut.* Guiçon urguluxu batec oro gaitz hartcen tici, eta beti arraçoinhic gabe<sup>6</sup> uzte dici nehorc oguen eguiten deracola, eztutela bere merechimendien aravera estimatcen. Umilac, aldziz, cernahiden oguen nehorc eguin deçacon, etci goguan hartcen, ez pen-xatzen oguenic eguin deracotela, eztici ere uzte neholare eguin deçakootela; beti idireiten dici nehorc gracia eguiten deracola eta cernahiden guizaz nehorc trataturic ere, beti content duçu, ceren beti uzte baitu nehorc merechi dien beno hobeki tratatzen diela. Azkenekotz, pacenciaren jardiresteco umilitathia bide edo disposizione handi bat duçu, eta hartakotz, Çuhurraç Gincoaren cerbitzchian sarthu nahi dena aber-bitu onduan, prepara dadin anitz nahigabe eta dezplacerretara eta pacenciaz betha dadin, hartaco emaiten dien moyena umiltarçuna duçu: *umilia çäcu çure bihotza —cioçu— eta pacencia har çäcu, eta Gincoac igorten derautçunac oro erecebi çatçu eta pacienki ppenac sofri.* Bena nola hori eguin dirogun erakasten diraguça orano beste hitz hotçaz: *ukaçu pacencia çure umilitathian,* erran nahi baita, içan cite umil eta or-dutic pacient içanen cira.

6 Horko “arrazoïnik gabe” ez doa oro hitzarekin; egiten dioten kaltea “arrazoïnik gabe” egiten diotela adierazten du; cf. jatorrizkoan: *et s’imagine toujours, sans sujet, qu’on lui fait tort* (RD 3, 283). Jatorrizko mezuri atxikitzeko komak lekuz aldatu ditugu, liburuak honela baitakar: *hartcen tici, eta beti arraçoinhic gabe, uzte dici nehorc oguen eguiten deracola...*

Bakia ere, mundu ororen hain huntarçun desiragarria, hain necessariua, umilitatetic <271> jiten duçu. Jesu-Christoc berac eguiā hori erakazten diraguçu, erraiten die-nian: *ikaz eçacie eneganic bihotzcez ezti eta umil niçala eta cien arimen paussia idieren ducie*. Umil içan citeste eta bakian içanen cirete cihaurien burieki eta beste ororeki. Çuhurraq erraiten dici *urguluxien arthian beti discordia edo nahazteria badela*; bena hoc elgarren arthian beti ordenarioski aharretan diren beçala, umilac bakian diaudeçu. Eguiasco umilen arthian ezhiteceu içan beste contestaric,<sup>7</sup> coinhec bere buria apaldurenago dien becic, eta coinhec batac besthia ohoraturenago dien. Guiza hortaco çuçun Joandene Paule Ermithainharen eta Seint Antonioren arteco contesta;<sup>8</sup> behar cicien Gincoaren manuz beliac ekarri cereen ogua hautxi eta partitu; Paulec nahi cicin Antonioc eguiñ ceçan Arrotz beçala eta Antonioc Paulec eguiñ leçan, hura beno çaharrago celakotz. Bakoitzçac bere aldetic besthiari oguiaren hautx-aracitceco arraçoinhac ekarten citicin. Guiza hortaco disputac hun tuçu eta, nola eguiasco umilitatetic sortzcen baitira, ezticie nahazten, ez gal-araciten elgarren arteco bakia eta amoriua, bai, aldiz, azkartcen eta iraucor eguiten.

Minça guiten orai beste hirur bertuthez: praubeciaz, garbitarçunaz eta obedien-ciaz. Praubecia eta umilitathia elgarri hain <272> emanac dituçu, nun iduri baitute bi ahispa direla. Dhohaxu eguiten gütusten bertuthetaric lehena, Jesu-Christoc eçar-ten dici ispirituz prabe içaithian, eta çunbait Seinduc hori umilitathiaren hartcen dicie, eta beste batçuc praubecia bere nahiskuaren, hala nola Fraidec eta Serorec Komenthietan hautatzen duten beçalakua. Bena cernahiden içan dadin, praubeciac umilitathia beti lagun uken behar dici: eci bestimenda arrunt eta char bat içan diei-tecu hala bestituric denarendaco urguluso occasione bat, unxa bestithiac urguluxu bailira beçala mezperetchatuz. Hartacotz Seint Augustinec nahi cicin haren Komen-tuco Fraidiac, ez endezki, bena onezki bestithiac içan citen. Bestalde, orano umili-tathia necessario duçu, deuzen faltaric ez ukeithiareñ eta gure unxa ez<sup>9</sup> içaithiareñ so-bera ez desiratceco, eta Gincoac emaiten derauzkigun gaucez content içaiteco.

Garbitarçunaz den beçanbat, segur duçu haren beguiratceco umilitathia necessa-rio dela. Desertuko Aiten bicitcian badiici anitz exemplu, erori ahalgaiçunic helduric guiçon penitencia handirc eguiñez bici ciren batçuri,<sup>10</sup> eta bakartarçuneco bici gogo-rrian; eci heen flakeiac jiten cituñ umilitate ezkacetic, pressumisionetic edo bere burietan sobera fidaincha eçartetic, eta Gincoac urguluxia puniten dici permetituz <273> erorte suerte horiec. Umilitathia garbitarçunaren eta chahutarçunaren hain edergailhu handia duçu, nun Seint Bernat erraitera menturatzen baita Ama Virginaren chahutarçuna, umilitathia gabe, Gincoari etcitçacola laket içanen.

Obedienciaz ere erraiten ahal diici, umilitathia gabe eztaiteela içan, eci umil ez-tena eztetu içanen secula anitz obedient eta aldis, eguiaski umil dena beti obedient duçu. Nehorc cernahi mana ciroçu persona umil bat, bestec nahi dutena nahi dici,

<sup>7</sup> Jatorrizkoak honela dio: *entre los humildes no puede haber renuencia ni disension, sino en aquella santa renuncia y porfia de cual será mas humillado* (II, 130) / une seule contestation entre eux (RD 3, 285).

<sup>8</sup> Hona jatorrizkoak dakarrena: *cual fue aquella graciosa contienda* (II, 130) / la contestation de saint Paul hermite et de saint Antoine (RD 3, 285).

<sup>9</sup> Ez da egoki ez hau, "gure untsa izaitaren sobera ez desiratzeko" da jatorrizkoari darion zentzua.

<sup>10</sup> Jatorrizkoak honela dio: *de feas y torpísimas caídas en hombres de muchos años de penitencias y vida solitaria* (II, 131) / de tant de chutes honteuses arrivées à des hommes consommés dans la pénitence et dans la vie solitaire (RD 3, 286).

1 osso-ossua bere gueihenaren manura diooçu, ez choilki bere conduitan eta bere obretan, bena orano bere borondathia eta bere Jujamendia haren manuco tici, hartan nehorc etci idireiten contrastic, ez heraberic,<sup>11</sup> bena urguluxiez eztuçu gauça bera.

Consideratzen badugu otoitzça —çoin baita bici ispiritualaren fundamen—aiza eçaguturen diici umilitathia gabe eztela prootzchoz; umilitathiareki, aldis, Celura heltcen dela Çuhurraren erran hoen aravera: *umilitacen denaren otoizça odeien gaindi igaranen da; Gincoagana hel arthio ezta consolathia içanen; Ginco Handia-ren aitcinetic ezta jalguico haren so huna uken arthio*. Judith Seindac eta umilac, bere gambaran cilicioz cintaturic, hautzez eztaliric eta lurrian hedaturic, oihuz Gincoari 10 ari çuçun, erraiten ceracolaric: *persona <274> umilen eta ezthien otoitzçac beti placer ein derauçu*. Erregue Prophetac cioço *Gincoa umilen otoitzçari behatzen dela eta heen otoitzçac ezthiela mesperetzchatzen*. Ezteçacie uken, beraz, beldurric, guïçon umil bat Gincoaz confusionereki ireicia içanen dela; galdeinhac oro hareganic jardirexico tici. Soicie Publicanuaren otoitzça Gincoari çoinhen laket içan citçacon: beguien Celurat alchatcera, ez Aldarerat hurrantcera etçuçun menturatzen, bena Templiare choco bathian çollaric, boulharrac joiten cithielaric, bere buriaren eçagutce umil bateki erraiten cicin: *ene Gincoa, nitçaz, becatore bat bainis, ukaçu pietate*. Jesu-Christoc 20 erraiten dici: *segurtatzen citustet bere etcherat Publicano hori joan dela bere becathie-taric chahaturic*; eta aldis, Phariseen urguluxia Templuti jalgui çuçun condenathia. Beste bertuthe guiac oro guiza berian igaran ahal guinçakeçu eta erakax, hetaric batera umilitathia gabe estaaiteela içan eta halaz, nahi baduçu moyen laster bat heen jar-direseco eta ezcola labur bat fite perfeccionera heltceco, haur duçula: içan cite umil.

### <275> LAURGUERREN CAPITULIA [II/3/5]

#### **Umilitathiaren lehen graduaz, çoin baitago norc bere buriaz sinheste edo opinione apal baten ukeithian**

Seint Laurenc Justinienec erraiten dici nehorc ere ezthiela umilitathia unxa eçagutzen, Gincoaganic bertuthe horren dohainha erecebitu dienac becic; bere beitharic net neke dela haren eçagutcia eta guïçona eztela deussetan ere ardurago trompatzen, eguiasco umilitathiaren eçagutcian beno. Uzte duçu —cioço Seindu horrec— umilitathia doola erraithian becatoroz eta miserable bat cirela; hortan balago mundian elukeçu gauça ihiagoric, oro umil quintukeçu; eci oro pundu hortan ber guizan minço guituçu eta Gincoac lexala becatore eta miserable guirela erraiten dugun beçala, gure beithan hala guirela sinhestetan guinen! Uzte duçu orano umilitathia doola charki bestituric içaithian eta lan apal eta mezperetzchagarrien egithian; trompatzen cira, eci horien ororen pian urguulu anitz gorda diesteçu: besthiac ez beçalaco eta persona behar beçalaco eta umil baten igaraithiagatic, horiec oro eguin dieisteçu eta ordutic urgulu eçabiago bat, bena langerozago <276> bat dukeçu. Etcit erran nahi, umilitatesco hitz eta obra agueri horiec eztutten anitz laguntzen eguiasco umilitathiaren jar-

10 otoitzçac: *otoitzcac*.

12 Ezteçacie: *Eztecacie*.

14 çoinhen: *coinhen*.

23 275: 175.

<sup>11</sup> Jatorrizkoak ‘resistencia / répugnance’ dakar (RD 3, 287).

direseco, nehorc behar den beçala eguiten thienian, bena ororen burian, umilitathia ezthiagoçu hetan.

Seint Jeromac erraiten dici anitzcec umilithathiaren itçala eta iduria hartzcen dutela, bena gutic eguiascua. Ihi duçu buria apalduric eta beguiac egotzciric edo lurrari soinez ibilthia; minçatceco aire umil baten hartzcia; noizceti noizcera<sup>12</sup> hazper eguiuthia,<sup>13</sup> bai eta ere hitzkal bere buriaz becatoroz eta miserable bat dela erraithia, bena halakuer erran eceeçu cerbait nahi eztutenic; ikussico duçu çoinhen urrun diren eguiasco umilitatetic, heen manera minberetaric.<sup>14</sup> Biskitarthian, pacenciati duçu agueri nor diren eguiasco umilac, eta hortan diagoçu eguiasco umilitathiaren po-roancha segurra.

Seint Bernatec explicatcen dici berhecikiago certan daguen umilitatesco bertuthia. Cioçu dela bertuthe bat, çoinhec/guiçona bere buriaren eretcian mezperetzchagarri eçarten baitu, bere buriaren eçagutce eguiasco batez. Umilitathia esthiagoçu, be-ratz, erran dugun beçala, elhetan, ez agueri diren maneretan, bena diagoçu bihotzceco seindimendietan, eta bere ezdeuztarçunaren eçagutce handiac bere buriaz emaiten deracon sinheste apalian, eta <277> mundu guciaz mezperetzchaturic içaiteco nehorc dien dessirrian.

Seindu umilitathia chehetarçun bateki tratatu dutenec anitz grado bertuthe hortan eçarten dicie. Seint Benuetec —çoin Seint Thomasset et Beste anitce pundi hortan seguitu baitute— hamabi grado eçarten tici; Seint Anselmac çazpi; Seint Bonaventurac hiruretan cerratcen tici eta azken haur laburrago içaithiagatic seguituço diici, amorecatic umil[i]thiaren escola pundi gutitan cerratu onduan, ihikiago beguien aitcinian atchiki deçagun beti seguitceco.

Umilitathiaren lehen gradua —cioçu Seint Bonaventurac— dela bere buriaz opinione apal baten ukeithia, eta hartaco bide bakarra bere buriaren eçagutcia duçu. Seint Bernaten explicacioniac ber bi gauça horiec<sup>15</sup> cerratcen tici, eta guiza hortan choilki hartcen erran dugun lehen gradua. Umilitathia duçu bertuthe bat, çoinhec/guiçonari bere buria mezperetzchagarri eguiten baitu; horra bi gauça he-taric lehena, eta bere buriaren eguiaski eçagutcia duçu biguerrena; eta hanti jit-en duçu çunbaitec bere buriaren eçagutcia eçarten baitute umilitathiaren lehen graduarendaco, eta dudaric gabe arraçoinheki: bena nola guc heben bertuthe ho-rren graduac oro hiruretan cerratcen baititugu Seint Bonaventurareki, umilitathia-ren <278> lehen gradotaco eçarten diici bere buriaz opinione apal edo char baten

20 çazpi: *cazpi*.

<sup>12</sup> Gaztelaniazko jatorrizkoan ‘muchas veces’ (II, 141) eta frantsesekoan ‘de temps en temps’ (RD 3, 308).

<sup>13</sup> Jatorrizkoak *suspirar / soupirer* dakar (RD 3, 308).

<sup>14</sup> Komunzadura hau ulertzea ez da hain unibokoa: *ikussico duçu çoinhen urrun diren eguiasco umilitatetic [eta] çoinhen urrun diren heen manera minberetaric* ulertzen dugu guk eta ez “heen manera minberetarik ikusiko duzu zoïñen urrun diren egiazko umilitatetik”. Latinez *cessent simulati gestus* dio eta umil itxura egiten dutenen keinuak gaitezsten dira; jatorrizkoaren frantses itzulpenean ere bai: *et vous verrez combien il sont éloignés de l'humilité véritable. Laissons donc là le déguisement des paroles et ces manières affectées* (RD 3, 308). Behoko ahapaldian berriz dio umiltasuna ez dagoela elhetan, ez agueri diren maneretan. Nolanahi ere den, “manera minberak” salatzaile joz gero, uler liteke ere *been manera minberetaric* ageri dela *çoinhen urrun diren eguiasco umilitatetic*.

<sup>15</sup> Jatorrizkoak honela dio: *estas dos cosas son / n'embrasse que ces deux choses* (RD 3, 309).

1 ukeithia, eta bere buriaren eçagutcia, aldis, hartcen diici grado hartara heltceco ne-  
cessario den bide bat beçala.

Ororen burian batetara dihaçu eta oroc aitor diici, bere buriaren eçagutcia umi-  
litathiaren eta bere buriaz uken behar dien sinhesthiaren haxarria eta errua edo ci-  
mendia dela. Eci, nola jakin daiteke nehorc justoki norbaitez cer sinheste uken  
behar dien, eçagutzen ezpadu? Impossible den gauça duçu. Lehenic unxa eçagutu  
behar çu eta guero eçagutce haren araura hareganaco opinioia hartu. Halaz, lehe-  
nic eguiñ behar duçun gauça duçu çure buriaren unxa eçagutcia, guero çure bu-  
ria behar den beçala eçagutzen baduçu eta cirenarendaco atchikiten baduçu, umi-  
lic aski içanen cira, eci ikussico duçu gauça guthia cirela.<sup>16</sup> Seint Isidorac cioço  
superbus hitzça, çoinhec latinez urguluzia erran nahi baitu, jiten dela ceren hala  
deitzcen denac, eguiaski den beno aboro estimathia içan nahi baitu. Hartacotz ere  
çunbait Doctorrec, Ginczac umilitathiaren dien amoriuaren arraçoinhetaric baten-  
daco emaiten dicie, Ginczac eguiarendaco dien amoriua, eci umilitathia eguiña bera  
duçu; urgulia, aldis, eta gure buriasco opinione huna, eztena, engueniua; eci etcira  
eguiaski cirela uzte <279> duçuna, ez eta ere bestec cirela uzte uken leçaten nahi  
cindukeena. Nahi bacira, beraz, eguijan eta umilitathian ibili, atchikaçu çure buria  
cirenarendaco eta segurki etçauçu sobera edo anitz galdeiten; eci cer arraçoin duçu  
ciren beno aboro cirela uzte ukeiteco? Hori lukeçu çure buriaren langeroski engue-  
naciacia.

## BOSTGUERREN CAPITULIA [II/3/6]

### **Bere buriaren eçagutciaz, çoin baita umilitathiaren ithurburia edo haxarria eta hartara heltceco bide bakarra**

Haz guiten, beraz, cer guiren eçagutzen gure miserien eta flakecien leician  
sarthuz, han umilitathiaren tresoraren idireiteco. Dihuru bat galdu içan duçu  
—cioço Seint Jeromac— eta lohian eta saxukerietan idireiten duçu; eta guc ere gure  
becathien eta miserien saxukerietan umilitathiaren harri preciatthia idirenien diici.  
Unxa eta seguidan pundu hunen arguitceco eta endelgaracitceco, ikuz deçagun lehe-  
nic cer den guiçona bere gorpitçaren araura. Seint Bernatec erraiten dici: goguan beti  
atchikitça hirur gauça hoc: cer içan ciren, cer ciren eta cer içanen ciren; bena cer  
içan cira? Gaistakeriasco aci bat. Cer cira? Saxukeriaz beteric den <280> unci bat.  
Cer içanen cira? Harren baska. Hirur gauça horietan badukeçu cer unxa goguaketa  
eta nun chila gure miserietan. Arraçoinheki Innocent deitcen cen Aita Seindu batec  
erraiten cicin: ô guiçonaren chorte tristhia eta ahalgaiçuna!<sup>17</sup> Soguicie nola belharrec  
eta arbolec ekarten duten osto, lili eta frutu, eta guiçonaren gorpitzçac eztu ekarten  
saxukeriaric becic; arbolec ekarten olio, ano eta balxamu eta urrin hun bat orota-

---

34 ahalgaiçuna: *ahalguaiçuna*.

<sup>16</sup> Jatorrizkoak honela dio: *porque os tendreis en muy poco / car vous verrez que vous êtes peu de chose* (RD 3, 310).

<sup>17</sup> Bada *ahalkaitçunic* (293) aldaera ere.

rat emaiten, eta guiçonaren gorpitzça saxukeriasco eta urrin gaisthoz beteric den ci lo bat; arbolia nolaco, fruthia halaco; eci arbole gaisto batec estiro behin ere frutu hu nic ekar. Comparancha net justo bat eiten dicie Seindiec guiçonaren gorpitzçaz eta elhurrez eztaliric den hungarri poulo batez; eci hungarria ere elhurrez estalia de nian eder eta churi duçu, bena bere beitan saxukeria becic eztuçu. Gogua emaiten baduçu —cioçu Seint Bernatec— guiçonaren gorpitzcetic jalguiten diren saxukeria orori, estuçu idiren hungarriric becic, ez hura beçain gauça saxuric, eta hara cerc erran-aracitcen ceracon Job Seindiari: *erran dut ouztelari ene Aita cira, eta harrer ene Ama eta ene Arreba cirete*; eci eguias erraiteco, cer da guiçona, becic ere ustelduraren eta harren unci bat? Certçaz, beraz, banitate hartuco dugu? Certçaz urguluxu dai teke <281> erhauxa eta hauxa? Ez bereren orai aipatu dugun miseriez, eci eztiiici hetan idiren umiliatceco eta guihauen burien mesperetchatceco arraçoinhic becic. Seint Gregorioc erraiten dici umilitathiaren beguiracale hun bat dela guiçonaren flakcien eta miserien orhitzchapena, hungarri haren pian net unxa beguiratcen dela bertuthe balioz horren landaria.

Bena guacen aitcinago erran dugun gure miserien leice hortan; sognin eçaçu cer cinen Gincoac creatu beno lehen, ikussico duçu deuz ere etcinela eta ezdeutzarçuneco leicetic etcindukeela idoki çure buria. Bena Gincoac bere huntarçunaz hantic idokiric eman derauçu içaithia; halaz, arren, gure beitharic deus ere ezkituçu, eta gure buriac, eztiren gauçac beno aboro eztiiici behar estimatu, eta cerbait aboro baguira, Gincoari tiici eskerrac. Joandene Paulec erraiten dici: *nehorc uzte badu cerbait badela, eguiaski deuz esten demboran, bere buria enguenatcen diela*. Hortan idireitce handi bat eguiten diici, eta gure bici orotan umilitathian aberax guitçakeen bat.

Bena orano reflexione hortan aitcinago joan gueisteçu<sup>18</sup> eçaguthuz Gincoac eman deragun içaithia eztirogula beguire. Eztuçu gutçaz etche batez beçala; officialec egu[i]n onduan uzten dicie eta eguiiac gabe bera badiagoçu; guc, aldis, creacionetic landan eta gure bicico mement <282> guciez, hainbeste Gincoaren laguntçaren beharra badiici dugun içaithiareñez galtceco, haren jardiresteko uken dugun beçala. Gincoac bere ezku boteretxias beti beguiratcen guitici erortetic ezdeutzarçunaren leicera, çointharic creatcian idoki baikitu, eta hartakotz Erregue Prophetac Gincoari erraiten diracoçu: *Jauna, moldatu nuçu eta çure ezkia ene gagnan eçarri duçu*. Ezku harc jassaiten eta bici-aracitcen nici eta beguiratcen idoki nuçun ezdeutzarçunera berriz itçulcetic. Hanbat Gincoaren socorriaren beharra diici eman deragun içaithiareñirauteco, nun falta baleçagu eta mement batez bere ezkia guganic urrunt baleça, instant berian ezezta baikindaiste hala nola arguia galtzen baita ekia gordatzen denian. *Aracione guciac*<sup>19</sup> —cioçu Isaia Prophetac— *Gincoaren aitciniyan ezpalira beçala tuçu, eta haren eretcian ezdeuz beçala*. Guihaurez ere erraiten diici egun oroz ezdeuz guirela; beldur ukeiteco diici ordian minço guirela ezpagnez choilki eta eztugula unxa eçagutzen cer erraiten dugun. Jaunac letxala endelga guindeçan eta seindi Prophetac endelgatzen eta eçagutzen cien beçala, Gincoari erraiten cienian: *niçana oro ezdeuz beçala nuçu çure aitciniyan*: neure beitaric eguiaski ez-

<sup>18</sup> Ez dakigu aldaera jatorra ala <guiesteçu>-ren ordain dagoen hutsa ote den; 309-n <guiezteçu> da kar.

<sup>19</sup> Jatorrizkoak honela dio: *todas las gentes / toutes les nations* (RD 3, 315). Ez dakigu *Aracione* hori *Nacione* baten ordain dagoen hutsa ote den; ikus hiztegian *arazione* sarrera.

1 deuz nuçu; eci eninduun eta içaithia çureganic dicit; çuc, Jauna, eguin nuçu eta cer arraçoinhez neure içaithiaz <283> urguluxu naite, eztudanaz gueroz neure içai-teco deuz eguin, eta çuganic, Jauna, choilki dugunaz gueroz gure içaithia, bicitcia, cerbait eiteco ahala? Oro çure ezkutti tiici; gutçaz den beçanbat deuz ere etciroguçu, ceren gure beitharic ezdeuz batçu baikira. Certçaz urgulutan sartcen ahal guira? Gure ezdeuztarçunaz aguian? Gorago Çuhurareki erran diici: *certçaz urguluxu daite erhauxa eta hauxa?* Bena orai erran ciroguçu, certçaz urguluxutceen ahal da ezdeuza, erhauxa eta hauxa beno guthiago dena? Cer arraçoin du banitatetan sartceco eta cerbait dela sinhesteco? Segurki eztici arraçoinic batere.

10

## SEIGUERREN CAPITULIA [II/3/7]

### **Nehorc bere buriaren eçagutceco eta umilitathiaren jardiresteco ecinago bide hun eta segur bat dela bere becathiez orhitzcia**

20

Guacen aitcinago gure burien eçagutcian, erabil deçagun orano guehiago gu beithaco lurreSCO içaite haur, bena idiren daitea hortan cerbait guehiago umilia guitçakeenic? Içan daitea cerbait azken capitulian minçatu guiren ezdeuztarçuna beno apalagoric eta guiçona aboro umilia diroenic? Bai, duda gabe baduçu besteric <284> cerbait, ezdeuz içaithiac beno guiçona apalcenago dienic Gincoaren aitcinian, eta hura becathia duçu. Cer leice barna eta ilhuna ezta becathia! Anitzcez ezdeuztarçuna beno barnago, beltzago eta ikaragarriago duçu, sordeitxago denaz gueroz becatu eguthia, ez içaithia beno. Jesu-Christoc erraiten dici Judassez minço delaric, çoinhec traditu nahi baitcien: *hobe çateen<sup>20</sup> harendaco sorthu ezbali*. Eztuçu gauça direnetan eta eztirenetan deuz ere hain apalic eta hain mezperetzchagar[r]iric Gincoaren aitcinian, guiçon becatu mortalian dena beno, çoin Celutic dezterrathia baita, Gincoaren exai eta Ifernuco ppena eternaletara condenathia. Goguan beti uken deçagun egua hori, nahibada ezkindukeen ordian seindi concencian becatu mortalic batere; eta nola gure ezdeuztarçunaren hobeki eçagutceco, beguien aitcinian eçarri baitugu ezkinen dembora, orobat hobeki eçagutceco gure apaltarçunaren eta miseriaren, orhit guiten becathian guinen demboraz; goguan har deçagun çoinhen estatu tristhian guinen, noiz eta ere Gincoaren beguietan becathiaz higungarri baikinen; 30 Gincoac soguiten ciraguçun bere exaiari, colerasco haur batçuri eta Ifernuco ppeneratarat condenatu criminel batçuri beçala, eta hortan gagnan ahalguez hourt guiten eta ahalaz umilia eta apal guiten; eci sinhexi <285> behar diici, Gincoa offendixatu dien bat, çunbat-nahi apalduric ere, eztela merechi dien beno aboro umiliaturen eta apal-duren. Goguaketa hori ecinago barna eta çolaric ezthien leice bat duçu, eci Celian ikuz artekan Gincoaren huntarçuna çoinhen handi den, etciroguçu unxa eçagut ahal, çoinhen handi den haren contre eguiten dugun becathiac merechi dien gaztiguia edo punimendia.

Hori unxa goguan erabil baguindeça eta gure becathiac eta miseriaç unxa iker ba-guinça, net humil guintukeçu eta gure buriac guti estima guinçakeçu, eta placerreki

<sup>20</sup> Zuberoan ere honela baliatzen zen garai hartantsu: *çapartatu içan baliz charlemaigna hobe çatian gouretaco* dakar Charlemagne pastoralak (Oihartzabal 1991: 286).

mezperetzchiac eta dezohoriac erecebi. Gincoaren eretcerat leal içan eztenac, haren graciān jarri onduan, cer eluke behar sofritu haren amorecatic? Gincoa utci dienac bere passionen seguitceco, bere Creaçalia offendxatu dienac eta bere Naussia, placer igarancor baten hartceco, eta halaz ppena eternalac merechitu thienac, cer mesperetzchuren, injurio, afronturen gogotic erecebitceco eluke ekarria içan behar, Gincoaren majestathiaren contre eguin thien offendxen barkamendiaren jardiresteco? *Becatu eguin nicin* —cioço Davitec Gincoari minço delaric— *gaztigiez eraiki*<sup>21</sup> *ninducun beno lehen, eta hartakotz guero hobeki çure manu seindiac beiratu ticit*, hara cergicatichilic noon eta eniçan menturatcen planhuric eitera; eci <286> sofritcen dudana deuz ere eztu ene becathiec merechi dutenaren aldian; enuçu punitu, Jauna, merechi nukeen beçala, eta mundu huntan sofritcen ahal quintuskeen ppenac oro deuz ere eztitu ene becathiec merechitu dienari ihardesteco. Eztea justo becatoriac Gincoa mesperetzchatu onduan, bera içan dadin mesperetzchathia? Guti estimu nehorc uken deçan, bere Naussi oroz gagnekua estimatu ezhienaz gueroz? Eta guion beren Creaçaliaren offendxateco borondathia eta aussartcia uken diena içan dadin punithia, behin ere nahi dienaren equiteco ahala ecin ukenez?

Éta hori duçu segurhaintcharic ecin ukena Gincoac becathiac barkatu derauski-gunez, çunbat ere esparança ukeiteco dugun Gincoac barkatu derauzkigula. Çuhurrac erraiten dici guionac ezhakiela Gincoaren adiskide ala exai den, eta halaber Joandene Paulec erraiten cicin: *deuz ere eztut ene concencian seindi, hargatic ere ezta-kit chahu niçanez Gincoaren aitcinian*; maluroska becathian baniz, cer baliatuco çaut Apostolu içaithia eta arimen Gincoaganat itçul-aratcithia? *Guionen eta Aingurien lenguayaz mintça nindaitkeen ordian, justo ezpaniz,*<sup>22</sup> *trompeta bat eta soinhu airian galtcen den bat beçala niz; Prophetec beçala jinen diren gaucen jakiteco dohainha banu ere, jakitate guiac <287> nithien ordian ere, eta ene fedia azki borstzitz*<sup>23</sup> *mendien le-kuz canbiaracitceco, becathic mortaleric chahu ezpaniz deuz ere enuçu, eta neure huntarçunac oro prauben hazteco eman banitça ere, eta ene gorpitzça súian erratceco, horiec oro deuz etciatzkidatcu baliatuco Gincoaren gracion ezpaniz.*

Eztatu tristhian guituçu, beraz, ezpaguira Gincoaren amoriuan, eci hura gabe deuz ere ezkitu, eta orano ezdeuz beno guthiago guituçu. Eremedio hun bat duçu beti umiltarçunian egoiteco eta bere buriaz opinione apal baten ukeiteco, ecin jakithia Gincoaren gracian den bai ala ez. Baciakiguçu segurki Gincoa offendxatu dugula eta etciakiguçu, aldis, segurki barkamendia uken dugunez. Halaz, nor menturatuco da buria gora ibiltera? Nor ezta bere beithan ahalguez urthia egonen? Eta nor ezta luraren bihotzceranhokuan apaldo du hain ikaragarri den duda batean? Hara cerc erran-araci dien Seint Gregoriori Gincoac nahi uken diela ezkin-deçan uken segurtaincharic haren amoriuan guinela, haren gracia baten segurki beti ukeiteco, çoin baita umilitathia. Eguiaz çumbat-nahi ppenagarri iduri dien

<sup>21</sup> Adiera ‘hezi’ izan lezake, ikus hiztegian *eraiki* sarrera; jatorrizkoak honela dio: *antes que me viniese el azote con que Dios me aflige y humilla, yo había hecho porque, ya yo había delinquido / j'avois péché, dit David, en parlant à Dieu, avant que vous m'eussiez humilié par les châtiments* (RD 3, 318).

<sup>22</sup> Liburuak *expaniz* dakar. Adieraz, hona jatorrizkoak zer dioen: *aunque hable con lenguas de Angeles... si no tengo caridad... / quand je parlerois le langage des hommes et des anges, si je n'ai point la charité, je ne suis que comme une trompette et une cymbale, dont le son se perd dans l'air* (RD 3, 319).

<sup>23</sup> Huts bat baino gehiago ageri da aldaera honetan; *borthizt* (126) eta *bortzthitcena* (50) adibideak gora-behera, liburuan sistematikoki *bortitz* ageri da.

1 Gincoac pundu hortan uzten deragun beldur eta dudac, Gincoaren misericordia eta huntarçun handiaren eguitate bat duçu, beldur bat prootchossa umilitathia-ren jardiresteco, haren beguiratceco eta gure <288> proximuac cernahiden becatu eguinic ere, haren mezperetzchatcetic gure guibelceco. Ala baita arraçoin handi eta bortitz bat Gincoaren cerbitzchian gure finkaracitceco, behin ere lachatu gabe hunguiaren eraiteco, eta beti Gincoaren beldurrareki eta umilgui ibil-aracitceco, goguan hartcia proximo becatore handi guindaukan hura, aguian Gincoac bere faltac barcaturic bere gracian erecebitu diela, guihaur harten guirenez ez jakithia! Hartakotz Ispiritu Seindiac Çuhurraren ahotic erraiten dici, guiçon beti Gincoaren beldurrian dena uroz dela; beste leku batetan, aldis, abertitcen guitici, becatu barcathien gagnan ezkiten beldurric gabe içan. Halaz eguin ahal quintukeen becathien orhitzchapena net prootzchoz duçu gure umiltarçunian eta guihauen burien mezperetzchian atchikitceco; hortan badiici anitz arraçoin goguaketa finic eta barnaric eguiteco.

10 20

Bestalde goguan hartcen baitugu becatu originaletic jiten çauzkigun misericac eta damiac, çumbat arraçoin eztugu, hec ikuz eta, umiliatceco eta gure burien mezperetzchatcoco, poroançaz<sup>24</sup> eçagutuz becatu hartçaz naturaleça gutan çoinhen saxuthia içan den? Eci hala nola harri bat bere piciaz behera erorten baita, orobat becatu originalac eguin deragun kalthiac ekarten guitici leguiaren contreco haraguiaren nahikunden, banitathiaren eta mundo <289> prootzchien seguitcera. Lurreco gaucendaco badiici seindimendu net bici bat eta aldis, guti edo batere gusturic Celukuendaco. Gutun, cerc ere obeditu behar bailuke, harc naussi bailiz beçala manatcen dici; cerc ere, aldis, manatu behar bailuke, harc obeditcen; eta hain miserable guituçu, nun guiçon içan eta Celuco sorthiac, aberen inclinacioniac baititugu eta bihotz batçu lurreco gaucetarat arraz emanac.

30 Jeremia Prophetac erraiten dici: *guiçonaren bihotzça enganios eta gaiztake-riaz bethia da; norec eçagut deçake?* Ezechiel Prophetac Gincoaren miraculuz ikussi cien murriaren pare dela erran dieiteçu, çointan çunbat ere barnago chilatcen baitcen, hanbatenaz aboro itxuskeria aguertcen baitcen; orobat ere duçu guiçonaren bihotçaz. Guero orano soiten badugu gure eztakurier, çoin baitira choilki gure bei-taric ditugun gauçac, çoinhenbeste arraçoin eztugu hetan idiren ahalguetu behar guitustenac? Çoinhenbeste eraste suergaraiteco gure mihietan?<sup>25</sup> Eta çoin lachoki eztugu gure bihotçac barreatcera uzten? Çoinhen ardura ezkira kambiatcen gure deli-beron hunetan? Çunbat eztugu maite gure huntarçunac eta aisac?<sup>26</sup> Hain ussustathiac placer dugunaren eguiteco, gure burien amorioz bethiac, çoinhen buruzkin ezkira gure borondatetan eta themetan? Çoinhen bortitz gure passionetan? <290> Çoinhen azkar ussaincha gaistuetan? Eta çunbat ezkira ekarriac gure inclinacione devetathien seguitcera?

<sup>24</sup> Jatorrizkoan ez dago poroançaz-en kiderik: *;Cuán estragada quedó la naturaleza por el pecado!* (II, 147) / *en songeant combien la natura a été corrompue en nous par le péché?* (RD 3, 321).

<sup>25</sup> Ikus suergaraiteko hitzaz hiztegian; jatorrizkoak honela dio: *cuan fáciles somos en la lengua, cuan descuidados en la guarda del corazón* (II, 148) / *Jusqu'où ne va point l'intempérance de notre langue? et avec quelle négligence ne gardons-nous point notre cœur!* (RD 3, 322).

<sup>26</sup> Jatorrizkoak erosotasunaren ideia dakar: *Combien amateurs de notre intérêt et de notre commodité?* (RD 3, 322).

Seint Gregorioc, iskiribatcen cielaric Job Seindiaren hitz hoen gagnan: *çure boteria erakasten duçu aiciac eremaiten dien ozto baten contre*, erraiten dici arraçoinheki nehorc guiçona ozto baten pare eguiten diela, ceren hala nola ozto bat aiceric thipienac iguitcen baitu, orobat ere guiçona passionen eta tentacionen aicec erabilten dicie; batçutan coleratcen duçu eta beztaldian alleguerancia erho batetan jarten; batçutan abariciac, ohore gossiac bihotzça ppenatcen, beztaldian placerrec bihotzça enguena-  
tcen; noiz urguliac bihotzça altchatcen eta beztaldian beldurrac apaltcen eta egoz-  
ten. Hartakotz Isaia Prophetac net unxa erraiten dici, oro erori guirela oztuac beçala  
eta gure becathiec aiciac beçala erabilten guitustela. Demendren tentacionen aiciac  
egozten eta eremaiten guitici; bertuthian eta delibero edo ressolucione hunetan irau-  
teric eztiiici,<sup>27</sup> eta guiza hortan badiici buru hortaric<sup>28</sup> umiliatceco eta ahalguetceco  
arraçoin handiric. Ez choilki gure becathiec eta gure eztakuriec behar guiticie —erran  
dugun beçala— umiliaraci, bena orano obra hunec ere emanen diragucie azki  
arraçoin umiliatceco unxa soguiten baderegu, eta unxa examinatcen edo <291> cher-  
katcen badugu çoinhenbeste houx eta ezkasdura eguiten dugun, Propheta ber haren  
erran hoen aravera: *oro egün içan guira gende saxu batçu beçala eta gure obra hunac  
oro, oihal odol andeatu batez saxuthiac beçala dira.*<sup>29</sup>

1

10

## ÇAZPIGUERREN CAPITULIA [II/3/8]

### Nola behar tugun gure buriac eşagutu bihotzçac eta fidaincha galdu gabe

Gure beitarico experienciaz edo poroançaz, hain unxa eşagutcen diici çunbat  
handi den gure miseria eta çunbat anitz diren beti umil içaiteco ditugun arraçoinhac,  
nun iduri bailuke bihotz emaile beharrago guindukeela gure eztakuriec eta ezkasdu-  
rec eman behar leraukeuten beldurraren contre, eci ez exortaçale heen gagnan gogua-  
ketatcera. Eguia hori hain segurra duçu, nun bicitce ispiritualaren Naussiec erakasten  
baiteraute, noiz eta ere gure miseriendatik flakecien barnatic eşagutcen ari guirenian,  
eztugula han baratu behar beldurrez bihotzçac galduric desespara guiten, bena aitci-  
nago joan behar dugula eta Gincoaren huntarçunari soin gure fidaincha guciaren  
hartan eçarteco. Hala nola gure becathien gagnan uken behar dugun doliac ezpaitu  
hain handi <292> içan behar, nun eror-araci guitçan desesparacionera, bena dolu  
harc barcamendiaren ezparançaz lagundia eta jassana içan behar baitu, çunbait al-  
dis Gincoaren misericordiari so egüinez eta gure bisa becathietaric urrunduz, bel-  
durrez Joandene Paulec erraiten diena: *hala becatutan idireiten dena sobera trista da-  
din*. Orobak ciocie bici ispiritualaren Naussiec, eztugula egon behar gure flakecier eta  
becathier beha, beldurrez bihotzça eta Gincoa beitaco fidaincha falta dakigun; bena  
unxa gure buriac eşagutu onduan, ikussi onduan deuz ere eztela gutan fidaincha  
eman deçakeunic eta erortetic beira guitçakeenic, eta hala unxa ikassi onduan edo

20

30

<sup>27</sup> Izentzat hartu behar da *iraute* hor; jatorrizkoak honela dio: *no tenemos estabilidad ni firmeza en la virtud, ni en los buenos propósitos. Bien tenemos de que confundirnos y humillarnos* (II, 148) / *nous n'avons aucune fermeté dans la vertu et dans nos bonnes résolutions: ainsi nous avons bien de ce côté-là de quoi nous humilier et nous confondre* (RD 3, 323).

<sup>28</sup> Adiera ‘alde horretatik’ du.

<sup>29</sup> Bestela esanik, ‘odol hondatuak zikindu duen oihala bezalakoak dira’.

1 sinhexi onduan eztugula gure burier edo indarrer fidatu behar, gure beguiac behar tiici berheala Gincoaren huntarçunerat egotzci. Hala eginez eztiiici bihotzça gal-duren, bena aboro ukenen. Cerc ere bihotzçac gal-araciten baiterauskigu gure burier edo flakecier soguiten dugunian, gauça hec berec azkartuco guiticie Gincoaganat altchatcen tugunian; eci çunbatenaz ere hobeki eçagutuco baitugu gure flakecia eta çoinhen guti fidatu behar dugun gure burier, hanbatenaz azkarthiagoric idiren tiici Gincoari herssatcen guirenian eta hura beitan gure esparança eçarten dugunian.

Bena Seindiec heben unxa gogua eman <293> behar den gauça bat erraiten dicie, eta ciocio behar dela —erraitetic jiten guiren beçala— gure miserietan eta flakecietan gagnan sobera eta luçatche egon gabe, Gincoaren misericordiaz eta huntarçunaz orhitu, hartan gure fidaincha guciaren eçarteco. Orobak ere Gincoaren misericordia-ren orhitzchapenac eman deragun esparançac eztirauskigutu behar ahatz-araci gure ezdeuztarçuna eta flakeciac; eci Gincoaren huntarçunari choilki beha egoiten baguira eta ahaztera uzten badugu cer guiren, beldur uken behar diici pressumicionian eta urgulian eror guiten, eta hantic jin guiten gure flakeciec eman behar derauten mezfidaincharen galtcera, eta hara cerc anitz itxuski eror-araci thien. Çunbait persona devout, çoinhec bere otoitzça garxietan Celurano altchatu behar çutela iduri baitçuten, eztitu fidaincha falku eta urguluxu horrecbecatura eror-araci? Çunbat Seindu, eta Seindu handiric,<sup>30</sup> eztira erori becatoroz cirela ahaztera utci çutelakotz, eta Gincoac eguiten ceresten favori edo graciez bere beithan fidaincha urguluxu batetan sarthuz, heendaco aboro langerrick içan ezpalis beçala? Eta hara cerc erain dereen erori ahal-kaitçunic.<sup>31</sup>

Seint Basilic uzte dici David Erregue erori içan cela adulteriala eta guïçon baten hiltcera, ceren Gincoac ein cerascon favoriez eta hunguiez sobera bere <294> beithan sárthuric, aldi batez erran cithien hitz hoc: *erran dut ene urossitathian eniz secula Gincoaganic cordocatuco*. Ber Seindiaccio orano Joandene Petiri arroçoin beraz erori içan cela —erran nahi baita bere buriaz sobera opinione cielakotz— noiz eta ere Salbaçale Jaunari erran baitcien: *bestec oroc utciric ere, nic secula etcitut utcico; çurakin hil behar banu ere etcitut ukatuco*. Gincoac nahi uken cicin punitu haren urgulia eta permetitu eror çadin haren umiliatceco eta bere buriañen eçagut-aracitceco. Har-takotz, gure buriac eztiiici behar behin ere biztati galdu, ez sinhexi mundu huntan guireno ossoki segurainchan guirela: bena gure beithan cer guiren orhithuz, gure buriez beti mezfida içan behar diici eta beti beldur içan gure exaiac enguena edo trompa gütçan.

Halaz, beraz, nola ezpaita behar bere flakeciaren eta miseriaren eçagutcian baratu, bena berheala Gincoaren huntarçunaren eçagutcera gogua altchatu, halaber huntarçun hari eztiiici hain luçaz beha egon behar, nun gal deçagun gure flakecien orhitzchapena. Bicitceco manera horren molde bat idireiten diici Jacopec ikussi cien

---

26 Gincoaganic: *Ginocaganic*. 38 orhitzchapena: *othitzchapena*.

<sup>30</sup> Jatorrizkoan: *¡O cuántos, que verdaderamente eran santos, y grandes santos, han venido por aquí á dar miserables caídas* (II, 149) / *Combien de Saints et de grands Saints sont tombés pour avoir oublié qu'ils étaient pécheurs* (RD 3, 326).

<sup>31</sup> Jatorrizkoak honela dio: *y así vinieron á caer miserablemente* (II, 150) / *et c'est ce qui leur a fait faire des chutes honteuses* (RD 3, 326).

çurubi miraculoz harten, çoin heltcen baitcen lurretic Celura eta Ainguriac hartaric Celura igaraiten eta lurrera jeuzten; guc ere orobat igaran behar <295> diici Gincoaren huntarçunaren eçagutcerano, ez aldiz han guelditu, beldurrez pressumacionebeckathian eror guiten, bena fite geuxi gure burien eçagutcera eta eçagutce harten ez baratu, fidaincha gal ezteçagun amorecatic, bena labur orhitu Gincoaren huntarçunaz gure esparança guciaren harten eçarteco. Eguin behar duguna, beraz, duçu çurubi misterios harten guelditu gabe gora behera ibilthia.

Seinta Catharina Siennakuac hala eguiten cicin Demoniuaren tentacionen ireis-teco. Demoniuac ekarten ceraconian gogora haren bertuthe eta hun guiac itchurapen becic etcirela, Gincoaren misericordiaz orhitzcen çuçun eta erraiten: aithor dicit, ene Creaçalia, ene bicitce gucia eztela içan ilhunperic becic; bena Jesus Crucificathiaren plaga edo çauri sacrathietan gordeco nuçu, haren odolian mainhatuco, çoinec ene becathiac oro ikucico<sup>32</sup> baititu, eta allegueranciatan egonen nuçu neure Creaçale eta ene Gincoatan; *ikucico nuçu, Jauna, eta elhurra beno churiago içanen nuçu*. Aldiz, Demoniuac urguluzco seindimendiez hirrithatzen cienian ispiritura emanet perfeita cela, etcuela aboro bere becathien gagnan nigarrik egun behar, ez penitenciaric egun, anitz umiliatzen çuçun eta erraiten bere beithan: cer malurossani! Joandene Joanne-Baptistac secula becaturic eztici egun, Amaren <296> sabelian becatu originaletic chahathia içan çuçun; biskitharthian hain penitencia garratzcic egun dici; nic, arren, cer egun behar dut hainbeste becatu egun onduan, eztitudanaz gueroz ez eçagutu, ez heendaco behar beçala penitenciaric egun? Ordian Demoniuia errabiacionian nola Seinda harc cien alde batetic hainbeste umilitate, beste aldetic hainbeste fidaincha Gincoatan, erraiten ciracoçun: cirela maradicathia eta direla maradicathiac çu hain unxa escolatu citustenac; etciakiçut nuntic çu cherka: apaltcen bacitut çure ezdeuztarçunaz orhit-araciz, altchatcen cira Gincoaren misericordian çure esparança eçarris; aldiz, altchatcen bacitut urgulusco tentacionez, geuzten cira Ifernu çolarano eta artecan çure parrac nitan igaraiten tuçu.<sup>33</sup> Hantic harat paussian uzten cicin Demoniuac, ceren ikusten baitcien haren inxeu guciac garaitsen cithiela. Horra nola behar dugun guc ere egun: alde batetic uken anitz mesfidaincha eta beldur, beste aldetic anitz fidaincha, eta bozkarioz;<sup>34</sup> gure beithan batere ez fidatu, Gincoatan, aldiz, anitz. Bi leccione horiec —cioçu guiçon Seindubatec— Gincoac egun oroz bere Hautathier eguiten thiela, bata gure becathiez orhitzcia eta besthia goguan hartzia Gincoaren huntarçunaren, çoinhec hain amorauki barkatzen baiterauskigu.

23 Gincoatan: *gincoatan*.

<sup>32</sup> Garbitzeaz dihardu, ikuzteaz: *Vous me laverez, Seigneur, et je deviendrai plus blanche que la neige* (RD 3, 329).

<sup>33</sup> Cf. hiztegian “parrak igaran”, apeta edo nahikari zenbait asetzea; jatorrizkoak honela dakar: *y si yo te levanto, te bajas hasta el infierno por humildad, y dentro del mismo infierno me persigues; y así la dejaba, porque volvía con grande pérdida* (II, 151) / *vous vous abaissez par votre humilité jusqu’au fond de l’enfer, et vous me persécuterez jusque dans l’enfer même* (RD 3, 329-30).

<sup>34</sup> Hor bozkarioz-en morfema instrumentalak ez du ongi ematen; *fidaincha* ondoko koma kendurrik, anitz fidaincha eta bozkario izenen komunzadura logikoagoa litzateke; jatorrizkoak *beaucoup de confiance et de joie* dakar (RD 3, 330).

1 <297> ÇORTZCIGUERREN CAPITULIA [II/3/28]<sup>35</sup>

**Erran dugun umilitathiaren jardiresteco eta prootzchatceco net hun eta balioz den examenaz edo goguaketez**

Lehena. Gure burien laudatcera duhakeen elheric batere ez erraithia.

Bigerrenra. Laudatu içaithiaz eta gutçaz unxa minçatcen inçuthiaz placerric ez hartzia, bena laudatcen guitztenian, gure beithan umiliatcia eta ahalguetcia, ikuzten dukegulacotz ezkirela nehorc uzte eta behar guindukeen beçalaco, eta aboro besten laudatcen inçuthian placer hartzia; eta besten unxatan minçatcen inçuthiaz ppena edo bekaisguasco sendimendu çunbait bihotzian poroatcen badu, heen falta-taco atchikitcia, bai eta ere hain unxa<sup>36</sup> bere buriaz unxatan minçatcen inçuthiaz bere bihotzian seinditzen thien dezkanxu edo placer banuac.<sup>37</sup>

Hirurguerrena. Besten erraithiagatic eta guiçonen estimiaren jardiresteco deuzzen ere ez eguiuthia, bena choilki Gincoari placer eguiteco.

Laurguerrena. Bere falten dessenkussaric gabe, lanhoki diren beçala aithortzcia, ez bihotzcez, ez arrapostuca arraçoinhathuz besten oguenic ein gabe.<sup>38</sup>

<298> Boztguerrena. Fama hunac eta besteren estimiac gu beithan pitzten thien banitatesco eta urgulusco penxamendu bano ororen erneki kaçatcia.

Seiguerrena. Mundu oro bera aboro atchikitcia, ez choilki bihotzian, bena orano obraz, ororen eretcian maneatcen delaric haren gueihenac bailira beçanbat umilitate eta errespetureki.

Çazpiguerrena. Gincoaren ezkutic umiliatceco giten diren ocasione ororen unxa errecebittcia, eta hartan aitcinhathuz joaithia hirur gradotan edo ezkalerretan iga-raiten bailiz beçala, çointaric lehena baita heen pacienki jassaithia, eta biguerrena heen fite eta gogotic hartzia; hirurguerrena, aldis, heen allegueraki bessarkatcia; eci umilitathiaren grado horietan nehorc etci behar baratu afrontu eta mezperetzchu suerte ororen sofritciaz placer hartceranokuan, Jesu-Christoren idurico içaithiagatic, çoinhec nahi uken baitu içan gure amorecatic guiçonen undarra eta populiaren mez-peretzchia.

Çortzcigerrena. Nehorc eguiñ cirozkiçu umilitatesco actac bihotzcez goician eta axian hunenbesteranokuan, egunetic egunera emendathuz bertuthe haren costuma perfeít bat jardirex artecan.

<sup>35</sup> Luzea da kapitula jatorrizkoan, baina euskal liburuan edukia arras laburturik ageri da, non eta itzulpenaren iturria ez den beste nonbait.

<sup>36</sup> Ikus *hain untsa-ren* adiera hiztegian; adibide gehiago dakartzza liburuak, 17 eta 410-n.

<sup>37</sup> Norberaren *dezkanxu edo placer banuac* ere “faltatako atxikitzia”, jakina; jatorrizkoak *apuntadlo por falta / ne manquez pas de marquer cela pour une faute* (RD 3, 466) dakin.

<sup>38</sup> Itzulpen libreña da *besten oguenic ein gabe*, jatorrizkoak ez gaztelaniaz, ez frantsesez, ezta Tricalet-en laburpenean ere ez dakar; adlerazi nahi du, norbait desenkusatzen ari denean, ez duela besteentzat kalterik eragin behar bihotzez edo arrapostuca arrazoinaluz? Ez dirudi *besten genitiboa* *bester datiboaren* hutxa denik, uste dugu genitiboa destinatiboa dagoela hor eta itzultzaileak idatziz zuen *besten* idatzi nahi zuela.

## VII. GINCOAREN BORONDATERA EGOITHIAZ



**Cointan bi fundamen edo principioz minçaturen baikira Gincoaren placerrera  
edo borondatera egoithiare gagnan**

Jesu-Christoc Seint Matheû beithan erraiten dici: *éguin içan bedi, Jauna, ez nic nahi dudan beçala, bena çuc nahi duçun beçala.* Aita Seindiec ciocie Gincoaren Semia Celutic lurrera jeutxi içan dela eta gure naturaleça hartu bi gauçarendaco: lehena, bere odolaz gure arrerozteco eta biguerrena, bere predikiez eta exempliez guri Celuco bidiaren erakasteco; eci —dioena Seint Bernatec—, nola auher içanen baitcen guretaco bidiaren jakithia pressundean egon içan baguina, orabat auher çukeçün guretaco pressundeitic jalguitcia, bidia eşagutzen ezpaguindien. Hartacotz, nola Gincoa ezpaitaiteke ikuz corpitzceco beguiez, necessario çuçun segui eta imita ahal guindeçan, ikuz çaiten estathian jar çadin eta/guiçonaren naturaleça har ceçan; hala nola artçainha <300> ardi larruz bestitzen baita ardiac gogoticago jarraiki dazkion bere arropaco ikussis. Seint Leonec cioçu Jesu-Christo eguiaski Ginco içan ezpalis, ez-kinduskeela erremediatu<sup>1</sup> eta aldziz, eguiaski guiçon ezpaliz, etcirokegula exempluric eman. Bi gauça horietan erakaxi diraguçi guiçonendaco uken dien amorio handia: arerospenaren gracia handi içan duçu eta eman deragun ezcola ez guthiago, ezcolatu guithienaz gueroz bere hitcez beçala, bere obren exempliez. Seint Lukec cioçu Jesus hassi içan cela eguiten eta erakasten; lehenic eguiten eta hori bere bicitce orotan, eta guero bispahirur urthez bere peredikiez ezcolatzen.

Gure Salbaçale Jaunac eguin edo eman deragun leccioneric berhecienetaric bat duçu, Gincoaren placerrera edo borondatera beti egoithia; eta hara cer erakaxi deragun, ez choilki bere hitcez *Paterrian erranez çure borondathia compli bedi Celian beçala lurrian ere, bena orano bere exempliaz, erraiten dienaz gueroz: jeutxi nuçu Celutic, ez neure borondathiaren eiteco, benaigorri nienaren borondathiaren eguiteco.* Hartacotz Olibetaco Baratcian eguin cien otoitzçan gure salbamendiaren obraren complitceco, çunbat ere guiçon beçala heriuaren beldur baitzen —eta erakasteco eguiaski guiçon cela— erran cicin: *ene Aita, ahal badadi, eneganic urrunt eçaçu Caliça hori.* Hargatic haren borondathia <301> beti egon çuçun obediencia osso bathian bere Aitaren borondatera, eta hara certaco berheala erran cien: *eguin bedi, ez nic nahi dudan beçala, bena çuc placer duçun beçala.*

---

30 berheala: *berheeala.*

<sup>1</sup> Jatorrizkoak honela dio: *s'il n'étoit pas véritablement Dieu, dit Saint Léon, il n'apporteroit point de remède* (RD 2, 304).

1 Pundi huntçaz behar beçala eta unxa minçatceco bi fundamen edo principio eça-gutu behar tiici, çoinhec guidatu behar baikituste articulu huntan orotan: lehena, gure bertuthian aitcinacia eta gure perfeccionia daguela Gincoaren borondatera egoithian. Çunbatenaz ere hobekienic egonen baikira Gincoaren borondatera, hanbatenaz ere perfeitago içanen guirela endelgatceco ihi den gauça duçu hori, ceren gure perfeccionia baitago Gincoaren amoriuan. Çunbatenaz ere nehorc aboro maithatucu baitu Gincoa, hanbatenaz perfeitago dukeçu. Evangeliac, Joandene Pauleren Letrec eta Liburu Seindiec dotrina hori clarki erakasten dicie. *Gincoaren amoriua orotan den handiena eta lehen manamendia duçu; Gincoaren amoriua beste perfeccione gucien kopolilua eta oroz gagneticua*; eta nola Gincoaren maithatcia bertuthe orotan den perfeitena baita, halaber, amorio hartan den gauçaric preciathiena Gincoaren borondatera ossoki egoithia duçu, eta Gincoac placer thien gauça gucien nahi ukeithia. Seint Jeromac ciòtu adiskidetarçuna eztela ez eguiasco, ez azkar, adiskidiac nahi diena nahi die-nian becic, eta nahi esthiena, nahi ezhienian becic; holaz, nor <302> ere Gincoaren borondatera finkienic egonen baita, hura dudaric gabe perfeitena dukeçu; bestalde segur duçu deuz ere eztela Gincoaren borondathia beno hobiagoric. Halaz, çunbatenaz ere nehor Gincoaren borondatera egonen baita, hanbatenaz perfeitago dukeçu. Aboro orano, segur duçu deuz ere eztela Gincoaren borondathia beno gauça hoberic, ez perfeitagoric eta halaz, nehoren perfeccioniaren handitarçuna Gincoaren borondathiaren eguthiaren aravera diagoçu, Philossoho batec erraiten cien beçala: *Gincoa bada gauça oratan<sup>2</sup> den perfeitena, hura iduriago dena perfeitenic dukeçu.*

20 Biguerren princip[i]ua duçu mundian heltcen diren gauçac oro Gincoaren manuz eta borondatez heltcen direla, eta horrec becathia salbu endelgatu behar dici, çoin Gincoac neholare ezpaitiro ez egui, ez mana, eta nola sùiac ezpaitiro hotzça ekar edo eman, ez karroinhac bero, ez ilhunpiac argui, guthiago orano Gincoaren huntarçun muga gabiac maitha ciroçu becathia edo hura mana. Habakuc Prophetac erraiten dici: *Jauna, cure beguiac chahu tuçu, gaizkia eztiroçu ikuz eta inikitathiari soric eztiroçu egui*. Nehorc norbait hazthio dienian erraiten den beçala soric ezteak-koola egui, Prophetac erraiten dici Gincoac eztiroela soguin inikitathiari, erakazteco Gincoac çoinhen hazthio dien <303> becathia. Davitec erraiten dici: *etcira becathiac placer eguiten derakon Ginco bat*, eta aldis, beste leku bathian ciòtu: *maite duçu sein-dutarcuna eta ossoki hazthiatcen inikitathia*. Iskritura Seindiac mila lekutan erraiten dici Gincoac hazthio diela becathia; halaz segur duçu Gincoa eztaiteela içan becathia-ren iturburia. Becathia salbu, beste gauçac oro, sofrikeriac, ppenac, afluximendiac, Gincoaren manuz eta borondatez heldu tuçu, Ispiritu Seindiac Çuhurraren ahoz erraiten dien beçala: *hunac eta gaitzçac, bicia eta heriua, praubecia eta aberaztarçunac oro igualgui Gincoaganic jiten çauzkigu*.

40 Eci nahibada munduko gauçac oro jiten diren Creaçaliac eçarri dien cheden araura, hargatic ere, segur duçu mundu gucion eguiten eta igaraiteen diren gauçac oro, oroz gagneco Naussi mundu ororen gobernia dienaren manuz eta borondatez eguiten eta heltcen direla. Gincoaren errespetura deuz ere eztu suertez heltcen de-

---

5 endelgatceco: *Endelgatceco*. 36 gaitzçac: *gaiztçac*.

<sup>2</sup> Liburuak *oratan* dakar, nahiz nagusi *oro* den; halaz guztiz ere, badira *oratarat-en* bi agerraldi ere: (353, 435).

nic, harc oro chedatu tici eta seculaz gueroz oro berac çatitu; gure buruco bilhuac oro cundatu tici eta haren mania gabe hetaric bat etciauçu erorico, eta orano guiçone-tara beçala haren providencia beste gauça orotara ere hedatcen duçu. Jesu-Christoc erraiten dici: *bi murru-chori eztirea saltcen cornado batendaco? Eta biskitarthian hetaric bat ezta <304> lurrerat erorico cien Aita Celukuaren permissionia gabe.* Ozto bat bera ezta iguitcen arbolian haren borondathia gabe; borondate harc berac gobernacien tici ere gauça suertez heltcen direla idurien dutenac ere. Çuhurrac erraiten dici: *guiçonac chorthia eguiten diela, bena Jaunac çatitzen, eztiiici uzte uken behar suertez edo fortunaz deuz heltcen dela; suertez heltcen dela idurien dien gauçac, Jaunaren providen-ciac nahi dien chedetara hel-araciten tici.* Seint Lukec ciòcu Judasen lekuco Apostolu baten eiteco, orduco fidelen arthian egui çuten chorthia erori içan cela Mathiassen gagnera; dudaric gabe etçuçun suertez hala eguna içan, bena Gincoaren providencia-ren chede berheci batez, çoinhec seculaz gueroz Seint Mathiaz Apostolu içaiteco hau-tatu baitcien, eta nahi baitcien chorthez Apostolu kargura alchathia içan çadin.

Eguia hori çunbait Philosophoc argui edo arraçoin naturalaz eçagutu dicie, eta erran-araci direeçu anitz gauça iduriric ere suerthez heltcen direla, Gincoaren provi-denciaren manuz heltcen direla;<sup>3</sup> eta hartaco comparancha haur ekarten dicie. Naussi batec bi mutil ondos ondo elgarren berriric jakin gabe cerbait eitekos leku berera igorten thienian, elgarren leku hartan ezuzthian caussitcia heen errespetura suerte bat duçu, bena Naussiigorliaren <305> errespetura berariaskua edo Naussiaren ma-niaren araukua. Orobak ere duçu mundian suertez heltcen direla iduri duten gau-çez; guiçonec uzte dicie fortunaz edo suertez heltcen direla, hec uzte gaberic eta pen-xatcen eztutelaric fortunaz beçala heltcen direlakotz, bena Gincoaren eretcian haren manuz jiten diren gauça batçu tuçu, berac choilki bere beithan destinatu edo çatitu thien cheden araura.

Principio horietaric idoki behar duguna duçu, gauçac oro Gincoaren ezkutic gi-ten direnaz gueroz eta gure perfeccionia oro, harc nahi dienaren nahi ukeithian da-guenaz gueroz, oro hartu eta erecebitu behar tugula hareganic ginac beçala, eta ha-ren borondate seindu eta divinora ossoki egon. Eztiiici hartu behar heltcen çauzkun gauçac suertez edo guiçonen gaistakerietaric giten çauzkigula; hara cerc gutiz aborue-netan, aboruenic ppena eiten deragun. Eztiiici orano burian hartu behar hulaco edo halaco gauça heldu dela ceren norbait inxeatu delacotz, ez eta ere hulaco edo halaco suerthia içan ezpaliz, gauça beste guizaz helduko cela, eztiiici hala hartu behar; bena nuntic-nahi, cernahiden guizaz ginic ere gauçac, beti oro Gincoaren ezkutic ginac beçala errecebitu behar tiici. Gincoa hetçaz cerbitzchaten duçu heen guri igorteko.

Seint Dorotheac erakasteco oro Gincoaren <306> ezcutic ginac beçala errecebitu behar tugula, erraiten dici cerbait gure contre norbaitec erranic inçutén dugunian, horec beçala eiten dugula; horec harria aurtikiten ceenian, harriaren onduan laster ei-

6 iguitcen: *iguilcen.* 21 mundian: *muudian.*

<sup>3</sup> Euskarazkoan zorizkoak direla diruditen gauza batzuk Jainkoak berariaz eginak direla dio, baina jatorrizkoak bestela dio: *dijeron que aunque respecto de las causas segundas muchas cosas son acaso, pero respecto á la primera causa no son acaso, sino pretendidas muy de propósito (I, 353) / que quoiqu'eu égard aux causes secondes, plusieurs choses arrivassent par hasard; cependant eu égard à la cause première, elles n'arri-vraient que par l'ordre de la Providence (RD 2, 309).*

ten dutela eta hura marruzcatcen, ezku harriaren aurtikiliari soguin gabe; orobat guc Gincoac igorten derauzkigunian nahigabiac gure becathien punimendutaco, harriaren onduan laster eguiten diici, erran nahi baita proximuari lotcen guituçu, eta hari mendecatceria inxeatcen, eta hortan clarki Gincoaren borondathiaren contre joaiten guituçu, ceren Gincoac nahigabe heltcen çauzkigunac oro —ala guiçonen aldetic eta cernahiden gaucen aldetic— Gincoac permetitzen edo igorten baiterauskigu gure becathien punitceco, gure corrigitceco edo gure poroatceco, edo guri merechimendu jardirex-aracitceco. Hartakotz beti Gincoaren borondatera edo placerrera egon behar diici eta nahigabiac oro errecebitu haren ezkutic ginac beçala.

Dessertuco Aita çahar batec erraiten cicin guiçonac eguiasco paussia eta conten tamendia mundu huntan uken nahi bacien, bere beithan hartu behar ciela —Gincoa eta hura becic<sup>4</sup>— mundian besteric deuz ere etcela. Seint Dorotheac, aldiz, erraiten dici Dessertuco Aita çahar hec hain unxa ussathiac cirela, gauça ororen Gincoaren <307> eskutic ginac beçala errecebitcera, nolanahi içanic ere, nolanahi ginic ere, nun halaz egoiten baitciren bihotzceco paussu osso bathian eta beti eremaiten Gincoasco bicitce seindu bedera.

## BIGUERREN CAPITULIA [I/8/22]

### Mundian heltcen diren malur eta calamitate publico orotan Gincoaren placerrera eta borondatera egon behar guirela

Gure propitan<sup>5</sup> heltcen çauzkigun nahigabe eta afluximendietan ossoki Gincoaren borondatera egon behar guiren beçala, halaber egui behar diici malur eta deztorbu publikuetan, hala nola gossete, guerla, içurri eta beste gagneraco Gincoaren justiciac populietara igorten thien gaztigu gucietan; eta egui horren hobeki endelgatceco hartu behar diici, juge bere einbidia maite dien batec ikusten dienian criminel baten heriora condenatceria obligathia dela, naturalki dien pietathiac eta adiskidetarçunac epainchatcen ezthien beçala oguendun haren contre hiltceco sentenciaren emaitetic —ceren leguiac hala manatzen baitu eta prootzchu generalac hala galdeiten—, orobat Gincoac bere populiari igorten thien gaztiguiac pietategarri içanic ere, haren borondathiaren <308> eguitera ekarriac içan behar diici, gu beitan hartuz Gincoac hala nahi diela eta bere Jujamendu segret edo gorde batez hala çatitzen diela, hanbat bere gloriaren prootzchutan, nola gure hobetan; nahibada ere Gincoac gauça orotan haren borondatera egoiteco emaiten deragun maniac ezteragun legue bat eguiten gaztigu edo ppena heen desiratcez edo maitatcez, eta azki den heen pacienki —haren providenciaren maniareni contre jeiki edo pitztu gabe— sofriria, hargatic segur duçu perfeítago eta merechimenduxioo dela

<sup>4</sup> Zati hau hobeki ulertzan da jatorrizkora jorik: *que en este mundo solamente está Dios, y él* (I, 354) / *que dans le monde il n'y avoit rien que Dieu et lui* (RD 2, 311).

<sup>5</sup> Ez dakigu xuxen zer zuen gogoan itzultzzaileak *gure propitan* horretan, eta liburuko *propitan* bakkara da, gainera; ‘hobe beharrez, onerako’ interpreta liteke, *propri hitza ‘egokia’ den aldetik, baina jatorrizkoak besterik dakar: en los trabajos y sucesos propios y particulares nuestros* (I, 436) / *n'est pas seulement en ce qui ne regarde que nous, et dans nos afflictions particulières* (RD 2, 491).

heen maitatcia haren borondatetic eta justiciatic giten direlakotz eta haren gloria-  
tan direlakotz.

Seint Thomasec erraiten dici Celuco Seindiac gauça orotan Gincoaren boronda-  
tera daudela, eta Seint Anselmac, Gincoaren borondathia eta guria Celian bat dirate-  
keela gure gorpitzceco bi beguien suac bat diren beçala, eci ber suaz gaucer soguiten  
dicie, batac eztici soiten<sup>6</sup> ahal gauça bati besthiac ber demboran ber gauçari soguin  
gabe, eta nahibada beguiac biga diren, ezticie ispirithian so baten portreta edo itçu-  
ra<sup>7</sup> becic eguiten. Beraz, Celuco Seindiac Gincoaren borondatera daudenaz gueroz,  
eztutenz gueroz besteric desiratzen harc nahi diena eta haren gloriatan dena becic,  
eta seindimendu horietara beti emanac direnaz gueroz, guc <309> ere eguiten ahal  
dugun gauçaric hobena duçu heen exempliaren seguitzia: Gincoaren providenciaren  
mania eguna, haren borondathia complithia içan dadin desiratcia. Ecin aboro sein-  
dimendu hun bat duçu, Gincoac nahi dienaren haren chede beretan eta harc nahi  
dien manera berian nahi ukeithia.

Possidoine deitzen den Autor batec erraiten dici Seint Augustinen bicitciaren is-  
torian, Vandalec Africa oro hiragarri<sup>8</sup> herioz eta beste anitz damus beteric eşarten  
çuten demboran, Apespicu handi horrec bere buria consolatzen ciela çahar baten  
erran huntçaz:/guiçon kourajoz batec eztu behar estonatu cerbait gauça handi bailiz  
beçala, ikuzthiaz etchetaco çurthagiac eta harriac erorten eta guiçon mortalac hiltcen.  
Gu arraçoin handiagoreki consola guiezteçu deztorbu suerte hetan, orhitcen baguira  
gauçac oro Gincoaren ezkutic giten direla, haren borondathia hala dela; eta certaco  
Gincoac çünbait aldiz guiçonac afflitzen thien guc ez jakinic ere, segur duçu beti  
justoki eguiten thiela. Davitec erraiten dici: *Gincoaren Jujamendiak leice barna batçu tuçu*; gure ispirithiac flakuei eta laburrei tuçu haren arraçoinhen eta segrethien endel-  
gatceco: *eci nor da eşagutzen thienic Gincoaren nahiac çoin diren, edo nor deitathia içan da haren deliberuen conseilhura?*

<310> Erespetatu behar tiici haren jujamendiak umilitate handireki eta sinhixi,  
gobernathiac guirenaz gueroz haren çuhurtzia muga gabiaz, hiltcen direnac oro gu-  
retaco hobenen den beçala hiltcen direla; hortçaz beti segurtathiac içan behar diici  
eta sinhixi, haren huntarçunac eta misericordiac permetitzen thienian deztorbu  
suerte horiec, ezthiela besteric desiratzen huntarçun handiena becic. Gincoac nahi  
tici guidatu celurat sofrikerien edo ppenen bidiaz anitz arima, çoin salbamendu  
bide guthiago ppenoz batetaric ereman balitu galduco baitciren. Çunbat gende nahi-  
gabec eta afliccionec eztute bere bihotz oroz Gincoaganat conbertitzen eta bere be-  
cathiez eguiasco doliareki hiltcera ekarten? Çunbat ppenen mediodz bestela damnatu  
ciratekeenataric ezta salbatu? Halaz, cer ere iduri baitçagu punimendu edo Gincoaren  
gaztigu bat dela, ardura haren gracia eta misericordia handi bat duçu.

Machabeen biguerren liburia iskiribatu dien Autorrac, erran onduan Judiuac  
çoinhen handiski gaiski tratathiac içan ciren Antiochus Erregueren pian, nola hain-

<sup>6</sup> Liburuak joiten dakar, baina “soiten”-ek funts handiagoa du, egileak so egiteaz dihardu jatorrizkoan: *l'un ne peut rien regarder, que l'autre ne le regarde aussi* (RD 2, 492).

<sup>7</sup> <itchura> beharko luke izan: *il ne s'en forme cependant qu'une seule image dans le cerveau* (RD 2, 492).

<sup>8</sup> Adjektiboa dirudi *hiragarri* horrek eta adiera ‘izugarria, amorragarria’ du; izenaren ezkerrean dago  
eta ez dakigu xuxen elipsirik ba ote den.

1 beste mundu edo gende hil-araci cien: gazthiac, çaharrac, guiçonac, emazthiac, pau-briac, aberaxac, errumessac, nobliac, batere urricari edo gupidaric gabe; nola orano orduco Templa seinduko gauça <311> seindu eta seindu etcirenac oro cithien eman-araci, Templaren seindutarçuna dezohore eta mezperetzchutan ecarri, hartan gauçaric itchuzgarrien eraguinez, *otoitcen citustet* —cioçu Autor harec— *norc ere irakurtuco baitucie liburu haur, hainbeste calamitate ikussiz ezteçaciela bihotzça gal; bena sinhex-acie gure gaztigatceco horiec oro Gincoac gure gagnera eror-araci thiela, eta gure arraz eceztatceco.*<sup>9</sup>

10 Seint Gregorioc erraiten dici: itchainhac erachikiac direnian, cer nahi dute? Erien odoletic asse eta ahal baleçate, eriaren odola azken chortalanokuan edan edo irexi; bena itchainhac manatcen thien Medikiac ordian cer nahi du? Eriaren odol gaiztua idoc-araci eta halaz eria sendo-araci. Gincoaren intencionia orobat duçu igorten derauzkigun afliccionetan, eta nola eriac utci behar baitu Medikiaren intencione huna ren araura itchainhari bere odol andea thiaren idokitera edo irestera, orobat ere guc, cerbait nahigabe heltzen çaukunian —ala guiçonen, ala munduko gaucen aldetic jin dazkigun— errecebitu behar tiici Medicu oroz gagnekuac gure chahatceco eta sendotceco igorten derauzkigun eremedio batçu beçala. Segur içan behar diici, beraz, Gincoac igorten derauzkigula gure hobetan eta gure prootzchuric handienarendaco, eta eliçan ordian hetan beste prootchuric,<sup>10</sup> mundu huntan Gincoaren <312> haur guiza gaztigathiac içaithia becic, beste mundo punimendu ikaragarrietic taric itçurthiagatic edo libro içaiteco; Gincoaren aldetic gure eretcerat gracia handi bat lukeu eta ezker handiric çor guindirekooçu.

20 Erraiten dicie Seinta Catherina Siennakuaz, egun batez tristura handitan idireiten celaric haren ohoriaren contre errankeria batçutan gagnan, Salbaçale Jauna aguertu citçacola ezkunheco ezkian ourhesco eta perlasco Corona bateki, eta ezkerrekuau elhor[r]isco Coronareki eta erran ceracola: ene Alaba maithia, jakin eçaçu bi demboraz bi guizetara coronathia içan behar cirela; hartakotz hauta çaru çoin duçun nahienic, ala bicitce igarankor huntan coronathia içan elhorrisco eta ppenasco Coronaz, eta bici eternaleco beguiratu ourhezkua, ala nahi duçun orai ourhezkua, hil onduan, aldis, eternitate orotan elhorriskuaren ukeiteco. Azpaldi dici, Jauna, ihardezten diraçoü Seinda handi horrec, neure borondathiaren ez eguiteco deliberua hartu dudala, bethiere çuriari choilki jarraikitzceco eta halaz, eztuçi niri eman hautatcia, bena nahi baduçi hargatic ihardex deçaçudan, beti hautatuco dicit çure idurikuago eguin neçakeena eta çure seguitceco, ene bihotz oroz sofrieriac bessarkatcen ticit. Hainbesterenkin Jaunaren ezkutic elhorrisco Corona <313> hartcen dici, burian eçarten eta hain

---

2 urricari: *urriçari*.

<sup>9</sup> Egiaz eta [ez] gure arraz eceztatceco ekarri beharko luke, jatorrizkoaren zentzia leku: *no para destrucción, sino para enmienda y corrección de nuestra gente* (I, 438) / ...que pour nous châtier, et non pas pour nous exterminer entièrement (RD 2, 494).

<sup>10</sup> Jatorrizkoak honela dio: *y aunque no hubiese en ello mas de querernos el Señor castigar en esta vida, como hijos, y no guardarnos el castigo para la otra, será esa gran merced y beneficio* (I, 438) / et quand il n'y en aurait point d'autre que d'être châtiés dès ce monde comme ses enfans, au lieu d'être réservés dans l'autre à une punition plus sévère, ce seroit toujours une grande grâce qu'il nous feroit, et une insigne obligation que nous lui aurions (RD 2, 495).

barna burian sartcen, nun gueroz beti elhorri puntec egun chiluetaric buruco min net handi bat sofritu baitcien.

1

## HIRURGUERREN CAPITULIA [I/8/23]

### **Gure becathien orhitzchapena eta dolumena gauça hun bat dela Gincoac igorten derauzkigun afluximendu general eta particular ororen pacencia handireki sofritceco**

Seindu ororen seindimendia duçu Is[ki]ritura Seindiaren anitz lekutan idireiten dena: gutiz aboruetan, calamitate edo malur publikuac Gincoac igorten thiela guiço-nen becathien punitceco. Azariassec, sutan cen labian Erregue Nabucodonosorrec ecar-araci cienian, erraiten cicin: *Jauna, gure becathien punitcecoigorri derauzkiguçu gaztigu edo gaitz hoc oro. Eci becatu egun diici; gaizki egun diici çureganic urruntziaz; gauça orotan houx egun diici; çure manier ezkituçu, ez behatu, ez jarraiki eta çuc uroz içaiteco manatu derauzkiguçunetari[c] deuz ere eztiiici egun. Hartakotz gure gagnera eror-araci tuçun malurrac oro, unxa merechitu tiici eta generalki gure contre egun tuçunac oro, justoki egun tuçu.* Hortic ikuzten diici Gincoac bere populia gaztigatcen ciela eta hura <314> offendatzen cienian bere exayen ezkietarat uzten.

Iskritura Seindiaren anitz lekutan irakurtzzen ere diici bere exayen boteriaren pe-tic libratzen ciela, noiz eta ere bere becathiez penitencia eguiten, eta bere bihotz oroz Gincoaganat conbertitzen edo itçultzen cienian. Hara nolaz ere Akior Ammoniten Generalac Oloferna Generalari erran ceracon: Iseraeleko populia bere Gincoac haren gracion denian laguntzen dici, bena bere einbidetaric urruntzen denian gaztigatzen; hari guerlaren eguiten hassi beno lehen, inxeä cite jakitera populu harc bere Gincoa cerbaitetan offendatzen dienez; offendatzen badu, bitoria segur duçu; offendatzen ezpadu, hari guerla emaiteco desseinha utçaçu, bestela garaituric içaiteco ahalguiareki baratzen cira; haren Gincoa haren alde bada, nehor ezthietecu hari bihur.

10

Jesu-Christoc sendotu cienian hogueita hemeçortci urte hartan eri cen Paralitiku, erran ciracoçun: *horra sendua cira<sup>11</sup>, ezteçaula aboro becathuric egunin, damu edo malur handiago bat eztuçun.* Eta Doctor Seindiecierraiten dicie Salbaçale Jaunaren hitz horiec berheciki segnalatzen edo poroatzen dutela erraiten dugun egua haur. Doctorren sinheste horren araura, deuzzec ere ezkitici hobeki laguntzen ahal, Gincoaren aldetik jiten çauzkigun malur <315> general eta particular ororen pacencia-reki eta haren borondatera egoithiagatic sofritcera, eci ez gure becathiez orhitzciac eta gu beitan hartiac anitz justoki merechitu tugula Gincoac igorten derauzkigun gaztiguiac; eci halaz, cernahiden nahigabe helduric ere, eztiki sofrituco tiici eta sinhxico gure falta handier sogninic, merechi guindukeen beno guthiago punithiac guirela.

20

Seint Bernat eta Seint Gregorio gauça huntçaz net unxa minço tuçu. Seint Bernatec erraiten dici, nehorc bere falten mina bihotzian net biciki seinditzen badu, campoco ppenac guti seinditzen thiela edo ez bathere. Halaber, Davitec, Absalon

30

---

26 hemeçortci: *hemetçorci*.

<sup>11</sup> Jatorrizkoan *que vous êtes guéri* (RD 2, 498); latinez *Ecce sanus factus es.*

1 bere seme guerla eguiten ceraconaren ihessi çabilelaric, bere peco batec erraiten ce-razkon maradiccioniac etcititcin<sup>12</sup> seinditcen: *ene semiac —cioçun— bicia çor de-raut eta nibaur hil nahi nu: arraçoin bortitzaguaz Geminiren semiac badu ene maradiccatceco çucena.* Seint Gregorioc, aldiz, Jopen hitz hoen gagnan iskiribatcen diilaric: *eta eçagutuço duçu çure becathiac merechi dien beno gaztigu thipiagua Gin-coaganic errecebitcen duçula,* comparancha batez net unxa clarcen dici pundi haur. Hala nola —cioçu— çunbatenaz ere nehorc colpiaren çauria barnago eta langerozago baita, hanbatenaz pacienkiago sofritcen baitu erremediuec eguiten duten mina; orobat nehorc <316> biciki seindi dienian becathiac haren arimari ein derakon çauria, gogotic sofritcen tici Gincoac igorten derazkon ppenac, mortificacioniac eta umiliacioniac arimaren ossoki chahatceco eta sendotceco. Eci —cioçu orano ber Seindiac— bere falta unxa eçagutcen dienari, harc merechi dien gaztigu edo punimendia thipi ciakoçu; gogotic hartcen edo errecebitcen ezpadu jiten çazkon ppenac eta afflictioniac, agueri duçu ezthiela eçagutcen becathiac hura beithan eguin dien çauriaren handitarçuna; halaz, eçagutu faltaz gaitzçaren, erremediuen ppenaren sofritcera ecin deliberatcen dici.

20 Persona Seindiec eta Gincoaren eguiazco cerbitzchariec bihotz hunez errecebitcen ticie afflictioniac, bai eta ere desiratcen eta Gincoari galdeiten. Job Seindiac erraiten cicin: *norç eguiñen du galdeiten dudana hel dakidan, erran nahi baita gaztigatcen hassi nienac, aboro orano gaztiga neçala, deussetan ere eneçan gupida uken?* Davit ber sein-dimendietan ciagoçun erraiten cienian: *Jauna, poroa neçazu afflictionez, eci prest nuçu çure gaztigu suerte ororen errecebitceco; enetaco hundarçun bat duçu çutçaz gaztigaturic içaithia.* Seint Gregorioc ere erraiten dici Gincoaren eguiasco cerbitzchariec hain gar-xuki desiratcen dutela Gincoac mundu huntan gaztiga eta umilia ditçan, nun affligitcen edo tristatcen <317> baitira bere falter soguin eta ikuzten çutenian Gincoac etcithiela punitcen; eci ordian beldur tuçu, Gincoac beste mundian garrazkiago punitceco heen gaztigatcia luçatcen dien; eta hartacotz Jopec erraiten cicin: *uken deça-dala consolia afflitzen nienac ene doloretan enien urrikari,* erran nahi bailu beçala, Gincoac heben çunbait ezthiela afflitzen beste mundian garrazkiago punitceco; bena eneçala ni gupida uken orai, bena choilki eternitatihan; mundian Aita amoraxu batec beçala gaztiga neçala, besthian puni eneçan amorecatik Juge garratx batec beçala. Heben etciazkidatçu sobera exitco,<sup>13</sup> hetçaz plenhuric<sup>14</sup> ezticit eguiñen, ezbihurtuko haren dessheinen eta manien contre; bena ene ppenec edo sofrikeriec eguiñen dicie ene consolia. Halaber erraiten cicin Seint Augustinac, noiz eta ere Gincoa oihuz otoitzcen baitcien: Jauna, erra, ebaki neçazu eta bici huntan eneçaula deüsseten ere urrikari uken, bena eternitateco gupida uken neçazu.

Gure seindimendu gabiac edo sorhaiotarçunac eguiten dici arimen gaitzcez hain guti achola baitugu, eta hainbeste gorritzcekuez; eci gure becathièc beste cernahiden gaueec beno anitez aboro ppena eguin behar liraukegucie, eta unxa eçagutzen

27 luçatcen: *lucatcen.* 38 gorritzcekuez: *gorritzcekuez.*

<sup>12</sup> Liburuak *etcititcen* dakar. Adieraz bedi baiezkoan *citicin-en* hogeita bi adibide dakartzala.

<sup>13</sup> Adieraren aldetik ulertzen da ‘ez dituela zigorrak edo Jainkoaren desira eta aginduak gehiegizkotzat joko’; ‘sobera etsi’ da aditza, baina *exitco-ren* grafia ez da litekeenik zuzenena.

<sup>14</sup> Ez da beste “plenu”-rik liburuan, “planhu” baizik (285, 324, 337).

baguindu gure faltac çoinhen handi diren, punimendu edo gaztiguric garratcenac <318> thiriegui iduri litçauzkeguçu, eta Jopeki erran guindiroçu: *becatu eguin dut, eguiaski hux eguin dut eta enis merechitu dudan beçala orano punitchia*. Bihotzcian eta milian beti hitz hoc uken behar quintikeci; eci mundu huntan sofritzen ahal tugunac oro deüssere eztituçu, becatu batec berac merechi thien punimendien aldian, eta eçagutuço duçu çure becathiac merechi dien beno gaztigu thiapiagua ukeiten edo errecebítzen duçula.

Goguan hartzen lukeenac Gincoa mortalki offendentia etidamnacione eternala merechitu diela, cer afrontu, injurio eta mezperetchu edo dezohore eleçake gogotic eta placerreki sofri, Majestate Divinuaren contre eguin thien falten barkamendia-ren ukeiteco? Davitec erraiten cicin Semei haren maradicaçalia punitu nahi çutener: *utçacie, menturaz Jaunac soinen deraco ene afflictionari<sup>15</sup> eta Jaunac oraico maradiccionaren ordain hungui einen deraut*, menturaz guero haren colera apaiceatuco da, ene becathiac barcatuco derauzkit eta nitçaz pietate ukenen du, eta halaz uroz içanen niz mezperetchatu nielakotz. Manera eta ispiritü berian bessarkatu behar tiici eguiten de-rauzkiguten afronthiac eta heltzen çauzkigun dezplacer edo nahigabiak; jin dazkigula, nahi bada,<sup>16</sup> aguian Gincoac ikussiric hetan gure pacencia, errecebituço tici gure becathiez <319> merechitu dugun ppenen arhinmendutaco, eta hantic gaitz uzte duguna, uken ahal deçakegun prootzchuric handiena dukeçu guretaco. Gure gaitzez deithorian eta tristuran emaiten dugun dembora emplea baguindeça gure beithan sarthuric, merechitu tugula eçagutzen, aboro placer eguin guindiroçu Gincoari eta gure ppenetan hobeki consola quintçakeçu.

Seindiec halaco ordietan hala eguiten cicien eta, heen eguitate suerte horiec hain comun edo ussu cituçun hurac beithan, non irakurten baitugu hetaric çunbaitec bere beithan hartzen baitçuten, heen becathiac punimendu handiagoric ere merechi çutela. Erraiten cicien, ene becathietaric jiten tuçu hainbeste guerla, içurri eta beste gagneraco Gincoac igorten thien calamitathiac edo malurrac. Seindimendu horietan nehor finkaraz deçakeen gauça bat duçu, sinhesthia Gincoac ardura guiçon bakar baten becathiagatic populu bat oro punitzen edo gaztigatzen diela, David Erregueren banitate baten punctionetan içurri bat haren popularen gagneraigorri uken cien beçala, çoin içurri hain gaitzça içan baitzen, nun hirur egunen barnian populu harta-ric içurriac hil uken baitcien hiruretan hoguei eta hamar mila guiçon.<sup>17</sup>

Horren gagnan, menturaz erranen dute David Erregueren cela eta egua dela Gincoac <320> çunbait aldziz Erregueren becathiac direla caussa, populia punitzen diela. Bena cer erranen dute Akanen exempliarengannan, çoin ezpaitzen Erregueren, ez Kar-gudun? Biskitarthian, Akanec Gincoaren maniaren contre Jericotie cerbait ereman cielacotz, Gincoac populu hora oro haren becathiarendaco punitu uken cicin, permetitz hirur mila guiçon armadako soldadoric bihotzthoienetaric ahalgaiçunki exa-

1 çoinhen: *coinhen*. 11 çutener: *cutener*. 14 nitçaz: *nitçax*.

<sup>15</sup> Ohiz *afflictionari* erabiltzen du, liburuko erabilera “af(f)likzione” nagusi da.

<sup>16</sup> Liburuak *nahibada* loturik dakar, baina honakoan adierari bereiz idaztea hobeki datorkiola uste dugu; jatorrizkoak honela dio: *vengan en buena hora, que por ventura será servido el Señor de recibir eso en descuento y satisfaccion de nuestros pecados* (I, 442) / qu'ils viennent peut-être que Dieu ayant égard à notre patience, recevra nos souffrances en déduction des peines qui sont dues à nos péchés (RD 2, 503).

<sup>17</sup> Jatorrizkoak setenta mil / soixante et dix mille hommes dakar (RD 2, 504).

1 yaren ihessi joan citen. Hortic agueri duçu, gueihenen becathiegatic beçala gueihen-guaric eztutene<sup>18</sup> becathiendaco çunbait aldiz Gincoac saldo handia punitcen diela eta horren aravera, Seindiec explicatcen ticie Iskritura Seindian hain ardura erranac idireiten diren hitzçac, Gincoac Aiten becathiac punitcen thiela hirur eta laurgueren aracionerakuan; eci becathiaz edo becathiaren thonaz den beçanbat, Gincoaren erranac segurtatcen guitici Aitaren becathia Semiali eztela eratchikia içanen, ez Semia-ren becathia Aitari. Ispiritu Seindiac ciòçu: *norc ere eguiten baitu becathia, hura hilien da; Semiac bere Aitaren becathia eztu jassanen, ez Aitac bere Semiaaren inikithathia.* Bena becathiaren punitciaz edo ppenaz den beçanbat, Gincoac eztici hala eguiten; ardura batzcién becathiendaco, becatu hartan oguenic eztutenc gaztigatcen edo punitcen tici eta menturaz, çure eta ene becathiac direla <321> caussa, Gincoac gauden etcheco familia edo karthierra punituco dici.

20 Dugun, beraz, beti goguan atchiki alde batetic Gincoac igorten thiela gaztiguiac, bestalde ticen Gincoaren borondathia, eta hala eginez haren borondatera ihiki egonen guituçu harcigorri placer derauzkigun afflictione orotan. Samuelec erran cicin: *naussi duçu, unxa idurituco çakona eguin beça, Celian ordenathia içan den beçala eguna içan dadila. Ichilic egon nuçu eta plenitzceco ahua ezticit ideki, ceren çuc, Jauna, eguin bai-tuçu sofritcen dudana oro.* Horra cer erran behar dugun, horra nola consolatu behar guiren gure nahigabe orotan: erranez Gincoac hala nahi du, Gincoac çatitu, Gincoac egui du, Gincoac igorri du, haren ezcutive oro errecebibu behar tugu, eta hori bera aski duçu nahigabe ororen pacienki eta placerreki sofritceco. Doctor Seindiec Davitten hitz hoen gagnan, *ene maithia Licornaren humetaric bat beçala da*, erraiten dicie Licorna deitzen den animaliac bere adarra beguiac beno apalago thielacotz, ezthiela ikuzten nora duhen haren adar colpia; aboro orano, Licornac colpia emaiten dien adar beraz sendotcen diela. Orobate Gincoac nori eta nun emaiten dien colpia ikuzten dici eta, certzçaz ere colpatcen baikitu, hura bera gure sendotceco cerbitzcharacitcen dici.

<322> Beztalde, gaztiguietan edo ppenetan gure Gincoaren borondatera egoithia eta heen umilgui errecebbitcia Gincoari hain laket ciacoçu, nun çunbait aldiz bide bat baita haren apaiceatceco eta punitcetic bararatcitceco. Eliçaco Istoria Seindietan errana duçu, Attila deitzen cen Erreguiac, anitz herri arrabazkatu edo porrocatu onduan, bere buria deit-araci ciela mundiareni ikara eta Gincoaren coleraren açothia eta egun batez gin içan cela Troyez deitzen cen hiri baten aitcinera. Seint Loup hango Jaun Apezpikia, bere Jaun Apez ororeki, Apezpikien Eliçaco arropez bestithia Erre-gue horri bidera jalgui citçacula; hurrandu citçaconian eta galdein: nor cira çu lur gu-cia nahazten eta dezolatcen duçuna? Attilac ihardexi ciracoçun: Gincoaren açothia nuçu. Ordian Jaun Apezpiku Seindu horrec erran ciracoçun hungui gin dela eta manatu cicin hirico borthac çabal litçacoten, bena soldaduac hirian sar beçanbat<sup>19</sup> Gin-coac uxutu citicin eta halaz, damuric edo gaiskiric batere eguiteco hirian igaran ci-

---

38 gaiskiric: *guiskiric.*

<sup>18</sup> Beharbada “eztutenen” egokiago litzateke: *no solo por el pecado de la cabeza, sino tambien por el pecado de un particular suele Dios castigar a otros* (I, 442) / *ce n'est donc pas seulement pour les péchés du chef, mais aussi pour les péchés d'un particulier, que Dieu étend quelquefois le châtiment* (RD 2, 504).

<sup>19</sup> Honela dakar jatorrizkoak: *y entrando los soldados en la ciudad los cegó el Señor* (I, 443) / *à mesure que les soldats entrouent dans la ville, Dieu les aveugla de telle sorte, qu'ils y passèrent, sans y faire le moindre mal* (RD 2, 506).

tuçun: eci Attila içanic ere Gincoaren gaztiguia, orotarat ere Gincoac etcicin nahi uken haren gaztiguia hain umilgui errecebitcen çutenac afluxithiac içan liten.

1

### <323> LAURGUERREN CAPITULIA [I/8/16 & I/8/18]

#### Gincoaren borondatera egon behar guirela eritarçunetan

Nola ossagarria Gincoaren dohain bat baita, orobat eritarçuna haren beste dohain bat duçu eta Gincoac igorten diraguçi gure poroatceco eta gure corrigitceco, gure flakeciaren eçagut-aracitceco eta ezdeutzarçunaren seindi-aracitceco, gure bihotzzen munduco gaucen eta placerren duten amoriotic lacha edo pharti-aracitceco, gure gorpitzceco indarren —çoin gure partida edo exaic handienac baitira— flacco eta hert-aracitceco, gure orhit-aracitceco mundu huntan deztarrusco leku batetan guirela eta Celia dela gure eguiazco lekia, eta finian beste anitz abanthail edo prootchu guri jardirex-aracitceco, eritarçunac errecebitcen edo hartzen tugunian Gincoaren ez-kutic gitzen çauzkun present batçu beçala. Hartakotz Çuhurraq erraiten dici *eritarçun handi batec arima sobretcen edo sobre errendatcen diela*.<sup>20</sup> Desertuco Aita çahar bat tec eri cien dicipulu bati egun batez erraiten ciracoçun: ene semia, etcitela afluxi eritarçun hortçaz, bena Gincoa erremezthia çäçü; eci sù bat duçu, çoinhec burdignhaz <324> bacira, çure erdoilhac chahatuco baititu, eta urhez bacira, çure poroatceco cerbitzhatuco çauçu. Bertuthe eta devocione handi baten segnhalia duçu Gincoac igorten derauzkigun eritarçunetan haren erremezthiatcia.

10

Irakurcen diici Seinta Cleraren bicitcian hoguei eta çortzci urthez uken cithiela eritarçun handi liferent batçu; behin ere bere gaitzcez planhuric egun gabe, beti Gincoa erremezthiatcen ciela; berheciki bere asken eritarçunian net anitz sofritu ciela; hamaçazpi gau-egunez deuz ere ecin hartu ciela eta, nola haren cofessora inxeatcen baitcen haren consolatcera eta exhortatcen baitcien hain martirio luciaren pacienki sofriticera, erran ciracoçun: Seint Francez Handiaren medioz eçagutuz gueroz Jesu-Christo ene Salbaçaliaren gracia, deuz ere ezticit idiren ene gaizctean ppenagarriric, ene doloretan sofri eztirodanic eta ene penitencian garratzcic.

20

Seinta Liduvinaren bicitcia ere exemplu miragarri bat eta balioz<sup>21</sup> duçu erier bihotz emaiteco eta consolatceco. Hoguei eta hemeçortzci urthez Virgina Seinda hori eri içan çuçun doloretan ciren handienekilan, hoguei eta hamar urthez ohaturic jeiki gabe, eta bere gaitzçac oro hain pacienki eta umilgui sofritu citicin, nun hala eguinez merechitu baitcien Gincoac egun oroz egun ceçacon cerbait gracia berheci.

30

<325> Seint Dominicaren Ordreco isthorian errana duçu<sup>22</sup> Erruman bacela Gincoaren nezcatho handi bat Hunna deitcen cena,<sup>23</sup> icena beçala içana ere cien bat.

7 eçagut-aracitceco: *ecagut-aracitceco*.

31 gaitzçac: *guitzçac*.

<sup>20</sup> Adieraz sobre eta sobretu maileguak pertsona neurritsuaz ari zaizkigu; jatorrizkoan: *la enfermedad grave hace templada y fuerte al alma* (I, 412) / *qu'une griève maladie rend l'ame sobre* (RD 2, 439).

<sup>21</sup> Iduri luke exemplu miragarri eta balioz bat-en ordain dagoela.

<sup>22</sup> Jatorrizkoan I/8/18 kapituluan dago pasarte hau, gaztelaniaz 420-n eta frantsesez (RD 2, 456)-n.

<sup>23</sup> Frantsesezko jatorrizkoan *Bonne zeritzola dia eta eransten et sa vie étoit si conforme à son nom* (RD 2, 456). Gaztelaniaz *llamabase la muger Bona* (I, 420).

1 Oroz gagneco Jaunaz ezcolaturic ikassi cicin ppenaric eta minic handienet arthian content eta alleguera içaiten. Haren mina boulharretan min bicia çuçun; guiza batez boulharrac uzteldu cirazçoçun, nun harrez bete baitcitzazcon; bere min edo curence handia hain pacienki sofritcen cicin, nun Gincoa erremezthiatcen baitcien, ceren gaitz suerte hura eman ceracon. Seint Dominicac ikussiric hain ppena handietan hainbeste pacencia eta bertuthe ciela Gingoatan, anitz maite edo estimatcen cicin; ardura confessatcereta et communiatcereta emaitera jouaiten citciakoçun. Egun batez confessatu eta communiatcereta eman onduan, Seint Dominicac haren min itxoussi eta gogagngarria nahi uken cicin ikussi; ppenareki, bena erakaxi ciracoçun; ikussi cienian min handi haren uzteldura eta hartan ciren harrac eta eriaren pacencia eta boztalencia, Seindu hori pietatez hunkithia içan çuçun eta handiski otoitu cicin nahi ceracon eman har hetaric bat erlektian beguiratceco; eman ciracoçun, bena hitzçaren pian errendaturen ceracola, erraiten deracolaric: hainbeste placer dicit harrec biciric jan neçaten, nun hetaric bat erorten çadanian, lurretic alchatchen baitut eta <326> bere lekian eşarten; hori erran eta eman ciracoçun bat eta Seint Dominicaren ezcura cenecho, perla eder batetara har hori kambiatu çuçun. Seint Dominicaren Fraide lagunec, miraculu hartzçaz ezpantaturic nahi cicien beguira ceçan har perla bilhatu hura; Seinda horrec erran cireeçun: eman eşadacie ene har perla; ene boulharretan sorthia da eta han hanbat demboraz hacia içan da, orai ere harat nahi dut berriz eşarri. Seint Dominicac itçuli uken ciracoçun eta berriz har bilhaturic bere minian eşarri uken cicin. Seint Dominicac ordian harendaco otoitzctan jarri içan çuçun eta bere benedicionia eriari emanic, abiatu bere comenturat eta ezcalerretan jeutxi beno lehen, emazte seinda haren boulharretaco haragui uzteldu eta harrac oro, betan erori içan cituçun eta egun laburren barnian haraguiac berrituric ossoki sendothia, eta sendotu onduan gorati erraiten cicin orori, Gincoac Seint Dominicac bere cerbitzcharia-ren medioz hura beithan eguin cien miraculu handia.

30 Seinta Gertrudas erraiten dicie gure Salbaçale Jauna egun batez aguertu citçacola eta erran ceracola:<sup>24</sup> ossagarria eta eritarçuna çure ezcura uzten derauzkiçut, hauta çäcu nahi duçuna; Seindac ihardetxi ceracola: Jauna, nic nahi dudana duçu, ene nahiaz ezteçaçun kassuric batere eguin, bena nitan compli deçaçun, <327> cer ere baitate çure gloriaric handienarendaco.

40 Guiçon batec cicin devocione berheci bat Seint Thomaz Cantorberrikuarendaco. Eritu çuçun eta jouan çuçun Seindu haren tombala, haren otoitzcera nahi ceracon Gincoaganic ossagarria jardiretxi; uken cicin galdeina; ossagarri handitan bere he rrirat itçuli çuçun, bena burura gin citciacoçun menturaz oguen ciela ossagarriaren guthitciathuz, etçakienaz gueroz ala ossagarria, ala eri içaithia cen haren arimaren salbamendiarendaco hobe. Penxamendu hori hain barna burian eçarri cicin, nun be rris Seindu haren tombala itçuli baitcen eta Seindia otoitu, Gincoari harendaco galda leçan cer ere proothzchossenic baitçatekeen haren salbamendiarendaco. Leheneco gaitzçä Gincoacigorri ciracoçun eta consolu handirekin errecebibu cicin hantic eçaguturic harendaco eri içaithia hobiago cela.

---

2 boulharretan: *boulhartetan*.

<sup>24</sup> Jatorrizkoan I/8/18 da, gaztelaniaz 419-n eta frantsesez, berriz, (RD 2, 454)-n.

Seint Vast Jaun Apezpikiaren bicitcian irakurten diici uxu batez, erraitetic heldu guiren idurico exemplu bat. Seindu horren erlekiac eremaiten edo lekuz kambiatzen cituzten lekian uxu hori heldu çuçun; heen ikuzteco biztaren uken nahisco desir handi bat gin citciacoçun; Gincoaz inçuna içan çuçun, bizta gin citçaconian erlekia heen ikusteco; guero Gincoa otoithu cicin, ikuztia beno uxu <328> içaithia haren arimaren hobe bacen, berriz uxu ceçan; otoitzça akabi ciencos lehen cen beçala uxutu çuçun.

Bena<sup>25</sup> nola eri eta sofritzen dutenec occasione hetan ekarten baitute anitz arraçoin eta dessenkussa iduriz hunac, ossoki Gincoaren borondatera egoitetic guibel guitzaketenac, inxeatu behar diici heer arrapoztu emaitera eta arraçoin bortitzagoz heen bentcitcera. Çunbaitec erran cirocie, beretçaz den beçanbat, bardin litçakeela eri ala osso içaithia, bera iduri cuela bezten eneu, karga, facheria direla.<sup>26</sup> Heer erran behar cieeu gaizki eguiten dutela bere beithan harthuz hetçaz erian arrangura uken behar dutenec pacencia ezkaz dutela eta eztaudela Gincoaren borondatera, sinhetxi behar ordian eriec emaiten deresten eneiac gogotic hartcen tuztela, Gincoaren ezkutic giten cesten gauça batçu beçala; anitz demboraz ehenhatu behar balitzute ere, Gincoac nahi dienera daudela eta eriec bere gaitzzen curutcia pacienki jassan behar duten beçala, hec ere heen cerbitzchatcian eta heen hazthian hartcen tuzten ppenac pacienki harturen dituztela.

Erranen dicie aguian orano eçagutzen dutela gu cerbitzhatcien eta gu laguntzen giteztenen karitathia eta borondate huna, bera ppena eiten deradana duçu deuz ere ecin eguna. Hortan gagnan Seint <329> Augustinec net unxa ihardezten dici. Cioçu eztakigula guc eguiñ guei duguna gure hunetan denez; hartakotz, gure delibero orotan ossoki Gincoaren borondatera egon behar diici eta guero, delibero hurac cumplitzen baitugu dezcanxu bat hartu, ez ceren eguiñ dugun nahi guindiena, bera ceren eguiñ dugun Gincoac placer ciena eta aldiz, ezpaitugu complitzen gure deliberuac, eztiz behar inkietatu eta arimaren bakia galdu, eci juztuago duçu guc Gincoaren borondathia segui deçagun, eci ez Ginco Jaunac guria. Azkenekotz —cioçu Eliçaco Aita handi horrec— nehor ere eztuço bere obretan chuchenago jouaiten denic, eci ez baita ekarriago dena Gincoaren boteric eguitetic baratzen dienaren ez eguitera, eci ez bera unxa uzthiac eta guzthiac nahi lukanaren.<sup>27</sup>

Aita Avilac jaun Appez eri bati iskiribatzen ceracolaric, erran ciracoçun: ezteçaçula goguan erabil cer eguiñ cindiroen ossagarritan bacina, bera goguan har çazu çunbat placer eguiñ duçun Gincoari çure eritarçuna gogotic hartzen baduço; eci nic uzte

<sup>25</sup> Berriz ere gibelerat jo eta I/8/16 kapitulura itzuli da: gaztelaniaz 412-3-n eta frantsesez (RD 2, 440)-n.

<sup>26</sup> Adiera ‘eragozpena’ edo ‘traba’ du *faxeria* hitzak; jatorrizkoak honela dio: *parecerme que soy carga á la Religion, y que doy pesadumbre en casa* (I, 413) / *c'est qu'il me semble que je suis à charge à la religion, et que je deviens incommodé à la maison* (RD 2, 440).

<sup>27</sup> Alegia, inor ez doala bere ekintzetan xuxenago, Jainkoaren botereak galerazten dion hori ez egiteko joera duena baino; alderatzearen bigarren atalean *guzthiac* hori ‘gustuak’ da: “[bera ongi uzteak] eta [gustoak] ] nahi luukeenaren egitera ekarría dena baino”; hona jatorrizkoak zer dioen: *aquel ordena y traza mejor sus cosas, que está dispuesto y preparado para no hacer lo que Dios no quiere que haga, que el que tiene mucha ansia y apetito de hacer lo que él había trazado y pensado* (I, 413) / *personne n'est mieux réglé dans ce qu'il doit faire, que celui qui est plus disposé à ne pas faire ce que la puissance divine l'empêche d'exécuter, qu'il n'est porté à faire ce que la raison humaine lui fait projeter* (RD 2, 442).

1 dudan beçala, Gincoaren borontathia<sup>28</sup> choilkki cherkatcen baduçu, cer çauçu ala eri, ala osso içan citen, Gincoaren borondate —çure chede gucia eguiten dien hura— bardin complitcen denaz gueroz igorten derauçun eritarçunian eta ossagarrian?

<330> Seint Chrisostomac erraiten dici Jopec aboro merechitu ciela hitz hotçaz: *Gincoac placer uken diena heldu duçu; Jaunaren icen seindia dela benedicatu*, bere ppena eta afflictionetan Gincoaren borondatera egoite hartçaz, eci ez ossagarri hunian eta aberax cenian eguin cithien obra hun orotçaz. Çuc ere aboro merechituko duçu eta Gincoaren aitcinian maitagarriago içanen cira çure eritarçunian ossoki haren borondatera egonez, eci ez ossagarri hunian eguin ahal cintçazkeen obra hun oroz.

10 Seint Bonaventurac seindimendu bereco duçu. Erraiten dici perfeitago dela pacienki nahigaben sofritcia, eci ez garxuki obra hun eguiten artcia; Gincoac eztici çure ez ene beharric, nahi thien obra hunen eguiteco. Davitec cioçu: *erran dicit Jaunari,ene Gincoa cira eta etçu ene hunen beharric*. Eritarçunaren medioz Ginco harc berac nahi derauçun orai peredicatu pacencia, eta haren borondathiari obediencia ukeiten erakaxi; utçaçu hura eguitera, baciakiçu cer den çuretaco hobenenic, eta çuc eztakiçu. Cerbaite-taco behar baguindu ossogarria<sup>29</sup> nahi uken, Gincoaren cerbitzchatceco eta haren gogaraco içaiteco: bona nahiago badu eri içan citen eta pacienki sofrithuz igorten derauçun eritarçun gaitz baten ppenen,<sup>30</sup> haren nahiaren araura bacira, haren borondathia eguna içan bedi eta hartan diagöchu çure <331> prootzchuric handiena eta çuretaco hobenen dena. Gincoac permetitu cicin Joandene Paule Apostolia bi urthez pressundeian egon ladin, Eliçac haren pperedikien beharrenic cien demboran; eztakiçula çuri ere gaitzci Gincoac pressundei bathian beçala eri atchikiten bacitu bi hilabetez edo bi urthez, edo menturaz cireno, haren borondathia hala bada; eci Apostolu harc, libertathian içan baliz, çuc ossagarrian içanic beno obra hun handiagoric eguin ahal cikecin.

Çunba[il]tec<sup>31</sup> orano erran cirocie beti cerbait gaitz sofritcen dutela, hargatic sendo iduriric ere, eta heen herrokaco edo gradokuec eiten tuzten obra hunac —hala nola lanac, devacioniac, barurrac— ecin eguiten ditutzela, eta hala içaithiaz ppena handi dutela. Heen seindimendia justo eta laudagarri duçu, bona hargatic ere, horiec oroc ezticie hertu behar bere gaitzctan Gincoaren borondatera beti egoiteco uken behar duten delibero ossua, bona hobeki ordian bere merechimendien emendatcera inxeatu behar dicie Gincoaren borondatera ossoki egonez, eta hambat harc igorten derezten beçala ororen gogotic errecebithuz, nola garxuki desirathuz ahala balute bere eguin-biden bestec beçala chuchen complitcia, eta bihotzcetic ppena harthuz ecina dutelacotz. Guiza hortan bere gaitzçac pacienki sofrithuz merechituko dutenaz <332> bez-

17 pacienki: *paceinki*. 23 içan: *ican*.

<sup>28</sup> Liburuko *borontate* bakarra da, *borondate* dira beste guziak.

<sup>29</sup> Liburuko adibide bakarra da, gainerateko guziak *ossagarri* dira; dena den, ez da ahantzi behar Tartasek *osogarri* dakarrela, Oihenartek ez bezala.

<sup>30</sup> Alegia, “nahiago badu gaisorik izan zaitezen eta pazientki sufri ditzazun igortzen dizun eritasun gaitz baten penak”; jatorrizkoan: *pues si el Señor se sirve y agrada mas en que yo me emplee en estar enfermo, y en llevar con paciencia los trabajos de la enfermedad, hágase su voluntad* (I, 414) / *mais s'il aime mieux que je sois malade, et si je lui suis plus agréable en souffrant patiemment toutes les incommodités d'une maladie fâcheuse, que sa volonté soit fait* (RD 2, 443-4).

<sup>31</sup> Esaldiak ez du ongi ematen *zunbat-ekin*; aldz, *zunbait* izanik, gauzak zuzenago dira; jatorrizkoak *algunos / autres personnes* dakar (RD 2, 444). Inprimategiko hutsa gertratu dela uste dugu.

talde, ossuan direnec<sup>32</sup> eta bere devocioner chuchen jarraikiten direnec beçambat<sup>33</sup>edo aboro merechimendu ukenen dicie.

Barurez den beçambat, Seint Augustinec peredicatcen cielaric guiristhinho oroc Gariçumaren barurtceco duten obligacioniaren gagnan, eta ondotic minço delaric eriez eta manu hori ecin complitcen dutenez, erraiten dici ecin eiten dutenec azki dutela bihotzcetic ppena hartzcia eta hazper eguthia bestec beçala ecin barurciaz. Soldado bihozthoi bat guerlatic colpaturic alchacen dutenian, bere colpiez beno aboro ppena dici guerlan aboro ecin artciaz; guiristhinho hun batec orobat uken behar dici bere minez beno aboro ppena, bestec beçala bere einbiden ecin complitciaz. Bena ororen burian, gure ecinac eta bezte cernahi gauçac ezkitici guibeldu edo epaintchatu behar Gincoaren borondatera egoitetik gure eritarçunetan; bena orano oro hartu behar tiici haren ezkutic jiten çauzkigun gauça batçu beçala, sinhezten edo gu beitan hartcen dugularic Gincoac igorten derauzkigula bere glorianic handienarendaco eta hobenen den beçala.

Seint Jeromac erraiten dici ermithain batec egun batez otoitu ciela Joannez Egip-taco Abade Seindia nahi cien sendotu sukar gaiztho batetaric, çoinhec janic baitçau-kan; <333> Abade Seindu horrec erraiten diracoçu: nahi cirea gabetu behar duçun gauça batetaric? Hala nola purguec chahatcen baitituzte gorritzac bere saxukerietaric, orobat gaitzcec arimac chahatcen ticie becathietaric edo biciuetaric.

## BOSTGUERREN CAPITULIA [I/8/19]

20

### **Bicitceco ala hiltceco Gincoaren borondatera edo haren placerrera egon behar guirela**

Gincoac gutçaz çatitu placer dien beçala, haren borondatera igualgui, gogotic eta ossoki beti egon behar diici, bada bicitceco, bada hiltceco. Nahibada ere heriua gauça gaitzça eta ikaragarria den, hargatic ere guiristhinho hunec bere bicitce sein-diaz anitz ezi cirocie hiltceco dugun beldur handi hori; mundutarrec, aldz, eta becatorec, nekez deliberatcen dicie hiltcera, heriuaren hurrantciac aboro ikaratcen tici, ceren eta ohorer, huntarçuner, placerrer eta bere dezkanxier bihotzçac eztekathiac baitituzte, hetaric eta bere azkaci eta adiskidetaric partitziac ppena handi eiten bai-teree. Seint Chrisostomac erraiten dici dezkanxian eta placerretan bici denari hiltcia anitz gaitzci çacula; eta hain gaitzci başaco heriua urruin <334> uzte dienian, çunbat aboro eztu ikara-aracico hiltceco tenorian? Guiristhinho hunez eztu ber gauça iça-nen; mundiaren eta munduko gaucen eztekuric gabe bici tuçu; heen dezkanxia oro duçu Gincoaren maithatcian eta cerbitzhatcian; heriuari soiten diracocie heen ppe-nen akabançari beçala eta eguin tuzten obra hunen paguiaren ukeiteco ein behar du-ten igaraitce batı beçala.

30

<sup>32</sup> ‘osasuna dutenek’: tanto como los demás que están sanos y buenos (I, 415) / autant ou plus que ceux qui se portent bien (RD 2, 445).

<sup>33</sup> Liburuak beçambat dakar, baina ez da Nafarroa Garaiko [bekanbat] aldaera fonikoa, grafia hutsa baizik.

1 Cerc ere orano mundutarrac guehienic hiltceco orenian icitcen baititu eta heriua lotxa eta ikaragarritzen dereena duçu<sup>34</sup> —Seint Ambrosioren erranera— heen conciaren estatu gaistuac eta unxa hiltceco uken behar citusten dispositionen gabiac. Guiristinho hun batez eztu orobat. Medicu batec erran ciracoçun behin Fraide eri bat: gaizki cira, hiltcera prezta cite. Arrapoztu hauegunea ciracoçun: fraidetuz gueroz besteric ezticit eguna. Halaber eguna behar dici guiristinho hun batec, preparatu Jesu-Christoc gureganic hura jiten deneco galdeiten dien estathian içaitera; erraiten diraguçu: *cien errainhac unxa cintathiac içan bite eta lampadac pizthiac cien ezkietan atchikitçacie*. Seint Gregorioc erraiten dici, errainhen cintatciac segnhalatzen diela garbitarçuna eta lampada bicien ezkietan ukeithiac obra hunac, eta guiristinho hunec horiec biac baititzte, ezticie hiltciaren beldur ukeiteco arraçoinhic.

10 <335> Heben behar diici gauça bat: gogua eman net unxa daguena orai minço guiren pundiari. Conciencia estatu hunian dugula eta Gincoareki unxa guirela ukeiten ahal dugun segnhale edo markaric handienetaric bat duçu, haren borondate divinora heriuaren orenaz ossoki egoithia eta oren haren igurikithia, cerbitzchariebere Nausiaren eztheietaric jiteco orena edo tenoria igurikiten duten beçala. Aldiz, ezpadaude<sup>35</sup> ossoki Gincoaren borondatera eta hiltciac ppena handi eguiten baderagu, segnhale gaizto bat duçu. Ardi batec, bihurtu gabe cinçurren eguitera uzten dici edo ichilic dagueilaric, bere buria hiltcera uzten dici; hartakotz Iskiritura Seindiac Jesu-Christoren hiltciaz minço delaric erraiten dici: *ardi bat harakindeira beçala eremana içan dela*; bena urde cundhia animale saxu bat baita, hil nahi dutenian marrisca icigarriric eguiten dici eta heriuaren contre ahal beçanbat defendatzen edo bihurtzen duçu.

20 Liferencia bera duçu justuen —çoinhen segnhaliac ardiac baitira— eta guiçon gaizto eta becatorossen arthian, çoin Urdec segnhalatzen baitituste. Hiltcera condenatu den criminel bat, dakiennan pressundeitic idokico dutenian urkabetara eremanen dutela, pressundeico borthac idekiten tuzten aldiskal ikara diagoçu; bena ogueñic gabe eşagutu içan bada, allegueratzen duçu <336> pressundeico borthac idekiten hautemaiten thienian, ceren uzte baitu haren libraticera jiten direla. Orobak, guiristinho gaizto bat, gaitzçac herssatzen dienian eta heriua hurrantzen çacola ikuzten edo seinditzen dienian, tristatzen, desesparatzen duçu, conciencia beltzça eta becatuz kargathia dielakotz, uzte dici mement oroz sù eternalerategotzia içaitera duhela; bena conciencia chahu bat diena, haren azken orena hurrantzen dela ikuzten dienian allegueratzen duçu, ceren esperança osso bat baitu haren libraincha hurrantzen dela eta haren paussu eternalerat joaiteco tenoria heldu dela. Eguin deçagun, beraz, eguiasco guiristinho hunec eguna behar dutena, ordutic gogotic egonen guituçu Gincoaren borondatera gure hiltceco orenaren gagnan, eta jiten çagunian boztuço guituçu, desratuço ere diici eta erranen, Davitec erraiten cien beçala: *Jauna, libra çazu ene arima gorritzeco pressundei huntaric*.

30 Seint Gregorioc Jopen erran hoen gagnan —eta eztucie beldurric ukenen lurren gagneco aberen— erraiten dici hiltceco tenoreco ispirituko paussia justuen paguia-

---

30 beltzça: *beltzça*.

<sup>34</sup> Jatorrizkoan y ser causa que se les haga la muerte terrible y horrible (I, 424) / et de la leur rendre terrible et épouvantable (RD 2, 464).

<sup>35</sup> Ingruneagatik hobeki eman lezake “ezpagaude” balitz.

ren haxarre bat dela; ordutic hazten direla goçatcen, guero beti goçatu behar duten bake ispiritual haren, eta ordiandanic badutela bere urossitathiaren guztu haxe bat edo haztapen bat; gaitzuac, aldiz, seinditcen hazten direla Ifernuco ppenen, ceren <337> concienciaco harrec edo arragretec bihotzça jaten baiteree. Seint Jean Clima-kussec erraiten dici net laudagarri dela egun oroz heriuaren igurikithia, bena justuec choïlki oren oroz desira dirotela, eta Seint Ambrosioc disposizione seindu hartan dírenac net laudatcen tici. Patriarka çaharrac hala cituçon aithortcen edo erraiten çutenian destarrusco lurrian igaraile cirela. Joandene Paulec net unxa erraiten dici hala minço direnec clarki erakazten dutela bere herria —erran nahi baita Celia— cherkatcen dutela. Desir beretan çuçun David planhu amoraxu batez Gincoari erraiten cienian: *helaz! Ceren ene mundu huntan egoiteco deztarria luçathia içan da?* Legue çaharreco Patriarkac hola minço baciren, holaco seindimendiac bactuzten Celuko borta orano cerraturic çaguenian eta hiltciac ecin idekitcen cereenian,<sup>36</sup> cer ezkinduke orai erran behar Celia guretaco idekia den demboran, arima bere faltetaric ossoki chahatu dateen mementhian Gincoaren goçamenian jarrico denian?

### <338> SEIGUERREN CAPITULIA [I/8/20 & I/8/21]

#### **Çunbait arraçoinhez, çointçaz erakasten baita becaturic gabe eta seinduki hiltcia desira dirogula**

Perfeikiago Gincoaren borondatera edo haren placerrera —hanbat hiltciaren nola bicitciaren gagnan— egoitera erakax guitçaketen arraçoin çunbaiten emaitera guihatçu, batbederac har deçan amorecatic hoben iduri çaukona. Hiltcia seinduki edo becaturic gabe nehorc desira diroen lehen arraçoinha duçu, bici huntaco misericitaric itçurtzceco edo jalguiteco. Çuhurrac erraiten dici *bici triste edo miserable baten eremaithia beno, hiltcia hobe dela.* Guiza hortan desiratcen dicie ardura mundutarrec hiltcia eta Gincoari galdeiten, eta becaturic gabe eguin cirocie, bici huntaco misericac hain handi eta hainbeste direnaz gueroz, nun sori edo permis baita hiltcera desiratcia, heer ihez eguiteco edo hetaric jalguiteco. Seindiec erraiten dicie, Gincoac guiçonner hainbeste gaitzcen eta miseriaren heben sofri-aracitceco edo heen pian guiçonen atchikitceco uken dien arraçoinhetaric bat dela, etciten amorecatic mundiari eta bici galkor bat hain tinki edo sobera ezteka, bena bihotzcetaco <339> affecione eta amoriuac oro atchiki citçaten bezte bici eternal batetarat, nun ezpaitate aboro misericiaric, ppenaric, ez doloreric.

Seint Augustinec erraiten dici, Gincoac ecin aboro misericordia muga gabe batez nahi uken diela mundu huntaco bici ppenoz haur net labur içan dadin, eta igurikiten duguna finic gabecua edo eternala, manera hortan ppena net fite igaran çadin eta allegueranciac eta paussiac beti iraun çeçaten. Seint Ambrosioc ciòcu bici haur hanbat ppenaz eta deztorbuz bethia dela, nun heriuac heen eretcian iduri baitu ez gaztigu bat, bena erremedio bat dela, eta Gincoac becathiaren punimendu bat beçala or-

6 choïlki: *choilkii*.

<sup>36</sup> Jatorrizkoak honela dio: *et que leur mort ne pouvoit leur en donner l'entrée* (RD 2, 468).

1 denatu ezpalu ere heriua, otoitu behar guindukeela eman leçagun gracia bat beçala, haren medioz mundu huntaco gaitzcetaric gure burien libratceco. Eguia duçu anitz munduco gendec pundu hortan becatu eguiten dutela pacencia ezkacez, affligithiac direnian coleraz, pessaz, despitez, desesparacionez Gingoari heriuaren galdeinez; bena galdein baleçate bihotzceco edo ispirituko behar den pacenciareki eta Gingoaren bordonatera daudelaric erraiten balute: Jauna, çure placerra hala bada, idoki neçaçu mundu triste huntaric, azki bici içan nuçu; segur duçu guiza hortan Gingoari hiltciaren galdeithia becaturic gabe liçatekeela.

10 <340> Biguerrenecoric, seindukiago eta perfeikiago orano nehorc hiltcia desira ciroçu, ez ikuzthiagatic religioneric eztuteneç Eliça Seindiari sofri-aracitcen derezten gaitzçac eta Gingoari beti eguiten derazcoten offenxiac. Eliaz Prophetac Achaben eta Jezabelen demboran hiltcia hala desiratcen cicin. Ikussiric hec biec Gingo Eguias-cuaren Aldariac urraturic, haren Prophetac hil-araciric, bera ere hil-aracitceco cherkatcen çutela eta etcirokeela hainbeste gaiztakeria eta sacrilegio epaincha, Deserturat bihotz minez eta dolorez bethia jouan çuçun eta han arbole baten pian jarriric hiltcia desiratu cicin eta erran: *Jauna, azki dicit, bicia edeki çadaçu, eci enuçu ene Aitac beno hobe.*

20 Juda Maccabea guerla/guiçon handiac, Gingoaren Populiaren Generalac, bere sol-daduen guerlala ipitztatceco eta bihotz emaiteco erraiten cieeçun: *hobe diici guerlan hiltcia, gure aracioniari gure exayec sofri-aracitcen deresten ppenen eta gure gauça sein-dier eguiten deresten ezkarniuen ikuzthia beno.* Vandalec Hiponaco Hiria setthiatu çutenian Ezpaghnatic Africalat igaranic, oro sù eta odol eşarten cituztenian, nehor ere gazteric, ez çaharric, Apezcic, ez besteric gupida uken gabe, Seint Augustin Hiri hartaco Jaun Apezpikiac ikussiric hain affligimendu edo calamitate icigarria, Hiriac erhautxiric eta genderic gabe, <341> Eliçac arrobaturic eta guiristinhuac alde orotarat arçainhic gabe ihessi jouanac, Gingoaren aitcinian beti nigarrez ciagoçun. Egun batez bere Eliça Guiçonac elgargana bilduric erran cireeçun: Jauna otoitu dut, edo libra guitçan oraico malurretaric, edo eman deçagun heen pacienki sofritceco gracia, edo bereganat deitha neçan hainbeste malur edo gaitzzen ez ikuzthiagatic; gracia ho-rietaryc hirurguerrena eguin deraut, erran nahi baita biciaz gabetzia. Hanti fitetz eritu çuçun eta eritarçun hartatic hil, Hiria sethiathia içan cen hirurguerren hilabethian. Hori iduri exemplu bat Seint Ignacioz ekarten dicie eta dudaric gabe, Seindien perfeccione bat duçu, seindimendu huntan jartzcia Eliçaren malurretan eta Gingoaren Majestathiari eguiten çazcon offentxietan gagnan, eta heen ez ikuzthiagatic hiltcera desiratcia.

30 Seindimendu net laudagarri eta devot bat duçu orano hiltcera desiratcia eta heriuaren Gingoari galdeithia, haren aboro offentxatceco bidian ez içaithiagatic; eci segur duçu bici guireno beti becatu mortalera eror guitakeela, gu beno perfeita-goric, dohain handiric Gingoaganic errecebibu çutenic, eguiazki seindu eta anitz seindu cirenic becatura erori içan direnaz gueroz, eta horra cerc ikararatcitcen thien Gingoaren eguiazco cerbitzchariac eta labur edo fite bici huntaric jalguithia desiratcitcen.

---

4 desesparacionez: *deresparacionez.*

<342> Oussustamendu seindu batez desira ere dieiteçu ezkinen behin ere mundura gin, ceren ezpaikindukeen becaturic eguin;<sup>37</sup> eci becathia, ez içaithia beno gaitz handiagua duçu eta hobe lukeçu ez içaithia, becatu eguithia beno. Arraçoin bortitzaguaz, beraz, nehorc desira ciroçu hiltcia becaturic aboro ez eguiteco. Jesu-Christoc, traditu behar cienaz minço delaric, erran dici: *sortu ezpaliz hobe çukeen ene tradiçaliac*. Eta Seint Ambrosioc Ecclesiasticua deitcen den Liburiaren hitz hoen gagnan: *hilen chorthia biciena beno hobe çaut eta uzte uken dut, bai hilac, bai biciac beno urozago dela orano sortu eztena*, cioçu hil dena bici dena beno hobiago dela, ceren becatu eguitetic baratu baita; eta sorthu esthena, hil dena beno hobiago, ceren ezpaitu behin ere becaturic eguin. Net hun dukeçu, beraz, otoitzçan edo meditacionian horren gagnan ardura acten eguithia, erraiten delaric: Jauna, ezteçaçula permeti becathiac çuregenic ourrunt neçan; çure offendatceco azki maluroz içan behar badut, lehenago hil neçanç; eci çure cerbitzchatceco choilki desiratcen dicit bicitcia eta ezticit bici nahi ene biciaren çure cerbitzchian ez eremaitecotz. Hola eguithia net seindu eta prootzchoz duçu, ceren seindimendu horiec bere beithan cerratcen baitute becathia-ren hazthio handi bat eta umilitathe eta Gincoaren amorio net handi <343> bat; galdo suerte horiec dituçu Gincoari eguin ahal ditakeen<sup>38</sup> laketenac.

Louis Francisco Erregue Seindiaz erraiten diciere bere Ama Erreguinha Blanchac çunbait aldiz erraiten ceracola: ene Semia, becatu mortalian erori cirela jakin beno, nahiago cinduzket hilic ikussi, eta desir seindu hori Gincoari hain laket içan citciacoçun, eta hainbeste benediccione Prince hari jardirexi, nun erraiten baitute bere bici orotan Erregue Seindu horrec etciela mortalki Gincoa offendat. Halaco desirac ba-guintu menturaz orobat gutçaz içan lieiteçu.

Becatu mortalic ez eguithiagatic hiltcia desira daiteen beçala, becatu venial ardura eguiten dugunetaric beguiratciagatic ere hiltcia desira dieiteçu, eta hori chede seindu eta net laudagarri bat duçu; eci Gincoaren cerbitzchari hun batec, becatu mortal bakoitz baten ez eguithiagatic eztici choilki hiltcea deliberathia içan behar, bena orano gueçur thipi baten edo beste becatu venial baten eçagutcerek ez eguithiagatic. Gure bicia labur içanic ere, segur duçu anitz becatu venial eguinen dugula, Justua egunian çazpitán erorico dela —Ispiritu Seindiac dioena<sup>39</sup>—, erran nahi baita anitz aldis; halaz, bicia luciago, becathien cundia emendatuz joanen dela. Bena Gincoaren cerbitzchari lealac eztituçi hortan egoiten, bena orano desiratcen dicie hiltcia, <344> bici huntaco falta iduri edo imperfeccioneric thipienetaric, miserietaric, tentaciontaric eta flakecietaric libro içaithiagatic.

Guiçon seindu batec erraiten dici: helas! Jauna, ala baitut sofritcen! Otoitzçan Celuco gaucen gagnan penxaketa ari niçanian, Lurreco mila penxamendu ene ispiritura jiten tuçu. Guiçonaren bici huntaco malurra duçu, beti afflictionian, miserian eta alde orotaric exayez ingurathia içaithia. Tentacione bat ireici deneco, beste bat jiten duçu eta ardura, bat arraz garaitu gabe, uzte etcien beste anitzcec hartcen dici. Hainbeste karastarçunez, langerrez, nahigabez beteric den bici haur, norc maitha deçake? Norc deitha deçake bicitcia, hainbeste heriotce suerte ekarten dien içaithia?

<sup>37</sup> Frantses *désirer que l'on n'eût jamais été, afin que l'on n'eût jamais péché* (RD 2, 472).

<sup>38</sup> Adieraz plurala da *ditake*, Zuberoan bezala.

<sup>39</sup> Jatorrizkoetan ez da Izpiritu Seindua aipatzen: *car le juste tombera sept fois le jour; c'est-à-dire, plusieurs fois* (RD 2, 474).

1 Seinda handi batec erraiten ohi cicin: sori baliçaut hautu baten egithia, hiltcia hauta niroçu Gincoaren amoriuaren contre deuz eguiteco bide bakarra beçala. Perfec-  
ciona handiago bat ere duçu becatu venialetaric ez egithiagatic hiltcera desiratcia,  
eci ez becatu mortaler ihez egithiagatic; eci hel dieiteçu becatu mortalic ez egui-  
teco hiltcera desiratcia, Gincoaren amorioz beno, Iferniarenean beldurrez eta guihau-  
ren amorecatic desir hora har dirogula; bena becatu venialen eta houxic thipien  
ez egithiagatic hiltcera desiratcia, Gincoaganaco amorioaren garraz duçu, dudaric  
gabe, <345> chede edo intencione chahu eta bertuthe ossoki handi baten oukeithia.

10 Bena çunbaitec erranen dici, becatiez penitencia eguiteco eta bere faltetaric cor-  
rigitceco, nahi luketela aboro bici; horri arrapoztu emaiten dicit, luçazago biciz gure  
faltac beti cerbaitez hertzzen baguintu eta berriric ezpaguindu eguiten, seindimendu  
hori huna lukeçu. Çor çaharrac pagatu behar bidian emendatcen baitu eta, luçazago  
biciz Gincoaganaco cundiac emendatcen baçauzcu,<sup>40</sup> çure arraçoinhac eztici  
deuz balio.<sup>41</sup> Cergatic —cioçu Seint Bernatec— hain bortitzki bicitcia desiratcen  
dugu, aboro bici eta oboro becatu eguiten dugunaz gueroz, gure egunen cundia  
emenda beçanbat gure becatienda emendatcen denaz gueroz? Seint Jeromac —minço  
delaric gauça beraz— erraiten dici: cer liffe[re]ncia uzte duçu dela gazteric eta çahar-  
turic hiltcen direnen arthian? Çaharturic hiltcen dena, gazteric hilcen dena beno  
aboro becatuz kargathia hiltcen baita eta cundu handiagoric Gincoari emaiteco baitu.  
Beraz, erressolucion seindu bat duçu Seint Bernatec horren gagnan hartcen diena,  
bere umilitate handiac erran-aracitcen derazkonian, hari beno, guri hobeki dauden  
hitz hoc: ahalue niz bicitcera, ceren guti prootzchatcen baitut; hiltciaren beldur niz,  
ceren ezpainiz prest; bena ororen burian, nahiago dut hil eta Ginco ecin <346> aboro  
hunaren misericordiari gomendatu, eci ez ene bicitce gaiztuaz Gincoaren offendax-  
tceco occasione eman.

Aita Avilac erraiten dici bertuthian ezkaz edo net perfect eztenac, bicia beno lehe-  
nago hiltcia desiratu behar lukeela, ceren becatu eguiteco langer seguidasco bathian  
bailicâte, eta çointaric heriuac idoki bailiro. Eci cer da heriu —cioçu Seint Ambro-  
sioc— becic ere biciuen edo becatien hobia eta bertuthen pitzthia?

30 Arraçoin hunac eta seindiac dituçi hiltciaren desiratceco orai artekan erran tugunac,  
beno orotan den perfeiten duçu, Joandene Paule Apostolia ekarten ciena desiratceria ha-  
ren arima gorritzceco eztekataric libra edo lacha ladin Jesu-Christoreki içaiteco. Apostolu  
handia, gorritzceco pressundeitic libratu nahi cindiena munduko ppener ihessi  
egithiagatic? Ez; afflictionetan eçarten duçu çure gloria eta placerra. Becathian eror  
beldurrez eia? Guthiago; eci erraiten deraguçu segur cirela heriuac, ez biciac, etcitçake-  
tela Gincoaren amiotic ourrunt edo parti. Seindu handi hora hain çuçun gracian az-  
karthia edo finkathia, nun segur baitcen behin ere etceçakeela gal; halaz, hortçaz ecin  
cikecin beldurric. Bena nolaz, beraz, hain garxuki hiltcia desiratcen cindien? Jesu-Chris-

---

15 gueroz: *guoroz*. 18 Çaharturic: *Çahartutic*.

<sup>40</sup> Plurala da, ‘zautzu’, hau da, ‘zaizkizu’.

<sup>41</sup> Liburuak *balia* dakar, baina hutsa dirudi. Itzulpenean ez da ohikoa “balio edun” aditz lokuzioa,  
izen izaera du gehiago “balio”-k liburuan; “balio edun”-en adibide guti ageri dira, eta izen kutsua dute-  
nak, gainera: *guti balio eta guti merechimendu baitute* (237); *huntarçunec beno aboro balio baitu* (437);  
*hala nola sagar baten edo beste cerbait guti balio dienen ebasthia* (437).

toreki içaithiagatic eta ceren harendaco amorioz augathia<sup>42</sup> bainiz. Amorioz eri çuçun; <347> bere Maithiaganat joan nahiz, hazperrez ciagoçun; haren presencia dinua berantzen cicin; luçamenduric thiapiena net luce eta eneagarri iduritcen citciakoçun.

Seint Bonaventurac hortan eçarten dici Gincoaren amoriuaren gradoric gorena: eci hirur grado badirela cioçu. Lehena, beste gauçac oro beno aboro Gincoaren mai-tacia, eta hanbat, nun deuzzec ere mundu huntan ezteçakegung becatu mortal bat eraguiñ ahal, ez Gincoaren manu bat hautx-araz. Salbaçale Jaunac chede hori eman ciracoçun Evangeluan errana den guiçon gazte bati, erran ceraconian: *nahi bacira bici eternalian sarthu, manamendiac beguira itçaçu*, eta hori ororen eguinbidia duçu. Gincoaren amoriuaren biguerren gradua duçu, manien beguiratcia beçala Evangelio avisen seguitcia, eta hori berheciki perfeccionera heldu nahi direnec eguiten edo eguitera inxeatcen tuçu, cer ere hobenic eta perfeitenic dela uzte baitute, hari jarraitik, Joandene Pauleren erran hoen aravera: *Gincoaren borondathian cherka deçacien amorecatic hun dena, hari placer aboruenic eguiten diena eta perfeccione aboruen diena*. Cioçu orano Seint Bonaventurac, Gincoaren amoriuaren hirurguerren gradua dela, guiza batez Gincoaren amoriuaz oussustatu içaithia, nun hura gabe kazi ecin bici baitaite, garrazki desiratcen baitu ikussi gorpitz huntaco eztekac <348> hautxiric, Jesu-Christoganat joaiteco memento urossa; deztarru huntaric jalguiric Celurat joaithia, eta beti Gincoari galdeiten baitu gorpitzceco pressundei huntaric jalguiric Gincoaren ikuzteria eta goçatcera joaithia. Holaco seindimendiac dituztenec eguiten ahal dutena oro duçu —cioçu orano Seint Bonaventurac— bicitciaren pacienki hartcia; eci bicia karga eta eneagarri cieeçu halakuer eta desiratcen dicie gorpitzcetic separatcia.

Irakurten diici<sup>43</sup> Author hun bathian, Jaun handi bat egun batez ihicira joan cela lagun alde bateki; lagunac ihicien onduan alde orotarat barreatu çazcola; bera, al-dis, ihici baten onduan oihanian net barna sarthu cela, eta nola aitcinago joan nahi baitcien, inçün ciela guiçon baten botzça, çoinhec miragarriki kantatcen baitcien. Eztonaturic Desertu hartin hain botz ederraren inçuthiaz, nola baitçakien etcela haren gendetaric, ez eta ere karthier hartakuetaric, curiositatez botzça cen alderat oihanian aitcina joan cela; idiren ciela Desertu hartin guiçon lepraz bethe bat ossoki desseguina, haraguiac ouztelduric gorpitz gucitic erorten çazcon bat; haren hala ikuzthiaz icitu cela; hargatic bere buriari bortzchu eguinic hurrandu citçacola eta oneski salutatu; galdein ceracola kantaria hura cenez eta nola ahal çukeen hain botz charmagarri bat. Guiçon <349> horrec ihardexi ciracoçun hura cela, eta haren botz naturala hala cela. Jaun horrec erran ciracoçun: nola içaiten ahal cira horrein<sup>44</sup> alleguera hain estatu pietategarrian içan eta? Guiçon lepraçu harc erran ciracoçun: Gincoaren eta ene arthian eztuçi lohisco murru haur becic, çoin baita ene gorpitzça; lurrerat erori datenian eta puchulu haur kendu çaukedanian,<sup>45</sup> joanen nuçu libroki Salbaçale Jauna-

16 içaithia: *icaithia*.      17 garrazki: *garruzki*.

<sup>42</sup> Adiera ‘ahultza’ du *augatu* hitzak; jatorrizkoak honela dio: *de puro amor lo deseaba / quia amore langueo / parce que je languis d'amour* (RD 2, 477).

<sup>43</sup> I/8/21 kapituluari dagokio pasarte hau, frantseseko jatorrizkoan (RD 2, 485).

<sup>44</sup> Liburuko bigarren adibidea da; 33-n ere *horrein* dakar.

<sup>45</sup> Ez dakigu idazkera hau ez ote den *dukedanian-en* ordain dagoen hutsa; *zaukedanian* zuzena bada, beharbada “hura eni” *zaut* adizkiaren *-ke* forma izan daiteke. Honela dio frantsesez: *quand elle sera par terre, et que cet empêchement sera ôté, alors j'irai jour librement de la vue de mon Sauveur* (RD 2, 486).

1 ren ikuztera eta goçatcera; eta nola ikuzten baitut egunetik egunera murru haur ou-rratcen ari dela, placerraren handis kantatcen dicit arraz ourraturic ikuzteco orena igurikitzen dudalaric, amorecatik ene arima ene gorpitzcetic partituric ene Gincoaren goçatcera joan ahal dadin.

Irakurten diici<sup>46</sup> orano Seint Ignacioren bicitcian bere gorpitzceco pressundeitic libratu içaiteco desirac beti erratzcen ciela eta hain garxuki Gincoaren ikusthia desiratcen, nun hiltceco orenas orhitzen cen aldi oroz, placerraren handis nigarrez egoiten baitzen. Bena leku berian errana duçu, Paradussiaren goçatceco cien esparançac beno hobeki<sup>47</sup> hiltzia desiratzen ceracola, Jesu-Christoren humanitate edo guiçontarçun sa-crathiaren cien amorio beruac. Hala nola David Prophetaren placerra baitçaguen Jau-naren placerren ikusthian, mundian berian eguiaski nehorc maite dienian norbait, pla-cker osso bat badici bere adiskidia <350> ikusten dienian plaça edo grado ohoresco eta prootzchoz bathian; orobat Seindu handi horrec desiratzen cicin bere Naussi maithia-ren ikustia berharen amorecatik içaiten ahal den gloriaric gorenian, han ikusthia desi-ratzen haren placerraz placer hartceco bere urossitate propriari sognin gabe, eta dudaric gabe hori duçu amoriosco actetan den perfeitena eta nehorc eguiñ deçakeen gorena.

Erraitetic heldu guiren beçala gaucer soguiten badugu, heriuaren orhitchapena etciaguçu karax edo ppenoz içanen, bona placer, boztalencia emanen diraguçu. Ünxa goguan har çagu ceren ciren beldur edo cerc derauçun ppena; orhit cite egun laburren barnian Celian ciratekeela eta han goçatuco duçula huntarçun egundano beguiec ikussi, beharriec intçun<sup>48</sup> eta guiçonac endelgatu dien beno anitcez handiagua; goguaketa horrec çure beldurrac oro kanbiatuco tici placer eta eztitarçunetara. Nola içan ahal daiteke nehor eztadin alleguera bere deztarrutic jalguitcziaz eta bere pp[e]-nen acabatciaz? Cer ere chedetaco içan baitate creathia, hara heltciaz?<sup>49</sup> Bere primeciaren<sup>50</sup> eta primecietan den baliossenaren eta ohoreskuenaren goçamenian sartciaz?

Bizkitarthian primecia hura etciroguço jardiretx hil gabe. Davitec erraiten dici Gincoac bere maiter lua igorri dereenian, <351> ordian Jaunaren primeciaren bortha idekia içanen ceela; heriuac behar guitici, beraz, haren goçamenian eçarri; eta harta-kotz Çuhurrac erraiten dici: *justuac heriuan esperança diela*, ceren heriuac eguiaski idekiten baiteraco Celian sartceco bidia, çoin Celuc eguiten baitcien Daviten mundu huntaco deztarruco dembora orotan haren consolu gucia.<sup>51</sup> Seint Augustinec ezpli-

---

12 ohoresco: *oheresco*.

---

<sup>46</sup> Gibelerat jo eta I/8/20 kapitulura itzuli da; frantsesezkoan (RD 2, 479) da.

<sup>47</sup> aboro itxaron genezake; hona jatorrizkoek zer dioten: *que no ardia en este deseо tanto por alcanzar para sí aquell sumo bien, y descansar él con aquella dichosa vista, sino mucho mas por desear ver la gloria felicísima de la sacratísima humanidad del mismo Señor, á quien tanto amaba* (I, 430-1) / que c'étoit moins la considération du bonheur qu'il espéroit de cette vue bienheureuse qui le portoit à la désirer, que l'amour ardent dont il brûloit pour la sacrée humanité de Jésus-Christ (RD 2, 479).

<sup>48</sup> Liburuko intçun bakarra da, inçun ehun eta lau aldz ageri da; ikus hiztegiän.

<sup>49</sup> Jatorrizkoan: *¿Quién no se alegra de alcanzar y conseguir ya su último fin para que fue criado?* (I, 431) / *qu'on ne se réjouisse pas de parvenir à la fin pour laquelle on a été créé?* (RD 2, 480).

<sup>50</sup> Jatorrizkoko herencia / heritage ordezkatzeten du (RD 2, 480).

<sup>51</sup> Egiazki, *çoin Celuc eguiten baitcien hori beharrean, "zeliak zoinek egiten baitzien"* bezalako zer-bait itxaron genezake; hona jatorrizkoa: *porque ese es el medio y escalon para subir al cielo, y asi ese es el consuelo en este destierro* (I, 431) / *le passage por aller au ciel, et qui fait le sujet de sa consolation pendant tout le temps de son exil* (RD 2, 481).

catcen thiilaric Daviten erran hoc: *beti ibiltera inxeatuco nuçu bide chahu bathian, eta kantatuco dicit: Jauna, noiz ginen cira enegana*, erraiten dici: Jauna, ene chede edo intencionia oro içanen duçu, bici niçano becathiaren thona edo thaketaric neure beguiratceco; arrangura hori beti beguien aitcinian ukenen dicit eta beti kantatuco: Jauna, noiz akabico da ene deztarria? Noiz ginen çauzkit cherka? Noiz ginen niz çureganat? Eta noiz aguertuco niz Gincoaren aitcinera? Ala baitu orenac jithia luçatcen! Ala bainiz content içanen, erranen deraatenian hurran dela! Allegueratuco nuçu erran deraaten beçain fite Jaunaren etcherat joanen guirela, eta labur, ô Jerusalem, edo ô Celia, çure bortetan guiratekeela. Bai, Jauna, iduri ciaaçu oraidanic Celian niçala eta han niçala Aingurien eta Seindien compagnar, çure pressencia divinuaren goçatcen eta eternalki çure benedicatcen.

1

10

2 kantatuco: *kantatuço*.

2 enegana: *enagana*.

2 erraiten: *ertaiten*.



## VIII. GARBITARÇUNAZ



### **Garbitarçunaren excellenciaz eta graduez, çoinhen medioz igaran behar baitugu bertuthe haren perfeccionera**

Joandene Paulec iskiribatu cireeçun Thessalonikakuer *Gincoaren borondathia dela içan citen seindu eta beguira citen lohikeria becatu suerte orotaric, eta batbederac jakin ceçan bere gorpitzçaren chahu eta garbi beguiratcen; eci Gincoac eskinthiela deithu lobi içaiteco, bena bai seindu içaiteco.* Seint Bernatec cioçu seindutarçunaren icenaz Apostoliac heben endelgatcen diela Jesu-Christoren garbitarçuna, çoinhen Evangeliuac erraiten bainteragu garbitarçunac Aingurien iduri eguiten guitiela. *Asken judicionian —cioçu— estateela eskonduric, bena oro Celian Gincoaren Ainguriac beçala içanen direla.* Eta aldz, Seint Ciprianec —minço delaric Virginer— erraiten dici: oraidanic hasten cirete goçatcen egun batez glorian ouken behar ducien abanthailharen, eci garbitarçunian eta chahutarçunian irauten ducieno, Ainguriac beçala cirete. Cassien authorrac orobat cioçu estela bertutheric <353>/guiçonac hain Ainguriac iduri eguiten dienic, nola baita garbitarçuna; ceren bertuthe horren medios, haraguian, haraguiric espailute beçala bici baitira eta ispiritu pur batçu bailira beçala, Joandene Pau-  
laren hitz hoen aravera: *etcirete bici haraguian, bena ispirithian.* Cerbait guizaz hortan Aingurier gagna eremaiten direeçu, eci hoc estutenaz gueroz gorpitzcic, estuçu miraculu handi bat hoen garbi eta chahu içaithia, bena gauça miragarri bat duçu guiçonaren gorpitz lobi batetan, liçonkerian eror-aracitceco guerla eguiten derakon bathian garbi içaithia.

Bestalde bertuthe hori Gincoari hain laket ciacoçu, nun Gincoaren Semiac guiçon eguin nahi içan denian, eta sorthu emaste batetaric, hartaco hautatu baitu Virgina bat, çoinhec bere Virginitathia Gincoari offeritu baitcien, Eliçaco Aitec remarkatcen duten beçala. Joandene Joannec Apocalipsan cioçu ikussi ciela Soneco borthian —çoin baita Celia— Virgina egon cirenec, Achuria —erran nahi baitha Jesu-Christo— seguitcen çutela joaiten cen leku oratarat,<sup>1</sup> eta cantacen çutela cantika berri, bestec nehorc ere canta etciroten bat. Cioçu *ikussi dut Achuria Soneco borthian eta harekin çazpitän hoguei eta laur mila, çoinhec cantatcen baitçutен cantika berri bat beçala, çoin spaacirotent canta çazpitän hoguei eta laur mila lurretic ar-eros-*

<sup>1</sup> Bada *oratan* ‘orotan’ 302-n eta *oratarat*-en beste agerraldi bat 435-n.

1 *siec becic, <354> hec dira emastekin saxutu estirenac, eci Virgina dira eta hec seguitcen dute Achuria joaiten den leku orotarat.* Virginac —cioçu Seint Gregorioc hitz horien gagnan— Jesu-Christorekin borthian daudela, ceren garbitarçunaren merechimen-diac altchatcen baititu gloriaren gradoric gorenera.

Iskritura Seindiac deitzcen dici Joandene Joanne Evangelista *Jesusen Discipulu Maithia*. Seint Jeromac eta Seint Augustinec ciocie horren gagnan, Discipulu hura net maithe ciela Salbaçale Jaunac Virgina celakotz. Eliçac orobat hartçaz erraiten dici haren bestaco Officiuan, Jesusec maite ciela, ceren chahutarçunaren dohainhaz me-rechitu cien bere Naussiaz beste Apostoliac beno maithiago içaithia, eta Apostolu kargura deitathia içan baitcen Virgina celaric eta beti hartan iraun. Çunbaitec ere erraiten dicie hari unxa dauskola Proverbietaco<sup>2</sup> hitz hoc: *bihotzceco chahutarçuna maite dienac, Erregue ukenen diela adiskidetaco*. Virgina celakotz, beraz, Salbaçaliac Apostolu haur maite cicin bere bulharren gagnera buriaren paussatcera uzterano, hartakotz ere eman ciracoçun beste Apostoliengagneti hainbeste abanthailha. Joandene Petiri —çoin eskondia baitcen— etçuçun bera galdeitera Jesu-Christori menturatu, bena Joandene Joaneri galdaraci ciracoçun azken auharian noiz içanen cen azken jujamendia.

20 <355> Maria Magdalena ekarri cienian Jesusen hiletaric pitzthiaren berria, Joandene Petiric eta Joandene Joannec berheala laster eguin cicien bere Jaunaren tombala; bena Joanez lehenic heldu çuçun. Çunbait Apostolu unci bathian Tyberiadeco itxassuan arrainka ari ciren aldi batez, Jesus aguertu citcieceun itxaz basterrian; Joandene Joannec choilki eşagutu cicin eta erran Joandene Petiriri: *Jauna duçu*. Seint Jeromac cioçu Joannes Virginac becic ecin eşagutu çutela<sup>3</sup> Jesu-Christo Virgina. Salbaçale Jaunac Curutciaren gagnan asken eguin cien ordeinhian, nori gomendatu cien bere Ama Virgina, becic ere Dicipulu Virgina horri?

30 Beste anitz gauça chahutarçunaren laudoriotan ekar ahal laite; hec utcircic labur içaithiagatic, jiten nis Cassianec bertuthe horren perfeccionera heltceco erakasten de-rauskigun cazpi graduataric lehen hirouren explicatcera. Lehen gradua duçu, penxamendu eta seindimendu desonester bere buriaren garaitcera ez uzthia. Biguerrena, penxamendu suerte hetan orhit delaric ez egoithia, bena gin beçain fite heen kaçatcia. Hirourguerrena, creatura enguenagarrien eta langerossen ikuzthiaz sendimenduric ez ukeithia, eta grado hori beste biac beno perfeitago duçu, ceren naturaleça flako eta korronpitu haur, occasione hetan anitz seindimendu hetara <356> ekarria baita.<sup>4</sup> Hargatic etcit erran nahi chahutarçunaren perfeccioniareni contre dela seindimendu suerte hetaric poroatcia luan eta iratçarian, eci hourac gauça natural batçu tuçu, çoin perfeitenec çunbait aldis seinditzen baitituste. Gincoac gracia berheci batez bere cer-

---

28 cazpi: *cazpi*.

<sup>2</sup> Irudipena dugu pluraleko genitibo lokatiboa dugula hor, eta ez prolatiboa. Itxuraz o falta liteke hor, eta *Proverbijolak* uler liteke, non ez duen hitzaren *proberbi* aldaera gogoan; jatorrizkoan *y así declaran algunos de él aquello de los Proverbios* (III, 176) / *et quelques-uns lui appliquent aussi ces paroles des Proverbes* (RD 5, 361).

<sup>3</sup> “çuela” beharko luke, jatorrizko lekuko: *conoció al virgen* (III, 177) / *saint Jean seul qui le recon-nut* (RD 5, 361).

<sup>4</sup> Alegia, “naturaleza flako eta korronpitu hau okasione hetan anitz ekarria baita sentimendu haientara”.

bitzcharietaric çunbait, arras hetaric beguiratcen tici, beste çunbait hetçaz içan diten attakathiac permetitcen, beste batçuri, aldziz, bere misericordias hain aisa eta fite heen kaçatceco gracia eguin direeçu, nun idireiten baitira beti bake perfeit bat goçatcen bailute beçala. Horiec oro Aingurien chahutarçunari jarraikiten tuçu; guc ere hala eguithia goguan hartu behar diiçi eta cinez inxeatu Aingurien chahutarçunaren imitatcera, tenorez inclinacione gaistuen contre arranguroska finkatuz eta bortzchu eguiñez, gauça important eta pennoz baten eguithian eguin guindiroen beçala, eta haren jardiresco lagunt guitçaketen bertuthen praticathuz, berheciki mortificacioniaren. Nahibada garbitarçun perfeita Gincoaren donhain<sup>5</sup> bat den —çoin espaitirogu jardirex gure inxeu propiez—, hargatic Gincoac nahi dici gure aldeti eguin ahala eguin deçagun haren ukeiteco, eta hala eguinez becic estiraguçu eman nahi.

1

10

### <357> BIGUERREN CAPITULIA [III/4/2]

#### **Garbitarçunaren beguiratceco nehorc behar ci mortificatu edo bere nahiac bencitu eta arranguroska gogua eman bere sensier eta berheciki beguier**

Seint Basilac eta beste anitz Seinduc poroatcen dicie necessario dela bertuthe guien seguitcia chahutarçunaren perfeccionera heltceco, ceren oroc haren jardiresken eta beguiratcen laguntcen baikituste. Hargatic heben enuça minçaturen moyen horietçaz orotçaz, bena poroaturen dicit gure arimaren borther gogua eman behar du-gula, berheciki beguier, ceren ordenarioski beguietaric bihotzcera becathia sartcen baita.

20

Seint Gregorioc iskiribatcen cielaric Isaiaren erran hunen gagnan: *nor dira hegaldatcen direnac odeiac beçala eta biltcen direnac bere leihuetarat ourçuac beçala?* ciòcu Justuac comparathiac direla odoi[e]ki, ceren goiti lurreco gaucetaric alchatcen baitira; eta pichoin bere pijunteirat biltcen direneki, ceren justo hec bere beithan bil-diak egonez, eta objet enguenagarrietarycere bere beguiac beguirathuz, heeganaco desir gaistuetaric bere bihotçac chahu atchikiten baitituzte. Aldiz, objet heer soguiten dutenac <358> heen gutitzciatcera ardura ekarriac ditu; hala nola David Erregue Propheta Seindu —bere bihotzça Celurat hain ardura alchatcen cien eta Gincoasco gauçac beti kazi bihotzian çauskan hura— desiric desonestenera erori içan çuquun Uriaren Emasthiari<sup>6</sup> soquin cielakotz. *Heriuaene leihuetaric igaran da* —cioçu Jere-mia Prophetac— *eta ene arima ene beguiec galdu dute.* Seint Gregorioc, aldziz, aber-titcen guitici estela soquin behar desiratcia permis esten gaucer, beldurrez heen gaiski gutitzciatcera so behargabe hec gure bihotçac ekar ditçaten; eta hara cergatic Jop Guiçon Seindu pacenciaren eta beste bertuthen mirail eder harec, erraiten cien *contratu eguin ciela bere beguiek emaste kuntera ez penxatceco.* Eta, aldis, Seint Gregorioc

30

3 kaçatceco: *katçacetco*.

18 gogua: *guogua*.

33 behargabe: *begar gabe*.

5 Liburuak *dohain* dakin; era honen agerpen bakarra da liburuan eta hutsa dirudi; izan ere, Leiza-traga, Axular, Oihenart, Tartas, Belapeire, Mercy, Monho... *dohain* aldaeraen erabiltzaile baitira.

6 Jatorrizkoan ez dugu Uriaren emazteaz aipurik aurkitu, ez gaztelaniazkoan ezta frantsesezkoan ere: *porque no tuvo recato en el mirar, llevóle tras sí lo que miró* (III, 179) / *fut emporté par des désirs criminels, pour avoir tourné ses regards ailleurs* (RD 5, 366).

1       cioçu hitz horien gagnan: cer pacto, cer tratu da hori bere beguieki tratu egithia, penxamendu gaistoric ez ukeiteco? Iduri luke horren gagnan traturic eguitekotz endelgamendiareki eta ispirithiareki egun behar liçatekeela, ez, aldiz, beguieki. Hargati, cioçu, arraçoin ciela Jopec erraitez egun diela pacto bat bere beguieki emastetara behin ere ez penxatceco, ceren baitçakien beguietaric penxamendu gaistuac bihotzcerat sartcen cirela, beguiac eta senxien sarkurac arranguroska beguiratcen bacithien bihotzça eta ispirithia seurrian ukenen cithiela. Nahi badu, arren —cioçu— <359> orano ber Seindiac, penxamendu gaistoric ez uken, çure beguiac so desonestetaric beguira itçaú eta eguiçu heeki tratu, behin ere soric ez eguiteco desiratcia sori esten gaucer. Nor estu estonatuco —cioçu aldis Seint Chrisostomac hitz beren gagnan— ikusthiaz Jop Guiçon handi Demoniuaren beraren inxeu eta finecia guiac bencitu cithien hura, estela menturatcen emaste bati bertaitera soguitera? Hori da —cioçu Seindu berac— guri erakasteco Seindienec ere çunbat arrangurareki bere beguiac behar tusten beguiratu.

20      Seint Ephrenec cioçu hirur gauça handiski baliatcen direla garbitarçunaren ossoki beguiratceco: sobre içaithia, elhe guti erraithia eta beguien beguiratcia. Lehen bietan erne içanic ere, hirurguerrenian lachatcen bacira, çure garbitarçuna galtceco langerretan dukeçu; eci hala nola hora galtcen baita kanetac ichurten dienian, orobat arima-ren garbitarçuna galtcen duçu beguiac beguiratcen espadira so debetathietaric. Beste Ermithain Seindu batec cioçu, emaste bati so egithia lança poçoindatu bat dela, çoinhen poçoinha çauriti fite bihotzcera baituha, eta hala nola sù pindar bat lastora erorten denian, berheala hiltcen espada sù handi bat pitzten baitu, orobat suetaric git-en diren penxamendu gaistuac labur kentcen espadira, sù desonesta eta desordria ariman eşarten dicie.

30      <360> Surius deitcen den Author batec cioçu Seint Hugas Grenoblaco Jaun Apezpikia berroguei eta hamar urthe beno aboro Apezpiku içan cela; egun oroz anitz emaste cofessatcen ciela; anitz persona haregana alde orotaric bere eitekuez minçatcera joaiten cela haren seindutarçuna cela caussa; behin ere etciela emaste bateri ere bertaitera soguin, gaste ala çahar, eder ala itxussi ciren eçagutceco manieran, eta beti erraiten ciela pundu haren gagnan nehorc erne içan behar ciela, ceren bihotzçaren penxamendu gaistuetaric chahu atchikitcekotz, beguiac so desonestetaric begiratu behar cirela.

Irakurten diici Seint Bernatez, egun batez gogua eman gabe emaste bati so egon cela; orhitu cenian certan cen, bere buriaren contre hambat samurthu cela, nun joan baitcen putçu karroindatu batetara leporano sarcera eta han egon hil hurranic bestec hantic idoc artekan.

## &lt;361&gt; HIRURGUERREN CAPITULIA [III/4/3]

1

**Garbitarçunaren gagnan gauçaric thiپienez nehorc cassu eguin behar diela**

Çunbatenaz ere garbitarçuna bertuthe preciathia baita, hanbatenaz aboro arrangurareki nehorc beguiratu behar ci; eci generalian bertuthe gucietan egua denaz gueroz —dioen beçala Ispiritu Seindiac— *gauça thiپiac mezperetzchatcen thienac, han-dietara emeki erorico dela*, langer hori handiago duçu garbitarçunaren bertuthe anitz delicatu eta balios den huntan, çoinhi gauçaric thiپienac damu handi eguin baitiro; hala nola ikusten baitugu ordenarioski gauça preciathiener eta baliossener kalte handi eguiten diela esthakururic thiپienac. Eta arraçoin handireki erraiten ahal dici estela bertutheric haur beno delicathiagoric eta çaurtcen ihiago denic. Guiçon seindu batec comparatcen dici garbitarçuna mirailh bateki, çoinhi hax ukaldi batec bere garbitarçuna gal-arasten bainteraco; orobat chahutarçunari gauçaric thiپienec bere eder tarçuna gal-aracitcen dirakoçu.<sup>7</sup> Hartakotz nehorc erne egon behar ci haren eder eta chahu beguiratceco, seindimendiac mortificatuz, penxamendu gaisto guciac fite kaçatuz eta arranguroska <362> occasione langeros orori ihez eguiñez; eci hala nola sûyac igaraiten den leku orotan, segnhale ustean baitu egoiten den demboraren aravera eta erratcen estithien gauçac beltçatcen berere baititu, orobat garbitarçunaren contreco erran tugun gaucec arratcen espadute ere, amenx beltçatcen dicie, ceren arima hoibeltcen baitute, hartan chahutarçunaren contreco penxamendiac sor-aracitcen eta gorpitzcian seindimendu saxiac pitz-aracitcen.

10

Arraçoin handireki erraiten cicin Seint Ignacioc garbitarçunaren gagnan etzcela bere buriari fidatu behar, ez goguan hartu bertuthe horren contre diren gauçaric thiپienac eguiñ daisteela handiaguetara erorteco langerric gabe. Norc daki segurtainchareki gauça thiپien enganiac esthiela uste etcien gaucetara lerraraciren? Leku anitz legun<sup>8</sup> bathian jeosten dena emeki-emeki ibiliren dela uste dici, eta ardurenik lekiaren legun içanac eta gorpitzcaren piciac nahi beno fithezago eta aitcinago joan-aracitcen dicie. Orobata duçu chahutarçunaz: gure naturaleça corronpithiaren piciac eta lohikeriaco biciora erorteco dien deidurac, uste beno fithezago eta aitcinago joan-araci ciroçu. Oron burian garbitarçuna hain gauça delicathia duçu, nun ezdeuskeria batec oguen eguiñ baiteçakeo eta estici behar langerric thiپienian eçarri. *Tresor preciatu bat duçu <363>* —dioen beçala Apostoliac— *lurreSCO unci batetan karreatcen duguna; uncia hausten bada, oro galcen duçu; hartakotz arrangura handireki behar tiici gure buriac beguiratu, eta lohikeriac bihotzcerat sartceco idiren ahal ditçakeen entradac cerratu.*

20

Iracurten diici Religios Seindu bati Gincoac eman ceracola chahutarçunaren dohainha; hargatic occasioneric thiپienetan ere arrangura handi bat hartzen ciela, bere suetan,<sup>9</sup> elhetan eta beste gauça orotan, apartatceco cerc ere dremenden penxamendu desonesta sor-araci baitçeçakeen, eta bere Fraide lagunec erraiten baitceracoten certaco beti hainbeste arrangura hartzen cien, Gincoac eman ceraconas gueros

30

22 thiپienac: *thiپieniac*.

<sup>7</sup> Komunztadura arazoa ageri da subjektuaren eta aditzaren artean, aditzak ez du subjektu pluralaren -zie morfema ageri.

<sup>8</sup> Jatorrizkoak honela dio: *un resvaladero* (III, 181) / *un lieu extrêmement glissant* (RD 5, 371).

<sup>9</sup> “bere soetan” ulertu behar da, begiraderan; jatorrizkoak *dans ses regards* (RD 5, 372) dakar.

1 garbitarçunaren dohainha; arrapostu eman cireeçun: gauça thipietan inxeatcen banis behar dudanaren eguitera, Gincoac emanen diraaçu gracia handietaric beguiratceco, bena thipietan lachatcen baninx, etciaikiçut handietan Gincoac lagunt nindiroenez, amenx<sup>10</sup> merechi nikelci enentçan lagunt eta erortera utz nençan; hartakotz deusestan ere enuçu nahi lachatu, bena gauçaric thiapienac iduri dutenetan ere, nitan dena eguin nahi cit neure einbidiaren arranguroska eguiteco.

Surius Authorrac cioçu Seint Thomas Akinakuac errecebiku ciela chahutarçunaren dohainha eta Ainguru batez segurtathia <364> içan cela bertuthe haren ez galtciaz, bai eta ere haren contreco tentacionetaric libro içaithiaz; hargatic ere, arrangura handireki beguiratcen çuçun emaster soguitetic eta beraganic urruntcen ciçin goguaketa gaistoric erakar ahal ceçaketen ocasione guciac. Orobak eguin behar diici nahi badugu chahutarçuna ossoric beguiratu, bestela beldur uken behar diici erorthiaren —Job Seindia beretaco beldur cen beçala— çoinhec erraiten baitcien bere beguieki eguin ciela pacto bat emaste bateri ere ez soguiteco eta guero cioçu: *hala eguin ezpanu, Gincoac cer parthe luke nitan?* Erran nahi bailu beçala: espanintz erne neure buriari goguatceco occasioner ihez eguiñez, goguaketa gaistuac ireicis eta gauçaric thiapiener attencione eguiñez, Gincoaren gracia gal niroçu çunbait desir gaistori neure buria enguenatcera utcis. Pundu huntan Demoniuac eguiten dici, ohoin etche bat arrobatu nahi lukeen batec eguin liroen beçala: ikussiric etche hartrarat sartceco leihuac, beraren igaraiteco thiapiago den muthilco bat sar-aracitcen dici, barnetic borten idec-aracitceco; orobak penxamendu gaistuez, gogo barreaduz, soguite libruez eta holaco anitz gauça thipis Demoniuua baliatcen duçu gure ariimetarat sartceco. Hartacotz aitcinetic occasioner soguin eta arranguroska ihez eguin <365> behar diici, eta eskindiroçu hartaco behin ere sobera arrangura har ahal.

Joandene Paulec cioçu *indar eta çalbu jokuetan artcen direnac, askarrenic eta çalhienic denaren irabaciaren ukeiteco, gauça gucietaric beguiratcen direla*. Hitz horien gagnan cioçu Cassien Authorrac indar jokakari hec corua edo irabaci galcor baten ukeiteco pairatcen baciren haragui eta janhari edo beste gauça heen indarra dremendena flaka cirotenetaric, eta bere burien aztkartzceco eta çalhutceco hun uzte citusten gauçac oro eguiten bacitusten, bai eta orano gabasco illusionetaric beguiratceco, eta bere burien arhintceco plomusco placa bat errainhetan estekatcen baçuten, guc cer eskinduke eguin behar garbitarçunaren jardiresceco eta conserbatceco, çoinhec uken-aracico bainteragu corona secula andeatuco eta galduco esten bat?

### <366> LAURGUERREN CAPITULIA [III/4/4]

#### **Confessionian berheciki garbitarçunaren contreco gauçaric thigienez cassu eguin behar dela**

Seint Bonaventurac Cofessionias minço delaric orori emaiten dici Escola handi bat. Cioçu çunbat-nahi arhin diren chahutarçunaren contreco heltcen diren gauçac, unxa

---

29 çalhutceco: *calhutceco*.

<sup>10</sup> Jatorrizkoak honela dio: *á lo menos / du moins* (RD 5, 372).

beguiratu behar dela heen cofessatceco uztetic, estirelakuan becatu edo sordhertzche-na<sup>11</sup> becatu venial direla, eta bere beithan harthuz estela necessario heen cofessatcia, estirenaz gueroz becatu mortal, eci anitz becatu hanti jiten duçu, bai eta ere anitz arimaren galtzia ber illusionetic heldu içan duçu; Gincoac beguira citçala Demoniuari sarkura horren emaitetic eta bortha horren hari çabalctic, hura aski likeci çure gal-aracitceco; ispirithia gauça thihi hetçaz guti cassu eguiten dienian ahalguiac hartcen dici, eta sinhex-arasten becatu direnac ere estirela batere becatu, amenx duda daiteela becatu diren ez ala bai, eta halaz cofessatceco utcico tuçu. Persona natu-ralki devocionari eman direnac —coinhec ordenarioski espaitute concencian becatu mortalic seindi— ahalgue gaisto hortarat sujet dituçi garbitarçunaren <367> contre cerbait holacoric heltcen ceenian; eci ordian urguliac eta estimatu içaiteco desirac —coin hain natural baitira eta hain barna/guiçonaren bihotzian sarthiac— pitzten tuçu eta Cofessorraren estimu eta opinione hunaren gal beldurrez, cherkatcen dicie arraçoin bere burier sinhex-aracitceco, erraiteco ahalgue duten gauça estela becatu mortal, eta halaz estirela haren cofessatcera obligatu; eta hetçaz cofessatcen direnian ere, erraiten ticie çunbait aldis terminho hain apaïndu diren batçuz, nun becathia-ren malecia eçabatcen baitute eta Cofessorrari ez aski eçagut-aracitcen; eta guiza hor-tan bere becathien cofessatcia, ez erraithia beçala duçu; eci cofessionian gaucet clarki erran behar dicie, Cofessorac ihiki becathiaren handitarçuna eçagut diroen beçala; eci Cofessorrari gaucen erraithia, becathia den beçala bere eguitate ororeki eçagut-araci gabe, haren gordatcia beçala duçu eta sacrilegio baten eguithia.

Cerc penitent bat bere becathien behar den beçain clarki cofessatcetic guibeltcen du? Ahalguiac, edo hobeki erraiteco, urguliac uxutcen eta enguenatcen dici, esthie-lakotz eguiasco dolia bere falten gagnan, esthienas gueroz aski bertuthe clarki bere Cofessorrari heen aithortceco. Hetçaz balu uken behar lukeen bihotz mina, ahalgue hura garait liroçu eta Gincoari oferi <368> bere becathien pagutaco. Erraiten dicit orano, gauça baten cofessatceco seindi dugun penac berac beldur eman behar dera-gula, explicatcera herabe ditugun gaucen erraitera obligatu guirela, eliciateen ordian<sup>12</sup> herabe hura bencithuz gure burien mortificatceco eta gure urgulu enguenagarriaren eta Demoniuaren garaitceco becic.

Bena aboro garbitarçuneco pundu huntan beste orotan beno, erran dugunen eguithia necessariago duçu, ceren bestela, persona jakinxu estirenec espaitute uste anitz gauça becatu mortal direnac hala direla. Baituçi orano beste gauça batçu hain dudaskuac, nun e[z]paita<sup>13</sup> ihi eçagutcia becatu mortal diren ala ez, eta heen cofes-

<sup>3</sup> bai eta ere: *bait-eta-ere*.

<sup>16</sup> çunbait: *cunbait*.

<sup>25</sup> aithortceco: *aithortceco*.

<sup>11</sup> ‘edo okerrenean ere, becatu arina direla’ ulertzen dugu; paralelo bat dakar Tartasek: *baina Cardinal Toletec eta haren ondoan Doctor berriez diote anticipaturic ere orena eta cambiaturic colationia apariala sordechian ere eztequiala becatu veniala baici* (Arima, 78). Gure itzulpenaren jatorrizkoak honela dio: *esto no es pecado, ó á lo menos no será mortal* (III, 183) / *sous prétexte ou que ce ne sont pas des péchés, ou que ce ne sont que des péchés véniaux* (RD 5, 375).

<sup>12</sup> Jatorrizkoak honela dio: *aunque no hubiese mas en ello que vencer esa repugnancia, y mortificarse, y que no salga la carne, ni el demonio con la suya* (III, 184) / *quand ce ne seroit que pour vaincre cette répugnance et pour se mortifier, et pour empêcher que la chair et le démon ne l'emportent sur l'esprit* (RD 5, 377).

<sup>13</sup> Liburuan <ezpaita> hamalau aldz ageri da, ez dago bi <espaita> baizik, eta horregatik <z> berre-raiki dugu.

1 satcera nehor obligatu duçu sacrilegioren ppenan becatu mortal direnez beçala; eta ardura heltcen duçu Cofessorric jakinxienec ere ecin eçagut baitirote cofessatcen de-racoten becathia mortal den ala ez. Nola, arren, menturatcen ahal da penitenta bere eiteco propian Juje içaitera eta bere buriaren segurtatcera, becathia estela mortal eta halaz, haren cofessatceco ustchia?<sup>14</sup> Guiza hortan langer handitan jarten duçu, aboro orano seindi dienian haren cofessatceco ppna bat, ahal baleça nahi bailuke bere falta thipitu guthiago ahalgue ukeiteco; enikeci nahi disposicione horietan den penitent baten salbamendias bermatu, eta holaco kassietan, norc bere concencia propia <369> beno Juje hoberic ukeiten ahal du? Eci anitz gauça thipis cofessatcen dena ecin içan dieitecu concienciaren harric gabe, gauça handiago direnen erraiteco usthiaz. Mentura cintakea hiltceco orenian haren ez cofessatcera? Ez aravez!<sup>15</sup> Arren,<sup>16</sup> beraz, orai ere cofessatu behar duçu, gure cofessione guiac hiltcera baiki[n]duatça<sup>17</sup> beçala beti egun behar tugunas gueros. Seint Gregorioc erraiten dici arima hun baten marka dela, çunbait aldis becatu esten gauça bat, becatu dela hartcia.<sup>18</sup> Ber arraçoinhaz arima gaiski disposatu baten marka duçu, becathiaren beldur ez içaithia, becathiaren cerbait duda den lekian.

20 Çunbaitec erraiten dicie becatu dudasco horiec ustens tustela, sobera scrupuloz ez içaithiagatic. Hori orano Demoniuaren beste illusione bat duçu, çoinçaz cerbitzhatcen baita heen enguenatceco; eci etçu scrupulos içaithia gauça suerte hetçaz cofessatcia, persona devotac cofessatcen direnas gueroz ordenarioski anitz falta thipiagos, eta hori, ez necessario delakotz, ez scrupulas, bena sac[r]amendu seindu recebuitu behar dutenari ekarten duten respethias. Hain seindutarçun handia uken behar ci harren recebitceco, nun bicitce ispiritualeco çunbait Naussic abisu emaiten baitute garbitarçunaren gagnan becatu estiren gaucez ere cofessatcez, erraiten dutelaric: Ene Aita, accusatcen nuçu garbitarçunaren <370> contreco tentacione uken dudala. Eta beldur bacira cerbait lachokeria uken duçula, heer entrada emanez edo aski fite apartatu ga-bez, ardura heltcen den beçala, çure lachokeria çunbat-nahi arhin den, erran behar çu; fida içanic ere penxamendien ireistera behar beçain erne içan cirela, erraiten ahal duçu penxamendu gaistuac uken tuçula, bena Gincoraen misericordias iduri çauçula estela çure aldetic faltaric içan, eta egun ahal gucia egun duçula heen igorteco; eta orobat egun behar diici fediaren contreco penxamendietan. Nahi dicie ere ber Authorrec materia huntan nehor cofessa dadin, erran tugun gauça horiec beno thiapiaguez, amex desonestez —hetan nola espaita eçagutceric, etçu ere becaturic— ez necessario delakotz

---

18 içaithiagatic: *icaithiagatic*.

<sup>14</sup> Hor “uztea” ulertu behar da, grafian txistikarien ohiko nahasketa dago eta ondoko lerroetan ere badira adibide gehiago, *usthiaz eta ustens*, esaterako.

<sup>15</sup> Iku *arabez-en* adieraren ingurune semantikoa hitzegian.

<sup>16</sup> Ondoan *beraz* du *arren-ek* eta biek adiera bera dutela dirudi: ‘beraz’, ‘bada’, ‘halaz’; Etxeberri Sa-rakoak ere *arren beraz erre zibi zazue* darabil (*OEH*).

<sup>17</sup> Liburuak ez dakar “n” hori eta arriskugarri bada ere, eranstea erabaki dugu eta “baikinduatza” ezarri; hona jatorrizkoa: “porque de esa manera nos tenemos de confesar, y hacer siempre todas nuestras obras, como si luego nos hubiésemos de morir” (III, 185) / *comme si nous devions aller mourir* (RD 5, 378). xix. mendeko gramatiketan *gindoáztza* ezarri zuten Inxauspek (1858) nahiz Gèzek (1873); irudi luke gure liburuko aditzak baldintzan *baikindioatza* edo *baikinduatza* beharko lukeela.

<sup>18</sup> Esan nahi baita “arima on baten marka dela bekatu ez den gauza bat zenbait aldiz bekatutzat har-tea”.

illusione suerte heen cofessatcia —esthienian nehorc hartaco ocasioneric eman eta da-  
kienian heer daukolaco gauçaric deuz esthiela eguin, ez consentitu—, bena hetçaz co-  
fessatcia beti unxa duçu aboro bere buriaren umiliatceco, eta persona devotac ordena-  
rioski cofessatcen tuçu naturaleça corronpitu hunen miseria horietçaz.

1

### <371> BOSTGUERREN CAPITULIA [III/4/5]

#### **Amoriuaren passionia çoinhen gauça bortitzça den eta langerossa, eta çoinhen beldur içan behar guitçazcon**

Amoriua mundian den passioneric langerossena duçu, eci orotan den askarrena  
eta bihotzça bortitzkienic enguenatcen diena den beçala, orobat nekecenic bentcitcen  
dena ere duçu, eta ihikienic becatura eror-aracitcen guithiena. Seint Augustinec  
—erakasteco passione horren indar handiaren eta seindi-aracitceco çoinhen beldur  
içan behar guitçazcon— Iskiritura Seinduko bi exempluz cerbitzchatcen duçu, çointaric  
leheña baita Adamen desobediencia. Galdeiten dici Seindu horrec, nolaz Ada-  
mec Gincoaren mania hautxi cien eta frutu deveratutic jan. Aski sinhescor cena bu-  
rian hartceco, jaten bacien frutu hartaric sûguiac Evari errana helduco cela eta Ginco  
bat beçala içanen cela? Etcı aparanciaric,<sup>19</sup> Gincoac jakitate handi bat eman cerako-  
nas gueros, sûgiaren errana sinhetxi ciela. Joandene Paulec berac ere clarki errai-  
ten dici Adam etcela trompathia içan, bena haren Emasthia. Hartakotz, noiz eta ere  
Gincoac Evari galdein baitceracon: *certaco eguin duçu hori?* <372> ihardetxi cicin: *sû-  
guiac enguenatu nici eta jan dicit*. Bena noiz eta ere Gincoac galdo bera eguin baitcien  
Adami, etcicin ihardetxi eman deradaçun emasthiac trompatu nici eta jan dicit, bena  
choilki *lagunetaco eman deradaçun Emasthiac eman diraaçu arboleco frututic eta jan  
dicit*. Adamec hainbeste amorio eta passione cicin bere Emasthiaren, nun hari pena  
eguin nahi gabez, harc nahi cienä eguin baitcien eta guiza harten, amoriuac choilki  
Adam trompatu cicin. Etçuçun hargatic —cioço Seint Augustinec— amorio satxu  
batez eta oraico naturaleça corronpitutic jiten cen batez Adam içan enguenathia, eci  
etçuçun hura beithan ordian orano haraguiaren seindimendu gaistoric, bena placer  
eguin nahisco amorio batez; hala nola çunbait aldiz nehorc adiskide batı placer egui-  
teco choilki Gincoa offensatcen baitu. Hori duçu bortha çointharic becathia mun-  
dura sarthu baitcen, eta becathiareki, heriua, malhur eta miseria suerte guiaci.

10

Biguerren exemplia, aldis, duçu Salamonen Ginco faltxiен adoratcia. Cerc  
—cioço Seint Augustinec— Salamoni Ginco faltxiac adoraraci cerascon? Etcı apa-  
ranciaric Gincoaganic abileciaren dohainha recebitu cien batec sinhex ahal ceçan  
guiçonec eguin potretetan Gincotarçunic bacela eta heen adoratcia prootchoz cela.  
Cerc, beras, Salamon heerinceinxu Gincoari <373> beçala, oferitcera erakarri cien?  
Nahi ducia jakin? Amoriuac. Iskiritura Seindiac berac hortçaz segurtatcen guitici  
erraiten deragunian: *Salamonec anitz Mairien emaste maitatu cicin, çoinhendaco Jau-*

20

30

37 çoinhendaco: *çoinben daco*.

<sup>19</sup> Jatorrizkoan: *no es de creer / il n'y a guères d'apparence* (RD 5, 381). Iku “etzi aparantziarik”-en  
adieraz hiztegian *aparanzia* sarreran dioguna.

1      *nac erran baitcereen Izeraeleco Haurrer: hetaric estucie emastetaco hartuco eta cien alabaric estucie heekin eskonduko; eci segurki cien bihotzçac bere legue gaistorat itçulico du-te<sup>20</sup> bere Ginco faltxién adora-arasteco. Hargatic ere Salamonec amorio bortitz batez Mairu ciren emaste batçu maitatu citicin, eta nola ordukotz çahar baitcen, emaste hec haren bihotzça corronpitu cicien eta bere Ginco faltxiac segui-araci.* Salamonec etcicin beguiratu Gincoaren mania eta Gincoaren errana heldu citciacoçun; eci nola espotu cithien emaste Mairietarico hetaric aboruec bere religione particularra baitçuten, hetaric batbederari Aldare bedera erain cicin, amorecatic çoinhec bere Ginco faltxiac hetan gagnan eçar citçaten eta adora; Salamonec berac ere emaste heekin adoratcen citicin eta heer inceinxu oferitcen. Seint Augustinec erraiten dici hala eguiten ciela, ez sinhesten cielakotz Ginco faltxu hec merechi çutela adoraturic içaithia, bena heendaco cien amoriuac utxutu cielakotz eta erhotuki maithe cithien emaste heer ppenaric eguin nahi gabez.

20     Seindiec eta bici ispiritualaren Naussiee exemplu hotzçaz eta beste anitz ber guizacotz<sup>21</sup> <374> eskolaturic, abertitcen guiticie beguira guiten hain langeros den amoriuaren passionate, eta ihez eguin deçagun hura gutan sor-araz deçaketen ocasione orori; eta erraiten ere diragucie orano, estugula uste uken behar, merechimendu eta devocione duten personen dugun amoriua ere, langer handi bat gabe dela; içan ahala bertuthoz içanic ere elgar maite duten personac, çunbat-nahi seindu diren heen elgarrekilaco minçatciac eta heen arimen prootchoz, beti beldur içan behar dutela eta elakiketela sobera gogua emaiten.<sup>22</sup> Eci Doctor ororen —berheciki Seint Bonaventuraren seindimendien aravera— devocionesco amoriua, haraguisco amorio gaisto batetara ihiki cambia dieiteçu: haxarrian amorio haur ano<sup>23</sup> chahu eta net hun bat duçu, guerokoz Isaia Prophetaren hitzcen araura çure anua hurtatcen duçu eta halaz bere huntarçuna galtcen. Devocionesco amoriua bere beithan baltxamu net balius bat duçu, bena fitetz gastathia eta corronpithia duçu hari juntatcen diren amorio gaistuez eta horra nola, Demoniuac chothilki eta eçabeki bereganat biltcen guithien.

30     Seint Bonaventurac cioçu Demoniuac hortan eguiten diela, Canaco Esteyen apariaren Naussiac Espossari<sup>24</sup> erran ceracona: *apairietan oroc haxarretic ano huna emaiten dicie eta gomitac berotu direnian ano charrena.* <375> Demoniuac amoriosko passioniaz trompatu nahi dithiener haxarrian sinhex-araciten direeçu bertuthiac choilkil elgarren maitatcerá deitcen thiela, elgarrekin uken nahi duten hantacionia devocionetic jiten dela eta, bere arimen prootchia elgarrekilaco minçatcetan cherkatcen dutela; bena noiz eta ere heen bihotzçetan elgarren amoriua unxa pizthu baitateke, ordian Demoniuaren pocoinha eta malecia aguertcen duçu; anhartekan, aldis, bertuthiaren itchurapenen engueniac cituçun eçabeki gal-aracitceco, eta gure exayac

<sup>20</sup> Aditzean osagarri zuzen plurala eskatuko luke arrestiko *bihotzçac* horrek.

<sup>21</sup> Adieraren aldetik hobeki letorke “-kotz” baino “-koz” instrumentalala, *exemplu hotzçaz-ekin* komunztadura eginez. Ikus 144-n *Contenta cite ber guizaco otoitoçaz* (sic) [hau da, “otoitzaz”] iduria daka-rrela.

<sup>22</sup> Jatorrizkoan honela dio: *con todo eso anden con mucho cuidado y recato* (III, 187) / *il y a toujours à craindre, et l'on ne sauroit être trop sur ses gardes* (RD 5, 383-4).

<sup>23</sup> Liburuan *arno* eta *ano* txandaka ageri dira, *arno* behin (374) eta *ano zazpi* aldiz (221, 239, 280, 374, 374, 374, 374).

<sup>24</sup> Bibliak senarraz dihardu eta *espos* da oinarria, maskulinoa; badakar liburuak femeninoa ere: *esposa* (82, 214).

arima bat illusionē hortan çunbait aldis dembora luçaz atchikiten dici eta content duçu, çunbat-nahi demboraren burian devocionesco amorio hori haraguisco amoriāra cambiaraci deçan ber. Anitz gendec —erraiten dici Seint Bonaventurac— bere amisthainchac devolucionaren itçalaren pian hassi tustela, bere ustez heen amoriua Gincoaren cerbitzchatceco eta arimen salbatceco cela eta beharbada, haxarrian etçutela beste desseinic, bena guerorat, affeccionē hain seindu eta garbi cen hura, emeki-emeki haraguisco amorio batetara cambiaticen dela eta Joandene Paulec erraiten diena: *ispirithiaz hassi onduan malhuroska haraguias finitcen dutela.*

Gerson Doctorrac erraiten dici, Gincoaren cerbitzchari bertuthe eta jakitate handitaco batec uken ciela çunbait demboraz ocasione, emaste seinda bateki ardura eta <376> çunbait aldis luçaz devocionesko gaucez mintçatceco; guerorat hain amorio handia harthu ciela, nun espaitzaukeen ardura eta luçaz hareki egon gabe, eta ikusten etcienian goguan erabili gabe. Çunbat ere halaco amorio bat es-paitate Gincoaren araura içan, hargatic ere hanbat uxuthia çuçun, nun ezpaitcien eçagutzen amorio hartan içan çaitela deuz gaistoric, bere beithan uste cielakotz etcielia intencionē gaistoric eta horra certan anitz gende enguenatzen den. Gincoaren cerbitzchari hori egon çuçun illusionē hertan bidaige handi bat eguiñ behar artekān, çointarat partitzceco tenoria gin citçakonian, eçagutu ciciñ persona hareganic urrunicias cien ppenatic, hareganaco amoriua etcela uste cien beçain seindu, eta espalis urrundu ocasionetic, labur becatura erorteco langerrian cela. Gerson ber Doctorrac —minço delaric amoriuaren langerrez eta engueniez— erraiten dici karitathia edo amorio seindiaren iduria duten affectioniac oro estirela hala, eta/guiçon seindu batec erraiten ciela bethi net mesfida eta beldur cela amoriuaren-daco, çunbat-nahi elgar maite duten personac seindu eta bertuthoz diren; eta horren poroatceco ekarten tici orano Iskiritura Seinduko Çuhurraren hitz hoc: *bada bide bat çoin guiçonari chuchen dela iduri baitzçaco, bena çoinhec guerokotz heriuala* <377> —erran nahi baita becatura— guidatzen baitu eta horra nolaco den minço guiren bidia.

1

10

20

30

## SEIGUERREN CAPITULIA [III/4/6]

### Garbitarçunaren contreco tentacionen garhaitceco çumbait erremedios

Seindiec emaiten diragucie otoitzça oros gagneco remedio bat beçala tentacione suerte guciē contre eta Gincoaren Semiac berac, hori erakasten diraguçu bere Apostolier erraiten dienian: *egon citeste iratçarriric eta othoi eguicie etcitesten tentacionetan eror.* Haur duçu ere minço guiren tentacionen contreco lehen erremedia. Beda Author handiac erraiten dici, hala nola açancec eta oihiec ohoinhac ihessi igorten baitituste eta auçuac bil-arasten, orobat othoitzçac Demoniuac kaçatzen thiela eta Seindiac otoitzça eguiten dienaren socorrira erakarten. Iracurten diici Seint Bernatec, emaste galdu enguenatu nahi cien baten ihessi igorteco eta bere buriaren langer handi hartaric libratceco, erremedio prestagoric etcielia idiren “ohoinha, ohoinha” oihu

15 eçagutzen: *ecugutzen.*

1 eguithia beno. Beldurrez ikara den baten oihiac hain bertuthe handia badu ohoinhen ihessi igorteco, cer botere estuke otoitzça Seindiaren oihiac gure exai ispiritualen contre, coinhec gure arima graciaren <378> aberastarçunetic buluci nahi baitute? Estuguya esparança uken behar ihez eguinen dutela Gincoaren socoria othoitzçaz galdeinen dugun beçain sarri?

Oros gagnetic erremedio miragarri bat duçu lohikeriaco tentacionen contre Salbaçale Jaunaren Passione Seindiaren gagnan meditacionen devoki eguithia eta bere buriaren haren çauri sacrathietan gordatcia. Seint Augustinen aravera estuço deuz ere fitetzago eta hobeki liçonkeriaco sûyac hil-araciten thienic, Salbaçaliaren Heriotce Seindiaren orhitçapenac beno —eta cioço Seindu berac— salbamenduco eguiteco orotan esthiela idiren deuz ere hoberic eta segurragoric, Jesu-Christoren çaurien go-guan atchikithia beno, eta hara certaco erraiten ohi cien: Jaunaren çauri sacrathietan paussian eta segurrian lo eguiten dut eta esparança osso bateki bicitce berri bat hartcen. Doctor handi batec, aldis, remarkatzen dici Iskiritura Seindia minço denian Jesu-Christoren sahetsxeko plagas, esthiela erraiten Jesu-Christoren sahetsxa çaurthia içan cela, bena soldaduetaric batec lança batez sahetsxa chilatu ceracola, guri endelgatcera emaiteco —cioço Doctor harc— Jesu-Christoren bihotzcera jouaiteco bida eguina dela, eta hartarat segurriän içaiteco ihez eguin behar dugula. Seint Bernatet ere erremedio bera emaiten diraguçu, erraiten daukularic: nois eta ere lohikeriaco <379> penxamendiez atakathiac baitzciraterekete, goguan har çacie Jesu-Christoren Passione Seindia eta erracie cien beithan: ene Gincoa Curutian estekathia da eta nic neure buria placer likitzzen hartcerá utcico duta? Manera hortan, Uria lealac armadatic gin cenian Rabbaco sethiuaren berrien David bere Erreguiari ekartera, etçuçun nahi içan jouan paussatcera bere etcherat anitz akithia celaric, eta Davitec galdein ce-raconian certaco etcen jouaiten, ihardetxi cicin: *Gincoaren Arka, Israeleco eta Judaco Populia campuan diaudeçu eta Joab ene Generala eta beste ene Erregue Jaunaren cerbitzchariac, lurrian etçaten tuçu; ni, aldis, jouanen niçala neure etcherat jathera, edatera eta neure emastiareki lo eguitera!* Çure bicias eta enias cin eguiten dicit estudala hori eguinen. Segui deçagun haren lealitate gartzia eta erran: Jauna, Curutian itçatuaric pagatzen tuçu guiçonen placer gaisthuac; Gincoac beguira neçala hainbeste sofriraci deraucien placerren hartcetic.

Beste çunbait, aldis, tentacione suerte hetan cerbitzhatcen tuçu guiçonaren asken finamendien orhitchapenas, Çuhurraren hitz hoen araura: *cien obra orotan orbit citeste cien azken finamentaz eta behin ere estucie becaturic eguinen;* beste batçu particularian Ifernuco ppenen orhitchapenaz baliatcen tuçu, goguan unxa erabilis Seint <380> Gregorioren erran haur: placerra igaranen da mement batez, bena ppenac eternal dirate; eta eguias ispirituz Ifernurat jeusthia eta unxa consideratcia nolaco diren behin ere finic gabeco, eta Gincoa Ginco deno iraunen duten ppenac, dudaric gabe moyen hun bat duçu becatutic nehoren beguiraracitceco. Beste batçuc socri handi bat idireiten dicie lohikeriaco becatien contre, Paradussuco placerren orhitchapenian erreflexione eguinez, çoinhen erhokeria handia den Paradussiaren eta Gincoaren bethierekotz galicia mement baten placerraren hartciagatic. Askenekotz beste batçuc, aldis, prootzchu handi idokiten dicie becatu horren contre, heriuaren

orhitzchapenetic eta asken Jujamendiaren goguan erabiltetic, eta nola erreflexione horiec oro net hunac baitira, batbederari duçu garbitarçuneco bertuthia hobekienic maitaracitcen eta haren contreco biciua hasthiaracitcen deakonaren<sup>25</sup> hautatcia; eta nola hel baitaite, aldi bathian batac, besthian besthiac bihotzça hobeki hunki baitiro, unxa lukeçu orotçaz aldi aldiska cerbitzchatcia.

Net prootzchos duçu orano eta socorri handi batetaco, lohikeriaco tentacionen contre Curutciaren segnaliaren egithia belarrian, bihotzian eta Jesusen icen sein-diaren devoki erraithia: prootzchu miragariric ikussi dicie hala eguiten <381> çutenen favoritan eta istoria seindietan idireiten duçu Gincoac anitz miraculu egunic moyen hartçaz. Ama Virginaren eretcerat devot içaithia ere net prootzchos duçu ocasione orotan eta halaz, oroc harendaco devot içan behar diici eta gure behar-ordu gucietan fidainchareki hari hersatu. Imposibile duçu bederatci hilabethez misericordia eternala sabelian ekarri diena bera eztadin içan net misericordiosa: misericordiaren Ama duçu, becatoren Avocata eta maite tici, dakielakotz haren Seme Jaunac çoinhenbeste maitatu thien eta çoinhenbeste gosta çaskon. Baciakiçu orano Gincoaren Semia haren sabelian becatorendaco guiçon eguin dela eta hura Gincoaren Amatu, eta arraçoin hartçaz becatorer tendrekoo soiten direecu eta gogoththicago ekarria duçu heen alde bere Semiaren otoitzcera, çoinheganic nahi thienac jardires-ten baititu; eci Seme batec cer errefusa diro bere Amari eta berheciki Salbaçale Jauna beçalaco Seme batec bere Amari?

Hartakotz Seint Bernatec arraçoinheki goraki erraiten dici, mundian nehor balin bada erran diroenic, O Virgina urosa, çuc estuçula lagundi nois eta ere bere behar-ordietan çuri herssatua baita, hura estadila minça çure misericordias; beras, generalki gauça orotan eta tentacione suerte orotan hain prootzchos bada Ama <382> Virginari gomendartzia, prootzchossago duçu orano garbitarçunaren contre diren tentacionetan, ceren Virgina Seindia bera baita net garbia, thonaric gabia eta oroz gagnetic Virgina, gogotic hartcen dici arrangura berheci bat hari herssatzen diren arimez garbitarçunaren beguiratceco. Çunbait Doctorrec uste dicie Joandene Joanne Baptistaren seindutarçuna hain handi içan dela, nun espaitu bere bici orotan becatu venialic ere eguin, eta sinhestetan tuçu jardiretxi ciela dohain handi hori, Ama Virginac Seinta Elizabeth haren Amari eguin cien bisitaren medios eta harekin hirour hilabethez egon celakotz; eci, dioen beçala Seint Ambrosioc, etçuçun Ama Virginina hainbeste demboras egon Seinta Elizabethen etchen haren askaci eta adiskide cela-kotz choilki, bena orano Joandene Joaneri seindutarçunaren jardiresteco, eta Ama-ren sabelian boskariosco seindimendietan sarthu balin bacen, eta becatu originaletic chahathia Ama Virginina heldu cen mementuan, norc erran diro çoinhen handi içan diren haren etchen egon cen hirur hilabethez errecebiku cithien prootzchiac edo hun-gui ispiritualac? Aita Avilac erraiten dici ikussi diela anitzcec Ama Virginaren devocionetic prootzchu miragariric idoki dutela, çoinhec egun oros çunbait otoitzçaren eguinez, Ama Virginaren eta Jesus haren Semiaren conceptione <383> eta sortzce chahien orhitchapenetan eta ohoretan, jardiretxi baitçuten Gincoaganic lohisco ten-tacionetaric libratu içaithia. Hartaco net otoitzça hun batçu tuçu Ama Virginaren

10 içaithia: *icaithia*.

<sup>25</sup> Liburuko *deako(-)* bakarra da hau, gainerateko agerpen guzti-guztiak *derako(-)* dira.

1 ohoretan Eliçac kantatcen thien hitz hoc: *o Virginia, beti Virginia, beti socorritcera eka-rria, çure Seme Jauna beithan balia çaskigu; uken eçaguçu, Virginia garbia eta esthia, ispirituco estitarçuna eta bihotzceco garbitarçuna.* Eci haren virginitathiaren eta thonaric gabeco chahutarçunaren ohoratcez, dembora berian galdeiten dirakoguçi jardi-rex deçagun garbitarçuna, haren eta haren Seme Jaunaren gogaraco içan ahal guiten amorecatic.

Seindien eta heen erlekiyen eretcerat devot içaithia net hun duçu orano lohikeriaco tentacionen kaçatceco. Cesaire Author batec ekarten dici pundu horren gagnan Bernat deitcen cen Fraide baten Istoria bat eta cioçu, erran cerakola Fraide harec berac, fraidetu beno lehen atakathia içan cela egun batez liçonkeriaco penxamendiez, eta nola ordian orano spaïtthien becatu handitaco atchikiten, etcela heen kaçatceco eta heer bihurtzceco einbidetan jarri; nola costuma baitcien beti erlekiuntci baten Joandene Joanneren eta Joandene Pauleren erlekiya çunbaitekin lepotic chilintchau ekarteko, penxamendu gaisto hetan celaric erlekiuntcia <384> boulharretan joka hassi citçakola; bena ezpaitcien gogua emaiten certara çaukola colpu hurac emaiten ceraskon, penxamendu gaisto hartan lachoki egon içan cela besteric cerbait go-gora gin artecan; ordian, erlekiac colpu emaitetic baratu çaskola, bena ber tentacione desonestac itçılı çaskon beçain sarri, berris erlekiac ere colpu emaiten hassi çaskola, avertitzceco beçala lohitzco<sup>26</sup> goguaketa hec kaça citçan; ordian endelgatu ciela erlekiec emaiten ceraskoten hain colpu ussic cer erran nahi çuten, eta Gincoaren gracia-reki bathian tentacionia curajoski garaitu ciela.

Devocione net laudagarri bat duçu ere eta socorri handitakua, lohikeriaco tentacionen contre Aldareco Sacramendu Seindiaren aitcinian ardura adoracionesco seindimendietan egoithia, Gincoari heen bentcitceco graciaren galdeiten, eta Communione Seindura ardura devoki hurrantciac, oros gagnetic vitoria horren gracia jardiresten diraguçi, Jaunac berac prestatu dienas gueros Sacramendu handi hori gure exai ororen contre. Seindiec erraiten dicie Celutico Mahain hora erremedio handi bat dela tentacione suerte ororen contre, bena dela oros gagnetic erremedio bat lohikeriaco tentacionen garaitceco, eci Sacramendu Adoragarri horrec flacas-sen dici becatiaren sua, ematzen Seindimendu lohiac eta axeguin gaisthuen sua hiltcen, <385> hourac suya hiltcen dien beçala, horra cer dioen Sacramendu hortçaz Seint Cirilac, eta ber Seindiac beste anitzceki Sacramendu handi hortçaz endelgatcen tici Zakaria Prophetaren hitz hoc: *cer ere baita hunic, cer ere baita ederric, estea Hau-tathien Oguia<sup>27</sup> eta Virginac loraraciten thien arnua.*<sup>28</sup>

---

7 içaithia: *icaithia.*      25 oros gagnetic: *oros gagneric.*

26 Liburuan *lohisco murru* (349) eta *lohisco tentacione* (383) ditugu, ez dago beste *lohitzo*-rik.

27 Adiera ‘garia’ du *Oguia* horrek, jatorrizkoan *frumentum* (RD 5, 395).

28 Oinarrian latinezko *frumentum electorum & vinum germinans virgines* dago, *le froment des élus, et le vin qui fait les vierges* (RD 5, 395).

## ÇAZPIGUERREN CAPITULIA [III/4/7]

1

### **Penitencia eta mortificacionia erremedio net hun bat duçu lohikeriaco tentacionen contre**

Seint Jeromac erraiten dici barour garratzcez eta loric eguin gabe egoithez ireici behar direla Demoniuaren sūsco lançac. Berac hala eguiten cicin, bai eta ere Seint Hilarione. Ber Seint Jeromac erraiten dici Seint Hilarione, Seindu huni jitzen citçakonian lohikeriaco çunbait goguaketa eta tentacione, bere gorpitzçaren contre coleran jarten cela eta erraiten ceracola: malurossa, unxa beguiratuko hut holaco ataku emaitetic, pati-aracico dereat gossia, egarria, hotzça eta berua, eta kargaz akit-aracico, amorecatic hire ppenen jassaithiaz aboro occupa hadin, eci ez liçonkeria gaistuez. Seindie net gomendatu diragucie erremedio hortçaz baliatcia eta hetaric anitcec net ardura seguitu dicie, penxamendu gaistoric etçutenian ere.

<386> Seint Francesen Chronikac deitcen tusten liburian errana idireiten duçu, munduco guiçon batec galdeguin ceracola egun batez Fraide bati, certaco Joandene Joanne Baptista, bere Amaren sabelian sanctificatu içan cenaz gueroz, jouan cen Deserturat eta han hain penitencia garatzçac<sup>29</sup> eguin; fraidiac erraiten diracoğu guiçon hari: erran eçadaçu çuc lehenic, certaco haraguia fresco delaric gacitcen duten? Guiçon horrec ihardesten diracoğu: hobeki beguiratciagatic eta andea eztadin; nic —cioçu Fraidiac— orobat erraiten derauçut. Joandene Joanne Baptista penitenciaren gatzçaz cerbitzchatu duçu seindutarçunaren bere beithan becathiaz andeatu edo thonatu gabe beguiratceco, eta amorecatic —Eliçac hartzçaz erraiten dien beçala— haren bici chahia becathiaren haxic thiapienaz etçadin içan thonathia. Nehor paussian eta tentacioneric gabe denian hun bada bere gorpitzçari penitencia eraithia eta haren nahier contre eguithia, çunbat aboro arraçoinnheki estu nehorc eguin behar gorpitzçac guerla eguiten derakonian? Seint Thomasset erraiten dici Aristote Autor baten ondotic *castitate* hitz haur jitzen dela gastigatce hitz huntaric, gorpitzçaren gastigatcez behar dela bihurtu garbitarçunaren contre den biciuari. Haragiaren biciuac —cioçu orano— gastigatcez haurrac beçala behar direla corrigitu, <387> arraçoinnhamenduz ezthaisteelakotz guidia edo beharaz.

Barourez eta penitenciez bere gorpitzçaren gaiski tratatus nehor bere ossagarriari oguen eguin baleça ere, erraiten dici orano Seint Jeromac hobe dela gorpitzça eri içan dadin arima eri den beno, eta çanguac flakos ikara diten garbitarçuna fermo egon dadin ber. Halaric ere, nehorc bethi disreki gogua emanez penitencia eguithian behar ci maneatu guiza batez, nun penitencia eguiten dien, indarren, tentacionen eta langerren araura içan dadin;<sup>30</sup> eci tentacionia eta erorteco langerra thipi direnian, etçu necessario heen bentcitceco bere buriari nehorc bortzcha handiric eguin deçan, bena guerla hain handi denian bihotzian —nun garbitarçunaren galtceco nehor lange-

10

20

30

13 Chronikac: Crhonikac. 33 eta: era.

<sup>29</sup> Liburan *garatz* (386, 390) nahiz *garratz* (394) ageri da.

<sup>30</sup> Hondarreko içan dadin hori gabe ere ongi ematen du, non eta sakonean ez dagoen “nun penitencia eguiten diena”.

rrian baita—, ordian etci behar gorpitzçaz gupida uken eta cernahi egun behar ci arimaren becathiaren heriotcetic beguiratceo.

Erraiten dicie Medikiec gaitz handien contre erremedio bortitzçac behar direla, hala ere emaiten ticie gorpitzceco eritarçunetan; orobat egun behar diici arimaco tentacionetan eta eritarçunetan, gaitz eta langeroz diratekeenian. Bici ispiritualaren Naus-siec tentacionen gagnan gauça bat remarkatcen dicie, bi ithurburu baitustela: çunbait aldis gorpitzcetic beretic sortzcen edo jiten direla, eta gorpitzcetic <388> arimala hedatcen, gende gaster, ossagarri hunu dutener eta senthatuki<sup>31</sup> bici direner heltcen ceen beçala; kazu hartan gorpitzçac mathatu behar ci, biciuaren ithurburia denaz gueroz.

10 Beste aldi batçuz tentacioniac arimatic sortzcen edo jiten tuçu Demoniuaren artificios eta gorpitzcera hedatcen, eta hori eçagut dieiteçu marca liferent batçutaric. Lehena duçu noiz eta ere goguaketa eta penxamendu liçon aboro ukeiten baitu ispirithian, eci ez seindimendu gorpitzcian, eta noiz eta ere seindimendu hec espaitira jiten penxamendu desonesten ondotic becic, eta çunbait aldis ispirithia hetçaz atakathia denian ere haraguia hila beçala baitago. Hara cer heltcen cen Seint Jeromari: nahibada haren gorpitzça adinez eta penitencias hain flakathia cen, nun espaitzcen nekez becic çuti egoiten ahal, Romaco Damen libertimendiak eta dançac gogora jiten ciaskoçun.

Ispiritutic eta Demoniotic jiten direla marka duçu orano, noiz eta ere goguaketa hec jiten baitira —ez jakin nola— ocasioneric gabe eta guthienic aparancia lu-keenian, hala nola Eliçan, otoitzcetan edo beste çunbait aldziz, çointan/guiçonic gal-dienec espailituskete nahi bere bihotzcetan sofritu; noiz eta ere hain bortitz, hain desarau eta itxussi baitira, nun espaitu nehorc deuz için ez penxatu halacoric, <389> bai eta orano nehorri iduri baitçaco bere beithan erraiten thiela hitz gaisto eta itxussi deuzetan ere erraitera mentura elaiten batçu. Horiec oro marka batçu tuçu, gutan igaraiten direnac estirela gutaric jiten, bena Demoniuaren ataku gaisthuac direla eta gure gorpitzçac esthiela hetan partheric. Hartakotz tentacione suerte horietan estici behar nehorc gorpitzçaren gastigatez tentacionia ireici, bena beste erremedio çunbaitez behar ci cerbitzchatu, eta Seindu guciec erraiten dicie cazu hartan net hun dela cerbait lan edo obra laudagarritan occupatcia, amorecatic occupacione hartaco attencioniac apartha ditçan ispiritutic penxamendu gaistuac; eta hara cer arraçoinhez erraiten cien Seint Jeromac, handituz gueroz jarri cela Hebreaco Lenguagia deitzen duten Lenguage gaitz baten ikasten, çoin net unxa ikassi baitcien.

Ber Doctorrac orano erraiten dici Grecia Herrico Fraide gaste bat, Egiptoco Komenthalu batetan cen bat, penxamendu lohiez net attakathia cela eta auherretan inxeatu cela barourez eta gogorki bere buriaren tratathuz tentacioniaren bentcitcera; Fraide gaste horrec Komentuko Gueihenari bere arimaren estathia eçagut-araci cera-cola; Geihenac consolatu onduan Fraide gaste hori, orai erraitera guatcen beçala libratu cicin tentacione hetaric. Gueihen horrec kargutu cicin segrethian Fraide <390> çahar guiçon garatz bat, ardura contestra ceçan Fraide gaste hori eta gaiski anitz erran ceçacon, eta mihis mesperetchatu onduan, berheala joan çakion haren contre pleinten eguitera, Fraide gasthiac çaharrari oguen egun baleraco beçala. Fraide çaharrac Gueihe-

29 occupacione: *occupacione*.

<sup>31</sup> Ikus senthatuki hiztegian; jatorrizkoan *y á los que tienen buena salud, y regalan su carne* (III, 194) / *et qui vivent dans la bonne chère* (RD 5, 399).

nac eman manu hori net unxa eguin cicin; cerbait estakuru cherkatcen cicin Fraide gasthiari aharra emaiteco eta guero Gueihenari gasthiaren contre pleinta ekartzcen cicin, eta accusione hura poroatcen cicin beste Fraide çunbaitez, coinhec erraiten baitçuten Fraide gasthia coleratu cela eta oguendun cela. Gueihenac Fraide gaste hori biciki mehatchatu onduan, penitenciatan eçarten cicin oguendun içan bailis beçala. Nola accusu horiec egun oroz eguiten baitcesten Fraide gaste hari, anitz afluxithia çuçun hain gaiski tratathia celakotz eta egun oros haren contre hainbeste falxukeria erraiten çutelakotz; Gincoari bethi bihotz ossoz gomendatcen çuçun nigarrez otoitzcen cielaric nahi cien lagundu oro contre cithienaz gueroz. Fraide guciec biskitharthian concerthuz hirritatcen cicien, Khomenthian deuz gaiskirci heltcen bacen, berheala haren oguen eiten cicien eta bizpahirour destimonio prest ciaudeçun haren accusateco; egun oroz iroy berriric eiten ciracocien eta penitencia berriric emaiten. Ourthe bat <391> Fraide gaste hori accusu eta ppena horietan atchiki onduan, Fraide lagun batec galdeiten diracoçu: nola idireiten cira tentacione lohi attakatcen cinthien harekin? Fraide gastiac ihardesten diracoçu: helas! Haxaren hartceco arteric eztiraacie emaiten, eta nola nahi duçu erabil ditçadan goguan penxaketa gaistuac? Aspaldi dici ene ispiritutic joan direla. Horra nola bere Gueihenac libratu cien Fraide gaste hura attaku hetaric, penxaketa gaistuac penxaketa ppenagariago eta guthiago langeroz batçuren medioz eta hortan gagnan ciòtu Seint Jeromac Komentuco biciaren laudoriotan, Fraide hura bera içan balis mundian, norc lagundu ahal çukeen tentacione gaistho haren benticten?

Seint Francessec erraiten cicin poroantçaz eçagutu ciela Demoniuec ihez eiten çutela gogorki eta penitencian bici cirener, eta conterrat, gogotic attakatcen citus-tela bere gorpitzçac guriki tratatcen cituztenac. Seint Athanasec ciòtu Seint Antonioc erraiten cereela bere Dicipulier: sinhex neçacie, ene Anayac, Satan beldur da Gin-cothiarren otoitzcen, beldur da heen loric ein gabe egoiten, heen barouren eta heen beren nahisco praubeciaren. Seint Ambrosioc Prophetaren hitz hoen explicatcian: *ene arima eztali<sup>32</sup> dut barouraz eta bestitu niz cilicio batez*, erraiten dici baroura eta bici gogorra harma <392> hun batçu direla Demoniuaren atakien contre. Jesu-Chrיסטoc gauça bera erakaxi diraguçu; haren Dicipulieec ecin kaçatu çuten Isipritu saxu bat/guiçon batetaric kaçatu cienian, erran cireeçün: *Demonio suerte horiec estaitzteke otoitzçaz eta barouraz becic kaça*. Ikusten duçu otoitzçari baroura lagun emaiten dera-cola, Isipritu saxiaren ihez igorteco moyen net hun bat beçala eta guiza hortan, lohi-keriaco tentacione batez nehor atakathia denian, eztela aski otoitzça eguiuthia, tentacioniaren contre diren ressolucionesco actuen eguiuthia, behar dela orano gorpitzça penitenciaz eta haren inclinacione gaistuen contre jouanez ppenaraci, hargatic Cofes-sorraren edo Gueihenaren avisa hartu onduan gaucen unxa den beçala eguiteco.

Fraide guiza hartaco tentacione batez net atakathia cen batec, egun batez Gilaz deitcen cen Fraide seindu bati avis galdein ciracoçun, nola tentacione hartaric libra çaiten; Gilaz guiçon seindu horrec erran ciracoçun: ene anaya, cer eguin cindiro hor batec aussiki nahi bacintu? Fraidiac ihardesten dirakoçu, harri har niroçu eta makila bat, eta horari ihez igor artekan colpu eman niroçu. Eya arren —cioçun Gincoasco

11 iroy: *iroye*. 28 gogorra: *gogarra*.

<sup>32</sup> Jatorrizkoan: *y cubria y guardaba mi ánima con el ayuno* (III, 196) / *j'ai couvert mon ame par le jeûne* (RD 5, 403).

1

10

20

30

40

1       guiçon seindu harc— çuc ere hola-hola eguiçu çure gorpitzçac atakatcen cithienian, eta tentacionia ihessi igorrico duçu. Bestalde remedio hori hain askarra <393> duçu, nun ardura aski baita tentacioniaren urrunceco eta kaçatceco ppenaric eta mortificacioneric thipienaren hartzcia, hala nola çunbait al diz nehorc aski dici cerbait dembora bessuac çabalduric Curutce atchikithia, beste alidian belhaurico jartzcia, edo bulharren joithia, orobat bere buriari chimico eguithia, edo cerbait dembora çango baten gagnan çuti egoithia edo beste holaco cerbaiten eguithia.

Seint Andre edo Joandere Ondoreren<sup>33</sup> bicitcian errana duçu, Apostolu hori Corinthaco Hirian celaric, Nicolaz deitzcen cen guiçon çahar bat idireitera joan citçakola eta erran ceracola bere bicia lohikeria suerte orotan igaran ciela, eta diela çunbait egun sarthu cela becatu eiteco desseinhan emaste lohiac egoiten ciren etche bathian, Evangelien liburia bereki cielaric; emaste galdu batec, çoinnheganat hurrandu nahi içan baitzcen, ireici ciela eta otoitu etçadin hareganat hurrant, hartan ikusten ciela gauça miragarriric, çoinhec icitcen baitçuten. Çahar lohi horrec Seint Andreri erran uken ciroçun,<sup>34</sup> emaste haren bihurtzce uzte etcien harc bere beithan sar-araciric, hari herzsatzcen cela cerbait remedio nahiz bere flakeciaren eta habituda çaharraren contre. Apostolu Seindia çahar haren estatu malurossaz hunkituric, harendaco otoitzcetan jarrí çuçun eta bost egun barurtu cicin, Gincoari bethi galdeiten ceracolaric <394> placer ceracon, çahar hari bere becathiac barkatu eta garbitarçunaren dohainha eman.

20      Bost egunen burian, nola Apostolu Seindiac orano bere otoitzçac Gincoari offeritcen baitzcithien gracia haren jardiresteco, Celutic botz bat inçun cicin, çoinhec errai-ten baitzcerakon: guiçon çaharraren eguiten tuçun otoitzçac inçunac dituşu, bena dembora berian nahi dicit, hala nola harendaco barur eguin baituçu, harc ere bere gorpitzça afluxi deçan salbathia içan nahi badu. Apostoliac, Gincoari obeditzceco, çaharra barur eguitera manatu cicin eta dembora hartaco fidelac harendaco otoitzça eguitera, eta becatore çahar hora etchera heldu cenian, bere huntarçunac oro pruber partitu citicin, bere gorpitzça garraski tratatu eta sei hilabethe barurthu oguian eta hourian, penitencia horren burian hil eta, Apostolu Seindiari Gincoac revelatu cira-koçun misericordia eguin cerakola.

30      Pence Ispirituala deitzcen den liburian errana duçu, Ermithain bat Desertuko Aita çahar baten idireitera joan içan cela eta erran cerakola lohikeriaco mila goguakethaz bethi ppenathia cela. Guiçon seindu horrec ihardesten dirakoçu, penxaketa suerte hetzçaz behin ere etzcela içan inkietathia; Ermithain hori estonathia arraposthu hortçaz, hitzcic erraiteco utzci cicin eta beste Ermithain çahar baten idireitera <395> joanic, erran cirakoçun: Aita, badakikeçu hulakuac erran deraala penxaketa lohiec secula estutela ppenatu; estonatu içan nuçu, ceren iduri baitçaut hori estela possible guiçonaren naturaleça flakuan. Azken Ermithain horrec erran cirakoçun: Gincoaren cerbitzchari handi harc hala erran derauçunaz gueroz, hala erraiteco arraçoin bacisin; hartakotz, çuaça berris haren idireitera eta barkamenduska çazkio,

---

20 otoitzçac: otoitzcac.     22 inçunac: incunac.

<sup>33</sup> Ez dakigu hitz hauek itzulpena ote diren; *Joandere* horrek *Joandene*-ren hutsa dirudi, baina *Ondore* hori ez dakigu *Andre* izan nahi ote zuen; jatorrizkoa honela da: *en la vida del Apóstol S. Andrés* (III, 196) / *dans la vie de saint André* (RD 5, 404).

<sup>34</sup> Ohikoa “zirakozun” da; ikus diroçu 431-n.

eta dudaric gabe erranen derauçu certako guiza hartan minçatu çauçun. Ermithain gasthiac abisu hori seguitcen dici eta Gincoasco guiçon hategana itçuliric, erraiten diracoçu: ene Aita, barka çaaçu aurtemehin hain idorki çure congitha hartu gabe<sup>35</sup> utzci baitzintudan, bena erran eçadaçu othoi, dembora berian, nunti jiten ahal den etciren lohikeriaco penxaketez behin ere ppenathia içan. Seindu çaharrac ihardesten dirakoçu: deserturat joanez gueroz oguis eta hourez choilki bici nuçu; behin ere estiçit jan, ez edan, ez lo eguiñ, bicitceco dhoya beno aboro eta seculan ez aski ene desíren contentatceco; eta Gincoac permetitu dici hala biciz eneçan uken çu hirritatcen citusten tentacione hetaric.

### <396> CORTZCIGUERREN CAPITULIA [III/4/8]

10

#### Lohikeriaco tentacionen contre diren beste çunbait erremedioz

Seint Gregorioc cioço lohikeriaco tentacioniac eta penxamendu gaisto —coinçaz guiçona hirritathia baita— direla çunbait aldiż lehenneco bicitce gaisthuaren arresto batçu eta bicio horren habituda çaharren punimendu bat, eta kasu huntan bere buria seindi dienac, behar diela passioniare sù hori lehen uken dien flakecien dolumentaren nigarrez hiltcera inxeatu. Seint Bonaventurac erraiten dici pacienki eta umilgui, eta eguiñ becathien punimendutan lohikeriaco tentacionen sofriticia dela heen apartatceco erremedio hun bat, erranez noizpait Josephen anayec erraiten çuten beçala: *merechi dugu ppena horien sofriticia, ceren becatu eguiñ baitugu*; eta ber Doctorrac cioço Gincoaren gaztiguac merechitu tustela eçagutcen dutenen eretcerat, haren misericordiaren herzciac hunkithiac direla.<sup>36</sup> Ikusten diici ere Iskiritura Seindian Gincoaren Populia cerbitzchatcen cela moyen huntçaz, Gincoaganic bere falten barkamendiaren ukeiteco.

20

Beste moyen bat duçu gure buriez mesfidatcia eta gure esperança guciaren Gincoa <397> beithan eçarthia, ceren umilitatesco seindimendu horiez, arima batec jar-diresten baititu Gincoaren graciac tentacione gucien eta berheciki lohikeriakuen bencitceco; eci umilitathia tentacione suerte ororen contre erremedio handi bat duçu. Seint Antonioc Gincoaganic uken cien inspiracione baten isthoria haur anitzcec baciakicie. Seindu horrec egun batez ikussi cicin Gincoaren dohainez,<sup>37</sup> mundu gicia damnatceco langerrez bethia; hori ikussiric oihuz hassi çuçun: helaz! Jauna, nor salba daite hainbeste langerren arthian? Inçun cicin botz bat, çoinhec ihardexi baitcerakon: bihotzcez umil dena langer horiegatic salbaturen duçu. İçan cite, beraz, umil eta Gincoac tentacionen latzcheretaric libratuco citu. David erreguec erraiten dici: *Jauna dela thipien beiralia, ber hora ere apaldu dela eta Gincoac libratu diela*. Borturic gorenetañ dira tempestaric gaitzzenac, hetaco aiciac arboleric handienac errue-

30

10 ÇORTZCIGUERREN: CORTZCI GUERREN.

<sup>35</sup> ‘Behar den bezala agur egin gabe’, ikus *konjita hartu hiztegiān*. Jatorrizkoan: *porque sin despedirme de ti* (III, 197) / *si je vous quittai l'autre jour si brusquement, sans avoir pris congé de vous* (RD 5, 406).

<sup>36</sup> Jainkoaren misericordiaren hesteez dihardu 173-n ere.

<sup>37</sup> Jatorrizkoan *viendo en espíritu todo el mundo lleno de lazos* (III, 198) / *il vit un jour en esprit toute la terre pleine de pièges qui étaient tendus* (RD 5, 408). Ez da itzulpen leiala.

1 taric egotzten edo aurtikiten, bena canaberac, arbole gazte mehiac eta mihimenac  
çalhutcen tuçu eta aicia baratu onduan, leheneco estatura itçulcen.

Erran tugun horien aravera lohikeriaco tentacionetaric idokiten ahal dugun  
prootzchietaric bat duçu, gure miseria eta flakecia eçaguturic, Gincoaren aitcinian  
umiliatcia, Gincoari erranez: Jauna, ikusten duçu cer niçan. Cer nehorc igurikitcen  
<398> ahal du lohiz eta saxukeriaz eguna den putzü batetaric, becic ere urrin gais-  
toric? Cer nehorc igurikiten ahal du çuc maradicatu duçun lur batetaric, nahar eta  
elhorriric becic? Horra cer frutu ekarten ahal dien çure graziaz eheinnhatcen es-  
duçu. Hortic umiliatceco anitz arraçoin diici, eci Seindien erranaren aravera, besti-  
menda ihetzci char bat ekarten diena ahalguetcen edo humiliatcen badu, ceren hain  
charki den bestithia, çunbat aboro eskituzte behar umiliatu gu beitaco penxamendu  
saxiec eta ahalgaiçunec?

Gillaz Anaye edo Fraide Seindu batec erraiten cicin gure gorpitzça hacında  
beltz bat beçala dela, çoin laket baita bethi lohian mainhatzcen. Reflexione hori net  
hun duçu penxaketa liçonetan ez egoiteco, eta generalian net unxa duçu penxaketa  
gaisto langeroz heekin guduka ez artzcia, bena berheala bere beguiac hetaric aparta-  
turic, bere buriari so eguthia eta umilitatesco seindimendietan erraithia: ala baitira  
itxussi eta desarau ene ispirithian igaraiten diren gauçac! Guiza hetan Demoniuaren  
atakier ihez eguiten dici eta gaistua confusionetan baratcen duçu.<sup>38</sup> Net prootzchoz  
duçu orano lohikeriaco goguaketa eta seindimendiaz —nahi gaberic jinic ere— gure  
bihotzian hetçaz oguendun baikina beçala ahalguetcia eta confusionetan sartzcia.  
Demoniuac —urguliaren Aitac— etciroçu <399> umilitate hura ikuz ahal despit  
handireki becic, eta ezkindiakikeçu deuz ere eguiten hura aboro errabiatcen denic  
eta fitetzago gure paussian uztera bortzcha diroenic, ecin ez gure galtceco emaiten  
derauskigun tentacionen gure prootzchutan baliaraciz; eta orano, oguenic gabeco  
penxamendu horietçaz hartcen dugun ppena, seignhale bat duçu eskindukeela deu-  
zetan ere nahi hetan becaturic eguin eta halaz, gure consolatceco arraçoin handi bat  
duçu.

### BEDERATCIGUERREN CAPITULIA [III/4/9]

#### 30 **Gincoaren beldurraz, çoin lohikeriaco tentacionen contre oroz gagneco erremedio bat baita**

Joandene Paulec erraiten dici: *beldur eta ikarareki cien salbamendia eguin eça-  
cie*. Deuzec ere hanbat eskitçakecie hobeki beguire garbitarçunaren seindimendie-  
tan eta Gincoaren gracian, eci ez bethi beldurrian bicitciac, gure buriez mesfidatciac  
eta Gincoatan choilki gure fidancharen eçarthiac. Seint Bernatec erraiten dici, po-  
roançaz ikassi ciela deuz ere eztela gauça hobiagoric Gincoaren graciaren jardires-teco,

---

<sup>38</sup> Jatorrizkoari begira —porque con esto hurtia el cuerpo á la tentacion, y queda burlado el demonio (III, 199) / car de cette sorte on élude le coup que le démon veut porter, et il demeure confus (RD 5, 410)— gaistua Demoniu izan daiteke, baina ez dago hain garbi; ondoko lerroan pentsaketa lizunak dituena ere confusionetan sartuko da. Horren garbi dago gaztelaniazko mezua → frantseseko itzulpenera leial joan zela eta honetatik → euskaratzaleak berdin ulertu eta leial iragazi zuela?

edo nehorc dienian haren beguiratceco —edo galdu dienian berris ukeiteco—, bere buriari behin ere ez fidatcia beno, <400> eta bethi Gincoaren aitcinian beldurreki ibilthia, Gincoaren erran hoen aravera: *uroz guiçona bethi Gincoaren beldurrian dena!* Eci anitz seindu handi erori tuçu becatura, bere burier sobera fidatuz eta aski beldur uken gabez eta hartakots, Ispiritu Seindiac avertitzen guitici *Çuhurra beldur dela eta langerretic beguiratzen dela*. Çoinhec ere ekarri behar baitu edari balioz bat beirinasco ampola bathian, estici hanbat arrangurareki erabilico beirinha çoinhen hauskor den eşagutzen espadu eta halaz, lehen erecontrian beirinhasco ampola hautxico dici eta hartan cena ichurico; bera dakienac beirinha çoinhen ihiki hauzten den, osso-ric beguiratceco har ahal arrangurac oro hartuco tici eta halaz, edariac haren eskietan ichurteco guthiago langer dikeci. Gauça bera guiçoner heltzen duçu Gincoaren graciaren eretcian: *graciaren tressorrac ekarten tiici lurreesco unci batçutan*, çoin unci<sup>39</sup> ihiki haux baitaiste mundiac emaiten derauskigun ipiztu gaistuetan. Askı eşagutzen estuteneç gure naturaleça çoinhen erorkor eta flako den, esticie bere burier gogua emaiten, eta bere lachokeriac eta bere burien eşagutu faltac emaiten dereen segurancha falsiac galtzen tici; bera bere buriac unxa eşagutzen ditustenec, beldurrian bici direnac bere burier gogua emaiten dicie eta halaz, guthiago langer dicie eta nehor ere bada erorten estenic, hurac dituju.

<401> Nunti jiten da çure idurira —cioçu Seint Bernatec— çunbait guiristinhoc bere gastetarçuna garbitarçun net handi bathian tentacione bortitzcez atakathiac cirelaric ereman onduan, guero hain liçonkeria itxussietara erori baitira, nun berac espan-tathiac baitciren? Hori heldu da, ceren bere gastetarçunian bici baitciren umilitathian eta beldurrian, ikusten çutelacotz oren oroz erorteco langerrian cirela, eta bethi Gincoari gomendatzen baitciren eta Gincoac bethi laguntzen baitcithien; bera ceren garbitarçunian iraute luce batuc, askenekotz urguluxutu cithien eta bere beithan sobera fidaincha har-araci, Gincoac instant berian, esku çointçaz garbitarçunian beguiratzen baitcithien heeganic eretiraturic,<sup>40</sup> guiza hartan bere flakeciac eror-araci tici. Seint Ambrosioc ere arraçoin bera ekarten dici anitz Seindu handiren erorthiaren gagnan. Persona Seindu hec, dembora luçaz Gincoa cerbitzhatu onduan, Gincoaren leguiaren gagnan gabaz eta egunaz meditacioniac eginez, bere buriac mortificatzuz, guthicia gaisthuen súyac bere beithan ecestatuz, ppenac eta affronthiac pacencia handireki sofrituz bici içan onduan, guero hain bici seindu, perfeit eta gorathic erori direla becatuko leicera. Hassi cirela —cioçu Seint Ambrosioc— bere obra seindietan fidaincha eşarten eta bere indarrer sobera fidatzen, eta guiza hartan, Demoniuac —çoinhec <402> ecin enguenatu baitcithien haraguiren placerrez, ez eta bencitu ppenen eta persecucionen bortitztarçunez— segrethia idiren diela eror-aracitceco emeki-emeki urguliaz eta bere beithaco fidanchaz.

Liburu Seindietan eta Eliçaco Aiten Iskiribietan idireiten diici guiza hartaco anitz exemplu. Ikaratu gabe ecin orhitzcen nis —cioçu Seint Augustinec— anitz Seindu handis, guihaurec ikussi dugunez edo hetçaz minçatzen inçun, çoin erori içan baitira biciuen leice çolala eta becathian gogortu, bere buriac alchatu onduan bertuthia

10 arrangurac: *arrangurrac*.

<sup>39</sup> Erlatiboak itxura arruntagoa luke çoin unci beharrean unci çoin balitz.

<sup>40</sup> Liburuan “eretiratu”-ren adibide hau baizik ez dago, eta <r> bakarra dakar.

praticatuz Celurano eta bere egoitzça cerbait ere guizaz han eguin onduan. Ikussi diici, Jauna —cioçu ber Seindiac Gincoari minço celaric— içarrac eta çure Eliçaren arguiac Celuti erorten Ifernuco herensuguiaren<sup>41</sup> inxeyez; eta becathiaren lohitzcian ihortziac cirela iduri çutenez, beste batçu, aldis, çure esku puchantaren socorriaren medioz, miraculuz beth-bethan bertuthia bessarkatzen.<sup>42</sup> Çunbat Guiristhinho estugu ikussi dembora luçaz Aingurien Oguia çure mahayan jan onduan, hacinda beltzcen hazkurrutic assetcen! Çunbat estugu ikussi dembora luçaz garbitarçun chahu eta thonaric gabekuan bici içan onduan, itxuskeria eta saxukeria suerte orotara eroren!

Norc irakur deçake espantatu içan gabetaric, Lipomam Author batec iskiribatu <403> diena Jaquez deitzen cen Ermithain batez? Erraiten dici Ermithain haren hiruretan hoguey<sup>43</sup> urthe bacithiela eta hetaric berrogueyac penitencietan diren gogorrerenetan igaran cithiela eta anitz miraculu eguiten cielakotz, fama handitan jarri içan cela eta Gincoac ere eman ceracola Demonien gorpitzetaric kaçatceco dohainha; egun batez, neskatho posseditu batetaric Demoniu jalgui-araci ciela, eta ikussiric neskatho hura ekarri çutenac beldur cirela berekin eremaiten baçuten berris Demoniua sar çakion, heen amorecatic haren bereki cerbait dembora atchikitcera gogatu çuçun eta bere buriari sobera fidatu celakotz, eta bere bertuthian sobera cundatu cielakotz, Gincoac permetitu cicin maluroska harekin faltatan eror çadin. Nola becatu batec ordenarioski beste becatu batetara eror-araciten baitu, beldurrez haren falta aguer ladin, neskatoua hil cicin eta gorpitzça uhaitzcerat aurtiki eta askenecotz, Gincoac etcerakola bere becathia barkaturen burian harturic, Deserthia utcircir mundurat itçuli çuçun, mundura onduan becatu eta bicio suerte orotara erori; noizpait bere beithan sarturic, conbertituric hamar urthez penitenciaric garratzcena egunez, leheneco bertuthiaren perfeccionera berris heldu çuçun eta seindu hilcia merechitu.

Nor dauke orano beste Ermithain batı <404> heldu citçakonaz ikaratu gabe, çoinçaz Seint Antonio handia minço baitzen therminho hotan: egun, ene anayac, erori da Ermithainhen bicitcian cen haberic azkarrenetaric bat; nor guero esta ikaratuco? Nor fida daiteke bere igaran bici seindiari eta bere estathiaren seindutarçunari? Orhit cite —cioçu Seint Jeromac— ikussi dutela erorten çu beno anitcez persona bertuthossooric eta Gincoaganic çuc beno dohain handiagoric erecebitu çutenic. Etcira David beno seindiazo, ez Salamon beno çuhurrago, ez eta ere Samson beno askarrago, eta biskitarthian hec hirurac erori tuçu. Judaz —hamabi Apostolietaric ere bat, Jesus-Christoz Apostolutaco hautathia— erori içan duçu, çunbat ere bere Naussi Jaunaren exempliaz, eskolez eta miraculiez egun oroz sustengathia baitzen. Nicolaz —Apostoliec berec hautatu çuten çazpi Diacretaric bat, çoinhen gagnera beste seytara beçala Ispiritu Seindia geutxi baitzen— etçu choilki hereticotu, bena heretikuen

<sup>41</sup> Liburan heren suguiaren dakar, bereiz idatzirik.

<sup>42</sup> Euskal liburuak ez du jatorrizkoaren zentzia jarraitu eta inkoherentzia dakar; guk puntuazioa aldatuz jatorrizkoarekiko leialtasuna gorde dugu; hona liburuak nola dakkaren: *Ikussi diici, Jauna, ciòu ber Seindiac Gincoari minço celaric, içarrac, eta çure Eliçaren arguiac Celuti erorten Ifernuco heren suguiaren inxeyez, eta becathiaren lohitzcian ihortziac cirela iduri çutenez; beste batçu aldis çure esku puchantaren socorriaren medioz, miraculuz beth-bethan bertuthia bessarkatzen.* Hona jatorrizkoa: *et nous en avons vu d'autres qui semblaient ensevelis dans la poussière, s'élèver miraculeusement tout d'un coup par le secours de votre main toute-puissante* (RD 5, 415-6).

<sup>43</sup> Liburan ez da beste hoguey-rik, gainerateko guztiak hoguey dira.

lehena içan duçu. Norc estu beldur uken behar —cioçu orano Seint Jeromac— suge çaharraren maleciaren? Orhit cite urguliac gure lehen Aita Adam lurreco Paradussutic kaçathu ciela, çoin Gincoac Paraduzzu hartçaz arrangura hartzceco han eçarri ba[i]tcien eta seindutarçuneco dohainez aberastu. Estici ere sinhxi behar —cioçu Seint Augustinec— suguiac <405> guiçona behin ere trompatu çukeela, espalis bera lehenic urguliaz Gincoaganic urrundu.

Eguia hortçaz segurtathia içaiteco guiçonen exempliac espaçauzkiçu aski, igaran cite Celurano eta ikussico duçu urguliac, Ainguru alde handi bat, Gincoac creatu cithien estatu gora eta gloriossetic eror-araci thiela. Hec, beraz, hain erorkor içan badira, heen naturaleça perfeít urhe finenaren pare cen hartan hainbeste flakecia idiren balin bacen, cer içanen da gutçaz, lurresto gorpitz batçuz bestithiac guirenez, çoin hain ihiki bere beitharic erorcor direnez? Nola harrac eguiten diren gorpitz batetan daguen arima, batere beldurric gabe içaiten ahal da? Nola bere burier sobera fidatcen ahal dira, bere galgarria berekin erabilten dutenec? Seint Gregorioc cioçu justoki eta arraçoinheki Jopec erran diela *janac içanen direla harrez*; eci hala nola cerrenac arropetan eguiten baitira eta sortzcen ditusten arropac berac jaten, orobat ere gure haraguiac —çoin baita gure arimaren bestimenda beçala— sortzcen tici har suerte batçu —çoin baitira haraguiaren hirrithia, çoinçaz bethi atakathiac baikira— eta hirrithu hari gure buriac garaitcera ustens tugunian, gure beitarico harrez janac beçala guituçu; eta nola cerrenec açancic eguin gabe abithiac andeatcen baitituste, orobat gure inclinacione gaistuaren <406> harrec eta gure beithan ekarten dugun becatiaren sù-aciac, hain eçabekи galtcen guitici, nun ardura guc seinditu gabe, gaitçza eguna baitate; eta erran dugun har hoen iturburia den haraguiric gabe ciren ispiritu pur batçuc,<sup>44</sup> espadute iraun Gincoac creatu cithien seindutarçunian, nor guitaric aski gogo sendo içanen da bere indarrer fidatceco, dakiilaric bereki ekarten diela bere galgarria?

Ikaz deçagun hotaric orotaric bethi gogua emanez beldurrian ibilten; eta malur bethi hala ibilten estenaren; nehorc oraidanic halakuaren erorthia deithoratzen ahal du, eci faltaric gabe erorico da. Estut neure beitaric erraiten, bena Ispiritu Seindiac hitz hotçaz erraiten dici: *segurki Jaunaren beldurrian egoiten espacira, labur çure etchia erorico duçu*, erran nahi baita, ibilten espacira bethi unxa gogua emanez eta beldurrian arranguroska çure buria langerretic urrunduz, ocasioner ihez eginez, tenorez goguaketa gaisthuac kaçathuz eta tentacioneco demboraco heen garaitceco prest egoñez, fite erorico cira. Beztalde, ez erran orai etcirela menturaz sujet tentacione suerte hetara, eta lohikeriaco sendimendiez etcirela batere atakathia, eta iduri çaucula mundo genden ikusthiac eta hantatciac esthiela çuretaco deuz langerossic, eta çure ispiritura mundiac esthiela penxaketa gaisthoric erakarten; etcitela horri fida, <407> Demoniuaren enguenu bat duçu; guiza hortan inxeatcen duçu segurrian cirela çuri sinhix-aracitera, cerbait demboraren burian çure trompatceco guthieni[c] penxatzen dukeçunian eta leicerat çure eror-aracitceco. Ordian behar duçu —Seindieç erakasten

6 lehenic: *leheenic*.

<sup>44</sup> Elkarren jarraian hiru perpaus erlatibo ditugu: *dugun + den + ziren*; “erran dugu bazirela har hoien iturburia den haragirik gabeko izpiritu pur batzuk, ez zutenak iraun Jinkoak kreatu zitien seindutarçunian”.

1 derauuten beçala— Gincoaren gracié et benedictionen handitarçunaren aravera çure arrangurac emendatu, ceren ordian Demoniu oussustathienic baita gure contre eta aboruenic cherkatcen baitu gure galtcia. Eci Abacuc Prophetac dioen beçala: *Demoniuari hazcurru edo arima hauthien beretcia laket ciacoçu*, nahiago dici, sarri exemplu batçutan ikussiren dugun beçala, Gincoaren cerbitzchari perfeccionera igaran eta alchatu nahi den bakoitz bat eror-araci, eci ez milakaz munduco bicitce lachuan bici direnetaric. Hara cergatic Seint Jeromac erraiten cerakon letra batetan Eustokium deitzen cen Virgina Seinda bati, etçadin lacha bere estatuco seindutarçunian sobera fidaincha eşarris: etcitu behar çure resolucioniaren seindutarçunac urguluxutu, bena beldurtitutu; obra hunez, urhez kargathia cira, ohoinhtaric beguira cite; bicitce haur guiçon ororendako bidge bat duçu, heben laster eguiten diici, beste leku bathian Coronen ukeiteco. Nola esperança ukeiten ahal duçu paussuric,<sup>45</sup> naharric eta elhorriric becic ekarten ezthien lur huntan? Mundu huntan deuz ere <408> segurric es-tuçu; finic gabeco guerlasco leku bat duçu; eperic gabe<sup>46</sup> bethi guardian içan behar diici, itxasso samur bathian guabilçaçu eta alde orotaric hura sartzcen çakon unci gaistho bathian langerrez ingurathiac guituçu; eta demoniuec —coinhec gure galtcia cherkatcen baitute— tentacionen tempestac gure contre bethi pisten ticie. Hartakotz Joandene Paule Apostoliac erraiten dici: *justuac, iratçarriric egon citeste eta unxa beguira citeste becatu eguitetic, eta norc ere uste baitu çuti dela, gogua eman beça eror estadin*, eta cerbaitec erortetic beguiratcen ahal baguitu eta segurrian eşarten, bethi mes-fidainchareki eta beldurrian ibilthiac eşarri behar guitici.

30 Jesuisten Compagnia establitu cenian helduric,<sup>47</sup> huni daukolaco gauça batez mintçacen inçun ciela cioçu Liburu hunen Eguiliac, eta inçun dien beçala erranen diela: nois eta ere Maria Portugaleco Princessa joan baitzen Castillhalat Espagnaco Princiaren espossatcer —coin gueroz Erregue Philipe biguerrena içan baitzen— Aita Fevre eta Aita Araoz bi Jesuiste joan cirela Espagnaco Gorterat Princessa hareki Portugaleco Erregueren manuz eta ordukotz Jesuistac fama handitan içaiten hassi cirela Gorthian: çunbat ere gazte baitciren Jesuista horiec, Jesuistec confessatcen citus-tela Gortheco Damac eta nola Ainguriac <409> beçala bici baitciren, oro estonathiac cituçun, nolaz gastetarçun handi hartan eta hainbeste ocasione langerossetan içaiten ahal ciren hain çuhur eta modest; Princia ere bera miragarriki estonathia, egun batez erran ciracoçun Aita Araossi: inçun dicit Aita Jesuistec baduciela garbitarçunaren beguiratciceco bertuthia dien belhar bat; eguia dea? Dudaric gabe eguia duçu, ihardezten diracoçu Erregueri Aita horrec; bena cer belhar suerte da hura? —cioçu Erreguec—. Aita harc arraposthu eguin ciracoçun Gincoaren beldurra cela belhar hura; hanti jiten duçu Gincoac gutan eguin nahi uken dien miraculia, eci Gincoaren beldurrac Demoniu en ihessi igorteko berthuthia badici; hala nola Tobiac Ain-

---

35 arraposthu: *arrapasthu*.

<sup>45</sup> Itxaropena lasai nola izan dezakeen adierazten du; hona jatorrizkoan: *comment pouvez-vous espérer du repos dans une terre qui n'engendre que des ronces et des épines* (RD 5, 422).

<sup>46</sup> Iku hiztegian eperik gabe; jatorrizkoan *siempre habeis de andar en centinela* (III, 205) / il faut s'y tenir incessamment sur ces gardes (RD 5, 422).

<sup>47</sup> Adiera ‘gertatzea’ luke eta koma hori guk ezarria da; hona jatorrizkoak dioena: *j'ai entendu raconter à ce sujet une chose qui arriva au commencement de l'institution de notre Compagnie* (RD 5, 422-3).

guru Raphaeleki bidaiant cenian atceman cien arrainharen bihotzçac bertuthe hura baitcien.

Gauça bera poroatcen dicie Iskiritura Seinduko hitz hoc: *etçaco helduco gaitzcic Gincoaren beldurra dienari, bena Gincoac tentacioneco demboran beguiratuko du eta gaitz suerte orotaric libratus; Gincoaren beldurrac becathia ireizten dici eta Jaunaren beldurraren medioz nehorc gaiskiari ihez eguiten dici.* Horra bethi guihareki erabili behar dugun belharra lohikeriako tentacionetara erortetic gure burien beguiratceco; ezpadugu beguien aitcinian bethi Gincoaren beldur salbagarria, estuço garbitarçunic <410> segurainchan dateenic, ez seindutarçunic galtceco langerretan estenic. Ispiritu Seindiac beldur hartan gure bethi atchikitceco erraiten diraguçu: *egon cite Gincoaren beldurrian eta hartan çahar cite.* Esticie choilki Gincoaren cerbitzhan hazten direnec beldur horren beharra, bena hain unxa<sup>48</sup> Gincoaren cerbitzchariric handienec eta berthuthian aitcinathienec. Justuec beldur uken behar cie becatorec beçala; hoc becatura erori direlakotz, hec eror estiten; batciac leheneco becathiec ikaratu behar tice, besthiac becatura erorteco beldurrac; Ispiritu Seindiac erraiten dici: *uroz guïçona bethi beldurrian dena!*

## HAMARGUERREN CAPITULIA [III/4/10]

### Gincoaren beldurretic jiten diren prootzchiez

Beldur salbagarri horren orano aboro estimaratcitciagatic eta bethi eta hanbat gure bihotzctan bethi haren beguiratcera inxearacitiagatic, heben hari dauden çunbait abanthailhez minçatuko guituçu. Lehenic eta biciric<sup>49</sup> Gincoa beitaco esparança askartzcen eta alchatcen dici eta umilitathiac beçala, gure buriez mesfidatcera eta Gincoaren lagunçan gure esparança guciaren eşartera ekarten guitici. Seint Gregorioc Jop Seindiaren erran hoen <411> gagnan: *nun da çure beldurra, çoinhec eguiten baitcien çure indar gucia?* net unxa haur esplicatcen dici. Arraçoinheki —cioço Aita Seindu jakinxu horrec— Jopec heben beldurra eta indarra elgarreki eşarten thiela, eci Gincoa beitaco gauçac estituço gu beitakuac iduri; guïçonari beldur ez içaithiac indarrac emendatcen tici eta beldurrac gal-aracitcen, bena salbamenduko bidian, gogo sendo içaithiac Gincoaganaco indarrac gutitzcen, aldis haren beldurti içaithiac emendatcen,<sup>50</sup> Çuhur[r]aren erran hoen arauera:<sup>51</sup> *Gincoaren beldurrian dago fidaincha eta indarra,* eta hori jiten duçu, ceren eguiaski Gincoaren beldur denac beste beldur bi-

20 hari dauden: *har idauden.*

<sup>48</sup> Emendiozko litzateke *hain unxa* hau, ‘baita ere’ edo ‘aussi / tambiéñ’ kutsukoa; ikus honetaz hiztegia.

<sup>49</sup> Cf. *lehenbicoric* (158, 225, 266), *biguerrenecoric* (199, 210, 340) edo *hirurguerrenecoric* (196, 210, 236). Jatorrizkoan *Cuanto á lo primero* (V, 425) / *Premièrement* (RD 5, 425) dugu.

<sup>50</sup> Jatorrizkoan: *pero acá es al contrario, la osadía causa flaqueza, y el temor gran fortaleza* (III, 207) / *parmi les hommes la hardiesse donne des forces, et la peur rend foible: au lieu qu'ici la hardiesse rend foible, et la crainte donne des forces* (RD 5, 425-6).

<sup>51</sup> Liburuan bi era dira nagusi: *araura eta aravera;* salbuespenak dira 266-ko *arau-eco* eta 411 hone-tako *arau-era*.

1 diac oro mesperetzchatcen baititu. Irakurten diici liburu seindietan: *Jaunaren beldur dena deuzen ere estateela beldur, ceren Jauna baita haren esperança*. Beldurrac beldur guirener obeditcera ekarten guitici heen gastiguien beldurrez; halaz anitz eta oroz gagnetic Gincoaren beldur denac, eta hura beithan bere fidaincha ossoki eçarten die-nac, etciakiú cer den mundiareni, heriuaren, burreuen eta Iferniaren beraren beldur içaithia, dakielakotz horiec oroc esteçakootela ez oguenic egun, ez bilo bat idoc Gincoac nahi espadu; eta bihotzceco disposicione seindu hortan idireiten thien indarrac, guiçon ororen indarrac elgarrekin eçarriric beno azkarrago tuçu, ceren ordian <412> Gincoa bera baita haren indarra, Prophetaren erran hoen aravera: *Jauna haren beldur direnen indarra da.*

20 Eta orano Gincoaren beldurti içaite hunec eztici ppenaric, ez karastarçunic emai-ten bihotzian, bena bai eztitarçuna eta bozkariua ppizten. Munduko gendec hun-tarçunen, ohoriaren eta biciaren galtceco duten beldurrac ppenatcen eta inkietatcen tici, bena Gincoaren haur lealec bere Aita maite haren beldurrac heen arima atchiki-ten dici deskanxu seindu batetan, çoinhec heen bihotzça haren amoriuan gortzcen baitu eraiten deraskon acto ussiez, erranez ezteçaçula permeti, Jauna, behin ere deu-sec çureganic separa neçan; egun eçaçu, ene Gincoa, lehenago milatan hil nadin, eci ez çu offenxa. Iskritura Seindiac erraiten dici: *Gincoaren beldurra gloria bera dela eta gloria ossua; alleguerancia bera dela bozthalencia<sup>52</sup> guciak bere beithan thiena; Gincoaren beldurrac allegueratuco diela bihotzça; placer eta bozkario emanen diela eta anitz bici-aracico; Gincoaren beldur dena bere azken egunetan uroz dateela eta bere heriotceco egunian benedicathia içanen dela.*

30 Ikkusaçu, beraz, çoinhenbeste hitzcez eta therminho liferentez Çuhurra edo Ispiri-tu Seindia heben minço den Gincoaren beldurrac berekin ekarten thien boztalen-ciaz eta dezkanxiez. Beldur horrec estitici <413> ikararaciten —esclabuac beçala— gaztiguien mehatzchiez, bena nola amorioti jiten baita, çunbat ere aboro nehorc Gincoa maite baitu, hanbatenaz ere aboro haren offenxatciaren eta hari desplacer eithiaren beldur duçu; hala nola haur hauthu behar beçalaco bat bere Aitaganat dien amoriuaren aravera, inxeatcen baita bere Aitari gogara eguitera, bai eta ere emazte bere senharra lealki maite dien batec, egun ahalac eiten tici hari kaussitceco eta hari ppenaric ez eguiteco.

40 Hitz batez, Iskritura Seindiac umilez eiten thien laudorio guciak eta umiler emaiten thien abanthailhac emaiten tici ere Gincoaren beldur direner, eta kazi ther-minho beretan; eci Ispiri-tu Seindiac erraiten badu *Gincoac umiler eta pruber placerreki soiten diela*, erraiten dici ere *Jaunaren beguiac iratçarriric daudela haren beldur direnen gagnan*; eta erraiten badu *Gincoac umilac altchatcen thiela eta hunguiz bethatcen*, erraiten dici ere *Gincoaren misericordia clarki agueri dateela Aitetaric se-metara haren beldur direnen gagnan, eta Gincoaren beldurra dutenac handi içanen direla gauça orotan haren aitcinian*. Seindiec umilitathiaz erraiten tustenac oro, guiza berian Gincoaren beldurraz erraiten ticie. Erraiten badute umilitathia beste berthuthen beiralia dela eta umilitathia gabe estela berthutheric, halaber minço tuçu <414> Gincoaren beldurraz, çoin deitzen baitu Isaia Prophetac *Gincoaren tresso-*

---

14 haur: *haurr.*      28 haur: *haurr.*

<sup>52</sup> Hitz honen aldaera honek baizik ez du liburuan *t* bikoitza, gaineratekoan *boztalencia* ageri da.

*rra*, ceren beste berthuthiac oro beiratcen baititu eta gracia gucien iturburia baita. Erraiten dicie ere orano, hala nola itxassoco unci batí ezpaçaco behar den piçugalhia eşarten, uncia uzkaltceco langerrian baita aiceric thipienian, orobat arima Gincoaren beldurraren karga gabe den bat eliakikeçu salbamenduko bidian langer handi gabe ibilten, ceren beldur hunec becic ezpaitirote<sup>53</sup> sustenga mundudo placearen eta urguliaren aiciaren contre. Arima beste gagneran<sup>54</sup> cernahiden dohainez eta berthuthez aberasthia edo dohathia içanic ere, Gincoaren beldurra ezpadu, galtceco langerrian duçu; eci Seint Gregorioc erraiten dici Gincoaren beldurraren picia gure arimac segurrian atchikiten thiena dela.

Seint Jeromac beldurra berthuthen beiralia deitzen dici eta erraiten gure bei-taco fidainchac aisekiago eror-aracitzen guithiela; Tertullianec, aldiz, beldurra salbamendiaren fundamena dela. Beldur baguira, çioçu, gure burier gogua emanen diici eta hala gogua emaiten badugu salbatuco guituçu, eci beldurrac erne daukana eguiaski segurrainchan dukeçu. Finian Çuhurrac Gincoaren beldurraz bethi kasi erraiten tici çuhurtziaz erraiten thienac: *Gincoaren beldurra eguiasco çuhurtzia dela dioelaric*. Orobaz minço duçu ere <415> Jop Seindia: *Gincoaren beldurra çuhurtzia bera da*; eta guiza hortan ikusten diici çuhurtziaz erraiten dena oro arraçoinheki Gincoaren beldurraz erran dirogula. Orano aboro Ispiritu Seindiaren araura: *çuhurtzia perfeita Gincoaren beldurra duçu*; eta beste leku batetan goraki erran onduan *çuhurtzia eta jakitathia idiren thienan handi dela*, ondotic berheala erraiten dici: *bena ezta Gincoaren beldurra diena beno handiago*; *Gincoaren beldurra oroz gagneti da. Uroz guïçona Gincoaren beldurraren dohainha diena! Nori compara daiteke hura eguiaski bihotzian daukana?* Ikusten diici ere guïçon Seindiec beldurresco sendimendietan bere buriac atchikiten citustela. Aita Avilac erraiten dici Gincoac Ermithain batí eçagut-araci ceracola çoinhen langer handian cen mundu huntan bere arimaren galtceco; eçagutce horrec hanbat bihotzça icitu ceracola, nun ordutic buria eta berthaithia estali baitzcithien deus ere lurra becic ikuz etciroen guizan; bestalde, etçuçun mintçacen eta bethi nigarrez ciagoçun guïçonec galtceco çuten langer handiaren gagnan. Haren ikustera joaiten ussatu cirenac, estonathiac cituçun haren hala ikusthiaz eta galdein ceracotenian certaco hain labur hala kambiatu eta bicitceco manera hain garratçza hartu cien, haren arraposthia içan çuçun bethi: utci neçacie, eci guïçon bat niz. Beste Seindu <416> batec deithoratzent cielearic guïçonaren içaithia, oihuz erraiten cicin: helaz! Ala bainiz maluroz! Gincoa orano mortalki offenza deçaket!

<sup>53</sup> *Jinkoaren beldurra edo beldur hunec singularra da, baina aditzak subjektu plurala daka: ezpaitirote ‘ez baitezakete’; jatorrizkoan ere subjektu singularra da: qui est la seule chose qui peut l’affermir contre les vents... (RD 5, 429).*

<sup>54</sup> Maisterrek ere badakar *gagneran* (1757: 116, 385). *Pratica-n gagnera* eta *gagneraco* ditugu, agerpen hau baizik ez du *gagneran-ek* eta ez dakigu *gagneraco-ren* ordain dagoen hutsa ez ote den.

1

## HAMECAGUERREN CAPITULIA [I/7/5]

**Çointan idireiten baitira hitz gutitan garbitarçuneco bertuthiaren beguiratceco avisu batçu, coinen medioz nehorc ihiki eçagut baititçake haren contre egun ahal ditukeen faltac**

Lehena.<sup>55</sup> Nehorc behar du arrangura handi bateki gogua eman, garbitarçunaren contreco seindimenduric erakar deçaketener bere nahira ez soguithia.

Biguerrena. Bertuthe horren contreco penxaketaric erakar deçaketeten elheric erraitetic, inçutetic, irakurtetic arrangurareki bere buriaren beguiratcia.

Hirurguerrena. Penxaketa desonesten lehen beno lehen ireisthia, bere nahira hetan batere egon gabe.

Laurguerrena. Nehoren ez desoneski, ez arhinkeriaz hunkitcia, ez bere buriaren hunkitceria uzthia.

Bostguerrena. Bere buriaren eretcian onest içanez, behin ere —necessitate handis campo— bere buriari soguitetaric eta hunkitzcetaric beguirathuz.

<417> Seiguerrena. Amisthaincha berheciric ez ukeithia, eta persona —noreganat ere seindi baitu amorio arhin cerbaiten ukeitera ekarria dela— ez hantatcia, eta hori duçu ocasione suerte hortan becatura erorteco langer handi batetaric beguiratceco bide edo moyen bacoitzça.

---

3 medioz: *modioz*.

<sup>55</sup> Frantseseko jatorrizkoan (RD 2, 258-9)-n dago eta gaztelaniazkoan (330-1)-n.

## **IX. JUJAMENDU ARHINEZ**



## LEHEN CAPITULIA [I/4/15]

1

### Certan daguen Jujamendu arhinen malecia

Joandene Paulec erraiten dici: *çuc cer çucenez jujatcen duçu çure aurhidia edo certaco hura mesperetchatcen duçu?* Gure exayac gure gal-aracitceco dien tentacioneric handienetaric bat duçu, gure ekartzia gure proximuaren gagnan edo haren contre Jujamendu gaisto eguitera eta halaz, gure beithan gal-arastera hartçaz dugun opinione huna, gal-araz deçagun harendaco dugun affeccionia edo amenx harendaco dugun amorio hunaren hotz-arastera. Hartakotz, arrangura suerte guiac hartu behar tiici bortitzki tentacione hunibihurtceco eta sinhexi net langerossa dela, karitathia-ren bertuthia colpatcen dienaz <418> gueroz. Nahi badugu, beraz, beguiratu bertuthe haur gure bihotzcetan eta gure proximuañek nahi baguira içan bakian eta amo-riuan, oros gagnetic —cioço Seint Augustinec— beguiratu behar dugula ispirithietan hartçaz opinione gaistoric hartceti: eci amisthaincharen poçoinha duçu. Seint Bonaventurac, aldis, içurri gorde bat deitzen dici, bena net langerossa, Gincoa gutaric kaçatcen diena eta aurhiden arteco amoriua ecestatcen diena.

10

Bicio hortan den gaiskia duçu, ceren gu beithan proximuañanat guindien sinheste huna gal-aracitcen baiteragu gaiskiaren iduripen net arhin batçutan gagnan, eta halaz gure bihotzcetan mesperetcharasten, eta hortan, dudaric gabe, gure aurhidiari oguen eithen diici; bena hortan eguiten dugun becatchia hanbatenaz handiago edo thiapiago duçu, çunbatenaz gauça ceren ere gagnan gure Jujamendia eguiten baitugu handiago edo thiapiago baita, eta çunbatenaz ere gaiskiaren iduripenac —opinione gaistuen eguitera ekartzen guitustenac— thiapiago edo handiago baitira. Exemplu batez endelgatceco, attencione eguiçu cer becatu liçateen çure aurhidiaren ohoria beste baten ispirithian gal-arasten bacindu, eta haren eretcian haren estakuriac erranez, hartçaz cien opinione huna oro gal-araci bacindeçaco; hainbeste oguen eguiten deracoçu hartcen <419> duçunian arraçoinhic gabe eta aski segurthaincha gabe hartçaz opinione gaisto bat; eci estici guthiago desiratzen çure hareganaco opinione huna beste batena beno.<sup>1</sup> Batbederac eçagut deçake bere beitharic bere proximuañi hortan cer oguen eguiten dien. Elitçaikecia gaitzci norbaitec çutçaz opinione gaisto bat hartcen

20

<sup>1</sup> Jatorrizkoari begiratuz gero hobekixe ulertzan da: *porque tanto estima vuestro hermano tener buena reputacion con vos, como con el otro* (I, 187) / *car il ne souhaite pas moins de conserver sa bonne réputation auprès de vous, qu'au près d'un autre* (RD 1, 423).

1 balu, hartaco çuc hari occasioneric eman gabe? Orobak oguen eguiten duçu çure proximuarri hura gaiski jujatuz, gaiskia egun diela segurtaincharic gabe. Cihauen duçun içaria besten uken eça; karitathiac eta justiciac galdeiten dicie gure proximua içar deçagun guihaur içartcen guiren içari beraz.

Orotarat ere nehorci jakin behar ci, Jujamendu gaistuen jithiaren eta hetan bere nahis egoithiaren arthian, liferencia handi bat badela; eci hotçaz beste penxamendiez beçala duçu, eta hala nola goguaketa desonesten ukeithiaren eta hetan gogotic egoithiaren arthian, liferencia osso bat baita —eci hoen jithia estuçu becatu, bena hetan placer hartcian, eta halaz, ireisten estitugunian duçu becatu— orobat duçu Jujamendu gaistuez. Hobe lukeçu, dudaric gabe, gure proximuarendaco amorioz eta opiniione hunez bihotzçac bethiac guinthien eta guihauen estakuriac beguien aitcinian atchiki guinçan eta gure aurhiden falter eskindecan soguin, ez hec <420> goguan erabil; bena ororen burian —cioço Saint Bernatec— penxamendiec eskitçaketela oguendun egun gure borondathiaren contre direnian eta tentacionia ireisten dugunian. Eguia duçu opinione gaistuetan nehor oguendun dela, hetan bere nahis egoiten denian; ceren ordutic nehorci bere proximuaz cien sinheste hunaren galtcera giton baita, Joandene Pauleren erranaren aravera, eta ordian estuçu aski erraithia cofessatcian, proximuauren contre anitz Jujamendu gaisto goguan erabili dugula, bena orano, erran behar diici hetan gure nahira egon guirela eta tentacioniac garaitu guithiela. Bestalde, 20 Theologienec defendatcen<sup>2</sup> dicie beste bathi erraithia goguan proximuauren contre uken dugun opinione gaistua, opinione bera har deçan beldurrez, edo deya harthia bacien, hartan aboro segurta dadin; eci gure inclinacione gaistua, unxaren beno, gaiskiaren sinhestera lasterrago ekarria duçu. Hartakotz ber Theologienec defendatcen dicie, penitent bati cofessatcian, icendatcia persona noren ere gagnan egun baituke Jujamendu gaistua, beldurrez Cofessorrac hartçaz har deçan opinione gaisto bat eta guthiago estima deçan. Horra noraderano duhen Doctor Seindien delicadeça proximuauren opinioniaren gagnan, eta biskitarthian, çuc gal-araci nahi derakoçu gaiskiaren cerbait iduripen arhin dela caussa, hartçaz <421> cindien eta mundu ororen aitcinian ukeiteco çucen dien opinione huna; eta haren estakuriac poroa artekan justoki gal estiroena!

Bena hortan proximuarri eguiten çakon oguenas bestalde, Gincoari ere opinione gaistua hartcen dienac oguen net handi bat eguiten dici, haren çucenian eskudaincha hartcen dielakotz, Salbaçale Jaunac hitz hotçaz eman dien defensaren contre: *esteçaciela juja eta etcirete jujathiac içanen; esteçaciela nehor condena eta etcirete condenathiac içanen*. Seint Augustinec erraiten dici Gincoaren Semiac hitz horietçaz defendatcen derauskigula Jujamendu gaistuac oro, hala nola bihotzceco intencionen eta beste gauça eçagutzen estugunen jujatcia, Gincoac beretaco heen eçagutça beguiratua dielekotz. Joandene Paulec orano pundu haur clarkiago explicatcen dici, erraitez: *nor cira çu besteren cerbitzchariaren jujatcera menturatzcen ciren?* Haren Naussiari diagoçu hari barkatcia edo haren condenatcia. Hartakotz unxa beguire cite ordu gabe eta Jauna gin gabe jujatcetic, çoinhec ilhunperic handienac arguituco baititu eta bihotzçetaco pen-

2 jujatuz: *jujautz*. 14 ireisten: *ireiesten*.

<sup>2</sup> Debekatzearen adieran; hurranen ahapaldiko *defensa* ere ‘debekua’ da; behin *defendiatu* darabil (443).

*xamenduric segretenac aguer-aracico, eta ordian batbedera harc jujatuco.* Gure Jujamendien defendatceco ekarten dien arraçoinha duçu, ceren ardura jujatcen tugun gauçac dudaskuac baitira eta estazkigunac, eta <422> nola Gincoaz bestec espatitutu eçagutcen, hora choilki duçu heen Jugia. Guiza hortan, heen jujatcera menturatcen dena, Gincoaren çucenetan sartcen eta eskudaincha hartcen dici.

Irakurten diici Eliçaco Aiten bicitcian, Ermithain batec beste batez gaiski jujatu ciela gaiskiaren cerbait iduripen arhinen gagnan; bet-bethan Celutic jiten den botz bat inçün ciela, çoinhec erraiten baitcerakon: guiçonac naussitcen çauskit nihau-ren beguiratu dudan jujatceco çucenaz eta hartañ eskudaincha hartcen. Iracurten diici orano Eliçaco Aiten bicitcian, Isac Abadia jouan cela egun batez Ermithai-nen bilçarren batetala; Ermithain hetaric batez opinione gaisto bat hartu ciela eta jujatu gastigu merechi ciela, cerbait gaiskiren iduripen hartañ ikussiric. Bere Ermithalat itçuli onduan, borthan idiren cicin Ainguru bat, çoinhec Ermithan sartcia defendatcen baitcerakon. Abade Seindu horrec galdein onduan certaco baratcen cien, Ainguriac ihardexi ciracoçun: Jaunac igorri nici çuregana, jakitera cer punimendu merechi dien condenatu duçun Fraide harc. Ordian bere falta eçaguturic, ahospe<sup>3</sup> Gingoari barkamendusku citciakoçun; Ainguriac erran cirakoçun Gin-coac barkatcen cerakola, bena unxa beguira çadin berris bere aurhiden jujatcetic eta heen condenatcetic. Ginco mundu ororen Jugiac <423> estici nahi nehorc besthiac juja ditçan berac condena artekan. Seint Gregorioc, aldis, erraiten dici Cassius Narnico Jaun Apespicu Gincoaren cerbitzchari handiac naturalki bertaithia net gorri eta sütan ciela, eta Totila Gotten Erreguec bere beithan hartu ciela, sobera edaten cielakotz Apespicu haren bertaithia hain gorri edo sütan cela. Gincoac bere cerbitzchariaren aldia hartu cicin eta permetitu, Totilaren espata ekarten cien Officierra Demoniuas içan çadin possedithia, çoinhec mundu ororen aitcinian net tormentatcen baitcien. Totilac bere Officierra igorri cicin Seindiagana eta hunec, Curutciaren segnhalia haren gagnan eguiinic, Demoniotic libratu. Totila ordian opinionez kambiatus çuçun eta gueros beti Apespicu Seindu hora estimu handitan atchiki cicin.

Hain becatu bada bere proximuaren gaiski jujatcia gaucec gaiskiaren iduria edo itchura dutenian, çunbatenaz esta becathiago hala jujatcia, gauçac bere beithan hun direnian eta biskitarthian nehorc gaiski hartcen edo gaiskirat itçultcen thienian eta jujatcen, proximuac heen eguthian intencione gaisto bat diela, edo genden erraithiagatic eguiten thiela? Halakuec dicie eguiaski eskudaincha hartcen Gincoaren çucenian, nahi dutelakotz jakin cer igaraiten den besten bihotzcetan eta penxamenduric eta intencioneric segretenac <424> jujatcen tustenian. Hori duçu penxamendu gaistoz ispirithiaren betheric ukeithia eta Azthiec beçala eguthia, çoinhec iduripen bano batçuz, estaskiten gauçac nahi baitituste penxatu.

<sup>3</sup> 238-n ahozpe dakar.

**BIGUERREN CAPITULIA [I/4/16 & I/4/17]****Nantic eta certaric giten diren Jujamendu gaistuac eta heen contreco  
erremedioez**

Communski jujamendu gaistuen lehen iturburia urgulia duçu, beste becatu ororen den beçala; bena orano manera berheciago batez urgulia Jujamendu gaistuen errua duçu. Seint Bonaventurac erraiten dici, devocioniari emanenic direla uste dute-nac aboruenic ekarriac direla bere proximuaz gaiski jujatcera, Joandene Paulec beste senxu batetara erraiten thien hitz hoc: *guiçon ispiritualac orotçaz jujatcen diela*, çucen emaiten baileree beçala mundu oroz jujatceco; uste dicie Gincoac emanic dohain handiac baitustela eta heen ukenez umilago içan behar bidian, urguluxutcenago dituçu bere buriez opinione handi bat hartcen dutelaric; munduco gaucetarat barreatusche direla iduritcen cestenac mesperetzchatcen ticie, eta heen gagnan erraiteco idireiten; bere buriac ahatzcirc besthiac ppeçatcen. Seindiec <425> cioçie bestez sinheste hun ukeithia umilitathiaren alaba dela, ceren umilac beti bere falter soguiten baiteree, behin ere bestener, eta hainbeste gauça nigarguiteco<sup>4</sup> bere beithan idireiten, nun besteren falter behin ere espaitu soguiten, ez hetara penxatcen. Eguiaski nehor umil balis, eleçake Jujamendu gaisto hetaric eguin. Halaz eguiasco erremedia arimaco gaitz haren sendotceco, beste anitzcen beçala, duçu gure flakecier soguiteco eta cer estakuru dugun ikusteco beguien bethi idekiric atchikitcia, eta besteren falten ez ikusteco cerraturic, beldurrez Jaunac Evangelian Ipocrithari erraiten diena, erran deçagun: *nolas ikusten duçu aurhidiaren beguiian pouaska eta ez, aldis, pitrailha cihaurenian?* Estaiteke erran ahal, çoinhen prootzchos den bethi bere falter so egoithia; heen ikusthiac ahalgue seindu bat emaiten dici eta umil-aracitcen, Gincoaren beldurra emendatcen, bai eta ere bere beithan bildia atchikitcen eta orano aboro ariman pausia eta bakia eşarten. Besteren ppeçatcen artiac, aldis, nehori ardura anitz gaiski eta conbeni estenic eraiten<sup>5</sup> dici, hala nola urguluxu-aracitcen, Jujamendu gaistuac proximuañen contre eraguiten, haren contre colera eta mesperetchu har-aracitcen, conciaco paussia galtcen eta beste anitz seindimendu gaisto bihotzetara erakarten, çoinhec ipistatcen eta nahasten baitute. <426> Cerbait unxa estenic çure proximuan iduritcen baçauçu, çure arimaren prootzchutan balia-araci çäçü. Seint Bonaventurac erraiten derauçu: besthiac jujatu gabe cihaur examina cite eta ber guizaco cerbait houx edo faltetan idireiten bacira, cihauren contre arresta emaçu; beste batetan condenatu nahi duçuna, cihaur beithan condena çäçü eta erraçu Davitec beçala: *nic eguin dut becathia, nic eguin dut gaiskia;* estut merechi haren huin-pethan içan den lurralri pot eguiitia eta hartan ikusten tudan estakuriac deuz ere estira enen aldian. Seint Bernatec erakasten diraguçu orano beste moyen hun bat. Ikusten duçunian —cioçu— çure proximuan gaitzci çäuçün cerbait gauça, soguiçu etcirenez ber gauçaz oguendun; hala bada cihaur corrigi cite; aldis, bestetan ikusten baduçu cerbait me-rechimendutakoric, soguiçu çutan idiren duçunez halakoric: balin bada arrangu-

---

28 bihotzetara: *bihotzetera*.

<sup>4</sup> Gainerateko guziak *nigar eguin* badira ere; ikus, bestalde, *placerguiteco* 19 eta 444-n.

<sup>5</sup> “eragiten” ulertu behar da hor eta ez “erraiten”.

roski beguira çachu; espalin baduçu, haren jardirestera eguiçu eta halaz, orotçaz çure arimaren abantailha egunen duçu.

Seint Thomasec orano erraiten dici Jujamendu gaistuec —çoinçaz minço bai-kira— badutela beste iturbururic ere, eta cioçu çunbait aldis giten direla bihotzçaren corrupcionetic, ceren besthiac gure inclinacione gaistuen araura jujatus, guihaur beithan seindi tugun estakuriac gure proximua <427> beithan idireiten tugula iduri baitçaucu. Ispiritu Seindiac erraiten dici: *erho batec bidian batzen thienac oro uzte diela erhouac direla*. Errefren comuna ere duçu ohoin batec jujatcen dici besthiac oro hala direla; gauçac oro gaiskirat itçultcen tici, berac esthielakotz inclinacione gaistoric becic, uzte dici bes-tenac halaber direla eta eguiten tustenac oro, dessein gaisthoz eguiten tustela. Bis-kitarthian Joandene Paulec erraiten dici: *gogua emacie, besthiac condonatcen tucien Jujamendu hura marka bat da, cihauriec eguiten tuciela bestec eguiten tustela jujatcen ducienian*.

Gincoasco guiçon batec oro hobenerat itçultcen tici, çunbait aldis dudatceco cer-bait arraçoin ukenic ere; eta eitate bat bi aldetara har daiteenian, hunerat hartcen dici eta gaistorat hartcen dienac inclinacione gaisto bat diela eçagut-aracitcen dici. Seint Dorotheac erraiten dici, guiçon sendo estomaka hun dien batec digeritceco gaitzcen diren hazkurriac eta gaitzcenkorrenac odol hun batetara kambiatcen thiela, eta aldis, estomac flako eta gaisto batec, janhariric hobenenac umore gaistotara kam-biatcen thiela. Arima hun, chuchen eta bertuthoz batec besten obrac oro hunerat itçulcen tici; arima gaisto batec, aldis, bester eguiten ikusten thienac <428> poçoin-datcen eta contreka hartcen.

Seindiec erraiten dicie orano obra bat bere beitan clarki gaisto eta condenagarri denian, haren hala jujatcia estela becatu, bena hobe eta perfeítago dela, ahal beçan-bat ordian ere bere aurhidiaren exkusatcia. Seint Bernatec cioçu: excusa çachu inten-cionia, ezpadeçakeçu excusa obra; çure beithan har çachu jakin gabiac, uzte gabiac, lehen boulta ecin empainschatu<sup>6</sup> dienac erain derakola. Gure proximua gure bu-riac beçala maite baguindu eta soquin baguindeçako guihauen burier soguiten du-gun beçala, idiren guindiroçu haren oguen orotaric chahatceco arraçoin frango. Estea egua guihauen burien dugun amoriuac bethi cherkaratcitzen deraugula mila excusa eta arraçoin, gure flakecien diren beno thiipiago erakasteco? Halaz, guihaur beçanbat maite baguindu gure proximua, dudaric gabe haren falten excusatceco moyen be-rez cerbitzcha quintakeçu. Falta, aldis, hain clarki gaistua bada, nun estaiteen nehol-lare excusa, Seint Bernatec cioçu: çu beithan uzte uken eçaçu nunbait tentacionia net bortitz eta becatuco occasionia anitz langerossa cela, eta erran eçaçu çure goguan: halaco tentacione batez attakathia içan banitz, eta Gincoac permetitu balu Demoniuac haren tentatceco uken dien botere bera ene contre uken lien, cer etceitan helduco? <429> Seint Ignacios irakurten diici —noiz eta ere cerbait obra ikusten baitcien hain clarki gaistua cela, nun ezpaitzçaitkeen neholare excusa, ez hunerat itçul ahal— etcicin ordian orano bere Jujamendia emaiten, eta Joandene Paueren erran hotçaz

19 eta: era.

19 odol: odal.

24 bat: bar.

<sup>6</sup> Liburuko hirugarren *empa-* da; bestela, “epaintxatu” da beti ageri dena.

1 orhitcen çuçun: *unxa beguira cite dembora gin gabe jujatcetic; Jaunac choilki ikusten dici bihotzça; cerbitzcharia bere Naussiac behar ci edo condenatu edo absolutu.*

Seint Francescen Ch[er]onikac deitcen tusten liburu bathian errana duçu,<sup>7</sup> Leon deitcen cen haren Fraide lagun batec Gincoaren miraculuz ikussi ciela egun batez, haren arropaco Fraide alde handi bat ekhiac beçala arguitcen çutenac; oros gagnetic bat besthiac beno ederragua, çoinhen beguietaric hainbeste argui lheinhuru jal-guitcen baitcen, nun ecin soguiten baitcerakon; estonaturic, galdeiten dici nor cen hura eta nolaz haren beguiac hain argui ciren? Ihardexi içan citciakoçun hura cela Bernat Kintaval Dohaxia, Seint Francescen lehen laguna, eta haren beguietan agueri cen argui eder hura jiten cela, ceren bethi bere proximuan ikusten cithien obrac oro hunerat hartcen edo itçulcen baitcithien, eta mundu oro bera beno hobe cela uzte baitcien. Eskele bat arropa charrez bestithia batcen cienian, bere beithan erraiten cicin: hunec hic beno maithiago dic praubecia, eta bere hautura prabe içan bailis <430> beçala, haren praubecias sinheste hun bat hartcen cicin. Ikusten cienian, aldis, gende aberax eta ederki bestituric cenic, bere bihotzian erraiten cicin: menturas horiec hic beno penitencia garratzagoric eguiten die eta menturaz, arropa eder horien pian gorderic, larru arrasettic burdinhasco cintac gorritzaren gastigatceco erabilten thie, eta beldurrez bere mortificacionez banitate har deçaten, ederki bestituric ibilten tuc. Hitz batez, besteren obrac oro hobenerat bethi itçulcen citicin eta Gincoac, manera hortan, ceren hainbeste arrangurareki besteren estakuriac excusatcen cithien, eman cirakoçun beguietaco argui miraculoz hura. Ber guizan behar guindikeci ussatu gure proximuaz bethi unxa jujatcera eta, hara cer galdeiten dien Seint Dorotheac gu-reganic erraiten dienian: etche batetan sartcen ciretenian eta han oro makur eta saxu ikusten, çure ispirithian har çaru etche hartakuac Gincoari osso-ossua emanac direla, devocioniac beste gauçac ahatz-arazcitcen derestela. Aldis, sartcen bacirete beste etche batetan —çointan gauçac oro bethi chahu eta garbi atchikiten baitituste— erracie mundoço gaucez hainbeste arrangura dutenaz gueroz, heen arimac unxa chahu eta pur içan behar dutela.

#### <431> HIROURGUERREN CAPITULIA [I/4/16 & I/4/17]

##### 30 **Jujamendu gaistuen beste çunbait iturburuz**

Seint Thomasec erraiten dici<sup>8</sup> Jujamendu gaistuac ardura giten direla bekaisguatic, jeloskeriatric edo bihotzceco erratic; eci nola nehorc ihiki sinhesten baitu desiratcen diena, bere aurhidiaren dien hotzkeriac bethi hartan cerbait erraiteco idiren-arasten diroçu,<sup>9</sup> eta gaiskiaren iduriric mendrenian haren obrac oro gaistotaco har-arasten; eta Doctor Seindu horren seindimendu hori, contreco erraitera guacen exemplu hunec hobeki seindi-aracitcen dici. Nois eta ere nehorc norbait net maite

---

17 erabilten: *errabilten.*

<sup>7</sup> I/4/17 kapituluan dago pasarte hau, frantsesezkoan (RD 1, 440)-n eta gaztelaniazkoan 195-n.

<sup>8</sup> I/4/16 kapituluan dago pasarte hau, frantsesezkoan (RD 1, 434)-n eta gaztelaniazkoan 192-n.

<sup>9</sup> Ez da ohikoa *idiren-arasten diroçu* hori, “dirakozu” itxaron genezake. Iku *erran uken ciroçun* 393-n.

baitu, haren obrac oro laudatcen tici, unxalat itçulcen eta hunerat hartcen; cerbait eskasdura edo houx hetan ikussiric ere, ahal beçanbat eçabatcen eta thipitcen, eta Joandene Paulec erraiten dien beçala, *amoriuac esthiela behin ere proximuaz gaiski penxatcen*; falta berac gaiskiaren aparenzia berekin, liferent iduritcen ciauskiguçu maite tugun eta maite estitugun personetan. Egun oros poroatcen diiçi çunbait genderen aldetic oro gaitzci çauskula; oroc ppena eiten daukutela eta beste maite ditugunen sordeixaguez ere, eskirela offensatcen, ez hetçaz kassuric eguiten. Çuhurrac <432> arraçoinheki erran dici *herrac aharrac pitzen thiela eta amoriuac faltac oro estaltcen*; guiza hartan egquia duçu amorio faltac edo eskaçac nehorri Jujamendu gaituac eraiten thiela. Amorio eskaçac orano eguiten dici maite estitugunetan becatu estirenac ere gaitzci baitçauskigu; heen airia, heen gestuac, elhiac eta eguitathiac eta çunbait aldis heen kalitate hunac ere, ecin sofri baitçakegu. Hortic ikassi behar diiçi nola, lanhotarçuna<sup>10</sup> anitz baliatcen çaukun beçala elgarren arteko amorio hunaren beguiratceco, orobat amoriuac laguntcen guitici lanhotarçunaren beguiratceco; bi bertuthe horiec eskiac elgarri emaiten ticie.

Erran tugun faltetara erorcetic beguiratceco net hun duçu orano arranguroski gohua emaithia Demoniuaren finecia eta maleciari, çoinhec gauça ezdeus batçuz —ardura becatu estirenez edo amenx hain arhin direnez, nun spaита nehor ere chahuric— inxeatcen baita elgarren dugun estimu eta amorio hunaren gal-aracitera; ceren mundu huntan oroc baititugu gure estakuriac eta eguiten becatu venial çunbait. Joandene Joanne Evangelistac cioço: *erraiten badugu estugula becaturic, guihauen buriac enguenatcen tugula eta erranac estirela eguiac*; eta Çuhurrac segurtatcen guitici *Justua çazpitán erorten dela*, erran nahi baita anitctan, justo daguelaric.<sup>11</sup> Hori <433> hola denaz gagnan, Gincoaren gracia eta amoriua gal-aracitcen esterakoten estakuru arhin batçuc elirakocie gure estimia eta amoriua gal-araci behar; eci guiristhinuec elgarri çor duten amoriua, mundoço amistainchac beno askarrago eta segurrago duçu; hoc hauzten tuçu ezdeusegatic: hala nola intrez thipi bategatic, complimentu edo onestate bat eguin faltaz; bena guiristinhuen amoriuac, Gincoa —çoinhec espai-tiro behin ere falta— dici cimendutaco. Segui deçagun, beraz, Gincoaren exemplia, çoinhec eskasdurac eta becatu thipiac gutan ikussiric ere, maite baikitu eta amorio tendre bat guretaco baitu; harc pacienki gure egun orosco becatu venialac sofriten tici; guc estiçakeguia sofri proximuauren falta arhinac offensuric gabe edo haren contre samurtu gabe? Hortçaz beraz eracasten diiçi estugula eguiaski Gincoaren amorecatic maite, eci hala maite baguindu, eskintakeçu samur Gincoa samurcen esten gauçaz; hora Naussi içan eta samur-aracitcen estuten houxec, guc<sup>12</sup> haren cerbitzchariac ezkitie kecharaci behar. Gincoac bere haurrari beçala, gure aurhidiari soguiten diracoçu eta karioski maite dici, justo duçu guc ere seindimendu berac harendaco uken ditça-

<sup>10</sup> 1 itçulcen: *itculcen*.

19 inxeatcen: *inkeatcen*.

<sup>11</sup> Jatorrizkoak honela dakar: *simplicidad* (I, 193) /  *simplicité* (RD 1, 435).

<sup>11</sup> Hondarreko koma guhaurek ezarria da; bestalde, *justo daguelaric* honela da jatorrizkoan: *quiere decir muchas veces: y no por eso deja de ser justo* (I, 193) / *sans que néanmoins il cesse d'être juste* (RD 1, 436).

<sup>12</sup> Ergatiboko atzikiai ez du hor ongi ematen, egokiago litzateke *gu*; hona jatorrizkoan: *lo que no enoja á nuestro Dueño y Señor, no es razon que enoje á sus siervos y criados* (I, 193) / *ce qui ne le met point en colère, lui qui est le maître, ne doit point nous y mettre, nous qui ne sommes que les serviteurs* (RD 1, 437).

1 gun eta Gincoac Joandene Joannez erraiten deraucun beçala: *hola maitatu guithienaz <434> gueroz, orobat guc ere elgar maitatu behar diici.*

Seint Gregorioren eta beste anitz Seinduren seindimendu bat duçu, Gincoac gracia handiric eguin dereener, çunbait aldis gracia thiapiac errefusatzen derestela, eta bere providenciaren ordre adoragarri batez uzten dereela cerbait flakecia arhin heen contre guducatceco, bethi amorecatic eta heen garaitcera auherretan inxeatuz, eta ikussis heen hetaric beguiratceco hartzen tusten erressolucionegatic, hetara bethi erorten direla, umilitathian egon diten eta eçagut deçaten bere beitharic estirotelə behin ere gauça handiric eguin, thihi hetaric ecin corrigitzen direnaz gueroz. Holatan, guiçon bera, bertuthe eta seindutarçun handi batetako içan dieiteçu, çunbait houx thihi eguinic ere, Gincoac hetarako flakecia nahi uken baiteree utci, bere ezdeutzarçuna poroatuz, umilitathian egonez bere dohain eta gracia handiac beguire ditçaten. Huntaric idoki behar dugun feita duçu, gure proximuaz bethi unxa jujatu behar dugula eta estimatu, eta gu beno hobe dela jujatu, gutan seindi estugun estakuru arhin çunbait harten ikussiric ere. Orhit guiten bethi Seint Gregorioren erranaz, ezkasdura hec dithiema heegatic perfect içan daiteela eta gu imperfeít, hetaric gabe içanic ere. Erreflexione horrec umilitathian atchikiko guitici; gure proximuarendaco uken behar dugun estimu <435> eta amoriosko seindimendietan egon-aracico eta hetçaz gaiski jujatcetic bethi beguiratuko.

20 Anastase Abadiac erraiten dici<sup>13</sup> bacela haren Comenthian Fraide bat lachoki bici cena, reglac hanbat unxa seguitu gabe, hartakotz hartzen çutela etcela behar beça-laco Fraide bat; Fraide hori eritu cela. Abade horrec, ikussiric hilcera çuhela, hargatik bere bicitce lachuaz penaric gabe alegueraki çaguela, kechaturic erraiten dirakoçu, estonathia cela hain lachoki bici içan onduan, nola ukeiten ahal cien hain ispirituko pausu handi bat, bere faltez Gincoari cundien emaitera çuhen tenorian. Ihardesten dirakoçu Abade horri: ene Aita, etcitela estona, Jaunac igorri diradaçu Ainguru bat segurtatceco salbatuco niçala eta bere Evangelian erraiten thien hitz hoc —*esteçaciela juja eta etcirete jujathiac içanen, esteçaciela nehor condena eta etcirete condenathiac içanen*— atchikiren thiela. Aitortzzen dicit, bada ossagarri gabez, bada lachokeriaz eniçala sobera unxa jarraiki Comentuko eguinbider; oratarat ere,<sup>14</sup> bethi pacienki sofritu ticit ene lachokerien gagnan eguin ahal uken derastaten tratamendu gaistuac oro, eta ene bihotz oroz barkatu diresteçut; bethi hunerat hartu ticit heen iroyac, hetçaz gaiski jujatu gabe eta harc emaiten diradaçu orai hainbeste esperança eta bos-kario.

## <436> LAURGUERREN CAPITULIA [II/2/9]

### **Medisenciaz edo besten gagnan gaiski minçatciaz**

Joandene Jacobe Apostoliac erraiten dici: *batcec bestendaco esteçaciela erran medisenciaric edo gaiskiriec.* Joandene Paulec, aldiz, cioçu *Gincoac hasthiatzen thiela me-*

<sup>13</sup> I/4/17 kapituluan da pasarte hau: frantseseko jatorrizkoa (RD 1, 447)-n dago eta gaztelaniazkoa 198-n.

<sup>14</sup> Liburuko hirugarren agerpena da, 353-n ere *oratarat* dago eta 302-n *oratan*.

*disentac.* Çuhurrac segurtatcen guitici *guiçonen beren aitcinian halakuac net hasthiagari direla.* Iduri ukenic ere *guiçonec placer hartcen dutela medisent baten inçuthiaz,* bihotzian halacuac hasthiatcen ticie eta beldur ciaskoçu, eta arraçoinheki, heen aitcinian bestez gaiski minço den beçala, hetçaz besten aitcinian orobat eguin deçan. Hoc aski içan behar likecie medisenciaren guri higunt-aracitceco, eci cer concebi ahal daiteke sordeixagoric, eci ez eta *Gincoaren eta guiçonen aitcinian hasthiagari içaitbia.* Bena erreflexione hori orai apart utciric, erakaxi nahi dicit choilkı medisencia çoinhen bicio eta becatu handia den, çoinhen langerossa eta çoinhen ihiki becatu mortala hartçaz eguiten den, amorecatic eşagutce horrec hain langer handitic bethi urrunt atchiki guitçan. Beçatu horren handitarçuna diagо, ceren beltzçatcen eta galtcen baitu proximuaren <437> ohoria edo fama, çoinhec munduco tresorrec eta huntarçunec beno aboro balio baitu; Çuhurrauen erranaren aravera *erreputacione huna aberastarçunac oro beno baliossago duçu.* Inxea cite fama hun baten jardirestera, penxa ahal tresorrec oroc beno aboro iraunen derauç.

Hartakotz ere Doctor Seindie erraiten edo atchikiten dicie, çunbatez ere fama huna aberastarçunac beno baliossago baita, hanbatez medisenciasco becathia ohoinkeria becathia beno handiago dela eta guero, medisencia nois den becatu mortal eta nois benial explicatcen dutenian, erraiten dicie beste becatu bere beitharic mortal direnez beçala, medisencia bere beitharic becatu mortal bat dela; hargatic ere, benial içan daitekeela proximuaz gaiski minçatcian erraiten den gauça thipi bada, eta haren ohoriari oguen thipi bat becic espaderaco eguiten; hala nola, nahibada ohoinkeria bere beitaric becatu mortal bat den, hel dieiteçu çunbait aldis estela becatu benial becic, gauça ebaxia thipi delakotz, hala nola sagar baten edo beste cerbait guti balio dienen ebasthia. Bena dembora berian, Doctorec erakasten dicie medisenciaric thipiena langeros dela eta arrangura handireki beguiratu behar guirela thipi iduri causkigune taric ere, ceren ardura thipi iduri dutenac eguiaski handi baitirateke.

<438> Theologienec erraiten dicie, munduco gende baten ohoriaren gagnan gauça thipi baten erraithia benial içanic ere, gauça beraren erraithia seindukiago bici behar duten personez becatu mortal dela: hala nola Aita Seindiaz, Apespikiez, Apecez, Fraidez, ceren munduco guiçon baten ohoriari oguen thipi bat becic eguin esteçakoon estakuru batez, oguen handi bat eguin baitiro Eliça Guiçon batenari. Laburrena, segurrena, medisencia suerte orotaric gure burien beguiratcia duçu, mortal ala benial diren piçatcen eraunxi gabe; certaco jar pena hartan, mortalen benialtaric berhesthia hain neke denaz gueroz? Dakigulaco faltaric thipienetaric arranguroske pundi hortan beguiratu behar diici, nahi baguira içan concienciac arraggetic gabe eta becatu mortalic eguin dukegunez dudaric gabe; eci becatu orotçaz hala eguin behar badugu, medisenciasco becathien gagnan ernetarçun handiago bat uken behar diici, gure mihiac gure proximuaz gaiski minçatcera naturalki anitz ekariac direlakotz, eta medisencia thipi iduriric ere, becatu handi anitzcetan içan daiteelakotz.

Seint Ignacio Heuzkaldunaren bicitcian irakurten diici,<sup>15</sup> arranguretan den handiena baciela bere peco Fraiden falten gordatceco. Hetaric norbaitec eguiten cienian

13 baliossago: *balios-ago.*

16 baliossago: *balios-ago.*

<sup>15</sup> Aitzineko pasartea laburtu du euskaratzaleak; Seint Ignacioren pasarte hau frantsesez (RD 3, 229)-n dago.

1 cerbait houx, corrigitcera obligatu cenari choilki erraiten cicin; batí erraithia aski <439> cenian behin ere bier etcicin erraiten. Ikas deçagun hareganic gure aurhidez nola behar guiren minçatu, eta nahibada harc cien bere karguiaz bere peco Fraiden ororen aitcinian faltaric thipienez ere corrigitceco çucena, hala eguiten cienaz gueroz, arraçoin bortitzaguaz guri etciaguçu sori gure proximuaren falta handien ez thipien erraithia.

Seint Bonaventura Doctorrac ederki erraiten dici, nehorc ahalue uken behar lu-keela norbaiten guibeletic erraithiaz, beraren aitcinian hura kecharaci gabe erran eli-roenic. Dudaric gabe regla hori net huna duçu eta gauça handiac beçala thipi iduri dutenac cerratec tici, ceren ardura iduriac trompatcen baikitu eta medisencia thipi iduri diena, çunbait aldis handi baita. Esteçacula erran çure erranac estirela deuz balliotaco, inçüliarrec estutela kassuric eguiten eta gauça publiken gagnan direla: sinhexi behar duçu medisenciac oro langeros direla. Seint Ignacio behin ere etçuçun minçatcen besteren biciez eta faltez, çunbat-nahi public içanic ere, eta nahi cicin batbe-derac orobat eguin leçan. Segui deçagun hain exemplu çuhurra eta seindia, mundu oro içan bedi gure ahuan hun, bertuthoz eta onest eta eçagut-araci deçagun orori, nehoren ere ohoriac gure mihitic esthiela deuz erriskatcen.

<440> Suertez jakin bacindu çure proximuac eguin dukeen cerbait falta, eguiç Çuhurraren mania; huna cer dioen: *inçün duçu çure proximuaren contre cerbait gauça; egon dadila gauça hura çure barnian ihortzcirc et segur içan cite, esterauçula damuric eguinen*. Çuhurraq hitz horietçaz endelgaraci nahi dici medisencia bere barnian atchikitzen dienas, estela poçoinha irexi dienas beçala; poçoinha hartu dutenec hura aurtic artekan estikecie paussuric; aldis, medisencia beltz hura barnian beguiraturic ere esti-keci penaric, eta hori ondotic berheala bi comparanchaz clartcen dici. Cioço *gauça-ric thipienna erho batec dienian, erdi minec hartcen dutela, erran gabe estaukeela<sup>16</sup> utci, emaste haur minetan denac haurra uken gabe beno aboro*. Orano Çuhurraqcioço *elhe bat erho baten bihotzian lança bat abere baten gorpitzcian sarthuric den beçala dela*. Nola aberiac gorpitzcian landaturic dien lança aurtic artekan espaitu sosseuric, orobat medisent batec proximuaren cerbait falta jakin dienian, hura erran eta publica artekan estici hunic. Possiblez, bada,<sup>17</sup> eskitela içan erhuen cundukuetaric, bena bai çuhurrenetakuetaric, çoinhec inçün medisenciac hain unxa bere barnian atchikitzen baitituste, nun espaitee pekatcen hetaric behin ere erraithia.

Aita Aquavivac, arimen gaitcen sendotceco eguin dien liburian, eçarri dici <441> medisenciaz capitulu berheci bat, çointan anitz gauça çuhur eta prootchos-sen arthian, emaiten baitu abisu net salbagarri bat. Cioço, nehorc erran baduke cerbait medisencia, etçan gabe hartçaz cofessa dadin, ceren suertez ihiki hel daiteen beçala, mortalki Gincoa offensatu balu, langeroz delakotz estatu hartan etçathia, guiristinho batec oherat jouan behar dielakotz ohetic tombalat edo obirat jouan

---

12 kassuric: *kassuric*.

<sup>16</sup> Ahaleko adizkia da *dauke*, baina ez da ‘dagoke’, haren adiera ‘dezake’ da, Pirinioetako ibarretako euskaren entzun ohi dena. Jatorrizkoak honela dio: *il ne peut non plus s'empêcher de parler* (RD 3, 231).

<sup>17</sup> Jatorrizkoak *s'il est possible* dakar (RD 3, 231); eguzkialdeko euskal mintzoetan ezaguna da *posiblez*, baina ez hain baliatua. Bigarren aukera bat genuke “possible bada” baldintza izatea eta -z hori hutsa izatea.

behar bailu beçala. Elukeen ordian becatu mortal bat eguin erran dien medisenciaz,<sup>18</sup> bethi eguin dien houxaren erremediatceco eta guerorat falta berera berris erortetic beguiratceco baliatuco baitçaco. Abisu horren seguitcia, medisenciasco becathian beçala, beste becatu orotan net prootchoz duçu, berheciki nehorc cerbait duda edo arragret dukeenian, Jauna mortalki offensatu dukeenez. Hain guiçon handiaren autoritathiac eta gure arimen salbamendiac, ekarri behar guitici abisu salbagarri horren seguitcera. Bicien contre erraiten den medisenciaz erran tugunac oro capitulu huntan, endelgatu behar dicie hilen ohoriaren contre erraiten direnez: ceren hilec bere ohoriaren ossoric mundian ukeiteco çucen baitute, gal baleçate espaitira erreparatceco bidetan.

1

10

## <442> BOSTGUERREN CAPITULIA [II/2/10]

### Medisencia errailer estela behar behatu

Seint Bernatec erraiten dici karitathia eta onestathia colpatcen duten elheric estugula erran behar, ez halakuer behatu; eci medisentac ikusten dienian inçüliarrac placer hartcen diela, erraitera ekarriago duçu; erraiteco ahalgaiçun dena inçuteco ahalgaiçun duçu. Seint Basilac, aldis, erraiten dici, cer gastigu merechi dute medisentec eta heer behaçalec? Cioçu biac elga compagnatic kendu behar direla; punimendu bera çatitzcen direeçu, ceren inçüliarrac placer har espaleça, errailiac elikeci erraithiaz placerric; gogotic inçuna estena estuçi placerreki minçatcen.

Theologienec, erakasteko noiz den becatu mortal medisent bati behatcia contrastic gabe,<sup>19</sup> anitz kassu berhesten ticie, çointan uzte baitute behaçaliac becatu mortal eguiten diela: hala nola medisencia erraiteco occasionia emaiten dienac, edo hala minçatceria ipistatcen dienac, medisenciaco pundietan galdo eguiten dienac, maite esthien personez gaiski minçatcen placerreki inçuten dienac, eta ikusten badu inçuten dien medisenciac proximuari oguen handi eguiten diela, diroelaric defendatcen<sup>20</sup> <443> esthienac. Eci etche erratcen ari den sù baten hilcera obligatu denac, haren hilcera inxeatcen espada becatu mortal eguiten dici, nahibada berac esthien sùya ppistu; ber arraçoinhz, medisencia defendiatu behar dien batec medisentari behatuz becatu mortal eguiten dici, ceren ordian obligatu baita proximuaren bere beharrian<sup>21</sup> la-

20

1 medisenciaz: mendisenciaz.

<sup>18</sup> Erdi heiagorazko erdi denborazko adiera hartzen diogu *elukeen ordian becatu mortal bat eguin erran dien medisenciaz* horri; hona jatorrizkoak zer dioen: *aunque no llegase á tanto, servirá eso de remedio y medicina preservativa para no caer otra vez en ello* (II, 106) / *quand cela n'auroit point été si loin, ce sera toujours un remède pour le mal présent, et en même temps un préservatif pour éviter de tomber une autre fois dans la même faute* (RD 3, 232).

<sup>19</sup> Jatorrizkoan koma *behatcia* hitzaren ondotik dator, baina guk lekuz aldatu dugu, *contrastic gabe* horrek *behatcia-ri* —eta ez *berhesten-i*— erreferentzia egiten dionez. Jatorrizkoan honela dio: *si el que oye al que murmura, y no le resiste, péca mortalmente?* (II, 107) / *si celui qui entend un médisant, et qui ne s'oppose point à ce qu'il dit, péche mortellement* (RD 3, 233).

<sup>20</sup> Ez dihardu babesea emateaz, gaitzerraten ari denari jardun hori eragozteaz baizik.

<sup>21</sup> Uler bedi “*barhearan*” eta ez “*barharrian*” = ‘belarrian’; cf. frantsesez: *à secourir son prochain dans le besoin* (RD 3, 234).

1 guntcera eta sustengatcera, eta hala egun behar bidian, menturaz behaçaliac bere bei-tarte arrieraz errailia laudatcen beçala baitu. Hargatic ere, baduço çunbait occasione çointan medisenciari behatcen denac, espadu medisenta laudatcen edo ipistatcen, sordeitzchena<sup>22</sup> espaitu becatu benial becic eguiten; hala nola deusen erraithia auher dela ikusten dienian edo aboro erranen diela beldur denian, edo errailia gueihenago<sup>23</sup> denian, haren autoritathia eta gradua dela caussa, errespetuz haren errebozacercera edo contrastatcera menturatcen estenian. Bena horren gagnan Theologienec erraiten dicie, inçuliarrac errailiaren gagnan gueihenguaric badu, hala nola Aitec, Amec, Naus-siec edo beste cerbait maneraz bere pekuen ichil-aracitcera obligatu direnec eta proximuaren ohoriaren sustengatcera, çunbatenaz ere heen gueihengua handiago baitate, hanbatenaz heen ichil-aracitceco obligacionia hersiago dela.

10 Horra cer dioten pundi horren gagnan <444> Theologienec. Horietaric ikas ci-roguçu nola behar guiren maneatu halaco occasione edo errecontrietan heltcen guire-nian, eta dugun bethi goguan atchiki, çoinhen langeros den medisenten —flakecias edo placerguiteco— inçuthia, edo ahala denian defendatu gabe uzhia. Seint Augusti-nec bethi eta leku orotan medisenciasco becathier bihurtceco, edo proximuaren contre haren guibel-ondotic erraiten diren elhe gaistuen defendatceco, jaten cien Salaco pare-tan iskiribaturic hitz hoc eçar-araci citicin: *beudi<sup>24</sup> hebetis ourrun mihi medisentac, proximuaren ohoria haren guibel-ondotic herrestatcen dutenac. Mahain huntan esta sori discurs eta elhe hunic becic.* Eta erraiten dicie, aldi batez Jaun apezpicu horrekin baraskariten ari ciren çunbaitec, hartu çutela proximuaren gagnan cerbait elhe gaistoren erraiteco liber-tathia; berheala mehatzchurekin erran cereela: ichiltcen espacirete, paretan iskiribatu-ric dauden hitz horiec eçabaraci behar tut, edo nihaurec mahaiti jeiki. Hori duçu fermo eta courajoz içaithia; hala içan behar ci medisenteki; seindi-araci ichiltcen espadira compagnatic jaluco guirela, eta Seint Jeromac hala egun deçagun nahi dici. Cioçu: nehor inçuten baduço beste batez gaiski minçatcen, sugue bateganic beçala haren alde-tic ihez eguiçu; hala eguinez emanen deracoçun ahalguiac <445> eçagut-araciren dira-koçu, beste aldi batez guiristinhinho lagunaren contre estela behar minçatu. Moyen hori net hun duçu, eta idireiten guirenian proximuaz gaiski minço datekeen çunbait com-pagnhetan, otoiutu behar diici ichil dadin edo berheala compaghatic jalgui.

20 Bena nola moyen hortçaz spaikitake bethi balia persona errespetu çor dereune-kilan idireiten guirenian, ordian badiici beste bide edo moyen bat ezthiagua: ber-taite ilhun eta triste bat erakax ciroguçu, eçagut-aracitceco medisencia edo elhe gaisto hec eztugula laudatcen, eta heen inçuthiaz estugula placerric hartcen. Is-

---

8 gueihenguaric: *gueihunguaric*.

<sup>22</sup> Liburuak *sordeietzchena* dakar, baina adibide bakarra da liburuan bi “e”-rekin *sordeietzch* ageri dena, hutsa dela dirudi; bestelakoan *sordeitz*, *sordeitzch*, *sordeitx*, *sordeix* ageri da, beti “e”bakarrarekin.

<sup>23</sup> Marratxoa du, *guebien-ago*, baina ez dakigu *gebien* + *-ago* hitz elkarketa arrunta den; hierarkia adierazten du: *ceux qui médisent sont des personnes d'autorité, et que c'est par respect pour leur qualité ou pour leur rang, que...* (RD 3, 234).

<sup>24</sup> Hutsa delakoan gaude, baina bada ez bada ere ez dugu aldatu; ez dakigu *jaugin-i* dagokion Zuberoako *biauri ‘betoz’ adizkia* (Maister, 137), *beudi* horretan eraginik izan ote duen; aitor dezagun, dena den, Maisterrek *beudeç ichilic* (349) dakarrela; lehenago Tartasek ere *beude* dakar eta garai hartantsu, *Antiokiako San Julian* (1770: 49) eta *Edipa* (1793: 281) pastoralek *beude* dute. Inxauspek eta Gèzek ere *beude* dakarte (1858: 451) & (1873: 221).

piritu Seindiac berac erakasten diraguçu moyen hori hitz edo erran hotçaz: *iparrreco aiciac euria ather-aracitcen du eta bertaite garratçac medisenta ichil-aracitcen*, eta beste leku bathian Ispiritu Seindiac manu haur emaiten dici: *elhorris cien beharriac tapa itçacie mihi gaistuen ez inçuteco*. Guiristinho hun batec medisentaren inçuthian erakasten dien bertaite garratz, aire ilhun eta tristhia, dituçi elhorriac çointçaz behar baititugu gure beharriac tapatu eta çoinhec chilatcen baitute; hori erran nahi da çunbait aldis orhit-aracitcen dutela, bere proximuaren accionen gagnan gaiski minçatcia becatu dela. Hartakotz Ispiritu Seindiac manatcen guitici gure beharriac elhorris tapa ditçagun, ez cothoinhez edo <446> beste gagneraco cerbait gauça estiz edo mardoz, guri inçuthia edekiric ere,<sup>25</sup> medisentaren ichil-aracitceco hun eliratekeenez. Eci —cioçu orano Ispiritu Seindiac beste leku bathian— *bertaite garratçaz gaiski egun diena corrigitcen dela*, bertaite gaitzça ikuz onduan gaiski egun diela eçagutetara ginez.

Seint Ignacio ardura moyen hortçaz cerbitzhatcen çuçun; ikusten cienian çunbait haren peco Fraide etcela prozimuaz aski unxa minçatcen, serioz eta garratz aire bat hartcen cicin eta hala eguinez, abertitcen citicin egun çuten faltez, dembora berian ichilic çaguelaric corrigitcen. Beste Moyen net hun bat duçu orano elhiaren cambiatcia medisentaren ichil-aracitceco: beste cerbait gauçaz minçatcia, eta hartaco estici iguriki behar elhiaren cambiatceco parada, eci hobenena ordian lehen beno lehen cambiatcia duçu; manera hortan medisentac eta beste compagnac oroc ihikiago eçagutuko edo concebituko dici, elhe hec etcirela unxa eta ppenaric egun nahi gabez, ezthiela nahi uken clarkiago corrigitu eta ororen aitcinian ahalguia eman. Igurikitzen baduçi, aldis, besteric cerbaitetara elhiaren cambiatceco parada erran nahiac erran artekan, nehorc etci endelgatuco cer egun nahi cindien, eta ordukotz gaitzça eguina dukeçu: hala nola cecen/guiçon baten onduan duhen baten <447> bararatcitceco, guiçona atceman esteçan kapa bat aitcinera aurtikiten baitute; orobat norbait bere proximuaz gaiski minço denian, aitcinera kapa bat aurtiki behar ciakoçu, erran nahi baita, cerbait beste elhe edo discoursez aboro gaiski minçatcetic bararaci; eta nola cecenari capa aitcinera aurtikiten derakonac, guiçon hil nahi cienari bicia conserbatcen bainterako, orobat medisentaren elhia makurtcen edo hausten dienac, bere proximuaren ohoria eta fama conserbatcen dici.

## SEIGUERREN CAPITULIA [I/7/5]

### Karitathiaren edo elgarganaco amoriuaren eçarteko eta atchikitceco goguaketa hun batçuz, çoinhec ekarrico baikituste medisencia gucier ihez eguitera

Lehen gauça,<sup>26</sup> goguan unxa hartu behar duguna: medisenciaric batere ez erraithia, besteren faltez behin ere ez minçatcia, çunbat-nahi arhin eta public diren; deuzzetan

<sup>7</sup> aracitcen: *aracircen*.

<sup>18</sup> ichil-aracitceco: *ichil-aarcitceco*.

<sup>25</sup> Entzuteko aukera kentzeaz dihardu; jatorrizkoak honela dio: *para que no solo no entren allá las palabras malas* (II, 109) / *qui nous empêcheroit d'entendre ce qu'on diroit* (RD 3, 238).

<sup>26</sup> Frantsesezko jatorrizkoan (RD 2, 252-3)-n dago eta gaztelaniazkoan (I, 328)-n.

1 ere gure prozimua oguenic ez eguthia eta harendaco —aitcinetic ez ondotic— bihotzcerat mesperetzchuric sartzera ez uzthia, bena gutan den beçanbat, ororen eretcian bertuthoz eta merechimenduxu igaranaratzitcia.

Biguerrena: behin ere batari ez salhatzia <448> ez ar-erraithia beste batec harendaco erran thien gaucen, beldur guirenian eta beldur uken behar dugunian gaitz harturen diela; eci horren eguthia aharren eta herren guiristinhuen arthian ereithia lukeçu.

Hirurguerrena: behin ere bicitarçunez edo coleraz ez minçatcia; nehorri ppena eguin deçakoon gauçaric ez erraithia; deuzzetan gagnan buruzkin ez içaithia; nehoren ere —gueihenguaric ezpadu— ez contrestatcia, ez oguendun dela erraithia.<sup>27</sup>

Laurguerrena: ororen eretcian ezti eta karitathoz içaithia, inxeatuz batbederari cerbitzchu eta placer eguitera eguin ahal deçakeen gauça orotan; kargu bat, aldis, nehorci dienian guiristinhinho lagunaren laguntceco eta hartçaz arrangura hartzceco, ernekiago gogua eman behar dici eta inxeatu bere<sup>28</sup> eguitate, hitz eta arrapostu ezthiez, ecin eguin ditçakeen gaucen honitcera.

Boztguerrena: bere proximuarendaco bihotzceco hotzduraric ez ukeithia, ez hetric badiela erakasthia, edo mezperetzchuz hareki minçatu gabe egonez, ez lagunduz behar-ordian edo eçagutcera emanez cerbait badiela haren contre.

Seiguerrena: bere proximuaz Jujamendu gaistoric ez eguthia, bena inxeatcia harren falten gure beithan eta besten eretcian eçabatcera, eta generalki mundu oroz sinheste hun baten ukeithia.

## AKABANÇA

---

13 laguntceco: *languntceco*.

<sup>27</sup> Jatorrizkoan: *ne point contester et ne reprendre personne sans en avoir autorité* (RD 2, 253).

<sup>28</sup> *bere* hori “giristino lagunaren laguntzeko” kargua duenari dagokio, lagun hurkoa laguntzeko zergina duenak *bere* eginahala egin behar baitu batera edo bestera lagun hurkoa laguntzeko.

## &lt;449&gt; APPROBATION de Monseigneur l'Ancien Evêque d'Acqs.

1

Nous Louis-Marie de Suarés d'Aulan, Ancien Evêque d'Acqs, sur le rapport qui nous a été fait par M. l'Abbé Vigneau, notre Aumônier & notre Secrétaire, de la teneur d'un Manuscrit Basque intitulé: *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren<sup>1</sup> Guiristinhino perfeccioniaren praticaren pparte bat, Heuzcarala [i]tçulia, Heuzcara becic eztakitenendaco*, avons pensé que la lecture de cet Ouvrage, entrepris & mis au jour à notre sollicitation par un des plus respectables Curés de notre ancien Diocèse, seroit très-propre à procurer aux Fideles du Pays Basque de grands biens spirituels. Tel est le jugement que nous nous sommes crus obligés de porter de cet Ouvrage, dans lequel l'Auteur a su recueillir tout ce qui dans les excellens écrits de Rodriguez, <450> peut mieux convenir aux besoins spirituels du commun des Fideles. Fait à Avignon en notre Hôtel, le 10 Juillet 1782.

10

† L. M. Ancien Evêque d'Acqs.

*Akiceco Jaun Apezpicu ohiaren aprobacionia Heuzcarala itçulia.*

Guc Louis-Maria de Suarés d'Aulan, Akiceco Apezpicu ohia, Morde Vigneau gure Aumonier<sup>2</sup> eta Secretariac endelga-araci onduan cer daucan heuzcarasco iskiribu batec, çoin deithathia baita: *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinhino Perfeccioniaren Praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara becic eztakitenendaco*, uste dugu gure ahulguz eta avisez gure Dioceza ohico Jaun Error errespetagarrienetaric batec eguin dien iskiribu eta moldeco lettrala<sup>3</sup> eçar-araci nahi dien horren iracourthia,<sup>4</sup> net prootzchoz liçatekeela Heuzcal Herrico <451> fideler huntarçun ispiritual handiric jardiretz-aracitceco. Hori da guc eman behar dugula uzte dugun jujamendia ezkuz iskiribatu hortan gagnan, çointan Autorrac net unxa cerratu baitu cer ere Rodriguessen iskiribu net<sup>5</sup> hunetan idireiten baita, Gende comunen behar ispiritualendaco prootzchossenic eta hobenenic.

20

Avignhonen uzaillaren hamarguerrenian, mila çazpi ehun  
eta lauretan hoguei eta biguerrenian.

L. M. Akiceco Apezpicu ohia.

## &lt;452&gt; APPROBATION de Mr. D'Abense, Curé de Juxue, Vicaire Général &amp; Official d'Acqs

30

Nous soussignés Vicaire Général & Official de Mgr. l'Illustrissime & Réverendissime Evêque d'Acqs, avons pris lecture d'un Manuscrit Basque intitulé:

<sup>1</sup> Frantsesezko baimen honetan izenburua idaztean huts egin eta *Aitaten* idatzi da.

<sup>2</sup> Baliteke ahoskera *omonier* izatea; cf. *omonier* hitzegian.

<sup>3</sup> 1757 inguruko Zuberoako *Iganteçtako pronoua-k mouldeço* leteretan dakar azalean.

<sup>4</sup> Agiri honetako adibide honetan baizik ez dago liburuan *iracour-*, liburuko guztiak *iracur-* & *irakur-* dira.

<sup>5</sup> Graduatzalea adjektiborik gabe gelditu da; frantsesekoan *excellens* dator, hori da euskarazkoan falta den izenondoa.

1    *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Gu[i]risthinho perfeccioniaren praticaren pparte bat, Heuzcarala itçulia Heuzcara becic eztakitenendaco*, dans lequel nous n'avons rien trouvé que de conforme à la foi & aux bonnes mœurs. Le bon choix que le pieux Traducteur a fait des parties de l'excellent livre de la Pratique de la Perfection Chrétienne du R. P. Rodriguez de la Compagnie de Jesus, remplit deux objets qui étoient à désirer, & que son zèle lui a inspirés; il procure aux pauvres gens du Pays Basque le double avantage <453> & de trouver dans cet Ouvrage tout ce qu'il y a de mieux pour les gens de la campagne dans un de meilleurs livres de spiritualité que nous ayons, & de pouvoir se le procurer à peu de frais. Il n'y a  
10    aucun doute que l'impression de ce Manuscrit ne fasse de très-grands biens dans le Pays Basque.

Fait à Juxue, le 12 Mars 1782.

De Philippe D'Abense, Vic. Gén. & Official d'Acqs.

<454> *Juxiaco Jaun Ertorraren Akiceco Bicari General eta Officialiaren aprobacionia Heuzcarala itçulia*

20    Guc pian signathiac, Akiceco Jaun Apezpicu anitz aipathiaren eta anitz ohoratiaren Bicari Generalac eta Officialac examinatu dugu attencionerekiru ezkusco iskiribubat, çoinhen titulia edo icena baita: *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristhinho Perfeccioniaren praticaren pparte bat, Heuzcarala itçulia Heuzcara becic eztakitenendaco*, çointan ezpaitugu deussic caussitu fediaren eta Gincoasco leguien araura eztenic. Haren eguale Gincothiarrac, Aita Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Guiristhinho Perfeccioniaren liburu baliossaren ppartes egun dien hautu hunac ezkusco iskiribubat, bi abantailha bessarcatzen tici, bata emanet liburu net handi esten batetan, cer ere baita prootzchossenic her[r]ietaco populiarendaco, devocionesco <455> liburu dugun hobenen batian, çoin lauretan hedatiago baita; bestia bere laburtarunaz familiaric praubenen eroz bidian eçarriz. Ezta dudaric iskiribubat, horen letra moldera eçarthiac huntarun handi bat eguinen diela Heuz[c]al<sup>6</sup> Herrian.

Juxian Martchuaren hamabigerrenian. Mila cazpi ehun eta lauretan hoguei eta biguerrenian.

30    De Philippe d'Abense Akiceco Bic. Gen. & Off.

<456> Imprimatur, si videbitur Reverendissimo Patri Inquisitori.  
Avenione hâc die tertîâ Aprilis 1782.

Bonneau, Præpositus Avenionensis, Vicarius & Officialis Generalis.

Imprimatur. F. J. B. MABIL, Inquis. Generalis.

---

<sup>6</sup> 450-n <c> dakar *Heuzcal* hitzean.

<457> Liburu hunen capitulien  
eta hetan minço diren substancien tabla<sup>1</sup>

1

LEHEN CAPITULIA. *Gauça ispiritualez edo Gincoazkuez egun behar dugun estimiaz.*  
Pagia 9

BIGUERRENA. *Perfeccioniaren uken behar den amoriuaz eta garraz.* 17

HIROURGUERRENA. *Disposicione eta bide net hun bat dela Gincoaren gracieng  
ukeitheco garxuki desiratcia gure bertuthian aitcinatcia.* 22

LAURGUERRENA. *Çunbatenaz ere ehor aboro gauça ispiritualer edo Gincoaskuer ema-  
nen baita, hanbatenaz garxukiago desiratuco tici.* 30

BOSTGUERRENA. *Bertuthian nehorc prootzchatceco edo aitcinatceco dien desira, Gin-  
coaren gracieng edo amoriuan dela segnhale handi bat duçu.* 34

SEIGUERRENA. *Çoinhen prootzchoz edo balioz den gauçaren<sup>2</sup> thiapienen lachokeriaric  
gabe eta unxa eguthia.* 38

ÇAZPIGUERRENA. *Perfeccioniaren jardirezteco necessario dela eçagutcerekilaco  
edo borondatesco becatu orori ihez eguthia <458> eta einbide orori chuchen jarrai-  
kitzia.* 44

CORTZCIGUERRENA. *Aitcineco Capituliaren seguidetaco eta hartan direnen hobeki  
complitceco, batbederac egun oroz egun behar dien conciarien examenaren<sup>3</sup> eta hartu  
beharr dien deliberuen pundu hautatu batçuz.* 49

BEDERATCIGUERRENA. *Moyen edo bide batez gaucen unxa eguiteco, çoin baita be-  
deraca gure obra gucien eguthia, eguiten tugun aldical, gure bicico azkena içan behar  
bailu beçala.* 54

HAMARGUERRENA. *Bertuthian iraun behar dugula, edo bertuthian uken behar du-  
gun iraupenaz.* 62

10

20

## GINCOAREN PRESENCIAZ

LEHEN CAPITULIA. *Gincoaren presenciaz orhitzciaz eta orhitzchapen harc bere  
beithan cerratzen thien prootzchiez.* 67<sup>4</sup>

---

<sup>1</sup> Lehen kapitulua izenik gabe dator; ziurrenik *Gauça ispiritualez edo Gincoazkuez* beharko luke, baina horretarako eskuizkribua ezagutu beharko litzateke.

<sup>2</sup> Liburu barreneko izenburuan *gauçaric* (38) dakar.

<sup>3</sup> Liburu barreneko izenburuan *examinaren* (49) dakar.

<sup>4</sup> Aurkibideak 69 dakar, baina zinez 67 da.

- 1 BIGUERRENA. *Certan dagon bethi<sup>5</sup> Gincoaren presencian ibilthia.* 74  
 HIROURGUERRENA. *Borondathiaren actuez, çointan handiski baitago Gincoaren presencian norc bere buriaren atchikitzcia, eta acto been eguiteco maneraz.* 78  
 LAURGUERRENA. *Çointan hobeki orano ezplicathia baita Gincoaren presencian egoiteco pratika, eta çointan erakasten<sup>6</sup> baita moyen bat net ihia, prootzchossa <459> eta net perfeita, bethi<sup>7</sup> Gincoaren presencian egoiteco.* 83  
 BOSTGUERRENA. *Azken capitulian Gincoaren presencian ibilteco erran dugun maneraren eta beste Gincoaren aitcinian ibilteco maneren arthian den liferenciez, eta explatu dugunac beste orotan gagnan dien abanthailhez.* 87  
 10 SEIGUERRENA. *Nola nehorc eguin behar thien gauçac, Gincoari daukola choilki been eguiteco.* 91  
 ÇAZPIGUERRENA. *Gincoaren borondatera egoithiaz.* 92

## OTOITÇAZ

- LEHEN CAPITULIA. *Otoitçaren merechimendiaz eta baliostarçunaz.* 94  
 BIGUERRENA. *Otoitçaren<sup>8</sup> dugun beharraz.* 97  
 HIROURGUERRENA. *Gincoari dugun obligacioniaz, ceren otoitzça beçain hun eta necessario den gauça bat hain ibi içan ladin nahi uken dien.* 103  
 LAURGUERRENA. *Çunbat maneraz otoitzça<sup>9</sup> eguin dateen.*<sup>10</sup> 106  
 BOSTGUERRENA. *Bi otoitzça suerte horien explicacionia, Iskiritura Seindutic idokia.* 109  
 20 SEIGUERRENA. *Meditacione ordenariuaren edo goguaketa seindien necessitathiaz.* 113  
 <460> ÇAZPIGUERRENA. *Meditacionetic idoki deçakegun abanthailha handi batez eta nola eguin behar den<sup>11</sup> meditacioniaz prootzchatceco.* 120  
 CORTZCIGUERRENA. *Abertimendu bat çoin anitz balia baitate<sup>12</sup> otoitzçaren edo meditacioniaren unxa eguiteco eta hartaric prootzchu idokiteco.* 125  
 BEDERATCIGUERRENA. *Nola endelgatu behar den meditacionian nehorc goguan edo bihotzian hartu behar diela beharren dien gauça, eta hari finkatu eta jarraiki uken artekan.* 130  
 30 HAMARGUERRENA. *Meditacioniaren eguiteco beste çunbait moyenez edo bidez.* 140  
 HAMECAGUERRENA. *Çoinhen prootzchoz den gure Jaunaren Passione seindiaren gagnan meditacia edo goguaketa egithia; Gincoari çoinhen laket çacon meditacione hura.* 153

---

5 Liburu barreneko izenburuan *beti* (74) dakar.

6 Liburuak *erakasten* dakar, baina liburu barreneko izenburuan *erakasten* (83).

7 Liburu barreneko izenburuan *beti* (83) dakar.

8 Liburu barreneko izenburuan *Otoitçaren* (97) dakar.

9 Liburu barreneko izenburuak *otoitzza* (106) dakar.

10 Liburu barreneko izenburuan *daiteen* (106) dakar.

11 Liburu barreneko izenburuak *dien* (120) dakar.

12 Liburu barreneko izenburuak *baitaite* (125) dakar.

HAMABIGUERRENA. *Cer maneratan egun behar den meditacionia Jesu-Christoren Passione seindiaren gagnan eta gutan Passione seindiac pitz-araci behar thien devocio-nesco seindimendiez.* 156

HAMAHIRURGUERRENA. *Salbaçale Jaunaren sofrikerien edo ppenen meditacionetic idoki behar dugun prootzchu edo fruthietaric bat duçu gure becathien dolia eta contricionia.* 163

<461> HAMALAURGUERRENA. *Gincoaren amoriuaren seindimendiaz.* 171

HAMABOSTGUERRENA. *Gincoaren eretceraco ezkerresco edo erremesthiamendusco seindimendiaz.* 175

HAMASSEIGUERRENA. *Jesu-Christoren bicitciaren eta ppenen meditatcetic idoki behar dugun frutu edo prootzchuric handiena dela, haren imitatcia edo haren exemplien seguitcia.* 182

HAMAÇASPIGUEERRENA. *Çointan çunbait exempluz fincatcen edo erakasten baita Gincoari çoinhen laket çakon Jesu-Christoren ppenen meditatcia.* 188

1

10

20

## COMMUNIONE SEINDIAZ

LEHEN CAPITULIA. *Communione seindura hurrandu behar dela arimaco chahutarçun handi bateki, ez choilk*<sup>13</sup>* becatu mortaletaric, bena ere venialetaric.* 192

BIGUERRENA. *Beste disposizione suerte batez eta preparacione berheciago batez Aldareco Sacramendu seindiaren errecebitceco.* 196

HIRURGUERRENA. *Beste goguaketa devot çunbaitez, çointçaz nehor balia baitate edo cerbitzcha Communione seindura preparatceco.* 202

LAURGUERRENA. *Cer egün behar den communiatu onduan eta nolakuac içan behar duten erremesthiamendie.* 208

<462> BOSTGUERRENA. *Communiatu onduan Jaunaren erremesthiatceco beste guiza batez.* 212

SEIGUERRENA. *Communione seindutic idoki behar den fruthiaz edo prootzchiaz.* 215

ÇAZPIGUEERRENA. *Ardura communiatcia erremedio handi edo askar bat dela tentacione suerte ororen contre, eta berheciki garbitarçunaren beguiratceco.* 220

30

## MEÇA SEINDIAZ

LEHEN CAPITULIA. *Nola inçun behar den Meça Seindia.* 225

BIGUERRENA. *Çunbait exempluz egun oroz Meçaren inçuthiaren [abanthalharen]<sup>14</sup> gagnan eta Apecec egun oroz Meçaren erraiteco uken behar duten arranguraz, eta cer errespetureki<sup>15</sup> batbederac Meça inçun behar dien.* 243

<sup>13</sup> Liburu barreneko izenburuak dieresia dakar: *choilk*i** (192).

<sup>14</sup> Hitz hau falta da, baina liburu barreneko izenburuan (243) badator.

<sup>15</sup> Liburuak errespetureki dakar, baina liburu barreneko izenburuan errespetureki (243) ageri da.

1

## UMILITATHIAZ

LEHEN CAPITULIA. *Umilitathiaren baliostarçunaz eta umilitathiaren dugun beharraz.* 256

BIGUERRENA. *Umilitathia beste bertuthe ororen fundamena dela.* 261

HIROURGUERRENA. *Cointan bertuthe principalac bedera-bedera igaranez, explicatzen baita berhecikiago nolaz den <463> beste bertuthe ororen fundamena.* 266

LAURGUERRENA. *Umilitathiaren lehen graduaz, çoin baitago norc bere buriaz sinheste edo opinione apal baten ukeithian.* 275

10 BOSTGUERRENA. *Bere buriaren eçagutciaz, çoin baita umilitathiaren ithurburia edo haxarria, eta hartara heltceco bide bakarra.* 279

SEIGUERRENA. *Nehorc bere buriaren eçagutceco eta umilitathiaren jardiresteco ecinago bide hun eta segur bat dela bere becathiez orhitzcia.* 283

ÇAZPIGUERRENA. *Nola behar tugun gure buriac eçagutu bihotzçac eta fidaincha galdu gabe.* 291

CORTZCIGUERRENA. *Erran dugun umilitathiaren jardiresteco eta prootzchatceco net hun eta balioz den examenaz edo goguaketez.* 297

## GINCOAREN BORONDATERA EGOITHIAZ

LEHEN CAPITULIA. *Çointan bi fundamen edo principioz minçaturen baikira Gincoaren placerrera edo bo[ro]ndatera<sup>16</sup> egoithiaren gagnan.* 299

20 BIGUERRENA. *Mundian heltcen diren malur eta calamitate publico orotan Gincoaren placerrera eta borondatera egon behar guirela.* 307

<464> HIROURGUERRENA. *Gure becathien orhitzchapena eta dolumena gauça hun bat dela Gincoac igorten derauzkigun affligimendu general eta particular ororen pacencia handireki sofritceco.* 313

LAURGUERRENA. *Gincoaren borondatera egon behar guirela eritarçunetan.* 323<sup>17</sup>

BOSTGUERRENA. *Biciteco ala hiltceco Gincoaren borondatera edo haren placerrera egon behar guirela.* 333

SEIGUERRENA. *Çunbait arraçoinhez, çointçaz erakasten baita becaturic gabe eta seinduki hiltcia desira dirogula.* 338

30

## GARBITARÇUNAZ

LEHEN CAPITULIA. *Garbitarçunaren excellenciaz eta graduez, çoinhen medioz igaran behar baitugu bertuthe haren perfeccionera.* 352

BIGUERRENA. *Garbitarçunaren beguiratceco nehorc behar ci mortificatu edo bere nahiac bencitu eta arranguroskei gogua eman bere sensier eta berheciki beguier.* 357

---

<sup>16</sup> Liburu barreneko izenburuan *borondatera* (299) dakar.

<sup>17</sup> Liburuak 223 dakar.

HIROURGUEERRENA. *Garbitarçunaren gagnan gauçaric thipienez nehorc cassu eguin behar diela.* 361 1

LAURGUERRENA. *Confessionian berheciki Garbitarçunaren contreco gauçaric thipienez cassu eguin behar dela.* 366

<465> BOSTGUERRENA. *Amoriuaren passionia, çoinhen gauça bortitzça den eta langerosa, eta çoinhen beldur içan behar guitçazkon.* 371

SEIGUERRENA. *Garbitarçunaren contreco tentacionen garhaitceco çunbait erremedioz.* 377

ÇAZPIGUERRENA. *Penitencia eta mortificacionia erremedio net hun bat duçu lohikeriaco tentacionen contre.* 385 10

CÖRTZIGUERRENA. *Lohikeriaco tentacionen contre diren beste çunbait erremedioz.* 396

BEDERATCIGUERRENA. *Gincoaren beldurraz, çoin lohikeriaco tentacionen contre oroz gagneco erremedio bat baita.* 399

HAMARGUERRENA. *Gincoaren beldurretic jitén diren prootzchiez.* 410

HAMECAGUERRENA. *Çointan idireiten baitira hitz gutitan garbitarçuneco bertuthiaren beguiratceco avisu batçu, çoinhen medioz<sup>18</sup> nehorc ibiki eçagut baititçake haren contre eguin ahal ditukeen faltac.* 416

## JUJAMENDU ARHINEZ

LEHEN CAPITULIA. *Certan daguen Jujamendu arhinen malecia.* 417 20

BIGUERRENA. *Nuntic eta certaric gitén diren Jujamendu gaistuac eta heen contreco erremediezez.* 424<sup>19</sup>

<466> HIROURGUEERRENA. *Jujamendu gaistuen beste çunbait iturburuz.* 431

LAURGUERRENA. *Medisiciaz edo besten gagnan gaiski minçatciaz.* 436

BOSTGUERRENA. *Medisicia errailer estela behar behatu.* 442

SEIGUERRENA. *Karitathiaren edo elgarganaco amoriuaren eçarteko eta atchikitceco goguaketa hun batçuz, çoinhec ekarrico baikituste medisicia gucier ihez eguitera.* 447

Tablaren eta liburiaren akabança.

<sup>18</sup> Liburuak *medioz* dakar.

<sup>19</sup> Liburuak 414 dakar.



5  
HIZTEGIA

Hitz zerrenda honek liburuan ageri diren eta iruzkin zenbait behar duten eleak dakartzia. Hitza bertan agertzeko arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke: polimorfismoa argitzea, aldaera bata eta bestearen berri emanet; ele baten esanahia zehaztea edo horren ingurumariaren berri ematea; hitzaren formaren aldetik ñabardurak azaltzea; liburuan hitza idazteko izan diren zalantzen berri ematea; jatorrizko liburueta zein hitz dagoen adieraztea; mailegu baten berri ematea; hitza nagusiki zein euskalkitan baliatu den esatea; erabili duten idazleen berri ekartzea... Anitz arrazoi egon daiteke ele bat zerrenda honetara ekartzeko.<sup>1</sup>

Hona, beraz, liburuko hainbat eta hainbat hitzez egin ditugun iruzkinen zerrenda:

*abanza[tu]*: adiera ‘adieraztea, esatea’ du; behin baizik ez da ageri eta frantsesaren mailegu gordina dirudi: *nola erran edo abança daiteke, umilitathia bertuthe ororen eta etche ispiritualaren cimendia dela* (263). Hona frantsesez: *comment peut-on avancer que l'humilité est le fondement de toutes les autres vertus et de tout l'édifice spirituel* (RD 3, 277).

*abanzu*: *avancement* mailegutegi dagokio, ‘aitzinamendua’ adierazten du; cf. *gure abançu ispiritualaren* sintagma (22).

*abis & abisu*: bi aldaerek ‘aholkua’ adiera dute; *abis* (54, 347, 392, 450) eta *abisu* (147, 244, 416, 465). Adiera ‘aholkua galdegitea’ edo ‘aholkua ematea’ dute *abis galdein-ek* (244, 392) eta *abis eman-ek* (244, 253) ere. Liburuan mezu, ohar edo abisuaren adiera *mezu* hitzak dakar. Testuetan bederen, ekialdekoak dirudi *abis* aldaerak, lapurtar eta baxenabarta-

rrek *abisu* dakarte. Maisterrek *abisü* dabil, baina Mercyk *abis*, *Charlemagne* pastoralak bezala. Laneufvillek ere *avissa* dakar (137), non -a artikulua izan baitaiteke. Gézek, aldiz, *abisa* dakar, berezko -a duelarik. Etxahunek, berriz, *abis & abisü*, biak dakartzia. Luzaideko katiximan (1833) *abis & abisu* ditugu, eta Bordel luzaidarrak (xix) *abisa* dakar ‘aholkua’ adieran, baina bestela, ekialdekoak da *abis* aldaera. Liburuak *ahulgu* hitza ere badakar bestalde: *ahulguz eta avisez* (450); agerpen bakarra da, Maurice Harrietek hiztegira bildu zuena. Hapaxa dirudi, gainera, inor gehiagok ez baitu *ahulgu* aldaera hau baliatu. Aditza *ahulgatu* (19) dakar, agerpen bakarrean hau ere; halaz guztiz ere, *ahulka[tu]* ere badakar liburuak (104).

*aboro & oboro*: ez luke *oboro* honek aldaera hain berria izan behar, oinarria \**hobaro*

<sup>1</sup> Lan eta idazleen aipamenetan *OEH*-tik harturikako hainbat berri agertuko da atal honetan.

baldin badu. Etxeparek *oboro* dakar, Oihenartek (*h*)*oboro*, Zalgizek *hoboro*, baina Tartasek, Belapeirek eta Maisterek *haboro*. Aldiz, Erronkarin *obro* zegoen, baina Azkuek Zaraitzun *aboro* bildu zuen.

*aborritu*: ‘gaitzetsi, higuindu’ (137). Laneuvillek *aborritzen* dakar (85) eta Erronkariko Mendigatxak *emaztetarik aborritruk* (Irigoyen 1957: 132). Mendebalerago, *aborrezitu* baliatzen da Aezkoan eta Elkanoko Lizarragak ere bazerabilen.

*agudo*: adjektiboa da eta trebetasuna adierazten du: *campoco eitekuetan, itxulietan agudo eta erne guirela, lanetan perestu* (15); *eci mundian gende çuhurren eta aguduen hantatuz nehor prootzhatcen bada* (96). Hondarreko adibidearen gaztelaniazko jatorrizkoak *hombres prudentes y sabios* dakar (I, 215) eta frantsez *gens sages et prudens* (RD 2, 4).

*aharra*: *nehorc etci ikussico ez bekaisguaric, ez diskordiaric, ez aharraric, ez deuz ere anhayen arteco amoriua hotz-araz diroenic* (269); ‘gatazka, haserrealdia, errieta’. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan baliatzen da.

*ahospe* & *ahozpe*: *Gincoaren Majestathia-ren aitcinian ahozpe beçala humiliathiac* (238) ‘ahuspez’. Arxuk *ahozpe* dakar eta Ibarrolako Salaberrik *ahuspe*, baina Salaberrik berak, San Mateoren ebangelioan *ahuspez eman zen idatzi zuen* (168). XIX. mendeko katixima batzuetan ere ageri da: Donapaleukoan *ahuzpe* (245) eta Cazenaveren San Mateoren ebangelioan *ahuspe*. Leizarragak, Axularrek, Pouvreaux, Arxuk eta Inxauspek *ahozpez* dakarte, Laneuvillek eta Gèzek *ahospez*. Bazkazaneko 1762ko idazkian *ahuspez* (219) ageri da. Hona XIX. mendeko katiximak: Donam kat: *ahuzpez* (272) & *ahuzpekatuik* (273) / Salab SM: *ahuspez* (10) / Irib SM: *ahuspez* (23).

*ahulgatu* (19) & *ahulgu* (450): biek agerpen bakarra dute liburuan eta Maurice Harriet da hauen berri dakinaren hiztegi-gile bakarra; *ahulgu* ez dakar liburuak, L.-M. Suarés d'Aulan-en onespenak baizik. Badakigu Maurice Harrietek itzulpen liburu honen ale bat zeukala, horregatik, hapax itxura dute bi aldaerok. Liburuak berak *ahulkatzen* dakar (104) behin. Ekialdeko hitza da *aholku*, OEH-k Zuberoa-Amikuzetan dakar. Maurice Harrietek *ahulkatu* & *ahulgatu* eta *aholku* & *ahulgu* dakartzia.

*aiher*: ‘zaletasuna, joera, nahia’. Agerpen bakarra du: *amorecatic laudoriuen aiherrac gal-araci esteçagun eguiten tugun obra laudagarrien prootzchia* (260). Etxeberri Ziburukoak, Duvoisinek edo Barbier garaztarrak idatzi adibideak da-kartza OEH-k.

*ainguru* & *ainguri*: liburuan behin dago *ainguri*, beste agerraldi guztiak *ainguru* dira. Etxeparek berak *ainguru* dakar, baina Tartasek gehiago darabil *aingeru* aldaera *ainguru* baino. Laphitzek ere badu inoizka *ainguru* eta Laneuvillek ere berdin: *aingurien*. Oro har, ekialdean *aingürü* dago: Belapeire, Maister, Egiategi, *Charlemagne...* lekuko. Aldiz, Leizarragak, Materrek, Etxeberri Ziburukoak, Pouvreaux, Gazteluzarrek, Xuriok, Haranederrek, Larregik, Baratziautek-eta *aingeru* darabilte, baina Baztanen eta Nafarroa Garaiko hainbat eskualdetan bezala, Axularrek eta Etxeberri Sarakoak *aingiru* dute.

*aitzin*: *aitzina* da liburuan adlatiboa, *aitzinetik* ablatiboa eta *aitzinian* inesiboa.

*akusu*: adiera ‘salaketa’ du eta Ipar Euskal Herrian baizik ez da baliatu, Lapurdiko literaturan: Pouvreau, Larregi, Duhalde da-kartza OEH-k erabiltzaile.

*ala*: hiru adiera har ditzake, hautakaria, heiagorazkoa eta banakaria. Horra hiurrak jarraian: *guiçonac eztaki Gincoaren amoriuan ala haren odiuan den* (35);

- Ala baitu orenac jithia luçatcen!* (351); *ala deçacien jan, ala edan deçacien edo beste cernahi gauça eguin deçacien, oro Gingoaren gloriari daucola eguin itçacie* (83).
- alde:* ohiko ‘alderdia’ adieraz landa, ‘multzoa’ esanahia aipagarri da: *gogua emaçu ouniciaren çolan den harinha aldiac ounia gal-araz eztecan* (43).
- alegera & alegeraki:* ohart liburuak ez dakarrela Zuberoan ohikoa den *alagera* aldaera.
- amano:* (116) ‘unidea’; *OEH*-ren arabera, Lapurdin, Baxenabarreko Baigorrin, Zaraitzun eta Zuberoan baliatzen da.
- aments:* ‘bederen, behintzat’ adieran; *Sacramendu Adoragarri horrec, beste Sacramendiec beçala gracia emaiten edo amenx emendatcen dici* (216). Euskal Herriko ekialdekoa da: Tartas, *Otohoitce eta cantica*, Maister, *Charlemagne*, Lanneufville... dira erabiltzaile. Hiztegiileetan Ibarrolako Salaberrik, Gèzek eta Larrasketek dakarte. Etxahunek, bestalde, ‘segurki’ adieran dakar.
- amoratsu:* ‘maitagarría’ adierazten du. Ia ez da baliatu, Zuberoako 1676 inguruko *Pronus-en*, 1734ko *Otohoitce eta cantica-n* (49) eta *Pratica-n* baizik ez da agertu; cf. Agirre (1998: 16). Hona adibide bat: *bihotzçaren Gingoaganaco seindimendu amoraxietan egoithia* (88).
- antzo:* *antço-orotara* (236), ‘era, modua’ adierazten du eta izen gisa erabiltzen da, Oihenartek edo Inxauspek bezala. Adizlagun gisa ere badakar liburuak: *adiskide anço* (251). *OEH*-k Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan kokatzen du eta Zaraitzun *anzo*.
- apairu:* ‘janaldia’ edo ‘otordua’ adierazten du. Leizarragak *othoranza-ren* Zuberoako kidetzat dakar eta halaxe dugu Belapeireren lanean; Laneufville-n ere ageri da. *OEH*-k Baxenabarren, Zuberoan eta Erronkarin kokatzen du, baina Bidankozeko aldaera *apario* da. Zuberan Inxauspek *apairü* idazten du, baina Larrasketek *apaidü*; dagoeneko Etxahunek *apairü & apaidü* dakartzza.
- apaizeatu:* (221, 222, 238, 318, 322), frantseseko *apaiser* mailegua da, ‘baretu, eztitu’ adiera duena; adibide batean <tc> dakar, *apaiteatcen* (221). Maisterrek *apaisatü* dakar.
- aparanzia (etzi ... -rik): etci aparanciaric Gingoaganic abileciaren dohainha recebitu cien batec sinhex ahal ceçan guioñec eguin potretetan Gincotarçunic bacela eta heen adoratcia prootchoz cela* (372); cf. 371 eta 388 ere. Ukapenean baliatzen da, ‘ez du logikarik’, ‘ez du zentzurik’ adieran. Zuberoako Altzain apentziarik ez düyü bildu zuen Gotzon Garate zenak ‘horrek ez du sentidurik?’ adieran (1988: 272). Gure liburuan, bestalde, *aparenzia* hitza ‘itxura’ adieran ageri da: *falta berac gaiskiaren aparenzia berekin, liferent iduritzen ciauskiguçu maite tugun eta maite estitugun personetan* (431). Baxenabarreko Amikuzen entzuten dugu *apeentziaik ee edo apeentzia* esaldia, baina ‘inondik ere’ adierari hurbiltzen zaio gehiago.
- apariatu:* (64, 223, 244); liburuko hiru agerpenetan ‘norabide bat hartzea’ adieran ageri da.
- ara:* ‘era, modua’ adierazten du: *ara edo ethorça* (7); *bici arretan* (50). Ibarrolako Salaberrik eta Gèzek beren hiztegietan dakarte. *OEH*-k Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan kokatzen du.
- arabez:* *Mentura cintakea hiltceco orenian haren ez cofessatcera? Ez aravez!* (369); adibide hau bakarra da liburuan. Guk hor dakusagun adiera ‘zalantzarak gabe’ da. Mendebaleroago, Aezkoan *arabes ere!* esaten da halakoxe zentzia emateko; heiagora adiera ere har dezake Aezkoan, eta zerbait gertatzea ala ez gertatzea nahi denean baliatzen da. *OEH*-k dioenez, funtsean baxenabar eta zuberotarrrena da eta *arauz* egituratik abiatzen

da; zuberotarrek *arauz* eta baxenabarretek *araiz* darabilte. Erronkariko Bidankozenean ere *arabez* dakar Azkuek, ‘di-rudienez, beharbada’ adieran.

*arautsu-*: *arau-ra* edo *arabera-ra* inguratzen da, halako mailakatzea eginez; *endeguiaren arauxua* dio (75-6). Beste alde batetik, *arautsuko* dakar (191), ‘itxurazko, antzekoa, araberakoa’ adieran; *arautsuz* ere badarabil (68), arrestiko adiera edo duena: *OEH-k* ‘guti gora behera’ dakar.

*arazione*: (282, 320, 340); ez dakigu zinez eta izatez hitz hau izan ote den, ala in-primategiko huts baten ondorioa den ala *jenerazione* → *jende-arazione* berriinterpretatu den; nolanahi ere den, hiru aldiz ageri da liburuan. Andrés de Lizarzak zalantzak du ‘los seres’ ote den (1967: 105), eta adibidearen orrialdea makur dakar: 282an dago eta ez 89an. *OEH-k*, berriz, ‘pueblo, nación’ adiera dakar. Ez dakigu darabilen *arazione*-ren adibidea in-primategian gertatu huts batzen ondorioa ote den. Liburuaren Avignonongo argitalpenean, beharbada eskuizkribuan “nazione” izan behar zuena liburura *arazione* eran joan ote dateke? Bihurrikeria ikusgarria litzateke honela balitz, baina aintzat har bedi liburuan beste bi aldiz *arazione* ageri dela, eta gainera, behin bederen beste adiera bat duela. *Pratica*-ko lehen adibidea hau da: *Aracione guiac cioçu Isaia Prophetac, Ginoaren aitcinian ezpalira beçala tuçu, eta haren eretcian ezdeuz beçala* (282); eskuizkribuak *Nazione* ote zekarkeen beharbada? Jatorrizkoan *toutes les nations* dugu. Liburuko bigarren adibideak ‘belaunaldi’ adiera har lezake: *Ginoac Aiten becatbiac punitcen thiela hirur eta laurguerren aracionerakuan* (320) eta jatorrizkoak honela dakar: *hasta la tercera y cuarta generacion / jusques à la troisième & la quatrième generation*. Hona hirugarren adibidea: *hobe diici guerlan*

*hiltcia, gure aracioniari gure exayec so-fri-aracitcen deresten ppenen, eta gure gauça seindier eguiten deresten ezkarniuen ikuzthia beno* (340); jatorrizkoak honela dio: *mas vale morir, que ver tantos males y tantas ofensas de Dios; y con esto exortaba y animaba á los suyos á pelear / que de voir les manx que l'on fait souffrir à nostre nation*. Ehun eta hamalau urteren ondoan, *arazione*-ren bigarren erabiltzaile bat dugu, *OEH-k* ez baitakar besterik: Baionan François-Antoine Jauffret apezpikuak 1902an argitaratu katixima batean ageri da: *Sem, Cam eta Japhet, Noeren hirur semeetarik jali ziren jende-arazione guziak*.

*argizagi* (162) & *argizai* (73): ‘ilargia’ du adiera, Zuberoa-Erronkarietan bezala; *OEH-k argizai* Garazin dakar. Oro har, Baxenabarren *ilargi* eta *argizari* dira aldaera erabilienak.

*arhinmendu*: *errecebituco tici gure becatziez merechitu dugun ppenen arhinmendutaco* (318-9). Tradizio gutikoa da, 1676 inguruko Zuberoako *Pronus-en*, *Pratica-n* eta 1908ko *Eskualduna-n* baizik ez dakar *OEH-k*; cf. Agirre (1998: 19). Bada *arhinmentchataco* 1757 inguruko Zuberoako *Iganteçtaco pronoua-n* (10).

*arrabaskatu*: ‘suntsitzea’ du adiera eta liburuan behin baizik ez da ageri (322). Zuberoan baliatu ohi da, *Charlemagne eta Abraham* pastoralak lekuko, baina *arrabaskatü* aldaeran, apikaria duela. Gure liburuak <*arrabaskatu*> dakar. J. B. Coyosek okzitanieratikako mai-leguen zerrendan dakar (2006: 209), baina Oihartzabalek *abarrazka(tü)-ren metatesitzat* (1991: 181).

*arragret*: (337, 438, 441); ‘arrenkura’ adierazten du; gure liburuak *concenciac*o *arragret* eta *duda edo arragret* darabiltza, esate batera; hiru aldiz baliatzen du. Ekialdetik ezker *erregret(a)* aldaera baliatzen da Ipar Euskal Herrian eta gure liburuak ere bi aldiz dakar: *concenciac*o

*erregretic gabe* (59). *OEH*-k Jauretxe eta Bordel dakartza *erregret-en* erabiltzaile, baina Zuberoako idazkietan *arragret* ageri da, esate baterako Etxahunen lanean, nahiz baden Zuberoan *erragret* ere (*Ohoitce eta cantica*, 1734: 78). Tartasek eta *Charlemagne* pastoralak *regret* dakarte.

*arrazoin & arrozoin*: *OEH*-k XVII-XVIII. mendeetako idazle lapurtar batzuk, Zaldubi, Xalbador eta Baztango katixima bat dakartza *arrozoin-en* erabiltzaile, baina idazle guztietaez ez da aldaera bakarra.

*arrerosi*: adibide gehienetan *arerossi* idatzirik; *bena ene edo guiçonaren arerosthian gosta çauçu mila afronit, mila dezohore* (173); ‘erredimitzea, erreskatatzea’ du adiera. Zuberoako idazleek baliatu ohi dute: Belapeirek, *Charlemagne* pastoralak, Inxauspek; baita Haraneder lapurtarrak ere. Zaraitzun ere badakar Azkuek. Izena ere badakar *Pratica-k*: *arrerospen*, frantsesetx ‘rédemption’.

*arresta (eman)*: (36, 60, 426). *OEH*-k ‘epai’ adiera dakar; cf. liburuko bereko *heriuren arresta* (36); *jujamendu particularreco arresta seculaco içanen baita* (60); *cibauren contre arresta emaçu* (426) erabilera. Ipar Euskal Herriko idazle ugari ibili dute; cf. Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Argaiñaratz, Belapeire, *Ohoitce eta cantica* (1734: 74), Xurio, *Charlemagne* pastoralak...

*arresto*: iduri luke ‘aztarna’ edo ‘arrastoa’ dela: *lehenneco bicitce gaisthuaren arresto batçu eta bicio horren habituda çaharren punimendu bat* (396).

*arrier*: behaçaliac berebeitarte *arriera* erraila laudatzen *beçala* baitu (443); liburuko adibide bakarra da eta adiera, ‘alaia, atsegina, irrifartsua’ dakar *OEH*-k. Erabiltzailetan, Inxauspe eta *Herria* aldizariko Zuberoako berri bat baizik ez dakar hiztegiak.

*arrotz*: (214, 271); ‘besteren etxeen ostatu hartu duena, kanpotarra’ du adiera. *Pau-*

*lec nahi cicin Antonioc eguin ceçan Arrotz beçala* (271); 214-n *<arroz>* dakar.

*arturratze*: (76); ‘egunsentia’ du adiera. Literaturan guti baliatu da aldaera hau, *OEH*-k Axular eta gure liburua baizik ez dakartza.

*ataku*: ‘erasoa’, non “ataku eman” lokuzioak ‘erasotzea’ adiera duen. Ohiz Ipar Euskal Herrian *ataka* da hitza, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dagoena; Etxeberri Ziburukoa, Argaiñaratz edo Inxauspe dira *ataka-ren* erabiltzaile; cf. Maisterren *atakarzünak*. Gure liburuak mugagabea *ataku* aldaera dakin (80, 385, 389); berebat, *atakien* (216, 392) eta *atakier* (219, 398) aldaera jokatuek, “ataku” dute oinarrian beharbada. Ez dakigu hitz honetan ekiadegi hiztunek berranalisia egin ote duten, *axerü ‘azeri’* kasuan legez, hau da, *atake* → *atakia* eta mugatutik *ataku* mugagabea eraiki duten, baina hartara, ez lego ke *ataka* aldaera oinarrian. *OEH*-k *ataki* aditz partizipioa dakin Zuberoan, *Charlemagne* pastoralean eta Etxahunen lanean. Honelako partizipio berriak ugari dira Zuberoan: *akabi, arrabaski, desaloki, emplegi, erre-marki, eskapi & espaki, esprabi, esteki, kontserbi, porroki, xeheki...*; cf. liburu honetan 2.4.5.5.

*atzeman*: (409, 447); ‘harrapatu, aurkitu’ adieran. Lehen idazkietan Ipar Euskal Herrikoek baizik ez zuten baliatu; hauen artean zuberotarren *atzaman* aldaera nabarmendu daiteke, zeina Leizarragak ere bai baitakar. Ibarrolako Salaberrik *hatzaman* dakin hiztegian; XIX. mende bukaeratik honat *atxeman* aldaera ere aise ikus daiteke idazkietan.

*atzimanka*: *itxassuan korsxuan edo huntarçun atcimanca çabilcenec* (253), ‘atzemanez, ostuz’ adieran. Oro har, Lapurdi-Baxenabarretan *atzemanka* dena —berrikiago *atxemanka*—, *atzamanka* da Zuberoan.

*augadura ‘ahuldura’ & augatu ‘ahuldu’:*

Ibarrolako Salaberrik eta A. de Lizarzak ere adiera hau dakarte. Hona liburuko bi adibideak: *flakecia eta augadura hil-garri bat seindi baitçuten* (218); *haren-daco amorioz augathiä bainiz* (346).

*auhari:* ‘afaria’; OEH-k Baxenabarreko Amikuzen kokatzen du. Pouvreau, Ibarrolako Salaberri eta Maurice Harriet hiztegileek dakarte aldaera hau; jakina da Zuberoan *aihari* aldaera baliatzen dela.

*aurtemehin:* ‘duela denbora guti’ (395). Aldaera ugari du hitz honek eta hedadura zabala Euskal Herrian; esate batera, Bizkaian ere baliatzen da. Gure eskualdean, Salaberri Ibarrolakoak *arthemehin* dakar; *aurtemehin*-ek hasperena hirugarrren silaban darama, balirudike hitzak berandu lotu direla.

*bakoitz:* Pirinioetako ibarretako edo Zuberoako euskaran gorde den bezala, ‘bakkara’ adieraz dezake; *hori duçu ocasione suerte hortan becatura erorteco langer handi batetaric beguiratceco bide edo moyen bacoitzça* (417). Garai batean lapurtar eta baxenabartarrek *bak(h)oitz* & *bak(h)otx* aldaerak baliatzen zituzten; esate batera, Povreauk eta Leizarragak *bakhoitz* eta Axularrek *bakotx*, baina XVIII. mendearren erditik honat, Lapurdin eta Baxenabarren *bak(h)otx* aldaera nagusitu da, baina zuberotarrek gehienik *bakhoitz* dute. Dagokigun ‘bakar’-en adiera honetan baliatu dute Leizarragak, Materrek, Etxeberry Ziburukoak, Axularrek, Oihenartek, Belapeirek, Urtek, Haranederrek, Maisterrek, Laneufvillek, Inxauspek, Egiategik, Arxuk... Nafarroa Garaiko toponimian ageri da eta Beriain edo Bizkaiko Kapanaga ere erabiltzaile dira. Bigarren adieran, egun Euskal Herri gehienean baliatzen denean ere ageri da gure liburuan: *bakoitzcac bere aldetik besthiari oguiaren hautx-aracitceco arraçoinhac ekarten citicin* (271).

*baraskariten (ari)* (444) & *bazkaritera (gomitatu)* (258): OEH-k *barazkarite* eta *bazkarite* dakartza aditz izen gisa. Zuberoan astolaster batean ageri zaigu: *ützirik ele horik oro hots barazkaitera*. Liburu honetan dagoeneko ikusi dugu hainbat idazle zaharrek *barazkari* eta *barazkaldu* aldaera zaharrak zerabiltzatela. Etxepare: *barazkari* / Leizarraga; *barazkari*, *barazkaldu* / Oihenart: *ba-raskariaz* (94); *negar-herakiak*, *hek ene baraskal* (355) / Tartas: *barazcal ondoan* (Arima, 37).

*bardin:* nagusi da liburuan, behin baizik ez dago *berdin* (149). Ekialdetik Iruñerriraino iristen zen aldaera honen era bilera. Idazleen artean, besteak beste, Etxeparek, Leizarragak, Oihenartek, Tartasek, Maisterrek eta Cazenaveren Garaziko eta Iribarnegarairen Baigostrriko ebajelioek dakarte. Hegoaldean badakigu Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan eta Eguesibarren bederen ibiltzen zela.

*barkamenduska[tu]:* adibide bat dakar; *hartakotz, çuaça berris haren idireitera eta barkamenduska çazkio, eta dudaric gabe erranen derauçü certako guiza hartan minçatu çauçun* (395). Nor Nori sailean jokatzen zen eta “barkamendu eskatu” egituraren emaitza da.

*bat-bathian:* bi era darabiltza, *bat-bathian* eta *bet-bet(h)an*; *bat-bathian etchia erortera gin duçu* (40) & *eztirela bet-betan erorten* (39).

*beha egon:* ‘begira egotea’ da, honako adibidean ageri denez: *çure bihotçarı dia-goçu beha* (150), zeina frantsesez honela baita: *il ne regarde que voutre coeur; gaztelaniaz, berriz: y á eso mira.* Berebat, *beha citeste eta soguicie* (158) dago, *regardez et voyez* dena, latinez *attende* & *videte*. Baina zain egotearen ideia ere hartzen du: *orano jin behar dien gaitzçaren beha egoithiac ardura badici gaitzçac berac beno cerbait ppenagarria-*

*goric* (162), non jatorrizkoak honela baitio: *el estar esperando la adversidad / l'attente du mal.*

*behatu:* (96, 103, 104, 104, 119, 274, 313, 442, 443, 443, 466); *izan* aditz iragangaitza baliatzen du eta datiboa galdegiten. Adieraz ‘entzutea’ da, bereziki Zuberoan eta gure liburu honetan; Ibarrolako Salaberrik ere badakar adiera hau eta Erronkarin ere hala da. Idazleean, Oihenartek, Tartasek edo Belapeirek ere adiera honetan dakarte. Hona liburuko adibide zenbait: *medisencia errailer estela behar behatu* (442), non gaztelaniazko jatorrizkoak *que no habemos de dar oídos á murmuraciones* baitakar; *theologienec, erakasteko noiz den becatu mortal medisent bati behatcia* (442), gaztelaniaz *si el que oye al que murmura, y no le resiste, peca mortalmente?* baita (II/2/10/107. or.); *çure manier ezkitu, ez behatu, ez jarraiki* (313), frantsesez honela delarik: *nous n'avons ni écouté, ni observé vos préceptes* (RD 2, 497); *ikuzten dutelaric eztecaten ikuz, behatzcen direlaric eztecaten inçun, ez endelga* (119), jatorrizkoan *ut videntes non videant, et audientes non audiant, neque intelligant* dakarrelarik (I/5/8/234 or.), eta frantses itzulpenean honela dio Régnier Desmarais-ek: *qu'en écoutant, ils n'écoutent pas* (RD 2, 48). Dena den, Ipar Euskal Herrian ‘entzutea’ beharrean, arras hurbil den ‘adi egotea’ ere izan liteke inoiz adiera. Lanneville katiximan ez dirudi beti entzutea denik. Ezaguna da, bestalde, ‘begiratzea, so egitea’ ere izan daitekeela “behatza”, batik bat Lapurdi eta Baxenabarren, baina ez dirudi gure liburuan honela denik; cf. *OEH* (IV, 334-5).

*behinguaz:* Zuberoako tradizioak eta Leizarraga, Axular, Etxeberri Ziburukoa, Oihenart eta Elkanoko Lizarragak eraibili dute. Adiera ez da idazle guztiotan bera; gure liburuan bi adibide daude:

*eci noiz eta ere gure otoitzcen edo beste Gincoaganaco einbide çunbaiten demboran giten baitçaucu eiteco lehiatu çunbait, eztici nahi behinguaz utci ditçagun Gincoaganaco einbide hurac, bena eiteco lehiatu hetaric landan ahalic sarriena eguin ditçagun, Çuburraren erran hoen araura: deussec ere ezteçaçula otoitzca utzaraz, erran nahi baita, deuz eztela behinguaz utzçarazten ahal derauçunic, eci guiristinhó hun batec, haren eta beste Gincoaganaco einbiden eiteco, oraichoo edo guerochoo hartuco edo idiren dici* (16). Guk hartzen diogun esanahia honelakoa da guti goiti beheiti: ‘aldi bakar batez ere’.

*beire:* (223); Oihenart eta Tartas *beire* aldaeraren baliatzaile dira. Oihenartek 92. atsotitzean *Ber'etxea beirez dadukanak estalirik* dakar eta itzulpena ‘vitre / vidrio’ da; ez dakigu zerengatik, Jean-Baptiste Orpustanek eratu Oihenarten hiztegian *beira* ageri da (37). Egiategik *beire* eta *beira*, bi aldaerak darabiltza. Leizarragak *beira* ‘beira’ vs. *beire* ‘edalontzia’ bereizten ditu eta Ibarrolako Salaberriren hiztegiak ere *beire* ‘edateko ontzi zutikakoa’ dakar. Gure liburuan *beire* ‘beira’ da, gaztelaniazko jatorrizkoaren arabera: *un hijo de un judío, oficial de hacer vidrio / le echó en el horno de vidrio que estaba encendido* (II/8/10/424. or.).

*beitarte & berthaite:* inondik ere, metatesia gertatu bide da ‘aurpegia’ adierazten duen hitz honetan: *beitarte > beitarte > bertaite* norabidean.

*bekaizti:* izen nahiz adjektibo zentzuan dabil, bekaitzaren adieran edo bekaitza sentitzen duen pertsona izendatzeko; *cerbitzchari batec bekaizthiz* (246); *hala nola besteren ppenez bekaistis placer harutz* (158). Bi hauetan izena da, edo izeanean eraiki adizlaguna, bederen, baina baditu *bekaisteria* (101) eta *bekaizgua* (269, 297, 431) izenak ere. Adjektiboa

ere bada *bekaizti* liburuan: *haren cargu handiez bekaisti cirenec* (251). Erabileria zabala du geografian, Baztanen, Lapurdin, Baxenabarren, Zuberoan eta Erronkarin ageri da; Hegaoaldeko erabilera berriak dira. Etxeberri Ziburu-koak, Oihenartek, Pouvreauk, Xuriok, Haranederrek, Larregik, Laneufvillek, Duhaldek, Goihetxek eta Duvoisinek darabil; Gèzen ere bada eta Larrasketek *bekhaxti* eta *bekhaxteria* daktar-tza. Dena den, baliatzen da Zuberoan *bekhaxti* ‘zekena, zikoitza’ adierazteko ere.

*belar*: ‘kopeta, bekokia’ adierazten du eta iraganean erabilera zabala izan zuen Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan, baina xx. mendean ez dago adibiderik. Hona *Pratica*-ko bat: *haren berthaitia-ren ikusthia beçala duçu eta haren icenaren belarrian ekarthia* (84-5).

*beldurtitu*: *etcitu behar çure resolucioniaren seindutarçunac urguluxutu, bena beldurtitu* (407); ‘beldurti bilakarazi’ adieran edo. 412-n *Gincoaren beldurti içaite* dakin. Liburuan nagusiki *beldur izan* eta *beldur ukeiteco* (282, 334) erak ageri dira, ez dakin *beldurtu-rik* batere, ez da aditz gisa ageri. Duvoisinek *beldurtitu* dakin bere hiztegian eta Jean Barbier garaztarrak ere badarabil: *ez othe zoan gutxiago beldurtituirik ere*.

*ber-halde*: *bena horiec oro apart edo berhalde utciric* (128). Frantsesez à part; oferitzen cicin betan gauça horien ororendaco, eta bakoitzçaren apart edo ber-halde, baten choilki ofritu bailu beçala (235); frantsesez et pour chacune séparément. OEH-k ‘aparte’ adiera dakin; ez dago idazle gehiagoren erabileraik OEH-n.

*bertaite*: *ikussico diici den beçala, bertaithez berthaithe* (68); ‘begitartea’ da, ‘aurpegia’, metatesia jasanik. Aldaera hau nagusi da liburuan, baina *beitarte* bat ere ageri da (443). Bi lekukotasun baizik ez du euskal idazleetan *bertaite* aldaera

honek: Laneufville-n *berthaite* (59) eta gure liburukoak.

*bertutos*: Lapurdi-Baxenabarretan ohikoa den -os atzikia dakin liburuak. Zuberoan -us da atzikia hau; esate batera, Maisterrek *jakitous* edo *abantallous* dakkarta eta xiberutarrenak dira *amurus, balius, bandius, phenus, serius...* Literaturan *berthutos* da nagusi, baina liburuak *bertuthoz* dakin.

*bet-bet(h)an*: badarabil *bat-bathian* ere.

*bezanbat*: Belapeire zuberotarrak erabili bezala eta 1734ko *Othoitce eta cantica-k* ere *nahi duçun beçanbat* dakin (34). Egiategik *bezaiñbeste* zerabilen eta Mais-ter-ek *bezañ beste*. Axularrek eta Pouvreauk dagoeneko *bezain bertze* daktarre. Berrikuntza ote da, baina, Zuberoan *bezainbeste?* OEH-k *bezainbeste* Amikuzen dakin eta Zuberoan *bezanbeste*.

*bidaiant*: ‘bidaaria, bidaztia’ (409); OEH-k Baxenabarren, Amikuzen eta Zuberoan dakin. Tartasen *bideiant* baliatu zuen eta Maisterrek *bidejant* eta *bedejant*. Amikuzen badira aldaera gehiago: *biaiant, bideient, pideiant*; Zuberoan ere bai: *bideiant, bideient*.

*bihoztoi & bihoztoiki*: *soldado bihozthoi bat guerlatic colpaturic alchatcen dutenian* (332); adieraz ‘ausarta’ & ‘ausardiaz’ da. Funtsean Zuberoan baliatzen da, 1676 inguruko *Pronus*, Maister, Egiategi edo Inxauspe lekuko; Gèzek ere badakar.

*bilhatu*: ‘bilakatu, bihurtu’. Zuberoako eta Amikuzeko idazkietan dakin OEH-k (Oihenart, Bela, Maister, Inxauspe, *Charlemagne*); hauezaz landa, Leizarragak, Etxeberri Ziburu-koak eta Monhok ere baliatu dute. Hona liburuko adibide bat: *har perla bilhatu hura* (326).

*bilkia*: *Eliça gucico Apespikien bilkia harc* (193). Adiera ‘bilkura’ du eta ez dirudi liburu honetaz gain beste inon ageri de-nik; *bilkua* eta *bilkua* dira idazleen aldaera baliatuenak.

*bilzarren: Isac Abadia jouan cela egun batez Ermithainen bilçarren batetala* (422).

Laneuvillek ere badakar: *gabasco bilçarrénac* (94), baina baita *bilzarre* ere (14). Gèzeren hiztegian ere ageri da: *biltzarren*, ‘conseil, réunion’; Inxauspek ere badarabil.

*bortha*: ‘atea’; ekialdekoa da, Zuberoa, Erronkari eta Amikuzekoa, baina xix. mendetik honat Baxenabarren eta Lapurdin ere baliatu da. Idazle zaharretan, Leizarraga, Zalgize, Tartas, Belapeire, Haraneder, Maister, Laneuville, Egiategi, Monho, Jauretxe, Etxahun, Arxu, Goihetxe, Inxauspe... aipa daitezke eta hiztegietan, Ibarrolako Salaberri, Gèze edo Larrasketena.

*bortxu egin*: ‘norbere borondatea bortxatu, indarra baliatu’ da adiera; *tenorez inclinacione gaistuen contre arranguroska finkatuz eta bortzchu eguiñez* (356). Gure liburuko adibideez (348, 356) eta Ibarrolako Salaberriren *bortxu* ‘indarkeria’ sarreraz landa, OEH-k Zuberoan eta Erronkarin kokatzen du; Baionako aldizkari bateko 1899ko adibide bat ere badakar.

*buluzi*: oro har, Leizarragarengandik honat lapurtarrek *buluzi* ibili dute, baina Haraneder edo Duvoisin, baxenabartarrak bezala, *buluzi-ren* erabiltzaile dira. Etxeparek edo Tartasek, esate batera, *buluzi* dakarte. Zuberoan Belapeirengandik *bilaizi* nagusi da, Oihenart barne, baina herrialde honetako idazkietan baidira *bilain(t)zi* & *bileizi* ere.

*burreu*: (411), ‘borreroa’. Zaharra eta hedadura handikoa da *borrero* aldaera, Leizarragak eta Axularrek ibilia, baina Etxeberri Ziburuokoaren garaitik Ipar Euskal Herrian baliatuena *burreu* da; Zuberoan ere aldaera hau da nagusi.

*burthini*: (158), “*buru-tini*”-ren laburpena, ‘*burugaina*’. Tartasek *buru tini* dakar eta OEH-k Zuberoako *bürü-thiñi*.

*buru*: *buru hortarik* erakoetan ‘alde horretatik’ adiera hartzen du: *eta guiza hor-*

*tan badiici buru hortaric umiliatceco eta ahalguetceco arraçoin handiric* (290).

*buruzkin*: (289, 448), ‘tematia, egoskorra’. Lapurdi, Amikuze, Zaraitzu-Erronkari eta Zuberoan kokatzen du OEH-k; hiztegietan Ibarrolako Salaberri eta Gèze aipa daitezke.

*damu*: adiera ‘kaltea’ du eta OEH-k Lapurdin, Zuberoan, Zaraitzun eta Erronkarin kokatu du. Hona liburuko adibide pare bat: *goguan hartcen baitugu becatu originaletic jiten çauzkigun misericac eta damiac* (288); *çinhi gauçaric thipienac damu handi eguiñan baitiro* (361). Axular, Tartas, Belapeire, Maister, Larregi, Baratziar, Egiategi, Duhalde, Arxu, Duvoisin, Laphitze... dira erabiltzaile. Guretzat eskualdeko Laneuville interresgarri da: *hec dira lagunaren hontarçuner, destruituz edo guastatuz* (sic), *damu eguiten dutenac* (96).

*debo[tu]*: eta gendeki *devoteki bicis devotcen balin bada* (96); ‘debot bilakatzea’ luke adiera, baina OEH-k ez dakar *debotu* ez *devotcen* honen adibiderik.

*defendatu* & *defendiātu*: ‘debekatu, gale-razi’ adiera da nagusi liburuan, zortzi al-diz ageri da; *defensa* izena ‘debekua’ da; behin *defendiatu* aldaera dakar (443). Tartasek, Laneuvillek (32), Bordelek eta Luzai deko idazki batek (1869) dakarte *defendiatu*. Babesaren adiera ere ageri da liburuan, hil nahi duten urde batek bere burua *defendanten* duenean (335).

*deidura*: *orobat duçu chahutarçunaz, gure naturaleça corronpithiareñ piciac eta lohikeriako biciora erorteko dien deidurac, uste beno fithezago eta aitcinago joan-araci ciroču* (362). OEH-k ‘jaidura’ edo ‘joera’ adiera dakar, baina adibide baka-rra liburu honetako da, *hapax-a* dugu. Lapurdiko idazkietan usu ageri da *jaidura*. Maisterrek, berriz, *enjogidüra* dakar, baina Inxauspek *jaidüra*.

*deithore*: ‘ahuena, erosta, intziria’ adieran; *gure gaitcez deithorian eta tristuran*

*emaiten dugun dembora* (319). Izen gisa Leizarragarengandik aitzina erabili da eta honezaz landa Oihenart eta gure liburua dira erabiltzaile, baina *OEH*-k ez dakartzia ez Tartas, ez Maister ezta Inxauspe ere. Geografia-hedaduran Lapurdi eta Baxenabarre ageri dira.

*desein:* *dessein hic hobenenac* (26); ‘asmoa, xedea’. Zuberotarrek baliatzen dute: Tartasek, esate batera, *deseiña* darabil eta Maisterrek *deseñik*. Gèzek *deseñ* dakin. Mendebaleroago idazle zaharrek *desinu* ibiltzen dute. Ez da adierazten *desira* Zuberoan ez denik; *Ohoitce eta cantica* (1734)-k badakar: *ene salvatceco duçun eguiazco desiraz* (13).

*desentenamendu:* adibide bat baizik ez dakin: *lur gucia desolacione edo dezentenamendu osso bathian da* (117); *OEH*-k dakinaren adibide bakarra da.

*desiresko:* *ceren desiresco guiçona baitcen* (23); baita Laneufville-n ere: *Amoriozco eta Desirezco actoua* (160). Berebat, *desirezko* dakarte Leizarragak, Zuberoako katixima batek eta 1734ko *Ohoitce eta cantica*-k (27). Hitza *desir* da ekialdean eta mendebaleroago *desira*, horregatik, *desirazko* egiten dute Povreauk edo Jauretxek, nahiz Haranederrek *Philotea-n desirezko* dakinaren.

*deskasitu:* adiera ‘samintzea’ edo ‘atsekabetzea’ luke; adibide bat baizik ez dakin: *berri gaizto horrec hanbat tristatu cicin, nun bere malurraz dezkaussitu baitcen eta oihuz erraiten Meça galdu cienaz gueroz, bera ere galidia cela* (244). *OEH*-k ez dakin adibide hau baizik. Ibarrolako Salaberrik ‘désoler, se désoler’ adieran dakin.

*destarru:* Ipar Euskal Herrian *desterru* da nagusi, hala dakarte lapurtarrek, nahiz Monhok edo Laphitzek, esate batera, eta baita Zuberoan Maisterrek, Etxahunek edo Inxauspek ere. *OEH*-k *destarru* aldaera gure liburu honetan baizik ez dakin. Norberarena ez den lurrall-

dea adierazten du: *aithortcen edo errai-ten çutenian destarrusco lurrian igaraile cirela* (337); jatorrizkoan: *qu'ils étoient des pélerins et des étrangers sur la terre* (RD 2, 467).

*destimonio:* *bizpahirour destimonio prest ciaudeçun haren accusatceco* (390); ‘le-kuko den pertsona’ adierazten du, Leizarragak baliatu bezala, nahiz hark *testi-monio* darabilen.

*dino & digno:* *haren presencia dinua berantezten cicin* (347). Gainerateko adibideak *digno* eta *dignoki* dakartzia liburuak eta Laneufville-n ere *digno* dago. Etxeparek eta Leizarragak *digne* dakin; geroago, Inxauspek eta Gèzek *dño*.

*diozesak:* testuak ez du ezagun bigarren txistukaria nola ahoskatzen zen, *<gure Dio-ceza>* baitakar, baina testu honetan ohiko da “s” balioa duen *<z>* agertzea. Ez da liburuko hitza, L.-M. Suarés d’Aulan-en onespenari dagokio; *diosesa* ez da Ipar Euskal Herrian XIX. mendearen erdia arte ageri. Gure liburuaren garaian eskualdeko liburueta *diozesak* ibiltzen zen: *diozesak* dakin Laneufvillek eta *diozesak* Maisterrek; *diozesan* Mercyk eta *diozesak* Baratziartek.

*dohain:* ohiko ‘dohaina, emaitza, kalitatea’ da, kristau kutsu handikoa eta Jainkoak emana, liburuko hainbat pasartetan ardua errepikatzen dena. Euskal Herriko ekialdean ‘zortea, zoriona’ adiera ere biltzen du, Ibarrolako Salaberrik edo Gèzek dakarten legez; *OEH*-k Baxenabar eta Zuberoan dakin bigarren adiera hau. Egiazki, adiera bata eta bestea ez daude elkarrengandik urrun. Liburuko *dohain-en* agerraldieei emeki so egin diegu, baina ez dugu bigarren adieraren adibide gardenik sumatu. Hona ale batzuk: 65eko *dohain* “merced / grâce” da jatorrizkoetan (I/1/17/65. or. & RD 1, 147). 96koa “grandezas, esencias / bonheur” (I/5/1/215. or. & RD 2, 4); 107koa “maná escondido”

(I/5/4/220. or.); honetan frantseseko jatorrizkoak ez dakar hitza. 415eko da beste hau: *uroz guïçona Gincosaren beldurraren dohainha diena!* Jatorrizkoan honela da: *bienaventurado aquel á quien le ha sido dado este dón de temor* (III/4/10/209. or.) / *heureaux l'homme, à qui il est donné d'avoir la crainte de Dieu!* (RD 5, 266).

*dohatu*: ‘zerbaitez horniturik izatea’; *cer-nahiden dohainez eta berthuthez aber-rasthia edo dohathia içanic ere* (414). Ipar Euskal Herrian baliatu da: Leizarraga, Etxeberri Sarakoa, Haraneder, Monho, Duhalde, Jauretxe, Goihetxe, Hiribarren, Duvoisin, Lapeire... idazleak aipa daitezke.

*edeki*: adiera ‘kendu’ du; *Jauna, azki dicit, bicia edeki çadaçu, eci enuçu ene Aitac beno hobe* (340). Ipar Euskal Herrian, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan ibili da, baina aspaldian Euskal Herri guztian. Hona idazle ipartar batzuk: Etxepare, Leizarraga, Axular, Pouvreau, Tartas, Belapeire, Laneufville, Baratziar, Duhalde, Etxahun, Duvoisin.

*edergaillu*: *umilitathia garbitarçunaren eta chabutarçunaren hain edergailhu handia duçu* (273); adieraz ‘apaingarria’ da. XVII. mendetik aitzina Ipar Euskal Herrian baliatu da, Zuberoan salbu. Liburu honetan izena da, ez du adizlagun baliorik; cf. honetaz eta Axularren eraginaz Lakarra (1995: 58).

*ehe(i)ñatu*: (14, 135, 328, 398); ‘eria zaindu’ adieran eta baita, oro har, ‘hazi, elikatu, gobernatu’ esanahi orokorra goan ere. OEH-k Nafarroa Beherean eta Zuberoan dakar; berebat, Zuberoan eta Amikuzen *geñhatu* aldaera. Oihenartek *eheinatu* & *geinhatu* zera-biltzan, Etxahunek *geñhatü*, Ibarrolako Salaberrik *yeinhatu*. Bigarren adiera du *geñhatü-k*, ‘dirua aurreztea’ hain zuzen ere, Belapeirek, Etxahunek, Gèzek edo

Larrasketek dakartena, baina gure liburuau ez da ageri.

*eia* & *heia*: hiru ingurunetan ageri da; a) zerbaiteginaezko berme gisa: *Eya arren, cioçun Gincosco guïçon seindu harc, çuc ere hola hola eguiçu çure gor-pitzac atakatcen cithienian, eta tentacionia ihessi igorrico duçu* (392); b) ‘beharbada’ adiera duela galderetan, bukaeran: *Apostolu handia, gorpitzceco pressundeitic libratu nahi cindiena mundoço ppenner ihessi eguthiagatic?* Ez; *affliccionetan eçarten duçu çure gloria eta placerra. Becathian eror beldurrez eia?* Guthiago. (346). Bigarren era hau Maisterrengan aurkitzen dugu: *Nountic arren glorificatcen ahal niç, edo ceren desiratcen dut famatu içatia?* Eçdeussetaric niçalacoç eia? (254). c) zehargaldera baten sarrerazale: *çure buriari unxa soiçu eta ikuz eçaçu, heyä ciren estathian nahi cintuzkeenez Gincosco cundiac eman* (57).

*ekarria izan*: partizipioaren eran jokatzen da eta norbaitek zerbaitetarako joera izatea edo norbait zerbaitegiteko ohiz prest egotea adierazten du; *eci Gincosco bethi ekarria duçu gure laguntcera* (20). Ipar Euskal Herrian tradizioa du: Haraneder, Maister, Larregi, Duhalde eta erabilera berriagoak aipa ditzakegu.

*eki* & *ekhi*: ‘eguzkia’. Erabiltzaileak ekialdean dira: Oihenartek *eki* dakar eta Belapeirek *ekhi*; Etxeparek eta Leizarragak *iguzki*; Tartasek eta Laneufvillek *iguski*; Ibarrolako Salaberrik *ekhi* dakar San Mateoren ebajelioan eta Bona-partek berak itzuli Garaziko *Canticum trium puerorum*-en ere *ekhi* dago.

*elga*: ohiko *elkar* adierazten du eta zenbakien ondotik dator liburuau ageri den lau aldieta: *biec elga* (4), *hirurac elga* (248), *hirurec elga* (261) eta *biac elga* (442). Bost aldiz dakar *elgar* liburuak. Hona *elga*-ren adibide bat: *Eliçala sarthu cela, Meça akaba arthio han egon, berheala ondotic bezte bat, biguerrena*

*akabi gabe, hirurguerren Meça bat, hirurac elga inçun cithiela* (247-8). *Pratica-tik* kanpo tradizio apala du. Garai beraean, 1783-4ko *Birjinia* itzulpenean, zeina Jose Antonio Mujikak Martin Duhalderi egozten baitio, *elga* ageri da (2010: 29) eta *Meditacioneac-en* ere badakar: *hirur aldietañ elga bere othoitzza akhabatcen du* (1809: 258). Oihenartek hitz lotura batean *elg'* dakar eta baliteke *elga* izatea. Berriki, 1757ko Lapurdiko itsasaldeko *Le Dauphin* ontziko gutun batzuetan agertu da “biak elga”.

*endelgatu*: ‘ulertu’; Ipar Euskal Herrian ageri da, baina batez ere ekialdean. Hegoaldean Erronkarin baliatzen zen. Tarras, Laneuville, Duhalde, Goihetxe, Arbelbide... *endelgatu-ren* erabiltzaile dira. Laneuvillek *endelega arazi* ere badakar aitzinsolasean. Zuberotarrek eta erronkiarrek *ent(h)elega-* darabilte: Belapeire, Maister, Arxu, Uhalde Maio, Mendigatxa, Lapeire, Constantine...

*endeski*: (272), ‘narraski, zirtzilkeriaz’; liburuau *<endezki>*. *OEH-k* Baztan eta Zuberoan kokatzen du. *Herria* aldzikarian *libertimentiñ endesak* sintagma ageri da Zuberoan.

*epaintxatu & empaitxatu*: *adiskidetarçunac epainchatcen ezhien beçala oguendun haren contre hiltceco sentenciaren emaietic* (307); ‘oztopatzea’ du adiera. Liburuan nagusi da *epaintxatu* aldaera, lau agerpen ditu; *enpa(i)-* aldaerak, berriiz, hiru. Bestalde, izena dago, *epantxu* (267) eta baita *epainxu* ere.

*eperik gabe*: ‘eten gabe, atsedenik gabe’; *epe-ric gabe bethi guardian içan behar diici* (408). Gure liburukoaz eta bigarren mailako lanetan bildu pare bat adibidez landa, Pouvreau eta Jauretxe idazleak dakartz *OEH-k*.

*eragin & erain*: ‘eragin’; *bere beitaric nehorc eguiten thien gaucetan eta bestec erai-ten derazcotenetan* (18); *bihotzça idocaraci eta erditic erain* (191). Leiza-

rragak bazerabilen *eragin*, baina Ipar Euskal Herrian erabilera galduz joan da XVIII. mendetik honat; zuberotarrek eutsi diote erabilerari. Etxeberri Ziburukoak eta Oihenartek era trinkoan zerabilten eta perifrasian honako idazleek: Axularrek, Oihenartek, Pouvreau, Mongongo Dassançak, Belapeirek, Etxeberri Sarakoak, Haranederrek, Maisterrek, Mercyk, Etxahunek, Inxauspek, Arxuk...

*eraiki*: liburuko hiru adibideetarik bi dakartzagu hona, bakoitzak bere adiera duela; *eguiasco bertuthec çure ariman etche ispi-rituala eraiki deçaten* (265); ohiko etxe eraikitzeaz dihardu; *becatu eguin nicin*, ciòu Davitec, Gincoari minço delaric, *gaztiguiez eraiki ninduçun beno lehen* (285) adibidean, berriz, badirudi ‘haurrak hazi’ edo ‘hezi’ zentzua duela, Zuberoan ohi duena, asto lasterretan, Inxauspe eta Constantinen lanean nahiz Larrasketen hiztegian datorrena. cf. Laneuvillek dakarren adibidea ere: *behar dutela uken arrangura haurren eraiki-ciaz* (159).

*eraste*: *çoinhenbeste eraste suergaraiteco gure mihietañ?* (289). Adiera ‘esamesak, erran-merranak’ du. Lapurdin Axular eta Duvoisin ditugu erabiltzaile. Oihenartek *erastea* aditz gisa dakar.

*era(a)untsi*: *mortal ala benial diren piçatcen eraunxi gabe* (438); *gaua oro harekin bo-rroca eraaunxi onduan* (211); ‘jardutea’ adierazten duen aditza da, egun Amikuzen eta Zuberoan baliatzen den bezala. *OEH-k* Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan kokatzen du; Ibarrolako Salaberrik ere badakar.

*ereithia*: *eci horren egithia aharren eta he-rrren guiristinhuen arthian ereithia lukeñ* (448); ohiko ‘ereitea’ da. Ibarrolako Salaberrik *erein* dakar, baina Gézek *ereñ*, izan ere, Zuberoan palatalizaturik baliaztzen baita. Belapeirek *erein & ereñik ze-karren*; *ereithia* horren partizipioko era

- ezin jakin ñabardura eta zehaztasun fonikoz zein den.
- eretzian (-en)*: norbaitekiko edo zerbait kiko erlazioa adierazten du; *cer ere baita eschia gorpitzçaren eretcian* (103); jatorrizkoan: *ce que la main est à l'égard du corps* (RD 2, 11). Hona beste adibide bat: *Gincoaren aitcinian ezpalira beçala tuçu, eta haren eretcian ezdeuz beçala* (282), jatorrizkoan honela dena: *et elles sont comme rien à son égard* (RD 3, 315). Funtsean ekialdeko erabiltzaileak ditu: Tartas, Belapeire, Oloroeko katinxima, Maister...
- erordura*: ‘erorketa’ da; *gaizkiraco gutan den erordura batec gure seindimendiak laus-sengatcen thiela* (40). OEH-k liburu honetako erabilera baizik ez dakar, Maurice Harrieten hiztegian, hain zuzen ere.
- erori*: (293), aditza da, baina itzulpenean izen kategoria ere badu inoizka: *çunbait Gincoaren cerbitzchari ikuzten duçunian erori itxoussi edo handi çunbaiten eguiten* (39); *eta hara cerc erain dereen erori ahalkaitçunic* (293).
- erorkor*: ‘erortzen erraza dena’; bi agerraldi baizik ez du; *gure naturaleça çoinhen erorkor eta flako den* (400). Ipar Euskal Herrian tradizio luzea du: Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, Pouvreau, Xurio, Maister, Mihura... erabiltzaile dira.
- erraini*: *cien errainhac unxa cintathiac içan bite* (334); ‘giltzurdinen edo gerriaren alderdia’ da eta liburuan agerraldi barra du.
- erregret & arragret*: ‘arrenkura’; *arragret aldaera* (337, 438, 441); *erregret* (51, 59).
- errendatu*: *haren eguiteco behar tugun gauçac neke eta ppenoz errendatcen* (22); ‘bilakatzea,bihurtzea’ adiera du mailegu honek. Ipar Euskal Herrian ageri da: Etxeberri Ziburukoa, Axular, Argaiñaratz, Tartas, Mercy, Gazteluzar, Xurio, Urte, Haraneder, Laneufville, Etxahun, Inxauspe... dira erabiltzaile. Beste adiera bat ere badu liburuan, ‘itzultzea, ematea’: *eman ciracoçun, bena hitzçaren pian errendaturen ceracola* (325).
- errisku*: badarabil *erriskatcen* aditza ere (439). Ipar Euskal Herrian (*h)irrisku* aldaera ageri da: Etxeberri Ziburukoa, Gazteluzar, Xurio, Haraneder, Larregi, Mihura, Duhalde... dira erabiltzaile. Idazle batzuek *arrisku* darabilte, esate batera Axularrek eta Etxeberri Sarakoak; iduri du *errisku* bakan erabili dela. Azken garaiko zubereran *arrixk* dakar Larrasketek; lehenago ez dugu Belapeireren lanean aurkitu eta Maiserrekez ez dakar *perill* baizik. Gure liburuan ere bada *peril* (43); cf. *langer* ere (115).
- eskale*: *eskale bat arropa charrez bestithia* (429). Lapurdiko literaturan *eskale* dago eta Oihenartek ere hala-hala dakar, baina Tartasek *ezqueleric* (113) daram, *eskale* baita Zuberoako aldaera, *Antiokiako San Julian* pastorala, Etxahun, Gèze edo Arxu lekuo.
- eskenu*: *hanbatenez ere jathian placer aboro eiten dici, çumbatenaz ere goçuago baita eta jaliac jateco dheia edo ezkenia handiago baitu* (217). Adiera ‘eskaintza’ du eta Zuberoako *eskenü* & *eskainü*-tik abiatu behar da; Inxauspek eta Larrasketek badakarte. A. Lizarzak ‘apetito, ansia’ adiera dakar galdera ikurrarekin (1967: 133), baina ez da xuxen, erroa *eskain-* baita.
- eskudainxa (hartu)*: *been jujatcerä menturatcen dena, Gincoaren çucenetan sartcen eta eskudaincha hartcen dici* (422); cf. 421, 422, 424 ere; ‘zerbait egiteko aski ausardia izatea’ du adiera. OEH-k Nafarroa Beherean *eskudantza* dakar eta Ibarrolako Salaberrik *eskudanza*. Lapurdin Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek *eskudantzia* darabilte. Zuberoan ez da ageri; esate batera, Maisterrek *libertate sobera* sintagma darabil.

*estakuru*: hutsaren, erruaren edo gaizki eginaren adiera du; hona adibide bat: *anitzcec ereflexione ein faltaz, bere houxac edo ezthakuriac eçagutu gabez* (114); *çure ezthakururic edo becaturic handiena* (127). Erabiltzaile dira Leizarraga, Oihenart, Laneufville, Etxahun edo Michel Elizanburu; Tartasek eta Maisterrek mugagabeen *estakuria* daramilte. Beste adieran ‘atxakia’ da, Etxeberri Ziburukoak, Axularrek, Tartasek, Haranederrek, Michel Elizanburuk, Mañex Hiriart Urrutik... darabiltena. Ez dakigu gure liburuko adibide hau bigarren adierakoa ala lehenekoa den: *cerbait estakuru cherkatcen cicin Fraide gasthiari aharra emaiteco* (390); oro har, gure liburuan ‘hutsa’, ‘errua’ edo ‘bekautua’ adierazten du *estakuru-k*.

*esteku*: hedadura zabalagoa duen *esteka-ren* kide da eta *Pratica-k* *esteka* & *esteku*, bi erak dakartzza; adiera ‘lotura’ dute biek. Erabilera murritzekoa da *esteku* aldaera: Pouvreauk badakar, baina ekialdera jotzen du gehiago, Laneufville-n bi adibide dakartzza *OEH-k* (138, 162) eta *Pratica-ko* beste bi. Hona bat: *Guiristinho hunez eztu ber gauça içanen; mundiaren eta mundoço gaucen eztekuric gabe bici tuçu* (334).

*etsai*: Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa, Erronkari edo Zaraitzun bezala. Gure itzulpenak ez dakar *izterbegi*, zeinak Etxepare, Etxeberri Ziburuko, Haranburu, Oihenart, Egiategi edo Etxahun baititu erabiltzaile. Mercy 1780: *etsay combait* (7). Hona pastoraletan ere; Edipa: *exaer* (265); SC: *etxay* (524); Charlemagne: *etxai* (126).

*eu<gu>erdi*: ez dakigu ziurtasunez “euguerdi” ala “eugerdi” den; *axian, goician eta eu guerditan Jaunari cundatuco ticit ene affligimendiac* (104); cf. 37 eta 244 ere. *OEH-k* ez dakar honelako beste aldaerarik, baina gure liburuan ez dago “euguerdi”-rik bat bera ere. Tartasek *egunerdi* &

*eguerdi* dakartzza eta idazle zuberotarrek *egüerdi*; esate baterako, Belapeirek. Gerora eskualde honetan *EHHA-k egwerdi, egüerdi* eta *egordi* bildu ditu, baina testu honetakoak bezalako aldaerarik ez.

<*extreitzcha*>: *Jauna, oraico extreitzcha handian etciakigüçü cer eguin* (97-98). *OEH-k estresa* eta *estrexa* sarrerak dakkartzza eta adiera ‘nahigabea, sufrikarioa, trantzea’; Mihura eta Duvoisin idazleen adibidea dator. Lhanderen arabera, Lapurdiko baxenafarreran baliatzen da.

*ezabatu*: baita *ezabarazi* ere (444). Euskara batuko adiera berean. *OEH-k* Baxenabarre, Zaraitzu eta Zuberoan kokatzen du eta Oihenart, Maister, Laneufville, Mercy, Inxauspe, Gèze... dira erabiltzaile.

*ezabeki*: *horra nola, Demoniac chothilkki eta eçabequi bereganat biltcen guithien* (374); ‘segretki, oharkabean’. Literaturan arruntena *ezabaki* da, *OEH-k* zuberera arruntean dakarrena: Belapeirek eta Maisterrek *ezabaki* darabilte, baina gure idazkiak bezala, Laneufvillek ere *ezabeki* dakar. Adjektiboa ere bada liburuan: *urgulu eçabiago bat* (275).

*fabori*: ‘mesedea’; Zuberoan, Mercy, *Charlemagne* edo Egiategik *fabori* dakarte, baina Larrasketek *fabore* eta 1734ko *Othoitce eta cantica-k favori neçaçu* (51) aditza. Bestalde, Ibarrolako Salaberrik *fabore* & *fagore* dakartzza eta Lapurdin lehen testuetarik *fabore* dago.

*fariseen*: adiera ‘fariseua’ du. Zuberoan *farisien* dakarte Belapeirek, Inxauspek eta 1872ko Zuberoako katixima batek. Ibarrolako Salaberrik ere halaxe dakin San Mateoren ebanjelioaren itzulpenean.

*faxeria*: *bena iduri ceela bezten eneu, karga, facheria direla* (328). *OEH-k* Zuberoan eta Amikuzen kokatzen du, ‘eragozpena, traba’ adieran; dena dela, Leizarraga erabiltzaile da, *fasxeria* dakar, eta Haranederrek, Duvoisinek eta Etxahunek *faxeria*.

*feit*: *minço delaric gure Salbaçale Jaunaren Transfiguracionian igaran ciren feitez*

(171); *huntaric idoki behar dugun feita duçu* (434); ‘gertakaria’ esan nahi du eta Zuberoan ibiltzen da: *Charlemagne, Etxahun, katixima bat eta Xaho dira lekuko eta Gèzek ere badakar.*

*fermo & fermoki*: ‘fermu & fermuki’ arruntagoen aldaerak dira. Deklinatzean *delibero fermua* dakar, baina bokalen arteko inflexioagatik, ez *fermu-tik* abiatzen delako. Zuberotar legez, *Othoitce eta cantika-k* eta Maisterrek ere *fermo* dakarte, Ibarrolako Salaberrik edo Gèzek bezala eta baita Axularrek ere, baina gainerateko idazle lapurtarrek eta Leizarragak *fermu*; Tartasen *ferme* darabil eta Oiherartek *bermetarzun*.

*fidainxa & fidanxa*: ez dakigu *-ainxa* hori *-antzia* edo *-antxia-ren* metatesia ote den. Lapurdi alderdian *fidantzia & fidantza* ageri da; Ibarrolako Salaberrik *fidanza* dakar, Gèzek legez. Egiategik *fidantza & fidantxa* ditu eta Maurice Harriete *fidantxa*. Oro har, ekialdean, Zuberoan eta Baxenabarreko ekialdean sabaiurrekoa duen *-antxa* aldaera ibiltzen da atzikian.

*finka hartu & finkatu*: behin baizik ez darabil *finka hartu*: *meditacioniaren edo otoitzaren unxa eguitbia, eta harten berheciki hartu behar tugun deliberen finka hartzcia* (49). *OEH-k* ez dakar honelako adibiderik gehiago literaturan; gaineratekoetan *finkatu* dakar liburuak: *erran dugun seindimendietan finkatu* (93). Estate batera, Laneufville-n ere *finkatu* dugu: *behar guira egun harten obra houn eguitiari fincatu* (141). *OEH-k* *finka hartzia* ez dakar lokuziotzat, *finka adizlaguntzat* jotzen du: ‘firmente’. Guk uste, *finka hartzia* lokuzioa *finkatzia* izan daitekeen adieraz eta “hartu behar ditugun deliberoak” osagarri zuzena, testuan genitiboan badoa ere. Gogora bedi adizlaguna *finki* dela liburuan, adiera ‘fermuki, irmoki’ duena: *bere beitan finki resolitu egin*

*oroz hunenbestetan goiz-axetan acto horien eguitera* (91).

*finki*: ‘fermuki, irmoki’; Ipar Euskal Herrian tradizioa du: Materre, Axular, Harizmendi, Haraneder, Larregi, Monho edo Pouvreau aipa daitezke erabiltzaile. Hona adibide bat: *costuma haren uxtera ez behin ere ossoki ez finki deliberatcen* (41).

*fite*: ‘laster’ adieran; nagusi da *fite* aldaera liburuan, baina *fitez* eta *fitez-en* adibideak ere badira. Leizarragak ez darabil *fitez* baizik eta Harizmendik, esate batera, *fite & fitetz* darabiltza. Axularrek atzikien aitzinean ibiltzen du *fitez —fitetzena, fitetzago—*, eta ez da bakarra honela egiten, *Pratica-n* ere *fitetzago* hiru aldiz ageri da; dena den, ondoko atzikirik gabe ere baditugu *fitez & fitetz* liburuan. Zuberoan ere badugu *fitez*, *Othoitce eta cantica* (1734) idazkiak dakin (37).

*flako & flakatu*: ‘ahula’ & ‘ahuldu’ adierazten dute; hona aditza: *nahibada etcen ordian orano unxa sendothia anitz flacatu cien sukar batetaric* (17). Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan baliatu izan da adjektiboa adiera horretan, baina Hegaoaldean guti. Zuberotarrek *flakü* dute: Maister, Egiategi, Inxauspe...; aldiz, Leizarragak *flaku* dakar eta gaineratekoek *flako*: Tartas, Haraneder, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Urte, Duhalde, Monho, Salaberri Ibarrolakoa... Laneufvillek ere badakar: *flaco içanez* (104).

*folla*: *capitulu hura idireiten den pagiaren edo folbaren segnhalia* (8). Adiera ‘orrialdea’ da. J. B. Etcheberryk *paper fulla bat* dakar 1962an. Okzitanieraren mailegu gordina dirudi, *OEH-k* ez dakar honelako hitzik. Egun bearnesez *hoelh* idazten dena, aspaldi *foelh* idazten zen; ez dakigu *foelh* ote den gure itzultzai-leak bere garaian idatziz edo ezagutu zuen aldaera, izan ere, <lh> horrek al-

bokari palatala adieraziko luke. Garbi dakiguna da Zuberoako 1734ko idazki batean *hoilla 25 ageri dela* (*Othoitce eta cantica*, 29) eta Inxauspek 1858ko *Jaundone Jouhane apostoliaren apokalipsa-n libriak holletan biribilkaturik idatzi zuela* (1858: 39).

*gaitzi izan:* Nor Nori aditz sailarekin baliatua, ‘gaizki hartu, gogoko ez izan’ du adiera. Aspalditik erabilia, Etxepare, Leizarraga, Axular, Duhalde, Etxahun, Goihetxe... idazleek baliatu dute; hona adibide bat: *elitçaikecia gaitzci norbaitec çutçaz opinione gaisto bat hartzen balu, hartaco çuc hari occasioneric eman gabe?* (419).

*ganbara & kanbara:* bi aldiz dakar *ganbara* (14 & 273) eta bi aldiz *kanbara* (143 & 205); *ganbara* ‘gela’ arruntaren adieran dakar eta *kanbara* bi adieratan; batean ‘cellule/celda’ eta bestean ‘egoitza’ adieran.

*gandera:* *Eliça handietan edo Cathedraletan ganderac pitzten ticie* (231); cf. 86 ere; ‘kandela’ adiera du. Baxenabarren kokatzen du OEH-k, izan ere, Ibarrolako Salaberrik halaxe baitakar; *kandera* ere bada Baxenabarren; Zuberoan, berriiz, *khandera* dago, Belapeirek dakarrina eta Erronkarin *kandra*. Leizarraga barne, Lapurdin *kandela* dago. Halaz ere, *ezko* ere bada literaturan: Etxeberry Ziburuoko edo Duvoisinek daramilte; Belapeirerentzat *ezko* ‘argizaria’ da; gure itzulpen liburu honetan ez da *ezko* ageri.

*gañeran:* agerpen bakarra du liburuan eta ez dakigu *gagneraco-ren* hutsa ez ote den; *Arima beste gagneran cernahiden dohainez eta berthuthez aberasthia edo dohathbia içanic ere* (414). Maisterrek ere badu *gagneran*, bi aldiz dakar: *gagneran, celuco consolacione hourá emaitenda* (1757: 116); *gagneran behar duçu, eç solamentç comunionia beno lehen debo-cionalia adelatu* (385).

*gartu: ceren behin hoztera giten bada eta go-gortcera, nekez berris garturen eta bero-turen duçu* (46); ‘sutan erre, garretan egon’. OEH-ko adibide gehienak Hego Euskal Herrikoak dira, baina Duvoisinek eta Maurice Harrietek beren hiztegietan dakarte.

*gei: ezticie guei çuten beçala eguiten* (26); *Celiari soiten ciracoçun, leku çointara haxetic heldu guei cien bati beçala* (261); *eztakigula guc eguin guei duguna gure hunetan denez* (329); adiera ‘nahi iza-tea’ du. Hedaduraz diharduela, Maurice Harrietek, Zuberoa, Oihenart eta gure itzulpena aipatzen ditu. Ez dugu ukatuko hitz honek ‘asmoa’ ere adieraz lezakeela, baina gure liburuan funtsean ‘nahi izatea’ esan nahi du.

*gibel-ondotik: proximuaren contre haren guibel-ondotic erraiten diren elbe gaistuen defendatceco* (444). Zerbaiten edo norbaiten atzetik eta hurbil ibiltzea edo zerbait egitea adierazten du. Laneufvillek ere badu adibide bat: *houra da la-gunaren guibel ondotic, harc eguin dien, baina eçagutia ezten, gaitza erranez com-metitzen den becatia* (97).

*gogatu:* norbaiten edo norberaren boronda-tea zerbaitetara erakartzea luke adiera, Baxenabarre, Zuberoa eta Erronkariko tradizioan. Hona liburuko adibide bakarra: *ikussircic neskatho hora ekarri çute-nac beldur cirela berekin eremaiten baçu-ten berris Demoniu sar çakion, heen amorecatic haren bereki cerbait dembora atchikitcerca gogatu çuçun* (403). Leizarraga, Oihenart, Belapeire, Etxahun, *Mustafa Turk* pastorelean edo herri kantetan aurkituko dugu.

*gogoz-garatik:* *hirurguerrenecotz samurtzcen tuçu eta ezticie emaiten, edo emaiten ba-dute, hain gogoz-garatic, nun heer deuz galdeiteco guticia idokiten baitute* (104); ‘gogo txarrez, gogoz kontra’ adieran. Ez dakigu ohiko “gogoz-garaitik” adizlaguna idaztean hutsa gertatu ote den,

baina *OEH*-k, oharrik eman gabe zuzendu eta *gogoz-garaitik* idatzi du; aldiz, A. Lizarzak dagoen bezala dakar (1967: 136). Leizarragak *gogoz garaitik* zerabilen; Maisterrek *gogoç-garaiti* (128). Baxenabarreko Landibarren *gogoz garai* bildu zuen Gotzon Garatek eta Zuberoako hala Larrainen nola Altzain *gogoz gainti* (1988: 203).

*goihentze*: (71, 198, 257); ‘biziaren honda-reko uneak’. Gure itzulpenean liburuak *goihentzia* eta *goihen(t)zian* dakartzeta eta Laneuvillek ere badakar: *vere conversionia bere goihancera utci dutenac* (61). Ez dago beste idazlerik. Duvoisinek *goihentzia* darabil, baina ohorearen adieran.

*goihera*: *etche bathian cimendiac goihera edo flacco badira, ihiki etchia makurtcen duçu eta lazter lurrerat erorten* (65); ‘sa-kontasunik gabea’ adierazten duen adjektiboa da. *OEH*-k Zuberoan dakar.

*goiztiri*: *eta seinhalatcen goiztiria, otoitzceco tenore hun bat beçala* (109); ‘egunsentia’ da. Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan kokatzen du *OEH*-k, eta Erronkarin *goizteri*. Idazleean, berriz, Oihenart, Pouvreau, Belapeire, Haraneder edo Monho aipa daitezke.

*gorda & gorde*: Ipar Euskal Herriko da *gorda-* nagusiki, baina Landuchiok *gordaitan* eta Amilletak *gordatze* dakarte. Adibide horiezaz landa ez dirudi *gordaldaera*k Hego Euskal Herrian agerpen gehiago duenik. Hona Ipar Euskal Herriko erabilera batzuk: Etxepare: *goardaceco* (40) & *gorde gabe* (240) / Leizarraga: *gordatzen* (186v) & *gorde ceçan* (49v) / Oihenart: *gordatzen* (223) / Tartas: *gordatzen* (*Ontsa*, 49) & *gorde-rik* (*Ontsa*, 55) / Belapeire: *gordatzen* (I, 100) & *bere icena gorde diana* (I, 21) / Maister: *gordatzen* (121) / Cazenave SM: *ez daitëzu gorda* (24) / Ibarrolako Salaberriren hiztegia: *gorda-tu* / Iribarnegarai: *ez daiteke gorde* (27). Pou-

vreauren *gorda* eta Haranbururen *gordatze-ren* salbuespenaz landa, ez dirudi, oro har, Lapurdin *gorda-* aldaera baliatu denik.

*gort & gorthu*: *noiz eta ere adiskide jakinxu gincothiar batec berri gorthu bainu erranez, Gincoasco lanetan ez unxa eguitthia-ren beldurrac ezkithiela baratu behar* (5); ‘adorea ematea’ du adiera. *OEH*-k Leizarraga eta idazle zuberotar-amikutzarrak dakartzat: Oihenart, Tartas, Belapeire, *Othoitce eta cantica*, Maister, Mercy...

*gostuz*: ordainketaren edo kostuaren adieran; *Jesu-Christoc biciaren gostuz ber-matu eta pagatu dici ciendaco* (177), non ulertzen baita Jesukristori biziaren kostua edo galera ekarri ziola bermatzetako ordaintze hark.

*guduka* (*ez artzia*) (398) & *gudukatzen* (57, 62) & *gudukatzeko* (434): ez da ageri *gudukatu* partizipioa liburuan. Izena da *guduka* Ipar Euskal Herriko idazki zaharretan, Oihenartek eta Tartasek honela dakarte eta Zuberoan baliatzen da *güdüka* izena; *gudukan* adizlaguna ere bada literaturan. Hona adibide sail bat: Leizarragak *gudukatzen* darabil, Etxeberri Ziburukoak *gudukaturen*, Oihenartek *ezkitakek guduka*, Jauretxek *guduka gaiten*, Duvoisinek *gudukaturen* eta *gudukatzen*. Aldiz, Inxausperen *güdükkatü* (1894), hustzat jo du *OEH*-k; cf. Barberier: *gudukatu*.

*gustatu*: baliteke liburuko Nor Nork jokatzea jatorrizko gaztelaniazko eta frantsesezko eren eragina izatea, hauetan dasstatzearen kutsua baitu “*gustatze*”-ak: *Gincoa eta gauça ispiritualac behin guztatu thienari* (33); jatorrizkoetan: *asi en gustando uno de Dios* (I/1/4) / *parce que si une fois nous commençons à goûter Dieu, et à sentir les choses spirituelles...* (RD 1, 36).

*guti*: adizlagun edo zenbatzaile ez zehaztua izateaz landa, adjektiboa ere bada,

ekialdeko Euskal Herrian ohi bezala, hurranen adibideak lekuko: *trompathia içan eztadin, bestela balio handitaco çunbait emanen dici gauça guti batendaco* (11); *eci ikussico duçu gauça guthia ci-rela* (278).

*gutiz bestetan:* guk ‘ia guzietan’ edo ‘aldi gehienetan’ adiera hartzen diogu. OEH-k ‘salvo en raras ocasiones’ itzuli du eta gure liburuko adibidea da lekuko bakarra: *gutiz beztetan nehor ez-tela betan huntaçunic edo bertutheric handienera heltcen* (39). J.-B. Constantin zuberotarraren xx. mendeko gütziz beste ‘ia guziak’ adibidea ere aipa daiteteke: *gütziz bestek hartzen zien Haritchabaleten eretzeko bestiak beno haboroxe den bati zor den errespetia.*

*haben & heben:* liburuan bi aldiz ageri den *haben* hori ez da ohikoa Ipar Euskal Herriko literaturan: Etxepare: *eben & hebetik & hebengo* / Leizarraga: *hemen* / B. Etxauz: *heben* / Tartas: *hebetic & hebe* / Pronus 1676: *hebenco* / Belapeire, Maister: *heben* / Bazkazane 1762: *hemen* / Laneufville: *heben* / Ruthen liburia, Gaaziko heskuaran: *heen*.

*hain untsa:* bederatzi adibidetan ohiko “graduatzailea + adizlaguna” edo ‘hain ongi’ da (14, 14, 66, 164, 248, 291, 296, 306, 440). Adibide batean garbiki emendiozkoa da eta ‘aussi / también’ adiera du: *esticie choilki Ginoaren cerbitzchian hazten direnec beldur horren beharra, bena hain unxa Ginoaren cerbitzchariric handienec eta berthuthian aitcinathienec* (410). Bi adibidetan *bai eta ere hain unxa egitura ageri da eta emendiozkoa dirudi: Ainguru bat, çoinhec incentxatcen baitcithien Comentuco Fraide otoitzcera erneki joan ciren guciac, bai eta ere hain unxa ecin joannez baratu ciren lekiac* (17); eta *bes-ten unxatan minçatcen inçuthiaz ppena edo bekaisguasco sendimendu çunbait bihotzcan poroatcen badu, heen saltataco*

*atchikitcia, bai eta ere hain unxa bere buriaz unxatan minçatcen inçuthiaz bere bihotzcan seinditcen thien dezkanxu edo placer banuac* (297). Beste adibide batean ‘hala’ edo ‘baita’ adiera hartzen du: *Seindiec hori net gomendateen dicie eta hun duçu heen erranaren seguitzia, eci net prootzchoz duçu hain unxa Gino-coaren bidian sartcen hassi direnen, nola bertuthian aitcinathien* (167).

*hamatu:* *inclinacione gaisthuac piztten eta hamatcen* (100-1); adiera ‘sua indar-tzea’ du. Hona Laphitzeren adibide bat: *sua bethi amatuz zohan haren bihotzean.* Zuberoan ‘landareak nonbait nagusitzea’ da. Hona *Eskualduna*-ko adibidea: *belhar gaxtoak eztira hala amatü-ren.* Lhandek eta Ibarrolako Salaberrik *h-gabe* dakarte.

*hantatu:* (96, 406, 417); *iduri çauçula mun-duco genden ikusthiac eta hantatciac esthiela çuretaco deuz langerossic* (406); *persona noreganat ere seindi baitu amo-dio arhin cerbaiten ukeitera ekarria dela, ez hantatcia* (417). Izena *hantazione* da: *elgarrekin uken nahi duten hantacionia devocionetic jiten dela* (375). Frantsesez bezala, adiera ‘norbaitekin hartu-emana usu izatea’ du eta Ipar Euskal Herrian baliatu da. Sarako Etxeberri, Mercy edo Laneufville aipa daitezke erabiltzailetzat; azken honek honela dakar: *gogouan igaran behar ditugu ibili guiren lekia, hantatu ditugun personac, goure estatuco becatu particularrac, eta guciz habitudazco becatiac* (144). Zuberoako 1734ko *Othoitce eta cantica*-k, berriz: *compagnia gaistouac hantatu dutianari* (43); *dudalacoz bekhatian / altharia hantatu* (45).

*haragi:* Zuberoan ez bezala, *h-z idatzirik* dakar; cf. Oihenarten, Belapeireren, Maisterren edo Gèzeren *aragi* eta Leizarragaren, Etxeberri Ziburukoaren, Axularren, Pouvreuren, Tartasen, Ibarrolako Salaberriren hiztegiko *haragi*. Laneufville-n ere *haragi* ageri da.

*hasper: nigarrez eta hazperrez niagoçu* (155); ‘hasperena’ du adiera eta *OEH*-k ez daskar beste inoren erabilerarik. Dena den, liburu honetan bada *hazperrapen* ere: *ene arima çureganat nahiz beti hazperrapenez diagoçu, ô ene Gincoa, oreinha ihistariez ahitbia iturrietalu heldu nahiz dabilen beçala* (210). Hitz hau Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan kokatzen du *OEH*-k, eta idazleetan, Ma-terre, Haranburu, Axular, Pouvreau, Xurio, Larregi, Laneuville, Duhalde, Laphitze aipatzen. Liburuak *hasper egin* dakar ere (276), ‘hasperen egin, zizzpurutu’ adieran. Zuberoako 1734ko *Ohoitce eta cantica-n hasperrenez nago heben aspaldian ageri da* (82).

*hatz: Cananeaco emazthia Jesu-Christoren arroparen hatzça hunki cien dohainian sendothia içan baitcen bere odol galtctic* (222). Adiera ‘soinekoaren ertz edo saihetsa’ du. Pouvreauk eta Ibarrolako Salaberrik badakarte eta Azkuek Baigorriin kokatzen du.

*hazinda beltz:* (398, 402), abereetan zerriak izendatzeten ditu. Aldaeretan diptongoa eta hasperena aipagai dira: Larregik, Duhaldek, Hiribarrenek, Duvoisinek edo Arxuk *azienda* dakarte, Jauretxek *azinda*, Michel Elizanburuk *hazinda*, Inxauspek *hazienda*.

*hazkurru:* ‘elikagaia’; gehienbat Baxenabar eta Zuberoako hitza da. Leizarragak bezala, Monhok, Jauretxek, Arxuk, Goihetxek eta Ibarrolako Salaberrik *hazkurri* darabilte. *OEH*-k *hazkurru* Baigorri eta Zuberoan dakar, Maister, Egiategi, Gèze eta Duvoisin barne. Belapeirek *hazkürre* dauka; Laneuville-n ere ageri da, baina mugaturik dator eta ezin jakin mugagabea nola duen.

*heldu: hala heltcen çuçun Seint Antoniori* (108); *hel dieiteçu ere, çunbait aldz ispirithuz graciasco eztathian comuniatcen dienac sacramentalalki ber eztathian comuniatcen dienac beno gracia aboro erecebi*

*leçan* (241); ‘gertatzea’ adierazten du eta *OEH*-ren arabera, idazle zuberotar eta amikuztarrek darabilte tradizio jarraian. Idazle zaharretan, Etxepare, Leizarraga eta Pouvreau aipa daitezke eta ondotik, Nafarroa Beherean, Michel Elizanburu, Ibarrolako Salaberri eta Barbier. Zuberoa alderdian, berri, Tartas, Belapeire, Maister, Mercy edo *Charlemagne* pastorala; hauek *heltü* aldaera darabilte. Gaineratekoan, Laneuvillek ere badakar. Ohart, bestalde, *heldu gira* gisako aditzak puntuari direla eta ‘etorri’ adiera dutela: *erraitetic heldu guirenac* (109), jatorrizkoan *dont nous venons de parler* (RD 2, 21).

*herabe: ez du adiera bakarra eta adibide bat-ean erdal ‘répugnance / resistencia’ adierazten du: nehorc cernabi mana ci-roçu persona umil bati, bestec nahi du-tena nahi dici, osso-ossua bere gueihe-naren manura dioço, ez choilki bere conduitan eta bere obretan, bena orano bere borondathia eta bere Jujamendia haren manuco tici, hartan nehorc etci idireiten contrastic, ez heraberic* (273). Badakar lotsaren edo ahalkearen adieran ere: *explicatcera herabe ditugun gau-cen erraitera* (368).

*herabezti:* ‘nagia’ da; *OEH*-k ez dakartzza Belapeire, Maister eta Inxauspe idaz-leak baizik; hiztegietan Ibarrolako Salaberrik, Gèzek eta Larrasketek dakarte. Zuberoako 1734ko *Ohoitce eta cantica-n* ere bada: *herabesti orriblia / badakic ore falta / deus hounic ez egulia / arima negligenta / erraguc...* (43).

*heraki[tu]:* ‘irakitea’; beste batz *impaciéncac eta colerac bihotzça herakitzen dirakoçu* (127); liburuak ez daskar adibide hau baizik. Lapurtarrek eta baxenabartar batzuek *iraki-* erako aldaerak baliatu ohi dituzte. *OEH*-ren arabera, Amiku-zen, Zuberoan eta Erronkarin (*h*)era-kitu dago. Duvoisinen arabera Zuberoan *h-* darama. Ibarrolako Salaberrik

*erakitu* dakar, Gèzek *herakitü* eta Larasketek *heakitü*.

*herra: jujamendu gaistuac ardura giten direla bekaisguatic, jeloskeriatric edo bihotzceco herratic* (431); cf. 432 & 448 ere; ‘gorrotao, amorrua’ adieran. XVII. mende hasieratik, Lapurdi, Baxenabar eta Zuberoako idazleen artean ageri da; Heggoaldean ia ez da ibili.

*herroka:* (8, 254) ‘lerroa, errenkada’; *aldaariaren ingurian herrocan jarteko* (254).

Aldaera nagusiagoa da *herreka*, Salaberri Ibarrolakoak dakarrena eta OEH-k Zuberoan ere kokatzen duena; bada *herranke* ere Zuberoan, Maisterrek nahiz Gèzek dakarte. Dena den, Gèzek eta Salaberri Ibarrolakoak badakarte *herroka* ere. Bigarren adiera bat ere badu *Pratica-n: heen herrokaco edo gradokuec eiten tuzten obra hunac* (331); ‘maila, kategoria’ adierazten du. Ibarrolako Salaberrik badakar adiera hau ere.

*hersatu: orobat Gincoari othoitçaz ardura hersatu behar diiti gure passioneec becatu eiteco emaiten tuzten hirritbien hiltceco* (74). XVII. mendetik Zuberoako eta Amikuzeko idazkietan ageri da eta ‘norbaitengana zuzendu edo enkomendatza’ du adiera. *Pratica-ko* grafia ez da homogeneoa: *hersatcen* (45), *herssatceco* (105), *herzsatcen* (393)... Hona erabiltaileak: Belapeire *hersatzen*, 1734ko *Othoitce eta cantica lana: hersatu* (14), Maister *hersatzen*, Mercy *hersatüren*, Charlemagne pastorala *hersatzen* eta Gèze *hersatu*; dirudienez txistukari igurzkaria da.

*hertsatu & hersatu:* ‘estutzea’ adieran. Grafian ez da batasunik, era afrikatua eta igurzkaria, biak dakartz: *gaitz borthitzkienic hertzxatcen guithien biciotic sendotceco* (126); *gente saldo handi batez lagundia çuçun, inguru alde orotaric herzssatcen ci-cien* (123); *gaitzçac hersatcen dienian eta heriua hurrantzen çacola ikuzten edo sein-ditcen dienian* (336).

*hertu:* (173, 180, 331, 345, 396); *luçazago biciz gure faltac beti cerbaitez hertzcen baguintu eta berriric ezpaguindu eguiten* (345); ‘gutxiagotu, bakandu’ da adiera. Lapurdin, Baxenabarren, Zuberoan, Zaraitzun eta Erronkarin kulturik dakar OEH-k. Leizarraga, Tartas, Belapeire, Maister, Etxahun, Arxu, Inxauspe... idazleek baliatu dute eta Ibarrolako Salaberri eta Gèzeren hiztegi- tan dator.

*biginaut:* ‘hugonotea, protestantea’; *guiristinho herrian bi pressunde suerte becic eliçatekeela içan behar: bata Higinaut edo heretikuen, bestbia erhuen* (118-9); baliteke *au* diptongoa izatea. Zuberoan *higanaunt* da eta Inxauspek halaxe dakar, baina Tartasek *hugenaunt*. Aldiz, beste autore batzuek diptongorik gabe egiten dute: Haranburu lapurtarrak *hugenaunt* dakar, baina Monhok eta Arbelbidek *higanot*.

*higungarri:* (33, 284); adieraz ‘gaitzesgarria’. Lapurdiko idazle klasikoek *higungarri* osoagoa darabilte; Laneufville-n *higungarri* ageri da. Zuberoan *hügüngarri* dugu, Gèze lekuko eta lehenago *hügüntarzün* dakar Maisterrek; *ugungarri* zen Erronkariko aldaera.

*hiragari:* *vandalec Africa oro hiragari herioz eta beste anitz damus beteric eşarten çuten demboran* (309); ‘amorragaria, izugarria’ du adiera. Lapurdiko idazle zaharrek eta beste autore zenbaitek era-bilia: Etxeberri Ziburukoak, Larregik, Monhok, Duhaldek, Arbelbidek, Baratziartek, Inxauspek. Izena ere ageri da liburuan, *hira: norc daki Jaunaren amoriuanala hiran edo haztiuan den* (35).

*hirritu:* *haraguiren hirritbia, çoinçaz bethi atakathiac baikira* (405); cf. 74 ere. OEH-k ‘incitación’ adiera dakar. Aditza ere bada: *hirritatu*; Laneufvillek badakar: *Nola Gincouac beguiratcen guitu Demoniouan hirritietaric?* (29); baita lehenago Pouvreaux ere.

*hobi* (162, 346) & *obi* (441): ez dakigu *h-* gabeko agerraldi hori hutsa ote den. Zalgizek *h* gabe dakar, baina *h-duna* da Oihenart, Tartas, Belapeire, Inxauspe, Gèze eta Ibarrolako Salaberrirenan, Etxepare, Harizmendi eta bestetan bezala. Larregik *hobia* *hura* dakar eta ez da bakarra: Nafarroa Garaian Beriainek *obia* *batean* eta Joakin Lizarragak ánit *obia* ilén ideki *zire* nahiz *obiaraño* segitu *bear du* adibideak darabiltzate.

*hoibel[du]:* (362); bestein ‘goibeldu’ da, ‘hodeiez estaltzea’. Ibarrolako Salaberrik *ekhia* *hobielduko* *da* dakar eta *hoibel* ageri da Baigorri; Amikuzen, berriz, *hobil* & *hobildu*. Bestalde, Lapurdiko idazle zaharrek eta Barbier garaztarrak *goibeldu* dakarte. Zuberoan Inxauspek ülhüntü.

*honitu: desirez bethia dela, bena ezpaitu nahi heen honitceco deuz eguin, eguna oro deliberotan igaraiten çacula* (26). Gainerateko euskaldunen *hornitu* da, *OEH-k* hitz honen hiru adiera dakartzza eta hirurak gure libururako egoki direnak: a) ‘osatzea’; b) ‘konpontzea, zuzentzea’; c) ‘asetzea’. Laneuvillek ere badakar: *obra hunez honitü* (103); berbat, Ibarrolako Salaberrik ‘compléter’ adieran dakar.

*hor:* (199, 306, 392); ‘zakurra’. Idazle lapurtar handiek *h-* gabe dakarte hitza, Hegoaldekoek legez, baina Zuberoan eta gure liburuan *h-z* ageri da. Baxenabarren eta bizkaiera zaharrean ere ezaguna da hitz hau. Erabiltzaileen artean, Landuchio, Leizarraga, Axular, Urte, Pouvreau, Duvoisin, Arxu edo *Charlemagne* pastorala aipa daitezke; Ibarrolako Salaberrik eta Gèzek ere badakarte hitz hau, *h-z*.

*hortako:* baliteke kausa-razoizko adiera ere izatea, baina liburuan datozen bi adibideetan xedezkoa dela dirudi. a) 204 orrialdean xedezkoa dirudi: *bena nola guihaur ezpaikitake haren behar*

*beçala errecebitceco behin ere prepara ahal, berac gracia hura eiten ezpaderagu, otoitu behar diici berharc gure ariman eçar deçan galdeiten dien umilitate, erespetu, amorio eta chahutarçuna oro; hortaco nehor *Gincoari* berari herssa dieteçu, exemplu arrunt huntçaz* (204); jatorrizkoetan *alegándole para ello* (II, 415) / et pour cet effet (RD 4, 318) ageri da. b) 90 orrialdekoan ere xedezkoa izan daitekeela iruditzen zaigu: *guiza batet, nun *Gincoaren* presencian guirelaco orbitzchapenac ekar guitzçan eguiten tugun gaucen hobeki eguitera, eta hortaco erraiten dugun methoda edo manera, besthiac oro beno anitcez hobe duçu* (90). Gaztelaniazkoak ez du argitzen: y esto mucho mejor se hace con este ejercicio (I/317) / cf. frantsesezko en sorte que la considération que nous sommes en sa présence, soit un moyen pour nous obliger à mieux faire tout ce que nous faisons; et c'est à quoi la méthode dont nous parlons est beaucoup plus propre que toutes les autres (RD 2, 229).

*hume:* ohiko ‘umea’; *ene maithia Licornaren humetaric bat beçala da* (321). Lapurdin eta Baxenabarren *ume* baliatu da eta Zuberoan *hüme*; *h-* gabe dakar Ibarrolako Salaberrik, baina *h-z* Gèzek.

*idoki:* *criminel bat, dakienian pressundeitic idokico dutenian urkabetara eremamen dutela* (335). Oro har ‘ateratzea’ edo ‘erauztea’ da, ingurune iragankorrean. Lapurdin, Baxenabarren, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun baliatu da. Idazle ugarik erabili dute: Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Tartas, Xurio, Maister, Mercy, *Charlemagne* pastorala, Arxu, Inxauspe...; Oihenartek *itoite* dakar eta sintetikoan *zedokan*. Hiztegien artean, Duvoisin eta Gèze aipa daitezke. Lehen adiera honen iduria den beste bat ere badu, ‘kentzea’: *bena choilki bertuthe hura bestena dela, eta ez heena, bestec nahi dutenian idoki-*

*ten edo uzten ahal dereenaz gueroz* (66). Bestalde, gauza jakina da Ipar Euskal Herrian *idoki* hitzak ‘irekitzea’ ere adieraz dezakeela; gure liburuan bi agerraldi bederen badira: *bihotzça nahassia lazter eiten dici labe bortharen idokitera eta bortha ideki onduan* (223); *Apeçac ahua idekiten dienian Jesu-Christoren Gorritzaren erecebitceco, dembora berian fidelen arimen beguiec edo ahuec idoki behar dicie Gingoasco Manna horren erecebitceco* (239). *OEH*-k Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan kokatzen du eta hainbat erabiltzaile dakar: Etxeberri Ziburukoak, Xurio, *Charlemagne* eta *Antiokiako San Julian* pastoralak, Arxu...

*igitu*: (66, 75, 290, 304); ‘mugitza’ da. Oro har, Lapurdin eta Baxenabarren *h-z* da; Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak edo Laphitzek, esate batera, halaxe dakarte, baina Zuberoan *igitu* baliatzen da, Oihenart, Tartas, Arxu, Gèze lekuko. Ibarrolako Salaberrik *higitu* & *igitu*, bi aldaerak dakartzia.

*igurika-* & *iguriki*: ‘itxarotea’ da. Gure liburuak *igurika* dakar aditzoina, Lapurdin eta Baxenabarren baliatu ohi dena, Ibarrolako Salaberrik ez badakar ere. Hona liburuko pare bat adibide: *igurica deçagun arguia eta bicitce urossaren egun handia* (77); *igurica çan Gin goac berac hartara altcha citçan* (112). Aditz izen inesiboan, berriz: *heriuu gi-nen baitçau guthien igurikiten dugunian* (61). Ipar Euskal Herriko aldaera hedatuena *iguriki* da eta Lapurdiko idazle zaharrek honela zekarten, XVIII-XIX-ETAN Lapurdin *iduriki* ere baliatu bazen ere. Laneuvillek eta Ibarrolako Salaberrik ere *iguriki* dakarte; aldiz, zuberotarrek *egürüki* & *ügürüki* aldaera berriak daramiltzate, baina Tartasek *iguruki*. Erronkarin *orki* eta *orkitu* ageri zaizkigu.

*iheiz*: *eci acometacen balitu haxetic becatu mortal baten eguitera, ihiki haren tentacionia eçagut eta iheiz lirocie* (41). Li-

buruko agerraldi bakarra da, beharbada *ireiz* aditzoina idaztean hutsegitea geratu da, baina aldaera fonikotzat ere jo genezake; cf. *ireizi* sarrera. Morfologiagatik ez dirudi *ihes* denik. *OEH*-ren sarrera *iraitzi* da, Leizarragak eta Etxeberri Ziburukoak ibilia. Etxeparek <yrazz> dakar, Oihenartek eta Belapeirek *iraizi*, Maisterrek eta Inxauspek *iraxi*, baina *iraistera* ere badu Inxauspek. Baliteke *iheiz* ere hauen aldaera izatea, adieraz bederen ongi ematen du, nahiz XIX. mendea arte Baxenabarreko testuetan bederen ez den *vrv* > *vhv* bila-kaeraren adibiderik; baldin adibide honetan *ireizi* > *iheizi* gertakaria badugu, agerpen goiztiarra litzateke hau.

*ihetzi*: bestimenda *ihetzci char bat ekarten diena* (398), ‘xaretu, zarpildu, higatu’ adieran; Salaberri Ibarrolakoak ere halaxe dakar. Lapurdin Pouvreauk eta Xuriok *ihetze* baliatu zuten, baina Larregik *ihetxi* dauka eta Duvoisinek eta bestek *ihetxe*.

*ih-i* & *ihiki*: ‘erraz & errazki’. Adjektiboa da *ih-i*, baina *ihiki* adizlaguna ere ageri da. Ibarrolako Salaberrik ere *ih-i* & *ihiki* daskarta. Zuberoan *ehi* dago; Maisterrek *ehi* & *ehiki* ditu eta Gèzek eta Inxauspek *ehi*; halaz guztiz ere, Belapeirek *ih-i* dakar. Ez da Lapurdin edo Baxenabar gehienean ageri.

*ihortzi*: ‘ehortzi’ aditzaren aldaera da, Baxenabarreko ekialdean ageri dena, Laneuville eta Ibarrolako Salaberri lekuko; *ehortzi* Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan kokatzen du *OEH*-k; esate batera, Belapeirek eta Gèzek *ehortzi* dute.

*ilhoba*: Ezaguna da *iloba* Ipar Euskal Herrian; hona *Pratica*-ko adibidea: *ira-kurten diici Seinta Elizabeth Portugaleco Erreguinhanz, Seinta Elizabeth Hungriaco Erreguinhan Ilhobaz, beharren edo prauben ererat hain karitathoz cela* (245); erdal ‘niéce / sobrina’ dakar ja-

torrizkoak. Baliteke <lh> horrek kontsonante albokaria + hasperena irudi-katzea, Larregik idazten duen bezala, baina nola ziurta ez dela hots palatala? Voltoirek, Pouvreaux eta Constantinek *illoba* dakarte, Etxahunek *lloba* & *lioba*, Mendigatzak *lioba* eta Zaraitzun *elioba* ageri da; Aezkoan *eiloba*, Eguesibarren *elleba* eta Nafarroa Garaian *elloba*.

*intseu*: ceren halaco inxeu bat urgulesco sein-dimendu bat bailicáte (109); cf. 296, 356, 359 ere; ‘saioa, eginahala’. Formaren aldetik *inxeei* (78) eta *inxeyez* (402) ere aipagai dira. Salaberri Ibarrolakoak *intsegu* dakar eta lehenago Tartasek *inseia*, baina Laneufvillek *ensegiak* (122). Berebat, Lapurdin, Leizarragak, Haranburuk, Pouvreaux, Axularrek edo Etxeberri Sarakoak *enseiu* dakarte eta Arbelbide baxenabartarrak *entsegu*.

*inzun*: desoreka gaitza dago *inzun* (104 agerraldi) eta *intçun* (agerraldi bat, 350 or.) aldaeren arteko txandaketan. Esate batera, garaitsuko 1757 inguruko Zuberoako *Iganteçtaco pronoua-n entçun* ageri da (6, 10), baina 1734ko *Otohoitce eta cantica-n*, berriz, *ençun* (67).

*ipiztatatu*: bere buriaren ourkatzcera *ipiztatcen baitcien* (243). OEH-k adiera ‘incitar, excitar / provocar’ dakar; ez dirudi idazleek anitz baliatu dutenik, itzulpen honetaz landa Baionako 1906ko *Propagacioneco urtecaria-n* baizik ez da bildu. Baliatuagoa da *ipiztu* izena: *mundiac emaiten derauskigun ipiztu gaistuetan* (400). OEH-k ‘tentación, provocación, incitación’ adiera ematen dio. Laneufvillek *iphistu* dakar eta 1893ko *Propagacioneco urtecaria-k inphiztu*. Bigarren adiera bat ere badu *ipiztu* honek, Gotzon Garatek Landibarren ‘borroka’ esanahian dakar; aditza ere izan daiteke *inphiztu* Baxenabarren, *ipiztatuen* adiera berean.

*irauktur*: (271); adibide bakarra da liburuan; aldiz, Laneufvillek *irauncor* da-

kar (147), “n”-duna, Lapurdin ageri ohi denez. Hitz hau ez da Zuberoako tradizioan ageri; Salaberri Ibarrolakoak edo Gèzek ere ez dakarte, baina Lhandek bai.

*iraungi*: *tentacioniac oro apaiceatcen tuçu eta becatiaren súia iraungitzen* (222), ‘itzali’ adieran. Baxenabarren eta Lapurdin baliatu ohi da, baina XVIII. mendetik honat galduz joan da. Hona era-biltzaile batzuk: Etxepare, Leizarraga, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Haraneder, Monho. Baina ‘baretu, agortu’ adieran ere badarabil: *hotzten eta iraungitzen dicie devocioniaren gARRA* (194). Erabilera hau ere Lapurdin eta Baxenabarren ageri da, Materre, Axular, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Duhalde, Jauretxe edo Duvoisin idazleak lekuo; Laneufvillek ere badakar eta Ibarrolako Salaberrik *iraungi* & *iraungitu* dakartzza hiztegian.

*ireizi*: A. Lizarzak ‘baztertu, arbuiatu’ adieran dakar; *demoniaren tentacionen ireisteco* (295); *ezteçacie uken, beraz, beldurric, guiçon umil bat* *Gincoaz confussionereki ireicia içanen dela* (274); cf. *iheiz*.

*iroi* & *iroi egin*: *bethi hunerat hartu ticit heen iroyac, hetçaz gaiski jujatu gabe* (435); *Aita Avilac garrazki iroi eguiten direeçu meditacionetan gauça batetic bes-tera joaiten direner* (137). A. Lizarzak ‘errierta eman’ eta ‘iseka egin’ adierak ematen dizkio (1967), baina liburuko bi *iroi* horiek (390 & 435) ‘errietal-dia’ dira eta ‘errieta eman’ da *iroi egin* (137). Ez da, bestalde, zuberotarren hitza. Larregik, Duhaldek edo Duvoisinek (*h)idoi* dakarte, Xuriok eta Haranederrek (*h)iroi*, Baratziartek *iroi*.

*ispixo*: *laster egucie preciua edo ispichua irabaz dirocien guizan* (63-4); ‘apustua’ izan ohi da *ixpixo* hitzaren esanahia eta guk halaxe entzun dugu Oztibarreko Iutsin, baina Lhandek adibide honetan

oinarriturik ‘saria’ esanahia dakar eta egokia da. *OEH*-k Baxenabarreko Garaizi eta Amikuzen kokatzen du hitza. Tartasek *espiso* dakar eta Ibarrolako Salaberrik *ixpiso*. Ez dakigu liburuko *ispichua* (63) adibidean lehen txistukaria sabaiaurrekoa ala apikaria den.

*itsaso & itxaso*: arazo grafikoa dago hitz honetan eta beraren eratorriean. Eman dezagun beste hitz batzuetan bezala, <tx> grafiak “ts” adierazten duela; cf. <houtx>, adierazten baitu “huts”; har-tara, <itxasso> grafiak “itsaso” adieraziko luke eta <itchasso>-k, berriz, “itxaso”; lehen idazketak hamar agerpen ditu eta <itchasso>-k hiru baizik ez; baina ziur ote gaude <itxasso> horrek beti “itsaso” adierazten duela? Inxauspek 1856ko Sen Mathiuren ebanjelioan *itcháson* dakar (80), sabaiaurrekoa eta Larrasketek ere bai; aldiz, Ibarrolako Salaberrik urte berean *itsaso* dakar; auzia ez dago hain argi.

*itzuri*: ‘ihes egin, saihestu’; Ipar Euskal Herrian zabal ibili da, baina xix eta xx. mendeetan bakanduz joan da: Leizarraga, Haraneder, Belapaire, Larregi, Mihura, Duvoisin...; Pouvreaux *itzuli* dakar.

*izari*: ‘neurria’. Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan baliatzen da, baina Leizarragak bere garaian *neurri*-ren Zuberoako kidetzat zekarren *izari*; Oihenart, Tartas, Belapeire, Maister, Monho, Goihetxe, Duvoisin, Hiribarren, Salaberri Ibarrolakoa San Mateoren ebanjelioan, Michel Elizanburu, Mañex Hiriart-Urruti, Arbelbide, Inxauspe... erabiltaileak aipa ditzakegu eta hiztegietan Ibarrolako Salaberrirena eta Gèzerena; *izartu* aditzari dagokionez, adieraz bedi Lapurdiko idazki zaharretan *neurtu* hitza dakartela Leizarragak, Etxeberri Ziburuokoak edo Axularrek; *izartu* “neurtu”-ren adierakide zuberotartzat dakar Leizarragak. Gure liburuak badakar:

*gure proximua içar deçagun guihaur içartcen guiren içarı beraz* (419). Oihe-nart, Maister, Inxauspe, Gèze, Ibarro-lako Salaberri, Goihetxe, Hiribarren, Laphitz erabiltzaileak aipa daitezke.

*jagoiti*: agerraldi bakarra du liburuan; *Jauna, ezteçaçula permeti jagoiti offenza citçadan* (81); adieraz ‘aurrerantzean’ da. Leizarragak, Etxeberri Ziburuokoak eta idazle baxenabartar eta zuberotarrek erabili dute. Arestian aipatu bi idazle lapurtarrek eta Etxeparek nahiz Belapeirek *jagoitik* dakarte; Oihenartek *ja-goiti* eta Laneufvillek *jagoiti*. Zuberoan ere, Maisterrek, Mercyk, Inxauspek eta Gèzek *jagoiti* idatzi zuten; 1734ko *Othoitce eta cantica-k jagoiti* (21) eta *ja-goitic* (22), bi aldaerak dakartza.

*jakintsu*: zuberotarren da *jakintüsü*, Lapur-din eta Baxenabarren *jakintsun* ibili baita gehiago, nahiz Etxeparek eta Leizarragak *iakin(t)su* duten. Materrek, Axularrek, Pouvreaux, Haranederrek, Etxeberri Sarakoak... *jakin(t)sun* darabilte, baina Tartasek, Belapeirek eta Inxauspek -n gabeko aldaera.

*jankatu*: agerraldi bakarra du liburuan; *OEH*-k ‘karraskatu, hortzikatu, janaren zati bat alferrik galduz jan’ adieran dakar, eta Amikuzen eta Zuberoan koka-tzen du; *Gincoaz ossoki bihotzça bethia baduçu, iraunen duçu, bena bihotz-cian hazten baduçu urguliaren edo beste çunbait passioneren harra, emeki emeki bihotzça jancaturen, eta bertuhian irau-teco goçoric hobena eta azkarrena idokico, clarki erraiteco, becatura berris erorteco langer handitan içanen cira* (65).

*jasan*: iduri luke adibide batzuetan ‘eli-katzea’ duela esanahia: *halaz, gorpitz-ceco hazkurriac gorpitzça jassaiten dien beçala, indarrac emaiten eta handi-araciten* (216); *orobat duçu celutico haz-curru hortzçaz: etci choilki erecebitcen diena jassaiten, hunian iraun-aracitcen, azkartcen, bena orano goço miragarri*

*bat emaiten* (217); dena den, *OEH*-n ez dugu adiera honen erabiltzaile gehiago sumatu. Bestalde, ohiko adiera ere badu *jasan-ek* gure liburuan: *ene indarrer jassan diroten beno cargu handiago bat eman diraacie* (252). Ipar Euskal Herrian baliatua da ohiko adiera hau, Lapurdin eta Baxenabarren, eta berdin Baztanen ere. Zuberoan, Zaraitzun eta Erronkarin *egari* ibiltzen da eta Etxeparek eta Leizarragak ere bazerabilen; baita Tartas, Belapeire, Maister, Egia tegi, Etxahun edo Inxauspek ere.

*jinko & jingo*: *OEH*-k Lapurdiko Saran *jingo* dakar, baina *EAEL*-k *Yainkoa*; Lizarra Elkanokoak ere *Jaingo-ren* adibide bat dakar; Polikarpo Iraizozkoak ere *Jaingo* du.

*joandene*: saindu maskulinoa adierazten du: *Joandene Pauleren erran hoen aravera* (10). *Pratica*-ko hau baino aldaera hedatuagoa da Lapurdin eta Baxenabarren ibiltzen den *Jondoni*. Zuberoan *Jundane* dugu, esate batera *Charlemagne*-n: *Jundane Jacobe eneçat / hanix duçu baliatu / eta cientoce ere / orobat agitcen duçu* (Oihartzabal 1991: 393).

*jokakari*: ‘jokalaria’, agerraldi bakarra du liburuan eta ez dakigu hutsa den, duplografia den ala zuzena den; ez da beste idazlerik aldaera hau dakinarenik: *hitz horien gagnan ciòçu Cassien Authorrac indar jokakari hec corua edo irabaci galcor baten ukeiteco pairatcen baciren haragui eta janhari edo beste gauça been indarra dremendena flaka ciroteneric* (365). Ibarrolako Salaberrik *jokari* dauka; Axularrek, Pouvreau eta Oiherartek *iokari*; Tartasek *iokalari*.

*kanbara*: bi adieratan darabil, batean ‘celllule/celda’ (143) da eta bestean ‘egoitza’ (205).

*kaneta*: *erraiten ceracolaric fideler bacoitzcal eman cereela ourhesco caneta bedera edateco* (29); ‘edontzia’ du adiera eta *OEH*-k Baxenabarre eta Zuberoan da-

kar. Ibarrolako Salaberrik honela dio: ‘gaudet en métal avec anse’. Bigarren adieran ‘hodia’ da eta Zuberoan du kokagunea: *eci hala nola hora galtcen baita kanetac ichurten dienian, orobat arimaren garbitarçuna galtcen duçu beguiac beguiratcen espadira so debetathietaric* (359); hona Gèzek ematen dion adiera: ‘tuyau, orifice d’une source’; Larasketek ere badakar.

*kausitu*: *Erregueri caussitu nahiz* (246); ‘atsegina ematea’ du adiera eta datiboa eskatzen du. Baxenabarre-Zuberoetan ibiltzen da adiera hau: Ibarrolako Salaberrik, Larasketek nahiz Etxahunek dakarte. Dena den, liburuan berean dugu ohiko esanahia ere: *han caussitzen baitu hainbeste consolu eta eztitarçun Celuco hazkurru haren medioz* (218). Erabiltzen du ‘asmatu’ adieran ere: *Jaunac detxala haren gloriataco eta arimen hobetan ene hautbian kaussitu dudan!* (7).

*kestione (izan)*: *eci denaz gueroz kestione beharrenic dugun gauçaz* (134). Liburuko erabilera bakarra da eta euskara zaharrean legez oraindik ere izen iza-tetik aditz izatera iragaten ari denaren kutsua du; ‘gaia zein den’ esan nahi du; cf. Laneufville: *baliz ere questione lagunari cerbitchu errendatciaz* (98). Gure liburuko adibidea ez daiteke postposiziōtzat har; ondoko garaian instrumentalari atzikirik joanen da eta ‘-dela eta’ adiera hartuko du Ipar Euskal Herrian.

*klar*: zerbait ‘argi egotea’; *clar duçu, beraz, ardura otoitzça egin behar dugula* (99). Lapurtarren artean Etxeberri Ziburukoa, Axular, Gazteluzar edo Pouvreau aipa daitezke; Salaberri Ibarrolakoak ere badakar eta Zuberoan Gèzek eta Larasketek. Gotzon Garatek *ori klar da bildu zuen Zuberoan*.

*konjita hartu*: maileguzko aditz lokuzio honen ‘errespetuz agur egitea, despedida ematea’ ideiaren ingurua adierazten du: *aita, barka çaaçu, aurtemehin hain*

*idorki cure congitha hartu gabe utzci baitzcintudan* (395). Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, Tartasek eta pastoral zenbaitek ere *konjit har-* dakarte. Bestalde, ‘baimena’ adierazten du *konjit-ek*. Leizarragak, Oihenartek eta Beltran Etxauzek *konjit* ddkarte, baina Etxeberri Ziburukoak eta Haranburuk *konji*; Larrasketek, berriz, *kunjit*.

*kontesta*: aurkakotasunaren, lehiaren edo eztabaidaren antzeko ideia adierazten du; *eguiasco umilen arthian ezthieteçu içan beste contestaric, çoinhec bere buria apaldurenago dien becic* (271); *guiza hortaco çuçun Joandene Paule Ermithainharen eta Seint Antonioren arteco contesta* (271).

*kontino*: Lapurdin Xurio eta Haraneder dira erabiltzaile eta Nafarroa Garaian Joakin Lizarraga. Zuberoako tradizioan ere ibili da eta ‘eten gabe, tai gabe’ adierazten du: *çoinhen prootxu handia den beti Gincoaren presencian ibilthia, eta contino segurtathiac içaithia ikuzten guithiela* (69). Larrasketek kúntino eta kunitinóko dakartza.

*kontrast*: ‘gaitzespena, aurkakotasuna’; *nehorc cernahi mana ciroçu persona umil bati, bestec nahi dutena nabi dici, osso-ossua bere gueinenaren manura diooçu, ez choilki bere conduitan eta bere obretan, bena orano bere borondathia eta bere Jujamendia haren manuco tici, harthan nehorc etci idireiten contrastic, ez heraberic, bena urguluxiez eztuçi gauça bera* (273). Gaztelaniazko jatorrizkoak (II/3/3/131. or.) *contradiccion ni resistencia* dakar. Hona bigarren adibide bat: *theologienec, erakasteco noiz den becatu mortal medisent bati behatcia contrastic gabe, anitz kassu berhesten ticie* (442). Pouvreaux senar-emazteez diharduela dakarren adiera gure liburukoari inguratzen zaio: ...*artearen ikus eztadin kontrestik eta gudurik*. Oro har, Pouvreaux bere lanaren beste pasarte batzuetan ematen

dion esanahitik guztiz hurbil dabil gure liburuko bigarren adibidea; cf. *OEH* (X, 739). Aditza *kontrastatu* & *kontrestatu* da: *Gueihen horrec kargutu cicin segrethian Fraide çahar/guiçon garatz bat, ardura contesta ceçan Fraide gaste hori eta gaiskei anitz erran ceçacon* (389-390).

*kordokatu*: *gaizkiraco gutan den erordura batec gure seindimendiak laussengatcen thiela, enguenatcen, irabazten, gure ari-mala lerratcen eta sartcen, gure erresolucioneric seindienac, azk[a]rrenac kordocatcen eta azkenecotz, gure devocionairen edo bertuthiaren cimendiak manera batez flakatzen* (40). Adiera zabala du: ‘koloka egotea’, ‘arrakalatzea’, ‘zalantza izatea’. Ibarrolako Salaberri eta Gèzeren hiztegietan bada. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan baliatu da, baina Zuberoan bada *zot(h)üküatü* ere. Gèzek biak dakartzza; *k(h)ordokatu*-ren erabiltzaile ditugu Axular, Pouvreau, Tartas, Larregi, Baratziar, Egiategi, Duhalde, Duvoisin, Jauretxe, Arxu, Laphitze, Inxauspe...

*kornado*: *Jesu-Christoc erraiten dici: bi murru chori eztirea saltcen cornado batendaco?* (303), ‘txanpona, sosa, ardita’ adieran. Gehien baliatzen den aldaera *kornadu* da; Axular, Sarako Etxeberri, Haraneder edo Larregi erabiltzaile dira. Oihenartek eta Laphitzek *kornado* darabilte.

*korona* & *korua* (365): ‘koroa’ adieran; *corua* behin ageri da eta *corona* hamabi aldiz. Laneufvillek eta Usk Lib-ek *korona* dakarte; aldiz, Maister, *Charlemagne*, Usk Lib eta Inxauspek *korua*. Leizarragak eta idazle lapurtar klasikoek ere *k(h)oroa* darabilte, Tartasek, Belapeirek, Egiategi eta Arxuk bezala.

*<korsxuan> (ibili)*: *itxassuan korsxuan edo huntasun atcimanca çabilcenec* (253); ‘lapurretan, kortsarioen legean ibiltzea’ (253). *OEH*-k aldaera nagusia *korsuan* dakar.

*kroketarik idoki*: ‘giltzadura edo artikulazioetarik aterarazi’; *haren heçur cu-*

*rutcian estiratuz bere kroketaric idokiec* (159). *OEH*-k ez dakar gure liburuko adibidea baizik.

*kunde* (335) & *kunte* (358): ‘espeziea’, ‘mota’, ‘gendaea’, ‘jendea’. Batetik *urde cundhia* dakar (335); bestetik *contratu egún ciela bere beguieki emaste kuntera ez penxatceco* (358). Belapeirek eta Inxauspek *künte* dakarte.

*kuruzifikatu*: *OEH*-ren arabera, zuberotarrak ez diren Ipar Euskal Herriko idazleena da *gurutzefifikatu*. Leizarragak eta zuberotarrek *kruzifikatu* dakarte; Tartsasek *kruzifikatzeko* dakar, Maisterrek *krützifikatü* eta *Charlemagne* pastoralak *krüzüfikatü*. Ordea, ia gure liburuau bezala, Laneufville-n *kurutzifikatu* ageri da.

*laidogarri*: *Curutcian Herio laidogarri bat en sofrituz* (257); adieraz ‘norbaiten ohorearen aurkakoa dena’, Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan baliatua. Lapurdin *laidogarri* dakarte Etxeberri Sarakoak, Harizmendik eta Urtek, baina Axularrek eta Mariano Izeta baztandarrak *laidogarri*. Belapeirek, *Charlemagne*-k, Laneufvillek edo Egiategik ere *laidogarri* dakarte, Gèzek legez. Zuberoan *laidogarri* ‘ohoregarria’ da.

*lanjer*: ‘arriskua’ du adiera. Ez da Ipar Euskal Herrian XVIII. mende bukaera arte ageri, artean *danjer* ibiltzen zen (Tartas, Maister, Laneufville, Mercy, *Charlemagne*); *lanjer* dakarte *Pratica*-k, Laneufvillek, *Charlemagne*-k, Goihetxek, Joanategik, Inxauspek...»

*lañotarzun*: ‘simplesasuna’ adierazten du: *lanhotarçuna anitz baliatcen çaukun beçala elgarren arteko amorio hunaren beguiratceco* (432). Ipar Euskal Herrian ageri da, XVIII. mendearren erdialdetik honat, hainbat idazlek baliaturik: Haraneder, Mihura, Goihetxe, Hiribarren, Duvoisin, Laphitze...»

*latxera*: adieraz ‘lakioa’; *Gincoac tentacionen latzcheretaric libratuco citu* (397). Lei-

zarragak *lazoa*-ren Zuberoako ordaintzat ematen du *laxera*. *OEH*-k “latxera” interpretatzen du gure liburuko grafia bihurri hori eta guk uste zuzen den.

*laudagarri*: ‘goresgarria’; *obra laudagarrien prootzchia* (260). Zuberoan *laidagarri* baliatzen da: cf. Mercy edo Inxauspe, baina, aldiz, Maisterrek *laidable* dakar. Lapurdin eta Nafarroa Beherean, Ibarrolako Salaberriren hiztegia barne, *laidagarri* ageri da.

*lehenik eta bizirik*: gure liburukoaz landa *OEH*-n ez da adibide gehiago; Maurice Harrieten hiztegitik dakar. Eskualdeko katiximek badakarte: *icussi behar da lehenic eta biciric certan Gincua ofensatu dugun* (1740: 111); *gogoua eman behar da lehenic eta biciric certan Gincoua ofensatu dugun* (1786: 143).

*lehiataka*: ‘tarrapatan, presaka’ (121, 136, 244). Laneufvillek ere badakar: *haren eguitia moldegaiski, lehiataca, hitcen gaizqui edo atencion eta devocioneric gabe erraitia* (19). Ez dago *OEH*-n beste idazle edo adibiderik.

*leiñhuru*: liburuak *lheiñhuru* grafian dakar eta beraz, ez dakigu ziurtasunez *lleiñhuru* ala *leiñhuru* irakurri behar den. Ez baitugu *lleiñhuru*-ren adibiderik ezagutzen, bai ordea *leiñhürü*, eta liburuan <h> ez baita era unibokoan baliatu, *leiñhuru* uste dugu dela egiantzekotasun gehien duen aldaera. Hitzak bi adiera ditu: batetik ‘argi printza’ (68, 73, 76, 429); *çoinhen beguietaric hainbeste argui lheiñhuru jalguiten baitcen* (429). Zuberoa eta Amikuzeko tradizioan koka-tzen da hitzaren adiera hau. Ibarrolako Salaberrik ez dakar. Zuberoan Tartsasek *leiñuriak*, Maisterrek *leñhuriak*, *Charlemagne* pastoralak *leinburia* eta Inxauspek *leiñhüriez* darabilte. Gèzek *leñhürü* dakar eta Larrasketek *leñhüü*. Bigarren adiera ‘zantzu’ edo ‘aztarna’ du, gure liburuan ageri dena: *eci ezkitici choilki creatu eternalki Celian berharen*

*goçatceco: nahi uken dici, lurrian uken quindecan urositate haren lheinhuru edo eçagutce arhin bat, haren presencian beti ibilis, hura beti adoratuz eta hari beti sogninez fediaren odeien eta ilhunpen artetic* (68). Ikus herri kantu xiberutarrean: *ziük erraiten deitadazüt ni ere banizala [agota] / egündano ükhen banü demendren leiñhuria / enündüzün ausartüren begila so'gitera.*

*leize: gaiztuen bidia ilhunpez bethia dela, eztutela ikuzten leice çointara erorten baitira* (37). Salbu Monho eta gure liburuko *leize-ren* agerraldiak, Ipar Euskal Herrian XIX. menda arte *leze* aldaera nagusi da; *leze* dakarte Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak, Axularrek, Gazteluzarrek, Maisterrek, Baratziarrek edo Etxahunek. Bada *leze-ren* bigarren adiera bat: Maisterrek eta Duhaldek dakarte eta ‘putzua’ adierazten du.

*likorn: ‘adarbakoitza, adarbakarra’ adieran, frantses licorne-tik mailegatu da, gaztelaniaz ‘unicornio’.* Hona adibidea: *Licornaren humetaric bat beçala da, erraiten dicie Licorna deitzen den animaliac bere adarra beguiac beno apalago thiela-cotz, ezthiela ikuzten nora duben haren adar colpia* (321).

*lizon & lizonkeria: penxaketa liçonetan ez egoiteco* (398); “lizun” & “lizunkeria” hitzen aldaerak dira; OEH-k *lizondu* Nafarroa Garaiko Bortzirietan baizik ez dakar. Era nagusia *lizun* eta *lizunkeria* dira, Lapurdiko idazle klasikoek darabiltena. Laphitzte baxenabartarrak ere *lizun* dakar; *lizunkeria*, berriz, Lapurdi eta Nafarroa Beherean baliatu dira. Maisterrek, esate batera, *theiarzün* darabil. Oihenartek, Belapeirek, Gèzek edo Larrasketek ez dakarte *lizun*, baina Ibarrolako Salaberrik bai.

*<loherinha>: adieraz ‘logalea’ da. Baliteke hitza *loheriña* izatea, baina ez da ziurrira, liburuan agerpen bakarra baita;*

*lo(h)eria darabilte gainerateko idazleek. Hona liburuko adibidea: ceren otoitzçan ezpaitu lo egon behar, ez choilkia gorpitz-vez present içan, eta bibotzça beste gau-cetarat barreaturic uken. Hori Seindiec deitzen dicie bihotzçaren loherinha, eta hori otoitzçaren unxa eguiteco puchulu net handi bat duçu* (110).

*lotsa: cerc ere orano mundutarrac guehie-nic hiltceco orenian icitzen baititu, eta heriua lotxa eta ikaragarritzen dereena duçu* (334). Ez dago guztiz garbi aditza ala izena den, baina aditza dirudi; halako ‘lotsagarritu’ edo antzekoa genuke, baina itxurazko komunztadurak ez du jakiteko aukerarik utzi. Beldurtzearen adieran *lotstu* Ipar Euskal Herri gehie-nean, Erronkarin, Zaraitzun edo Aez-koan baliatzen da, baina Lapurdiko literaturan guti. Etxepare, Tartas, Maister, Charlemagne pastorala, Etxahun, Laphitzte idazleak eta Ibarrolako Salaberri eta Gèze hiztegigileak aipa ditzakegu.

*<luçatche>: miserietan eta flakecietan gagnan sobera eta luçatche egon gabe* (293). Liburuan agerraldi bakarra du eta txistu-kari afrikatu sabaiaurrekoak adieraziko luke. Tartasek *bidia lüzese bazauzü* adibidea dakar (*Ontsa*, 99). Itxuraz *Pratica-n* ez dago afrikatua lekarkeen beste -txe maila atzizkirik, baina -xe-ren bi adibide datozi: *joanche* (250) eta *barrea-tuche* (424).

*mainhatu: bainatzearen adieran; Jesus Cu-rucificathiaren plaga edo çauri sacrathie-tan gordeco nuçu, haren odolian mainha-tuco* (295). Ez dago garbi grafiak zer adierazten duen, *mainhatu, maiñatu* ala *maiñhatu*, liburuaen grafia sistemak ez du *nh*, *ñ* eta *ñh* bereizteko aukera-rik eskaintzen. Halaz guztiz ere, adibide honek baditu paraleloak: Belaren hiz-tegian *mañatü*, Ibarrolako Salaberri-nean *mainhatu*, Gèzerenean eta Larras-keitenean *mañhatü*. Barbier garaztarrak *mainatzen* dakar; aldziz, Oihenartek, Be-

lapeirek edo Maisterrek ez dakarte mai-legu hau.

*maneatu*: adiera ‘jokatzea, aritza’ luke, adibide honetan bezala: *ororen eretcian maneatcen delaric haren gueihenac bailira beçanbat umilitate eta errespetureki* (298). Honelakoak ditutze Leizarragak edo Maisterrek, baina horien bien aldaera *maneiatu* da.

*mañata*: *hala nola manhata çaharrac etche handietan ezpaitira egoiten* (48); ‘mirabe’ adieran. Amikuzen eta Zuberoan baliatzen da: Oihenartek *mainata* dakar, Laneufvillek *maiñata*, Egiategik *maiñata*, Zuberoako katixima bat-tek *mañaten*; cf. *mainada* hitza, ‘familia’ adierazten duena, Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, Axularrek, Pouvreauk edo Haranederrek baliatzen zuten.

*mardo*: *ez cothoinhez edo beste gagneraco cerbait gauça estiz edo mardoz* (445-6); ‘biguna’. Baxenabarren, Zuberoan, Zaraitzun eta Erronkarin ageri da eta Egiategik, Arbelbidek, Ibarrolako Salaberrik, Gèzek edo Larrasketek dakarte.

*marraska & marriska*: ‘oihua, orroa, auhena’ adierazten du *marriska*-k. Hedadura handiagoko *marraska* hitzaren aldaera dirudi eta Txirritaz landa, OEH-k ez dakar gure liburuko erabilera baizik; aldiz, *marraska*-ren erabiltzaile dira Leizarraga, Etxeberri Ziburukoak, Axular, Haraneder, Arxu, Etxahun, Pedro Jose Sanper zaraitzuarra...

*mathatu*: *kazu hartan gorritzac mathatu behar ci, biciuaren ithurburia denaz gue-roz* (388); ‘menperatu’ adierazten duen mailegua. Zuberoa-Baxenabarretan ageri da eta Gèzek eta Ibarrolako Salaberrik badakarte; Haranederrek *matutu* aldaeran ematen du.

*mendekio*: *bihotzcerat sartzcera ez utci haren bakia nahaz diroen gauçaric, ez trista, ez samur diroenic, ez mendecatceco desiric han sofra çunbat-nahi mendekiua thihi*

den (53-4); *mendekiua* dakar gure liburuak adibide bakarrean, baina aditz *mendekatu* da; *mendekio* aldaera Leizarragak erabili zuen eta Laneufville-n *meindeikioz* ageri da *mendecu-rekin* batera. OEH-k Baxenabarreko Baigorriin kokatzen du *mendekio*; Laphitzek, Mafex Hiriart-Urrutik, Xalbador ber-tsolariak eta Barbier garatzarrak ere *mendekio* aldaera baliatu zuten. Lapurdin Materrek eta Axularrek *mendeku* dakarte eta Etxeberri Ziburukoak *mendeku & bendeku*; Haranederrek ere *bendeku* dauka. Berebat, *mendekü* dago Zuberoan, Belapeire, Etxahun edo Gèze lekuko, baina aldiz, 1734ko *Othoitce eta cantica-k mendekiaren* (22) eta *mendecuric* (24) dakartzia.

*mendre*: ‘txikia, ahula’ adierazten du, pertsonez eta gauzez esana; *gaiskiaren iduriric mendrenian haren obrac oro gais-totaco har-arasten* (431). Lapurdin, Nafarroa Beherean, Baztanen eta Zuberoan ageri da. Erabiltzaileen artean, Leizarraga, Tartas, Gazteluzar, Etxeberri Sarakoa, Maister —*mendretü-rekin* batera—, Mihura, Baratziar edo Mañex Etxamendi ezterenzubiarra aipa daitezke; Laneufvillek ere badakar, Pouvreauk, Urtek edo Duvoisinek legez.

*meskontent*: adieraz ‘atsekabetuxe, gogogabetuxe’; *orducotz mezcontentkara baitcen Erreguinhas* (246). Arazoa grafian dago: txistukari hori apikaria izan daiteke, baina liburuko ohitura grafi-koek ez dute anbiquotasuna desegiteko erarik eskaintzen.

*mesperetxu & mezperetxu*: ‘gaitzespena’ adierazten du; *mesperetchu* (167) & *mesperetzchu* (168) grafiaiak dakartzia *Pratica*-k. OEH-k *mesperetzu* interpretatu du, baina liburuko kaos grafikoaren emaitza da gehiago zinezko ahoskeraren isla baino. Euskal Herriko ekialdean txistukari sabaiurrekoak ageri da azken silaba horretan: Laneufvillek *mesprechia* da-

kar, Tartasek *mesperexu, mesprexu eta mesperexioak*, Belapeirek, Maisterrek eta Mercyk *mesperetxiü*, Gèzek legez eta Egiategik *mespretxü*. Ibarrolako Salaberriko ere *mesperetxu* dauka. Mendebalera bestela da: *mesprezio* dakarte Etxeberri Ziburukoak, Pouvreauk, Haranederrek, Duhaldek, Etxeberri Sarakoak...

*mirakulu*: ukapenean ibilia; *eztuzu mirakulu* beste euskaldun batzuen ‘ez da harritzeko’ da: *eztuu miraculu, ciòu Seindu berac, gauça ispiritualen edo Gingcoaskuen desiratu gabia, cer diren porroatu beno lehen eta heen goçatcen hassi gabe* (32).

*morde*: Morde Vigneau gure Aumonier eta Secretariac endelga-araci onduan (450); ‘jauna’ adiera du. Ez dakar liburuak, L.-M. Suarés d’Aulan-en onesenak baizik. Baxenabarren ezaguna da *murde*, Monho eta Oxobi lekuo eta J. B. Elizanburu lapurtarrak ere badarabil, baina gure liburuak bezala, Arxuk eta M. Elizanburuk *morde* darabilte. Tartasek eta Egiategik *mosde* dakarte, baina gerora Zuberoan *musde* ibili da: Etxahun, Inxauspe, Gèze, Larrasket...

*nabasi[tu]*: *eci becatu handiac bere itxous-tarçunaz bere beitaric hazthiaratcitzen tici, bena thipieki ihiki nabassitzen guituçu* (42); ‘konfiantza hartza, ausartzea’ adierazten du, OEH-k eta A. Lizarzak ‘devenir familier’ diote; *nabasitu* aditzaz ez dago OEH-n gure liburukoaz beste adibiderik. Halaber, *nabasi* hitzak Zuberoan ‘ausarta, indiskretua’ adierazten du; Oihenartek, Belapeirek, Maisterrek edo Inxauspek darabilte. Iku *nabastarre* izena Klobis (Loidi 2009: 612) eta *Edipa* pastoraletan (Bilbao 1996: 256). *Ohoitce eta cantica* lanean *nabasaki* ageri da (1734: 72).

*nagi & nagiki*: Lapurdin ageri da, Etxeberri Ziburuko edo Axular lekuo; Belak eta Oihenartek ere baliatu zuten. Baxenabarren Ibarrolako Salaberrik bada-

kar eta beste alde, Gèzek ere badiaka, baina aldiz, Belapeirek, Maisterrek edo Larrasketek ez.

*nahar*: adieraz ‘sasia’ da; *Nola esperança ukeiten ahal duçu paussuric, naharric eta elhorriric becic ekarten ezthien lur huntan?* (407); cf. 398 ere. Zuberoaz landako Ipar Euskal Herrian *lahar* dake Haraneder edo Baratzia idazleek, baina ekialdera *nahar* dago, Tarras, Arxu, Inxauspe edo Gèze lekuo. Ibarrolako Salaberriko ere *nahar* dakar hiztegian, baina San Mateoren ebanjelioan, berriz, *lahar*.

*nahibada*: *erreguec nahibada etcien ossoki salhaçale hori sinhxi* (246); ‘nahiz’ adbertsatiboaren adiera du; aditza jarraitzen bazaio, -n ala subjunktiboa eduki ohi du. Badu aldaera bat: *eci nahibadare leku hortan mintçatcen den azken judacioneco egunaz, endelga ere dieiteçu heriotceco orenaz* (60) eta ibiltzen da *nahibada* ere era ere. Zuberoan eta Amikuzen baliatzen da *nahibada* eta Erronkarin *naibeda* zegoen. Harizmendik eta Michel Elizanburuk ere baliatu zuten; ekialderago Tarras edo Maister ere aipa daitezke eta Laneufvillek ere badakar. Gerokoan, *Charlemagne* pastoralak, Etxahunek, Inxauspek...

*nahikunde*: ‘apeta’, ‘guraria’, ‘desira’; *obratzen estiren desirac eztituçu jiten borondate ossoki deliberatu batetaric eta eztituçu nahicunde arhin batçu becic* (26); *becatu originalac eguin deragun kalthiac ekarten guitici leguiaren contreco haraguiaren nahikunden, banitathiaren eta munduco prootzchien seguitcera* (288-9).

*neskato*: *egun batez, neskatho posseditu batetaric Demoniuua jalgui-araci ciela, eta ikussiric neskatho hura ekarri çutenac beldur cirela berekin eremaiten baçutен berris Demoniuua sar çakion* (403). Ez dirudi mirabearen adieran dakinrenik, neskatxa gazteaz diharduela dirudi. Jatorrizkoek honela diote: *le llevaron una*

*doncella* (III, 202) / *un jour ayant délivré une fille qui étoit possédée...* (RD 5, 416).

*net*: graduatzailea da, ‘guztiz’-en adiera edo duena, Baxenabarren eta Zuberoan baliatua, *OEH*-ren arabera *neit* aldaera ere baduena. Hona gure liburuco adibide bat: *Seindiec hori net gomendatzen dice* (167). Oihenart, asto lasterrak, Laneufville, Egiategi, Etxahun, Goihetxe, Michel Elizanburu heletarra... idazle edo lanak aipa daitezke.

*nigargite-*: *eta hainbeste gauça nigarguiteco bere beithan idireiten* (425); ez da “negar egiteko”-ren aldaera baizik. *OEH*-k Martin Harrieten *nigargin* dakar eta baita Maurice Harrieten lekukotza ere; nolanahi dela ere, badakigu Maurice Harrietek gure liburu hau baliatu zuela. Gure liburuan, lekukotasun honezaz landa, *plazergiteko* (19, 444) adibideak ere badira. *OEH*-k Nafarroa Garaiko Beran kokatzen du *negargin*. J. A. Lakkarrak (1995: 49), Martin Harrieten hiztegia aztertu du, non -*gitea* atzikia ageri baita: *leherguitea, oihuguitea, galdeguitea, loguitea, ihesguitea, urcinzguitea*. Honelako aldaeren jarraitzaile izan zen Lécluse xix. mendean (Lakarra & Urgell 1988: 143). Esate batera, badakigu *langite* erakoak badirela: Leizarragak *langitera* dakar, Belapeirek *langiten*, Inxauspek *lánguitera*, Arxuk *langitez*. Larrasketek *langiteko*, *langiten*, *langitea*, *langitez* zuberera orokortzat dakartzza eta *Klobis* pastoralean ere ageri da: *has oro langiten eta gero jar oro* (Loidi 2009: 611). 1740 inguruko Suarez d’Aulanen katiximan *lagunari gaitzguiteco* (66) ageri da.

*odei*: *umiliatcen denaren otoiçça odeien gaindi igaranen da* (273); ‘nuage / nube’ du adiera eta *h* gabe dakar liburuak, Zuberoan Tartasek, Belapeirek, Egiategik, Inxauspek nahiz *Charlemagne* pastoralak bezala; Erronkarin ere *odei* &

*odoi* zegoen. Aldiz, mendebalera, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Gazteluzar, Larregi, Duvoisin... *hedo* aldaeraren erabiltzaile dira, baina *hodei* da Leizarraga eta Ibarrolako Salaberriren erabillera eta *hodoi* Haranbururena. Zaraitzuko Samperrek *odoi* dakar; Aezkoan *goibel* baliatzen da.

*ofentsu* & *ofentsa*: ohiko ‘ofentsa’; *ceren ofenxia cerbait maneras infinito çuçun* (164); *offensuric gabe* (433); aditza *ofentsatu* da. *OEH*-k ez dakar *ofentsu* aldaera hau, *ofentsa* baitakarte idazleek: Haranburu, Harizmendi, Pouvreau, Tartas, Xurio, Laneufville, Baratziar, Monho, Goihetxe... Gure liburuak *ofentsa*-ren hiru adibide dakartza.

*ogen* & *ogen egin*: *eçaguturic Erreguinhas etcielo oguenic edo innocent cela* (248); *ardura batzcienc becathiendaco, becatu hartan oguenic eztutenac gaztigatzen edo punitzen tici* (320). Bi erabileroan ‘errua’ adierazten du eta bat dator liburuco *oguendun* ‘erruduna’ hitzaren balioarekin: *Gueihenac Fraide gaste hori biciki mehatchatu onduan, penitenciatan eçarten cicin oguendun içan bailis beçala* (390). Bestalde, gure liburuak *oguenic ein gabe* (297) dakinnean, ‘kalterik egin gabe’ adierazten du; ‘kaltea’ da liburuan frankotan *ogen*: *umilac, aldiz, cernahiden oguen nehorc eguin deçacon, etci goguan hartcen, ez penxatcen, oguenic eguin deracotela* (270). Formaz, ekialdean eta Zuberoan *ogen* ageri da, dagoeneko Etxeparek bazerabilena; cf. Leizarragaren *hogen*. Oihenart, Tartas, Belapeire, Maister, Laneufville edo Gèze ere *ogen* aldaeraren erabiltzaile dira; aldiz, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Haranburu, Gazteluzar, Baratziar, Monho, Ibarrolako Salaberri... *hoben-en* baliatzaile dira.

*ohatu*: *hoguei-eta hamar urthez ohaturic jeiki gabe* (324); ‘eritasunez norbait ohean

egotea'. *OEH*-k Lapurdin, Baxenabareko Amikuzen eta Zuberoan koka-zen du. Idazleen artean, berriz, Etxeberri Ziburukoak, Pouvreau, Oihenart edo Haraneder aipatzen ditu; hiztegietan Ibarrolako Salaberrik dakar. Belapeirek eta Egiategik ere badakarte, baina ez eritasunaren ingurunean.

*omonier*: ‘kaperaua’ adieran. Hona adibide bat: *Morde Vigneau gure Aumonier eta Secretariac endelga-araci onduan* (450). Frantses grafiaren tradizioa jarraitzen du euskal idazkeria honek; *au-* > *o-* monoptongazioa zaharra da latinean, V. mendekoa eta “al + C” > *o-* da frantsesez XVI. mendean, *almosna* > *aumône* > *aumônier* adibidean, estate batera, horregatik, itzulpen honen garaian *o-* ahoskatzen zelako, *omonier* dakargu hiztegira *aumonier* beharrean. Halaz ere, *aumonier* dakar *OEH*-k XIX. mendeko Michel Elizanbururen eta XVIII.eko Silvain Pouvreauen latinean.

*onestate*: liburuko hiru agerraldietan (215, 433, 442), hezibidea, jendetasuna edo konplimenduaren adiera du, baina *OEH*-k ‘honnêteté / honestad’ eta ‘décence’ dakartzza. Hona adibide bat: *mundiaren aravera onestathiac galdei-ten badu gende consideratu bat ikustera giten çaukunian, hari minçatcia, compagnha atchikitcia, gure cerbitzchien hari ofritzia, cer içan behar luke Gincoaren eretcian?* (215).

*orabat* & *orobat*: liburuak nagusiki *orobat* darabil, baina *orabat* lau aldiz dakar (28, 33, 107, 299). Suarez d’Aulanek eginarazi katiximan bada *orabat* (19). *OEH*-k ez dakar *orabat* aldaera hau. Bestalde, *orobat* ‘halaber, berdin’ adieran, Lapurdin, Baztanen, Nafarroa Beherean edo Zuberoan ageri da: Etxeberri Ziburukoak, Axularrek, Pouvreauk, Argaiñaratzek, Belapeirek, Xu-riok, Maisterrek eta bestek baliatu dute,

eta baita Ibarrolako Salaberrik ere. Aldiz, Zuberoan, Larrasketen hiztegia le-kuko, *orobat* lokailua ‘halaz guztiz ere’ adieran emana da; Barbier, Jean Etxepare eta Xalbadorreñ adibide batzuetan ere hala da.

*orano*: Zuberoako tradiziokoa da, Lapurdi-Baxenabarretan *oraino* egin ohi da. Adiera bat baino gehiago du; lehenik denbora adiera aipa daiteke: *bena etcit ikuzten orano Fraide behar beçalaco bat cirela* (15). Konparazio inguruneetan ere usu ibiltzen du: *bena Salbaçale Jau-nac orano quehiago erraiten dici* (60). Erdal ‘même / incluso’-ren zentzuan ere bai: *neke handiac eta ene heuzcararen azki unxa jakin gabiac, bai eta orano Liburu Fransessian seiheun pagetaco laur ppartetan den horren Heuzcarala itçul-ceco lanaren luce eta handitarçunac, icitcen eta guibeltcen nindicien* (5).

*orde(i)ñu*: adieraz ‘hondarreko boronda-tea, testamentua’ da: *epistolac segnha-latcen dici Legue çaharreco ordenhiaren doctrina eta Joandene Joane Batistarena* (230); jatorrizkoak *testamento / testament* dakar. *OEH*-k Zuberoan eta Baxenabarreko ekialdean kokatzen du: Belapeire, Tartas, Etxahun, Arxu edo Inxauspe erabiltzaile ditugu. Berebat, Ibarrolako Salaberrik, Gèzek eta Larrasketek ere badakarte.

*orbitu*: ‘oroitzea’ da liburuko adibide gehienetan, baina bada adibiderik, Zuberoan bezala ‘ohartzea’ esanahia duenik: *hitcez hitz Francesaren Heuzcarala itçulcen bassi ninduçun, bena orbituric hala eguinez gure Heuzcararen ara edo ethorça anitz pundutan bortzhatcen cela* (7); baita beste honetan ere: *irakurten diici Seint Bernatez egun batez go-gua eman gabe emaste bati so egon cela; orbitu cenian certan cen, bere buriaren contre hambat samurthu cela, nun joan baitcen putçu karroindatu batetara lepo-rano sarceria eta han egon hil hurranic*

*bestec hantic idoc artekan* (360). Gogora dezagun *ohartu* aditzak Zuberoan eta Erronkarin ‘oroitzea’ ere esan nahi duela: Egiategi, pastoralak, Etxahun eta Inxauspe edo Larrasketen hiztegia dira lekuko; Uhalde Maio eta Mendigatxa erronkariaren idazkietan ere berdin gertatzen da.

*orhitzapen*: liburuak hamahiru *orhitzapen* dakartzaz: <*orhitchapen*>; bakarra da *orhitzapen*: <*orhitçapenac*> (378). Arazoa, ordea, hogeita bost aldiz ageri den <*orhitzchapen*> idazkerak dakar, horren gibelean dagoena interpretatzea ez da aise. Literaturan Zuberoan Mercyk inoiz *orbitzepen* du eta Inxauspek *orhitzapen*. Idazleean nagusi da *orhoitzapen* (Etxeberri Ziburuko, Haranburu, Axular, Xurio, Haraneder, Baratziar, Duhalde) eta bada *orrhoitzapen* ere: Argainaratz, Laphitzet.

*orobat*: ikus *orabat*.

*orzantz kolpu*: instant batez dembora edo celia ilhundiela orrua icigarri batetik, bethi chimiztha eta *orçanz colpu icigarri batçureki*, nun iduri baitcien oro funditcera çuatcela (250). Jatorrizkoak grandes truenos eta muchos relámpagos dakar eta frantsesekoak et avec des éclairs si continuels, et des éclats de tonnerre. Honela, *chimiztha* ‘oinaztura, oñestua, iñhazia’ da, erdal ‘éclair / relámpago’ eta *orçanz colpu*, berriz, ‘trumoa, ortotsa, ühülgüa’, erdal ‘tonnerre / trueno’; izan ere, honelaxe da egun ere Baxenabarre gehienean. Hona bigarren adibidea: bet-betan, egun hartan Meça inçün etciena *orçantz colpu batec hil cicin* (250). Jatorrizkoak dioenez, cayó un rayo, y mató al desdichado mozo eta frantsesez, berriz, il vint un éclat de tonnerre qui tua celui qui... OEH-k bi adibideetan ‘tximista’ esanahian dakar, erdal ‘foudre / rayo’ adieran. Gure us-tez lehen adibidean OEH ez dabil zuzen, baina bigarrenean bai: ‘tximista’

da *orçantz colpu* bigarrenean, erdal ‘foudre / rayo’. Juan Beriainek ere badakar pasarte hau 1621ean eta honela dio: *baciacen vere videas, honla ciacela heroricen ozmiarribat, eta emancion Mezaric ençun etzuen desdichatuari, eta guelditzen yllic* (112r). Zaraitzun berragertzen zaigu tximista adiera horrexetan *oxmeari*, Bonaparte printzeak xix. mendean bildu emaitzetan.

*osogarri*: ‘osasuna’ adierazten du. Tartasek ere badarabil *osogarri*.

*ospa*: umilitathiac ihez eiten dici kampoco ospari eta cherkatcen gorderic ilhun-pian egoithia (262); ‘ospe’ hitzaren aldaera da. Ibarrolako Salaberrik badakar eta Pierre Arradoik eta Jean Etxeparek *ospe* & *ospa* bikotea darabilte. Aldiz, Etxeberri Ziburukoaren eta Goihetxeren lanean edo Gèzeren hiztegian *ospe* ageri da. Nolanahi ere den, Pouvreauk eta Etxeberri Ziburukoak *ozpe* dakarte.

*osto*: Zubereraz bezala *h-* gabe dakar, Inxauspek legez, baina oroit gaitezen Oihenartek eta Tartasek *orsto* zutela. Leizarragak, Etxeberri Sarakoak, Duvoisinek, Laphitzek edo Michel Elizanburuk *hosto* darabilte, baina Etxeberri Ziburukoak eta Hiribarrenek *osto*. Aldiz, idazle batzuengan bikoiztasuna dago: Axular, J. B. Elizanburu, Barbier edo Oxobi idazleek *h-z* nahiz *h-* gabe dakarte.

*pairatu*: ‘zerbait gabe etsi, hori gabe ere konformatu, abstenuit’; hona adibidea: *indar jokakari hec corua edo irabaci gal-cor baten ukeiteco pairatcen baciren haragui eta janhari edo beste gauça heen indarra dremendena flaka cirotenetaric* (365). Adiera hori bera dakarte Laneufvillek —*haraguitic pairatcian* (104)— eta Zuberoako Egiategik ere.

*paje*: adiera ‘orrialdea’ du eta oinarrian *paje* & *paja* nahiz *paie* & *paia* egon daitzke, baina grafiak ez du laguntzen alderdi fonikoa argi irudikatzen. Hona

adibideak: *Liburu Francesian seiheun pagetaco laur ppartetan* (5, 8); *pagia 9* (457).

*palea[tu]*: *biciuen contre paleatcen edo guducatcen dena date choilki Celian coronathia edo saristathia* (62). Bigarren adibide bat: *paleatcen edo guducatcen niçanaz gueroz* (57). OEH-k ez dakar *paleatu* aldaeraren beste adibiderik; *Laneufville-n pelheatu* dago (127). Heggoaldean arrunta da *peleatu*, baina Ipar Euskal Herrian ez: Pouvreauen erabilerera eta *Fedearren Propagacioneco Urtecarri*-ko adibide bat (1906) aipa daitezke.

*paradusu*: liburuan *paradusu* lau aldiz ageri da eta <*paraduzzu*> behin bai-zik ez. Zuberoan, Belapeire, Maister edo Etxahun lekuko, *p(h)aradüsü* ageri zaigu eta idazki berrieta *phadüsü*; Oihenartek *paradusura* dauka. Lapurdin eta Baxenabarren, oro har, *parabisu* dugu, baina Ibarrolako Salaberrik *pharabizu* dakar.

*parrak igaran*: *aldiz, altchatcen bacitut urgulusco tentacionez, geuzten cira Ifernu çolarano, eta artecan çure parrac nitan igaraiten tuçu* (296). OEH-ren arabera, aditz lokuzio honen bidez Lapurdin eta Baxenabarren ‘apetak edo nahikariak asetzea’ adierazten da; bestekarrean, Axularren eta Laphitzeren adibide gar-denak ageri dira.

*parte hun*: egun Amikuze eskualdean agurrada *parte hun!* eta halaxe dakar Larasketek 1931n Zuberoan ere: *pharte hun!* Gure adibidean bestelako esanahia du: *anitzcez segurki hobe lukeçu thalenturic edo munduco eguitatetan parte hunic gabe içaithia, eci ez heen eztacurian Gingoaren gaucetan lachatcia* (13). Liburuko adibide bakarra da.

*pasta*: *lurrac ekarten fruthiac laborathuz, eta etchiac eguiten officialec pazthak eta çurac eçarris* (98); ‘gaia, lanabesa, materiala’ adierazten du. OEH-k *pazthak* transkribatu du, baina gure ustez *phas-*

*tak* beharko luke, Etxahunen eta beste-ren lanean ezagun du hitzak txistukari apikaria duela. Liburu honen azterke-tan adierazi dugun legez, *Pratica*-ren ezaugarririk berexi-berexia da txistukari apikari batzuk <z> agertzea.

*pati-arazi*: *malurossa, unxa begiratuko hut holaco ataku emaitetic, pati-aracico de-reat gossia, egarria, hotzça eta berua* (385); ‘sufriaraztea, jasan-eraztea’ du adiera, frantseseko *pâtir* da. Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko idazle gehiago-rengan ageri zaigu. Tartasen *Arima-n* dakar, Ibarrolako Salaberrik badarabil eta Gèzek ere bai. Bazkazaneko predi-kuetan ere ageri da: *patituco du establia batian sasoinetaco rigorosena* (Orpustan 2005: 213).

*peka[tu]*: *çoinhec inçun medisenciac hain unxa bere barnian atchikitcen baitituste, nun espaitcee pekatcen hetaric behin ere erraithia* (440), ‘menturatu, ausartu, tentazioaren aitzinean etsi’ adieran. OEH-ko adibideak Zuberoan kokatzen dira, baina Ibarrolako Salaberriren hiz-tegian ere ageri da.

*phena egin*: ‘pena eman, nahigabea sortu, inor atsekabetu’; Ipar Euskal Herrian baliatu da eta Haraneder lapurtarra edo Etxahun zuberotarra aipa daitezke era-biltzaileen artean.

*peorreria*: *ezku lachoki trabailhatcen denac ekarten du peorreria, bena guïçon azkarren ezkiac jardiresten dereste aberaztarçun handiac* (47); adiera ‘miseria, behar gorria’ du. Hona jatorrizkoak da-karrena: *empobrecerá / ne produit que de l'indigence*. OEH-k Nafarroa Behe-rean dakar *pegorreria* eta Ibarrolako Salaberrik ere aldaera hau bera dakar hiztegian. OEH-k *pegorritate* izena ere badakar adiera honetan, Azkuek Baxenabarreko Arberoa bildu zuen.

*peretxatu*: *amorecatic eman deraukegu-nian desiratcen guindiena, ikaz guindeçan unxa pperetchatcen eta haren es-*

*timatcen* (25); adiera ‘estimatzea’ edo ‘balioa ematea’ da. Ibarrolako Salaberrik ere badakar. Maisterrek *pheretchu* ‘estimua’ dakar; 1734ko *Othoitce eta cantica* lanean ere ageri da: *peretcha cac haren deitce saintia* (47); *bicitce presenta hanitz perechatia* (88). Larrasketek *pheretxatze* ‘etekina atera’ adieran darabil eta Inxauspek ere badu honelako adibiderik.

*pesa*: *eguia duçu anitz mundocon gendec pundu hortan becatu eguiten dutela pacencia ezkacez, affligithiac direnian collaraz, pessaz, despitez, desesparacionez Gingoari heriuaren galdeinez* (339). Ibarrolako Salaberrik *phetsa* ‘dépit violent / despecho violento’ dakar eta *OEH-k pesta* ‘tristura’ adieran. Maurice Harrieteak gure liburuko adibidea *pesaz transkribatzent du*, ‘tristura’ adieran ere. Baionan 1875ean argitaratu zen *Testament zaharreco eta berrico istorioa-n petsan eman* ‘anitz haserretzea’ da.

*pheza[tu]* & *piza[tu]*: ‘pizatzea’ edo ‘juzkatzea’ adieran; *bere buriac ahazcicirc besthiac ppeçatcen* (424); *laburrena, segurrena, medisencia suerte orotaric gure burien beguiratcia duçu, mortal ala benial diren piçatcen eraunxi gabe* (438); *phezatü* dakarte Maister, Inxauspe edo Larrasketek, baina Ibarrolako Salaberrik *phizatu*. Lapurdiko idazle zaharrek eta Tartasek *pisatu*; *pheçatcen-ez gain, liburu honek piçatcen* dakar. Grafia nahasgarria da liburuko *pitçatu* (184) & *pitçatcen* (123) aldaerena: gainerateko autoreek ez dakarte afrikaturik. Berebat, *pitçu* izenak grafia afrikatua darama ageri den bi aldieta, nahiz *piçugalhia* hitz elkartuan grafiak txistikari igurzkaria salatzen duen.

*pitraill*: *Nolas ikusten duçu aurhidiaren beguijan poucka eta ez, aldis, pitraillha ciharenian?* (425), ‘habea’ du adiera. Baxenabarre eta Lapurdin *pitraill* ageri

da eta Ibarrolako Salaberrik *pitrail* da kar San Mateoren ebanjelioan. Zuberoan, besteren artean, *phetiale* dago, esate batera Larrasketen hiztegian.

*pi<ch>oin*: *eta pichoin bere pijunteirat biltcen direneki* (357), non jatorrizkoak et à des pigeons qui se retirent à leur vollet (RD 5, 366) / *recogerse como palomas á sus ventanas, y agujeros baitakar* (III/4/2); lehentxeago nor dira *hegal-datcen* direnac *odeiac* beçala eta *biltcen* direnac *bere leihuera rat ourçuac beçala*: dakar. Larrasketek *pijú* ‘pigeon / palomo, paloma’ itzultzen du, non u hori sudurkaria eta azentuduna baita; hitza bearnesetikako mailegutzat eta zuberera arruntzat jotzen du. Eratorria *pijutegi* da, ‘pigeonnier’. Gure liburuak *pijuntei* (357) dakar.

*piza[tu]* & *pheza[tu]*: ikus goitixeagoko *pheza[tu]*.

*pizu*: bi adibidetan *pitçu* dakar eta iduri luke txistikaria afrikatua dela: *curutce net pitçu batez kargaturic* (189); *cerc eguiten du Gingoaganaco gaucetan ehor çunbait aldiz pitçu eta eneatcen baita* (22); baina bada *piciac* (362) ere eta hitz elkartuan ere igurzkaria dator: *itxassoco unci batí ezpaçaco behar den piçugalhia eçarten* (414). Guk uste liburuko grafia arazo anitzen arteko bat gehiago den hau; kontsonante igurzkaria dagoela uler liteke; cf. arazo berarekin *pheza[tu]* & *piza[tu]*.

*plaga*: *çauriz edo plagaz beteric* (189); *Jesusu-Christoren plagu en meditacia beno moyen segurragoric behin ere ezthiela idieren* (153); adiera ‘zauria’ du, ‘pliae / llaga’. Zuberoako 1734ko *Othoitce eta cantica* (30), Mercy, Egiategi, Etxahun edo Arxu zuberotarrak aipa ditzakegu erabiltzaileen artean; berebat, Tartasek *plagatu* aditza dakar. Etxeberri Ziburu-koak ere ibili zuen.

*plañu*: Lapurdin eta Baxenabarren *plainu* baliatu ohi da, baina Zuberoan *plañü*,

Larrasketek dakarren legez. Etxeberri Ziburukoak eta Xuriok *plaño* ematen dute; Pouvreauk, Larramendik, Añibarrok eta Maurice Harrietek *plaño*; *pleinu* ere badu Maurice Harrietek. Be-rebat, *pleini* izan Baxenabarreko Arberoan dakar OEH-k eta *plaño* izan Zuberoan.

*plazer*: izena bada *plazer* liburuan, baina *nahi* dakarren aditz lokuzioaren adierakide ere izan daiteke: *harcigorri placer derauzki-gun afflictione orotan* (321); *ceren eguin dugun Gincoac placer cienia* (329).

*plazer* (\*eradun): ‘plazer eman, nahia bete’ esanahian eta formaz *plazer* + \*eradun, ‘plazer eman’ adieran. Bi adibide da-kartza: *Gincoari galdeinez placer ceracon eman haren beldurra eta haren amoriua* (190); *Gincoari bethi galdeiten ceracolaric placer ceracon, çahar hari bere becathiac barkatu eta garbitarçunaren dohainha eman* (393-4).

*plazergiteko*: Laneufvillek *placer equiteco* (22) dakar, baina Etxeparek *plazerguitia* (216). Gure liburuak adibide gehienetan “*placer eguin*” dakar (29, 83, 135, 144, 154, 177, 188, 189, 217...), baina bi aldiotan *placerguiteco*: *Gincoari placerguiteco desir osso bathian bertuthiari jarraikiten direnec* (19); *çoinhen langeros den medisenten flakeciaz edo placerguiteco inçuthia edo ahala denian defendatu gabe uzthia* (444). Ipar Euskal Herrian *plazer egin* aditz lokuzioa idazle ugarik erabili dute: Etxepare, Leizarraga, Pouvreau, Gazteluzar, Haraneder, Maister, Etxahun, Jauretxe, Arxu, Goihetxe, Inxauspe; Lizarraga Elkano-koak ere badarabil. Arestian, *nigargiteko* sarreran *langite* erakoak aipatu ditugu; Leizarragak *langitera* dakar, Belapeirek *langiten*, Arxuk *langitez*; Larrasketek *langiteko*, *langiten*, *langitea*, *langitez* zuberera orokortzat dakartza eta *Klobis* pastoralean ere ageri da: *has oro langiten eta gero jar oro* (Loidi 2009: 611). 1740

inguruko Suarez d’Aulanen katiximan *lagunari gaitzguiteco* (66) ageri da.

*pleinta* & *pleni[tu]*: ‘kexua’ da *pleinta*, Zuberoan ezaguna: *guero Gueihenari gasthiaren contre pleinta ekartzcen cicin* (390); ‘kexuka aritzea, auhen egitea’ da *plenitu*: *ichilic egon nuçu eta plenitzceco ahua ezcitit ideki* (321); liburuak, bes-talde, *pleñi* izan lokuzioa dakar. Bes-talde, Leizarragak *plañitu* darabil eta Zuberoan *plañitu* nagusi da: Maister, Inxauspe, Etxahun, Gèze edo Larrasket baliatzale dira. Mendebalerago, Pou-vreauk *plainatu* dakar, Baratziartek *plenitu*, Goihetzek *pleñitu* eta Michel Eli-zanburu heletarrak *pleinitu*; Maurice Harrietek *pleinitu*. Lapurdin *pleini* & *pleñi* (izan) ageri dira.

*populu*: ‘herria, jendea’; Ipar Euskal Herrian tradizioa du, Leizarraga, Gazteluzar, Belapeire, Etxeberri Sarakoa, Larregi, Monho, *Charlemagne* pastorala, Jauretxe, Goihetxe, Hiribarren, Inxauspe... lekuko.

*poroatu*: ohiko ‘probatu’ edota ‘frogatu’ esanahiez gainera, ‘ohartu, sentitu’ adieran ere badakar: *bena nola gauça thipiaric emeki-emeki edo doya-doya hazten baita, poroatu gabe ariman sartu dukeçu* (41); baita Laneufvillek ere: *goure sensiec poroacen tusten guciac* (131). Adiera hone-tan, Pouvreau, Etxahun nahiz Inxauspe idazleak aipa daitezke.

*possiblez*: adiera ‘ahalaz’ du eta agerpen bakarra: *possiblez, bada, eskitela içan erhuen cundukuetaric, bena bai çuhu-rrenetakuetaric* (440). Adibide hau eta Xalbadorren beste bat baizik ez dakar-tza OEH-k.

*pot egin*: ‘musu ematea’ ekialdeko tradi-zioan. Etxepare, Leizarraga, Axular, Oihenart, Belapeire, Egiategi, Inxauspe... erabiltzaile dira.

*recio*: salneurriaz diharduela, ohiko adie-ran darabil liburu azalean: *recioia hoguei eta bost soz*; honela darabil La-

neufvillek ere: *eman dee bere sofrancher precio ecin ago handi den bat* (44). Bi-garren adiera bat ere bada, ordea, gure liburuan; ‘saria’ hain zuzen ere: *laster eguzie preciua edo ispichua irabaz diro-cien guizan* (63-4). OEH-k Pouvreau, Maurice Harriet eta Hiribarren dakar-tza adiera honetan.

*primezia*: adiera ‘ondarea’ du: *primecia hura etciroguçu jardiretx hil gabe* (350). XIX. mendea arte Lapurdi-Baxenabarretako idazkietan ageri da, baina aldaera nagusia *primeza* da, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoak, Harizmendi, Etxeberri Sarakoa, Xurio, Haraneder, Mihura, Goihetxe erabiltzaile dituena.

*propi*: mailegu garbia da eta ‘berezko’ edo ‘propioa’ adierazten du. Gure liburuak bezala, Laneufvillek ere *propi* aldaera dakar: *bere bici propiaren conservaciaz* (98). Aldaerari dagokionez, *propi* bereziki Zuberoa alderikoa da (Maister, Egiategi, Etxahun...), baina *propri* ere bada Zuberoan, Tartas eta bertako kaitxima bat lekuko; Etxeparek, *propi & propri* dakartzeta eta Leizarragak *propri*. Lapurdin eta Baxenabarren *propi & proprio* txandaka ageri dira; esate batera, Etxeberri Ziburukoak, Urtek eta Gazteluzarrek *proprio* dute. Bestalde, *gure propitan* (307) sintagma dakar liburuak; ‘hobe beharrez’ edo ‘onerako’ adieraz dezake, euskaraz *propi*-ren adiera ‘egokia’ ere badenez, baina jatorrizko liburuak ez dakar adiera horretan.

*propitaje*: Zuberoako tradizioan ‘ezaugarría’ adierazten du; hona liburuko adibide bakarra: *erruaren icen hori net unxa diaucoçu eta net unxa haren propithajiac eta condicioniac explicatcen tici* (261-2).

*pulo*: *elhurrez eztaliric den hungarri poulo batez* (280), ‘pila, multzoa’ adieran. OEH-k Baxenabarre-Zuberoetan kokatzen du; Oihenartek *ogi pulua* dakar. Ondoko mendeetan, Joanategi iztutiztarrak edo Mañex Etxamendi ezteren-

zubiarrak darabilte; Ibarrolako Salaberrik *pulusta* dakar; *pholo* aldaera ere bada, Lhandek Lapurdin kokatu zuen.

*purki*: behin ageri da: *biguerren Meçaren pparthia Oferendatic Paterrenanokuan duçu eta deitcen duçu purki Sacrificiuren Meça* (231). OEH-k ‘berezko’ izena hala du’ adiera ematen dio; frantsesezko jatorrizkoak *properment* dakar. Ibarrolako Salaberriren hiztegian ere *purki* dago, ‘nettement, sans condition’ adieran. Zuberoan, Larrasketek *pürki* dakin, ‘osoki, guztiz’ adieran.

*pxuxant*: *çure esku puchantaren socorriaren medioz* (402); ‘boteretsua’ adieran, *puissant* erdal hitzetik mailegaturik. Aski baliatua izan da literaturan: Leizaragak *puissant*, Etxeberri Ziburukoak eta Haranederrek *pxuant*, Tartasek *poxant*, Maisterrek eta Inxauspek *püxant*, *Charlemagne* pastoralak *püisant*. Pouvreauk, Urtek, Ibarrolako Salaberrik eta Larrasketek ere badakarte.

*pxuxulu*: *ispirithiaren urgulia, aldis, epantchu eta puchulu bat duçu fediaren erecebitezceco* (267); adieraz ‘eragozpena, oztopoa’ da. Laneufvillek ere badakar. OEH-k Garazi-Amikuzen eta Zuberoan kokatzen du *pxuxulu*, baina *poxolu* ere bada Amikuzen. Ibarrolako Salaberrik *phuxulu* dakar; Pouvreauk *paxelu & paxela*, Jauretxek, Hiribarrenek, Mañex Hiriart-Urrutik eta Barbierrek *poxolu*, Duvoisinek *poxelu*. Larrasketen arabera, izen arrunt gisa Zuberoan ezezaguna da *püxiülü*, oikonimotzat dakar.

*sarkura*: ‘sarrera’ edo ‘sarbiea’ adieran; *beguiac eta sexien sarkurac arranguroski beguiratcen bacithien bihotzça eta ispirithia segurrian ukenen cithiela* (358); *Gincoac beguirea citçala Demoniuari sarkura horren emaitetic* (366). Idazleean Maister eta Inxauspe nahiz Zuberoako beste erabilera batzuk aipa daitezke; Jean Etxeparek ere badarabil. Mercyk ‘sartzeko ekintza’ esanahian dakar.

*satsu*: ‘zikina’; *curia beçalaco aho saxu bat eztuçu digno* *Gincoaren icenaren aitpatceco* (143). Gehienik Baxenabaren baliatu da, XVI-XVIII mendeen bitartean bereziki; Etxepare, Leizarraga, Axular, Oihenart, Pouvreau edo Tartas aipa daitezke, eta Laneufvillek ere badarker: *elhe satxiac* (94).

*seguranxa & segurtainxa*: ez dakigu -ainxa hori -antzia edo -antxia-ren metatesia ote den. Oro har, ekieldean, Zuberoan eta Baxenabarreko ekieldean -antxa aldaera sabaurreko ibiltzen da; gainarateko Baxenabarren eta Lapurdin -antza. Ekieldeko OEH-k *segurtaintxa* eta *segurantxa* dakartzza, afrikatuarekin. Ez daiteteke ziur jakin gure liburuan txistukari hori zerik ote zen, baina *segurhaintcharic* (286) adibideak afrikatua ere izan zitekeela salatzen du; liburuko gainerateko erabilera guztia *<ch>* dira.

*seindimendu & seindimentu & sendimendu*: *seindimendu* aldaera nagusi da liburuan eta Ibarrolako Salaberririk ere hala dakin; Laneufvillek ere *seindimendu* du. Lapurdiko tradizioan *sentimendu* darabilte Pouvreauk, Xuriok edo Haranederrek, baina Leizarragak *sendimendu* dakin, berez baxenabartarrek baliatzten dutena (Monho lekuko), XX. mendean Ipar Euskal Herri gehienera hedatuz joan bada ere. Zuberotar gehienek —Belapeire, Maister, Inxauspe— *sendimentü* darabilte, baina Zuberoan bada *sentimentü* ere eta bertako katixima batean *sendimendü* dago.

*senthatuki*: adiera ‘erosotasunean bizitzea’ da, jatorrizkoan: ‘dans la bonne chère’; *gende gaster, ossagarri huna dutener eta senthatuki bici direner heltcen ceen beçala* (388). Belapeireren adibideetan oinarriturik Pello Agirrek ‘nork bere burua ondotxo zainduz’ itzultzen du; OEH-k ‘regaladamente’ dio.

*<signatu>*: liburuak ez dakin, baina Ph. d’Abense-ren onespenean *pian signa-*

*thiac* ageri da (454). Grafia horrek idazkeria kultoa adieraz dezake, Leizarragaren *signatu*-k bezala, baina ez dakigu *<gn>* horrek sudurkari palatala islatzen ote duen.

*sobre & sobretu*: *Seint Ephrenec cioçu hirur gauça handiski baliatcen direla garbitarçunaren ossoki beguiratceco*: *sobre içaithia, elhe guti erraithia eta beguen beguiratcia* (359). OEH-k ‘sobrio, moderado, prudente’ adieran dakin eta Zuberoan kokatzen (Tartas, Maister...), baina Leizarraga eta Etxeberri Ziburuak ere erabiltzaile dira; Pouvreauk, Urtek eta Gèzek ere beren hiztegietan dakin. Aditza ere badator liburuan: *eritarçun handi batec arima sobretcen edo sobre errendatcen diela* (323).

*solamente*: adiera ‘baizik ez’ luke; *bena erraçu solamente hitz bat eta ene arima içanen duçu sendothia* (198). Leizaragak, Etxeberri Ziburuoak eta Kapanganak *solament* darabilte, Belapeirek *solamens* eta Maisterrek *solamentz*; Xuriok *solamente*. Egun ere Amikuzen euskaraz mintzatzean *solamente* ibiltzen da eta Larrasketek Zuberoan dakin.

*sordeitz & sordeitz*: adjektibo edo adizlagun izaeran ageri da, adieraz ‘txarragoa’ edo ‘makurrago’, Zuberoan eta Baxenabaren kokatzen da; *eztaquigun demboran hain lachoki bici guirenian, sordeitz ein guindiroçu balin baguindaki ezkirela hain fite hilen* (61); *sordeitzago denaz guerozbecatu eguiitia, ez içaithia beno* (284); cf. adibide gehiago liburuan: (39, 61, 101, 158, 241, 431, 436, 443). Liburuko grafiak erabateko anbiguotasuna ageri du eta ez da aise ahsokaren berri ematea; guk *sordeitz* dakargun liburuko aldaera hau litekeena da inoiz *sordeits* izatea; ez jakin. Idazleen erabilera ere askotarikoa da: Oihenartek *sordex*, Tartasek *sordeix* —*sordexian* ere egitura dakin, ‘txarrik txarrenean’ adieran—, Belapeirek *sordeits*, Egiate-

gik sordeitz; *Charlemagne* pastoralak, Etxahunek eta Larrasketek *sordeis*; Ibarrolako Salaberrik *sordetx*; Baxenabarreko Baigorriin *sordesian* ibiltzen da. Bestalde, atsegina ez dena *sorjes* da Lapurdin edo Baxenabarren: *sorjes* dakarte Duhaldek, Goihetxek eta Elizanburu heletarrak; *sordies* Arbelbidek.

*sordetxena*: bi adibide dakartzat: *Sacramentia azthian behin, sordetzchena egunian behin, bera comunione ispirituala anitz aldiz egunian egun dieitecu* (241-2). OEH-k honela dakin: ‘au pis aller’ / ‘en el peor de los casos’, ‘au plus’ / ‘a lo sumo’. Hona bestea: *unxa beguiratu behar dela been cofessatceco uztetic estirelakuan becatu, edo sordhetzchena becatu venial direla* (366). Jatorrizkoetan honela dator: *esto no es pecado, ó á lo menos no será mortal* (III, 183) / *sous prétexte ou que ce ne sont pas des péchez, ou que ce ne sont que des péchez veniels* (RD 5, 375).

*sori*: *sori baliçaut hautu baten eguthia* (344); *behin ere soric ez eguiteco, desiratcia sori esten gaucer* (359); ‘zilegi’ adieran, Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa eta Erronkarikoa. Leizarraga, Axular, Zalgize, Pouvreau, Belapeire, Maister, Baratziar, Inxauspe... dira erabiltzaile. Ibarrolako Salaberrik ez dakin.

*sos*: txanpona edo diru neurri jakin bat da sosa, bost zentimo egiten zituen. *Pratica liburu honek hogeita bost sos balio zuen 1782an argitaratu zenean.*

*suergaraiteko* & *suergaraitiko*: A. Lizarrak ‘por añadidura’ adiera dakin; *hapax legomenon* da, OEH-k ez dakin beste inolako erabileraik. Maurice Harrietek gure liburutik hartu zukeen. Hona liburuko lehen adibidea: *lehenic Gincocaren Erressuma cherka çacie, ispiritu chuchen eta justo bederetan hora cerbizcha çacie eta besthiac oro emanen çauzkicie suergaraitico* (15). Jatorrizkoetan honela dira: *como accesorias y como por añadi-*

*duras / comme par surcroît*; eta latinez honela da: *quaerite ergo primum regnum Dei, & justitiam ejus; & haec omnia adjicientur vobis*. Matth. 6, ver. 23 (I/5). Leizarragak honela dakin: *baina bilha eçaue lehenic iaincoaren resumá eta haren iustitiá, eta gauça hauc guciā emanen çaziquiçue gaineraco*; hona Inxauspe: *eta hóric óro gañerátic emánen zaitzié*. Salaberri Ibarrolakoak, berriz: *eta gauza horiek emanak izanen zaitzie izariz kampo*; Uriarterena da hau: *eta oyec guciāc gañera emango zatzute*. Gure liburuan bada beste adibide bat ere: *çoinhenbeste arraçoin eztugu hetan idiren ahalguetu behar guitustenac?* *Çoinhenbeste eraste suergaraiteco gure mihielan?* *Eta çoin lachoki eztugu gure bihotzçac barreatceria uzten?* (289). Jatorrizkoek honela diote: *cuan fáciles somos en la lengua, cuan descuidados en la guarda del corazon* (II, 148) / *Jusqu’où ne va point l’intempérance de notre langue? et avec quelle négligence ne gardons-nous point notre cœur?* (RD 3, 322).

*suspetxa*: ez dugu guztiz garbi oinarria hau ote den, adibide bakarra *suspexetaco* baita: *halaco otoitzça suspexetaco atchiki behar ci* (146). Ohiz, Ipar Euskal Herriean *suspitxa* izan da aldaera erabiliena: Pouvreau, Xurio, Lavieuxville apezpi-kuak inprimarazi katixima, Mihura, Jauretxe, Hiribarren... cf. *xuxpitxa* Haraneder eta Baratziarrena. Haranburuk, berriz, *sospetxatu* dakin.

*thaik gabe*: adiera ‘etengabe’ du. Ekialdeko kutsua du, Maisterrek (116), Mercyk (1780: 3) edo Inxauspek darabilten aldetik. Hona *Pratica*-ko adibide bat: *eguna oro thaic gabe Comentuco cerbitzchian emaiten çutela* (12). Hona Zuberoako 1757 inguruko *Iganteçtaco pronoua*-ko beste bat: *bagouatçu hen iracourtera, amourecatic beguien aitcianian thaic gabe etchekiten dugularic, hen complitceco gogouati içan guitian* (9).

*thaka: chahu içan behar dugula becatu ve-nial thipienetaric eta imperfeccione edo thaka thipienetaric* (195), ‘tache, dé-faut / tacha, defecto’ adieran. Baxenabarreko Garazin, Erronkarin eta Zuberoan kokatzen du *OEH*-k; Ibarrolako Salaberriren eta Gèzeren hiztegietan dator eta Belapeire, Mercy edo Etxahun idazleek baliatu dute.

*tendre & tendreki & tendrezia: maite bai-kitu eta amorio tendre bat guretaco baiitu* (433); ‘xamurra, beratza’ adieran. Mercy, Inxauspe edo Etxahun zubero-tarrez landa, Goihetxe idazle lapurtarra ere aipa daiteke erabiltzaile. Adjekti-boaz gain, *tendreki* adizlaguna ere badakar: *becatorer tendrekoo soiten direeçu* (381); *OEH*-k Zuberoako eta Lapur-diko adibideak dakartzia. Berebat, *tendrezia* izena ere ageri da: *arimen cien tendreciac, heen salbamendia garxuki desiraracitcen baitcerakon* (161); *tendrezia-ren* gainerateko adibide guztiak Zuberoan dakartzia *OEH*-k.

*thermiño & thermino: Seint Antonio handia minço baitcen therminho hotan* (404). Adiera ‘adierazpidea, terminoa, hitza’ du. Ez dago garbi bukaeran palataliza-zioa dagoen, baina baliteke, Zuberoan *thermañü* ibili ohi baita; berebat, Laneufville deitu dugun katiximak *termiño* dakar. *Pratica liburuak* lau aldiz dakar <nh> eta behin <n>.

*teula: erreparacione thipi çunbait haxetic ein faltaz, teula itçuli gabez, çunbait go-tera cambiatu edo tapatu faltaz* (40); ‘teila’ adierazten du. Leizarragak badarabil.

*thimama: çoin baita inchenxuz eta beste anitz urrin hunesco gaucez eguina den unguendu bat* (94).

*thini: ‘gailurra’; çurubien thinira nehor heltcen dela igaranez* (114). Baxenabarre eta Zuberoan baliatzen da: Tartas, Egiategi, Xaho, Salaberri Ibarrolakoa edo Inxauspe erabiltzaileak aipa dai-

tezke. Gèzek eta Salaberri Ibarrolakoak beren hiztegietan dakarte.

*thiraz(a): teink edo tiran dagoena adierazten du. Hona adibide bat: baleza so-bera thiraza hauzten da eta ispiritu so-bera lachua andeatzen* (46). Ez dakigu *thiraz* ala *thiraza* den.

*thona: bici niçano becathiaren thona edo tha-ketaric neure beguiratceco* (351); ‘tache / mancha; mácula, mancilla’ adieran da-kar *OEH*-k eta funtsean Zuberoan ko-katzen du: Maister, Egiategi, Inxauspe edo Etxahun dira erabiltzaile. Berebat, Inxauspek eta Larrasketek *thuna* aldaera dute, baina Gèzek eta Ibarrolako Salaberrik *thona*, Duvoisinek bezala.

*tradizale: sortu ezpaliz hobe çukeen ene tradiçaliac* (342), ‘traidorea’ adieran, Leizarragak dakarren gisa. *OEH*-k Zuberoan kokatzen du eta Gèze eta La-rasketen hiztegietan dator.

*uhaitz: nola Jordaneco ouhaitzceco hourac baratu baitciren Arka Seindia hartan sarthu beçain sarri* (222); ‘ibaia’ adie-razten du. Laneufvillek ere badakar: *ouhaitzceco* (124). Baxenabarren eta Zuberoan baliatzen da. Idazleen artean, Etxeberri Ziburukoak eta Egiategik *uhaitz* darabilte, Tartasek *uheitz*, Etxahunek, Inxauspek, Gèzek eta Ar-xuk *ühaitz*, Larrasketek *ühaitz* & *ühatx* eta Ibarrolako Salaberrik *uhaitz*. Erronkarin *egutxa*, *eguatxa*, *ugatx* dakartzia Bernardo Estornés Lasak.

*umore: adiera anatomikoa du, ‘humorea’; gorpitzceco hazkurria hun denian, odol eta umore hunac eguiten baititu* (221). Idazleetan Mongongo Dassança edo Duhalde dira erabiltzaile. *OEH*-k Bizkai-Gipuzkoetan, Nafarroan, Lapur-din, Baigorri, Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkarin kokatzen du eta Zuberoan *himur(i)* aldaera dakar. Lapurdin eta Baxenabarren *omore* eta Baigorri *imore*.

*untsa: adizlaguna izateaz landa, izena ere bada bi adibidetan: eci gure inclinacione*

*gaistua, unxaren beno, gaiskiaren sinhes-tera lasterrago ekarria duçu* (420), frantsesekoa honela baita: *qu'elle nous porte à croire plutôt le mal que le bien* (RD 1, 425). Hona bigarren adibidea: *nois eta ere nehorc norbait net maite baitu, haren obrac oro laudatcen tici, unxalat itçulcen eta hunerat hartcen* (431).

*ur:* lapurtar eta baxenabartar gehienek bezala *h-* gabe dakar, eta horrela darabilte Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, Axularrek, Gazteluzarrek, Etxeberri Sarakoak, Haranederrek, Monhok edo Mañex Hiriart Urrutik. Ordea, Etxeparek, Mongongo Dassançak edo Ibarrolako Salaberrik, hiztegian eta bere idazkietan, *hur* dakarte; Laneufvillek ere *h-* darabil: *hour hountaz icuztian* (122). Zuberoan Belapeire eta Maister nahiz Gèze eta Larrasketen hiztegiak aipa daitezke *hur-en* lekuko.

*urhe:* ‘urrea’ da; *obra hunez, urhez kargathia cira, ohoinhetaric beguira cite* (407). Lehenik Baxenabarre eta Zuberoako idazkietan ageri da, baina xix. mendetik honat Lapurdira ere hedatu da.

*urbentze* (149) & *urrentze* (250): *meçaren urbentcian erraiten diren hitz horiez* (250); ‘bukaeran’ adierazten du. Zuberoan kokatzen da —Oihenart, Belapeire, Oloroeko katixima, Maisster, Egiategi, *Charlemagne* pastorala, Etxahun, Arxu, Inxauspe, Gèze, Larasket—, baina Ibarrolako Salaberrik ere *urbentu* dakar. Oihenartek adiera ñabarduraz bereizten ditu *urbentu* eta *hurrendu*. Halaz ere, Zuberoan ibili da *akabatü* ere, 1734ko *Othoitce eta cantica-k* dakar: *beraz apheçat* (sic) *acabatu ondouan Consecracionezco hitçac Ostiarren eta calitçaren gagnen* (7).

*usustamendu* & *usustatu:* gure liburukoaz gain *OEH-k* ez dakar beste adibiderik eta ‘ardor, fervor’ adiera ematen dio: *gorpitzcekuac, eztitugunian, oussustamendureki desiratcen tugula; uken on-*

*duan, hetçaz cassu guti eguiten dugula* (30). *OEH-k* *sustatu* & *suztatu* aditzaren kide egiten du *usustatu* aditza, gure liburuaren dena: *Gincoaren amoriuaz ous-sustatu içaitzia, nun hura gabe kazi ecin bici baitaite* (347).

*uztaill(a):* Zuberoan *üztaila* eta Baxenabarrren *uztalla* ibili izan dira. *Pratica-n uztaillaren* (451) ageri da, baina ez dakar liburuak berak, L.-M. Suarés d’Aulanen onespenak baizik. Ez da aise hitzak -a hori berezkoa duen ala ez duen jaka-tea. Bestalde, Inxauspek <uztarilaren> dakar 1857ko elhestaldietan (95); ultrazuzenketa dirudi, garai hartantsu ari baitzen galtzen bokal arteko r kontsoantea Zuberoan.

*xar* & *xarki:* *eci bestimenda arrunt eta char bat içan dieiteçu hala bestituric denarendaco urgulusco occasione bat* (272); *bere buriaz opinione apal edo char baten ukeiithia* (278); *apairietan oroc haxarreticano huna emaiten dicie eta gomitac berotu direnian ano charrena* (374); *bestimenda ihetzci char bat ekarten diena ahalguetzen edo humiliatcen badu* (398); *eskele bat arropa charrez bestithia batzen cienian* (429). Hona adizlaguna orain: *umilitathia doola charki bestituric içaithian etal lan apal eta mezperetzchagarrien egithian* (275). Adibideotan ‘hutsala, balio gutikoa, kaxkarra, umila, txarra’ adiera dago; idazleetan Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, Axularrek, Oihenartek, Maissterrek, *Charlemagne* pastoralak darabilte aldaera hau adiera honetan eta baita Gèzek er, baina Ibarrolako Salaberrik eta Larrasketek ez. Berebat, *OEH-k* Zuberoan *ebi xehe xarra* dakar eta *gauza xaren sintagma Amikuzen*.

*xerku:* *Jauna cherka çäcu eta iraun cherku harten* (67); *cherçun ibili gabe* (77); *eztuuç necessario aboro haren cherkun ar citen* (156-7); ‘bilaketa’ adieran darabil. Hondarreko bi adibideetan ikusten denez, inesiboa ere har dezake hitzak.

Tartasek *tixerku* dakar eta Maisterrek *tixerku*.

*xoil & xoilki*: ‘soilik, baizik ez, besterik ez’ edo esklusibitate adieran. Hona bi adibide: *Aita Seindiaren choil Imprimuçaliaren Beithan* (liburuaren azala); *Liberu hedatu horren pparte bat gende comunaren hoben denaren choilki Heuzcarala itçuliz eta besthiac utciz* (6).

*xorte*: zorte oinarriaren palatalizazioa; *guiçonac chorthia eguiten diela, bena Jaunac çatitcen* (304); *hilen chorthia biciena beno hobe çaut eta uzte uken dut...* (342). Tartasek *sortia* darabil, baina Maisterrek *zorthia* eta Jauretxek *xorte & zorte*; Ibarrolako Salaberrik ere *xorthe* dakar. Gure liburuan ere *xorthez* dator: *nabi baitcien chorthez Apostolu kargura alchathia içan çadin* (304).

*zatitu*: adiera ‘agintzea’ du, erabakimen kutsarekin; *seindimendu bat Gincoaren borondatera eguiteco gauça orotan, harc çatitu placer dien beçala, harten ahal beçanbat egon cite* (130) eta jatorrizkoan ere hala da, ‘ordenar / ordonne’; cf. beste hau ere: *guiçonac chorthia eguiten diela, bena Jaunac çatitcen* (304), non jatorrizkoak honela baitio: *que no salen sino con órden de la divina providencia* (I, 353) / *mais c'est le Seigneur qui régle le sort* (RD 2, 309).

*zaurthu*: haren *huinçoletaric burthinaro-kuan* haren gorpitz *divinuan eztela lekuric çaurthia eztenic* (158); *zauritu-ren ordain Ipar Euskal Herrian zaurtu dago Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan*. Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, Axularrek, Oihenartek, Pouvreauk, Gazteluzarrek, Etxeberri Sarakoak, Maisterrek edo Baratziartek *zaurt(h)u* dute

eta Ibarrolako Salaberriren eta Gèzeren hiztegietan *zaurtu* dator.

*zertako*: xedezko nahiz kausazko adieran. Hona xedezkoan: *trezor orotan den handiena, Gincoaren eçagutcia, cerbitzhatcia eta maithatcia duçu; hori da guc dugun eitecoric handiena, edo hobeki erraiteco, bacarra; hara certaco creathiac içan guiren*: (11). Ondokoa kausala da: *Erregue Propheta becatoriaz minço delaric, ciòçu: estu Gincoa beguien aitcinian eta hara certaco crima suerte guciez beti saxuthia den* (72).

*zoñenbeste*: ingurunea menpeko perpau-seko galdera da edo galdera erretorikoa; ‘zenbat’ adierazten du: *Eguiaz nehorc consideratcen dienian edo goguan era-biltzen Gincoa guretaco çoinhen hun eta misericordioz den, çoinhenbeste maite guithien, çoinhenbeste egun eta sofritu dien guretaco* (115). Galdera erretorikoa: *Çoinhenbeste eraste suergaraiteco gure mibietan?* (289).

*zurthaje*: ‘zureria’ edo ‘zurajea’ adieran. Hona adibide bat: *ikuzthiaz etchetaco çurthagiak eta harriak erorten eta guiçon mortalac hiltcen* (309); *zurthaje Zuberoan ibiltzen da*. Oztibarreko Jutsin eta Amikuzeko Garruze, Arboti edo Arruetan, berriz, *zurthai(a)* dago (*Euskal Herri Hizkeren Atlas*).

*zurtate*: *ithachur hetaric sartcen den hou-rac emeki-emeki edo doya-doya çurtathia ouztelcen diela* (39). Adieraz ‘zureria’ edo ‘zurajea’ da, eta hitza “zurtate” dela ematen du, honelaxe ibiltzen da egun Baxenabarreko Behorlegin, Lartzabalen, Gamarten, Landibarren edo Armendaritzen.

«Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegiaren Aldizkariaren Gehigarriak  
Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»  
*Publications of «Julio de Urquijo» Seminar of Basque Philology*

- I. *El Seminario “Julio de Urquijo”. Antecedentes y constitución*, 1955. Agotado.
- II. JOSÉ MARÍA LACARRA, *Vasconia medieval. Historia y filología*, 1957. Agotado.
- III. MANUEL AGUD - LUIS MICHELENA, *Landuccio, Dictionarium Linguae Cantabricae (1562)*, 1958. Agotado.
- IV. LUIS MICHELENA, *Fonética histórica vasca*, 1990 (1961<sup>1</sup>, 1977<sup>2</sup>, 1985<sup>3</sup>). 18 €.
- V. NILS M. HOLMER, *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*, 1991 (1964<sup>1</sup>). 12 €.
- VI. LUIS VILLASANTE, *Pedro A. de Añíbarro, Gramática vascongada*, 1970. 8 €.
- VII. CÁNDIDO IZAGUIRRE, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. (Índice inverso de Gerardo Markuleta), 1994 (1970<sup>1</sup>). 12 €.
- VIII. *Papers from the Basque Linguistics Seminar. University of Nevada. Summer 1972*, 1974. 10 €.
- IX. JULIEN VINSON, *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, 1984. 18 €.
- X. LUIS MICHELENA, *Sobre historia de la lengua vasca*, 1988. 2 vols. Agotado.
- XI. LUIS MICHELENA - IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 12 €.
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 8 €.
- XIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 36 €.
- XV. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. men-deak*, 1992. 18 €.
- XVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de “Charlemagne”*, 1990. 18 €.
- XVII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. men-deak*. Prestatzen.
- XVIII. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, 1994. 10 €.
- XIX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, II. Ardun-Beuden*, 1990, 1993. Agotado.
- XX. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1990 (1963, 1986). 8 €.
- XXI. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación*, 1991. 12 €.

- xxii. LASZLÓ K. MARÁCZ, *Asymmetries in Hungarian*, 1991. 15 €.
- xxiii. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 10 €.
- xxiv. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, III. Beule-Egileor (Barraso-Bazur)*, 1991. Agotado.
- xxv. JOSÉ M.<sup>a</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 15 €.
- xxvi. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, IV. Egiluma-Galanga*, 1991. Agotado.
- xxvii. JOSEBA A. LAKARRA - JON ORTIZ de URBINA (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, 1992. 18 €.
- xxviii. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailaren 2-6)*, 1994. 21 €.
- xxix. JOSÉ I. HUALDE - XABIER BILBAO, *A phonological study of the Basque dialect of Getxo*, 1992. 8 €.
- xxx. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, V. Galani-Iloza*, 1992. 8 €.
- xxxi. KARLOS OTEGI, *Lizardi: lectura semiótica de "Biotz-begietan"*, 1993. 18 €.
- xxxxii. AURELIA ARKOTXA, *Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti (1933-1975)*, 1993. 18 €.
- xxxxiii. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VI. Ilpiztu-Korotz*, 1993. 8 €.
- xxxxiv. JOSÉ I. HUALDE - GORKA ELORDIETA - ARANTZAZU ELORDIETA, *The Basque dialect of Lekeitio*, 1994. 18 €.
- xxxxv. GEORGES REBUSCHI, *Essais de linguistique basque*, 1997. 18 €.
- xxxxvi. XABIER ARTIAGOITIA, *Verbal projections in Basque and minimal structure*, 1994. 12 €.
- xxxxvii. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VII. Korpa-Orloi*, 1994. 8 €.
- xxxxviii. PATXI GOENAGA (ed.), *De grammatica generativa*, 1995. 18 €.
- xxxxix. ANTONIO CID, *Romancero y balada oral vasca. (Literatura, historia, significado)*. En preparación.
- xl. AMAIA MENDIKOETXEA - MYRIAM URIBE-ETXEARRIA (eds.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*, 1997. 21 €.
- xli. BERNARD HURCH - MARÍA JOSÉ KEREJETA, *Hugo Schuchardt - Julio de Urquijo: Correspondencia (1906-1927)*, 1997. 21 €.
- xlii. JOSÉ I. HUALDE, *Euskararen azentuerak*, 1997. 15 €.
- xliii. RUDOLF P. G. de Rijk, *De lingua Vasconum: Selected Writings*, 1998. 15 €.
- xliv. XABIER ARTIAGOITIA - PATXI GOENAGA - JOSEBA A. LAKARRA (arg./eds.), *Erramu Boina: Festschrift Rudolf P. G. de Rijk*, 2002. 30 €.
- xlv. JOSEBA A. LAKARRA, *Ikerketak euskararen historiaz eta euskal filologiaz*. Argitaratzeko.

- XLVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*, 2003. 18 €.
- XLVII. BLANCA URGELL, *Larramendiren "Hiztegi Hirukoitz"-ren Eranskina: saio bat hiztegigin-tzaren testukritikaz*, 2002. 21 €.
- XLVIII. ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ, *"Aitorkizunen" historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren ediziora*, 2003. 21 €.
- XLIX. GOTZON AURREKOETXEA - XARLES VIDEGAIN (arg.), *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, 2004. 21 €.
- L. JOSEBA A. LAKARRA, *Raíz y reconstrucción del protovasco*. En prensa.
- LI. XABIER ARTIAGOITIA - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren Omenez*, 2008. 24 €.
- LII. BEATRIZ FERNÁNDEZ - PABLO ALBIZU - RICARDO ETXEPARE (arg.), *Euskara eta euskarak. aldakortasun sintaktikoa aztergai*. 18 €.
- LIII. GOTZON AURREKOETXEA - JOSE LUIS ORMAETXEA (eds.), *Tools for Linguistic Variation*. 18 €.
- LIV. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo I (Lingüística histórica), 2011. 18 €.
- LV. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo II (Lingüística general), 2011. 15 €.
- LVI. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo III (*Paleohispanica*), 2011. 15 €.
- LVII. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo IV (Exposiciones generales sobre la lengua vasca. Tipología y parentesco lingüístico), 2011. 15 €.
- LVIII. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo V (Historia y geografía de la lengua vasca), 2011. 21 €.
- LIX. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo VI (*Fonética histórica vasca*), 2011. 21 €.
- LX. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo VII (Fonética y fonología. Morfosintaxis. Dialectología), 2011. 24 €.
- LXI. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo VIII (Lexicografía. Historia del léxico. Etimología), 2011. 24 €.
- LXII. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo IX (Onomástica), 2011. 21 €.
- LXIII. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo X (Norma y unificación de la lengua. Historia de la Vascología. Presente y futuro de la Vascología. Reseña de gramáticas, métodos y diccionarios), 2011. 24 €.
- LXIV. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo XI (Textos vascos), 2011. 24 €.
- LXV. JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo XII (*Textos arcaicos vascos. N. Landuchio, Dictionarium linguae, Cantabricæ - 1562*), 2011. 18 €.

- LXVI JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo XIII (Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX), 2011. 21 €.
- LXVII JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo XIV (Escritos autobiográficos y literarios. Traducciones. Actualidad política y cultural. Entrevistas. Crítica de cine. Cuestiones históricas y culturales), 2011. 21 €.
- LXVIII JOSEBA A. LAKARRA - ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras completas de Luis Michelena*, tomo XV (Bibliografía. Índices), 2012. 18 €.
- LXIX IRANTZU EPELDE (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, 2011. 16 €.
- LXX BRUNO CAMUS BERGARECHE - SARA GÓMEZ SEIBANE (eds.), *El castellano del País Vasco*, 2013. 17 €.

MONUMENTA LINGuae VASCONUM  
STUDIA ET INSTRUMENTA

- I. BLANCA URGELL, *Larramendiren "Hiztegi Hirukoitza"-ren Eranskina: saio bat hiztegigin-tzaren testukritikaz*, 2002, (= Gehigarriak XLVII). 21 €.
- II. ÍÑIGO RUIZ ARZALLUZ, *"Aitorkizunen" historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren ediziora*, 2003, (= Gehigarriak XLVIII). 21 €.
- III. JOSEBA A. LAKARRA, *Ikerketak euskararen historiaz eta euskal filologiaz* (= Gehigarriak XLV). Argitaratzeko.
- IV. OROITZ JAUREGI, *Correspondencia de Gerhard Bähr con R. M. Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944)*, (= ASJU XXXVI-2), 21 €.
- V. CÉLINE MOUNOLE HIRIART-URRUTY, *C. H. de Belsunce Bizkondea. Tableau analytique et grammatical de la langue basque (1858): azterketa eta edizioa* (= ASJU XXXVII-2). 21 €.
- VI. IÑAKI CAMINO, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinbo perfeccio-niaren praticaren pparte bat (1782)-Edizioa eta azterketa* (= ASJU XLVII-1). 21 €.

# BIBLIOGRAFIA-LABURDURA GOMENDATUAK ABREVIATURAS BIBLIOGRÁFICAS RECOMENDADAS RECOMMENDED BIBLIOGRAPHICAL ABBREVIATIONS

Hemen agertzen ez denerako, erabil bitez *Orotariko Euskal Hiztegi-koak*.

*Para las obras no citadas abajo, se emplearán las abreviaturas del Diccionario General Vasco.*

For any works which do not appear below, the abbreviations given in the *Diccionario General Vasco* should be used.

<i>AEF</i>	= <i>Anuario de Eusko Folklore</i> , Vitoria-Gasteiz, 1921-1936; Donostia-San Sebastián, 1956-
<i>AION</i>	= <i>Annali dell'Istituto Orientale di Napoli</i> , Napoli, 1979-
<i>ASJU</i>	= <i>Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo". International Journal of Basque Linguistics and Philology</i> , Donostia-San Sebastián, 1954-1955, 1967-
<i>Azk</i>	= Resurrección M. <sup>a</sup> de Azkue, <i>Diccionario vasco-español-francés</i> , Bilbao, 1905-1906 [1969 <sup>2</sup> , 1984 <sup>3</sup> ].
<i>Azk Morf</i>	= Id., <i>Morfología vasca (Gramática básica dialectal del euskera)</i> , Bilbao, 1923-1925 [1969 <sup>2</sup> ].
<i>BAP</i>	= <i>Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País</i> , Donostia-San Sebastián, 1945-
<i>BGS</i>	= Beiträge zur Geschichte der Sprachwissenschaft, Münster, 1991-
<i>BISS</i>	= <i>Boletín de la Institución "Sancho el Sabio"</i> , Vitoria-Gasteiz, 1957-81. Vide <i>Sancho el Sabio</i> .
<i>BMB</i>	= <i>Bulletin du Musée Básque</i> , Baiona, 1924-43, 1964-
<i>BRAE</i>	= <i>Boletín de la Real Academia Española</i> , Madrid, 1914-
<i>BRAH</i>	= <i>Boletín de la Real Academia de la Historia</i> , Madrid, 1877-
<i>BSL</i>	= <i>Bulletin de la Société de Linguistique de Paris</i> , Paris, 1884-
<i>BLA</i>	= <i>(Proceedings of the) Berkeley Linguistics Society</i> , Univ. of California, Berkeley, 1975-
<i>CAJ</i>	= <i>Central Asiatic Journal</i> , Wiesbaden, 1955-
<i>Campión</i>	= Arturo Campión, <i>Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua éuskara</i> , Iruñea/Pamplona, 1884 [1977 <sup>2</sup> ].
<i>CEEN</i>	= <i>Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra</i> , Pamplona, 1969-
<i>CIL</i>	= <i>Corpus Inscriptionum Latinarum</i> , Berlin, 1863-
<i>CLAO</i>	= <i>Cahiers de Linguistique - Asie Orientale</i> , Paris, 1971-
<i>CLS</i>	= <i>(Proceedings of the) Chicago Linguistics Society</i> , Univ. of Chicago, 1965-

- Contr* = Ibon Sarasola, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU* 17 (1983): 69-212. L. Michelena & I. Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución...*, Anejos de *ASJU* 11, Donostia-San Sebastián, 1989.
- DCECH* = Juan Corominas & José Antonio Pascual, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madrid, Gredos, 1980-1991.
- DELL* = Alfred Ernout & Antoine Meillet, *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots*, Paris, 1932 [1939<sup>2</sup>, 1951<sup>3</sup>, 1959<sup>4</sup>].
- DGV* = vide *OEH*.
- Diachronica* = *Diachronica. International Journal for Historical Linguistics*, Amsterdam-Philadelphia, 1984-
- DRA* = Manuel de la Sota, Pierre Lafitte, Lino de Akesolo. et al., *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*, Bilbao, 1976-1989.
- Euskera* = *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, Bilbao, 1920-1936, 1953-
- EAA* = *Estudios de Arqueología alavesa*, Vitoria-Gasteiz, 1966-
- EFDA* = Luis Michelena, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao, 1970 [= Azk 1984].
- EFOu* = *Études finno-ougriennes*, Paris, 1964-
- EH* = Ibon Sarasola, *Euskal hiztegia*, Donostia-San Sebastián, 1996.
- EI* = Ana M.<sup>a</sup> Echaide (arg.), *Erizkizundi irukoitzta*, Bilbao, 1984.
- EJ* = *Eusko Jakintza*, Baiona, 1947-1957.
- ELH* = *Enciclopedia Lingüística Hispánica*, Madrid, 1959-
- FEW* = W. von Wartburg, *Französisches Etymologisches Wörterbuch*, Bonn, 1928-
- FHV* = Luis Michelena, *Fonética histórica vasca*, Anejos de *ASJU* 4, Donostia-San Sebastián, 1961, 1977<sup>2</sup> [1985, 1990].
- FLV* = *Fontes Linguae Vasconum. Studia et documenta*, Iruñea/Pamplona, 1969-
- FL* = *Folia Linguistica. Acta Societatis Linguisticae Europaeae*, Berlin-New York, 1967-
- FLH* = *Folia Linguistica Historica. Acta Societatis Linguisticae Europaeae*, Berlin-New York, 1980-
- GH* = *Gure Herria*, Baiona, 1921-
- HEL* = *Histoire, Epistémologie, Langage*, Paris, 1979-
- HL* = *Historiographia Linguistica: International Journal for the History of the Language Sciences*, John Benjamins, 1974-
- HLEH* = Ibon Sarasola, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, Donostia-San Sebastián, 1984-1995. Vide *EH*.
- HLV* = Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca*, Madrid, 1960 [1988].
- HLV* = Luis Villasante, *Historia de la literatura vasca*, Bilbao, 1961, 1979<sup>2</sup>.
- HomUrg* = *Homenaje a don Julio de Urquijo e Ybarra*, Donostia-San Sebastián, 1949-1951.

- HSLV* = Ibon Sarasola, *Historia social de la literatura vasca*, Madrid, 1976 [1982].
- IEW* = Julius Pokorny, *Indogermanisches Etymologisches Wörterbuch*, Berna, 1951-1969.
- IF* = *Indogermanische Forschungen*, Berlin, 1892-
- IJAL* = *International Journal of American Linguistics*, Chicago, 1917-
- IL* = *Indian Linguistics. Journal of the Society of India*, Pune (India), 1931-
- IMU* = *Italia medioevale e umanistica*, Padova, 1958-
- Incipit* = *Incipit. Seminario de edición y crítica textual*, Buenos Aires, 1981-
- JALL* = *Journal of African Languages and Linguistics*, Berlin-New York, 1979-
- JEAL* = *Journal of East Asian Linguistics*, Berlin, etc., 1992-
- JWAL* = *Journal of West African Languages*, Dallas, 1964-
- Lexicographica* = *Lexicographica. Internationales Jahrbuch für Lexikographie*, Tübingen, 1985-
- Lg* = *Language*, Baltimore, 1924-
- Lb* = P. Lhande, *Dictionnaire basque-français*, Paris, 1926.
- LH* = Luis Michelena, *Lengua e historia*, Madrid, Paraninfo, 1985.
- LI* = *Linguistic Inquiry*, Cambridge (Mass.), 1971-
- MDEV* = Manuel Agud & Antonio Tovar, *Materiales para un diccionario etimológico vasco (A-orlo)*, Anejos de *ASJU* 13, 19, 24, 26, 30, 33, 37, Donostia-San Sebastián, 1989-1994.
- Memoriae* = Joseba A. Lakarra (ed.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Anejos de *ASJU* 14, Donostia-San Sebastián, 1991.
- NLLT* = *Natural Language and Linguistic Theory*, Dordrecht, 1983-
- NTS* = *Norks Tidsskrift for Sprogvidenskap*, Oslo, 1928-
- OEH* = Luis Michelena, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*, Donostia-San Sebastián, 1987-2005.
- OL* = *Oceanic Linguistics*, Univ. of Hawaii, 1962-
- Phonology* = *Phonology*, Cambridge, 1984-
- PT* = Luis Michelena, *Palabras y textos*, Bilbao, UPV/EHU, 1987.
- PV* = *Príncipe de Viana*, Pamplona, 1940-
- RDTP* = *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, Madrid, 1944-
- REW* = W. Meyer-Lübke, *Romanisches etymologisches Wörterbuch*, Heidelberg, 1930<sup>3</sup>.
- RFE* = *Revista de Filología Española*, Madrid, 1914-
- RIEV* = *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, Paris-San Sebastián, 1907-1936, 1983-
- RLPhC* = *Revue de Linguistique et Philologie Comparée*, Paris, 1867-1916.
- RPh* = *Romance Philology*, Berkeley (CA), 1947-
- SAL* = *Studies in African Linguistics*, Bloomington (Indiana) / Columbus (Ohio), 1970-

- Sancho el Sabio* = *Sancho el Sabio: revista de cultura e investigación vasca = euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, Vitoria-Gasteiz, 1991-
- SHLV* = Luis Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*, Anejos de *ASJU* 10, J. A. Lakarra (ed.), Donostia-San Sebastián, 1988.
- Symbolae* = José Luis Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mixteleni Septuagenario Oblatae*, Vitoria-Gasteiz, Instituto de Ciencias de la Antigüedad-Antzinate-Zientzien Institutua, 1985.
- Syntax* = *Syntax, A Journal of Theoretical, Experimental and Interdisciplinary Research*, Oxford, etc., 1998-
- TAV* = Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro, 1964 [= Luis Michelena - Ibon Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución*, Anejos de *ASJU* 11, Donostia-San Sebastián, 1989].
- TPh* = *Transactions of the Philological Society*, London, 1842-
- UAJ* = *Ural-Altaische Jahrbücher*, Wiesbaden, 1981-
- Vinson = Julien Vinson, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, París, 1891-1898 [vide Vinson-Urquijo].
- Vinson-Urquijo = Julien Vinson, *Essai... con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, Anejos de *ASJU* 9, Donostia-San Sebastián, 1984.
- ZRPh* = *Zeitschrift für romanische Philologie*, Halle, 1877-

## EGILEENTZAKO OHARRAK

*ASJU*-n euskaraz edo nazioarteko zientzi elkartean ohiko diren hizkuntzako batean idatziriko euskal linguistika eta filologiazko lanak argitaratzen dira, baita eremu ezberdin edo zabalago bat atxikiak izan arren, euskalaritzarako interesgarri izan daitezkeenak ere. Originalak helbide honetara bidali behar dira: Joseba A. Lakarra, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, Letren Fakultatea, Unibertsitateko ibilbidea 5, 01006 Gasteiz ([joseba.lakarra@ehu.es](mailto:joseba.lakarra@ehu.es)).

*ASJU*-raigoritako artikuluak gutxienez bi aztertzailek irakurriko dituzte, haien iruzkinak kontuan iza-nik atera edo ez erabakitzeko; erabakia ahalik eta lasterren gaztigatuko zaie egileei. Artikula onartzekotan, oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda ere emango zaie. Egileek lehendabiziko inprenta probak jasoko dituzte (eta originalarekin batera itzuli beharko dituzte); eskuratzentzu astebeteko epea izango dute zuzentzeko. Argitaratzalearen baimenik gabe ezingo dute garrantzizko aldaketa, gehiketa edo kenketarik egin. Egileei *ASJU*-ko zenbakia ale bana eta lanaren separata elektronikoa emango zaie.

Ez da inongo murrizketarik originalen luzeraz, baina ez lukete izan behar berez behar baino gehiagokoa; lanek zehatzak eta argiak beharko dute izan. Berariazko abegia egingo zaie ohar laburrei, batez ere dagoeneko argitaratu beste lanen bat kritikatzen edo garatzen dutenean.

Originalen hasieran egilearen/egileen helbidea, telefona eta helbide elektronikoa ezarriko dira; biko espazioan, orrialde bakarrean, eta zein-nahi argitasun edo zuzenketarako albo guztiak zuriune zabalekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta oin-oharrak segidako zerrendan zenbatuko dira. Lana euskal-rri elektronikoan (programa erabilienetako batean) eta paperean (3 kopia) bidaliko da. Horrekin batera 10-20 lerroko laburpena ere erantsiko da. Aurkeztu baino lehen zuzen bedi ahalik eta hobekienik originala, inprenta hutsak gutxitzeko; orobat, argazki, lauki, mapa, grafiko, taula, irudi, etab. emanet gero, izan bitez kalitaterik handienekoak gardentasunik gal ez dezaten. Hauek guztiak zenbatuko dira eta ezagutzeko oinperpaus laburra erantsiko zaie, testuan ere non jarri nahi diren argiro markaturik. Adibideak zenbatu egingo dira: (1), (2)a, (2)b, etab.; testuan aipatzerakoan egin bedi era honetan: (2a), (2b), (2a, b), (4d-h), etab. Inprentan ohiko ez den zein-nahi zeinu, letra edo diakritikoren azalpen argia ezarriko da lehendabiziko age-raldiaren testu aldameneko zuriunean.

Testua honako arauok beteaz aurkeztuko da: Aipu luzeak ahapaldi berezian joango dira, sangratuta, hasiera eta amaiera kakotzik gabe, letra borobilean; aipu laburra ere borobilean, testuan bertan eta kakotx bikoitzent artean (“ ” edo « »). Kakotx bakunak (‘ ’) adierak edo hitz solteen itzulpenak emateko baliatuko dira. Metalinguistikoki erabilitako edota artikulua idatzeko erabili den hizkuntzaz beste bateko hitzak letra etzanean ezarriko dira.

Liburu eta aldizkarien izenei letra etzana dagokie, eta kakotxak artikuluei. Aldizkarien zenbaki, urte eta orrialdeak eta liburu-en argitalte eta edizio (ez inprimatz) tokia emango dira. Hala dagokionean, berriprimitzea, berrargitalpena edo itzulpena den zehatztuko da. Aipuetarako erabil bedi urte-egile sistema, ahal den neurrian, eta urte bereko egile batetan lan bat baino gehiago aipatu bada, a, b... hurrenkeran bereiziko dira: adib. (Vinson 1897a: 35-38), (ikus Lacombe 1924, Azkue 1923-25, Uhlenbeck 1947b). Amaierako bibliografiarik ez bada, eman bitez bibliografia zehaztasunak oro soilik lehen agerraldian, eta ondokoe-tan egilearen deitura eta lanaren izenburu laburtua bakarrik, *op. cit.* eta *ibidem* direlakoak sahestuaz: adib. Guerra, *Cantares*, 22-24. Bibliografia ere biko espazioan idatziko da, eta honako formatu honi atxikiko zaio:

- Mitxelena, K., 1950b, “La aspiración intervocálica”, *BAP* 6, 443-449. Berrarg. bere *Sobre historia de la lengua vasca*, *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia 1988, I, 191-202.  
—, 1981a, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 291-313. Berrarg. bere *Palabras y Textos*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz 1987, 35-55.  
Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.  
Rijk, R. P. de, 1985, “Un verbe méconnu”, in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, II, 921-935.  
Sarasola, I., 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20: 1, 203-216.

Bibliografi laburduretarako erabil bedi ale honetan bertan erantsi den laburdura gomendatuen zerrenda. Beharrezko balitz, egileak besterik ere erabili ahalko luke, beti ere esangura lehendabiziko agerraldian azaldurik.

## INFORMATION FOR AUTHORS

Papers on Basque linguistics and philology, and more general fields related or of interest to Basque studies are accepted, provided they are written in the languages most used by the international scientific community. Submissions should be sent to: Joseba A. Lakarra, Department of Linguistics and Basque Studies, Letter Faculty, Unibertsitate Etorbidea/Paseo de la Universidad 5, 01006 Vitoria-Gasteiz ([joseba.lakarra@chu.es](mailto:joseba.lakarra@chu.es)).

Papers received by *ASJU* are submitted to at least two reviewers; the decision on publication is communicated to the author(s) within as short a time as possible. Should a paper be accepted, a list of objections or changes deemed necessary will be sent to the author(s). When the authors receive the first proofs of their work, these should be returned to the editor together with the original within one week. No changes, additions or deletions may be made without the permission of the editor. Authors receive a copy of the *ASJU* volume in which their article appears and an e-offprint of the work.

There is no restriction on the maximum length of submissions, but they should be no longer than is necessary; authors must be concise and clear. Preference will be given to short notes, especially when they offer critique or elaborate on previously published papers.

The originals, which should include the address, telephone number(s) and e-mail of the authors(s) in the first lines, must be typed and double-spaced throughout on single-sided sheets; this also applies to the notes. Wide margins for possible corrections or clarifications are required. Pages are to be numbered serially, as are the notes. Manuscripts must be submitted in digital format (in one of the commonly used program formats) together with three printed copies, and must include an abstract of 10-20 lines. It is recommended that the paper be carefully corrected before presentation to avoid possible errors, and that photographs, pictures, maps, graphs, tables, figures, etc. be of the best possible quality to avoid loss of detail in reproduction. These graphics should all be numbered and have a short footnote or key for identification; their approximate position in the text should also be indicated. Examples should be labelled consecutively by numbers enclosed in brackets: (1), (2)a, (2)b, etc.; these bracketed numbers should be used in the body of the text when referring to examples, like so: (2a), (2b), (2a, b), (4d-h), etc. A clear description of any unusual symbols, characters or diacritics should be provided in the margin on their first occurrence.

The text must be formatted as follows: long quotations must be indented, without inverted commas at the beginning and end of the text, in plain type; short quotations, also in plain type, must be enclosed by double inverted commas (" " or « »). Single quotation marks (' ') are to be used to denote translations of isolated terms. Terms used metalinguistically or in a language different to that of the text should be in italics.

The titles of books and journals should be in italics and those of papers between inverted commas. The issue, year and page numbers of journals should be given, and for books, the publisher's name and place of edition; where relevant, state whether the quotation is from a reprint, reedition or translation. Where possible use the author-year system for quotation, e.g. (Lafite 1976a: 35-38), (see Schuchardt 1900, Azkue 1923-25, 1935). Otherwise, the complete bibliographical information should be given only on the first occurrence, limiting any subsequent references to the surname of the author and the abbreviated title (avoiding notations such as *op cit.* and *ibidem*), e.g. Altuna, *Versificación*, pp. 43-57. The bibliography must also be double-spaced, with the following format:

- Mitxelena, K., 1950b, "La aspiración intervocálica", *BAP* 6, 443-449. Reed. in *Sobre historia de la lengua vasca*, Supplements of *ASJU* 10, Donostia 1988, I, 191-202.  
—, 1981a, "Lengua común y dialectos vascos", *ASJU* 15, 291-313. Reed. in *Palabras y Textos*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz 1987, 35-55.  
Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.  
Rijk, R. P. de, 1985, "Un verbo méconnu", in J. L. Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelenae Septuagenario Oblatae*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, 921-935.  
Sarasola, I., 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* 20: 1, 203-216.

For abbreviations of secondary sources the "Abbreviation Index" published in this issue should be used. If necessary, other abbreviations may be used, and these should be made explicit on their first appearance in the text.

## INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES

*ASJU* publica artículos sobre lingüística y filología vasca y campos más generales relacionados con o de interés para la vascología, escritos en euskera o en cualquiera de los idiomas utilizados por la comunidad científica internacional. Los originales se enviarán a: Joseba A. Lakarra, Depto. de Lingüística y Estudios Vascos, Facultad de Letras, Paseo de la Universidad 5, 01006 Vitoria-Gasteiz ([joseba.lakarra@ehu.es](mailto:joseba.lakarra@ehu.es)).

Los artículos recibidos en *ASJU* son examinados al menos por dos revisores, cuyos informes condicionan su aceptación; la decisión será comunicada a los autores lo antes posible. En caso de aceptarse el artículo, se enviará al autor una lista de objeciones o cambios necesarios. Los autores recibirán las primeras pruebas de su trabajo (que deberán devolver junto con el original), y dispondrán para corregirlas de un plazo no superior a una semana desde su recepción. No podrán hacerse cambios, adiciones o supresiones importantes sin permiso del editor. Se entregará a cada autor un ejemplar del *ASJU*, y una separata electrónica de su trabajo.

No existe restricción alguna sobre la longitud máxima de los originales, pero no deben ser más largos de lo necesario; los autores han de ser concisos y claros. Se dará preferencia a notas breves, particularmente cuando critiquen o desarrolleen artículos publicados con anterioridad.

Los originales, al comienzo de los cuales se hará constar la dirección, el teléfono y la dirección electrónica del(os) autor(es), se presentarán escritos a doble espacio y por una sola cara, con márgenes amplios para posibles correcciones y aclaraciones. Las páginas irán numeradas correlativamente, así como las notas. Los manuscritos se enviarán en soporte electrónico (en alguno de los programas más usados) y en papel por triplicado, e irán acompañados de un resumen de entre 10 a 20 líneas. Se recomienda que el original sea corregido antes de su presentación para minimizar las erratas, y que fotografías, cuadros, mapas, gráficos, tablas, figuras, etc., sean de la mejor calidad posible para evitar pérdidas de detalle en la reproducción; todos ellos irán numerados y llevarán un breve pie o leyenda para su identificación; se indicará asimismo el lugar aproximado de colocación en el texto. Los ejemplos irán numerados: (1), (2)a, (2)b, etc.; al referirse a ellos en el texto se usará el formato (2a), (2b), (2a, b), (4d-h), etc. Se aclarará al margen en su primera aparición en el texto cualquier símbolo, carácter o marca diacrítica inusual.

El texto se presentará de acuerdo con las siguientes normas:

1) Las citas largas irán en texto sangrado, sin comillas al principio y final, en letra redonda; las citas breves, también en redonda, irán entre comillas dobles (" " o « »). Se usarán los ápices (‘ ’) para denotar acepciones o traducciones de términos aislados. Los términos utilizados metalingüísticamente o en una lengua distinta a aquella en la cual está redactado el texto irán en cursiva.

2) Los títulos de libros y revistas irán en cursiva, y los de los artículos entre comillas. Se indicará el n.º, año y páginas correspondientes de las publicaciones periódicas, y editorial y lugar de edición de los libros; en su caso se indicará si se cita de una reimpresión, reedición o traducción. Úsese en la medida de lo posible el sistema autor-año para las citas, p. ej. (Lafitte 1967a: 35-38), (véase Schuchardt 1900, Azkue 1923-25, 1935). En su defecto, se darán datos bibliográficos completos sólo en la primera ocasión, limitándose en las siguientes a señalar apellido del autor y título abreviado, evitando *op. cit.* e *ibidem*: Altuna, *Versificación*, pp. 43-57. La bibliografía irá también a doble espacio, ajustándose al siguiente formato:

- Mitxelena, K., 1950b, “La aspiración intervocálica”, *BAP* 6, 443-449. Reproducido en su *Sobre historia de la lengua vasca*, Anejos del *ASJU* 10, Donostia 1988, I, 191-202.  
—, 1981a, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 291-313. Reproducido en su *Palabras y Textos*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz 1987, pp. 35-55.  
Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.  
Rijk, R. P. de, 1985, “Un verbo méconnu”, in J. L. Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, II, 921-935.  
Sarasola, I., 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20: 1, 203-216.

3) Para las abreviaturas de fuentes primarias o secundarias se recurrirá al índice de abreviaturas recomendadas publicado en este mismo número. En caso necesario el autor podrá utilizar otras, cuyo valor explicará en la primera aparición.